



EUSKO LEGBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
2005



EUSKO LEGEBILTZARRENTZAKO  
TXOSTENA - 2005. URTEA  
ARARTEKOA

© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI-82/06.



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
2005



**AURKIBIDEA**





<b>AURKEZPENA</b> .....	23
<b>I. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, KEXA-ESPEDIENTEAK ETA OFIZIOZKO KEXAK BIDERATZEAN</b> .....	27
1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA .....	31
<b>1.1. Sarrera</b> .....	31
<b>1.2. Aukeratutako kexak</b> .....	33
A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza ⇒ <i>Parke natural baten adierazpenak jabetza eskubidean duen eragina</i> .....	33
B) Kontsumoa ⇒ <i>Aire konprimituko pistolen salmenta ibiltaria</i> .....	35
C) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa ⇒ <i>Etxebizitzetarako energia elektrikoaren hornidura behin eta berriro etetea</i> .....	36
D) Animalien babesa ⇒ <i>Animalientzako aisialdi eremuak gaitzea</i> .....	37
2. GIZARTE ONGIZATEA.....	39
<b>2.1. Sarrera</b> .....	39
<b>2.2. Aukeratutako kexak</b> .....	50
A) Arreta bereziko taldeei laguntzea ⇒ <i>Udalerrri batean ibilgailuetan bizi diren pertsona atzerritarren kokalekuak</i> .....	50
⇒ <i>Gizarte eta osasun arloetan egindako diagnostiko desberdinak: Gizarte eta osasun laguntzaren beharra</i> .....	52
⇒ <i>Gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko koordinazio ezak sortutako ondorioak</i> .....	53
B) Ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzea ⇒ <i>Ezohiko egoerak gizarte-zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko betekizunaren (aurretiaz erroldatuta egotea) aurrean</i> .....	54
C) Adineko pertsonen laguntzea ⇒ <i>Egoitza bat itxeko erabakia. Administrazioak duen irizpide-askatasunerako eskumena</i> .....	55

D) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Egoitzarik gabeko pertsonak erroldatzea</i> .....	57
E) Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak	
⇒ <i>Ordaindutakoaren arabekoak ez diren pentsioetan gehie- nezko muga gisa kontuan hartu beharreko diru-sarrerak balioztatzeko irizpideak</i> .....	59
⇒ <i>Erroldatzea eta gizarte-zerbitzuen funtzioak</i> .....	61
3. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....	63
<b>3.1. Sarrera</b> .....	63
<b>3.2. Aukeratutako kexak</b> .....	65
Elebitasuna	
⇒ <i>Liburuak euskaraz: erreferentzia bibliografikoen katalogazioa braillez</i> .....	65
4. HEZKUNTZA .....	66
<b>4.1. Sarrera</b> .....	66
<b>4.2. Aukeratutako kexak</b> .....	71
A) Ikastegiak	
⇒ <i>Hezkuntza plangintza. Bilboko 5. barrutia</i> .....	71
B) Eskubideak eta betebeharrak	
⇒ <i>Eskola garraioa</i> .....	72
⇒ <i>Etkez etxeko irakaslaguntza egitaraua, Jokin C. kasuan auzipetutako adingabeentzat</i> .....	73
⇒ <i>Hezkuntza plangintza. A ereduaren hezkuntza eskaintza kentzea</i> .....	75
⇒ <i>Berritasunak ikasleak onartzeko prozesuetan: adopzioen kasua</i> .....	76
C) Haur hezkuntza	
⇒ <i>Zuzendaritza lanetan eta hizkuntz normalizazioko egitarau- tan aritu beharra haur eta lehen hezkuntzako ikastegietan</i> .	77
5. FUNTZIO PUBLIKOA .....	81
<b>5.1. Sarrera</b> .....	81
<b>5.2. Aukeratutako kexak</b> .....	89
A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa	
⇒ <i>Irakaskuntzako ordezkapenen zerrendan sartzea horretarako eskatzten den titulurik ez duten pertsonak</i> .....	89
⇒ <i>EHU. Eszedentzia amatasunagatik eta irakaskuntza-esleipe- na</i> .....	91
⇒ <i>Lekualdatze-lehiaketa bati buruzko epai bat aplikatzearen ondorioak</i> .....	93
B) Funtzio publiko orokorra	
⇒ <i>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. Ustiapen eta Saneamendu Saileko lanpostuetan sartzea. Hizkuntza-eskakizunak</i> .....	95
⇒ <i>Ezgaitasunen bat duten pertsonen hautapen-probak egoki- tzea</i> .....	98

C) Osasun alorreko funtzio publikoa	
⇒ <i>Lehen Mailako Atentzia Emateko Taldeetan lan egiten duten langile fakultatiboentzako eta erizaintzako dispersio geografikoko lekualdatze-osagarria .....</i>	101
6. OGASUNA.....	103
<b>6.1. Sarrera</b> .....	103
<b>6.2. Aukeratutako kexak</b> .....	106
A) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Administrazioak likidatzeko duen eskubidearen preskripzioa: premiamenduzko likidazio baten kontra egoteko motiboa ..</i>	106
B) Foru zergak - PFEZ	
⇒ <i>PFEZaren zerga oinarriaren murrizketak: Kontzeptu zibilaz bestelako konpentsazio pentsioko zerga kontzepturik ez dagoenez, murrizketaren zenbatekoa zehazteko senar-emazteen bereziketa araupetzen duen itunak dioenari aditu behar zaio, estu-estuan .....</i>	109
⇒ <i>Guraso bakarreko famili unitateak eta 18 urtetik gorako ondorengoak .....</i>	112
⇒ <i>Zelan aitortu behar diren alarguntasun pentsioak PFEZean</i>	113
⇒ <i>Borondatezko erretiroarengatik jasotako kalte-ordainak ez daude zergetatik salbuetsita .....</i>	114
C) Udal zergak - OHZ	
⇒ <i>Jabetza Erregistroan higiezinaren titular dena da zergaren subjektu pasiboa .....</i>	115
D) Udal prezio publikoak	
⇒ <i>Grebarako eskubidea baliatzearen eragina udaleko prezio publikoen kobrantzan .....</i>	116
E) Udal tasak	
⇒ <i>Zaborren tasa eta jarduerarik gabeko lokala .....</i>	118
7. HERRIZAINGOA.....	119
<b>7.1. Sarrera</b> .....	119
<b>7.2. Aukeratutako kexak</b> .....	136
A) Eskubideak eta askatasunak	
⇒ <i>Ertzaintzak ez du txostenean jaso identifikazio batean indarra erabili izana.....</i>	136
⇒ <i>Portugaleteko Udaltzaingoak ez du behar bezala ikertu jatorri atzerritarreko lagun bati tratu xenofoboa eman zion agente baten aurkako kexa .....</i>	138
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Ertzaintzako fitxategietan eta argazki-albumetan erregistratutako datu pertsonalak baliogabetzea .....</i>	141
⇒ <i>Desagertutako pertsona bat bilatzeko SOS Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, Gasteizko Udaltzaingoak eta Ertzaintzak burututako jardueretan izandako disfuntzioak .....</i>	142

⇒	<i>Poliziaren presentzia erreklamatzeko zuten herritar baten eskakizunaren aurrean Ertzaintzaren eta Bilboko Udaltzaingoen erantzun ez koordinatua .....</i>	145
C)	Trafikoa	
⇒	<i>Ibarrako Idoiaga enparantzan oinezkoen erregimena haustea .....</i>	146
⇒	<i>Ezarritako ereduaren arabera zehapen prozedura baten tramitazioa .....</i>	148
⇒	<i>Sopelan aparkatze mugatuaren erregimena (TAO) ezartzea .....</i>	149
<b>7.3.</b>	<b>Ertzaintzaren ziegien eta udal atxiloguneen egoera .....</b>	150
8.	JUSTIZIA .....	157
<b>8.1.</b>	<b>Sarrera .....</b>	157
<b>8.2.</b>	<b>Aukeratutako keak .....</b>	169
A)	Abokatu eta prokuradoreen elkargoak	
⇒	<i>Luzamenduak kexa baten ebazpenean; irregulartasunak zehapen prozedura batean .....</i>	169
B)	Justizia administrazioaren funtzionamendua	
⇒	<i>Erregistro zibil batek betetako zerbitzuan igarritako akatsak .....</i>	171
<b>8.3.</b>	<b>EAEko espetxeetako egoera .....</b>	173
9.	INGURUMENA .....	189
<b>9.1.</b>	<b>Sarrera .....</b>	189
<b>9.2.</b>	<b>Aukeratutako keak .....</b>	193
A)	Sailkatutako jarduerak bizilekuetarako lurzoruan	
⇒	<i>Eragozpenak kafe-antzokia den establezimendu baten ateak etengabe zabalik edukitzeak sortutako zarategatik .....</i>	193
⇒	<i>Ostalaritzako establezimendu batek sistematikoki ez betetzea ixteko ordua .....</i>	194
⇒	<i>Taberna baten jarduerak sortutako irregulartasunak .....</i>	196
⇒	<i>Keak eta gasak isurtzea, ostalaritzako establezimendu baten sukaldean aurkitu ziren hutsengatik .....</i>	198
B)	Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administrati- boa	
⇒	<i>Legar-hobi baten ustiatzea ixteko espedientearen tramita- zioan aurkitu diren irregulartasunak .....</i>	199
C)	Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk	
⇒	<i>Eragozpenak trenbideetako zirkulazioak sortutako karranken- gatik .....</i>	202
⇒	<i>Jarduera zinegetiko bat egiten den inguruneetan bizi diren pertsonek jasaten dituzten eragozpenak .....</i>	203
⇒	<i>Udalak ez jardutea bide publikoan kontzertuak egiteak sor- tutako zaraten eragozpenen aurrean .....</i>	205

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK .....	208
<b>10.1. Sarrera</b> .....	208
<b>10.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	215
A) Irisgarritasuna	
⇒ <i>Administrazioen arteko lankidetzak hiri garraioaren irisgarritasun arazoak ere konpontzen ditu</i> .....	215
B) Landa-bideak	
⇒ <i>Partikular batek herri bidea okupatzea</i> .....	216
C) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Biztanleen udal errolda zuzentzeko prozedura bideratzean atzeratzea</i> .....	217
D) Bestelako herri zerbitzuak	
⇒ <i>Energia elektrikoa hornitu eta banatzeko zerbitzua ematen duen udal enpresak ezarritako baldintzekin bat ez etortzea</i>	218
E) Obra proiektuak	
⇒ <i>Galdakaon autobidearekiko lotura berria eraikitzeko obra proiektuarekin bat ez etortzea</i> .....	220
⇒ <i>Auzotar talde bat Barakaldoko auzo batean bide berria eraikitzearekin bat ez etortzea</i> .....	221
F) Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	
⇒ <i>Ondare erantzukizunaren aintzatespena, euren artean harremana izan dezaketen arren, beste espediente batzuetan ikertu behar diren gaien baldintzapean dagoena</i> .....	222
11. OSASUNA .....	224
<b>11.1. Sarrera</b> .....	224
<b>11.2. Aukeratutako kexak</b> .....	227
A) Osasun laguntza	
⇒ <i>Ebakuntza bat egiteko itxaron beharreko denboraren inguruko informazioa</i> .....	227
B) Erabiltzaileen eskubideak	
⇒ <i>Osasunari buruzko datuak ezabatzea</i> .....	228
⇒ <i>Haurren arreta larrialdi zerbitzuetan; lehen laguntza pediatra ez den sendagile batek ematea</i> .....	229
C) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Heriotzak ziurtatzeko prozeduran arreta: egokia ez den jardunbidea</i> .....	229
⇒ <i>Lanpostu hutsak betetzea: horien garrantzia larrialdi egoerez arduratzeko garaian</i> .....	230
12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA.....	232
<b>12.1. Sarrera</b> .....	232
<b>12.2. Aukeratutako kexak</b> .....	233
Lana	
⇒ <i>Diru-laguntza deialdia: Enpleguko zerbitzu publikoan inskribatzeko baldintza, horren irismena</i> .....	233

13. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA .....	235
<b>13.1. Sarrera</b> .....	235
<b>13.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	239
A) Irisgarritasuna	
⇒ <i>Irisgarritasun-arazoak duela gutxi berritutako anbulatorio batean</i> .....	239
B) Hirigintza-diziplina eta hondakinak	
⇒ <i>Ez legezketasunarekin ez plangintzarekin bat ez datorren hirigintza-baimena aztertzea</i> .....	240
C) Hirigintzaren kudeaketa	
⇒ <i>Erabilera publikoko urbanizazio pribatuak mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak</i> .....	243
⇒ <i>Partzelazioa berriro egiteko proiektu baten tramitazioarekin ados ez egotea</i> .....	244
D) Hirigintzaren antolamendua	
⇒ <i>Nekazaritzako lursailak erabilera industrialeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzearekin ados ez egotea</i> .....	245
14. ETXEBIZITZA .....	246
<b>14.1. Sarrera</b> .....	246
<b>14.2. Aukeratutako kexak</b> .....	253
⇒ <i>Etxebizitza libre eta erabilia erosteko diru-laguntza ukatzea</i> .....	253
⇒ <i>Udal sustapen jakin batzuei eusteko baldintzak</i> .....	254
⇒ <i>Gizarte etxebizitza baten salerosketa eskriturak egiterik ez izatea, elkarbizitza unitatea hautsi eta gero</i> .....	255
15. ZENBAIT GESTIO .....	257
<b>15.1. Sarrera</b> .....	257
<b>15.2. Aukeratutako kexak</b> .....	257
⇒ <i>Gizarte esku-hartze bideei buruzkoa, eta auzotarren komunitateetako elkarbizitza arazoei aurre hartzeari buruzkoa</i> .....	257
⇒ <i>Aukera Guztiak hautesle-taldeak aurkeztutako hautagai-zerrenda baliogabetzeko prozesuari buruzko kexa batzuk</i> ...	259
⇒ <i>Negozio lokalek igogailua jartzetik eratorritako gastuetan laguntzeko duten betebeharra</i> .....	271
<b>II. ATALA. BERARIAZKO GOMENDIOAK</b> .....	273
1. KEXA-ESPEDIENTEEI DAGOZKIEN GOMENDIOEN ZERRENDA .....	275
1/2005 Gomendioa, urtarrilaren 21ekoa, Legelarien Euskal Kontseiluari egina, kexagileari eskatu zituen agiriak eskura diezazkion eta, aurrerantzean, administrazio prozedura batean parte hartzen dutenei prozedurako agiriak ezagutzea erraz diezaien, behar bezala oinarritutako arrazoirik ez bada behintzat ...	277

2/2005 Gomendioa,	otsailaren 1ekoa, Donostiako Udalari egina, Trakzio Me- kanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan interesdunak –bere ezintasunagatik– egindako salbuespen-eskaera ezetsi zuen administrazio egintza baliorik gabe utz dezan, eta interesdunari onura hori izateko eskubidea aitor diezaion, hark betetzen baititu indarreko araudiak exijitzen dituen baldintza guztiak, ibilgailuaren “erabilera eskusiboa”ri buruzkoa barne .....	283
3/2005 Gomendioa,	otsailaren 2koa, Donostiako Udalari egina, bizikleta, patin, gurpil-ohol eta antzeko gailuak espaloietan eta oinezkoen- tzako gunetan ibiltzeari buruz trafikoko araudian ezarri- takoa bete dezan, ibilgailu horiei dagokienez araudiak gun- horietan baimentzen dituen erabilerak jendeari ezagutaraz diezazkion eta erabilera bidegabeak saihesteko behar den zorroztasunez jardun dezan.....	288
4/2005 Gomendioa,	martxoaren 17koa, Sestaoko Udalari egina, interesdunak bere ibilgailua ibilgetzeagatik tasa moduan ordaindu zuen 60,10 €-ko zenbatekoa itzul dezan .....	291
5/2005 Gomendioa,	apirilaren 20koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuari egina, zigor bat baliorik gabe utz dezan, zigorra jartzeko bideratutako prozeduran ez baititu bete beharrezkoak diren bermeak .	295
6/2005 Gomendioa,	ekainaren 1ekoa, Irungo Udalari egina, helburu hauekin: 1. Baldintza bat jar diezaiola emakumeak baztertzen dituen Alardea antolatzeako emandako baimenari: Alardea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeari egokitzea, emakumeen berdintasunezko partaidetza ezinbesteko baldintza gisa exijituz. 2. Bere gain har dezala berdintasunezko Alardea presta- tzeko ardura, herri Alardea iragarritzeko edo Alarde mistoa diruz lagundu eta baimentzeko eskabideak onartuz. 3. Bere kontrol-ahalmena erabil dezala, jaiak dirauen bitartean, berdintasunezko Alardea aldeztu duten pertsonekin kontrako indarkeria-gune bihurtzen diren establezimenduak irekitzea eragozteko, eta erakunde moduan, urte osoan zehar, sentsibilizazio-kanpainak abiaraz ditzala, iritzi publikoa jaien alorrean emakumeen eta gizonen berdintasuna onartzeko jarreretarantz al- daraz dadin .....	305
7/2005 Gomendioa,	ekainaren 16koa, Lasarte-Oriako Udalari egina, hainbat agiri lortzeko eskaera berariaz ebatz dezan.....	322

- 8/2005 Gomendia, ekainaren 29koa, Bastidako Udalari egina, taberna baten jabeari araudiak agindutako hots isolamenduzko eta modulaziozko neurriak har ditzala eska diezaion eta, hala egin ezean, zuhurtasunezko neurri gisa taberna itxi lezaketela ohartaraz diezaion ..... 328
- 9/2005 Gomendia, ekainaren 29koa, Bilboko Udalari egina, trafikoko prozedura batean jarritako isuna nahitaez ordainarazteko premiamendu-bidea baliorik gabe utz dezan eta horren ondorioz bildutako diru-kopuruak itzul ditzan ..... 335
- 10/2005 Gomendia, ekainaren 29koa, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari egina, interesdunari ezarritako isuna baliorik gabe utz dezan, balizko premiamendu-bidea balio gabetzeko beharrezkoak diren izapideak egin ditzan eta bildutako diru-kopuruak itzul ditzan ..... 340
- 11/2005 Gomendia, ekainaren 29koa, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari egina, interesdunari ezarritako isuna baliorik gabe utz dezan, horren ondoriozko premiamendu-bidea ere balio gabetzeko beharrezkoak diren izapideak egin ditzan eta bildutako diru-kopuruak itzul ditzan..... 348
- 12/2005 Gomendia, uztailaren 18koa, Oiartzungo Udalari egina, interesdunak udal erroldan sartzeko egin zuen eskabidea onar dezan..... 354
- 13/2005 Gomendia, uztailaren 19koa, Bergarako Udalari egina, interesdunari oker jakinarazi zitzaion likidazio bati aplikatutako premiamendu-errekargua baliorik gabe utz dezan, eta jakinarazteko erabiltzen dituen ereduak berrikus ditzan, ereduok indarreko legeriari egokitzeko ..... 361
- 14/2005 Gomendia, uztailaren 20koa, Lemoizko Udalari egina, Ondasunen Araudiko 71. artikuluari jarraiki, Urizarreko gurdibidearen jabetza ofizioz berreskuratzeko hasi zuen prozedura jarrai eta ebatz dezan ..... 365
- 15/2005 Gomendia, abuztuaren 11koa, Hondarribiko Udalari egina, xede hauekin:
1. Gizon eta emakumeentzako berdintasunezko jai-gune bat sortzeko ardura beregana dezan, Alarde publikoa iragarri edota Alarde Fundazioari jada baimendu dion alardean Jaizkibel Konpainia sar dadin sustatuz. Horretarako, baldintza honen mende jarri beharko du baimen hori: ez dadila sexuagatik bereizketarik egin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeko 3.1 b) eta 25.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.



2.	Gutxiengoekin baketsua eta errespetuzkoa izango den jai giroa bermatzeko orduan, erakunde gisa duen erantzukizuna bere gain har dezan, jaietan jendeak Jaizkibel Konpainiako pertsonekin portaera gizabidezkoa eta demokratikoa izan dezala eskatuz, eta, urte osoan zehar, oraingo iritzi-egoera aldarazteko sentsibilizazio jarduerak eta kanpainak eginez, emakumeen eta gizonen berdintasuna onartzeko jarreretara iristeko .....	370
16/2005	Gomendioa, irailaren 23koa, Portugaleteko Udalari egina, kexa sortarazi duen polizia-jarduera ikertzen jarrai dezan eta "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako" gomendio orokorra bete dezan .....	385
17/2005	Gomendioa, urriaren 27koa, Bilboko Udalari egina, bideratu dituen trafikoko zigor-prozeduretan jarritako zigorrak baliorik gabe utz ditzan, eta, hala badagokio, kontzeptu horregatik bildutako kopuruak itzul ditzan .....	395
18/2005	Gomendioa, azaroaren 21ekoa, Portugaleteko Udalari egina, udal erroldan izena emateko eskabideei berariazko ebazpen baten bidez erantzun diezaien, benetan herrian bizi diren pertsonak errolda ditzan eta, ostatu gabeziari aurre egiteko, gizarte-ekintza bat gara dezan .....	400
19/2005	Gomendioa, azaroaren 21ekoa, Portugaleteko Udalari egina, udal zerbitzuen artean jarduera-protokolo bat egin dezan, ijitoei egiten zaien harrera hobetzeko eta haien integrazioa errazteko, eta mugakide dituen udalekin erantzun koordinatuak ezar ditzan, biztanle etorkinak artatzeko eta hartzeko .....	405
20/2005	Gomendioa, azaroaren 21ekoa, Ortuellako udalari egina, udal zerbitzuen artean jarduera-protokolo bat egin dezan, ijitoei egiten zaien harrera hobetzeko eta haien integrazioa errazteko, eta mugakide dituen udalekin erantzun koordinatuak ezar ditzan, biztanle etorkinak artatzeko eta hartzeko .....	411
21/2005	Gomendioa, azaroaren 25ekoa, Hezkuntza, Unibersitate eta Ikerketa Sailari egina, prozedurazko berme guztiak betez, araudiak espezialitate bakoitzerako berariaz eskatzen duen titulazioa ez dutenak ordezkapenen zerrendatik kanpo utz ditzan, zerrendan oker sartzeko egintzak berrikus ditzan eta, hainbat tituluren kodifikazio zehatzari buruz, erregistro informatikoak egiazta eta argi ditzan .....	416

2. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN .....	425
2.1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK.....	427
A) Eusko Jaurlaritza .....	427
B) Tokiko administrazioa .....	427
C) Eragindako beste erakunde batzuk.....	428
2.2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK.....	429
A) Eusko Jaurlaritza .....	429
B) Foru administrazioa .....	429
C) Tokiko administrazioa .....	429
2.3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK .....	432
A) Eusko Jaurlaritza .....	432
B) Tokiko administrazioa .....	432

### III. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK .....

1. Eremu sozialean lan egiten duten elkarteetarako erakunde laguntzako bideak eta prozedurak hobetu beharra.....	437
2. Gure Autonomia Erkidegoan txakur gidarien edo laguntzeko txakurren kontzeptua berriz definitu beharra .....	445
3. Udalek Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren erroldako izen-ematea eta iraungipena erabakitzeko eta datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko erabiltzen duten prozedurari buruzko zenbait gogoeta .....	450
4. Atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesuan, udalek errolda-ziurtagiriak egiteari buruzko zenbait gogoeta.....	469
5. Herritarrentzako informazioa eta parte-hartzea toki eremuan .....	474
6. Eraikuntza iraunkorra. Eraikinen energia eraginkortasun handiagorantz .....	482

### IV. ATALA. EZHOIKO TXOSTENAK .....

1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK.....	491
2. 2005. URTEAN AURKEZTUTAKO EZHOIKO TXOSTENAK .....	493
2.1. EAEn adinekoei arreta emateko sistemei buruzko ezohiko txostena....	493
2.2. Ezohiko txostena: bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn .....	496
3. 2005. URTEAN EGITEN ARI DIREN EZHOIKO TXOSTENAK.....	504
3.1. Hurrengo ezohiko txostena: ikasleen arteko bizikidetza eta gatazka ikastetxeetan.....	504

- 3.2. EAEko gazteei zuzendutako etxebizitza politika publikoei buruzko hurrengo txosten berezia ..... 507
- 3.3. Bazterketa egoera larrian dauden etxerik gabeko pertsonen oinarritzko beharriaz eman beharreko erantzunari buruzko ezohiko txostena... 510
- 3.4. 2005. urtean hasitako beste ezohiko txosten batzuk ..... 513

**V. ATALA. BERARIAZKO ARRETA LEHENTASUNEZKO TALDEEN ARAZOEI** ..... 515

- 1. Berariazko arreta emakumeen arazoei ..... 518
- 2. Berariazko arreta adinekoen arazoei ..... 556
- 3. Berariazko arreta adingabeen arazoei ..... 567
- 4. Berariazko arreta atzerritarren eta gutxiengo etnikoetako pertsonen arazoei. 618
- 5. Berariazko arreta ezgaitasunen bat duten pertsonen arazoei..... 631

**VI. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BAZUK** ..... 643

- 1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK ..... 645
  - 1.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak ..... 645
  - 1.2. Ararteko erakundeak iragarri dituen ikerketa bekak ..... 655
  - 1.3. UPV/EHUREN uda ikastaroetako jardunaldiak: “Familia berriak eta berdintasun printzipioak. Eztabaida irekia” ..... 657
  - 1.4. Giza eskubideei buruz herritarrekin batera egindako II. Foroa ..... 658
  - 1.5. Haurren Legeari buruzko herriz herriko erakusketa..... 660
  - 1.6. “Derechos ciudadanos” deritzan Ararteko autonomikoen aldizkari berria..... 661
- 2. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK ..... 663
  - 2.1. Herri Defendatzaileen arteko XX. Koordinazio Jardunaldiak..... 663
  - 2.2. Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren (FIO) X. Biltzarra eta batzar orokorra ..... 674
  - 2.3. Kataluniako Sindic de Greuges Legearen 20. urteurreneko oroipen jardunaldien zikloa..... 683
  - 2.4. Arartekoak Asturiaseko Printzerriko Batza Nagusian egindako hitzaldia, Prokuradore Nagusiaren lege proiektuari buruzkoa ..... 684

- 2.5. Lehenengo Arartekoa izandako Juan San Martín Ortiz de Zarateri egindako omenaldia..... 685

## **VII. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN 687**

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK..... 689
2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR ..... 694
3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA ..... 698
  - A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako keak ..... 698
  - B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako keak ..... 700
  - C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako keak..... 701
  - D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako keak ..... 705
  - E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako keak..... 706
4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA) 707
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA) ..... 710
6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA) ..... 719
7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK)..... 721
8. OFIZIOZKO JARDUERAK..... 723
9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)..... 724

## **VIII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA..... 727**

1. SARRERA ETA OHARRAK ..... 729
2. ARARTEKOA 2005. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA ..... 732
  - A) Eusko Jaurlaritza ..... 732
  - B) Foru aldundiak ..... 733
  - C) Udalak ..... 734
  - D) Beste erakunde publiko batzuk ..... 738
3. ARARTEKOA 2005. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA ..... 739
  - A) Eusko Jaurlaritza ..... 739
  - B) Foru aldundiak ..... 743
  - C) Udalak..... 744
  - D) Beste erakunde publiko batzuk ..... 751

4. ARARTEKOAK 2005. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA .....	752
A) Eusko Jaurlaritzaren .....	752
B) Udalak.....	752
<b>IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK.....</b>	<b>755</b>
1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA.....	758
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK .....	762
2.1. Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea .....	762
2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak.....	763
2.3. Intimitaterako eskubidea.....	764
2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa.....	765
2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen printzipioa.....	766
2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak .....	768
2.7. Hezkuntzarako eskubidea.....	770
3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .....	771
3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezotasun printzipioak .....	771
3.2. Jabetza pribaturako eskubidea .....	772
4. GIZARTE ESKUBIDEAK.....	773
4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa .....	773
4.2. Osasunerako eskubidea.....	775
4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea .....	775
4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea .....	777
4.5. Urritu fisikoen, sentimenezkoen eta psikikoen eskubideak (ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak).....	779
4.6. Adinekoen eskubideak .....	781
5. LABURBILKETA.....	783
<b>ERANSKINAK</b>	
- I. ERANSKINA: Eskolako eta familiako indarkeria (Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XX. Jardunaldiak).....	787
- II. ERANSKINA: GRAFIKOAK .....	797
- 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregularitasuna administrazioaren jokaeran 2005ean burututako kexetan .....	799

- 2. Diagrama:	Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra.....	799
- 3. Diagrama:	Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2005) .....	800
- 4. Diagrama:	2005ean jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren .....	800
- 5. Diagrama:	Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduera alorren arabera .....	801
- 6. Diagrama:	Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera.....	801
- 7. Diagrama:	Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	802
- 8. Diagrama:	Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera .....	802
- 9. Diagrama:	Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	803
- 10. Diagrama:	Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	803
- 11. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2005) .....	804
- 12. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2005)	804
- 13. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa erreklamatzailen ezaugarrien arabera.....	805
- 14. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera .....	805
- 15. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera.....	805
- 16-17. Diagramak:	2005ean arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bititak (kopurua eta ezaugarriak)	806
- 18. Diagrama:	Banaketa adin taldeen arabera .....	806
- 19. Diagrama:	Kexa bilakatutako bititak .....	807
- 20. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2005). Banaketa alorrez alor.....	808
- 21. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2005). Eragindako administrazioen arabera banaketa .....	808
- 22-27. Diagramak:	Erreklamatzailiek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak).....	809
- 28-29. Diagramak:	Arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” dioten erreklamatzailiek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa .....	812

<b>GAIEN AURKIBIDEA .....</b>	<b>813</b>
-------------------------------	------------

## AURKEZPENA

Liburu honetan Ararteko erakundearen 2005eko urteko txostena daukazu; hau da, ohore handiz zuzendu eta ordezkaten dudan euskal Ombudsmanaren bulegoan ari garen 45 pertsonok iaz zertan aritu ginen eta zer jarduera bideratu genuen laburbildu dizuegu.

Txostenean Arartekoarenean tramitatu ditugun kexa espedienteak gaika jaso ditugu, bereiztu ditugun arlo materialen arabera, eta euskal herritarrek euskal administrazio publikoren baten jarduerari –edo jarduerarik ezari– buruz aurkeztu dizkiguten erreklamazioen arabera. Kexa prozedurak hizpide den administrazioari entzutea eskatzen digu, jakina, bere jarreraren zergatiak arrazoi diezazkigun. Aurten, berriro ere, zoritxarrez, kasu askotan ageri izan da Administrazioak ez dituela kexak azkar erantzun (dagokion informazio estatistikoan ikus daitekeenez), prozedura bidegabeki luzaraziz; eta, zer dakar, azkenean, luzamendu horrek? administrazioak Arartekoarengana jo duen pertsonari zerbitzu txarra ematea. Gure asmoa administrazio publikoei gure erakunde bermatzaile honi eraginkortasunez lagun diezaioten eskatzen segitzea da, herritar erreklamaziogileari zentzuzko epe batean erantzun ahal izan dakion.

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen arabera, Arartekoa “*Legebiltzarraren goi ordezkaria da eta Konstituzioaren I. Tituluak jasotako eskubideak defendatzeaz arduratzen da, Legea beteko dela bermatuz*”; baina, gure zereginik behinena hori den arren, ez dugu kexak tramitatze hutsera mugatu behar. Kexekin zerikusirik ez duten jardueren artean, gure iritziz arreta berezia behar duten talde eta egoeren gainean egindako ezohiko txostenak nabarmendu nahi genituzke lehenengo eta behin, horrela, EAEko gizon-emakume guztiak berdintasun egoera batean baliatu daitezten dagozkien eskubideez.

Ombudsman erakundearen kulturaren eta zereginetan oso barneratuta dago, oinarritzko eskubideen gauzaperari dagokionez, urraketa, defizit, arrisku edo ahultasun egoeran dauden kolektiboei edo pertsona taldeei bereziki aditu behar diegulako ideia. 2005. urtean, ahalegin handia egin dugu gure lan ildoak eskura ditugun giza baliabideen arabera antolatzeko. Horren ondorioz, aurten, hamar kolektibori zuzendutako jarduketa plan zehatzak finkatu ahal izango ditugu: adingabeak, emakumeak, adinekoak, ezgaitasunak dituzten edo funtzionaltasun alternatiboko pertsonak, etorkinak eta gutxiengo etnikoak, indarkeria terroristaren biktimak, gayak, lesbianak, transexualak eta bisexualak, espetxean dauden gizon-emakumeak, pobrezian bizi diren pertsonak, eta gaixotasun kronikoak zein buruko gaixotasunak dituzten pertsonak.

Ombudsman erakunde honek esandako alor horietan lan proaktiboa eta eragilea egiteak esan nahi du Arartekoak Adingabearren, Emakumearen, Adinekoaren eta abarren Defendatzailea izan behar duela, Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria den aldetik.

Azpimarratu nahi dugu aipatutako kolektiboen alde lan egiten dugunean garrantzitsua eta balio handikoa dela zeharkako ikuspegia; horrela, Emakumeen eskubideez aritzen garenean, alor guztiak jorratzen saiatzen gara, hala nola, hezkuntza, adineko emakumeak, tratu txarrak jasandako zein mehatxupean bizi diren emakumeentzako harrera etxeak, lesbianak, emakume etorkinak, espetxeetan preso dauden emakumeak, eta abar. Horrekin batera, administrazio publiko eskudunei zuzendutako ekimenak planteatzen ahalegintzen gara, aztertutako errealitatearen berezitasunak kontuan izanik, baina, aldi berean, ikuspegi integral batetik eta diziplina anitzetatik.

Eusko Legebiltzarrekin lotutako Adingabearen Defendatzaile modura, Ararteko erakundeak Emakumearen Alorrerako azaldutako metodologia bera erabiltzen du. Edonola ere, gure bulegoak gogor lan egin du, beti, haur eta gazteen arloan, ombudsman baten ardura den bezala. Hala ere, aurrerantzean, lan hori areagotu eta lehenesteko asmoa dugu, bai haur eta gazteen eskubideen defentsari dagokionez (babes gabe eta eskubideez baliatzeko baliabiderik gabe geratzeko arriskua dutelako), bai giza balioak eta eskubideak errespetatzeko kultura bultzatzeari dagokionez. Bi ikuspuntu horiek kontuan izanik, Arartekoaren eginkizun nagusia betetzeak, hau da, gizon-emakumeen eskubideak defendatzeak, lanari gogor ekin beharra dakarkigu, batez ere, haur eta gazteen alorrean. Ahalegin horren ondorioz etorri dira 2005ean hasi edo garatu diren hainbat ekimen: Herritarren II. Foroa, EAEko hiru hiriburuetan eskola esparruan berdinen arteko jazarpenaren inguruan antolatu zena; 2005-06 ikasturtean eskola umeen arteko elkarbizitzari buruzko ezohiko txostenaren tokian tokiko lana; gure adingabeei giza balioak transmititzeari buruzko ezohiko txosten bat aurten egiteko erabakia; edo haurren eskubideak zabaldu eta horietaz sentsibilizatzea helburu duen *Save the children* elkartearen argazki eta mezu bildumaren erakusketa ibiltaria –zazpi euskal herritara heldu zena, ahalik eta jenderik gehien bildu nahirik–.

Aurten, berriro ere, kontzientziak astindu behar direla azpimarratu behar dugu, erakunde eta administrazio publikoen kontzientziak, eta herritarren kontzientziak ere, denon artean Euskadin giza eskubideen egoera hobeto dezagun, egunez egun pertsonen eskubideen errespetuzko balioak eraiki eta berreraiki ditzagun eta, aldi berean, giza eskubideak mugatu edo suntsitzen dituzten eragileak desagerraraz ditzagun. Horregatik, aurten ere ETARI desagertu dadin eskatu behar diogu, bere izatea bera, bere indarkeria, eta koakzio eta estortsio ekintzak, pertsonen eskubide eta askatasunen urraketa eta mehatxu izugarria direlako. Eta indarkeria terrorista ororen biktimek merezi duten ordain morala jaso eta gizartearen aintzatespena izan dezaten, eta duintasuna erabat berreskura dezaten defendatu behar dugu. Zuzenbide Estatu demokratikoa osatzen duten erakunde eta organoei ere pertsonen eskubideak, eta eskubideak bermatzeko sistema zorrozki errespetatu dezaten eskatu behar diegu; horrela, herritarrek demokraziaren printzipio eta balioekin ustez bateraezina den jardueraren bat salatzen badute, sistemaren gardentasun demokratikoaren inguruko edozein zalantza argituko duen erantzun garbia eman ahal izan beharko zaie.

Ez nuke aurkezpen hau 2005eko maiatzaren 30ean betiko joan zaigun Juan San Martin gure lehenengo Arartekoari hitz hunkigarriak eskaini gabe amaitu nahi. Iaz, azaroaren 21ean, gure Erakundeak antolatu zuen omenaldian izan genuen bere ibilbidea aztertzeke aukera. Ekitaldi hartan parte hartu zuten guztiek agerian utzi zuten Juanen bertute pertsonalak, gaitasun intelektualak eta obra oparoak izugarri preziatuak direla bikain eta erabateko dedikazioaz jorratu zituen esparru ugarietan. Juan San Martinek



hutsetik altxatu zuen Arartekoaren erakunde honetan hari buruz pentsatzen eta sentitzen dugun guztia esateak luze joko liguke eta, horregatik, idatzi honetan pertsona handia izan zela eta Arartekoari funtsezko ekarpena egin ziola baino ez dugu aipatuko. Horregatik, erakunde honek aurrerantzean ere Euskaltzaindiari hartu diogun “Ekin eta Jarrai” lelopean lan egin dezan konpromisoa hartu nahi nuke, Juan San Martinen bizitza eta obra ere, ziurrenik, lelo horrek gidatuko zituen-eta.

2006ko urtarrilak 31  
ARARTEKOA  
*Iñigo Lamarca Iturbe*



I. ATALA

**ARARTEKO ERAKUNDEAREN  
JARDUERARIK  
GARRANTZITSUENETAKO BATZUK  
ALORREZ ALOR,  
KEXA-ESPEDIENTEAK ETA  
OFIZIOZKO KEXAK BIDERATZEAN**



Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kexak ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarritzko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.459 kexak eta 2005 urtean hasi ditugun ofiziozko 42 jarduerak askotariko arazoan erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal herritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe –ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa baten bidez–. Hala ere, ofiziozko espedienteak “OF” erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, “erreklamazio” atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedienteaz aztertzea eta ebaztea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.



# 1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

## 1.1. SARRERA

2005ean Ararteko erakundeak 25 kexa espediente aztertu ditu nekazaritza, industria, merkataritza eta turismo arloan, hau da, erakunde honetan ekitaldi osoan zehar jaso diren kexa guztien % 2,29.

Espedienteak zein herri administrazioari eragiten dion aintzat hartuta, kexak modu honetara banatu dira:

-Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	10
-Tokiko administrazioa.....	9
-Foru administrazioa.....	8

Jarduera-esparrua eta kexek aipatzen dituzten arazoak aintzat hartzen baditugu, ondoko azpi-arlo hauen arabera bana daitezke:

-Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	10
-Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.....	5
-Animalien babesia.....	4
-Kontsumoa.....	3
-Merkataritza .....	1
-Industria .....	1
-Administrazioaren kontratazioa, ondarea eta erantzukizuna.....	1

Arlo honetan aurkeztu diren erreklamaziorik gehienak, ia erdia, administrazio desberdinen funtzionamenduko arazoak eta administrazio prozesuan betetzen ez diren arauen gainekoak izan dira, batez ere, erantzuten ez dutelako, epez kanpo erantzuten dutelako, edo hartzen diren ebazpenetan nahikoa motibaziorik adierazten ez dutelako, kaltetutakoei edukia eztabaidatzeko inolako argibiderik ematen ez dietenean, edo ebazpenak zer dioen ere jakiteko aukerarik ematen ez dietenean.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza kontuetan, landa ingurunean aisialdirako zein ekoizpenerako egiten diren jardueretan interesa daukaten titularrek mahairatu dizkiguten auziak nabarmenduko ditugu, baina baita zenbait astialdi jarduera gogaikarriak zaizkietako kaltetuta sentitzen diren beste pertsona batzuek ekarri dizkigutenak ere. Horrela, pertsona batek Gipuzkoako Lurralde Historikoan arkuz ehizatzen aritzeko baimen berezia lortzeko izan dituen oztopoak hizpide zituen kexa tramitatu dugu.

Hainbat herritarrek, ordea, Bizkaiko Urdaibaiko biosferaren erreserban, hiri eremu inguruetan, etxebizitza bakanak dauden tokietan zein hesitutako lurretan, ehizan aritzeak sortzen dituen arazoak berri helarazi digute. Erreklamazio horiekin Bizkaiko Foru Aldundiari ohartarazi nahi zaio ehizarako aprobetxamendu arrunteko lurzoruetan dauden erabilpen desberdinak antolatu eta planifikatu behar direla, eta ehizarako eremuak argi

eta garbi mugatuko dituen eta, ehizari buruz indarrean dagoen apirilaren 4ko 1/1970 Legearen arabera, beste eremu batzuk, segurtasun edo bateraezintasun arrazoiengatik, ehizatik kanpo utz ditzan erregimena ezarri behar dela, pertsonak eta beren ondasunak babestea bermatzera begira.

Aipatu behar dugu, halaber, lur zatia Gorbeiako Parke Naturaleko kontserbazio eremu batean zuenez, bertoko hariztien soilketa egiteko beharrezkoa zuen baimena ukatu zioten baso lurren jabearen kexa. Zergatik ukatu zioten? Egurra erauzteko, basoetan ekologi inpaktu handia eragiten duen metodologia erabili nahi zuelako (ikus 112/2005 laburpena).

Kontsumoaren alorrean, adingabe baten amak, Urretxuko jaietan, ferietako saltoki ibiltarrietan aire konprimituko pistolak saltzearekin ados ez zegoela adierazi zigunekoa aipatuko dugu (ikus 12/2005 laburpena).

Industriaren atalari dagokionez, auzokide komunitate batek urte bete luzez energia elektrikoa behin eta berriro eteten ari zitzaizkielako jarri zuen kexa tramitatu dugu (ikus 1422/2005 laburpena). Tentsio altuko aireko transformazio zentroek eta halakoek pertsonen osasunean eragin lezaketen arriskuek sortzen duten kezka inguruko kexak ere heltzen zaizkigu, oraindik ere.

Halakoen titularrek instalazio horiek lurpera ditzaten egiten dituzten eskariek lekuak eta aldaketa hori egitearen koste ekonomikoa bere gain nork hartuko duen zehaztearen arazoa aurkitzen dute aurrez aurre. Sektore elektrikoari buruz indarrean dagoen azaroaren 27ko 54/97 Legeak dio, partikularren arteko harreman zibilen barruan, gainera tentsio altuko aireko linea bat zein sare elektrikoaren transformadore bat doakion lurzorua jabeak, trazatua aldatzeko eskatu ahalko duela, baina aldaketaren gastuak berak ordaindu beharko dituela.

Arazo horrekin lotuta, gure erakundeak, 2002an, gomendio orokor bat egin zuen -Legebiltzarrari aurkeztu zitzaion 2002ko urteko txostenean dago-, gogoratzea ondo datorrena.

Orduan esan genuen inplikaturako administrazioek argi eta garbi ulertzeko moduan jakinarazi behar zituztela ikerketa zientifikoaren gorabeherak, baita eremu elektromagnetikoek pertsonen osasunean zelako eragina daukaten ere. Hiri lurretan edo lur urbanizagarrian, eta mugako eremuetan, zer lurperatu hautatzeko politikaren alde ere ageri ginen -segurtasun edo beharren arabera irizpideei adituz, bereziki sentiberak ziren zenbait eremutan-, eta horretan ukitutako udalek, enpresa elektrikoek, gaian eskumenik daukaten beste administrazio batzuek eta ukitutako jabeek aktiboki parte hartu behar zutelako genioen.

Amaitzeko, **animalien babesaren** alorrean animalien defentsan eta babesean interesatuta dauden pertsona eta elkarten erreklamazioak aipatu behar ditugu. Horrela, zeren ikuskizunak oro har, adibidez, zeren korridak baimentzearen kontrako kolektiboek aurkeztutako erreklamazioak agerrarazi nahi ditugu. Beste kexa kasu batean ez zuten ondo ikusten ikastegi batean, erakusketa modura, animaliak erabiltzea; ekitaldi batean sokaz lotutako bigantxak askatu zituzten, eta jendeak, inguruan jarrita, sokamuturra tradizioaletan bezala erabili nahi izan zituen.

Atal berean, udalek, araudian aurreikusita egon arren, txakurrentzako aisialdi eremurik gaitzen ez dutelako kexatzen ziren txakur jabeen kexa ere aipatu behar da (ikus 1126/2004 kexa).



## 1.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

⇒ *Parke natural baten adierazpenak jabetza eskubidean duen eragina (112/2005)*

- Erreklamazioa

Baso lur batzuen jabeak, ordura arte bertoko haritzaren ustiapenerako zituenak, adierazi zigun ez dagoela ados Gorbeia Parke Naturalaren barruan dauden onibarrek jasaten dituzten erabilpen murrizketekin.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi eta Inguru Naturalerako Zuzendari Nagusiak erreklamaziogileak bertoko haritzia soiltzeko egin zuen eskaria ezetsi zuen, lur zatia parkeko kontserbazio eremu batean zegoelako, eta hori espresuki debekatuta zegoelako masa naturaletan basoak soiltzea.

- Azterketa

1994an Gorbeia aldea Parke Natural izendatu zuten, flora eta fauna bitxiak eta ugariak zirela kontuan hartuta. Adierazpen horren ondorioz, Gorbeia aldea zaindu beharreko gune bihurtu zen eta, horregatik, parke naturalean zeuden lurzoruak berrantolatatu behar izan ziren. Era berean, izendapen horrek ekonomi eta astialdi edo jolas jarduerak inguru natural horren barruan zelan garatu zehaztuko zuten arauak finkatzera behartzen zuen. Jarduketa horiek bi bitartekoren bidez burutu ziren: Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren eta Erabilpen eta Kudeaketarako Plan Artezkariaren bidez. Lehenengo Araua ekainaren 28ko 227/1994 Dekretuaren bidez onetsi zen, Gorbeia aldeko eremuko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi baitzuen (EHAA, 154, 1994-08-16) eta, bigarrena, martxoaren 31ko 66/1998 Dekretuaren bidez, non Gorbeia Parke Naturalaren Erabilpen eta Kudeaketarako Plan Artezkariak araudia onetsi zen (EHAA 102, 1998-06-03).

Bi arauak Gorbeia aldea babestu eta kontserbatzeko eman ziren, argi eta garbi, beraz, ez da lehendik parkearen lurralde esparruan ez zegoen inolako erabilpenik onartuko.

Baso erabilpenari dagokionez, 227/1994 Dekretuak, 12. artikuluan, arau orokor batzuk finkatu zituen, zeinen arabera, parkearen eremuan, printzipioz, ez diren hazkunde moteleko zuhaitz espezieen mozketak edo soiltzeak baimenduko. Zehazki, arau honek, 2. atalean, hauxe dio: *“Debekaturik egongo da edozein zuhaitz ebakitzea parkearen kudeaketaz arduratuko den organoaren berariazko baimenik gabe. Hazkunde moteleko bertoko espezie naturalek basoturiko mendietan, aparteko kasuetan eta arrazoi sendoengatik izan ezik, ezin izango da erabateko ebaketa edo erabilera aldatzeko baimenik eman.”*

Gorbeia aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak aurreikuspen orokor hori parkea zatitzen den kontserbazio gune desberdinetara eramaten du. Horrela, Artapen Eraginkorreko II. aldeei dagokienez, 29. artikuluan dio baimentzen dela *“baso naturalen aprobeixamendua, erabateko ebaketak salbu.”*

Gorbeia aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak espresuki jasotzen duen aurreikuspen hori ikusita, onartu behar genuen Nekazaritza Sailak eskaria ezetsi zuenean indarreko araudira doitu zela.

Sailak argudiatu zuen, egurra ateratzeko erabateko ebaketa baliatzeak izugarri eragiten diola basoei ekologiarren ikuspegitik. Basoak elkarlotutako sistema ekologikoak dira, beren kabuz mantentzeko gai direnak, adin eta tamaina desberdinetako zuhaitzez osatuta daudelako. Basoa soiltzen bada, gainazaleko zuhaitzak guztiz mozten dira eta horrek basoa berriro osorik landatzea eta, ondorioz, espazio homogeneo eta uniformeak sortzea dakar.

Mozketa metodo hauek basoak eraldatzen dituztenez, bateraezinak izaten dira parke natural baten babesarekin, izan ere, halako espazioak sortzearen helburua basoetako berezko ekosistemen berreskuratzea sustatzea baita.

Gure ustez, 1978an Konstituzioa aldarrikatu zenetik, Kode Zibilak 348 artikuluan jasotzen zuen jabetza eskubideari nabarmen ukitu zaiola zeren, Konstituzioaren 3.1 eta 2 artikulua eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, jabetza legeen arabera mugatutako edukia duen gizarte zeregina betetzen baitu.

Hara zer dioen aipatutako artikulua horren gai zehatz honen gainean:

*“1. Jabetza pribaturako eta herentziarako eskubidea aitortzen da.*

*2. Eskubide horien gizarte zereginaren edukia legeen arabera mugatuko da.”*

Gure ustez, gizarte zeregina betetzeak, uneoro, jabetza eskubidearen edukia mugatuko luke, jabeek beren ondasunak erabiltzeko dituzten ahalmenak murriztuz.

Ondasunen erabilpen, atsegin eta gozamen ahalmenen ondoan, legeek edo, bestela, arategiek, gizarte interesa asetzea ahalbidetzera begira ezarritako zama eta betebeharrak leudeke. Kasu honetan, Gorbeia Parke Naturalaren adierazpenak jasotzen duen gizarte interes edo interes orokorra gure konstituzio testuaren 45. artikuluan islatuta dagoela uste dugu, hots, denok ingurumen egokiaz gozatzeko daukagun eskubidean eta botere publikoek natur baliabide guztien erabilpen arrazionala zaintzeko duten betebeharrean, bizitza kalitatea babestu eta hobetuko bada, eta ingurumena defendatu eta lehengoratu bada.

Lurzoru baten jabeek, Lurzoruaren Legea bezalako lege xedapen batek debekatzen dielako, nahi dutenean eta nahi duten modura eraikitzerik ez daukaten bezala, arau batek finka bateko ustiapen aukerak mugatu ahalko ditu, egur mozketa eta eskurapen metodoei mugak ipiniz, jabetza eskubidea gutxitzea barik, legez ezarritako muga hutsa izatea baizik ekarrita. Ildo horretatik eman ditu, behinik behin, Konstituzio Auzitegiak epai bat baino gehiago.

Gure ustez, jabetza eskubidea baliatzeak ez luke gizarte interesik kaltetu behar eta, horregatik, jabetza eskubidearen ahalmenak murriztu beharko lirarteke, interes kolektiboek kaltetan baliatzerik ez dagoelako.

Bai gehiengoaren dotrinak, bai Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak diotenez, jabetza eskubidearen mugek kalte ordainak ekarriko beharko lituzkete eskubidearen funtsezko edukiarri ukitzekotan, hau da, ondasuna eskualdatzea, errentagarritasun bide oro jorratzea eta titularrak erabili edo gozatzeko eragotziko balitz.

Nolanahi ere, aitortu behar dugu oso auzi eztabaidatua dela, eta jabetza eskubidearen ikuspegitik, Parke Natural bat eratzea, printzipioz, ez dela ekonomikoki onuragarria parkearen esparruan dauden lurzoruen titularrentzat.

Egia ere bada Parke barruan dauden lurzoruen erabilpen eta aprobetxamenduen mugak arintzera begira, Gorbeia aldea Parke Natural izendatzen duen 228/1994 Dekretuak eta, bereziki, martxoaren 31ko 66/1998 Dekretuak, Gorbeia Parke egonkorren Erabilpen eta Kudeaketarako Plan Artezkari zati arauemailea onetsi zuenak, 11. atalean, baso sektorearentzako konpentsazio plana garatu eta ezartzen dutena. Konpentsazio ekonomikoko mekanismo hauek, batez ere, espezie aldaketaren eta lurrarentzat kaltegarriak ez diren egurra ateratzeko eta baso lanak egiteko teknikak erabiltzearen ondoriozko eragina mugatzera bideratzen dira.

Azkenik, guk uste dugu Gorbeia aldea Parke Natural izendatzen duen 228/1994 Dekretuak parke naturala kudeatzeko administrazioen aholkulari eta lankide izango den organoa sortu zuela, Parke Naturaleko Patronatua, alegia.

Patronatu hori garrantzitsua da, gure iritziz, inguruko onibarren jabeek, basodunek mendiko nekazariak... parte hartzen dutelako eta ordezkatuta daudelako, beraiek baitira, azken batean, parke naturalaren izendapenak zer dakarren ondoen dakitenak. Patronatuari zeregin ugari esleitu zaizkio, baina interesgarrienetako bat, ziurrenik, eskuarteko gaiari dagokionez, parkea kontserbatu, hobetu eta ezagutzeko, eta ingurunea ekonomia- ren eta gizartearen aldetik garatzeko zer neurri hartuko beharko lirartekeen proposatzea dagokiola izango da. Orobat, Patronatuak oso aktiboki parte hartzen du Erabilpen eta Kudeaketarako Plan Artezkaria berrikusteko prozesuan. Gure ustez, ustiapen, onibar eta abarren titularren, hots, ukitutakoen interesen ordezkari hori oso bide baliagarria izan daiteke parke naturalaren barruan dauden finken titularren onerako proposamenak negoziatzen eta aurkezten saiatzeko.

- Emaizta

Erreklamaziogileari jakinarazi genion Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendietarako Zerbitzuaren erabakia Gorbeia aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak jasotzen dituen aurreikuspenetara doitzen zela.

## B) Kontsumoa

⇒ *Aire konprimituko pistoloen salmenta ibiltaria (12/2005)*

- Erreklamazioa

Adingabe baten amak gure erakundearengana jo zuen, Urretxuko jaietan, ferian jarri zituzten postu ibiltarrietan, aire konprimituko pistolak saltzarekin ados ez zegoela azaltzeko.

- Azterketa

Armei buruko Arautegiak (urtarrilaren 29ko 137/1993 Erret Dekretuaren bidez onetsia, BOE 55, 1993-03-05), III. atalean, zehazki, 3. artikuluan, armak eta su armak sailkatzen ditu, eta aire konprimituko pistolak 4. kategoriako 2. atalean sartzen ditu. Hara zer dioen artikulua horrek:

*“Arma eta su arma araupetuak izango dira Arautegi honetan xedatutakoaren arabera erosi, eduki eta erabiltzeko baimena eman dakiekeenak, hots, artikulua honetan, ezaugarriei, arrisku mailari eta xede edo erabilpenari adituz, ondoko kategorietan zerrendatu eta sailkatuta ageri diren gauzak: (...)*

4. kategoria: (...)

*2. Karabinak eta pistolak, arima lau edo marratukoak eta tiro bakarrekoak, eta ekintza sinpleko errebolberrak, airez zein beste edozein gas konprimituz eragiten zaienak, eta eskopeten parekoak ez direnak.”*

Halako armak araudiz baimendutako armategietan eta baimen egokia duten kirol gauzetako saltokietan baino ezin dira saldu, Armei buruzko Arautegiaren 56. artikulua dioenez.

- Emaizta

Prebentzioa jomugan, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarengana jo genuen, arazoaren berri emateko, gure Autonomia Erkidegoan salgai dauden jostailuen segurtasuna egiaztatzeko ikuskaritza kanpainak egiten dituztenean, arazo hori ere kontuan har zezaten.

Era berean, Urretxuko udaleko agintariak ere gogoan izan zezaten eta, horrela, herrian jartzen diren postuetan egiaztapenak egin zitzaizkien helburuaz, gure erakundetik komunikazio bat bidali genien, gaiari buruzko legedia zein den, eta tokiko erakundeko jardura esparrua zein den gogoratzeko.

Zehazki, komunikazio horretan azpimarratzen genuen salmenta ibiltariaren indarreko legediak dioenez, Urretxuko udalak arau higieniko, sanitario eta segurtasunekoak, eta salmenta jardueraren antolamenduaren arauak bete daitezkeen bermatu behar duela, eta urraketa arin eta larriak kontrolatu eta zehatu behar dituela, beste administrazio publiko batzuei esleitutako eskumenen kalterik gabe (Salerosketa Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 19. artikulua).

### C) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Etxebizitzetarako energia elektrikoaren hornidura behin eta berriro etetea (1422/2004)*

- Erreklamazioa

Gasteizen dagoen eraikin bateko auzokideen komunitateko buruak kezkatuta zeudela jakinarazi zion, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileretik komunitate horrek Iberdrola enpresaren kontra aurkeztu zion erreklamazioari erantzun ez ziolako. Erreklamazioa beren etxean urte bete luzez energia elektrikoaren horniketara etenak behin eta berriro izaten ari zirelako jarri zuten.

- Azterketa

Orokorrean, argitu behar dugu egun ez dagoela horniketa elektrikoaren zerbitzuaren jarraitasuna eta kalitatea 100eko 100ean bermatzerik. Horregatik, horniketa hori

araupetzen duten arauak –54/1997 Legea, azaroaren 27koa, eta 1995/2000 Erret Dekretua, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoaren garraio, banaketa merkaturatze, hornidura jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituenak– kalitate mailak adierazteko hainbat parametro definitzen dituzte, konpainia elektrikoek aplikagarriak zaizkien pizgarriak eta penalizazioak finkatzeko balio dutenak. Parametro horiekin kalitate maila egokiak mantendu nahi dira.

Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, modu errazean esatearren, zerbitzuaren kalitate parametro horiek bete daitezzen zaindu behar duen organoa da.

Horregatik, eta erreklamazioek erreklamazioa Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren aurrean aurkeztu zutelako, sail horrengana jo genuen, arazoa konpontzera begira, zer jarduketa bideratu zuten esan ziezagun eskatzeko.

- Emaizta

Sail horrek argiteria publikoan eta inguruan egiten ari ziren obretan ikuskapen eta egiaztapen ugari agerrarazten zituen txostena eman zigun. Txosten horretatik ondorioztatzen zen etxebizitzetarako horniketaren etenak itxuraz zerk eragiten zituen aurkitu zutela.

Industria, Merkataritza eta Turismo Saitetik esan ziguten, halaber, eraikitzaileari obren egintzan igarritako akatsak epe laburrean ongitzeko agindu ziotela, eta ohartarazi ziotela inguruko etxebizitzetako diferentzialek huts egiten segitzen bazuten, Iberdrolari argindarra kentzeko aginduko ziotela.

Eusko Jaurlaritzak zer egin zuen ikusita, eta kexagileei gure gestioen emaitzaren berri eman eta gero, amaitutzat jo genuen kasu horri buruzko gure eginbeharra.

## D) **Animalien babesa**

⇒ *Animalientzako aisialdi eremuak gaitzea (1126/2004)*

- Erreklamazioa

Bilboko parkeetako erabiltzaile diren txakurren jabeen kolektibo batek hainbat gogoeta helarazi zigun animaliak edukitzeari buruzko udal ordenantzaren aplikazioaren gainean. Zehazki, aipatzen duten arazo nagusia animaliak uhalaz lotuta izan gabe ibili ahal izan daitezzen gunerik gaitu ez dela da. Era berean, garraio publikoa maskota horiekin doazela, murrizpenekin erabiltzeko aukeraz ere mintzo dira.

- Azterketa

Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Zerbitzutik jakinarazi digute ez dagoela parke eta berdeguneetan halako astialdi gunerik gaitzeko modurik, horrek ekarriko lituzkeen garbiketa kosteengatik, zaintza arazoengatik eta gune horietatik gertu bizi diren erabiltzaileek gainerako erabiltzaileen aldean jasango luketen partzialtasunarengatik. Udal ordenantzak animaliak eta jabeak zelan tratatzen dituen gainean, aurreikusitako zehapenen neurrizkotasunaren zein garraio publikoak erabiltzeko debekua gainean, Udalak dio ordenantza bat datorrela txakurrak edukitzea arautzen duen 101/2004 Dekretuarekin.

Tokiko erakundeak emandako erantzuna ikusita, Ararteko erakundeak beharrezko ikusi zuen animaliak edukitzeko araudiaren eta interesatutako kolektiboak egindako eskariaren gaineko hainbat ohar egitea.

Lehenik eta behin, animalien jabeen eta gainerako herritarren arteko bizikidetzara arauak finkatzen dituen araudiak udalei agindu bat ematen die, beren eskuduntzez baliatuz, txakurren astialdirako guneak atontzen saia daitezten. Gune horietan animalia eramateko ohiko modua aldatzen da, jabeak ez baitu txakurra lotuta eraman behar izaten, murriztutako eremuak ez diren gainerako hiri bide eta espazioetan bezala. Horrela jaso da Bilboko udalerrian animaliak eduki eta babestea arautzen duen 2000ko azaroaren 29an onetsitako Ordenantzan, eta Eusko Jaurlaritzak txakurrak edukitzea arautzen duen 101/2004 Dekretuan. Horren haritik, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan aurreikusten den agindua euskal administrazio publikoaren aldaketa kontziente baten ondorioa da, eta botere publikoei gomendio aktibo bat egiten die, materialki eta udalerriarren errealitate sozial eta geografikoaren aldetik ahal duten heinean, animalien astialdirako gunean gai ditzaten. Ez dago agindu hori inola ere alboratzerik, edo gauzatzeko bitartekorik ez jartzerik, udal administrazioaren inongo zuhurtziazko ahalmen tekniko argudiatuz. Gai hau jada jasota dago gure Erakundeak Eusko Legebiltzarrerara igorritako 2004ko ohiko txostenean, arriskutsuak izan litezkeen txakurrak edukitzearen gaiarekin lotuta, udalek zelan esku hartu behar duten gomendio orokorrean.

Udalak gune horiek ez mugatzeko ematen dituen argudioak justifikazio proportzionala eta baliozkoa dira zuhurtziazko erabakien esparruan. Alabaina, aurreko gogoeten haritik, udalak behartuta daude halakoak atontzera, pixkana gauzatu behar badituzte ere. Horregatik, gune horiek gaitzearen koste ekonomikoaren argudioa, abalaten dituen finantza eta ekonomi analisi edo azterlana gorabehera, astialdi guneak ezartzeko planaren egitaraua finkatzeko balio lezake, baina ez du, inola ere, betebeharrak hori baztertzeko edo nahita ez betetzeko balio.

Bestalde, beraiek diotenez, ekipamendu horiek toki jakin batzuetan jartzeak hobekuntzak eta, ondorioz, desberdintasunak ekartzen dizkie auzo batzuei, halakorik jartzeko aukerarik ez dagoen auzo edo hiri eremuen aldean. Gauza bera gertatzen da beste ekipamendu kolektibo batzuekin, adibidez, parke edo espazio publikoekin, eta ez da argudio modura erabiltzen astialdi gune horiek ez ipintzeko. Horregatik, gure erakundeak uste du balizko gorabehera horiek txakurren astialdirako guneen antolamendu eta plangintza egokiarekin zuzendu behar direla, baina ezin direla, inola ere, herritarrak halako azpiegiturarik gabe uzteko aitzakia modura erabili.

- Emaizta

Inguruabar horiek guztiak ikusita, eta ukitutako alde guztien interesak kontuan hartuz, guk uste dugu Bilboko Udalak laguntzako animalientzat gordetako nahikoa espazio gaitu beharko lukeela. Leku horiek ondo mugatuta egongo dira, horien barruan, animalien eta pertsonen segurtasuna bermatzeko eta, horietatik kanpo, arauditik ondorioztatzen diren animaliak edukitzeko arauak betearaztea eskatu ahal izateko. Halako guneak gutxienez hiriko parke nagusietan egon beharko lirateke, eta guneok kudeatzeko animalien defentsaren eta babesaren aldeko kolektiboek parte hartzeko formulak jarri beharko lirateke. Udalak, gure iradokizunari erantzunez, berriro aipatu dizkigu autonomia erkidegoko eta tokiko araudian animalien astialdirako aurreikusten diren guneak abian jartzeko aurrekontuen aldetik dituzten zailtasunak.

## 2. GIZARTE ONGIZATEA

### 2.1. SARRERA

2005. urtean, 93 kexa jaso dira arlo horri buruz, hau da, arloka banatutako kexa guztien % 8,51.

Honakoa izan da banaketa, kexa horiek jaso dituzten administrazioen arabera:

-Foru administrazioa .....	49
-Toki administrazioa .....	38
-Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	10

Administrazio horiek eskumen ezberdinak dituzte. Gizarte-gaietako eskumenak era konplexuan daude banatuta hiru administrazioen artean eta administrazio bakoitzak duen kexa-kopurua zehazten du neurri handi batean. Eskumenen banaketa Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen bitartez egin da, eta uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren bidez, gizarte-zerbitzuen arloko funtzioak zehazteari buruzkoa, administrazioei zerbitzuak eta prestazioak esleitzen dizkiona: Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei.

Arlo horretan sortu diren gaien edukiak begiratzuz gero, azpiatalen sailkapen hau ateratzen da:

-Eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioak .....	32
-Umeei eta nerabeei laguntzea .....	18
-Adinekoei laguntzea .....	16
-Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio-prozedura .....	10
-Arreta bereziko taldeei laguntzea .....	7
-Familiari laguntzea .....	2
-Emakumeei laguntzea .....	2
-Ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzea .....	2
-Eskubideak eta askatasunak .....	2
-Bestelako alderdiak .....	1
-Kontratazio-erregimena, ondarea eta administrazio-erantzukizuna .....	1

Kexen ebazpena azaltzeaz gain, ezohiko txostena ere aurkeztu da aurten Legebiltzarrean gai honi buruz: *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak*, eta muturreko bazterketan dauden biztanleen gaineko jarduerekin jarraitu da. Kolektibo hori ahula denez eta norbaitek haien alde esku hartzeko beharra dutenez, hurrengo urtetik aurrera atal bat izango dute berentzat, arreta espezifikoko taldea izango dira; beraz, egin ohi diren ezohiko txostenekin batera, jasaten dituzten arazoak eta dituzten premiak hobeto ezagutzeko eta hurbilago ikusteko aukera emango digute.

Arlo honetan eragina duten administrazioen jardueren dagokienez, abenduaren 16an 11/2005 Foru Araua onartu izana da nabarmentzekoa. Arau horrek inoren

laguntza behar duten adineko pertsonentzako egoitzen zerbitzu publikoa erregulatzen du Bizkaian. Horrez gain, azpimarratzekoa da Plan estrategiko soziosanitarioa (2005-2008) onartu izana.

Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak gaiari buruzko txostena 2004ko abenduan amaitu zen, baina 2005. urtean aurkeztu da, eta EAeko administrazio guztiei helarazi zaie. Zerbitzu bi horien gaur egungo egoera aztertu ostean, gomendio ugari (50) egin zaizkie EAeko administrazioei, arreta zuzeneko zerbitzu horien kalitatea hobetzen laguntzeko; izan ere, gure iritziz, herritarrei zerbitzu hobea ematen lagunduko dute.

Gomendio horiek hiru arlori buruzkoak dira: esparru juridiko-administratiboa, zerbitzu horiek azken hamarkadan izan duten bilakaera eta egoitza-zerbitzuen eta eguneko zentroen sarea.

Zenbait aipatzearren, hiru lurralde historikoetan irizpideak bateratzeko premiari buruzkoak nabarmenduko ditugu. Bereziki bateratu behar dira inoren laguntza behar duten pertsonen arreta emateko zerbitzuak eskuratzeari buruzko irizpideak, eta gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen ekarpen ekonomikoari buruzkoak. Horrela, lurraldeen artean ikusi diren ezberdintasunak eta desorekak konpontzen hasiko dira. Horrez gain, plazen gorakada-erritmoa mantentzeko beharra ere aipatu da, 2010erako proposatu diren arreta-tasak eskuratzeko. Alde horretatik, kontuan hartu behar da pertsonen egoera gehiagotan behar dutela inoren laguntza, eta irisgarritasun-premiekin ere gora egin dutela. Era berean, nabarmentzekoa da gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eta hango langileen eskubideen eta betebeharren Gutuna, gizarte-zerbitzuen arloko arau nagusia delako.

Adinekoei egoitza publikoetan laguntza emateari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu horren berregituraketa handia egin du, eta erantzukizun zuzena bere gain hartu du zerbitzu hori ematerakoan. Lehenago banakako laguntza ekonomikoak ematen ziren egoitzako plaza finantzatzen laguntzeko, eta orain, berriz, plaza horiek finantzatzen dira, zerbitzua erabiltzen duten pertsonekin batera dagoen erantzukizun bateratuko sistema batean. Aldundiko egoitzen sarea eratu da, eta Bizkaian foru laguntza publikoa ematen duten zentroek osatzen dute, titulartasuna zehazki izanik ere. Sare hori **abenduarren 16ko 11/2005 Foru Araua onartuta eratu da, hau da, inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa erregulatzen duen araua** onartuta; garapeneko foru dekretuek ere eratu dute sare hori. Gainera, aurreikusitakoaren arabera, sare horrek homogeneotasunez funtzionatu behar du jarduteko irizpideetan eta ematen dituen prestazioen kalitatean, sare horretan dauden zentroez osatutako batzorde bat sortzearen bitartez.

Bizkaiko sistema berri horrek hainbat berritasun ditu, Autonomia Erkidego honetako antzeko beste arautegi batzuetan aurreikusten ez direnak, eta positibotzat jotzen ditugu, esate baterako, honakoak:

- zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen hizkuntza-eskubideak era esplizituan onartzea, jarduteko printzipio gisa, eta egoitza dagoen eremuaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartzeko konpromisoa.
- zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen familiakoei laguntza ematea, zerbitzua erabiliko duenarekin harreman hobea edukitzeko. Laguntza hori zerbitzuaren gutxieneko edukien artean gongo da.



- sare publikoa osatzen duten zentro guztiak urtero ikuskatzea.
- pertsona interesatua zentroan sartzeko baimenari buruzko prozedura, baliotasun juridiko argiko baldintzetan egin behar dena. Gure ustez, horrek adineko pertsonen eskubideak babesten ditu eta erakunde honek egindako gomendioetako batean jorratzen da (9. zk.), lehenago aipatu dugun ezohiko txostenean.
- lekua eskatu duen pertsonaren balioespen orokorrean zainduko duen pertsonaren egoera kontuan hartzea. Sarritan, pertsona hori oso mugatuta egoten da egiten ari den lanarekin jarraitzeko.
- zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen arretan bioetikaren printzipioak aplikatzea, aipatutako zentroyen batzordearen bitartez.

Bestalde, EAEko beste bi lurralde historikoetan lehendik zeuden elementu bi sartu dira orain. Honakoak:

- alde batetik, higiezin-ondarea kontatzea, zerbitzua eskatu duen pertsonaren gaitasun ekonomikoa balioesteko orduan. Horrek balioespen ekonomikozuzenago batera garamatza, eta, aldi berean, Autonomia Erkidego honetako gainerako foru erakundeek erabiltzen dituzten adierazleetara hurbiltzen ditu balioespen horretako adierazleak.
- bestalde, zorra onartzea, zerbitzua erabiliko duen pertsonari dagokion finantziazioaren zatiaren ordainketa bermatzeko, zerbitzua jasotzeko unean ordaindu ezin duenean.

Hala ere, aipatu dugun ezohiko txostenean adierazi genuenez (8. gomendia), arautegi berriak berriro baldintzatzen du foru sareko egoitza-zentroetara sartzea, diru-sarrerengehieneko muga behar delako. Hau da, beren ondarea zenbateko jakin bat baino handiagoa denean, foru sareko egoitzaren batean lekua izateko eskaera egin duten pertsonak sartzeko baldintzetako bat ez dute beteko, esate baterako, “plazaren kostu osoa ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez edukitzea” (209/2005 foru dekretuko 9 eta 11. artikulua).

Aurreikuspen hori kontraesanean dago zerbitzuak premia-mailaren arabera emateko printzipioarekin. Gainera, ez du uzten aurrera egiten diru-sarrerengehien mailak honakoa bakarrik zehaztuko duen eredurantz: zerbitzua erabiliko duen pertsonak zerbitzuaren finantziazioan izango duen parte-hartze ekonomikoa zenbatekoa. Horregatik, gure iritziz, diru-sarrerengehien maila ez litzateke izan behar sare publikoko egoitza-zentro batean sartzeko baimena ez emateko arrazoia.

Urte honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabaki bati buruzko gai bat ere tramitatu dugu. Aldundiak Tolosan dagoen **adinekoentzako egoitza bat ixtea** erabaki du, egoitzaren titularra baitzen. Egoitza hori itxi zenez, erabiltzen zuten pertsona guztiak beste egoitza-zentro batzuetara bidaliko zituzten, aldundiko zentro batean laguntza jasotzen jarraitzeko.

Gaia aztertu bezain laster, alde batetik, ulertu genuen erabakia administrazioak duen irizpide-askatasunaren barruan dagoela. Bestetik, erabakiak oinarriak zituen, honako faktoreen ondorioz hartu baitzen: gai horri buruz Gipuzkoan onartuta dauden jarduteko jarraibideak; lurraldeko egoitzetako lekuen plangintza egiteko beharra eta aztertzen ari garen zentroaren egoeraren analisia, iraunkortasunaren eta etorkizunean bideragarria izatearen ikuspegitik.

Hortaz, legearen aldetik ezin da zalantzan jarri hartutako erabakia, eragindako pertsonen ekarriko zien aldaketa ulertzen bagenuen ere. Arlo honetako kexen laburpean azalduko dugu gai hau; 238/2005 espediente-zenbakia du.

Muturreko gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen gaineko jardueri dago-kienez, aurten ezohiko txostena egin da etxerik gabeko pertsonen eta gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden oinarriko premiei erantzuteari buruz. Txosten honetako IV kapituluari aipatuko dugu txosten hori.

Gainera, Munduko Medikuek elkarteak kudeatzen duen zaintzapeko kontsumo zentroa bisitatu dugu, baita gaueko arreta emateko Hontza zentroa ere. Honakoa da azpimarratuko dugun informazioa:

#### *a) Kontsumo Ikuskatuaren Sala*

Bilboko Bailen kalean dago zaintzapeko kontsumo zentroa. 2003an hasi zen herritarrei arreta ematen. Ararteko erakundeak hasieratik esku hartu zuen, zerbitzua abian jartzeko prozedura zuzena izango zela zaintzeko eta bizilagunak informatuta eta inplikaturik egongo zirela bermatzeko, bizilagunen talde batek kexa batzuk jarri zituelako. Hasieran kontuz ibili baziren ere, ez da kexa gehiagorik egon, eta normaltasunez egin da guztia, ez da egon gertakari azpimarragarririk eta harremanak onak izan dira bizilagunekin.

Zentro horren helburu nagusia drogak zain barnetik kontsumitzeari lotutako arriskuak gutxitzea da, zentroa erabiltzen duten pertsonentzat zein gizarte osoarentzat. EAEn ezaugarriok dituen baliabide hori baino ez dago. 1.079 pertsonak erabili dute baliabidea. Pertsona gehienak ahoz aho jaso duten informazioagatik hurbildu dira (% 78,96) zentro horretara, eta zerbitzuaren balioespen oso positiboa egin dute. Datuek ere alderdi hori berresten dute, ireki zenetik 38.208 bisita izan baititu.

Erabiltzen duten pertsonen profil nagusia hau da: gizonezkoa (% 83), Espainiako nazionalitatearekin (% 89,06), Bizkaian erroldatua (% 71,26), etxebizitza batean lo egiten duena, 37 urtekoa, eta 15 urtetan droga kontsumitzen egondakoa, zain barnetik eta/edo inhalatuta. Bisita-kopuruak gora egin du, eta orain, batez beste, 46 pertsonak erabiltzen dute zentroa egunero. Kopuru hori handitu egin da 2005eko abenduan, 100 pertsonakoa izan baita batez bestekoa.

Kontsumo gehiena (% 90,14) zain barnetik egiten da (kokaina, heroina edo biak nahastuta). Droga inhalatzeko gelan (% 8,68) eta esnifatzeko gelan (% 1,18) ere erabiltzaileak daude.

Hau da pertsona bakoitzak egiten dituen bisiten maiztasuna:

<u>Bisita-kopurua</u>	<u>Pertsonak</u>
10 baino gutxiago .....	523
11-50 .....	347
51-100 .....	118
101-500 .....	82
500 baino gehiago .....	9

Programa nagusietako bat xiringen trukea da. Horren helburua injekzio esterilerako materiala eskuratzen laguntzea da, baita gizartean erabilitako xiringen kopurua gutxitzea ere. Gainera, preserbatiboak ere banatzen dira. Programa horrek astegunak ezberdintzen ditu. Izan ere, astegunetan zerbitzuan izena eman duten pertsonen bakarrak ematen zaie arreta. Asteburuetan eta jaiegunetan, berriz, zentrora hurbiltzen diren pertsona guztiei ematen zaie laguntza, izena emanda daudenean zein ez daudenean, beste baliabide batzuk itxita daudelako, eta, hortaz, urteko egun guztietan zabalik dagoen zerbitzu bakarretako bat delako.

Ireki zenetik 2005eko azaroaren 20ra arte, 30.269 xiringa jaso dira zentroan, eta injektatzeko 39.994 tresneria eman dira. Asteburuetan eta jaiegunetan 26.265 xiringa jaso dira, eta injektatzeko 29.117 tresneria eman dira. Kaleko lanaren bitartez banatu diren xiringak eta tresneriak gehitu behar zaizkio kopuru horri, bai eta injektatzeko gelan kontsumitu diren xiringak ere. Orotara, 116.000 xiringa eta tresneria inguru banatu dituztela adierazi dute.

Baliabide horrek kontsumoa ikuskatzen du, baliabidearen memorian jasotakoaren arabera, eta, horrez gain, erizaintzako (3.398), hezkuntzako (6.282), entzute aktiboko (2.859) esku-hartzeak egiten ditu, beste zerbitzu batzuetara igortzen ditu pertsonak (108), beste baliabide batzuei buruzko informazioa ematen du (280), esaterako, programa terapeutikoei buruzkoa, eta beste esku-hartze batzuk (498) egiten ditu, zerbitzua erabiltzen duen pertsonaren egoeraren arabera. Jarduera horien guztien kopuruak gora egin du denborarekin. Erizaintzako esku-hartzeak oso garrantzitsuak dira, zainetako lesioak prebenitzen dituztelako, injektatzeko teknikak irakasten baitizkiete, kalteak gutxitzeko, eta beste lesio batzuk aurkitu ditzakete eta, horren ondorioz, osasun-etxera bidali.

Baliabidean egiten den beste jardueretako bat kaleko lana da. Lan horren bidez, zentroa dagoela adierazten da eta zentroko baldintzak jakinarazten dira, zeinahi arrazoi dela ere, zentrora joateari utzi dioten pertsonen segimendua egiten da eta zentroaren inguruko eremuak egiaztatzen dira, drogaren kontsumoari lotutako zerbait gertatzen bada ikusteko, inguruan bizi direnen normaltasuna aldatu dezakeen zerbait hain zuzen. Horrez gain, kaleko lanaren bidez droga kontsumitzen duten leku irekiak aurkitzen dira, eta pertsonekin harremanetan jartzen dira. Zentroa ireki zenetik 601 pertsonarekin jarri dira harremanetan, 450 gizonekin eta 151 emakumerekin. Hurrengo hilabeteetan kaleko lanari bultzada eman nahi zaio, gaur egungo kontsumoari buruzko informazioa batzeko, kontsumorako hain kaltegarriak ez diren ohiturak sustatzeko edo kontsumitzaile adingabeak identifikatzeko. Horri lotuta, ardura erakutsi dute, gazte magrehtarrek lekeda edo disolbatzaileak inhalatzen dituztelako. Eskulangintzako ikastaro bat ere bultzatu nahi dute.

Amaitzeko, zerbitzua erabiltzen dutenentzako ikastaroak egin dituzte, beren premietan laguntzeko: adierazpen askeari buruzko ikastaroa, makillajeari buruzkoa, era seguruan injektatzeko ikastaroa edo gaindosiari buruzkoa.

Ikastaro horien balioespen oso positiboa egin dute, kalteak gutxitzen lagundu dutelako eta normal funtzionatu dutelako. Ikastaroei dagokienez, nabarmentzekoa da langileen egonkortasuna, eta hasieratik ordutegia bera izan dutela, gertaera azpimarragarririk ez dela egon edo auzoekin harreman ona izan dutela. Ondo funtzionatzen duela erakusten du beste erakunde eta administrazio batzuen eredu bihurtu dela zentroa. Denbora gutxian sendotzen joan den baliabidea da. Horixe erakusten du erabiltzen duten pertsonen kopuruak, edo gela gehiago zabaltzeak, esaterako, inhalatzeko gela. Are gehiago, une honetan, leku gehiago behar dutela adierazi dute, eta jarduera gehiago egitea komeni dela, esate baterako, gazteei zuzendutako prebentzioko jarduerak. Nabarmentzekoak dira, halaber, Osakidetza-rekin duen koordinazioa, komunikabideekin batera egiten duten sentsibilizazio-lana eta zentroaren erabiltzaileek duten parte-hartzea. Haien iritziak eta iradokizunak jasotzeko leku bat dute dagoeneko, baina zerbitzua erabiltzen dutenek parte hartzeko batzorde bat sortzea aurreikusitako dute.

Etorkizunean hobetu daitezkeen alderdiei dagokienez, gutxienez bi aipatuko ditugu:

- Esperientzia balioetsiko duten ikerketak edo azterlanak egitea komeni da.
- Proiektua finantzatzeko bideak hobetu behar dira.

Lehenengoari dagokionez, ahalegin handiak egin dituzten arren, oraindik ez dute finantziario nahikorik jaso ikuspegi askotarikoa duen azterlana egiteko. Ikerketa-taldea osatzea da haien proiektua.

Finantziarioari dagokionez, berriz, deigarria da administrazio batzuek eta besteek erakusten duten konpromisoa eta laguntza ez dela maila berekoa. Finantziario-iturriari begiratzen badiegu, finantziarioaren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzak (% 34,8) eta Europako funtsek (FEDER) (% 34,8) egiten dute. Ehuneko nahiko handia ematen dute Foru Aldundiak (% 20,35) eta BBK-k (% 6,8). Bilboko Udalak ematen duen ehuneko (% 3,05) deigarri gertatzen da, baliabidea Bilbon dagoelako eta gizartean garrantzi handia duelako. Aurrekontu nahikoa izateak eragina du zerbitzuaren hobekuntzan, esaterako, irekitzeko ordutegietan eta jarduera eta programa gehiago abian jartzean.

*b) Hontza Zentroa (larrialdiko eta gaueko harrerako zentroa):*

Harrera-zentro hori Bilboko Caritas Diocesanak kudeatzen du, eta haren jarduera sendotu egin da azken urteetan, bereziki San Anton elizaren alboko eraikin batera eramane zutenetik. Hasieran, inguruan bizi zirenek protestak egin zituzten, eta horrek zaildu egin zuen lokalaren jarduera garatzea. Lokal hori Zamakola kalean jarri zen. Arartekoak esku hartu zuen, Zamakolako Jabeen Elkarteak kexa jarri zuelako. Haien iritziak auzoari ekarriko zizkion arazo eta kalteak azaldu zituen elkarte horrek. Horrez gain, Caritas-ek eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Biziberritzeko

Taldeen Koordinakundeak ere esku hartzeko eskatu zioten Arartekoari, zentroak baldintza egokietan egin ahal izan zezan bere lana.

Zerbitzu hori abian jarri baino lehen, Arartekoak behin eta berriro adierazi zuen beharrezkoa zela horrelako baliabideak sortzea, batez ere 1999an Naxako kaia utzarazi zietenean han bizi eta gaua pasatzen zutenei. Etxerik ez zuten pertsona asko ziren, eta drogaren kontsumoak sortutako arazoak zituzten. Zerbitzu horien premiei lotuta, garrantzitsua da gogoratzea Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onartutako legez besteko proposamena.

Egin ziren esku-hartzeak irekitzeko baimena emateko prozedurari buruzkoak izan ziren, eta zerbitzua baldintza egokietan emateari eta alderdiak hurbiltzeari buruzkoak. “Erakundeen buruzagitzak ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean” gaiari buruzko gomendio orokorrak (cfr. 2001eko txostena, VI. atala) jasotzen du horrelako zerbitzuak abian jartzeko esperientzia, eta alderdi guztien eskubideak bermatzeko moduari buruz erakundeak uste duena. Droga Gaietako Zuzendaritzak agiri bat egin zuen aurreko gomendioan proposatu genituenei jarraituz: “Drogaren mendekoei arretea emateko baliabideei lotutako jarduera komunitarioko estrategiak antolatzeke, ezartzeko eta haien segimendua egiteko metodologia-gida”. Guk ekarpenak egin genizkion gida horri.

2003. eta 2004. urteetan programaren garapenari buruzko informazioa jaso dugu, hau da, helburu eta emaitzei, emandako laguntzari, erabili dutenen profilaria... buruzko informazioa. Horri buruzko datuak urteko txostenetan agertzen dira (cfr. 2003ko txostena, II. atala, 2.2. azpiatala; 2004ko txostena, I. atala, 1.1.7. azpiatala).

Hemen soilik aipatuko ditugu zentroari 2005eko abenduan egin genion azken bisitan ikusi edo sortu ziren zenbait gai.

Zentroa urteko egun guztietan egoten da irekita, gaueko hamar eta erdietatik goizeko zazpiak arte. Orduetegi hori ez da aldatu azken urteotan. Programaren helburu nagusia baldintza duinetan atseden hartzeko aukera ematea da. Horretarako, zerbitzu hauek ditu: xiringak jasotzeko eta trukatzeko eremua, egongela, norbera garbitzeko lekua eta garbitegia, erizaindegia, elkarrizketetarako bulegoa eta 17 hamaka dituen atseden hartzeko eremua.

Horrela funtzionatzen du: 14 txartel banatzen dira Caritas-en (urtarrilaren 15etik aurrera), eta horrek gauez zerbitzura joateko aukera ematen die. Zerbitzua 10:30 p.m.-n irekitzen da, eta leku bi gordetzen dira urgentzietarako.

Zentroa goizaldeko ordu 1etatik 4ak arte ere zabalik dago, gizarte eta osasun larrialdietarako. Harrera-zerbitzua eskaintzen du, eta xiringak trukatzeko zerbitzua ere, egongela, garbitzeko eremua, erizaindegia eta elkarrizketetarako bulegoa.

Instalazioak egoera ezin hobean daude, bisitan ikusi genuenez.

Gainera, beste esku-hartze batzuk egiten dituzte: hezkuntzako, esaterako, norbera zaintzeko ohiturak lantzen dituzte; osasuneko, erizaindegiarekin edo osasunari buruzko ikastareekin; komunitatekoa, beste baliabide batzuei buruzko informazioa eman eta terapia-proiektuetara igortzen baitituzte, edo beste batzuetara, esaterako, Giltza. Zerbitzua erabiltzen dutenen profila aldatu dela adierazi dute; atzerriko pertsonen kopurua handitu da, zehazki Europako ekialdetik etorritako pertsonena, eta emakumeen kopurua gutxitu da. Zailtasunei dagokienez, gazte atzeritarrei arreta emateak sortzen dituztenak nabarmendu dituzte, disolbatzaileak inhalatzeak dituen eraginengatik eta kontsumo horren arriskuagatik.

Nabarmendu dute 2005. urtean arropa eman edo utzi, edo eko-arropako dentetarako baleak eman behar izan dituztela, nahiz eta zentroaren helburua ez izan, ez dagoelako arropa edota oinetako premia betetzen duen erakunde edo baliabiderik.

Zerbitzua sendotu egin da. Azken urteetan ez da egon nabarmentzeko moduko gertakaririk eta, hori dela-eta, segimendua egiteko batzordea desegin da (beharrezkoa izanez gero, batzordea berriro abian jartzea aurreikusita dago). Gainera, txosten bat aurkezten zaio urtero auzoko batzordeari. Baliabidearen balioespina positiboa bakarrik izan daiteke, beharrezkoa baita muturreko bizitzak dituztenen egoerari aurre egiten dion baliabide bat egotea, eta erabiltzen dutenen bizitza duinagoa izan dadin egiten duten ahaleginagatik. Hori dela-eta, erakunde honen iritiz, esperientzia horrek balio handia du muturreko bazterketa-egoeran dauden pertsona drogazaleen premiei erantzuteko. Horrez gain, pertsona horiei laguntzeko baliabide gehiago sortzea komeni dela nabarmendu nahi dugu, etxerik gabeko pertsonen premiei erantzuteari buruz egingo den ezohiko txostenean proposatzen denez.

Baliabidearen mugei dagokienez, batez ere finantziazioari buruzkoak dira, eragotzi egiten dutelako laguntza ematen denbora gehiago egitea, eta laguntza hori pertsona gehiagori ematea. Aurrekontua urria da, eta, beraz, bi txanda baino ez daude, bakoitza 7 eguneko. Zerbitzuaren ordutegiak mugatuak dira eta neguan ez dira nahikoa (10:30 p.m.-7:00 a.m.). Informazio gehiago emango diguten txosten eta azterlanak egitea ere eragozten du. Lau hezitzaile, erizain bi, zinpeko zaintzaile bi eta arduradun bat dira hango langileak. Boluntarioak ere badituzte.

Finantziazioaren zatirik handiena Caritasek egiten du, % 52,67 hain zuzen. Gainerakoa, Eusko Jaurlaritzak, batez ere, eta Bilboko Udalak ematen dute. Bilboko Udalak ehuneko txikiagoa ordaintzen du, eta deigarria da, zaintzapeko kontsumo zentroan ere gauza bera gertatzen baita.

2005. urtean, gastuak, denetara, 509.741,19 € izan dira. Langile gastuez gain, partidarik garrantzitsuenen artean osasun eta higiene materialarena dago, 28.848,99 €. Diru sarrera publikoak 228.705 € izan dira. Honela banatzen dira: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Droga Gaietako Zuzendaritzak 132.000 €, Osakidetzak 11.705 € eta Bilboko Udaleko Gizarte

Ongizate Sailak 85.000 €. Deigarria egiten da Osakidetzaren diru laguntzak ez duela osasun eta higiene materialaren gastua ere estaltzen.

\* \* \*

**Plan estrategiko soziosanitarioa** (2005-2008) onartzea da osasunaren arloan administrazioak egin duen beste jarduera oso garrantzitsu bat, hainbeste eskatu den gizarte eta osasun arretari beste bultzada bat emango diolako. Beste alderdi askoren artean, mendekotasuna balioesteko irizpideak homologatuko ditu hiru lurraldeetan. Hori ere aipatu dugun ezohiko txostenean gomendatu genuen (2. gomendioa).

Eremu soziosanitarioa garatzea funtsezkoa da pertsonen premiei ikuspegi osoarekin aurre egiteko, eta disfuntzioak ekiditeko, 209/2005 eta 1337/05 espediente-zenbakietan laburtu ditugun kasuetan gertatu den gisan. Lehenengoan, diagnostiko ezberdina egin dute gizarte eta osasun arloko teknikariek. Bigarrenean, azalduta dago pertsona bat errehabilitazio soziosanitarioko programa batean sartzeak tratamenduarekin jarraitzea arriskuan jarri duela, ez baitute beste gizarte-baliabide batzuen laguntza kontuan hartu.

Bestalde, poztetako litzateke **gizarte gaietan** erakundeen arteko **hitzarmenak** egiten jarraituko balute, aldundiek kudeatzen dituzten zerbitzuetara sartzeko dauden baldintzen ezberdintasunak sortutako arazoak konpontzeko. Talde zehatz batzuei zuzendutako zenbait zerbitzu eskuratzeko, zailtasunak egon daitezke; izan ere, lehenagotik epe batez lurraldean erroldatuta egon izana eskatzen zaie, eta batzuetan ez dute betetzen baldintza hori. lurralde batetik bestera bizitzen joan direlako, Autonomia Erkidegoaren barruan. Egoera horrek pertsona nagusien gaineko eragina izan dezake, beste lurralde batean bizi diren seme-alaben etxera bizitzera joan badira, ez luketelako beteko errolda-baldintzarik. Lanagatik edo bestelako arrazoiengatik lurraldez aldatu diren ezgaitasunen bat duten pertsonen ere gauza bera gertatu ahal zaie.

Iazko txostenean ere alderdi hau aipatu genuen, baina horrelako hitzarmenak berriro aipatzen ditugu, Eusko Legebiltzarrak gobernu autonomoari egindako eskaerarekin bat datorrelako. Eskaera hori legez besteko proposamen baten bitartez egin zuen, 2005eko abenduaren 14an, eta hauxe zen: “...erakundeen arteko lankidetzaz indartzea, Gizarte Ongizateko Batzordearen eta Euskal Batzorde Soziosanitarioaren bitartez. Erakunde biek konpromisoa hartzen dute mendekotasunaren eta horri laguntza ematearen balorizazioari buruzko irizpideak bateratzeko”.

\* \* \*

Aurten jaso ditugun kexei dagokienez, honakoak nabarmenduko ditugu:

Gasteizen “Aterpe” izeneko **gizarte-zerbitzu bat** dago, **etxerik gabeko pertsonen ostatu emateko**. Hain zuzen ere, zentro horrek hartutako erabaki batzuen ondorioz, kexak egon dira. Izan ere, erabaki horiek era pertsonalean eragiten dute zentroa erabiltzen duten pertsonengan, esate baterako, pertsonaren bat kaleratu egin da, eta, gainera, beren laneko aldarrikapenetan zentroko langileek hartzen dituzten zenbait neurrik eragina dute erabiltzaileengan, esaterako, grebak.

Aipatutako lehenengo alderdiari dagokionez, zentroa erabiltzen duen pertsonaren bati kaleratu egingo dutela ahoz esaten zaionean, ezin zaio ebazpena eman, oraindik

ez delako egin. Ebazpena egin denean, ezin zaio jakinarazi, pertsona horrek ez duelako helbiderik. Hori dela-eta, legezko abisuak erabiltzen dira berria jakinarazteko, aldizkari ofizialaren bitartez. Beraz, errealitatean, eragindako pertsonak oso gutxitan lortzen du erabakiaren arrazoiak azaltzen dituen dokumentu idatzia edukitzea, arrazoi horiei kontra egin ahal izateko. Horregatik, positiboa litzateke horrelako egoeretan, erabakia ahoz jakinarazten zaienean, ebazpen-proposamen bat ematea, erabakiaren arrazoiak era zehatzean jakin ditzaten eta beren burua defendatzeko egoki ikusten dituzten alegazioak egin ahal izateko.

Urte honetan egon den lan-gatazkari dagokionez, adierazi behar da zentro horren kudeaketa zeharkakoa dela, enpresa baten bitartez egiten da. Udalak hitzarmen bat du izenpetuta enpresa horrekin. Hortaz, lan-gatazka langileen eta kudeaketa esleituta duen enpresaren artekoa izan zen, eta horrek aldizkako greba ekarri zuen. Egoera horretan, zentroa itxi egiten zen zerbitzurik ematen ez zen egunetan, eta, horren ondorioz, erabiltzen zuten pertsonak kaltetzen zituen. Jorratzen ari garen gai honetan dauden eskubide biak bateragarri egin beharko liriateke: langileek greba egiteko duten eskubidea eta zentroa erabiltzen dutenek beren bizi-baldintzetan eragiten duen zerbitzua jasotzeko duten eskubidea. Kalteak saihesteko, gure ustez, administrazio publikoek horrelako egoerak aurreikusi beharko lituzkete hitzarmenak izenpetzerakoan, pertsona ahulenek berengan eraginik ez duen gatazka baten ondorio txarrak jasan ez ditzaten.

\* \* \*

Urtero-urtero egiten dira kexak **errola** dela-eta. Errola funtsezkoa bihurtu da gizarte-eskubideak erabili ahal izateko. Norberaren bizitokia den udalerriko erroldan izena ematean, herritar bihurtzen zara (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 18. artikulua). Horrek hautatzeko eta hautatuak izateko aukera ematen du, eta udalaren kudeaketan parte hartzeko ere, baina, udaleko zerbitzu publikoak erabiltzeko ere erroldatuta egotea beharrezkoa da.

Horri dagokionez, TAOLeko 16. artikulua haxe dio erroldari buruz: *“haren datuak udalerrian bizitzearen eta ohiko helbidea hantxe izatearen frogara dira”*. *Datu horiei buruz egiten diren ziurtagiriak dokumentu publikoak izango dira eta izaera fede-emailea izango dute administrazio-eragin guztietarako”*.

Beraz, erroldako ziurtagiria beharrezko agiria da beste zerbitzu batzuk eskuratzeko, esate baterako, bizitoki dugun herriko ikastetxera edo haurtzaindegira sartzeko, osasun-txartela egiteko edo bizitzen daramagun denbora akreditatzeko. Hau da, administrazioan jarduteko gaitasunean eragiten du eta beste gizarte-eskubide batzuk erabiltzeko aukera ere ematen du. Dokumentazio-prozesuan errotzea akreditatzeko ere balio die Europako erkidegokoak ez diren pertsona atzerritarrei.

Bestalde, Espainiako estatuan bizi diren pertsona guztien betebeharra da erroldan izena ematea, jatorria eta egoera juridikoa zeinahi izanik; hau da, berdin da bizitzeko baimena izan edo ez izan.

Kexak jaso ditugu, etxebizitzarik ez duten baina udalerrian bizi diren atzerriko pertsonen erroldatzeko aukera ukatu zaielako. Horietako bat familia bati buruzkoa zen; familiako kideak hainbat gurditan bizi ziren eta zenbait adingabeak ziren. Gehiagotan ere jaso ditugu ibilgailuetan bizi eta udalak erroldatzeko aukera ezeztatu dieten pertsonen kexak (1176/2004 espediente-zenbakian dago laburtuta).



Arautegia aztertu dugu, baita eroldaren funtzioa eta helburua ere, eta, horren ostean, gure irizpidea da udalerrri batean bizi diren pertsonak eroldan egon behar direla. Ez etxebizitza batean egoteko titulua ez edukitzea, ez etxebizitzaren egoera, ezta etxerik ez izatea ere ez dira arrazoi errolatzea ukatzeko; zerbaitetarako arrazoi izatekotan, esku-hartze soziala egiteko arrazoiak dira.

Gurdietan bizi diren etnia ijitoko pertsona atzerritarren **kokalekuei** buruzko kekek ere tramitatu dira (1231/2004 zenbakia). Udalerrri batean kokatzen eta errolatzen ez uzteak arazoa beste leku batera eramaten du, eta udalak ez du bere lana osorik betetzen. Udalek ordena publikoko funtzioak dituzte eta, horrez gain, gizarte-zerbitzuak ematea da haien eskumenetako bat; hau da, udalerrian dauden gizarte-premien aurreko esku-hartze soziala. Gizarte-zerbitzuak ongizate-estatuaren zati oso garrantzitsua dira. Hori dela-eta, amaitzeko, fenomeno horri garrantzia emango diogu, gorantz joango baita Europar Batasuna ekialdeko herrialdetara zabaltzen den heinean. Horren ondorioz, administrazio guztiek (Europar Batasunak, estatuak, autonomia erkidegoek, aldundiek eta udalek) ahalegina egin behar dute koordinatzeko eta bazterketaren kontra egiteko politika publikoak abian jartzeko.

\* \* \*

Jaso dugun beste kexa batek **oinarrizko gizarte zerbitzuekin** zerikusia du. Etxerik gabeko pertsona da eta bizitza osoan bere bizilekua izan zen udalerriko gizarte zerbitzuei gizarte-laguntzak eta ostatu hartzeko laguntzak eskatu zizkion. Ez da ohikoa, pertsona horien ezaugarrietako bat sistematik kanpo bizitzea delako eta ez dituztelako kekek zuzenean egiten, baina aurten horrelako hainbat kexa jaso ditugu. Kexa honek 938/2005 zenbakia du, eta gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonak dituzten premiak erakusten ditu, bai eta jatorrizko inguruneko oinarrizko gizarte-zerbitzuek prebentzioko jarduerak egiteak duen garrantzia ere, muturreko bazterketa saihesteko.

\* \* \*

**Eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioak** tramitatzeari dagokionez, lurraldeen artean irizpideak bateratzeko premia ikusi da, lehenago aipatu dugunez. Gizarte-bazterkeriaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak sortutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko betekizunetan bateratu behar dira irizpideak, esate baterako, oinarrizko errentan. Kasu horretan eskumena Eusko Jaurlaritzarena da, baina foru aldundiek oinarrizko errenta onartzeko edo ukatzeko eskumena dute. Beraz, ebazpena ematen dutenak dira. Gainera, udalak izango dira jarraitu beharreko prozedura eta tramite guztiak egingo dituztenak, eta eskaera egin duen pertsonak baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuko dutenak.

Kexan azaltzen den kasu zehatzean, alokatutako gela batean bizi den pertsona bat da. Etxebizitza horretako jabeak gela guztiak alokatu ditu banaka egindako kontratuen bidez. Arazoa sortu da zehazterakoan ea ostatu-mota batzuk etxebizitza edo ostatu independente badira edo ez badira, laguntza eskatzeko orduan. Alderdi hori funtsezkoa da bizikidetzaren independenteko unitate ekonomikoko kideak zehazteko. Izan ere, determinatu egiten du oinarrizko errentaren laguntza ekonomikoa banaka edo bizikidetzaren independenteko unitate ekonomikoko kide gisa eskatzeko eskubidea.

Kontzeptu horiek prestazio bietarako definituta daude apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuko 4. eta 5. artikuluetan, hau da, aipatutako 12/1998 Legea garatzen duen dekretuan. Alokairu-moduei dagokienez, berriz, hiri-alokairuei buruzko legean daude definituta kontzeptu horiek.

Sortu zitzaigun kasu hori dela-eta, ikusi genuen aldundiek ez zutela irizpide bera aipatutako aginduak interpretatzeko. Horrenbestez, egoera horrek erantzun ezberdina izan zezakeen ebazten zuenaren arabera. Horrek berdintasun-printzipioa urratu dezake.

Gure ustez, egoera horietan zelan jardun behar den argitu beharko luke Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, 12/1998 Legearen arau-eskumena baitu. Horretarako, beharrezkoak diren jarraibideak sortu beharko lituzke, egoera horri aplikatzeko irizpidea beti berbera izan zedin. Horregatik, idazki bat igorri genuen sail horretara, eta erantzunaren zain gaude.

Gizarte-prestazio ekonomikoei lotutako beste kexa batek zalantzan jarri du Bizkaiko Foru Aldundiak egiten duen zenbaketa bat, ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioak kalkulatzeko kontuan hartu behar diren diru-sarreraren zenbaketa hain zuzen (937/2005 zenbakiarekin laburtuko dugu). Foru Aldundiak bezala, guk ere uste dugu arautegiak haxe ezartzen duela zenbatu behar diren diru-sarrerak gordinak direla, ez eskura dagoen errenta, hau da, gastuak ez dira kentzen. Hala ere, herritarrek administrazioaren eskutik jasotzen duten informazioa hobetu behar dela izan da gure ondorioa, oinarritzkoa da-eta eskubideak erabiltzeko.

## 2.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Arreta bereziko taldeei laguntzea

⇒ *Udalerrri batean ibilgailuetan bizi diren pertsona atzerritarren kokalekuak (1231/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona atzerritarrek betetako hainbat galdi egon ziren aparkatuta Portugaleteko Buena Vistako zelaian eta Portugalete eta Ortuella arteko Ballonti eremuan. Portugaleteko eta Ortuellako Udaltzaingoek esku hartu zuten, eta, horren ondorioz, handik joan ziren.

- Azterketa

Pertsona horiek joanarazi zituen Udaltzaingoaren esku-hartzeari buruzko informazioa eskatu genuen, eta erantzun ziguten Portugaleten debekatuta dagoela kanpatzea. Beraz, haien arabera, pertsona-kopuru handi batek era iraunkorrean okupatua zuen jabari publikoko zelai batean esku hartu zuten, ez baitzituzten gutxienezko baldintza higieniko ez sanitarioak betetzen. Horrez gain, leku hartan sortzen ari zen zikinkeria eta osasunaren kontrako egoera eteteko egin zuten, udalaren arabera. Adierazi zuteenez, herritarrek osasun ezagatik egin zuten salaketa-kopuru handiagatik joan ziren, ume txikiak utzita zeudelako, kanpatutakoen eta ingurutik paseatzen zuten herritarren

artean liskarrak zeudelako, era arduragabeen gidatzen zutelako edo kanpatzea legez kanpoko zelako.

Bestalde, erantzun ziguten pertsona etorkinei buruzko jarduteko plan lokalik ez dutela. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren arreta juridiko sozialeko zerbitzura (HELDU) jotzen dute sortzen zaizkien immigrazio-kasuetan, eta adierazi dute jarduera bateratuko protokolo bat bideragarria den ala ez aztertzen ari direla inguruko udalerriekin, gertatutakoaren antzeko kasuetan era koordinatuan jardutea ahalbidetuko duena. Azkenean, gizarte-zerbitzuen jardunari buruzko informazioa eman ziguten. Esandakoaren arabera, ez dute ezberdintasunik egiten jatorriagatik, baina haien premia objektiboek buruzko orientazioa emango dien diagnostiko baten zain daude.

Espedientea aztertu ostean, gure ondorioa izan zen Portugaleteko gizarte-zerbitzuek gizarteratzearen alde egiten dutela lan, normalizatzaileak direlako eta ez dutelako inolako bazterketarik egiten jatorri nazionalaren arabera. Hala ere, adierazi genuen beharrezkoa zela gizarte-zerbitzuak egokitzea, baita beste zerbitzu publiko batzuk ere, immigrazioak udalerrira ekarriko dituen gizarte-premia berriei aurre egiteko eta berriki heldutako herritarren premiei erantzuteko. Guk berriro esan genuen biztanle atzerritarrek gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatzeko jarduerak behar dituztela, eta Eusko Jaurlaritzak abian jarri dituen jarduerak gogoratu genizkion. Erantzun egoki batek beren ezaugarri bereziak eta dibertsitatea kontuan hartu behar du. Kasu honetan, jatorri errumaniarra duten biztanleak dira, ibilgailuetan bizi direnak. Egoera horretan funtsezkoa da udalen arteko koordinazioa, kokalekuak udalerrira jakin batek egingo dien harreraren arabera izan ez daitezen, lurraldeen arteko desorekak eta bereizketa egoteko arriskua dagoelako. Garrantzitsua iruditu zitzaigun gogoraraztea udal erakundeak erantzun askotarikoak ematen ari direla karabanaz osatutako kokalekuen aurrean. Zenbait Udalek, esaterako Gasteizkoak, ekipamendu batzuk jarri dituzte abian gizarte-premia berri horiei aurre egiteko –Ibiltaria programa–. Programa horrek kokaleku erdi nomadetarako lursailak jartzen ditu, zerbitzu komunekin: jateko lekua eta bainugelak eta langile egokiak, eskuhartzean lan egiteko plan bat egiten ari diren langile eta hezitzaile sozialak hain zuzen. Eredua beste udalerrira batzuetara egokitu daitekeen alde batera utzita, erakunde honen iritziz, udalerririk gizarte-premia berriei era zuzenean erantzun behar diete, herritarrek eta udalak dituen baliabideak kontuan hartuta. Horrela, saihestu egingo da gizarte-premia berri horiei erantzungo dieten bakarrak gizarte-zerbitzuen sare garatuagoa duten udalak izatea, edo ezingo da zaila izan neurriagatik kokaleku guztien kontrol poliziala egitea.

Europar Batasuna zabaltzeko prozesuaren ondorioz, etnia ijitoko biztanle asko dituzten estatuak sartu dira Batasunean, esate baterako, Txekiar Errepublika, Eslovakia eta Hungaria, eta 2007an Errumania eta Bulgaria sartuko dira. Europar Batasuna arreta emateko politikak bultzatzen ari da, kolektibo horren bizi-baldintzak hobetzeko, haren ezaugarriak baitira pobrezia, gizarte-bazterketa eta gizarterearen gehiengoaren gaitzespen orokorra. Etnia ijitoko pertsonen kolektiboari zuzentzen zaizkio diskriminazioaren eta gizarte-bazterketaren aurka egiteko Europako politikak, ekialderantz zabaltzeko egiten ari den prozesuan. Gure iritziz, integrazio-espazioak sustatu beharko liriateke, eta ez litzateke oztoporik jarri behar etnia ijitoko pertsonak udalera kokatzeko. Izan ere, horixe dago jasota diskriminazioaren kontrako eta gizarte-bazterketaren aurka egiteko Europar Batasunaren arautegian eta Euskal Autonomia Erkidegoarenean, baita Immigrazioaren Euskal Planean, Gizarteratzeko Euskal Planean (2003-2005) eta ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako euskal planean ere.

- Emaiza

Kexa tramitatu zenean ez zegoen kokalekurik Portugalete udalerriko espazio publikoetan (ezta Ortuellakoetan ere). Hori alde batera utzita, kexa tramitatzan jarraitu eta gomendio bat igorri genuen gizarte-zerbitzuen funtzioak eta eskumenak gogorarazteko, baita esku-hartze sozial koordinatua beharrezkoa zela ere. Gomendioan adierazi genuen komeni dela jarduteko protokolo bat egitea, udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko duena, berriki etorritako etnia ijitoko herritarrei harrera hobea egiteko. Horrez gain, hartuko diren neurriek beren berezitasunak eta premia espezifikoak kontuan hartu ditzatela gomendatu zen, eta, atzerriko biztanle etorkinei arretan eta harreran erantzun koordinatuak ematea adostu dezatela, mugakide dituen udalekin batera, lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

Horren erantzunean, Portugaleteko Udalak adierazi digu aipatutako gomendioak kontuan hartzeko prest daudela. Halaber, Portugaleteko immigrazioaren diagnostiko bat igorri digu. Horren helburua, laneko plan bat egitea da, sortu diren premiekin bat etorriko dena.

⇒ *Gizarte eta osasun arloetan egindako diagnostiko desberdinak: Gizarte eta osasun laguntzaren beharra (209/2005)*

- Erreklamazioa

Ezgaitasun maila handiko pertsona baten familiak adimen urritasuna duten pertsonentzako egoitza-plaza bat eskatu zion Arabako Foru Aldundiari. Ez zitzaion onartu, eta horretarako alegatu zuten pertsona horren ezgaitasuna buruko gaixotasun baten ondoriozkoa zela, ez urritasun baten ondoriozkoa. Horregatik, foru erakundearen arabera, zentro mota hori ez zen egokia pertsona horren ezaugarrietarako.

Hala ere, hainbat txosten medikoren arabera, *adimen urritasuna* zuen.

- Azterketa

Ezgaitasun maila aztertzeko erabili zen irizpen tekniko-fakultatiboak psikosi baten ondoriozko portaeraren alterazioa aipatzen zuen, besteak beste.

Bestalde, arreta egiten zioten Osakidetzako Buruko Osasun Zerbitzuko mediku psikiatren txostenen arabera, portaeran zuen nahastea *adimen-atzerapenagatik* zen.

Txosten horiek aurkeztu zitzaizkion Gizarte Ongizateko Foru Institutuari, eta, ezgaitasuna baloratzekoan, adimen-atzerapena onartzeko eskatu zen; baina, ez zen onartu.

Portaeraren nahaste edo alterazioaren jatorria -adimen urritasuna edo buruko gaixotasuna- zehazterakoan zegoen desadostasuna garrantzitsua zen; izan ere, horren arabera erabaki behar zen zein erakundek izan behar zuen pertsona horri intentsitate baliabide batean arreta iraunkorra eskaintzeko ardura. Horrela, foru institutuak ez zion egoitza-baliabidea onartu, buruko gaixotasuna zuelakoan; beraz, institutuaren arabera Osakidetzari zegokion pertsona horretaz arduratzea.

Gure erakundearen ustez, kasu hau gizarte-osasun arloan kokatu zitekeen; beraz, Gizarte eta Osasun Laguntzarako Arabako Lurralde Kontseiluan aztertu zitekeen, Eusko

Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta Eudelen artean 2003ko urtarrilaren 30ean sinatutako lankidetzaren Hitzarmenean jasota dagoen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte eta osasun arloko laguntza garatzeko.

- Emaizta

Kasuaren berri eman genion aipatutako kontseiluari, aztertu eta erabaki zezan. Txostena idazten ari izan garen unean erantzunaren zain egon gara.

Geroago, abenduaren 12an, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte eta osasun laguntzaren garapenerako Plan estrategikoa aurkeztu da, eta kasu hau hor kokatu daiteke.

⇒ *Gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko koordinazio ezak sortutako ondorioak (1337/2005)*

- Erreklamazioa

Alkoholaren ohiko kontsumitzailea den Gasteizko etxerik gabeko pertsona batek adierazi zuen ezin zuela izena eman alkohola uzteko Osakidetzaren programa batean, etxerik eta elikadura egokirik ez zuelako.

- Azterketa

Udalaren kaleko hezitzaile bat berarekin jarri zen harremanetan, eta Osakidetzaren alkoholaren kontsumoa uzteko tratamendu bat hasteko konbentzitu zuen, gizarteratzeko prozesu baten barruan. Horren ondorioz, pertsona hori Gasteizko Osakidetzako Drogramendekotasun Zerbitzura joan zen, tratamendua hasteko prest.

Hala ere, “etxerik gabekoa” zela jakin zuenean, zerbitzu horrek ez zion utzi programan parte hartzen. Horretarako eman zen arrazoia izan zen programak tratamendu farmakologikoa zuela eta, tratamendu hori jarraitzeko, oinarrizko premiak beteta egon behar zirela, hau da, janaria eta ostatua eduki behar zituela.

Hori dela-eta, kaleko hezitzaileak esku hartu baino lehen zegoen egoera berean geratu zen pertsona hori.

Gure iritziz, antzeko beste kasu batzuetan bezala, kasu horretan ere elkartu behar ziren alderdi sanitarioak eta sozialak zeuden, horren bitartez, egoera hobetzeko egin diren ahaleginek arrakasta izateko nolabaiteko bermea izan dezaten. Koordinazio horren barruan, pertsona bat gizarte eta osasun errehabilitazioko programa batean sartzen denean, berarengan eragina duten gainerako baliabideen babesa izan beharko luke. Baliabide horiek gizarteratzen laguntzera bideratzen dituzte administrazioaren estamentuek.

Horrez gain, funtsezkoa dela uste dugu gizarte-bazterketako prozesuez ahalik eta lasterren arduratzea, bazterketa aurreratuta dagoenean askoz baliabide gehiago behar baitira horretarako, eta zailagoa da gizarteratzea lortzea. Gainera, horrelako kasuetan, kaleko hezitzaileek egindako lan eraginkorra ez zen aprobetxatuko, ez balu balioko eraginpean dagoen pertsonak berreskurapenean aurrera egiteko.

- Emaiza

Idazki bat bidali genion Gasteizko Udalari, eta idazki horretan gaia azaldu genion eta aipatutako iritziak jakinarazi genizkion. Horren gaineko iritzia eskatu genion, eta kasu horretarako udalak eskaini zitzakeen konponbideei buruzkoa ere.

Une honetan, erantzunaren zain gaude.

## B) Ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzea

⇒ *Ezohiko egoerak gizarte-zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko betekizunaren (aurretiaz errolatuta egotea) aurrean (819/2004)*

- Erreklamazioa

Iazko txostenean, kexa hau aurkeztu genuen. Laburtuta, ezgaitasun bat duen pertsona bati buruzkoa da, eta pertsona horren tutoretza bere arrebak hartu zuen bere gain. Arrazoi hori dela-eta, bere bizilekura eraman zuen, Bizkaiko udalerrri batean.

Neba beste Autonomia Erkidego batetik zetorren eta, horren ondorioz, eguneko arreta-zentroan leku bat eskatu zuenean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak ukatu egin zion, horretarako eskatzen zena ez zuelako betetzen, hau da, ez zeramatzalako hiru urte Bizkaiko herri batean errolatuta.

- Azterketa

Erakunde honek egoera ezohikotzat jotzearen alde egin zuen, betekizun horri dagokionez.

Aipatutako foru sailarekin hainbat kudeaketa egin ondoren, lan-talde bat egitea hitzartu zen, horrelako egoerak aztertzeke eta arazo horiei irtenbidea emango dien erantzuna proposatzeko.

Urte honetan gai honekin jarraitu dugu, eta oraindik ez da amaitu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Gaietako Sailak alderdi hori aldatu du ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzei buruzko arautegian. Esate baterako, ekainaren 7ko 96/2005 Foru Dekretuak zentro horietara sartzeko sistema orokorra arautzen du, eta dekretu horretan betekizunen artean mantentzen du administrazio-egoitza Bizkaian hiru urtez eduki izana egiaztatzea. Baina honakoa gaineratzen du: *“Lege-ezgaitasuna duten pertsonen kasuan, betebeharrak hori lege-tutoreei eskatuko zaie baldin eta ezinduak betetzen ez badu; edonola ere, kasu honetan egiaztatu beharko da, era berean, ezinduak eskabidea aurkeztu den aurreko urtean administrazio egoitza izan duela Bizkaiko Lurralde Historikoan”*.

Paragrafo hori sartuta, asko gutxitzen da errolaren betekizuna –desagertu ez bada ere–, orain aztertzen ari garen pertsonaren antzeko arazoak dituzten pertsonak egoitza batera sartzeko.

Hala ere, aldaketa hori ez da islatu eguneko arreta-zentroetara sartzeari buruzko arauetan. Hori dela-eta, espediente horren zuzeneko eragina izan duen pertsonak ezin izan du lekurik eskuratu, urte bat baino gehiago daraman arren Bizkaian errolatuta.

- Emaizta

Beste idazki bat igorri dugu Gizarte Gaietako Sailera, horri buruzko informazioa eskatzeko. Erantzun horren zain gaude.

### C) Adineko pertsonen laguntza

⇒ *Egoitza bat ixteko erabakia. Administrazioak duen irizpide-askatasunerako eskumena (238/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona-talde batek adierazi zigun ez zegoela ados Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabaki batekin, hau da, adineko pertsonentzako egoitza bat ixteko erabakia-rekin. Egoitza hori Tolosan zegoen eta Aldundia zen haren titularra. Egoitza horretan bizi ziren pertsonak beste egoitza-zentro batzuetara eramango zituzten.

- Azterketa

Kasua aztertzerakoan, hainbat alderdi hartu ziren kontuan: aplikatu behar den arautegia; aldundi horren printzipioak eta jarduteko ildoak; eragindako egoitzari buruzko azterlanaren emaitza, aldundiko sail egokiak egindakoa; Ararteko erakundeak egindako gomendioak; erabakiaren eta ondorioen oinarria.

1) Aplikatu beharreko arautegiari dagokionez, alde batetik, foru aldundiek eskumena dute inoren laguntza behar duten adinekoen arretan (uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua). Hortaz, pertsona horientzako egoitza-zentroetan egiten dituzten egonaldietarako programak exekutatzeko dituzten Gipuzkoako aldundiak (urtarrilaren 30eko 4/2001 Foru Dekretua, lurralde historiko horretako gizarte zerbitzuen sistema arautzen duena). Gainera, aldundi hori zentro horren titularra zen; beraz, egokien ikusten zituen erabakiak hartu zitzaizkeen, egoitzan bizi ziren pertsonen arreta errespetatuta.

Bestalde, foru aldundiek eskumena dute horrelako zentroak ikuskatzeko, hau da, zaintzeko, kontrolatzeko eta egoitzek dagokien legeria betetzen dutela egiaztatzeko. Zehazki, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua aipatuko dugu, adineko pertsonentzako egoitzazko gizarte-zerbitzuei buruzkoa. Ez dugu ahaztu behar apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneetako, espazio publikoetako, eraikinetako eta informazio- eta komunikazio-sistemetako irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak.

2) Bestalde, izango dituen jarduera-ildoak zehazten dituzten printzipioak eta arauak dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Esaterako, Gipuzkoako Plan Gerontologikoaren xedea adineko pertsonentzako laguntza-sarea berriro egituratzea da. Horretarako, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka bilatu nahi du eskualde guztietan, zentro bakoitzaren gastuak arrazionalizatu nahi ditu, etab.

Lurraldean adineko pertsonen arreta emateko dauden zerbitzuen egoerari buruzko ikuspegi xehatua ematen du Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak

(2002), eskualdetan banatuta eta eskualdeak zonetan. Azterlan horrek argi uzten zituen lurralde banaketa horien artean zeuden ezberdintasunak, egoitzen eskaintzaren aldetik. Horren ondorioz, praktikan, zona batzuetako biztanleak egoera txarragoan zeuden, beste batzuetakoekin alderatuta, egoitzaren batean lekua eskuratzeko orduan.

Azterlan horretan, lurralde osoan Tolosaldea zen egoitzetan leku gehien zituena, 65 urtetik gora dituzten 100 biztanleko 5,62 leku baitzituen. Probintziako batez bestekoa, berriz, 3,3koa zen, eta zona batzuk egoera benetan txarrean zeuden. Eskaintza hori eskualdeak behar zuena baino handiagoa zen eta ia bete egiten zituen 2010. urterako egiten ziren aurreikuspenak.

Emaiza horien ondorioz, esku hartu behar izan zen, zerbitzuak berriro egitura-tzeko, lurralde osoan oreka bat egoteko eta Gipuzkoako herritar guztien arteko berdintasun-printzipioa gordetzeko.

Testuinguru horretan, ildoetan sakondu nahi izan zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek, eta Batzorde bat sortu zuten, erakundeek jarraitu behar dituzten ildoak aztertzeko, Gipuzkoan pertsona nagusiek inoren laguntza behar izatearen fenomeno hobeto jorrazteko helburuarekin. Lan horren ondorioz sortu ziren Gomendioak. Gehienak Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzenduta daude. 2004ko ekainaren 30ean aurkeztu ziren, eta Batzar horiek onartu egin zituzten.

Lan horretan onartu egiten da adineko pertsonen inoren laguntza behar izateak eragin gero eta handiagoa duela gure gizartean, eta arreta emateko sistema osatuaren alde egiten da. Gai horrek gizartean duen garrantzia dela-eta, batzorde horrek adierazi du garatutako politikak iraunkorrak izan beharko direla denboran, eta hainbat gomendio egin ditu. Besteak beste, Gipuzkoako udalerrri guztietako biztanleei eskubide berberak bermatzeaz ari da, ekipamenduen sarean lurralde-oreka gordetzearen bitartez, eta zerbitzuak antzeko mailan eta intentsitatearekin ematearen bidez. Horrez gain, zerbitzua jende nahikoari ematen ez zaion lekuetan plazak sustatzeaz ari da, eta zentro guztietan arreta emateko langileen kopurua homogeneousatzeaz ari da, eta zentro guztietan arreta emateko langileen kopurua homogeneousatzeaz ari da. Halaber, egoitza-zentroak aipatutako 41/1998 Dekretuak ezarritakora egokitzeko eskatu zen, hau da, gelen azalera ezarritakoa izatea, logelak banakakoak izatea, bainugela edukitzea, egokituta egotea, etab.

- 3) Egoitza zehatz horren egoera aztertu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak, aipatutako arautegia eta printzipioak kontuan hartuta. Emaizan ikusi zenez, ez zetorren bat Batzordeak egindako gomendioekin. Haren adierazle ekonomikoek ez zuten bermatzen iraunkorra izango zenik. Leku bakoitzeko kostua beste egoitza-zentro batzuetakoa baino askoz handiagoa zen, hein batean, arreta emateko langile asko zituelako, antzeko beste zentro batzuekin alderatuta. Desoreka horren ondorioz, zentroa ez zen bideragarria. Bestalde, ikusi zen zentroan pertsona autonomoak zeudela, eta beste eskualde batzuetatik etorritakoak ere, Tolosaldeko egoitzen eskaintza handiegia zelako eta aipatutako desorekak zeudelako. Datuen arabera, erdia baino zertxobait gehiago (% 53) bakarrik ziren baliatzeko inoren laguntza behar zutenak eta Tolosaldekoak. Horrek gauzak egokitzeko beharra erakusten zuen.

Gainera, egoitza aipatutako dekretuetara egokitu behar zen, eta horretarako lan handiak egin behar ziren eraikinean. Horrek ere arazoak zekartzan: a) bainugela



egokituak logeletan sartzeak eta azalera handitzeak zentroaren plaza-kopurua gutxituko luke eta b) Tolosako Udalak ezin zuen lanak egiteko udal baimenik eman, arau subsidiarioetan eraikina antolamenduz kanpo zegoelako.

- 4) Adierazitakoaren arabera, Gizarte Politikako Departamentu horrek egoitza-zentroa ixteko erabakia hartu zuen. Erabaki hori Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu eta eztabaidatu zen. Gainera, administrazioak irizpide-askatasunerako duen eskumenean oinarrituta hartu zen erabakia. Hala ere, erabakia ez zitzaigun funsgabea iruditu, baizik eta nahikoa oinarritua.
- 5) Aipatutako hainbat printzipio bat datoz egoitzen ganean Ararteko erakundeak EAEko instituzioei egindako hainbat gomendiorekin. Euskal Autonomia Erki-degoan adinekoei arreta emateari buruzko ezohiko txostenean daude jasota. Txosten hori 2004an egin zen, eta, besteak beste, hauxe gomendatzen du: a) adineko pertsonak beren gizarte-ingurunetik ahalik eta hurbilen edukitzea. Horretarako, egoitzen eskaintzaren aldetik dauden ezberdintasun geografikoak orekatu nahi ditu, alderaketa iraingarriak saihesteko. b) aldaketa soziodemografikoek sortuko dituzten premietara egokituz joatea plazen eskaintza. c) zentro horietan inolako oztipo arkitektonikorik ez egotearen garrantzia.
- 6) Erabaki hori hartu bazen ere, Gipuzkoako aldundiak egoitzako arreta bermatu behar zien hemendik aurrera ere itxitako zentroan zeuden pertsona guztiei, beste zentro batzuetara igorrita. Gehienak (% 65) eskualdeko egoitzetan geratu ziren, eta horietatik, ia gehienak Tolosan. Eskualdetik kanpo joan zirenak beren edo familiaren erabakiengatik joan ziren.
- 7) Tutoretzapeko apartamentuak egitea erabaki zen itxitako egoitza zegoen lursailan, ingurune horretan mota horretako apartamentu gutxi zeudelako. Beraz, egoitzak ez diren baliabideen kopurua handitu, eta adineko pertsonen arreta emateko eskaintza dibertsifikatu zen.

- Emaiza

Adierazitakoa dela-eta, gure iritzia izan zen erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiak duen irizpide-askatasunerako eskumenaren barruan zegoela, administrazio publikoa delako, eta oinarritua zegoela. Gainera, zentroa erabiltzen zuten pertsona guztiei arreta bermatzen zitzairen, beste zentro batzuetan. Ez zen ikusi legez kanpokorik erakunde honek aztertutako jardueran eta espediente artxibatu zen.

#### D) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Egoitzarik gabeko pertsonak erroldatzea (1176/2004)*

- Erreklamazioa

2004ko maiatzean, Portugaleteko udalerrian aparkatutako ibilgailuetan bizi ziren hainbat pertsonen Udala horretako erroldan inskribatzeko eskaera egin zuten, baina ez

zuten erantzunik jaso. Azkenean, alde egitea erabaki zuten. Portugaleteko Udalaren arabera, erroldatze-eskaera hori bideraezina zen, Udalean ez baitago ibilgailuetan bizitzeko egokitutako lekurik. Izan ere, Udalaren ustez, ibilgailuak ez dira egokiak bizitzeko, gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztelako.

- Azterketa

Udalak ez zion erantzun erroldatze-eskaerari. Isiltasun horrek oztopo handiak sortzen dizkio herritarrei bere eskubideak defendatzeko. Administrazioak erantzuteko obligazioa du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikulua ezartzen duen bezala. Erroldatze-eskaerari erantzunik ez ematean, batetik, herritarrei ziurgabetasuna sortu zaie beren eskubideei buruz eta, bestetik, erroldan inskribatzeko duten obligazioa betetzea galarazi zaie [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 15. art.]: *“Espainian bizi den pertsona orok du obligazioa bere ohiko etxebizitza dagoen udaleko erroldan inskribatzeko”*.

Arartekoak hainbat gomendio egin dizkie ibilgailuetan bizi diren atzerritarrei erroldatzea ukatu dien hainbat udali. Gomendio horien arabera, udalak legezko obligazioa du pertsona horiek erroldatzeko. Udal-erroldaren izaera juridikoa, helburua eta funtzioa dela-eta, udalak ez du botererik pertsonak erroldatzeko duten eskubideari mugak jartzeko. Atzerritarrek erroldatzeko obligazioa eta eskubidea dute, eta udalek erroldan jaso eta eguneratuta eduki behar dute udalean bizi diren atzerritarrei buruzko informazioa (Espainian bizi diren atzerritarren eskubide eta askatasunei eta horiek gizartean integrazteari buruzko Lege organikoaren 6. artikulua). TAOLen 17. artikulua eta Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 60. artikulua arabera, udalaren eskuduntza da udal errolda egin, eguneratu, berrikusi eta zaintzea. Beraz, udalak obligazioa du erregistro hori sortzeko eta eguneratuta edukitzeko, erroldak udalerriko populazio errealean berri emateko moduan. 1997ko uztailaren 4an Estatistikako Institutu Nazionalako presidentek eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiak errolda egiteko eta eguneratzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz emandako ebazpenak ere inskribatzeko obligazioa berresten du, etxebizitzaren titulartasunaren gaineko eztabaida juridiko-pribatuak edo etxebizitzari eragiten dioten ezaugarri fisikoak, higieniko-sanitarioak edo bestelakoak kontuan hartu gabe.

Horrez gain, karabana bat inskribatzeko eskaria egitea ere aurreikusten da. “Beraz, infraetxeak (txabolak, karabanak, kobazuloak, baita kalean bizitzea ere) baliozko egoitza gisa jaso daitezke eta jaso behar dira erroldan, batzuetan horrelakoak izaten baitira”. Halaber, ebazpen horren arabera, gezurrezko helbide bat sor daiteke pertsona batek etxerik ez badu, udalerrian bizi bada eta gizarte-zerbitzuek ezagutzen badute.

Gure ustez, Udalaren azalpenak –“ ibilgailu bat ez da egokia ohiko etxebizitza gisa erabiltzeko, gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztelako”– ez du babesten erroldatzeko eskubidea ukatzea, ikusi den bezala, araudiak ez duelako arrazoi hori aurreikusten. Gainera, bide publikoa erabiltzeari buruzko arauak eman ahal izateak ez du udala salbuesten gizarte-zerbitzuak emateko eta eskubide sozialak betetzeko duen obligaziotik. Jurisprudentziaren arabera, erroldan inskribatzea bizilekua modu askean aukeratzeko eskubideari lotuta dago, eta eskubide hori egoitza-askatasunerako eskubideari lotuta dago. Eskubide horrek legez ezarritako mugak ditu, komunitatearen gainerako kideen eskubide eta askatasunak errespetatzeko, baita ordena publikoak eta ongizate orokorrak ezarritako mugak ere. Udalak, udalerria modu egokian erabiliko

dela bermatzeko dituen eskuduntzen bidez (TAOLen 25. art.), baldintzak jar diezazkioke eremu horren erabilerari. Gure ustez, ahalmen horiek beste funtzio batzuei lotu behar zaizkie nahitaez: Estatu Sozialetik ondorioztatzen diren funtzioak, administrazio publikoak esku-hartze sozialera behartzen dituenak (Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluaekin adostasunean). Gizarte-zerbitzuak garrantzitsuak dira Estatu Soziala edo Ongizate Estatua garatzeko. Eskuduntza-banaketari dagokionez, udalei dagokie gizarte-zerbitzuak ematea. Maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak dioen bezala, gizarte-bazterketari aurre egiteko, udalei dagokie gizarteratzeko programak egitea, bazterketa-egoeran dauden pertsonak aurkitzea eta gizarte-zerbitzuek gizarteratzeko jarduerak egitea.

Beraz, udalek aurre egin behar diete udalerrian sortzen diren gizarte-premiei, eta pertsonak babestu behar dituzte. Immigranteak hartzea, adibidez, gizarte-premia berri bat da, eta udalen laguntza eskatzen du pertsona horiei gizarteratzen laguntzeko. Egiturazko fenomenoaren denez, immigrazioa esku-hartze publikoa eskatzen ari da, gure hirietara etorritako herritar berrien bizilekua arautzeko eta antolatzeko.

- Emaizta

Erreklamazioa egin zutenak Portugaletetik joan izana alde batera utzita, gomendio bat egin dugu legezko obligazio hauek gogoratzeko: batetik, udal-errodan inskribatzeko eskariak ebazpen espres bidez erantzuteko obligazioa, bestetik, udalean bizilekua duten pertsonak inskribatzeko obligazioa eta, azkenik, bizilekurik ez dutenei, lehenik eta behin, gizarte-laguntza emateko obligazioa, udalek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskuduntzak betez.

Oraindik ez dugu jaso udalaren iritzirik gomendioari buruz.

## E) Eduki ekonomikoa duten gizarte-prestazioak

⇒ *Ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioetan gehieneko muga gisa kontuan hartu beharreko diru-sarrerak balioztatzeko irizpideak (937/2005)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek zalantzan jarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindutakoaren araberakoa ez den balioezintasuneko pentsioaren zenbatekoari egindako aldaketa, Foru Aldundiak diru-sarrera gisa hartu zuelako hiritar horren ustez gastua zen kontzeptu bat; jabetza-komunitatearen kuotaren ordainketa, hain zuzen.

- Azterketa

Zenbateko hori kalkulatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak kontuan hartu ditu pertsona horrekin bizi diren pertsonen diru-sarrera guztiak, ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioei buruzko araudiak ezartzen duen bezala (ekainaren 20ko 1/1994 ED legegilea, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena, eta martxoaren 15eko 357/91 ED, abenduaren 20ko 26/1990 Legea –Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak ezartzen dituen– ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioen arloan garatzen duena).

Araudi horren bidez, pentsio-mota hori jasotzeko eskubidea izateko betekizunak eta zenbatekoa zehazten dira.

Errenta eta diru-sarrera guztien baturak Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak 2004rako ezarritako zenbatekoa baino baxuagoa izan behar du edo araudiak, ahaidetasunaren arabera, bizikidetzako unitate ekonomikoaren baliabide-metaketari ezarritako muga baino baxuagoa.

Bizikidetzako unitate ekonomikoaren diru-sarreraren edo errenten baturan, lanetik sortutakoak, ondasunek emandakoak edo beste prestazio batzuetatik jasotakoak hartzen dira kontuan.

*“Aurreko ataletan ezarritakoaren ondorioetarako, kontuan hartu beharreko diru-sarrera edo errentatzat hartzen dira lanetik eta kapitaletik jasotako ondasun eta eskubideak, baita prestazio-izaera dutenak ere.*

*Eskatzaileak edo eskatzailearen bizikidetz-unitateko kideek ondasun higi-garri edo higiezinak badituzte, horien errendimendu eraginkorrek hartuko dira kontuan. Errendimendu eraginkorrik ez badago, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) arauen arabera balioztatuko dira, onuradunak ohiko bizileku gisa duen etxebizitza izan ezik...” (GSLoren 144.5 art.)*

Foru Aldundiak ondasunetatik datozen errenta gisa zenbatu du jabetza-komunitatearen gastua, maizterrak alokairuarekin batera ordaintzen baitzuen kopuru hori. Ez gastu hori ezta etxea mantentzeko egindako gastuak edo antzekoak ere ezin dira kendu, ez baitaude errenta erabilgarriaren kontzeptuaren barruan (unitate ekonomikoak duen errenta, gastuak kendu ondoren), diru-sarrera gordinen barruan baizik.

Gure ustez, Foru Aldundiak diru-sarrerak balioztatu dituenean, legezkotasun-printzipioaren arabera jokatu du eta aurreikusitako araudia aplikatu du. Dena dela, ordaindutakoaren arabekoak ez diren pentsioen kudeaketa hobetzeko, barne-mailako instrukzio bat egitea proposatzen dugu, batetik, pertsonen edo bizikidetzako unitate ekonomikoaren diru-sarrerak balioztatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak argitzeko eta, bestetik, hiritarrak banakako aitortpena egiten duenean, aplikagarri diren kontzeptu eta irizpideen berri emateko eta diru-sarrera gordinak kontuan hartzen direla azaltzeko, eta ez garbiak (alegia, gastuak kendu gabekoak). Informazioaren bidez, herritarrak bere eskubide eta obligazioak ezagutzen ditu, eta administrazioak obligazio espresa du eskubide hori betetzeko (azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 35. art. eta otsailaren 9ko 208/1996 ED).

- Emaizta

Bizkaiko Foru Aldundiak oraindik ez digu eman proposamen horiei buruz duen iritzia.

⇒ *Erroldatzea eta gizarte-zerbitzuen funtzioak (938/2005)*

• Erreklamazioa

Herritar batek zalantzan jarri zuen Sestaoko Udaleko gizarte-zerbitzuen jarduna, haren ustez, ez baitzioten behar bezala erantzun etxebizitza bat edukitzeko eta laguntza ekonomikoak jasotzeko zuen beharrari, udalerrian bizi dela urte asko badira ere. Ezkontza-banantzea eta bestelako gertaera batzuk direla-eta, bere autoan egiten zuen lo, Udaltzaingoak bide publikotik joanarazi zuen arte. Orduz geroztik, kalean bizi da, eta Udaltzaingoak koltxoia eta kartoia eraman izan dizkiola salatzen du.

• Azterketa

Harremanetan jarri gara Sestaoko Udaleko gizarte-zerbitzuekin.

Informazio kontraesankorrak jaso ditugu. Izan ere, Udalaren arabera, ez da egia gizarte-zerbitzuek ez dutela inolako jarduerarik egin. Udalak dioenez, pertsona hori Udaleko bulegoetara joaten zenean, modu egokian erantzuten zioten, eta gizarte-zerbitzuek informazioa eman zioten Udaletik prestazioak eta bestelako baliabideak jasotzeko bete behar zituen eskakizunei eta dokumentuei buruz.

Gure aldetik, pertsona hori kalean bizitzeak dituen arriskuez ohartarazi ditugu. Etxerik ez dutenen fenomenoari buruzko azterketa eta txostenen arabera, beharrezkoak dira prebentziorako eta berehalako arreta emateko neurriak, pertsona horien osasun fisiko eta mentala ez hondatzeko. Gertaera traumatikoak pilatzen badira (langabezia eta ezkontidearekin banantzea, adibidez) ezinezkoa da norberak bere kabuz egoera horri aurre egitea, eta ahultasun handiko egoera pertsonal eta sozialak sortzen dira. Zainketa pertsonalik eta etxebizitza duinik ez badu, eta horri alkoholaren edo beste substantzia batzuen kontsumoa gehitzen bazaio, azkartu egiten da hondatze hori. Bazterketa-egoerak hainbat mailatakoak izan daitezke, arriskuan egotetik muturreko arriskuan egotera arte (kasu horretan, pertsonak ez dauka etxerik ezta harreman familiarrik ere, eta deserrotze soziala oso handia da). Horrelakoetan, gizarte-laguntza behar-beharrezkoa da bazterketa-prozesu horiek geratzeko. Laguntza ematerako denbora asko igarotzen bada, ordea, zailagoa da laguntza horren bidez pertsona hori gizareratzea. Sestaoko Udaleko gizarte-zerbitzuek ohiko jarduerak egin dituzte (udalerriko edo inguruko ostatueta plazak hitzartzeko orientabidea, gizarte-zerbitzuen arloko funtzioak zehazteari buruzko 2001eko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua betez). Dena den, gure ustez, jarduera horiek oraingoz ez dute emaitza onik eman, horrelako kasuek dituzten berezitasunengatik.

Halaber, lan publiko eta zerbitzuei buruzko kapitulu honetako kexen atalean landutako erroldari buruzko araudia gogoratu behar dugu (459/2005 espediente). Araudiaren arabera, udalerrri batean modu eraginkorrean bizi diren pertsonen erroldatuta egon behar dute. Udal-errolda eguneratzeari buruz udalei emandako argibide teknikoei buruzko 1997ko uztailaren 4ko ebazpenaren arabera, udalerrian bizi den pertsonak ez badu erroldan inskribatzeko baliozko helbiderik, gizarte-zerbitzuek helbide bat zehatz dezakete (gizarte-zerbitzuen helbidea, pertsona horrek lo egiten duen lekuaren helbidea...), administrazio publiko batetik jakinarazpen bat iristen denean pertsona horri jakinarazi ahal izateko. Horrez gain, aipatutako araudiaren arabera, "horrelako inskripzioak egiteko ez da beharrezkoa jakinarazpena hartzailearengana iritsi dela bermatzea, baizik eta nahikoa da, zentzuzko epe batean, hartzailearengana iristea". Beraz, araudiak gizarte-zerbitzuei ematen die lan hori, eta horregatik, zerbitzu horien lana funtsezkoa

da etxebizitzarik ez edukitzeagatik bazterketa-prozesuan dauden pertsonen eskubide eta beharrak bermatzeko. Halaber, aipatu dugu hobe dela jarduera horiek pertsonaren ingurune naturalean egitea, deserrotze sozial eta familiar handiagoa bultzatuz gero, bere egoera okertu egingo bailitzateke.

- Emaidza

Gaur egun, Sestaoko Udalean errolatuta dago, oinarrizko errentaren prestazioa edo bestelako laguntzarik izapidetu ez den arren. Gizarte-zerbitzuek prest jarraitzen dute pertsona horri laguntzeko eta dagozkion prestazioak eta laguntzak emateko.

### 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

#### 3.1. SARRERA

2005. urtean 19 kexa jaso dira arlo honetan eta honela banatu dira:

-Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	11
-Toki administrazioa .....	10
-Foru administrazioa.....	2

Gaiaren arabera honela sailkatzen dira:

-Elebitasuna .....	6
-Kultur jarduerak .....	4
-Beste arlo batzuk .....	3
-Kirola .....	2
-Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio-prozedura.....	2
-Kultur ondarea.....	1
-Kontratazio-erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	1

**Elebitasunaren** atalean sailkatu ditugun kexen artean, botere publiko baten aurrean euskara erabiltzeko zailtasunak izan dituztela edo erakundeek euskara ikasteko ematen duten laguntza ez dela behar adinakoa adieraziz egindakoak daude. Kexa horiek, euskararekin lotura badute ere, ez dira hizkuntza eskubideen murrizketa eremuan bertan sartzen, izan ere, hizkuntza sustatzeko funtzio orokorrean, botere publikoen jardura sustapen politikan kokatzen da. Hor administrazioek zein jardura babestuko dituzten eta horiei zenbaterainoko dirulaguntza emango dien erabakitzeke eskumena dute.

Euskara erabiltzeko mugak izateari dagokionez, komisariara joan eta euskara hitz egiteko aukerarik izan ez zuen pertsona baten kasua aipatuko dugu.

Erakunde honen ustez -Herrizaingo Sailari hala jakinarazi zizaion eta horrek irizpide hori onartu zuen- pertsona batek euskaraz hitz egin nahi badu eta hizkuntza horretan inork ezin badio erantzun, Administrazioak ahaleginak egin behar ditu pertsona horri euskaraz dakien funtzionario batek erantzun diezaion. Ertzaintzan euskaraz hitz egiteko dauden mugak halabeharrezkoak diren arren, kasu horietan hiritarrari euskaraz dakien beste funtzionario batek lagundu behar dio, posible bada.

Administrazio batzuk oraindik zailtasunak dituzte euren eguneroko jardueran bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko orduan bete beharreko printzipioetara egokitzeke. Adibidez, udalarekin idatzizko harremanak euskaraz izatea nahi zuen pertsona batek arazoak izan zituen horretarako.

Udalak ez zuen eskubide hori zalantzan jartzen, baina batetik, interesdunak aurkeztu zituen idatziei ez zien euskaraz erantzuten, eta bestetik, eguneroko jardueran erabiltzen zituen idazkiak, gehienetan mekanizatuak, gaztelania hutsean zeuden. Halere, eguneroko jardueran erabiltzen ziren idazkiek hartzaile orokor bat zutenez bi hizkuntzetan idatzita

egon behar zuten. Kexa horren espedientea tramitatu genuenean, udalak jakinarazi zigan arazo hori lehenbailehen konpontzeko asmotan zebilela eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ezartzeko konpromisoa hartua zuela.

Erakunde honetan tramitatu ziren espediente batzuk interneten Eusko Jaurlaritzako Sailen bateko informazioa gaztelaniaz bakarrik agertzen zelako sortu ziren. Hor agertzen ziren beste dokumentu batzuen edukia adierazten zuen Euskararen Erabilera arautzen duen 10/1982 oinarrizko Legeak ezarritako printzipioak betetzen zirela. Informazioa eskatu genuenean, kexa honen haritik sortutako oharrak kontuan hartuta, informazio guztia bi hizkuntza ofizialetan agertuko zela hitzeman zuen.

Elebitasunaren atalean izan diren kexa horiez gain, badira beste batzuk zenbatu ez ditugunak, Estatuko Administrazioarekin lotura duten erakundeei zuzendutakoak baitziren. Kexa horiek Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidali genizkion, hark tramitatu zitzaizkien.

Atal honetan, **kulturaren** arloan, auzolandegietara sartzeko sistemaren inguruan sortutako kexa bat jaso genuen. Pertsona batek, gaixo zegoela-eta auzolandegietara joan ezin zuelako ordaindutako dirua itzultzeko eskatu zuen. Hori ez zela posible jakinarazi zioten, arauetan hala ezarrita zegoelako. Pertsona hori dirua ez ziotelako itzuli eta baldintza horri buruz informaziorik ez zuelako jaso kexatu zen.

Exijitzen ziren baldintzei dagokionez, Kultura Sailak eman zigun erantzuna kontuan izanda, nahikoa informazioa eman zela ikusi genuen.

Auzolandegi hori beste autonomia erkidego batean zegoenez, kexaren alderdi hori Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidali genion. Halere, auzolandegi guztietan sartzeko baldintzak antzekoak direnez, baita gure autonomia erkidegoan ere, kexa hau eragin zuen egoera hurrengo urteetan ere jazo zitekeen.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera zuzendu ginen jakiteko ea ongi zeritzaion etorkizunean, pertsona batek, ezinbestekak bultzatuta auzolandegi horietara joan ezin duenean, ordaindutako kuota berreskuratzeko aukera izateari.

Idea hori jakinarazi genuenean, bagenekien ez zela erraza izango zehaztea zein egoeretan itzuliko zen dirua eta zeinetan ez eta erabakitzea horrek zein eragin izango zuen auzolandegietako antolakuntzan. Eragin hori ahaztu gabe, Arartekoak aukera hori emateko ideia izan zuen, batez ere, kontuan izanda, gazteak auzolandegietara boluntario gisa joaten direla. Txosten hau itxi den unean, espedientea oraindik irekita dago.

Bestalde, elkarte batek lokal bat eskatu zion udalari talde batek bertan jo zezan. Erakunde honen iritziz, udalak eskaera horri ezezkua emateko arrazoiak botere publikoen jardueran gailentzen den legezketasunaren printzipioa hausten du. Txosten hau ixterakoan, espedientea oraindik tramitatu gabe dago, udalak bere balorazioa noiz jakinaraziko digun zain baikade.

Kultura ondareari dagokionez, administrazio publikoek baimendutako edo sustatutako jardueren ondorioz sortutako bi kexa aipatu nahi genituzke: bata, monumentu multzo kategorian kultura ondare izendatutako megalito-gune batean antena bat jartzeko lanen ingurukoa da, bestea, berriz, jarduera baterako birmoldaketa proiektu baten eragina izan duen jauregi baten ingurukoa. Herriar batzuen ustez, eremu horretako Plan bereziak ez du proiektuan katalogatutako ondare higiezinak babesteko erregimena errespetatzen.



## 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### Elebitasuna

⇒ *Liburuak euskaraz: erreferentzia bibliografikoen katalogazioa braillez* (105/2005)

- Erreklamazioa

Itsu batek kexa aurkeztu zuen, euskaraz, braillez idatzitako liburuak lortzeko zailtasunak zituela adieraziz. Hain zuzen ere, adierazten zuen euskaraz argitaratutako liburu gutxi zeudela eta gainera, katalogorik ez zegoenez, hizkuntza horretan irakurtzeko oraindik aukera gutxiago zeudela.

- Azterketa

Kexa honek bi alderi jartzen ditu agerian: batak euskaraz, braillez idatzitako testuen ekoizpenarekin du zerikusia, eta besteak jada existitzen diren liburuak lortzeko aukerarekin.

Lehenengo alderdiak, pixkanaka landu beharrekoa denez, maila desberdinak onartzen ditu. Bigarren alderdia, existitzen den funtsa katalogatzeari dagokiona, hain zuzen ere, berehala konpondu behar da, horrelako katalogoziorik ez egoteak, euskaraz, braillez idatzitako testu gutxi izateak sortzen duen zailtasuna areagotu besterik ez baitu egiten.

Kexa hau, irisgarritasunarekin zerikusia duenez, Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseiluan landu beharreko da.

Bestalde, kexa hau eragin duen gaiak Autonomia Erkidegoko bibliografiaren katalogazioarekin du zerikusia, berez. Izan ere, pertsona honek azaldutako arazoetako bat, biblioteketan braillez idatzitako argitalpenak bilatzeko biderik ez egotean zatan.

Aipatu Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzako sail hainbat sailletako ordezkariak ditu. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondare Zuzendaritzan ere eman genuen gai honen berri.

- Emaizta

Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseiluko lehendakariak adierazi zigun aurkeztu genuen gaia Batzorde Iraunkorreko hurrengo bileran jorratu beharreko gaien artean izango zela.

Kultura Ondareko Zuzendaritzarekin izan genuen bileran, berriz, itsuentzako euskaraz idatzitako liburuak lortzeko arazoaren inguruan honako alderdi hauek jorratu ziren: a) funtsa handitu eta pixkanaka egokitzen joan behar da eta b) funtsa sistematizatu egin behar da, hara iristea ahalbidetzen duten katalogoen bidez.

Txosten hau itxi den unean espedientea oraindik irekita dago.

## 4. HEZKUNTZA

### 4.1. SARRERA

2005. urtean 115 kexa jaso dira hezkuntzaren arloari buruz; horrek esan nahi du erakundearen guztirako jardueraren %10,52 horretara bideratu dela.

Kexok ukituriko administrazioak honakook izan dira:

-Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	61
-UPV/EHU .....	11
-Toki administrazioa .....	8

Edukiaren arabera, jasotako kexak honako gai edo azpi-arloei buruzkoak izan dira:

-Eskubideak eta betebeharrak .....	71
-Unibertsitateko irakaskuntza .....	12
-Haur hezkuntza .....	8
-Ikastegiak .....	7
-Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .....	6
-Arte irakaskuntza .....	4
-Bekak eta beste laguntza batzuk .....	2
-Derrigorrezko bigarren hezkuntza .....	2
-Hezkuntza berezia .....	1
-Lanbide heziketa .....	1
-Beste alor batzuk .....	1

Hezkuntzaren arloan esan dezakegu hezkuntzaren programazio edo plangintzari buruzko erabakiengatik etengabe jartzen dizkigutela kexak eta, 2005ean, ez dela jada ohiko bihurtu den horretan salbuespenik izan. Horrela, aurten berriro ere Bizkaiko 2 urtekoen gelen hezkuntza eskaintzaz galdetzera behartuta egon gara. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzendu gatazka batean, tentu handiz jokatu, esan diegu oharren gairela, gure erakundearengana jotzen duten herritarrek, sarritan, tokirik gabe geratu diren haurren kasuak gertatzen direla aipatzen digutenean, benetan esan nahi dutena haurrak beraiek aukeratutako ikastegi publikoetan eskolatzerik izan ez dutela dela. Horregatik, oraingoan, gure asmoa, azkenean, familien eskolatzeko eskaria herrietako bertako beste ikastegietara nolabait bideratuz asetzetik egon den ala ez jakitea izan da. Horrela, gainera, 2004ko azaroaren 23an, orduko Hezkuntza Sailburuak, legebiltzarreko agerraldi batean, adierazi zuena berretsi nahi genuen; Sailburuak esan zuenez, bi urteko haurrentzako zerbitzu eskaintza familien eskaria baino handiagoa zen.

Hezkuntza Administrazioaren erantzunari esker, zehaztu ahal izan dugu orduko Sailburuaren baiepen hartan 2 urteko haurrentzako eskola plazen eskaintza kopuru

absolututan hartuta zegoela, hau da, EAEko eskari potentziala plaza eskaintza orokorra-ekin alderatuta, baina horrek ez du esan nahi esparru txikiagoetako eskaria aztertzean –udalerriak, herriak, auzoak- eskolatze arazorik dagoen tokirik ez dagoenik. Izan ere, Sailak ez dauka ase bako eskolatze eskariei buruzko daturik, estatistika ofizialean matrikulatutako ikasleen datuak soilik jasotzen baitira eta, hartara, halako auzietan ematen diren azalpenak ondoko baiespenen ildokoak izaten dira: “...*kexan aipatzen diren udalerrri batzuetan bete gabeko plazak ere badaude, baina gerta daiteke eremuen banaketa eskariarekin bat ez etortzea ere. Baliteke, halaber, lehenetsitako ikastegian tokirik lortu ez duten ikasle askok, azkenean bere herriko beste ikastegi batean plaza eskuratu izana.*”

Zerotik hiru urterako hasierako tarte hau da, ezbairik gabe, plangintzaren gora-beherek gehien eragin diotena, batez ere, gure ikuspegitik, eta behin eta berriz esan dugun bezala, hezkuntza eskaintza honen ardura ez duelako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak soilik bere gain hartu. Adibidez, esango dugu, une hauetan, Astigarragako familia multzo baten kexa tramitatzan ari garela; familia horiek beren seme-alabek zerotik hiru urtera arteko hezkuntza udalerriko haur eskolan osa dezaten nahi dute, Haurreskolak Partzuergora sartu arren, Gipuzkoako haurtzaindegia historiko esan izan zaienetan gertatu den bezala, zeren, orain, Partzuergokoen eskaintza, jakina denez, zerotik bi urterako tartera mugatu nahi baita.

Adin tarte horri dagokionez, galdetu dugu ea Hezkuntza Administrazioa ikaslerik behartsuenen hezkuntza goiztiarra asetzea lehenestea bermatuko duen plangintza bideratzen saiatzen ari den ala ez. Jarduera hau Arartekoak EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunak ezohiko txostenean egindako gomendio batzuk betetzen diren ala ez jarraipena egiteko gure zereginaren barruan sartu dugu. Txosten hori adingabeen problematikaren berariazko arretaren atalean agertzen da.

Izan dira, halaber, modu desberdinetan ebatzi diren beste hezkuntza gai batzuei buruzko kexak. Horrela, hezkuntza Administrazioak ez du eragozpenik izan azkenean Ermuko Anaitasuna ikastolan 2005/2006 ikasturterako bi urteko 3 gela izateko ezohiko baimena emateko. Zorroza BHIan A ereduko DBHIko lehenengo mailako talde bat eratzeko baimena ere eman du, besteak beste, *Kale Dor Kayiko* ijitoen kultur elkarteak eskatuta. Beste kasu batzuetan, berriz, jarrera erabat itxia hartu du, eta proposatutako alternatiba guztiak baztertu ditu. Azkeneko horren erakusgarri modura, Bilboko 5. barrutirako proposatutako plangintzaren inguruan garatutako jarduera sartu dugu (erf. 200/2005).

Alabaina, inolako gaitzespenik merezi izan ez duten plangintza erabakiak ere jorratu ditugu, adibidez, Rivabellosako Unamunzaga LHIan bi eta hiru urteko haurrentzako A ereduko hezkuntza eskaintza kentzearena (erf. 309/2005).

Aipatu nahi dugu, era berean, familia multzo batek, Sondikako hezkuntza bereziko La Ola ikastegia ixteko erabakia dela-eta, aurkeztu digun kexa. Hasiera batean, hezkuntzako agintariek esan ziguten lortu zutela BBK finantza erakundeak (instalazioen titularrak) lau urte iraungo zuen itxiera plana bideratzeko konpromisoa hartzea, tarte horretan oraingo ikasleen % 65en eskolatzea burutu eta gainerako % 35aren etorkizuneko eskolatzea ikastegi arruntetako gela egonkorretan definitu ahal izateko. Baina familiak bereziki kezkatuta zeuden barnetegi erregimenean hartuta zeuden adingabeen egoerarengatik. Horregatik, gestioak egiten segitu genuen, harik eta familiek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzarekin, beren seme-alaben barnetegi

erregimena beren kabuz kudeatzera begira, Zutitu izeneko elkartearen sortzea erabaki zutela jakin genuen arte.

Instalazio horietan hezkuntza eta terapietarako eguneko zentro bat ere badago, txosten honetan, adingabeen kolektiboari buruzko atalean hizpide daukaguna.

Hezkuntzaren alorrean, hezkuntzarako erabiltzen diren eraikinak non kokatuta dauden, zelan eraikita dauden eta zelan mantentzen diren kezak ere etengabe jasotzen ditugu. Horrela, 2005ean, derrigor aipatu behar dugu Donostiako Amara Berri ikastetxeko hezkuntza komunitateak eraman duen auzi luzea. 2000ko ekainean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Donostiako Udalak sinatu zuten lankidetzaren itun bat tarteko, administrazio horietako bakoitzak hezkuntzarako erabiltzeko eraikuntza eta eraikinen gainean zer konpromiso hartu zuen zehaztu zen, eta Morlansen zeuden eskoletarako beste leku bat bilatu behar zutela aurreratu zen. Itun horren esparruan aurreikusitako akordioak eta jarduketak izatez gauzatzea hain luze zihoanez, kexa planteatu zen unean, Udalak Morlanseko orubea berreskuratu nahi bazuen, Amara Berriko ikastegia hainbat lekualdaketa egitera behartuta zegoen (gutxienez 2 18 hilabeteko epean), behin betiko kokapenaren auzia ebatzi gabe zeukalako. Gerora, hainbat interesatuk bi administrazioek hartutako erabakien kontra jotzea erabaki zuten, ikastegiaren behin betiko kokapenaren kontua berraztertzea behartzeko ahaleginean. Horrek keixaren tramitazioa tartetaz etenarazi zigun, eta administrazio horiek batez ere hirigintzako gaiei ukitzen zieten errekurtsio juridiko horiek aztertu eta zer ebatzen zuten zain geratu ginen. Azkenean, errekurtsioak onetsi dira eta bi administrazioek baietsi digute ikastegia Morlans eremuan mantentzea erabaki dutela.

Jasotako beste kexa batzuetan igartzen da, gure ustez behintzat, hezkuntza Administrazioaren eta tokiko korporazioen artean ikastegi publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko orduan beharrezkoa den lankidetzaren ez dela beti nahi bezain ona izaten, udal jabetzako eraikinetan obrak egitera xedatzen diren gastuak hezkuntza Administrazioaren pentzutan finantzatzeari buruzko berriazko arauketa tartean dagoen arren. Adibide modura, gure erakundearen duela hilabete batzuk Getxoko Artaza-Romo BHIko kirol instalazioei buruz tramitatzen ari garen kexa aipatuko dugu.

Aurreko horrekin lotuta, ezin ditugu aipatu barik utzi zenbait ikastegitan dauden eta hezkuntza komunitate osoari eragiten dioten irisgarritasun arazoak. Horrela, ikasleekin zerikusia daukaten hainbat ezbeharren berri izateaz gain, kexa bat baino gehiago ere jaso dugu mugimenduzko ezgaitasunak daukaten irakasle batzuek, osasun arazoak tarteko, zerbitzugintzako deialdien bitartez, xede ikastegia aldatzeko eskatu behar izan dutelako. Hain zuzen, gai horretaz, *EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunak* ezohiko txostenaren esparruan, berriazko jarraipen lana egitea erabaki dugu. Txosten hori adingabeen problematikaren berriazko arretaren atalean agertzen da.

Arartekoaren erakunde honek, aurreko txostenetan, hezkuntza itunen ondoriozko betebeharrak gehiago kontrolatu behar direla ohartarazteko aukera izan du. (Honen harira, 2000ko urteko txostenean gomendio orokorra sartu zen). Une hauetan Orioko Udalararen jokabideari buruzko kexa espediente bat tramitatzen ari gara, udalerrian haur eta lehen hezkuntzako ikastegiaren sostenguaren gainean, bereziki, herriko itunpeko ikastegi bati dagokionez, balitekeelako itunean sartuta dauden hezkuntza gastu batzuk finantzaketa publiko bikoitza izatea.

Bestalde, 2005ean, Sarean elkarteak bultzatutako kexa bat ere landu dugu; Hezkuntza Sailburuordetzak, urtero, EAEko haur eta lehen hezkuntzako ikastegi publikoetan ikasturte hasierari buruz ematen dituen jarraibideen gaineko kexa da. Zehazki, kolektiboaren kexak zuzendaritza zereginetarako eta hizkuntz normalizazioko egitaratuetarako aurreikusitako dedikazioa ditu hizpide zeren, beraiek diotenez, zeregin horiek ez baitira unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen erabakia onartu zuen urriaren 1eko 228/2002 Dekretuan, eta hizkuntz normalizaziorako Ulibarri egitaraua araupetu zuen abenduaren 23ko 323/2003 Dekretuan xedatutakora moldatzen. Kexa hain da berezia, non sarrera honen ostean aukeratutako kexen sortan sartzea erabaki dugun (erf. 1250/2004).

Ikasleen onarpenari dagokionez, onarpen eskariak eskainitako plazak baino gehiago direnean, lehentasun ordena finkatzeko segitzen zaien irizpideak (batez ere ekonomikoak) zalantzan jartzen dituzten ohiko kexez gain, aurten, berritasun modura, arauak aurre-matrikulen urteko prozesua hasteko unean adopzio prozesuak ia itxita dituzten haurren kasuak beren beregi kontuan har ditzaten aukerari heldu diogu. Jarduera honen laburpena aukeratutako kexen artean sartu dugu (erf. 1058/2005).

Atal berean, ixteke daukagu oraindik Donostiako Udalarekin, udaleko langileen seme-alabei udaletxearen mendeko haur eskoletan sartzeko mesedezko tratua ematen zaiela-eta, egiten ari garen jarduera bat.

Hezkuntza premia bereziei dagokienez, behin baino gehiagotan aipatu dugun *EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunak* ezohiko txostenaren jarraipen lanaz gain, nabarmendu behar dugu, aurten, azkenean, EAEko Administrazio Orokorrak berariazko osasun premiak dituzten eskolatutako haurren arretarako neurriak hartzeko jarduera koordinatuko egitaraua onetsi duela, helburu bikoitzarekin: 1) hezkuntzako langileak gaixotasun jakin batzuen aurrean, osasun larrialdietan eta botikak emateko orduan eta beste osasun arreta edo zaintza batzuen aurrean zelan jokatu behar duten jakin dezaten, eta 2) berariazko osasun premiak dituzten eta autonomia pertsonalik ez daukaten eskolatutako haurren arretan koordinatzeko sistemak ezartzea. Espero dugu Hezkuntza eta Osasun Sailak elkarlanean garatzekoak diren egitarau honek, behinik behin, gai honen inguruan jarri izan diren kexak gutxituko dituela (ikasle diabetikoak, alergia koadroak, eta abar).

Hezkuntza premia berezien atal honetan, halaber, ukitutako familiek beti ondo ulertu ez dituzten administrazioen hainbat erabaki aztertu behar izan ditugu. Lerro batzuk gorago aipatu dugun Sondikako hezkuntza bereziko La Ola ikastegiaren kasuaz gain, administrazioak neska bat Gautenako ikasgela egonkor batean eskolatzeko hartu duen erabakiaz ere galdetu dugu; erabakia neskaren eskolatzeko prozesuaren gaineko txosten zorrotzek abalatu zuten.

Beste gai batzuetara aldatuta, adibidez, zerbitzu osagarrien gaia hartuta, esan behar dugu eskola garraioari buruzko gorabeherak ere ohiko kexa iturri bihurtu direla. Horregatik, jarraian aukeratutako kexen artean, horren inguruan tramitatutako kexa bat ere sartu dugu (erf. 166/2005).

Iaz eskola garraioaren alor honetan, Arabako Foru Aldunditik transferitutako ikastoletan eskolatutako ikasleei ematen zitzairen mesedezko tratua amaitzeko hartu zen erabakiaren ondorioz kexa ugari jaso genituela aipatu genuen. Ikasturte honetan, oraindik ere, zenbait familiak erregimen berezi horri eusten segitu nahi izan dute.

Orobat, beste kexa batzuk tramitatzean, hezkuntza Administrazioak ezgaitasun motoreak dituzten ikasleek etxebizitzak ere irisgarriak ez izatearen oztopo erantsia dutelako kasuetan zer jarrera duen jakin ahal izan dugu. Ondo ikusten dugu etxebizitza aldatzea errazteko edo gizarte zerbitzuen zein boluntarioen laguntza eskatzeko erakutsitako jarrera, zeren hezkuntzako laguntzarako espezialista batek nekez ase baitezake premia hori.

Jantoki zerbitzu osagarriari dagokionez, gure erakundeak esku hartzeko eskaera jaso du, azkenean Haurreskolak partzuergoan baitaratu diren Donostiako zenbait haur eskolek tradizioz eskaini izan duten jantoki zerbitzuaren inguruan sortu den arazoan. Gestioak egiten ari ginela, egiaztatu ahal izan dugu Partzuergoak eskola horietako jantoki zerbitzua bere gain hartzeko konpromisorik inoiz hartu ez duen arren, ez duela zerbitzu hori guraso elkarteek kudeatzeko inolako eragozpenik ere ipini; izan ere, haur eskolak dituzten beste udalerrri batzuetan hala egiten dute. Nolanahi ere, badakigu legebiltzarrean ere ekimenak izan direna, Jaurilaritzari, datorren ikasturterako, Haurreskolak partzuergoan dauden haur eskoletan jantoki zerbitzua jar dezan eskatuz.

Unibertsitatearen esparruan, 2005. urtean, 25 urtetik gorakoentzat unibertsitatean sartzeko urtero egiten den azterketa deialdi arruntean erreklamazioetarako jarraitu den prozeduraren inguruan tramitatu dugun kexa aipatuko dugu. Kexa hori tarteko, Autonomia Erkidego bakoitzak, kalifikazioak argitaratu ondoren, bere erreklamazio bidea zehazteko aukera izan dezan jasotzen duen ekainaren 20ko 743/2003 EDn xedatutakoa baliatuz, Akademia Antolakuntzarako Errektoreordetzak 2005eko urtarrilaren 18an emandako ebazpena zelan aplikatu den kontrastatu ahal izan dugu. EHUren esparruan, kalifikazioak argitaratu eta gero, erreklamazio bakarra besterik ezin da egin, Unibertsitatearen Errektoregoan, eta erreklamazio horrekin administrazio bidea agortzen da.

Bestalde, kexan azaldutako gaia aztertuz, 1993an onetsi zenetik indarrean zegoen EHUUn irauteko Araudiaren hainbat aurreikuspen ere zalantzan jarri genituen. Horrela, artikuluko batean ikasgai baten deialdi guztiak agortu zituztenei beste ikasketa batzuetan hasteko aukera bakarria ematen zitzairen. Beraz, egoera horretatik igarotako pertsona batek, ingeniaritza tekniko bat amaitzea lortu arren, ezin zituen unibertsitatean goi mailako ingeniaritza ikasketak egin, ikasketak bigarrenez hasiko zituelakoan.

Gure azterketan, zentzuzko iritzi genion unibertsitateko baliabideen aprobetxamendurik onena sustatuko duten neurriak izateari, baina horrek ez du, gure ustez, zentzurik gabeko egoerarik edo gura bako ondorioz ekarri behar, kasu honetan bezala. Azkenean, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak iraupen Araudi berria onetsi zuen, horren inguruan aldaketa mamitsuak sartzeko.

Izan dira, halaber, beka eskarien ondoriozko kexak, hezkuntza arlo honetan ohiko bihurtu direnak ere.

Azkenik, eta amaitzearren, adierazi nahi dugu gure erakundeak ardura bereziaz jarraitu duela Jokin C.ren heriotzaren ostean auzipetutako adingabeak zelan eskolatu dituzten. Jarraian doan laburpenean kontatuko dizuegu (erf. 242/2005).

Orobat, 2005-2006 ikasturte honetan, ikasgeletako bizikidetzaren gaineko ezohiko txostena amaitu nahi dugu; adingabeen kolektiboari buruzko atalean xehetasun gehiago aurkituko dituzue.

## 4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Ikastegiak

⇒ *Hezkuntza plangintza. Bilboko 5. barrutia (200/2005)*

- Erreklamazioa

Gure erakundean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Bilboko 5. barrutirako atondutako hezkuntza eskaintzari buruz esku hartzeko eskariak jaso genituen. Interesatuak nahi zuten Zabala LHI zenaren instalazioetan A ereduko hezkuntza zerbitzuen eskaintza berriro jar zedin, Miribillan ikastegi ghettoa sortzea ekiditearren.

- Azterketa

Kexaren tramitazioan zehar, hezkuntza Administrazioak Bilboko 5. barruti horretan erregistratutako hezkuntza eskaintza eta eskarien gaineko datuak ematera mugatu da, eta ondokoa ondorioztatu du:

*“Bilboko 5. barrutian hizkuntz eredu guztiak eskaini dira, baina ez gaude eskaintza hori ikastegi guztietara zabaltzera behartuta. Izan ere, administrazioak eredukako eskaintza herri bakoitzaren arabera egiten du, eta ez ikastegi zehatz bakoitzerako, aurreikusitako plangintzari adituz.*

*Une hauetan, 2005-2006 ikasturterako ikasleak eskolatzeko onarpen prozesu guztiak amaituta daudenean, denek daukate bere tokia eskolan.”*

Horrela, hezkuntza Administrazioak ez du, inoiz, ez eta azal-azaletik ere, Bilboko eremu horretako A ereduko ikasleen ezaugarriak tarteko, konpentsaziozko neurriren bat aztertzeko prest dagoenik erakutsi, kexetan argudiatzen zenez, etorkinak edo ijitoen etniakoak izanik, gizarte ingurune behartsuan bizi diren ikasleak diren arren.

Egia da, garai hartan ikastegietako zuzendari zenak esateko lana hartu zuen moduan, hezkuntza Administrazioa ez dagoela behartuta hizkuntz eredu desberdinen eskaintza ikastegi guztietara zabaltzera eta, horregatik, eremu horretako eskolatzeko eskaria asetzat jo behar genuela. Bestalde, egia ere bada hezkuntza Administrazioak ez zuela hezkuntza ekintza lehenetsien bitartez, adibidez, ikasle etorkinen arretarako dagoen egitarauan jasotzen diren ekintzen bitartez, hezkuntzako berariazko esku hartzeen ahalbiderik eztabaidatzen.

Nolanahi ere, gure erakundearen iritziz, hezkuntza instantzietatik ere behin eta berriro errepikatutako helburuak, zailtasunak dituzten ikasle gehiegi pilatzen diren ikastegi batzuk ghetto bihurtzeko daitezkeen saihestek, hezkuntza Administrazioa halako egoerei aurre egiteko ekimenak abiaraztera behartzen du, gehiegizko pilaketa hori gertatu edo finka dadin eragozteko neurriak hartuz, hain zuzen. Horretarako, gure ikuspegitik, ikasle horien eskolatzeko eta jada beraiantzat atondu diren berariazko baliabideak bideratzeko hartzen ari diren neurri edo irizpidez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak interbentzio orokorrako baten aukeraz pentsatu beharko luke, hezkuntzaren programazioaren beraren planoan ere.

- Emaiza

Eremu horretarako onartutako hezkuntza programazioa alda zitzaten behin eta berriro saiatu ostean, ahalegin guztiak antzuak izan zirenez, gure esku hartzea amaitzea erabaki genuen, hezkuntza Administrazioari 2001eko ekainean aurkeztu genuen EAEko hezkuntza premia bereziei buruzko erantzunaren ezohiko txostenean egindako gomendioa etengabe gogorarazteko konpromisoa hartuta.

Orduan ere, gizarte edo kultur egoera ahul edo behartsuen ondoriozko premia bereziak dituzten ikasleei, edo eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik zelako erantzuna eman behar zaien aztertzean, “eskola ghettoak” sortzea saihestuko duten neurriak hartu behar direla ohartarazi genien.

## B) Eskubideak eta betebeharrak

⇒ *Eskola garraioa (166/2005)*

- Erreklamazioa

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak B ereduari egin nahi zituen neska baten aitak gure erakundeari azaldu zion, hezkuntza eredu hori hautatu zuenez, eta Araban, Ozaetan bizi zirenez, alabak egunero Gasteiza joan behar zuela. Horregatik, garraio zerbitzua onar diezaioten eskatzen zuen.

- Azterketa

Gure erakundeak, kexan azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarengana hemen behean jasotako terminoetan zuzentzea erabaki zuen:

*“...Jakina da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasturte bakoi-tzean, irakaskuntzaren zerbitzu osagarri modura, eskola garraio zerbitzua ere antolatzen duela, herri gune urrunetan dauden ikasleak eskolatzera begira. Zerbitzu hori ibilbide zehatz batzuen arabera atontzen da, distantzia, denbora eta ikasle kopurua kontuan hartuta. Hala ere, aipatutako ibilbide horietara egokitzen ez direnez, banan-banako garraio esleipenen deialdiaren bidez alternatibaren bat bilatu behar izaten zaien ikasleak ere badaude. Familia horrek, antza, hezkuntza Administrazio horrek, datorren ikasturteko ibilbideak antolatzerakoan, neska honen beharra ere kontuan har dezan nahi du. Hara zer dioen kexagileak horren gainean:*

*“...autobus bat dago Mendijurrera heltzen dena. Mendijur, autoz, Ozaetatik 4 minutura dagoenez, ez litzateke ezinezkoa autobusa Ozaetaraino etortzea. Hezkuntza ordezkariak aukera hau ere proposatu zaio baina ez du onartu.”*

Gure esku hartze horri erantzuteko, Arabako hezkuntzako lurralde ordezkariak hauxe ohartarazi zigun:



“2.- Neska hori Ozaetan bizi da, eta Ozaeta Aguraingo “Aniturri” BHIaren eragin eremuan dago. BHI horrek B eredia ere badauka bere hezkuntza eskaintzan (...).

3.- Gure ordezkarietan dauzkagun datuen arabera, Ozaetako ikasle batek ere ez du, epe barruan, Aguraingo Aniturri BHIko B eredian DBH 1.ean eskolatzeko eskatu.

4.- Aniturri BHIk garraio eta jantoki zerbitzuak dauzka, bertan DBH ikasten ari diren eta behar duten guztientzat.”

- Emaizta

Horrela, eta hezkuntza Administrazioak familia hori bizi zen herriaren eragin-eremuan B eredia eskaintzen zela baietsi zigunez (Aguraingo Aniturri BHIan), kexagileari jakinarazi genion ikastegi horren hezkuntza eskaintza kontuan hartu behar zuela, garraio eta jantoki zerbitzu osagarriak onar zekizkion eskatu nahi izanez gero.

⇒ *Etxez etxeko irakaslaguntza egitaraua, Jokin C. kasuan auzipetutako adingabeentzat (242/2005)*

- Erreklamazioa

Gipuzkoako adingabeen fiskaltzak Jokin C. gaztearen heriotzarengatik auzipetu zituen Hondarribiko Talaia BHIko ikasleen guraso talde batek, gure erakundeari esku hartzeko eskatu zion, hezkuntza Administrazioa beren seme-alabak normaltasunez eskolatzea eragozten eta, ondorioz, kalte moral eta psikologiko larria eragiten ari zitzaielakoan.

- Azterketa

Guraso hauek jabetzen ziren gure erakundearen esku hartzea eta adingabeen fiskaltzak irekitako prozesu judiziala guztiz bereizi eta banatu behar zirela. Izan ere, kexa hau jarri zutenean beraiekin izandako bileran, esku hartzeko zer aukera geneukan zehaztu ahal izan genien; hartara, guk ikasle horiek zer baldintzatan eskolatuta zeuden aztertu eta horrek gerorako beren hezkuntza ibilbidean zer ondorio ekar liezaiekeen ikertu genuen.

Gure erakundeak ezagutzen zuen Gipuzkoako lurralde ordezkariak 2004ko irailaren 30ean emandako ebazpena; ebazpen hartan erabaki zen adingabe horien guztien hezkuntza arreta, behin behinekoan, etxez etxeko irakaslaguntza egitarauaren bidez burutuko zela. Erabaki hark Talaia BHIra ez joateko epea luzatzea ekarri zuen, eta bere garaian ondoko argudio hauetan oinarritu zen, funtsean: 1) Talaia BHIan oso giro nahasia zegoela, eta 2) berehala beste toki bateko institutu batera sartzek ere ez zuela ikasle horiek ziurrenik jasango zuten presiorik arinduko. Hezkuntza arduradun berberak, ordea, onartzen zuen ebazpen hark ez zuela eragotzi behar orduan zegoen tentsioa lasaitzen zenean, gazte haien eskola egoera normalizatzeko behar ziren neurriak hartzea.

Agerikoa da etxez etxeko irakaslaguntza egitarau horiei heltzen dieten ikasleei ematen zaien hezkuntza arreta mugatua dela, zeren bai ikasketen zama bai curriculumeko

gai desberdinetarako aurreikusten den dedikazioa ikastegietan eman ohi den hezkuntza arreta normalizatuan baino nabarmen txikiagoak baitira; horrela izaten da, normalean, ukitutako ikasleak eskolatuta dauden ikastegira joatea eragozten duten gaixotasun eta abarreko arrazoiak izaten direlako tartean. Gure erakundearen iritzi, besteak beste, etxez etxeko irakaslaguntzaren errealitate honengatik jo zuten guraso horiek, kezkatuta, hezkuntza Administrazioarengana, beti aurka agertu ziren erabaki hau berrazter zezaten eskatuz –jakinarazi zigutenez-, gure hezkuntza sistemaren ezaugarri den eskola ulerkor eta integratzailearen kontzeptuarekin bat ez zetorrela iruditzen zitzaielako, eta eskolaren helburuetako bat bizikidetzarako eta gizartean bizi eta harremanak izateko heztea izan behar delako. Are gehiago, guraso hauek ez zetozen bat lurralde ordezkariak bere ebazpena zurrizko emandako arrazoiekin eta, beraien esanetan, ikastegian ordurako erabateko normaltasun giroa zegoen, eta bai irakasleak bai gainerako ikasleak beren seme-alabak itzul zitezten alde zeuden.

Beste alde batetik, bazirudien, halaber, une haietan, Sailak ikasle hauek Talaia BHIz bestelako ikastegi batean eskolatzea onartuko zuela, irailean, gazte haiek beste toki bateko institutu batera berehala sartzeak ez zuela ikasle horiek ziurrenik jasango zuten presiorik arinduko adierazi zuenean baliatu zuen argudioaz birpentsatuz. Guraso hauek, ordea, ikastegia libreki hautatzeko beren eskubideari heldzen zioten beren seme-alabak Talaia BHIra berehala itzul zitezten eskatzeko, are gehiago azkeneko hilabeteetan administrazioak beraiek proposatutako beste alternatiba batzuk aztertzeari uko egin zionean; besteak beste, ukitutako ikasleei eskolak taldean eman ziezaiten proposatu zuten, ikastordu eta ikasgai dedikazio handiagoaren mesedetan besterik ez bazen ere.

Kexaren mamia, hau da, gazte hauen eskola egoeraren premiazko normalizazioaren eskaria jorratzeaz gain, gure erakundeak beharrezko iritzi zion gauza gehiago ere aztertzeari, funtsezkoak baitziren, gure ikuspegitik, ikasle gazte hauek aurre egin behar zioten egoera ondo bideratzeko.

Horrela, batetik, gure interesa eta kezka adierazi nahi izan genituen hezkuntza Administrazioak ikasle hauek ebaluatzeko aurreikusita zeukan moduarengatik. Jakina da gazte hauek ikasten ari ziren derrigorrezko bigarren hezkuntzako etapan ebaluazioa etengabea eta integratzailea dela, curriculumean finkatzen diren hezkuntza helburuak eta ebaluazio irizpideak kontuan hartuta. Ebaluazio hori, gainera, funtsezkoa da ondorengo ikasturte edo etapetarako sustapena baldintzatzen baitu. Horregatik, eta hezkuntza etapa hain garrantzitsua delako, beharrezko iritzi genion ikasle hauek beren eskola errendimendua beren ingurumarietara egokitutako irizpideen arabera ebalua zekien zuten eskubidea behar bezala betetzen zela ziurtatzeari.

Bestalde, guraso talde honek adierazitako kezkarekin ere bat egin nahi izan genuen, seme-alabentzako laguntza psikologikorik ez zutelako, administrazioak, antza, horretarako konpromiso espresa hartua zuen arren.

- Emaizta

Kexa tramitatzen hasi eta gero, hezkuntzako arduradunek gure erakundeko ordezkariekin egon nahi zutela adierazi ziguten. Bilera hark hezkuntza Administrazioa gazte horien eskolatze baldintzak erabakitzeko kontuan hartzen ari zen ingurumari desberdinak ezagutzeko balio ez eze, beraientzat eskola errendimenduaren ebaluazioa ingurumari berezi haietara egokituz egiteak zer-nolako garrantzi edo transzendentzia zuen agerian

jartzen ere lagundu zuen. Era berean, hezkuntzako arduradunak beharrezkoa zen laguntza psikologiko guztia emateko prest zeudela ere ikusi ahal izan genuen.

Horrek guztiak pentsarazi zigun hezkuntza Administrazioa zuzen jokatzen ari zela, orduan artean emateke zeuden lehenengo erabaki judzialen berri izan arte.

⇒ *Hezkuntza plangintza. A ereduaren hezkuntza eskaintza kentzea (309/2005)*

- Erreklamazioa

Erakunde honen aurrean zalantzan jarri zen hezkuntza Administrazioak Rivabellosako Unamunzaga LHlan bi eta hiru urteko haurrentzako A ereduko hezkuntza eskaintza kentzeko hartutako erabakia, kexagileen ustez, hezkuntza eskaintza horrek guztiz beharrezko izaten segitzen baitzuen, han inguruan bizi diren familia askok adierazitako borondatea kontuan hartuta.

- Azterketa

Jakina da Konstituzioaren 27. artikuluan finkatutako hezkuntzarako eskubidean gurasoek seme-alabentzako ikastegia hautatzeko duten eskubidea ere sartzen dela. Alabaina, eskubide horrek ez dauka balio absoluturik arrazoi material eta aurrekontu arrazoi argiak tarteko. Horren inguruan, hezkuntza Administrazio desberdinei eskoletako plazak ondo antolatzeko eska dakieke, bai hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna bai ikastegia hautatzeko aukera bermatuko badira.

Kexa tramitatzen hasita, ohartu ginen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erantzunean Udalak- Erribera Baxuko bilkurak, 2004ko uztailan, B eta D hezkuntza ereduak bultzatzearen inguruan, hartu zuten erabakia bereziki aipatzen zutela. Alabaina, eta udal akordio hori alboratuta, hezkuntza Administrazioaren erantzunean 2004-2005 ikasturteko matrikulazio datuen xehetasunak jasotzen zituen, eskolatze batzordearen aurrean 2005eko urtarrilean planteatutako proposamena azaltzeko eta, azken finean, Rivabellosako LHlko hasierako hezkuntza eskaintza B eredura soilik birbideratzeko, inguruko familiek gehien eskatzen zuten eredia baitzen. Horrela, Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera:

*“Rivabellosako Unamunzaga LHlan 004-2005 ikasturterako epe barruan jaso diren bi urtekoen aurre-inskribapenak (lurrealde honetako herrietan eskolatzeko adinik ohikoena) bederatzi (9) izan ziren, denak B eredurako. Gerora, epez kanpo, ikastegian B eredurako matrikula baten eta A eredurako biren eskariak jaso ziren, eta azkenean, irailean, 2 ikasle matrikulatu ziren A ereduan eta 10 B ereduan.”*

- Eraitza

Gure erakundeak pentsatu zuen, esandako aurrekari horiek aldaraz litzakeen bestelako daturik ezean, kexak hizpide zuen administrazioaren erabakia aurreko ikasturteetako matrikula datuen bilakaeraren ondorioa zela eta, halatan, ezin zela arbitrariotzat jo.

⇒ *Berritasunak ikasleak onartzeko prozesuetan: adopzioen kasua (1058/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek, bi adingaberen adopziozko ama zen aldetik, kexa bat aurkeztu zuen. Zergatik? Ez zegoelako ados zuela gutxi adoptatutako bi alabak unibertsitateaz kanpoko ikastegi batean onartu ez izanarekin.

Administrazioaren erabakia umeak modu arruntean matrikulatzeko bere eskariak kontuan hartzearen kontra zegoen, adopzioak ez zeudelako gauzatuta eskariak aurkezteko egutegiaren edo epearen barruan.

- Azterketa

Interesatuak ez zuen hori zalantzan jarri, berak, hain zuzen, adopzio prozesua irailan burututa egongo zela argudiatu baitzuen eskarian eta, azkenean, hala gertatu zen, gainera. Oraintxe laburbildu ditugun aurrekari horietatik abiatuta, kexa tramitatzea onartzea erabaki genuen.

Gure jarduketa nondik bideratu zehazteko epai elementu gehiago bildu nahirik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo genuen, informazio eske, bera zelako gai honetako arduraduna.

Horretarako, kexaren edukiaren berri eman genien, kexaren muina azpimarratuz, hau da, hezkuntza Administrazioak ezagutu beharko lukeela aztergai genuen kasuarena bezalakoek ikasleak ikastegietan inskribatzeko prozeduretan izan lezaketen eragina.

Gure laguntza eskariari erantzunez, txosten bat bidali ziguten, eta han zioena eta geneuzkan datuak aztertzeari ekin genion. Atera genituen ondorioak idatzi eta Hezkuntza Sailari bidali genizkion. Jarraian, bigarren jakinarazpenaren testuaren zatirik mamitsuena idatziko dugu; hauxe zioen:

*“Zuon txostenean (idazkiaren data: 2005eko urriaren 21a) unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arloan jarduten duten ikastetxeetako onarpen-prozedurak (prozedura orokorrak eta 2005-2006. ikasturterako beren beregi ezarriak) araupetu dituen arautegiaren berri eman diguzue; aldi berean, 0-3 adin-tarteko ikasleak (adin-tarte horietan baitaude interesatuaren alabak) eskolaratzeak berariaz dituen ezaugarri bereziak ere azaltzen dizkiguzue.*

*Egun indarrean dauden legeen ondoriozko irizpideak aplikatzeari dagokionez, ez aurreko berriematean ez oraingoan ez dugu aipatu ere egin Hezkuntza arloko Administrazioaren jokaera gaitzestekoa denik ez eta horretarako arrazoirik dagoenik ere, hots, ez dugu zalantzan jartzen ezadostasuna eragin duen Administrazioaren erabakiak babes juridikorik duenik.*

*Halaz guztiz, gure lehenengo idazkian planteatu genuenez –nahiz eta zure erantzunean ez den arlo hori beren beregi jorratu–, idazki honen gai dugun kasua eta berau bezalako kasuak beste modu batera trata daitezke, burutzear dauden adopzioek ukitzen dituzten kasuetan eskatzaile interesatuek onarpen-prozeduretan nolabait parte hartzeko mekanismoren bat egituratze aldera.*

*Areago, garrantzizkoa izaki ere, adingabekoen adina ez da zeharo erabakiorra, eta horrenbestez, ikasketak egitea eskatu zuten hezkuntza maila ere ez, zeren eta prozeduran esku hartzen duten beste partaide batzuk ere berdindin tratatzeko interesa modu berean aplikatu baitakieke kasu honetako ume adoptatuek baino urte gehiago dituzten umeei ere.*

*Beste modu batera esateko, aurreko idazkian ondoko hau eskatzen genuen: egokia izan daitekeela adopzioa bezalako figura bat, berria ez bada ere gaur egunean askozaz ere garrantzi koantitatibo handiagoa izateagatik, ikasleen onarpen-prozeduretan erasotzea, prozedura horietan Sail horrek egokitzen jotzen dituen jarraibideak bilduz.*

*Horren guztiaren ondorioz, ulertuko duzue gure irizpidea adierazteko zuongana berriro jo behar izatea, egin ditugun balorazioen emaitza gisa; izan ere, gure aburuz, Hezkuntza Sailak ezin dezake albo batera utzi kasu hauek jorratzeko azterlan sakona egiteko ataza; hain justu ere, azterlan horrek ondokoak jorratu behar lituzke: alde batetik, ikastetxeetako adingabekoen matrikulazioek adopzio kasuetan dituzten eraginak, eta bestetik, prozeduretan parte hartzen duten interesatuek aukera berdinez lehiatzea ahalbidetuko duten jarraibide egokiak eman eta aplikatzeko bideak urratzea, ikastetxea hautatzeko askatasuna babestu eta sendotze aldera.”*

Gutuna amaitzeko, gure iradokizunari merezi zuen jaramona egingo ziotela espero genuela esaten genien, gure lehenengo idatzia bidali genienean ezetsi ez zigutelako, eta bigarrenez jotzen genuela beraiengana aurreko lerroaldeetan jaso dugun komunikazio horren bidez.

- Emaizta

Esandakoan oinarrituta, eta kexagileari zer egin genuen eta zer ondorio eta balorazio atera genituen jakinarazi ondoren, onena gaian esku hartzea etetea zela iruditu zitzaigun.

### C) Haur hezkuntza

⇒ Zuzendaritza lanetan eta hizkuntz normalizazioko egitarauetan aritu beharra haur eta lehen hezkuntzako ikastegietan (1250/2004)

- Erreklamazioa

Sarean elkarreak zalantzan jarri ditu, gure erakundearen aurrean, Hezkuntza Sailburuordetzak, urtero, EAEko haur eta lehen hezkuntzako ikastegi publikoetan ikasturte hasierari buruz ematen dituen jarraibideak. Zehazki, kolektiboaren kexak zuzendaritza zereginetarako eta hizkuntz normalizazioko egitarauetarako aurreikusitako dedikazioa du hizpide zeren, beraiek diotenez, zeregin horiek ez baitira unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen erabakia onartu zuen urriaren

1eko 228/2002 Dekretuan, eta hizkuntz normalizaziorako Ulibarri egitaraua araupetu zuen abenduaren 23ko 323/2003 Dekretuan xedatutakora moldatzen.

- Azterketa

Hainbat informazio eskari bidali eta gero, eta elkarte horrek egindako salaketak xeheki aztertu ondoren, gure erakundeak hezkuntza Administrazioari ondorengo ohar-tarazpenak helaraziko dizkio:

“1. Zuzendaritza zereginetarako dedikazioa:

Lan baldintzak arautzen dituen akordioa onetsi zuen urriaren 1eko 228/2002 Dekretuak haur eta lehen hezkuntzako ikastegietan lanpostuen zerrendak zer aldagairen arabera prestatu behar diren zehazten du.

Aldagai horien artean, espresuki, ikastegiko zuzendaritza taldearentzat zeregin horietarako denbora finkatu behar dela dio. Denbora hori berariazko ordu tarteetan gauzatu eta zehazten da, eta irakasle zuzkidura berriak esleituz definitzen direnez, azalpen bakarra irakasle bat denbora osoan horretara jartzea izan daiteke (25 ordu astean).

Komeniko litzateke, agian, azpimarratzea inork ez duela inoiz nahi izan, ez eta Sarean-ek ere, dekretu horretan, haur eta lehen hezkuntzako maila horietako langileria zehazteko gutxienezko beharrei dagokienez, aurreikusten dena ondo betetzen denik zalantzan jarri.

Hezkuntza Administrazio horrek ondo ohartarazi duen moduan, hemen bene-tako eztabaidagaia da, behin irakasle zuzkidura horien gutxieneko horiek bete direnean, sailak ikasturte hasierako jarraibide edo aginduen bidez, zuzendaritza lanetara osatu diren taldeen kopuruaren proportziozko denbora eman dadin zehaztu nahi izan duela.

Hara, bada, eztabaidagaia argitu eta gero, jakinarazi behar dizut gure erakundea bat datorrela Sarean elkarteak kexa idatzian adierazitako erreparoeekin zeren, gure ikuspegitik, lan baldintzak arautzen dituen akordioaren oraingo idazketak, gerora aldaketarik egin dakizkion arren, ordu kupoak zehazteko beste mami baitakar, izan ere, kupo horiek ikastegietako talde kopuruaren proportzioan aurreikusita baitaude, irakasle funtzionarioei esleitu zaien asteroko dedikazioan. Oraingo jarraibideak horrela ulertu ezean, gure ikuspegitik, zalantza larriko eremuetan sar gintezke lan baldintzak arautzen dituen mailako handiagoko Dekretuan xedatutako ordutegi kupoak betetzeari dagokionez.

Horretaz, esan nahi dizut poztu ginela hezkuntza Administrazioak, joan den apirilean, emandako erantzunarengatik, zeren 2005-2006 ikasturteko hasierako indarreko ebazpen honetan zuzendaritza lanetarako dedikazioko irizpide horiek ezabatzea gerta litekeela aipatu zenutenean, pentsatu baikenuen Sarean-ek aurkeztutako kexaren lehenengo arazo hori berehala gaindi litekeela.

Ez da hala gertatu eta, beraz, berriro azpimarratu behar dut Sail horrek oraingo jarraibide horien edukia berraztertu beharko lukeela, baldin eta hezkuntza Administrazio horrek, orain zalantzan jarri diren jarraibideen moduko beharrik izan ez dadin, zuzendaritzako zereginen ondoriozko beharrak orduzko zamen aurreikuspen batzuen arabera egokiago planifikatzeari komenigarriago irizten ez badio behintzat.

## 2. Hizkuntz normalizazioko egitarauetarako dedikazioa:

Hizkuntz normalizaziorako Ulibarri egitaraua araupetu zuen abenduaren 23ko 323/2003 Dekretuak, 5.2. a) artikuluan espresuki dio, ikastegi publikoetan sailak kontuan hartu behar duela ikastegiko hizkuntz normalizaziorako arduradun teknikoaren asteko ordu dedikazioa, eta dedikazio hori gainerako jardueretako eta ohiko ratioetako dedikazioari gehitu behar zaiola.

Pentsatu nahi dut Administrazio horrek azkeneko erantzunean, gainera, 3, 6, zein 9 orduak islatzeko arazo tekniko bat ere badagoela dioenean erabiltzen dituen datuak abenduaren 23ko 323/2003 Dekretuaren 15.2 artikulua eransten duen aurreikuspenetik ateratzen direla, non orduen dedikazioa egitarauan sartu eta irauteko ebazpenek diotenaren mende uzten baita.

Komeni da azpimarratzea kexagile hauek ere ez dutela zalantzan jarri, inoiz ere, arrazoi hori tarteko, hizkuntz normalizazioko egitarau honetaz arduratzen diren irakasleek irakasle funtzionarioei esleitutako asteko dedikazioa gainditu dutenik.

Zalantzan jartzen dutena, izatez, hezkuntza administrazio horrek Dekretu horrexen 17.1 artikuluan xedatutakoa zelari aplikatzen duen da; artikulua horretan ikastegietako Zuzendaritzari esleitzen zaio ordu zama hori plangintza prozesuan sartzeko ardura, sailaren mendeko ikastegi publikoak direnean.

Administrazio horrek emandako informazioaren arabera, aurrekontuetako oraingo mugekin ez dute, itxuraz, hizkuntz normalizazioko egitarau horien ordu zama ikastegiek irakaskuntzako dedikazioaren (25 ordu) eta eskola zamaren (23 ordu) arteko diferentziaren ondorioz daukaten ordu kredituari egoztea beste aukerarik.

Jokabide horren aurrean, kexagileek, Euskadiko Eskola Batzordearen lehenagoko salaketa bat bere eginez, berriro diote, legitimitate osoz, eskola orduetatik kanpoko ordu kupoak ez duela sindikatuen akordioa sinatu zen unean jada aurreikusita zeuden egitasmoak koordinatu eta dinamizatzeko zeregin berriak sartzen uzten, eta horrela jardutea haur eta lehen hezkuntzako ikastegi publikoen hezkuntza berrikuntzaren kalterako dela.

Gure erakundearen iritziz, hezkuntza Administrazio horren jokamoldeak ez du eragozpenik izan behar, betiere Ulibarri egitarauak hizpide dituen normalizazio

helburuak lortzeak egitarauaren ardura beren gain hartzen duten irakasleen irakaskuntzako dedikazio gorena kolokan jartzen ez badu eta, jakina, betiere ikastegiaren ordu kreditua horretarako nahikoa bada.

Gutxieneko horiek beteta, egia da haur eta lehen hezkuntzako ikastegi publikoetarako giza baliabide gehiagoren eskaera hezkuntza politikaren erabaki eremuan sartzen dela, eta argi dago auzi horretan ezin dela, halaber, Administrazio horrek dagokion irizpen librerako duen margena ahaztu.”

- Emaiza

Txosten hau amaitzeko unean, oraindik zain gaude zer iruditu zaizkion edo zelan hartu dituen hezkuntza Administrazioak gure erakundetik egin dizkiogun iradokizunak.



## 5. FUNTZIO PUBLIKOA

### 5.1. SARRERA

2005. urtean 106 kexa jaso dira funtzio publikoaren atalean. Beraz, atal guztietan tramitatu diren erreklamazioen % 9,7 funtzio publikoaren atalean bideratu dira.

Honakoak izan dira kexak jaso dituzten administrazioak:

-Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	58
-Toki administrazioa .....	20
-Foru administrazioa.....	7

Edukiaren aldetik, jasotako kexak azpiatal hauekin egon dira lotuta:

-Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa.....	40
-Funtzio publiko orokorra.....	38
-Osasun alorreko funtzio publikoa.....	20
-Poliziaren alorreko funtzio publiko .....	7
-Kontratazio-erregimena, ondarea eta administrazio-erantzukizuna .....	1

### **Funtzio publiko orokorra**

Beste behin, esku hartzeko eskatu digu 2000ko enplegu-eskaintza publikoaren barruan EAEko administrazio orokorrak deitutako hautapen-probetan parte hartu zuen oposiziogile-talde batek. Hautapen-prozesuaren balizko jarraipenari buruzko eztabaida berriro hasten saiatu nahi dira, proba horien ondorioz egin den auzi judizialean egon diren berrikuntzak direla-eta.

Txosten hau amaitzen ari garela, badakigu EAEko administrazio orokorrak lehenago gelditu ziren prozesuak berriro tramitatzen hastea erabaki duela. Izan ere, Auzitegi Gorenak gauza bera erabaki du kasazio-errekurtsoei buruz, hau da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko laugarren xedapen iragankorarekin lotuta egindako kasazio-errekurtsoei buruz. Administrazio orokorrak berak argitaratutako informazioaren arabera, kalifikazio-epaimahaiak hurrengo urtarrilean lanean hasiko direla espero da, horrela gainditu dutenen behin-behineko zerrenda 2006ko otsailean argitaratuko dela ziurtatzeko.

2003. urteari buruzko urteko txostenean adierazi genuenez, denok ikusten dugu zaila dela proposamena egitea enplegu-eskaintza publiko hau hain denbora luzean geldituta egoteak oposiziogile askorentzat sortu dituen eragozpen ukaezinak berraztertzeke. Hori dela-eta, une honetan, nahitaezkoa ikusten dugu, gutxienez, dei bat egitea, prozesu horiek ardura bikainenarekin hasi daitezen berriro, eta, horrela, prozesu horiek gorabehera gehiagorik gabe amaitu ahal izan daitezen. Modu horretan, proba horietan interesa duten oposiziogileen sartzeko itxaropenak argituko dira eta, horrez gain, duen langileen beharraren kudeaketa normalizatuagoa egin ahal izango du EAEko administrazio orokorrak.

Azken horrekin lotuta, interesgarria iruditzen zaigu Arabako Aldundiko langile batek eskatuta tramitatu den kexa aipatzea. Gure iritziz, giza baliabide batzuen kudeaketa eraginkorraren eta egokiaren alde egiteko hasieran aurreikusitako zenbait figuraren erabilera desegokiak sortu ditzakeen disfuntzioetako batzuen adierazlea da kexa hori. Foru-langile hori programako bitarteko funtzionarioa da.

Programako bitarteko funtzionarioak izendatzea salbuespena da, eta urtaroko beharrak betetzea izaten da izendapen horien helburu bakarra. Hori dela-eta, kexa hori aztertzerakoan, erakunde honek pentsatu eta onartu zuen foru-administrazioak iritzi ziola ezarritako behin-behineko epea amaitzerakoan bukatu behar zirela izendapen horiek, inolako luzapenik gabe. Baina, aldi berean, kontu berezia izan genuen, eta adierazi genuen izendapen horiek ez zirenean aldi baterako (aldizkakoak), behin betiko premia-tzat hartu behar direla, modu egokian sailkatu behar direla eta lanpostuen zerrendetan sartu behar direla, eta bide egokien bitartez bete behar direla era normalizatuan. Izan ere, beste kasu batean, luzapena ez bada onartzen, jarraian premia horixe bera beteko bada, lan hori egiten zuen bitarteko funtzionarioaren justifikazio gabeko mugiaraztea gertatzen ari da, hasierako izendapena ekarri zuen aldi baterako beharrak, desagertu beharrean, hor jarraitzen duelako.

Udalerrietan ere horrelako disfuntzio batzuk aurkitu ditugu. Esate baterako, Urnieta Udalean egiaztatu ahal izan dugu Urnieta Eraiki SA sozietate publikoan langile bat kontratatzeke justifikatzen zen helburua (enplegu-aholkularitza) ez datorrela bat inolaz ere sozietate horretako estatutuek adierazten dituzten helburuekin, udalerrian hirigintzako jarduerak sustatzeko eratu baitzen.

Ordezkapenen kudeaketarekin lotuta, hainbat kexaren tramitazioa amaitu dugu. Kexa egin zutenek EAeko administrazio orokorreko lan-poltsetan sartzeko lehiaketa espezifiko bat gainditu zuten 2003. urtean. Proba hori erantzun askotarikoak onartzen zituen 100 galderaz osatutako azterketa objektiboa izan zen, eta 2000ko enplegu-eskaintza publikoko ariketa teorikoan erabili zen galdera-sortan oinarrituta zegoen. Kexaren sustatzaileak atzeratu egin zituzten, ariketa teoriko hori bakarrik gainditu zuten pertsonen alde. Izan ere, alde aurretik horretarako aurreikuspenik ez bazegoen ere, zerrendan sartu zituzten administrazioaren eta erakunde sindikalen arteko akordio baten ondorioz.

Administrazio publikoek errekursoak antolatzeke duten eskumenak errespetua merezi du, eta errespetu horretatik abiatuta, zerrendak antolatzeke irizpideen arauak zalantzan jartzeko beharra sentitu genuen. Alde batetik, pertsona jakin batzuei emandako lehentasunak justifikaziorik ez zuela uste genuen; gure iritziz, ez baitzegoen pertsona horiei merezimendu eta gaitasun handiagoa emateko balio zuen faktorerik. Bestalde, 2000ko enplegu-eskaintza publikoaren oinarriak urratzen zituen erabaki horrek, baita zabaldua zeuden hautapen-prozesuen bilakaera logikoa ere. Gainera, deialdi espezifiko ebatzi ostean hartu zen erabaki hori, deialdia gainditu zutenen kaltetan, eta inolako isla publikorik izan ez zuen akordio batean oinarrituta.

Horregatik, pertsona-talde bi horiek egin behar izan zituzten ariketak homogeneizatzeko bitartekoen bidez puntuazio konparagarriak lortzea egingarria ikusi arte, proposatu genuen interes guztiak bateratzeko modurik onena guztiak barne hartuko zituen zerrenda bat egitea zela. Zerrenda horren irizpidea izango zen mailakatzeko printzipio horiek aplikatuz esleitu daitezkeen puntuazioak ematea pertsona bakoitzari. Hala ere, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak erabakia berretsi zuen, horretarako argudio aipagarririk eman gabe.

Aurreko ekitaldietan egin dugun bezala, ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegurako sarbideagatik ere erakutsi dugu interesa. Hain zuzen ere, ezohiko txostenen bidez egiten dugun segimendu-lanean, beste behin jo dugu Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarengana, ezgaitasunak dituzten pertsonak EAEko lan merkatu arruntera sartzeko planaren barruan egon ahal izan diren aurrerapenak egiazatzeko. Une honetan, oraindik ere, datu horien zain jarraitzen dugu.

Nolanahi ere, ez da gaiari buruzko kexa indibidualik falta izan, ezgaitasunen bat duten eta lan merkatuan sartu nahi duten pertsonak zein zailtasun dituzten erakusten dutenak. Horrenbestez, ataleko sarrera honen osteko kexen aukeraketan, interesgarria iruditu zaigu ikusmeneko ezgaitasun bat duen oposiziozile batek eskatuta tramitatu den kexa aipatzea. Pertsona horri ez zaizkio eman eskatutako denbora-egokitzapenak (524/2005).

Hizkuntza-normalizazioari buruzko atalean, 2005. urte honetan, nahitaezkoa da Bilbao-Bizkaia Ur Partzuegoak egindako deialdi batekin lotuta tramitatu den kexa-espeditzea aipatzea. Hurrengo laburpenean azaltzen denez, deialdi hori Ustiapen eta Saneamendu Saileko hainbat lanpostu betetzeko egin zen, eta berdintasun-printzipioa larriki urratu zuen, hizkuntza-eskakizunak egiten zirelako. Baina lanpostu horiek unitate erregularretan txertatuta daude, eta horietarako, Partzuegoak berak onartutako normalizazio-planaren arabera, eskakizun hori atzeratu egin behar da, gaur egungo % 29,09 baino handiagoak diren nahitaez betetzeko indizeak eskuratu arte (erf. 323/2005).

Horrez gain, EAEko administrazio orokorraren esparruan, aipatzekoak dira Funtzio Publikoko sailburuordetzaren 2004ko maiatzaren 24ko instrukzioaren aplikazioari buruz jaso diren kexak, asko izan direlako. Lan-orduetan hizkuntza-trebakuntzarako sarbiderako lizentziak emateko irizpideak aplikatzeko lehentasunen ordena determinatu eta zehazten du instrukzio horrek.

Bestalde, kexen beste iturri bat finkatu dela egiaztatu da, lizentzia eta baimenekin lotutakoa. Kexa horiek agerian uzten dutenez, sakondu egin behar da lanean dauden pertsonen lanbidea eta familiako bizitza gehiago uztartu daitezen ahalbidetuko duten neurrietan. Horietatik guztietatik, aipatzekoa iruditzen zaigu une honetan tramitatzen ari dena. Hauxe da kexaren arrazoia: tokiko administrazio batek ez dio baimenik eman pertsona bati lanaldi mugatuko erregimen malgua hartzeko, ardurapean duen alaba txiki bat zaintzeko. Asteko lana hiru egunetan metatzea proposatu du pertsona horrek; horrela, gainerako denbora umeari arreta egokia emateko erabili ahal izango du.

Kexa horri zein ikuspegitik heldu pentsatzerakoan, erakunde honek oso kontuan hartu ditu lanbidea eta familiako bizitza uztartzearen inguruan sortu diren eskari berriak. Beraz, duela gutxi egindako azterlanek erakusten dutenez, une honetan proposatzen diren gomendioen artean lanaren antolakuntzan malgutasun handiagoa sustatzeari buruzkoa dago, langileen familia-premiei erantzuna ematen saiatzeko. Izan ere, Europan ere ekimenak daude (laneko denbora antolatzeari buruzko Zuzentaraua aldatzeko proposamena), ordutegi-aldaketei eta laneko erritmoei buruzko akordioak sustatzeko beharra aurreikusten dutenak, lanbidea eta familiako bizitza uztartzen saiatzeko helburuarekin, oso beharrezkoa baita.

Bestalde, unean uneko kexak ere egon dira, esate baterako, aurretiko zerbitzuak onartzearen gorabeherekin, hirurtekoak ordaintzearekin, lanpostuen sailkapen eta balioespenarekin, funtzioen esleipenarekin... lotutakoak.

Amaitzeko, INEMeko langile-talde batek eskatuta tramitatu den kexa gogoratu nahi dugu, gure azkeneko txostenean aipatu genuena. Gure jarduera bukatzeko, erakunde honek EAEko administrazio orokorrari eskatu zion enpleguan egiteke dauden transferentziak gauzatzeko saiakera guztiak egin ditzala. Horrela, gutxienez, Enplegu Zerbitzu bakarra ezarri eta sendotu ahal izango da, eta zerbitzu horrek EAEn garatzen diren enplegu politiken osoko kudeaketaren ardura eduki ahal izango du. Komunikabide batzuetan argitaratu diren berrien arabera, badirudi horren gaineko aurrerapenak egoten ari direla azkenean.

## **Osasun alorreko funtzio publikoa**

2005. urte honetan, ez da egon hautapen-prozesurik osasun alorrean eta, horregatik, jaso diren kexak beste gai batzuekin lotuta egon dira; hortaz, esparru horretako langileen kudeaketa arruntaren gorabehera propioekin lotuagoak izan dira kexak.

Esate baterako, kexen aukeraketan, egokia iruditu zaigu lehen mailako atentzioko taldeen dispersio geografikoko lekualdatze-osagarriaren ordainketarekin lotutako kexa bat aipatzea (erf. 305/2005).

Bestalde, kexa baten tramitazioa dela-eta, Osakidetzako zuzendaritzarekin berretsi ahal izan dugu honakoak inolaz ere ez dakarrela onartutako lan-karteldegien arabera aurreikusitako ordainketen murrizketa: hauteskunde-mahaian bokal-funtzioak egiteak duen betebeharrak publiko saihestezinak; horrek lanpostura era justifikatuan ez joatea ahalbidetzen duen baimen ordaindu bat ematea barne hartzen du.

Sektore horri dagokionez, interesgarria iruditzen zaigu psikologo-talde batek eskatuta tramitatu genuen kexa nabarmentzea. Osasun-alorreko administrazioak psikologia espezialitatea EAEko osasun-esparruan onartzea nahi dute psikologo horiek, eta osasun-alorreko beste profesional batzuei onartzen zaien eskusibitateko osagarri espezifikokoaren ordainketa posiblea onartzea ere. Espezialitatea onartzeko ez da denbora asko pasatu behar izan, eta uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren argitalpenaren bidez egin zen. Dekretu horrek Osakidetzako erakunde publikoko funtzionario-lanpostuak arautzen ditu (irailaren 7ko EHAA, 170. zk.). Ordea, eskusibitate-osagarriaren balizko onarpenaren gaineko eztabaida egiteke dago oraindik, bere garaian biologoen kategoriarekin gertatu zen bezala.

Ezgaitasunen bat duten pertsonak tratatzeko moduari dagokionez, ezin dugu aipatu gabe utzi ordezkapenak egiteko hautagai batek eskatuta hasi den espediente. Pertsona horrek buruko gaixotasun bat du, eta Gasteizko Santiago Apostol ospitalean lan egin nahi du. Erakunde honek interesatuaren egoera berezia ezagutzeko aukera izan zuen lehenagoko kexa-espediente bati esker. Espediente hori hautapen-proba batzuk zirela-eta hasi zen, hain zuzen ere, mendekoa/langilea talde profesionaleko zerbitzuetako langile-peoi kategoriako estatutupeko langile izateko hautapen-probak zirela-eta. Hor ulertu genuen ez zela egongo eragozpen gehiagorik interesatuak Osakidetzarekin lotuta jarraitzeko, balizko ordezkapenak egiteko hautagai gisa. Izan ere, langileak aurrez egindako zerbitzuak egiaztatu zituen, hain zuzen ere kategoria horretako langilea izan baitzen, Santiago Apostol ospitaleko garbitegian.

Bestalde, EAEn ezgaitasunak dituzten pertsonak lanean integratzeko ezohiko txostenarengatik gaiari buruzko segimendua egin da. Hori dela-eta, erakunde honek

beste behin eskatu zien EAEko administrazio publikoei jarduteko estrategiak antolatu eta ezarri egin behar zituztela, ezgaitasunen bat duten pertsonak EAEko lan merkatuan integratzeko planak aurreikusten dituen gutxieneko berrietatik abiatuta. Horretarako, beste neurri batzuen artean, plazak gordetzeko kupoa hedatu egin beharko dute (% 10eraino) edozein kontrataziora, bereziki aldi baterako lanera. Gainera, berariaz aipatu beharko dute ordezkapen zerrendak edo poltsak kudeatzeko jarraibideetan.

Bada, gure ikuspuntuaren arabera, aipatzen ari garen interesatuaren kasu berezia kontuan hartzera behartzen gaituena azken gomendio hori da hain zuzen, hau da, erreserbaren kupoa aldi baterako kontrataziora ere hedatzeko gomendioa, eta, beraz, behartu egiten gaitu bera aldi baterako kontratatzeko aukera erraztu edo bultzatzea ahalbidetuko duen erreserba antzeko bat ezartzeko aukera begiratzera.

Hizkuntza-normalizazioaren arloan, pertsona batzuek zalantzan jarri dute hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proba espezifikoek deialdietan erakundeko langile finkoek eta bitartekoek parte hartzeko aukera mugatzea. Eskuratu ahal izan ditugun datuen arabera, aldi baterako langileentzat ere zabalik egongo dira egiaztatzeko probak, eta horiek kudeatzeko ezintasun materialaren ondorioz hartu zen erabaki hori, hautagai asko daudelako egoera horretan.

Hala ere, jakin izan dugunez, hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko beste bide posible batzuk pentsatzen ari dira Osakidetzan, hain zuzen ere, guztientzat izango den eskakizunak egiaztatzeko proba kudeatzeko ezintasun materiala gainditzen saiatzeko. Horren bitartez, ordezkapenak egiteko interesa duten hautagaiek balizko kalteak izatea saihestu nahi da, hizkuntza-eskakizunak nahitaezkoak direla proposatzen denean. Dena dela, ezin daiteke oharkabean utzi bide posible horien helburua osasun-administrazioan aldi bateko lana egitea ahalbidetzea dela, dagoeneko gertatzen den moduan, kontratazio-zerrenden sistema erregulatzeko onartutako arautegian (2004ko urtarrilaren 26ko akordioa, 2004ko otsailaren 18ko EHAAko 33. zk.an argitaratua). Izan ere, behin betiko sartzeko baldintzetan, enplegu-eskaintza publikoa bera da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko esparrua.

Osasunaren esparruko kexa bat ez bada ere, egokia deritzogu atal honetan aipatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko funtzionario batek eskatuta tramitatu zen kexa. Funtzionario horrek erakunde honetan salatu zuenez, bere Sailak ez zion baimenik eman Europar Batasuneko SANCOko Zuzendaritza Nagusian aditu nazionala izateko lekualdatzea onartzeko. Baimen hori ez ematea minbiziko erregistroa dinamizatu eta eguneratzeko behararen bitartez azaltzen saiatu ziren.

Erakunde honen iritziz, argudio hori ez zen Sailak zioena bezain erabakigarria, interesatuaren lekualdatzea ez baimentzea justifikatzeko orduan, eta arrazoi bi daude horretarako: lehenengo eta behin, erregistro horren egoera sobera ezagutzen zutelako Saileko arduradunek duela denbora asko eta, bigarrenik, minbiziaren erregistroa eguneratzeari eta dinamizatzeari garrantzia eman zaion arren, ez dugulako ikusi administrazioak erregistro hori eguneratzeko asmoa duela era argian adierazi dezakeen datu zehatzik.

Horrela, Sailak ez zuen lortu erabaki hori hartzeak bidegabekoa ez ematea. Hori dela-eta, gogorarazi egin behar izan genion onartutako jardueraren helburua, besteak beste, premia horiek betetzeaz arduratzen diren langileen mugikortasun-aukerei eragin ahal dieten zerbitzu-beharrak neurtzea dela hain zuzen. Horrez gain, jakinarazi zitzaion horrela ez egiteak, hau da, minbiziaren erregistroarekin lotutako premia horiek bere garaian neurtu ez izanak (interesatua Europar Batasuneko aditu nazional izateko plaza

batera lekualdatzeko aukera onartzeko orduan), konpondu ezinezko kalteak sortu zituela interesatuaren mugikortasuneko eta lanean gora egiteko itxaropenen aldetik. Halaber, SANCOko Zuzendaritza Nagusian ere eragozpen argia sortu zuen, adituentzako plazak era normalean betetzeko orduan. Izan ere, bistakoaenez, beste norbait deitu behar izan zuen plaza horretarako. Amaitzeko, EAEko administrazioak Europar Batasunean duen irudian ere modu negatiboak eragin zuen.

## **Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**

Irakaskuntzaren sektorean, erakunde hau gehien arduratu duen gaietako bat, zalantzarik gabe, 2004-2006rako irakaskuntza-egonkortasunerako akordio berriaren eragina duten bitarteko irakasleen egoera izan da. Horri buruzko geure iritzia urteko txostenean aipatu genuen, eta iritzi hori zein den jakin nahi izanez gero, testu hori begiratu daiteke.

Une honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak horri buruzko lehen erabakia eman du (urriaren 21eko 729/05 epaia). Epaia horrek era partzialean onartzen du Euskadiko Langile Komisionen Konfederazio Sindikalak sustatutako errekurtoa, baina, hala ere, Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtoa jartzea erabaki du hezkuntza-administrazioak. Hori dela-eta, askok uste dugu irakasle horien egoerak kexa gehiago ekarriko dituela.

Hizkuntza-normalizazioarekin lotutako horrelako gaiei dagokienez, erakunde honek ondokoaren gaineko interesa erakusteko beharra sentitu du: aurreikusitakoaren arabera, irakaskuntzako administrazioak hizkuntza-gaitasuneko zein maila eskatuko dien irakasleak ez diren lan-kontratuko Heziketa Bereziko langileei, apirilaren 5eko 66/2005 Dekretu berria dela-eta. Dekretu horrek langile horien hizkuntza-eskakizunak sortu eta arautzen ditu (apirilaren 14ko EHAA, 70. zk.). Dekretu horrek beste hizkuntza-eskakizun espezifikoko bat ezarri zuen. Eskakizun hori Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA) deitzen da, eta lehenago irakaskuntzako langileentzat ezarrita zeuden HE1 eta HE2 hizkuntza-eskakizunen arteko maila bat da. Horrez gain, exijentzia-maila txikiagoko maila bat ere aurreikusten da, irakaskuntzako HE1 edo parekoren bat eskatuko den plaza jakin batzuk betetzeko.

Egia da aurreko erregulazioak direla-eta egon diren epaileen erabakiek onartu egiten dutela era inplizituan Heziketa Bereziko lan-kontratuko langileentzako eskakizun propioak eta ezberdinak ezartzeko aukera. Hala ere, eskakizun horiek ezartzeak arbitrarioa eman ez dezan, kategoria bakoitzaren funtzio propioak era zirkunstantziatuan aztertu behar dira, eta langile horiek ematen dituzten zerbitzuetan esku hartzen duten gainerako baldintzak ere aztertu behar dira, erabaki horietan esaten den bezala. Hain zuzen ere horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza eskatu zuen erakunde honek, hizkuntza-eskakizunak esleitzeko aplikatu nahi ziren irizpideak zein ziren jakiteko, bereziki, hezkuntza-laguntzako espezialisten lanpostuetan. Hala ere, interesatu batzuek hasi zituzten ekimen judizialen ondorioz, esku-hartzea bertan behera utzi behar izan genuen, gure erakundea eratzeko Legearen 13.1. artikulua agintzen duena betez.

Irakaskuntzaren sektorean ere, lanbidea eta familiako bitzita uztartzeko behararekin lotutako kexak jaso dira. Horien guztien artean, interesgarria iruditzen zaigu unibertsitateko irakasle batek eskatuta tramitatu zena azpimarratzea. Horren laburpena kexen aukeraketaren atalean sartu da (65/2005).

Ordezkapenei buruzko atalean, orain zero eta hiru urte bitarteko hasierako zikloa ere badago, eta irakaskuntzaren azken enplegu-eskaintza publikoaren baremoan aurreikuspen batzuk ezarri ziren aurretiazko esperientzia balioesteari buruz. Horren ondorioz, beharrezkoa izan da berrestea ea zero eta hiru urte bitarteko hasierako ziklo horretan emandako zerbitzuak kontuan hartuko badira ordezkapenetarako.

Bistakoa denez, horrela ez bada, maila horretan emandako zerbitzuak ere ezingo dira kontuan hartu, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren mendeko ikastetxe publikoak direnean edo bestelako edozein hezkuntza-administrazioen mendekoak direnean ere ez (kasu honetan, esate baterako, ikastetxe publikoetako urteko biko ikasgeletan emandako zerbitzuez ari gara). Bestela, irakaskuntzako ordezkapenak egiteko merezimendu moduan onartuak izatea merezi dutela ulertzen bada, hezkuntza-administrazioak hasierako ibilbide horri buruz duela gutxi hartutako erabakien ondorioz (Haurreskolak partzuergoa sortzea eta hainbat udalekin hitzarmenak izenpetzea), erakunde honen ustez, gaur egungo jarraibideen testua berrikusi beharko litzateke, balioetsi daitezkeen zerbitzuen katalogoa handitzeko, eta partzuergoak edo udalek kudeatutako zentroetan emandako zerbitzuak ere balioesteko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak gai horri buruzko txostena egin zuen –txostenak hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraibideetan duela gutxi egin zen aldaketa aipatzen du–. Txosten horren amaieran, hasierako ibilbide horren hezkuntzako eta laguntzako izaerari buruzko hausnarketa dago, eta, gure iritziz, hausnarketa horretan, ibilbidea ez dela arautua defendatzen du. Badirudi, beraz, izaera orokorrarekin alde batera uzten dela emandako zerbitzuak irakaskuntzako ordezkapenak egiteko kontuan hartzeko aukera.

Urte honetan kexak egon dira berriro ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko lanpostuetarako irakaskuntzako ordezkapenen zerrendan sartzeko baldintzekin lotuta.

Arautegi orokorraren arabera, lanpostu horietan lan egiteko lizentziatura bat edo parekoren bat behar da, Maisu-maistren taldeko karrerako funtzionarioak diren langileen kasuan izan ezik, ziklo horretan zerbitzua ematera pasatu baitziren lehenago. Hala ere, euskal hezkuntza-esparruko ordezkapenak arautzen dituen ebazpenak Maisu-Maistrako tituluak bakarrik egiaztatzen dituzten pertsonen eskaintzen dizkie lekuak oraindik ere, eta, gainera, titulazio hori duten pertsona gehiago zerrendan sartzeko baimena ematen ari da; horrez gain, espezialitate batzuetan, pertsona lizentziadunak izena emateko baimenik ez du ematen, plaza horiek legez eurentzako diren arren.

Hainbat alditan jo dugu sailarengana geure analisia azaltzeko. Hala ere, ikusi dugunez, oraindik ez ditu irizpideak aldatu. Bere jarduera justifikatzen duten legezko aginduei buruzko txosten arrazoitu bat egiteko eskatu genion eta, une honetan, bere erantzunaren zain gaude.

Irakaskuntzako ordezkapenen sistema hainbat pertsonak ere zalantzan jarri dute. Pertsona horiek duela urte batzuk amaitu zituzten Irakasle Eskolako ikasketak, Lehen Hezkuntzako espezialitatean (unibertsitateko ikasketa-plan berriei dagokien titulua, irakaskuntzen gaur egungo osaketari egokituta). Orain arte, pertsona horiek ezin izan dira zerrendan sartu; izan ere, zerrenda horretara sartu daitezkeen bakarrak titulazioak ikasketa-plan zaharraren arabera eskuratu zituztenak dira.

Kexa horiek argi uzten dutenez, gero eta egonezin handiagoa dago, Lehen Hezkuntzan lan egiteko era espezifikoa trebatu ziren pertsonak ezin direlako sartu

irakaskuntzako ordezkapenen sisteman, sistema horrek ez duelako oraindik islatu espezialitateen osaketa berria.

Gure esku-hartzeari erantzunez, maila horretako irakasle izateko hautagai nahikoa daudela adierazi zuen hezkuntza-administrazioak, eta horretan oinarritu zuen bere erabakia. Hala ere, adierazi zuen kexan deskribatzen zen egoera ez zela justua eta aditzera eman zuen zerrenda zabalduko zuela laster, eraginpean dauden pertsonak irakaskuntza-sisteman sartu ahal izan daitezen. Asmoen adierazpen hori gauzatzea ez litzateke geroratu beharko, beharrezkoa da-eta.

Beste alde batetik, bitxia denez, egokia ikusten dugu azpimarratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoen Irakasleen taldean sartzeko hautapen-probekin lotuta tramitatu den kexa. Kexa horrek zalantzan jartzen du hezkuntza-administrazioaren jarduera, zenbait merezimendu akreditatzeko jatorrizko dokumentuak eskatu zituelako.

Egin zen azterketari esker, erakunde honek egiaztatu ahal izan zuen deialdiaren oinarrietan ez zegoela honakoa aurreikusten zuen inolako aurreikuspenik: III.4 eranskinak aipatzen zituen merezimendu artistikoak egiaztatzekeo tratamendu berezia; beraz, horren ondorioz, baremoaren atal horretan ere izaera orokorrekarekin ezarritakoa bete behar zen, deialdiaren 3.5.1. oinarrian. Oinarri horrek onartu egiten zuen aurkeztutako merezimenduak hauetako edozein modu dokumentalen bidez justifikatzea: bai jatorrizkoen bidez zein konpultsatutako fotokopien bitartez.

Gure iritziz, argudio hori nahikoa zen hezkuntza-administrazioaren jokabidea gaitzesteko. Baina are gehiago. Langileriaren Kudeaketa zuzendariak azaldu zigunez, oposiziogileei jatorrizko dokumentuak eskatzeko arrazoiak faltsutze posibleen arrisku handiagoak saihestea izan zen, fotokopiak baino ez aurkeztea onartuz gero. Erakunde honen ustez, beldur hori bazegoen, hautapen-prozedura arautzeko oinarriak beste modu batean idatzi zitezkeen. Modu horretan, berariaz aurreikusi zitezkeen jatorrizko dokumentuak emateko eskaera. Beraz, horrelako kasuetarako indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 35 c) artikulua onartzen dituen beharrezko bermeekin egin zitezkeen hori. Baina ez zenez horrela izan, adierazi behar genuen Langileriaren Kudeaketako arduradun horrek erabilitako argudioak ez zuela kontuan hartzen dokumentuen kopiak konpultsatzearen birtualtasuna. Izan ere, jatorrizkoarekin erkatuta, dokumentu horiek edukien identitatea egiaztatzea ahalbidetzen dute. Hain zuzen ere, iradokitzen zen iruzur arriskuak ez zuen kontuan hartzen zein helburutarako konpultsatzen diren kopiak. Izan ere, egin nahi den administrazio-tramitaziorako aurkeztu den dokumentuaren kopia jatorrizko dokumentuarekin alderatzea eta erkatzea ahalbidetzen du konpultsatzeak.

Horrez gain, beste kexa batzuk aipatu nahi ditugu, ezgaitasun motoreak dituzten irakasleek egindakoak. Irakasle horiek aipatu dute neurri positiboak beharrezkoak direla mugikortasuna errazteko, euren ikastetxeetan irisgarritasun-baldintzarik ez dagoelako. Une honetan, jarduera bat dugu zabalik, eta haren helburu nagusia, gure iritziz, EAEko ikastetxeetan irisgarritasun unibertsala sustatzea izan behar da. Gai hau zehatzago jorratuko dugu hezkuntzaren atalaren sarreran.

Amaitzeko, aurreko txostenetan aipatu dugun bezala, txosten honetan ere kexak aztertzekeo informazio egokia lortzeko izan ditugun zailtasunak aditzera eman behar ditugu, eta administrazioak gure argudioen gainean egin duen balioespena jakitekeo izan ditugun zailtasunak ere. Horrek atzeratu egiten du guk jorratzen ari garen gaiaren berri



izatea edo, are gehiago, horren berri izatea saihesten du erabat. Horren ondorioz, ahuldu egiten da legeak ematen digun eskubideak babesteko jardueraren eragina.

Horrenbestez, bereziki aipatu behar ditugu Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza-rekin lotutako hainbat kexa tramitazerakoan aurkitu ditugun oztopoak. Izan ere, behin eta berriro egin dira eskaerak, eskatu dira azalpenak eta gogoratu da aplikatu daitekeen legezko esparrua, baina ez dugu jaso eskatutako datu edo txostenik. Jarduteko modu hori legeak agintzen duenetik kanpo dago eta herritarren zerbitzura dagoen eta ordenamenduak ematen dizkion eskubideak errespetatzen dituen administrazio publiko baten lan egiteko modua izan beharko litzatekeenetik kanpo ere. Hori erakusten duen adibide bat aipatu nahi dugu, 1306/2003 espedientearen tramitazio bihurria hain zuzen. Espediente horrek azaroaren 25eko 21/2005 gomendioa ekarri du, eta laburpena jarraian aipatuko dugu.

## **Poliziaren alorreko funtzio publikoa**

Azken urteetan, egiaztatu ahal izan dugu sektore horretan errepikatu egiten direla, aldizkakotasun batekin, poliziara sartzeko adin-eskaerari buruzko kexak. Une hone-tan, EAEko polizietara sartzeko baldintzak 315/1994 Dekretuan daude ezarrita, hau da, Hautatzeko eta Trebatzeko Araudia onartzen duen dekretuan (maiatzaren 21eko 11/2002 Dekretuaren bidez aldatu zena). Azken dekretu horrek gehienezko adina aldatu zuen. Dekretu horren bidez, hautagai posibleei bermatu egiten zaie denboran luze irau-ten duen trebakuntza ez dela izango eragozpena polizian sartzeko eta, gainera, euskal poliziari errazten zaio polizian dauden pertsonen lan horrek eskatzen duen gehienezko potentziala garatu dutela.

Ertzaintzako ikuskapen-kategoriako eskalako ofizialaren kategorian sartzeko hautapen-prozesuengatik ere erakutsi dugu interesa. Hala ere, Herrizaingo Saileko arduradunek saihestu egin dute horrelako deialdiak arautzen dituzten oinarrien izaera arautua indartzearen egokitasuna hausnartzea –profil profesionalari buruzko proba psikoteknikoaren balioespenaren gisako alderdiak, proba fisikoen konfigurazioa... deialdian kontuan hartuta–. Horren bitartez, balizko hautagaien artean konfiantza han-diagoa sortzen lagundu daiteke, hautapen-prozesuaren objektibitate, inpartzialtasun eta gardentasunari dagokionez.

## **5.2. AUKERATUTAKO KEXAK**

### **A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**

⇒ *Irakaskuntzako ordezkapenen zerrendan sartzea horretarako eskatzen den titulurik ez duten pertsonak (1306/2003)*

#### **• Erreklamazioa**

Kexa batek zalantzan jarri zuen pertsona bat irakaskuntzako ordezkapenen zerren-dako hainbat espezialitatetan sartuta egotea, ematen zituen arrazoizko zantzuak ikusita, ez baitzuen arautegiak eskatzen zuen titulua.

Tramitazio bihurri baten ostean, jakin ahal izan genuen pertsona horrek eman zituen tituluak oker kodetu zirela eta, benetan, ezin zela agertu onartuta zituen hainbat espezialitatetan. Hezkuntza-administrazioak berak onartu zuen hori, eta adierazi zuen ez zekiela zein arrazoirengatik heldu zen egoera horretara.

Geroago, justizia-auzitegi batek erabaki zuen pertsona hori espezialitate bitatik kanpo geratu behar zela; espezialitate horiek epaileak aztertu zituen era espezifikoan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zuen kendu gainerako zerrendetatik, jarduera hori egiten utziko zion arautegiko aldaketa baten zain zegoelako.

- Azterketa

Hasteko, aipatu egin behar dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila era ezohikoan eta azaldu ezinekoan berandutu zela geure eskaerak betetzeko orduan. Horren ondorioz, behin eta berriro egin behar izan genituen eskaera horiek (esate baterako, aipatu dezakegu zortzi hilabete baino gehiago eta lau eskaera behar izan genituela fotokopia bat eta zerrendan sartu zeneko egunaren datua igorri ziezaguten lortzeko).

Gaiari buruz egon den prozesu judizialari dagokionez, edukia zati batean bakarrik zetorren bat kexan aztertutakoarekin; beraz, gure lege arautzaileko 13. artikuluan jasozten den ez jarduteko betebeharra arlo komun horri bakarrik zegokion.

2004ko maiatzaren 26ko Ebazpenean daude jasota EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ordezkapenen zerrendak kudeatzeko jarraibideak. Ebazpen hori Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak eman zuen (EHAA, ekainaren 11). Eranskin gisa argitaratzen den titulu eta espezialitateen arteko bat-etortzea erkatuz gero, ikusi daiteke eraginpean dagoen pertsonak ez duela titulurik eman zitzaizkion zazpi espezialitateetatik gutxienez bost irakasteko.

Ezin diogu eragozpenik jarri taula hori aldatzeko nahiari, administrazioak ahalmen zabala duelako bere baliabideak eman zaizkion helburu publikoa lortzeko era kome-nigarrienean antolatzeko. Gainera, 1998tik, erakunde honek hainbat aldiz eskatu du egiaztatutako tituluetakoa bat (Giza elikadura eta dietetikako diplomatura) kontuan hartu zedin ordezkapenen zerrenda kudeatzeko sisteman. Are gehiago, Eusko Legebiltzarrak lege-proposamen bat onartu zuen horri buruz, baina denbora guzti honetan ez da kontuan hartu, arautegian beste berritasun garrantzitsu batzuk ere sartu diren arren. Hala ere, aldaketa hori ez dagoen bitartean eta bitarteko egokien bidez aditzera ematen ez bada, ez du inolako eraginik.

Ordenamendu juridikoak adierazten du agintaritza publikoak eta administrazioak Legearen eta Zuzenbidearen mende daudela. Hortaz, beren jardueraren edukia indarrean dagoen arautegiari egokitu behar diote agintaritza publikoek eta administrazioak, eta ezin dute Legetik eta Zuzenbidetik kanpo jardun, eta are gutxiago hari kontra egin aho betean. Izan ere, kasu horretan, haien jarduna ez litzateke baliozkoa izango.

Horretarako berariaz aurreikusita dagoen titulaziorik izan gabe pertsona bat espezialitate batzuetan gaitzea agindu juridikoen urraketa argia da, horien aplikazioa eraginpean dauden pertsona guztientzako berbera izan behar da-eta. Administrazioaren erantzunean ulertzen denez, ezin da interes orokorra aipatu titulu abstraktu gisa, eta eskubide positiboaren betearazpen zehatzarekin lotuta egongo ez balitz bezala. Horrek aukera-irizpideak jarduera arautuetan sartzeari ahalbidetuko luke edo, azkenik, arauak

betetzea salbuetsiko luke. Are gutxiago kasu honetan, ez baitzeuden oinarri gisa alegatu zitezkeen premia-arrazoia, egiaztatu ahal izan genuen bezala.

Egoera horrekin jarraitzea irregularra da, eta, gainera, legezketasuna errespetatzeko betebeharrak larriki urratzen du. Gainera, lehiakortasuna duen gaia izanik, kalte argia egiten die, tituluaren eskaerak bete arren sare publikoan lanpostu bat izateko aukeraz gabetzen zaielako, horretarako nahitaezko baldintzak betetzen ez dituen pertsona bat dagoelako lanpostu horretan.

- Emaizta

Aipatutako guztia dela-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendio bat igorri genion. Gomendio horretan eskatu genion berriro aztertu zezala espezialitatean jarduteko titulu egokirik izan gabe pertsona horrek espezialitateetan izan zuen sarrera, baita egoera berean dauden gainerako pertsonak izan zutena ere, eta horren ondorioz gertatu direnak. Bereziki aipatu zen prozedura-bermeak errespetatzeko beharra, arategi orokorrak horretarako ezartzen duen defentsa eta entzute terminoetan. Halaber, beren informatika-erregistroak aurkeztu ziren titulazioen errealitateara egokituta bazeuden egiaztatze eskatu zitzaion Sailari.

Txosten hau ixteko orduan oraindik ez genuen jaso horren erantzunik.

⇒ EHU. *Eszedentzia amatasunagatik eta irakaskuntza-esleipena (65/2005)*

- Erreklamazioa

Unibertsitate-eskolako irakasle titular batek EHUren jarduteko moduari buruz zituen zalantzak jakinarazi zizkigun, amatasunagatik ematen diren baimenetan eta eszedentzietan irakaskuntza berriro esleitzen delako. Izan ere, haren iritziz, horrek birtualtasuna kendu ahal die familia eta lana uztatzera bideratutako neurriei, eta, gainera, sexua dela-eta egindako zeharkako diskriminazioa izan daiteke.

- Azterketa

Kexa aztertzerakoan, honako aurrekariak hartu ziren kontuan:

*Irakaskuntza-plangintza*

Honako aurreikuspenak ezartzen ditu duela gutxi onartutako Irakasleen Gestiorako Arautegiak:

*“Irakasleen arduraldiaren zenbaketa “urteka egingo da (...). Sailek, hala ere, ikasketa planen lauhileko egitura berriak eragindako arazoak konpondu beharko dituzte eta sor daitezkeen egoera berezietako irakaskuntza bermatu, ikasleen eskolez arduratuz beti. (...) Irakaslan osoa lauhilabete bakar batean pilatuta duten irakasleen kasuan, eta batez ere bigarren lauhilabetean dutenen kasuan, sailak hartu beharko du bere gain irakaslan hori irakaslea ordezkaria izan behar baldin bada. Izan ere, kasuan kasuko lauhilabeteari dagokion irakaslana baino ezingo luke hartu bere gain ordezkoak (inola ere ez ikasturte osoari dagokiona).”*

*Plazak aldi baterako betetzea: ordezkoak*

Irakasleen Gestiorako Arautegi horrek berak haxe ezartzen du:

*Ikasturteko edozein garitan unibertsitateko edo unibertsitate eskolako katedradun, unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle titular edo irakasle kontratatu baten ordezkapena eskatu ahal da, aldi baterako baja hartzen badu baina plaza hutsik geratu barik (gaixotasun bajak, amatasun/aitatasun bajak, sindikatuan lan egiteko liberazioa, euskara ikasteko liberazioa, liberazio eskubidea dakarren kargu akademikoa hartzea, eta abar), baldin eta sailak dauzkan giza bitartekoez baliatuta ezin bazaio egin aurre irakaslan horri.*

*Sailak ez badu baimenik ematen ordezkoa eskatzeko, eman gabe geratzen den irakaslana sailak berak banatu beharko du gainontzeko irakasleen artean. Dena dela, nahiz eta ordezkorako baimena eman, saileko irakasleen artean banatu beharko da irakaslana ordezkoa kontratatu arte.*

*Eszedentziak*

EHUko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioak eta irakasleen gidak hainbat lizentzia eta baimen hartzeko aukera aipatzen dute. Hala ere, ohartarazten dute beharrezkoa dela dagokion Sailak txosten bat egitea irakaskuntza hori nola beteko den adierazteko.

Kasu ezberdina bada ere, uste dugu tratamendu bera eman behar zaiela semea edo alaba zaintzeko eszedentzia hartzeko eskubidea erabiltzen duten langileei

Hain zuzen ere, aurrekari horietatik abiatuta, horri buruz irakurritako guztiak erakusten duenez, badirudi irakasle batek semea edo alaba zaintzeko eszedentzia-aukera hartzeko borondatea erakusten badu, honakoak izango direla balioetsi beharreko zirkunstantziak edo alderdiak:

1. Eszedentzia eskatu duen irakasleak betetzen duen lekua ordezkatzeko edo aldi baterako betetzeko beharra, bere sailean ezin direnean lasaitasunez bateratu irakaskuntza-eskaria eta irakaskuntza-gaitasuna.
2. Ordezkapen hori ez denean beharrezkoa ikusten –sailean uste bada lasaitasunez bateratu daitezkeela irakaskuntza-eskaria eta irakaskuntza-gaitasuna–, pentsatu egin beharko da irakaskuntza-eskariari erantzuteko betebeharra bermatuko duen irakaskuntzaren beste esleipen bat.
3. Amaitzeko, esleipen hori egiteko beharra ezarri bezain laster, eztabaidatu beharreko benetako gaia da ea irakatsi beharrezkoa berriro esleitzerakoan eszedentzia hartuko duen irakaslearen irakasteko gaitasuna ere kontuan hartu behar bada, edo, alderantziz, esleipen berri horrek gainerako irakasleei bakarrik eragin behar badie, irakaskuntza bere gain hartzeko irakaskuntza-gaitasuna duten gainerako irakasleei.

Bada, ikuspegi horretan kokatuta, kexa egin zuen irakasleak nabarmendu zuen unibertsitateak irakaskuntza berriro antolatu edo esleitu ohi duela horrelakoetan, irakasteko marjina duten gainerako irakasleak bakarrik kontuan hartuta, eta ez bakarrik eszedentziak direnean, baizik eta lizentzia eta baimenen gainerako kasuetan ere.

Badirudi jokabide hori bat datorrela irakasleen gestiorako arautegian aurreikusitakoarekin, irakaskuntza-eskariak ari denean honakoa ohartarazten baitu berariaz: *“Irakaslan osoa lauhilabete bakar batean pilatuta duten irakasleen kasuan, eta batez ere bigarren lauhilabetean dutenen kasuan, sailak hartu beharko du bere gain irakaslan hori irakaslea ordezkaturia izan behar baldin bada”*. Horrela, badirudi irakaslanaren kontzentrazioa bakarrik baimendu daitekeela gainerako irakasleen irakaskuntza-gaitasunak irakaskuntza-eskariari aurre egitea ahalbidetzen badu, balizko ordezkapenak alde batera utzita.

Hala ere, kexa ekarri duen kasuan, ez zen hori izan kexa egin zuen interesatuak aurre egin behar izan zuen errealitatea. Izan ere, azkenean onartu zen esleipen berriak handitu egin zuen irakasle horri bigarren lauhilekorako hasieran esleitu zitzaion irakaslan.

Gure iritziz, balizko ordezkapen bat beharrezkoa bada zehazteko eta determinatzeko horrela jokatzek, hau da, nolana ere eszedentzia adierazteko unean aztertu behar diren zerbitzu-beharrak baliatu nahi izateak, modu oso negatiboan eragin dezake eta bertualtasuna kendu diezaioke neurri horiekin lortu nahi den helburuari, hau da, lanbidea eta familiako bizitza uztartzeari. Horrez gain, sexuagatik egindako diskriminazioa ere izan daiteke.

- Emaizta

Kexa aurretiaz balioetsi ostean, EHUko idazkari orokorrak jakinarazi zigun helburu bera zuten ekimen judizialak zeudela. Horren ondorioz, hasitako esku-hartzea bertan behera utzi behar izan genuen, erakunde hau eratu zuen legeko 13.1 artikulua agintzen duena aplikatuz.

⇒ *Lekualdatze-lehiaketa bati buruzko epai bat aplikatzearen ondorioak (998/2005)*

- Erreklamazioa

Bigarren Hezkuntzako irakasleen taldeko karrerako funtzionario batek borondatez parte hartu zuen 2002. urtean deitutako estatuko lekualdatze-lehiaketan, beste erkidego batean zuen behin betiko destinotik. Prozesu horretan, destino berri bat esleitu zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko kudeaketa-esparruko institutu batean.

Hala ere, parte hartu zuen beste pertsona batek lehiaketaren behin betiko ebazpenaren kontrako errekurtsioa aurkeztu zuen, eta epaile batek onartu egin zion, azkenean, ordura arte hezkuntza-administrazioak onartu ez zizkion kontzeptu batzuk zenbatzeko eskubidea. Horren ondorioz, bi urte geroago, hasieran esleitu zioten destinoa kendu zioten interesatuari, eta behin-behineko destinoko egoeran jarri zuten, inolako ikastetxe, herri edo barrutirako lehentasuneko eskubiderik gabe.

Kexa egin zuenak eragin zitzaion kaltea nabarmendu zuen, behin betiko destino bat galdu baitzuen, behin-behinekotasun egoera batera pasatzeko. Gainera, berari egotzi

ezin zitzaizkion arrazoiengatik gertatu zen hori, hain zuzen ere, beste parte-hartzaile baten baremazioaren gainean hezkuntza-administrazioak hartutako erabaki batengatik. Halaber, adierazi zuen sailak ez zuela inolako konpentsazio-neurririk ezarri. Horren ondorioz, beren borondateaz kanpoko arrazoiengatik behin betiko destinoak galtzen dituzten gainerako pertsonak baino egoera txarragoan zegoen. Izan ere, pertsona horiei, gutxienez, ikastetxe, herri edo barrutiren batean lekua lortzeko lehentasuneko eskubidea ematen zaie.

- Azterketa

Legearen egokitzapenaren ikuspegitik, interesatua, bere garaian, behin betiko destino batetik lehiatu zen, eta destino hori ezin da berreskuratu. Izan ere, prozesuaren emaitza behin betikoa egin zen unetik, eta geroago aldatu izana alde batera utzita, erreferentzia osoa galdu zuen bai harekin bai orduan bere arduraduna zen administrazioarekin.

Era berean, ezin da egin, besterik gabe, behin betiko destinoa izango den beste lanpostu baten alde. Izan ere, alde batetik, oro har, horretarako deitutako hornidura-prozesuetan bakarrik lortzen dira lanpostuak, eta, bestetik, lehiaketa epaian adierazitako irizpideen arabera ebatzi izan bazen berarentzat izan zitekeen lanpostuaren esleipenak prozesuaren beste esleipen oso bat ekarriko luke, aldaketa asko egon ahal izango lirakeelako. Horrek segurtasun juridikoaren printzipioa urratzen du, zalantzan jartzen delako behin betikoa zen emaitza bat, horretarako ezarritako denboran ez baitzen errekurritu.

Hala ere, aldeko irizpen bat eragotzi dezaketen hainbat baldintzatzaile zeudela onartuta ere, beste esku-hartze bat proposatzea posible zela pentsatu genuen, destino berria lortzeko lehentasuneko eskubideren bat onartzeari buruz.

Alorra erregulatzan duten arauak ez dute berariaz aurreikusten eskubide hori ematea epai bat betez behin betiko destinoa galdu den kasuetan. Hala ere, babestu egiten ditu bete izan duten behin betiko destinoa borondatez kanpo utzi behar izan duten pertsonak, lanpostuaren amortizazioagatik edo ordutegiaren urritasunagatik.

Horixe ikusten da otsailaren 19ko 2/1993 Legeko 27. artikuluan (Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko legea) zein urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuko hamahirugarren xedapen gehigarrian, estatu barruan egiten diren lekualdatze-lehiaketak arautzen dituen dekretuan hain zuzen. Lanpostua desagerrarazteko berariazko adierazpenagatik edo ordutegiaren urritasunagatik lanpostutik mugituak izan diren pertsonari ematen zaie eskubide hori, ikastetxe berean beste lanpostu bat lortzeari buruz ari garenean. Nolanahi ere, hezkuntza-administrazioei ahalbidetzen die pertsonari eskubide hori onartzea zenbait lurralde-esparrutarako, esaterako, udalerrria edo beste eremu batzuk.

Kasu honetan, ez dago jasota interesatua gaur egungo egoeran jarri zuen arrazoia (epai bat betetzea; epai horretan erabaki zen beraren behin betiko destinoa era okerrean esleitu zitzaiola). Hala ere, berari sortu dizkion ondorioak guztiz alderatu daitezke lanpostu baten lekualdatzeak sortzen dituen ondorioekin. Izan ere, kasu bietan dagokion lanpostua betetzen jarraitzeko ezintasuna du eragindako pertsonak, beraren borondatezko jarduera kontzienterik egon gabe (bai ez dagoelako, bai beste pertsona batek leku hori betetzeko eskubide gehiago zuelako).

Gure iritziz, identitate horrek ahalbidetuko luke kexaren sustatzaileari lehentasuneko eskubidea emateko aukera proposatzea, lekualdatze-lehiaketa propioetan zein estatukoetan parte hartu dezan, baita ikasturte hasierako esleipen-prozesuetan ere. Prozesu horietako deialdi-araua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak egiten du. Izan ere, plaza desagertzen denean, eskubide hori ematearen helburua da plaza galdu duen pertsonak plaza desagerraraztearen kalte guztiak bere gain hartu ez ditzala (normalean ez da izango plaza hori kentzearen arduraduna, hainbat faktorek esku hartzen duten hezkuntza-baliabideen plangintzaren emaitza baita). Horregatik, arrazoi beragatik onartu behar da orain aztertzen ari garen kasuan. Kasu honetan interesatuak lehiaketako arauak errespetatu hartu zuen parte lehiaketa batean, eta hainbat urte igaro dira lehiaketa egin zenetik. Baina horren ostean administrazioak behin betiko destino gisa esleitu zion plaza kendu zitzaion eta, horren ondorioz, prozesuaren aurretik zituen baldintzak baino objektiboki baldintza txarragoetan utzi zuten. Gainera, hori guztia berarekin zerikusirik eduki ez zuen jarduera baten ondorioz gertatu zen, justizia-auzitegi batek zuzena ez zela adierazi zuen jarduera baten ondorioz.

Alde horretatik, Gasteizko administrazioarekiko auzietako 1. epaitegiak antzeko interpretazioa egin zuen 2004ko irailaren 22ko epaian. Izan ere, haren ondorioa izan zen lekualdatze-lehiaketa batean oker esleitutako behin betiko destino bat galtzea destinoa kentzearen pareko egoera dela baremoaren aldetik.

- Emaizta

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jakinarazi genizkion iritzi horiek. Horrez gain, interesatuari lehentasuneko eskubidea onartzeko aukerari buruz balioespen arrazoitua egiteko eskatu genion, behin betiko destinoa kendu delako destinorik gabe geratu diren langileentzat ezarrita dauden baldintza beretan, destinoa eskuratzeko prozesu guztietan.

Txosten hau amaitzerakoan erantzunaren zain jarraitzen genuen.

## B) Funtzio publiko orokorra

⇒ *Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. Ustiapen eta Saneamendu Saileko lanpostuetan sartzea. Hizkuntza-eskakizunak (323/2005)*

- Erreklamazioa

Erakunde honek kexa-idazki bat jaso zuen, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egingo dako deialdi batekin lotuta. Deialdi hori besteak beste ustiapen-saneamenduko sailaren hainbat lanpostu betetzeko egin zen. Zehazki, kexaren arrazoia lanpostu horiek betetzeko baldintza gisa jarritako hizkuntza-eskakizuna izan zen, nahitaezkoa baitzen.

- Azterketa

Euskararen erabilera gutxika-gutxika ari da normalizatzen administrazio publikoetan, eta epaileek hainbat erabaki hartu dituzte gai horren inguruan. Horren ondorioz, baketsua da pentsatzea enplegu publikoa eskuratzeko orduan euskara jakiteko exijentzia egitea zeharo bat datorrela merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin. Izan ere, printzipio

horiek izan behar dira funtzio publikoan berdintasunean sartzea bermatzen dutenak, Konstituzioaren berariazko aginduagatik.

Baina, aldi berean, euskararen erabilera normalizatzeko bidean egin behar den egokitzapen-prozesuan, hizkuntza propio ofiziala jakiteko exigentzia hori pixkanakakoa izan behar da, eta beharrezko proportzionaltasuna gorde behar du lanpostua betetzeko behar den gaitasunarekin, plangintza-epe bakoitzerako ezarrita dagoen nahitaez bete beharreko indizearen arabera.

Une honetan, EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeari buruz onartutako arauak (apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua) eta partzuer-goko Zuzendaritza Batzordeak berak onartutako normalizazio-planak nahikoa giltzarri ematen dizkigute Ustiapen eta Saneamendu Saileko lanpostu horietara sartzeko eta han normaltasunez lan egiteko hizkuntza-eskakizunen proportzionaltasuna balioesteko.

Hain zuzen, euskararen erabilera sendotu eta handitzeko konpromisoak hartu ditu partzuergoak –zerbitzuko hizkuntza gisa zein laneko hizkuntza gisa–, azken batean, hizkuntza erabiltzen dela bermatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideei erantzun ahal izateko. Une honetan, konpromiso horiek helburu bitan zehazten dira.

**Bat:** herritarrei arreta emateko administrazio-unitate elebidunak ezartzea (abonatuak kudeatzeko zerbitzua) eta

**Bi:** administrazio-unitate elebidunak ezartzea unitate sozialetan (Lehendakaria eta Kudeatzailea, Ustiapen Zuzendaritza, Zerbitzu Ekonomiko eta Finantzarioen Zuzendaritza, Zerbitzu Teknikoen Zuzendaritza, Antolaketa Zuzendaritza, Kontratazioa eta Kontu-hartzaitza Nagusia) eta, gutxikagutxika, administrazio-unitate orokorretan (Giza Baliabideak eta Zuzenbide eta Administrazio Zerbitzuak).

Horiexek dira euskararen erabileraren normalizazioarekin lotuta hartu diren konpromisoak. Onartutako Lanpostuen Zerrendarekin alderatuz gero, ikusi daiteke partzuergoa adierazitako konpromisoetatik urrundu dela. Hauek dira arrazoiak:

- lanpostuak mantentzen dira lehentasuneko unitateetan, esate baterako, abonatuaren kudeaketako unitatean. Horietarako, normalizazio-epearen amaierara (2007ko abendua) atzeratutako nahitaezkotasun-datak ezarri dira.
- unitate sozialetako eta orokorretako lanpostuak mantentzen dira, eta ez da nahitaezkotasunik ezarri lanpostu horietarako, eta,
- bestalde, euskara jakitea nahitaezkoa izatea proposatzen da Ustiapen eta Saneamendu Unitateetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko, lanpostu horiek unitate berezietan dauden arren. Planaren arabera, unitate horietarako normalizazio-konpromisoa atzeratu egin da, % 70 baino handiagoak diren nahitaez bete beharreko indizeak lortu arte.

Horregatik guztiagatik, erakunde honen iritziz, lanpostuan sartzeraokan aukeraberdintasuna izateko eskubidearen kontrakoa da aztertutako hizkuntza-eskakizuna, beharrezko proportziorik ez duen euskararen ezagutza-maila eskatzen delako. Izan



ere, administrazio-unitate berezietan dauden lanpostuak dira, eta haien normalizazio-aurreikuspena ez dator bat partzuergo horri dagokion nahitaez bete beharreko indizearekin. Gainera, lanpostuak hutsik egoteak ez du baimena ematen lanpostu horiekin beste era batera jokatzeko, egin nahi den moduan.

Beraz, eskakizun hori diskriminaziozkotzat jo behar dugu, funtzio publikoan sartzeko berdintasun-eskubidea urratzen duelako, hau da, Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikuluan ezartzen dena. Erakunde honek bazekien kexa sortu zuten hautapen-prozesuen tramitazioa aurreratuta zegoela, eta horrek larriagotu egiten zituela eragindako pertsona posibleen interes aurkakoak. Hala ere, gure iritziz, partzuergoak ofiziozko berrikuspen-prozedura hastea erabakitzea zen guztien tutoretza gordetzeko eta bermatzeko modurik onena. Horrek erakunde independenteen aholkularitza juridiko loteslea ekarriko zuen eta, une hartan, prozedurazko irtenbide bideragarri bakarra zen, partzuergoak berak onartzen zuen urraketa konpontzeko, ez baitzuen eragozpenik geroagoko deialdietarako egindakoa berriro aztertzeko.

- Emaizta

Honako ondorioak igorri zizkion erakunde honek partzuergoaren lehendakari-tzari:

1. Langileen Zerrenda eta hortik sortu daitezkeen enplegu-eskaintza publikoak hizkuntza-normalizazioko helburuetara egokitu beharko ditu Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak. Helburu horiek partzuergoaren normalizazio-planean adostu ziren, eta plana apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua aplikatzeko onartu zen, hau da, EAEko administrazio publikoetako euskararen erabileraren normalizazio-prozesua arautzen duen dekretua aplikatzeko.
2. Horrela, duela gutxi onartutako planaren edukia kontuan hartuta, partzuergo horrek:
  - 2.1. herritarrei arreta emateko administrazio-unitate elebidunetarako hizkuntza-eskakizunak ezarri ditzake (abonatuene kudeaketa);
  - 2.2. hizkuntza-eskakizunak ezarri edo handitu ditzake gutxika-gutxika administrazio unitate sozial eta orokor elebidunetako lanpostuetan (Lehendakaria eta Kudeatzailea, Ustiapen Zuzendaritza, Zerbitzu Ekonomiko eta Finantzarioen Zuzendaritza, Zerbitzu Teknikoen Zuzendaritza, Antolaketa Zuzendaritza, Kontratazioa eta Kontu-hartzailetza Nagusia) eta, apurka-apurka, administrazio-unitate orokorretan (Giza Baliabideak eta Zuzenbide eta Administrazio Zerbitzuak);
  - 2.3. hala ere, ezin du erabili unitate berezietako lanpostuak hutsik egotea hizkuntza-eskakizunak ezartzea justifikatzeko, unitate berezietako lanpostuak baitira, eta, planaren arabera, lanpostu horietarako normalizazio-konpromisoa atzeratu egingo da gaur egun dagoen % 29,09ko indizea baino handiagoa den nahitaez bete beharreko indizea lortu arte.

3. Partzuergoak badaki zein larria den Ustiapen eta Segimendu Saileko lanpostuak betetzeko egin den deialdian ezarri den eskakizuna. Izan ere, Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua ezartzen duen lanpostuetan sartzeko berdintasun-printzipioa urratzen du eskakizun horrek. Horrenbestez, gure ustez, partzuergoak ofiziozko berraztertze-prozesua hastea agindu behar du, egin den deialdiarekin lotuta amaitu diren tramiteak indarrrik gabe uztea ahalbidetzeko.

Partzuergoak erakunde honi jakinarazi zionez, proposatu zitzaizkion oharrak onartzeko prest dago. Beraz, kearen tramitazioa amaitu eta artxibatu egin genuen, adierazi ziren irregularitasunei irtenbidea aurkitu zitzaielako.

⇒ *Ezgaitasunen bat duten pertsonen hautapen-probak egokitzea (524/2005)*

- Erreklamazioa

Eibarko Udalak deialdi bat egin zuen administrazio bereziko teknikari ertainerako lanpostua betetzeko (gizarte-langilea). Parte-hartzaile batek epaimahaiaren jardura zalantzan jarri zuen, ikusmenean duen ezgaitasuna zela-eta lehiaketa-probak egiteko eskatu zituen egokitzapenen inguruan izan zuen jokabideagatik.

- Azterketa

Funtzio publikoan sartzeko hautapen-prozesuetan parte hartzen duten ezgaitasunen bat duten pertsonen eman behar zaien tratamenduari buruz onartu diren arauzko xedapenak –martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko 19. artikulua, sartzeko arautegi orokorra onartzen duena– argiak dira honakoa adierazterakoan:

*“...ezintasuna duten pertsonentzat denbora eta bitartekoen egokitzapen posibleak ezarriko dira hautapen-probak egiteko, eskatzen badituzte. (...) Horretarako, Hautapen Epaimahaiak edo Batzordeek txostena eskatu ahal izango dute eta, beharrezkoa izanez gero, lan edo osasun administrazioaren organo teknikoaren edota Gizarte Gaietako Ministerioan eskumena duten organoen lankidetzara ere.”*

Bistakoa da, beraz, interesatuak berak izan behar direla beharrezko egokitzapenak eskatuko dituztenak, duten ezintasun-motaren eta ezintasun-mailaren arabera. Kexa sortu duen kasuan, interesatuak berariaz eskatu zuen idatzizko probak egokitu ziezazkioten: *““Windows”-eko Word programako 16 frameko letra-tamainara (normalaren bikoitza), A4 orrietan, gratatu gabe, eta ezarritako denbora ofiziala baino erdi bat gehiago ematea ariketak egiteko”*.

Hori bai, egokitzapen-eskaera hori eginda eta jasota dagoen unetik, egokitzapen horiek pentsatzeko eta epaitzeko erantzukizuna epaimahaiarena da. Aztertzen ari garen kasuan, badirudi lehen proba egiteko unea heldu zenean, epaimahaiak ez zuela prestatu interesatuak eskatutako egokitzapen bat ere, eta orduan hauxe erabaki zen:

**a. neurriak egokitzeari buruz:**

Epaimahaiak berak adierazitakoaren arabera, azterketako orriak A3 tamainara handitzea erabaki zen, eskatutako letra mota betetzeko. Hori egin baino lehen, galderak eta erantzun alternatiboak beste batek berari irakurtzeko proposamena egin zitzaion interesatuari, eta ez zuen onartu.

Modu horretan, interesatuak objektibitate eta inpartzialtasun falta egon zela aurpegiatu zuen arren, erakunde honen iritziz, egia da ebaluazio-lanaren objektibitatea gordetzea ahalbidetzen dutela probaren ezaugarriek (test-motako galdera-sorta).

**b. denbora egokitzeari buruz:**

Honakoa jakinarazi zigun epaimahaiak: *“denbora gehiago ematea ez zen onartu, ez baitu inolako ezintasunik ziurtatuta, irakurtzeko lastertasun gutxiago izatearen aldetik edo kopuru gutxiago irakurri ahal izatearen aldetik. Beraz, haren kasuan, ezingo zen zehaztu zenbat denbora gehiago beharko lukeen”*. Hauxe ere argudiatzen du epaimahaiak: *“horrelako probetan denbora mugatua da eta kontuan hartzen den faktorea da; beraz, denbora aldatzeak asko aldatuko luke proba, eta hutsaldu egin ahal izango luke”*. Amaitzeko, honakoa dio: *“pertsona ezberdinek irakurtzeko lastertasun ezberdina izan dezakete, eta horrela da, baina hori ez da berez ezintasun bat, eta ezintasuntzat hartzeko, horri buruzko ziurtagiri bat aurkeztu beharko litzateke...”*.

Ezintasun edo ezgaitasuneko ziurtagiriek ezintasun edo ezgaitasun horren ehunekoak adierazi baino ez dute egiten, baina ez dute zehazten zein urritasun-mota duen pertsonak, ezta urritasun horrek ekarri ditzakeen azken ondorioak ere, kasu honetan irakurtzeko zailtasunarekin gertatzen denez.

Dena dela, erakunde honen iritziz, ondorio horiek jasota ez egotea ez da aitzakia epaimahaiak eskatutako egokitzapena zeharo ukatzeko (kasu honetan, ariketak egiteko ezarritako denboraren erdia gehiago ematea). Izan ere, eskatutako egokitzapena egiaztatutako ezintasunarekin benetan bat datorren edo ez egiaztatzea eta zehaztea epaimahaiari dagokio, prozesuaren zuzentasunaren azken bermatzailea delako.

Epaimahaiak ezin du soilik adierazi irakurtzeko lastertasuna ezberdina izan daitekeela pertsona ezberdinetan eta hori berez ez dela ezintasun bat. Alderantziz, tribunala bera da, arrazoiak emanez eta oinarriekin, eskatutako egokitzapena egokia den ala ez neurtu behar duena, horretarako, beharrezkoa izanez gero, onartutako irizpidea duten erakundeen lankidetzak eskatuta.

Horrela ez bada jokutzen, bidegabekeria larria egiteko arrisku argia dago, ezintasuna duten hautagaiak berdintasun-egoeran parte hartu dezaten bermatzeko beharrezkoa den egokitzapen bat ukatzen delako, horretarako oinarririk gabe. Horrez gain, egoera larrian jartzen dira ezintasuna duten hautagaiak, ezin direlako defendatu, egokitzapen horiek egokiak diren ala ez eztabaidatzeko aukera ere ez zaielako ematen.

Horrekin lotuta, egia da eskaera egiterakoan interesatuak ez zuela aurkeztu inolako dokumentaziorik ikusmenaren errehabilitazioaz arduratzen diren teknikariek agindutako egokitzapenei buruz. Hala ere, hautagaiak baimendutako informazioa du, ONCE erakundeak emanda, eta horren arabera:

*“Probak denboraren aldetik egokitzeari dagokionez, handitu behar diren denborazko ehunekoak ezartzeko, ezberdintasun indibidualak eta erabiltzen diren komunikazio-sistemak aintzat hartu behar dira. Proba bakoitzean gehitu behar den denbora bakarrik dago lotuta ezintasunaren arabera proba egiteak duen zailtasunarekin; kasu honetan, ezintasun hori ikusmenarena da eta ez norberaren trebezia eta gaitasunekin lotutakoa.*

*Horrenbestez, orientatzeko, irakurtzeko lastertasuna baino hiru aldiz txikiagoa da itsutasun osoa duen pertsona batean. Itsumena duten pertsonak braillea erabiltzen dute komunikatzeko. Ikusmen-urritasuna duen pertsona batek irakurtzeko duen lastertasuna bi aldiz txikiagoa da, eta irakurtzeko erabiltzen duen sistema testu handitua da”.*

Informazio hori iritzi onartua duten beste erakunde batzuekin egiaztatu daiteke (IVAP). Gure ustez, informazio horrek erakusten du lehenago aipatu ditugun arriskuak benetakoak direla, horrek behartu egiten gaituelako kontuan hartuz, ez bada zalantzan jartzera, beharrezkoa dela epaimahaiak justifikatzea zergatik ez zuen onartu hautagai horrek eskatutako denbora-egokitzapena.

Bestalde, epaimahaiak argudio hau ere erabili du: *“horrelako probetan denbora mugatua da eta kontuan hartzen den faktorea da; beraz, denbora aldatzeak asko aldatuko luke proba, eta hutsaldu egin ahal izango luke”.*

Erakunde hau ez dator bat iritzi horrekin. Gogora dezagun hautapen-prozesuko lehenengo proba dela: gai arruntei buruzko ariketa, erantzun alternatiboak dituen galdera-sorta batez osatutakoa. Horrelako probekin, hautagaiak gutxieneko ezagutzak edo gaitasunak dituztela ziurtatu nahi da. Denbora ez da funtsezko faktorea, epaimahaiak aditzera ematen duenez. Egia esan, kontuan hartzen den aldagaia da prozesua antolatzeke baldintzetan duen eraginagatik, baina ez du garrantzi handirik ebaluatu nahi denaren aldetik. Eduki praktikoagoa duten beste hautapen-probetan ez da gauza bera gertatzen, horietan faktore garrantzitsua baita proba egiteko erabiltzen den denbora (testuen tratamendua...).

- Emaiza

Kexa aztertu ostean, gure iritzia izan zen interesatuari ez zitzaiola utzi parte hartzen gainerako hautagaienganako berdintasun-egoeran. Izan ere, arrazoirik gabe ukatu zitzaion eskatu zuen denbora-egokitzapena, ikusmen-gaitasunean oinarrituta egin zuena. Epaimahaiak argudiorik gabe ezetsi zuen egokitzapen horren egokitasuna. Gainera, probaren ezaugarriak kontuan hartuta, proba egiteko erabili beharreko denbora ez zen oinarritzko elementu erabakigarria hautagaien merezimendua eta gaitasuna balioesteko.

Horregatik, interesatuak administrazio-justiziaren bideak erabiltzeko asmoa zuela jakinarazi zigunez, egokiak ziren administrazio-errekurtsoak jarrita, erakunde honek gomendatu zuen egoera hori baliatzeko interesatuari sortu zitzaizkion kalteak behar den bezala konpontzeko.

Hala ere, Eibarko Udalak ez zuen onartu erakunde honek egindako proposamena kontuan hartzea, eta epailearen balizko jardunak ekarri dezakeen emaitzaren arabera jokatuko dutela adierazi zuten.

Horrela, berriro ere babestu zen hautapenerako epaimahai edo organo teknikoei onartzen zaien zuhurtziarakotasun teknikoan, horrela interesatuak eskatutako egokitzapenak ekiditeko, ez zirelako egokiak ikusi, eta hark honen antzeko zerbait bizi behar izan zuen: *indarrean dagoen legezketasuna ez betetzea, hornidura-oinarriena edo hautemateko akats materialena.*

Erakunde hau ez dator bat jarrera horrekin. Zalantzarik gabe, gure helburua ez da hautapenerako organo tekniko horien jardunaren ezaugarria den zuhurtziarakotasun teknikoa dudan jartzea. Hala ere, ezin da alde batera utzi ezaugarri hori zuzen erabilitzeko, arrazoiak emateko exigentzia formala bete behar dela nahitaez. Exigentzia hori bidegabekeriaren debekuaren printzipio konstituzionala aplikatzearen ondorioz sortzen da. Horregatik, behin eta berriro esaten genuen beharrezkoa zela epaimahaiak arrazoiak eman eta oinarriekin adierazi zezala eskatutako egokitzapena egokia bazen edo ez. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, irizpide onartua duten erakundeen lankidetzara eskatu zezakeen.

Gure iritziz, Eibarko Udalak ez zuen lortu justifikazio objektibo nahiko ematea, epaimahaiak interesatuak eskatu zuten denbora-egokitzapenari eman zion ezezkoa jasaten laguntzeko. Gainera, ez du bakarrik bazter utzi erakunde honek adierazitakoa, probaren osaketari buruz eta erlatiboa baino gehiago den proba egiteko denboraren faktoreari buruz, baizik eta ikusmen-ezintasunetan eskumena duen erakunde bat ere bazter utzi du, hau da, ONCE.

Edozelan ere, espediente honen tramitazioaren une honetara iritsita, erakunde honek jarduera amaitzea erabaki zuen, bitartekari izateko zituen aukera guztiak bukatu zirela uste zuelako. Izan ere, ezin izan genuen alde batera utzi bide administratiboan behin betikoak ziren erabakiek eragindako hirugarrenak daudela.

Hala ere, aditzera eman genuen gai hau Eusko Legebiltzarrean aurkeztu beharreko urteko txosten honetan nabarmentzeko genuen asmoa.

### C) Osasun alorreko funtzio publikoa

⇒ *Lehen Mailako Atentzioa Emateko Taldeetan lan egiten duten langile fakultatiboentzako eta erizaintzako dispersio geografikoko lekualdatze-osagarria (305/2005)*

#### • Erreklamazioa

Osasun-etxe bateko langile batek zalantzan jarri zuen Osakidetza berari hau egin izana: istripuak sortutako aldi baterako ezintasuna zela-eta lehen mailako atentzioa emateko taldeen dispersio geografikoko lekualdatze-osagarriari dagokion deskontua aplikatzea.

#### • Azterketa

Osakidetzako langileen baldintzak arautzeko indarrean dagoen Hitzarmeneko 101. artikulua osagarri hori zehazten du, honakoa adierazita:

*“Lehen Mailako Atentzioko Taldeetako medikuek eta OLT/EUDEk, euren lana dela-eta egin beharreko lekualdatzeengatikoko gastuak berdintzeko,*

*lekualdatzeagatik eta inguru sakabanatuetan jarduteagatik osagarria jasoko dute, III-6. Eranskinean datorren zenbatekoan.*

*Osagarri hau, era berean, Lehen Mailako Atentzioko Taldeetako emaginei ere aplikatuko zaie, baldin eta etxeko atentzioko lanak egiten badituzte.*

...

*Osagarri hau 11 hilabetean ordainduko da, eta benetan lan egiten diren egunen arabera".*

Halaber, agindu horrek aipatutako kontzeptua kalkulatzeko formula ere ezartzen du, osasun-eremuak dituen biztanleria-guneen, eremuko fakultatiboan eta gune nagusietarako batez besteko distantziaren arabera. Formularen emaitzak 4 maila zehazten ditu osagarri horretarako, eta lau zenbateko ordaindu ezberdin osatzen dituzte, kasu bakoitzean esleitutako dispertsio-mailaren arabera.

Horrela, lokomozio- eta lekualdatze-gastuak ordaintzen dizkie osagarri horrek Lehen Mailako Atentzioko Taldeetan lan egiten duten langile fakultatiboari eta erizainari. Lekualdatze horiek osasun-eremuetan ematen den osasun-arretaren ondorioz sortutakoak dira, eremu horietako biztanleria-guneen arabera. Horrek guztiak zehaztu egiten du osagarriaren ordainketa lan egin den epeetan bakarrik egitea; beraz, lanik egiten ez den epeetan, esaterako, oporretan, aldi baterako ezgaitasuna dagoenean, amatasuna hartzen denean, baimenak hartzen direnean, etab. ez da jasotzen inolako kantitatetik kontzeptu hori dela-eta. Dieta edo lokomozio- eta lekualdatze-gastu gisa konfiguraturik dagoenez, ez dago pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargaren menpe.

Gainera, Osakidetzaren jokatzeko modu horrek epaileen erabakien babesa du, esate baterako, doktrina bateratzeko errekurtsio batean Auzitegi Gorenak emandakoa (2000ko urriaren 5eko epaia-2000/8667 EE). Honakoa dio errekurtsio horrek: "*dispertsio geografikoko osagarriak justifikazioa du langileen gasturik handienei aurre egiteko premian eta ez egindako jardueraren hedapenean edo motan. Eta argudio horietan oinarrituta ezin da zenbatu ez oporretarako, ezta ordaindutako baimenentarako ere*".

- Emaiza

Aurkeztutako kexa aztertu ostean, erakunde honek ez zuen ikusi esku hartzeko arrazoirik.

## 6. OGASUNA

### 6.1. SARRERA

2005. urtean Ararteko erakundeak Ogasun arloari buruzko 84 kexa jaso ditu, guztira heldu direnen % 7,69, alegia.

Kexok ukituriko administrazioak honakoak izan dira:

-Toki administrazioa .....	39
-Foru Administrazioa .....	29
-Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	13

Edukiaren arabera, jasotako kexak honako gai edo azpi-arloei buruzkoak izan dira:

-Foru zergak – PFEZ .....	18
-Udal zergak .....	18
-Bestelako gaiak.....	13
-Udal tasak .....	13
-Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	12
-Udal prezio publikoak.....	5
-Foru prezio publikoak.....	3
-Foru zergak – OEZ.....	1
-EAEko prezio publikoak .....	1

Arlo honetaz ari garela, 2005ean ez daukagu kexa gai modura bereziki nabarmendu den auzirik. PFEZa ere, Administrazioarekin auzirik gehien eragiten zuena eta, gainera, arazo errepikakorragoak ere mahairatzen zituena (aitorpenak egin beharra, zergak ordaintzeko moduak...), gero eta eduki desberdin eta konplexuagoko kexak sortzera igaro da; bilakaera hori zergaren azkeneko erreforma handiaren aplikazioaren hasierako urteetan igarri ziren hutsuneak pixkana gainditzearekin, edo batzuetan barneratzearekin batera etorri da.

Alabaina, egiaztatu dugu Foru Ogasunek herritarrei PFEZari buruz dituzten bete-beharrak erraztera begira diseinatu dituen formula modernoek (likidazio proposamenak etxera bidaltzea, errenta mekanizatua) kexa tipologia berria ekarri dutela, herritarren eskari berriak sustatzen dituzten heinean, zerga Administrazioaren arreta berezia merezi dutenak, hain zuzen.

Adibidez, Administrazioak autolikidazioak egin eta gero akatsen bat aurkitzen duenean bidaltzen dituen likidazioek haserrea sortzen dutela aipatuko dugu hemen, halakoetan interesatuei ez baitzaie diruaren interes legalik aplikatzen, dagokion berandutza interesa baizik, zergadunak Administrazioaren inolako parte hartzerik gabe zerga autolikidatzen duenean bezalaxe.

Beste foru zergek kexa gutxi eragin dute, eta, gainera, kexa batzuek zerga zehatz batekin izan duten zerikusia kasualitatea baino ez da izan, azken batean, Zerga

Administrazioaren funtzionamendu orokorrarekin lotuta egon direlako. Hauek izan dira, sarriegitan, zerga horiei buruzko kexen benetako eragileak: likidazioak jakinarazteko arazoak, ebazpen batzuk arrazoitu barik egon izana, eta, batez ere, administrazioek zergadunen eskari eta errekurtsoei espresuki erantzun ez izana.

Udal administrazioaren eta, zehazki, udal zergen esparrura igarota, esan behar dugu, atsekabez, 2005ean Gipuzkoako zenbait udalek oraindik Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan ezgaituei salbuespena ukatu dietelako kexak jasotzen segitu dugula. Gai hau luze eta zabal jorratu genuen 2004ko Urteko Txostenean eta, gainera, gomendio orokor bat ere egin genuen, non ukitutako udalei eskatzen baikenien salbuespenaren aplikazioan eskagarria den ezgaitasunaren ezaugarriekin lotutako irizpide murriztaileak erabiltzeari utz ziezaioten, horrela indarreko lege antolamendua urratzen baitzuten.

Katastroaren berrikuspenek ere arazoak sortu ohi dituzte, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotetan oso igoera handiak eragiten dituzten neurrian, batez ere berrikuspen batetik bestera denbora luzeegia igarotzen delako.

Gasteizen egin den eta 2005eko urtarrilean indarrean jarri den berrikuspena ez da salbuespena izan, herritarrek ondo ez hartzearen aldetik behintzat.

Oraingoan, herritarren presioak lasaitzearen, Gasteizko udalak hainbat neurri hartu ditu, katastroaren egunerapen horrek harekin zerikusia duten zergak ordaintzera behartuta daudenen sakelatan izandako ondorio negatiboa zuzendu edota mailakatzera begira. Horrela, 2005eko OHZ araupetzen duen Ordenantzaren 17.5 artikuluan etxebizitza bakarraren jabe diren eta etxebizitza hori ohiko bizitoki dutenei zuzendutako hobari bat jaso da, baina hobaria bizikidetzaren unitatearen errenta muga jakin batzuetan dutenei soilik aplikatuko zaie.

Hobari hori, ordea, ez da eraginkorra OHZ ordaintzea bere gain hartzen duen maizterren kasuan, hobari hori zergaren titular pasiboarentzat, hau da, etxebizitzaren jabearentzat baita.

Zenbait maizterrek esan digute ez daudela ados Udalak hobari hori aurreikusi duen moduarekin, bidegabe eta baztertzailatzat jotzen baitute.

Kasua aztertu ondoren, eta kexagileen asmoa asetzea teknikoki oso zaila dela jabetzen ginen arren, udalari gai honi buruzko argibideak eskatu genizkion, Ogasun znegotziak hedabideen aurrean egin berri zituen adierazpenek bultzatuta, adierazpenotan hitz eman baitzuen gai horretarako irtenbide teknikoren bat aztertuko zuela.

Udalarengandik jaso dugun erantzunak, ordea, ez dakar planteatutako auziaren inguruko inolako gogoetarik, eta ez du agindutako azterlanaren gaineko inolako argibiderik ere ematen, denok ezagutzen dugun indarreko araudia hitzez hitz kopiatu besterik ez baitu egiten.

Udal tasa eta prezio publikoen blokean, aurten jaso ditugun desadostasun aipagarri eta errepikatuenak kuota batzuen igoeraren arazoibidea zalantzan jartzen zutenak, eta greba kasuetan zerbitzuen prestaziotako gabezien ondoriozkoak izan dira. Era berean, batzuetan, udal administrazioak, bere kudeaketa errazteko asmoa urrunegi eramanez, Tokiko Ogasunen Foru Arauak jartzen dizkion mugak ere ahaztu ditu.

Halako ingurumariak, eta horiek bezain interesgarriak diren beste batzuk batzen diren kasu bat aipatzearen, Donostiako emakume batena ekarriko dugu hona. Emakume



honek Udalarri Egia aldeko araupeko aparkalekuko txartelarengatik ordaindu zuen diruaren erdia itzultzeko eskatu zion, udal zerbitzu hori 2004ko uztailaren 1ean hasi zelako, hau da, urte erdiz baino bete ez zelako.

Udalak erreklamaziogilearen eskaria ezetsi zuen, Araupeko Estazionamendu Zerbitzuaren Ordenantzako 19.7 artikuluari helduta, non dena delako ekitaldirako finkatutako prezio publikoaren ordainketari buruz hauxe dioen: *“prezio hori ez da zatikatu edo jaitziko emakidaren denboraren proportzioan.”*

Udal jarrerarekin ados ez zegoenez, interesatuak berraztertzeko errekurtsua jarri zuen, eta ez zioten ezer erantzun. Gauzak horrela, gure erakundeari eskatu zion esku hartzeko.

Idatziz zuzendu gintzaizkion Donostiako Udalarri, kasua azalduz eta ebazpen espresa eman zezan eskatuz. Era berean, arau erreferentzia modura, gure ustez kasu honetan aplikagarria zelako, Tokiko Ogasunak arautzen dituen 11/1989 Foru Arauaren 26.2 artikulua aurkeztu genion. Hara zer dioen:

*“Tasaren izaera materialak aldioro sortzea eskatzen duenean, eta hala zehazten bada dagokion Zerga Ordenantzan, zorpetze hori urtero urtarrilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldia urte naturala izango da, erabilpen pribati-boa, aprobetxamendu berezia edo zerbitzu edo jardueraren erabilpena hasi edo eten ezean, zeren halakoetan zergaldia ingurumari horretara doitu-ko baita, kuotaren hainbatekoarekin, dagokion Zerga Ordenantzan ezarritako terminoetan.”*

Hiru erantzun eskeren ostean, udalak txosten bat helarazi digu, non hauxe dioten, *“edonola ere interesatuari egozterik ez dagoen akats bat tarteko, errekurtsu hori ez da hona sartu, ez Erregistro Orokorretik ez eta Mugikortasun Zuzendaritzari dagokion Erregistrotik ere, eta horrexegatik ez da ebatzi.”* Errekurtsuaren kopia bidaltzeko eskatu digute, tramitatzeko.

Gure ustez, Udalaren jarrera hori ez da onargarria, bai erantzuten luzatu delako –hirutan galdegin diogu erantzuna–, bai erantzunaren edukiarengatik, agerian uzten baitu administrazio horrek ez duela auziaren mamia baloratzera sartzeko borondaterik, erabakia hartzeko behar dituen datu guztiak eskuaren dituen arren.

Nolanahi ere, guk uste dugu interesatuaren nahiak 11/89 Foru Arauan behar duen lege babesa daukala (26.2 artikuluan eta, baita, bestela, 49.ean ere). Aitzitik, gure iritziz, udalak interesatuaren eskaria hasieran ezesteko baliatu zuen Ordenantzaren 19.7 artikulua Administrazioak zerbitzua urtearen lehenengo egunean hasi eta interesatuak geroago eskatu izan balu soilik aplikatu zezakeela, eta hori ez da, bistakoa denez, kasu honetan gertatu.

Txostena ixten ari garenean, oraindik ez dakigu udalak, bidali diogun errekurtsuaren kopiarekin, guk aipatutako ildoari segituko dion ala gure planteamendua alboratuko duen.

## 6.2 AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Administrazioak likidatzeko duen eskubidearen preskripzioa: premiamenduzko likidazio baten kontra egoteko motiboa (294/2005)*

- Erreklamazioa

Gizon baten kexa idatzia jaso genuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait hilabete lehenago bidalitako idatziari erantzun ez ziola salatzen. Idatzi hartan, interesatuak argudiatzen zuen 1998ko ekitaldiko PFEZarengatik egindako behin behineko likidazioaren ondoriozko zor bat preskribituta zegoela, zor horren berri, lehenengoz, premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena jaso zuenean izan baitzuen.

- Azterketa

Ukitutako administrazioarengana jo genuen, herritarrek aurkeztutako eskariak espresuki ebaztera behartuta daudela gogoraraztera, horrela 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatutakoa betetzen baita. Aldi berean, gai honetaz egindako gestioen argibideak ere eskatu genizkion.

Diru Bilketaren Koordinaketa buruaren erantzunean zioen errekursoaren ebazpena posta ziurtatuz bidali zitzaiola etxera erreklamaziogileari 2005eko martxoaren 29an, eta Posta Zerbitzuetara 2005eko apirilaren 8an bideratu zela ... zenbakiko zerrendan (...). Ez zuen, ordea, emandako ebazpenaren kopiarik erantsi, ez eta ebazpena hartzeko kontuan izandako oinarri juridikoen inolako aipamenik egiten ere, beraz, ezin genuen eskatutako balorazio juridikorik egin.

Administrazioaren erantzunaren laburraz harrিতuta, eta horren ondorioz jartzen zitzaigun oztopoa deitoratuz, erreklamaziogileari testu haren kopia helaraz ziezagun eskatzea erabaki genuen, informazioa eskuratzeko bide hori arinagoa izango zelakoan. Ebazpena eskuratu genuenean, eta argudiatutako preskripzioa irmoki ezesten zuen erabakia arreta handiz aztertu ondoren, ukitutako administrazioari honako ohartarazpen hauek bidali behar genizkiola iruditu zitzaigun:

1. Preskripzioa legeak finkatutako denbora igaro delako eskubide guztiak desagerarazten dituen egitatea da, betiere ere denbora tarte horretan hartzekodunak bere eskubiderik gauzaten ez badu, edo zordunak zorra onartzen ez badu. Preskripzio agorgarriaren funtsa segurtasun juridikoaren printzipioan dago, eta eskubide bat denboraz kanpo baliatzea eragozten du. Zergen esparruan, preskripzioa ofizioz aplikatzen da, administratuak aldarrikatu edo salbuespen gisa eutsi beharrik gabe (ZFAOren 67. artikulua). Irabazitako preskripzioak zerga zorra agortzen du. Preskribitutako ekitaldien gainean egiten diren egiaztapen jarduerak baliogabeak dira zerga zorren preskripzioa instituzio publikoa baita.
2. Aztertutako ebazpenaren bigarren gertaerak dioenez, bidalitako likidazioa, PFEZaren gainekoa, 1998ko zergaldikoa, 2003ko uztailaren 15ean jakinarazi

zitzaion interesatuari, hau da, zerga aitorten hura aurkezteko arazuko epea amaitu eta 4 urte luzeren ondoren.

Datu horretatik aurrera, eta tarte horretan, gainera, ZFAOren 66. artikulua hizpide duen preskripziorako inolako kausarik gertatu ez denez (guk dakigula behintzat), bidalitako likidazioa baliogabea litzatekeen kasua daukagu aurrean, Administrazioak likidatzeko eskubidea preskribitu ondoren, hau da, halakorik egiteko eskubiderik ez zuenean egin duelako likidazio hori (ZFAOren 64. artikulua eta hurrengoak).

3. Zerga Administrazioak ezin du zergadunak likidazioa aurkatzeak irabazitako preskripzioaren isileko ukoa dakarrenik pentsatu, uko hori ez delako gure Zuzenbidean onargarria, Auzitegi Gorenak epai askotan adierazi duen bezala; epai horietan irabazitako preskripzioa ezesteko ahalbidea ukatzen du eta, gainera, preskripzioa, lehen esan dugunez, ofizioz aplikatu behar da, subjektu pasiboak aldarrikatu edo salbuesteko eskatu beharrik gabe. Ildo berean, guk uste dugu hemen ez dagoela, zuen ebazpenaren hirugarren oinarrian egiten duzuen moduan, likidazio irmo eta onetsiaz hitz egiterik likidazio baliogabeaz baizik.

4. Ez gatoz bat zuen ebazpenean gure lege antolamenduan onartzen diren premiamendu prozeduraren aurka egiteko arrazoen inguruan egin duzuen interpretazioarekin. Bertan diozuenek, *“premiamendu prozeduran adieraz daitekeen preskripzio bakarria Administrazioak likidatutako zorra ordaintzeko ekintzarena dela, eta ez errekurtsogileak aipatzen duena, hau da, orain premiamenduz eskatu zaion zorra zehazteko eskubideari uki liezaiokeena...”*.

Gipuzkoako FEAren 00-09-18ko ebazpen ekonomiko-administratiboko laugarren oinarrian dioenez, *“behin eta berrizko jurisprudentziazko doktrina da titulu egoki baten bidez burutzen ari den jarduera hasi eta gero, ezin direla fase horretara kudeaketa bidean konpondu behar ziren auziak eraman eta, beraz, erreklamaziogileak burutzapen prozesuari berari datxezkion bermeak betetzeari buruzko zioak, hots, aipatutako artikuluetan aurkatzeko zehaztu diren aurkapen zioak soilik baliatu ahalko dituela premiamendu probidentziari aurre egiteko. Hau da, premiamenduko administrazio prozeduran ezin dira betearazi nahi den likidazioaren motibazioak mahairatu, egin daitekeen bakarria da prozedura zuzena den ala ez eztabaidatu, arau horietan jasotako zioen batean oinarrituta, ezin dira, ordea, bere garaian errekurritu behar ziren likidazioak auzitan jarri.*

Alabaina, doktrina honek ñabardura garrantzitsuak onartzen ditu, hala nola, Auzitegi Gorenaren 1989ko uztailaren 31ko epaian egiten direnak, non onartzen baita espresuki aipatutako zio horiez bestelako batzuk mahairatzea, betiere errekurtsioak oinarri duen zioak zergazko betebeharrak ez dagoela edo agortuta dagoela, zein premiamendu bidean betearazi nahi den administrazio egintzarik ez dagoela edo baliogabea dela agerian jartzen badu. Ildo horretatik, behin eta berriro eman ditu Auzitegi Gorenak epaiak, besteak beste 1995eko maiatzaren 14ko epaia, non ezartzen baita, premiamendu probidentziaren baliogabetasuna, halaber, jatorrizko

*likidazioaren baliogabetasunetik erator daitekeela, edo 1996ko abenduaren 19ko epaia, non esaten baita azpimarratu behar dela, berriro, premiamendu probidentziaren aurka 137. artikuluan berriaz zehaztutako zioak soilik balia daitezkeela dioen jurisprudentziazko doktrina ez dela indargabetzen, betearaztea ahalbidetzen duen tituluaren akats modura, ziurtapen horrek ezinbestekoak islatu edo jaso behar duen likidazioari ukitzen dioten erabateko baliogabetasun zioak argudiatzeko ahalbidearengatik; ahalbide horrek ere, epaiak dioenez, jurisprudentziazko doktrina sendoaren berrespena dauka.”*

Nolanahi ere, eta Administrazio horrek premiamendu bidean onar daitekeen preskripzioaren inguruan zelan interpretatzen duen alboratuta, ezin dugu ahaztu gai beraren gainean ari diren beste arau batzuen erreferentzietara ere jo daitekeela, eta horiek gu proposatzen ari garen emaitzara bideratzen gaituztela, azken finean. Hala gertatzen da Zerga Bilketako Arautegiaren 60.1 artikulua erekin, non hauxe baitio, hitzez hitz:

*“Kapitulu honek hizpide duen preskripzioa ofizios aplikatu da, baita zorra ordaindu deneko kasuetan ere, ordaintzera behartuta dagoenak aldarrikatu edo salbuestea eskatu beharrik gabe.”*

Gauza bera gertatzen da zerga alorrean oker egindako diru sarrerak itzultze-ko prozedura araupetzen duen urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretuaren 7.1. c) artikulua erekin, non prozedura hori aplikatu dakiekeen itzulketa kasuen artean hauxe ere sartzen den:

*“Administrazioak likidatutako zein zergapetuak berak likidatutako zorrrak ordaintzeko eskatzeko ekintza preskribitu ondoren ordaindu badira, baita autolikidazioa Administrazioak likidazioa egiteko duen eskubidea preskribituta dagoela egin zaien zorrrak ordaindu badira ere.”*

Bi arau horiek irakurrita ondorioztatzen da, zergadunak Foru Aldundi hori eskatzen tematu zaion zorra ordainduko balu, edo ordainduta izango balu, gure lege antolamenduak segituko lukeela interesatuari diru hori itzul dakion eskatzeko aukera eskaintzen, Administrazioak likidazioa likidatzeko eskubiderik ez zuela egin zuela baietsiko balitz.

- Emaizta

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu zuen bidalitako likidazioa preskribituta zegoela eta, gainera, oro har, ordura arte gai horretan baliatzen ari zen irizpidea ere aldatu zuen; aurrerantzean, egiaztapenetan, zorra ordaintzeko eskatzeko ekintzaren balizko preskripzioa eta Administrazioak likidazioa egiteko eskubidearen balizko preskripzioa egiaztatuko du.

## B) Foru zergak. PFEZ

⇒ PFEZaren zerga oinarriaren murrizketak: Kontzeptu zibilaz bestelako konpentsazio pentsioko zerga kontzepturik ez dagoenez, murrizketaren zenbatekoa zehazteko senar-emazteen bereizketa araupetzen duen itunak dioenari aditu behar zaio, estu-estuan (107/2005)

### • Erreklamazioa

Gipuzkoako zergadun batek Gipuzkoako Foru Aldundiak bere kontra bideratu zituen jarduketetan esku hartzeko eskatu zigun. Aldundiak PFEZarengatik likidazio batzuk egin zizkion, 2000, 2001, 2002 eta 2003 ekitaldietakoak, non bere auto-aitorpenetan jasotako konpentsazio pentsioaren zenbatekoa kentzen zioten. Zenbateko horretan bereiztu aurretik familiaren etxebizitzaren gainean zuen maileguaren amortizazioa eta interesak sartuta zeuden.

Gainera, likidazioetako batean ateratzen zen kuotaren zenbatekoa ere bahitu zioten, jada ordainduta zeukala kontuan hartu barik, eta beste baten konpentsazio partziala artean aitorpenik jakinarazi gabe zeukan beste kreditu batekin ordainduta zegoela ohartu barik.

### • Azterketa

Interesatuak 2000 eta 2002ko ekitaldietako PFEZaren likidazioak premiamendu bidetik ordaindu zituen, baina zerga Administrazioa okertu eta ez zuen zor horiek ordainarazteko prozesua eten, zehazki 2000ko ekitaldikoa, eta bankuko kontuak ere bahitu zizkion.

Hamar egun igaro ziren Zerga Administrazioa okerraz ohartu eta interesatuari gaizki atxikitako zenbatekoa itzuli zion arte.

Tarte horretan, erreklamaziogilea erabat babesgabe sentitu zen, zer gertatzen zen ulertzen ez zuelako eta, gainera, Administrazioaren inongo instantziatetik argibiderik ematen ez ziotelako, behin eta berriro eskatu arren; Ogasunak gaizki kendutako saldoa berreskuratzeko premia zeukan, PFEZaren beste bi likidazio ordaindu ahal izateko (2001 eta 2003 ekitaldietakoak), borondatez ordaintzeko epea egun haietan agortzen baitzitzaien.

Akatsa azkar ongitu eta libretako saldoa garaiz lehengoratu ezean, ezingo zituen likidazio horiek epe barruan ordaindu, ofiziozko konpentsaziorik egiten ez baitzioten.

Erreklamaziogileak ingurumari hori argudiatu zuen, pentsatuz Ogasunak, akatsaren eta bere behin behineko likidezia arazo haren erantzulea izanik, irtenbide egokiren bat proposatuko ziola. Baina Foru Ogasunak ez zuen gizona lasaitzeko inolako interesik erakutsi, ez eta inolako barkamenik eskatu ere, bere kasuari konpentsaziorik ez zegokiola erantzutera mugatu baitzen.

Kasua aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Ogasunarengana jo genuen, eta interesatuak muga egunera heldutako zorren kobrantzan igarritako irregularitasunen berri eman eta, aldi berean, akatsa aitortu eta kasuari zegozkion berandutza interesak ere ordaintzeko eskatu genion.

Foru Ogasunaren erantzuna asegarria izan zen, alde horretatik. Zerga Bilketako Atalak aitortu zuen *“prozeduran hainbat ingurumari eta akats ezohiko pilatu zirela, eta Administrazio honek nahita egin ez dituen arren, berari soilik eta eskusiboki*

*leporatu behar zaizkiola*” eta, ondorioz, Foru Ogasunak interesatuaren bankuko kontutik gaizki atxikitako zenbatekoen tarte horretako berandutza interesak ere ordaintzea eta, gainera, gertatutakoaren azalpenak ematea erabaki zuen.

Bestalde, eta likidazio sorta kateatua eragin zuen benetako arazoari dagokionez, bide batez, interesatuaren bereizketaren epaia bera baliatu genuen Foru Ogasunari bereizketa arautzen zuen Itunak aipatzen zuen maileguaren zenbatekoa zerga oinarritik kentzea ez onartzera eraman zuen irizpidea berrius zezan iradokitzeko.

Zerga kudeatzen duen bulegoak ukatzen zuen, zerga ondoretarako, interesatuak epailearen aginduz oso-osorik ordaindu behar zituen maileguaren interesak eta amortizazioa konpentsazio pentsio modura hartzea, Arauketa Itunean betebeharrak horri buruzko atalean jasotzen zuen arren. Ukatzeko, zerga kudeatzen zuen bulegoak hauxe zioen, hitzez hitz:

*“...Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 61. artikulua, kenkari modura jasotzen dituzten ezkontidearen aldeko konpentsazio pentsioak eta elikagaietarako urteko ordainketak, zergapetuaren seme-alaben alde jarritakoak ezik, biak epailearen erabakiz ordainarazi badira. Alde horretatik, esan behar da desberdina dela zenbateko horiek zerga oinarritik kengarriak diren konpentsazio pentsio modura ala zamak arintzeko (senar-emazteen etxebizitza zamatzeko duen maileguaren interesak eta amortizazioa) ordaintzea, beraz, hori ezin dela Kode Zibilak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Arauak arautzen dituen emaztearen aldeko konpentsazio pentsio zein elikadurarako kontzeptuetan sartzen denik ulertu.”*

Hari beretik mintzo zen Foru Ogasuna 2004ko abenduaren 21eko ebazpenean, interesatuak 2002ko ekitaldiaren likidazioaren kontra jarritako errekurtsioa ezetsi zuten:

*“Egiaz, 8/1998 Foru Arauaren 61. artikuluan ez dira, epailearen aginduz ordainduko lirategien osagaietatik zein sartuko lirategien konpentsazio pentsioen kontzeptuaren barruan, baina Kode Zibilaren 90 eta 97. artikuluetan xedatutakotik ondoriozta daiteke pentsio terminoa 90. artikuluan e) letran epaileak 97. artikuluan esandako ildoei segituz finkatzen duenerako gordetzen dela, eta beste kontzeptu ekonomikoak ere finka litezkeela, hala nola, senar-emazteen zametan parte hartzea, pentsiotzat jotzen ez direnak eta 97. artikuluarik lotzen ez zaizkionak, aipatutako e) letran finkatutako hori bezala.*

Gainera, analisisan aurrerago ere joanez, legegileak gai honetan zer borondate izan zuen ere asma genezake, epailak familiaren etxebizitzaren erabilpena seme-alabei eta haiekin bizi den ezkontideari uztea erabakitzea, eta etxe horretatik alde egiten duen ezkontideari etxea finantzatzen duen mailegua ordainaraztea ohikoa izanik, 8/1998 Foru Arauaren 77. artikuluan aurreikusten diren kenkarien artean sartzen baitu kasu hau, alegia zerga onura kenkaria baino txikiagoa denean, oinarriaren mugarik

*gabe, eta behar ez dena baldin eta kontzeptu horren pean ordaindutako zenbatekoak konpentsazio pentsioetan baitaratu eta zerga oinarritik kendu balitezke.*

*Ezin da zergadunaren asmoa onetsi, eta ez dagokio arestiko lerroaldean emandako adibidean azaldutako kenkariari heltzerik, zergadunak aurre egin behar dion mailegu hori ez baitzen emazteari eta seme-alabei erabiltzea esleitu zaien ohiko etxebizitza erosteko eskatu.”*

Gure aldetik, ukitutako Administrazioari honako ohar hauek helarazi genizkion:

1. Ez daukagu, ez dotrinaren esparruan ez eta araudietan, “konpentsazio pentsioa” eta “senar-emazteen zametako parte hartzea” kontzeptuak Administrazio horrek Kode Zibilaren 90 eta 97 artikulua batera irakurtzean ondorioztatzen duen desberdintasuna bezain bereizketa garbirik.

Horrela, 90 artikulua arauketa itunak, gutxienez, zein alderdi argitu behar dituen mugatzen du, besterik ez. Horretarako, bost atal bereizten ditu:

- Noren zaintzapean geratuko diren seme-alabak.
- Nori egokituko zaion familiaren etxebizitza eta gauzak erabiltzea
- Zelan banatuko diren familiaren eta elikagaien zama eta, behar izatekotan, zelan eguneratu eta bermatuko diren
- Zelan likidatuko den bidezkoa denean, senar-emazteen erregimen ekonomikoa
- Zer pentsio ordaindu beharko duen, 97 artikulua arabera, ezkontideetako batek.

97 artikulua, bere aldetik, bereizketa edo dibortzioak bestearen aldean desoreka ekonomikoa, ezkontuta zegoenean baino okerrago geratzea dakarkiona, eragiten dion ezkontidearen aldeko pentsioa izateko eskubidea finkatzen du. Pentsio hori epailearen ebazpenean finkatu behar da, eta zenbatekoa epaileak zehaztuko du, artikulua berean zerrendatutako faktoreen arabera (akordioak, adina, osasun egoera, prestakuntza profesionala, enplegu bat lortzeko aukerak, iraganean familiarekiko izandako ardura, eta etorkizunean izango duena...).

2. Interesatuaren arauketa itunak, eta zehazki konpentsazio pentsioari buruzko atalak, hauxe dio, hitzez hitz:

*“Bosgarrena.- konpentsazio pentsioa*

*Senarrak emazteari, (...) andreari eragiten zaion desoreka ekonomikoarengatik, hauxe ordainduko dio:*

*A.- BERROGEITA HAMAR MILA PEZETA (50.000 pta.) hilean, hileroko lehenengo zazpi egunetan sartuko dizkionak, (...) kontuan. Zenbateko hori urtero eguneratuko da, seme-alabei buruzko aurreko zehaztapenean esan den moduan.*

*Emazteak konpentsazio pentsio hori BI URTEZ jasotzeko eskubidea izango du, eta lanetik, errentetatik zein interesengatik jaso lezakeen beste edozein sarrerarekin bateragarria izango da. Arestian esandako epe hori agortzen denean diru hori jasotzeari utziko dio.*

*B.- Senar-emazteen etxebizitzak gainean duen hipotekaren zamarengatik KUTXari ordaindu behar zaizkion interesak eta amortizazioa.*

*Senarrak diru kopuru hori emaztearen kontu korrontean sartu ahalko du, edo bestela, interesen eta amortizazioaren ordainketa helbideratuta dagoen kontuan, hipoteka guztiz ordaintzen den arte.”*

Arauketa itun honen atal honen lehenengo lerroaldea irakurrita, argi eta garbi geratzen da epaileak bide bikoitza erabili duela bereizketak (...) andreari eragiten dion desoreka ekonomikoa zuzentzeko. Bide bikoitz hori A (50.000 pta. hilean bi urtez) eta B (senar ohiarekin batera % 50ean titular den mailegua ordaintzetik salbuestea, ordainketa osorik hari egotziz) azpi-ataletan islatu da.

Erreklamaziogileari mailegu osoari aurre egin beharra egoztean senar-emazteen zamen ekarpenaren atalean jaso litekeela onartzen dugun arren, guk uste dugu konpentsazio pentsiotzat hartzeak ere berdin balio duela, izatez senar-emazteen bereizketaren ondoriozko desoreka ekonomikoa arintzen laguntzen baitu. Hortik abiatuta, eta epaileak bigarren bidetik jo duela kontuan hartuta, eta PFEZ araupezen duen Foru Arauaren 61 artikuluan bertan ere beste bide batetik joateko sostengurik ez dagoela ikusita, Foru Ogasun horrek, gure iritziz, erreklamaziogileari bere likidazioetako zerga oinarrian bereiztu ostean arauketa itunean aipatzen den maileguaren interesengatik eta amortizazioarengatik ordaindutako zenbatekoen % 50 kentzeko eskubidea onartu beharko lioke.

- Emaizta

Gipuzkoako Foru Ogasunak egoki ikusi du egindako likidazio horiek baliogabetzea, eta hauxe esan du: “...kontuan hartuta kontzeptu zibilak bestelako konpentsazio pentsioko zerga kontzepturik ez dagoela, ulertu behar da, kasu honetan eta epailearen ebazpena zorrozki aplikatuz, zenbateko horiek konpentsazio pentsio gisa ordaintzen direla eta, hartara, erreklamaziogileak bere PFEZetik gutxitzeko eskubidea daukala. Ondorioz, berrikusiko dira eta, horrela, erreklamaziogileak 2000, 2001, 2002 eta 2003 ekitaldiengatik aurkeztutako aitorpenak ofizioz aldatuko dira.”

⇒ Guraso bakarreko famili unitateak eta 18 urtetik gorako ondorengoak (612/2005)

- Erreklamazioa

Erreklamaziogileak, emakume dibortziatu eta 18 urteko alabadunak, bere kexa helarazi zigun, Gipuzkoako Foru Ogasunak ez ziolako, aurreko urteetan bezala, PFEZaren aitorpena alabarekin batera aurkezten utzi nahi. Era berean, kexan aipatzen zuen



PFEZaren arauketa aldatu behar zuela zeren, bere iritziz, oraingo araudiak bereiztuta eta dibortziatuta dauden pertsonak diskriminatzen baititu, eta inolako famili unitatetan sartuta ez daudenez, ez die banakako eta baterako aitortzen artean hautatzen uzten, senar-emazteek egiten duten moduan.

- Azterketa

Zerga unitatea zehazteko, PFEZaren araudiak izatez antzekoak diren egoerak parekatzen ditu. Horrela, senar-emazteak eta erregistratutako izatezko bikoteak parekatzen dira, baita bereizketa eta dibortzio egoerak ere; azkeneko hauek, halako ondoretarako, ezkongaien tratamendu berbera jasotzen dute.

PFEZaren araudiak erreklamaziogilearen alaba, amarekin eta amaren kontura bizitzen segitu arren, 18 urte bete orduko famili unitatetik kanpo atera izanari dagokionez, zehaztu behar dugu hizpide hartzen ari garen “famili unitatearen” kontzeptua legeak PFEZ ordaintzeko ondoretarako eratu duena dela. Kontzeptu hori zergazkoa da, erabat, eta batzuetan eguneroko bizitzan erabiltzen denaren desberdina den arren, horrek ez du aplikagarria ez denik esan nahi.

Testuinguru honetan, gogoratu behar dugu, halaber, PFEZ araudian, famili unitatea definitzen denean, 18 urtetik gorako seme-alabak beti kanpoan uzten direla, familia zelan eratuta dagoen aditu barik. 18 urtetik gorako seme-alabek, arauan finkatzen diren bizikidetzeta eta diru sarreren baldintzak betetzen badituzte, ondorengo enka-rietarako eskubidea ekar lezakete, baina, PFEZaren ondoretarako, ezin dira gurasoen famili unitatean sartu, ez eta, ondorioz, haien zergak gurasoekin baterako modalitatean ordaindu ere.

- Emainza

PFEZean 18 urteko seme-alabei ematen zaien tratamenduak ez du, gure ustez, berdintasunaren konstituzio printzipioa urratzen, famili unitate mota guztietarako berdina baita. Ezin dugu, halaber, printzipio horren urraketarik ikusi guraso bakarreko famili unitateetako tratamenduan, PFEZ zelan ordaindu aukerari dagokionez. Interesatuari gure azterketaren emaitza jakinarazi genion.

⇒ *Zelan aitortu behar diren alarguntasun pentsioak PFEZean (696/2005)*

- Erreklamazioa

Emakume alargun batek gure erakundeari esku hartzeko eskatu zion, Zerga Administrazioak lan aktiboan ari diren alargunek, bere iritziz, pairatzen duen zerga presio izugarria arin zezan lortzeko.

- Azterketa

PFEZ arautzen duen 8/1998 Foru Arauaren 6. artikulua dioenez, zerga honen zerga oinarrian zergadunak lortzen duen errenta sartzen da, non atera duen eta ordaintzailearen egoitza non dagoen berdin delarik.

Hara zer sartzen den zergadunaren errentan:

- a) Lan etekinak.
- b) Ekonomi jardueren etekinak.
- c) Kapitalaren etekinak.
- d) Ondarezko irabaziak eta galerak.
- e) Foru Arauak ezartzen dituen zerga egozpenak.

Alarguntasun pentsioak PFEZean lan etekin modura zergapetuta daude. Hala dio Foru Arau horren 15.5 artikulua, espresuki:

*“Lan etekintzat hartuko dira:*

*a) Ondoko prestazio hauek:*

*1. Gizarte Segurantzako eta Klase Pasiboetako erregimen publikoetatik jasotako pentsioak eta ondasunak, eta ezgaitasun, erretiro, istripu, gaixotasun, alarguntza edo antzeko egoerengatik jasotako gainerako prestazio publikoak...”*

Horrela, bada, esan dezakegu erreklamaziogilearen alarguntasun pentsioa eta lan aktiboaren ondoriozko etekinak berdin zergapetuta daudela; bestela esanda, erreklamaziogilearen PFEZaren likidazioa oraingoaren berdina izango litzateke, lan aktiboaren etekinak soilik jasoko balitu, eta etekin horiek orain lanarengatik eta pentsioarengatik jasotzen duena beste izango balira.

Gure iritziz, azaldutako arauketa hori zentzuzkoa eta bidezkoa da zergaduna ekonomikoki guztiz autonomia denean, inolako famili unitatetan ez dagoenean eta famili zamarik ez daukanean.

- Emaizta

Interesatuari jakinarazi genion aurkeztu zigun kasuan ez zegoela guk Zerga Administrazioaren aurrean inolako jarduerarik hasteko behar zen ingurumaririk.

Interesatuak planteatutako kexari alarguntasun pentsioen zergapetzeari buruz salatzaren irregularitasunik igarri ez genuela erantzun bagenion ere, ohartarazi genion akats bat egon zitekeela, bere kontrakoa, PFEZaren 2003ko eta 2004ko aitortpenen likidazioak alderatzean ikusi genuena, hau da, ez zituela zenbatu 2004ko likidazioaren osagai negatiboan atalean Gizarte Segurantzarako edo pareko erakundeetarako kotizazioak. Benetan akatsa zen ala ez egiaztatu nahirik, eta Foru Ogasunari inolako zuzenketarik eskatu baino lehen, iradoki diogu gastu kengarri hori izatez dagoen ala ez egiaztatzeko, eta frogagiriak eskuratzeko, edozein erregularizapen eskari justifikatzeko beharko baititu.

⇒ *Borondatezko erretiroarengatik jasotako kalte-ordainak ez daude zergetatik salbuetsita (825/2005)*

- Erreklamazioa

Emakume batek esku hartzeko eskatu zigun Bizkaiko Foru Ogasunak irakaskuntzako lan aktiboari utzi eta borondatezko erretiroko egoerara aldatzea erabakitzeagatik jaso zuen kalte ordaina zelan zergapetu zion ados ez zegoelako, Administrazio horrek ordainketa hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren guztiz mendekotzat baitauka.

- Azterketa

Erreklamaziogileak bere idatzian zehazten ez zuen arren, pentsatu genuen irakas-kuntzan 41 urtez aritu eta gero borondatezko erretiroa hartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen Akordioa onetsi zuen urriaren 1eko 228/2002 Dekretuaren 65. artikuluari eutsi ziola. Arau horretan aurreikusten da, gainerako baldintza guztiak betetzen badira, LOGSEren 9. xedapen iragankorrean finkatuta dagoen borondatezko erretiroaren aukerari hel dakiokela.

Esparru horretatik abiatuta, iruditu zitzaigun kasu honetan ez zirela, interesatuaren kalte ordaina zergetatik salbuesteko, Bizkaiko Lurralde Historikoko PFEZ arautzeko 10/1998 Foru Arauak 9. artikuluan eskatzen dituen baldintzak betetzen, zeren, orain arte, gure Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak ez baitu giza baliabideen plan estrategikorik prestatu, giza baliabideen egituraren arrazionalizazio elementurik sartzeko, bere esku dauden zerbitzu publikoak estali eta asetzeko dauden behar objektiboetara egokitzera begira.

- Emaiza

Hezkuntza esparruan Foru Ogasunari halako egiturak PFEZaren araudian enplegu erregulazioetako espedienteetarako aurreikusita dauden terminoetara berdintzea planteatzeko aukera emango zigun giza baliabideen arrazionalizazio egitasmorik ez dagoenez, interesatuari jakinarazi genion ez genuela, kasu honetan, guk Zerga Administrazioarekin esku hartzea justifikatuko zuen lege antolamenduaren inolako urraketarik antzeman.

### C) Udal zergak - OHZ

⇒ *Jabetza Erregistroan higiezinaren titular dena da zergaren subjektu pasiboa (700/2005)*

- Erreklamazioa

Bilboko emakume batek laguntza eskatu zigun, higiezin jakin baten jabea ez zela nolabait frogatzeko eta, horrela, udalak eskatzen zizkion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak ordaintzetik askatu ahal izateko.

Interesatuak kexan zioenez, 1980. urtean-edo, higiezinaren agentzia baten bidez, Bilboko (....) kalean zegoen pisu bat saldu zuela, baina ez zeukala salmenta hura frogatzeko inolako salerosketa kontraturik ez eta notario eskriturarik ere. Erosleak, bestalde, jabe aldaketa hura Jabetzaren Erregistroan inskribatu ez zuenez, finkak saltzailearen izenean agertzen segitu zuen.

1983ko uholdeen ondorioz, etxebizitza hura zegoen eraikina eraitsi zuten.

Erregistroko inskribapenik ez izatearen arazoak, kasu honetan interesatuaren kontra, 2004. urtean agertu dira, Bilboko Udalak etxebizitza hura zegoen orubean omen duen partaidetzaren kuotari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiria bidali dionean.

- Azterketa

Udalak interesatua hartu du zergaren subjektu pasibo modura, Jabetzaren Erregistroan jabe gisa ageri baita, eta guk ezin dugu hori administrazioaren irregulartasun modura ikusi. Aitzitik, interesatuak bere titularitatea ukatzeko argudiatzen duen higiezinaren salmenta Jabetza Erregistroan ez inskribatu izanak, pentsarazten digu jabe aldaketa hura dokumentu pribatuan soilik egin zela eta, ondorioz, ez daukala ondorerik hirugarrenen aurrean. Kasu honetan, beraz, Kode Zibilaren 1225 eta hurrengo artikulua aplikagarriak dira, dokumentu pribatuen balioa eta ondoreak arautzen baitituzte.

Alabaina, Administrazioaren jarduerari buruzko aurreiritzirik ez izateko, eta higiezin haren titularitatearen ondoriozko zerga zama legez jabe zenari egozteko azken ahaleginean, Bizkaiko Foru Aldundiarengana jo genuen, lurralde historiko horretan higiezin salmentetan Ondasunen Eskualdaketen gaineko Zerga likidatzeko eskuduna delako, eta eskatu genion 1980. urtearen inguruan egindako higiezin eskualdaketei buruzko datu baseetan begiratzeko, ea erreklamaziogilea saltzaile modura inon ageri bazen. Foru Ogasunak ez zuen ezer aurkitu.

- Emaiza

Ezin izan genuenez Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueretan administrazioaren inolako irregulartasunik antzeman, gure esku hartzea amaitutzat jo behar izan genuen, kexa gai hau partikularren arteko auzi modura bideratu behar zela.

## D) Udal prezio publikoak

⇒ *Grebarako eskubidea baliatzearen eragina udaleko prezio publikoen kobrantzan (1986/2004)*

- Erreklamazioa

Gasteizko haur eskoletara zihoan mutiko baten amak Arartekoari iritzia galdetu zion, udalaren jardueraren gainean, zeren 2004ko ekainean haur eskolaren zerbitzuaren prezioa osorik ordaintzeko eskatu baitzion, berez, haur eskoletako langileek greba egin zutenez haur eskolak hiru egunetz zerbitzurik ematerik izan ez zuen arren.

- Azterketa

Herritarrei zerbitzu baten prestazioa kobratu ahal izateko, udal erakundeek, aurretik, zenbat kobratuko duten, zelan kobratuko duten eta noiz eskatuko duten zehaztu behar dute. Zerga oinarri hori eta sortzen duen zorra zerga Ordenantzen bidez mugatzen da.

Zehazki, haur eskoletako asistentzia, jantoki eta sehaska zerbitzuen prestazioarengatik 2004ko ekitaldian indarrean zeuden prezio publikoak zerbitzuen prestazioen edo udal jarduerak egitearen prezio publikoak arautzen zituen 8. Ordenantzako 1. atalean (“*Haur eskoletako asistentzia eta egonaldia, eta oporretarako egitarauak*”) jasota zeuden.

Ordenantza honek aplikazio arauetan lehenengo hilaren ordainketa gainerako hileko kuotetatik bereizten zuen. Azkeneko horiei dagokienez, zera aurreikusten zuen: “*ikasturteko beste edozein hilabeteko kuota oro har jarrita dagoena izango da,*

*inolako hainbatekorik gabe, berdin delarik haurra haur eskolara zein hilabetetan sartzan den eta eskolako egonaldiak zenbat irauten duen” (4. lerroaldean). Alabaina, eta jantoki zerbitzuari dagokionez, ordenantzak bai aurreikusten du tartekako erabilpena, 9. lerroaldean, non hauxe dioen, hitzez hitz: “jantoki zerbitzuak tarteka erabiltzearen prezioa, 7.30etik hasita eta arratsaldeko ordutegian, erabiltzailearen errenta tartearen hainbatekoari dagokiona % 10ean gehituta izango da.”.*

Gauzak horrela, hau da, ordenantza arautzailean Haur Eskoletako egonaldiari jarritako prezio publikoa zatikatzerik ez dagoela dioenez, onartu behar izan genuen Gasteizko Udalak 2004ko ekaina bere araudian ziona betez likidatu zuela.

Alabaina, tokiko erakunde horri agerrarazi genion, kasu hau ikusita, ordenantzan Haur Eskoletako asistentzia zerbitzuarengatik hileko prezio publikoa zatietzen modura mantentzeak halako egoerak ekar zitzakeela, justizia materialeko ikuspegi batetik onargarriak ez ziren egoerak eta, gainera, tokiko erakunde hori bidegabeki aberastea ekar zezaketenak, besterik gabe, hilabetean zerbitzua egun bakarrean emanaz gero, zeren halakoetan, printzipioz, arauak zioenari adituz, hil osoko kuota faktura baitzezakeen.

Halakorik gerta zitekeela ikusita, iradoki genien Haur Eskoletara joateagatik hileko kuotan nolabaiteko zatikapen edo hainbatekoren bat sartzeko.

Gasteizko udalak onartu zuen Ordenantzaren artikuluko haren interpretazioa, hau da, udalak hilean zerbitzua egun bakarrean eman arren hil osoko kuota kobra zezakeela. Ukatzen zuen, ordea, ustezko egoera hori gertatuko balitz ere, horrek udala bidegabeki aberastea ekarriko lukeenik, zeren erabiltzaileei helarazten zitzaizkien zerbitzuen kosteak hutsalak baitziren.

Baiespen hori egiaztatzerik izan genezan, Gasteizko udalak 2004ko ekitaldirako Zerga Ordenantzak aldarazteko espediente zekarren kosteen azterlana eman zigun. Azterlan hartan kalkulatu zen Haur Eskolen udal zerbitzua ematea urte horretan 7.227.616,21 € aterako zela, eta aurreikusten zen ekitaldirako prezio publikoetatik 788.000 € sartuko zirela; estaldura, beraz, % 10,90 izango zen, erabiltzailearen kontura. Aldi berean, Gasteizko Udalak aitortzen zuen Eusko Jaurlaritzak Haur Eskolak diruz laguntzen ari zela (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2003ko azaroaren 9ko Agindua) eta, horrela, 2004an diru laguntza hori 2.550.000 €-ra helduko zela aurreikuspenen arabera. Azken finean, erabiltzaileen eta diru laguntzen bidez estaliko ziren kosteak urte horretan % 46,18 ziren. Gainerakoa udalak bere gain hartuko zuen.

- Emaizta

Zerbitzuaren guztirako kostetik erabiltzaileen gainera zihoan portzentajearekin Gasteizko udala bidegabeki aberastea zaila zela ageri-agerikoa zen arren, justizia materialeko ikuspegi batetik, kexak agerian utzi zuen inork gurako ez lukeen egoera bat gerta litekeela, prezio publikoaren subjektu pasiboek beren gain nekez hartuko zutena. Bestalde, gertagarri hori ez zen arteztuko baldin eta Haur Eskolen udal zerbitzuaren prestazioa inolako hainbatekotasunik egiterik onartzen ez zuen hileroko kuota modura mantentzen bazen. Horregatik, gure erakundetik iradoki genien haur eskolen zerbitzuaren prestazioaren prezio publikoaren gerorako ordenantzetan zuzenketaren bat sar zezaten, ezohiko gisa, hileko kuotan nolabaiteko hainbatekoak egin ahal izan zitezten. Iradokizun hau, orain arte behintzat, ez da Gasteizko Udalaren ordenantzetan jaso.

## E) Udal tasak

⇒ *Zaborren tasa eta jarduerarik gabeko lokala (349/2005)*

- Erreklamazioa

Hondarribiko herritar batek zalantzan jarri zuen udalaren jardueraren legezkotasuna, eraiki zenetik hutsik dagoen bere lokal bati dagokion zabor tasa ordaintzeko eskatzen baitio. Tasaren kobrantza justifikatzen duen zerbitzua erabiltzen ez duenez, ez dago, bere iritziz, tasa hori ordaintzera behartuta.

- Azterketa

Ordenantza arautzailearen arabera, higiezin guztiek, betiere zerbitzuaren prestazioaren estaldurapeko eremuan badaude, derrigorrez jaso beharreko hiriko zabor eta hondakin solidoen bilketaren zerbitzuaren prestazioak jartzen du egitate hori tasapean, berdin delarik higiezinak zelan dauden, zelakoak diren, zertarako erabiltzen edo xedatzen diren, baita zaborrik ateratzen duten ala ez.

Zerbitzu hau araupetzen duen ordenantzak higiezina dioenean etxebizitza modura erabiliko den, zein beste edozein erabilpenetara, industrial barne, xedatuko den, eta zaborra sortzeko jardueraren bat egiten den zein egin litekeen edozein eraikuntza adierazi nahi du. Zabor bilketako zerbitzua erabiltzeko aukera da egitatea tasapean jartzen duena, zerbitzua, praktikan, erabiltzen den ala ez, eta zenbateraino erabiltzen den aditu barik.

Bestalde, Ordenantzak berak dioenez, ur kontratudunak, nolnahi ere, eta, gainera, ordenantzak hizpide dituen zerbitzu eta jarduerak eskatzen dituztenak zein horien balizko zein izatezko onuradun edo eraginpekoak direnak ere, ur hornidurarik duten ala ez, behartuta egongo direla tasa hori ordaintzera.

Udalerrri horretan indarrean dauden tarifetan 27 epigrafetaraino bereizten dira, higiezinaren xedearen eta neurrien arabera, bakoitzari bere kuotak ezarriz. Horrela, 15. epigrafean deskribapen hau ageri da: *“Etxabeak eta merkataritza, industria zein zerbitzu jardueretarako liratekeen bestelako higiezinak, jardunean zein erabiltzen ari ez direnak, biltegi modura erabiltzen ez direnak.”* Gure iritziz, deskribapen horretan erreklamaziogilearen higiezinaren ezaugarriak zehazki adierazten zituen eta, egiaztatu genuen, gainera, han finkatutako kuota zela hari eskatzen ari zitzaizkiona.

- Emaita

Interesatuari planteatutako auziaren inguruan legeetan zer aurreikusten den jakinarazi genion eta, horrela, adierazi nahi izan genion ez genuela udalaren jardueran indarreko lege antolamenduaren inolako urraketarik antzeman.

## 7. HERRIZAINGOA

### 7.1. SARRERA

2005. urtean, Ararteko erakundeak 81 kexa jaso zituen herrizaingo sailean, hau da, garai horretan aurkeztu ziren kexen % 7,41, 2004. urtean izandako kexak baino % 22,1 gutxiago, beraz. Kexak dagozkien administrazio publikoen arabera banatu dira:

-Toki administrazioa .....	61
-Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa (Eusko Jaurlaritza) .....	21
-Foru administrazioa .....	1

Kexak honako gaien arabera banatu dira:

-Trafikoa .....	45
-Eskubideak eta askatasunak .....	14
-Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	9
-Hiritarren segurtasuna .....	5
-Jokoak eta ikuskizunak .....	3
-Atxiloketa zentroa .....	2
-Kontratazio erregimena, ondarea eta ardura administratiboa ...	2
-Beste gaiak.....	1

Gainera, ofizioz hasitako 8 espediente tramitatu dira, ondoko azpiarlo hauetan:

-Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	4
-Atxiloketa zentroak .....	2
-Eskubideak eta askatasunak .....	1
-Trafikoa .....	1

Aurreko urteetan bezala, **trafikoaren** gaiarekin lotura duten kexek zehapen erregimenean dute eragina eta, batez ere, eremu hau zuzentzen duten arauak ez betetzeagatik jartzen diren zigorrak ezartzeko jarraitzen den prozeduran. Kexa horiek Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eta Barakaldoko, Bilboko, Donostiako, Getxoko, Sopelako eta Gasteizko Udalen lanaren inguruan egin dira, gehienbat.

Gure ardurapean jarri diren gaiak ere errepikatu egiten dira. Beraz, hainbat prozedura tramitetan jakinarazpen pertsonalak egiteko modua, prozeduren tramitazio araupetua eta irmotasunik lortu ez duten zigorrak ezartzeko erak dira urte honetan ere sortu diren gaiak.

Berriz ere egiaztatu dugu jakinarazpen pertsonala egiteko bigarren saiakera ez dela beti lehenengoaren ordu desberdinean egiten, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2

artikuluak agintzen duen bezala, eta posta bidez egiten den jakinarazpena alferrikakoa bada, administrazio espedienteak ez du ziurtatzen bigarren saiakera horren oharra har-tzailearen postontzian utzi denik, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretu bidez onartutako posta zerbitzuen prestazioa arautzeko Araudiaren 42. artikuluan zehazten den bezala.

Horrek eramaten gaitu, batetik, gomendio orokorraren edukia, hots, "Posta bidez egindako jakinarazpenak administrazio zehapen prozeduran, trafikoa, motor ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuna gaietan: horiek behar bezala ulertzeko baldintzak ez daude-netan saiatu egingo dira" berriro ere aipatzera eta horiek 2002. urteko ohiko txostenean (VI. Kapituluari) sartzera; eta bestetik, gaiarekin zerikusia duten administrazio guztiei aipatutako eskakizunak betetzeko orduan arreta berezia jarriko dutela eskatzera.

Gure ustez beharrezkoa da nabarmentzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikuluari buruz Auzitegi Gorenak 2004ko urriaren 28ko epaian ezarri zuen lege doktrinaren arabera, jakinarazpena egiteko bigarren saiakera lehenengoaren ordu desberdin batean egin dela ulertzeko, ordu baten eta bestearen artean gutxienez hirurogei minutuko aldea egotea beharrezkoa dela.

Gai honi lotuta Bilboko Udalak erantzun kontraesankorra eman du urte honetan egin dizkiogun bi gomendioen aurrean. Gomendioek eskatzen zuten berme honetan erreparatu gabe, bi kasu berdinetan jarri zituen zigorrak bertan behera utz zitzala, akats hori garrantzitsua dela eta zigorren baliozkotasunean ere eragina duela iruditzen baitzaigu. Hiru hilabete eskas igaro ondoren, Hiritarren Segurtasun eta Babes Zibileko Saileko zinegotzi ordezkariak lehenengo gomendioa aintzat hartu bazuen ere, bigarrena ez zuen onartu. Gainera, ez zuen azaldu irizpidea zergatik aldatu zuen eta ez zuen jakinarazi hasierako jarreran aldaketak izan zirela.

Batetik, alor honetan egiten diren jakinarazpen gehienak Correosen esku uzten dira eta bestetik, urtetik urtera ikusten dugunaren arabera, zigortutako administrazioek kasu hauetan erabaki ohi dute haiei ez dagokiela interesa duen pertsonaren postontzian alferrikako bigarren saiakeraren jakinarazpenaren oharra utzi dela ziurtatzea, hori posta zerbitzuaren lana dela uste baitute. Hori horrela, administrazio horiei ohartarazi behar diegu, administrazio espedientearen egiaztagirari hori sartu behar dutela, arduraz hori haiena bakarrik baita. Beharrezkotzat jotzen dugu administrazioek baldintza hori betetzen dela ziurtatzen duen txostena modu arautu eta automatiko batean egiteko bideak jorratzea, guk dakigunez, legeak eskatzen dituen beste baldintza batzuk ziurtatzeko orduan gertatzen den bezala, horrela, posta bidez egiten diren jakinarazpen pertsonalak behar bezala egin direla ziurtatu dadin.

Halaber, eskatu behar diegu trafikoaren alorrean zehapen prozedurak tramita-tzen dituzten administrazioei bereziki arduratsuak izan daitezela, jakinarazpenak zein helbidetan egin behar dituzten zehazterako orduan. Izan ere, aurreko urteetan bezala, denboraldi honetan jaso ditugun hainbat kexa, kontuan hartu den helbidea prozedura hauek arautzen dituzten araudi bereziak (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 78.2 artikulua) ezarritakoarekin bat ez etortzeagatik sortu dira. Hori dela eta, erreklamatzailerak ez zekiten beren aurka prozedura bat zegoenik ezta, ondorioz, leporatutako erantzukizunen aurrean defendatzeko aukera zutenik ere.

Aurten jaso ditugun kexetako batzuk zehapen prozedurak aurrez ezarritako ere-duak jarraituz, legeak eskatzen dituen berme materiala errespetatu gabe egin direlako sortu ziren.



Ikusi dugu egiazkotasun presuntziorako apelazioa, agintaritzaren agenteek zuzenean ikusten dituzten gertaerekin eta egiten dituzten derrigorrezko salaketetan jasotakoekin (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua) loturiko trafikoa araudiak aitortzen duena, errugabetzeko prozeduran inputatutako pertsonak aurkezten dituzten alegazioei eta frogei askotan ematen zaien erantzun bakarra dela oraindik, baita batzuek eta besteek azaldu nahi zutenean, gertaerak ez zituztela agintaritzaren agenteek salatu, partikular batek baizik, eta beraz, ezin ziela aipatutako presuntzioari etekinik atera.

Egiaztatu dugu, halaber, ikusitako gertaeretatik abiatuz agente salatzaileek egingdako dedukzioetan aplikatu dela batzutan presuntzio bera. Gogoan dugu horrelako inferentziek froga-balioa izan dezaketela, baina ohartarazi behar dugu froga-bertutea ez datorrela presuntzio horretatik –izan ere, arestian esan dugun bezala, agenteek zuzenean ikusitako gertaeretan soilik du eragina horrek– kasu bakoitzean horietatik egiten den apreziaziotik baizik.

Atal honetan nabarmendu behar ditugu baita, gertaera negatiboen frogan gainean ezer balioetsi eta erabaki ez duten kexak, nahiz eta froga horiek, hasiera batean, behintzat, egiaztatutako izateko zailtasunik ez erakutsi administrazioarentzat berarentzat, baina bai ustezko arduradunarentzat. Jokabide hori nahiko maiz ikusten dugu lanegatik edo beste arrazoi batzuegatik aparkatzea debekatua dagoenean, salatutako pertsonak, ibilgailua aparkatu zuenean, debekuzko seinalea ez zegoela adierazten duenean, eta azkenean, datu hori administrazio zigortzaileak ziurta dezakeenean, seinalea jarri zuena izategatik.

Erakunde honek begi onez ikusi du gaiarekin loturiko administrazioek prozeduren tramitazio estandarizatuarekin zerikusia duten arazoak sortu dituzten kexa askoren inguruan eman ditugun gomendioei arreta eskaini izana eta jarritako zigorrak gure parte-hartzearen ondorioz bertan behera utzi izana. Baina, gure ustez, gai honen ardura duten administrazioek bereziki saiatu behar dute, prozedura horiek tramitatzeko aurrez zehaztutako ereduak interesdunen bermeei eta eskubideei kalte egin ez diezaien, 2003. urteko txostenean (VI. Kapituluari) sartu genuen gomendio orokorrean zehazten zenari jarraiki: “Trafikoa, motor ibilgailuen zirkulazioa eta bide-segurtasuna gaiei dagozkien zehapen-prozeduretan aurrez ezarritako ereduaren arabera tramitazioa: defentsa eskubidearekin zerikusia duten hainbat arazo”.

Gure iritziz, gai honek garrantzia handia duenez, aurten tramitatuako kexa batzuk laburtu ditugu, jarraian agertzen den aukeraketa honetan (9/2005).

Udal batzuetan oraindik zigorrak halabeharrez jartzen dira, aurrez horien aurka jarritako administrazio errekurtsioen gainean erabakirik hartu gabe, gai honetako lege aginduek eta horiek aztertu dituen jurisprudentziak eskatzen duen bezala.

Aurten jaso ditugun kexak aztertzean, ikusi dugu Bilboko Udalean guztiz finkatua dagoen praktika dela. Udal honek ez du onartu iaz, 2004an, gai horren inguruan egin genuen gomendioa –hori txostenean azaldu genuen, arlo honetako kexa sortan (II. Kapituluari)–, eta Udalak, gure ustez, legearen babesik ez duten arazoak eman ditu. Urte horretan zehar, Udalari behin eta berriz gomendio horren edukia argitu badiogu ere, arazo hori beragatik sortutako kexak direla-eta, ez dugu haren jokamoldea aldatzerik lortu.

Arlo honetako arazo berri gisa, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan bizi diren pertsonen aurkako zehapen prozedurak nabarmendu behar dira. Derrigo-

rezko salaketa berehala jakinarazi zitzaientean, agente salatzaileari berak salaketan behin-behinean ezarritako zigorra gordailu gisa eman behar izan zien.

Kasu hauetan, gure ustez, agenteek pertsona horiei zergatik ordaindu behar duten behar bezala azaldu behar die eta argituko die, halaber, salaketarekin zehapen prozedura baten tramitazioa hasten dela, non zein erantzukizun duten argituko den eta euren jarrera defendatzeko aukera izango duten. Beharrezkoa da gogoraraztea, baita, prozeduraren tramitazioa eta prozedura hori osatzen duten gertaeren jakinarazpena ezinbestekoa dela defentsa egitea posible izan dadin eta erakunde zigortzaileak salatutako gertaeren inguruan azaldu dezan, inputatutako pertsonaren erantzukizuna zein den eta zenbateko zigorra ordaindu behar duen.

Trafikoaren gaiaren barruan, baina zehapen erregimenarekin zerikusirik ez duten alderdietan, urte honetan jaso dugun kezarik garrantzitsuena Sopolako herritar batek egindakoa izan da. Kexa horren bidez adierazi zigun ez zegoela ados urte horretan herrian ezarri zen aparkaldi mugatuko gunearen (TAOren) hainbat alderdirekin. Jarduketa horren nondik norakoak jarraian agertzen den kexen aukeraketan jaso dira (820/2005).

Jakinarazi nahi dugu, aurten ez garela gehiago sartuko Bilboko Udalak TAO ibilgailua lanerako erabiltzen dutenei edo horretarako edo erabilera partikularrerako behar dutenei gunean egoiliar txartela emateari edo, kasu batzuetan, berritzeari uko egiteagatik sortu diren kexetan, ez baitugu lortu Udalak gure gomendioak onartzea. Udalak gaur egun indargabeturik dagoen 2002ko urtarrilaren 31ko Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantza oinarrituta eman zuen ezezkoa. Ordenantza horrek erregimenaren onuretak at uzten zituen industrian erabiltzen diren ibilgailuak dituzten bertako pertsonak [12.2.e) artikulua]. Gure ustez Udalak ez du murrizketa hori behar bezala justifikatu.

Kexa horiek tramitatzen ari ginela, konturatu ginen egoiliar txartelak eskatu zituztenei ezezkoa ahoz eman zitzaie, inongo txostenik gabe. Hori dela eta, Udalarik gogorazti behar izan diogu Administrazioaren jardura juridiko osoa behar diren prozedurak jarraituz egin behar dela [Konstituzioaren 105.c) eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 68. eta hurrengo artikulua] eta, arau orokor gisa, idatziz jaso behar dela (azken Lege horren 55. artikulua). Udalarik eskatu diogu aipatutako arauak aurreikusten dutena betetz jardun dezala. Gure iritziz, eskakizun horiek garrantzia berezia dute, hiritarren eskubideak mugatzen dituzten ekintzak, kexak sortu dituzten horiek bezalakoak, gertatzen direnean. Izan ere prozedurak, eta horren barruan gauzatutako ekintza guztiak jasotzen dituzten txostenek, hartu den erabakia egokia eta legezkoa izatea ziurtatzen dute, batetik, eta bestetik, erabaki horren eragina jasaten duten pertsonak dituzten eskubideak, horien artean, erabaki hori hartzeko arrazoi zehatzak zein izan diren jakitekoa eta arrazoiak ezagututa horien aurka egitekoa, bermatzen dituzte.

Aurten, Bilboko Udalak TAOren ordenantza arautzaile berri bat onartu du (2005eko ekainaren 14ko Ordenantza). Udalbatzak erregimen honen erregulazioa sistematizatzeko, errazteko eta hobetzeko egin duen ahalegina aintzat hartzen dugun arren, zoritxarrez, ordenantza berriak aipatu berri ditugun espedienteetan esku hartzera bultzatu gintuen irizpide bera jarraitzen du, hau da, Udalak oraindik eskatzen du Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Udal Zerga edo trafiko arauak hausteagatik jasotako udal isunak ordainduta izatea eta txartel berezi bat izatea, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan arautzen den txartelaren desberdina, eta ibilgailua erabiltzeko beharra izatea, urritasuna duten pertsonak horiei ezarritako erregimen bereziari etekina ateratzeko aukera izan

dezaten. Azken gai hauen inguruko informazio zehatzagoa 2004. urteko txostenean (II. Kapituluaren eta gomendioetan) aurki daitezke.

Dena dela, aipatu nahi dugu Ordenantza berriari buruz egindako kontsultetatik bakarra izan dela kexa moduan jaso duguna, ordaindu gabeko isunak ordaintzeko aginduarekin lotua.

Bestalde, arreta handiz jarraitu dugu hiriko espazioetan bizikletak ibiltzeari buruz herritarren artean sortu den eztabaida. Aurreko txostenetan adierazi dugun bezala, behin baino gehiagotan kontuan hartu dugun gaia izan da, batez ere, hainbat udal administrazioek baimena eman baitzuten espaloietan eta oinezkoen alderdietan bizikletarekin ibiltzeko.

Gure ustez, ibilgailu hauek gehiago eta hobeto erabiltzea lortu beharko litzateke. Baina helburu horrek ezin ditzake ez oinezkoen segurtasuna arriskuan jarri ezta gai hau arautzen duten legeak hautsi ere. Ikuspegi hori kontuan izanik, administrazioek, batez ere, udal administrazioek gai honetan argi eta irmo jardutearen alde gaude.

Donostiako Udalak, horren gainean egin genion gomendio baten inguruan, adierazi digu zentzu horretan neurriak hartzeko asmotan dabilela. Neurri horien artean, Udalak kanpaina baten diseinua, "bizikleta+, zuzketa+" lemapean, edo gaia arautzeko proiektua jarriko dituen abian. Lehenengo neurria egokia iruditzen bazaigu ere, bigarrenak, ordea, zalantzak sortu dizkigu, neurri hori legera egokitu ote daitezkeen erabakitzeko orduan.

Txosten honetan bildu diren kexa batzuk berriak dira eta herritarrek horien artean duten kezka islatzen dute; gure ustez, aurrera begira gero eta interes handiagoa piztuko dute. Hala nola, bide publikoetan denboraldi batez edo erabili daitezkeena baino denbora luzeagoan aparkatzeagatik tasak kobratzea, edo datu pertsonalak babesteko arauak ezarritakoa betetzen dela bermatzea, interneten agertzen diren aldizkari ofizialetako legezko abisuetan, batez ere, datu horiek sarean zehaztu gabeko denboraldi batean egoteak sortzen dituen zalantzak direla-eta.

Jarraian datorren kexen aukeraketan, 2003. urtean Ibarako herritar batzuk egindakoa aipatu nahi dugu. Herritar horien iritziz, Udalak ez zuen Idoiaga plaza arautzen duen oinezkoentzako erregimena bermatzen. Nahiz eta tramitazioa orain dela denboraldi bat hasi genuen, gure parte-hartzeak ez du orain arte arazo konpontzerik lortu (993/2003).

Arartekoak bere ardurapean dauden gaiak piztutako hainbat kexa bidali ditu. Kexa horien artean aipatzekoak dira gidatzeko baimena ukatzearekin zerikusia dutenak edo estatu mailan, sektore-araudia hausteagatik sortutako zehapen prozedurekin zerikusia duten gaiak jasotzen dituzten kexak, hala nola, behar baino kargu-froga gutxiago izatea edo jakinarazpenak egiteko orduan akatsak egotea.

Kexa batzuk atzera bota ditugu, batez ere, horiek eragin dituen administrazioaren jardunean irregulartasunik ez dugulako ikusi, baina baita jardura hori gertatu zenetik urtebete baino gehiago igaro zelako ere, edo horren ardura zuen zehapen prozedura oraindik amaitu ez zelako.

Azkenik, beharrezko informazioa lortzeko orduan izan ditugun zailtasunak aipatu nahi ditugu, kontuan hartu ditugun arazoen oinarritzko analisia egiteko, gure oharren inguruan administrazioak duen balorazioa lortzeko edo administrazioaren erantzuna jasotzeko orduan. Gure usteetan, horrelako jarduerak oztopo izugarria dira erakunde honek ezin baititu legez eman zaizkion funtzioak behar bezala bete eta herritarren eskubideak nabarmen urratzen baitira, haiek defendatzea eta babestea guri baitagokigu.

Kapitulu honetan, aipatu behar dira, lehenengo Bilboko eta Donostiako Udalen aurkako kexak. Horietan eskaera bat eta hiru errekerimendu egin ondoren, txostena amaitzeko azken egunean ez genuen oraindik azaldutako arazoaren gaineko informaziorik. Beste batean, hainbat zehapen prozeduretako administrazio prozeduren kopiak eta interesdunak idatzitakoari erantzun zitzaion jakiteko informazioa eskatu genion Bilboko Udalarari eta aipatutako egun horretara arte ez genuen lortu Udalak informazio guztia bidaltzea, nahiz eta hiru errekerimendu bidali.

Erandioko Udalak ere ez digu informaziorik ematen abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak (7.2 artikuluan) eta hori gainetik garatzen duen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak (II. Eranskinen 3.11 artikuluan), urritasuna duten pertsonentzako aparkalekuak zenbat eta zein neurritakoak izango diren eta non kokatuko diren ezartzen dutenak agindutakoa herrian betetzen den ala ez galdetutako orduan.

Arazo horretan eta leku jakin horretako egoeran interesa dugu, erreklamatzailerik batek jakinarazi zigunaren arabera, urritasuna zuen pertsona batek aurkeztutako kexa tramitatzeke orduan, ez ziren minimo legalak betetzen. Batez ere, aparkaleku horiek herrian oker erabiltzearekin zerikusia duten arazoen berri eman zigun. Arazo horiek gaur egun konponduta daude. Udalarari eskatzen diogu, halaber, aipatutako arauak betetzen ez baditu, dituen behin-behineko aurreikuspenen berri emateko.

Udalak hasiera batean jakinarazi zigun Mugikortasun Iraunkorraren Plan bat lantzen ari zela. Adierazi zuenaren arabera, kexa egin zuen lagunaren arazoak konpontzeko asmoa zuen. Geroago, Planari buruzko hainbat argibide eman zizkigun arren, gure ustez, azaldu genituen bi arazoetatik bat bera ere ez zuen argitzen. Horrenbestez, berriz ere laguntza eskatu behar izan genion. Eskaera horri erantzunez, jakinarazi zigun aipatutako aldean zeuden aparkalekuek legeak eskatzen zuena betetzen zutela, kokalekuari zegokioenez. Baina ez zuen aparkalekuen kopuruari eta neurriei buruz ezer argitu. Aipatu zigun, gainera, ez zekiela herriko aparkaleku asko zein egoeratan zeuden eta partikularraren azterketa bat egitea kontratatu zuela, jada egiten ari zirenak. Orduan ere ez zuen herrian arau horiek zenbateraino betetzen ziren jakiteko eta, kasu horretan, arau horiek betetzeko ezarri zuen egutegiari buruz ezer esan. Txostena amaitzeko azken eguna baino lehen, ez genuen informazio hori lortu, eskatu genuenetik urte eta erdi igaro bazen ere.

Eusko Jaurlearitzaiko Herrizaingo Sailak ezarritako isunari buruzko kexa baten espedientea ere aipatu beharrekoa da. Interesdunak sekulako zailtasunak izan zituen administrazioa egiten ari zen tramitazio korapilatsuak ulertzeko –izan ere, jakinarazpenak egiterako orduan sortutako akatsek nahasmena ekarri zuten eta bata bestearen atzetik aurrera eraman ziren jardueren inguruan ere ez zen informaziorik eman–. Horrez gain, administrazioak ez zigun informazio osaturik eta zehatzik eman, gure lehenengo eskaerari erantzun zionean. Gure arrazoiak ezagutu ondoren, ez zuen inongo baloraziorik egin eta ez zuen argibiderik edo oinarririk eman administrazioaren jardueraren egoera edo jarduera hori egitera bultzatu zuten arrazoiak azaltzeko.

Batzutan, administrazioaren interesik eza agerian geratzen da, kexak aztertzean atera ditugun emaitzetan ikusten denez. Herrizaingo Sailari emandako bi gomendio-rekin hori gertatu zen. Ustezko antzeko gertaeretan, gomendio horietan azaltzen zen jarrerarekin bat zetozen arduradunak. Baina sei hilabete itxaron behar izan genituen eta kudeaketa asko egin, harik eta gomendioak onartu zituztela jakin genuen arte.

Azkenik, Sail horrek berak tramitatutako zehapen prozeduren gaineko bi kexetan, argibide ofizialen arabera, gure esku-hartzearen ondorioz, isuna atzera botatzea erabaki

zen. Baina, guk dakigunez, isuna ordaintzeko sartu zuen dirua ez zitzaion itzuli erreklamatzailerari, beraz, helburu horretarako ezarrita dauden prozedurak diseinatzeko eta gauzatzeko orduan hutsuneren bat dagoela pentsatzen dugu. Horrela, kexetako batean, Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun kexa hori sortu zuen zehapen prozedura artxibatu egin zela eta isuna ordaintzeko erreklamatzailerak sartu zuen dirua itzultzeko tramiteak hasi zituela. Halere, informazio hori jaso eta urte erdira jakin genuen Sailak ez zuela ezer egin. Sailak jarduera hura justifikatu zuen interesdunari ardura egotziz, hark ez zituelako bankuko datu batzuk eman, geroago, administrazioak ez zizkiola datu horiek eskatu jakin bagenuen ere. Bigarren kasuan, erabakia hartu zela jakinarazi zitzaigunetik zazpi hilabetetara bota zen atzera, eta gai horretan arreta berezia jarri ondoren.

\* \* \*

Arartekoaren herrizaingo saileko beste arloetan jaso ditugun kexei dagokionez, gehienbat, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Arrasateko, Bilboko, Donostiako, Irungo, Portugaleteko eta Gasteizko Udalen gainean izan dira.

Arlo honetan, hasteko, kexek poliziaren tratu desegokia eta polizia egoitzetatik kanpoko agenteen jardueretan indar gehiegi erabili izana salatzen da. Arrazoi horrengatik jaso ditugun kexa gehienak bi talde ahuletako pertsonen egin dituzte: etorkinak, batetik, eta adin txikikoak, bestetik. Erakunde honen ustez datu kezagarriak dira horiek.

Lehenengo taldeko pertsona batek bidalitako kexan azaltzen du goiz batean ertzain bat ikusi zuela bide publikoan, lurrian etzanda eta bilurrak ipinita zegoen magrebtar gazte bati ostikoka. Kontatzen du Ertzaintzako beste agente batzuek gertu zegoen kale batera eraman zutela gazte hura eta antzeko ezaugarri fisikoak zituen beste bat, eta han, lurrera bota ondoren, joka eta ostikoka aritu zitzaizkiela. Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun agenteek ustezko delitu bat egin zutelako atxilotu zituztela, eta barruan egin zen ikerketak ezin izan zuela hori ziurtatu, frogarik ez zutelako. Halere, Sailera zuzendu gara jakiteko, argibide ofizialen arabera, kexan agertzen den agente batek erabili zuen indarra txostenetan jasotzen den. Guk beharrezkotzat jotzen dugu hori, honako txosten honetan agertzen diren argibideei jarraituz: “Polizia-jarduerak jatorri atzerritarreko pertsonekin San Frantzisko aldean” (1998. urteko ohiko txostena). Txosten hori jarraian agertzen diren kexen aukeraketaren espedienteetan laburtu dugu, (1010/2004) eta egiaztatzen dugu agente batek lagun bat identifikatzean indarra erabili zuela ez dela jaso.

Hona hemen etorkinekin poliziak izan duen jardueraren gainean beste pertsona batek egindako kexa. Ikusten denez, pertsona horrek ez du etxebizitzarik eta Bilbon, Errekaldeko ubiaren azpian gaua pasatu behar izaten du. Erreklamatzailerak kontatu zigun Ertzaintzako hainbat agente leku horretara joan zirela, bere eta jatorri atzerritarreko beste hiru pertsona lo zeudela. Agenteek euren gauzak miatu zituzten. Euren poltsetatik bi telefono mugikor eta diru pixka bat atera zituzten eta, arakatzea amaitu zutenean, poltsak horma baten atzera bota zituzten. Azaltzen digute, halaber, euren gauzak berreskuratzea lortu zutenean, telefono bat eta dirua falta zela konturatu zirela eta gertuen zegoen Ertzaintzako komisariara joan zirela gertaera salatzerako. Erreklamatzailerak adierazi zuenez, han kasu egin zioten agenteak uko egin zion salaketa jasotzeari eta euren aurka irain xenofoboak eta mehatxuak esateaz gain, porrarekin jo zituen, handik alde egin zezaten. Adierazi zigun, baita, komisariatik atera ondoren, hasierako miaketak egin zituzten agente berak zubi azpian agertu zirela berriz ere, nahiz eta, kexa sustatu

duenaren esanetan, haiek han egoteko arrazoirik ez egon eta enbarazu egiteko asmoa soilik izan. Herrizaingo Sailari berriz ere laguntza eskatu diogu. Izan ere, kexa ikertzeko eskatuz egin genion eskaerari emandako erantzun gisa, hasiera batean informazioa jaso genuenean eta helburu horrekin egin zituen ikerketen eta horien emaitzen berri jakin ondoren, erreklamatazaileak salatutako gertaerekin inolako zerikusirik ez zuen gertaeren bertsio bat ematera mugatu zen. Bertsio horretan ez zen erreklamatazaileak plazaratutako hainbat arazoren gainean ezer adierazten, eta gertaerak administrazio honek berak kontatu bezala jazo zirela egiaztatzeko ziren hipotesi faktikorik ere ez zen agertzen.

Lapurreta bat egin zuela aitortzeari uko egiten ziolako, Ertzaintzak erasotzen eta jazartzen zuen pertsona baten kexa ere jaso du erakunde honek. Herrizaingo Sailari informazio gehigarria eskatu diogu, uste baitugu, hasiera batean bidali zigun informazioak ez dituela kexak jasotzen dituen arazo guztiak lantzen.

Etorkin bat atxilotu zen unean Bilboko Udaltzaingoak indarra erabili zuela salatuz kexa bat jaso dugu. Txosten hau amaitzeko azken egunean, Bilboko Udala kasu horren inguruan eskatu genion informazioa bidaltzeko epearen barruan zen oraindik.

2004. urtean atzerritar batek aurkeztutako kexa aipatu behar dugu orain. Haren ustez, Portugaleteko Udaltzaingoak jokaera xenofoboa izan zuen berarekin. Kexa hau jarraian agertzen den multzoan laburtu dugu (1494/2004).

Poliziak adin txikikoekin desegoki jokatzegatik jasotako kexen artean, lehenengo, aita batek egindakoa aipatu behar dugu. Hark salatu zuen Ertzaintzako hainbat agentek leku publiko batean semea eta haren lagun bat identifikatu zituela, lan batzuetan gertatutako lapurretan hainbat tresna ostu zituztela onartzera behartu zituela behin eta berriz eta, delituaren egileak zirela aitor zezaten, indarra erabili zuela. Baita ere salatu zuen agenteek ordubete baino denbora luzeagoz atxiki zituela bi lagun horiek eta lapurreta gertatu zen lekura eramane zituztela, antza denez, lapurretaren berri eman zuen pertsonak ezagutu zitzaizkien. Kexak dionaren arabera, gazteek ez zuten pertsona hori ikusi. Agenteei aurpegiratzen die adin txikikoen gurasoei ez zirela egoeraren berri eman euren jardura amaitu arte, eta gazteek euren familiarekin harremanetan jartzea iradoki zutenean, informazioa alderatzeko, itxura denez, informazio horrek errugabetu egiten baitzituen, ez zirela jaramonik egin. Azkenik, dienez, hurrengo egunean emaztearekin jardura hura salatzeko Ertzaintzaren komisariara joan zenean, arduradunak jardura hura egokia izan zela eta poliziak egindako atestatuaren edukia ikusten ez zirela utziko adierazi zien. Izan ere, erreklamatazaileak egiaztatu nahi zuen agenteek gazteak identifikatzeko eskatu zuten ordua hori zela eta ez beranduagokoa. Susmo hori zuten, beste estamentu ofizialetatik lortutako informazioa ezagutu ondoren. Txostena amaitu zen eguna baino lehen, Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Sailak gertaerak ikertzeko eta gai horri lotutako jardueren eta ikerketan ateratako emaitzen berri emateko egin genion laguntza eskariari ez zion erantzun.

Beste kexa batean, adin txikiko baten aitak Irungo Udaltzaingoak semearekin izandako jokaera salatzen zuen, semeak ziklomotore bat gidatzen zihoala, istripu bat izan, eta udaltzainak atxilotu eta komisariara eramane baitzuten poliziaren bereizgarriak zituen ibilgailu batean. Erreklamatazaileak salatzen zuen, halaber, antza denez, bi ordu baino gehiago iraun zuen atxilotetan zehar, gurasoek ez zirela semea non zegoen. Kexan adierazten denez, gertaera jazo zenean, agenteek gaztea jo zuten, bilurrak ipini zizkieten eta lurtean etzanda eduki zuten –bustita, euria ari baitzuen etengabe–, gorputzeko beheko zatia espaloian eta goiko zatia bidean zuela, inguruan zebiltzan autoetako batek

harrapatzeko arriskuan. Eta gazteari iseka egin zien. Hori guztia, adierazi zigunaren arabera, inguruan jokatu zen futbol partida batera zihoazen ehunka pertsonaren aurrean. Kexak ematen digun bertsioak dioenez, agenteek ez zioten gazteari informazioirik eman, hark zer gertatzen zen eta nora zeramaten argitzeko behin eta berriz eskatu zuenean. Interesdunak azaldu zigun poliziaren egoitzan semearengana joan zenean, egoera negargarrian aurkitu zuela, galtzak hondatuta, eskumuturrak larrugorrituta eta bilurren markekin. Hori guztia argazki baten bidez eta Osakidetzak emandako lesioen jakinarazpen batekin egiaztatu dezake. Onartzen du gazteak trafiko araudian jasotako administrazio arauen bat hautsi zuela. Baina poliziaren erantzuna neurrigabekoa izan zela irizten dio, eragotzi nahi zuena baino askozaz ere min handiagoa egin baitzuen. Bere ustez erantzun horrek erakusten du agenteek ezin izan zutela egoera kontrolatu eta adin txikikoekin gauzatzen den polizia jardueren arauak ezarritako bermeak ez zituztela inolaz ere kontuan hartu.

Adin txikikoaren aita kexu zen, halaber, ez gertaeretan parte hartu zuten agenteek eta ezta komisariako arduradunak ere ez ziotela azalpenik eman nahi izan gertatutakoa argitzeko asmoz poliziaren egoitzara joan zen aldietan. Jakin zuenaren arabera, agenteak semea salatu zuen, eta bere ustez, ez zen gazteak jokatu zuen moduagatik izan, agenteak, gaztea adin txikikoa zela konturatzean, oker jardun zuela-eta, bere burua modu erasokorrean babestu nahi zuelako baizik.

Txostena amaitu zen eguna baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak gertaerak ikertzeko eta gai horri lotutako jardueren eta ikerketan ateratako emaitzen berri emateko egin genion laguntza eskariari ez zion erantzun.

Gasteizko eskola bateko bi ikaslek erakundera jo dute aurten udaltzain batek eurekin izan zuen jokaera txarra salatzeke –euren ustez, gehiegizkoa eta neurrigabea–. Udaltzaingoak horietako bat atxilotu zuen, erresistentzia egiteagatik, desobedientzia larria erakusteagatik eta agentea iraintzeagatik, eta poliziaren egoitzara eraman zuten. Jarduera hori gazteak eskolarako bidean kalea gurutzatzerako orduan oinezkoentzako pasagunea ez zuelako errespetatu sortu zen. Gertaerak ikertzeko egin genuen eskariari erantzunez, Gasteizko Udalak adierazi zigun gazteen legez kontrako jokaeraren aurka poliziak jarritako atestatuaren ondotik zetozen eginbide penalek baldintzatu zutela jarduera. Hori dela eta, gaiaren inguruko gure jarrera berriz ere azaldu behar izan genuen honako gomendio orokorrean: “Polizia kidegoek kontrol-tresnak ezartzeko beharra, agenteek izan ditzaketen bidegabeko jardueren aurrean” (Eusko Legebiltzarrerako egin zen 2003. urteko ohiko txostena, VI. Kapitulu). Horrekin ulertu behar da kexa bat eragiten duten gertaeren gaineko eginbide penalak egotea ez dela eragozpen ez gertaera horiek ikertzeko ezta salatutako poliziaren jarduera diziplina aldetik aztertzeke ere, edota jarraitu beharreko jokabidea aintzat hartzen diren ikusteko. Gainera, dauzkagun datuen arabera, jurisdikzio penalaren ardurapeko gertaerak eta kexa eragin dutenak ez datozela guztiz bat uste dugu, izan ere, antza denez, hor erreklamatzailleetako baten jokabidea epaituko zen, agenteek egindako akusazioari zegokionez, eta ez agenteek gazteen esanetan eman zieten tratu desegokia, kexek aurkezten zuten arazoa, hain zuzen. Horregatik, berriz ere Udalaren laguntza eskatzen dugu salatutako gertaerak iker ditzan eta horien berri eman diezagun. Lau aldiz eskaera egin dugun arren –hiru formalki eta bat udaltzaingoaren egoitzara egin genuen bisitaldi batean, atxilotuen ziegen eta udal gordailuen egoerari buruzko txostenaren jarraipena egiteko orduan–, txostena amaitzeko egunaren aurretik ez genuen informazio berri hori lortu.

Agintaritzako agenteen aurrean desobedientzia edo erresistentzia erakusteagatik salaketa egiteko arrazoia honakoa izateak kezka sortzen digu: agenteak konturatzea poliziaren jardura horretan nahastuta dagoen pertsonarentzat jardura hori kexa edo salaketa egiteko arrazoia izango dela, edo pertsona horrek agenteen jardura zalantzan jarri edo kritikatu dezakeela. Gure ustez, aurreko bi kexen atzean dagoen arazo hori, beste hainbatetan oinarritu dugun bezala, aurten Ertzaintzaren aurka jaso dugun kexa batean azaleratzen da. Kasu horretan, agenteek erreklamatzailerak –absolbitua geratu zena– arrazoi horientzat salatzen zuten, hots, salaketa jarri zuen agenteari trafikoko jardura baten zergatia azaltzeko eskatu ziolako soilik. Jarraian azaltzen dugun Portugaleteko Udaltzaingoaren aurkako kexan ere arazo hori sortzen da (1494/2004).

Bi kexa horien atzean beste arazo bat dago, erakundeak aspalditik gogora dakarrena: zenbait atxiloketa, hasiera batean, hori justifikatzeko adinako garrantzia penalik ez duten jokabideengatik egiten dira.

Hori dela eta beharrezkoa da horrelako jardueri aurre hartzeko bitartekoak indartzea, “Jatorri atzeritarra duten pertsonekin gauzatzen diren polizia jarduerak San Frantzisko aldean” txosteneko 8. e) gomendio berezian aipatzen den bezala (1998. urteko ohiko txostenaren I. Kapituluak).

Aurten, erreklamatzailerak tartean zegoen trafiko gertakari batean Arrasateko Udaltzaingoak izandako jardura bat eduki dugu esku artean. Herri horretako Udalera jo genuen kexa sustatzaileari agenteek emandako tratua egokia zen ikertu zezan eskatzeko, xede horretarako, lehenago aipatu dugun gomendio orokorrean agertzen diren arauak jarraituz, eta partikularren berri eman ziezagun. Udalak eman zizkigun azalpenetatik ondorioztatu genuen egindako ikerketa ez zetorrela bat aipatutako gomendioarekin, izan ere, ulertu genuenez, egin zuen bakarria izan zen gai hartan sartuta zeuden agenteen bertsioa, erreklamatzailerak emandakoarekin inolako zerikusirik ez zuena, eskuratzea eta ondorioztatzea bertsio horretan bakarrik oinarrituz eta kexak agertzen zituen arazoaren gutxienezko balorazioa egin gabe, polizia jardura egokia izan zela. Horregatik, Udalarari behin eta berriz azaldu genion gomendioaren edukia, hori kontuan har zezan, eta adierazi genion gertaeran parte hartu zuten agenteen ikerketa jasotzea ez zela nahikoa haien jardura legezkoa izan zela egiaztatzeko, eta kexa sustatzen duenak ematen duen bertsioa eta agenteena desberdina izateak ezin duela justifikatu kexa hori eragin duten gertaerak azaltzeko ikerketa gehiago ez egitea. Txostena amaitu zen eguna baino lehen ez genuen Udalak emandako informaziorik jaso.

Urteko urtera jabetzen gara agente baten jardura desegokiaren berri jakiten dutenean polizia arduradunek, sarri, agenteen bertsioa bakarrik ikertzen dutela, bertsio hori ontzat ematen dutela eta egoki jardun zutela ondorioztatzen dutela, gertaeran parte hartu duten agenteek salatutako gertaeren gainean emandako azalpenak soilik kontuan hartuta eta polizia jardueraren gainean kexa jarri duenak azalduzko arazoei buruzko baloraziorik egin gabe.

Azken urteetan, Portugaleteko Udaltzaingoaren jardueraren gainean jaso ditugun bi kexetan jarri da jokamolde desegoki hori agerian. Jarraian datorren multzoan ematen da zehatzago haren berri (1494/2004). Jokamolde hori bera erakusten da baita 2004an Bilboko San Frantzisko auzoko bi lagunek aurkeztu zituzten kexa batean, Ertzaintzak alderdi hartan izan zituen bi jardueren inguruan. Urte horretako txostenean jasotzen da kexa, eta ikerketa ofizialak ez du lortu jardura horien egokitasunaren gainean erreklamatzailerak egindako adierazpenek erakunde honetan sortu zituzten zalantzak argitzea.



Hori dela eta, berriz ere polizia arduradunei eskatzen diegu arestian aipatutako gomendio orokorra bete dezatela eta proposatzen diegu gai horretan jarduera protokolo garbiak eta zehatzak ezartzea komenigarria dela, tresna horiek jarduteko era zuzentzeko baliagarri izan daitezten.

Azaldutakoan argi geratzen denez, aurten poliziaren neurrigabeko jarduera dela-eta jaso ditugun kexak polizia egoitzetatik kanpo gertatu diren parte-hartzeen ingurukoak dira. Horiei buruzko informazio iturri gutxi daudenez, testu hartan proposatzen genituen kontrol mekanismoen modukoak bereziki beharrezkoak dira arlo honetan.

2005. urtean, datu pertsonalak baliogabetzearekin lotutako beste kexa bat jaso dugu, Portugaleteko Udaleko polizia arloan kokatzen dena. Erreklamatazaileak adierazi zigun Udalak ez ziola erantzunik eman datuak baliogabetzeko ia urtebete lehenago udal bulegoetan egin zuen eskaerari. Udalak jakinarazi zigun eskaera etenda gelditu zela Udaltzak gai horretan jarduera protokoloa ezarri arte. Hori dela eta, gogorarazi genion, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 16. artikulua, Datu Pertsonalak Babestekoak xedatu bezala, erreklamatazaileari hamar eguneko epean erantzun behar ziola, eta protokolo bat egiteak ezin zuela legeak ezarritako betebeharrak hori gauzatzeko baldintzatu, eta adierazi genion hori atzerapenik gabe behar zuela. Bigarren laguntza eskaera honi erantzun ziezaien, hiru errekerimendu gehiago egin genizkionean, Udalak jakinarazi zigun azkenik, erreklamatazailearen eskaerari irtenbidea bilatu ziola, izan ere, aipatutako datuak baliogabetzea onartu zuen eta baliogabetze akordia egin zuen. Eman zigun informazioaren arabera, kexaren sustatzaileak eskaera aurkeztu eta urtebete eta erdira eman zuen erantzuna Udalak.

Urte honetan zehar esku-hartzeko ditugun aukerak amaitutzat eman ditugu 2003. urtean tramitatzen hasi dinen kexa batean, ez baitugu lortu Herrizaingo Sailak gure jarrera onartzea. Kexa hori ere gai honen ingurukoa da, Ertzaintzak eskuratu zituen adin txikiko baten datu pertsonalekin zerikusia duena, alegia. Aipatu polizia kidegoak duen argazki-albumean bereziki gordetzen den kexa sarrera honen atzetik datorren aipamenean laburtu dugu (1186/2003).

Gazte batek aurkeztutako kexa azaldu behar dugu jarraian. Ertzaintzako agenteek izandako jarduera batean, trafikoko arau bat hautsi zuela-eta gidatzen zuen ibilgailua geldiarazi zioten. Gazteak susmoa du jarduera hori bere ADNren perfila zehazteko eta biltzeko aukera emango zuten lagin biologikoak lortzeko egin zela.

Kexa sustatzaileak susmo hori izateko arrazoiak honako hauek ziren: agenteek bere datu pertsonalak ezagutu zituztenean, autoa miatu zioten eta barnean zeraman ur botila bat hartu zuten, hasiera batean, itzuli nahi izan ez ziotena. Alkoholemia proba bat ere egin zioten –emaitza negatiboa izan zuena–. Horretarako, han ez zegoen ekipoari deitu behar izan zioten, eta proba egiteko erabili zituen alkoholometroaren ahokoak itzultzerak behartu zuten, ahoko horiek gorde nahi zituela argi eta behin eta berriz adierazi bazien ere.

Egin genuen lehenengo laguntza eskaeraren gainean Herrizaingo Sailak eman zizkigun argibideek, azaldutako arazoa baloratu ahal izateko eta iritzi bat osatzeko beharrezko genuen elementurik ez genuen lortu. Izan ere, kexa ikertzeko barneko prozeduran, interesdunak partikularren gainean emandako bertsioaren berri besterik ez ziguten eman, alderi hori ez zutela aintzat hartuko adierazi ziguten eta gogorarazi ziguten ADN probak lortzea kontrol judizialaren barruan sartzen dela.

Sailari aipatu erantzunarekin ez geundela ados adierazi genion, hain zuzen ere, erreklamatzailleak agenteek arlo hau arautzen duten garantia sistema agian ez zutela errespetatu adierazi nahi baitzuen. Hori horrela zela pentsatzeko arrazoiak jakinarazi genituen arren –jakin genuenaren arabera, erreklamatzailleak, geroago, gertaerak argitzeko gauzatu zen barneko ikerketan azaldu zituen–, horietatik bat bera ere ez zen aintzat hartu txosten ofizialean.

Hori dela eta, kexak mahai gainean jartzen zituen arazoei buruzko informazio zehatza emateko eskatu behar izan genion berriz ere. Jakin nahi izan genuen, halaber, agenteek interesdunaren ibilgailua miatu zuten, barnetik ur botila hartu zuten eta alkoholemia proba egiterakoan erabili zituzten ahokoak itzultzera behartu zuten. Horrez gain, agenteek kexaren sustatzaileak azalduzako eran jokatu bazuten, eskatu genien azaltzeko zergatik egin zuten, ibilgailua miatu zutela jakinarazi zuten, Agintaritzza eta Kontrol Zentroan gertaeren berri eman zuten eta jarduerak eta horiek bultzatu zituzten arrazoiak txostenetan jaso zituzten. Alkoholemia probetan erabiltzen dituzten ahokoak berreskuratzearen inguruan Ertzaintzako agenteek jarraitzen duten jarduera protokoloari buruzko informazioa eskatu genuen.

Bestalde, Herrizaingo Sailak erreklamatzailleari alkoholemia proba egitea justifikatzen du, esanaz trafikoko arauen bat hautsi zuela eta araudiak –azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren 21. artikuluko c) letrak, zehazki– arauak hausteagatik salatutako pertsonen probak egitea agintzen duela. Horrekin ez gentozen bat, izan ere, aipatu agindu horrek trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzako agenteak ez ditu behartzen alkoholemia proba egitera, trafikoko arauen bat hausteagatik salaketa egiten duten aldiro; aitzitik, aukerako ahalmena besterik ez die ematen. Guk dugun informazioaren arabera, agenteek ez dute trafikoko arauen bat hausteagatik derrigorrezko salaketa jartzen duten aldiro automatikoki alkoholemia proba bat egiten. Informazio ofizialaren arabera, kexarekin zerikusia duten agenteak, arau horiek betearazteko, baina proba horiek egiteko ekiporik ez zuten kontrol zerbitzu batekoak ziren. Hori horrela izanda, Sailari eskatu genion Ertzaintzak gai honetan jarraitzen duten jarduera protokoloa zein zen argitzeko eta interesdunari proba zergatik egin zitzaion azaltzeko. Txostena amaitzeko eguna baino lehen ez genuen informazio hori jaso.

Aurten jaso ditugun bi kexek agerian jartzen dituzte, batetik, Ertzaintza eta Bilboko Udaltzaingoren arteko lankidetzan eta bestetik, SOS-Deiak Larrialdietarako Koordinazio Zentroaren, Gasteizko Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren lankidetzan dauden hainbat akats. Bi kexa horiek jarraian datorren multzoan laburbildu ditugu (489/2005 eta 530/2005, hurrenez hurren).

Beste kexak batek Donostiako Udaltzaingoak erreklamatzailleari egindako zitazio baten edukiarekin zerikusia duten arazoak azaltzen ditu. Zitazio horretan erreklamatzailleari epaiketa azkar batean inputatu bezala parte hartzeko eskatzen zitzaion, kidego horretako agenteek euren aurka egin zuen delitu baten egilea zela salatzen baitzuten. Kexaren sustatzaileak zioenez, zitazioak, batetik, ez zituen egotzitako gertaerak zehazten eta, bestetik, epaiketara lekukoak edo beste edozein frogar eman zitzaieela ere ez zuen jakinarazten. Horrek zitazioari fidagarritasuna kentzen zion, bere ustez. Txostena itxi aurreko eguna baino lehen ez genuen herri horretako Udalarari eskatutako informaziorik jaso.

Jaso ditugun kexa batzuk azaltzen dute Bilboko eta Donostiako Udaltzaingoak ez direla sartzen “kale edanak” sortzen dituen eragozpenetan. Dena den, bi kasuetan

polizietako arduradunek kexek agertzen zuten problematika konpontzeko irtenbideak aurkitu zirela argitu ziguten arren, herritarren oraindik eragozpenak ez zirela joan adierazi ziguten. Horrenbestez, bi Udaletara jo genuen berriz ere. Informea itxi aurreko eguna baino lehen ez ziguten berriz eskatutako informazioa eman. Beste kexetan, Bilboko Udalarari eskatu genion informazioa jasotzeko zain gaude.

Polizia agenteek, legeak eskatzen dituen bermeak errespetatu gabe, kalez kaleko salmentako diren salgaiak badaezpada konfiskatzea erabaki izanak kexak sortu ditu aurten ere, Donostiako Udaltzaingoa izandako jarduera baten harira.

Kexa egin zuen pertsonak gure parte-hartzea eskatu zuen, izan ere, polizia kidego hark, bide publikoan kalez kale saltzen ari zela, agenteek eskuz egindako arropak konfiskatu zizkioten badaezpada, eta horiek itzultzea nahi zuen. Azaldu zigunaren arabera, gauzak konfiskatu eta bi egunetara, Donostiako Udalean bi idazki aurkeztu zituen gauzak itzultzeko eskatuz, baina bi eskarietatik batek ere ez zuen erantzunik jaso, eta konfiskatutako gauzarik ere ez zioten itzuli. Erreklamatzailerak eman zigun esku-hartze Aktaren kopia eta Udalaren informazioa aztertu ondoren, iruditu zitzaigun, erreklamatzailerari beharrezko baimenik gabe saltzen ari zelako soilik konfiskatu zizkiotela gauzak, eta beraz, poliziaren esku-hartzeak ez zuen aintzat hartu honako gomendio orokorra: "Baimenik gabe kalez kale egiten den salmentarekin zerikusia duen polizia jarduera" (1998. urteko txostenaren VI. Kapituluua). Aipatu gomendio orokorrean azaldu genuen bezala eta 2003. urteko txosten batean, Arartekoaren herrizaingo saileko kexa multzo batean (490/2003) jasotzen den gomendio baten bidez Udalarari adierazi genion bezala, gure ustez, gisa horretako jarduera bat ez dator bat maiatzaren 27ko, 7/1994 Legeak, Merkataritza Jarduerarenak xedatzen duenarekin. Lege horrek ez du salgaiak konfiskatzeko aukerarik ematen, beharrezko baimenik gabe saltzen denean.

2003. urteko kexa hori aztertu genuenean, ohartu ginen, gainera, gai hori arautzen zuen Donostiako Udal Ordenantza aipatu Legea baino lehenagokoa zela eta horren aurka zihoazen arauak zituela. Gure ustez, Udaltzaingoa Legeak xedatutako araubide juridikoaz jabetu ez izana arazoaren muinean egon daiteke. Egiaztapen horrek ofiziozko jarduera bat hastera eraman gintuen, Udalak Ordenantza egokitu zezan. Udalak 2004. urtean aipatu arazoak konponduko zituen beste xedapen bat egiteko prozedura hasiko zuela jakinarazi bazigun ere, urte hauetan egindako jarraipenetik ondoriozta dezakegu prozedura hori oraindik ez dela amaitu. Horregatik, aurrekoetan agertzen zen problematika bera azaltzen duen kexa bat jasotzean, beharrezkotzat jo dugu udal administrazio horrengana berriz zuzentzea, egiten ari den araudiaren tramitazioa zertan den jakinarazi dezan. Erakunde honen iritziz, araudi hori ahalik eta azkarren onartzea beharrezkoa da, agenteek Ordenantzaren aginduak gehiago ezar ez ditzaten, horietako batzuk aipatutako Legeak hartutako erabakien aurkakoak direla kontuan izanda.

Jarraian agertzen den multzoan (1494/2005) laburbildutako kexak aztertzean, konturatu ginen Portugaleteko Udaltzaingoa izan zuela azaldu berri dugun jardueraren antzeko bat eta maiatzaren 27ko, 7/1994 Legeak, Merkataritza Jarduerarenak xedatzen duenaren aurkako. Kasu horretan ere ohartu gara saltzaileak baimenik ez zuelako soilik erabaki zutela agenteek salgaiak konfiskatzea.

Nabarmendu nahi dugu beharrezko dela agenteek legeak aurreikusitakoa betetzea eta agenteek aipatutako gomendio orokorraren edukiarekin bat jardutea.

Pasa den urteko eta lehen aipatutakoez gain, 2005. urtean beste kexa bat jaso genuen, delitu bateko biktima, hain zuzen ere, internet bidez egindako maula baten

biktima izan zen pertsona baten salaketa jaso nahi izan ez zuelako Ertzaintzak. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak gertaerak argitzeko egindako ikerketak ezin izan zituen gertaerak egiaztatu, frogarik ez zuelako. Izan ere, gertaera horietan zuzenean parte hartu zuten agenteek salaketak jasotzeari ez ziotela uko egin esan zuten. Iruditzen zaigu erreklamatzailerak azaltzen dizkigun jarduerak saihesteko eta ustezko delitu bateko biktimak babesik gabe daudela sentitzea eragozteko, kexako kasuan gertatzen zen bezala, Sailak Ertzaintzako agenteei, batez ere kexarekin zerikusia dutenei, zein betebeharrak dituzten jakinarazi beharko lieke, ustezko delituzko gertaeren gaineko salaketak jasotzean, gertaera horiek ikertzean eta horien berri agintaritzak judizialari ematean (Auziperatze Kriminalaren Legeko 269, 282 eta 284 artikulua).

Ekainaren 29an, San Martzialetak Alardeko itxurazko artilleria deskargak izan zirenean, pertsonen eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko Irungo Udalak hartu zituen neurriak egokiak izan ziren ere aztertu dugu. Udalari informazio gehiago eskatu behar izan diogu, izan ere, gure ustez, hasiera batean eman zigun informazioak ez zituen azaldu genizkion arazoak behar bezala jorratzen eta beraz, ezin genuen kexak agertzen zuten arazoaren aurrean ondo oinarritutako jarrerarik hartu.

Erakunde honek urte amaieran jakin zuen Langraiz Okako hainbat leku publikotan idazki bat jarrita zegoela, non 2004. eta 2005. urteetan Gasteizen dagoen Zabaltzen adin txikikoen zentroan Ertzaintzak egin zituen hainbat jardueren berri ematen zen. Antza denez, herrian zentro berri bat jartzeko trabak jarri zituen. Orri horretan esku-hartze horien inguruan datu zehatzak ematen ziren, hala nola, polizia jardueraren zenbakia, eguna eta arrazoia. Horrez gain, eskuz idatzitako honako testu hau agertzen zen orri horretan: *“Hona hemen Ertzaintzak adin txikikoen zentroan izandako jarduera batzuk, herrian inposatu nahi dizkigutenak, gure alkateak “oraingoz” jarduera hasteko baimena baztertu nahi ez duelako. Zergatik? Guztiok horren aurka bagaude. Jarduera gehiago ere badaude noski, ia egunero eta Udaltzaingoarenak bakarrik falta dira”*.

Gertaera larri horren aurrean, eta horrelako informazio zehatza Ertzaintzak berak edo datu horietara sarrera duen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko beste instantziaren batek bakarrik lor dezakeela kontuan izanda, Sail horrengana zuzendu ginen barneko ikerketa prozedura bat hasi zezan, informazio hori bere ingurutik zetorren argitzea eta arduradunak zein ziren azaltzea komeni zelako.

Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun Langraiz Okako Alkateari zuzenduta zegoen orriaren agertzen zen informazioa eman zuela, hark egindako eskaera bati erantzunez. Horrez gain, Udalari bidali zion komunikatuaren kopia ere igorri zigun. Txosten horren eta eskegita zegoen orriaren arteko kontrasteak orria idazki hartako zati baten kopia zela egiaztatzeak aukera eman zigun.

Hori ikusita, Langraiz Okako Udalerari jo genuen, barneko ikerketa bat egin zezan, informazio hori Udaletik bertatik zabaldu zen argitzeko helburuz.

Txostena ixteko egunean oraindik informazio horren zain gaude, arazo horren inguruan gure jarrera azaldu ahal izateko.

Urtearen azkenean, amaiera eman behar izan diogu 2001. urteko lehenengo egunetan hasitako kexa espedienteari. Kexa Ertzaintzak Galdakaoko emakume bati jarritako isunak sortu zuen, 1997. urtean legez kanpoko “kontramaneifestazio” batean parte hartu omen zuelako. Erreklamatzailerak hasieratik argudiatu zuen egun hartan ez zela herrian izan, baina egun hartan Alacanteko herri batean zegoela egiaztatzen zuten txostena ez zuen aurkitu, eta isuna irmoa izan osterara arte.

Espedientearen azterketan –Herrizaingo Sailei eskatu zitzaionean–, hainbat jakinarazpenetan irregulartasunak eta Ertzaintzak egindako kargu proban hutsune nabarmenak atzeman ziren. Bestalde, arartekoa esku hartzen hasi zenean, prozedura betetzeko bidean zegoenez, Sailak arazoa konpondutzat ematen zuen beti eta kasua berriz aztertzeari uko egiten zion.

Kexa tramitatzeko orduan jorratu diren hainbat alderdi alde batera utzita, polizia ikerketa nola egin zuen aztertuko dugu soilik. Espedientearen adierazten denez, agenteek isuna jaso zuten lagunak ezagutu zituzten gertaerak jazo ziren lekuan, baina berez han ez zen identifikaziorik egin eta manifestazioa bidez grabatu ondoren hainbat funtzionariok ikusitakoa oinarri hartuta egin ziren inputazioak. Arazoa da inork ez dakiela ustezko ezagutze horiek nork egin zituen. Izan ere, atestatuan operatiboaren agente arduradunak egindako agertze-akta bakarrik jasotzen da. Hor, Ertzaintzak ikusitako gertaerak deskribatzeaz gain, honako hau adierazten da: “*Lanean ari ziren Agenteeek ezagutu zituztenen eta pankartak eta kartelak zeramatzatenen zerrenda honako hau da*”. Jarraian bederlatzi izen biltzen dituen zerrenda bat agertzen da, euren NAen zenbakiekin eta helbideekin. Bistakoa da akta izenpetu zuen agentea ez zela izan manifestatzaile guztiak aurrez aurre ezagutu zituena, eta horiei buruzko datuak ez zirela berak egindako adierazpen espontaneoetatik atera.

Atzeman den irregulartasuna larria da. Izan ere, ebazpen desberdinetan aipatzen den kargu-proba bakarra agente horren adierazpena da, eta bera da inputatutako lagunek egindako alegazioen aurrean egindako adierazpenak berresten dituen. Jokamolde hori gutxienez errealitatea faltsutzea dela iruditzen zaigu, eta ondorioz, arau-hausleentzat bermeak gutxitzeaz gain, benetan salaketa jartzen duten agente baten erabateko ardura horren adierazpenak benetakoak diren egiaztatzerik ez duen beste ertzaina batengana igarotzen da.

Oro har, iruditzen zaigu aipatutako funtzionatzeko modua ohikoa bada, aldatu egin beharko litzatekeela. Gure ustez, arau-hauslea bidez egindako grabazio batean ezagutzen denean edo identifikazioa gertaerak jazotzen diren unean egiten ez direnean, atestatuan zehatz-mehatz adierazi beharko litzateke identifikazioa nola egin den (argazki-fitxak alderatuz, arau-hauslea ezagutzen duten agenteen testigantza bidez eta abar) eta zenbaterainoko segurantzaren duen.

Dena dela, Herrizaingo Sailak, bi urteko atzerapenarekin emandako erantzunean ez da azaldutako problematika aipatu ere egiten eta okerreko praktika ere onartzen. Jakinarazpenetan ere ez da akatsik ikusi, eta azkenean ez dugu jakin –nahiz eta berariaz galdetu– egun horretan egindako grabaziorik existitzen zen edo zigortutako lagunei hori ikusteko aukerarik ez zitzaien eman.

Gai horrek agerian jartzen du, berriz ere, Herrizaingo Sailak ez duela erakunde honen helburuak lortzeko laguntza handirik eman eta poliziaren zerbitzua hobetzeko aldaketak bultzatzeko inolako asmorik ez duela izan.

Babesik gabeko egoeran dauden adin txikiko atzerritarrei polizia kidegoek emandako tratuan ikusi ditugun disfuntzio batzuk ofizioz esku-hartzera eraman gaitu, gai horren inguruan Ertzaintzak eta hiru hiriburuetako udaltzainek nola jokatzeko duten ezagutzeko helburuarekin, horrela, lortzen ditugun datuetatik abiatuz, gure lana bideratzeko aukera izango baitugu.

Aurten honako gomendio orokor honen jarraipen-jarduerak egin ditugu: “Euskal administrazio publikoaren agindupean dauden polizia kidegoek immigrazioari buruz

ematen duten informazioaren trataerarekin lotutako jokaera kodeak izan behar dituzte”. Hori 2004ko ohiko txostenean sartzen dugu (VI. Kapitulua).

Bi esku-hartze horien berri bereziki atzerritarrei eskainitako atalean eman dugu.

Aipamen hau ez dugu amaitu nahi arlo honetan Arartekoari bidali behar izan dizkiogun kexak idatzirik utzi gabe. Izan ere, horiek bere ardurapean zeuden gaiak azaleratzen zituzten, batez ere, Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren jarduerekin eta Nortasun Agiriarekin zerikusia zutenak.

Azkenik, trafikoaren atalarekin egin dugun bezala, arlo honetan lan egiteko izan ditugun eragozpenak aipatu nahi ditugu. Kasu honetan ere, oztopoak gure administrazioek ardurapean dauden arazoei erantzun sendo bat eman ahal izateko behar dugun informazioa ez digutelako ematen sortzen dira, edo egindako balorazioei ez dietelako erantzunik ematen. Horrek administrazioak gai horren aurrean duen jarrera zein den jakitea eta jarrera hori hartzeko arrazoiak ezagutzea eragozten digu eta gure jardura amaitutzat jotzera behartzen gaitu, azken kasuan bezala. Horrekin ulertzen dugu gure gomendioak ez direla aintzat hartu.

Arazoak garrantzia du kexa sortu duen polizia jardura egokia izan den argitu nahi denean, izan ere kasu horietan ezinbestekoa da azkartasunez ikertzea, salatutako gertaerak argitu ahal izateko.

Arazoi horregatik jaso genuen kexa espediente bat aipatu nahi dugu orain, 2004. urteko txostenean jasotzen dena eta Ertzaintzako bi agentek egindako jardura batekin zerikusia duena. Horiek atzerritar bat miatu eta biluztu zuten Bilboko San Frantzisko auzoko atalondo batean. Aurten ez dugu lortu Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak lehengo txostenean aipatzen zen informazioa ematerik, beste hiru errekerimendu eta ohartarazpen bat bidali dizkiogun arren. Sail horrek modu guztiz formalean erantzun du eta hamabost hilabete lehenago informazio gehiago eskatzera bultzatu gintuzten azalpen berak eman ditu.

Beste batzuetan, hasieran ematen zaigun informazioa ez da nahikoa, izan ere, kexa sortu duen jardura gure kabuz baloratzeko behar ditugun gutxieneko argibiderik ez digu ematen. Hori gertatu da aurten, adibidez, atal honen hasieran aipatu ditugun kexetan: poliziak etorkin bati egindako erasoan, Ertzaintzak legez kanpo lagin biologikoak eskuratu zituenean eta Bilboko Errekalde zubiko polizia jardueran. Horietan aipatu den bezala, gai horien inguruan Herrizaingo Sailak emandako lehenengo erantzuna kexa eragin zuten gertaerak ukatzera mugatu da. Horrek berriz ere informazioa eskatzera behartu gaitu, lehenengo kasuan, hiru alditan. Gasteizko Udaltzaingoak bi gazterekin izan zuen jardueraren aurkako kexan, lehenago azaldu dugunean, Udalak hasiera batean eman zigun informazioa ez zetorren bat eskatu genionarekin. Lan egiteko modu horrek beste laguntza eskaera bat bidaltzera behartu gintuen. Txostena ixteko egunaren aurretik ez genuen erantzunik jaso, ordurako lau aldiz eskaera egina bagenuen ere.

Antzeko arazoekin topo egin dugu 2004. urtean tramitatzen hasi ginen kexa batean. Kexa horrek Ertzaintzaren komunikabide ofizialen eremuan datuak babestearekin lotura zuten arazoak azaleratzen zituen. Gure eskaerari ez erantzuteagatik errekerimendu bat bidali ondoren, Herrizaingo Sailak eman zigun lehenengo informazioa ez zetorren bat guk azaldukoarekin. Horrenbestez, beste eskaera bat eta hiru errekerimendu egin genizkion, oinarri sendoagoa zuen erantzun bat jaso nahian.

Donostiako Udalarekin egoera bera jasan genuen, kalez kaleko salmentarekin zerikusia zuen kexan. Izan ere, informazioa eta bi errekerimendu eskatu ondoren,

eman zigun erantzunak ez zuen gertaeren gaineko informaziorik ematen, eta Udalak ez zituen aintzat hartu gure ustez bere jarduera legez kanpoko izateagatik bidali genizkion gomendioak.

Datu pertsonalak babestearekin zerikusia duen kexan, lehenago aipatu dugun eta jarraian datorren multzoan (1186/2003) agertzen den kexan, alegia, Herrizaingo Sailak ez die guk egindako galdera guztiei erantzun. Informazio gutxi izateagatik, gaiaren balorazio murrizta egin behar izan dugu. Balorazio horrek ere ez du erantzun ofizialik jaso.

Gai honekin zerikusia duen beste kexa batean, Sailak bi urte behar izan ditu honako bi informazio sinple hauek emateko: batetik, adin txikiko baten datu pertsonalak baliogabetzeko prozedura baten emaitzen gaineko informazioa eta bestetik, sortu zen arazoarekin lotuta Ertzaintzako agenteei agindu berezi batzuk eman zitzaizkien jakiteko informazioa.

Aurreko urteetan, trafikoko bi gertaeren harira Ertzaintzak izandako jardueraren aurkako bi kexekin jokatzeko modua ere nabarmendu behar da. Erakunde honek eskatu zuen informazioa ez da aintzat hartu edo izugarritzko atzerapena izan du, eta beraz, gure esku-hartzea ez da inolaz ere eraginkorra izango.

Antzekoa gertatu zen Bilboko San Frantzisko auzoan Ertzaintzak izan zuen jardueraren aurkako kexa batekin edo, lehen aipatu dugun bezala, legez kanpoko manifestazio batean parte hartzeagatik Herrizaingo Sailak jarritako isunaren aurkako beste batekin.

Azkenik Portugaleteko Udalaren jardueraren aurkako kexa aipatu behar dugu. Kexa horrek, lehen azaldu dugun bezala, datuak baliogabetzearekin du zerikusia. Hasiera batean eskaera bat egin genuen. Udal administrazioak eman zigun informazioa desegokia zenez, eskaera berriz egin behar izan genuen. Azkenik, hiru errekerimendu behar izan genituen hasiera batean eskatu genuen informazioa lortzeko. Kasu hau deigarria da benetan, kexak azaleratzen zuen arazoa erreklamatazailleak egindako eskaerari Udalak erantzunik eman ez izana baitzen.

\* \* \*

2005. urtean, erakunde honek eskutitz eta mezu elektronikoko asko jaso ditu, erakunde terroristak batekoa izatea edo hari laguntzea leporatuta inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen jasan dituzten torturak eta tratu txarrak salatuz. Mezu gehienak Santurtziko Torturaren Kontrako Taldeak bidalitakoak dira –lagun horien familiak hiru aldiz bakarrik zuzendu dira erakundera– eta arartekoak ezin izan du batean ere esku hartu, informatzea soilik xede duten kudeaketak kenduta. Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak egindako atxiloketak dira, eta epaitegi bat baino gehiagotan eman zen kasu guztien berri. Horregatik herritarren eskubideak babesten dituzten erakundeek ezin izan zuten esku hartu.

Egoera horrek ez du eragozten, ordea, erakunde honentzat tortura oraindik kezkatzeko arrazoia izatea, gizakiaren eskubideak larri urratzea baitakar. Hori dela eta, arartekoak gai honen inguruan, 2004ko azaroaren 21ean egin zuen adierazpen publikoa berresten du, haren edukia erabat indarrean dagoela uste baitu.

Ildo beretik, eta poliziaren zerbitzu publiko ikuskatzeko arartekoak duen funtzioa Euskal Poliziaren jarduerara mugatzen denez, komeni da 2002. urtean Ertzaintzak

egindako atxiloketen gainean egindako bi kexa aipatzea. Poliziaren egoitzan egindako deklarazioetan, hiru gaztek beste bat inplikatu zuten, delitu jakin batzuen egile gisa. Ondoren egiaztatu zen parte-hartze hori ezinezkoa zela erabat. Ukatu ezin daiteken koartada bat egoteak galderak sortzen ditu hiru atxilotuen deklarazioak –faltsuak argi eta garbi– izan ziren baldintzen inguruan. Horiek epaiketan tratatu txarrak jasan zituztela salatu zuten. Txosten hau idazten ari garen unean, gai honekin lotuta Eusko Jaurlaritzako Sailari eskatutako datuen eta informazioaren zain gaude.

## 7. 2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Ertzaintzak ez du txostenean jaso identifikazio batean indarra erabili izana (1010/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek gure erakundera jo zuen Ertzaintzako bi patruilek semeari eman zioten tratua kexatzeko –bata uniforme jantzia, bestea uniformerik gabe–, hura lagun batekin Bilboko San Frantzisko auzoan gauez etxerako bidean zihoala.

Adierazi zigunaren arabera, uniformerik ez zeraman patruilako agente batek gaztea aurpegian jo zuen eta lurrera bota zuen, ondoren behin eta berriz jo zuen, beste agentea ezer egin gabe begira egon zela. Agente horrek eskatuta, uniforme jantzita leku hartara joan zen patruilak, kexa sustatzailearen iritziz, giroa oraindik gehiago gaitzotu zuen, patruila hark lagun taldea miatu eta honelako adierazpenak egin baitzizkieten “*Zu zara buruzagia* ” eta “*Eman daramazuen guztia*”.

Erreklamatzailerik onartzen zuen uniformerik ez zeraman patruilak lagun taldeari identifikatzeko eskatu zionean, seme hasiera batean eragozpenak jarri zituela. Baina, adierazi zigunez, horrela jokatu zuen Ertzaintzako kideak zirela ez zelako konturatu, haiek identifikatu zirenean telefono mugikor batetik hitz egiten ari baitzen.

Interesdunaren ustez, gaztearen hasierako jokaerak ez du poliziak geroago eman zuen erantzuna justifikatzen.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak egin genion eskaeraren inguruan bidali zigun informazioak zioen kexa eragin zuten gertaerak argitzeko egiten ari ziren ikerketak ez zuela ziurtatzen gertaerak erreklamatzailerik kontatutako eran jazo zirenik.

Informazio horren arabera, batetik, ikerketa egin zenean, gertaeran parte hartu zuten agenteen eta interesdunaren semearekin zihoazen gazteen testigantzez gain ez zen bestelako probarik lortu. Bestetik, berriz, batak eta besteak emandako bertsioak erabat desberdinak ziren, kexa eragin zuen polizia jardueraren alderdi batzuen inguruan.

Erreklamatzailerik zihoazen bi gazteek, oro har, erreklamatzailerik ez zeramaten



agenteek erreklamatzailaren semeari behin bakarrik eskatu zioten identifikatzeko, talde osoari eskatu ziotenean, alegia, eta indarra erabili zuten, gazteak Ertzaintzako agenteak zirela konturatu gabe eta hasierako eskaerari erantzunez txantxa al zen galdetu zienean.

Gertaeran part hartu zuten agenteen esanetan, aldiz, kexa sustatu zuenaren semeari behin baino gehiagotan eskatu zioten identifikatzeko. Adierazi zuten, halaber, gaztea alde egiten saiatu zela, eta horregatik, geldiarazi egin zutela, “*indar apur bat erabiliz*”, identifikazioa egiteko helburuarekin. Eta ez zutela jo adierazi zuten.

Informazio hori aztertu ondoren, iruditu zitzaigun ezin genuela baten zein bestearen testigantza alderdi jarri, izan ere gertaeretan zuzenean parte hartu zutenen bertsioak desberdinak ziren eta bi bertsio horietatik zuzena zein zen jakiteko ez genuen bestelako probarik.

Halere, poliziaren jarduna “Polizia jarduerak jatorri atzerritarreko lagunekin San Frantzisko alderdian” (1998. urteko txosteneko I. Kapituluak) gaiari buruzko txostenean egin genituen bi gomendioekin bat zetorren egiaztatu behar genuela iruditu zitzaigun, txosten horretan jartzen duena egokia baita guztiz kexan erabiltzeko. Zehazki, honako gaien inguruan: a) agenteek polizia egoitzetatik kanpo egindako interbentzioak erregistratzen dituen sistemari egoitzetatik kanpo egiten duten jarduera justifikatzen duten arrazoiak berri eman behar die, identifikatzeko edo arakatzeko eginbideetan edo indarra erabiltzen dutenetan; eta b) agenteek indarra erabiltzera bultzatu dituzten arrazoiak eta interbentzioan zehazki gertatu dena txostenean jaso behar dituzte, indarra erabiltzen duten aldiro, atestatua egon edo ez egon, goragoko maila duen agente batek jarduera kontrola dezan [gomendio zehatzak, 7. eta 8. c), hurrenez hurren].

Polizia jarduera ikuspegi horretatik aztertu ondoren, ikusi genuen kexan aipatzen ziren agenteek ez zituztela gomendio horiek errespetatu, izan ere, ez zuten jakinarazi erreklamatzailaren semea identifikatzen saiatu zirenean “*indar apur bat*” erabili zutenik, ikerketa egin zenean aitortu zuten bezala. Geroago ere ez zuten indar apur hori idatziz jaso, arrazoiak eta gertaera nola izan zen zehatz-mehatz adieraziz, euren buruzagiek interbentzioa egokia izan zen ala ez erabakitzeak aukera izan zezaten. Gazteen esanetan, egin zizkieten araketen zein horien arrazoiak berri ere ez zuten eman.

Erakunde honen ustez, gomendio horiek betetzea ezinbestekoa zen, gertatutakoa argitzeko eta zalantza jarri zen polizia jarduera legezkoa izan zela egiaztatzeak. Izan ere, mekanismo horrek aukera ematen zuen salatutako gertaeretan parte hartu zutenen bertsioak ez ziren beste datu eta iritzi elementu batzuk lortzeko.

- Emaizta

Gure balorazioa Herrizaingo Sailari bidali genion, hark bere iritzia eman zezan eta adierazi genion, gure ustez, beharrezkoa zela Ertzaintzako agenteei aipatutako gomendioak kontuan hartzeko agindua ematea, batez ere kexarekin zerikusia zutenek. Hark erantzun zigun azaldu genizkien neurriak polizia arduraduneri jakinaraziko zizkiela.

Informazio hori kontuan izanda, Sailak gure argibideak onartu zituela iruditu zitzaigun eta gai honetako esku-hartzeari amaiera ematea erabaki genuen. Behin eta berriz adierazi genuen beharrezkoa zela polizia arduradunek gomendio horiek betetzea eta agenteei kasu hauetan nola jokatu behar zen erakustea.

⇒ *Portugaletako Udaltzaingoak ez du behar bezala ikertu jatorri atzerritarreko lagun bati tratu xenofoboa eman zion agente baten aurkako kexa (1494/2004)*

- Erreklamazioa

Magrebtar jatorriko pertsona batek erakunde honengana jo zuen Portugaleteko bi udaltzainek, herriko merkatuan, kalez kale saltzen ibili zen beste pertsona batekin zegoela eman zioten tratua kexatzeko.

Erreklamatzailerak kontaktu zigunaren arabera, agenteengana zuzendu zen bere laguna saltzen ari zen produktua ez konfiskatzeko eskatzera. Eman zigun bertsioaren arabera, agente batek honela erantzun zion eskaera horri: *“Hara puta seme moro hau, moroen artean azkarrena dela uste du”*. Errespetu gabeko adierazpen xenofobo horregatik kexatu zenean, agenteak honela esan zion: *“Nik barrabiletatik ateratzen zaidana esango dizut, eta eskerrak kalean zauden, beste nonbaiten bazeunde egurra emango nizuke-eta”*. Jasotako erantzunaz kexatu ondoren, agenteei euren identifikazio profesionalaren zenbakiak eskatu zizkieten, baina horiek ezekoa eman zien honela: *“Kaka zaharra emango dizut. Nire zenbakia nahi baduzu komisariatik pasa beharko duzu” eta “Begira, film amerikar asko ikusten dituen morotxo hau, eman iezaioek egurra eta erakutsi iezaioek hemengo eskubideak zein diren”*.

Interesdunak adierazi zigunaren arabera, agenteetako batek errespetu gabeko adierazpen xenofobo horiek berriz egin zituen, han agertu ziren beste bi patruiletako kideei honela esatean: *“Begira, moro puta-seme hau, moroen artean azkarra”*.

Erreklamatzailerak adierazi zigun, azkenik, lehenengo patruilako agenteek agintariei erasotzeagatik eta iraintzeagatik salatu zutela, beste oinarririk gabe, bere bertsioaren arabera, jasotako tratua kexatu agertu zenean.

Kexak geroago agertu ziren bi patruilen aurka ere egiten du. Interesdunaren arabera, patruila horietako agenteak bi polizia ibilgailuetan joan ziren, sirenak piztuta eta inguratu egin zuten. Ondoren, identifikatu egin zuten, ibilgailuaren agiriak eskatu zizkieten eta gaizki aparkatzeagatik salatu zuten. Han zeuden ibilgailu guztiak egoera berean zeudela esan zuten, honela erantzun zioten: *“Guk barrabiletatik ateratzen zaiguna salatzen dugu eta ez zaitugu Portugaleten gehiago ikusi nahi”*.

- Azterketa

Portugaletako Udalera jo genuen, batetik, kexaren sustatzaileak salatutako gertaerak iker zituzan, *“Polizia Kidegoek kontrol-tresnak ezartzeko beharra, agenteen izan ditzaketen bidegabeko jardueren aurrean”* (2003. urteko txosteneko VI. Kapituluaren) gomendio orokorrean zehaztu genituen arauak jarraituz -kopia bat bidali genion-, eta bestetik, helburu horrekin egindako jardueren eta emaitzen berri eman zezan.

Eskaerari erantzunez, Udalak jakinarazi zigun gertaerak ikertu zituela eta agenteek egoki jokatu zutela ondorioztatu zuen. Baina ez zigun gertatutakoa zein edukia argitzeko egin zituzten jarduera berezien berri eman. Jakinarazi zigun ondoriora iristeko aintzat hartu zituzten arrazoiak zein izan ziren ere ez zigun adierazi.

Horregatik, berriz ere bere laguntza eskatu genuen, gai horri buruzko informazioa eman diezagun. Izan ere, informazio hori ezagutzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu, erakunde honek errespetatu beharreko parametroen arabera jokatu zuten ala ez baloratzeko aukera izan zezan.

Bestalde, jakin genuen kexa eragin zuten arrazoiaren haritik, interesdunak gertakarietan part hartu zuten agenteen aurkako salaketa jarri zuela Ertzaintzan, eta jurisdikzio penalak kexa horren ondorioz aurretik tramitatzen ari zen eginbideak artxibatu zituela, salatutako gertakariak ez zirela arau-hauste penalean sartzen baitzeritzon. Jakin genuen, erreklamatazailea errespetu eta begirune eza erakusteagatik zigortu zutela, agenteek erreklamatazailearen aurka bideratutako atestatuaren ondorioz sortu zen prozedura penalean.

Halere, esku artean genituen datuak aztertu ondoren, ikusi genuen bi prozeduretan jurisdikzio penalaren ardurapean zeuden gertaerak eta kexa eragin zutenak ez zetozeela bat guztiz.

Datu horietatik abiatuta ondorioztatu genuen, polizia atestatutik zetorren prozeduran epaitu zena erreklamatazailearen jokaera izan zela, txosten horrek jasotzen zuen akusazioari lotuta, eta bere esanetan, agenteek eman zioten tratu desegokia. Hori zen hain zuzen kexak azaleratzen zuen arazoa, batez ere.

Interesdunak Ertzaintzan aurkeztu zuen salaketan harira zetozen jarduera judizialei dagokionez, gure ustez, gertaera batzuk adierazgarritasun penalik ez izateak ez zuen bazterten beste era bateko erantzukizunak existitzea, hala nola, diziplinakoa. Izan ere, prozedura-parametroak desberdinak dira arlo batean eta bestean. Agenteen jokaera aztertzea ere ez du bazterten, jarraitu behar dituzten jarduera arauekin bat datorren kontuan hartuz.

Horregatik uste dugu adierazitako prozedura judizialek ez zutela eragozten kexa sustatzaileak salatzen zituen gertaerak ikertzeko orduan eta poliziaren jarduera aztertzeko orduan, diziplinaren ikuspegitik eta errespetatu beharreko parametroak kontuan hartuta salatu zena. Eta horrela adierazi genion Udalari bigarren aldiz informazioa eskatu genionean.

Udalak bigarren eskaerari erantzunez eman zigun informazioan azaltzen zen, gure ustez, kexa sustatzaileak salatutako gertaerak argitzeko udaleko polizia arduradunek egin zuten ikerketa bakarra, gaiarekin zerikusia zuten agenteen bertsioa, antza denez, salatazaileak emandakoaren aurkakoa, lortzea izan zen. Agerian jartzen zen, halaber, polizia jarduera legezkoa zela esaten zuen jarrera adierazpen horietan bakarrik oinarritzen zela –adierazpen horri, gertatutakoa argitzeko probatzat hartu zuen, agintaritzako agenteek egiten dituzten arau-hauste administratiboen salaketetan idatziz jasotako gertaerek legez duten egiazkotasun-presuntzioan eta erreklamatazaileak aurkako probarik ez izatean oinarrituz– eta agenteen profesionaltasunean.

Aipatutako gomendio orokorraren edukia kasuan aintzat hartuz gero, gure ustez, horrela egindako ikerketa bat ez da nahikoa gertatutako argitzeko, eta ezta gertaeran parte hartu zuen poliziaren jarduera egokia zela irizteko ere, praktikan kexa ez onartzea baitzen.

Zehapen prozeduraren eremuan agintaritzako agenteek egindako adierazpenei baldintza jakin batzuetan araubide juridikoak ematen dien egiazkotasun-presuntzioan Udalak lan egiteko modua justifikatu zuen, agenteen profesionaltasuna eta erreklamatazaileak salaketa ez zuela frogatu eta presuntzio hori ez zuela indargabetu aintzat hartuta. Azaldu zuen, halaber, ikerketa gehiago egiteko ez zuela baliabide nahikorik.

Gure ustez, arrazoi horiek ez dute justifikatzen kexan agertzen ziren agenteen bertsioa lortuta soilik ikertzea eta beste era bateko azterketarik ez egitea, gomendio orokorrean erakutsi genuen jarrera kontuan izanda.

Hor azaldu genuen zehatzeko administrazio-zuzenbidea arautzen duen egiazkotasun-presuntzioa ez dela ezartzen, agenteen jokaera argitu nahi denean. Kasu hauetan, ez gaude arlo horretan, salatutako agenteen jokaera argitzera bideratuta dauden barneko ikerketa prozeduretan baizik, eta prozedura horietan, beren funtzioak betetzen dituzten agintaritzako agenteen esku dauden inpartzialtasuna eta objektibitatea gaian duten interes pertsonalak erabat ahultzen ditu.

Gomendioan adierazten genuen erreklamatazaileak bere bertsioaren aldeko probarik ez ematea ez dela eragozpen gertaerak ikertzeko. Izan ere, gure ustez, ikerketatik kanpo utzi daitezken kexa bakarrak, sinesgaitzak eta zalantzazkoak dira. Gure iritziz, erreklamatazaileak egindako kexak ez zituen ezaugarri horiek.

Adierazi nahi dugu baita, polizia jarduera ezarritako arauekin bat datorren edo ez argitzeko barneko ikerketa bat hasteak ez duela esan nahi gertaeran parte hartu duten agenteen profesionaltasuna zalantzan jartzen denik, eta salaketari erabateko sinesgarritasuna edo balio nagusia ematen zaionik. Jarduera honen helburua, poliziaren lanaren kalitatearekin zerikusia duten alderdiak aurreikusteko eta kontrolatzeko ezinbesteko mekanismoa izatea da soilik, eta gehiegikeriaren bat gertatzea eragozteko gutxieneko bermea ezartzea.

Baliabiderik ez izatearen inguruan, ikerketarik ez egin izana justifikatzeko Udalak arrazoi hori bera eman zigun beste kexa-espeditente batean. Gure ustez, hori ez litzateke ez ikertzeko arrazoi gisa erabili behar. Udalak eragozpen horiek gainditzeko behar diren mekanismoak martxan jarri beharko lituzkeela uste dugu.

Horregatik, ondorioztatzen dugu Udalak ez zuela aipatu genuen gomendio orokorra kontuan hartu.

Espeditente hau tramitatzeko orduan ikusi genuen kexa honi eta lehen aipatu dugun espeditenteari polizia arduradunek erantzun bera eman ziela. Kasu hartan ere, agenteen bertsioa lortuz bakarrik egin zen ikerketa eta Udalak bere jarduera justifikatzeko eman zituen arrazoiak ere berdinak ziren.

Kexa honek aukera eman zigun egiaztatzeko Udalak aurreko espeditentean kontrako informazioa man bazigun ere, Udalak ez zituela oraindik gomendioan aipatzen genituen poliziaren zerbitzua kontrolatzeko eta ebaluatzeko prebentzio sistemak ezarri, besteak beste honako datu hauek biltzeko: erresistentzia, desobedientzia, eraso edo antzeko arrazoi penalak direla-eta agenteek egindako salaketen arrazoiak, legez kontrako jarduera horien-gatik atestatuetan agenteak zenbat aldiz agertzen diren salatzaile mota horretako salaketak agente edo patruila batzutan bakarrik izaten diren eta zigortzeko epaien proportzioa.

- Emaizta

Udalari gomendio bat egin genion, honako hau eskatuz: a) kexa sustatzaileak salatutako gertaerak ikertzen jarrai zezala, helburu horretarako “Polizia kidegoek kontrol-tresnak ezartzeko beharra, agenteen izan ditzaketen bidegabeko jardueren aurrean” gomendio orokorrean jasotzen diren parametroak jarraituz; b) Udaltzaingoko agenteen jokamolde irregulararekin zerikusia zuten kexa bat jasotzen zuenean, gomendio orokorrean ezartzen zena aintzat hartzea; eta c) poliziaren zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko eta ebaluatzeko prebentzio-sistemak izateko mekanismoak, aurreko gomendioan aipatzen direnak, martxan jartzea.

Udalak ez dio gomendioari erantzunik eman. Horregatik gomendio hori ez duela onartzen ikusi dugu eta gure esku-hartzea amaitutzat eman dugu.

**B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Ertzaintzako fitxategietan eta argazki-albumetan erregistratutako datu pertsonalak baliogabetzea (1186/2003)*

**• Erreklamazioa**

Pertsona batek gure esku-hartzea eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak Segurtasun Sailburuordearen ebazpen bat bete izan ez zuenaren susmoa baitzuen. Ebazpen horrek poliziak atxilotu eta gero, Ertzaintzak bere fitxategi eta argazki-albumetan erregistratutako bere adin txikiko semearen datu pertsonalak baliogabetu behar zirela ezartzen zuen.

Kexa jarri zuen pertsonak esaten zigunez, dudak zituen honakoa dela eta; aipatutako ebazpena eta gero, pertsona batek poliziaren bulegoetan delituzko ekintza bat salatu zuen eta Ertzaintzaren komisaria batean ustezko egilea identifikatzeko egindako argazki-egazutze batean gaztearen argazki bat erakutsi zitzaion, eta salatzaileak ezagutzen zuenez aitari esan zion.

**• Azterketa**

Gure eskaerari erantzunez, Herrizaingo Sailak aipatutako ebazpena burutu eta polizia-albumetan zeuden gaztearen argazkiak deuseztatu zituela adierazi zigun. Erreklamatzailerak agertzen zizkigun zalantzei dagokionez, esan zigun agian gaztearen ezagunak ikusi zuen argazkia bere beste anai batena izatea posible zela, esandakoaren arabera, azken hori guk kexa ebazteko bere laguntza eskatutakoan gazteak zuen antzeko adinarekin atxilotu baitzuten.

Azalpen ofiziala jakinarazi genion interesdunari, eta hura ez zen bat etorri azalpenarekin, ziurtatzen zuenez, argazkia ikusi zuen pertsonak bere semeekin gertuko tratua zuelako, eta Herrizaingo Sailak iradokitzen zuen nahasketa bat izatea nahiko zaila egiten zuela. Gainera hark zioenez, bere semeek antzik ez zuten haien artean eta horrenbestez bi argazkiak oso ezberdinak izan behar zirela, gaztearena, hura 16 urte zituenean atera baitzuten, hau da haur-hazpegi gehiago zituenean- ikusi zuen pertsonak horrela esan zuen-, eta aldiz bere beste semearen argazkia, hura 19 urte zituenean atera zutelako.

Erreklamatzailerak jakinarazten zizkigun arrazoizko dudak ulertu genituen eta berriz Herrizaingo Sailera jo genuen iritzia eman zezan..

Gure aburuz, gainera kexak garrantzi orokorrago bat ekartzen zuen; hau da, pertsona afektatuak egintza hori zalantzan jartzen duten zantzuen ekarpena egiten duen kasuetan, datu pertsonalak baliogabetzeko ebazpen bat benetan burutu izan dela egiaztatu ahal izatea. Hori dela eta, aipatutako Sailari honakoa eskatu genion: Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroko bulegoetako dagozkien polizia-fitxategietan dauden izaera pertsonaleko datuak baliogabetzeko eskubidea burutzeko jarraitzen duen jarduera protokoloak guri jakinaraztea eta eskubide hori bete dela ziurtatzea. Era berean, abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan aurrez ikusitakotako datu babesaren erregimena Ertzaintzaren arloan duen aplikazioari buruzko izaera orokorreko beste informazioa eskatu genion.

Herrizaingo Sailak bigarren kasu horretan eman zigun informazioa analizatu eta gero, iruditu zitzaigun ez ziela era egokian erantzuten gure galderei, ez baitzuen erreklamatzailerak bere dudak oinarritzeko argudiatutakoa aintzat hartzen, eta ez baitzigun

arrazoizko elementu nahiko ematen guri interesatzen zitzaigun jarduera protokoloa existitzen zela frogatzeko.

Nahiz eta Herrizaingo Sailaren lankidetzak egokia ez izan, kekek azaltzen zuen gaia analizatu genuen, eman zitzaigun informazio mugatua oinarri izanik, eta ulertu genuen azalpen ofizialek ez zituztela, erreklamatzailerak gure esku-hartzea eskatzera eraman zuen Seguritasuneko Sailburuordearen ebazpenaren burutzearen gainen, gure aburuz, arraziozko dudak argitu eta era berean ebazpena bete zela frogatzeko behar genituen arraziozko elementuak ez zizkigula erakutsi. Era berean deuseztapen ebazpenak burutzeko jarduera protokoloa existitzen dela ez zigun egiaztatzen utzi eta horrela hori burutu zutela ziurtatzea ezinezkoa zen.

Auziaren ikuspuntu horretatik, uste dugu Herrizaingo Sailak erreklamatzailerari, argazki-albumei zegokien deuseztapen ebazpena betetzeari buruzko bere dudak argitu behar zizkiola eta ebazpena ondo burutu zela justifikatu behar ziola, zegokion argazki-albuma erakutsiz edo errealitate horren ziurtasuna emango zioten beste mekanismo batzuk erabiliz.

Era berea, gure ustez, aurretik ezarrita ez badago, Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroko bulegoetara dagozkien polizia-fitxategietan dauden izaera pertsonala duten datua baliogabetzeko ebazpenak burutzeko jarduera protokolo bat ezarri beharko lukete. Horrela, era egokian burutu direla eta eragiten dituzten datuak blokeatuta eta gero suntsitu direla egiaztatuta ahal izango zen.

- Emaizta

Aipatutako gure iritziak Herrizaingo Sailari jakinari genizkion, eta horrek ez du erantzun. Hori dela eta, ez dituela onartzen pentsatu behar dugu eta horrekin gai horretan genituen esku-hartzeko aukera guztiak amaitutzat jo genituen.

⇒ *Desagertutako pertsona bat bilatzeko SOS Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, Gasteizko Udaltzaingoak eta Ertzaintzak burututako jardueretan izandako disfuntzioak (489/2005)*

- Erreklamazioa

Bere etxetik desagertutako pertsona baten alabek gure esku-hartzea eskatu zuten, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren menpekoea den SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak egun batzuk lehenago aita desagertzean egoki jardun ez zuela uste zutelako.

Erreklamatzailerak kexa nagusia, Gasteizko Udaltzaingoaren bulegoetan haiek salaketa aurkeztu zutenetik SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak zegokion jarduera protokoloa aktibatu zuen arteko denbora-epea zen, euren ustez, gehiegizkoa. Era berean jardueran parte hartu zuten Zentroaren eta polizia kidegoen (Gasteizko Udaltzaingo beraren eta Ertzaintzaren) arteko koordinazio eza salatzen zuten. Adierazten zigitenez koordinazio eza horrek protokolo horretan aurrez ikusitako bilaketa-jarduerak batzuen atzerapena ekarri zuen.

Euren aburuz, berehalako interbentzioa euren aita aurkitzeko erabakigarria izan zitekeen. Zorritzarrez, sei hilabete desagertu eta gero hilik aurkitu zuten.

- Azterketa

Kexaren planteamendua aintzat hartuz, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren laguntza eskatu genuen, interesdunak adierazten ziguten gaiei buruz informatzeko, eta SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak pertsonak ustez desagertzen direnean, kexa eragin zuenaren kasuan bezala, jarraitzen duen jarduera protokoloaren kopia bat emateko.

Gure eskakizunari erantzunez, aipatutako Sailak kexaren kasuan Zentroak aplikatutako protokoloa 2001eko abuztuaren 1eko Herrizaingo Sailburuaren Aginduan 1.2 Operazio-taktikan “Bilaketa mendian/nekazaritza inguruan (M2). Mendi eremuetan (leizeetan, amildegetan) edo nekazaritza eremuetan desagertutako pertsona ororen bilaketa guztiak” (irailaren 13ko EHAA) ezartzen dena izan zela ziurtatu zigun.

Horrez gain, erreklamatzailleen aita aurkitzen saiatzeko gertakariaren kudeaketan parte hartu zuten instantzia guztien jarduerak jakinarazi zizkigun.

Aipatutako informazioa analizatu genuen, eta euren jokatzeko eran hainbat dis-funtzio egiaztatu genituen, gure aburuz, justifikatu ezin zirenak, eta era horretan kexari arrazoa ematen ziotenak.

Zentzu horretan, informazio ofizialak SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak horren senideek Gasteizko Udaltzaingoaren bulegoan egindako salaketa zela eta pertsona desagertu zen egun berean ez zuela parte hartu erakusten zuen. Senideek herrialde horretako Ertzaintzako Komisariara deitu eta gero parte hartu zuten, salaketa ipini eta 28 ordu bat beranduago.

Era berean agerian uzten zuen, Gasteizko Udaltzaingoak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari ez zizkiola ustez aurkitu zituen oinatzak jakinarazi. Era berean, ez zioten zantzuaren garrantzia frogatzeko eta eremu horretan bilaketa aktibatze hurrengo egunean desagertutako pertsonaren senideek aurkeztutako dokumentazioa eman.

Eta agerian uzten zuen ere, SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak aurkikuntza horretan oinarritutako bilaketa Gasteizko Udaltzaingoak hura aurkitu eta sei egun pasa arte ez zuela aktibatu.

Herrizaingo Sailak ematen zizkigun azalpenak Zentroak aipatutako ebidentzia hori ezagututako datan eta moduan kontraesankorrak ziren. Horrela, hasiera batean, haren berri aurkikuntza egin eta bost egunetara izan zutela esan zigun eta Gasteizko Komisariak jakinarazi ziola, desagertutako familiarengatik jaso eta gero, eta aurrerago esan zigun Zentroak datuaren berri izan zuela aurkikuntzaren hurrengo egunean, familiaren bitartez.

Herrizaingo Sailak geroago datu hori azaldu zigun, oinatzan berri bi bideetatik izan zutela aditzera emanez. Gure ustetan, hala ere, gure analisiaren ikuspegitik, aurkikuntza gertatu zenetik eta Koordinazio Zentroak horren berri izan zuen arteko gehiegizko denbora zen garrantzitsuena (bost egun Ertzaintzak jakinarazi zionetik, eta egun bat familiak ezagutarazi zionetik). Era berean, gure ustez garrantzitsua zen ere Zentroak ez zuela aurkikuntzaren eta zantzuaren garrantzia arrazoitzen zuen familiak aurkeztutako dokumentuaren berehalako berri izan Udaltzaingoaren bitartez.

Gure ikuspuntutik, Herrizaingo Sailaren azalpenek agerian uzten zuten kexa eragin zuten administrazio jardueran justifikatu ezin diren atzerapenak eta koordinazio ezak gertatu zirela eta Gasteizko Udaltzaingoak eta Ertzaintzak desagertze-salaketa komunikaziori eta oinatzan aurkikuntzari zegokionez jarduera jarraibide ezberdinak erabili zituztela (esate baterako, dirudienez Udaltzaingoak ez zuen datuen berri eman.

Ertzaintzak aldiz, esan ziguten bezala, horien berri izan bezain laster jakinarazi zituen).

Informazio ofiziala aintzat harturik, ondorioztatu genuen hipotesian disfuntzio horiek parte hartu zuten SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren eta bi polizia kidegoen gainean eragina izan zezaketela. Era berean disfuntzio horiek kexaren oinarri den administrazio-jarduera ez zela orokorrean koordinazio eta berehalakotasun printzipioetara egokitu frogatzen dute, eremu horretan beharrezkotzat jotzen dena (larrialdi kudeaketari buruzko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 23. eta 2. artikulua eta 2001eko abuztuaren 1eko Herrizaingo Sailburuaren Aginduaren 6. eta 7. xedapen orokorrak) .

Balorazio hori oinarri izanik, gertakari guzti horien kudeaketaz arduratzen diren instantzia guztiek kexa eragin zuten horrelako atzerapen eta koordinazio eza justifikatu ezinak berriz gerta ez zitezten bermatu behar zutela pentsatzen genuen.

Helburu hori lortzeko, gure aburuz, SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, Ertzaintzak eta Gasteizko Udaltzaingoak erreklamatazileek guri aurkeztutako egoera analizatzea ezinbestekoa zen. Horrela jokabide urriaren arrazoiak zehaztu ahal izateko, hutsa non gertatu zen jakiteko eta hori berriz ez gertatzeko neurri egokiak hartzeko.

Beste alde batetik, aipatutako 2001eko abuztuaren 1eko Aginduak zituen zehaztapenak aztertu eta gero, helburu horretarako nahiko ez zirela uste izan genuen euren izaera orokorra zela eta. Hori guztia dela eta, zehaztapen horiek beteko zituen jarduera protokolo bat ezartzea ezinbestekoa iruditu zitzaigun. Hain zuzen ere, protokolo horretan pertsona baten desagertze-salaketa jasotzean, Zentro horren parte hartzea eskatzen duen beste edozein gertakaria jazotzean edo Zentroak koordinatzen duen jarduera batek eragiten zienean Udaltzaingo guztiek eta Ertzaintzak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin jarraitu behar dituzten jarraibide zehatzak ezarri behar zirela.

Horrela jakinarazi genion Herrizaingo Sailari eta Gasteizko Udalari, horri dagokionez garatu behar dituzten jardueren gaineko informazioa guri emateko.

- Emaita

Herrizaingo Sailak proposatzen genuen analisi orokorra egokia iruditzen zitzaiola eta aipatutako analisiaren araberrako neurri zuzentzaileak ezartzearen alde zegoela adierazi zigun.

Gasteizko Udalak, bere aldetik, datu bat eman zigun eta horrek aipatutako Sailak oinatzten aurkikuntzaren berriari buruz emandako azalpenei kontra egiten zien. Horrela Udaltzaingoak, aurkikuntzaren egun berean, edo hurrengo egunean, zehaztu gabe, datu berri hori SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari komunikatu ziola adierazi zigun. Adierazi ziguten ere, ulertzen zutela larrialdi-kudeaketari buruzko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak aitortzen dizkion eskuduntzak direla eta, Herrizaingo Saila zela jarduera protokolo orokor bat egitea bultzatu behar zuena, Sail horrekin lan egiteko prestutasuna adieraziz. Eta jakinarazi ziguten, kexaren ondorio bezala, etorkizun batean iristen zaizkion desagertze-salaketa guztien berri emango ziela ez bakarrik Ertzaintzari, Polizia Nazionalari eta Guardia Zibilarari (momentu horretara arte egiten zen bezala), baizik eta SOS-Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari ere.

Aipatutako azalpenak kontuan hartuz, egokia iruditu zitzaigun berriz bi administrazioetara jotzea garatzen zituzten jarduera zehatzen berri eman ziezaguten eta azkenean gaiari dagokion jarduera protokolo bat garatu behar zuten zehaztu zezaten.



⇒ *Poliziaren presentzia erreklamatzeko erabiltzen diren herritar baten eskakizunaren aurrean Ertzaintzaren eta Bilboko Udaltzaingoaren erantzun ez koordinatua (530/2005)*

- Erreklamazioa

Kexa jarri zuena gure erakundera etorri zen, pertsona bat hura erasotzen saiatzen ari zenean poliziak parte hartzeko erreklamatzeko SOS-Deiaki egindako telefono deia erantzunak Ertzaintzaren eta Bilboko Udaltzaingoaren arteko koordinazio ez handia erakusten zuela uste baitzuten.

Interesdunak kontatzen zigun bezala, SOS-Deiaketan Ertzaintzarekin kontaktuan jarri zuen, eta hala patruila bat agertuko zela esan zioten. Hark esan zuenez, lehenengo komunikazio hori eta gero, 15 minutu igaro ondoren agenteak agertu gabe, bigarren deia bat egin behar izan zuen. Horretan SOS-Deiaketan jakinarazpena eman zuela eta egiaztatuko zuela esan zion. Denbora gutxira, Ertzaintzako agente baten telefono deia jaso zuen, eta azken horrek jakinarazpena Bilboko Udaltzaingoari eman ziola ziurtatu zion, eta esan zion 092 zenbakiarekin kontaktuan jartzeko. Bertan, Ertzaintzaren deirik ez zutela jaso esan zioten. Gertatutakoa berriz kontatu eta gero, patruila bat bidaliko zutela adierazi zioten. Hala ere, berriz deitu behar izan zuen 092 zenbakira, patruila oraindik iristeke zegoelako. Azkenean, hori iritsi zen, SOS-Deiaki lehengo aldiz deia egin eta gutxi gorabehera ordu batera.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera eta Bilboko Udalera joan ginen kexa eragin zuten gertakariak ikertu zituzten, eta Ertzaintzak eta Udaltzaingoak Bilboko euren interbentzioak koordinatzeko jarraitzen zituzten jardura protokoloaren berri eman ziezaguten.

Ertzaintzaren arloan, Herrizaingo Sailak egindako ikerketak agerian utzi zuen, polizia zerbitzu publikoak oro har ez zuela era egokian jardun, aipatutako Sail horrek onartzen zuen bezala, ez zelako gertakariak eskatutako beharrezko berehalakotasunarekin agertu, eta erantzunean egondako atzerapenarentzako arrazoi justifikaturik ez zegoelako. Ikerketaren arabera, herritarrak SOS-Deiaki egindako lehengo deia eta ondoren, zego-kion patruila tokian agertu zen arte igarotako 50 minutuen atzerapena, herritarraren deia jaso zuen Bilboko Ertzaintzaren eta ustez eskatutako zerbitzuak ematean zego-kion Udaltzaingoaren arteko komunikazio huts baten ondorio zen nagusi.

Herrizaingo Sailak hutsa nola eta non gertatu zen zehazteko gai izan ez zela adierazi zigun, eta ezta Ertzaintzari esleitu ziezaioketen ere, esaten zigutenez polizia kidego horrek gertakizunaren parte hartzeko Udaltzaingoaren bulegoetara egindako telefono deia erregistratu ez zuelako. Dirudienez, erregistratu zuten Agindu eta Kontrol Zentroko operadoreak egindako oharra. Bertan jakinarazpena Udaltzaingoari deribatu zitzaizkion jartzen zuten, nahiz eta konprobatu zen ere operadorea ez zela izan deia egin zuen pertsona.

Bilboko Udalaren esanetan, Udaltzaingoaren Koordinazio Zentroak ere ez zuen deia erantzun zuztasun ofizialik, gure aburuz, datu hori jakitea gertatutako argitzeko beharrezkoa iruditzen zitzaizkion, hala nola, akatsa nola eta non gertatu zen jakiteko eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko. Era berean, erreklamatzailerak 092 zenbakira egindako ondoko ondoko deiak ez zituzten jasota.

Jardura protokoloari dagokionez, hiritarren segurtasunaren arloan polizia koordinazio Akordioan ezarritako zegoela adierazi ziguten, eta bi administrazioek helburu horrekin izenpetu zutela.

Ikerketaren emaitzak ikusirik, Herrizaingo Sailak kexa eragin zuten egoerak egotea ekiditen zuten neurriak hartu behar zirela uste zuen, eta horien artean, bere arloan, egindako jardueren erregistroa, beste polizia kidego bati deribatzeneko polizia-interbentzio eskari zehatz bat, Sailak berak atzeratzen zuena.

Erakunde hau aipatutako neurriarekin bat etorri zen, gure ustetan Udaltzaingoari ere egokitzea posible zenarekin, zerbitzuaren behin-behineko funtzionamendu txarraren arazoia zehazteko erabilgarria iruditzen baitzitzaigun. Gure ustez, lagungarri izan zitekeen kidego bakoitzaren jardueren eta euren denbora-sekuentziaren konstantzia sinesgarria jasotzea, kasu horretan ez bezala, eta baita helburu horretarako polizia arduradunek egoki irizten zuten beste edozein neurri ezartzea. Ikuspegi horretatik, Udaltzaingoaren Koordinazio Zentroak jada erregistratutako lehengo dei batekin zer ikusia zuten herritarren telefono deiak erregistratu behar zituela iruditzen zitzaigun, eta herrialdeko informaziotik hori ez zela egiten ondorioztatu genuen.

Hala ere, era berean, kexak Ertzaintza eta Bilboko Udaltzaingoaren arteko koordinazioaren hutsa konpontzeko aipatutako neurriak nahiko ez zirela agerian utzi zuen, eta nahi genuen helburu hori lortzeko, aipatutako hiritarren segurtasun arloari dagokion polizia-koordinazio Akordioan ezarritako mekanismoak kontuan hartu beharko ziratekeela. Hori dela eta, oraindik egin ez bada behintzat, kexa Akordio horretan aurrez ikusten den Kontrol eta Ebaluazio Batutako Agindura berehala bidali beharko litzatekeela pentsatzen dugu. Horrela, erakunde horrek gertatutako disfuntzioa ezagutuko zuelako, eta bere arazoak zehaztu eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ahalko zituelako, azken horren eginkizunen artean bi polizia kidegoen arteko koordinazio-sistemetan dauden disfuntzioak zuzentzea eta arlo horretan hobekuntzak egitea baitaude.

Gure balorazioa bi administrazioei komunikatu genien, eta horren gainean garatu behar dituzten jardueren berri eman ziezaguten eskatu genien.

- Emaidza

Bilboko Udala neurri zuzentzaileak hartzearen beharraren alde agertu zen, nahiz eta ez zigun zehaztu neurri horiek zeintzuk izan behar ziren. Era berean adierazi zigun, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko koordinazioko edozein arazo, dauden koordinazio organoetan planteatu ohi zela, baina zentzu horretan egindako galdera zehatzari ez zion erantzun. Horrek berriz euren laguntza eskatzera behartu gaitu, puntu horiek zehaztu ditzan.

Beste alde batetik, txosten hau ixteko momentuan ez genuen Herrizaingo Sailaren aldeko erantzunik, nahiz eta bi aldi baino gehiagotan eskatu izan genion.

### C) Trafikoa

⇒ *Ibarrako Idoiaga enparantzan oinezkoen erregimena haustea (993/2003)*

- Erreklamazioa

Ibarra udalerriko auzotar-komunitate batek 2003an gure esku-hartzea eskatu zuen, ziurtatzen zigutenez Udalak Idoiaga enparantzan ez baitzuen oinezkoen erregimena betetzen.

- Azterketa

Udalerriari dagokion gai bat zela kontuan harturik, lehengo eta behin Ibarako Udalera zuzendu ginen, arazoaren gaineko datu kontrastatuak lortzeko asmoarekin. Horren inguruko informazioa ematea eskatu genion, eta gertatutakoa horrela izanez gero, aipatutako erregimena betetzen zela bermatzeko aurrez ikusitakotako neurriak jakinarazteko.

Gure eskaerari erantzunez, Udalak udalerraren trafiko-zaintzari dagozkion funtzioak eta horren kaleetan gertatzen diren arau-hausteen salaketa Ertzaintzari deribatu zizkiola eta arlo horretan zehapen-prozedurak tramitatzearekin zerikusia duten funtzioak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari deribatu zizkiola komunikatu zigun. Hori dela eta, bere aburuz, polizia kidego hori eta Herrizaingo Saila bera ziren Idoiaga enparantzan funtzio horiek bete behar zituztenek eta oinezkoen erregimena errespetaraztea egin behar zutenek.

Azalpen horiek ikusirik, aipatutako sailari gai honen berri emateko eskatu genion. Hala ere, ulertu genuen ere oinezkoen erregimenaren arau-hausteen salaketa ez zela erregimena hori bermatzeko udalerrriak hartu zezakeen neurri bakarra, eta eskatu genion, Udalari oinezkotasuna betetzeko euren eskuduntzen barne zehapen izaera soilik duenez, aparteko beste mekanismo batzuk ezartzeko.

Udalak eremu horretan aparkaleku berriak prestatu zituela esan zigun, erabilera horretarako eremuen beharra gutxitu nahian, eta berriz behar zituela Ertzaintzaren arduradunak, behin neurri hori hartuta, zaintza lanak egin eta oinezkoen erregimenaren arau-hausteak salatzeko.

Erreklamazioa egin zuten auzotarrei neurri horien berri eman genien euren iritzia ezagutzeko, eta nahi zuten emaitza lortu ahal zuten egiaztatzeko. Auzotarrek esan zigutenez, hasiera batean baliagarri izan ziren, baina geroago, kexan salatutako egoera berdina izatera heldu zela eta hori dela eta arazoa oraindik existitzen zela pentsatzen zuten.

Ondoren Udalak jakinarazi zigunaren arabera, kexa jarri zutenek ez zituzten onartu haiek betetzeko itundu zituzten beste neurriak ere, batez ere seinaleei zegozkienak.

Bere aldetik, Herrizaingo Sailak, auzotarrek guri aurkeztutako Idoiagako arazoa arazo historiko bat zela eta bertako Ertzaintzako komisariak horren berri bazuela adierazi zigun. Ertzaintzak azken urteetan auzo beraren hainbat kexa jaso izan zituela eta Udalari jakinarazi zizkiola esan ziguten.

Era berean, kexa horren ondorioz oinezkoen eremuan trafiko-zaintza areagotu zutela adierazi zigun, eta bere ustetan, lan hori beste neurriekin osatu behar zela, udalerrri eskuduntza izaerakoekin, udalerrrian zegoen aparkatzeari zuzendutako eremu gabeziaren arazoa gutxitzeko, hori arazoaren oinarria zela uste baitzuten. Auzotarren kexei konponbide bat ematen saiatzeko izandako bileretan aipatutako komisariaren arduradunek Udalari horrela esan ziotela ziurtatzen zuen.

Sail horrek esan zigun komisarian ordezkari batzuk eta udal-aparejadoreak oinezkoen eremu horretara bisita bat egin zutela han bertan hobetzeko aukerak ikusteko, hala nola seinale eta hiri-altzariak berriz kokatzeko aukerak, ibilgailuen lekurako sarrera zailtzeko. Bisita hori eta gero, bi aldeek uste izan zuten hori behin-behineko gutxiezigko neurria zela eta konponbidea lortzeko udalerrri guztiko trafikoa arautu behar zela behin-betikoz eta aparkatzeko leku berriak sortu behar zirela.

Era berean etorkizuna beltzagoa zela esan zigun, Tolosako Udalak TAOa ezarri zuelako eta udalerrri horren aparkalekuentzat erreserbatutako eremu bat, Ibarrekin

mugakide dena, zerbitzutik at geratu behar zela obrak zirela eta (badirudi Ibarako herri-tarrek herri horretan aparkatzen zutela), eta horrenbestez, erabilera horri zuzendutako eremuak gutxitu behar zirela.

Eta azkenik jakinarazi zigan, Udalari hainbat neurri hartzea proposatu ziola, bere aburuz arazoaren oinarrian zeuden gabeziak konpontzeko eraginkorrak izan zitezkeenak.

Eta Herrizaingo Sailaren proposamena arrazoizkoa zela iritziz, berriz ere Udalaren lankidetzara eskatu genuen informazio eman eta kexa eragin zuen arazoari behin betiko konponbide bat emateko, aurrez ikusi zituen neurriak zeintzuk ziren esan ziezagun.

- Emaizta

Txosten hau ixterako orduan, ez genuen Udalari egindako informazio eskariaren erantzunik.

⇒ *Ezarritako ereduaren araberako zehapen prozedura baten tramitazioa (9/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek Gasteizko Udalak radar mugikor baten neurketa kargu-proba bakarra izanik abiadura gehiegi dela-eta jarritako zehapenarekin bere ezadostasuna azaldu zigan. Kontatzen zigunaren arabera, prozeduraren hasierako akordioaren eta abiaduraren neurketa akreditatzen zuen dokumentuaren artean arau-haustea gertatutako lekuari zegokionean bat ez etortze nabaria zegoela egiaztatu zuen. Bi dokumentuek gertakariak kale ezberdinetan eta bata bestearengatik urrun kokatzen zituzten.

Dirudienez, interesdunak udal-administrazioari prozesuan zehar behin baino gehiagotan adierazi izan zion bat ez etortze hori, baina horrek ez zuen hutsa zuzendu eta ez zion argibiderik eman. Horrela erantzun estandarren bidez bere alegazioak ezetsi zituen. Erantzun horiek agintaritzako agenteen beharrezko salaketak babesten dituen egiazkotasun presuntzioa heltzeari mugatzen ziren behin eta berriz.

- Azterketa

Gure aburuz dokumentuen artean zegoen ezberdintasuna gertakizunaren kalearen hasierari dagokion transkripzio huts baten ondorio izan zitekeen, eta bere izaera nabaria zela eta, kontuan hartu behar izan zela eta ustezko arduradunak prozedura bideratzen zuenari jakinarazi bezain laster zuzendu behar izan zela.

Hala ere, alderdi interesdunaren alegazioak ukatu egin ziren egiazkotasun presuntzio apelazio baten bidez eta gure iritziz, hori ez da aplikagarria arau-haustea tresna mekanikoen bitartez detektatzen den kasu horietan, eta edozein kasutan ere, abiadura-kontrolaren akreditazio-dokumentuan islatutako datuek hutsaldu behar izan zutela. Modu horretan, hutsa prozedura osora igaro zen, zehapen bat ezarri zitzaiolako eta horretarako administrazioak lekuari buruz zuen frogak bakarrik lekua egiaztatzen ez zuelako eta ez egiaztatzeaz gain kontraesankorra zelako.

Gure iritziz, administrazioaren jarduera tramitazio eredu-mota ez egokiak erabiltzearen ondorio bezala uler zatekeen bakarrik, prozeduran zehar interesdunak aurkeztutako

gaien analisi-material zehatza eta eraginkorra egin ez zelako, eta hori, erakunde honek behin eta berriz azaldu duen irizpidearen arabera, ezin da onartu.

Beste alde batetik, uste dugu Udalaren jokabideak interesdunaren defentsa oztopatzen zuela, zehaztu gabeko eta froga objektibo beraren ezberdina zen leku bati buruzko alegazioak egitera behartu zuelako.

- Emaizta

Oharpen horiek Gasteizeko Udalari jakinarazi genizkion eta gure eskariari erantzunez, erreklamatzailaren alegazioen gaineko iritzirik eman ez zuela onartu zuen eta zehapena balio gabetu zuen.

⇒ *Sopelan aparkatze mugatuaren erregimena (TAO) ezartzea (820/2005)*

- Erreklamazioa

Sopelako auzotar bat gure erakundera zuzendu zen, udalerrian aparkatze mugatuaren erregimen (TAO) baten ezarpena zalantzan jarritz, beste arrazoiren artean, ziurtatzen zuenaren arabera sistema berria era arinean eta inprobisazio maila altuarekin martxan jarri zelako. Bere ustez esate baterako, hainbat ibilgailuei (enpresetakoei, leasing-ei eta abarri) aplikagarri zen erregimena sistema martxan jarri baino lehen definitu ez izanak agerian uzten zuen hutsa. Edota, bere iritziz, erregimen berria aplikatu baino aste bat lehenago bertakoentzako txartela izateko interesa zuten pertsoneri aste bateko epea zutela bakarrik jakinarazteak ere hutsa egon zela frogatzen zuen .

- Azterketa

Kexaren tramitazioaren prozesuan zehar Sopelako Udalak eman zigun informazioak eta gure kontu lortutakoak hurrengo konprobatzeko aukera eman zigun:

- Aparkatze mugatutako erregimena 2005eko maiatzaren 27an Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako trafikoko, erabilerak eta hiri izaerako bide publikoetako Ordenantza arautzailearen bidez adostu eta hurrengo ekainaren 15ean indarrean sartu zen. Xedapen horrek, erregimen berria arautzeari kapitulu bakar bat dedikatzen zionak, hori ezartzera eta zehaztapen batzuk ezartzera, hala nola eremuak, ordutegia, aparkatzeko gaitzen duen titulu bat izatearen beharra, titulu hori aurkeztu behar den lekua, eta ordutegiak gaindituz gero dauden ondorioak ezartzera mugatzen zen. Arauak era berean Alkatetzari eremu zehatz batzuk gaitzeko aukera ematen zion eta gaitzen zuten tituluak zeintzuk ziren adierazten zuen.
- 2005eko uztailaren 15ean Ordenantza arautzaile berri baten hasierako onarpena argitaratu zen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean. Ordenantza arautzaile horrek zerbitzu publikoaren hainbat hiri-bideetan ibilgailuen aparkatzearen mugatze-kontrola eta antolaketa arautzen du eta aurreko egun 8an adostu zen. Horrela horrek sistemaren arautze osoa zehazten zuen. Ordenantza horren behin-betiko onarpena urte bereko irailaren 27an argitaratu zen, eta ez zen

indarrean sartu hurrengo urriaren 17ra arte, hau da, sistema berria aplikatzen hasi eta lau hilabeteetara arte.

- Ordenantza berri horren indarrean sartzearen aurreko irailaren 29an, Udalaren osoko bilkurak hasteko horren agindu zehatz batzuen aldaketa onartzea adostu zuen. Akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ordenantza indarrean sartu zen aurreko urriaren 11n.
- Zerbitzugintza horren tasen behin-betiko onarpenaren akordioa ekainaren 13an argitaratu zen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, eta testua zuzendu egin zen hilabete bereko 20an. Aipatutako akordio hori hurrengo abuztuaren 29an argitaratutako beste baten bidez aldaketak jasan zituen.

Gure iritziz, datu horiek erreklamatzaileri arrazoia ematen zioten inprobisazioa eta arintasuna atxikitzen zuenean, Udalak sistema berria aplikatzeko nahiko erregulazio izan gabe martxan jarri zuela agerian uzten baitzuten, eta ez zuela araudi osoa hura ezarri eta lau hilabete igaro ziren arte eduki. Era berean zerbitzugintza horregatik eta aplikazio-erregimen berregatik exijitu beharreko tasak aurrez definitu ez zirela erakusten zuten datuek.

Udalak jokabide hori udan aparkatze mugatuaren sistema martxan jartzearen beharrarekin justifikatzen zuen, uda baita udalerrira ibilgailu gehien joaten diren garaia. Era berean errealitate aldakorrera egokitzeko sistema dinamiko bat eta eboluzioaren menpe zegoena sortu zutela zioen.

Hala ere, gure iritziz arrazoi horiek ez zuten zalantzan jarritako jokabidea justifikatzen, gure ustetan Udalak diseinu legal osoa izan gabe erregimen berri bat martxan jarri zuelako, beharrezko zen diseinua gabe, eta gure ustez ez zen gertatu azalpen ofizialek ziotena, hau da errealitatearen noizbehinkako aldaketei aurretiazko araudi bukatu bat egokitu zutela.

Beste alde batetik, Udalak adierazten zuen moduan, sistema uda garaian funtzionatzea beharrezko gertatzen bazen, araudiaren elaborazio prozesua lehenago hasi beharko zatekeen, estaldura emateko nahiko aurrerapenarekin, bere hasiera baino lehenago erregimenaren araudi guztia osorik burutua egoteko.

- Emaizta

Deskribatutako balorazioa Udalari jakinarazi genion eta gure parte-hartzea gai honetan amaitutzat eman genuen, horren inguruan jarduera gehiago egiteko oinarririk ez genuela ulertu baikenuen.

### **7.3. ERTZAINTZAREN ZIEGEN ETA UDAL ATXILOGUNEEN EGOERA**

Ararteko erakundeak Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa zentroak deritzon txosten bereziak egindako gomendioen betetze maila egiaztatzeko egiten dituen jarduketan arloan, erakunde honen ordezkari bat Vitoria-Gasteizko eta Barakaldoko atxilotuen udal atxilologuneak bisitatu ditu aurten, horien barruko egoerari buruzko datu

gaurkotuak edukitzeko, bi polizia egoitza horietara egindako azken bisitaldia 1998koa baita. Gaiari buruz egin dugun esku-hartzearen xehetasunak urte horretako ohiko txostenean kontsultatu ahal dira (I. kapitulua).

Bisitaldien ostean, bi udalerrri horietako udalei eman genien gure balorazioaren emaitza, euren iritzia jasotzeko eta geuk egindako oharrekiko asmoa ezagutzeko. Zoritxarrez, txostena amaitzeko unean bi administrazio horiek oraindik ez dute gure eskabidea erantzun, nahiz eta une horretan erantzuna jasotzeko ezarri genuen epea aspaldi igarota egon.

## **1. Vitoria-Gasteizko atxilotuen udal atxilogunera egindako bisitaldia**

- 1.1. Bisitaldian ikusitakoaren arabera, polizia arduradunek geuk iradokitako neurri batzuk hartu zituztela ikusi genuen, eta horrek poztu egin gintuen; izan ere, 1998an polizia egoitzetara egindako bisitaldian iradokizun horiek egin genituen. Polizia arduradunen jarrera, beraz, oso ona izan da.

Horri dagokionez, ziegen zonarako sarrera independentea elbarritasuna duten pertsonentzat ere irisgarria da, eta tapakiek geuk aholkaturiko baldintzak betetzen dituzte.

Era berean, “Atxiloketa Parte” deritzon liburua egokitu egin da, atxiloketen eskuzko erregistroa egiteko erabiltzen den liburua; horrela, horren edukia bi hizkuntzatan dago. Halaber, handitu egin da sarrerak eta irteerak islatzeko laukien kopurua, baita “Oharretarako” lekua ere.

Era berean, atxilotuaren eskubideak jakinarazteko aktan, galdera bakoitzaren ostean atal bat sartu da, bertan atxilotuak eskubide hori ulertu duen ala ez eta berori erabiltzeko asmorik ote duen adierazteko. Guk geuk egiaztatu ezin izan genuen arren, gure solaskideak esan zigun euskaraz idatzitako eredia ere bazutela.

- 1.2. Egindako jarduketan egiaztaturikoaren arabera, hala eta guztiz ere, hobekuntza batzuk egin barik zeuden, nahiz eta Udalak horiek aztertzeko eta, kasu batzuetan, egiteko konpromisoa hartuta eduki.

Hain zuzen ere, instalazioei dagokienez, ziegen barruan argiaren intentsitatea graduatzeko aukera ematen duen sistema ezartzeko konpromisoa hartu zen, baita komuneko atea egokitze konpromisoa (atxilotuaren zaintza ahalbidetzeko) eta bertan dutxa bat instalatzeko konpromisoa ere.

Polizia zerbitzuaren funtzionamenduari dagokionez, zalantzak ditu atxilotuari eskubideak jakinarazteko aktarekin eta aipaturiko “Atxiloketa Parte” deritzon liburuarekin.

Horrela, ikusi genuen aktaren eredian ez dela jasotzen gure aurreko bisitaldian egindako iradokizuna, atxiloketaren zergatiak jasotzeko lekua handiagoa izateko,

horrela, leku hori egokia izango da atxilotuari honako honi buruzko informazio egokia eman zaiola egiaztatzeko: “*egozten zaizkion egitateak eta askatasunaz gabetzea eragin duten arrazoiak*” (Prozedura Kriminalari buruzko Legeko 520. art.ak).

Liburuak, bestalde, lehendik ere lauki bat dauka orrialde kopurua jasotzeko, geuk egindako iradokizunaren arabera. Hala eta guztiz ere, hori ez dago jasota urte honetako aleetan, guk ikusitakoetan, eta beraz, oraindik ere ezin daiteke jakin, kontsulta bat eginez, une bakoitzean dagoen urteroko atxilotu kopurua, eta hori jakitea komenigarria izango litzateke.

Halaber, ez dugu aldaketa handirik ikusi atxilotuei emandako janariari dagokionez; izan ere, atxilotuei, gure solaskideek emandako informazioaren arabera, gehienetan ogitarteko bero bat ematen zaie.

Hori dela eta, Udalari berriro egin nahi dizkiogu alderdi horiei buruzko iradokizunak, gure aurreko bisitaldian egindakoak, eta horiek 1998ko txostenean jasota gelditu ziren.

1.3. Bestalde, bisitaldian ikusitakoaren arabera, komenigarria da honako ohar hauek egitea:

- a) Lehenengo eta behin, Udalari gogoratu egin behar diogu uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuko 3.5 artikuluan ezarritakoa bete behar duela; dekretu horren bidez, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi zen, adin txikikoen zigor erantzukizunari buruzkoa. Izan ere, polizia arduradunak emandako informazioaren arabera, oraindik ere ez dago adin txikikoen erregistro berezirik, manu horretan ezarritakoaren arabera.
- b) Bisitaldian jakinarazi zigutenez, liburuetan ez dago jasota atxilotuari egiten zaion gorputz miaketa, eta jarduketa hori atestatuan ere ez dago jasota.

Erakunde honen ustez, jarduketa hori batean eta bestean jaso behar da. Gure iritzian, atestatuan, gainera, eginbide hori egiteko moduaren azalpen zehatza ere jaso behar da, eta erabakia justifikatzen duten arrazoiak ere adierazi behar dira, miaketa egitean atxilotua biluzik jartzen bada; horri dagokionez, “Polizia egoitzako miaketa pertsonalaren eginbidea” deritzon gomendio orokorrean adierazitako jarraibideak bete behar dira; horri buruzko 2001eko ohiko txostena aurkeztu genion Eusko Legebiltzarrari (VI. kap.), eta Udalari horren kopia eman diogu.

1.4. Gure ustez oso positiboa da polizia arduradunek judizio prozeduretan emandako epaiei buruz egiten ari diren kontrola, solaskideak horren berri eman baitigu; halako prozedurak agenteek esandakoa ez betetzearen eta antzeko zigor moten ondoriozko atestatuaren eraginez tramitatzen dira.



Gure iritzian, praktika hori tresna egokia da polizia zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko, honako gomendio honetan adierazitakoaren arabera: “Poliziak kontrolako tresnak ezarri beharra, agenteek egin ditzaketen jarduketak irregularrei dagokienez” (Eusko Jaurlaritzako 2003ko ohiko txosteneko VI. kap.).

- 1.5. Egiaztatu ezin izan dugun arren (esan zigutenez, datu hori ez baitago erregistraturik), gure solaskideak esan zigun atxilotuei bisitak edukitzeko aukera ematen zaiela, eta gure ustez hori gauza ona da.
- 1.6. Atxilotetaren inguruko alderdiak ez ezik, bisitaldian poliziak biolentzia sexista jasan duten emakumeei emandako arretari buruzko informazioa ere eskatu dugu. Polizia arduradunek emandako informazioaren arabera, bete egiten dira indarrean dauden protokolo guztiak (bai eraso sexuali eta bai emakumeen aurkako biolentziari dagokionez), eta gainera, agente guztiei horri buruzko informazioa eman zaie. Halaber, barne funtzionamenduko jarraibideak ezarri dira, salatzaileei laguntza eskaintzeko, eta lan horren ardura, orokorrean, bi emakumek dute.

Abokatuen laguntzari dagokionez, beharrezkoa da Abokatu Elkargoko txanda bereziari dei egitea, eta gainera, esku-hartzea gauzatu egin behar da. Izan ere, salatzaileari beti ere aukera horri buruzko informazioa eman arren, profesionala beti ez da polizia egoitzara joaten. Ez da argi gelditu disfuntzio horren zergatia; dirudienez, kasu batzuetan aholkularitza telefonoz egiten da, eta beste zenbait kasutan, Udaltzaingoak lehentasuna ematen dio azkartasunari, eta beraz, ez du itxaroten abokatu etorri arte. Gure ustez, jarduteko modu horrek ez dio guztiz erantzuten aipaturiko txandaren edukiari, eta hori Udaltzaingoari planteatu diogu, Abokatuen Elkargoan ere planteatzearen kalterik gabe.

Azkenik, udalerriko pertsoneri emandako urruntze-aginduei dagokienez esan digutenaren arabera, programa informatiko berezia jarri nahi dute martxan, halako kasuen erabilera arina eta eraginkorra ahalbidetzeko. Datu-oinarri orokorra da eta ez da emakumeen aurkako biolentzia kasuei buruzkoa bakarrik. Bestalde, sarritan babes neurri bereziak hartzen dira, baita epailearen agindua hartu baino lehen ere.

## **2.Barakaldoko atxilotuen udal atxilogunera egindako bisitaldia**

- 2.1. Kasu honetan egiaztaturikoaren arabera ere, 1998an (polizia egoitzara egindako azken bisitaldian) iradokitako neurri batzuk hartu dira. Horrela, pozez ikusi dugu ziegen zonarako sarrera independentea elbarrientzat ere erabilgarria dela; gainera, zona horretan keen detektagailua instalatu da; halaber, ziega bakoitzean zeria bat jarri da, baina ikusi genituenak oso narriaturik zeuden.
- 2.2. Egindako jarduketan egiaztatu dugunez, hala ere, hobekuntza batzuk ez dira egin, udalak horiek kontuan hartzeko eta, kasu batzuetan, egiteko konpromisoa hartu arren.

Hain zuzen ere, instalazioei dagokienez, polizia egoitzaren sarbide nagusian dauden hesi arkitektonikoak ezabatzeko konpromisoa hartu zuen, baita ziegen barruko argiaren intentsitatea graduatzeko aukera ematen duen sistemaren bat ezartzeko eta berokuntza sistema ziegen zonara hedatzeko konpromisoa ere.

Polizia zerbitzuaren funtzionamenduari dagokionez, atxilotuari bere eskubideei buruzko informazioa ematearen inguruko zalantza daukagu. Aktak oraindik ez dauka leku nahikorik atxilotuari honako honi buruzko informazioa eman zaiola egiaztatzeko: *“egozten zaizkion egitateak eta askatasunaz gabetzea eragin duten arrazoiak”* (Prozedura Kriminalari buruzko Legeko 520. art.ak); gainera, oraindik ez dago euskaraz idatzitako agiririk, hizkuntza hori erabili nahi dutenentzat.

Hori dela eta, udalari berretsi egin genizkion 1998ko ohiko txostenean alderdi horiei buruz egindako ohar guztiak.

- 2.3. Era berean, bisitaldian egiaztaturikoaren arabera, txosten horretan egindako gainerako iradokizunak (Udalak horiekiko desadostasuna adierazi zigun) eragin zituen egoera oraindik ere ez da aldatu.

Esate baterako, ziegen zonako instalazioei dagokienez, ziegak ez dira aldatu azalaren aldetik (komeni den azalera baino apur bat txikiagoa) eta estalduraren aldetik (alikatatua); atxilotuei ematen zaizkien tapakiek antzeko ezaugarriak dituzte (berriro erabiltzekoak), eta komunean oraindik ere ez dago dutxarrik; gainera, zaintza sistema ere lehenagoaren berdin-berdina da. Salaketak jasotzen dituen erakusmahaiei buruz ere gauza bera esan daiteke, azken urteotan ez baitu aldaketarik izan.

Atxiloketaren erregistro liburuei dagokienez, atxiloketen erregistroa liburu bakarrean bateratzeari buruz egin genuen proposamena orain arte ez da kontuan hartu; liburu horren barruan, atxiloketa bakoitzari buruzko idazpen bat egon behar da eta, gainera, leku nahikoa izan behar du atxiloketan egon daitezkeen gorabehera guztiak jasotzeko (zaintzaren arduraren agenteak, osasun ikuskapenak, emandako sendagaiak, irteerak, bisitaldiak, abokatuaren laguntza, interpretea, etab.). Egiaztaturikoaren arabera, lehenengo hirurak ezaugarri bereberekin mantendu dira.

Era berean, atxilotuei eskaintzen zaien janarian ere ez dugu aldaketa handirik ikusi; solaskideek emandako informazioaren arabera, gehienetan ogitarteko beroa ematen zaie.

Horrenbestez, kasu honetan ere, Udalari 1998an gaiari buruz egindako iradokizunak berretsi beharra izan dugu, eta iradokizunok, berriz, urte horri buruzko txosten berezian jasota daude.

Horri dagokionez, komenigarria da ziegetako hormen alikatatuaren ordez beste estalduraren bat erabiltzea; izan ere, baldosa batzuk apurtuta daude eta, horren eraginez, tresna ebakitzailatzat erabili ahal dira. Aurreko bisitaldian adierazi

genuenez, gure iritzian, pintura garbigarriarekin egindako akaberak arazo hori saihestuko luke.

Era berean, komenigarria da atxiloketaren erregistroa liburu bakarrean egitea; liburu horrek, berriz, 1998ko txostenean adierazi genituen ezaugarriak eduki beharko ditu, eta urterokoa izango da.

Gure ustez, "Atxilotu prebentiboen Udal Atxilogunea" deritzon liburuaren (atxiloketaren inguruko alderdirik garrantzitsuenak erregistratzeko liburu) oraingo egiturak ez du aukerarik ematen, kontsulta baten bidez, atxiloketak izandako gorabehera nagusiak ezagutzeko, eta une bakoitzean dagoen urteko atxilotu kopurua jakiteko aukerarik ere ez du ematen, eta hori gutzia, gure ustez, komenigarria izango litzateke.

2.4. Bestalde, bisitaldian ikusitakoaren eraginez, honako ohar hauek egin behar ditugu:

- a) Polizia arduradunek emandako informazioaren arabera, bisitaldia egiteko unean ez zuten adin txikikoen erregistro berezirik, uztailearen 30eko 1774/2004 Errege Dekretuko 3.5 artikulua aipaturik; horren bidez, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi da eta lege horrek adin txikikoen zigor erantzukizuna arautzen du. Horren ondorioz, Udalari gogoratu egin diogu legezko agindua bete beharra duela.
- b) Bisitaldia egitean, akatsak ikusi ditugu "Atxilotu prebentiboen Udal Atxilogunea" deritzon liburuan atxiloketa bati esleituriko zenbakian, eta hori ondorengo oharretan mantendu egin da.

Halaber, atxiloketa baten eta horri loturiko polizia atestatuaren erregistroen berrikuspena egitean egiaztaturikoaren arabera, liburu horretan ez da ondo jaso atxilotua ospitalera eramane dutenik, eta gainera, atestatuan ez da horri buruzko eginbiderik jaso, hori egiaztatzen duen osasun partearen kopia agertu arren.

Aurkituriko akatsak aintzat hartuta, Udalari gogoratu egin diogu atxiloketak egin dituzten agenteek eginbide guztiak bete behar dituztela, tramiteak egitean.

- c) Ziegen zonan dagoen komunaren ateak (lurzorura arteko barrote bertikalak) ez du bermatzen erabiltzaileen intimitatea. Gure iritzian, atean altuera Erdiko plaka bat jartzea lagungarria izan daiteke akats hori konpontzeko.
- d) Geure iritzian, bisitaldia egiteko egunean, instalazioek garbitasuneko eta mantentamenduko baldintza onargarriak zituzten.

Hala eta guztiz ere, "atxikipen gelako" hormek zikinkeria batzuk zituzten, nahiz eta, erakundearen ordezkariarekin batera ibilitako polizia arduradunek esandakoaren arabera, egoitza hori hamabost egun lehenago pintaturik egon.

Halako arazoak konpondu ahal izateko (zikintzen diren bakoitzean hormak pintatzen ibili barik), Udalari garbitzeko moduko pintura erabiltzeko iradokizuna egin diogu; horrela, zikinkeria garbiketa arrunta eginez ezabatuko da.

Halaber, komuneko argia une horretan erreta zegoen.

- 2.5. Erakunde honen ustez, oso positiboa da oraingo erabilgarritasuna, solaskideek emandako informazioaren arabera, atxilotuaren eskubideen informazioa atzerriko hizkuntzetan (esaterako, portugaleraz eta errumanieraz) ematen duen akta eredu bati dagokionez.
- 2.6. Atxiloketari loturiko gaiak ez ezik, bisitaldian informazioa eskatu dugu biolentzia sexista jasan duten emakumeen polizia laguntzari buruz. Solaskideek emandako informazioaren arabera, arlo horren gaineko eskumena (indarreko koordinazio akordioetan ezartzen denez) Ertzaintzak eduki arren, Udaltzaingora jotzen duten salatzaileei laguntza ematen zaie, eta ez da arazorik ikusi. Nolanahi ere, urte horretan jasotako bederatzai salaketetarik ezekin ere ez zen gauzez edo arazoak sortzeko moduko beste une batzuetan aurkeztu (esate baterako, laguntza juridikoari edo gizarte zerbitzuekiko koordinazioari, ostatuari eta abarri dagokionez). Indarreko protokolo guztiak betetzen omen dira (bai eraso sexualei eta bai emakumeen aurkako biolentziari dagokionez), eta gainera, salatzaileari informazioa emateko materialak landu dituzte, eta horri buruzko balorazio positiboa egin behar dugu.

Daten erregistroari dagokionez, estatistikan “etxeko biolentzia” kontzeptua jasota dago, baina elkarrizketan ezin izan ditugu argitu sailkapenerako erabiltzen diren irizpideak. Beste kasu batzuetan esan dugunez, polizia guztien artean irizpideak bateratu egin behar dituzte, oraingo desberdintasunak zaildu egiten baitu Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion datuen ezagupena eta azterketa.

Azkenik, udalerriko pertsona batzuen urruntze-aginduei dagokienez, eskuzko kontrola eraman arren (aginduak emateko egunaren arabera artxiboarekin), komenigarria da erregistro informatikoa edukitzea, erabilera azkarragoa eta eraginkorragoa izateko.

## 8. JUSTIZIA

### 8.1. SARRERA

Justiziaren alorrean biltzen diren Arartekoaren jardueri buruzko ganorazko ideia bat hartzeko, argitu behar dugu, izen hori jarri arren, arlo honetako gure jarduera ez dela auzitegien funtzionamendua ikuskatzera bideratzen. Botere judizialaren independentziaren printzipioa aplikatuz, ebazpena eman duenaren gaineko justizia organoek baino ezin dituzte epaitegien zeregina kontrolatu. Ondorioz, erakunde hau araupetzen duen legeak debekatu egiten dio Arartekoari epaitegietara eraman den edozein gai edo auzi aztertzea sar dadin. Horregatik, 2005ean ere, Ararteko erakunde honek 31 kexa ezetsi behar izan ditu.

Legebiltzarreko mandatariek zaindu behar dute epaitegietako zerbitzu publikoa zelatan doan, administrazioaren ikuspegi hutsetik, hau da, bitarteko materialen eta pertsonalen erakunde den aldetik. Ikuspegi horretatik, eskuartean daukagun alor honetan jarduera desberdinak bildu ditugu; beraien arteko lotura, zuzenean zein zeharka, justiziaren aplikazioarekin zerikusia daukatela da. Espediente bat tramitatzera eraman gaituzten kexak honelaxe sailkatuko genituzke:

–Espetxe gaietako jarduerak .....	23
–Justizia Administrazioaren Funtzionamendua .....	8
–Abokatu eta prokuradoreen bazkunak .....	4
–Adingabe arau-urratzaileak.....	2
–Beste alderdi batzuk .....	2
–Justizia Administrazioaren bitarteko pertsonalak eta materialak.....	1

Justiziaren arloan tramitatu ditugun kexa espedienteetan jorratu ditugun gai nagusiak aztertzeari ekin baino lehen, epaitegien bidean ebazita zeudelako, zein horren zain zeudelako **onartzerik izan ez dugun gaiak** aipatzea komeniko litzaiguke. Arartekoak, legez, halako kexak aztertzerik ez izateak ez du esan nahi islatzen dituzten gizarteko gatazkak garrantzitsuak ez direnik.

Beharbada, arazo horietan larriena indarkeria sexista jasan duten emakumei buruzkoa da, erasogileak zigor bidetik salatzeko urratsa egin duten arren, epaileengandik erantzun eraginkorrik jaso ez duten emakumei buruzkoa, alegia. Ukaezina da azkeneko lege erreformek –bereziki, genero indarkeriaren kontrako osozko babeseko neurrien legea–, eta erakunde publikoak giza eskubideen urraketa onartezin horren aurrean gehiago inplikatzeko ari direla eta, halakoekin, kaltetutako emakume horien egoera hobetu dela. Alabaina, larregi dira, oraindik ere, prozeduretan luzamendu izugarriak izaten direlako, jurisdikzio penala eta zibila koordinatuta ez daudelako, epaitegietan, edo abokatu enaldetik, tratu zuzenik ematen ez zaielako jasotzen diren kexak; abokatuei batzutan informazio urriak, baita zehaztasunik gabeak ere ematen dituztela leporatzen zaie.

Txosten honetan emakumei “lehentasunezko arretoa merezi duten kolektibo” modura eskaini zaien atalean, genero indarkeriari buruzko epigrafe bat erantsi da –jo ezazue horra–, kasu horiek xehekiago jorratzen direnekoa. Hala ere, azpimarratu behar dugu emakumeak bizilagunarekin sortutako indarkeriatik eraginkortasunez babestea oraindik

lortzeko daukagun helburua dela; oraindik iritsi ez dugun helmuga da, eta gure gizartea lege erreformak baino askoz ere motelago doa bide horretan, gainera.

Genero indarkeria aipatzen den kasuez gain, ugariak dira familia hausturei buruzko beste prozedura judizial batzuen gaineko kekek. Sarritan, emakumeak dira ezarritako neurriekin (elikagaiak, seme-alaben bisita erregimena...) eta, zehazki, irabazpidezko sozietatearen likidazio prozesuekin ados ez daudela diotenak, prozesu horien luzamenduak oso kaltegarriak izaten baitira ekonomikoki ahulena denarentzat. Alabaina, asko eta asko dira seme-alaben zaintzaren gaineko erabakiengatik, pentsioen zenbatekoarengatik eta abarrengatik protesta egiten dutenak. Garbi dago, itxuraz, edozein borroka edo aurkaritza esparrutan auziak epaitegietatik kanpo konpon daitezzen bultzatzea komeni bada, famili arazoan alorrean halako konponbideak sustatzea ezinbestekoa dela.

Espero zitekeenez, epaileen ebazpenekin ados ez daudela agertzen duten erreklamazioak jurisdikzio guztiei buruzkoak eta oso arazo eta gai desberdinei buruzkoak dira (lekuko bati ahozko ikustaldi batean emandako tratua, lan istripu baten ondorioen balorazioa, aldeko ebazpen bat husten duen epaiaren betearazpena, doako asistentzia juridikoari buruzko epaileen erabakiak, eta abar). Baina, ugaritasunari adituz, esparru penalean pizten diren kekek azpimarratu behar dira.

Herrizaingo arloaren sarreran aipatu den moduan, kexa horietako asko epaileek poliziak jendea inkomunikatuta atxilo daukanean jasandako tortura edo tratu iraingarrien salaketen aurrean duten jarrerari buruzkoak dira. Kaltetuek protesta egiten dute epaileek beren kontakizunak sinesten ez dituztelako eta, ondorioz, inolako ikerketa judizialik abiarazten ez dutelako. Guardiako Epaitegiek ere, beren iritziz, polizia zein espetxeetako funtzionarioen halako delituen salaketak sistematikoki largetsi eta artxibatzen dituztela ere arbuatzen dute.

Horri buruz, Arartekoaren torturari buruzko adierazpena berretsi behar dugu (2004-12-21). Dokumentu horretan, giza duintasunaren urraketa hori errotik desagerrarazteko lehenengo urratsa halakorik izatea litekeela onartzean datzala abiapuntu hartuta, gure erakundeak zioen edozein tortura salaketa ikertu beharra dagoela, eta krimena burutu dela frogatzen denean dagokion zigorra ezarri behar dela, biktimei kalte ordain egokia eman behar zaiela ahaztu barik.

Beste urte batzuetan ez bezala, eta lehenago emakumeen kontrako indarkeriaz aipatu ditugunak kenduta, oraingoan ez dugu delituen biktimen erreklamaziorik jaso. Aitzitik, sarri heldu zaizkigu prozedura penaletan epaileek hartutako erabakien kontra protestatzen zutenen kekek: badaezpadako espetxeratzeetatik hasi –kasu bat baino gehiagotan prozesuan izandako luzamenduak ere salatu dira–, eta gaixotasun larriarengatik baldintzapeko askatasuna ukatzeraino, tartean bidegabe edo neurrigabe iritzitako zigorrak, zigorren zenbaketari buruzko desadostasunak eta abar daudela.

Hirutan gutxienez –*kale borroka* deritzonarekin zerikusia daukaten bi kausa penal, eta bestelako beste bat–, erreklamaziogileak kexu ziren auzipetuek beraiek ezagutzen ez zituzten sumarioaren hainbat eduki hedabideetara zabaldu zirelako. Halakoetan ezinezkoa izaten da informazioa zabaldu duena epaitegia ala polizia izan den argitzea. Arazoa planteatu dugunean, bi instantzia horiek beren erantzukizuna ukatu dute, eta ez dakigu barruko ikerketarik egin duten ala ez.

Hainbat kasutan, epaileen ebazpenei buruzko erreklamazioak egiten dituztenak atzerritarrak dira. Mahairatzen dizkiguten auzien artean, bat aipatuko dugu, ezer egiterik ez genuen arren, izugarri larria iruditu zitzaiguna. Portugaleteko Udaltzaingoa

harrapatu zuen etorkin batez, saltzaile ibiltaria bera, ari gara. Udaltzainen esanetan, iraindu zituenez, atxilo eraman zuten eta erresistentziako ustezko delitua leporatu zioten. Barakaldoko epaitegira heltzean, auzia, hasieratik, falta modura kalifikatu zen –halakoetan ohi den modura–, baina arazoa zitazioekin sortu zen. Bakarra jaso zuen, epaiketara joateko, eta horretan, hainbat tokitan, salaketa “*jarduerak derrigorrezko aseguruak barik egiteagatik*” jarri zaiola zioen. Kaltetuak –zentzudun– pentsatu zuen automobilaren aseguruari buruzko zerbaite izango zela, eta autoaren dokumentazioarekin joan zen epaitegira, burutik ere pasatu ez zitzaizalarik ordena publikoaren kontrako falta batengatik epaitu behar zutenik, abokatu eta lekukorik gabe, gainera. Auzi-saioan azalpenak ematen saiatu zen arren –hala dio berak– epaiketa egin egin zen, eta isuna ezarri zioten. Arartekoarengana jo zuenean jada ez zeukan epai haren kontrako errekurtsorik jartzerik.

Gure ikuspegitik, garbi dago defentsarik ezeko kasua dela, non kaltetuak baliabiderik ez izateak –dirua, kultura...– hasierako balizko akatsak ongitzeko gai diren instantziek arazoaren berri izatea eragotzi duten.

Ezin izan dugu esku hartu, halaber, Langraizko preso batek azaldutako egoera paradoxiko samar baten aurrean. Bidali zigun dokumentazioa aztertu ondoren, ondorioztatu genuen zigor bat betetzen ari zela eta, aldi berean, beste kausa batengatik badaezpadako espetxeratzea ere ezarri zitzaiola, eta egoera hori hasieran jarritako zigorraren erdia bete arte luzatu ziotela. Epe hori agortuta, behin behineko askatasuna eskatu zuen eta, printzipioz, onartu zioten, baina gero, akusazio partikularrak errekurritu zuen, argudiatuz beste zigor bat betetzen ari zenez, ezin dela pentsatu badaezpadako espetxealdirik bete zuenik. Horregatik, Arabako Probintzi Entzutegiak badaezpadako espetxealdian uztea erabaki zuen, preso kausa horren pean izatez “*beste kausaren zigorra betetzean aske geratzen den egunetik aurrera (espetxetik irteteko baimena ematen zaionean) askatasuna badaezpadako preso zelako ukatzen zaion egunetik*” aurrera geratuko zelako oinarri juridikoei helduz. Arazoa da –interesatuak aurkeztutako beste dokumentu batzuetatik ondorioztatzen denez– hori jada gertatzen ari dela. Izan ere, Espetxe Zaintzako Epaitegiaren ebazpen bat dago, Probintzi Entzutegiarenaren aurrekoa, non baiesten baitute ezin dutela 3. gradurako aldaketaren gainean ezer erabaki, badaezpadako preso denez, sailkatu gabe dagoelako. Duela gutxi jaso dugun gaia denez, hainbat gestio egiten ari gara, informazio eske, erreklamazioegileari argibiderik eman ahal izateko.

Gure erakundeari, urte amaieran, buruko gaixotasuna duelako salbueslea igarri zioten arren, Basaurin preso dagoen herritar baten arazoa ere aurkeztu zaio. Elkarte erreklamazioegileak dioenez, askatasuna kentzen ez duen segurtasun neurri bat ez betetzearen ondorioz, Probintzi Entzutegiak espetxeratzea agindu zuen, eta erabaki hori –guk ditugun datuen arabera– oso harrigarria da. Txosten hau idazten ari garenean, gure erakundea hainbat gestio egiten ari da kasuari buruzko informazio osoa lortzeko eta jarduteko ildoren bat zehazten saiatzeko.

Kexa hauek –formalki tramitera onartu ezin izan baditugu ere– **espetxe gaitako jarduerekin** lotzen dira; aurten ere horiek izan dira Justizia alorreko espedienteetan ugarietak. Beste batzuetan azaldu dugun moduan, espetxeen kudeaketa oraindik EAeko Administrazioari eman ez zaionez, Arartekoak ez dauka eskumenik esparru honetan ezer kontrolatzeko. Horregatik, espetxeen funtzionamenduari buruzko balizko irregulartasunen gainean jasotzen ditugun erreklamazio guztiak Estatuko Arartekoarengana

bideratzen ditugu eta, gure antolaketari begira, bidalketa horren arabera sailkatzen ditugu; ez dira, beraz, aurreko kopuru horietan islatzen.

Nolanahi ere, beste urte batzuetan ez bezala, 2005ean gutxi izan dira estatuko gure homologoari gai honetaz bideratu dizkiogun kexak. Terrorismoarekin espetxerata dauden pertsonen kolektiboari dagokionez, norbanako modura helarazi dizkioguten bi kexa soilik bidali dizkiogu. Urte amaieran, Etxerat elkartearen beste idatzi bat jaso dugu, espetxetik UPV/EHU nahi dutenek oztopoak izaten segitzen dutela esanez. Gure Arartekoa eta Estatuko Arartekoa elkartu ziren batean gai honetaz aritu ziren eta, 2006aren hasieran beste elkarte batek ere mahai gainean jarri digunez, aurten berriro helduko diogu gaiari.

Behin baino gehiagotan zuzendu zaizkigu elkarteak zein udalak, kolektibo horretako kide jakin batzuei buruzko gaiekin. Alabaina, pentsatu dugu ez zegokigula Estatuko Arartekoarengana bideratzea, kexa kaltetuek beraiek aurkezten ez zutenaz, ez baikenekien beraiek estatuko berme-erakunde horri esku hartzeko eskatzea nahi zuten ala ez.

Bestalde, ez dugu Estatuko Arartekoak Brievako espetxean preso dauden hainbat emakumek 2004ko abenduan bultzatutako kexari buruz ezer egin duen inolako berririk izan. Emakume haiek Arartekoarengana jo zuten ginekologi arretan gabezia izugarriak zeudela, eta sexu osasunari eta antikontzepzioari buruzko informazio eta hezkuntza egokirik ematen ez zitzaieela ere salatzen.

Beste gai bat, printzipioz estatuko Arartekoari egokituko litzaiokeena, Frantziatik, han ezarritako zigor bat betetzera, Espainiara aldatutako herritar batek planteatu ziguna da. Frantzian lortutako zigor murrizketak Espainian zenbatu ziezazkioten aurkitzen ari zen oztopoak salatzen zituen. Azkenean, Audientzia Nazionalaren ebazpen batek ebatzi zuten auzia, aurreko beste erabaki bat partzialki aldatuz.

Espetxeetatik etorritako gainerako kexetan ez ziren Administrazioaren balizko jarduera irregularrak salatzen, EAEko erakunde publikoen nolabaiteko inplikazioa ikusten zen arazoak mahairatu, edo informazio edo orientazio eskari hutsak egin baizik. *“Espetxe gaietako jarduerak”* izenpean bildu ditugun espedienteak dira.

Aurreko ekitaldietan bezala, 2005ean presoan idatzi ugari jaso ditugu, ia gehienak EAEko espetxeetan dauden pertsonengandik, beste espetxe batzuetatik ere Arartekoarengana zuzendu direnik ere izan diren arren. Azaldu dizkioguten gaiak oso desberdinak dira baina –zorritzarez- aurten Langraizen hildako presoek buruzko kexak azpimarratu behar ditugu, bereziki, beren buruaz beste egin dutenei buruzkoak. Lehenengo erreklamazioa elkarte batek aurkeztu zuen, eta 2004ko abenduaren 15ean gertatu ziren bi heriotzak zituen hizpide –batek bere buruaz beste egin zuen-, baina asko izan dira gaia zuzenean zein zeharka jorratu duten presoek gutunak, espetxe horretako bizi baldintzei egotziz arazoaren benetako arrazoia. Besteak beste, heriotza ez-naturalak hainbeste izateari kezkarri irizita, Arartekoa EAEko hiru espetxeetara joan zen eta, horren berri izateko, atal honetako azkeneko idatz-zatira jo dezakezue (8.3), hor xehekiago azaltzen baitira gure erakundeak presoek dagokienez burutu dituen jarduera hori eta ofiziozko beste batzuk.

Alabaina, hemen elkarte batek espetxeko heriotzei buruz planteatu zuen gai zehatz bat ere aipatu behar dugu. Kolektibo erreklamaziogileak hainbat bider salatua zuen Espetxe Administrazioak, eta Instrukzio Epaitegiak ez ziotela hildakoaren familiari heriotzaren ingurumari eta zioen inolako argibiderik ematen. Arazoa generikoki formulatzen zenez, hala zabaldu zuen Arartekoak hitz egitera joan zen instantzia desberdinetan. Baina urtearen azkeneko egunetan, elkarte horrek Langraizeko espetxean hil zen gazte baten



senideei informaziorik eman ez zitzaielako kexa aurkeztu zuen. Erreklamazioa Arabako Probintzi Entzutegira bidali dugu eta, txosten hau idazten ari garenean, erantzunaren zain gaude.

Gai zehaztutara sartuta, aurten berriro ere errepikatu zaizkigu espetxe Administrazioak buruko gaixotasunei oso erantzun eskasa ematen diela salatzen duten kexak, ukituek, batez ere, zigorra espetxetik kanpo bete dezaten, edo kaleratzean harrera egokia eskain diezaieten eskatzen badute ere; izan ere, kaleratzea luzatu egiten da baldintzapeko askatasunik lortzea ahalbidetuko duen baliabiderik ez dagoelako. Oso antzeko kexak etortzen zaizkigu drogaren mendetasun arazoak dituzten presoengandik, eta ez dugu ahaztu behar egoera horiek patologia mentalei edo beste gaixotasun larri batzuei, esaterako, hiesari lotuta ageri direla, gero eta sarriago. Gogoratu behar dugu Arartekoak behin eta berriro mahairatu duela, azkeneko urteetako txostenetan, baliabide gabezia horren arazoa, baina EAEn horretarako eskudun diren erakundeek ez dutela inolako neurririk hartu.

Aurten ere gaixotasun kroniko larria daukan eta, baldintzapeko askatasunean irteteko baldintzak betetzen dituen arren, bizitzeko ez eze, behar duen arreta medikoa jasotzeko zentro egokirik aurkitzen ez dutenez, espetxean segitzen duen preso baten erreklamazioa jaso dugu. Aurreko kasuetan bezala, Osakidetza ez dio egoki iritzi gizarteratzeko arazoak dituzten gaixoak artatu ohi diren zentro batean ere sartzeari. Aipatu behar dugu 2004ko txostenean aipatu genuen preso gaixo bat Txagorritxuko Zaintza Bereziko Unitatean hil zela iaz, askatasunik lortu barik.

Osasun arretari dagokionez, halaber, preso batek bere protesta azaldu zigun egin behar izan zioten ebakuntza baten atzerapenarengatik. Berak zioenez, prostata biopsia bat egin zioten baina, hasieran esan zioten bezala, biopsia egin eta zortzi egunera Urologia Zerbitzuan hitzordua eman beharrean, kontsulta hilabete eta erdi geroago izan zuen, nahiz eta –geroago jakin zuenez– frogaren emaitzek prostata osorik kentzea gomendatzen zuten. Erreklamaziogileak zioen ez zegoela osasun zentroaren jokabidearekin ados, ez eta espetxeko zerbitzu medikoaren jokabidearekin ere, informazioaren transmisioan hutsegina baitzuen eta, lehenengo kontsulta bertan behera geratu zenean, ez baitzuen behar bezala erantzuten jakin. Horren gainean, dauzkagun eskumenen mugekin bateragarri diren gestioak egin genituen, eta interesatuari galdetu genion ea kexa Estatuko Arartekoari bidal geniezaion nahi zuen.

Bestalde, Osakidetzaarengana ere jo genuen, eta azalpen batzuk eman zizkiguten. Antza, biopsiaren dataren inguruan, arrazoi desberdinak tarteko, Txagorritxuko Ospitaleko Urologia Zerbitzuak espezialisten erdia galdu zuen. Besterik kontratatzea ezinezkoa zenez, kasurik larrienen artapena lehenetsi behar izan zuten eta, horrela, hainbat pazienteren hitzorduak aldatu behar izan zituzten, telefonoz. Eskuarlean daukagun kasu honetan, komunikazioa espetxera bidali zen, baina ez interesatuari zuzenean, edo atzerapenaren garrantzia balora zezakeen mediku bati. Osakidetza aitortu zuen espetxeko osasun zerbitzuekin koordinatu ez zela, eta barkamena eskatu zuen pazientearen igurikapenak zapuzteagatik. Jakinarazi zigun, halaber, preso haren ebakuntza egitea programatuta zeukatela eta, beraz, arazoa konpondutzat eman genuen.

Presoen osasun artapenaren alorra utzi barik, Langraiztik ospitaletara eramaten dituztenean sortutako arazoak aipatu behar ditugu. Jakina denez, Ertzaintza arduratzen da presoak EAeko lurralde barruan leku batetik bestera eramateaz eta, aurreko urteetan ere, esparru horretan igarritako hainbat gabeziaren berri eman dugu. Konpondu barik

segitzen dute espetxe horretatik Bizkaian egiten diren epaiketetarako presoen bidaien baldintzei buruzko arazoak, zeren epaitegian ordu batzuetako agerraldia egiteko, presoek segitzen baitute Basaurin gutxienez aste bat ematen, eta horrek gorabeherak sortzen ditu bi espetxeen artean eta, are larriago dena, galera larriak sortzen dizkie ukitutako presoiei.

Gabezia larri horrez gain, 2005ean bi kexa heldu zaizkigu, non, alboko gisa, zentro medikoetarako bidaiak bertan behera geratu edo atzeratzeari buruzko kexak azaldu zaizkigun. Gai zehatz horiei heltzerik izan ez dugun arren –ustezko ezbehar horien datei buruzko daturik ez geneukalako– berriro planteatu dugu gaia Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailburuarekin egindako bilera batean, gure ustez, Herrizaingoari baitagokio jaurlaritzaren espetxe alorreko jarduerak koordinatzea eta, kasu zehatz honetan, Herrizaingo Sailari dagozkion erantzukizunak bere gain har ditzan eskatu diogu. Alde horretatik, uste dugu ezin dela onartu gaiari buruzko lehenengo kexa planteatu zenetik ia bost urte joan direnean, Ertzaintzak, oraindik, orduan alegatu zituen giza baliabide eta baliabide materialik eza konpondu barik edukitzea. Hain arazo garrantzitsuen konponketa eperik gabe atzeratzerik ez dagoela behin baino gehiagotan esan dugun arren, ez dugu inolako hobekuntzarik igarri; aitzitik, arazoa lehen baino larriagoa ere izan daiteke, gero eta preso gehiago dagoelako.

Presoek mahairatzen dizkiguten gai eta kontsulta desberdin ugarien barruan –bizitzako edozein esparru har dezakete, hala nola, adingabeen tutoretza zelan antolatu, edo testamentua zelan egin.– beste urte batzuetan ere izan diren zergapetu gabeko ezgaitasunen pentsioei buruzko hainbat kexa errepikatu dira eta, jakina, baimenak, espetxeko sailkapenak, zigorra non bete, komunikazioak eta bisitak, eta abar hizpide dituztenak ere. Gauza berri modura, esan dezakegu, ekitaldi honetan, idatzi batzuk jaso direla, arazo pertsonal bat edo espetxe administrazioaren ustezko jarduera irregular bat gai nagusi ez zutenak, eta espetxeko bizitza baldintzak oro har salatzen zituztenak, kasu batzuetan elikadura, beste batzuetan eraikinetako akatsak edo berogailuen sistema, benetako espetxe tratamendurik ez izatea, preso mota desberdinak izatez ez banatzearen ondoriozko bizikidetzako arazoak, eta abarrak nabarmenduz. Ikuspegi ugari dagoela azpimarratu behar bada ere, erreklamazio gile asko bat datoz tratamenduko profesionalekin edo hezitzaileekin elkarrizketak eskatzen dituztenean izugarri atzeratzen direla erantzuten, eta batzuetan “moduluetatik” agertu ere egiten ez direla ere salatzen dutenak. Desadostasuna arretaren bizitasunarekin eta, bereziki, elkarrizketa izateko zailtasunekin, Espetxe Zaintzako Epaitegiari buruz ere aipatzen dira. Telefonozko komunikazioen sistema berria ere kritikatzeko dute. Gai hauek xehetasun handiagoz jorratuko dira hurrengo atalean, (8.3), EAEko espetxeetako egoerari buruz aritzean.

Espetxeetatik datozen erreklamazioen aipuarekin amaitzeko, espetxean dauden etorkinen kolektiboak ere hitz egin behar dugu. Kolektibo hori gero eta kriminalizatua dagoenez, gero eta gehiago dira preso atzerritarrek sinatutako kexak. Gaiak oso desberdinak diren arren –batzuk lehenago ere aipatu ditugu, esaterako, badaezpadako espetxealdia gehiegi luzatzea–, badira kasu aipagarri batzuk, adibidez, ezkontzeko irteera baimena eskatu zuenarena, edo zigorra betetzera sorterrira eramanez ezaten eskariaren tramitazioaren atzerapena salatu zuen belgikarrena. Beste etorkin bat Arartekoarengana etorri zen, epaiketan, erantzukizun zibila ordaintzen bazuen, zigorraren baldintzapeko etena lortuko zuela ziurtatu ziotela azalduz eta, ordaindu zuen arren, espetxean segitzen zuela. Informatzeko gestio bat eginez, jakin ahal izan genuen erreklamazio gileak jarritako

dirua esandako kontzeptu horretara xedatu bazen ere –eta hori ez zen argi geratzen berak aurkeztutako dokumentuan–, antza, hemendik kanporatzeko prozedura abiatua zen, Kode penalaren 89. artikulua aplikatuz.

Azaldutako keza hori erdibidean dago, “*espetxe gaietako jarduerak*” eta erakunde honek **justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruz** egindakoen artean. Atal honen hasieran emandako zenbakietan ikus daitekeenez, gutxi dira Justiziaren alorrean nagusizat jo genezakeen eremu horretan tramitatzen ditugun espedienteak. Iaz, birritan –Justiziaren Euskal Behatokiaren lantalde batean eta epaile eta magistratuentzako ikastaro batean–, gure erakundeak epaitegien eta herritarren arteko komunikazioari buruzko gogoetak azaltzeko aukera izan zuen eta, adierazi genien, gainera, ziur gaudela –horretaz keza gutxi dagoen arren– jendeak ez duela justizia zerbitzu publiko atsegin modura sentitzen, ingurune ezatsegin, zakar, ia etsai gisa, eta segurtasunik eza, nahasmena, batzuetan beldur pixka bat ere eragiten dien eta, beste batzuetan, kortesia gutxiko edo errespeturik gabekoa iruditzen zaien ingurune modura baizik.

Kalitateari buruzko kezka zerbitzu publiko judizialera atzerapen pixka batekin heldu den arren, eta aurrerapenik izan dela garbi dagoen arren, erabiltzaileen artean beren eskubideei buruzko nolabaiteko kontzientzia falta igartzen da eta, horrek, justizia Administrazioa iristen gaitza dela fatalismo moduko batekin barnerarazten die. Ukitutakoek diote ez daudela ebazpen judizial batzuekin ados, baina ez dira ia inoiz moduez, eszenaratzeko eraz, zenbait egintza judizialak liturgikoegiak direlako kexatzen; eta horrekin guztiarekin, hizkuntza kriptikoarekin batera –ez dugu ulertezina edo okerra denik– epaitegiak nolabaiteko labirinto bihurtzen dira herritarrentzat.

Arartekoaren ordezkariak bere esku hartzeetan planteatu zituen gaiak ez zituen, beraz, jasotako kexetatik atera, erreklamaziogileek aurkeztutako dokumentazioan hautemandako arazoak ziren, erreklamaziogileek ia garrantzirik eman ez zieten arren. Beste kasu batzuetan informazioak erakundeko langileek emandakoak ziren, beraiek zein gertukoek epaitegietan izandako esperientzietatik ondorioztatuta.

Hemen ponentzia horietan jorratu ziren puntu guztiak aipatu ezin ditugunez, bi gai aipatuko ditugu: batetik, hizkuntza judizialaren argitasunik ezari dagokionez, terminologia eta, batez ere, idazkera eta estiloa birpasatu ez eze, EAEko Justizia Administrazioak erabiltzen duen aplikazio informatikoak ematen dituen dokumentu ereduen “erabilpen maltzurra” dei geniezaiokeena landu genuen. Kasu zehatzak aztertuz, agerian geratzen da ofimatikak alboratu ezin diren abantailak eman eta lana errazten duen arren, batzuetan ahazten dela helburua testuen kalitatea hobetzea dela, ez kantitatea gehitzea bakarrik. Horrela, txantiloak gaizki erabili ziren ebazpenen adibideak erakutsi ziren, non ez zen eredia kasuaren ingurumarietara egokitu eta, ondorioz, testua ulertezin bihurtzen zuten termino okerrak erabiltzen ziren (“*el/los menor/es interviniente/s*”) eta, are larriagoa dena, kasuarekin bat ere zerikusirik ez zeukaten eta kasuan aplikatzerik ez zegoen xedapen edo ohartarazpenak sartzen ziren.

Beste gai garrantzitsu bat pertsonak etxean zuzenean jasotzen dituzten jakinarazpen eta zitazioen akatsena da. Zitazioaren xedea zein den argitzeko orduan akats nabarmenak egin (adibidez: “*para cumplimentar exhorto*”), edo informazio okerrak eman, mehatxuzko hizkuntza erabili –zehazki, deitua salaketagile eta lekuko denean– ez eze, entregatzeko moduan ere akats handiak igarri dira, jakinarazpenen isilekotasunaren urraketa larriekin.

Ondorioz, aitortu behar da, hobetzea lortu duen arren, justizia Administrazioa ez dela *Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutunak* (2002) lortu nahi zuen zerbitzu publiko arin, kalitatezko, eraginkor eta gardentasun, informazio eta herritarren arreta egokiko printzipioek gidatutakoa izatera heldu.

Jasotako kexen edukira sartuta, azpimarratu behar dugu behin baino ez dela planteatu, erreklamazioaren gai nagusi modura, prozedura judizialaren tramitazioan izandako atzerapena. EAEko Auzitegi Gorenean jarritako administrazioarekiko auzi bideko errekurtsioa zen, eta bi urtean ez zen haren inolako berririk jaso. Kasua Arartekoak 2003aren amaieran Auzitegi horretako Gobernu Aretora bideratu zuen beste baten ia berdina zen. Orduan, organo horrek zegokion Aretoko Buruaren azalpenak helarazi zizkigun, zeinen arabera tramitatzen diren gaiak hainbeste direnez, eta gainera atzerritarrei buruzko errekurtsioek lehentasuna dutenez, gainerako espedienteen ebazpena nabarmen atzeratzen baitzen. Gobernu Aretoko inolako irregulartasunik igarri ez arren, esan zigun, Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko auzietarako aretoak egunean jartzen saiatzera begira, errefortzu plan bat zegoela, ordezko magistratuak aldi batez eta jarraitasunez hara sartzearen bidez. Garbi dago errefortzu plan horrek pentsatutako emaitzarik ekarri ez duela eta, horregatik, kexa berri hau ere Gobernu Aretolari bidali diogu; dena dela, txosten hau idazten ari garenean, oraindik ez digute ezer erantzun.

Prozedura judizialen luzamenduen ondoriozko kexen artean, badaezpadako espetxealdia betetzen ari diren pertsonak dauden kausa penalak izugarri luzatzen direla diotenak sartu beharko genituzke –lehenago ere aipatu ditugu–. Komeni da gogoratzea egoera horrek sarriago kaltetzen dituela atzerritarrak, gizartean errotuta ez daudenez epaiketa aurretik espetxera ditzaten aukera handiagoak dituzte-eta.

Zenbait banaketa edo dibortzio kasutan ere atzerapen handiak igarri dira, batez ere ondarezko sozietatea likidatzeko tramiteetan. Alabaina, sarritan ez ditugu gai horiek ikertzeko gai den organo judizialarengana bideratzen, kexan agerian geratzen baita beste aldea dela –normalean, gizona– diruzko bere nagusitasuna prozesua oztopatzeko erabiltzen duena.

Beste arazo mota batera aldatuta, iaz hiru kexa desberdin jaso ditugu erregistro zibilek ematen duten zerbitzuari buruz. Hiruretako bi, biak Gasteizko Erregistro Zibilari buruzkoak, hurrengo atalean laburbildu ditugu, eta han dituzue, ikusgai. Hirugarrena, Kode Zibilaren duela gutxiko aldarazpenaren babesean, beste gizonezko batekin ezkontzekoa zen herritarrarengandik etorri zitzaigun. Kexan azaltzen zuenez, informazioa bildu eta legezko tramiteak prestatuz joateko asmoz, Justizia Sailaren web orrialdean begiratu zuela ([www.justizia.net](http://www.justizia.net)). Erregistro Zibilari buruzko atalean sartu zenean eta, zehazki, *Requisitos del matrimonio civil* zioen tokira heltzean, *Declaración para contraer matrimonio civil* zioen ereduak eskuratu zuela, tradiziozko ereduarena –esposo eta esposa zioen, eta hori ez zela bere egoerara egokitzen, ez eta sexu bereko inorekin ezkontzekoa zen beste inorena.

Erreklamazilogileak emandako informazioa zuzena zela egiaztatu eta gero, Sail horrengana jo genuen; esan dezagun, bide batez, sail horrek justizia Administrazioarako bidea errazteko egiten duen lana izugarri estimatzen dugula gure erakundeetan. Erreforma indarrean sartu zenetik denbora askorik igaro ez zela jabetuta, kexa hura egin beharreko aldaketak igarri eta arintzen laguntzeko modura helaraztea otu zitzaigun.

Erantzunean, sailak azaldu zigun “*Erregistro Zibilaren material normalizatuaren eskumena Autonomi Erkidego honetarako transferentziatik kanpo geratu bazen*

ere”, Justizia Ministerioak beharrezko aldaketak egiten dituen bitartean, beraiek honako ekimen hauek abiatu dituztela: a) ezkontza espedienteetan erabiltzen diren eredu eta formularioak eguneratzeko Batzordea sortzea, baina ateratzen diren dokumentuak Erregistro Zibilen arduraren epaileei iradokizun huts modura soilik eskainiko zaizkielarik; b) Justizia Administrazioaren web orrialdearen edukia berrikusi eta zuzentzea, zuzenbide zibileko eta Erregistro Zibileko gaien buruzko lege aldaketei dagokienez. Horren gainean, gure erakundeak egiaztatu du kexa eragin zuen formularioan *esposo* eta *esposa* hitzen ordean “contrayentes” jarri dutela, eta, horrek, ereduaren edukia ezertan aldatu barik, lege arauketa berrira egokitu du. Arartekoak oso ondo ikusi du Justizia Sailak kasu honetan egin duena.

Epaitegien funtzionamenduari buruzko gainerako erreklamazioetan oso gai desberdinei heldu zaie. Urte hasieran, emakume batek gure erakundearengana jo zuen bera parte izan ez zen auzi batean emandako zigor epaiaren ondorioz higiezin bat bahitu ziotelako. Ez da zordunaren identifikazioan akatsak gertatu eta bahimendu bidegabeak gauzatu direlako heldu zaigun lehenengo kexa. Kasu honetan, arazoa nahikoa erraz konpondu zen, baina azpimarratu behar dugu, berriro ere, epaitegiek zordunen identifikazio osoa eman behar dietela erregistroei, izen-deitura berdinak dauden kasu ugarietan gertatzen diren edo gerta daitezkeen kalte edo galera larriak saihesteko.

Beste herritar bat, emakumea, kexu zen bere aitaren heriotzari buruzko 1954. urteko sumario baten kopia eskuratzetik ez zuelako. Dokumentua interesatzen zitzaion zeren, antza, aita lan ezbehar baten ondorioz hil baitzitaion, eta heriotzaren ziurtagirian datu hori isildu baitzen. Berak zioenez, Balmasedako Epaitegian ageri zen dokumentazio hura orduko Lurralde Entzutegira eraman zutela, baina oraingo Auzitegi Goreneko Artxibategi Nagusian ez dago erreferentzia hori duen inolako espedienterik. Interesatuak eskatuta ikerketaren bat egin zen arren, berriro ekin genion gaiari, baina bilaketa ahalegin berriekin ere ez dugu ezer aurkitu.

Justizia Administrazioaren ohiko laguntzailearen ikuspegitik, prozedura judiziale-tan peritazioak egiten aspaldi ari den herritar batek, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak egun perituak izendatzeko daraman sistema kritikatu zuen. Berak zioenez, sarritan, peritu frogak beharrezkoa den titulaziorik ez duten pertsonen eskatzen zaizkie. Zalantzan jartzen zuen, halaber, erakunde horrek berak epaitegien aurrean izandako esku hartze batzuen ordainketa ukatzeko argudiatzen zituen arrazoiak –bere ustez, oinarri bakoak zirelako–. Sail horri informazioa eskatu diogu, eta ondorioztatu dugu ezin dela inolako irregulartasunik igarri peritazioen zerbitzuaren funtzionamenduan.

Beste kexa desberdin batean, eraso batean lesioak jasandako pertsona batek auzi-medikuaren kontsultarako hitzordua izugarri atzeratu zela salatzen zuen. Erreklamazioak arrazoi zeukan zauriak gertatu eta hilabetera zenbaterainokoak izan ziren igartzea ezinezkoa izango zela zioenez, baina –gure ikuspegitik– sistemaren hutsegitea auzi-medikuaren kontsulta zertarako zen inolako azalpenik eman ez ziotela zen. Arazo berdina planteatzen zen, zeharka, poliziaren interbentzio baten ondorioz jarri eta, ondorioz, Herrizaingoaren alorrean aztertutako kexa batean.

Atal hau amaitzeko, herritar batek Bizkaiko Probintzi Entzutegiak kausa penal batean zelari jokatu zuen salatu zuen. Kexatzeko lehenengo arrazoiak ez ziotela delitu baten ondoriozko erantzukizun zibilari aurre egiteko soldataren gainean erabakitako bahimendua jakinarazi. Soldata bahitzeko aginduaren berri entzutegiak enpresari bidalitako jakinarazpenaren bidez izan zuen, eta ikusi zuen jakinarazpen hartan Bilbon

garai batean izandako helbidea ageri zela, oraingo helbidea ezagutzen zuten arren –beste Autonomi Erkidego batean, enpresa zegoen berean, alegia-, zeren bi urte lehenago hara bidali baitzioten ordaintzeko agindu bat.

Baina kexaren arrazoi nagusia zen Bilboko Probintzi Entzutegiko 1. Atalak enpresa hartara soldata atxikitzeko bidali zuen aginduan, beltzean nabarmenduta, salatutako gertakaria ageri zela –lapurreta giza hilketarekin–, gertakariak 1980koak eta epai sendoa 1982koa ziren arren. Kaltetuak komunikazio horrek eragin zizkion mota guztietako galera izugarriak azaltzen zituen baina, bestela ere, erakunde honen ustez zer delituentzatik epaitu zuten aipatzeak –zelako partaidetza izan zuen zehaztu barik– ez zeukan inolako zentzurik eta, gainera, oztopo handia zen pertsona hori gizarteratzeko prozesuan. Garbi dago zigortua, ahal dela, eragindako kaltea ordaintzera behartuta dagoela eta, horregatik, delituaren ondoriozko erantzukizun zibilari aurre egin behar diola, baina eskubidea dauka, halaber, gainerakoek zigorraren berri izan ez dezaten ere, are gehiago 25 urte lehenagoko gertakariak badira.

Zigortuei gizarteratzen lagundu beharrak (Konstituzioaren 25.2 art.), eta aurrekari penalek gizartean edo juridikoki bazterketarik eragin dezaten debekuak (Espetxeetako LOOren 73.2 art.), herri botere guztiek harrapatzen dituela irizita, ondorioztatu genuen kexan aipatutako entzutegiak oker jardun zuelako balizko zantzuak nabari zirela eta, horregatik, gaia Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrari jakinarazi genion. Handik gutxira, erakunde horrek jakinarazi zigun diziplinazko espedientea abiarazi zutela, baina geroztik ez dugu bestelako berririk jaso.

Barruko antolaketara begira Justiziaren arloan sartu ez baditugu ere, Fiskaltzari adingabeei buruzko bi gai jakinarazi dizkiogu, balizko arrisku egoerak izan litezkeelakoan. Bat 15 urteko mutiko bati buruzkoa zen, Bizkaian bizi zen eta amak, alargun, Nafarroako zentro batean sartu zuen, ustezko arazo psikikoak tarteko. Nerabearen aitaren aldeko familiak zalantzan jartzen zuen zentro horren egokitasuna, baita alterazio psikologikorik zeukanik ere eta, batez ere, salatzen zuten zentroko arduradunak adingabearekin inolako harremanik izatea eragozten ari zitzaizkiela.

Bizkaiko Fiskaltzarekin eta Nafarroakoarekin hainbat gestio egin eta gero, jakin genuen ezin zela babesik gabeko egoerarik zegoenik esan, baina bai azaleratu zela nerabe hura ez zegoela ondo eskolatuta eta horretaz jarraipena egingo zela. Kasu horretan egin genezakeena horraino heldu zen, aitaren aldeko familiak epaitegietara jo zuelako.

Beste gaian, emakume bat –beste batzuetan ere alabaren zaintza kendu ziotelako guregana joa zena– guregana etorri zen neskatoa aitarengandik eta aitaren aitarengandik, haiekin bizi baitzen, jasaten ariko zen ustezko sexu gehiegikeria eta tratu txarrak salatze-  
ra. Antzeko salaketak egin izan zaizkigunean, beste batzuetan Bizkaiko Foru Aldundiko Haurrentzako Zerbitzura jo izan dugu, hango profesionalak ziur baitaude erreklamaziogilearen beldurrak arazo mentalen ondorio direla. Oraingoan, ordea, eta neskatoa benetan arriskuan egon litekeela pentsatze hutsarengatik, Ministerio Fiskalarengana jo genuen.

Erantzunean, kasuaz arduratu zen Fiskalak amaren behin eta berrizko salaketei lotuta egindako jarduera guztiak azaldu zizkigun. Baina erabaki zuten oraingoz eta, emakumeak susmoen inolako zantzurik aurkezten ez bazuen, ez ziotela haurrari miaketa gehiago egingo, zeren auzi mediko batek ziurtatu baitzuen –oso txikia zenez– kalte psikologiko larriak eragiten ari zitzaizkiela.

Arartekoak justiziaren alorrean adingabeei buruz aurrera eramandako jarduerekin segitzeko, EAEko administrazio publikoak **adingabe arau-urratzaileei** eskaintzen

dien arreta aipatu behar dugu. Sarrera honen hasieran eman ditugun datuetan ikusten denez, aurten ere oso gutxi dira gai horri buruzko espedienteak. Beren ezaugarriengatik, aztertutako kolektiboko kideek ez dute gurea bezalako erakundeetara jotzen, zertarako diren ez dakitelako, batetik eta, batez ere, errazago eta eraginkorrago zaielako Gazteentzako Justizia Zerbitzura edo zentroetara edo adingabeentzako epaileengana jotzea. Horregatik, gure erakundeak esparru horretan egiten dituenak geure ekimenez bideratu ohi dira, “lehenatasuneko arreta merezi duten kolektibo” modura hartzen haurrei buruzko atalean dioen bezala (V. Kap.).

Aurreko urteko gure txostenean 2004ko amaieran garatu genuen jarduera aipatu genuen; adingabe bati barnetegi zentro batean zenbait segurtasun zaintzailek ustez emandako tratu txarrei buruzkoa zen. Gertakariak Instrukzio Epaitegi bat ikertzen ari zenez, Arartekoa ez zen aztertzeraz sartu eta hezkuntza eta segurtasun zereginen arteko koordinazioan igarritako akatsak ikertzeraz mugatu zen. Zeregin horiek, gertakarienean, Justizia Sailaren barruko Zuzendaritza Nagusi desberdinen ardura ziren.

2005aren erdialdera, antzeko kexa bat jaso genuen, orduan hezitzaile batek barneratutako adingabe bat ustez eraso zuelakoan. Komeni da agerraraztea adingabearen kexa Zentroko Zuzendaritzak berak bidali zigula, eta Adingabeen Epaitegira, Fiskaltzara eta Eusko Jaurlaritzako Gazteentzako Justizia Zerbitzura ere bideratu zuela. Garbi zegoen, beraz, gure erakundeak ezin zituela gertakari haiek aztertu, partikularren arteko auzia zirelako eta, gainera, jada justizia instantzietara bideratuta zeudelako. Alabaina, egoki ikusi genuen zentroraz bisita bat egitea, informazio eske, gure erakundeaz dagokion prebentzio lanera begira. Barnetegi zentro horien funtzionamenduari buruzko beste ikuskapen jarduera batzuetan bezala (haurren arreta hizpide duen epigrafean, lehen aipatutako adingabe arau-urratzaileen atalean dituzue ikusgai), bereziki azpimarratu genituen barneratutako adingabeek tratu txarrik jasan ez dezaten jarritako segurtasun sistema, bitarteko eta neurriak, eta tratu txarrik izatekotan, gauzak argitu eta zehatzeko bideak, eta abar.

Justiziaren alorrean jorratutako gai nagusiak gainbegiratzen amaitzeko, **abokatuen eta prokuradoreen elkargoen funtzionamendua** hartuko dugu hizpide, administrazio korporatiboa denez horien ikuskapena gure erakundeaz baitagokio.

Aurrekoetan bezala, kexa gairik ohikoena erabiltzaileek jarduera profesional jakin batzuen aurrean jartzen dituzten salaketen erantzunak izugarri luzatzen direla, edo erantzunik jasotzen ez dutela izaten da. Alabaina, nabarmendu behar da aurten erreklamazio gutxi egon direla eta, harrigarriki, gehienak Arabako Abokatuen Bazkunari buruzkoak zirela. Lehenengoak emakume baten protesta helarazi zigan, letratu baten jokabidearen aurrean jarri zuen kexaren ondorioz ustez abiarazitako diligenza batzuen inolako berririk eman ez zituelako. Gai honen laburpena txosten honetako hurrengo atalean aurkituko duzue.

Apirilean jaso genuen beste kexa batean, gizonezko batek kontatu zigan ez zuela 15 hilabete lehenago aurkeztu zuen idatziaren inolako erantzunik jaso; idatzi hartan azaltzen zuen ez zegoela ados abokatu baten jarduerarekin. Kasuak gure arreta erakarri zuen, 2004ko amaierako beste baten berdin-berdina zelako; orduan, pertsona bat profesional beraren beste jarduera batez kexatu zen. Bi kasuetan, Arabako bazkunari espedienteak luze gabe ebazteko eskatu ez eze, adierazi genien kezkatuta geundela hainbeste denbora joan zenez balizko urraketa deontologikoak preskribituta egon litezkeelako ere; arazo hori sarritan aurkitu dugu bazkun profesional hauek tramitatzen dituzten zehapen

prozeduretan. Gure ustez, gaiak deontologiaren ikuspegitik aztertzeaz gain, Gobernu Batzarrak bi erreklamaziogileek, nolabait esplizituki, planteatzen zuten erantzukizun zibilaren kontuaren gaineko erabakia adierazi behar zuen.

2005eko gaiari dagokionez, Abokatuen Bazkunak erantzun zigun –nahikoa azkar– espedientea Deontologia Batzordera bideratu zuela. Ordutik zazpi hilabetera, oraindik ez dakigu zelan amaitu den prozedura hura.

Beste kexari buruz, non erreklamaziogileak prozeduran ere irregulartasunak izan zirela planteatu zuen, lehenengo jakinarazpen bat jaso genuen, eta horrela jakin genuen Gobernu Batzarrak salaketa artxibatu zuela. Oraingoan Abokatzuzaren Euskal Kontseilura jotzeko aukera eskaintzen ziotenez, interesatuak bide horretatik jo zuen. Errekurtsoa oso tarte laburrean ebatzi zuten, harrigarriki –kexa bat baino gehiago daukagu Kontseiluaren ebazpenen atzerapen handiengatik-, eta deontologiaren inolako urraketarik izan ez zela zioten. Erabaki hau, Arabako korporazioaren aurrekoak bezala, jarduera aurkatu zioten letratuak aurkeztutako dokumentu batzuetan oinarritzen zen. Interesatuak espedientea ikustea behin baino gehiagotan eskatu zuenez, eta utzi ez ziotenez, gure erakundeak pentsatu zuen, arazo nagusia ebatzi arren, Abokatuen Bazkunari gogorarazi behar zitzaiola Arartekoak zer irizpide zeukan ezarrita, erreklamaziogileak eskatuta tramitatutako prozeduran zegoen dokumentazio ikusteko eskubideari dagokionez.

Horregatik, Bazkunean tramitatutako espedientearen kopia bat eskatu genien, eta abenduaren amaieran eman ziguten. Une hauetan kexagilea ari da kopia hori aztertzeko, baina hark zer esaten duen zain, eta dokumentazioa azaltetik pixka bat begiratu dugunez, agerian geratzen da letratuak bidali zuela zioen eta erreklamaziogileak inoiz jaso zuenik ukatzen zuen idatzia bidali zenik ez dela frogatu zeren, antza, posta arruntaren bidez bidali zenez, ez baitago hartzaileak jaso zuenik inola ziurtatzerik.

Nolanahi ere, guk uste dugu azaldutako kasu horretan –guk esku hartu dugulako bada ere– Arartekoaren 2005eko urtarrilaren 21eko gomendioa bete dela, eta salaketagileak berak eskatuta abiarazitako espedientea ikusi ahal izan duela. Alde horretatik, komeni da agerian jartzea gomendio hori eginarazi zigun kexa ipini zuen herritarrak berriro jo duela guregana, esanez behin eskatutako dokumentazio hori ezagutzeko aukera izan duenean, bere ustez ez dagoela inolako dokumentuzko oinarririk Abokatuen Bazkunak eta Abokatuen Euskal Kontseiluak erabaki horiek hartzeko. Arazoa da ondorio hori ateratzerako, ez dagoela inolako aukerarik erabaki horien kontra egiteko epaitegietara jotzeko.

Kontseilu horren funtzionamenduari dagokionez, errekurtsu baten ebazpenean luzamendu bidegabea izan litekeelako jarritako erreklamazio baten berri eman behar dugu. Atzerapena bereziki larria da, zeren ez baita lehenengo aldia gure erakundeak esku hartu behar duena kasuan igarritako irregulartasunak tarteko (aurrekariak Arartekoaren 2004ko urteko txostenean, II. kapituluan, 8.2 atalean aurkituko dituzue). Izan ere, interesatuak bere garaian bi errekurtsu jarri zituen Euskal Kontseiluaren aurrean, 2000ko abenduan eta 2002ko irailean. Arrazoi desberdinengatik, besteak beste, erakunde horren akatsen batengatik, espediente horiek ez ziren 2003ko uztailean eta 2004ko uztailean arte ebatzi, hurrenez hurren, guk esku hartu ostera arte, alegia. Horrek esan nahi du, aurrekoetan, erreklamaziogilearen auziek luzamendu bidegabeak jasan zituztela, baina larriena da orain aurkatutako Gipuzkoako Abokatuen Bazkuneko akordioak aipatutako bigarren ebazpena dakarrela, non Kontseiluak zioen korporazio hark ez zituela diziplinazko prozeduraren arauak bete eta, ondorioz, beste espediente bat tramitatzeko agintzen zuen.



Susmatzen genuen moduan, Gipuzkoako Bazkunak erabaki zuen balizko hutsegite deontologikoak preskribituta zeudela eta, beraz, ezin zela diziplinazko espedienterik abiarazi. Gure erakundeak Kontseiluari gogorarazi zion preskripzioa betetzen ala ez arretaz aztertzea behartuta zegoela baina, batez ere, azkar ibili behar zuela, gaiaren aurrekariak kontuan hartuta. Hutsegite haiek preskribituta zeudela xedatzen bazen, gure iritziz, erreklamaziogileari ordain morala eskaini behar ziotela jakinarazi genion, eta barkatzeko eskatu beharko ziotela espedientean izandako atzerapen eta akatsengatik, batzuk Bazkunaren erruz eta besteak Kontseiluaren erruz gertatu baitziren.

Gure erakundetik Abokatutzaren Euskal Kontseilura 2005eko uztailean luzatu zen informazio eskariak ez du erantzunik jaso txosten hau idazten ari garenean.

Atal hau amaitzeko doako asistentzia juridikoaren eskarien ukapenei buruz jaso ditugun kexak laburki aipatuko ditugu. Normalean ezin gara halako gaietara sartu, Batzordearen erabakiak legez aurkatzeko prozedura instantzia judicial batean amaitzen baita. Horregatik, gai honetan tramitera onartzen ditugun kexa bakarrak jarduneko organismoen –Orientazio Juridikoko Zerbitzua edo Doako Asistentzia Juridikoko Batzordea– eta eskarigileen arteko komunikazioen gainekoak izaten dira, baina aurren halakorik behin baino ez dugu egin.

Ugariagoak izan dira letratuen zerbitzuak kontratatu dituztenek letratuen jokabide profesionalarekin ados ez zeudela zioten erreklamazioak. Auzi pribatuak direnez, Arartekoak ezin du esku hartu, baina horrek ez du esan nahi atsekabe horren azpian eta bazkun horiek lanbidearen ariketaren gaineko kontrol deontologikoa behar bezain zorrotz ez daramatelako uste nolabait zabalduaren atzean dagoen arazo sozialaren jakitun ez gaudenik.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Abokatu eta prokuradoreen elkargoak

⇒ *Luzamenduak kexa baten ebazpenean; irregulartasunak zehapen prozedura batean (318/2005)*

#### • Erreklamazioa

2005eko martxoaren amaieran, emakume bat guregana etorri zen 2004ko urriaren 27an Arabako Abokatuen Bazkunean bere ustez oker jokatu zuen letratu baten jokabidea salatzeke aurkeztu zuen idatziaren erantzunik jaso ez zuelako. 2004ko abenduaren 15eko idatziaren bidez, Bazkunak jakinarazi zion kexa abokatuarengana bidali zutela, bere alegazioak egin zitzaizkion, baina ordutik aurrera emakume honek ez zuen gaiaren beste inongo berririk izan.

Bestalde, erreklamaziogileak bere garaian doako asistentzia juridikoa zertarako eskatu zuen ikusita (kaleratzearen ondoriozko lan arloko erreklamazioa) eta, artean soldata erreklamazioak ebatzi gabe omen zeuzkanez, gure erakundeak Bazkunari eskatu zion emakumeak bigarren idatzian planteatu zuen beste ofiziozko abokatu bat jar diezaioten eskariari luze gabe erantzuteko.

- Azterketa

2005eko abenduan gure erakundearen erreklamaziogilearen salaketaren ostean abiarazitako espedientearen kopia jaso zen. Azterketatik ondorioztatzen da prozeduran hainbat irregulartasun izan zirela; hona hemen, laburbilduta:

Kexa jarri ondoren, Ofiziozko Txandako Batzordea ukitutako abokatuarengana zuzendu zen, idatzia helarazteko, alegazioak egin zitzaizkien. Era berean, erreklamaziogileari ere tramite horren berri eman zioten (2004-12-15). Espedientetik ondorioztatzen denez, abokatuaren lehenago Abokatuen Bazkunera zuzendua zen (2004ko martxoa eta azaroa) zer arazo izaten ari zen azaltzeko eta –bigarren idatzian– zergatik utziko zion bere bezeroaren interesak defendatzeari adierazteko, eta baxa eskatzeko, besteak beste, lan arloko auzien ofiziozko txandan. Jo dezagun, beraz, Batzordea gaiaren jakitun geratu zenez (2004-04-19), abokatuak ez zuela pentsatzen alegazio gehiago egin behar zuenik.

Arartekoak esku hartu eta gero, Ofiziozko Txandako Batzordeak berriro jo zuen abokatu horrengana (2005-05-06) erreklamaziogilearen kexari buruzko alegazioak “*berehala*” egin zitzaizkien eskatuz. 2005-05-24an aurkeztutako idatziaren bidez, abokatuak bere aurreko idatziak begiratzeko esan zion, gertakarien bere bertsioa azalduz eta espedientearen artxibatzearen eskatuz. Handik hilabetera, Batzordeak jakinarazi zion gaia Deontologia Batzordera bideratzea erabaki zutela, eta batzorde hori kexagileari zuzendu zitzaion, kexa jaso zutela jakinarazteko eta “*aurretiazko informazioko epea ireki zela*” iragartzeko. Data berean (2005-06-29), Deontologia Batzordeak hamar eguneko epea eman zion abokatuari “*bere alegazioak eta deskarguak*” berriro azaltzeko. Tramite hori bete eta gero, Bazkuna erreklamaziogileari zuzendu zitzaion, ostera ere, (2005-09-26), eta idatzi batean –Dekanoak sinatuta oraingoan–, kexa jaso zutela adierazteaz gain –urte bete lehenago jarritako kexa–, eskatu zioten “*ezer baino lehen, eta hamar eguneko epean, salaketa berresteko eta, berrestekotan, salaketa tramitera onartuko den ala ez zehazteko behar den dokumentazioa osatu, argitu edo aurkezteko, eta jakinarazpenetarako helbidea emateko, epe hori agortu eta eskaria bete ezean, salaketa artxibatzea dekretu lezaketela argituz.*”

Azaroaren 9ko idatziaren bitartez, Gobernu Batzarrak bi aldeei jakinarazi zion salaketagilearen berrespenik ez zegoenez irekitako informazio espedientearen artxibatzea erabaki zutela.

- Emaita

Abokatuen Bazkunak emandako dokumentazioa aztertuta, gure erakundeak ondorioztatu behar du espedientearen tramitazioan prozedurazko akatsak egin direla, inplikaturako abokatuaren bermeak eta salaketagilearen eskubideak ahuldu dituztenak. Tramiteak alferrik errepikarazi eta prozedura luzatzeaz gain –horrek segurtasun juridikorik eza eta epeen preskripzioa eragin du– auzia zelan amaitu den ere oso zalantzarria da. Ez dauka zentzurik erreklamaziogileak, gure erakundera jo zuenean, inplizituki adierazi zuen berrespenik eskatzerik. Bestalde, interesatuari abokatuak deskarguan argudiatutako arrazoirik inoiz jakinarazi ez zitzaionez, nekez izan zezakeen alegatzeko bestelako arrazoirik.

Amaitzeko, agerian utzi behar dugu Bazkunak ez diola erreklamaziogileak 2005eko martxoan beste ofiziozko abokatu bat jar ziezaioten egindako eta Arartekoak beren lehenengo esku hartzean berrartutako eskariari erantzun.

Gogoeta hauek bazkun profesional hori helarazi dizkiogu, eta jada ez daukagu beste inolako biderik –kasua txosten honetan azaltzeaz bestelakorik– etorkizunean igarritako irregulartasun hauek gerta daitezen ekidin behar dela azpimarratzeko.

## B) Justizia administrazioaren funtzionamendua

⇒ *Erregistro zibil batek betetako zerbitzuan igarritako akatsak (705/2005 eta 895/2005)*

### • Erreklamazioa

Denbora tarte laburrean, gure erakundearengana bi kexa desberdin heldu ziren, biak Erregistro Zibil beraren funtzionamenduaren inguruan. Lehenengoan, (a), erreklamazioak zioen bulego horretara joan behar izan zuela seme jaioberria inskribatzera. Haurra ostiralez jaio zenez, eta aitatasun baimena asteburuan agortu zitzaionez, lanean eguna eskatu behar izan zuen. Egun hartan, goizean goiz, Erregistro Zibilera joan zen, gainerako tramite guztiak egiteko (erroldatu, Gizarte Segurantzari sartu eta abar) famili liburua behar zuelako, baina –beste bi umeak inskribatu zituenean ez bezala– funtzionarioak liburua hartzera biharamunean itzuli behar zuela esan zion, sinatzeaz arduratzen den pertsonak ez zituelako liburuak eguneko azkeneko ordura arte sinatzen. Luzamendu horrek gainerako gestio guztiak egitea eragotzi zion erreklamazioari, eta lanean beste baimen egun bat eskatu behar izan zuen.

Beste kexa, (b), gizonetako bat, Erregistro Zibil berera, abizenen ordena aldatzeko beharrezko tramiteak egiteko asmoz joan zenean sortu zen. Kontatzen zuenez, ezin izan zuen eskaria aurkeztu, eta tramite hori burutzeko informaziorik ere ez zioten eman, horretaz arduratzen den pertsona oportetaren zegoela eta hura itzuli arte, bi aste geroagora arte itxaron behar zuela esan baitzioten. Berak zioenez, ez zen halako erantzunik jaso zuen bakarra eta, gainera, premia zeukan abizenen ordena aldatzeko.

### • Azterketa

**a)** Kexa ikusita, eta jarduera berria zen ala abaguneko arazoa zen argitu nahirik, telefonoz deitu genuen Erregistro Zibil horretara. Horrela, jakin ahal izan genuen dokumentuak sinatu behar zituen Idazkari Judizialak –lehenago ofizial bat gaitzen zuten liburu horiek sinatzeko– lan hori bere karguaren beste zeregin batzuekin bateratzen zuela. Horregatik, egunean ordubete soilik ematen zuen halakoetan eta, ondorioz, dokumentuen entrega gutxienez egun bat atzeratu behar izaten zuten.

Baietsi ziguten, halaber, prozeduraren aldaketak protesta ugari sortzen zituela eta, beraz, egoki iruditu zitzaigun kexa haren Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoari jakinaraztea, bulego haren funtzionamendua arintzeko neurriak har zitzaten eskatuz.

**b)** Beste kasuari dagokionez, gure erakundeak pentsatu zuen, gertaerak erreklamazioak esan bezala gertatu baziren, Erregistro Zibilaren funtzionamendu okerraren ondorioz izango zela. Gertakariak argitu behar ziren, gure iritziz, eta behar izatekotan, neurriak hartu behar ziren etorkizunean halakorik berriro ez gertatzeko. Alabaina, arazoa

giza baliabide gutxiegi zegoela izan zitekeenez, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailarengana jotzea erabaki genuen.

- Emaizta

**a)** Gure eskariari erantzunez, Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoak txostena eskatu zion Erregistro Zibilaren ardura zuen Epaitegiko Idazkaritzari. Honek zioenez, gertakari haien egunaren ostean karguaz jabetu zela, behin-behinekoan, baina eskariak tramitatzen ziren egun berean sinatzen ez zirelako kexarik zegoenik ez zekienez, ordura arteko irizpideari segitu ziola. Gerora, jendearentzako zerbitzua hobetu nahian, arreta egokia eskaintzeko behar zenean sinatzea erabaki zuen. Berak zioenez, ez zuen kexa gehiagoren berririk izan eta, hartara, ez zuen prozesuzko kudeatzailearik gaitzera jo, behar izanez gero horretara ukatuko ez zela argituz.

Txostena ikusita, Gobernu Aretoak jarduerak artxibatzea erabaki zuen, auzia konponduta zegoela iritzita. Gure aldetik, eta Arartekoaren esku hartzeak erreklamazio-gileak jasandako galerak konpontzeko balio izan ez zuen arren, iruditu zitzaigun Erregistro Zibilaren funtzionamenduan aldaketa bat eragiteko balio zuela, eta aldaketa hura herritar guztien onerako zela, gainera.

**b)** Bere erantzunean, Justizia Sailburuordetzak jakinarazi zigun erreklamazio-gileak eskatutako abizen aldaketa, hark behar zuen egunean egin zitzaiola. Bitxia da hori, zeren gure erakundeak ez baitzuen egindako informazio eskarian interesatuaren izenik aipatu, kexan azaltzen zen arazoa, baiestekotan, orokorra izango zela pentsatuta.

Datu horrez gain, Sailak justizia Administrazioako langile funtzionarioei oporrak zelan ematen zitzaizkien argitzeko txosten xehatua helarazi zigun –sistema horren bidez zerbitzu bakoitzeko beharrak egokiro asetzen direla ziurtatzen da, beraien esanetan–, baita Erregistro Zibilaren zereginetan aritzen den Epaitegia zelan antolatuta dagoen ere. Gertakarien egunari dagokionez, langileen erdia baino gehiago lanean ari zela egiaztatu zutela zioten. Azaltzen ziguten, halaber, funtzionarioen lanpostuak ez direla bereziak, edo norbanakoka banatutakoak, eta, beraz, ez dago funtzionario bati eskusiboki egokitutako zereginik, denak baitaude edozein eskariri erantzuteko moduan.

Txosten horretatik ondoriozta zitekeen –esplizituki esan ez arren– salatutako gora-behera hura gertatzea ezinezkoa zela, haien ustez. Alabaina, garbi dago erreklamazio-gileak eskatu zuen abizenen ordenaren aldaketa Erregistrora joan zen lehenengo aldia baino aste batzuk geroago egin ziotela. Horregatik, gure erakundeari iruditu zitzaion benetako arazoari heldu ez ziotela: segitzen genuen jakin barik zergatik behartu zuten interesatua beste egun batean itzultzera, tramite hura -teoriaz- edozein funtzionariok egin bazezakeen.

Ez dakigu Saileko arduradunek Erregistro Zibileko langileei hori zehazki galdetu zieten ala ez. Litekeena da gorabehera hura pertsona jakinen batek oker jokatu zuelako, edo zereginak barruan txarto banatuta zeuzkatelako gertatzea baina, nolana ere, argitu beharra zegoen, etorkizunean halakorik berriro ez errepikatzeko. Horregatik, kexa eragin zuen arazoa ebatzi gabe zegoela iritzita, Justizia Sailari herritarrek erreklamazio-gileak jasandakoa bezalako arreta okerrik paira ez dezaten eginbeharrekoa egiteko eskatu genion.

### 8.3. EAEko ESPETXEETAKO EGOERA

#### a) Planteamendu orokorra

Gizarte talderik baztertuenei emandako arreta berezia, hasiera-hasieratik, erakunde honen jardueraren orientazio-ardatza izan da. Eskubideak erabiltzeko eta gizarte ondasunak eskuratzeko arazorik handienak dituzten giza talde horien artean, askatasuna galdu duten pertsonak daude. Horien arazoetara hurbiltzeko, Arartekoak txosten bikaina landu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako egoerari buruz, eta txosten hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen 1996an.

Txostenean jasotako gomendio orokorretariko batek (Arartekoak giza eskubideen kultura hedatzeko duen eginkizunarekin estu lotutakoa) adierazitakoaren arabera, beharrezkoa da “*zigor zehapenen oraingo sistemari eta horrek izan ditzakeen aukerei buruzko gizarte eztabaida eta informazioa sustatzea*”, eta, gure ustez, gomendio hori oraindik ere indarrean dago.

Orduan esan genuenaren arabera, arazo askoren eragile nagusia espetxe erakundearen isolamendua da, baita gizartearen ezagupenik eza ere, askatasun-gabetzeko zigorra betetzearen baldintzei dagokienez. Alderdi horri dagokionez, egoerak ez du hobera egin.

2005ean, komunikabideetan sarritan agertu dira EAEko espetxeak, baina hori, batik bat, horien barruko gertaera negargarrien eraginez izan da. Jakina, Langraiz Okako espetxean berezkoak ez diren heriotzen (gehienbat, suizidioak) kopuruak izandako gorakada handiak kezka eragin du gizartearen; hala eta guztiz ere, orokorrean, gertaerak “albiste” izateari utzi dionean, jendearen arreta galdu egin da. Presoekin lan egiten duten eta euren arazoak ondo ezagutzen dituzten pertsonak eta taldeek behin eta berriro aldarrikapen larria egin arren, ez da hausnarketarik egin espetxeetan sortzen diren gatazken ondorioei buruz.

Preso kopuruak gorakada iraunkorra izan du azken urteotan; izan ere, Espainiako espetxeratze kopurua Europar Batasuneko kopururik handiena da. Preso kopuruaren hazkunde hori ez da delinkuentziaren hazkundearen ondoriozkoa, legezko erreforma azkarren ondoriozkoa baizik (ageriko beharizanik eta oinarri teorikorik gabeko erreformak), horien eraginez zigor-zorroztasun handiagoa baitago. Ia ez dago azterketarik politika kriminal horren emaitzari buruz (espetxe zigorra indartzean oinarrituriko politika, delituak egiteari emandako erantzun nagusizat eta ia erantzun bakartzat); horrenbestez, orain arte ez da horren eraginkortasuna frogatu. Hala eta guztiz ere, berori aplikatzen da oraindik ere, eta, horren eraginez, espetxeak jendez betetzen dira, eta preso bizi-baldintzek ez dute kezkarik sortzen politikarien artean, eta jendearen interesik ere ez dute erakartzen.

Gogoratu egin behar da 2003ko urteroko txostenean espetxeen egoerari buruzko atalaren amaieran esandakoa (I. kapitulua, 1.1.1), urte horretan onetsitako lege-aldaketei dagokienez: “*Legeria berriaren barruko alderdi askok urratu egiten dituzte zigor eskubide demokratikoaren oinarritzko printzipioak (gutxieneko esku-hartzea, neurritasuna, zigor ankerren debekua, berdintasuna, gizarteratzea, etab.)*. Espetxe zigorrek betetzeari buruzkoak baino ez ditugu aipatuko (segurtasun-aldia, erregimen irekia eta baldintzapeko askatasuna lortzeko murriztapenak, espetxean egoteko denborarik luzeenaren luzapena, etab.); izan ere, gure ustez, horiek deseginda uzten dute

*Espetxeari buruzko Lege Orokorrak ezarritako indibidualizazio zientifikoaren sistema. Halaber, beste alderdi batzuk ere ezin dira ahaztu, esate baterako, berrerortzeari eta delinkuentzia txikiari ezarritako zigorrak izandako gogortze larria, espetxe zigor laburren berrezarkuntza, inmigrazioari emandako zigor erantzuna, etab.”.*

Espetxeetako oraingo egoeraren, presoen itxaropenaren galera eta espetxeetako profesional askoren motibaziorik eza, gure ustez, legezko erreforma horietan oinarritzen dira, eta beraz, arazo horiek konpontzeko, beharrezkoa da lehenengo eta behin arazoaren eragileak konpontzea.

Horri dagokionez, botere publikoek ebaluatu eta, behar izanez gero, zuzendu egin behar dituzte iraganean harturiko erabaki politiko-kriminal batzuk. Baina, aldi berean, hiritarrei informazioa eman behar zaie askatasun-gabetzearen eraginezko kalteei eta arazoei, horrek dakarren zama ekonomikoari eta, batik bat, delituen prebentzioan duen eraginkortasun urriari buruz. Azken batean, zigor sistemaren benetako funtzionamenduaren gaineko hausnarketa sustatu behar da.

Lehen aipatu dugun 1996ko txosten monografikoan, erakunde honek nabarmendu egin zuen jendeari informazio egokia eta osoa eman behar izatea, askatasun-gabetzearekiko aukerako zigorrak egoteari, horiek aplikatzeko komenigarritasunari eta gizarte talde guztiek inplikazioa izateari buruz, horixe baita espetxearen gizarte kostua ekiditeko modu bakarra. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak 1999ko urteroko txostenean jasotako gomendio orokor batean, Arartekoak EAEko administrazioei hitzarmenak sinatzeko eta sustatzeko eskabidea egin zien, zigortzat komunitatearen onerako diren lanak (KOL) ezartzeko.

Askatasun-gabetzea eragiten ez duen zigor hori adibidetzat jarrita, oraintsuko zigor erreformek horren erabileraren eremu teorikoa zabaldu egin duten arren, agerikoa da ez direla ezinbesteko neurriak hartu horren aplikazioa benetakoa eta eraginkorra izateko. Arartekoaren beka batekin egindako ikerketa batean (laster argitaratuko den ikerketa) agerian geldituenez, KOL zigorra aplikatu ahal izateko dauden zailtasunen eraginez, epaitegiek murriztu egiten dituzte halako zigorrak. Hala ere, halako zigorrak ezartzen direnean ere, sarritan ez dira betearazten lanpostu egokirik ez egotearen ondorioz. Gabezia horien erantzukizun nagusia Estatuko administrazioak dauka, hain zuzen ere, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak, erakunde horrexek baitauka eratzikita zigorraren betearazpena. Hala eta guztiz ere, argi dago espetxearekiko aukerako zigorraren garapenerako beharrezkoa dela gizarte osoaren inplikazioa, herri administrazioen inplikaziotik hasita.

Gogoratu behar da, esperientzia negatibotzat, asteburuetako atxiloketak betetzeko egoitza egokirik ez sortzearen ondorioz, zigor horrek porrot egin duela eta ezabatu egin dela zigorren zerrendatik. KOL zigorrarekin ere arrisku hori dago orain, eta administrazio desberdinen arteko eskumen banaketa ezin daiteke erabili norberaren erantzukizunak saihesteko. Espetxea azken aukera izateko borondatea berrestea ez da nahikoa; aukerak, neurriak eta zigorrak sortu behar dira, askatasun-gabetzearen eremua murrizteko. Eta, horretarako, ezinbestekoa da jendearien artean eztabaida sustatzea, delinkuentziaren prebentzio eraginkorrari buruz, eta, gainera, faktore kriminogenoak nabarmentzen dituzten gizarte programen garapena bultzatu behar da.

Hala eta guztiz ere, askatasun-gabetzea ahalik eta gehien murrizteko azken helburua ahaztu barik, EAEko espetxeetan dauden pertsonen egoera aztertu behar da orain, baita EAEko administrazioek pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko egin ditzaketan jarduketak ere.

Horri dagokionez, 1996ko txosteneko lehenengo gomendio orokorrean planteaturikoaren arabera, esan behar da komenigarria dela espetxearen arloko eskumena osatzen duten funtzioen transferentzia egitea.

Jakina denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoak eskumen soila dauka “*espetxe eta gizarteratze erakundeen eta establezimenduen (...) antolamenduan, araubidean eta funtzionamenduan*”; hala eta guztiz ere, oraindik ez da bidezko funtzioen transferentzia egin. Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari 1996tik hona zuzendutako urteroko txosten bakoitzean, hori adierazi da; gainera, aditzera eman da beharrezkoa dela inplikaturiko bi alderdiek ahalegina egitea, arlo honen inguruko akordioak lortzeko, presoen interesak interes politikoen aurretik jarritz.

Jakina, Arartekoaren ustez, autogobernua ez da panazea, askatasun-gabetzeko zigorrak betearaztearen arloan, eta berez ez dakar presoen egoeraren hobekuntzarik. Praktikan, espetxe zigorrak eragina dauka funtsezko eskubide askotan, eta ez mugimendu askatasunean bakarrik; gainera, ez dago formula errazik espetxeratzearen eraginezko kalte guztiak arintzeko. Hala eta guztiz ere, kudeaketa hurbilagotik egitea lagungarria izan daiteke instalazioak modernatzeko, eta, batik bat, ezinbestekoak dira koordinazio handiagoa eta espetxe zerbitzu desberdinak (hezkuntza, gizarte laguntza, etab.) sare komunitarioan sartzea.

Nolanahi ere, agerikoa da askatasun-gabetzeko zigorren helburua presoak gizarteratzea izateak (EEko 25.2 artikuluan jasota, funtsezko eskubideen artean) botere publiko guztiak inplikatzeko dituela. Horrenbestez, oraingo egoeran ere, EAEko administrazioek esku hartu behar dute, gure lurraldeko espetxeetan zigorra betetzen ari direnen edo bete dutenen arazoak eta gabeziak arintzeko, pertsona horiek ahultasun handiko egoeran eta gizarteratze arazo handiekin baitaude.

Betebehar orokor horrekin batera, espetxeen arloko lankidetzak hitzarmenetan jasotako betebeharrak daude, eta hitzarmen horiek 1994an eta 1996an sinatu zituzten Estatuko administrazioak eta EAEko administrazioak. Hitzarmen horien ahalmenak (oinarrizko alderdiei buruzko hitzarmenak, adibidez, presoek osasuna, hezkuntza, lana edo gizarteratzea) ez dira behar bezala garatu. Izan ere, azken urteotan, lankidetzako tresna horiek ez dira erabili, eta gainera, Jarraipen Batzordea ere ez da bildu; hala ere, badirudi epe laburrean egoera hori aldatu egin daitekeela.

Nolanahi ere, EAEko administrazioetatik, modu eta intentsitate desberdinekin, arreta eskaintzen ari zaie espetxean dauden edo egon diren pertsonen, eta, geure iritziz, bide horretatik jarraitu behar da eta, ahal den neurrian behintzat, laguntza hori oraindik ere handiagoa izan behar da.

Hiritarren eskubideak defendatzeko funtzio orokorra eta EAEko erakundeek presoek arretan duten jarduera ikuskatzeko nahiz sustatzeko betebeharra kontuan hartuta, presoek egoerarako hurbilketa egin behar dugu. Ondoren, Arartekoak arlo horretan iaz egindako jarduketak azalduko ditugu, laburbilduta.

## **b) Arartekoak presoek taldearen inguruan egindako esku-hartzeak**

Justizi arloari buruzko atal honetako lehenengo epigrafean, presoek kexen bidez planteatu dizkiguten gaiak laburbildu ditugu. Baina horiek ez dira izan Arartekoak arlo honetan egin dituen jarduketak bakarrik.

Alde batetik, hiritarren eskubideak defendatzeko erakunde batek zerbait egin behar du 2005ean EAEko espetxeetan izandako gertakari larriak ikusita (lehen aipatu diren gertakariak), batez ere, Langraiz Okan izandako gertakari larriak ikusita (suizidioak, bat-bateko heriotzak, segurtasuneko zuzendariordearen prozesamendua, preso dauden emakume batzuen gaineko hertsapenen eta eraso sexualen eraginez,...). Bestalde, kargua hartu duenetik, erakunde honen titularrak agerian jarri du interesa duela EAEko espetxe guztiak zuzenean ezagutzeko. Horren guztiaren ondorioz, honako jarduketa hauek egin dira:

### • Bisitaldiak

2005eko iraileko 16an, 20an eta 21ean, Arartekoa (bere taldeko kideekin batera) Langraizeko, Basauriko eta Martuteneko espetxeetara joan zen; bertako zuzendariekin eta espetxeetako beste arduradun batzuekin elkarrizketak egin zituen, eta gainera, ahal izan zen neurrian, preso batzuekin ere elkarrizketatu zen.

Helburua ikuskapena egitea ez zenez (Arartekoak ez dauka espetxe administrazioaren gaineko kontrol ahalmenik), aurretiaz eman zen bisitaldien berri, eta bisitaldiok, gainera, espetxeetako langileekin batera egin ziren. Agian, aipagarriena hauxe izan zen: hobekuntza garrantzitsu batzuk alde batera utzita (Langraizeko sukaldea, familiakoen bisitaldietarako egoitza berriak Martutenen, etab.), baldintza orokorrak, funtsean, 1996an ikusitako antzekoak ziren. Hemen ez dugu espetxeen deskribapena egin nahi, ezta horien gabezia nagusien deskribapena ere, baina gure arreta erakarri zuten instalazio-etako alderdi batzuk aipatuko ditugu:

- a) **Langraiz Oka:** Espetxea oso zaharra izan ez arren (oraingo egitura 1981ekoa), bertako arazo nagusiak eraikuntzan erabilitako materialen kalitate txarraren eraginezkoak dira. Estalkien egoera txarraren ondorioz, itogin asko dago. Akats hori urte batzuetatik honakoa da, baina oraingoz ordezkaren lehenengo fasea baino ez dute egin, eta beste bi faseak betearazi barik daude; berokuntza sistemarekin, emakumeen dutxeekin eta abarrekin ere gauza bera gertatzen da.

Bertako arduradunek diotenez, espetxea mantentzeko eta hobetzeko obrak etengabeak dira. Kasu batzuetan nabaritu egiten dira (igarotzeko zonetako alikatatuak, espetxearen pintaketa orokorra, dutxa batzuen berrikuntza,...); hala eta guztiz ere, bisitaldiaren egunean espetxea garbitzeko ahalegin itzela egin arren, agerikoa da instalazioen narriadura orokorra, eta, gainera, presoak modulu batzuetako balio anitzeko modulu komun batzuetan pilatuta egoteak larriagotu egiten du arazoa.

Zona askotan, lurzorua eta, batik bat, leihoak egoera oso txarrean daude. Kasu batzuetan, kristalen ordezkari plastikozko plakak jarri dira, eta horiek, erabilerarekin arraiak dituztenez, egoera negargarrian daude. Oro har, espetxeko altzariak oso narriaturik daude eta ordeztu egin beharko lirатеke. "Erizaintza" deritzon moduluari dagokionez (ez dago sendagilerik), taldeko ziega batzuk berritu eta deigailuak instalatu dira; hala ere, ez da bere helburua betetzeko leku egokia, eta gainera, bertan gaixotasun desberdinak dituzten eta arreta berezirik jasotzen ez duten presonak batera bizitzaren ondoriozko arazoak larriak dira.



Ezin dugu laburpen hau amaitu 5. moduluaren egoera aipatu barik; hori isolamendukoa dela esan daiteke, nahiz eta gauza askotarako erabili: sartzeta, aldi baterako presoak, lehenengo graduko presoak eta murriztapen neurriak dituztenak, etab. Dirudenez, bertako egoerak hobera egin du apur bat, baina itxura negargarria dauka (zikintasuna, aparrezko koltxoak apurtuta eta zorrerik gabe,...).

- b) **Basauri:** Berrogeita hamarrek hamarkadaren amaieran eraikita egotearen eraginezko egitura mailako gabeziak nabariak izan arren, espetxe honek itxura orokor nahiko onargarria dauka; fatxadak eta barruko gelak oraintsu pintatu dira eta hori lagungarria izan da espetxeari itxura onargarri hori emateko. Espetxe txikia da, eta bertako arazo nagusienetakoa, hain zuzen ere, leku nahikorik ez egotea da: ziega batzuk txikiegiak dira okupatzaile kopurua kontuan hartuta; kirol, hezkuntza nahiz produkzio jardueretarako leku gutxi dago; gela nagusiko jantokia txikiegi da... Gabezia horren ondorio txar nagusienetakoa, izan ere, presoak ondo sailkatu eta bereizi ezin izatea da.

Garbitasuna, orokorrean, onargarria da, baina erabilera komuneko zona batzuetan (adibidez, eskaileretan eta, batik bat, patioan) zikinkeria ikusten da.

- c) **Martutene:** Berrogeiko hamarkadan eraikitako espetxe hauxe da hiruren arteko zaharrena, eta hori agerian gelditzen da bai egituran eta bai instalazioetako nariadura larrian. 1996an, Espetxe Erakunde Zuzendari Nagusiak esan zuen EAeko hiru espetxeak zentro "amortizagarriak" zirela eta beste batzuekin ordeztu behar zirela, baina hori argiago ikusten da Martutenen. Izan ere, eraikin osoak dituen hezetan arazo larriekin batera, hodian, elektrizitatearen eta berokuntzaren instalazio osoa egoera txarrean dago.

Espetxearen itxura hobetzeko esfortzu handia egin da eta hori agerian dago (barruko zonak pintatu eta espetxeko lantegi batean egindako apaingarriak jarri dira, eta familien bisitaldietarako gela ere berri egin da); hala ere, patioen eta kanpoko elementuen egoera (hormak, estalkiak, erretanak, etab.) negargarria da. Zona eta gela batzuen garbiketa ere ez da ona (esate baterako, sukaldea), eta altzaririk gehienak zaharrak dira eta kontserbazio egoera txarrean daude.

### • **Espetxeetan egindako elkarrizketak eta bilerak**

Espetxeetara egindako bisitaldietan, instalazioak ikusteaz gain, hiru espetxeetako zuzendariekin eta laguntzaile batzuekin elkarrizketatu gara. Elkarrizketetan lorturiko informazio guztien eta espetxeetako arduradunek adierazitako kezken nahiz eskarien eduki osoa ezin da hemen azaldu, baina elkarrizketetan aztertutako alderdi batzuk aipatuko ditugu hemen:

- Buruko gaixotasunaren prebalentzia handia presoen artean: Langraizen, esaterako, preso guztien % 40 inguruk (300 preso, gutxi gorabehera) medikazio psikiatrikoa hartzen dute, eta % 10ek patologia oso larriak dituzte. Hiru espetxeetara Osakidetzako adituak joaten dira (maiztasun desberdinarekin),

baina laguntza psikiatrikoa ez da nahikoa, kontuan hartuta espetxeetako giroa oso kaltegarria dela halako gaixotasunetarako. Buruko gaixotasunak ez ezik, nortasunaren nahaste larriak ere badira, baita toxikomanien eraginezko aldaketa psikologikoak ere, eta horrela, egoera konponezinak sortzen dira. Arazoa oraindik ere larriagoa da, zigorra “beste modu batera” betetzea edo baldintzapeko askatasuna ahalbidetzen duen espetxetik kanpoko baliabiderik ez dagoelako. Horri lotuta, aipagarria da sendagaietan dagoen gastu itzela, bertako terapia erabilgarri bakarra kimika baita.

- Espetxeetako preso kopuru handiegia: bisitaldia egin genuenean, Basaurin 277 preso zeuden, Martutenen 295 eta Langraizen 696; hala eta guztiz ere, bisitaldiaren aurreko hilerara arte, azken espetxe horretan 770 preso zeuden eta zifra hori 2000-2002 aldikoa baino askoz ere handiagoa da, aldi horretan preso kopurua 580 ingurukoa izan baitzen. Asetasun arazoa ohikoa da Espainiako estatuko espetxe guztietan, baina oso larria da espetxe zaharretan eta egiturazko akatsak dituzten espetxeetan, esate baterako, EAeko espetxeetan. Preso mota desberdinen arteko banaketarik eza, banakako tratamendua emateko ezintasuna (Espetxeei buruzko Legeak dioenez), presoek pilaketa, intimitaterik eza, gatazkak eta bizikidetzak arazoak: horietatik dira espetxeetako preso kopuru handiegia eraginezko ondorio kezkarrietariko batzuk.
- Tratamenduko profesionalen urritasuna: giza baliabideen gaiak ezaugarri desberdinak ditu hiru espetxeetan. Martutenen gabeziak ikusten dira langileria oso urria eta ezegonkorra delako; izan ere, espetxe honetan modu oso dramatikoan jo duen biolentzia terrorista nekez jasateko moduko mehatxua da oraindik ere. Zuzendaritzan ere mugikortasun handia egon da. Aldiz, Basaurin egonkortasun nahiko handia dago eta langileria egokia da. Gabeziarik handienak Langraiz Okan daude; bertan, tratamendu taldea ez da inondik inora ere nahikoa. Aipagarria da, esaterako, psikologo kopurua (bi) berbera izatea hiru espetxeetan; psikologo horiek lan burokratiko itzela dute, eta horrela, ezin diete presoei banakako arretarik eskaini. Nolanahi ere, hiru espetxeetan esaten dutenez, presoekiko giza harremanak errazagoak eta hurbilagoak dira espetxe “zahar” hauetan espetxe berrietan baino.
- Suizidioak: espetxeetako arduradunak, batez ere Langraizekoak, jakina, kezkatu agertu ziren espetxe barruan izandako heriotzengatik; gainera, horien zergatiak ikertzeko eta halakorik gehiago ez gertatzeko konpromisoa eta inplikazioa erakutsi zuten. Halaber, aipagarria da suizidioak eta drogen gaindosiak ekiditeko lanaren konplexutasuna. Arabako espetxean EEZnK landutako “txokeko plana” izenekoa azaldu zuten, jokabide autolitiko horiek behin eta berriro gertatzeari emandako erantzuntzat. Hiru jarduketa mota ezarri dira: a) Bizigarritasunaren hobekuntza, preso kopurua murriztuta; garbitasunari (makina berriak) eta arratoiak hiltzeari (arazo larria, Martutenen bezala) emandako garrantzia; berokuntza sisteman, mintzategietan, leihoetan eta abarrean egindako berrikuntzak; okindegiaren eta ekipajerako nahiz arropetarako biltegiaren sorrera...; b) Antolaketa mailako neurriak, adibidez, 8 egunean behingo garbiketa

orokorra, zerbitzuburuaren erantzukizunpean; tratamenduko profesionalen lanaren zentzuzkotasuna, arreta hobea eskaintzeko...; eta c) Arriskuko egoeren azterketa eta zehaztapena, egon diren suizidioak aztertuz; presoei laguntzeko heziketa plana martxan jartzea; tratamenduko profesionaletarako espezializazio ikastaroak...

- Generoko biolentziaren ondoriozko presoak: hiru espetxeetan ere, emakumeen aurkako biolentzia delituen eraginezko presoen fenomeno sorberria da eta konponbide zaila dauka. Ezaugarri bereziko taldea da, eta, antza denez, euren artean suizidio arriskua gainerako presoen artean baino handiagoa da. Espetxekeo langileen ustez, hori gizartean nabaritzen duten ukapenaren ondoriozkoa da; hala ere, gure iritzian, beste zergati batzuk ere badira, esate baterako, erasotzaileak euren burua “delitugiletzat” ez hartzea; aldiz, euren ustez, gizarteak oraintsu arte onartu dituen eta sustrai handiko kultura jarraibideen arabera diren jokabideen ondoriozko zigorra bidegabea da.
- Lan eta heziketa jarduerak: Basaurin eta, batik bat, Martutenen, ordaindutako lan eskaintza oso urria da. Produkzio jardueraren urritasuna, izan ere, lantegietarako lekurik ez edukitzearen eraginezkoa omen da, eta beraz, lanaren zati handi bat zerbitzu komunitan egiten da (mantenamendua, sukaldea, garbitegia...). Lan-graizen, zirkuitu elektrikoak muntatzeko lantegietan 105 gizonak egiten dute lan, eta kableen lantegian 15 emakume dabilta lanean. Lan jarduera baxua izan arren, espetxeetatiko arduradunek kezka handiagoa dute heziketako programei dagokienez, hain zuzen ere, lanbide heziketako programei dagokienez, presoan laneratzea errazteko. Lantegi batzuk egon arren (industria pintura, zurgintza, etab.), horiek ez dira inondik inora ere nahiko, eta gainera, ez dago loturarik EAEko hezkuntza sistemarekin. Arlo horretan, lan arazo zehatza dago eta horrek irakasleen taldean dauka eragina. Funtzionario horiek, izan ere, Estatu osoko funtzionarioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean sartu ez diren bakarrak dira; horrenbestez, espetxe administrazioari lotuta daude; bertan, iraungi beharreko kidegoa osatzen dute eta lanbide karreraren bat lortzeko itxaropen guztiak galdu dituzte; aldi berean, aukera desberdintasuna jasaten dute, EAEko hiru espetxeetara hezkuntza lan berbera egitera joaten diren HHko irakasleei dagokienez.

Espetxeetako arduradunek emandako informazioak laburbildu ditugu hemen. Bisitaldiak egitean, preso batzuekin ere mintzatu ginen. Kasu askotan, horiek euren arazoak azaldu zituzten, baina gehienetan agertzen ziren kexa orokorren artean honako hauek aipa daitezke:

- Janari akastuna: txarto prestaturiko eta baldintza ezegokietan zerbitzaturiko janaria; menu pobreak eta berdin-berdinak (Martutenen eta Langraizen).
- Profesionalekin elkarriketatzeko ezintasuna, ezta hezitzaileekin ere: batzuk “ez dira agertzen eta, agertuz gero, funtzionarioarekin baino ez dute hitz egiten”. Espetxe Zaintzako Epailearekin hitz egiteko zailtasunak.

- Banakako tratamendurik eza edo ordaindutako nahiz lanbide heziketako jarduerarik eza.
- Prebentzioko espexeratzearen gehiegizko luzapena.
- Bizigarritasun baldintza akastunak (“*komunaren ondoan zuloa daukat eta bertatik arratoiak irteten dira*”), zikinkeria...
- Aske gelditzeko prestakuntzarik eza: kanpoko gizarte zerbitzuekiko koordinazio eza, elbarritasunaren eraginezko ez-kontribuziozko pentsioen tramitazioan dauden atzerapenak...
- Arazoak sistema telefoniko berriarekin; eskabide-orririk ez egotea...

### • Presoei laguntzeko elkarteekin egindako bilerak

Arlo honetan, gizartean bazterturiko taldeekin egindako laneko gainerako arloetan bezala, presoen gizarteratzearen arloan diharduten elkarteekiko informazio trukea eta erlazioa ezinbestekoa da. 2005ean, hiru lurraldeetan arlo horretan lan egiten duten taldeekin urtero egiten ditugun bilerak ez ezik, kontaktu eta elkarrietzeta asko egin ditugu, bai elkarte horietako kideekin, bai espexteetako errealitatea zuzenean ezagutzen duten beste pertsona batzuekin.

Ondoren, labur-labur, elkarteekin 2005eko apirilean egindako bileretan planteaturiko gaiak azalduko ditugu (bileretan 25 taldeko ordezkariak egon ziren):

- Espetxeko heriotzak: bat-bateko heriotzen eta suizidioen zifrei, hil baino egun edo ordu gutxi batzuk lehenago kaleratzen diren pertsonen heriotzak gehitu behar zaizkio. Arazoa larria eta hedapen handikoa da (“*Espetxeko heriotzak*” deritzonari buruzko txostena azaldu da, espexteetan eta komisarietan izandako heriotzei buruzkoa, eta bertan, espextean 2001-2004 bitartean izandako 871 heriotzei buruzko datuak eskaintzen dira). Eragileen ustez, ez dira erantzun eraginkorrak egituratzen, eta zergatiak lantzen ez dituzten jarduketak puntualak eta lotura gabeak baino ez dira egiten.
- Suizidioei dagokienez, informazio nahikorik ez egotea eta dagoen informazio apurra gardena ez izatea salatu da. Espetxe administrazioak eta Epaitegiak familiei ez diete heriotzaren zergatiei edo ezaugarriei buruzko azalpenik ematen. Barruko ikerketen emaitzak inoiz ere ez dira azaltzen (protokoloak betetzen diren ala ez...). Prentsan emandako tratamenduak kezkatu egiten du, prentsak hildakoek egindako delituak baino ez baititu nabarmentzen.
- Osasunerako onartezinak eta kaltegarriak diren bizi-baldintzak, batez ere, organismoaren barruko defentsak murrizteko patologia dituzten preso ugarietara dagokienez. Hezetasuna, hotza, berokuntzarik eza, arropa berorik eza eta halako gauzak aipatu dira. Egoera oso gogorra da modulu eta departamentu batzuetan; horietan, gainera, beste akats batzuk daude: presoen

pilaketa, erabilera komuneko lekurik eza, altzari egokirik eza, zikinkeria, arratoi en eta intsektuen ugaritasuna..., eta horrek guztiak erasokortasuna sortzen du.

- Langraizen preso dauden emakumeek segurtasuneko zuzendariordearen aurka aurkeztu dituzten salaketak, eraso sexualen eta hertsapenen eraginezkoak. Epaitegian salaturikoak baino kasu gehiago daudela esan da, gai askoren ingurukoak (estortsioa, drogen trafikoari loturiko gorabeherak, etab.); mehatxuak egin dira eta presoak egon daitezkeen errepresalien beldur dira.
- Osasun laguntza espezializatuan dauden gabeziak eta barruko nahiz kanpoko osasun zerbitzuen arteko erabateko koordinaziorik eza. Gaixotasun larriaren eraginez askatasuna lortzen duten pertsonak espetxetik inolako osasun txostenik gabe irten direla salatu da, eta horrek zaildu egiten du pertsona horien ondorengo tratamendua.
- Arreta psikologiko urria: Langraizeko tratamendu taldea, orokorrean, desegituratuta dago. Profesionalak sailkapenerako, baimenatarako eta abarrerako manuzko txostenak egiten ematen dute astia, baina ez dute presoekin hitz egiten eta ez dago banakako laguntzarik.
- Gaixotasun psikiatrikoen eraginezko arazoak larriagotu egin dira: presoan artean buruko gaixotasuna gero eta ohikoagoa da, baita patologia duala ere. "Tontotu" egiten dituen sendagaia baino ez zaie ematen. Osakidetzak eskainitako laguntza ez da nahikoa, eskaria espetxe erakundeak berak iragazten duelako.
- Gaixotasun psikiatrikoen arazoa larriagotu egiten da kanpoko baliabiderik ez edukitzearen ondorioz. Horren eraginez, bertan egon behar ez duten edo baldintzapeko askatasuna duten pertsona gaixoak espetxean edukitzen dira, ez baitago beste lekurik horientzat. Arazo hori, berriz, beste gaixotasun fisiko larri batzuen kasuan ere gertatzen da, eta horiekin batera nortasun arazoak edo jokabide arazoak egoten dira: gaixoei osasun laguntza behar dute, baina ez dira osasun zentroetan onartzen.
- Langraizeko erizaintzako presoak bertan behera utzi eta isolatu egiten dira. Egitura mailako eta higieneko baldintza ezegokiak, geldiarazitako obrak, osasun laguntza eza, era oso anitzeko presoan nahaste arazotsua eta abar egoteaz gain, presoak ezin dira jarduera komunetara joan eta tratamendu taldeak bisitaldi gutxiago egiten die. Bertan behera uzteak eta isolamenduak sekzio irekian ere eragina dauka, bertan hirugarren gradua lortu baina lanera irteten ez diren presoak baitaude.
- Ez dago hezkuntza eta, batzuetan, okupazio jarduerarik (adibidez, Vitoria-Gasteizeko Udalak Langraizen sustaturiko lantegi kopuruak murriztapen handia izan du). Lanbide heziketa ez da inondik inora ere egokia, nahiz eta kanpoan horretan parte hartzeko prest dauden zentroak egon...

- Etxebizitza eta baliabide gutxi dago kanpoko harrerarako, eta horrela, baimenak, hirugarren graduak eta baldintzapeko askatasunak ukatu egiten dira.
- Arabako Espetxe Laguntzako Txanda (ELT) gainezka dago, preso kopuruak (gehienbat etorkinak) izandako gorakadaren eraginez. Txanda osatzen duen abokatu taldea murriztu egin da eta laguntzan kalitatea galtzen ari dira. Beharrezkoa da egunero 2 profesional joatea, baina Eusko jaurlaritzak ez du ordainketa bere gain hartzen. Emakumeei laguntzeko arazoak. Atzerritartasunean espezializaturiko txanda bat behar da espetxera joateko, baina Araban ez dago halakorik.
- Bizkaiko ELTan ere laguntzen gorakada egiaztatu da. Presoen lekualdatzeen ondorioz, ezinezkoa da horien jarraipena egitea eta defentsarik ezari loturiko egoera asko sortzen dira. Atzerritartasun Txanda oraindik ere ez da espetxera joaten. Ofizioko abokatuaren aurkako kexa asko jasotzen dira, horiek ez baitira euren bezeroak diren presoekin elkarrizketatzen. Abokatu Elkargoak kontrol handiagoa garatu beharko luke.
- Presioei tratu txarrak eman dizkieten funtzionarioen kasuak daude, eta horiek ez dira ikertzen eta zigortzen. Txarto ulerturiko korporatibismo baten ondorioz, batzuetan, zuzendaritza organoek ez dute halako kasuen berririk izaten.
- Emakumeak: Langraizen eta Martutenen emakumeek okupatzen dituzten egoitzak egoera txarrean daude, baina ez dago asetze arazorik. Lan eta heziketa jarduerak egiteko aukera gutxiago, eta euren beharrian berezien erabateko arreta eza (oinarrizko laguntzan gabezia larriak dituen taldea, eta gainera, laneratzeko arazo gehiago dute). Ez dago Amen Unitaterik. Euren ezaugarrietarako egokiak ez diren segurtasun neurriak eta murriztapenak aplikatzen zaizkie (esaterako, adin txikiko seme-alabekiko telefono komunikazioetan ezarritako mugak), eta batzuetan, horiek gizonentzat baino zorrotzagoak dira (esate baterako, Langraizen emakumeek ezin dute baliozko gauzarik soinean jantzi).
- Etorkinak: arazo bereziak eta diskriminazioak jasaten dituzte (baimenak, baldintzako askatasunaren ukapena...). Arbitrariotasuna eta erabateko informazio eza, kanporatzeko prozedurei dagokienez. Zigor kanporatzeetan dauden atzerapenen ondorioz, ordezko espetxe zigorra bete behar izaten dute. Espetxe Administrazioak ezetz esan arren, hizkuntza ez jakitearen eraginezko arazoak daude: ulermenaren itxurazko maila benetakoa baino askoz ere altuagoa da. Diskriminazioa: batzuek Gizarte Segurantzaren kotizatu arren (espetxean lan egiten duten bitartean), gero ezin dute prestaziorik edo sorospenik kobratu.
- Martuteneko Gazte Saila: bakarra denez, bertan EAeko gazte guztiak (gizonak) sartzen dira eta arazoak daude, Arabako eta Bizkaiko abokatuak horiek bisitatzen joaten ez direlako. Hezur probekiko segurtasunik eza, atxiloturiko atzerritarren adina zehazteko; Adin Txikikoen Epaiketaren eta espetxearen arteko koordinazio eza larria.

- Hiru hilabeteko epea mantentzen da espetxetik kanporatzeko dirulaguntza lortzeko, eta epe hori luzeegia da. Pertsona askok “aldekoarekin” irten nahi dute espetxetik.
- Droga kontsumo oso altua espetxeetan. Droga sartzeko edo barruko trafikoa ekiditeko benetako borondaterik ez dagoela pentsa daiteke.
- Urte hasieran arazoak egon ziren espetxeetara joaten diren boluntarioekin. Zenbait pertsonari (elkarte desberdinetakoak) sarrera debekatu zitzairen, inolako justifikazio gabe, horiek urte askotan arazo barik sartu arren. Kasu batzuetan, gero zuzendu egin zen hori. Elkartek kexu dira, Basaurin tratamenduko profesionalekiko koordinazio edo komunikazio biderik ez dagoelako.
- Ez dago Langraizerako garraio publikorik. Arazo larriak presoentzat (baimenak, etab.) eta bisitara doazen pertsonentzat. Bertara joan nahi ez duten taxien arazoa dago oraindik.
- Elkarte batek Langraizeko presoek kexen zerrenda aurkeztu du: ekipamendurik gabeko polikiroldegia, komunikazioetako denboraren murriztapena, ekonomatoko hornidura gutxiago, iraungitako produktuak eta beste espetxe batzuetakoak baino prezio garestiagoak, telebista komunak apurtuta, telebista geletan aulkirik ez (horrek borrokak sortzen ditu), arazo dermatologikoak lantegietako langileen kasuan...
- Ez dira konpondu presoak Donostiako Ospitalean sartzeko arazoak (gela barruko zaintza, uniforme zantzuak, erregimen irekiko unitateak, baimenatarako harrerako etxebizitzak... Komenigarria da hezkuntzako eta, batik bat, espetxe osasuneko eskumenak eskuratzea.
- Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzekin dauden arazoak: atzerapenak ez ezik, arazoak sortzen dira eskumenak sail desberdinen artean banatzeari dagokionez. Kritikatu egiten dira presoek familiakoen bidaietarako dauden laguntzak, horiek ez baitira ematen Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko bidaietarako, ezta ondoko probintzietarako bidaietarako ere; horrela, baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak diskriminaturik gelditzen dira.
- Herri administrazio guztien borondaterik eza, aukerako zigorrak mar txan jartzeko; hain zuzen ere, zigor sistemaren barruko bitartekaritza eta konponketa programak mar txan jartzeko, horiek hobari handiak ekarriko lituzketelako.

Uteroko hiru bilerak ez ezik, lehen esan dugunez, 2005ean kontaktu eta topaketa asko egin dira, testuinguru desberdinetan, espetxe munduarekin erlazio zuzena duten pertsonekin (bai lanbide arrazoiak dituztelako edo bai gizarteratzearen arloan lan egiten duen elkarteren bateko kideak direlako). Zaila da lorturiko informazioak laburbiltzea, baina, gauza batzuk aipatuko ditugu. Kontuan hartu behar da gehienetan oso orokorrak direla, baina kasu batzuetan espetxe jakinen bati buruzkoak dira:

- Erregimenaren lehentasuna, espetxe tratamenduari dagokionez. Baliabiderik gehienak (giza baliabideak eta baliabide materialak) presoerregimenari eta zaintzari loturiko alderdian erabiltzen dira, eta ez da gizarteratzea eta laneratzea prestatzeko lanik egiten, presoak kanporatzen direnerako. Okupazio eta heziketa jarduera asko funtzionario batzuen esfortzu pertsonalari esker egiten dira, eta erakundeek ez dute horretarako inolako laguntzarik ematen.
- Ez da banakako tratamendua aplikatzen, alegia, presoaren bilakaera pertsonalean oinarrituriko tratamendua. Tratamendu taldeko profesionalak gainezka daude, eta beraz, ez dituzte presoak ezagutzen. Horren ondorioz, baimenak arrazoi orokorren eraginez ematen edo ukatzen dira (zigorraren larritasuna...), eta ez banakako ezaugarrien eraginez. Horri dagokionez, drogamenpekotasunaz gabetzeko prozesuetan, kontsumoa “ez-betetzetat” hartzen da, baina ikuspegi terapeutikotik begiratuta hori ez da beti horrela baloratzen.
- Espetxeetako funtzionarioen lanaren baldintzak oso gogorrak dira. Mehatxu terroristaren eraginezko presioari, espetxeetako egitura-gabeziak eta lekurik eza gehitu behar zaizkio. Funtzionarioen arteko motibaziorik eza handia dago, baita barne komunikazio eza handia ere, eta horrek gogo barik uzten ditu proposamenak edo kritikak egiteko prest dauden bokazio-langileen asmo ona...
- Hezitzaileen eginkizuna nabarmentzen da, baina iritziak era askotakoak dira. Batzuen ustez, zerbait egiten duten bakarrak dira, tratamenduko gainerako profesionalak lan burokratikoak baino egiten ez dituztelako; beste zenbaiten iritziz, hezitzaileak ez dira moduluetara joaten eta ez dute presoekin hitzik egiten. Funtzionario horien heziketa espezializatuari dagokionez, badirudi hori ezinbestekoa dela, baina praktikan prestakuntzarik gabeko pertsonak ere sartzen dira lanpostu horretan, eta horien helburu bakarra euren lan baldintzak hobetzea da.
- Suizidioak: ez dago erreakzio eraginkorrik eta programaturik. Loturarik eta jarraitasunik gabeko neurriak hartzen dira (adibidez, profesional batzuentzako heziketa ikastaroak); horiek, batzuetan, boluntarismo hutsean oinarriturik daude, esaterako, “laguntzako presoerregimen” programa. Ez dago beharrezko aurrekontu baliabiderik, jarduera terapeutikoak edo tratamendukoak mantentzeko, ezta betetzeko “aukerako” moduetarako ere, beharrian bereziei erantzun egokia emateko (buruko gaixotasuna duten presoentzako edo toxikomanoentzako zentroak...).



- Espetxeko gizarte zerbitzuen eta komunitateko zerbitzuen arteko erabateko koordinazio eza, eta horrek gizarteratze prozesua zailtzen du. Beste arlo batzuetan ere (osasuna, lanbide heziketa...) ez dago baliabideen sare publikoarekiko koordinaziorik.
- Telefono bidezko komunikazioen sistema berria: kritikak aho batez egiten dira. Baimendutako zenbakien zerrenda atzeratu egiten da, eta beraz, espetze barruko lehenengo egunetan ezin da deirik egin. Txartelak kargatzeko sistema ez dabil eta, horrenbestez, soberako dirua galdu egiten da. Etorkinek ezin dituzte txartelak erabili, deiaren kostua asko merkatzen duten txartelak. Itzulitako kobrantzaren aukera mugatu egin da. Komunikazioak ezinezkoak dira deia jasotzen duen pertsona telefonoan jarri ezin denean (esate baterako, bi presoren arteko komunikazioak). Segurtasunaren hobekuntza beste irizpide batzuk malgutzeko erabili behar da; adibidez, ez da zentzukoa ama batek gainerako presoen muga berberak edukitzea (dei kopurua eta iraupena), adin txikiko seme-alabekin komunikatu behar duenean.
- Langraizeko sail irekia: espetze barrutitik kanpo egon beharko litzateke. Gaur egun, hirugarren graduako presoak, asteburuetan baino kanporatzen ez direnak, egoera txarrean bizi dira bertan, tratamenduko profesionalen inolako laguntza barik, gizarte langileen bisitaldiren baten kasuan izan ezik. Kontuan hartu behar da eguneroko irteera ahalbidetzeko jardueraren bat aurkitzeko gauza ez diren presoek dutela defentsarik txikiena, eta beraz, horietarako behar dute laguntzarik handiena, askatasuna prestatzeko funtsezko une horretan.
- Gipuzkoan espetze berria eraikitzeko proiektua zalantzan jarri da. Informazio publikorik eza kritikatu da, baita espetze motari buruzko gizarte eztabaidarik ez egotea ere.

Horri guztiari, gainera, Arartekoari kexatzat planteaturiko gauzak gehitu behar zaizkio, eta horiek *Sarrera* atalean aipatu dira (8.1).

### • Erakundeekiko bilerak

Izenak berak dioenez, Arartekoak hiritarren (horien barruan, gizarte talderik baztertuenen) eta gizarte politikak egituratzen nahiz zerbitzuak kudeatzen dituzten administrazioen arteko bitartekaritza lana egin behar du.

Presoen laguntzaren arloan, funtzio hori garatzeko (iaz), bilera eta elkarrizketa asko egin dira erakunde eskudunetako ordezkariekin. Bilera horien helburua oso anitza izan da, kasuan kasuko erakundeen ezaugarrien eta funtzioen araberakoa. Oro har, informazio eta komunikazio bide jariakorrak ezarri dira, betiere presoen hobaria, euren eskubideen defentsarik eraginkorrena eta euren bizi-baldintzen hobekuntza lortu nahian.

Horretarako, azaroan, Arartekoa Espetze Erakunde Zuzendari Nagusiarekin bildu zen. EAeko espetxeetan azken hilabeteetan izandako heriotzekiko kezka azaldu zion, eta gainera, horiei buruzko ikerketa egiteko eta halako heriotzak ekiditeko harturiko neurriei

buruz galdetu zion; halaber, lehen aipatu diren gai guztiak ere azaldu zizkion. Espetxe sistemaren barruko oraingo egoeraren zergatiei buruzko ikuspegiak trukatu zituzten, baita hobekuntzarako egon daitezkeen estrategiei buruzko ikuspegiak ere. Batez ere, EAEko espetxeen arazoak aztertu ziren, baina EAEn bizi eta zigorra lurralde horretatik kanpo bizi diren pertsonen buruzko beste gai batzuk ere aztertu ziren.

Arartekoa Herriaren Defendatzailearekin ere bildu zen, espetxean dauden edo egon diren pertsonen arazo bereziak aztertzeko. Estatuko homologoaren eskumenekoa da espetxeen funtzionamenduaren ikuskapena, eta beraz, hausnarketa oraingo koordinazioa mantentzeko eta hobetzeko tresnarik egokienei buruzkoa izan zen, baita bi erakundeen arteko lankidetzeta estua indartzeari buruzkoa ere; horrela, presoek eskubideen defentsan eraginkortasun handiagoa lortuko da.

Urteko azken hiruhilekoan, erakunde honetako titularrak Vitoria-Gasteizeko Probintzia Auzitegiko fiskal nagusiarekin bildu zen. Arartekoak harremanak izaten ditu hiru lurralde historikoetako Fiskaltzako ordezkariarekin, baina oraingoak Arabako fiskal nagusiarekin biltzea erabaki du; izan ere, horren mugapean dago espetxerik handiena eta EAEko betetze-espetxe bakarra. Fiskaltzak legalitatea defendatu eta, orokorrean, zigor sistemaren funtzionamendu zuzena kontrolatu behar du; hala ere, gainera, berezkoak ez diren edo ezezagunak diren heriotzen gaineko ikerketa sustatzeko eskumena dauka. Hori dela eta, bileran Langraiz Okako espetxeko heriotzen inguruko alderdi desberdinak aztertu ziren; besteak beste, familiei heriotzen inguruko ezaugarriei buruzko informaziorik ez ematea edo autopsien emaitzak ez jakinaraztea aztertu ziren. Fiskal nagusiak hori ikuskatzeko konpromisoa aztertu zuen eta, horretarako, 2006aren hasieran gai hori planteatzen duen kexa bat bidali diogu.

Kontaktuen erronda amaitzeko, Arartekoaren ustez komenigarria izan zen Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuarekin elkarriketatzea; izan ere, horrek (Administrazio horren barruan) sailek espetxean egon diren pertsonak gizarteratzeko jarduketak koordinatu behar ditu.

Bileran aurreko orrialdeetan aipaturiko gai eta arazo asko aztertu ziren; hala eta guztiz ere, Arartekoak EAEko erakundeen erantzukizunak edo esku hartzeko aukerak dituzten alderdi guztiak nabarmendu zituen. Besteak beste, honako gai hauek aztertu ziren: buruko gaixotasunak edo jokabide arazoak dituzten pertsonak hartzeko zentro berezirik ez egotea, horiek espetxean ez sartzeko edo bertatik errazago irteteko; erregimen irekiko zentrorik ez egotea, preso guztientzat eta, batik bat, adin txikiko seme-alabak dituzten emakumeentzat; presoek lekualdatzeetan dauden gabeziak (Ertzaintzaren eginkizuna, eta, sarritan, baliabide gutxi); elbarritasunaren eraginezko ez kontribuziozko pentsioen murriztapena (foru aldundiek presoek egiten dizkietenak); bitartekaritza eta biktimekiko ordainketa egiteko programen sustapena, etab.

Erakunde honek berriro esan du komenigarria dela EAEk espetxearen arloko eskumen partzialak bereganatzea, batez ere, osasun laguntzari eta hezkuntzari buruzko eskumenak, horrela EAEko presoek egoerak hobera egingo lukeelako. Hala eta guztiz ere, gobernu-arduradunak berriro esan zuen funtzio horiek eskuratzea (baita erakunde honek iradokitako ekimen batzuk betetzea ere) oztopagarria izango litzatekeela aipaturiko eskumen horren eduki osoaren transferentziarako.

Espetxeetako hezkuntza eskumenei eta, hain zuzen ere, EAEko hezkuntza sistemako espetxe-irakasleen integrazioari buruzko gaia ere oraintsu planteatu dio Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Sail egokiari, eta orain arte ez dugu erantzunik jaso.

## • Azken oharrak

Askatasunaz gabetzeko zigorra oso samingarria da; izan ere, mugimendu askatasunerako eskubidea ezabatzeaz gain, pertsonaren funtsezko beste eskubide asko ere murriztu (edo ezabatu) egiten ditu. Agian, historikoki zigorren leunketan aurrerapausoa ekarri zuen, lehen ematen ziren gorputz zigorrei zegokienez eta, batik bat, heriotza zigorrari dagokionez; hala eta guztiz ere, eskubideen gabetze handia eragiten du eta, beraz, hori gure oraingo gizarteak lorturiko garapenaren arabera neurtu behar da, bai nortasunaren eskubideen eta bai bizi-kalitatearen arloan.

Jurisprudenziak ezarritakoaren arabera, gehiegizko luzapenaren edo zigorra betetzeko baldintza batzuen eraginez, askatasunaz gabetzeko zigorra oso gogorra izan ahal da eta, beraz, debekatu egin daiteke. Mutur horretara iritsi barik, espetxe zigorrak ondorio kaltegarriak ekartzen dizkio presoari, eta ondorio horiek sarritan konponezinak izaten dira. Horrenbestez, botere publikoek ahalegina egin behar dute presoen nortasuna edo bizi-ibilbidea ez narriatzeko. Izan ere, Konstituzioko 25.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, askatasunaz gabetzeko zigorrak ezin izango dio neurritz kanpoko sufrimendurik eragin, egindako delituaren larritasunari dagokionez, hori bidegabeko eta legez aurkako zigorra izango litzatekeelako.

Hortik ondorio argia atera daiteke: giza eskubideak errespetatzen dituen zigor sistema batean, espetxe zigorra azken *ratioa* izan behar da eta krimenik larrienak zigortzeko baino ez da erabili behar. Baina gaur egun ez da hori gertatzen. Lehen esan dugunez, preso kopuruaren gorakada gero eta handiagoa (Espainiako espetxe sistema gainezka utzi duena) ez da kriminaltasunaren benetako gorakadaren ondoriozkoa, zigor erreakzioa gogortzearen ondoriozkoa baizik. Prebentzio-espetxealdian dauden pertsonekin ez ezik, espetxeak jabetzaren aurkako delitu txikiak egin dituzten pertsonekin beteta daude, batez ere, estupefazianteen trafikoari loturiko delituak egin dituzten pertsonekin beteta. Kasu ia guztietan, aukerako zigorrak ezartzea nahikoa izango litzateke (prebentzio eta gizarteratze eraginkortasun handiagoa, espetxe-zigorrak baino), baina orain arteko aukera nagusia askatasunaz gabetzea da, eta horixe da gure zigor sistemak ematen duen erantzun ia bakarra.

Azken batean, Arartekoaren ustez, espetxeetako arazo askoren jatorria zigorrak gero eta zorrotzagoak izatea da, hau da, askatasun kota jakinak (baimenak, erregimen irekia,...) eskuratzeko itxaropena ezabatzen duten betetze-moduak ezartzea. Presoek itxaropena galtzen dute, eta horrek larriagotu egiten ditu espetxe barruko tentsioak; gainera, bizikidetzaren narriatu eta gatazkak areagotzen ditu. Horrenbestez, arazoari soluzioa aurkitzeko, ezinbestekoa da azken lege-erreformak berriro aztertzea (batik bat, segurtasun aldia, hirugarren gradurako baldintzak, baldintzapeko askatasuna, etab.). Halaber, lorturiko emaitzak ebaluatu eta, behar izanez gero, zuzendu egin behar dira espetxe zigorrak gogortzearen inguruan (1995eko Zigor Kodeari dagokionez) egin diren aldaketak.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da askatasunaz gabetzen ez duten zigorrak sustatzea, horiek martxan jartzeko behar diren neurri guztiak hartuz (batik bat, aurrekontu mailako neurriak). Asteburuko atxiloketaren porrotaren itzala, bestalde, komunitatearen onerako diren lanen gainean hedatzen da orain, baina baita espetxe zigorraren etetea ahalbidetzen duten beste neurrien gainean ere. Horri dagokionez, esate baterako, jakin dugu zailtasunak daudela ikastaro jakinetara joateko betebeharra betetzeko, emakumeen aurkako biolentzia delituak dituzten preso askori betebehara hori ezarri baitzaie. Agerikoa

da halako neurrien prebentzio-ahalmenaren erabateko garapena ahalbidetzeko, beharrezkoa dela horren betearazpena bermatzea, kalitate egokiarekin, eta horretarako, ezinbestekoa da arloan eskumena duten herri administrazio guztien inplikazio argia.

Askatasunaz gabetzearen murriztapena helburu nagusia izanik, espetxeko legeria betetzeko ahalegina egin behar da, presoen banakako tratamendua bermatzeari dagokionez. Preso bakoitzaren ezaugarriei, beharizanei eta bilakaerari arreta egokia eskaintzea beharrezkoa da preso gizarteratu ahal izateko, deliturik gabe bizitzeko gaitasunarekin. Banakako tratamendu horretarako, jakina, bizi-baldintza duinak behar dira eta, beraz, oinarriko beharizanak beteta egotea ezinbestekoa da. Hortaz, berehala konpondu behar dira EAEko hiru espetxeetan dauden egitura eta mantenamendu mailako akatsak.

Hala eta guztiz ere, gizarteratzea lortzeko, giza baliabideek baldintza materialek baino garrantzi handiagoa dute. Aurreko orrialdeetan, tratamenduko profesional taldeen gabeziak azaldu ditugu, horiek ez baitira nahiko presoen banakako laguntza bermatzeko. Tratamenduari lehentasuna eman behar zaio zaintza hutsari dagokionez, eta gainera, barne antolamendua mantendu egin behar da, espetxeetako egoera hobetzen hasteko. Horri dagokionez, alderdi asko nabarmendu behar dira: osasunaren zaintza, lan nahiz heziketa jardueren gorakada, komunikazioen hobekuntza, kanporako irteeren zein espetxe hobarien sustapena, gizarte laguntza eraginkorra, etab.

Alderdi horietan guztietan, erantzukizun nagusia espetxe Administrazioak dauka; hala ere, lehen esan dugunez, askatasunaz gabetzeko zigorrak gizarteratzeko baliabideak izateko, herri botere guztien lankidetzaren behar da. Horri dagokionez, gogoratu egin behar da 1996ko txosten monografikoan Arartekoari egindako gomendioa, espetxeak gizartera ireki behar izateari buruz, eta horretarako, herri zerbitzu komunitarioekin integratu edo, behintzat, koordinatu behar dira (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, etab.). Jakina, koordinazio horrek bi zentzu ditu, eta EAEko administrazioek ahalegin guztia egin behar dute hori ahalbidetzeko eta, azken batean, presoen egoera hobetzen laguntzeko.

Betebehar generiko oro ez ezik, EAEko Administrazioak esfortzua egin behar du bere eskumeneko zerbitzuetan aurkituriko gabeziak konpontzeko (presoen lekualdaketak, Zaintza Bereziko Unitateen zaintza ospitaleetan, etab.). Halaber, arlo batzuetako lankidetzaren areago egin behar da, batez ere, adituen edo ospitaleen osasun laguntza, drogamenpekotasunerako laguntza eta hezkuntza laguntza, azken arlo horretan espetxe-irakasleen integrazioa oraindik ere egin barik baitago. Baina, Arartekoak giza eskubideak sustatzeko duen eginkizuna aintzat hartuta, EAEko administrazioek baliabideak egituratu behar dituzte espetxean sartzea ekiditeko edo errazago irteteko. Delituen prebentzioan eragina duten gizarte politikak garatu behar dira, baina buruko gaixotasunak edo gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako zentro bereziak ere sortu behar dira, erregimen irekiko unitateak, toxikomanien tratamendurako edo osaketarako zentroak, espetxetik irteteko unerako dirulaguntzak, laneratzeko neurri bereziak, etab.

Azken batean, EAEko gizarteak erantzukizuna bere gain hartu behar du, EAEko giza talde horren egoera hobetzen laguntzeko, taldeak arazo bereziak baititu hiritartasun eskubideak garatu ahal izateko.

## 9. INGURUMENA

### 9.1. SARRERA

2005. urteari dagokion ekitaldian, ingurumenaren arloan jaso den kexa-kopurua 78 izan da, hau da, jasotako % 7,14.

Kexak izan dituzten administrazioen arabera, honela sailkatu ditzakegu kexak:

-Tokiko administrazioa.....	69
-Foru administrazioa.....	7
-Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza).....	7

Edukiaren aldetik, berriz, honela sailkatu ditzakegu kexak:

-Sailkatutako jarduerak bizilekuetarako lurzoruan.....	49
-Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk .....	17
-Sailkatutako jarduerak industria-lurzoruan.....	4
-Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	3
-Sailkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean .....	2
-Kontratazio-erregimena, ondarea eta administrazio-erantzukizuna .....	2
-Hondakinak eta isuriak .....	1

Ikusi daitekeenez, urte honetan ere “Sailkatutako jarduerak bizilekuetarako lurzoruan” azpiatalean sartu daitezkeen kexak dira ingurumeneko arlo honetan gehiengoa, hau da, sailkatutako jarduerak deitzen direnen zaratengatik, usainengatik eta kearengatik dituzte eragozpenak herritarrek. Jarduera horiek udal baimenen erregimenaren menpe daude.

Alde horretatik, adierazi dezakegu ostalaritzako establezimenduen funtzionamenduen ondorioz sortzen diren eragozpenen inguruko kexak izan direla gatazkatsuenak. Kexa horietan, aipatutako jarduerak sortzen dituzten zaratek ekarritako eragozpenak salatu dituzte. Honakoak dira zaraten arrazoiak: lokalak ez daude akustikoki isolatuta edo musika-kateak gehiegi erabiltzen dira, musika-kate horietan instalatuta dauden potentzia mugatzaileak edo ainguraketa-sistemak manipulaturak.

Zuzeneko musika-emankizunek sortzen dituzten eragozpenen salaketak ere ohikoak dira. Emankizun horiek akustikoki ondo egokituta ez dauden establezimenduetan egiten dira.

Halaber, azken urteetan, ohikoak dira lonja komertzialak batzeko lokal gisa erabiltzeak sortzen dituen eragozpenen salaketak. Izan ere, jasan behar dituzten zaratak salatu dituzte jabeen hainbat elkartek. Zarata horiek beren etxebizitzetan azpian lonjak dituzten gazte-taldeen jardueraren ondorioz sortzen dira, lonja horiek alokatzen baitituzte batzeko leku izateko. Lonja horiek behar den bezala egokituta ez dauden arren, musika-kateak, teledibistak, etab. jartzen dituzte bertan.

Instituzio honek tramitatutako kexa-espedituetan, gai honetan inplikaturak dauden udalei gomendatu diegu lonja horiek ixtea, ikusten bada salatu diren jarduerak

ez dutela jarduerak egiteko nahitazeko lizentziarik (otsailaren 27ko 3/98 Legeko 65. artikulua aplikatzeko, Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra hain zuzen) eta ez badira legeztatzen aipatutako legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera.

Era berean, ohikoak dira aire girotuko aparatuek sortutako arazoei buruzko salaketak, baita aireztapen-sistema eskasek eta keak eta usainak ebakutzeko sistema eskasek sortutakoei buruzkoak ere, batez ere jatetxeetakoek.

Instituzio honek askotan adierazi du udalek balio gutxiegi ematen dietela establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko funtzioei eta, sarritan, ez dietela jartzen arreta nahikoa, eta ez dituztela bideratzen behar bezain beste neurri material eta humano, haien kudeaketa egokiak hori eskatzen badu ere.

Hasiera batean egiaztatzen bada lokal bateko intsonorizazioa egokia dela, baina egiaztapena egin eta gero alboko etxebizitzetara eragiten dieten eragozpenek jarraitzen badute, ez da erraza establezimendu horiek kontrolatzea, urte hauetan adierazi dugunez. Gehienetan, bistakoa da zaratak musika-kateekin daudela lotuta zuzenean, eta tresna horiek erabiltzen dituen pertsonaren jarrerarekin. Horrexegatik, beharrezkoa da salatzea dena gertatzen ari denean, eraginpean dauden bizilagunek udal agintaritzari jakinaraztea, eta ikuskatzeko bisita *in situ* egitea udalak.

Asko dira oraindik ere instituzio honetara jotzen duten herritarrak salatzeke Udaltzaingoak ez dituela beren deiak erantzuten eta, Ertzaintzaren polizia-etxearekin harremanetan jartzen direnean, jakinarazten zaiela horrelako ikuskatzeak udalaren eskumena direla eta, beraz, ezin dutela esku hartu.

Beharrezkoa da administrazio lokala jarrera erabakigarria hartzen hastea berehala, arazo horiek konpontzeko. Arazoak eraginpean dauden bizilagunen bizi-kalitatearen gaineko eragin zuzena dute. Beraz, udalek beharrezkoak diren bitartekoak hartu behar dituzte ikuskatu eta kontrolatzeko lana egiteko; indarrean dagoen legeriaren arabera, beren eskumena delako.

Gai horrekin lotuta, ezin ditugu ahaztu Justizia Auzitegien azken erabakiak. Izan ere, erabaki horietan adierazi dute etxebizitzan gertatzen diren jasotze akustikoek (eragozpenak sortzen dituztenek) EKko 15 eta 18.1 eta 2. artikuluek urratzen dituztela. Artikulu horiek honakoa bermatzen dute: bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea (15. art.), norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea (18.1. art.) eta bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea (18.2. art.). Alde horretatik, erabaki horiek zehaztu egiten dute administrazioak zein eginbehar duen horrelako instalazioek era egokian funtzionatzen dutela kontrolatzeko. Hain zuzen ere, jarduerak irauten duen bitartean kontrolatu behar ditu, aipatutako eskubideak urratzen ez direla bermatzeko.

Bestalde, kutsadura atmosferikoak eta akustikoak sortutako kalteengatik jaso ditugun salaketak aipatu behar ditugu. Kutsadura hori industria-jarduerak sortutakoa da. Esate baterako, 24 orduetan lan egiten duten galdaketa-enpresek sortutako eragozpenengatik jaso diren salaketak aipatu ditzakegu. 24 orduetan lan egiteak larriagotu egiten ditu enpresa horiek inguruan bizi direnengan sortzen dituzten bistako eragozpenak, batez ere gauez.

Erreklamazio horietan ikusi dugunez, gaur egun asko dira oraindik ere nahitazeko baimenak eduki gabe funtzionatzen duten industria-instalazioak. Baimena beharrezkoa dela agintzen dute otsailaren 6ko 38/1975 Legeak, Giro Atmosferikoa Babesteari

buruzkoa, eta 3/1998 Legeak, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra.

Enpresaren funtzionamenduak eragin kaltegarriak sortzea ahalbidetzen du edo eragozpenen eta traben sortzailea izan daiteke, eta horrek baldintzatu egiten du jarduera horiek baimenen erregimen espezifiko baten menpe jartzea. Horrela, jarduera normala neurri zorrotzagoen menpe jartzen da, interes orokorra babesteko helburuarekin. Kasu honetan, interes hori kalitatezko ingurumena edukitzeko eskubidearekin lotuta dago, bai eta kutsakorrak izan daitezkeen instalazio horien inguruan bizi diren pertsonen osasunarekin ere.

Horrexegatik, instituzio hau arduratuta dago, aztertu diren kasu gehienetan administrazioek ez dutelako ia kontrolik egiten instalazio horien funtzionamenduaren gainean. Ez da egiten aurretiazko kontrolik nahitaezko baimenik ez duten bitartean, eta funtzionamenduaren kontrolik ere ez da egiten. Kontsultatu diren udalek esandakoaren arabera, ez dituztelako beharrezkoak diren baliabideak horretarako eskatzen diren egiaztapen teknikoak egiteko.

Alde horretatik, adierazi dezakegu udal administrazioak instalazio bat egoera klandestinoan dagoela jakin bezain laster, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko, hau da, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorreko 65. artikuluan aurreikusitako prozedura aktibatzen dela, eta instalazioaren titularrari eskatzen zaiola instalazioa legeztauzeko. Horrelako instalazioen egoerari buruzko informazioa eragozpenak jasaten dituzten udalerriko bizilagunek egindako salaketa edo erreklamazioen bitartez izaten ditu udalak oro har. Hala ere, egiaztatu da hasitako prozedurak atzeratuz doazela, bai instalazioaren titularrak ez duelako erantzuten, bai eskatutako dokumentazioa ez delako aurkezten eta, horregatik, eskakizun bat egiten da beste baten ondoren.

Udal asko gaindituta ikusten dira hasitako legeztauzte-espeditenteak bideratzeko, eta ez dira gai aurreikusitako zigor-prozedurei hasiera emateko. Inguruneari eta kalteak jasaten dituzten bizilagunen eskubideei begirune gutxi dieten jokabideekin eta jarduteekin amaitzeko helburuarekin daude aurreikusita zigor horiek.

Beharbada industria horiek erabakigarriak dira udalaren ekonomiarako, baina ez da ahaztu behar atmosfera kutsatzen duten gaien sortzaile garrantzitsua ere badirela.

Arrazoi horregatik, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoko mekanismo egokiak antolatzea kutsatzaileak izan daitezkeen jardueren kontrolerako eta haien jarraipena egiteko sistemak erabili daitezen, hain zuzen ere, otsailaren 6ko 833/75 Dekretuak ezartzen ditu sistema horiek. Gainera, aplikatu behar den arautegiak zehaztu egiten du instalazio horiei kontrol bat egin behar zaiela aurretik; eta gero, etengabeko kontrola egin behar zaiela, instalazioak ezarrita dauden emisio-parametroetara edo mailetara egokituta dauden egiaztatuzeko.

Horrekin lotuta, industrien titularrari behartu egin behar zaie beren neurtzeko sistemak edukitzera. Izan ere, sistema horiek beharrezkoak dira zenbait substantzia etengabe edo aldizka zaintzeko. Horrez gain, neurketak errazteko behar diren bitarteko teknikoak ere eduki behar dituzte. Neurketa horiek eskumena duten agintaritzek ere egin behar dituzte aldizka, ofizios eta, salaketak egonez gero, salaketa horien harira.

Horrekin guztiarekin, airearen eta ingurunearen kalitate-maila bermatu nahi da, hain zuzen ere, pertsonaren eta ingurumenaren osasunerako onartzekoak ez diren arriskurik ekarriko ez duen kalitate-maila.

Bestalde, ekitaldi honetan nabarmentzekoak dira halaber instituzio honetan jasotako kexa hauek: Txingudi ingururako pentsatuta dagoen hiri-hondakinak errausteko instalazio baten proiektuarekin lotutako kexak. Joan den ekitaldian ere proiektu horren gainean esku hartzeko eskatu zigun medikuen kolektibo batek. Baina 2005. urtean beste bi kolektibo gehiagok idatzi dituzte kexak proiektu hori onartzeko prozeduran inplikaturik dauden agintaritzaren publikoen jardueren kontra. Bietako batek adierazi du Hendaiako herritarrek parte hartzeko biderik ez dagoela, herri horren gaineko eragina baitu mugaz gaindiko proiektu horrek; bestea, berriz, ingurumeneko arautegia betetzeari buruzko hainbat auzi aipatu ditu, bereziki ingurumeneko erabakiak hartzerakoan herritarrek duten parte-hartzeari eragiten dioten Erkidegoko arauak aipatu ditu.

Pertsonen osasunerako eskubidearekin eta ingurumen egokirako eskubidearekin lotuta daude erreklamazioak egin dituztenetako batzuek eman dituzten arrazoiak, eta espediente bakarrean batu ditugu erreklamazio horiek guztiak. Gai horri buruzko gure esku-hartzea ez da amaitu –inplikaturik dauden alderdien ekarpen gehiagoren zain gauden–, baina gure jarrera orokorra aditzera eman dugu dagoeneko, horrelako garrantzia duen ingurumen-erabaki bati dagokionez. Erabakia honakoei igorritako dokumentu batean adierazi dugu: proiektuaren ekimenean, baimenean eta betearazpenean parte hartu duten administrazioei (Txingudiko Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) zein erreklamazioak egin dituzten hiru kolektiboek. Agiri horretan xehetasunez aztertu genuen Europako Erkidegoko arautegia, eta prozedurari buruzko geure proposamenak eta iritziak aipatu genituen. Hausnarketa proposatu genuen hiri-hondakinaren kudeaketa eraginkorra eta ingurumen egokirako eta pertsonen osasunerako eskubideak bateragarri egiteari buruz.

Zentzu horretan, ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den hondakinaren kudeatzeko eredu sortzeko beharra gogoratzen da, eta, horrez gain, Europako instituzioek ezarritako printzipioen hierarkia errespetatuko duena. Honako printzipioak izango dira beteko dituenak, ordenan: prebentzioa, jatorrian murriztea, berrerabilpena, balorizazioa eta, amaitzeko, ezabatzea gutxienean ingurumen-eraginarekin.

Horrez gain, dokumentuan defendatzen da egin nahi den edozein proiektu berri demokraziaren asmo handiko nozioaren barruan egon behar dela, herritarrei ahotsa eta eragina izateko benetako gaitasuna emango diena, hartzaile nagusiak direlako. Hori dela-eta, gai honi buruzko eztabaida zabala hastea komeni den galdetzen da. Eztabaida horretan, ingurumena babesteko gobernuaren kanpoko erakundeek parte hartuko lukete, eta gizarteak erabakietan era eraginkorrean parte hartzeko bideak ezarriko litateke. Gainera, eragina izango du eraiki nahi dugun etorkizuneko gizarte-eredua antolatzeko orduan, beraz, epe luzera begira dago pentsatuta.

Halaber, publikoak parte hartzeko organoak sortzea proposatzen da, azkenean aukuratuko den hondakinaren tratatzeko eta ezabatzeko proiektu zehatzaren betearazpenaren eta funtzionamenduaren jarraipena egiteko organoak hain zuzen. Horren helburua herritarren-gana informazioa etengabe heltzea da, osasunaren eta ingurumenaren gainean proiektuak izan dezakeen eraginari buruzko gizartearen benetako kontrol eraginkorra ahalbidetzeko.

Amaitzeko, jasotako kexak aipatu behar ditugu; gai hauekin lotutako eragozpenen ondorioz egin dituzte kexa horiek: trenbideetako zirkulazioa, gauez bide publikoan lanak egitea, jarduera zinegetikoak, eta, horiez gain, sailkatutako jardueren funtzionamenduen ondorioz jasotako kexa ohikoak eta jakinak. Jarraian azalduko diren kexen azalpenen artean kasu horietako batzuk sartu ditugu.



## 9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Sailkatutako jarduerak bizilekuetarako lurzoruan

⇒ *Eragozpenak kafe-antzokia den establezimendu baten ateari etengabe zabalik edukitzeak sortutako zaratengatik (668/2004)*

- Erreklamazioa

Barakaldoko bizilagun batek salatu egin zituen bizilekuan jasaten zituen eragozpenak, zaratak sortutakoak. Horren arrazoia zen etxe aurrean zuen kafe-antzoki batera sartzeko atea ez zegoela modu egokian jarrita.

Zehazki, interesatuak jakinarazi zuen establezimendu horretara sartzeko eta handik irteteko atari txiki bat erabiltzen zela. Bi atek osatzen zuten atari hori; lehenengoa kaletik atarira sartzeko zen eta, bigarrena, barrutik atarira sartzeko. Biak ziren ate gidaridunak eta paraleloan zeuden jarrita. Asteburuetan jende asko joaten zenez, sartzeko ateari zabalik egoten ziren etengabe eta, hortaz, musika kanpora irteten zen inolako kontrolik gabe, eta eragozpen larriak eragiten zituen gaueko ordu txikitara arte. Halaber, adierazi zuen establezimenduak behin eta berriro ez zuela betetzen jarduera hori ixteko ordutegia.

Amaitzeko, adierazi zuen gai hori Barakaldoko udalari jakinarazi ziola hainbat alditan eta neurri egokiak hartzeko eskatu zuela zaratak sortutako eragozpenei aurre egiteko. Hori egin zuen arren, aditzera eman zuen ez zela inolako neurririk hartu horrekin lotuta eta, gainera, nabarmendu zuen udalak honelako argudioekin erantzun ziola: ez zekitela zein ezaugarri bete behar zituen kafe-antzoki batek.

- Azterketa

Erreklamazioa egin duenak adierazitakoa ikusita, Barakaldoko Udalari informazioa eskatzea erabaki genuen, jarduera Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritakoarekin bat ote zeterren egiaztatzeko, eta, bereziki, jakiteko ea jarduera horretara sartzeko ateari era egokian jarrita zeuden. Horrez gain, zaratak sortutako eragozpenei aurre egiteko udal erakunde horrek hartuko zituen neurriei buruzko informazio nahikoa igortzeko ere eskatu zen, neurriren bat hartzea pentsatuta bazuten.

Deserosoak, osasunaren kalterakoak, kaltegarriak eta arriskutsuak diren jardueri aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak onartzen ditu Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, eta Dekretu horren 1. Sekzioko 2. Kapituluko 3.2.3. atalak zehazten du zelari jarri behar diren horrelako establezimenduetara sartzeko ateari. Hauxe da esaten duena:

*“Soiua kanpora ateratzea ekiditeko helburuarekin, nahitaezkoa izango da itxiera automatikoa duen ate bikoitza jartzea; haizeaz babesteko ataria eratuko da, beraz; ateari itxita egon beharko dira etengabe eta, ahal izanez gero, plano elkarzutetan”.*

Horrez gain, udal administrazioari eskatu genion jakinarazi diezagun ea zigor-espediterik hasi bazen establezimenduaren titularraren aurka, arau ezarritako ixteko ordua behin eta berriro ez betetzeagatik.

Instituzio honi bidali zion lehen txostenean, Barakaldoko Udalak haxe adierazi zigon: aipatutako establezimenduak ixteko ordua betetzen ez zuelako hainbat salaketa egin baziren ere, ez zen hasi inolako zigor-espedienterik; izan ere, udaleko zerbitzu teknikoek egindako Ikuskatze Aktetan frogatu zenez, egiaztatutako kasu guztietan zehaztutako legezko epearen barruan uzten zuten bezeroek establezimendua.

Edozelan ere, ez zitzaigun eman inolako informaziorik jarduera horretara sartzeko atearen kokapen egokiari edo ezegokiari buruz.

Arrazoi hori dela-eta, hainbat informazio-eskaera egin behar izan genituen, eta Barakaldoko Udalarari eskatu genion oraindik argitzeko zeuden auziei buruzko informazio nahikoa emateko.

Azkenean, ikuskatzeko bisita egokiak egin ostean, jakinarazi zigon udaleko zerbitzu teknikoek txosten bat egin zutela. Honakoa zioen txosten horrek: *“lokala onartutako proiektu teknikoarekin bat dator, baita espedientearen tramitazioan ezarritako neurri zuzentzaileekin ere. Halaber, egiaztatu egin da establezimenduak haizeaz babesteko ataria duela, itxiera automatikoko ate bikoitzarekin, 171/1985 Dekretuan ezarritakoaren arabera”*.

- Emaiza

Gure jarduera amaitu genuen, eman ziguten informazioari jarraituz, eta aztertzen ari ginen jardueran ez zelako inolako irregulartasun juridikorik ikusi.

⇒ *Ostalaritzako establezimendu batek sistematikoki ez betetzea ixteko ordua (865/2004)*

- Erreklamazioa

Donostiako bizilagun batek instituzio honetan salaketa jarri zuen, bere ustez udal hori pasiboa eta permisiboa zelako taberna batek ixteko ordutegia sistematikoki ez betetzearen aurrean. Taberna hori bere bizilekuaren azpikoa da.

Zehazki, interesatuak adierazi zuen ez zela hartu inolako neurririk, udalean hainbeste salaketa aurkeztu bazituen ere. Salaketa hori ixteko ordutegia behin eta berriro ez zelako betetzen jarri zuen, eta ohikoa zelako lokalaren kanpoaldean edariak kontsumitzea. Kontsumo hori goizaldeko ordu txikietara arte luzatzen zen.

- Azterketa

Interesatuak kexan azaldu zuen arazoari aurre egiteko, Donostiako Udalarari informazioa eskatzea erabaki genuen, erakunde lokal horrek hartu zituen segimendurako eta kontrolerako neurriak zein ziren jakiteko. Halaber, arauz ezarritako ordutegia ez betetzeagatik hasitako zigor-espedientei buruzko informazioa emateko eskatu genuen, horrelako espedienterik hasi baldin bazen.

Gure eskaerari emandako erantzunean, Jardueren Zerbitzuetako Buruak adierazi zigon 2004. urteko irailera arte 20 zigor-espediente tramitatu zirela jarduera horren titularraren kontra, ixteko ordua ez zuelako betetzen. Arau-hauste horiek arintzat kalifikatu ziren; hortaz, udalak diru-zigorra jarri zion lokalaren titularrari.

Hala ere, Arartekoaren instituzioak egokitzat jo zuen Udalbatza horri beste idazki bat igortzea. Udal horrek zituen betebeharrak eta erantzukizunak gogorarazi zitzaizkion

udalari idazki horretan, hau da, sailkatutako jarduerak zaintzeko eta kontrolatzeko funtzioarekin zituen betebeharrak eta erantzukizunak.

Donostiako Udalak 2004. urtean egin zuen jarduera-kopuru handiak agerian uzten zuen, alde batetik, establezimenduak ixteko ordutegia ez betetzea ez zela noizbehinkakoa, alderantziz, ohikoa zen; bestetik, erakusten zuen udalak egindako esku-hartzeak ez zuela lortu titularrak bere jokabidea alboratzea.

Sailkatutako jardueren funtzionamenduarekin lotutako arazoak konplexuak dira, eta onartu egin behar dugu instituzio honek inolaz ere ez duela nahi izan hori kontuan hartu gabe utzi. Sortzen ari diren arazoei erantzuteko Donostiako Udala bere gain hartzen ari den ahalegin pertsonal eta tekniko handia ere kontuan hartu dugu. Horri buruzko balioespen positiboa erakunde lokal horri ere jakinarazi zaio.

Hala ere, kekek tramitatzera, Arartekoaren instituzioak ikusi izan du arau-hausleari irabazi handiak ekartzen dizkiola araua ez betetzeak eta, horrelakorik egonez gero, zigorra ordaintzeak. Irabazi horiek handiagoak dira alboko eraikinetan bizi diren pertsonen eskubideak gutxi errespetatzen dituzten jokabideak eta jarduteak aldatzearekin lortuko lituzkeenak baino.

Era intuitiboan, uste oso hori izan zuen legegileak, eta azaroaren 10eko 4/1995 Legean idatzi zuen, hau da, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerari buruzko Legean, 36.2 artikuluan hain zuzen. Agindu horrek hauxe dio:

*“Arau-hauslearentzat arauak haustea arauak betetzea baino onuragarriagoa izatea saihesteko, jarriko den zigor ekonomikoa lortuko diren legez kanpoko irabazien zenbatekoarekin handitu ahal izango da”.*

Ingurumenerako eskubidea bermatzea agintaritzaren ardura da, eta aldarrikatuta dago Konstituzioaren 45. artikuluan zein jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerari buruzko 4/1995 Legeko 8. artikuluan.

Hori dela-eta, hasitako zigor-espedituentzako ikusita, jasota utzi behar genuen honakoen arteko aldea: Udaltza horren jarduerak izan duen emaitza eta jendaurreko ikuskizunei eta jolas jarduerari buruzko 4/1995 Legeak aurreikusten duena, baita abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuak aurreikusten duena ere. Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas jardueretarako ordutegiak ezartzen ditu dekretu horrek, baita jarduera horiekin lotutako bestelako alderdiak ere, Euskal Autonomia Erkidegorako. Arau horiek lizentzia edo baimena emateko eskumena duen administrazioari agintzen diote ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zigor-erregimena aplikatzeko ardura.

Zehazki, 296/1997 Dekretuko 14.2 artikulua dio ordutegi-arauak haustea arau-hauste arintzat tipifikatuko dela, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerari buruzko 4/1995 Legeko 34.g) artikulua araberak. Beraz, berrehun mila pezetarainoko isunekin zigortu ahal izango dira.

Hori bai, 296/1997 Dekretuak berak, 14. artikulua horren beraren 3. atalean hauxe zehazten du: *“Urtebete baino lehenago hirugarren arau-hauste bat eginez gero, aipatutako legearen 33 n) atalean ezarritakoarekin bat etorritik, larri gisa tipifikatuko da, eta honako zigorrak izango ditu: berrehun mila eta bat pezetatik bost milioi pezetarainoko isuna, jarduera edo jarduerak etetea gehienez ere urtebetean, lokala ixtea gehienez ere urtebetean eta jarduera hori egiteko desgaitasun gehienez ere sei hilabetean. Zigor horiek modu alternatiboan aplikatu ahal izango dira edo metagarriak izan daitezke”.*

296/1997 Dekretuko 14. artikuluko hirugarren atalean ondorioztatzen denez, urte berean araua hirugarren aldiz ez betetzearen aurrean, araua hauste larrizat tipifikatzea ez da administrazioak aukeratu dezakeen ahalmen bat, baizik eta aginduzko izaeraz ezartzen zaio administrazioari: "izango ditu". Bestalde, adierazi behar da dekretuaren agindu horrek egiten duen gauza bakarra hauxe zehaztea dela: jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen Legeko 33.n) artikulua aurreikusten duen erregimen orokorra. Horren arabera, urte berean bi falta arin baino gehiago egitea arau-hauste larrizat hartzen da.

Erakunde lokal horrek emandako datuetan ikusi zitekeenez, 2004. urtean, gutxienez, 20 zigor arin metatu zituen taberna horrek ixteko ordutegia ez betetze-agatik.

Datua zein bistakoa zen ikusita, udalari eskatu genion arazoaren garrantziarekin bat datorren esku-hartzea egiteko.

- Emaiza

Denbora asko igaro da, eta Donostiako Udalari hainbat eskaera egin dizkiogu. Hala ere, nabarmendu egin behar da txosten hau amaitzeko unean, kasua behin betiko ebaztearen zain gaudela, udala zein neurri hartzen ari den jakiteko.

⇒ *Taberna baten jarduerak sortutako irregulartasunak (145/2005)*

- Erreklamazioa

Etxebarriko bizilagun batek erreklamazio bat aurkeztu zuen instituzio honetan. Erreklamazio horretan pub baten funtzionamenduak sortutako ustezko irregulartasunak salatu zituen; puba bere eraikinaren behealdean zegoen.

Jarduera 2002. urtean hasi zen, eta interesatuak adierazi zuenez, ordutik bizilagunek behin eta berriro salatu zituzten bizilekuetan jasaten zituzten eragozpen larriak, lokala ez zegoelako akustikoki ondo isolatuta. Etxebarriko Udalean eta Bizkaiko Foru Aldundian jarri zituzten salaketak.

Halaber, salaketa-egileak adierazi zuenez, inplikaturako administrazioek hainbat aldiz esku hartu zuten eta lokala berritzeko lanak egin ziren, aurkitu ziren hutsune larriak konpontzeko, baina, hala ere, zaratek sortutako eragozpenak ez ziren amaitu, eta ez zirudien hobekuntzarik egon zenik.

Amaitzeko, pertsona horrek berak jarduerari buruzko dokumentazio zabala ere eskuratu zigun. Besteak beste, lokalean egindako hainbat soinu-neurketa zeuden agiri horien artean. Neurketok Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta eta jardueraren titularrak eskatuta egin ziren. Neurketa horiek datu kontraesankorrak erakusten zituzten lokalaren isolamendu akustikoaren mailari buruz. Hauxe zioten:

- 2003. urteko apirilean neurketa bat egin zen, Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) eskatuta. Neurketa horren arabera, lokalean lortu zen aireko zarataren isolamenduaren indizea 61 dB (A) zen.
- Bigarren neurketa ere Aldundi horrek sustatu zuen, eta 2003. urteko urrian egin zen. Neurketa horren arabera, lokalak zuen aireko zaraten isolamendu akustikoaren indizea 54 dB (A) zen.

- Hirugarren neurketa establezimenduaren titularrak egin zuen, 2003. urteko azaroan. Neurketa horren arabera, lortu zen aireko zarataren isolamendu akustikoaren indizea 63,3 dB(A) zen.

- Azterketa

Nolanahi ere, neurketetan eskuratu ziren emaitzak Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzen duen 65dB(a)-ko neurketatik urrun zeuden. Indize hori II. taldeko establezimenduetarako eskatzen du, talde horretakoa baitzen jarduera hori, erreklamazioa egin zuenak emandako dokumentuetan egiaztatu ahal izan genuenez.

Halaber, 2004ko otsailaren 25ean egin zuen azken txostena Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak eta, txosten horretan zehazten zenez, lokalaren aireko zarataren isolamendu globalaren indizea 65,3 dB (A) zen goiko pisuan zeuden etxebizitzetako batekiko.

Hori dela-eta, erreklamazioa jarri zuenak emandako dokumentazioa era zehatzean aztertu zen eta, horren ostean, instituzio honek egoki ikusi zuen Bizkaiko Foru Aldundiari informazioa eskatzea. Horren bitartez jakin nahi zen ea zein jarduera egin zituen Aldundiak establezimenduak zuen isolamendu akustikoa 65 dB(A) baino handiagoa zela ondorioztatzeko.

Egindako eskaerari erantzunez, eskatutako txostena igorri zigun Bizkaiko Foru Aldundiak. Txosten horretan zerrendatuta zeuden establezimendu horrekin lotuta egin ziren jarduera guztiak.

Txostenean ikusi genuenez, hasiera batean irregulartasun asko aurkitu ziren lokalaren funtzionamenduan, baina, geroago, jarduera legeztatu zen, otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitako prozeduraren arabera, hau da, Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorrak aurreikusitakoaren arabera. Horren guztiaren helburua jarduera hori indarrean dagoen legeriak ezarritako parametroetara bideratzea zen.

Aldundiak emandako informazioaren arabera, hasieran jarduera hori III. taldeko pub gisa hasi zen lanean. Hala ere, egindako neurketen bitartez, ikusi zen jarduera horrek zuen isolamendu akustikoaren maila ez zela nahikoa establezimenduak III. taldeko pub gisa funtzionatzeko. Arrazoi horregatik, berrikuntzak egin ziren lokalaren barrualdean.

Ordea, 70 dB(A)-ko isolamendu akustikoa lortu arte ezin zen lokala intsonorizatu –horixe zen gutxieneko isolamendua jarduerak pub moduan jarraitzeko– eta, horregatik, aldundiko zerbitzu teknikoek jardueraren titularrari proposatu zioten kalifikazioa alda zezan. Izan ere, bazuen isolamendu akustiko nahikoa II. taldeko taberna gisa funtzionatzeko.

Aipatu dugun foru-txosten horrekin batera, Aldundiak lokalean egin zen azken neurketa ere bidali zion instituzio honi, 2003. urteko abenduan egin zena. Txosten horretan ikus zitekeen establezimenduak zuen intsonorizazioa 65,3 dB(A) zela, 2004. urteko otsailean egindako foru-txostenean ezarritakoarekin bat zetorren isolamendumaila, beraz.

Bestalde, azken Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzen ote ziren egiaztatzeko beharrezkoa zen ikuskatze teknikoak egin zuen Etxebarriko Udalak, eta irekitzeko baimena eman zion establezimenduari. Taberna gisa irekitzeko baimena eman zion, hau da, II. taldeko jarduera gisa, eta talde horrek dituen ordutegi- eta jarduera-mugekin.

- Emaiza

Gure esku-hartzea amaitu genuen, jarduera horri egin zaion jarraipena ikusi ostean, eta indarrean dagoen legeriarekin guztiz bat zetorrela ikusita.

⇒ *Keak eta gasak isurtzea, ostalaritzako establezimendu baten sukaldean aurkitu ziren hutsengatik (1158/2005)*

- Erreklamazioa

Bilboko hainbat bizilagunek Arartekoak esku hartzeko eskatu zuten, ke eta usainen etengabeko isurpena jasaten zutelako beren etxebizitzetan. Taberna-jarduera bateko sukaldeak era irregularrean funtzionatzen zuelako gertatzen zen hori, beren bizilekuaren behaldez baitzegoen taberna hori.

Erreklamazioa egin zutenek adierazitakoaren arabera, Bilboko Udalean jarri zuten lehen salaketa, gutxi gorabehera 2003ko uztailean, eta udaleko zerbitzu teknikoek ikuskatzeko bisita egokia egin zuten. Egindako erregistroan lortutako emaitzak kontuan hartuz, udaleko arduradunek jardueraren titularrari exijitu zioten neurri zuzentzaile hauek hartzeko: kanpai erauzgailua aldatzea, keen irteera kanalizatzea fatxadaraino, irteera hori tabernaren sabai gainean amaitzen baitzen, eta, amaitzeko, keen irteerako haizagailua aldatzea.

Hala ere, erreklamazioa egin zutenek adierazitakoaren arabera, neurri horiek hartu zirela ematen zuen arren, ez ziren arindu bizilekuetan jasaten zituzten eragozpenak. Izan ere, behin eta berriro esaten zutenenez, lokal horretako sukaldean jarri zen haizagailuak ez zuen inolako eraginik.

Horren guztiaren ondorioz, kexa sustatu zutenek beste salaketa bat egin zuten Bilboko Udalean. Horren bitartez, udaleko zerbitzu teknikoak hauxe begiratzera joatea nahi zuten: lokal horretan jarritako haizagailua ondo jarrita ote zegoen. Baina, azpimarratu zutenenez, udal administrazioak ez zien inolako erantzunik eman.

Jasaten ari ziren eragozpen larriei behin betiko irtenbidea aurkitzeko helburuarekin, eraginpean zeuden bizilagunek erabaki zuten enpresa pribatu birekin kontsultatuko zutela bizitzen ari ziren egoera, hartu zitzaizketen neurriei buruz aholkuak eman diezazkioten. Profesional biak egon ziren ados honako puntuetan:

- *“Kanpai erauzgailuaren irteeraren eta fatxadarako jarraipenaren arteko lotura koipez estalita zegoen eta, beraz, lotura horretatik kea irteten da oraindik ere sabairantz.*
- *Sukaldea gainerakoarekin banatzen duen trenkada ez da sabairaino iristen. Sukaldean tranpol bat dago zabalik, eta hortik usain eta ke guztiak igarotzen dira; gero igotzen jarraitzen dute gure zorura iritsi arte”.*

Irregularitasun horiek ikusita, kexen sustatzaileak beste behin kexatu ziren Bilboko Udalean. Egin zituzten jarduera guztiak azaldu, eta udaleko zerbitzu teknikoek eskatu zieten ikuskatzeko zegokien bisita egiteko, salatu ziren hutsuneak egiaztatzeko. Hala ere, salaketa horiek jarri zirenetik denbora asko igaro bazen ere, egoerak irtenbide barik jarraitzen zuen.

- Azterketa

Kexaren sustatzaileek jarduera asko egin zituzten, emaitza onik lortu gabe eta, hori kontuan hartuta, erakunde honek Bilboko Udalari informazioa eskatzea erabaki zuen. Udaleko zerbitzu teknikoei eskatu zitzaizen ikuskatzeko bisita egin zezaten, kexaren sustatzaileek egin zituzten alegazioak egiaztatzeko, eta, horrez gain, eskuratutako emaitzen arabera, egokitzat jotzen zuten irtenbidea erabakitzeko.

Eskaera horri erantzunez, udalaren txostena igorri zigun Bilboko Udalak. Txosten horretan adierazten denez, kexaren sustatzaileek aipatutako hutsuneak egiaztatu zirenean, establezimendu horren sukaldea erabiltzea debekatzen zuen udalaren erabakia dekretatu zen. Gainera, jakinarazi zen zigor-espeditente bat hasi zela, indarrean dagoen ingurumen-arautegia hausteagatik.

- Emaiza

Geure esku-hartzea amaitu dugu, Bilboko Udalak emandako erantzuna ikusita, aipatutako jarduerak sortutako hutsuneak konpondu direla ematen duelako.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Legar-hobi baten ustiatagia ixteko espeditentearen tramitazioan aurkitu diren irregulartasunak (1316/2003)*

- Erreklamazioa

2003. urtearen amaieran, erreklamazio bat jaso genuen. Gasteizko Gardelegi inguruan dagoen legar-hobien ustiakuntza bat ixteko espeditentearen tramitazioan egon diren ustezko irregulartasunak salatzen zituen erreklamazio horrek.

- Azterketa

Kexa-idazkiaren edukari jarraituz, eta harekin batera aurkeztutako dokumentazioari jarraituz, egiaztatu ahal izan zen 2003ko ekainaren 25eko Dekretuaren bidez udal agintaritzak ukatu egin zuela ustiakuntzaren arduradunek eskatu zuten jarduteko baimena, aurkeztu zen proiektu teknikoa ez zetorrelako bat baimendutako erabilera-ekin, Gasteizko Udalaren Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorreko aurreikuspenen arabera.

Uztail amaieran, jarduera berriro funtzionatzen ari zela jakin zenean, Udalak erabakia eman zuen, 2003ko abuztuaren 7an; hain zuzen ere, legar-hobien jarduera zigilatzea erabaki zuen, behin-behineko neurri gisa, bai eta ixteko espeditentea hasia eta jarduera etetea ere.

Hala ere, 2003ko abuztuaren 25ean emandako Dekretu bidez, jardueraren gaineko behin-behineko zigilatzea bertan behera uztea erabaki zen.

Instituzio hau harrিতa dago neurri hori hartu zelako, kontuan hartuta jarduerarako baimena ukatu egin zela, hortaz, argi zegoen legeztatu ezin zitekeen jarduera bat zela. Alde horretatik, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 65-b) artikulua ezarritakoa betez, tokiko agintaritzak egin zezakeen gauza bakarra instalazioa itxi zezaten dekretatzea zen, interesatuarekin entzute bat egin ostean.

Azaldutakoari buruzko informazioa eskatu zitzaion Udalari, eta jarduera noiz itxi zen galdetu zitzaion, eta eraginpean dagoen ingurunean egin ziren betetze-lanen gainean egin ziren ingurumen-kontrolerako jardueri buruzko informazioa ere eskatu zitzaion.

Eskaera horri erantzunez, Gasteizko Udalak informazio hau igorri zigun: egia da Gardelegin legar-hobien jarduerarako baimena ukatu zela, Udaleko Teknikariak egindako txostenari jarraituz. Txosten horrek zioen eskaera egin zuen jarduerak ekoizpeneko erabilera industrial xehatua osatzen zuela. Horrez gain, txosten horren arabera, lursailak Lurzoru Urbanizagarriko Ekipamendu sailkapena zuen, Gasteizko Udalaren Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorren barruan. Horrexegatik, lurzoru horretan debekatuta zeuden ekoizpenerako erabilerak.

Hori dela-eta, ixteko prozedura hasi zen, eta jardueraren titularrari entzutea eman zitzaion. Hala ere, jakinarazitakoaren arabera, 2003ko abuztuaren 19an, instalazioaren titularrak behin-behineko neurria bertan behera uzteko eskatu zuen, hau da, jarduera zigilatze hartu zen erabakia bertan behera uzteko. Izan ere, titularraren iritziz, jarduerak ez zuen urgentziarik ezta eragozpenik ere sortzen. Halaber, eraginpean zegoen ingurunea berehala betetzeko konpromisoa hartu zuen.

Horrekin lotuta, erabakitako zigilatzea bertan behera uztearen aldeko txostena egin zuen Udaleko Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Zerbitzuak, 2003ko abuztuaren 22an. Hori proposatzeko, kontuan hartu zuen jarduerak Eusko Jaurlaritzaren baimena zuela eta enpresak eraginpean zegoen ingurunea landare-lurrez betetzeko konpromisoa hartu zuela. Hori dela-eta, behin-behineko neurria bertan behera uztea erabaki zen, 2003ko abuztuaren 25eko Dekretu bidez.

Azkenean, 2003ko irailaren 3an, Ingurumen Saileko Zinegotzi-Ordezkarriak jarduera hori ixtea eta etetea dekretatu zuen, eta titularrari eskatu zion eraginpean zegoen ingurunea landare-lurrez betetzeko. Udaltzaingoaren Zerbitzuek itxi zuten zerbitzua, 2003ko urriaren 7an.

Eraginpean zegoen ingurunea landare-lurrez betetzen zela bermatzeko udalak egin zituen jardueri dagokienez, udalaren txostenak honakoa zioen:

*“2003ko azaroaren 10ean, Udalaren Zerbitzu Teknikoek egiaztapen-bisita bat egin zuten, eta hauxe izan zen zerbitzuon txostena:*

*“Legar-hobia era partzialean bete da, eta horretarako eraispenetatik eskuratutako obra-hondakinak erabili dira, besteak beste. Aipatutako betetze-lan hori udalaren baimenaren arabera izan beharko da, eta inolaz ere ezingo da erabili obra-hondakinik betetzeko material gisa”.*

*2003ko abenduaren 1ean, aipatutako enpresari agindu zitzaion betetzela geratzeko eta betetze-lan horretan erabilitako materiala berehala kentzeko handik, eskaera jasotzen zuen unetik aurrera. Halaber, hila-beteko epean eraginpean zegoen ingurunea landare-lurrez betetzeko eskatu zitzaion, horretarako beharrezkoa zuen udal baimena jaso eta gero, azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuko 12, 13 eta 14. artikuluetan ezarritakoaren arabera.*

*2004ko otsailaren 4an, (...)k luzapen bat eskatu zuen, 2003ko abenduaren 1ean egin zitzaion eskakizuna betetzeko. Titularrak egin zuen eskaera hori ez da onartu. Hala ere, 2004ko otsailaren 10ean eta martxoaren 30ean*



*ikuskatzeko bisita bi egin ziren eta, horren ostean, Udalaren Zerbitzu Teknikoek adierazi zuten leku hori honakoekin betetzen ari zirela: indusketetako lurrekin eta hainbat jatorriko materialekin, besteak beste, obra-hondakinekin, hormigo-blokeekin, hodiekin, etab.*

*Horren ondorioz, 2004ko apirilaren 1ean zigor-espedita bat hasi zitzaion (...)ri, 2003ko abenduaren 1eko Dekretua ez zuelako bete. Arau-haustea LARRItzat hartu zen, EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorreko 109 a) artikuluaekin lotutako 110. artikulua arabera.*

*Halaber, ebazpena eraginkorra izango dela bermatzeko behin-behineko neurri gisa, betetze-lanetarako erabilitako materiala HANDIK KENTZEA agindu da, eta hamabost eguneko epea eman zaio enpresari lan hori egiteko”.*

- Emaizta

Aipatutako udalaren txostena ikusita, Gasteizko Udalarengana jo zuen berriro Ararteko honek. Lehenengo eta behin, adierazi zion ez zuela zalantzan jartzen udalek nahitaezko baimenak emateko edo ukatzeko zuten eskumena, hirigintza-arduren titular nagusiak zirelako. Horrek ez du kentzen jarduera horiek funtzionatzeko, beste erakunde edo administrazio-organo batzuen menpe dauden baimenak edo autorizazioak beharrezkoak izatea.

Gure iritziz, argi geratu behar zen prozedura-independentziako erregimenean jarduten dutela bai udal agintaritzak zein meatzaritza-administrazioak, eta bakoitzak esku hartzeko eskumen propioak dituela. Meatzaritza-administrazioaren ardura Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokio geure Autonomia Erkidegoan.

Gainera, Plangintza eta Hirigintzaren Kudeaketarako Arkitektoak egindako txostena aipatu behar genuela iruditu zitzaigun. Txosten hori 2003ko uztailaren 22an egin zuen, eta udaleko ingurumen arloak egindako eskaerari erantzuten zion. Eskaera honakoari buruzkoa zen: garapeneko plangintza betearazteko aurreikuspenei buruzkoa, eta behin-behineko baimen baten aukerak betearazpen hori zaildu ahal izateari buruzkoa. Horrela, jardueraren titularrak jarritako berraztertze errekurtsoa ebatzi nahi zen, errekurtso horretan jarduera hori egiteko behin-behineko baimena eskatu baitzuen.

Honakoa zioen Udal Arkitektoaren txostenak:

*“Lehen atalari dagokionez; 19. sektore hori garatuko duen Plan Partziala laster egingo da. Konpentsazio Batzordearen estatutuak eta oinarriek hasierako onarpena dute 2003ko urtarriletik, eta idazteaz arduratzen ari diren Udaleko teknikariek hainbat bilera egin dituzte horri buruz. Plan Partzialaren idazketa aurreratuta dago.*

*Bigarren atalari dagokionez; jarduera hori egiteak plangintzaren garapenaren gaineko eragina izango luke, bai: fisikoki, topografia aldatuko lukeelako eta, horren ondorioz, lurzorua gaineko etorkizuneko jarduera aldatuko lukeelako. Ekonomikoki ere, konpentsazio-proiektuan balioesteko dagoen ondasun baten gainean jarduten delako.*

Txostenaren ondorioa hauxe zen: *“plangintzaren idazketa aurreratuta dagoenez, ez da jotzen egokitzen 19. sektoreko Lurzoru Urbanizagarrian jarduera hori egitea”.*

Arrazoi hori dela-eta, 2003ko abuztuaren 7an, Ingurumen Saileko Zinegotzi-Ordezkariek erabakia adierazi zuen, eta bertan ebatzi zen jarduera zigilatu behar zela eta instalazioa ixteko eta eteteko espedientea hasi behar zela.

Hori guztia ikusita, 2003ko abuztuaren 25eko ebazpena, hau da, 2003ko abuztuaren 7an hartutako behin-behineko neurria bertan behera uztea erabaki zuena, 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 58.2. artikulua ezarritakoaren kontra zihola ondorioztatu genuen, baita lurzoruaren erregimenari eta balorizazioei buruzko maiatzaren 13ko 6/1998 Legeko 17. artikulua ere. Izan ere, lursail batean plangintza **berehala** garatzekotan dagoenean, ezin da baimenik eman behin-behineko erabilera baterako, 2003ko uztailaren 22an Udal Arkitektoak egindako txostenean zehazten denez.

Edozelan ere, udalak egoera hori konpondu zuen 2003ko irailaren 3an, dekretu bidez hartutako erabakiaren bitartez, bistakoa baitzen egoeraren hirigintza-irregulartasuna. Dekretu horrek legar-hobien jarduera behin betiko ixtea eta etetea ebatzi zuen, eta jarduera horren titularrari eskatu zion eraginpean zegoen ingurunea landare-lurrez betetzeko, inguru horren jatorrizko egoera berreskuratzeko.

Bestalde, enpresa titularrak behin eta berriro ez du bete udal agintaritzak egindako eskakizuna, hau da, lursaila landare-lurrez ez du bete. Horrekin lotuta, zigor-espedientearen ebazpenaren kopia bat eskatu genuen, eta eraginpean zegoen ingurunearen lehengoratzeari buruzko informazioa emateko eskatu genuen.

Azken eskaera horri erantzunez, Gasteizko Udalak zalantzan jarritako enpresari hasitako zigor-espedientearen ebazpenaren kopia bat eman zigun. Espediente hori 2003ko abenduaren 1eko Dekretua ez betetzeagatik hasi zitzaion, eta egiaztatu ahal izan genuen 24.040 euroko isunarekin zigortu zutela enpresa.

Espedientearen tramitazioaren puntu honetara iritsita, Udalbatza horri jakinarazi genion amaitutzat jotzen genituela kasu honetan esku hartzeko genituen aukerak, baina, hala ere, aditzera eman genion Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dugun txosten honetan instituzio honek adierazi egingo zituela gai horretako administrazio-jardueran ikusi diren irregulartasunak.

### C) Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk

⇒ *Eragozpenak trenbideetako zirkulazioak sortutako karrankengatik (403/2005)*

- Erreklamazioa

Instituzio honek kexa-idazki bat jaso zuen, eta idazki horretan Eusko Trenen trenek sortzen zituzten karranka desatseginak salatu ziren. Karranka horiek Lugaritzeko tunelerako sarreran eta irteeran entzuten ziren, Donostiako udalerrian.

- Azterketa

Eusko Trenen Zuzendaritzari egin genion eskaerari erantzunez, jakinarazi ziguten karrankaren zarata ohikoa dela trenbideetako zirkulazioan, erradio txikia duten bihurtugetan. Trenen gurpilek ez dutenez diferentzialik, bihurtugetan luzera txikiagoa duen

erraila zeharkatzen duten gurpilak (hari bajua) alboz arrastatzen dira, eta horrek zarata desatsegina eragiten du.

Jakinarazi zigutenez, une honetan, Amarako trenbide-zabaltzan erraila ureztatze-ko jarduerak egiten dira, trenen eragin akustikoak gutxitzeko. Horrez gain, hauxe ere adierazi zuten:

*“Halaber, eta jasotako kexa batzuk ikusita (Bezeroari Arreta Emateko geure Zerbitzuak erantzunda ere badaudenak), EuskoTreneko trenbideetako langileek berretsi egin dituzte Lugaritzeko tunelera sartzeko bihurgunean karranken zaratak sortutako arazoak, hau da, zuk zeure idazkian aipatutako arazoak.*

*Alde horretatik, orain dela egun batzuetatik hona, geure Ingurumeneko saila hainbat jarduera koordinatzen ari da –geure trenbideetako langileekin eta kanpoko enpreekin–. Jarduera horien bitartez, Lugaritzeko tunelera sartzeko bihurgunean dauden eragin akustiko deseroso horiek gutxitu nahi dira, ahal den neurrian.*

*Zehazki, jarduera hauek egiten ari gara gai horrekin lotuta:*

*Azterketa akustikoa, trenbide bietan jarri behar diren ureztatze-sistemen kopurua eta banaketa zehazteko.*

*Sistema automatiko bat instalatzea, trenak pasatzen ari direnean tren horiek detektatzeko eta erraila ureztatzeko.*

*Lugaritzeko tunelean sobera dagoen ur freatikoa kanalizatzea, erraila ureztatzeko erabiltzeko.*

*Jarduera horiek koordinatzen ari gara une honetan, eta datorren uztailera arte egongo gara lan horiek egiten.*

*EuskoTrenek eragozpen horiek sentitzen ditu. Eragozpenok jarraitu egingo dute aipatutako jarduerak amaitu arte”.*

- Emaidza

Interesatuari Eusko Trenek egindako txostena igorri zitzaion eta, horren bitartez, gai honen gaineko geure esku-hartzea amaitu zen.

⇒ *Jarduera zinegetiko bat egiten den inguruneetan bizi diren pertsonak jasaten dituzten eragozpenak (536/2005)*

- Erreklamazioa

Astigarragako Santiagomendi (Amaña) inguruan bizi diren herritarren talde batek instituzio honetara jo zuen. Hain zuzen ere, esku hartzeko eskatu ziguten ingurune horretan dagoen arazoari aurre egiteko. Arazoa da aipatutako lekuan jarduera zinegetikoa egiten dela.

Arazoari dagokionez, adierazi zuten Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu zituzten lehen erreklamazioak zirela-eta, aldundiak beharrezkoa ikusi zuela baimendutako ehi-zarako lerroa aldatzea, hau da, 2003ko irailaren 9ko Foru Aginduak onartutako lerroa

aldatzea. Horrek hainbat posturi eragin zien, zehazki, 18, 19, 20 eta 21. postuei (lehengo zerrendatzean 38, 39, 40 eta 41. postuak). Horrenbestez, ehizarako lerroa ekialderantz mugitu zen, eta eraginpean zeuden bideetatik eta etxebizitzetatik urrundu zen.

Horrekin lotuta, egiaztatu ahal izan genuenez, Basanimalien Unitateko Buruak eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zerbitzuko Buruak txostena egin zuten, erreklamazioa egin zutenek igorritako idazkiei erantzuteko. Hauxe zioen txosten horrek: *“...Beraz, gure iritziz, hobekuntza handia egin da ehiza-lerroan, Amañako eremuan gatazkak saihesteko. Hala ere, uste dugu arazoaren zati handi bat baimendutako postuetatik kanpo dauden ehiztariek sortuko dutela, segurtasun-eremuak errespetatzen ez dituzten ehiztariek hain zuzen. Arazo hori ekiditeko, beharrezkoa izango da ehiza-epean zaintza handitzea, eta baimendutako postuetan bakarrik ehizatu dadin zaintza”*.

Interesatuek eskaera egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundian, aipatutako lekua segurtasuneko eremu gisa sailkatzeko aukera pentsatu zedin, ehizari buruzko apirilaren 4ko 1/1970 Legeko 13. artikulua arabera. Horrekin lotuta, zerbitzu horietako buruek hauxe adierazi dute: *“...aztertu beharreko proposamena dela uste dugu, beraz, lerroa aldatzeak dituen emaitzak ikusi bezain laster kontuan hartuko da eta aztertu egingo da”*.

Zerbitzuetako buruek hori adierazi bazuten ere, interesatuek esan zuten ehiza-lerroetan aldaketak egin eta gero, jarduera zinegetiko horrek inguruko herritarren bizitzan sortzen zituen arazoak ia ez zirela aldatu. Horrez gain, jarduera hori behin eta berriro salatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundian, baina, hala ere, interesatuen arabera, ez zuten inolako erantzunik jaso egindako salaketa horien gainean.

- Azterketa

Adierazitako terminoetan instituzio honek egin zuen eskaerari erantzunez, aipatutako foru erakundeak txosten hau igorri zigun:

*“Txosten hau 2005eko maiatzaren 16an Arartekoak igorritako idazkiari erantzuteko egin da. Idazki hori (...) aurkeztutako kexari buruzkoa zen, hau da, Astigarragako Santiagomendi (Amaña) inguruneko ehizaren arazoari buruzkoa.*

*2004. urteko abuztuan, 2003ko irailaren 9ko Foru Aginduak baimendu zituen postu tradizionalan ehiza-denboraldia hasi baino lehenago, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzan jasotako idazkiak ikusita eta Santiagomendiko eremuko ehizaren egoera aztertuta, beharrezkoa ikusi zen pasatzeko lerro tradizionala aldatzea, hau da, Foru Aginduak baimentzen zuen lerroa aldatzea, horretarako 4 postu mugituta. Aldaketa hori idazkiak igorri zituztenei jakinarazi zitzaizen, baita Ehiza Federazioari ere, aplikatu zezaten.*

*Hain zuzen 2004ko denboraldian, Santiagomendiko pasatzeko lerro tradizionalan, mugitutako postuetan ehizatu zen dagoeneko, eta ez zen arazo berririk izan, ahoz egin ziren kexa batzuk salbu. Kexa horietan adierazi zen ehiztariak egon zirela postuetatik kanpo; beraz, irailaren 9ko Foru Agindua betetzen ez zuten ehiztariak egon ziren, hau da, postuak baino 500 metro aurrerago eta 120 metro atzerago ehizatzeo debekua ez zutenak betetzen.*

*Kontrapasaren denboraldian ere postuak leku horietan egon ziren. Hala ere, lerroa kudeatzeaz arduratzen den ehiza-elkarteak izandako, zalantzarik gabe, gaizki-ulertu baten ondorioz, aurretik mugitu ziren postuetako bi jarri ziren, eta horrek 2005eko apirilaren 20ko idazkia ekarri du. Datorren denboraldirako, arazo hori konpondu egingo dela uste dugu, lehenago aipatutako aldaketan mugitu ziren postuak baino ez direlako baimenduko.*

*Segurtasun-eremu gisa sailkatzeari dagokionez, berriro diogu proposamen hori aztertu egin behar dela, lerroaren aldaketak dituen emaitzak ikusi bezain laster.*

*Argitu egin behar dugu lekua segurtasun-eremu gisa sailkatzeak ez lukeela ekarriko ehizarako postuak kentzea. Izan ere, sailkapen hori duten eremuetan gertatzen den bezala, 2003ko irailaren 9ko Foru Aginduak baimendutako postu tradizionaletan ehizatzea baimenduta egongo litzateke.*

*Nolanahi ere, erakunde publiko batek eskaera arrazoitua eginez gero eman ahal zaio sailkapen hori eremu bati. Sailkapena ofizioz egiten denean, Zerbitzuari eta Erakundeari eta eraginpean dauden jabeei entzun ostean egingo da. Gipuzkoan, leku bati segurtasun-eremuaren sailkapena ematea beti egin da erakunde publiko batek eskaera arrazoitua egin ostean.*

*Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, Astigarragako Santiagomendi (Amaña) inguruneko ehizaren arazoa hainbat neurri aplikatuta jorratu behar dela uste dugu. Esate baterako, dagoeneko hartu diren neurriak: lerroa aldatzea eta ehiztariak zaintzea lerroaz kanpo, eta, horren ostean, segurtasun-eremu bat jartzeko beharra aztertzea, Astigarragako Udalaren laguntzarekin, eremuko arazoak ez badira konpontzen”:*

Arrazoi hori dela-eta, Arartekoak egokitzat jo zuen Udal horretara jotzea. Gainera, instituzio honek jakin duenez, Udaltzara horrek informazio zehatzagoa zuen jarduera zinegetikoak eremu horretan sortzen zituen arazoei buruz. Arartekoak laguntza eskatu zion udalari, eta Udaltzarak Gipuzkoako Foru Aldundira jotzeko aukerari buruzko adierazpena egitea ere eskatu zitzaion, jakiteko ea aldundian eskatuko bazuen Santiagomendin segurtasun-eremua dekretatzea.

- **Emaitza**

Astigarragako Udalak jakinarazi zigun eskaera hori Gipuzkoako Foru Aldundira igorri zutela dagoeneko, Udalaren Gobernu Batzordean honakoa erabaki ostean: Santiagomendi eremua segurtasun-eremu gisa sailkatu dezaten eskatzeko aukera.

Administrazio biei jakinarazi genien geure esku-hartzea amaitu genuela, segurtasun-eremua jartzea zehazteko prozedura egokia jarraitu zela uste genuelako.

⇒ *Udalak ez jardutea bide publikoan kontzertuak egiteak sortutako zaraten eragozpenen aurrean (850/2005)*

- **Erreklamazioa**

Donostiako bizilagun batek salaketa egin zuen, gaez egiten ziren zenbait erromeri eta jairen ondorioz hiri horretako Amara auzoko bizilagun askok jasaten zituzten

eragozpenengatik. Salaketak zioenez, arazo horiek ez ziren konpontzen eta larriago bihurtzen ziren, Udalak babesik gabe uzten zituelako herritarrak.

Kexaren sustatzaileak adierazi zuenez, Prebostes plazan erromeria bat egin zenean, urte honetako ekainaren 18aren (larunbata) eta 19aren (igandea) artean, zarata gehiegi zegoenez, Udaltzaingoa deitu zuen, bere etxebizitzan zegoen soinu-maila neurtu zezaten. Udaltzaingoko agenteek adierazi ziotenez, garai batetik hona horrelako eskaerei ez erantzuteko goiko aginduak zituzten.

Interesatuak instituzio honetara jo zuen, bere ustez ezinbestekoa baitzen soinu-neurketa hori egitea, erromeriaren antolatzaileei zigor-espeditentea hasteko. Horrez gain, adierazi zuen, edozelan ere, ezezko horrek babesik gabe uzten zuela herritarra eta zigorrak gabe uzten zituela ustez zigortzekoak ziren jarduerak, esaterako, bere kexan agertzen zena.

#### • Azterketa

Gai horrekin lotuta, instituzio honek egin zuen azterketa juridikoan egiaztatu zenez, zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udal jarduerari buruzko 2000ko Ordenantza Erregulatzaileko 3. artikulua haxe uzten du bere aplikazio-esparrutik kanpo, aldi baterako eta leku batzuetarako: interes publikoa eta soziala duten ekitaldi ofizialak, kulturalak, jaietakoak, erlijiosoak, etab., eta edonolako jai tradizionalak direla-eta egiten diren ikuskizun eta jolas-jarduera guztiek berariazko arautzea izango dute.

Hala ere, agindu horrek berak ezartzen duenez, salbuespen horrek Udalaren berariazko baimena izan beharko du. Udalak jarduera egiteko epea, ordutegia eta ingurumen-eragina gutxienekoa izateko egoki ikusten dituen bestelako baldintzak zehaztu beharko ditu ematen duen baimenean.

Gainera, “Donostiako auzoetako jai-batzordeetarako funtzionamendu-arauetako” 7. atalak zehaztu egiten du hori, eta adierazten du edozelan ere “*auzoaren berezitasun fisikoak eta hirigintzakoak*” kontuan hartuko direla. Arau horiek Donostiako Udalak igorri zizkigun. Horrez gain, arau horiek zehazten dutenez, eraginpean dagoen auzo bakoitzean haxe egin ahal izango da: “interesatuekin erromerien, kontzertuen eta bestelako instalazioen bolumen akustikoa mugatzea adostu, antolatzaileen interesen eta inguruko bizilagunen interesen arteko oreka handiagoa lortzeko helburuarekin”.

Orain arte esandakoa ikusita, Arartekoak ulertu zuen aipatutako Udal Ordenantzak aurreikusitako salbuespenerako eskumena kasu bakoitzean erabili behar zela, unean uneko egoeraren arabera, eta bizilagunentzako eragozpenak saihesteko beharrezko neurriak eskura edukitzeko udalaren ahalmenarengan eragin gabe. Beraz, mugak nahitaezko baimenean berariaz eta arrazoizkoa den eran doitu ostean, muga horiek ondo betetzen direla ere zaindu beharko litzateke.

#### • Emaiza

Donostiako Udalak onartu egin zituen instituzio honen iritzia, eta Bide Publikoetako Ordezkararen ebazpenaren bitartez, haxe erabaki zuen:

1. Kexaren sustatzaileak adierazitakoari buruzko txosten bat egiteko eskatuko zaio Udaltzaingoiari, bere eskumenekoak diren arloetan. Pertsona horrek Udalean aurkeztutako instantziaren kopia sartu beharko da txostenean, eta txosten hori zuzenean bidali beharko zaio interesatuari.

2. Udal erakundeekin auzoetako jaien mintzaidea denez, Kultur eta Turismo Ekintzetxeari honetarako premiatuko zaio: tramitatutako eskaerak dituen dokumentazioan aldez aurretik sartu beharko ditu ezinbestean honakoa betetzeko salbuespena edukitzeko eskaera zehatzak, 3 eta 4. ataletako 3. artikulua aplikatzeko: zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udal jarduerari buruzko Ordenantza Erregulatzaila. Hain zuzen ere, data horretatik aurrera eta Ordezkaritza horri dagozkion jaien baimenen eskaerak direla-eta egin beharko du hori Ekintzetxeak. Eskaera horretan jaiak egingo zituen auzo bakoitzaren berezitasun fisikoak eta hirigintzakoak zehazteko beharra pentsatu zen. Horretarako, auzoetako jai-batzordeekin egindako batzarretan zehaztu behar zen erromerien, kontzertuen eta egin behar ziren emankizunen bolumen akustikoaren mugatzea, antolatzaileen interesen eta inguruko bizilagunen interesen arteko oreka handiagoa lortzeko. Horregatik, zaratak mugatzeko proposamen zehatz bat egiteko premiatu zen, zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udal jarduerari buruzko Ordenantza Erregulatzailaren erregimen orokorra ordezkatzeko (I. eranskinean dago). Horretarako, beharrezkoa zen aldez aurretik honakoa lortzea eta honen ekarpena egitea: Udal honetako Hirigintza eta Ingurumeneko Zuzendaritzaren txosten arrazoitua, indarrean dagoen Ordenantzari egokitzeko. Horrez gain, Prebostes plazaren alternatibarik bazegoen aztertzeko eskatu zen, Amara Berriko jaiak egiteko.
3. Hirigintza eta Ingurumeneko Zuzendaritzari eskatuko zaio honakoari buruzko berariazko txostena egiteko: zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udal jarduerari buruzko Ordenantza Erregulatzailaren betetze-maila, auzoetako jaietarako eta hiriko jaietarako erregimen berezi posible batekin lotuta; zehazki, Ordenantza horretako I. eranskinaren ordezkari aplikatu beharko litzatekeen erregimenari buruzkoa izango da txostena.
4. Amaitzeko, ebazpenaren aurreko ataletako salaketaren sustatzaileari jakinaraziko zaio, eta esango zaio auzoetako jaiak amaitzeko gehienezko ordutegiak Eusko Jaurlaritzaren 296/1997 Dekretuan ezarritakoak direla. Halaber, zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udal jarduerari buruzko Ordenantza Erregulatzailaren I. eranskinaren ordezkari zaratak mugatzeko balizko beste erregimen bat onartu arte, kexaren sustatzaileari jakinarazi zitzaion Amari Berriko eta hiriko auzo guztietako jaietarako zaratak mugatzeko erregimena Ordenantzaren I. eranskina izan zela, haren 3. artikulua arabera.

## 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

### 10.1. SARRERA

Arlo honek herri administrazioek burutzen dituzten herri zerbitzu ezberdinak emateari buruzko erreklamazioak barne hartzen ditu, toki eremuan eragin berezia izanda, kuantitatiboki eremu horretan agertzen baitira kexa gehienak. Herri lanei dagokienez, agertzen diren kontuen eraginak udalei ere eragiten die neurri handian, nahiz eta Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren azpiegitura proiektuak onetsi eta burutzeari buruz jasotako kexek garrantzi kualitatiboa daukaten eragindako pertsonen kopurua kontuan hartuta.

Alde kuantitatiboan, herri lan eta herri zerbitzuen arloak 160 kexa bideratzea ekarri du (aurkeztutako erreklamazio guztien % 14,64).

Eragindako administrazioak honela banatzen dira:

-Toki administrazioa .....	134
-Foru administrazioa .....	27
-Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	13

Azpiarloko, aldiz, honela:

-Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	43
-Kontratazio erregimena, ondarea eta Administrazioaren erantzukizuna .....	39
-Tokiko herri zerbitzuak .....	24
-Obrak burutzea .....	13
-Obra proiektuak .....	9
-Garraioak .....	9
-Nahitaezko desjabetzea .....	6
-Beste alde batzuk .....	6
-Bestelako herri zerbitzuak .....	5
-Landa-bideak .....	4
-Irisgarritasuna .....	2

### Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

Ekitaldi honetan **erroldatzetik** ondorioztatutako kontuak oso garrantzitsuak izan dira, atzerritarren Espainiako eskubideei eta askatasunei eta haien gizartertzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onesten duen abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuan ezarritako atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesuaren esparruan.



Pertsona horien egoera normalizatu ahal izateko beharrezko betekizunetako bat 2004ko abuztuaren 8aren aurretik erroldan inskribatuta egotea zen. Hala ere, egun horren aurretik lurraldean bizi baziren ere, atzerritar asko biztanleen udal erroldan inskribatuta ez zeudela kontuan hartuta, alta lehenetsiaren aukera eratu zen, betiere dokumentuen bidez eta EInko lehendakariak eta Toki Lankidetzako zuzendari nagusiak batera emandako irizpide eta jarraibideen arabera, modu fede-emailean egiazta bazezaketen egun horretarako hemen zeudela.

Horrek guztiak erakunde honen hainbat jarduera ekarri ditu, besteak beste, pasa den urteko apirilko Gomendio Orokorra –Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei zuzenduta zegoena– eta segimendurako ofiziozko hainbat jardun, atzerritarren normalizazio juridikoko prozesuan erroldatze-ziurtagiriak egin eta emateari dagokionez udalek zeukaten jokaera ezagutzeko. Kontu hori zehatzago landuko da atzerritarren problematikaren berriazko arretaren atalean.

Aurretik aipatutako kasuez gain, oraindik ere kexa asko jasotzen ditugu **biztanleen udal erroldan** alta ematea ukatzeagatik edo aldaketen kudeaketako prozedurari buruzko beste kontu batzuegatik. Kexen laburpenen atalean alta behar ez bezala emateagatik prozedura luzatzearen adibide bat bilduko dugu (770/2005).

Askotan erroldan izena emateko ukoa legez eskatzen diren bizigarritasun-baldintzak dituen eraikinik ez egoteagatik sortzen da. Horrela, jasotako kexa batzuetan etxebizitzaren lege-izaera ez duten ibilgailu, lokal edo beste eraikuntza batzuetan erroldatzea ukatu izana agertzen zen.

Aurreko ekitaldietan bezala, kontu hori azpimarratu behar dugu, erroldatzea herritarren eskubideak eta betebeharrak –giza baliabideak, osasuna, hezkuntza eta abar eskuratzea, bozkatzeko eskubidea gauzatzea, etxebizitza-sustapenetan parte hartzea, etab.– gauzatzeko oso garrantzitsua da eta. 1986ko uztailaren 11ko Toki Entitateen Mugaketa eta Biztanleriaren Araudia aldatzen duen abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren 54.1 artikulua xedatzen du Espainian bizi den pertsona orok bizi den udalerriko biztanle erroldan egon behar duela erroldatuta.

Udal errolden eguneratzeari dagokionez udalei agindu teknikoak emateko 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 4. atalak honakoa adierazten du: *“erroldak udalerriko herritar guztien benetako bizilekua zein den islatu behar du. Errealitate hori gertatzen den bakoitzean erroldan jaso behar da. Erroldan izena emateak eta etxebizitzaren titulartasunari buruzko auzi juridiko-pribatuek zerikusirik ez duten bezala, gauza bera gertatzen da etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin.”*

Ebazpenak honela jarraitzen du: *“Ondorioz, infraetxeek (txabolak, karabanak, kobazuloak, etab., bai eta inolako bizileku motarik ez edukitzea) bizileku baliagarritzat hartu ahal dira eta hartu behar dira erroldan, batzuetan errealitatea horixe delako”.*

Emandako aginduei esker egiaztatuenez, egoitza eta etxe kontzeptuak modu orokorrean ulertu behar dira, etxebizitza batek bizigarritasun-baldintzarik ez izatea edo inolako bizileku motarik ez edukitzea ezin direla izan eskaera bat ukatzeko arrazoiak. Udalek biztanleen errolda kudeatzeko duten ahalmena eskatzailea bere udalerrian benetan bizi dela egiaztatzen zuzendu behar da, horixe baita legean oinarrituta erroldatzea uka lezakeen arrazoi bakarra.

Nolanahi ere, azpimarratu behar dugu erroldatzea ukatzeko, administrazio-ekintzen lege-betekizun guztiak aipatzen dituen idazki arrazoitua bidali behar dela. Horri dago-kionez, batzuetan udalaren jarrera arrazoituaren berri ematen duen ebazpen formalik ez dagoela egiaztatu dugu, eta horrela, prozedura administratiboaren funtsezko arauak hausten dira, horrek guztiak eragindakoak babesik gabe geratzea dakarrela.

Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute **informazioa** eskuratzeko. Azken batean, gero eta hobeto dakite zeintzuk diren beren eskubideak, eta horregatik, herri administrazioen eginkizunen gardentasun handiagoa eskatzen dute, bai berariazko prozedura batean interesdunak izanda zuzenean eragiten dieten erabakiei buruz, bai beren ustez eragiten dieten beste jarduera batzuei buruz.

Alde horretatik, gomendio orokorren atalean informaziorako eskubideari buruzko gomendio bat sartu dugu, herritarrek beren erakundeetan parte hartzeko beharrezkoak diren aldeetako bat den aldetik. Izan ere, informazioa behar bezala eskuratu ezin duen herritarrik gabe, oso zaila izango da –eta beharbada ezinezkoa– herri gaietan haien laguntza eskuratzeko.

Azkenik, aipatu behar da azken ekitaldiaren amaieran gertatu zen legedi berritasun bat. **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari** buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeaz ari gara: 2004ko abenduaren 16an –abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.koa-indarrean sartu bazen ere, ez zen aipatu aurreko memorian. Lege horrek lehengo Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak esleituta zituen eginkizunak aldatzen ditu, bere jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrera, haren mendeko erakundeetara eta Euskal Herriko Unibertsitatera mugatzen zela.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridiko berria Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen kide anitzeko organo goren aholku-emailea da, Toki administrazioa osatzen duten organoak eta erakundeak adierazi eta bere jarduera-eremuan sartzen dituen eta horrela unera arte toki erakundeek Estatu Kontseiluaren aurrean bideratu behar zituzten kontsulta jarduerak burutuko dituen.

Horrela, beste eskumen batzuen artean, azpimarratu behar da administrazio ekintza eta xedapenak ofizioz berrikusi behar direnean kontsultatzeko eskumenaren garrantzia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. artikuluan ezarrita dagoena, funtzionamendu eta prozedura administratiboaren atalari eragiteagatik.

## **Kontratazio erregimena, ondarea eta Administrazioaren erantzukizuna**

Toki erakundeen ondarearen kudeaketak herri ondasunen helburuagatik eta lizitazioarako erabilitako prozeduragatik kezkatuta zeuden herritarren kearen bat ekarri du ekitaldi honetan. Izan ere, pertsona horiek zalantzan jartzen zuten kritikoki administrazioek zenbait eragiketatan herri ondasunen defentsan ordezkatzeko duten herri interesa behar bezala babestu duten efikazia eta eraginkortasun irizpideei jarraiki.

Esate baterako, Karrantza Haraneko auzoko batek adierazten zuen ez zegoela ados, Udalak udal jabetzako orube bat besterendu zuelako etxebizitza libreak eraikitzeko etorkizuneko obraren trukearen bidez eta inolako lehiarik sustatu gabe (792/2005).

Toki erakundeen ondasunak besterentzea arautzen duen berariazko araua apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua –80. artikulua– eta Ondasunen

Araudia –ekainaren 13ko 1372/1986 ED– dira, azkenak gai hori landu zuela bere 112. artikuluan. Arau horiek ezartzen dute ondare ondasunak enkante publikoaren bidez besterenduko direla, horiek prestatu eta esleitzeari dagokionean kontratazioa arautzen duen araudia aplikatuko dela.

Arauk beste higiezin ondasun batzuekin trukatzea ahalbidetzen du, salbuespen gisa, trukea egin beharra egiaztatzen duen espedientea aurkeztu ondoren, eta trukatu nahi diren ondasunen arteko balio-aldea ezin dela izan ondasun garestienaren % 40tik gorakoa. Nolanahi ere, espedientearen komenigarritasuna ez ezik, trukatu beharra ere behar bezala justifikatuta agertu behar dira, hau da, salbuespenezko kasu horretara jotzeko Administrazioak dituen arrazoiak.

Bestalde, Lurzoru Ondare Publikoen ekainaren 29ko 20/1998 Legeak zuzeneko salmenta baimentzen du erabilera eta kasu zehatz batzuetarako –10. artikulua–, sistema hori ezin dela erabili hirugarrenei besterentzeko, nahiz eta salmentaren produktua lurzoruaren udal ondarearen helburuetarako erabili.

Arlo horri dagokionez, Administrazioaren kontratazioari eragiten dion testuinguru orokorra eta administrazio ezberdinek beren jarduera burutzeko jarraitu behar dituzten printzipioak gogoratu behar ditugu. Horrela, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onartu zuen eta herri administrazio guztiei aplikatu behar zaien ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 11. artikulua xedatzen du kontratuak publizitate eta lehia printzipioei lotuko zaizkiela –Legeak ezarritako salbuespenak izan ezik–, eta betiere berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioei.

Kontratazio espedienteetako berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipio horri lotuta, Ezkio-Itxasoko auzoko baten erreklamazioa aipatuko dugu: emakume horrek adierazten zuen ez zegoela ados, Udala udal etxebizitza bat besterentzeko prozedura bideratzen ari zen moduarekin, lizitazioan parte hartzeko baldintzak eta proposamenak baloratzeko irizpideak behar bezala mugatuta ez zeuden eta. Azkenean, Udalak espediente ondoriorik gabe utzi eta agertutako aldeak kontuan hartuko zituen baldintza agiri berria onartzeko egin genuen proposamena onartu zuen (611/2005).

Aurreko ekitaldietan bezala, herri administrazioen **ondare erantzukizunak** kexa-gai izaten jarraitzen du. Horri dagokion epigrafean kexa baten laburpena erantsi dugu: horretan ondare erantzukizunagatiko espedientearen emaitza hirigintza kontuekin baldintzatu nahi zen, nahiz eta kontu horiek zerikusirik ez zeukaten eragindako pertsonak jasandako kalteak saneamendu-sare publikoa apurtu izanari egozteko aukerarekin (ikus 996/2002 kexaren laburpena).

Lehen aipatu dugun Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak ere bere jarduera eremuan sartutako herri administrazioen funtzionamenduari eragingo dio, ondare erantzukizunari buruzko erreklamazio guztiek hartu beharreko eabazpenaren aurreko irizpena behar dutelako, eskatutako kopurua 6.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean.

Nolanahi ere, espero dugu derrigorrezko izapide horrek aparteko eraginik ez izatea erakunde honetan kexak aurkezten dituzten pertsonak askotan agertzen dituzten kontuetako batean: mota horretako espedienteak ebazteko ematen den denbora luze-gia (621/2004; 265/2005), Herri Administrazioen ondare erantzukizunaren arloko prozeduren Araudia onartzen duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 13.3 artikuluan ezarritako sei hilabeteko epea nabarmen luzatzen dela.

## Herri zerbitzuak

Ekitaldi honetan, azpiarlo honetan aurkeztutako kexek herri zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta administrazioei beren eskumeneko hornidurak baldintza onetan bermatzeko eskatzen dute neurri handian.

Horrela, auzoko batek bere etxebizitzan jasotzen zuen ur-presio txikiagatik kexa aurkeztu zuen, **ur-hornidura** behar bezala bermatzeko eskatuta (781/2005). Arazoa konpontzeko, presio-ponpa zuen ura biltegitratzeko andela eraiki behar zen. Erreklamazio-egileak uste zuen kostu ekonomikoa altxor publikoak ordaindu behar zuela, eta udalak ezetz esaten zuen. Ura hornitzeko barneko instalazioetarako oinarriko arauak onartzen dituen 1975eko abenduaren 9ko Legeak (1976ko urtarrilaren 13ko BOE, 11. zk.koa) xedatzen du horniketa horiek altxatzeko baliabide propioa izan beharko dutela, eta horren ondorioz, interesdunari jakinarazi genion berak ordaindu behar zuela arazoaren konponketa.

2005ean kexa ez-ohiko bat konpondu da: Aramaioko auzoko bat kexatu zen Sozietate Anonimo batek **energia elektrikoa hornitzeko** ezarritako baldintzengatik; sozietate horren kapital osoa udalarena zen, eta energia elektrikoa udalerrri osoan hornitu eta banatzen zuen (ikusi 672/2004 kexaren laburpena).

Bestalde, **bide eta errepedeei** buruz oraindik jasotzen ditugun kexak ere aipa ditzakegu. Eragindakoek behin eta berriz agertzen diguten gaia administrazioak bide horietako erabiltzaileen arteko gatazken aurrean esku ez hartzea da, bidezko garbiketa lanak burutzeko zein ondare horren izaera publikoa defendatzeko. Kexen laburpenen atalean pibotez okupatutako bide bat ofizioz berreskuratzeari buruzko kasu bat jaso dugu (1282/2004).

Azkenik, Bilboko udal Erriberako Merkatuko merkatari talde batek aurkeztutako kexa aipa dezakegu: instalazioak zaharberritzeko proiektuak eragiten zien, eta unera arte indarrean zegoen kudeaketa sistema aldatu behar zen. Erreklamazio-egileek agertzen zituzten funtsezko gaitako bat merkatuan emandako postuen emakiden mugaeguneratze-eguna zehazteari buruzkoa zen, iraupen-epea zehaztu gabe eman baitziren aspaldian.

Desadostasuna hemendik ondorioztatzen zen: interesdunen ustez, aplikatu beharreko araua Toki Erakundearen Ondasunen Araudia –ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua- zen, jabari publikoko ondasunen emakida izateagatik. Izan ere, araudi horrek 99 urteko epea ezartzen du emakiden gehieneko epe gisa. Hala ere, Udalaren ustez merkatuko postuen erabilera pribatiboko emakiden epea 50 urtekoa zen, Toki Erakundearen Zerbitzuen Araudia aplikatutakoan –1955eko ekainaren 17ko Dekretua-. Txosten hau amaitu den egunean jakin dugu eragindako pertsonak gaiari buruzko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dutela. Beraz, erakunde honen funtzionamendua agintzen duten arauen arabera, gure jarduera eten egin dugu.

## Herri obrak

Proiektuen onarpenak eta herri obren burutzapenak ere hainbat erreklamazio ekarri dituzte, eta bereziki, bide-azpiegiturei eragiten dietenak aipa ditzakegu. Puntu horretan bi kexa mota aurkeztu ohi dira: alde batetik, interesdun batzuek beren burua zuzeneko

kaltetuztat jotzen dute, zirkulazio-bide berria aurreikusten denean, eta beste aldetik, beste pertsona batzuek beren burua eragindakotzat jotzen dute obrak burutzen diren bitartean, uneko lanetatik ondorioztatutako hainbat trabagatik –leherketak, arrakalak eta bestelako kalteak-.

Jasotako kexa guztietatik, Galdakaoko auzoko plataforma batek eskatuta bideratutakoa azpimarra dezakegu. Kexaren gaia A-8 autobidearen edukiera handitzeko eraikuntza-proiektua da, herrigunerako lotura berri baten burutzapena barne hartzen duena, autobidearen ibilbide berriaren mugetan eraikitako eraikinei eragingo die eta (ikusi 156/2005 kexaren laburpena).

Halaber, adierazi behar da desadostasunak egon direla udalerrri ezberdinetako herrigune finkatueta bide berriak zabaldu izanagatik. Horien artean, Donostiako Gurutze auzoan eragina izan duen inguruko bide berria zabaltzeari buruzko erreklamazioa aipa dezakegu, horrek ziur aski trafikoa biziagotuko du eta. Alde horretatik badago Barakaldoko auzoko batzuen talde batek agertutakoa ere: auzoko horiek ez daude ados auzoan bide bat eraikitzearekin, bi etxebizitza blokeren bidez lotzea aurreikusitako zen eta. Hori guztia kexa baten (237/2005) laburpen gisa jaso dugu.

## **Garraioak eta irisgarritasuna**

Norberaren ibilgailuaren ordez **garraio publikoa** benetako aukera gisa defendatzea erakunde honi bidali eta arlo honi eragiten dioten kexa askoren azpian dago. Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute beren eguneroko joan-etorriak benetan eta norberaren autoa hartu behar izan gabe egiteko aukera ematen dien garraio publikoa izateko. Herritarren asmo horrek herri administrazioen zuzeneko konpromisoa eskatzen du, garraio-linea berriak (batez ere hiriartekoak) sortu, dauden ordutegiak biztanleen beharizanetara egokitu, herri zerbitzu ezberdinak konbinatu behar direnean arrazoizko itxaron-aldiak dituzten loturak ezarri eta abar eskatzen diren neurrian. Argi dago garraio publikoa erabiltzaileek eskatzen duten mailan sustatzeak zerbitzu horien defizit handia sortuko duela, hori ezarritako gero. Eta badirudi gaur egun administrazioak ez daudela prest kostu hori beren gain hartzeko.

Nolabait berria den aldarrikapen horrekin batera, bidaian erosotasun handiagoa eskatzeari lotutako beste erreklamazio batzuk daude. Horrela, garraio publikoko zerbitzuetako erabiltzaileek adierazi digute ez daudela ados garraio-bideen barnean hari musikalak erabiltzearekin edo garraio-zerbitzuek komunik ez izatearekin, besteak beste. Nahiz eta oraindik espedientea bideratzen amaitu ez den, alde horretatik Eusko Treneko erabiltzaile batek bidali digun kexa nabarmendu nahi dugu.

Erabiltzaile horrek azaltzen du Eusko Trenek orain dela gutxi sortutako Bilbo-Hendaia eskualdeko zerbitzuan komun publikoak dituzten bagoiak erabiltzen dituela; hala ere, Bilbo eta Donostia lotzen dituzten ohiko zerbitzuetan ez dago ekipamendu hori, nahiz eta bidaiaren iraupena eskualdeko zerbitzuarena, hau da, komunak dituen trenarena, baino pixka bat laburragoa den.

Eusko Trenek adierazten du legez ez dagoela behartuta bere bagoietan komunak jartzera, ekipamendu hori ibilbide luzeetako lineetan bakarrik eska daitekeelako, enpresa publiko horrek horrelako zerbitzurik eskaintzen ez duela. Horren kalterik gabe, adierazi behar da RENFEk komun publikoak dituzten bagoiak erabiltzen dituela ibilbide laburretako

zerbitzuetarako ere, komuna erabiltzaileek eskatu eta baloratzten duten ekipamendua den aldetik. Eusko Trenen proposamenak ohiko lineetan komunak pixkanaka jartzea agertzen du. Baina unitate horiek 2009-2010eko ikasturtean abiaraziko direla aurreikusi da hasieran, gure ustez denbora-tarte luzeegia dela.

Era berean, ekitaldi honetan garraioko **irisgarritasunaren** arazoa aipatu behar dugu. Gure garraio bideek oraindik ez dituzte kendu ezgaitasunen bat duten pertsonak beren kabuz mugitzeko oztopoak. Arazo hori askotan agertu da, eta unera arte ez da erantzun egokirik aurkitu. Egia da hiri garraioaren arloan neurriak hartzen ari direla, eta hiri linea guztietan pixkanaka plataforma baxua duten autobusak gehitzen doazela, nahiz eta oraindik autobus guztiak egokitu ez diren. Egoera horrek eragozpen eta haserre larriak sortzen dizkie hiri garraio publikoa erabiltzen duten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen.

Baina arazoa gehien bat hiriarteko garraioan agertzen da, bereziki garraioa errepi-detik egiten denean. Gaur egun, mugikortasun-arazoak dituzten eta gorpil-aulkia behar duten pertsonak ezin dira sartu ibilbide horiek egiten dituzten lineetako autobusetara. Kasu onenetan aurretik esanez eta ordutegi zehatz batzuk erabiliz, linearen bat erabil dezakete. Hala ere, argi dago eskaintza mugatu hori ez dela irtenbidea.

Ez dugu ezkutatu nahi inbertsio handiak egiten ari direla eta irisgarritasun-planak burutzen ari direla, horien emaitzak laster ikustea espero dugula. Izan ere, gure asmoa ahalegin horiek bistaratzea da; dena den, arazoaren garrantzia azpimarratu behar dugu.

Egokia izango litzateke hiriarteko garraioko lineen enpresa esleipendunekin sinatutako kontratuak berrikustea, pixkanaka eta aurretik ezarritako erritmoari jarraiki ibilbideetara autobus egokituak esleitzen dituzten. Berrikuspen horiek emakidaren baldintza ekonomikoen aldaketa adierazgarriak ekartzekotan, gure ustez herri administrazioek gastu hori beren gain hartu eta ordaindu beharko lukete.

Amaitzeko eta iaz egin genuen bezala, adierazi behar dugu Metro Bilbaorekin bi erreklamazio ditugula, erantzunik jaso ez dutenak. Bata ezgaitasunen bat duten pertsonentzat prestatutako makina balio-emaileetatik pasatu beharrari buruzkoa da, eta bestea gaueko ordutegian igogailu batzuk ixteari buruzkoa.

Aurreko txostenean adierazi genuen bezala, une zehatz batean erabiltzaileak pasatzea ahalbidetzeko makina balio-emailea eskuz zabaltzeko aukera egotea erabat salbuespenekoa izan behar da, eta horren ondorioz, arazoa konpondu behar da. Metro Bilbaok mantentze-lanez arduratzen den enpresari arazoaren berri emango ziola adieraziz hartzen zuen konpromiso hutsak ez gaitu betetzen: izan ere, urtebete igaro da, eta oraindik ez dakigu egokitzapena zertan geratu den. Halaber, erakunde honek kontuan hartu behar du arazo hori zerbitzua funtzionatzen hasi bezain laster agerian jarri zela, eta Metro Bilbao enpresari atxikitako langileak ez dabiltzala geltokietatik, txartelen salmenta automatizatuta dagoelako eta enpresako langileak informazio-lehiatilen atzean daudelako.

Azaldutako bigarren kasuan ere ez da erantzunik jaso. Gogora dezagun erreklamazio horrek adierazten zuela Santutxu eta Abando geltokietako igogailuak ez dabiltzala gaueko 23:00etatik aurrera.

Metro Bilbaok ematen duen arazoia da ikuskatzailearen jarduerak igogailuak barne hartzen ez dituela, igogailuak plataforma zintzilikarira (mezzanina) heltzen direlako ikuskatzailearen beste aldetik.

Erakunde honek Metro Bilbaoren beldurrak ulertzen ditu, igogailu bat gaez ezin dela ibili ikuskapenik gabe adierazten duenean. Baina gogoratu behar dugu erakunde horri dagokiola erabiltzaile guztientzat garraio-zerbitzu egokia emateko beharrezkoak diren baliabide material, tekniko eta pertsonalez hornitzea, eta horretarako aurrekontu-autonomia osoa duela.

Argi dago mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak inolako mugaketa motarik ez duten pertsonak dituzten zerbitzuen erabilgarritasun baldintza berdinetan sartu behar direla garraio-bideetara. Horrela, pertsona batzuentzako zein besteentzako zerbitzuak ordu berean hasi eta amaitu behar dira, lineen geltoki guztietan. Horrek esan nahi du zerbitzu horiek amaitu arte, geltokietako instalazio osagarriak, igogailuak kasu, erabilgarri egon behar direla, horiek behar dituzten pertsona guztiak mugarik gabe erabil ditzaten.

Hori dela eta, Metro Bilbaori azaldu zaio laster konponbidea aurkitu beharko diola Abando eta Santutxu geltokietako igogailuetara gaueko ordutegian kanpotik sartzeko arazoari.

Kexen laburpen gisa 2003. urtean hasi eta ekitaldi honetan ebatzi den ofiziozko jarduera bat hautatu dugu. Jarduera hori hiri garraioaren irisgarritasun arazo bat konpontzeko administrazioen artean dagoen lankidetzaren erakusgarri da (ikusi 17/2003/OF laburpena).

## 10.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Irisgarritasuna

⇒ *Administrazioen arteko lankidetzak hiri garraioaren irisgarritasun arazoak ere konpontzen ditu (17/2003/OF)*

#### • Erreklamazioa

Erakunde honek jakin zuen Gasteizko hiri garraioko udal zerbitzuaren 5. linea estaltzeko atxikitako unitateek plataforma baxurik ez zutela.

Linea horrek hiria eta Gamarrako igerileku eta kirol-instalazioak lotzen ditu, eta ibilbide hori egiten zuten autobusek plataforma baxurik ez zutenez, mugikortasun txikiko pertsonen (ibiltzeko makilak behar dituzten adinekoak, gurpil-aulkian doazen pertsonak, eta seme-alabak haurrentzako karroetan eramaten dituzten gurasoak) aisia-aukerak mugatzen ari ziren.

#### • Azterketa

Erakundea Gasteizko Udalarekin jarri zen harremanetan hasieran, toki erakunde hori hiri garraio publikoko zerbitzua ematearen arduraduna da eta. Hala ere, berehala konturatu ginen arazoa ez zela konpontzen, ez zegoelako argi ibilgailu egokitu batek erabili ahal izateko egokitzapen obra jaso behar zuen errepidearen tartearen titularra nor zen.

TUVISA udal sozietate anonimoak aitortu zuen ezin zuela plataforma baxuko edo egokitutako unitaterik atxiki hiri garraioko bere zerbitzura, Duranarako errepidean

(A-3002), mintegien gunean, obrak burutzen ez ziren bitartean. Gune horretan hiri autobusek 180°-ko biraketa egin behar zuten, eta errepidearen malda eta asfalto-zoladura kontuan hartuta, plataforma baxuko autobus batek ezin zuen biraketa hori egin.

Hasieran Arabako Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailak adierazi zigun berak uste zuela eragindako tartea udal titulartasuneko errepidearen sektore bati zegokiola. Hala ere, arazoaren jatorria hobeto zehaztu eta Gasteizko Udalaren udal zerbitzuekin batera irtenbidea bilatzearen alde zegoela adierazi zuen.

Diputatuen Kontseiluaren 1995eko martxoaren 28ko 233. erabakiaren bidez, “Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, Gasteizetik ateratzen diren errepideen tarteei buruzko eskumenak berriro mugatzeko” onetsi zen. Hitzarmen hori 1995eko maiatzaren 12an sinatu zen.

Arabako Foru Aldundiak azaldu zuenez, hitzarmen horren arabera A-3002 errepideko eskumenen mugaketa 4,95 PKan ezartzen zen, bertan Ullibarri-Arrazura joateko A-3008 errepidearekiko bidegurutzea dagoela. Horrela, bidegurutze hori Arabako Foru Aldundiaren ardurapean gelditu zen. Horren arabera, gaur egungo A-3002 errepidearen (lehengo C-6213) tartea, mintegien gunean, udal eskumenekoa zen, eta horren ondorioz, Dulantzi ibaiaren gaineko zubia pasatu ondoren A-3008 errepidearekiko elkarguneraino zegoen estugunea Gasteizko Udalak hobetu behar zuen, Aldundiaren ustez.

Udalak ez zeukan iritzi berdina mugaketa horri buruz. Hori dela eta, bi administrazioek biltzea erabaki zuten, arazoari irtenbidea bilatzeko.

- Emaiza

Azkenean, Arabako Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailak Ararteko erakundeari adierazi zion bidezko azterlana eta proiektua burutu zituela, eta berehala kontratatuko zituela “A-3002 eta A-3008 errepideen elkarguneko (Eskalmendi) maldak eta peralteak egokitzeko lanak”.

Foru obra txiki hori burututa, hiri garraioa nabarmen hobetu da, eta gaur egun autobus linea horrek unitate egokituak ditu, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak Gamarrako kirol-instalazioetara hurbiltzeko aukera ematen dutenak.

## B) Landa-bideak

⇒ *Partikular batek herri bidea okupatzea (1282/2004)*

- Erreklamazioa

Lemoizko auzoko batek udalean salatu zuen herriko beste auzoko batek pibot batzuk jarri zituela titulartasun publikoko gurdibide bateko errodaduretan, eta, horren ondorioz, autoak ezin zirela bide horretatik pasatu.

Erreklamazioa ikusita, udalak prozedura hasi zuen bidea ofizios berreskuratzeko. Espediente horretan entzunaldia eman zitzaion eragindako pertsonari. Horrek adierazi zuen esku-hartzea bere lursailean egin zela, eta ez zuela eraginik ibilgailuen zirkulazioan.

Arazoa udaleko teknikariek egiaztatu zuten, eta, horren ondoren, gobernu-batzordeak erabaki zuen osoko bilkuran eztabaidatuko zela ea egokia zen espedientea bideratzen jarraitzea. Hala ere, denbora igaro zen, eta osoko bilkurak ez zuen gaiari buruzko erabakirik hartu; hortaz, herritar hori erakundearekin harremanetan jarri zen.



- Azterketa

Arartekoak txostena eskatu zion Lemoizko Udalari, eta bertan gogorarazi zion gure antolamendu juridikoak haien ondasun eta eskubideak defendatzeko beharrezko ekintzak burutu beharra ezartzen diela toki erakundeei, horretarako antolamendu juridikoak berak haien ondasun eta eskubideei buruzko oso eskumen zabalak ematen dizkiela.

Horri erantzunez, Lemoizko Udalak 2004ko ekainera arte egindako jardueren kopia bat eman zigun, baita gobernu-batzordearen 2004ko azaroko akordioaren ziurtagiria ere. Akordio horren arabera, erabakia Udalaren osoko bilkurak erabakitzeko aurkeztu zen. Udal organo horrek ez zuen gaia konpondu, eta “*gaia erabakitzeke utziko zuela, gatazka lagunartean konpontzeko asmoz*” baino ez zuen esan.

Emandako erantzuna ikusita, Ararteko erakundeak gomendio bat igorri behar izan zion udalari, gurdibidearen jabetza ofizioz berreskuratzeko hasi zen prozedura jarrai eta ebatz zezan eskatzeko. Halaber, jarduera Ondasunen Araudiaren 71. artikulua zehazten duen prozeduraren arabera jarraitu behar zela gogoratu zen.

Halaber, bideak hartzen zuen eremua lekuan bertan erabat zehaztuta ez zegoenez, bide hori era egokian zedarritzeko iradoki zen, eta lekuan bertan mugatzeko, gero Ondasun Higiezin Inbentarioan erregistratu ahal izateko.

- Emaiza

Lemoizko Udalak Arartekoari adierazi zion osoko bilkurak bidea ofizioz berreskuratzea erabaki zuela, bideko erroadura lerroaren gainean pibot batzuk jarriz okupatu zen eta. Era berean, Udalak adierazi zuen pibotak kentzeko agindua era subsidiarioan betearazi zela, jarri zituenak ez zituelako kendu epearen barruan.

### C) **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Biztanleen udal errolda zuzentzeko prozedura bideratzean atzeratzea (770/2005)*

- Erreklamazioa

Hiritar batek gure esku-hartzea eskatu zuen, Bilboko Udalak ez ziolako erantzun erregistro horretan bere etxebizitzako egoiliar gisa agertzen zen pertsona bati buruz Biztanleen Udal Erroldan zeuden datuak aldatzeko eskaerari. Emakumeak adierazi zuenaren arabera, pertsona hori ez zen inoiz bizi izan bere etxean, eraikin bereko lonja batean baizik.

Erreklamazio-egilea kexatzen zen prozedura bideratzean atzeratu zirelako justifikaziorik gabe (bere ustez), eta udal bulegoetan bere eskaera ebazteko eskatzeko hainbat gestio egitera eta eskaera berriro idatziz aurkeztera behartu zutela adierazi zuen, arrakastarik izan ez zuela.

Era berean, uste zuen Udalak argitu behar zuela zergatik gertatu zen pertsona hori bere etxean erroldatzearen okerra.

- Azterketa

Udalera jo genuen, kexa aurkeztu zuenak agertutako bi galderei buruzko informazioa emateko. Horri erantzunez, oker batengatik erreklamazio-egilearen eskaera beste

espediente bati lotu zitziola adierazi zigun. Hori dela eta, ez zen bideratu, eta ez zitzaion behar bezalako informazioa eman, udal bulegoetara gaiagatik galdetzeko joan zenean. Era berean, prozedura bideratzen hasi zela esan zuen.

Datu horiek ikusita, uste izan genuen Udalak aipatutako zirkunstantziei buruzko behar bezalako informazioa eman behar ziola interesdunari, gehiago atzeratu gabe. Era berean, prozedura amaitzeko artean falta ziren izapideei zein haien epeei buruzko informazioa ere eman behar zion. Horrela, informazio horren bidez interesdunak zuzenean jakingo zuen zein zirkunstantziak atzeratu zuten prozesua eta zeintzuk ziren prozesu horren egoera eta garapenari buruzko aurreikuspenak.

Gainera, bideratzeaz arduratzen ziren udal zerbitzuak prozesua bideratzean gogor saiatu behar zirela adierazi genion, atzerapen gehiagorik gabe amai zedin.

Erakunde honen ustez, kexa eragin zuen egoera bezalakoak berriro ez gertatzeko mekanismoak ezartzearen komenigarritasuna ere baloratu behar zuen Udalak, bai prozedura bideratzeari zegokionean, bai herritarrei prozedurari buruz emandako informazioari zegokionean. Gure ustez, eskaera bideratzean berandutzeko arrazoiak argitzeko asmoz erreklamazio-egileak udal bulegoetan etengabe egin zituen saialdien ondorioz, udalaren informazioaren arabera hasieran prozedura etetea ekarri zuen okerreko jarduera antzeman behar izan zen, atzerapena kontuan hartuta.

Gaiaren mamari dagokionean, Udalak adierazi zigun inskripzioa erroldan txarto jaso zela, erreklamazio-egilearen etxebizitzan alta eskatu zuen pertsonak eraikin horren alokairu-kontratua aurkeztu zuelako. Kontratu horrek haren eskaera bermatzen zuen. Interesdunak bere etxebizitza modu horretan egiaztatzen duenean, udalak normalean ez du egiten ondoko egiaztapenik, datuaren egiazkotasuna frogatzeko. Itxura denez, kexaren kasuan ondokoa gertatu zen: kontratuaren helburua kexa aurkeztu zuen emakumearen etxebizitza zen, eraikin bereko lonjaren orde.

- Emaidza

Udalak erreklamazio-egileari gure balorazioan adierazitako informazioa eman zion, eta berak eskatuta bideratuta zegoen errolda zuzentzeko prozedura ebatzi zuen.

Hori ikusita, uste izan genuen kexak agertutako arazo espezifikoak konpondu zela, eta gure esku-hartzea amaitzea erabaki genuen. Hala ere, Udalarri adierazi genion komenigarria zela erroldatuko datuak errealtatearekin bat etortzeko beharrezkoak diren neurriak eta adierazitako badaezpadako mekanismoak ezartzea.

## D) Bestelako herri zerbitzuak

⇒ *Energia elektrikoa hornitu eta banatzeko zerbitzua ematen duen udal enpresak ezarritako baldintzekin bat ez etortzea (672/2004)*

- Erreklamazioa

Aramaioko auzoko batek kexa bat aurkeztu zuen Sozietate Anonimo batek energia elektrikoa hornitzeko ezarritako baldintzak zirela eta; sozietate horren kapital osoa udalarena zen, eta energia elektrikoa udalari osoan hornitu eta banatzen zuen.

Interesdunak adierazi zigun eraikitzen ari zen etxebizitzarako elektrizitatea izan ahal izateko, Udalak auzoa hornitzen zuen transformadoretik sekzio elektrikoa hedatzera

behartzen zuela, merkataritza-enpresak hautatutako enpresa baten aurrekontuaren arabera, eta ez ziola uzten lan berdina askoz prezio merkeagoan eskaintzen zuen beste enpresa egiaztatu batekin egiten. Gainera, ez zion uzten 5 urteko iraupena zuen hirugarrenentzako medeapen hitzarmenik gauzaten.

- Azterketa

Informazioa eskatu ondoren, Udalak erantzun zigun interesdunari aplikatutako baldintzak legez (Sektore Elektrokoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea eta energia elektrikoa garraiatu, banatu, merkaturatu eta hornitzeko jarduerak eta energia elektrikoko instalazioak baimentzeko instalazioak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua) ezarritakoak zirela.

Aplikatu beharreko araudia aztertuta, aipatutako Errege Dekretuaren 45. artikulua 1. atala horniketa kasu ezberdinei buruzkoa zela egiaztatu genuen; kasu horiek burutu beharreko instalazioa hiri lurzoruan, lurzoru urbanizagarrian edo lurzoru urbanizaezinean egoteak baldintzatzen zituen.

Gure lehenengo ondorioa hurrengoa zen: merkataritza-erakundeak zehatz-mehatz zehaztu behar zituen eskatzaile bakoitzarentzako kasua eta legez aplikatu zekizkiokeen betebeharrak, egoera berdinetarako baldintza berdinak ezarri behar zirela. Horretarako, komenigarria izango omen litzateke jarduteko irizpide orokorrak hartzea, alde aurretik eskatzaile ezberdinen eskubide eta betebeharren berri izateko aukera emango zutenak.

Erreklamazio-egileak agertu zuen bigarren kontua honakoa zen: ez zegoen ados merkataritza-etxeak sarea hedatzeko obra instalazio orokorren mantentze-lanetako kontratuaren enpresa esleipendunak derrigorrean egitera behartzearekin, haren aurrekontua berak eskatutakoa baino askoz garestiagoa zen eta.

Gure ustez, aipatutako Errege Dekretuaren 40. artikulua 2. ataletik ez zen ondorioztatzen enpresa banatzaileak egindako interpretazioa, aplikatu beharreko arauak kontratista hautatzeko ahalmena ematen ziola adierazten zuena. Egia esan, sartzeko betekizunen zehaztapena banaketa-sarearen enpresa kudeatzailearen eskumena zen, baina beharrezkoak ziren betekizun teknikoak eta bestelakoak finkatu ondoren, mota horretako obrak burutzeko baimenduta zegoen edozein instalatzailek buru zezakeen burutzapen materiala.

Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen genuen egoera ikusita, sarearen kudeatzaileak lana burutzeko kontuan hartu behar ziren ezaugarri teknikoak eta gainerakoak idatziz ematea.

Azterketa horretatik abiatuta, Udalarari adierazi genion ez zeudela eskatzaileak hautatutako enpresak lan hori egitea ez onartzeko behar beste arrazoi, nahiz eta aplikatu beharreko irizpide teknikoek lanen burutzapena baldintzatu behar zuten. Bidezko lana egin ondoren, enpresa banatzaileak sarea eskuratzea baldintza lezake, hala denean, burututako instalazioa arauan ezarritako fidagarritasun eta segurtasun irizpideekin bat ez etortzekotan.

Amaitzeko, beste kontu bat zen erakundeak 5 urteko iraupena zuen hirugarrenentzako medeapen hitzarmena sinatzeko agertzen zuen ukoa. Izan ere, Errege Dekretuaren 45.6 artikulua ezartzen zuen hitzarmen hori instalazioaren titularraren eskubidea zela. Kasu honetan, eragindako pertsonari eskatutako sekzioaren gehikuntza berak eskatutako hornidura baino askoz handiagoa zen, eta horren ondorioz eta aurreikus zitekeenez,

gehikuntza burutu ondoren gune horretan hornidura eskatzen zuten hirugarren onuradunak egongo lirateke. Hori dela eta, uste genuen eskatzaileak egindako eskaera aintzakotzat hartu behar zela.

- Emaiza

Energia elektrikoa banatzeko udal enpresak erakunde honek egindako planteamen-dua onartu zuen, eta erreklamazio-egileari adierazitako aldeak jasotzen zituen kontratua gauzatzea proposatu zion.

Horregatik guztiatik, kexa-espeditentea amaitu genuen, agertutako arazoak erreklamazio-egilearentzat onuragarria zen moduan konpontzeko bideetan zegoela ikusita.

## E) Obra proiektuak

⇒ *Galdakaon autobidearekiko lotura berria eraikitzeke obra proiektuarekin bat ez etortzea (156/2005)*

- Erreklamazioa

Galdakaoko auzoko plataforma batek -Bizitze- erreklamazio bat aurkeztu du A-8 autobideak Bengoetxe eta Galdakaoren artean duen edukiera handitzeko eraikuntza-proiektuagatik, bertan herrigunerako lotura berri baten burutzapena barne hartzen dela.

- Azterketa

Jendaurrean jarri ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zituen A-8 autobideak Galdakao udalerrian duen edukiera handitzeko obren eraikuntza-proiektua eta lotura berriaren eraikuntza. Bizitze elkarteak handitzeko proiektuaren aurkako alegazio eta oharren idazkia aurkeztu zuen; hala ere, foru administrazio horrek ez zituen alegazioak eta oharra onartu, erreien handipena egiteko erabakia eta justifikazioa aipatutako udalerriz gaindiko plangintza tresnak onetsi zituzten administrazio xedapen irmoetan oinarritzen zirela uste zuen eta.

Eskatutako informazioa lortu ondoren, Arartekoak Herri Lan eta Garraio Sailari proiektuari buruzko ondorio batzuk bidaltzea erabaki zuen. Izan ere, obra-proiektu hori lurralde antolamenduko tresnetan eta bereziki Bizkaiko Errepideen Arloko Planean aurreikusi eta justifikatzen zela adierazten genuen. Era berean, ez genuen ikusi errepideen foru arauan ezarritako xedapenak betetzen ez zirenik, obra-proiektu motari, errepidearen babesguneetan ezarritako eskakizunei eta herrigunerako loturari zegokienez.

Aurrekoa gorabehera eta hirigintzaren ikuspegitik, Galdakaoko gaur egungo udal plangintzan ez dago argi justifikatuta autobideko erreien handipena, ezta udalerriko herrigunearen gaur egungo antolamenduan duen eragina ere, batez ere autobideko ibilbide berriaren erabilera mugetan eraikitako eraikinei dagokienean. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiari arren eskatu genion bidezko Sailaren bidez, neurri egokiak har zitzan, azterlanean jasotako neurriak eta ingurumen eragineko adierazpenean bildutako baldintzak zorrotz betetzen zirela zaintzeko. Halaber, Herri Lan eta Garraio

Sailak eta kudeaketaz arduratzen den enpresa esleipendunak bidearen baldintza eta ezaugarrietatik eta etxebizitzekiko hurbiltasunetik ondoriozta daitezkeen istripuak aurreikusi eta saihesteko balio duten bide-segurtasuneko neurriak muturreraino eramane beharko dituzte.

- Emaizta

Horri erantzunez Foru Sail horrek txostena bidali digu; bertan administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan proiektuaren aurka egin dela jakinarazi zaigu. Horri dagokionez, erreklamazioa auzitegietan jartzea aukeratu denez, gai horretan egin dugun esku hartzea eten dugu.

⇒ *Auzotar talde bat Barakaldoko auzo batean bide berria eraikitzearekin bat ez etortzea (237/2005)*

- Erreklamazioa

Barakaldoko La Paz auzoko plataforma eratu duen auzokoen talde batek Arartekora jo du, auzo horretan bide bat eraikitzearekin ados ez daudela adierazteko.

- Azterketa

Auzoko plataformaren ustez, bide hori ez dago sartuta Barakaldoko HAPOren zehaztapanetan. Bestalde, ez daude ados horrekin, bide berrirako lotura bi etxebizitza blokeren bidez egin nahi delako. Horrek berdegune zati bat eta gaur egun aparkaleku bezala erabiltzen den bi eraikinen arteko lursailen itxituran dagoen espazio publikoaren zati bat kentzea dakar.

Auzokoen alegazioak eta bidalitako informazioa aztertu ondoren, Udalari ohar batzuk bidali genizkion.

Lehenik eta behin, nahiz eta plangintzak auzoa inguratzen zuen inguruko bide bat aurreikusituen zuen, ez zegoen behar bezala justifikatuta aurreikusitako lotura-bidea hirigintza legedirako egokia zen ala ez; bide horrek dagoen kale bat eta inguruko bidearen zati bat lotzen ditu.

Bestalde, inguruko bidea burutzeko jarraitutako prozedura administratiboari zegokionean, uste genuen ez zela egokia, proiektua eta udal plangintzarako egokia izateari buruzko azterketa jendaurrean jarri ez zirelako. Alde horretatik, Barakaldoko Udalak prozedura berria bideratzea sustatu behar zuela proposatzen genuen, bidearen obrak zehatz eta teknika eta hirigintzaren ikuspegitik aztertze asmoz. Prozedura berri horrek aurreikusitako obra-proiektua ez ezik, haren hirigintza-egokitzapena eta balizko ingurumen eraginak ere hartu beharko ditu kontuan, eta nolana ere, jendaurrean jarri beharko da, auzokoek bidearen ibilbidea erabakitzen eta dauden espazio publikoak berrantolatzen parte hartze aukera izan dezaten.

- Emaizta

Horri erantzunez, Barakaldoko Udalak bide horretarako berariazko obra-proiektua bideratzea erabaki zuen, horretan jendaurrean jartzeko izapidea gauzatzen zela eta plangintzarako egokia dela justifikatzen zela.

## F) Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna

⇒ *Ondare erantzukizunaren aintzatespena, euren artean harremana izan dezaketen arren, beste espediente batzuetan ikertu behar diren gaien baldintzapean dagoena (996/2002)*

### • Erreklamazioa

Pertsona batek adierazi zuen ez zegoela ados udal batek ondare erantzukizunagatik erreklamazio bati emandako trataerarekin.

Erreklamazioaren jatorria garaje batzuetan duen trasteleku batean eragindako kalteetan zegoen. Bere iritziz, kaltearen arrazoa saneamendu-sare publiko bat apurtutakoan ura sartu izana zen.

Aurrekari horietatik abiatuta, kexa aurkeztu zuenak uste zuen kalte-ordaina jaso behar zuela, kalteen eragilea zen herri zerbitzuaren udal erakunde arduradunak ordaindu beharko lukeena.

### • Azterketa

Datuen laburpen horren arabera, kexa bideratu eta bidezko espedientea hasia erabaki genuen. Erabaki hori hartzeko erabakigarriak izan ziren eragindako pertsonaren adierazpenak, Udalaren hitzetatik ondorioztatzen omen zelako kalte-ordaina ordaintzeko, trastelekua hartzen zuten garajeen jarduera legezatu behar zela, bidezko lizentzia ez zuen eta.

Premisa horietatik abiatuta, udal erakundera jo genuen, gairako garrantzitsua zen eta gure zereginak modu onenean bideratzeko erabilgarria zen behar beste informazio bidaltzeko eskatzeko.

Udalak bidalitako dokumentuen edukia aztertu ondoren, bertan azaldutako irizpideekin bat ez gentozela konturatu ginen. Horregatik, laguntza osagarria eskatu behar izan genuen, jarraian agertzen diren oharrek oinarri hartu genituela.

Gure oposizioaren arrazoa toki erakunde horrek ateratako ondorioak onartu ezin izatea zen, hain zuzen, antza denez, kalte-ordaina ordaintzeko baldintza motaren bat bete behar zelako (eraikinean garatutako jarduerak –komunitateko garajea- udal baimena izatea). Horrela, erreklamazio-egilearen iritziak berresten ziren.

Planteamendu hori guretzat onartezina zela esaten genuen, gure ustez lege babesik ez zuelako. Azaldutako gauza bakarra zen ea bidezkoa zen ala ez administrazio zerbitzuen funtzionamenduari ondasun batean jasandako kalteak egozteko aukerari buruz interesdunak egiten zuen alegazioa.

Horren erantzuna erreklamazioaren ondorioz bideratu zen udal espedientean eman zela azaldu zen. Horrela, ogasun arloko zerbitzuek egindako dokumentu batean, Alkatetzari erreklamazioa ontzat hartzeko proposamena aurkezten zitzaion, eta kreditu erabilgarria zegoela adierazten zen. Gainera, ondoko txostenek ez zuten kontrakoa esaten.

Beraz, ondare erantzukizunaren aintzatespena gauzatzea eten zen, horretarako oinarririk egon gabe, itxura denez. Izan ere, kalteak jaso zituen lokaleko jarduerak bidezko baimenik ez izateari buruzko apelazioak ez zeukan funtsik, erreklamazioari buruzko bidezko udal erabakia egin eta burutzea geldiarazi eta eragozteko.

Udalak aipatu zuen beste kontua ez zen auzitaragarria; hala denean, eta nahiz eta objektu materialari (lokal bera) zegokionean erreklamazioarekin antzekotasun handia izan,

hori Udalak bideratu beharreko beste espediente baten helburua izan beharko litzateke. Nolanahi ere, txosten berri horren jatorria gurearen ezberdina izango litzateke. Izan ere, kasu honetan ondare erantzukizunagatiko espediente baten aurrean geunden; bestean, berriz, hirigintza arloko espediente baten aurrean, bataren eta bestearen ondorioak besterik gabe lotzea ezinezkoa izango litzatekeela.

Amaitzeko, eta gaiari behin eta berriz heldu ondoren, Udalak alkatetza dekretu baten kopia eman zigun. Dekretu horren xedapenetan aintzat hartzen zen ondare erantzukizunagatiko erreklamazioa, eta kalte-ordaina ordaintzea erabakitzen zen.

- Emaizta

Azaldutakoa –gauzatutako jardueraren laburpena– oinarri hartuta, gaian egindako esku hartzea amaitu genuen, administrazioaren irregulartasuna konpondu zen eta.

## 11. OSASUNA

### 11.1. SARRERA

Arlo honetan 98 kexa jaso dira guztira, eta horien banaketa administrazioen arabera honakoa izan da:

–Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	96
–Foru Administrazioa .....	1
–Toki Administrazioa.....	1

Azpiatalen banaketaren arabera, horien sailkapena honakoa da:

–Erabiltzaileen eskubideak .....	47
–Osasun laguntza.....	23
–Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	13
–Buruko osasuna .....	7
–Bestelakoak.....	4
–Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna .....	3
–Osasun publikoa .....	1

Azkenaldian, osasun publikoaren finantzaketaren inguruan dagoen eztabaidak protagonismo handia du. Eztabaida hau gure Autonomia Erkidegoan ere ematen ari da, eta lan errebindikazio batzuetan ikusi ahal izan da une hartan zegoen finantzaketa maila urritzat jo izan denean.

Konparazioa egiteko erreferentziatzat hartzen den elementuaren arabera, finantzaketa nahikoa den ala ez azaltzen digun errealitatea, modu batera edo bestera bahetu daiteke. Dena den, ez dago zalantzarik aurrekontu legeak legebiltzarrean ezartzen duen diru kopuruak errealitate hori baldintzatu egiten duela.

Gizarte Osasun Laguntzako Plan Estrategikoa ere, Eusko Jaurlaritzak aurten onartutakoa, arauak ezartzen duten diru kopuruen arabera izango da. Plan honek, –bere jarduketa eremua zehazten du, gizarte osasun arretarako eredia zehazten du eta horiek finkatzeko lortu beharreko helburuak mugatzen ditu– urrats garrantzitsua izan behar du egun betetzen ez diren beharrei arreta jartzeko.

Osasun eskubideak noraino iritsi behar duenaren inguruan ateratzen ditugun ondorio juridikoak aterata ere, esan dezakegu ondorio horiek antzuak izateko arriskua dutela behar den finantziarioa ez badago. Hala eta guztiz ere, kexa bat eragiten duten arrazoi guztiak ez dira baliabide urritasunaren ondorio.

Horri dagokionez, herritarrek Ararteko erakunde honi helarazten dizkioten kexa batzuen helburua baliabide gehiago eskatzea da, baina baita ere erakustea zein arazo ekidin zitezkeen osasun zerbitzuek edo beren informazio sistemek funtzionamendu edo antolaketa hobea izan balute.



Baliabide ekonomiko nahikorik ez egotearen eta osasun zerbitzuen funtzionamendu edo antolaketa arazoaren artean, erdibidean, umeak izateko tratamenduen inguruan jasotzen ditugun kekek kokatu ditzakegu. Horiek joan den urteko gure txostenean ere aipatzen genituen.

Kexa hauek irauteak, umeak izateko tratamenduak eskatzen dituzten pertsonak aldarrikatzen duten eskubidea garrantzi gutxiagokoa dela sentitzea eragiten du, izan ere, kasu batzuetan itxaron behar duten denbora handitu egin da aurreko urteekiko. Hala eta guztiz ere, zerbitzu hori zerbitzuen katalogoan sartzen denez, funtzionamendu irizpide batzuk hartu beharko lirateke erreferentziatzat, erabiltzaileek itxaron beharreko denbora onargarria bilaka dadin. Irizpide horietako bat aurretik itxaron behar izan den denbora gutxienez gutxitzea izan beharko luke.

Ginekologia kontsulten inguruko kekek arestian aipaturiko egoera antzekoa erakusten dute, behinik behin ia urte beteko denbora tartea itxaron behar izan duten pertsonak hartzen baditugu kontuan. Joan den urtean kexa hauek aipatu genituen epe horiek onargarriak ez zirela adieraziz, eta era berean esanez osasun programa zehatz batetik kanpo zeuden azterketak baziren eta gainera paziente sintomatikoak ez baziren, eman beharreko erantzuna ez zela hitzordua urte bete geroagorako ematea.

Dauden programak zabaltzeko eskaerak alde batera utzita –horiek beste parametro batzuekin aztertu behar dira–, osasun publikoko ginekologia zerbitzuen egungo eskaintzetan ezin onar daiteke hitzordua ematea urte bete geroagorako.

Errealitatea beste bat bada, sintomatikoak ez diren pazienteak izateagatik emandako hitzorduak badira, pentsatu behar dugu lehen mailako arretaren eta atentzio espezializatuaren artean koordinazioa falta dela, eta hori, beharrezkotzat jo zuen Osasun sailburuak oraingo legegintzaldian Osasun Sailak garatu beharreko politika azaltzeko egindako agertzean.

Itxaron beharreko denbora gutxitzeko neurriak hartzea Osasun Sailak aurreikusten duen jarduera da. Itxaroten daramaten denbora kontuan hartzen dugun irizpide bat da kekek aztertzerakoan, baina ez da irizpide bakarra.

Itxaron beharraren inguruan sortutako kekek, ez bakarrik ebakuntzen ingurukoak, baita ere kanpo kontsulten, kontsulta teknikoaren eta diagnosi frogaren, ugariak dira. Dirudenez, osasun zerbitzuen funtzionamendu edo antolaketaarekin zerikusia duen arazo bat da, baliabide urritasunaren arazoarekin baino.

Kontuan hartuz itxaron zerrendak ezin direla ekidin, kekek honako elementuak oinarritzat hartuz azter daitezke: Osakidetza 2003-2007 Plan Estrategikoaren helburuek aurreikusten duten denbora, fakultatiboak itxaron zerrendan sartzeko eskaeran zehazten duenaren eta aurreikusten den denboraren arteko aldea, edo erabiltzaileek itxaron beharreko denboraren inguruko informazioa jasotzeko duen eskubidea.

Azken irizpide hori, pertsonak informatzearena, edozein kekatan azaldutako egoeratan erabili daiteke, beti ere behar den zuhurtziarekin. Pertsonen zuhurtzia horren berri eman behar zaie, itxaron beharreko denboraren inguruan gutxi gorabeherako aurreikuspen bat egitea posible bada ere, ezinezkoa delako data zehatza ematea, hori beste gaixoen egoeraren arabera izan daitekeelako.

Nahiz eta zailtasun hori hori egon, beharrezkoa da erabiltzaileen informazioarako prozedurak ezartzea. Zenbait zentrotan jada martxan dagoen zerbait da, eta jarraibideak ezarri dituzte gaixoei ebakuntza izateko itxaron beharreko batezbesteko denboraren berri eman ahal izateko.

Horregatik, informazio sistemen inguruko ekintzak ez dira amaitu behar gaixoen alde klinikoarekin, baizik eta alde praktikoagoetara zabaldu behar dela, esate baterako, erabiltzaileek duten informazio eskubidea bermatzea.

Informazioak prozesu asistentzial kexa askoren oinarrian egoten jarraitzen du. Beharbada ziurgabetasun edo zalantza egoera hori ezin ekidin daiteke prozesu horietan, baina jasotakoa baino informazio gehiago izateak lagundu egingo zukeen familiek arazo hori diagnosi edo/eta tratamenduaren inguruko zalantza esparru logikoan kokatzen, eta ez, kexa gehienek adierazten zuten bezala, arreta ezan.

Bereziki zaugarriak diren taldeen arreta esparruan, Euskal Osasun Zerbitzuari galdetu diogu –aurten etorkin bati laguntza eskaintzaren inguruan irekitako espediente bat dela bide– etorkinen osasun laguntzaren inguruan ea zer neurri orokor hartu den.

Jaso genuen erantzunean adierazi ziguten ez zegoela inolako diskriminaziorik etorkinekiko, ez delako mugarik jartzen horiek osasun laguntzara iristeko. Hala eta guztiz ere, gure galdera ez zegoen zuzendua pertsona hauek osasun laguntzara heltzeko izan zitezaketen arazoetara etorkin izateagatik, baizik eta beren osasun arreta hobetzeko har zitezkeen neurrietara, orokorrean, pertsona hauek arreta handiagoa behar dezaketelako.

Ondoren, espediente horretan garatu genituen ekintza osagarrietan, Osasun Sailak Ararteko erakundeari jakinarazi zion zein zen Inmigrazio Planaren aurreikuspenetan ezarritako lehentasunezko jardunbidea, eta hori garatzeko zeuden jarduera zehatzak.

Kontuan hartuz egungo Inmigrazio Euskal Plana eta joan den urteko txostenean jasotako izaera orokorreko aholkuan adierazi bezala, argi dagoela ematen du etorkinak osasun zerbitzuetan parte hartzeko ezinbesteko elementuak honako hauek direla: profesionalak prestatzea etorkinen behar zehaztetara egokitu ahal izateko eta baliabide materialak jartzea hizkuntzaren oztopoa gainditzeko (ez bakarrik interpreteen bidez, baizik eta arreta denbora handiagoa posible izanez beren berezitasunengatik). Adibide gisa esan genuen, orokorrean gaixo bati laguntza emateko aurreikusten zen denbora ziurrenik ez zela nahikoa izango, arreta eskaintzen dion profesionalarekin komunikatu ahal izateko bitarteko bat behar duen pertsona batentzat.

Osasun Saileko sailburuak jarduteko konpromisoa hartu duen esparrua etorkinen osasun arretarena da, horretarako, Inmigrazio Euskal Planak zehazten dituen irizpidiak jarraituz. Horregatik, espero dugu etorkinen osasun programazio eta prebentzio programak eratzekeo jarduerak, beharrezkoak dituzten baliabideak izatea eta zerbitzuen kudeaketa horietara moldatzea.

Kanpoan geratzeko arriskua duten pertsonak joera handiagoa dute ohikoak ez diren eta beren egoeran ez dauden pertsonak jasaten ez dituzten egoerak jasateko. Esparru honetan etxebizitzarik gabeko pertsona bati gertatu zitzaiona aipatu dezakegu. Pertsona hau ospitale bateko larrialdi zerbitzuan lagundu zuten, eta hura aztertu zuen fakultatiboaren arabera, pertsona horrek osasun garraioa behar zuen. Hala eta guztiz ere, osasun txartel individuala ez izateak, eta etxebizitzarik ez izatean aterpetxe batera eraman behar izateak, hainbat arazo sortu zituen.

Arrazoi hauengatik osasun garraioa ukatzeko arrazoirik ez dagoela kontuan hartuz, Osasun Sailak zerbitzu hori esleituta zuen enpresari ikerketa bat burutzeko eskatu zion gertatutakoaren inguruan. Ikerketa horren ondorioen arabera, zerbitzua ematera joan zen pertsonaren gaizkiulertu bat izan zen.

Txosten horretako zenbait datu zirela eta, Administrazioari aholkatu genion enpresa horri zenbait kontu argitzeko. Osasun Sailak jakinarazi zigunez, kasu egin zion aholkuari.

Kontu horiek honakoak ziren: 1. Fakultatiboaren ebaluazioa, garraio beharrarena alegia, bete egin behar zen eta 2. Fakultatiboaren aldeko ebaluazioa dagoenean, ezin da garraioa zalantzan jarri lekualdatze hori beste ospitale batera ez denean, eta ezta ere aterpetxe batera denean pertsona horrek etxerik ez duelako.

HIESAren aurkako zenbait erakundek gaixo horien egoera mahaigaineratzen aritu dira, kirurgia estetikoari eta emankortasun tratamenduei dagokienean. Egoera horiek, gaixo hauek aurre egin beharreko errealitate berriaren adibideetako batzuk dira, eta azkenean, aldeko erantzun bat jaso dute Osasun Saitetik, bi eskaerak onartu egin baitira.

Berez osasunaren esparrutik pixka bat aldenduz, joan den urteko txostenean aipatu genuen zenbait talde arreta beharrean aurkitzen zirela, izan ere, pertsona horiei laguntzen zieten elkarteen jarraipena zalantzan aurkitzen zen finantzaketa arazoak zirela eta. Era batera edo bestera, azaroarekin lotutako administrazioek zalantzan jartzen zuten horien finantzaketan parte hartu behar izatea.

2005. urtean zehar mahaigainean zegoen arazoa (buruko osasun arazoak zituzten gaixoei arreta ematea tutoretzapeko etxebizitzetan) neurri batean konpondu egin da. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa iruditzen zaigu gogoraraztea elkarte hauek komunitatean jasotzen ez dituzten zenbait arreta betetzen dituztela, eta horien helburuaren inguruan ez badago zalantzarik, baliabideak izateko bideak bilatu beharko lirarteke zalantza elementu horiek beren funtzionamendutik kanpo uzteko.

## 11.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Osasun laguntza

⇒ *Ebakuntza bat egiteko itxaron beharreko denboraren inguruko informazioa (147/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen ebakuntza baterako itxaron beharreko denborarengatik (6 aste); epe hori ez zetorrelako bat fakultatiboak itxaron zerrendan sartzeko eskaera orrian jarritako atzeraezin kalifikazioarekin. Kexan esaten zenaren arabera, pazientearen arreta zerbitzuak adierazi zion une horretan zuela zazpi hilabete lehenagoko ebakuntzak egiten zebiltzala.

- Azterketa

Guk eginiko informazio eskaerari erantzunez adierazi ziguten, eman zizkioten 6 aste horiek une horretan jasotzen ari zen tratamendu analgesiko farmakologikoa eraginkorra zen baieztatze behar zen denbora zela, hori horrela izatekotan ebakuntza beharbada ez zelako beharrezkoa. Ikuspegi kliniko batetik, datu horrek eta tratamendu analgesiko baten aurrean azaldu zitekeen erreakzioak, ebakuntzaren atzerapena argitzen zuten.

Pazientearen arreta zerbitzuak esandakoaren inguruan –une hartan egiten ari ziren ebakuntzak zazpi hilabete itxarondakoak zirela–, zerbitzu horrek esan zigun ezinezkoa zela informazio hori eman zitzaion ala ez frogatzea, baina ebakuntza horietarako izandako

itxaronaldiak ez zirela hain luzeak, motzagoak baizik. Hori adierazten zuten zerrendak helarazi zizkiguten.

- Emaizta

Azterketan aipatutako puntuak argituta, ospitalearen Zuzendaritzak jakinarazi zigun jarraibide bat ezarri zela gaixoei jakinarazteko ebakuntzarako itxaron beharreko batezbesteko denbora zenbatekoa zen. Kexa aurkeztu zuen pertsonari gure jardueren berri eman eta gero, espedientea amaitutzat jo genuen.

## B) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *Osasunari buruzko datuak ezabatzea (177/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek bere datuak ezabatzea eskatu zuen. Eskaera hori oinarritzeko adierazi zuen jada ez zegoela sistema publikoan aseguratua. Osasun Laguntzako Zuzendariak –fitxategiaren titularra– ezezkua eman zion bere eskaerari eta ondoren Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean aurkeztutako erreklamazioa ere atzera bota zen.

Aurrekoetan bezala, pertsona honek bi bide instituzional erabili zituen kexa edo berrikuspena aurkezteko: Datuak Babesteko Agentzia eta Ararteko erakundea. Bietako batera jo izanak, formaren ikuspegitik behinik behin, ez dakar bestea erabiltzeko ezintasuna, eta horregatik onartu genuen kexa horren tramitazioa.

- Azterketa

Pertsonak beren osasun datuen ezabatzea eskatzeko eskubidea, sorospen prozesu bakoitzaren alta datatik aurrera denbora tarte bat igaro ondoren lortzen dute (41/2002 Legearen 17.1 artikulua).

Pazientearen burujabetasunerako 41/2002 Legeak, eta Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoak jasotzen dituzten irizpideak uztartzea zaila daiteke zenbaitetan. Horrela, Lege Organikoaren arabera, dokumentazio klinikoa gordetzeko epe bat egon beharko litzateke, baina 41/2002 Legeak ordea, gutxienez bost urtez gorde beharko dela ezartzen du.

Bestalde, 41/2002 Legearen aurretiko autonomia erkidego ezberdinen legeriak, araudi ezberdinak ezartzen zituen historialak gordetzeko garaian. Horrela, ikus daiteke EAEn 45/1998 Dekretuak ezartzen duela epe horiek 2 eta 5 urte bitartekoak izan behar dutela, eta beste autonomia erkidego batzuetan berriz, epe hori ezberdina da.

Dena den, arrazoizkoa da pentsatzea gordetze horrek ezin duela mugagabea izan, bestela ezeztapen eskubidearen edukia bertan behera geratuko litzatekeelako.

Pertsona honek eginiko ezeztapen eskaera, aurreikuspen horiek kontuan hartuz baloratu beharko litzateke. Horrela, 41/2002 Legearen 17.1 artikuluan aurreikusten diren baldintzak emango balira, datu horiek gordetzea, eta ondorioz horiek ezabatzeari uko egitea, behar bezala arrazoitu beharko litzateke.

- Emaiza

Kexa aurkeztu zuen pertsonaren arrazoitzen zuena zen ez zegoela jada sistema publikoan aseguratutik, baina ez zuen zehazten zenbat denbora iragan zen jasotako azken sorospen prozesutik. Horregatik, kexaren inguruan egin genuen balorazioarekin batera adierazi genion, bost urte iragan ez baziren, eskaera berri bat aurkezteko epe horren buruan.

⇒ *Haurren arreta larrialdi zerbitzuetan; lehen laguntza pediatria ez den sendagile batek ematea (796/2005)*

- Erreklamazioa

Guraso batzuek kexa bat aurkeztu zuten, beren herriko anbulatorioko larrialdi zerbitzuetara 3 urteko semearekin joan zirenean, bertan zegoen familia medikuak esan zielako bera ez zela pediatria eta ezin ziela lagundu, eta horrela, ospitaleko larrialdi zerbitzuetara jotzeko adierazi zien.

Kexa horren zergatia ere bazen pazientearen arreta zerbitzuak bere erreklamazioari erantzunik eman ez izana.

- Azterketa

Pediatraren gana bidaltzea, lehen azterketa bat egin gabe, ez dirudi zuzena. Horretaz gain, kexaren aurrean antzemandako isiltasunak adierazten zien beren kexa oinarritua zela.

- Emaiza

Guk eginiko informazio eskaerari erantzunez, Osakidetzaek guk luzatu genion balorazioa berretsi zuen, familia medikuaren jokabidea ez zela egokia izan, alegia. Jasotako prestakuntza dela eta, edozein mediku da gai lehen azterketa bat eskaintzeko gaixoaren adina edozein izanda ere, nahiz eta ondorenean eta egindako azterketek horixe gomendatzen badute, gaixoa ospitale batera bidaltzea egokia den ikusten bada proba osagarriak beharrezkoak direla edo prozesuaren kontrol eta jarraipenerako esku hartze zehatzagoa behar dela. Hori txosten zehatzarekin eta beharrezkoak diren azalpenekin batera egingo litzateke.

Horretaz gain, erantzunik ezaren inguruko kexa zela eta, jakinarazi ziguten interesdunari ere zuzendu zitzaizkiola jakinarazteko beharrezko neurriak hartu zituztela horrelako egoerak ekiditeko.

### C) **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

⇒ *Heriotzak ziurtatzeko prozeduran arreta: egokia ez den jardunbidea (90/2005)*

- Erreklamazioa

Heriotza baten kasuan, senitarteko batzuek eskatu zuten –larrialdi zerbitzuaren bitartez– sendagile baten esku hartzea heriotza beren etxebizitzan ziurtatzeko.

Beren kexaren arrazoia, sendagile horrek eskainitako tratu desegokian eta heriotza ziurtatzeari uko egitean zegoen.

- Azterketa

Kexa honek bi alde zituen Osakidetzari informazio eskaera egiterakoan: batetik fakultatibo horren jarrerari zegokiona, eta bestetik horrelakoetan jarraitu beharreko prozedurari zegokiona.

Horrelako egoerei eskaini beharreko arretak nolakoa izan behar duen erantzutea, antza, ez da beti erraza. Kontua bada heriotza ziurtatzea, eta eskaera hori larrialdi zerbitzuen bidez Etengabeko Arretako Guneari pasatzen bazaio –kasu honetan gertatu zen bezala– gerta daiteke etxe horretara doanak heriotza baieztatzea bakarrik egin ahal izatea, baina ez heriotza hori ziurtatzea. Izan ere, hori erregistro zibilaren araudiaren 274 artikulua heriotza ziurtagirien gainean ezarritakoaren arabera egitekoa da.

Ikuspegi horretatik, normala dirudi, orokorrean, etxe medikua izatea bertaratzen dena. Hori ordea, ez dirudi posiblea denik sendagilea ez badago lanean, eta kasu horretan etxera joaten den fakultatiboak heriotza baieztatzea, eta beharbada gorpua hileta zerbitzuetara eramatea baimentzea besterik, ezin du egin. Gorpuak han egon beharko luke gaixoaren azken gaixotasunaz arduratu zen fakultatiboa bertaratu arte.

Sendagile hori etxebizitza horretara joatea desegokia dela edo beharrekoa ez dela onartuko bagenu ere, sendagileak kexa adierazi zutenekiko izan zuen jarrera oso bestelakoa izan behar zuen, familiaren kontaketa kontuan hartuz gero. Gertatutakoa familiak kontatu bezala gertatu bazen, ez dago zalantzarik sendagile horrek gaitzespen bat merezi zuela, eta bere jokabideak –justifikatuko balitz ezin zuela heriotza ziurtagiri bat luzatu– ez luke erantzungo heriotza baieztatu ez izanaren zergatia. Azkenik, azken hori sendagile hari ez zegokiola onartuko bagenu ere, bere jokabidearen bidez familiari informazioa ukatu zion.

- Emaiza

Guk eginiko informazio eskaerari erantzunez, Osakidetzak larrialdi zerbitzuak eginiko txostena helarazi zigun, eta zegokion osasun eskualdeak kexa eragin zuen fakultatibo horren inguruan hartutako neurrien berri eman zigun.

⇒ *Lanpostu hutsak betetzea: horien garrantzia larrialdi egoerez arduratzeko garaian (371/2005)*

- Erreklamazioa

Etxean istripu bat jasan zuen haur baten gurasoek kexa bat adierazi zuten gertakari horren unean normalean aurreikusten dena baino baliabide gutxiago zegoelako beren zonaldean. Zehazki, bi herritako lehen mailako arretarako bi sendagileen plaza hutsak sendagile bakar batekin bete ziren egun hartan: goiz erdi bat kontsulta batean egon zen eta beste erdia beste kontsultan.

Laguntza eskaera ordezkotako sendagilea beraiek bizi ez ziren beste herriko zentroaz arduratzen ari zen orduetan gertatu zen.

- Azterketa

Larrialdien arreta zerbitzuari dagokionez, ordezkapen bat lanaldi partzial bidez izatea erabakitzen denean, horrek ez du zertan arreta urgenteko zerbitzua kaltetu behar.

Berez larrialdi zerbitzua dena, lanean hasten da ohiko lanaldia bukatzen denean. Behin hori esanda, kontuan izan behar da ikuspegi zabalago batetik begiratzean, behar urgenteen arretak eguneko 24 orduetan funtzionatu behar duela, eta berez arreta urgenteko zerbitzua dena, ohiko lanaldia bukatzean hasten bada ere, kontuan hartu behar da –1994ko martxoaren 29ko Aginduarekin bat etorri– larrialdi zerbitzuek lehen mailako taldea dutela jasotako eskaerei erantzun emateko. Horiek, etengabeko arreta zerbitzua eskaintzen dute, bai urgentea eta baita ez urgentea ere, 24 orduz.

Horrela, arrazoizkoa dirudi pentsatzea lehen mailako osasun profesional baten ordezkapena lanaldi partzialerako edo osorako izatea ez dela axolagabeko kontua larrialdiez arduratzeko garaian.

Kasu honetan, sendagile bakoitza lanaldi partzial bidez ordezkatu zen, horrela, bi herrietako kontsultetaz sendagile bakar bat arduratuz. Hori kontuan hartuz, nor bere buruari galde diezaioke, larrialdi zerbitzuen arretari dagokionez, ea ordezkapena lanaldi osokoa izan balitz edukiko ziren baliabideak ugariagoak izango ote ziren.

Ordezkapenak lanaldi partzialerako izateak pentsarazten du, baliabide gutxiago izan zirela. Hala eta guztiz ere, lehen mailako arretaren ohiko jardunbidearen azterketa zehatzagoa egiten badugu, esan daiteke zerbitzuaren antolaketa ordezkaturako bi fakultatiboen arreta esparruan ohikoa izaten denaren oso parekoa izan zitekeela.

Lehen mailako sendagileen ohiko lanaldiaren zati handi bat programaturako kontsultek betetzen dute. Bestelako ohiko ekintzetan ez bezala, horiek sendagilearen presentzia fisikoa eskatzen dute kontsulta pasa beharreko lekuan. Hori ez da gertatzen, baita ere ohikoak diren bilera klinikoetara, edo kudeaketa edo prestakuntza jardueretara joan behar dutenean, horiek programaturako kontsultak pasatzen diren tokia ez den beste leku batean gauzatu baitaitezke.

Normalean behar den presentzia fisiko hori larrialdi kasuetarako gertuago egotearekin lotzen badugu, arrazoizkoa dirudi pentsatzea, jardunbide oinarri gisa, lanpostu hutsak betetzerakoan kontuan izan behar dela presentzia fisiko hori, horrek larrialdietaz arduratzeko garaian izan dezakeen garrantziarengatik. Presentzia horrek, arreta esparru horretan ohikoa den bezalakoa izan behar du.

Ondorioz, arreta edo ordezkapen ordu horiek sendagileak dagokion kontsultategian normalean izaten dituen ordu kopuru berdina izaten saiatu beharko litzateke.

- Emaizta

Ararteko erakundeak, egindako azterketaren berri eman zien bai gurasoei eta baita Osakidetari ere. Horrekin, lehen mailako arreta eta behar urgenteena uztartu, eta ordezkapenaren bidez, sendagile bakoitzak –dagokion kontsultategian– izaten duen ordu kopurua betetzen saiatzeko, batez ere lehen mailako unitateen laguntza esparruan populazioa sakabanatua dagoela kontuan hartuz.

## 12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

### 12.1. SARRERA

2005ean, Lan eta Gizarte Segurantzaren arloan 7 kexa aurkeztu dira.

Lanari dagokionez, EAEko herri administrazioen esku-hartzea egon denean soilik har dezakegu esku.

Gizarte Segurantzari loturiko arazoei buruzko kexak Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkio; izan ere, parlamentuaren ordezkari horrek Estatuko Administrazio Nagusiko organoen jarduketak ikuskatzeko ardura dauka.

Bestalde, lanaren atalean, kexaren laburpentzat jasotakoaren antzeko kasuak aztertu ditugu (dirulaguntzetarako deialdiari, kultura ekintzailea bultzatzeari eta enpresa sorrerari buruzkoa), eta bertan, pertsona bat bazterturik gelditu zen formazko baldintza ez betetzeagatik.

Halaber, sustapenaren arloan, beste deialdi batean, pertsona batek aholkularitza eskatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Txekin programan, eta laguntzaren tramitazioa hasi zuen, bere enpresa sortzeko. Langabezia egoeran, 2005ean baldintza guztiak betetzen zituen, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren dirulaguntza lortzeko, norberaren konturako enplegurako.

Langabezian zegoela ziurtatzeko Langaira joatean, esan zioten ofiziozko baxa eman ziotela. Pertsona horrek Arartekoari aurkezturiko kexa baxa horri lotuta zegoen; izan ere, berak esandakoaren arabera, ziurtagiri hori eskatu arte ez zuen kexa horren berririk izan.

Batzuetan, deialdi bati buruzko arauak betebeharrak jakinak ezarri arren, horiek aldagarriak dira edo interesatuaren esku-hartzea behar dute, eta hori ez da erraza. Kasu honetan, Langaik edo Kolokazioko Euskal Zerbitzuak (326/2003 Dekretua) inskripzioaren indarraldiarekiko funtzionamendua aurreikusten du, eta, hori berrizatzeko, inskribaturiko pertsonak berri egin behar dute eskaria. Baina hori baino garrantzitsua goa izan zen, gure esku-hartze aukerak baloratzearen ondoretarako, Langaik zenbait jarduketa egitea pertsonari informazioa emateko, baita kexa egin zuen interesatuari informazioa emateko ere.

Azkenik, gure ustez interesgarria da sindikatu batek aurkezturiko kexa, zehapen prozeduretan alderdi interesatua izateko eskabidea egiten duenean aurkitzen dituen oztopoei dagokienez. Gehienetan gertatzen den bezala, urratze-aktaren edukia jakinarazten zaie, baina gero ez dute beste jakinarazpenik jasotzen; horrela, ezin dute egin eurek salaturiko egoerei buruz garatzen ari diren administrazio jarduketan jarraipenik.

Berez, ezin da esan lan agintaritzaren erabaki hori funtsik gabea denik; izan ere, salaketa sindikatu batek egiteak ez du esan nahi hori prozeduraren alderdia denik. Hala eta guztiz ere, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren iritzia jakin nahi izan dugu; izan ere, dirudienez, gai hori batzuetan eztabaidagarria da, sindikatuak talde interesen (banakako interesak ez bezalakoak) ordezkariak direlako.

Hain zuzen ere, Konstituzioak sindikatuei emandako eginkizun horiek ez ditu legalitatearen zaindari bihurtzen; hori kontuan hartuta, euren interes orokorra ukatu barik, aztertu egin behar da ea talde interesen ordezkariaren gaitasun abstraktua kasu bakoitzean behar bezala zehazten den. Horri erantzunez, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailak sindikatuari interesatu izaera ematearen bidez kotasunik eza azaltzeko



arrazoiak eman ditu, salaturiko gertaerak argitzeko eta erantzukizun zehagarria finkatzeko zehapen prozedura baitzen.

Horrek dakarren zailtasuna ahaztu barik, Ararteko erakundeak sindikatua prozesuaren alderditzat onartzeko aukera ematen duten ezaugarriak dauden ala ez kasu bakoitzean zehaztu beharra planteatu dio aipaturiko sailari.

## 12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### Lana

⇒ *Diru-laguntza deialdia: Enpleguko zerbitzu publikoan inskribatzeko baldintza, horren irismena (798/2005)*

#### • Erreklamazioa

Pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen dirulaguntza ukatzearen aurka, eta dirulaguntza hori abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren babesean aurkeztu zen (kultura ekintzaileari eta enpresa sorrerari laguntzeari buruzko dekretua).

Ukapena, berriz, 328/2003 Dekretuko 40.a) artikuluan ezarritako baldintzak urratzean oinarritu zen; artikulua horretan ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da Erkidego edo Estatu mailako Enplegu Zerbitzu Publikoren batean langabetutzat inskribaturik egotea, Europar Batasunaren eremuan, gutxienez 3 hilabeteko antzinasunarekin. Ikuskizun batera joan zenez, langabezia txartela berritzeko eguna igaro egin zitzaion.

Halaber, kontuan hartzen zuen dirulaguntzen emakidan eragin zuten erabakien arazko izaera.

#### • Azterketa

Gorabidezko errekursoaren gaitzirizpena oinarritzen zuten iritzietan adierazitakoaren arabera, ez zen erabaki arbitrarioa edo funtsik gabea, eta deialdira egokitzen zen. Hala eta guztiz ere, pertsona horren egoerak zalantza batzuk zituen, eta horrela, Arartekoak horren kexa tramitean onartu zuen.

A-328/2003 Dekretuko 40.a) artikuluan urraturiko baldintzari dagokionez (*“Erkidego edo Estatu mailako Enplegu Zerbitzu Publikoren batean langabetutzat inskribaturik egotea, Europar Batasunaren eremuan, gutxienez 3 hilabeteko antzinasunarekin”*), egingarria zen hori berez helburutzat ez hartzea, eta Dekretu horretan laguntzearako ezarritako langabezia egoera egiaztatzeko baliabidez hartzeari (*“Kapitulu honetan ezarritakoaren arabera, langabetuek enpresa egitura berriak sortzeko dirulaguntza jasoko du”*). Ikuspegi horretatik begiratuta, ezin da baztertu beste bide batzuen onarpena (esate baterako, lan-bizitzaren ziurtagiria, aldi horretan kotizazioak ez egoteari buruzkoa), halako laguntzak eskatzen dituzten pertsonen langabezia egoera egiaztatzeko. Laguntzen helburuarekin bat etortze horrek (langabezia egoeran dauden pertsonen emandako laguntza) aukera ematen du laguntzak emateko erabakiak dirulaguntzen arazko izaeran eraginik ez duela esateko.

B- Kexa honetan, baloratu beharreko beste alderdi bat zegoen: beste interesatu batzuk kexa egin duenaren asmoa kontuan hartzeko erabakiaren eraginpean gelditzea.

Horri dagokionez, erabakiaren ondorioz beste eskabide batek baldintzak (abendua-ren 23ko 328/2003 Dekretuak ikuspegi formaletik eta materialetik ezarritako baldintzak) zorrotz betetzen baditu, Arartekoaren erakunde honek egindako balorazioa hirugarren horrena baino eskubide hobea edukitzearen baldintzapean egongo da.

- Emaiza

Txosten zehatz batean, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila ez zegoen ados gure informazio eskabidean iradokitako aukerarekin, eta laguntza deialdien arauzko izaera nabarmentzen zen.

Txostenean jasotako oharra ez ziren gure informazio eskabidean jasotakoaren aurkakoak, erabakiaren berrikuspen antolamenduaren aurkakoa ez izateari dagokionez. Hala eta guztiz ere, gure ustez, deialdiaren kudeaketari loturiko gorabeherak oztopatu egin dezakete kexa eragin duenaren moduko egoeren egiaztapena, eta beraz, eten egin genuen gure esku-hartzea.

## 13. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

### 13.1. SARRERA

Administrazioek hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren bitartez egiten duten esku-hartzeak herritarrei eragiten die, garrantzi ukaezina duten hirigintza-jardueren bidez, esate baterako, eraikinen eta hiriak eta hiri-kokalekuak osatzen dituzten eremuen plangintza eginda, eta leku horiek garatuta, berrituta eta handituta.

Horren ondorioz, batzuetan, polemikak eta interes-gatazkak sortzen dira, eta horrek, azkenean, erreklamazioak ekartzen ditu Arartekoaren erakundera. Esku hartzeko eskaera, askotan, beren posizioa argitu eta ulertu nahi dutelako egiten dute erreklamazioak, hiri-antolamenduko gizarte-sistema antzeko honetan, bai herritarrak direlako, bai ondare-interesak dituzten jabeak direlako.

Edozelan ere, arlo horren barruan, honakoa betetzeko oraindik dagoen zailtasun ikaragarria da kexa jartzeko arrazoi nagusia: etxebizitza duin eta egokia edukitzeko guztiok dugun eskubide konstituzionala.

Pertsonen jabetza pribaturako duten eskubidea aldarrikatzea da Arartekoan kexak jartzeko beste arrazoi bat. Horrez gain, aldarrikatzen dute jabetza pribatu horrek oreka gorde behar duela Konstituzioaren 33. artikulua jasotzen duen funtzio sozialarekin zein erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortzen dituen gainbalioetan gizarteari dagokion parte-hartzearekin.

Hirugarrenik, erakunde honetara datozen herritarren talde gehienek proposatzen dute hiri-ingurune egoki eta iraunkorrerako eskubidea, bereziki, lurzoru ez urbanizatuaren erabilera arrazionala eskatzen da, amaitu daitekeen baliabidea delako, eta urria ere badelako. Izan ere, gizakia lurzoru horiek kolonizatzen ari da, ematen dizkion erabilerekin. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren datuen arabera –EAEko ingurumenaren egoera 2004an–, 1994-2004 urteetan 7.529 hektareatan handitu da EAEn “artifizializatutako” azalera, hau da, Bilbo eta Erreterria udalerrien neurri bereko azalera. Biztanleen kopuruak, berriz, ia berdin jarraitu du. Txosten horretan bertan ondorioztatzen denez, etxebizitzak eraikitzea bideratutako luraren kopurua handitzea izan da gorakada horren funtsezko arrazoiak. Urbanizatutako lurzoruaren eskakizunaren gorakada hori ekarri dezaketen arrazoiaren konplexutasuna alde batera utzita, hiri-kokapenen eredu iraunkorrak lortzera zuzendutako hirigintza eta hirigintza-plangintza zaintzea da hiri-kudeaketa iraunkorreko edozein estrategiaren helburua, hiri-ingurumenari buruz egindako estrategia tematikorako Europako Batzordeak proposatutako jardueren arabera [COM (2004)60 final]. Horretarako, zalantzarik gabe, urbanizatu gabeko lurzoria ondasun eta baliabide natural urritzat hartu behar da, hiri- eta lurralde-antolamenduko tresnekin kolonizaziotik babestu behar dena.

Amaitzeko, pertsona eta talde batzuek konponbideak eskatzen dituzte, lurraldea edo hirigintza antolatzeari buruzko erabakiak hartzeko orduan herritarrek parte hartzeko sistemak dituen inperfekzioei edo gabeziei aurre egiteko.

**Estatistikaren atalari** dagokionez, 2005ean 100 kexa jaso dira –kexa guztien % 9,15–; beraz, arlo hau da gure lanean garrantzi handiena duenetako bat.

Kexak azpiatalka sailkatuz gero:

–Hirigintza-diziplina eta hondakinak .....	52
–Irisgarritasuna .....	14
–Hirigintza-antolamendua .....	14
–Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	12
–Hirigintzaren kudeaketa .....	6
–Bestelako alderdiak .....	1
–Kontratazio-erregimena, ondarea eta administrazio-erantzukizuna .....	1

Aurreko urteetan egin dugun bezala, ezin dugu atal hau hasi Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza arautzen duen tresna arau-emaile propiorik onartuta ez dagoela aipatu gabe. Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak ez zuen onartua izateko beharrezko gehiengoa izan Eusko Legebiltzarrean. Arrazoi hori dela-eta, proiektua berriro aurkeztu ostean, legebiltzarrean jarraitzen du, beste eztabaida baterako. Proiektu horrekin lotuta, hirigintza-plangintzari buruzko atalean eragile urbanizatzaileari –testu formatiboko proiektu honetan sartua– buruzko hausnarketa batzuk jaso ditugu. Lanpostu horrek nolabaiteko eztabaida sortu du beste autonomia erkidego batzuetan.

Lurzoruaren **hirigintza-antolamenduari** buruzko kexen artean, oraindik nabarmentzen dira udal plangintzen aldaketekin ados ez dauden taldeek edo herritarrek egin dituzten erreklamazioak. Erreklamatu dituzten aldaketen bidez lurzoruen erabilerak aldatzea baimendu da, eta pertsona horiek ez daude ados aldaketekin, hainbat arrazoiengatik. Lurzorua erabilera tradizionalerako –landatarra edo nekazaritzakoa– izaten jarraitzea da aldaketaren kontra egoteko arrazoietako bat, hiri-garapenetatik babesteko (443/2005 kexa ikusi).

Planean aurreikusitako erabilera-aldaketekin ados ez egoteko arrazoi hauek ere badituzte herritarrek: proiektuaren ondorio sozialak, ingurumenekoak edo bizilagunen eta albokoen ondare-onuraren galera ere, plangintza-aldaketa justifikatzen duena. Epe horretan, erreklamazioak egin dira merkataritza-gune bat ezartzera zuzendutako lurzoruak berriro sailkatzearen kontra, esate baterako, Muxikan (1218/2005) edo Ondarroan eta Berriatuan (1344/2005).

Hirigintza-garapenaren eredia eta lurzoruen azken helburua aukeratzeari dagokionez, erakunde honen iritziz, tokiko administrazioek irizpide-askatasunerako tarte handia dute udalerririk antolatzeke proposamenak egiteko eta diseinatzeke orduan, ordenamendu juridikoak ematen dizkien eskumenekin. Hori dela-eta, egoera batzuetan, udalerririk barruko lursailak zertara bideratuko diren erabaki behar da nahitaez, udalerririk garapenean erabiltzen diren irizpide nagusien arabera. Plangintzak egiteko eskubideak erabilera batzuk beste batzuen gainetik jartzea dakar, eta baliabide mugatu baten, hau da, lurzoruen erabilera baldintzatzen du. Eskubide hori erabiltzea horretarako legez aukeratu diren ordezkarien politikoko organoei dagokie. Edozelan ere, plangintzako tresnak tramitzeko konplexuak diren xedapen orokorrak dira, eta hainbat administrazioek esku hartzen dute tramitazio horretan. Plangintza onartzeko fasean, herritarrek parte hartzeko tramite bat dago, eta hor udalerririk aurreikusi den antolamenduari alegazioak egin ahal zaizkio. Prozesu horretan, herritar guztiek dute gaiari buruzko iradokizunak edo alegazioak egiteko aukera, eta proposamen horiek onartu behar ez

diren arren, udaleko osoko bilkurak era formalean erantzun beharko ditu, erantzun arrazoitu baten bitartez.

Nolanahi ere, komeni da onartzea **herritarrek parte hartzeko** dauden tresnek ez dutela balio izan honakoak orokortzeko: pertsonak edo elkarteek lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari buruzko erabaki publikoak hartzen era aktiboan parte hartzeko prozesu lokalak, hirigintzari buruzko legeek printzipio orokor batzuk ezartzen badituzte ere plangintza eta kudeaketako prozesuetan parte-hartze publikoa egongo dela bermatzeko. Gutxi dira, eta unean unekoak, herritarrei hirigintza antolatzeko prozesuetan parte hartzea ahalbidetzen eta errazten dieten foro edo metodo deliberatzaileekin egin diren esperientzia lokalak. Parte hartzeko prozesu horiek erabakiak hartu baino lehenago egin behar dira, oraindik aukera guztiak posible direnean, eta ez erabakia hartuta dagoenean edo konpromisoak daudenean jabearekin edo jardueraren sustatzailearekin, proiektuaren alde edo kontra. Hori diote nazioarteko tresna berriek, esate baterako, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, erabakietan publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko nazioarteko hitzarmenak –Aarhus hitzarmena–. Hitzarmen hori 2004ko abenduan berretsi zuen estatuak eta 2005eko martxoan sartu zen indarrean. Hitzarmenak beharrezkotzat jotzen du neurriak hartzea herritarren parte hartzea prozeduraren abiapuntuan hasteko, hau da, aukera eta irtenbide guztiak oraindik posible direnean eta herritarrek benetako eragina izan dezaketenean. Alde horretatik, hainbat espedientetan izan dugu eragina, esate baterako, Ordizia udalerrian dagoen Oianguko parkeari buruzkoan. Udalerrri horretan, parke publikoaren ustiapena esleitzeko kontratu baten bitartez, erabaki administratiboak hartzen ari ziren, eta erabaki horiek baldintzatu egiten zituzten herriguneko parke horren inguruari buruzko garapen bereziko plan batean zehaztuko ziren etorkizuneko erabilerak (547/2005).

Bestalde, funtsezkoa da hirigintza-jarduerei buruzko informazioa gardena eta berehalakoa izatea. Horretarako, administrazioek lehenetsuna eman behar diote enpleguari eta teknika eta bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoko aplikatzeari, informazioaren gizartea ahalbidetzen digutelako.

**Hirigintzaren kudeaketarekin** lotuta, lursailen jabe txikiak aurkezten dituzten salaketak izaten dira ohiko auziak. Jabe horiek arduratu egiten dira konpentsazio-, birzaititze- edo desjabetze-proiektuen eraginpean daudenean. Askotan arazo nagusia informazio eza izaten da edo beren egoera eta egoera horrek beren eskubideetan izango duen eragina ez ulertzea. Atal honetan beharrezkoa da udal administrazioek ahalegin bat egitea, informazio argia eta etengabekoa emateko lurzoruen jabeak, hirigintzaren kudeaketak dituen eraginei buruz.

Arartekoak izan zuen bilera aipatu nahi dugu, Arabako Eraikuntzako Enpresaburuen Elkartearekin (UNECA). Horren bitartez, erakunde honi jakinarazi nahi zitzaizkion enpresaburuen elkarte horrek egindako iradokizun batzuk, Eusko Legebiltzarra tramitatzeko ari den Lurzoruen eta Hirigintzaren Lege-proiektuari buruz. Elkarteak Arartekoa informatu nahi zuen lege-proiektuak proposatzen duen hirigintza-kudeaketako ereduak lurzoruen jabeengan izan dezakeen eraginari buruz. Zehazki, elkarteak zalantzan jartzen zuen konpentsazio bidezko kudeaketa-sistema desagertzea, sistema horrek ahalbidetzen baitzuen jabeen ekimena, eta eragile urbanizatzaileari buruzko arauan sartutako erregulazioa ere zalantzan jarri zuen. Era berean, zenbait erkidegotan nolabaiteko esperientzia dute eragile urbanizatzailearekin, esaterako, Valentziakoan, eta UNECAk adierazi zuen eredu pribatua eragile urbanizatzailearen ereduagatik ordezkatzeko babes eza sortu duela

hirigintza-jardueren programa horiek eragindako jabe txikiengan. Haien iritziz, babes ezaren arrazoia da eragile urbanizatzailea jabeak baino egoera hobean egon daitekeela batzuetan urbanizatzeko programak tramitatzekoan. Bereziki aipatu zuen jabeek ezin dutela parte hartu eragile urbanizatzaileekin berdintasunean, esate baterako, kontratu publikoen legeek egiten dituzten sailkatzeko eskakizunei dagokienez. Administrazio oneko printzipioak jasotzeko beharra ere aipatu zuen, esate baterako, urbanizazioaren prezioa edo kostu txikiagoa. Horren antzeko egoerak direla-eta, Valentziako Autonomia Erkidegoan Bidegabekeriaren Sindikoak esku hartu du, eta eragindako pertsonak eskaera bat egin dute Europako Parlamentuko eskaeren batzordean. Horren ondorioz, Fourtou txostena egin zen, eta Europako Parlamentuko Osoko Bilkurak onartu egin zuen. Valentziako arautegian aldaketak egitea eskatzen duen ebazpen-proposamen bati buruzkoa da txosten hori.

Edozein Biltzar Legegileri zalantzarik gabe dagokion legeak egiteko eskumenean eragin gabe, uste dugu aurrekari horiek hausnartzeko balio behar diotela gure Legebiltzarrari; bereziki, urbanizazio-jarduerako programa batek eragindako jabe txikien egoera juridikoari buruz eta jarduerak eragindako titular eta eskubideei hasierako onarpenakordioa era frogagarrian jakinarazteko beharrari buruz (Hirigintzaren Lege-proiektuko 90. artikulua). Urbanizazio-kargen kostua argi ezartzeko beharrari dagokionez, komeniko litzateke aintzat hartzea eragile urbanizatzaileak hitzartu dituen urbanizazio-lan osagarrien edo hobetzeko lanen gastuetan jabeak ez sartzeko aukera eta, era berean, jabeak bere ordainketa atzeratu dadin eskatzeko aukera izan dezan aurreikustea, urbanizatzeko lanak amaitu arte, egoera ekonomiko berezien arabera (Hirigintzaren Lege-proiektuko 147. artikulua).

**Hirigintza-diziplina** azpiatalak esku hartzeko eskaera asko ekartzen dizkio erakunde honi. Kexatzeko arrazoi nagusia da udalek ez dutela esku hartzen hirigintzako arauak apurtzen direnean. Diotenez, arau-hauste horiek udaleko zerbitzuetan salatu diren arren, ikuskatzeko zerbitzuek ez dute esku-hartze egokirik egin edo esku-hartzeak ez dira eraginkorrak izan hirigintzako legeak betetzen direla bermatzeko.

Hirigintza-legezketasunaren defentsak udal plangintzan jasotako ebazpenak be-tearazteko balio behar du. Hori dela-eta, udalek ahaleginak egin behar dituzte, arauak hausten dituenaren jarduera faltak interes publikoa kaltetzea ekiditeko. Hori hirigintza-planen aurreikuspenak betetzen direla ikuskatzetik sortzen da. Ikusi dugunez, udal askoren aitzakia izaten da lanen sustatzaileak ez duela esku hartzen, horrela, modu eraginkorrean eta legeek aurreikusitako epeen arabera ez esku hartzeko. Udalek nahiko neurri dituzte administrazioaren ebazpenak betetzen direla bermatzeko, eta erabili egin behar dituzte.

Alderantziz, kexatzeko beste arrazoi bat udalak hartzen dituen erabakiekin ados ez egotea da, alegia, udal plangintzarekin bat ez datozen proiektuei baimena ez emateko erabakiekin ados ez egotea. Gai horri dagokionez, erakunde honek egiten duen gauza bakarra haxe azaltzea da: norberaren jabetzako lursailetan egin nahi den edozein eraikuntza, lan edo erabilerak udalaren hirigintza-baimena behar du.

Interes berezia du lurzoru urbanizaezin babestu eta lurzoru urbanizaezin arrunt gisa sailkatutako lurzoru-urbanizazio-diziplinako eskumenak erabiltzeko moduak. Martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 1.2 artikulua jasotzen duenez, hau da, lurzoru-erregimenetako eta hiri-antolamenduko neurri urgenteei buruzko Legeak jasotzen duenez, debekatuta dago horrelako lurzoru-urbanizazio-diziplinako erabilerak, eta erabili egin behar dituzte.

nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen bati lotuta daudenean izan ezik. Horrez gain, lurzorua ren kategoria horretan, lan publikoekin lotutako eraikuntzak edo instalazioak baimendu daitezke, baita erabilera publikoko edo gizarte intereseko eraikinak edo instalazioak ere, egin ahal izateko lurzoru urbanizaezina behar dutenean. Baimenen erregimen hori Gipuzkoako Lurralde Historikoan bakarrik argitu da, azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuaren bitartez. Dekretu hori lurzoru urbanizaezineko baimenen eta lizentzien gaineko jarduera koordinatzeari buruzkoa da, baimenak ezartzeko, zein nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen bati lotutako etxebizitzaren egokitasuna neurtzeko. Meñaka udalerrian, lurzoru mota horretan, etxebizitza bat handitzearekin lotuta egin diren jarduerari buruzko kexa baten laburpena dago kexen atalean.

Gai horrekin lotuta, Zubietako Herri Batzarraren erreklamazio bat jaso dugu (1276/2005). Kexa horretan, galdetu zaigu ea zein iritzi dugun telebista emititzeko zentro bat jartzeko lanei buruz; zentro hori Zubietako Biribilondo mendian jarriko da (Donostia). Horrez gain, Artzabaleta baserritik instalazio horretara joateko bidean egingo diren lanen betearazpenari buruzko kontsulta ere egin digu, udalerraren lursailetatik pasatzen baitira guztiak ere. Batzorde horrek hainbat idazki aurkeztu ditu Donostiako Udalean eta Gipuzkoako Foru Aldundian. Idazki horietan adierazi da orain arte eman diren baimenek telebista emititzeko zentroa bakarrik aipatzen dutela, baina ez dituztela kontuan hartu instalazio horretara heltzeko bidea handitzeko lanak. Hauexek dira proiektu horrek legearen barruan egoteko dituen arazoak, besteak beste: lan horiek urbanizaezin gisa sailkatuta dagoen lurzorutik pasatzen dira –zati batean, erabilera publikokoa den mendi batetik–, astialdirako esparru baten inguruan daude, eta Andatzako estazio megalitikoko babes-eremuaren barruan. Erreklamazioa egin dutenek errepikatu dute bidea handitzeko lan horrek garrantzi handia duela, instalaziora iristeko bidearen inguruan dauden lursailak hirigintzaren aldetik aldatzea baimendu dezakeelako.

## 13.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Irisgarritasuna

⇒ *Irisgarritasun-arazoak duela gutxi berritutako anbulatorio batean (9/2005/OF)*

#### • Erreklamazioa

Komunikabideen bitartez, Ararteko erakundeak jakin zuen Bilboko Areiltza Doktoarearen kaleko anbulatorio batean irisgarritasun-arazo bat zegoela.

Kexak zioenez, anbulatorioak kanpoko sarrera bat zuen, eta igogailu bat jarri zen sarrera horretan. Hala ere, igogailu hori jarri bazen ere, ez zen lortu gurpil-aukian dabiltzan pertsonak sarrera horretatik sartu ahal izatea, igogailura iristeko beharrezkoa baitzen maila txiki bat igotzea, maila hori ez zelako kendu lanak egiterakoan. Maila horrek zaildu egiten zuen gurpil-aulkian zebiltzan anbulatorioko erabiltzaileak osasun-etxe horretara inoren laguntzarik gabe sartu ahal izatea.

- Azterketa

Arazoa ikusita, erakunde honek Osakidetzari eskatu zion igogailua jartzen amaitzeko eta maila hori laster kentzeko, gurpil-aulkian ibiltzen ziren pertsona ezinduei anbulatorioan inoren laguntzarik gabe sartzea eragozten zielako.

- Emaita

Igorri genion gutunari erantzunez, arazoa konponduko zuela jakinarazi zigun Osakidetzak. Horretarako, maila kenduko zuen alaka bat egingo zen, eta egitura eta kolorazio ezberdineko seinaleztatzeko zerrenda jarriko zuen, zoladuraren bestelakoa izan zedin. Azken neurri horrek helburu bikoitza zuen: sarbide hori erabiliko zutenei informazioa ematea eta oharra egitea.

## B) Hirigintza-diziplina eta hondakinak

⇒ *Ez legezkontasunarekin ez plangintzarekin bat ez datorren hirigintza-baimena aztertzea (965/2004)*

- Erreklamazioa

Meñaka udalerriko herritar batek hainbat galdera egin zizkigun eraikuntza bati buruz. Eraikin hori lurzoru urbanizaezinean baimendu zen korta gisa erabiltzeko.

- Azterketa

Interesatuak eman zigun dokumentazioa aztertuta, gure iritzia izan zen udalak egin zituen administrazio-jarduerak ez zetozeela bat ez plangintzarekin ezta gainerako hirigintza-legezkontasunarekin ere. Zehazki, 1999an korta bat egiteko eman zen baimena eta 2003an estalki bat egiteko eman zena ziren jarduera horiek.

Honakoa zen egoera:

1. 1999ko apirilaren 14ko Gobernu Batzordearen akordioak **korta** bat eraikitze-ko baimena eman zuen, eta baimena horrek urratu egiten zuen ordenamendu juridikoa. Hauek ziren arrazoiak:

- Meñaka udalerriko lurzoru urbanizaezinean, kortarako eraikuntza bat egiteko aukera bakarra zen eraikuntza hori nekazaritzako ustiapenarako izatea.
- Korta ez zen nekazaritzako ustiapen baten zatia, Bizkaiko Nekazaritza Sailko foru diputatuak igorritako jakinarazpenean ulertzen zenaren arabera. Jakinarazpen horretan zioen ez zegoela erregistratuta, baina erregistratuta egotea ez zela nahitaezkoa.
- Erabilera publikokoa edo nahitaezko interes sozialekoa zela zioen adierazpena beharko zuen nekazaritza-ustiapen baten zati ez zen bestelako edozein eraikuntzak, baimena eskuratu ahal izateko. Prozedura hori ez zen jarraitu, eta ez zirudien kasu zehatz horretan aplikatu zitekeenik.
- Nolanahi ere, garajerako erabiltzea debekatuta zegoen mota horretako eraikuntzetan.



- Amaitzeko, egin nahi zen eraikuntzarako, emandako obra-lizentzia behar zen eta, gainera, korta jartzeko eta jardueragatik zabaltzeko baimena ere eskatzen zuen aurreikusitako kortarako erabilerak, aplikatu behar ziren neurri zuzentzaileak zehaztuta, baina ez zegoen jasota horrelakorik tramitatu zenik.

2. 2003an eraikitzeko baimena eman zen **korta-garajearen** estalkia eta fatxada egiteko, eta baimena horrek ere ordenamendu juridikoa urratzen zuen, arrazoi hauek zirela-eta:

- Lehendik zegoen baimendutako erabilera zuen eraikuntza bat berritzeko baimenaren bitartez ezin zen legeztatu erabilera ezberdin bat, plangintza orokorraren arabera, eraikin hori debekatuta bazegoen.
- Aztertzen ari garen eraikinerako baimenduta zegoen erabilera kortarena zen.
- Ezin zen baimena eman estalkia eta fatxada egiteko, horrela bi solairu egiten zirelako. Izan ere, hasierako estalkiaren forjaketa solairu bihurtuko zen horren bitartez, eta Arau Subsidiarioetan solairu bakarra onartzen zen nekazaritza eta abeltzaintzako instalazio eta industrietarako; baimendu zitezkeen bakarrak. 1945. urtea baino lehenagoko baserrietarako arauak ere ezin ziren aplikatu.
- Berritutako eraikinari ezkutuko erabilera bat eman nahi zitzaion, etxebizitzarena –egurrezko leihoak, teilatuko leihoak, atzealdeko sarrera, eskailerak, etab.–. Erabilera hori erabat debekatuta dago lurzoru urbanizaezinean, bideragarria den nekazaritzako ustiapen bati lotuta dagoenean salbu.

Hori guztia dela-eta, gure iritzia izan zen Meñakako Udalak **neurri egokiak hartu behar zituela indarrean dagoen legezkotasuna berriro ezartzeko**. 1976ko apirilaren 4ko Lurzoruaren Legeko Testu Bategineko 187.1 artikulua zehazten duenez, Legean definitutako hirigintzako arauen bat agerian eta larriki hausten duten baimenen edukiak berrikusi egin beharko dira. Udalbatzak baimena eman zuenetik lau urteko epean egin beharko da hori, eta baimena eman zuen udalbatzak berrikusi beharko du, Administrazio Prozedurako Legeko 110. artikuluko prozeduretako baten bitartez (orain Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 103. artikulua).

Lurzoruaren Legeko Testu Bategineko 226.2. artikulua ezartzen duenez, printzipioz larriak izango dira honakoei buruzko arauak ez betetzeagatik egiten diren arau-hausteak: partzelazioak, lurzoruaren erabilera, garaiera, bolumena eta eraikinen kokalekua eta partzelen azalera baimendutako okupazioa.

Bestalde, bide administratiboko jardueran baliogabetu daitezkeen jardueren berrikusketa arautzen du azaroaren 26ko 30/92 Legeak, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 103. artikuluan. Zehazki, honakoa zehazten du 1. atalean:

*“Administrazio publikoek kaltegarritzat hartu ahal izango dituzte interes publikoarentzat interesatuen alde egiten diren jarduerak, baliogabetu daitezkeenean, Lege honetako 63. artikulua agintzen duenaren arabera, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan gero aurka egin izateko”.*

Bestalde, 63. artikulua hauxe dio:

*“Baliogabetu egin daitezke ordena juridikoan edozein arau-hauste egiten duten administrazioaren jarduerak, boterea beste baten esku jartzeara ere”.*

Alde horretatik, gure iritziz, udalak espedientea hasi behar zuen, 2003an emandako eraikitze baimena kaltegarria zela adierazteko, interesatuaren aldeko jarduerak zelako eta ez zelako igaro lau urteko epea baimena eman zenetik.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen Legeko 103. artikulua arabera, jarraitu behar zen prozedurak interesatuekin alde aurretik audientzia egitea eskatzen zuen, eta udalbatzaren osoko bilkurak kaltegarritzat jotzea, gero akordioaren aurka egin ahal izateko administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan. Administrazioarekiko auzietako bideak huts eginez gero, eraikitze baimena baliogabetzea egokia izango litzateke, eta, horren ondorioz egindako eraikina eraistea ere.

1999ko udalaren ebazpenaren aurrean jarduteko bideak aztertzeak beste zerbaitezkarren: legeak aurreikusten duen berrikusteko lau urteko epea igarora zenez, ezin zen erabili 2003an emandako baimenerako aipatutako bide bera.

1999ko baimenean, salbuespenezko baldintzak zeuden, eraikuntzari eman nahi zitzaion erabileragatik. Emandako eraikitze baimena eraikina kortarako erabiltzeko bakarrik izan zen, baimendu zitekeen erabilera bakarra, legeak aurreikusitako prozedura jarraituta. Hortaz, egindako eraikina ezin zen eraitsi lehenago aipatutako bideari jarraituz, baimena eman zenetik igaro zen denboragatik, baina udalak eragotzi egin behar zuen onartutakoaren bestelakoa zen edozein erabilera. Gainera, baimendutako erabilerak ere legeak aurreikusitako baldintzak bete behar zituen, hau da: jarduteko eta irekitzeko baimena edukitzea, eta nekazaritzako ustiapenari dagokion erregistroa egitea.

Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuak ezartzen du otsailaren 27ko 3/1998 Legeak aurreikusitako jarduerarako baimena eskuratzeko salbuesita dauden jardueren zerrenda, zehazki 3. artikulua. Horren arabera, aurreikusitako jarduerak egiten hasi baino lehenago, besteak beste, lurzoru urbanizaezinean (II. eranskina), titularrak behartuta daude aplikatzekoak diren IV. eranskineko ataletan jasotako dokumentazio teknikoa aurkeztera, jarduerak bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera. Horrez gain, hirugarren artikuluko 2. eta 3. ataletan deskribatzen den prozedura jarraitu behar dute, baita laugarren artikuluan ezarritakoa ere, jarduerak baimendu ahal izateko.

Horrenbestez, kortako jarduerak legeztatze eskatu behar zuen udalak, eta titularrari eskatu behar zion dokumentazio egokia aurkezteko, zentzuzko epe batean. Agindutakoa bete gabe epe hori igarota, udalak behin betiko eragotzi behar zituen baimendutako erabilerak.

- Emaizta

Meñakako Udalak akordio bat hartu zuen osoko bilkuran, 2003an baimendutako korta-garajearen estalkia eta fatxada egiteko lanei emandako hirigintza-lizentzia berrikusteko prozedura hasteko.

### C) Hirigintzaren kudeaketa

⇒ *Erabilera publikoko urbanizazio pribatuak mantentzeko eta kontserbatzeko gastuak (821/2003)*

#### • Erreklamazioa

Mungiako udalerrian elkarlanean aritzen den hirigintza-erakunde batek honi buruzko iritzia eskatu zigan: Udal horrek ez zuen erantzun egindako eskaera bat, udalaren eta erakunde horren arteko hitzarmen bat egiteko. Hitzarmen horren bitartez, komunitate bateko urbanizazioaren parte diren ondasun eta zerbitzu publikoak mantendu eta kontserbatzeko erregimen berria arautu behar zen. Erakunde horren ustez, urbanizazio-gastuak ordaintzeko betebeharra –jabeei emandako betebeharragatik bazen ere, plangintzaren xedapenen arabera– garestiegia zen komunitatearentzat; beraz, udalari eskatu zion gastu horiek bere gain hartzeko edo gastuen zati bat ordaintzeko.

#### • Azterketa

Udalak jakinarazi zigunez, ez zuen erantzunik eman oraindik zabalik jarraitzen zuelako bien arteko komunikatzeko bide arruntak, eta lankidetzak-akordio baten zain zeudelako. Bestalde, elkarlanerako hirigintza-erakunde horrek desegiteko baimena eskatu zuen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak horri buruz egingo zuen txostenaren zain zegoen.

Urbanizazioa kontserbatzeko betebeharrari dagokionez, urbanizazioaren jabeei urbanizazioa kontserbatzeko betebeharra eta zama ezartzeko baimena ematen du gure autonomia erkidegoan aplikatzekoa den arautegiak, plangintzaren bitartez, denborazko mugarik gabe.

Hirigintza Kudeatzeko Araudiko 67. artikuluan aldarrikatzen da urbanizazioa kontserbatzeko printzipio nagusia. Artikulu horrek ezartzen duenez, jarduten ari den administrazioak kontserbatu beharko ditu urbanizatzeko lanak, eta zerbitzu publikoen hornidurak eta instalazioak mantendu beharko ditu, horien lagapena egin denean. Hortik ondorioztatzen da jabeek kontserbatzeko duten beharra denbora mugatu baterako dela, eta urbanizatzeko lanak administrazioari lagatzen zaizkionean amaitzen dela. Hala ere, salbuespenetan, Hirigintza Kudeatzeko Araudiko 25.3 artikuluan jasotako kasuetan, 68. artikuluekin bat, posiblea da betebeharrak hori ez amaitzea, plangintzak hori agintzen duenean edo lege-xedapenengatik berariaz datorrenean.

Beste autonomia erkidego batzuetan epe zehatz bat aurreikusi dute –esate baterako, Katalunian, epea bost urtetan jarri dute, Kataluniako 1/1990 Legegintzako Dekretuaren bitartez–. Hala ere, gure autonomia erkidegoan, Hirigintza Kudeatzeko Araudian aurreikusitakoa aplikatu behar da, beste lege-esparru bat onartu arte.

#### • Eraitza

Lehenago aipatutakoan eraginik izan gabe, aurrekoetan (2003ko urteko txosteneko gomendio orokorra), erakunde honen iritzia izan da jabetza pribatu baten erabilera publikoa dagoenean, udal administrazioak bere gain hartu beharko lituzkeela gastu jakin batzuk, hain zuzen ere, ondasunak mantendu eta kontserbatzeak sortzen dituen gastuak.

⇒ *Partzelazioa berriro egiteko proiektu baten tramitazioarekin ados ez egotea (959/2005)*

- Erreklamazioa

Gorlizko herritar batzuek adierazi ziguten ez zeudela ados partzelazioa berriro egiteko proiektu batean udalak izan zuen jarduteko moduarekin. Zehazki, haien iritziz, udalak epailearen sententzia bat ez zuen bete. Epai horrek onartu egiten zien erreklamazioa egin zutenei eurek zirela lursail-zerrenda baten titularrak, eta ez alboko lursailaren jabeak. Hortaz, proiektua aldatzea eskatzen zuten; hau da, emandako lursailak zein partzelazioaren ondorioz sortuko ziren lursailak aldatzea, beren ustez sortuko zen egoera berria fisikoki erakusteko.

- Azterketa

Udalera jo genuen erreklamazioa egin zutenek aipatutako gai ei buruzko informazioa eskuratzeko. Jasotako informazioa aztertuta, ikusi genuenaren arabera, epaiaren eta erreklamazioa egin zutenek aurkeztutako berraztertze ko errekursoaren ondorioz, partzelazioa berriro egiteko proiektua aldatu zen. Hala ere, ez ziren fisikoki aldatu, hau da, ez ziren aldatu partzelazioaren ondorioz sortuko ziren partzelak, baizik eta alderdi biei esleitutako eskubideak aldatu ziren; beraz, ez zen egin eragindakoe k eskatutakoa. Txosten teknikoak adierazten zuenez, udalak ez zuen egoki ikusi partzelazioaren ondorioz sortuko ziren partzela horiek aldatzea, honakoak kontuan hartzen zituzten irizpideetan oinarrituta: gutxiene ko dimentsioak edo kalearenganako egoera, partzelaren sakonera, eraikinen arteko aldea, etab.

Partzelazioaren ondorioz sortuko zen partzela bakoitzaren azalerako metro koadroak ez dira horrelako partzelazioen behin betiko elementua, ezberdintasunak ez badira oso handiak. Horrelakoetan balioa duena ematen diren eraikitze ko eskubideak dira, eta banatzen diren hirigintza-zamak.

Izan ere, eman ziren lursail biak alderatzen baditugu –epaiak ebatzitakoaren arabera–, erreklamazioa egin zutenek emandako partzelak 1.562,01 m<sup>2</sup> zituen, eta 1.130,81 m<sup>2</sup>-ko partzela esleitu zieten partzelazioaren ondorioz. Albokoak emandako partzelak, berriz, 1.785 m<sup>2</sup> zituen, eta 1.023,88 m<sup>2</sup>-ko edukiera zuen partzela esleitu zioten. Beraz, argi geratzen zen partzela bakoitzak izango zuen azalera ez zela garrantzitsuena, baizik eta bakoitzak partzelan erabili zitzakeen eraikitze ko eskubideak.

Epai horren ondorioz, proiektua aldatu egin zen, eta albokoak, hasieran eskubide berberak eman zitzaizkion arren, bete behar gehiagori egin behar zien aurre, orain eskubide gehiago zituela konpentsatzeko. Erreklamazioa egin zutenek, berriz, eraikitze ko eskubide gehiago jaso zituzten, hasieran proiektuak adierazten zuena baino gehiago ematen zutela onartu zelako. Hala ere, eskubide gehiago zituztenez, bete behar gehiago ere bazituzten.

- Ema itza

Iritzi horiek igorri genizkien interesatuei, eta gure esku-hartzea amaitu genuen. Izan ere, tramitatutako partzelazioa berriro egiteko proiektuaren aldaketan epaia bete zela uste genuen.

## D) Hirigintzaren antolamendua

⇒ *Nekazaritzako lursailak erabilera industrialeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzearekin ados ez egotea (443/2005)*

### • Erreklamazioa

Lazkaoko herritar batek kexa-idazki bat aurkeztu zuen, bereak ziren landa-lurrei eragiten zien industrialde bat egiteko udalak zuen asmoa zela-eta.

Bere idazkian, erreklamazioa egin zuenak adierazi zigun ez zituela lurzoru horiek saldu nahi, eta ez zituela abelburuak kendu nahi, lurzoruak udalak aurreikusi zituen helburuetarako zuzentzeko. Izan ere, duela bi mendetik hona, bere familiaren lanbidea nekazaritza izan da.

Hori guztia dela-eta, informazioa eskatu zuen jarduera horiei aurre egiteko erabili zitzakeen bitartekoei buruz, eta jabe gisa zituen eskubideei buruz.

### • Azterketa

Gai horiek erregulatzen dituzten arauetara buruzko informazioa eman genion. Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeak zehazten duenez, lurzoruaren jabetzarako eskubidea funtzio sozialaren arabera arautuko da. Lege horretan arautzen diren lurzoruaren jabeen eskubide eta betebeharrak honakoaren arabera erabiliko dira: kasu bakoitzean aplikatu behar den hirigintzako legeriak ezartzen duen plangintzari, kudeaketari eta betearazpenari buruzko arautegiaren arabera (1. eta 12. artikulua).

Hortaz, adierazi genion udalek udalerriko lurralde osoaren antolamendua ezarri behar zutela, eta lurzoru legeak aurreikusten dituen hiru kategorietan sailkatu behar zutela: hiri-lurzorua, urbanizagarria eta urbanizaezina. Lurzoru-mota eta -kategoria bakoitzerako azalerak justifikatuta egon behar dira, dauden egoeren arabera, biztanleentzako kokalekuak, jarduerak edo zerbitzu kolektiboak jartzeko aurreikuspenaren arabera, besteak beste ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Plangintzako Araudiko 20. artikulua ezarritakoaren arabera.

Alde horretatik, udalari jakinarazi genion nahitaez eman behar zuela hirigintzari buruzko informazioa, baita aukeratutako garapen-eredua justifikatuko zuten azterketak eta proposatutako antolamenduaren deskribapena ere. Horrela, proposatuko lukeen antolamendu zehatza oinarrituta egongo litzateke, irizpide-askatasuna izan arren udalak aukera ezberdinen artean egokien ikusten duena aukeratzeko.

### • Eraitza

Eskatutako informazioa eman genion interesatuari eta tramitatutako kexa-espedientea amaitu genuen.

## 14. ETXEBIZITZA

### 14.1. SARRERA

Herritarrek etxebizitza eskuratzeko arazoak kezkatuta daudela igartzen da, aurtan ere, urtero-urtero bezala, administrazioak esparru honetan burutu dituen jarduerekin zerikusirik daukaten kexa piloa jaso dugulako. Horrexegatik, eta gai honetako politika publikoak gero eta autonomia handiagoz bideratzen direlako, Arartekoak gaiari bere alorra eskaini behar zaiola pentsatu du, etxebizitzaren alorra hirigintzaren alorretik bereiztuta, orain arte etxebizitza hirigintzaren alorreko azpi-atal modura sartzen baikenuen.

Etxebizitzaren alorrari buruz guztira 87 kexa jaso ditugu. Horietatik 62 Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailaren jardueren gainean ziren; proportzio garrantzitsua da, udal erakundeen jardueren kontra jotzen zuten 24en aldean, eta foru administrazioaren kontrako kexa bakarra zegoen. Diferentzia horren azalpena, ezberrik gabe, autonomi erakundeetatik gai honetaz jarduera piloa burutzen direla da.

Etxebizitza duin eta egokia eskura izatea herritarren eskubide modura jasota dago Konstituzioaren 47. artikuluan eta, horrela, legegilearentzako eta gainerako botere publiko eskudunentzako erreferentziatzako esparrua finkatzen da; legegileek eta botere publiko eskudunek, beraz, konstituzioko printzipio gidari honen garapena eta ezarpena pertsona guztiei hor dioena zuzentasunez gauza dakien bermatzeko moduan artikulatu beharko dute. Gure erakunde honek egiaztatu du, lehenagoko ekitaldietatik jada, Euskadin etxebizitza eskura izateko arazo larri eta orokorra dagoela, etxebizitza librearen prezioak, bai erosi bai alokatzeko orduan, izugarri garestiak direlako, eta horrek gero eta biztanleria multzo gehiago eta handiagoei ukitzen diela, eta etxebizitza babestuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin ere ekartzen duela. Erakunde honek garbi dauka etxebizitzari buruzko politika publikoek etxebizitza duin eta egokia eskura izatea errazten saiatu behar dutela, etxebizitzaren premiarik handiena duten biztanle sektoreak lehenetsiz.

Etxebizitzari buruzko arazo guztiak **hirigintza politiken** testuinguru zabalagoan kokatu behar badira ere, garrantzitsua da, halaber, lurzorua gaian esku hartzeko bitartekoak berez ez direla nahikoak etxebizitza beharrari aurre egiteko eta, alde horretatik, guztiz ezinbestekoa da etxebizitzari buruzko berariazko politikak artikulatzea. Etxebizitzen prezioen gorako joera geldiarazi, eta dagoen etxebizitza eskari izugarriari erantzungo dion eskaintza handiagoa sortzeko dagoen beharrak hirigintzaren alorrean burutzen ari diren lege erreformatan –bai estatu mailan, non oraindik erreforma hastapenetan baino ez dagoen, bai EAEko esparruan, non lurzorua gaian aldarrikatu nahi duten legea legebiltzarreko tramiteen urratsean dagoen– sostengu garrantzitsua aurki lezakeen arren, horrek ez du esan nahi etxebizitzari buruzko berariazko politika aktiboak ere behar izango ez direnik. Horiek dira, hain zuzen, etxebizitza eskueran izatearen arazoari zuzenean heltzen dion interbentzio publiko modura, arretarik handiena eskatu digutenak, zerga politiketako zein zeharkako beste politika batzuetako neurriak baino gehiago.

**Zerga politikari** dagokionez, etxebizitzako interbentzio publikorako estrategien barruan dagoenez, esan behar dugu etxebizitzari buruzko politika zuzenen ezinbesteko osagarria dela eta, horretarako, komeniko litzatekeela botere publiko arduradun desberdinek ahaleginak helburu berberetara bideratu eta batzea. Egiaztatu dugu 2005. urtean zehar alokairua sustatzeko neurriak abiarazi direla. Araban 33/2005 Foru

Arauk, Bizkaian 7/2005 Foru Arauk eta Gipuzkoan 9/2005 Arauk, “Etxebizitza Hutsaren Egitaraua” bultzatu eta sustatzen duen Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren esparruan, etxebizitzak alokatzera bultzatzeko hainbat zerga neurri aurreikusi dituzte. Neurri horiek eragina daukate Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergan, eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Agridunen gaineko Zergan. Etxebizitzen errentatzaileentzat eta maizterrentzat dira onuragarriak.

**Etxebizitzako politika zuzenei** dagokienez, aipatu behar dugu etxebizitza babes-tuen adjudikazio eta kontrolerako prozesuen kudeaketaren ondorioz dauden disfunczioek edo arazoek –gure erakundera kexa modura heltzen direnak– Euskadin gai horretan interbentzio publikoko politika aktibo bat ere badagoela adierazten dutela.

Horrela, bereziki Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzarako Euskal Zerbitzuaren lana goraiatu behar dugu, Euskadin etxebizitza babestuen ia eskaera guztiak kudeatzen dituelako, etxebizitza eskatzen dutenen erregistroaren bidez; egun 74.814 pertsona daude izena emanda. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren iturrien arabera, 2005ean guztira 1.318 etxebizitza babestu adjudikatu dira, zeinetatik 1.231 gainazal eskubidez, 87 alokairuan eta 44 jabetzan eman diren (azkeneko horiek Iruña Okako Udalaren aginduz). Adjudikatutako etxebizitza guztietatik, 944 Etxebizitza Sailaren sustapenen ondorioz, 330 Eusko Jaurlaritzak eta ekimen pribatuek hitzartutako sustapenen ondorioz, eta 44 udal sustapenen ondorioz eman dira. Etxebidek 2005ean adjudikatu dituen babes ofizialeko etxebizitzei, udalek, beren bitartekoeekin, udal sustapenetatik aterata zozketatu dituztenak gehitu behar zaizkie, baita notario aurrean, Etxebideko eskarigileen zerrendan oinarrituz, adjudikatu diren sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak eta, izatekotan, kooperatiba erregimenean sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak ere.

Bestalde, aipamen berezia mereziko lukete, etxebizitza politika zuzenen barruan, oraingo autonomi araudian aurreikusita ez dauden eta tokiko zenbait korporaziotan, beren eskuduntzez baliatuz, azkeneko urteotan burutzen ari diren etxebizitzen sustapenak –udal ekimenez prezio tasatua duten edo tasatuta dauden etxebizitzak ari gara–. Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Foru Aldundiek ere sustapen modu horretarako plan bana aurkeztu dute. Ararteko erakundearen ustez, lehenago zeharkako politiketarako esan dugun bezala, etxebizitzako politika zuzeneko ekimen horiek guztiak erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinaketa egokiaren esparruan ezarri behar dira, ahaleginak biltzeko, herritarren etxebizitza eskuratu ahal izateko dituzten arazoei batasunez aurre egiteko helburuaren inguruan.

2005eko datuek, BOEen adjudikazioen gainean, azkeneko urteotan etxebizitza babestuen eskaintza publikoak erakutsi duen gorako joerari eutsi diote, argi eta garbi. Horrela, azkeneko urteotan, Etxebidek Babes Ofizialeko 9.388 Etxebizitza zozketatu ditu, urtean 2.347 etxebizitza, batez beste.

	<b>2002</b>	<b>2003</b>	<b>2004</b>	<b>2005</b>	<b>DENERA</b>
<b>EAE</b>	2.346	3.021	2.703	1.318	9.388
<b>Araba</b>	813	1.057	1.125	540	3.535
<b>Bizkaia</b>	583	1.119	1.061	348	3.111
<b>Gipuzkoa</b>	950	845	517	430	2.742

Azkeneko lau urteotako adjudikazioen batez bestekoa aurreko lau urtekoarekin alderatzen badugu, ageri-agerian geratzen da jarduera publiko honen gorakada.

	1998 - 2001	2002 - 2005	Igoera
<b>EAE</b>	1.037 etxebizitza / urte	2.347 etxebizitza / urte	% 226,3

Alabaina, esan behar dugu EAEn azkeneko urteotan –eta 2005. urteak ere berdin utsi dio– etxebizitza babestuen alorrean garatu den jarduera batez ere etxebizitza babestu berriak sortzera bideratu dela, praktikan, saltzea lehenetsiz, jabetza erregimenean zein, 2003tik aurrera, gainazal eskubidez. Ezin dugu ahaztu babes publikoko etxebizitzak, erosiz, eskuratzearen ondoriozko lege erregimenak disfuntzio handiak dituela, besteak beste, jabetza horretaz (zein gainazal eskubideaz) gozatzen den urteetan etxebizitzaren beharraren frogaketa indarrean mantentzeko zailtasuna, urteetan zehar etxebizitza horietan bizi direnen baldintza pertsonal eta ekonomikoak nabarmen alda baitaitezke, horrek beharraren justifikazio bakarra duen gizarte onura eta inbertsio publikoa dakarren etxebizitza erabili eta gozatzeko ahalmenen aldaketan eragin barik. Horregatik, gogoratu behar da **alokairu erregimenera xedatuko diren etxebizitzak** gehitzeko neurriak sortzen segitzearen garrantzia, alokairua baita etxebizitzaren beharra asetzeko interes publikoak eta defentsa eginkorra ondoen bateratzen dituen erregimena eta, gainera, gizarte alokairuaren kasuan, pertsonarik behartsuenen etxebizitza eskuratzeko izatezko ahalbideetara beren beregi moldatzen baita. Alabaina, egiaztatu dugu oraindik ere alokairu erregimenean eskaintzen diren etxebizitzak EAEn guztira eskaintzen diren etxebizitzen oso proportzio txikia baino ez direla, eta bai Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, bai toki zein foru erakundeek etxebizitzaren alorrean esku hartzeko bultzatzen dituzten neurri publikoek alokairuko etxebizitzen eskaintza zabala sortzearen aldeko hautu sendo eta lehenetsizkoa egin beharko lukete, gure ustez. Erakunde honetan hainbat kexa jaso ditugu babes ofizialeko etxebizitzetarako (BOE) alokairuen prezio merkeagoak eskatuz, sarritan merkatuko prezioetatik oso hurbil egoten direla salatzen baitute. Egia da, bai, BOEko alokairuak –are gehiago gizarte etxebizitzen kasuan– eskarigileen diru sarreraren arabera finkatzen direla baina, hala ere, egiaztatu dugu zenbait BOEren alokairuen prezioak, pertsona askorentzat, diru sarreraren proportzio handiegia direla eta, hori, oro har, gure lurralde ingurunean etxebizitzaren alor osoari ukitzen dion arazoa da. Hartara, higiezinaren merkatuan gizarte alokairuak gehitzera bideratzen diren ahalegin publikoak guztiz beharrezkoak dira, eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunik handieneko gizarteko sektoreetara bideratu behar dira.

Gainerakoan, ohartu gara egun EAeko botere publikoen **etxebizitza alorreko** interbentzioari estaldura ematen dion **autonomi mailako araudi orokorrak** bi arazo formal garrantzitsu dituela, gure iritziz: batetik, arauen dispersioa eta arazketa teknikorik ez dagoela, azaleratzen ari diren kudeaketa arazoak doitzeko ondoz ondoko erreformen eta gero eta ugari eta konplexuagoak diren kasuen ondorioz, ez baita dauden arau guztiei koherentzia eta argitasunik emango dien kodeketa sistematizaturik egin eta, bestetik, izatez eta edukiz, lege erreserbako printzipioaren mende egon litezkeen esparru jakin batzuetara bideratutako jarduketari nahikoa estaldura emango dien lege mailako araurik



ere ez dagoela. Horregatik, arazo horiek konponduko dituen etxebizitzaren euskal legea aldarrikatzea komeniko litzatekeela adierazi behar dugu.

Nolanahi ere, araudi hori aplikatzeko arazoak tarteko eskatu zaio aurtan erakunde honi esku hartzeko eta, hori, bai babes ofizialeko etxebizitzaren eskarigileen erregistroan sartzeko eta etxebizitzaren ondorengo adjudikazioko prozedura formalari, bai etxebizitzaren beharra izatearen beraren eta frogatu beharraren azpiko arazoari dagokienez. Era berean, hainbat kexa planteatu zaizkigu jada adjudikatutako BOEetan dauden eraikuntza akatsei buruz.

**Etxebizitza babestuak eskuratzeko prozedurarekin** lotutako arazoei buruz, azpimarragarria da BOE eskatzen duten pertsonen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak herritar horiekiko harremanetarako erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduen ondorioz, sortzen zaizkien defentsa gabeziaren gaineko kexak zenbat gehitu diren. Arazo honen inguruan dugun kezkaren berri eman diogu Eusko Jaurlaritzako Sail horri, eta erantzun digute hurrengo Etxebizitzarako 2006-2009ko Plan Zuzendariaren esparruan kontuan hartu eta aztertzeko asmoa daukatela.

Egun, Etxebizitza Saileko lurralde ordezkarietzako iragarkien oholean argitaratzea da babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazio prozeduraren gaineko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 1.2. artikulua babesten duen formula orokorra. Esan behar dugu, gure iritziz, arautegiaren aurreikuspen hori ez dela bateragarria Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko 30/1992 Legean (APL) aurreikusten den jakinarazpen bide ziurragoarekin, batez ere, kontuan hartuta Etxebideko erregistroan etxebizitza eskatu dutenentzako komunikazioetarako formula orokorra dela, bide horretatik zer ekintza mota jakinaraziko den bereiztu barik. Gure iritziz, hori, sarritan, herritarren defentsa eskubideentzat kaltegarria izan daiteke. Horrela, pertsona desberdinek aurkeztu diguten kexaren oinarrian, egintza kaltegarri edo garesti batzuen berri izan ez dutela ageri da, adibidez, lau urtean behin berritu ezean erregistrotik ezabatzen zaituztela, edo BOE eskarigile estatusari eusteko gutxieneko diru sarrerak behar bezala frogatu ez dituzulako, eta halako egintzen kontra egiteko defentsarik gabe aurkitzen direla, erabakiak eman eta errekurtsioak egiteko epeak igaro direnean. Gure ustez, defentsarako oinarritzko bermeak kaltetuta geratzen dira, BOE eskatzen dutenak dena delako oholean argitara litezkeen iragarkiak etengabe kontrolatzera behartzen dituztenean, bereziki, behin erregistroan sartzeko onartu dietenean, ordutik aurrera itxaronaldi aurreikusi ezina eta zehaztugabea hasten baita, etxebizitzaren balizko adjudikaziora artekoa, eta tarte hori, kasu askotan, urtetan luzatzen baita.

Horregatik, ez zaigu zentzuzkoa iruditzen –ez eta APLn administrazio egintzak jakinarazteko aurreikusten den araubideak ziurtatu nahi dituen gutxieneko bermeetara doitu ere–, erregistroan jasotako eskarien gorabeherak argitalpenaren bidez jakinaraz daitezten, herritar asko eta asko zehaztugabeko denbora tarte horretan izan litezkeen berritasunetara adi egotera behartuz, beren eskubide edo interesentzat kaltegarriak izan litezkeen balizko ekintzen aurrean entzunaldi eta defentsa eskubideak galdu nahi ez badituzte behintzat. Gure ustez, gainera, eskubideak mugatzen dituzten, edo aurreko administrazio egoeraren aldean eskubide murrizketa dakarten ustezko egintzetan, administrazioaren ebazpenaren aurretik, nolanahi ere, interesatuaren entzunaldia ahalbidetu edo gauzatu behar da.

Behin baino gehiagotan, egiaztatu ahal dugu arestian deskribatutako egoera hori are larriago bihur daitekeela “gutun bidalketak” egiten direnean; sailak bide hori balia-

tzen du, eskarigileen erregistroan dauden pertsonen administrazioak, aldioro, denontzat interesgarri diren zein egoki irizten dien albiste edo gaien berri eman nahi duenean. Jakinarazpen horietako batzuk ez dira bat ere argiak izaten –hartzaileen banako ingurumarien testuingurutik guztiz kanpo daudelako– eta sarritan, ikusi ahal izan dugunez, gutunak jasotzen dituztenak nahastu besterik ez dute lortzen, ez dutelako bereizten informazio orokorra eman nahi zaien, ala hartzaile zehatz modura jardunaraziko dien balizko jakinarazpen indibiduala bidaltzen ari zaizkien. Horrela, kexa batean Etxebideko erregistroko izen-ematea lau urtean berriztatu ez zuenez, handik ezabatu zuten pertsonaren arazoa planteatu zen kexa batean. Pertsona horrek ez zuen eskaria berriztatzeko ezer egin, “gutun bidalketa” batean jaso zuen gutunean jada berriztatu beharrik ez zutela izango ulertu baitzuen; gutun hartan, ordea, etxebizitzari eusteko modu desberdinen artean aukeratzeko eskaini zioten, berriro, eta esaten zioten, erantzun ezean, hasierako aukerari eusten ziola ulertuko zutela. Pertsona hori erregistrotik ezabatu zuten izena lau urtera berriro eman ez zuelako, gutun hura jaso eta sei egunera.

Igarri genuen, halaber, jendeak ez duela Etxebide Zerbitzuaren erabiltzaileei heletzen zaien informazioa ondo ulertzen eta, horrek, batzuetan, kalteak ekartzen dizkieten jarduerak burutzera bultzatzen dituela. Horrela, alokairu erregimeneko BOE baten eskarigile bat erregistrotik ezabatu zuten, okertu eta etxebizitza berria erosteko hautua egiten zuen inprimakia bete zuenez, halakorik eskatzeko diru sarreretara heltzen ez zelako. Inprimaki horretan, zapzi laukitxo desberdin zeukan aukeran, bi kategoria desberdinetan multzokatuta –erosketa edo alokairua–, baina bi kategoriak ez zeuden inola ere ondo bereiztuta. Berak “etxebizitza berria” hautatu zuen, aukera hura erosketaren alorrean zegoela ohartu barik, eta “alokairu” kategorian horren parekorik ez zegoelako. Nolanahi ere, sailak pertsona hori erregistrotik ezabatzeke ebazpenari eustea erabaki zuen, berak beti alokairuari soilik eutsi nahi diola esan arren. Erregistrotik horrela ezabatzen dituzten pertsonen berriro ematen dute izena Etxebiden, BOE eskatzeko baldintza guztiak betetzen dituztelako, baina antzinatasun kupoei eusteko aukera galtzen dute, eta berriro izena ematen duten unea zelakoa den arabera, gerta dakieke hurrengo ekitaldian ateratzen diren sustapen guztietatik kanpo ere geratzea, izen-emateak ixteko muga data egoten baita. Horregatik, funtsezko deritzogu informazioak argiagoak izan daitezen, eta sailak prozedurazko arauak aplikatzen malgutasun handiagoz joka dezan, benetako baldintzak betetzen diren adituz, egintzen kontserbazioaren printzipioa aplikatuz, ondoren berriro izena ematea eta pertsona bereberei buruzko espediente berriak irekitzea eragingo duten ezabaketak ez erabakitzeke. Horrela, batetik interesatuentzako kalteak agerikoak dira eta bestetik Administrazioak lan burokratiko gehiago egin behar du.

Erakunde honi behin eta berriro planteatu zaion beste auzi bat etxebizitza eskatzen duten pertsonen, etxebizitza izatez adjudikatzen zaien arteko tarte luzean, bizitzan edo ezaugarri pertsonaletan gertatzen zaizkien aldaketa eta gorabeherak tarteko, sortzen zaizkien arazoak dira. Etxebizitza eskarigileen erregistroan ematen den denbora mugagabe luza liteke, eskatzaile guztiek ez baitute, epe ertainean gutxienez, etxebizitzarik eskuratuko. Horregatik, pertsona horiek bizitza pertsonalak aldatzen zaizkielako kalteak atera daitezke eragozteko mekanismoak jarri edo irizpideak finkatu behar dira. Zehazki, erregistroan izena emandako elkarbizitza unitate baten kasua azaldu ziguten –izatezko bikoteek lege estaldurarik ez zutenean–; kasu horretan etxebizitza egokitu zitzaizkionean, ezin izaten zuten erosketa kontratuaren eskritura publikoa batera sinatu, bikote lotura hautsia zutelako. Jarraian kexa hau laburtuko dizuegu, sailak, azkenean,

auzia kexagileen alde ebatzi baita, alderdien akordioa onartuz eta, loturaren aitorten juridikorik gabeko bikote bati izena eman bazitzaion, aitorten juridikoa daukaten gainerako bikoteen loturari onartzen zitzaizkion ondore berberak aitortu behar zitzaizkiola iritzita. Etxebizitzaren zain dauden bitartean, edo etxebizitza esleitzen zaienetik izatez adjudikatzen zaizkien arte hausten diren bikoteen edo bereizten diren senar-emazteen egoerak irizpide argi eta unibokoan mende egon beharko lirateke, eta hala jakinarazi diogu Etxebizitza Sailari. Era berean, loturak haustea frogatzean malguagoak joka dezaten ere eskatu diegu, epaia denboran izugarri luzatzen den auzi bideko dibortzioen kasuetan. Zehazki, hiru adingaberen ama, eskarigileen erregistroan bananduta agerizena, ezkontza loturaren haustura epai bidez frogatu ez zuelako, erregistrotik ezabatu zutela planteatu zaigu. Dibortzio prozesua auzi bidetik zihonan, eta ezkontidea non zegoen ez zekitenez, epaia jasotzeko urteak behar izan ziren, eta azkenean frogagiria aurkeztu ahal izan zuen. Zain gaude pertsona horri antzinatasuna berronar diezaioten, sailak hala egiteko asmoa duela esan baitugu, baina ezabaketei gehitzen zaien arazoa da tarte horretan zein ondorengo tarteetan banatzen diren etxebizitzaren sustapenetan izatez parte hartzeko aukera galtzen dela, kontuan hartuta, beharrezko baldintzak betetzen direlako erregistroan berriro sartzeari berehala tramitatzen den arren, erregistroak urtero itxiera data bat duenez, data horretatik aurrerako izen-emateak ez direla ondorengo epe batera arte eraginkorrak izaten.

**Etxebizitzaren beharraren** auziari dagokionez, mota desberdinetako arazoak planteatzen zaizkigu.

Batetik, kolektibo jakin batzuentzako etxebizitzaren kupoen edo erreserben eraginkortasuna eta egokitasuna zalantzan jartzen dituzten kexa desberdinak heldu zaizkigu. Zehazki, hiru kexatan buruko gaixotasunak edo ezgaitasun intelektualak dituzten eta beren kabuz bizitzeko nolabaiteko autonomia funtzionala daukaten pertsonentzako halako kupo edo erreserbarik ez dagoela planteatu digute. Pertsona horiek, beren ingurumari bereziengatik, gizartetik baztertuta geratzeko aukera handiak dituzten kolektibo batean daude. Babesik gabe eta bizitoki estaldurarik gabe geratzen dira, gurasoak hiltzen zaizkienean. Kolektibo jakin batzuen aldeko kupo edo erreserbak sortzen direnean azpian dagoen filosofia beren ingurumari pertsonal eta sozialengatik behartsuagoak direnei mesede egitea besterik ez da. Ondo legoke ezgaitu intelektualen kolektibo hori halako neurrien onuradunen artean sartzeari. Hala eskatu digute egun haien interesak ordezkatzen dituzten elkarteek, etxebizitzaren alorrean ekintza positiboko neurri sistema eskatzen baitute, beste kolektibo behartsu batzuentzat dagoen bezala. Gure iritziz, pertsona horiei etxebizitza eskuratzea bereziki erraztuko dien bestelako erregimen bat artikulatu behar da, eta hala jakinarazi diegu Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saileko arduradunei. Beraiek, orduan, aitortu digute, Eusko Jaurlaritzak ez duela, orain arte, beren kabuz bizitzeko gai diren ezgaitu intelektualei buruzko inolako bereizketa positiboko neurririk hartu. Alabaina, jasotzen ari diren eskarien ondorioz, konpromisoa hartu dute gutxieneko diru sarreraren baldintza kentzeko aukera aztertzeko (ezgaitu fisikoekin egiten duten bezala), baita kolektibo hori Etxebideko zozketetan babes bereziko kupo batean sartzeko ere. Neurri horiek guztiak aztertzen ari dira hurrengo 2006-2009rako Etxebizitza Plan Zuzendarian eta gerorako Etxebizitza Legean ere sartzera begira.

Zozketa sistema kontuan hartuta, kupoak izatez eraginkorrak ez direla adierazi digun kexa bat ere aurkeztu digute. Zehazki, hiru adingaberen ardura duen guraso bakarreko familia baten titularrak, emakumea, BOE bat edozein aukerari eutsiz eskuratu

nahian ari da baina, sei urte zain egon ondoren, ez du etxebizitzarik esle diezaioten lortu, kupo desberdinei heldu ahal dien arren, hala nola, guraso bakarrekoari, familia ugarienari zein antzinasun kupoari. Horregatik guztiarengatik, guk uste dugu ezin dela alboratu etxebizitza babestuak adjudikatzeko oraingo ereduari baremazio sistema bat eransteari buruzko gogoeta, oraingo irizpideekin konbinatuta, behar handiena zeinek duen arabera, etxebizitza eskuratzeko lehentasuna nork daukan erabakitzeko orduan, orain baino zehaztasun handiagoz asmatu nahi bada.

Etxebizitzaren beharraren kontzeptuari buruzko kexen artean, aurreko ekitaldietatik errepikatzen ari zaigun beste gai bat beste etxebizitza batzuen titularitate hutsen gainekoa da, etxebizitza horiek erabili eta gozatzerik ez dutenez, ez baitiete titularrei etxebizitza beharrik asetzen. Auzi hau bi kexa desberdinetan azaldu digute; bi kasuetan erreklamaziogileak EAetik kanpoko lurralde batean etxebizitza baten titular ziren, haurrideekin batera, jabetza soilean; titulartasuna salerosketa kontratu baten bidez eskuratu zuten, kasu batean gurasoengandik eta bestean izebarengandik. Garbi zegoen, bi kasuetan, gerorako jaraunsleak zirela, salerosketa kontratuaren bidez dohaintza edo herentzia bati datzekion zerga zamak saihestu nahi zutenak. Etxebizitza horiek izatez erabiltzea ezinezko egiten duten ingurumari desberdinak biltzen direnez, komeniko litzateke etxebizitzaren beharra hobeto definitzea, benetan behar duenari etxebizitza babestu bati eustea eragozten dioten oztopo formalak ekiditeko. Alabaina, egia ere bada Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren etxebizitzaren beharraren ingurumari buruzko 2002ko abenduaren 9ko Aginduaren 3.5. artikulua etxebizitza baten jabe izatearen hainbat salbuespen aurreikusten dituela jada; hizpide ditugun kasuak, ordea, ez daude salbuespen horien artean jasota, titulartasun horiek salerosketa kontratu baten bidez lortu baitira. Ekidin beharko litzateke baldintzen zorroztasun formalak balorazio objektiboa eta sakona lausotzea, eta etxebizitza izatez gozatzeko ondoretarako, titulartasun hutsalak etxebizitza bat benetan behar dutenentzat Administrazioak eskain litzakeen babes erregimenari eutsi ahal izateko oztopo izan daitezen eragotzi. Alde horretatik, komenigarria izan liteke, agian, de lege ferenda, titularitate horiek ekartzen dituen negozio juridikoa ez bereiztea edo jabetza soilaren arauketa berariazkoa burutzea, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitza eta lurzoruetarako finantzazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 16.3 artikulua dioen bezala, etxebizitzak alokatu ahal izateko, etxebizitza babestua erosi nahi dutenei titulartasun hutsak horiez askatzen utziz, gutxienez.

Era berean, jada eman eta erabiltzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza **akatsei** buruzko bi kexa ere aipatu behar ditugu. Bietan etxeak desagertuta dagoen enpresa sustatzaile batek eraiki ditu. Erreklamaziogileak, eraikitzailea enpresa pribatua zela alboratuta, babes ofizialeko etxeak eta Etxebidek zozketa bidez esleitutakoak izanik, Administrazio Publikoak gaian duen erantzukizunaz mintzo zaizkigu. Izan ere, egiaztatu dugu Administrazioak ez duela bete babes ofizialeko Etxebizitzari buruzko Legea aplikatzeko arautegia onetsi zuen 2114/1968 Dekretuaren 111 artikuluan jasotako aurreikuspen bat. Estatuko arau hori, autonomia erkidegoko araudirik ezean, gaian aplikagarria da, eta etxebizitza alorrean eskuduna den Administrazioak babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaile pribatuak aseguru bat harpidetzera derrigortu behar dituela dio, eraikuntza akatsik izatekotan ekonomikoki erantzutea bermatzeko. Gure ustez, Eusko Jaurilaritzaren Etxebizitza Sailak erantzun beharko luke, subsidiarioki, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikitzaile pribatuen erantzun ekonomikoa ziurtatzeko betebeharra bete ez

zuelako. Ukitutako sailak administrazioaren ondarezko erantzukizunik ez dagoela dioen arren, guk uste dugu administrazioaren BOEen kalifikazioaren jarduerak, eta etxebizitzak adjudikatzekeo prozesuan zehar dagoen partaidetza publikoak, nahikoa justifikatzen duela kasu honetan dagoen erantzukizun publikoa, are gehiago, Administrazioak lehen esandako legean jartzen zaion betebeharra urratu duenean.

Amaitzeko, berriro esango dugu etxebizitza behar-beharrezko baliabidea dela, etxebizitzarik gabe, jendea gizartean baztertuta geratzen baita. Horregatik, azpimarratu behar dugu **bereziki ahulak diren hainbat kolektibo** daudela, eta gure erakundearen arreta berezia behar dutela. Lehenago aipatu ditugu buruko gaixotasunak edo ezgaitasun intelektualak dituzten pertsonen berriazko arazoak. Nolanahi ere, gure erakundeak aurreikusita dauka etxerik gabeko pertsonen buruzko ezohiko txosten bat egitea, arrazoi desberdinak tarteko, etxebizitzaren funtsezko baliabidea ez daukan jendearen arazoa sakonki aztertzeke. Era berean, gure erakundeak gazteen eta etxebizitzaren gaineko txostena ere eginkizun dauka, lan merkatuan sartzen ari direlako diru baliabide gutxi daukatenentzat etxebizitza eskuratzen zail dagoen testuinguru sozio-ekonomikoan, gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunak kontuan hartuta. Azkenik, esan behar dugu indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak ere etxebizitza eskuratzeak tratatu txarren gaitzak eten dien bizitzari berrekiteko behar duten askatasuna ekar liezaiokeen kolektibo bat izan litezkeela. Gai hori emakumeei buruzko kapituluan garatu dugunez, hor aurkituko duzue xehetasun gehiago.

## 14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Etxebizitza libre eta erabilia erosteko diru-laguntza ukatzea (93/2004)*

- Erreklamazioa

Erreklamaziogileak zioen ez zegoela ados Bizkaiko udalerrri batean etxebizitza libre eta erabilitako bat erostea finantzatzeko laguntza ukatu zion Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren ebazpenarekin.

2002. urtearen amaieran, finantzatzeko laguntza eskatu zuen eta, 2003k martxoan, sailak dokumentazio gehiago aurkezteko eskatu zion; aginduzko deia zuzen ez zegoenez, beraiek laguntzaren helburuko etxebizitzari buruzkoa zela ulertu zuten eta, hartara, dokumentuak zegokien epean aurkeztu zituzten.

2003ko irailean eskaria, agindutako tramiteak bete ez zituzenez, artxibatu zela zioen ebazpena jaso zuten; sailak eskatu zizkien dokumentuak, antza, gurasoen etxea izan zen eta saldu zuten etxe baten jabe-aldaketari buruzkoak ziren.

- Azterketa

Kexa tramitera onartu genuen, eta ukitutako sailari informazioa eskatu genion. Bidali ziguten dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi genuen eskaria ongitu zela, eta Etxebizitza Sailak eskatutako tramitea bete zela, hau da, ukitutakoak eskatu ziotela pentsatu zuen dokumentazioa helarazi ziela.

Beste gauza bat da, gure iritziz, aurkeztutako dokumentazioa begiratzean, zati bat eskatutakoarekin bat ez etortzea; beraz, tramiteak egitean, interesatuaren jarduketaren batek eskatutako guztia betetzen ez deneko kasu bat litzateke. Administrazioa,

halakoetan, egileari jakinaraztera eta hutsa ongitzeko hamar eguneko epea ematera behartuta dago, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 76. artikulua dioenez –AJAPL–.

Administrazio publikoek, 30/92 Legearen –AJAPL– 3. artikulua dioen bezala, onustearen eta bidezko konfiantzaren printzipioak bete behar dituzte eta, gainera, beren harremanetan, herritarrentzako zerbitzuaren irizpideari segitu behar diote. Administrazio jarduerak formalismoen mende egon behar du, baina formalismo horiek ez dira herritarrentzako oztopo lasterketa modura ulertu behar, interes publikoa bermatzea helburu duten zentzuzko arau modura, kasu zehatz batean gertatzen diren ingurumari zehatzak baloratuz, logikaren eta zuzentasunaren mugen barruan egon behar duten arau modura baizik.

Gure iritziz, ez zen ahaztu behar arauaren helburua etxebizitza libre eta erabilia erostea sustatzea zela, hau da, interes publikoa hemen halako etxebizitzak erostea finantzatzen laguntzea zen, eta erreklamaziogileek ingurumari horiek betetzen zituztela pentsatu zuten eta, eskatutako guztia bete zutelakoan, onustez eta bidezko konfiantzaz jardun zuten.

Dokumentazioa ondo ez zegoela erabaki eta bestelako aukerarik eman barik, espedientea artxibatu zieten, finantzaketa ona lortzeko zituzten eskubideen kaltetan, eta amaierako emaitza hori guztiz neurrigabea zen espedientearen ibilbidearen aldean.

Horren haritik, guk uste dugu interesatuak aurkeztutako gorabideko errekurtsua formalismo hutsarengatik, eta prozedurari malgutasunik gabe eta mimetismoz ekiteagatik ezetsi zela, egintzak berrikusteak interesatuak laguntza eskuratzeko baldintza guztiak betetzen zituela egiaztatzea ahalbidetuko zuela kontuan hartu barik eta, gainera, eskatu ziotela uste zuen dokumentazioa onustez aurkeztu zuela, dokumentazio hura sailak 2001etik zeukan arren.

- Emaita

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak espedientea berrikusi zuen eta erreklamazioaren aldeko ebazpena eman zuen, interesatuari zegokion finantza laguntza onartuz.

⇒ *Udal sustapen jakin batzuei eusteko baldintzak (483/2005)*

- Erreklamazioa

Kexak zioenez, Donostiako Udalak erreklamaziogileari gazteentzako alokairuko etxebizitza bat eskatzeko zerrendan izena ematea ukatu zion.

Donostiako udalak, itxuraz, ez zituen herritar hark 2002rako alegatu zituen diru sarrerak zenbatu, garai hartan, beharrezko gutxieneko diru sarrerak jaso zituelako zerga agiria, 10-T ereduak aurkeztu arren, ez zelako Gizarte Segurantzako kotizaziogile modura ageri. Interesatuak urte hartako udan gestoria batean lan egin zuen, aldi batez, eta 3.200 euroko lan errentak eskuratu zituen; enpresak diru horren aitortpena egin zuen, gainerako langileen lansariekin batera, Gipuzkoako Foru Ogasunari aurkeztu zion urteko atxikipen guztien laburpenean; horrek, diru sarreren jatorria hura zela egiaztatzeke balio zuen, beraz. Interesatuaren ustez, enpresak –hain diru gutxi zenez– Gizarte

Segurantzari kotizatu ez izana ezin zitzaion langileari egotzi, eta ezin zen Donostiako Udalaren deialditik kanpo uzteko baliatu.

- Azterketa

Azaldutakoari dagokionez, Donostiako Udalari udalak zehazki zer egin zuen, eta herritarraren eskaria ezesteko zer oinarri juridikori heldu zion galdetu genion; gure jarrera zein zen honelaxe argitu genion, laburbilduta:

Etxebizitzari buruzko EAEko araudiak eskatzen du alegatu eta behar bezala frogatutako diru sarrerak onartzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aitortuta egon behar dutela, PFEZren aitortpena aurkeztu behar bada. Hala ondorioztatzen da duela gutxi urtarilaren 18ko 10/2005 Dekretuaren 2. artikulua bidez, aldarazi den babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzuaren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 20.4 artikulutik. Bestalde, 315/2005 Dekretu beraren 19. artikulua errentatzeko kasua ondoko baldintza orokorretik salbuesten du: *“Gutxieneko edo/eta gehienezko diru-sarreraren baldintza betetzat jotzeko diru-sarreraren %90 lan-etekinetatik edo/eta jarduera ekonomiko, profesional eta artistikoetatik etorritako diru-sarrera izatea eskatuko da, alokairuen kasuan izan ezik, kasu horretan ez baita eskatuko baldintza hau betetzea”*, eta horrek, alderantzikatuz, halakoetan diru sarreraren jatorria bestelakoa izan litekeela ahalbidetzen du. Araudi horretatik ez da, beraz, Gizarte Segurantzarako kotizaziorik frogatu behar denik ondorioztatatu.

- Emaizta

Eskaera bat egin eta gero, Udalak Donostiako Etxegintzako Zuzendari Gerentearen idatzi bat helaraziz erantzun zigun; idatziak dio, gure informazio eskariaren ostean, herritar horri gazteentzako alokairuko etxebizitzak bati eusteko eskaria onartu ziola, azkenean ez zitzaielako zozketa egin aurretik diru ahalmenik frogatzeko eskatu, babes ofizialeko etxeak ere ez zirelako. Horregatik, interesatuari idatzi horren berri eman ez auziko gure esku hartzea amaitutzat jo genuen, prozedura honetatik gerora etor litezkeen jardueren kalterik gabe. Kasu zehatza konpondu den arren, oraindik udal administrazioak babes ofizialeko etxebizitzari eusteko baldintzei buruzko EAEko araudi orokorra Eusko Jaurlaritzaz bestelako administrazioetan, etxebizitzaren jabetza edo alokairua esleituz, gizarteko sektore desberdinetan dagoen etxebizitzaren beharra asetzerantz bideratzen diren prozeduretan aplikatu beharra eta aplikatzearen garrantzia onar ditzan geratzen da.

⇒ *Gizarte etxebizitza baten salerosketa eskriturak egiterik ez izatea, elkarbizitza unitatea hautsi eta gero (879/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek gure erakundearengana jo zuen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak VISESAren zozketa baten ondoren bere bikotekide ohiarekin eskuratutako babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketa kontratuan titular bakarraren izenean sinatzea ukatu zioela-eta.

- Azterketa

Bikoteari –elkarbizitza unitatea osatzen zutenez– VISESA sozietate publikoak sus-tatutako gizarte etxebizitza bat egokitu zitzaion. Sailak behar bezala ikusi eta onetsi zuen salerosketako kontratu pribatua sinatu eta gero, bikotea banatu egin zen eta, horregatik, erreklamaziogileak, bikotekide ohiarekin akordio batera heldu ondoren, administrazioari gizarte etxebizitzari eusteko eta berak jabe bakar modura erosteko aukeraz galdetu zion. Administrazioak eskaria ukatu zion, etxebizitza adjudikatzeko baldintzetako bat kontratu pribatuan ageri zen titulartasun berbera mantentzea zelako, bere ustez.

Arartekoak Etxebizitza Sailera jo zuen, horrek gainerako batasun zibil edo izatezko bikoteei ez bezalako tratua ematea esan lezakeela argudiatuz. Administrazio hori babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko lehentasunak eta zein subjekturi xedatu finkatzeko eskuduna den arren, Arartekoak uste du multzo bati, hau da, elkarbizitza unitateei, gai-nerako batasun motei –senar-emazteei eta izatezko bikoteei– ez bezalako tratua emateko arrazoi objektiboak egon behar direla.

Azken batean, elkarbizitza unitatearen kategoria etxebizitza araudiak berak sartu zuen eta etxebizitza eskarigileei kategoria horretan izena emateko aukera ematen die. Gainera, haustura adjudikazio aurreko fasean gertatzen bada, Eskarigileen Erregistroari horren berri emateko aukera ere badago, bestelako ondoriorik gabe. Era berean, behin etxebizitza eskrituratu denean, elkarrekin bizitzeari uzten badiote, etxebizitzaren esleipen erregimena senar-emazteak zein izatezko bikotea hausten denean antzera geratuko da. Haustura tartean gertatzen bada, paradoxikoa da baina kasu batean sailak ez du titulari-tatea aldatzerik onartzen eta besteetan, ordea, titularitatea aldatzeko aukera dago, batze horiek arautzen dituen araudian batutakoak bereiz daitezkeela onartzen baita.

- Emaidza

Ingurumari hauek guztiak ikusita, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak hasie-ran zuen jarrera berraztertuko duela esan du, elkarbizitza hautsi ondoren, bietako batek salerosketa kontratua bere izenean eskrituratzen utziko duela.



## 15. ZENBAIT GESTIO

### 15.1. SARRERA

Honako atalean Legebiltzarraren Ordezkarari honen jardueren eta kexen berri ematen da, horiek duten izaera konplexu eta askotarikoa dela eta, beste gai esparru batzuetara eramatea erraza suertatzen ez denean. Dena den, erreklamazio hauek kasu askotan erakunde honen esku hartzea eskatzen dute arazo baten egoera argitzeko, edo erakunde ezberdinen arteko bitartekotza sustatzeko.

Azpitarratu nahi ditugu 2005. urtean Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde deialdiaren ondorioz jasotako erreklamazioak. Pertsona batzuk arazoak edo zalantzak izan zituzten beren boto eskubideaz baliatzerakoan, edo hauteskunde prozesuan aktiboki parte hartu behar izan zuten, eta horren ondorioz iritsi dira erreklamazioak. Horrela, hainbat kexa jaso ziren hauteskunde mahaietako kide aukeratu izanaren inguruan. Beste kexa batzuk ere bideratu ziren Estatuko Fiskaltza Nagusiak “Aukera Guztiak” izeneko hautagaia abalatzeko sinatzaileen inguruan eginiko ikerketengatik. .

Beste kexa batek gure balorazioa eskatzen zuen Eusko Legebiltzarrerako emakumez bakarrik osaturiko hautagai zerrendak aurkeztearen inguruan, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen onarpena kontuan hartuz. 4/2005 Legearen hauteskunde kandidaturak aurkeztearen inguruko arauak aztertu eta gero, zehazki laugarren eta bosgarren azken xedapenak, ikusi ahal izan genuen azkenean xedapen hauei eman zitzaizen idazkerak ez duela oztopatzen emakumez bakarrik osaturiko hautagai zerrendak aurkeztea. Ez da oztopo ez Eusko Legebiltzarrerako, eta ezta Lurralde Historikoen Batzar Nagusietarako ere, bietan ezartzen baita “*alderdi politikoaren, federazioen, koalizioen edo hautagai taldeen partehartzaileak gutxienez % 50ean emakumeak izango dira*”. Horrek, portzentaje hori handitzea ahalbidetzen du, eta ez litzateke izango araudiaren aurkakoa.

Azkenik, zenbait kexa jaso dira –ikusi hurrengo atala– etxebizitza eraikinetan beren negozioak dituzten jabeen aldetik, higiezin horretan igogailua jartzeak eragiten dituen gastuen ordainketa egin beharra zalantzan jarritz. Era berean, gizarte etxebizitzetako higiezin baten jabe komunitate batean sortu diren elkarbizitza arazoak jaso ditugu kexen aukeraketan, eta jabe komunitatearen ordezkaritza organoek eta zerikusia duten administrazio publiko ezberdinek arazoan esku hartzeko dauden aukerak aztertzen ditugu.

### 15.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Gizarte esku-hartze bideei buruzkoa, eta auzotarren komunitateetako elkarbizitza arazoei aurre hartzeari buruzkoa (119/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona talde batek erakunde honetara jotzen du bizi duten egoera pertsonala azalduz, hirigintza jardunbidearen ondorioz, babes ofizialeko etxe batean kokatzeko prozesuaren ondoren. Arazoak aurreikusi ziren bai etxebizitzan bertan, bai auzoan

orokorrean eman daitezkeen elkarbizitza zailtasunengatik, eta Etxebizitza Sailak eraikin horretan beste familia bat kokatzea erabaki zuela jakin zenetik. Kexatzeko mahiagaineratzen zuten arrazoia zen, aurretik familia horretako kideren batek eragindako egoera gatazkatsuen ondorioz sortutako ziurgabetasuna.

- Azterketa

Bideratutako kexaren inguruan, hainbat gestio egin ditugu. Lehenik eta behin, bilera bat izan genuen erreklamazio egileekin Arartekoaren jardunbidearen aukerak zehazteko; aukera horiek urriak dira, sakonean azaltzen den arazoa izaera pribatukoa baita. Bestalde, zonalde horretako gizartegintza elkarte batekin jarri ginen harremanetan, gai honen inguruan zuten iritzia ezagutzeko. Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailak jakinarazi zigun ez zela posible etxebizitzaz aldatzea, pertsona hauek azaltzen zuten kasua ez delako jasotzen etxebizitza araudian. Sail hori Erakunde honekin bat dator esatean kontu honen sakonean azaltzen dena, higiezinako eta auzoko auzotarren arteko balizko elkarbizitza arazo bat dela.

- Eraitza

Ateratzen dugun ondorioa da, kexa eragin duen arrazoia ez dela oinarritzen administrazioen irregulartasun batean. Hala eta guztiz ere, balizko gizarte edo auzo arazoei aurre hartzeko helburuarekin, egokitza jotzen dugu zenbait hausnarketa egitea esku hartze aukeren inguruan, eta jakitea zer neurri aurreikusiko lituzkete administrazioek.

Gauzak horrela, lehenik eta behin jabekidetzan elkarbizitza arautzen duten arauak berek eratuko lukete jardunbide esparrua. Higiezinaren jabekideen arteko harremanak jabetza estatutuek zehazten dute; horiek, jabeen eskubide eta betebeharrak zehazten dituzte. Horietaz gain, barne erregimeneko arauak daude, eta horiek elkarbizitzaren xehetasunak, eta zerbitzuak eta gauza komunak arautzeko balio dute. Era berean, jabetza horizontalaren legeak hainbat bide ezartzen ditu elkarbizitza arau horiek ez betetzetik eratorritako arazoak konpontzeko.

Bestalde, badira beste suposamendu batzuk non gizarte prebentziorako neurriak hartzea beharrezkoa den, arreta berezia behar dezaketen pertsona edo taldeen gizarteratze egokia lortzeko. Kasu horietarako, posible litzateke gizarteratze, prebentzio eta arazoen ebazpenean lanean diharduten agente edo lantaldeen esku hartzea erabilteza. Zentzu horretan, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailak Udalarekin batera garatu beharreko izaera sozio-komunitarioa duten ekintzen berri eman digu, horien bidez auzoko gizarte parte hartzea indartzeko, bai udal zerbitzuen laguntzarekin kokaturiko pertsonen kasuan, bai auzoan dauden talde edo elkarte ezberdinen kasuan. Azkenik, neurri horiek hartuta ere pertsonen arteko elkarbizitza edo segurtasuna bermatzen ez denean, arazoa ordena publikoa mantentzeko erabiltzen diren bideen bidez konpondu beharko litzateke.

Kexa adierazleei guzti honen berri eman eta gero, espediente honen tramitazioa amaitutzat jo genuen etorkizunean gai honen inguruko konturen bat aztertzea galarazi gabe.

⇒ *Aukera Guztiak hautesle-taldeak aurkeztutako hautagai-zerrenda baliogabetzeko prozesuari buruzko kexa batzuk (345/2005, 347/2005, 366/2005, 367/2005, 382/2005, 383/2005, 387/2005 y 435/2005)*

- Erreklamazioa

Ararteko erakunde honetara zenbait kexa heldu ziren Estatuko hainbat organok eta erakunde egindako jarduerak direla-eta. Honakoa sustatu eta bideratu izana leporatzen zitzairen kexa horietan: 2005.eko apirilko hauteskunde autonomikoetan Aukera Guztiak hautesle-taldeak aurkeztutako hautagai-zerrendak hauteskunde-prozeduratik kentzea erabakiko zuen prozedura judiziala. Aldi berean, adierazpen publikoak egin zituzten interesatuek eta eragile sozial eta politikoek. Adierazpen horietan salatu zen pertsonaren zenbait oinarritzko eskubide urratzen zituztela jardueretako batzuek eta aipatu dugun prozedura judizialak berak. Arrazoi horrexegatik eskatu zen erakunde honek esku-hartzea, ordenamendu juridikoak babesten dituen eskubideen bermatzailea baita.

- Azterketa

Kexa aurkeztu duten pertsona ia gehienek adierazi dute notario aurrean izenpetu zutela Aukera Guztiak hauteskunde-taldea sortzeko. Horrez gain, adierazi dute euren eskubideak urratzen dituen ikerketa jasan dutela, besteak beste, datu pertsonal horiek ez zirelako erabili eman ziren helbururako, baizik eta beste baterako.

Gainera, kexetako batean norbaitek aipatu zuen ez zegoela ados elkarriketen grabazioarekin, hauteskunde-taldeko hautagaiei zein sinatzaileei egindako ikerketekin edo ETA esplizituki gaitzesteko exijentziarekin. Izan ere, uste zuen jarduera horiek ez dutela beharrezkoa den euskarri juridikoa. Halaber, kexa-idazkietakoren batean zalantza jartzen zen zenbait komunikabideren jarduna, hain zuzen ere, errugabetasun-presuntzioaren printzipioa oso gutxi errespetatzeaz akusatzen zitzairen, besteak beste.

Ararteko erakundeari pertsonen eskubideak zaintzeko funtzio generikoa eman zaio, eta, horretarako, hainbat jarduera egiten ditu gizarte-eskubideak sustatu, defendatu eta hobetzeko. Horrexegatik, aipatutako salaketak zein arrazoitan oinarritu ziren jakinarazi zuen une hartan –erakundearen bitartez adierazitako salaketak zein komunikabideen bidez adierazitakoak–, eta ardura agertu zuen a priori zalantza sortzen zuten jardueren araztasunaren gainean. Zalantza horiek eskubideak babesteko sistemari buruz sortu zitzaizkion. Horren ondorioz, eskatu egin zen prozesu osoa bereziki arduratsua izan zedin eragindako pertsonen eskubideen bermearekin.

Azken urteetako araurik eztabaidatuenetakoa da “alderdien legea” deitutakoa. Batzuek uste dute lege hori babes demokratikorako tresna dela, eta, hortaz, Estatuaren erreazio legitimoa aurreikusten duela hainbat erasoren aurrean. Beste batzuk, ordea, alderdien legearen aurka daude, eta horretarako hainbat arrazoi ematen dituzte: arrazoi politikoak, egokitasunekoak, terrorismoaren aurkako borrokan tresna erabilgarria ez izatea, arrazoi juridiko-konstituzionalak edo teknika juridikoaren aldetik eskastat jotzea, eskubideak urratzen dituela, edo demokrazia aurreratu batekin bat ez datorrela.

Orain eta hemen aipatutako legea aztertu behar dugu, Zuzenbideko Estatu demokratiko ahalik eta aurreratuen baten koordenadetatik, horixe baita eduki beharko genukeen jarrera. Gure iritziz, ez dagokio Ararteko erakundeari lege horren egokitasun politikoari edo aukerari buruzko balioespina egitea. Adierazi behar da lege hori

zuzenbideko Estatu demokratikoaren erantzunaren ondorioa dela, eraso basati eta larrien egoera bati emandako erantzuna, hain zuzen ere. Eraso hori indarkeria terroristaren erabileraren bitartez egin da, gero eta herritar gehiagoren bizitzaren, askatasunaren, duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka. Alde horretatik, esan beharra dago Espainiaz gain beste herrialde demokratiko batzuek ere –horietako batzuk tradizio demokratiko sakonekoak– parte-hartze politikorako eskubideari mugak jarri dizkiotela, balio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak defendatzeko. Izan ere, eskubide horiek guztiak arriskuan zeuden zirkunstantzia batzuegatik, eta, hain zuzen, jarritako mugek zirkunstantzia horiek deuseztatu nahi dituzte.

Edozelan ere, komeni da honakoaren azaleko azterketa egitea: aipatutako alderdien legearen aplikazioa zehaztasunez mugatzen duten parametro juridikionalena. Izan ere, parametro horiek mugatutako esparruan aplikatu ahal izango ditugu balioesteko bitartekoak. Ahalik eta aurreratuena den eskubide- eta berme-sistema baten alde egiteko gure jarreraren ondorioak dira bitarteko horiek. Horrexegatik, esparru juridiko zorrotzean, eta zehatzago esanda, giza eskubideen erabileraren esparruan daude egingo diren hausnarketak.

Alde horretatik, beharrezkoa da gaia termino egokietan kokatzea. Horretarako, funtsezkoa da alderdi politikoak eta hautesle-taldeak legez kanpo uzteko prozeduretan agertzen diren erabakiak aztertzea. Auzitegi Goreneko Areto Bereziak eta Konstituzio Auzitegiak hartu zituzten erabaki horiek, alderdien legearen aplikazioari buruz (Areto Berezi hori Botere Judizialaren Lege Organikoko 61. artikuluan aurreikusita dago). Azterketa hori egiteko, oinarrizkoa izango da honako gertaera garrantzitsuak kontuan hartzea:

A) Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege organikoaren konstituzionalitatea.

Horrekin lotuta, beharrezkoa da kontuan hartzea Konstituzio Auzitegiak martxoaren 12an emandako 48/2003 epaia, lege organiko horri buruzkoa. Epaia hori berezia da epaitzaren egiturari dagokionez. Izan ere, errekurtsua termino guztietan gaitzesten du, baina zehazten du errekurritu diren agindu batzuk soilik izango direla konstituzionalak epaiko oinarri juridikoetan aipatutako terminoetan interpretatuz gero. Beraz, interpretaziozko epaia da.

Horrela, epai horrek bere aginduei ematen dien interpretazioaren arabera soilik aplikatu ahal izango da Alderdi Politikoen legea.

B) HB, EH eta Batasuna alderdi politikoak legez kanpo uztea.

Beharrezkoa da honakoak kontuan hartzea:

1. Auzitegi Goreneko Botere Judizialaren Lege Organikoko 61. artikuluko Areto Bereziak 2003.eko martxoaren 27an emandako epaia (aurrerantzean AGko Areto Berezi deituko dugu). Epaia horren bitartez legez kanpo utzi ziren Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdiak, eta desegin ere egin ziren, Alderdi Politikoen lege organikoa aplikatzeko.

2. Konstituzio Auzitegiak (aurrerantzean KA) urtarrilaren 16an emandako 5/2004 eta 6/2004 epaiak. Epaia horiek Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna desegiteko epaiaren kontrako babes eskeko errekurtsu bi ebazten dituzte.

C) 249 hautesle-taldek aurkeztutako beste hainbeste hautagai-zerrenda baliogabetzeko prozedura. 2003.eko maiatzaren 25eko udal eta foru-hauteskundeetan parte hartzeko sortu ziren hautesle-zerrenda horiek.

Beharrezkoa da honakoak kontuan hartzea:

1. AGko Areto Bereziak 2003.eko maiatzaren 3an emandako epaia, 241 hautagai-zerrenda baliogabetzen dituena.
2. Maiatzaren 8ko KAren 85/2003 epaiak 16 hautagai-zerrendaren errekursoak onartu zituen. Izan ere, auzitegi horren iritziz, ez zen nahikoa egiaztatu hautagai-zerrenda horiek legez kanpo utzitako alderdiekin zuten iruzurrezko lotura. Epaia horrek berak gainerako hautagai-zerrenden baliogabetzea berretsi zuen.

D) Herritarren Zerrenda hautesle-taldea baliogabetzea.

Horri dagokionez, komeni da honakoak kontuan hartzea:

1. AGko Areto Bereziak 2004.eko maiatzaren 21ean emandako epaiak.
2. Maiatzaren 25ean AK-k emandako 99/2004 epaia, Herritarren Zerrenda hautesle-taldeak jarritako babes eskeko errekurtsua atzera botatzen duena.

E) Aukera Guztiak (AG) hautesle-taldearen hautagai-zerrendak baliogabetzea. Zerrenda horiek 2005.eko hauteskunde autonomikoetarako sortu ziren.

Esku-hartze horren arrazoiak aztertzeko, honakoak aztertu behar dira:

1. AGko Areto Bereziak martxoaren 26an emandako epaia, Aukera Guztiak-en hautagai-zerrenden aldarrikatzea baliogabetzen duena.
2. 2005.eko martxoaren 31n AK-k emandako 68/2005 epaia, aipatu den Auzitegi Gorenaren epaiaren kontra jarritako babes eskeko errekurtsua atzera botatzen duena.

\* \* \* \* \*

Aipatutako erabaki judizial horietatik guztietatik tresna juridikoak hartu ditzakegu, ikuspegi bermatzaile batetik, sektore doktrinaletan, politikoetan, instituzionaletan edo iritzi publikoan bertan egonezina sortu duten gaiei erantzuteko. Erabaki horiek Auzitegi Goreneko Areto Bereziak zein Konstituzio Auzitegiakoak hartu dituzte. Horrez gain, honakoetatik ere tresnak hartu ditzakegu: Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrina (beste herrialde batzuetako legez kanporatze kasuak ebazterakoan, esaterako Turkian), edo Alemania edota Israeleko esperientziak. Epaia horien oinarri juridikoetatik abiatuta, jakin daiteke zein esparrutan garatu daitekeen honakoa: alderdi politiko bat edo hautesle-talde batek aurkeztutako hautagai-zerrendak legez kanporatzeko prozesu estrapenala.

Konstituzio Auzitegiak adierazi du askatasuna eta aniztasun politikoa direla Espainiako Konstituzioaren balio gorenak. Horren ondorioz, ezin zaizkio inori atxikimendu politikoak inposatu, ez herritarrei, ezta alderdi politikoei ere. Horrek ez du esan nahi botere publikoek ezin dutenik esku hartu alderdi politikoei beharrezkoak diren murrizketa politikoak egiteko, ordena demokratikoa bera arrisku handian jartzen dutenean.

Bestalde, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak honakoa adierazi du hainbat epaitan eta zehazki 1999.eko abenduaren 8an emandakoan: *“demokraziaren muinaren*

*parte da proiektu politiko ezberdinen proposamena eta eztabaida baimentzea, Estatuak gaur egun antolatzen duen modua zalantzan jartzen dutenena ere, betiere demokraziaren beraren kontrako eraso ez badira”.*

Auzitegi horrek aitortu egin du benetan demokratikoa den erregimen politiko batean alderdi politikoek garrantzi handia dutela, baina onartu egin du horrek ez dakarrela ondokoa: *“Estatu bateko agintariek ezin dutela esku hartu sistema demokratikoa arriskuan jartzen duten elkarte politikoaren jardunaren aurrean, kontuan hartuta gizarte demokratiko batek eskubide legitimoa duela erakunde terroristen jardunaren aurrean babesteko, eta estatuek nahitaez bete behar dituztela Giza Eskubideen Hitzarmenean zerrendatutako askatasun eta eskubideak”.*

Zenbait premisa ondoriozta ditzakegu Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrinatik eta Konstituzio Auzitegiaren doktrinatik:

1. Alderdi politikoak demokrazia pluralista baten funtsezko alderdi zentral izateko sortzen dira.
2. Alderdi politiko bat desegitea edo legez kanpo uztea da Estatu demokratiko batek har dezakeen neurririk larrienetakoa.
3. Ordenamendu juridikoarekin bat, gizarte demokratiko batek eskubidea du erakunde politiko baten erasoan aurrean defendatzeko, bere jardueren bitartez sistema demokratikoa bera arriskuan jartzen badu.

Europako Auzitegiak honen alde egiten du: *“gizarte demokratikoaren defentsaren eta norbanakoaren eskubideen babesaren inperatiboaren arteko kontziliazioa”.* (Klaus auziaren epaia eta 1978.eko irailaren 6ko Alemaniaren kontrako beste batzuk).

“Konbentzionalitate testa” deitu denaren barruan, Estrasburgoko Auzitegiak hiru irizpide aplikatzen zituen, azaldutako baldintzetan elkartzeko eskubidea mugatzea onargarritzat jotzeko:

- Legean aurreikusita egon beharko du
- helburu legitimoa izan beharko du
- beharrezkoa izan beharko du gizarte demokratiko batean.

Injerentziaren proportzionaltasunaren printzipioan oinarrituta aztertuko da behar hori. Oreka zaila lortu behar da aniztasun demokratikoa errespetatzearen eta sistema demokratikoaren aurkako erasoan aurrean defendatzearen artean, bereziki jardura terroristen bitartez egiten direnean eraso horiek.

4. Pertsonen eskubide indibidualen errespetu osoarekin bateratu behar da sistema demokratikoaren defentsa.  
Edozein eskubideren murrizketa honetan oinarritu beharko da: lortu nahi den helburuarekin neurriak duen proportzionaltasun printzipioan.
5. Espainiako sistema demokratikoak prozedura bat ezar dezake, eskubide eta askatasunen erregimena erasoetatik babesteko, batez ere, jardura terroristak egindako erasoetatik babesteko.

6. Konstituzioak ez du ezartzen alderdi politikoen jardunarentzako muga bakarra lege-hauste penala denik. Espainiako Konstituzioak ez du honelako aurreikuspenik: alderdi politikoen jarduna lege-hauste penalera mugatzeko aukera zedarritzen duenik, edo, bestela esanda, konstituzio-araua ez da oztopo bat alderdi politikoen jardunari zenbait muga arautzeko Kode Penaletik kanpo. Horrek ez du esan nahi arautze hori bereiz daitekeenik esku-hartze penaletik predikagarria den berme-sistematik –eskubide subjektiboak erauzi edo mugatzen dituen eraginkortasuna duen esku-hartzea gaitzen baitu arautze horrek–.
7. Kode Penaleko aurreikuspen zorrotzetatik kanpo dagoen bidea ezartzen du alderdien lege deitutakoak.  
Edozelan ere, pertsonen eskubideen bermatzailea izan beharko du bide estrapenal horrek ere.
8. Konstituzio Auzitegiak adierazi du alderdien lege deitutakoa erabat konstituzionala dela, AKren 48/2003 epaiko irizpide interpretatiboetatik abiatuta.
9. Ezin da egin alderdien xede eta helburuen kontrolrik, eta alderdiek erabateko eraldatze politikoa aldeztu ahal izango dute. Beraz, ezingo dira legez kanpo utzi ideologiak, baizik eta honakoak bilatzen dituzten alderdi politikoen jarduerak: *“askatasunen erregimena hondatzea edo deuseztatzea edota sistema demokratikoa ezabatzea”*.
10. Ez da ezarri “demokrazia militantea” izeneko sistema, Alemanian bezala; beraz, ez da exijitzen Konstituzioan jasota dauden postulatu ideologikoekin bat egiteko eginkizuna.

Gure iritziz, garrantzitsua da elementu horiek jasotzea. Espainiako eta Europako legeriatik eta jurisprudentziatik hartu dira, eta lotura dute ekainaren 27ko 6/2002 Lege organikoaren interpretazioarekin eta aplikazioarekin (alderdi politikoei buruzkoa da lege hori). Aukera Guztiak hautesle-taldeak proposatutako hautagai-zerrendak baliogabetzea eta hauteskundeetatik kanpo uztea ekarri zuen prozesua zein esparrutan gertatu zen argi erakusteko jaso dugu idatziz aurrekoa.

Aukera Guztiak-en hautagai-zerrendak era estrapenalean legez kanpo uzteko prozesua hasi zen sustatzaileek uste zutelako inpugnatutako hautagai-zerrenda horiek Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdi politikoen ondorengoak eta jarraipena zirela. Estatuaren Abokatuaren hitzetan *“ETA talde terroristak antolatutako estrategia haren materializazio berria baino ez dira, jarduera terroristaren eta politikoa arteko banaketaren bitartez jarduteko”*.

Alde horretatik, Estatuaren Abokatuaren arabera, prozesua ikuspegi bikoitzetik eratu zen:

- Aukera Guztiak-en aurrekariak ezartzea, bai eta hautagai-zerrenda horrek desegindako alderdiekin, edo Batasuna taldearekin edo sarearekin edota ETA-rekin izandako harreman politikoak ezartzea ere; eta
- inpugnatutako hautagai-zerrenden kideek, sustatzaileek eta babesleek desegindako alderdi politikoeekin edo ETArekin berarekin dituzten loturak, zerikusia eta harreman pertsonalak ezartzea.

Maiatzaren 17ko 83/2003 epaian (24 eta 26 Oinarri Juridikoa), Konstituzio Auzitegiak banatu egin zituen, aztertzen ari garenerako, alderdi politikoak eta hautesle-taldeak. Hain zuzen ere, honakoa adierazi zuen: “*ez dira errealitate baliokideak, ezta parekagarriak ere*”. Gainera, esan zuen ezberdintzen dituen ezaugarria alderdi politikoak irauteko duen bokazioa dela. Hautesle-taldeak, berriz, amaitu egiten dira euren sorrerako helburua bete bezain laster: hauteskunde-prozesu zehatz batera aurkeztea.

Konstituzio Auzitegiak ebazpenean onartu egin zuen alderdi politikoei buruzko 6/2002 Lege organikoaren bigarren xedapen gehigarria konstituzionala dela. Beraz, onartu egin zuen talde batek desegindako alderdi batekin funtsezko antzekotasunak dituenean, hautesle-talde izateari uzten diola, eta legez kanpo utzitako alderdiarekin “*parekotasun funtzionala duen entitatea*” bihurtzen dela. Horrenbestez, hautesle-talde hori desegitea egokia da.

Alderdi politikoen eta hautesle-taldeen arteko “dibertsitate ontologikoa”ren ondorioz (Konstituzio Auzitegiak aipatzen du), alderdiak legez kanpo uztera zuzendutako esku-hartzeak ezberdinak dira kasu batean edo bestean. Hortaz, alderdi politiko baten kasuan, agerian utzi behar da badaudela zenbait jarduera alderdi hori indarkeria terroristarekin lotzen dutenak, modu zuzenean edo tarteko baten bidez.

Hautesle-taldeen kasuan, euren izaeragatik beragatik, ezin dira aztertu egin ez diren jarduerak. Beraz, prozeduraren helburua lotura subjektiboak eta objektiboak frogatzea da, hau da, hautesle-taldeek legez kanpo utzitako alderdiekin duten lotura. Horrela, alderdi horien ondorengoak direla adierazi ahal izateko.

Lehenengo kasuan agertzen da zein zaila den honakoak elkartzea: ezaugarri horiek dituen prozesua eta eragina jasan dezaketen eskubideen berme-sistema zorrotza. Hautesle-taldeen kasuan zailtasun horiek areagotu egiten dira, eskatzen duen esku-hartze motagatik, eta hauteskunde-prozesu batean gertatzeak dakarren presagatik eta laburtasunagatik.

Testuinguru horretan egin zituen Ararteko honek adierazpenak Aukera Guztiak-en hautagai-zerrendak legez kanpo uzteko prozesuan, eta kexak ere testuinguru horretan jarri zituzten honakoek: hautagai-zerrenda horien eta legez kanpo utzitako alderdien arteko loturak ezartzeko egin ziren esku-hartzeen ondorioz euren eskubideak urratu zirela uste zuten pertsonak.

Hainbat eskubidek jasan dute agian eragina Aukera Guztiak-en hautagai-zerrendak legez kanpo uzteko egin zen esku-hartzearen ondorioz:

- tutoretza judizial eraginkorrerako eskubidea eta berme guztiak dituen prozesurako eskubidea (24. art. EK)
- afera politikoetan parte hartzeko eskubidea (23.2 art. EK)
- adierazpen askatasunerako eskubidea (20. art. EK)
- askatasun ideologikorako eskubidea (16. art. EK)
- legezketasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa (9.3 eta 25.1 art. EK)
- datuak lagatzearen babesarekin lotutako intimitaterako eskubidea (18. art. EK)

Auzitegi Goreneko Areto Nagusiak 2005.eko martxoaren 26an emandako epaian zein Konstituzio Auzitegiak martxoaren 31n emandako 68/2005 epaian, oso zehatz aztertu da egindako jarduerak eskubideetan izan dezaketen eragina, eta azpimarratzekoa da Konstituzio Auzitegiak izaera bermatzaile nabarmenarekin esku hartu duela.



Hori dela-eta, hona ekarriko dugu auzitegi biek egindako azterketa.

- a) Tutoretza judizial eraginkorra eskuratzeko eskubideari buruz. Berme guztiak dituen prozesurako eskubidea.

Prozesu honetan eta aurreko prozesuetan alegatu da ezinezkoa dela defentsa egokia egitea epe hau bakarrik ematen denean: *“hamabost ordu emandako dokumentazio guztia aztertzeke eta analizatzeko”*.

2005.eko martxoaren 26an emandako epaian Auzitegi Gorenak adierazten duenez, Hauteskunde Erregimenari buruzko Lege Organikoko 49. artikulua-ren helburua honakoak bateragarri egitea da: *“tramitazio jarraitu eta harmonikoan dagoen interes orokorra, eta, aldi berean, epailearen kontrola egotea Hauteskunde Administrazioak egindakoari buruz eta guztien oinarritzko eskubideen tutoretza jurisdikzionalari buruz”*. Horrez gain, honakoa uste du: *“prozesuaren izaerak berak ezartzen du epeen premiazkotasuna. Bestalde, errekurtsoa egiten duenarentzat zein demandatuarentzat dira epe horiek”*.

Hala ere, 68/2005 epaian, Konstituzio Auzitegiak zehaztu egin zuen zaila dela hauteskundeekiko auzi-prozesuan baldintza hain konplexua sartzea, hau da, hautagai-zerrendak legez kanpo uzteko aurreikusi dena sartzea. Izan ere, prozesu horren ezaugarriak dira lastertasun-oharrak, premiazkotasuna, epeen preklusioa eta alegazio eta frogetarako faseen kontzentrazioa.

Konstituzio Auzitegiaren iritziz, ohar horiek beharrezkoak eta tamainakoak dira Konstituzioaren ikuspegitik, baina hauxe adierazi du: *“desiragarria litzateke legegileak ahalegin berezia egitea horrelako kasuetan erosotasun prozesal handiagoa lortzeko”*. Edozelan ere, Konstituzio Auzitegiak era xehatuan aztertzen ditu zalantzan jarritako frogak.

Esate baterako, pertsona batzuen artean kontrolatu diren telefono-elkarrizketak (pertonetako batzuek garrantzi publikoa dute), *“ez dira balioetsi, eta organo judizialak ez ditu kontuan hartu errekurritutako epaian lortu den ondoriora iristeko. Hortaz, ez zuen inolako zentzurik froga bat praktikatzeak AGko BJLOko 61. Aretoak kontuan hartu ez dituen alderdiak indargabetzeko”*.

Horrela, zeharka desagertu egiten da Ararteko honek erakutsi zuen arduretako bat. Erabat legezkoak diren erakundeen buruek izandako elkarrizketen grabazioengatik erakutsi zuen ardura hori Arartekoak, esate baterako, LAB sindikatua-ren buruei egindakoengatik. Horrexegatik, azpimarratu behar da froga horiek ez direla aintzat hartu, hau da, ez direla kontuan hartu legez kanporatzea ebazteko. Edozelan ere, epaiak aipatu egiten du sindikatu bateko buruaren komunikazio telefonikoak kontrolatzeko baimena eman zuen autoa, baita haren telefono mugikorra kontrolatzeko baimenaren luzapena ere.

Preso baten eta haren abokatuaren arteko elkarriketak transkribatzeari dago-kionez, adieraztekoa da Konstituzio Auzitegiak aztertu egin zuela erregular-tasun juridikoko zein egoeratan grabatu zen elkarriketa hori. Epaiak diotenaren arabera, esku-hartzea kartzelako zuzendariak erabaki zuen, presoari jakinarazi zitzaion eta espetxeratuaren zaintzako epaitegiari komunikatu zitzaion. Azken horrek Zuzenbidekoa zela adierazi zuen.

b) Afera publikoetan parte hartzeko eskubideari buruz.

2005.eko martxoaren 26an emandako epaian, Auzitegi Gorenak honakoa uste zuen legez kanpo utzitako alderdi politikoen ondorengoak edo jarrai-pena diren hautesle-taldeei buruz –kasu honetan, Aukera Guztiak–: *“ez die ekarriko inolaz ere sufragio pasiborako eskubidearen urratzea printzipioz hautagai izateko gaitasun edo egokimen indibiduala duten pertsoneri, ez direlako inolaz ere mugatu formalki politikan parte hartzeko dituzten oinarrizko eskubide zibilak, baina eskubide horiek nahitaez eragina izango dute legelariak modu legitimoan ezarri duen mugatzeagatik. Mugatze hori sistema demokratikoaren funtsezko printzipioak babesteko ezarri zuen”*.

68/2005 epaian, Konstituzio Auzitegiak irizpide hori berretsi zuen, baina zehaztu zuen HEOLok *“hautagarritasun ezeko kausa bat aurreikusten ez badu ere, ezin dela ukatu eskubide hori libreki erabiltzea murrizten duela era materialean zeren taldean dauden pertsonak sufragio pasiborako duten eskubidea erabili baitezakete beste hautagai-zerrenda baten bidez”*. Izan ere, erabilera izaera absolutuarekin murrizten ez bada ere, *“eragotzi egiten du beren parte-hartzearekin honako uste judizialari arrazoizko oinarri nahikoa eman diezaioketenekin batera gozatzea: borondate-kontzertu baten aurrean gaudela, alderdi politiko bat desegitearen ondorio juridikoak iruzurrez saihesteko”*.

c) Askatasun ideologikorako eskubideari buruz.

Auzitegi Gorenak honakoa adierazi du bere epaian: *“aplikazioa ez du inolako diskriminazio ideologikotan oinarritzen, baizik eta datu, aztarna eta zirkuns-tantzia batzuen hautemate judizialean. Horien bitartez ulertu behar da, hala egokitzen denean, hautesle-taldea desegindako alderdien jarduera jarraitzera datorrela”*. Beraz, gakoa jarraipen hori dagoela behar bezala frogatzean datza. Ezingo du inolaz ere eraginik izan askatasun ideologikorako eskubideak, Kode Penalean ezarritakoa salbu.

d) Adierazpen askatasunerako eskubideari buruz.

Honako honetan, Auzitegi Gorenaren epaiak hauxe aztertu du: *“ETA erakunde terroristaren jarduerari buruzko jarrera hartzearen isiltasunari eta beste alderdi batzuei eman behar zaien garrantzia”*.

Herritarren Zerrenda hautesle-taldearen aldarrikapena baliogabetzea bermatu zuen epaian, Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi zuen: *“hiritar bati ere ezin zaio exijitu bere adierazpen askatasunetik soilik jaito daitezkeen atxikimenduak edo gaitzespenak adieraz ditzan. Hala ere, Konstituzioaren ikuspegitik onartzekoa da hautesle-talde bat eta legez kanpo utzi diren alderdiak elkar aditzen direla dioen susmo oinarri-duna bada, gizarte demokratiko batek honakoa itxarotea: erakunde kriminal batek adierazten duen guztitik eta haren tresna politikoetatik urruntze, ukatze edo gaitzespen ageria erakusten duen adierazpena, hain zuzen talde horrek botoaren eta eztabaida librearen tresnak bakarrik onartzen baditu”*.

Aztertzen ari garen kasuan, Konstituzio Auzitegiak terrorismoaren gaitzespenari buruzko auzia ere aztertu du, eta adierazi du *“oinarria duen susmoa bada hautagai-zerrenda bat terrorearekin elkar aditzen dela dioena edo elkar aditze horren ondorioz debekatu diren alderdiekin elkar aditzen dela dioena (...) zerrenda horrek adierazpen ageria egitea espero da, erakutsiko duena erakunde kriminal batek adierazten duen guztitik eta haren tresna politikoetatik urruntzen dela, horiek ukatzen dituela eta gaitzesten dituela; eta hori, lehenengo eta behin, botoa eskatzen zaien pertsonen errespetuagatik, beren izenean botere publikoaren borondatea adierazteko. Horrek nahikoa izan beharko luke aztarnak frogatzeko duen eraginkortasuna desegiteko. Izan ere, adierazpen hain sendoaren kontra oso zaila da frogatzea horrela indargabetzen den errealitate bat”*.

Konstituzio Auzitegiak honakoa argitu du: *“terrorismoa berariaz gaitzesteari uko egitea ez da, beraz, aztarna nahikoa per se egiaztatzeke HEOLOko 44. artikuluan jasotako borondate iruzurgilea. Hori baino gehiago, kontrakoa da gertatzen dena. Zalantzarik gabeko gaitzespena kontrazantzu bat da, eta indarra kendu diezaioke zantzu nahikoetatik ondorioztatutako itxura horretako borondate baten errealitateari”*.

e) Intimitaterako eskubideari eta datuak babesteko eskubideari buruz.

Jasotako kexa ia guztiek arbuiatu egiten zuten notario aurrean sinatu zuten pertsonak ikertu izana. Hain zuzen ere, Aukera Guztiak hautesle-taldea joan den hauteskunde autonomikoetara aurkeztu ahal izateko sinatu zuten pertsona horiek.

85/2003 epaian (aztertzen ari garena baino lehenagokoa), Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi zuen datuen babesari buruz: *“ezin da pentsatu egin daitekeenik hauteskunde-prozesu batera aurkezten diren hautagaien lotura politikoaren datuari dagokionez”*. Izan ere, argitaratutako datuak direnez, edozein hiritarrek ikus ditzake, eta, beraz, aipatzen dituzten pertsonen kontroletik kanpo daude. Honakoa ere adierazi zuen: *“hautagai baten atxikitze politikoa publikoa da eta izan behar du gizarte demokratiko batean, eta, horregatik, ezin da haren gainean inolako disposizio-botererik eskatu”*.

Doktrina horretan eta bestelako argudioetan oinarrituta, Auzitegi Gorenak uste du *“kasu honetan erabat aplikatzekoa”* dela. Bada, bildutako informazioa *“errekurritutako hautesle-taldea babesteko sinatu zutenek borondatez emandako datuetara mugatzen da soilik”*.

Inpugnatutako hautesle-taldeei dagokienez, Auzitegi Gorenak gogoratzen du aztarna gisa balio dezakeela sinatu duten pertsona batzuk (Aukera Guztiak hautesle-taldearen aurkezpeneko sinatu zutenak, sustatzaileak edo babesleak) legez kanpo utzitako alderdi politikoaren ingurukoak ere izatea.

68/2005 Epaiko 15. Oinarri Juridikoan, Konstituzio Auzitegiak berriro ere zehaztu egin zuen Auzitegi Gorenako Areto Bereziak zioena. Hain zuzen ere, hauxe adierazi zuen: *“hala ere, bistakoa da honakoak erabat ezberdinak direla: alde batetik, hautagai-zerrenda bat osatzen dutenen edo kargu publikoren bat bete dutenen izenen publizitatea eta eskuragarritasun orokorra, eta, bestetik, hautesle-talde bat sortzerakoan abal-emaile gisa sinatzen dutenei dagokiena, abalen sinadura horiek ez baitira hauteskunde-prozeduran, beren funtzioa bete ostean, guztientzat argitaratzen, eta ez baitzaie egiten hautagai-zerrendei, bistako arrazoiengatik, dagokien publizitatearen parekorik egiten. Horren ondorioz, epai konstituzionalean ezarritako doktrina ezin dakioke aplikatu kasu honi, besterik gabe, puntu honetan demandak egiten duen kexa ebazteko.”*

Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi du irmo: *“talde baten abal-emaileak baino ez direnen historia pertsonala (politikoa, poliziala edo judiziala) ezin da izan ondorengo izatearen aztarna, edo jarraipena izatearen aztarna. Horren arrazoi bakarra eta begi bistakoa honakoa da: parte-hartze politikoko forma denez, hautesle-taldeen izaeraren parte da dagokion esparruko edozein hauteslek sinatzeko zabaltzen direla kontrol posiblerik ez baldintzapenik gabe. Sinadura horrek soilik adierazten du hautagai-zerrenda zehatz bat hauteskunde-lehian sartzea babesten dela”*.

Honela amaitzen da Konstituzio Auzitegiaren arrazoiketa: *“beste modu batera esanda, ezin da taldearen gainean (edo haren kideen gainean) susmorik sortu, susmo horiek taldeak kontrolatu ezin ditzakeen eta formalki bereak ez diren jokabide batzuetatik (abalak sinatzea) datozen itxura edo aztarnen ondorioz sortzen badira. Muturreko kasu batean, abal-emaileen artean bere garaian desegindako alderdiekin lotuta egondako pertsona kopuru handia egonez gero, horrek soilik ekarri ahal izango luke pertsona horiek taldearen hautagai-zerrendan konfiantza jartzen dutelako ustea, baina uste horretatik aurrera ezin da hemen aztarna bat eraiki”*. Erabat bat gatoz goi-azitegiaren argudioarekin.

\* \* \* \* \*

Bestalde, eskubideen urratze posiblea aztertzeaz gain, Konstituzio Auzitegiak honenkin lotutako beste gai bi jorratzen ditu bere epaian: Aukera Guztiak hauteskundeetatik

kanpo uzteko demanden oinarria izateko aztarna gisa aurkeztu ziren frogak. Horri dagokionez, arartekoak zalantzan jarri zuen gai horiek ordenamendu juridikoarekin bat ote zetozen.

Bilbon 2005.eko otsailaren 26an manifestazioa egin zen “18/98+ plataforma” izenekoak deituta, eta horri buruz, goi-auzitegiak hauxe adierazi du: *“ezin da kontuan hartu elementu objektibo garrantzitsu gisa, bertan berriro batzeko deiak egin ziren arren, eta legez kanpo utzitako alderdien buruek egin ahal izan bazituzten ere”*.

Konstituzio Auzitegiak honakoa argudiatu du: *“legezko manifestazioa zen, deialdia ez zen egin geroago inpugnatu zen hautagai-zerrenda sustatzeko, legez kanpoko erakundeek babestuta, eta bertan izan ziren guztiz legezkoak diren alderdi politikoen eta elkarten ordezkariak”*. Manifestazio hartan Aukera Guztiak babesteak ez du esan nahi hori manifestazioan zeuden desegindako alderdietako kideei soilik egotzi dakiekeenik, eta are gutxiago ondoriozta daiteke hortik alderdi horien eta Aukera Guztiak hautesle-taldearen arteko lotura.

Bestalde, kontuan hartutako elementu subjektiboei dagokienez, Konstituzio Auzitegiak zera adierazi du: *“ezin du onartu inolako garrantzirik ematea taldeko hautagaietako bi legez kanpo utzitako alderdien zerrendetan egon izana 1983 eta 1991. urteetako udal hauteskundeetan, eta orain hautagai horiek berak 17.a eta 25.a bezain postu ez garrantzitsuetan aurkeztea hauteskunde autonomikoetara. Agerikoa da datu horrek ez duela garrantzirik, horri buruz 85/2003 epaian ezarrita utzi genuen irizpidearen arabera”*.

- Emaizta

Ondorioei buruzko azken atal hau hasteko, gogoratu behar dugu Aukera Guztiak taldea hauxe dela frogatzeko prozedura aztertzen ari garela: *“2003.eko martxoaren 27ko Epaiak desegindako alderdi politikoen iruzurrezko jarraipen hutsa”*.

Konstituzio Auzitegiak dioenez, iruzurrezko azpikeria bat *“beti egiten da legezko edozein iruzurren ezaugarri diren opakotasun- eta zurikeria-terminoetan”*, eta iruzurra dagoela frogatzeko, beharrezkoa da material frogatzaile askotarikoari eta heterogeneoari begiratzea, froga zuzenez zein zeharkakoez osatutakoa, horretarako *“beloa altxatzea”* deitu den teknika erabilita. Teknika horren helburua ageriko legezketasuna desegitea da, iruzurrezko azpikeria dagoela erakusteko. Jorrazten ari garen gai honetan, froga horiek lortzeak ardua berezia sortu zuen, kasu batzuetan, froga edo aztarna gisa zuten balioari buruz, eta besteren batean froga horiek pertsonaren eskubideengan izan zezaketen eraginari buruz.

Gai horiek balioetsi dituzte Auzitegi Gorenak (bere nahitaezko esku-hartzean) zein, bereziki, Konstituzio Auzitegiak. Dagokien funtzio bermatzailea bete dute, eta, egoitza judizialean, erantzuna eman diete pertsonen eskubideak babesten dituzten erakundeek arduratzeko izan zituzten arrazoiei, besteak beste, Ararteko honen arduratzeko arrazoiei. Horrenbestez, adierazi behar dugu sistema demokratikoaren berme judizialeko mekanismoek funtzionatu egin dutela. Hori esateko, alde batera uzten ditugu aipatutako organo judizialen argudio juridikoek sortu ditzaketan balioespen politikoak edo metapolitikoak.

Lehenago aipatu dugu demokrazia pluralistako sistema batean gatazkak gizarteen funtzionamenduaren parte direla. Horren ondorioz, beharrezkoa da aukera politikoentzat bermea izango diren arauak ezartzea. Horixe da alderdi politikoen

konstituzionalizazioaren oinarria; hortaz, alderdiak sistemaren aktore politiko nagusiak bihurtzen dira. Horrexegatik, adierazi behar da har daitekeen neurririk larrienetakoa alderdi politiko bat legez kanpo uztea dela, edo, bestela, hautesle-talde baten hautagai-zerrendak baliogabetzea.

Kalitateko demokrazia batean, oso izaera murriztailearekin bideratu behar da oinarriko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri (eta parte-hartze politikorako eskubidea garrantzitsuenetakoa da); irizpide batzuk beharrezkoak dira, esate baterako, salbuespena izatea, arrazoizkoa izatea, proportzionala izatea eta egokia izatea. Horrez gain, beharrezkoa izan behar du eman zaion helbururako, hau da, sistema demokratikoa defendatzeko. Oinarriko eskubideak murrizteko gutxieneko esku-hartzearen printzipioa funtsezkoa izan behar da, eta botere publiko guztien jardueren eta erabakien berri eman behar du.

Erabili dugun arrazoiketatik, argudio-bidea Auzitegi Goreneko Areto Bereziaren eta Konstituzio Auzitegiaren epaien azterketan oinarrituz (horiek ere lehenago definitutako legegintza- eta jurisprudenzia-esparrutik abiatu dira), ateratzen dugun lehen ondorioa hauxe da: Aukera Guztiak-en hautagai-zerrendak hauteskundeetatik kanpo uzteko azken oinarri juridikoan (Konstituzio Auzitegiaren erabakia) ez zeuden prozedura judiziala hasi baino lehen bultzatu zuten elementuetako gehienak. Alde horretatik, adierazi behar dugu elementu horietako batzuk ez zirela beharrezkoak izan baliozko argudio juridikoak eraikitzeko. Gainera, eragin txarra izan zuten oinarriko eskubide zehatz batzuk behar bezala erabiltzeko aukeran, eta modu nabarmenean urratu zuten aipatutako gutxieneko esku-hartzearen printzipioa, murriztu egin baitzituzten oinarriko eskubideak eta proportzionalitatekoak. Elementu horiek zantzu gisa adierazi zituzten Fiskaltzak eta Estatuaren Abokatuak. Enfasi berezia egin behar dugu Aukera Guztiak hautesle-taldearen abal-emailei egindako ikerketaren gainean, herritar askori eragin baitzien. Jarduera horrek aipatutako herritarren oinarriko eskubideak murriztu zituen, bereziki, norberaren irudi eta intimitatearekin lotutako eskubideak.

Epailen erabakiak aztertu ditugu, eta horiei batu behar diegu Europako Giza Eskubideen Auzitegiak alderdi politikoak legez kanpo uzteari buruz duen doktrina. Erabaki horiek erakusten dute zaila dela Alderdi Politikoen legea aplikatzea, eta defentsa demokratikorako tresna izateko helburua eta herritarren eskubideen berme-sistema bateratzea ere zaila dela. Zailtasun hori argiagoga egin da, posible bada, hautesle-taldeen bultzatutako hautagai-zerrendak legez kanpo uzteko prozesuetan. Denbora oso gutxi dago modu oso arduratsuan nahitaez bermatzailea izan behar den prozesua bideratzeko. Horrexegatik, hona ekarriko dugu Konstituzio Auzitegiak martxoaren 31ko 68/2005 zk.dun epaiko 4. oinarri juridikoan egindako hausnarketa. Bat gatzoz honakoa dioen hausnarketarekin: *“desiragarria litzateke legegileak ahalegin berezia egitea horrelako kasuetan egokitasun prozesal hobea lortzeko”*.

Beraz, legegileari eskatu behar diegu hausnarketa bat hasteko, hain zuzen ere, laburregia den prozedura baten bermeak sendotzeko, batez ere hautesle-taldeen sustatutako hautagai-zerrendez ari garenean eta ez dagoenean subjektu politiko horien jardueretan oinarritutako froga nahikorik. Horretarako arrazoia erraza da; parte-hartze politikoko erakundeak dira, *ex novo* sortutakoak, eta ez dute aurrekaririk. Hortaz, ezin dira ondorioztatu akusazioaren frogak, legez kanpo uzteko erabaki baten oinarria izango direnak.

Azken buruan, gure iritziz, honakoa eskatzen du, alde batetik, segurtasun juridikoko printzipioak eta, bestetik, kalitate demokratikoko terminoetan oinarritutakoak

diren eskubideen berme-sistemaren etengabeko hobekuntza desiragarriak: legez kanpo utzitako alderdiekin ustezko lotura izanez gero, hautesle-taldeen hautagai-zerrendak era estrapenalean baliogabetzeari buruzko esparru legala doktrina hauetara egokitzea: Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2002.eko apirilaren 9an emandako epaietan agertzen dena eta Konstituzio Auzitegiak martxoaren 31n emandako 68/2005 epaian agertzen dena.

⇒ *Negozio lokalek igogailua jartzetik eratorritako gastuetan laguntzeko duten betebeharra (406/2005)*

- Erreklamazioa

Pertsona batzuek mahaigaineratzen dute erakunde honen aurrean, lokalen jabeek duten betebeharra igogailu bat jartzetik eratorritako gastuetan laguntzeko. Betebehar hori Jabetza Horizontalaren Legetik erortzen da. Era berean, administrazio publikoek eskaintzen dituzten laguntza zuzenen urritasuna azpimarratzen dute.

- Azterketa

Edozein iritzi baino lehen, Ararteko erakundeak ezin du partikularren arteko gatazketan parte hartu edo erabakirik eman, jabeekidetzaren harremanetan esate baterako. Kontu honek ez du suposatzen administrazio publikoen irregulartasuna, baizik eta jabeagoan duten lokala kokatzen den higiezinaren auzotarren komunitatetik eratorritako betebeharra. Dena den, jakinarazi genion egungo jabetza horizontalen komunitateen erregimen juridikoak ezartzen duela instalazio komunak hobetzeko gastuak jabeek ordaindu behar dituztela kuoten arabera, instalazio horri aterako zaion etekina kontuan hartu gabe. Erreklamazio egileak egiten zuen planteamendua Jabetza Horizontalaren Legearen arauak aldatzetik pasatzen zen, eta hori Gorte Nagusiei dagokie. Arrazoi hori zela eta, erreklamazio egileari jakinarazi genion eskaera idazki bat aurkeztu ziezaiokeela erakunde horri bere planteamendua aztertua izan zedin eta egokituz jotzen zituen neurriak har zitzen.

Bigarren kontuari dagokionez, administrazioek ematen dituzten dirulaguntzak horiek arautzeko dauden arauen xedapenek jasotako suposamendu batzuk sustatzera edo laguntzera zuzentzen dira. Promozio jarduera horren erregimen juridikoa laguntza edo dirulaguntza publikoena da, deialdi bakoitzean ezarritako baldintza batzuen arabera eta era berean ezarritako aurrekontu kontsignazioaren menpe geratuz. Baldintzak betetzeak ez du berdintasun printzipioa zapaltzen, baizik eta sustapenerako neurriak bilatzen dituen gizarte interesa edo erabilpenerako jarduera zehazten du, eta lehentasunak zehazten ditu aurrekontu mugen aurrean. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, birgaitze sustapenerako dituen eskuduntzen barnean, merkataritza lokalek finantziario kualifikatuan parte hartu dezaketen suposamenduak zehazten ditu.

- Emaidza

Behin ikusten denean kexaren arrazoiak gure jardunbidearen aukeretatik kanpo geratzen dela, horren inguruko gure hausnarketan berri ematen diogu erreklamazio egileari eta espediente hau amaitutzat jotzen dugu.





## II. ATALA

# **BERARIAZKO GOMENDIOAK**



## **1. KEXA-ESPEDIENTEEI DAGOZKIEN GOMENDIOEN ZERREDA**

Urteko txostenaz gain azken urteotan beste argitalpen bat egin izan dugu txosten hori osatzeko. Argitalpen horretan Ararteko erakundeak ekitaldian egindako gomendio guztien zerrenda jasotzen zen, kronologikoki ordenatuta, eta zenbaki eta datarekin.

Interesgarritzat jotzen zen gomendio horien eduki osoa argitaratzea.

Hitzak berak aditzera ematen duenez, ez dago “gomendio” horiek nahitaez betetze-ko betebeharra, eta, horregatik, ahalegin handia egin behar da arrazoi juridikoak emate-rakoan, gure urteko txostena aztertuko dutenentzat interesgarriak izan daitezkeenak.

Bildutako gomendio horietan beste defendatzaile batzuek gomendiotzat dituzten ebazpenak jaso dira, eta, bestalde, lege gogorarazpen edo iradokizuntzat dituztenak ere jaso dira.

Beraz, Arartekoaren esku-hartzeari amaiera eman dioten ebazpenak jasoko dira, bai eta administrazioaren jardunbidea aldatu nahi dutenak, legalitatearekin bat ez dato-rrelakoan edo eskubideak urratzen dituelakoan.

2005eko txosten honetatik aurrera, egokiago ikusi dugu gomendioen bilduma hau argitalpen autonomo gisa baino urteko txostenarekin batera argitaratzea.

Horregatik, atal honetan 2005. urtean egindako gomendio guztien zerrenda jaso dugu.



**1/2005 GOMENDIOA, URTARRILAREN 21<sup>E</sup>KOA, LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUARI EGINA, KEXAGILEARI ESKATU ZITUEN AGIRIAK ESKURA DIEZAZKION ETA, AURRERANTZEAN, ADMINISTRAZIO PROZEDURA BATEAN PARTE HARTZEN DUTENEI PROZEDURAKO AGIRIAK EZAGUTZEA ERRAZ DIEZAIEN, BEHAR BEZALA OINARRITUTAKO ARRAZOIRIK EZ BADA BEHINTZAT. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. Kexagileak erakunde honetara jo zuen, zera azaltzeko: bere garaian, gora jotzeko errekurtsio bat jarri zuela (... zenbakikoa) Kontseilu horretan, Arabako Abokatuen Elkargo txit prestuko Gobernu Batzordeak diziplina-espeditente batean hartutako erabakiaren kontra. Errekurtsio hori ezetsia izan ondoren, berriro erakunde horretara jo zuen, hartutako erabakiarekin konforme ez zegoela adierazteko eta, aldi berean, izapidetutako espeditentearen kopia bat eskatzeko. Alabaina, (...) datan, eskabidea ez zela onartu erantzun zioten; horregatik eskatu zion Arartekoari esku har zezan.
2. Idazki horretan bildutako azalpenak kontuan izanda, interesdunari agiriak ikusten ez uzteko erabakiak behar bezalako oinarririk ez zuela iruditu zitzaion erakunde honi.

Izan ere, 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 35. artikuluan honako hauek ezartzen ditu herritarren eskubideen artean:

- “a) *Interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete.*  
(...)
- h) *Herri-administrazioetako erregistro eta artxiboetara jo dezakete, konstituzioan, lege honetan zein besteetan ezarritako moduan.”*

Lege horren 37. artikulua, bere aldetik, artxibo eta erregistroetara jotzeko eskubide hori garatzen du, eta interesdun guztientzako arau orokor gisa ezartzen du. Agerikoa zen (...) andreak bazuela eskubide hori, zeren Arabako Abokatuen Elkargo txit prestuari salaketa egiteaz gain, errekurtsogile izan zen Kontseilu horrek bideratutako espeditentean.

Kexagileak auzibidera jo zezakeela eta han espedientea eskuratuko zuela zioen argudioa ez zitzaigun onargarria iruditzen. Lehenik, prozedura judizialean eskutatako agiriak lortuko zituela onartzen bazen, ez zegoen inolako arrazoirik eskubide horren erabilera oztopatu eta atzeratzeko. Bigarrenik, ez zirudien arrazoizkoa pertsona bat abokatu baten zerbitzuak kontratatzerara behartzeak soil-soilik espediente bat eskuratzeko eta, hartara, bere nahiak funtsik ba ote duen egiaztatzeko. Jokaera hori, prozesuaren ekonomiaren kontrakoa izatez gain, zentzugabea ere bazen.

Halaber, Kontseilu horri ohartarazi genion kexagilea administrazioarekiko auzietarako jurisdikziora bidaltzen zuela, hark bere abokatuaren jokaera profesionala salatzen beste erreklamazio-bide batzuk eskura zituela kontuan hartu gabe. Horrela, begibistakoa zen edozein ekintza zibil nahiz penal hasteko, letraduak gertaerez kontatzen zuen bertsio osoa ezagutzeko eskubidea zutela interesdunek.

Laburbilduz, erakunde honen iritziz, ez zuten behar bezalako funtsik administrazio-espedienteetan legeak interesdun guztiei –hasieran bederen– aitortzen dien eskubidea gauza zedin eragozteko eman ziren arrazoiek.

3. Bere lehenbiziko erantzunean –atzerapen handiz iritsi zen– Kontseilu horrek ez zion azaldutako gaiari heldu, bada, dirudienez, kexa hori gora jotzeko errekurtsua ebatzi ez zelako sortu zela ulertu zuen, oker ulertu ere.

Bigarren erantzunean ere ez zitzaien berariaz erantzun erakunde honek azaldutako gaiari. Kontseiluak, 2001-01-23ko idazkiaren bitartez, kexagilearen eskabideari jada ihardetsi ziola adierazi zigun, baina ez zuen aipatu hain zuzen erantzun-idazki hartan azaldutako arrazoiekin ados ez zegoelako jarri zuela kexa (...) andreak.

Jasotako azken idatzian, erakunde horrek hasierako ukapena oinarritzeko erabili zituen argudio berberak erabili ditu, gehiago garatzen baditu ere. Hauxe dio:

*“En su día se le contestó a la **Sra. (...)** y a esa **ARARTEKO**, 16 de Octubre de 2003, en el sentido de considerar que dada la interpretación que del procedimiento administrativo sancionador en materia deontológica para Abogados vienen teniendo sistemáticamente los Tribunales de Justicia el acceso a cualquier documento del Expediente Administrativo debe, por los denunciantes no conformes con la Resolución Administrativa, de realizarse vía Jurisdiccional una vez anunciado el Recurso y requerido esta Administración Profesional por el Tribunal de Justicia competente para la remisión del expediente a efectos de poder confeccionar la correspondiente demanda.*

*Es en este punto donde esa Institución y este Consejo mantienen discrepancias de interpretación Jurídica, ambas absolutamente respetables, pero que de forma sistemática el Pleno del Consejo Vasco de la Abogacía se viene ratificando en ellas.*

*Efectivamente se hace que los Tribunales de Justicia no dan ningún tipo de derecho a los denunciantes en materia deontológica de los Abogados, a no ser el mero hecho de interposición de denuncia, esta Administración Profesional viene sistemáticamente admitiendo la posibilidad de proponer prueba y recurrir en segunda Instancia Administrativa los Expedientes incoados con motivo de sus denuncias.*

*Una vez resuelto definitivamente se informa a la parte de que tiene el plazo correspondiente para acudir ante los Tribunales de Justicia pero se les advierte que éstos sistemáticamente están rechazando sus pretensiones por considerar que no tienen capacidad procesal para recurrir.*

*Es por ello por lo que de nuevo debemos de insistir que no se le puede facilitar a la **Sra. (...)** documentación alguna del Expediente Administrativo por entender que no está legitimada para ello y, en caso de así desearlo, debería acudir a los Tribunales de Justicia para que éstos reclamen el Expediente para tener acceso al mismo e interponer la demanda sin perjuicio de saber anticipadamente que su pretensión va a ser rechazada.” (sic)*

### Gogoetak

1. Gure ikuspegitik, transkribatu ditugun azalpenek zera pentsarazten dute: hasiera-hasieratik, Legelarien Euskal Kontseiluak gai honetan bi kontu desberdin nahastu dituela, kontuok zenbaitetan elkarrekin zerikusia izaten duten arren. Izan ere, administrazio-espeditentearen kopia lortzeko ukapena (lehendabiziko kontua) justifikatzeko, uneoro adierazten du kexagileak auzibidean baino ezin duela agiri-sorta hori lortu, eta, gainera, auzibidean auzi-jartzaile izateko legitimotasunik ez duela ohartarazten zaio (bigarren kontua). Gure ustez, bi arazo ezberdin dira, legeak modu ezberdinean arautuak eta elkarren mendeko ez direnak, nahiz eta batzuetan biak batera agertzen diren.

Horregatik, jarraian, bereiz tratatuko ditugu gai honen bi alderdi horiek. Hasteko, zigor-prozedura batean salatzaile denak auzibidean errekurtsioa jartzeko ustez legitimotasunik ez duela dioen kontu horri helduko diogu.

2. Kontseilu horren 2003-10-16ko idazkian agerian jartzen denez, (...) zenbakiko administrazio-espeditentea ez eskuratzearen azpian honako arrazoi hau dago: “*la calidad procesal de parte que los Tribunales de Justicia están dando a los ciudadanos que interponen quejas ante los órganos de la Abogacía Institucional por el comportamiento de sus Letrados*”.

Bere garaian –2003ko abenduaren 16ko idazkian– jada nabarmendu genuen kontraesana zegoela agiriak ukatzeko arrazoi implizitu horren eta 2001-01-23ko gutunean, espeditentea lortu nahi bazuen, auzibidera jotzeko egin zitzaion adierazpenaren artean. Baina, kontraesan hori gorabehera, zalantzan jar daiteke Kontseilu

horrek hain ziur baieztatzea administrazio-bideko salatzaileak ez duela legitimotasunik administrazioarekiko auzibidean parte hartzeko.

Egiaz, administrazio-prozedura batean edozein “interesdun”ek dituen prozedura-eskubide guztiak salatzaileari ez aitortzea jurisprudentzia-doktrina finkatua da. Baina, era berean, egia da doktrina hori oso gogor kritikatu dutela aditu batzuek eta epai batzuetan ez dela aintzat hartzen. Adibide gisa, Auzitegi Gorenaren 2000-01-18ko Epaia aipa daiteke (administrazioarekiko auzietarako Saila, 7. atala); epai horretan ezarrita dago magistratuak salatu zituenak baduela legitimotasuna Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Diziiplina Batzordeak hartutako erabaki baten kontra egiteko.

Nolanahi ere, bada Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak ia aho batez onartutako jurisprudentzia-irizpide bat: horren arabera, legitimotasunaren arazoak izaera kasuistikoa du eta, beraz, kasu guztiei ezin zaie erantzun bera eman, kasu bakoitzean legitimotasun hori oinarrituko duen bidezko interes zehatza bilatu behar da; interes hori, jakina, beretzat hartzen duenak alegatu eta frogatu behar du.

Orduan, hauxe ondorioztatu behar da: salatzailea salatzaile izate hutsagatik interesdun bihurtzen ez bada ere, ezin dela ukatu interesdun izan daitekeela, beste zertzelada batzuk aldi berean gertatzen badira: adibidez, bidezko interesa baldin badago, interes hori Konstituzio Auzitegiak definitu duen zentzu zabalean ulertuta.

Hori hala izanagatik ere, eta oro har hitz eginez, erakunde honi egokia iruditzen zaio Kontseilu horrek salatzaileei epaitegien aurrean jarduteko zailtasunak aurki ditzaketela ohartarazten jarraitzea, zigor-alorrean administrazio-bideari bukaera ematen dion erabakian halaxe jasota utziz.

Dena den, aurreko gogoetak aztergai dugun kasuan ez direla ezarri behar azpimarratu behar dugu. Izan ere, alde batetik, kexagileak ez zuen auzibidera jotzeko asmorik agertu, administrazio-espeditentea eskatu baino ez zuen egin. Beste alde batetik, ustez administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean jarduteko legitimotasunik ez izate horrek ez dauka eraginik administrazio-bidean exiji daitekeen legitimotasunean eta ez du hori baldintzatzen, kexagileari ordurako aitortu baitzioten interesdun izaera administrazio-bidean.

3. Beraz, gai honen muinari helduz –hau da, kexagileak parte hartu duen administrazio-espeditente bateko agiri jakin batzuk lortzeko eskubidea–, agerikoa dirudi 30/1992 Legearen 37. artikulua aplikatzeko baldintzak aztertzea mugatzen dela azterketa.

Artikulu horrek xehe-mehe arautzen du irispidea izateko eskubidea, eta honako hau ezartzen du oinarritzko printzipiotzat: “1. *Herritarrek erregistroetara jotzeko eskubidea dute eta, espeditenteren batekoak izanik, administrazioko artxiboetan dauden agirietara irispidea izateko eskubidea (...), espeditenteak ikusteko eskaera egiten den egunean espeditente horien prozedurak amaituta badaude.*”



Beraz, arau orokor gisa, edozein pertsonak ezagut dezake jada itxita dauden administrazio-espeditenteen edukia. Printzipio orokor hori ñabartu beharra dago, noski, eta aitortu beharra dago arauak ezarri dituen ñabarduretako batzuk “gutziz ulergaitzat” jo dituela doktrinak. Horixe gertatzen da, adibidez, 37.3 atalarekin, baina hori ez da kasu honetan ezarri behar, izan ere, espedienteetako agiri izendunen titular ez diren pertsonak agiri horietarako irispidea izateari buruzkoa da atal hori.

(...) andrearen kasuan argi dago 37.1 artikulua exijitutako baldintza guztiak betetzen direla; horregatik, legean irispide-eskubidea gauzatzea ukatzeko tasaturik dauden arrazoietako batzuk aldi berean gertatu diren ala ez aztertu beharko litzateke. 30/1992 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, irispide-eskubidea gauzatzea uka daiteke: “*interes publikoak hala agintzen duenean, besteren interes babesgarriagoak daudenean, edota legeren batean horrela ezartzen denean*”. Nolanahi ere, organo eskudunak arrazoitutako ebazpena eman behar duela adierazten da.

Begi-bistakoa dirudi gai honetan ez dela alegatu ukapen-arrazoi horietakoren bat gertatu denik, ezta printzipio orokorretan oinarritutako beste arrazoirik ere; gainera, halakorik izan balitz, arrazoitu egin beharko zen. Are gehiago, abokatuen elkargoen zigor-espeditenteei dagokienez, ez bakarrik ez dago salatzaileari letraduak egindako alegazioak ezagutzea galarazten dion legerik, baizik eta egintzen salatzailea “interesduna” dela onartzen du Legelarien Kontseilu Nagusiaren diziplina-prozedurari buruzko erregelamenduak.

Onarpen horrek biziki indartzen du falta deontologiko bat salatzen duenaren jarrera, baina, gainera, dagokion diziplina-espeditentean agertzen diren agiriatarako irispidea zabaltzen dio, horixe da-eta “interesduna” figura juridikoaren ondorio zuzenetako bat, 30/1992 Legearen 35. artikulua ezartzen duenez.

Laburbilduz, gure ustez, kasu honetan ez da frogatu –ezta argudiatu ere– kexagileari 32/00 errekurtsio arruntaren espeditenterako irispidea ukatzea justifika lezaketen arrazoiak daudenik (espediente hori bere garaian bideratu zuen Legelarien Euskal Kontseiluak).

Areago, kexagileari 2001-01-23ko idazkiaren bidez emandako lehen erantzunetik beretik uler daiteke hark espeditenteko agiriak ezagutzeko aukera zuela onartu dela inplizituki, nahiz eta ezagutzeko aukera hori geroko utzi den, jurisdikzio organoak espeditentearen lekukotza eskatu ondoren, espedientea errekurtsogilearen esku jarriko zuen prozesu-unerako.

Dagoeneko azpimarratu dugu jarrera horretan adostasunik ez dagoela: Kontseilu horrek (...) andrearen irispidean egiaz egongo ez den jardunbide bat aipatzen du, abiapuntutzat hartzen baitu hark ez duela administrazioarekiko auzibidera jotzeko legitimotasunik. Baina, horrez gain, ziurtzat dauka, antza, jurisdikzio-organoren horretara jotzea beste biderik ez duela letradu baten ustezko jokaera okerragatik kaltetua sentitu denak. Gure ikuspuntutik, ordea, nabarmena da kexagileak –bere garaian– jarduera zibil edo penalak has zitzakeela. Bestalde, abokatuak gai horretan izandako

esku-hartzeaz eman zuen bertsioa ezagutzeak, agian, auzibidearekin zerikusirik ez duten beste gauza batzuetarako balio lezake (esate baterako, zerbitzuen saria eztabai-datzeko). Ildo horretan, adierazi behar dugu kexagileak kexa jarri zuenetik igarotako denborak dezentet murriztu duela eskatutako agiriak lortzearen eraginkortasuna. Haatik, herritar horren eskubidea errespetatzea eta honen antzeko kasuetarako aurrekari bat finkatzea komenigarria zenez gero, ezinbestekoa zen Kontseilu horri gomendio hau egitea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **1/2005 GOMENDIOA, urtarrilaren 21ekoa, Legelarien Euskal Kontseiluari egina**

Beharrezko neurriak har ditzala kexagileak 2001eko urtarrileko bere idazkian eskatu zituen agiriak –(...) zenbakiko gora jotzeko errekurtsoren espedientean daudenak– eskura ditzan ahalbidetzeko. Era berean, aurrerantzean, Kontseilu horrek jarduerara arau orokortzat har dezala administrazio-prozedura batean parte hartu dutenei –baita zigor-espediente batean salatzaile badira ere– espediente hori osatzen duten agiriak ezagutzea erraztea. Espediente edo agiri zehatz baterako irispidea ukatzeko arrazoi oinarritu eta banan-banakorik balego, arrazoiok kexagileari jakinaraziko litzazkioke, ebazpen arrazoitu baten bidez.

**2/2005 GOMENDIOA, OTSAILAREN 1EKOA, DONOSTIAKO UDALARI EGINA, TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAN INTERESDUNAK -BERE EZINTASUNAGATIK- EGINDAKO SALBUESPEN-ESKAERA EZETSI ZUEN ADMINISTRAZIO EGIN-TZA BALIORIK GABE UTZ DEZAN, ETA INTERESDUNARI ONURA HORI IZATEKO ESKUBIDEA AITOR DIEZAION, HARK BETETZEN BAITITU INDARREKO ARAUDIAK EXIJITZEN DITUEN BALDINTZA GUZTIAK, IBILGAILUAREN “ERABILERA ESKLUSIBOA”RI BURUZKOA BARNE. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. (...) andreak kexa-idazkia egin zion erakunde honi, Donostiako Udalak ez baitzion aitortu nahi izan Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan (aurrerantzean TMIZ) ezintasunagatik salbuetsia izateko duen eskubidea, nahiz eta, bere ustez, horretarako legezko arrazoi nahikorik ez egon.

Interesdunak eskabidea egin zuenean, berak bakarrik erabiltzekoa zen ibilgailu baten jabea zela eta egiaztaturiko % 35eko ezintasuna zuela alegatu zuen.

Erabaki bat hartu baino lehen, Donostiako Udalak informazio zehatz bat eskatu zion salbuespen-eskatzailari, ibilgailuaren erabilera eskusiboari buruzko baldintza betetzen ote zuen baloratu ahal izateko, interesdunari bidalitako agirian azaldu zenez.

Eskaera horren goiburukoan, udalak hauxe adierazi zion interesdunari: *“ha resuelto las solicitudes de reconocimiento de la exención en el Impuesto de Vehículos a favor de aquellas personas que teniendo la condición legal de minusválido, o bien tengan el vehículo adaptado a su minusvalía o bien según el dictamen del Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral, tengan dificultades de movilidad que le impidan utilizar los transportes públicos de viajeros”*.

Eta jarraian, informazio hau eskatu zion:

*“Habiendo verificado que Vd. no está entre estos supuestos, y a fin de decidir su solicitud, se le concede un plazo de 10 días contado desde que reciba esta comunicación, **para que acredite el uso exclusivo del vehículo**, que es otra condición legal para obtener la exención.*

*Esta acreditación la puede remitir o entregar en el Servicio de Atención al Contribuyente (...), y consistirá en una explicación de:*

- *Si es Vd. el conductor del vehículo, y si no lo es, quién es la persona que le transporta, si es o no un familiar, y donde vive.*
- *Si necesita el vehículo para su trabajo, explicar a dónde debe trasladarse y la referencia a su horario laboral.*
- *Si no necesita el vehículo para el trabajo, explicar para qué tipo de actividades necesita el vehículo y con qué periodicidad las realiza.”*

Hala ere, (...) andreak ez zion eskaera horri erantzun, bada, erakunde honi kexa azaltzean adierazi zionez, udalaren jokaerak legearen mugak gainditzen zituela eta bere bitzta pribatuan modu onartezinean eskua sartzen zuela iruditu zitzaion.

Interesdunari agiri horiek eskuratzeko eman zitzaion epea bukatutakoan, udalak ezetsi egin zuen haren eskabidea, ibilgailu haren erabilera eskusiboaren gainean frogarik ez zegoela oinarritzat hartuz.

2. Gure aldetik, kexagileak azaldu zigun kasua eta ezartzekoa zen araudia aztertu ostean, eragindako udalari idatzi genion. Idazki hartan, zalantzan jarri genuen udalaren jokaera –herri horretako TMIZ arautzen duen ordenantzak ez baitu aurreikusten salbuespen nahi den ibilgailuaren erabilera justifikatzeko modu zehatzik– eta abiapuntu horrek zera pentsarazten zigula gaineratu genion: ibilgailuaren erabilera eskusiboari dagokionez, udal horrek ez duela ahalmenik eskatzaileen zinpeko aitortzenaz bestelako froga-biderik exijitzeko. Idazki berean, kexagileari eskatu zion informazioaren edukiagatik kezkatuta geundela adierazi genion udalari, izan ere, eskaera haren bidez agian urratu egin zen pertsonen intimitaterako eskubidea.
3. Donostiako Udalak ez zuen inolako baloraziorik egin gure oharren gainean, bere erantzun-idazkian hauxe besterik ez baitzuen adierazi: interesdunak bere eskabidean ibilgailuaren erabilera eskusiboaz egin zuen baieztapen soila ez dela nahikoa salbuespena aitortzeko egiaztagiri gisa, ordenantzak erabilera eskusibo horren egiaztagiria exijitzen duelako eta interesdunak ez duelako halakorik eman.

### Gogoetak

1. TMIZ arautzen duen 14/1989 Foru Arauak –uztailaren 5ekoak– minusbaliatuen izenean beraiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta dauden ibilgailuen salbuespena ezartzen du 2. artikuluan, 1. atalean, e) hizkian. Salbuespen hori zabaldu egin dute oraintsu, 2004ko urtarrilaren 1az gero: egun horretatik aurrera, ezinduek gidatutako ibilgailuei ez ezik, haiek garraiatzeko erabiltzen direnei ere ezartzen zaie salbuespena.

Artikulu horren oraingo idazketa honako hau da:

“e) (...)

Era berean, salbuesita egongo dira minusbaliatuen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik baka- rrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei. Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, legez 100eko 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila dutenak izango dira pertsona minusbaliatuak.”

Ondoren, artikuluko beraren 2. atalak dioenez, salbuespen hori aplikatu ahal izateko, interesdunek salbuespen-eskaera egin beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, ma- trikula eta onuraren zergatia adieraziz.

Salbuespena aplikatzeko baldintzak justifikatzeari dagokionez, artikuluko beraren 2. atalaren 2. paragrafoak zera agintzen du:

“Aurreko 1 apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesatuak minusbaliotasunaren frogagiria aurkeztu beharko dio zerga ezartzen duen udalari, organo eskudunak emana beti, eta **ibilgailuaren erabilera haren aurrean justifikatu; hori guztia udalak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko duen eran egingo da**”.

Haatik, herri horretako TMIZ arautzen duen zerga ordenantzak ez du berariazko ezer agintzen salbuespen-eskatzaileek ibilgailuaren erabilera justifikatu behar duten moduari dagokionez. Hauxe ezartzen du hitzez hitz 9. artikuluan:

“1.-Salbuespen hauek izateko, interesatuek berek eskatu behar diote Udalari zerga honetatik salbuesteko, eta, eskaera horrekin batera, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren kausa ere adierazi behar diote. Ondoren, salbuespeneko udal-ziurtagiria Trafiko Buruzagitzan aurkeztu beharko dute, matrikulazioa edo ibilgailuaren alta udalerrri horretan izapidetzerakoan.

2.- Elbarriek berek gidatu edo haiek eramateko ibilgailuak salbuesteko, beste agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte:

- a) Elbarritasun agiria, legearen arabera % 33 edo elbarritasun han- diagoa izatea erakusten duena, dagokion organoak emana.
- b) Ibilgailuaren erabilera eskusiboaren justifikazioa.
- c) Elbarritasuna dela eta ibilgailua egokitu behar izanez gero, egokitu izanaren agiria, dela fitxa teknikoan egokitzapena adierazita, dela egokitzapena egin duen tailerrak egiaztatuta.

3.- *Salbuespena izango bada, Udalak onartu behar du eskaera. Onartuz gero, salbuespena eskatutako zergaldiaren hurrengotik aurrera salbuespena izango da”.*

Azaldutako arauen arabera, TMIZn ezintasunagatiko salbuespena aplikatzeko baldintzak hauexek direla esan dezakegu:

- Eskatzailea salbuetsi nahi den ibilgailuaren **titularra** izatea.
- Eskatzaileak **% 33ko edo gehiagoko ezintasuna** izatea, organo eskudunak ziurtatua.
- Ibilgailua **titularrak bakarrik erabiltzekoa** izatea.

Ibilgailuaren titulartasunari buruzko baldintzak ez du, itxuraz, eztabaidarik sortzen aztertzen ari garen kasuan.

Eskatzailearen ezintasunari buruz, ikusi dugunez, indarreko araudiak modu berean agintzen du salbuespena % 33ko edo gehiagoko ezintasuna dutela egiaztatzen duten eskatzaile guztientzat. Premisa horretatik abiatuta, gure ustez ez dago legezko arrazoirik udal horrek ematen duen tratu ezberdin hau justifikatzen duenik: mugikortasun-arazorik ez duten eskatzaileei baldintza gehiago eskatzen dizkie ibilgailu egokitua erabiltzen dutenei edo bidaiarientzako garraio publikoek baliatzea eragozten dieten mugikortasun-arazoak dituztenei baino.

Hirugarren baldintzari dagokionez, hau da, ibilgailuaren erabilera eskusiboari buruz, gogoan izan behar dugu udal ordenantzak ez duela ezer aurreikusi baldintza hori justifikatzeko moduz eta, horregatik, interesdunak egindako adierazpenaz gain, legez ezin dela beste edozein agiri aurkeztea exijitu salbuespena onartzeko baldintza gisa; hori eginez gero, ezarritako legezko markotik kanpo jarduten da.

Gogoeta horietan oinarrituta, eta udalaren iritzia kontra, gure ustean kexagileak beharrezko baldintza guztiak betetzen ditu TMIZn ezintasunagatiko salbuespenaren onuradun izateko: ibilgailu baten jabea da, behar bezala egiaztaturiko % 35eko ezintasuna du eta justifikatu du, bere adierazpenaren bitartez, ibilgailu hori berak bakarrik erabiltzekoa dela; beraz, bete du 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluan, TMIZ arautzen duen Ordenantzaren 9. artikuluan eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 80. artikuluan agindutakoa.

Hala ere, ñabartu behar dugu eskatzen ari garen eskubide-aitortzeak ez dituela inolaz ere kaltetzen gure antolamendu juridikoak –administratuek indarreko legeria zuzen beteko dutela bermatzeko asmoz– administrazioei ematen dizkien egiaztatze-eskumenak. Ahalmen orokor hori aztertzen ari garen kasura ekarri, tokiko zerga-administrazioak, salbuespenaren aplikazioak dirauen bitartean, salbuespenari lotutako baldintzak zuzen betetzen ote diren egiaztatu eta iker dezake, batik bat erabilera eskusiboari dagokiona; hortaz, bidezko ikerketak egin ostean onuradunak baldintza horiek ez dituela bete frogatuko balitz, salbuespena bertan behera utziko litzateke.

2. Donostiako Udalak interesdunari eskatu dion informazioak ez dauka beharrezko oinarri formal eta materialik eta, horrez gain, ez du inola ere ibilgailuaren erabilera esklusiboa egiaztatzen laguntzen. Nahiz eta udalak, bere datu-eskaera zurrizteko, argudio hori erabili duen, gure ustez argudio horrek ez du euskarririk, agerikoa baita eskatu dituen datuek –eskatzailea garraiatzen duen pertsonaren identifikazioa eta helbidea, lantokia, lan-ordutegia, eskatzaileak ibilgailua zein jardueratarako erabiltzen duen– ez daukatela zerikusirik eskatzaileak ibilgailuari erabilera esklusiboa ematearekin ala ez ematearekin. Zerikusi edo lotura falta hori ondorioztatzen da bai eskatutako datuen edukitik beretik, bai udalak datu horiek behar bezala ez haztatzetik ere.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **2/2005 GOMENDIOA, otsailaren 1ekoa, Donostiako Udalari egina**

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan (...) andreak –bere ezintasunagatik– egindako salbuespen-eskaera ezetsi zuen administrazio egintza baliorik gabe utz dezala, eta interesdunari 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera onura hori izateko eskubidea aitortu diezaioala, hark betetzen baititu 14/1989 Foru Arauaren 2. artikularen e) hizkian eta udalaren zerga-ordenantzan bertan horretarako aurreikusita dauden baldintza guztiak.

**3/2005 GOMENDIOA, OTSAILAREN 2<sup>KOA</sup>, DONOSTIAKO UDALARI EGINA, BIZIKLETA, PATIN, GURPIL-OHOL ETA ANTZEKO GAILUAK ESPALOIETAN ETA OINEZKOENTZAKO GUNEETAN IBILTZEARI BURUZ TRAFIKOKO ARAUDIAN EZARRITAKOA BETE DEZAN, IBILGAILU HORIEI DAGOKIENEZ ARAUDIAK GUNE HORIETAN BAIMENTZEN DITUEN ERABILERAK JENDEARI EZAGUTARAZ DIEZAZKION ETA ERABILERA BIDEGABEAK SAIHESTEKO BEHAR DEN ZORROZTASUNEZ JARDUN DEZAN. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. Donostian bizi den herritar batek esku hartzeko eskatu zion Arartekoari, geroz eta gehiago erabiltzen baitira oinezkoentzako guneak bizikleten joan-etorrietarako eta ez baitira behar bezala errespetatzen oinezkoentzako pasaguneak eta gorrian dauden semaforoak.

Interesdunak zioenez, oinezkoentzako guneetan oinez ibiltzen diren pertsonen etengabe eragozpenak eta kalteak jasaten dituzte horregatik, beren osotasun fisikoa arriskuan ikustera ere heltzen dira, trafikoko araudian ezarritakoa betetzen ez duten jardueren ondorioz.

2. Honako hau ez da herri horretako biztanleek halako gaiak azaltzeko asmoz erakunde honetara jo duten lehen aldia, eta gomendio hau eragin duen kexaren ondoren ere jaso ditugu beste zenbait kexa.

Kexok sortarazi dituzten espedienteak bideratzean, Donostiako Udalari behin eta berriz azaldu ahal izan dizkiogu ezarri beharreko legeria aztertu eta gero ateratzen diren ondorioak.

Orain arte, udalak bidalitako txostenetan azterketa horren emaitza berretsi zen, izan ere, udalak onartu zuen bizikletek trafiko eta zirkulazioari buruzko indarreko araudia bete behar dutela eta oinezkoentzako guneetatik zirkulatzeko debekua dutela, non eta gune horiek bizikletentzat bereizitako plataforma bat ez duten.

3. 2004ko maiatzaren 14ko erabakiaren bidez, udalaren Gobernu Batzordeak Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulazioko Ordenantza-proiektu bat onartu zuen. Haren xedapenetako batzuek berariaz adierazten dute bizikletak eta patinak jolastoki publikoetan eta oinezkoen guneetan ibil daitezkeela.



### Gogoetak

1. Oinezkoak dira kaleetan ibiltzen diren elementu guztietatik ahulena; horregatik, hasiera batean, bizikletak eta gainontzeko ibilgailuak espaloi eta oinezko guneetan ibiltzea arriskua sortzeko arrazoia da berez, eta, gainera, arriskua larriagotu egiten da, oinezkoen eta ibilgailuen topaketa hori legeriak oinezkoek bakarrik erabiltzeko izendatu duen gunean gertatzen delako.

Egiaz, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legeak –martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– bere eranskinaren 55 eta 56 ataletan xedatutakoaren arabera, oinezkoentzako guneak (besteak beste, espaloiak, nasak eta ibiltokiak) oinezkoek erabiltzeko erreserbatuta daude.

Beraz, ibilgailuek debekatua dute gune horietan ibiltzea. Gauza bera ezartzen du Zirkulazioko Araudi Orokorrak –azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartua– 121.5 artikuluan, hauxe baitio: *“Ibilgailuek inola ere ezin dute zirkulatu espaloietatik eta oinezkoentzako bestelako guneetatik”*.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legeak eranskinaren 5 eta 6. ataletan bizikletak ibilgailutzat jotzen dira, eta hortaz, espaloietan eta oinezkoentzako guneetan ibiltzeko debekuari atxikita daude.

Bi gurpileko txirrindu edo motor-bizikletak norbaitek oinez daramatzanean bakarrik ibil daitezke gune horietan, izan ere, horrelako kasuetan, eranskin beraren 2. atalak oinezkotzat jotzen du ibilgailuok daramatzan pertsona.

Patin, gurpil-ohol eta antzeko gailuen zirkulazioari buruz, Zirkulazioko Araudi Orokorrak 121.4 artikuluan ezartzen duenez, horiek erabiltzen dituztenek oinezkoen abiaduran baino ezin dute zirkulatu espaloietan edo egoitza-kaleetan.

2. Goian aipaturiko eranskinaren 69. atalean eta hurrengoetan zirkulatzeko bide jakin batzuk zehazten dira, berariaz txirrinduek eta bizikletek erabil ditzaten; bide horien ezaugarrietako bat inguruko guneetatik bereizitako guneak izatea da.

Donostiako Udala figura horietaz baliatu da elkarri lotutako eta txirrindulariek soilik erabiltzeko bizikleta-errien sare bat eraiki eta garatzeko proiektua egin duenean; jokaera horrek, bizikletak garraio-bidetzat erabil daitezzen erraztu eta erabiltzaileen segurtasuna hobetzeaz gain, oinezkoekin batera ibili beharrak sortzen dituen arriskuak saihesten lagundu behar du.

3. Erakunde honek etorkizunean egingo den ordenantza horren gaineko informazioa eskatu zuenean, Mugikortasun Saileko zuzendariaren eta Mugikortasuneko Sail Teknikoko buruaren txostena jaso zuen. Txostenean hainbat gogoeta egin ziren: herri-bidearen erabilera etengabeko aldaketaren mende dagoela, atzerapen handi samarrarekin sartzan direla indarreko legerian beste estatu batzuetan oinezkoak eta

ibilgailuak batera ibiltzeko ohikoak diren figura berriak, eta zertzelada horrek, beraien ustez, mugatu egiten dituela alor horretan esku hartzeko dauden aukerak.

Alabaina, txosten hartan ez zen inolako baloraziorik egin gai honetaz: nola egingo diren bateragarri bizikletak eta patinak jolastoki publikoetan eta oinezkoentzako guneetan ibiltzeko baimena (burutu nahi den araudian aurreikusitakoa) eta horretarako berariazko debekua (oraindik indarrean dagoen goi mailako araudiak agindutakoa).

Orduan, zorrozki legezketasunarena den ikuspegitik, horixe baitagokio gure azterketari, zera iruditzen zaigu: arazo konpongaitzak sortuko lituzkeela ordenantza-proiektu hori –ezagutzen dugun idazketari eutsiz– onartzeak.

4. Bestalde, testu hori ordenantza bilakatuko balitz, bizikleta, patin, gurpil-ohol eta antzeko gailuen erabiltzaileek uste osoa izango lukete, okerreko ustea izan arren, legeriaren babesa dutela espaloietan eta oinezkoentzako guneetan ibiltzen direnean.

Gutziz alderantziz, oinezkoen osotasuna modu eraginkorrean zaintzen laguntzearren, udalak beharrezko neurriak hartu beharko lituzke, oinezkoentzako guneetan ibiltzeko debekua urra ez dadin; eta arau-urratzerik nabaritutako balu, erantzulea araudian ezarritako moduan larderiatu beharko luke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **3/2005 GOMENDIOA, otsailaren 2koa, Donostiako Udalari egina**

Bizikleta, patin, gurpil-ohol eta antzeko gailuak espaloietan eta oinezkoentzako guneetan ibiltzeari buruz trafikoko araudi orokorrean ezarritakoa bete dezan, ibilgailu horiei dagokienez araudiak gune horietan baimentzen dituen erabilerak jendeari ezagutaraz diezazkion eta, aurrerantzean, erabilerara bidegabeak saihesteko behar den zorrotzasunez jardun dezan.

**4/2005 GOMENDIOA, MARTXOAREN 17<sup>KOA</sup>, SESTAOKO UDALARI EGINA, INTERESDUNAK BERE IBILGAILUA IBILGETZEAGATIKO TASA MODUAN ORDAINDU ZUEN 60,10 €-KO ZENBATEKOA ITZUL DEZAN. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. 2002ko maiatzaren 13an, 10:05ean, (...) lanbide-zenbakia zuen agenteak (...) matrikuladun ibilgailuaren aparkatzeko era salatu zuen, “Espaloi gainean eta luzetarako lerro horiaren gainean aparkatzeagatik”, Las Llanas zumardiko biribilgunean.

Garabiak herri-bidetik kendu zuen ibilgailu hori, arriskua sortzen zuela, ibilgailu edo oinezkoen zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten jardunari eragozpen larriak sortzen zizkiola edo herriko ondarea hondatzen zuela iritzi zitzaielako.

2002ko maiatzaren 27ko 9:55ean, (...) lanbide-zenbakiko agenteak ibilgailu beraren aparkamendua salatu zuen, “Espaloi gainean eta luzetarako lerro horiaren gainean aparkatzeagatik”, Las Llanas zumardiko biribilgunean.

Aldi horretan, ibilgailua ibilgetu baino ez zuten egin, aparkatutako ibilgailuak zirkulazioari enbarazu handirik egiten ez dionean hala jokatzea baimentzen duen Zirkulazioko Kodearen artikulua aplikatuz.

Ibilgailuaren titularrak Arartekoaren iritzipean jarri zuen jarduera horietan nabaritzen zen irizpide-ezberdintasuna; gainera, jarduerok agente berberak agindu zituen.

2. Gai horren gainean egin genion informazio-eskaerari erantzunez, Sestaoko Udalak adierazi zigun ziur zegoela interesdunak ez zuela eskatu ordaindutako tasak itzul ziezazkieten. Hala ere, udaltzainburuaren txosten bat igorri zigun; txosten hartan, interesdunak emandako datuak berretsi ziren eta zera jakinarazi zen: lehenbiziko jardueran, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen 71.1 artikulua hartu zela oinarritzat, eta bigarren jarduera, berriaz, Zirkulazioko Kodearen 292. bis artikulua babesten zuela.
3. Udalak berak ibilgailua bi aldietan berdin aparkatuta eta toki berean zegoela berretsi ondoren, beste komunikazio bat bidali genion, jarduera horiek itxuraz erakusten zuten irizpide-ezberdintasuna azpimarratzeko.

Gainera, udal administrazioak xehetasun edo justifikazio gehiago ematerik ez bazuen behintzat, gure ustez, bi aparkamenduek oinezkoen zirkulazioari traba egiten zioten, eta, horregatik, ez zen inolaz ere egokia ibilgailua ibilgetzea.

4. Gure azterketari erantzunez Sestaoko Udalak bidali zigun idazkian ez zen idazki horretan oinarritzat hartu ziren argudioen baloraziorik egin, guk berariaz horixe eskatu bagenion ere, eta interesdunak tasen itzulketa ez eskatu izana hartu zuen argudio nagusizat, izan ere, bere iritziz, zertzelada horrek galarazi egiten zuen gai horren gaineko beste edozein adierazpen egitea.
5. Beraz, interesdunari udalak zein jarrera zuen jakinarazi genion, horren arabera jardun ahal izan zezan, eta udalari gaiaren mamiaz egin genuen analisisiaz zein iritziz zuen adierazteko eskatu genion berriro.

Hala ere, administrazio horrek igorri zigun erantzun laburrean, aurreko txosteneko edukia oro har aipatu besterik ez zuen egin; horregatik, azkenean ez dugu eskatutako iritzia ezagutzerik izan.

### Gogoetak

1. Testu honen aurrekarietan azaltzen den legez, interesdunak 2002ko maiatzaren 13an eta 27an bere ibilgailua aparkatzeko erabili zuen tokia eta aparkamenduaren gaineko zertzeladak berberak izan ziren. Halaxe ziurtatu du bere kexa-idazkian eta onartu da udaltzainburuaren txostenean.

Udaltzain hark egintza haietatik sortarazi zituen ondorioak ez ziren, ordea, berberak izan, izan ere, kasu batean zirkulazioari enbarazu handia egiten ziola iruditu zitzaion bitartean, bigarreanean ez zuen halakorik antzeman; horrela, lehen aldian ibilgailua bidetik kentzeko eskatu zuen, baina bigarreanean hura ibilgetzea proposatu zuen.

Gure aburuz, bidegabeko aparkamendu batek zirkulazioa noiz oztopatzen duen eta noiz ez zehazteari dagokionez irizpide kontrajarriak aplikatu direla erakusten du jokaera horrek, eta udalak ez du behar bezala justifikatu irizpide-ezberdintasun hori, hainbat aldiz eskatu diogun arren.

2. Edonola ere, bigarren jarduera hori, udaltzain berak egun gutxi lehenago erabilitako irizpideekin kontraesanean egoteaz gain, azterketa zabalago batekin ere kontraesanean dago: izan ere, horren arabera, zirkulazioko udal ordenantza eta auzitegien epai askotan adierazten denez, espaloi gainean aparkatzeak beti egiten dio enbarazu handia oinezkoen zirkulazioari.

Adibide gisa, honela dio Auzitegi Gorenak 2000ko azaroaren 25eko Epaian (RJ 2001\1213):

*“La Sala considera que la delimitación entre el terreno propio para el tránsito de los peatones (aceras, pasos de peatones, salidas o accesos a determinados inmuebles, pasos rebajados para disminuidos físicos, etc.) y el terreno para la circulación de los vehículos a motor es fundamental, y la frontera entre ambos tiene que ser radicalmente respetada, porque en caso contrario, sobre todo en las grandes ciudades, el abuso del automovilista sobre el peatón será inevitable. Dentro de esos límites, destaca el uso de las aceras, que como dice el Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española están ‘particularmente destinadas para el tránsito de la gente que va a pie’. Sería pura estulticia que la circunstancia de obstaculización grave del tránsito de peatones dependiera de la medida en que el automóvil se sitúa más o menos sobre la acera, porque ello redundaría en la inseguridad jurídica y en la arbitrariedad, por tanto es idóneo y legal que el Ayuntamiento de Barcelona en uso de las competencias que tiene atribuidas por las normas que hemos expuesto, haya considerado que la pura y simple ocupación de las aceras, en todo o en parte, por los automóviles obstaculiza gravemente el tránsito de peatones, eliminando en consecuencia discusiones bizantinas sobre este hecho que dependería de la anchura de la acera, de la mayor o menor superficie ocupada, de la densidad del tráfico peatonal, de las variaciones temporales de éste, etc.”*

Ildo horretan, eztabaidatutako aparkamenduak zein egoeratan gertatu ziren egiaztatu ondoren (“espaloi gainean eta luzetarako lerro etengabea”), gure iritziz, ezin zaio eutsi ibilgailuak zirkulazioari enbarazurik egiten ez ziolako tesiari, kontrakoari baizik, hau da, ibilgailuak oinezkoen zirkulazioari traba egiten ziolakoari.

3. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu artikulatuaren 71.1 artikulua ezartzen duenez, administrazioak ibilgailua bidetik ken dezake arriskua sortzen badu edo ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioari traba handia egiten badio, beste kasu batzuen artean.

Bestalde, Zirkulazio Kodearen 292. bis artikulua kasu bakar batean ematen du legez kontra aparkatuta dagoen ibilgailu bat ibilgetzeko aukera: hain zuzen, zirkulazioari enbarazu handia egiten dionean.

Horrela bada, kexan azaldutako egoerek ibilgailua kentzea justifikatuko lukete bi kasuetan, baina ez hura ibilgetzea; gainera, neurri horrek, oinezkoen zirkulazioari sortutako enbarazua konpondu beharrean, enbarazua iraunarazteko bakarrik balio zezakeen.

Beraz, kexagilearen ibilgailua ibilgetzea araudiaren beharrezko babesik gabe burutu zenez gero, bidegabea da ibilgailua berreskuratzeko ordaindu zen zenbatekoa, eta udalak itzuli egiten behar du.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**4/2005 GOMENDIOA, martxoaren 17koa, Sestaoko Udalari egina**

Itzul dezala 2002ko maiatzaren 27an (...)k bere ibilgailua ibilgetzeagatiko tasa gisa ordaindu zuen 60,10 €-ko zenbatekoa.

**5/2005 GOMENDIOA, APIRILAREN 20<sup>koa</sup>, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKO DEPARTAMENTUARI EGINA, ZIGOR BAT BALIORIK GABE UTZ DEZAN, ZIGORRA JARTZEKO BIDERATUTAKO PROZEDURAN EZ BAITITU BETE BEHARREZKOAK DIREN BERMEAK. EZ DA ONARTU.**

Aurrekariak

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehengo Nekazaritza eta Ingurumeneko Departamentuak zigorra ezarri zion kexagileari, natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Lege autonomikoaren 76.4.h) artikuluan oinarrituta, (...) zenbakiko zigor-prozeduran, “*babestutako espezieetako hegaztiei (txontak eta txirtak) tiro egiteagatik*”. Hori dela-eta, kexagileak esku hartzeko eskatu zигun.
2. Kexagileak kexan adierazi zigunez, ez ziren behar bezala frogatu ez zigorra eragin zuten egintzak, ez haien egilea; izan ere, aldundiak, gertatutakoaz bi basozainek egindako salaketa hartu zuen froga bakartzat, baina ez zituen aipatu ere egin berak –bere burua defenditzeko– zigor-prozeduran azaldu zituen alegazioak, ezta salataileen bertsioari kontra egiteko eta egintzetan erantzukizunen bat zuela ukatzeko proposatu zituen frogak ere.
3. Kexa aztertu ondoren, Nekazaritza eta Ingurumeneko Departamentura jo genuen, gai horri buruzko informazioa eman ziezagun eta zigor-prozedurari zegokion administrazio-espeditentearen kopia bat igor ziezagun.  
  
Gure eskaerari erantzuteko, sail horrek administrazio-espeditentearen kopia bat bidali besterik ez zuen egin.
4. Administrazio-espeditente hori aztertu eta gero, honako egintzok egiaztatu genituen:
  - Zigor-prozedura bi basozainek egindako salaketaren ondorioz hasi zen. Hauxe adierazi zuten: “*Elorriagan ehiza zaintzan genbiltzala, susmagarria iruditu zaigu oso Urain inguruan horrenbesteko tiroketa entzutea, txoria baino ez baitzen pasatzen ari gu geunden lekuan eta beste inondik ez baitzen horrelako tiroketarik entzuten. Uraina igo eta han zeudenak ez zirela tiroka ari egiaztatu ahal izan dugu baina aurreraxeago dagoen Urengain baserri ondoan somatu*

ditugu lehen entzundako tiroak egindakoak oraindik ere tiroka. Beraiek ikusi gabe hurbiltzen ahalegindu garen bitartean ikusten genuen lau edo bost tiratzaile zirela sagasti batean zabalduak eta bi mutil kozkor ari zirela, zakur batez baliatuz, belarretara eroritakoak jasotzen. Lehen tiratzailearengandik 25 metrotara ezkutuan jarri eta hari so egon gara. Berak tirokatzen zituen hegaztiak, bere ekialdean geundenez, lehenik eta behin gure paretik pasatzen ziren eta, modu horretan, ondo ikus genezakeen zeri egiten zion tiro. Ez zegoen zalantza izpirik, denak ziren txoriak, gehienak txontak (*Fringila coelebs*) eta txirtak (*Anthus sp.*) eta tartean hegatzabal (*Alauda arvensis*) batzuk ere, gainontzekoak identifikaezinak baina denak txoriak, ez zegoen birigarroen (*Turdus sp.*) tamainakorik. Nahi genuena, nahiz eta ziur izan txoritan ari zirela, jasotako txoriak non zeuzkaten ikustea zen, begi-bistakoa baitzen helburua horiek jasotzea zutela. Kontrolatzen ari ginen ehiztariak oso noizbehinka egiten zuen tiro eta bere ondoan egon garen hamar minutuetan ez du alerik bota. Halako batean, Urainen gure ondoan egondako kotxe bat bertara etorri eta ehiztariekin hizketan hasi denez, pentsatu dugu jakinarazi egingo zirela gure presentziaz eta, ondorioz, irten egin dugu haiengana. Dokumentazioa egiaztatu ondoren salatua izango dela jakinarazi diogu”.

- Prozedura bideratzean, interesdunak ukatu egin zuen leporatzen zitzaizkion egintzak berak burutu izana, baita salaketan aipaturiko egintzak berak ere. Bere burua babestearren, zera argudiatu zuen: **(a)** bera ez zegoen ehiza-lerroa osatzen zuten postuetatik lehenbizikoan –hura zen, salaketan adierazitakoaren arabera, basozainak zaintzen egon ziren postua–, azkenekoan baizik; **(b)** ez zebilen txonta eta txirtei tiroka, baizik eta birigarroei eta zozoei; **(c)** basozainak bera zegoen tokitik 120 metro baino gehiagora zeuden, beheragoko kota batean, toki baten eta bestearren artean zegoen 25 metroko altuerako pinudi baten ondoan; horregatik, basozainek ezin zuten ikusi bera zein postutan zegoen, ez bera identifikatu, ez garbi ikusi zein txoriri egiten zion tiro; **(d)** lerroa osatzen zuten ehiztarien artean lehenengo zegoenarengandik 50 metro baino gehiagora zeuden basozainak, ez 25 metrora, salaketan adierazitako moduan, eta distantzia horretatik ezinezkoa zen basozainak ehiztariei so egotea hauek basozainak ikusi barik; **(e)** basozainek ez zuten identifikatu ehizan zebilen bitartean; eta **(f)** basozainek han zeuden ehiztarietatik bi bakarrik salatu zituzten, ez denak.
- Orobat, interesdunak zera proposatu zuen: neur zitezela aipaturiko distantziak eta egiazta zedila ea basozainak kokatu ziren puntutik bera zegoen postua ikus zitezkeen ala ez, eta ea handik identifika zitezkeen bai ehiztaria, bai hark tirokatzen zituen txoriak ere –ehiztariaren eskuinetik zetozen–.
- Kexagilearen alegazioak ez ziren aintzat hartu prozedura bideratzeko ezein izapidetan, ezta ebazpenean ere. Orobat, ez zen ezer adierazi hark proposatutako frogez, ez froga horiek egin ziren ala ez.

Bi gai horien gainean, ebazpen-proposamenean azaldutakoa errepikatu baino ez zen egin, honela: “Egintzak frogatutzat jotzen dira, salaketan adierazitakoa



*ikusita, bertan basozain salatzaileek adierazten baitute oso ondo ikusi zutela salatutakoak tirokatzen zituen hegaztiak, eta txoriak zirela, batez ere txontak eta txirtak”.*

- Kexagileak bere alegazioak errepikatu zituen eta froga berberak proposatu zituen zigor-erabakiaren kontra jarri zuen berraztertzeko errekurtsioan, baina errekurtsioaren ebazpenean ere gauza bera erantzun zioten (*“Egintzak frogatutzat jotzen dira, salaketan adierazitakoa ikusita, bertan basozain salatzaileek adierazten baitute oso ondo ikusi zutela salatutakoak tirokatzen zituen hegaztiak, eta txoriak zirela, batez ere txontak eta txirtak”*).
5. Bestalde, egiaztatu genuen administrazio-espeditentean ez zela ziurtatu basozain salatzaileei kexagilearen alegazioak jakinarazi zitzaizkienik. Ezta ere basozainek, alegazio horiek ezagutu eta gero, salaketari eutsi ziotenik edo alegazio horietaz zuten iritzia eman zutenik.
  6. Administrazio-espeditentean agiri bidez ziurtatu ziren egintzak kontuan izanik, ondorio hauek atera genituen, geroago zehaztuko ditugun gogoetak oinarri hartuta: kexagileari leporatutako egintzei dagokienez, Nekazaritza eta Ingurumeneko Foru Departamentuak froga-balio osoa eta eztabaida ezina eman ziola basozainen salaketari; gaia ulertzeko modu hori ez zela bateragarria errugabetasun usteari buruzko eskubidearekin, eta funtsik gabe uzten zuela zigor-prozedurak berez duen helburua –alegia, Konstituzioan aitortutako babes-eskubidea gauzatzeko tresna izatea–, izan ere, prozedura izapideen segida formal huts bihurtu baitzuen, izapideok helburuarekin duten lotura hautsiz.

Era berean, gure iritiz, interesdunak zigor-prozeduran egindako alegazioak nahiz proposaturiko frogak, itxuraz, egokiak ziren bere jarrera babesteko, eta, gainera, prozeduraren azken erabakia aldatu ere alda zezaketen. Horregatik, prozeduran gai horri buruzko adierazpenik egin ez zenez –Konstituzio Auzitegiaren doktrinak eta hori berretsi duten arauak hala exijitzen duten arren– eta departamentu horrek alegaziorik eta proposamenik egin ez balitz bezala jokatu zuenez, kexagilearen babes-eskubidea (EKren 24. artikulua) urratu zela iritzi genion.

Balorazio horren ondorioz, gure ustez, jarritako zigorra erabat deuseza zen, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 62.1.a) artikuluan aipatutako akatsetako bat baitzuen.

7. Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentu berriari helarazi genizkion gure gogoetak –hark hartu baitzituen bere gain lehenago alor horretan Nekazaritza eta Ingurumeneko Departamentuak betetzen zituen eginkizunak–, bere iritzia jakinaraz ziezagun.

Gure eskaerari erantzunez, departamentu horrek adierazi zigun bere iritiz ez zela interesdunaren babes-eskubidea urratu, hark egin zituen alegazioak eta proposatu zituen frogak “agerikoa zenez, kontuan hartu zirelako eta instrukzio-egileak nahiz ebazpen-organoak, hurrenez hurren, baloratu zituztelako”.

Halaber, interesdunaren alegazioak atzera bota behar zirela adierazi zigun, berriro ere zera argudiatuz, iritzi horren euskarri: basozainek zuzenean ikusi zituztela eta salaketan idatzita geratu zirela egintzak, eta, horregatik, egintzok egiatzat jotzen zirela legerian eta jurisprudentzian.

Eta kexagileak proposatutako frogari dagokionez, hauxe jakinarazi zigun: *“se consideró improcedente tanto por el instructor como por el órgano resolutorio del expediente, por cuanto de las alegaciones presentadas claramente se desprende que la persona denunciada desconocía en todo momento cuál fue la posición de los guardas forestales y, por tanto, también la distancia que mediaba entre ellos (y que solicitaba medir), al no haber visto a los guardas hasta que éstos se dejaron ver para dirigirse al lugar donde se hallaba la persona denunciada. Además, si bien en el presente expediente la distancia de 25 metros a la que estaba el guarderío permite observar claramente las especies de aves que cazaba, es preciso destacar que los guardas forestales suelen emplear prismáticos en su labor de policía y custodia de los bienes jurídicos de naturaleza forestal, lo que haría absolutamente innecesaria la medición propuesta”*.

### Gogoetak

1. Konstituzio Auzitegiak sortu zen une beretik onartu izan du administrazioaren zigor alorrean indarrean dagoela Konstituzioaren 24. artikulutik eratorritako berme-multzo bat. Hona hemen berme horietako bat: *“la exigencia de que el implicado disfrute de una posibilidad de defensa previa a la toma de decisión y, por ende, que la Administración siga un procedimiento en el que el expedientado tenga oportunidad de aportar y proponer las pruebas que estime pertinentes y alegar lo que a su derecho convenga”* (Konstituzio Auzitegiaren 3/1999 Epaia, urtarrilaren 25ekoa, 4. oinarri juridikoa).

Auzitegi Gorenak ere sarritan nabarmendu du zein garrantzitsua den prozedura, zigortzeko administrazio zuzenbidean babes-eskubidea gauzatzeko berme-multzo gisa. Honela azaltzen du 2000ko ekainaren 1eko Epaian (RJ 7378): *“la resolución administrativa debe dictarse, respetando el sistema de garantías establecido en las normas rectoras del procedimiento, sistema de garantías cuyo designio final es la defensa del administrado frente a la Administración”* (1. oinarri juridikoa).

Hala ere, zera adierazi du Konstituzio Auzitegiak berak: *“de nada serviría que el expedientado cuente con un trámite de alegaciones para su defensa si no existe un correlativo deber de responderlas, o proclamar el derecho a la presunción de inocencia si no se exige al órgano decisor exteriorizar la valoración de la prueba practicada y sus consecuencias incriminatorias”* (Konstituzio Auzitegiaren 7/1998 Epaia, urtarrilaren 13koa, 5. oinarri juridikoa).

Motibazioa eta kongruentzia, beraz, eremu honetan ezarri behar diren EKren 24. artikuluko bermeak gauzatzeko eskubide instrumentalak dira, eta garrantzi konstituzio-

nala dute, Konstituzio Auzitegiak berriaz aitortu duenez (Konstituzio Auzitegiaren 7/1998 Epaia, urtarrilaren 13koa, 7. oinarri juridikoa).

2. Frogen kasu zehatzean, erruduntzat jotakoak eskatu dituen frogak ukatzen badira, arrazoitu egin behar da ukapena, defentsarako bide egokiak erabiltzeko eskubidearen –Konstituzioko artikulua horretan jasoa– zati bat baita arrazoitzeko obligazioa, Auzitegi berak dioenez. Horregatik, Auzitegiaren doktrinaren arabera, eskubide hori urratu egiten da proposaturiko froga inolako arrazoirik gabe ukatzen bada edo ematen diren arrazoiak argiro arbitrarioak edo zentzugabeak badira.

Auzitegi Gorenak ere izan du gai horretaz mintzatzeko aukerarik; haren aburuz, frogak arrazoirik gabe ukatzeak erabat deuseza bihurtzen du akats hori egin den prozeduran jarritako zigorra (besteak beste, 2000ko ekainaren 1eko Epaia, lehen aipatua).

Halaber, auzitegi nagusiek ere epai askotan adierazi dute deuseza dela frogen ukapena arrazoitzeko obligazioa bete barik ipintzen den zigorra. Horixe baieztatu du, adibidez, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 2001eko urriaren 5eko Epaian (RJCA 195): frogen ganean berriazko iritzirik eman ez eta frogarik burutu ez zen zigor-prozedura batean, lege-urratzea gertatu zela eta horrek babesik eza sortu zuela ulertu zuen auzitegiak.

3. Konstituzio Auzitegiak berriki eman duen 9/2003 Epaian, urtarrilaren 20koan, aipatutako gai guztiez auzitegiak duen doktrina laburtzen du, eta bere adierazpen garrantzitsuenetako batzuk aipatzen ditu.

Gainera, epai horretan adierazten denez, froga bat arrazoi hauetan oinarrituta ukatzen bada (“bidezkoa ez delako, izan ere, ez du aldatzen prozeduraren azken erabakia eta karguen pleguan agertzen dira leporatutako egintzak, eta horiek bakarrik kalifikatzen dute ustezko lege-urratzea”), motibazioak ez ditu betetzen Konstituzioak kasuotan exijitzen dituen betebeharrak, eta, orduan, motibazio hori arbitrariotzat eta zentzugabetzat jotzen du, zalantza barik. Auzitegiaren esanean, honako arrazoi honengatik du iritzi hori frogak modu horretan ukatzeaz: *“carece de una mínima valoración acerca de la procedencia de la prueba, pues comporta un prejuicio negativo acerca del resultado de la prueba, pese a que ésta versaba sobre el sentido de los propios hechos enjuiciados; y, en segundo lugar, dicha respuesta vacía de contenido propio y hace inútil el expediente sancionador –que queda prefigurado por el pliego de cargos– pues (...) parte en realidad ‘del erróneo principio de que el cargo determinado por el funcionario tiene una presunción ‘iuris et de iure’, y que al fin y a la postre no admite prueba en contrario”* (4. oinarri juridikoa).

Bidezkoa iruditu zaigu Konstituzio Auzitegiak kasu horretan egin duen balorazioa hitzez hitz transkribatzea, bada, aurrerago azalduko dugunez, antz handia nabaritu dugu kasu hartan interesdunak proposaturiko frogak ukatzeko administrazioak eman zituen arrazoi materialen eta, oraingo kasu honetan, zigor-prozedura alde batera utzita, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak –kexagileak eskatutako frogak ezer adierazi gabe ukatu izana justifikatzeko– eman dizkigun arrazoiaren artean.

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak onetsi egin du Konstituzioaren doktrina hori. Horrela, zera adierazten du: prozedura bat exijitu behar dela, zigortzeko ahalaren funtsezko printzipioetako bat bezala (127 eta 134. artikulua); ustezko erantzuleak eskubide osoa duela alegazioak egiteko eta legeriak onartu dituen defentsa-bide egokiak erabiltzeko (135. artikulua); ustezko erantzuleak arrazoituta ebazpena lortzeko eskubidea duela, berak azaldutako gai guztiak erabakiko dituen (138. artikulua); proposatutako frogan ukapen arrazoitua jasotzeko eskubidea duela, eta kasu bakar batean uler daitekeela froga horiek ez direla bidezkoak: egintzekin duten loturagatik, azken ebazpena ustezko erantzulearen alde aldatzerik ez dutenean (137.4 artikulua).

Autonomia erkidegoan, otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ere biltzen ditu bere baitan berme horiek (2, 23, 36, 37 eta 43. artikulua). Jakina, lege hori Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalari buruzkoa da.

Aipatutako legezko xedapenak betetzea ezin da, ordea, modu zeharo formalean ulertu, izan ere, hala egingo balitz, alde batera utziko litzateke prozedurak, motibazioak eta kongruentziak Konstituzioan duten eginkizuna: hain zuzen, administrazioaren zigor-prozedurei buruz EKren 24. artikulua ezarri dituen bermeak eta eskubideak gauzatzeko tresnak izatea.

Helburuaren ikuspegitik begiratuta, beraz, funtsezkoa da prozedura horietan administrazioak:

- berriaz baloratzea errudun jotako pertsonak bere burua defenditzeko egiten dituen alegazioak, eta hauek atzera botatzen baditu, ukapena behar bezala arrazoitzea.
  - berriaz baloratzea interesdunak proposaturiko frogak bidezkoak diren ala ez, froga horietaz duen iritzia espresuki jakinaraztea eta, onartzen ez baditu, ukapena behar bezala arrazoitzea.
  - prozedura behar bezala arrazoituta ebazpen baten bidez erabakitzea, prozeduran azaldu diren gai guztiez bere iritzia ematea eta frogan balorazio osoa egitea.
  - zigorraren kontra jarritako errekurtsioak arrazoi bidez eta interesdunak alegatutakoarekin barne-lotura gordez ebaztea.
5. Kexa eragin zuen zigor-prozedurari dagokionez, foru aldundiak igorri digun administrazio espedientean argi ikusten da, ordea, kasu honetan ez zirela behar bezala bete aipatutako berme horiek.

Aurrekarietan azaldu dugunez, espediente horrek agerian jartzen du ez zela espresuki ezer adierazi kexagileak bere alde egin zituen alegazioei buruz –alegazio berak errepikatu zituen gero, zigorraren kontra jarri zuen berraztertzearen errekurtsioan–. Orobat, erakusten du ez zela fitsik adierazi interesdunak, egintzez zuen bertsioa frogatzeko

eta basozainek salaketan idatzi zuten kontakizuna baliogabetzeko, proposatu zituen frogetz. Eta, azkenik, agerian jartzen du froga horiek ez zirela burutu.

Lehen aurreratu dugun bezala, gure ustez, lehen begiratuan, kexagileak bere burua babesteko egin zituen alegazioak –ukatu egin zituen egintzak eta haien egile izatea– eta horiek ziurtatzeko eskatu zituen frogak egokiak ziren, lotura zuzena baitzuten leporatzen zizkieten egintzak eta berak horietan izan zuen erantzukizuna argitzearekin. Gainera, gure iritzian, alegazio horiek prozeduraren azken erabakia alda zezaketen, interesdunak frogatu ahal izan balitu.

Horregatik, azaltzen ari garen Konstituzio Auzitegiaren doktrina ezarriz, zigor-prozeduran bi gai horietaz espresuki ezer adierazi ez zenez eta froga horiek deus esan gabe ukatu zirenez, urratu egin zen –guk uste– EKren 24. artikulua, bada, lehen azaldu dugunez, prozedurako arau-urratze horiek modu eraginkorrean eta benetan kaltetu zuten interesdunaren defentsarako eskubidea.

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak kexa dela-eta eman dizkigun azalpenetan, zera baieztatu du, aurrekarietan adierazi dugun moduan: bai alegazioak, bai frogak baloratu eta kontuan hartu zituztela instrukzio-egileak eta ebazpen-organok.

Horren ganean, argitu behar dugu administrazioaren espedientean ez dela egintza hori egiaztatu. Espedienteak soil-soilik egiaztatu du –behin eta berriz adierazten ari garenez– departamentu horrek alegazioak eta frogak izan ez balira bezala jokatu zuela, alegazioak eta frogak prozedura hasarazi zuen basozainen salaketaren kontrakoak zirelako, eta ezer adierazi gabe baztertu zituela, basozainei horietaz zuten iritzia eskatu gabe.

Era berean, doktrina konstituzional horri jarraiki, zera azpimarratu behar dugu: zigor-prozedura batean errudun jotako pertsonak egiten dituen alegazioen eta defenditzeko proposatzen dituen frogan balorazioa prozeduran bertan adierazi behar dela, interesdunak balorazio hori eta azken ebazpena zergatik eman den jakin dezan. Balorazioa prozeduratik kanpo ezagutarazten bada edo baloraziorik ezagutarazten ez bada, zentzurik eta helbururik gabe uzten dira izapide horiek, errudun jotako pertsonari kendu egiten baitzaio ebazpena bera eta horren zergatiak ezagutzeko eskubidea, eta erabakia kritikatzeko, horren kontra modu eraginkorrean jarduteko eta bere interesen aldeko defentsa egokia prestatzeko beharrezkoak diren elementuak lapurtzen baitzaizkio.

6. Kexa dela-eta, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak azaldu digu zergatik baztertu diren, bere ustez, kexagileak egindako alegazioak eta eskatutako frogak.

Gure aburuz, arrazoi horiek ez dute garrantzirik EKren 24. artikulua eta legean horretarako ezarrita dauden xedapenen ikuspuntutik, izan ere, ikuspegi horretatik baliozkoak izateko, zigor-prozeduraren barruan ezagutarazi behar ziren.

Dena den, zenbait zehazpen egin nahiko genituzke horren gainean, bada, gure iritziz, departamentu horrek eman digun justifikazioak agerian uzten du egitasun ustea ulertzeko modu hori ez dela bateragarria uste horrek legerian eta jurisprudentzian duen egituraketarekin.

Aurrekarietan azalduta geratu denez, interesdunaren alegazioak ez direla onartu behar uste du departamentu horrek, eta arrazoi hau ematen du bere iritzia oinarritzeko: basozainek beren lanean egiaztatzen dituzten egintzak legerian eta jurisprudentzian egitasun ustea omen dute, baldin eta egintzok dagokion agiri publikoan beharrezko formaltasunak betez idazten badituzte.

Departamentuari ez zaio bidezkoa iruditzen kexagileak eskatutako froga egitea, bada, bere ustez, alegazio horietan garbi nabaritzen da interesdunak ez zekiela basozainak nondik ari zitzaizkion begira, interesdunak ez baitzituen basozainak toki hartan ikusi, bere alegazioen arabera. Gainera, departamentu horrek uste du interesdunaren eta basozainen artean zegoen distantziari esker –salaketan aipatutakoa– argi ikus zitekeela interesdunak zein txoriri egiten zien tiro, eta basozainek “prismatikoak erabiltzen dituztela basoko ondasun juridikoak jagon eta zaintzean”.

Azken arrazoi hori alde batera utzita –garrantzitsuena, gure ustez, aztertzen ari garen kasu zehatzean zer gertatu zen jakitea baita, eta espedientean ez da ziurtatu basozainek prismatikorik erabili zutenik–, departamentu horrek kexagilearen frogaskeak eta alegazioak bidezkotzat ez jotzeko eman digun justifikazioa okerreko uste batean oinarritzen da, gure iritziz: egintzak nahitaez salaketan kontatu diren moduan gertatu zirela uste izatean.

Justifikazio horrek antz handia du, guk uste, Konstituzio Auzitegiak urtarrilaren 20ko 9/2003 Epaian –lehen aipatua– aztertutakoarekin, izan ere, han gertatu zen bezalaxe, egintzen froga oso eta eztabaida ezinaren balioa eman zaio basozainen bertsioari, eta aurreiritzi negatibo agertu da, aldiz, interesdunak proposaturiko frogaren emaitzari buruz. Auzitegiak dioenez, horrelako jokaerek alferrikakoa bihurtzen duten zigor-prozedura, prozedurari berez dituen edukia eta helburua kentzen dizkiote, eta, gainera, erruduntzat jotakoa bere bertsioa egiaztatzeko aukerarik gabe uzten dute.

Basozainek salatu zituzten egintzen egitasun ustea aldarrikatzen du aldundiak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3 artikuluan oinarrituta, Ehizari buruzko apirilaren 4ko 1/1970 Legearen 40.1 artikuluekin eta Mendiei buruzko 43/2003 Lege autonomikoaren 6.q) artikuluekin lotuta; halaber, jurisprudentziaren doktrina honetan ere oinarritzen da: ehiza eta arrantzako basozain kargua dutenak agintaritzaren agenteak dira ondorio horietarako. Gure iritziz, ordea, egitasun uste horrek ezin du justifikatu aldundiak atera duena bezalako ondorio bat.

Egiaz, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3 artikulua froga-balioa ematen die funtzionario publiko jakin batzuek, legean ezarritako moduan, ziurtatzen dituzten

egintzei, “*baina herritarrek ere beti adierazi edo aurkez ditzakete frogak, beren eskubideak edo interesak aldezteko*”. Artikulu horrek ez die aitortzen, hortaz, froga-balio oso eta eztaba daezina funtzionario horien adierazpenei.

Jurisprudentiaren doktrinak eta foru aldundiak aipatutiko epaiak ere ez dute halakorik aitortzen (Auzitegi Gorenaren 1979ko martxoaren 5eko, 1997ko uztailaren 2ko eta 1998ko otsailaren 4ko epaiak eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 2002ko ekainaren 21eko eta uztailaren 12ko epaiak). Doktrina horren arabera, agintaritzaren agenteek ikusitako egintzei ematen zaien egitasun-ustea lehenbiziko froga da, baina ez du froga osoaren baliorik, eta errudun jotako pertsonari ez dio galarazten egintza horien kontra beharrezkoak iruditzen zaizkion beste froga batzuk proposatzea. Arrazoi bakar batengatik da berezia egitasun-ustea: interesdunaren esku jartzen duelako egintzak bestela gertatu zirela egiaztatzeko ardura.

Gai horri buruz, gogora ekarri nahi dugu Konstituzio Auzitegiak azaroaren 18ko 341/1993 Epaian aldeztu zuen jarrera, otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren –Herritarren Segurtasuna Babestekoa– 37. artikularekin lotuta; artikulu horrek birtualtasun horixe ematen die poliziaren informazioei, lege horrek araututako gaiei dagozkien zigor-prozeduretan.

Auzitegiak onartzen du bere epaian artikulu horrek froga-garrantzia ematen diela agenteen informazioei, baina, bere ustez, informazio horiek ezin zaizkie nagusitu interesdunaren alegazioei. Honela dio: “*no pueden llegar ‘a prevalecer, sin más, frente a lo alegado por el expedienteado o frente a cualesquiera otros medios de prueba o que se impusiera –incluso al margen de toda contraria alegación o probanza– sobre la apreciación racional que acerca de los hechos y de la culpabilidad del expedienteado se hubiera formado la autoridad llamada a resolver el expediente’*, porque si así fuera, ‘*una tal presunción iuris et de iure en orden a la certeza de lo informado por los agentes (...) sería inconstitucional, por contrario a la presunción de inocencia*’” (11. oinarri juridikoa).

Gauza bera baieztatu du Auzitegi horrek Lan eta Zerga Ikuskaritzaren alde legez ezarritako dauden antzeko eginkizunei buruz (Konstituzio Auzitegiaren 76/1990 Epaia).

7. Foru aldundiak kexa sorrarazi duen zigorra jartzeko bideratutako prozeduran nabaritu ditugun lege-urratzeak baloratu ditugu. Balorazio horrekin bat etorritz, Konstituzioan aitortzen den babeserako eskubideari (EKren 24. artikulua) kalte egitearen ikuspegitik, zigorra erabat deuseza dela uste dugu, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.a) artikuluan adierazitako arrazoia aplikatuz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**5/2005 GOMENDIOA, apirilaren 20koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuari egina**

Baliorik gabe utz dezala (...) zenbakiko zigor-prozeduran ezarritako zigorra, baita zigor hori betearazteko egintzak ere, halakorik bada.



**6/2005 GOMENDIOA, EKAINAREN 1EKOA, IRUNGO UDALARI EGINA, HELBURU HAUEKIN:**

- 1. BALDINTZA BAT JAR DIEZAIOLA EMAKUMEAK BAZTERTZEN DITUEN ALARDEA ANTOLATZEKO EMANDAKO BAIMENARI: ALARDEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 EUSKAL LEGEARI EGOKITZEA, EMAKUMEEN BERDINTASUNEZKO PARTAIDETZA EZINBESTEKO BALDINTZA GISA EXIJITUZ.**
- 2. BERE GAIN HAR DEZALA BERDINTASUNEZKO ALARDEA PRESTATZEKO ARDURA, HERRI ALARDEA IRAGARRIZ EDO ALARDE MISTOA DIRUZ LAGUNDU ETA BAIMENTZEKO ES-KABIDEAK ONARTUZ.**
- 3. BERE KONTROL-AHALMENA ERABIL DEZALA, JAIK DIRAUAEN BITARTEAN, BERDINTASUNEZKO ALARDEA ALDEZTEN DUTEN PERTSONEN KONTRAKO INDARKERIA-GUNE BIHURTZEN DIREN ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEA ERAGOZTEKO, ETA ERAKUNDE MODUAN, URTE OSOAN ZEHAR, SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK ABIARAZ DITZALA, IRITZI PUBLIKOA JAIEN ALORREAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA ONARTZEKO JARRERETARANTZ ALDARAZ DADIN. EZ DA ONARTU.**

Aurrekariak

1. Pertsona partikular batek idatziz jarritako kexa baten bidez, San Martzialeko hurrengo Alardean emakumeek gizonen eskubide berdinekin parte hartzeko duten eskubidearen defentsan esku hartzeko eskatu zitzaion gure erakundeari. Kexan, halaber, Betiko Alardea deritzonak jada udalaren baimena zuelako kezka adierazi digute (betiko Alardean emakumeek berdintasunezko partaidetza ukatzen zaie), eta emakumeen eskubideen defentsan aritzen diren bi kolektibok Irungo Udalari, emakume eta gizonentzako berdintasunezko herri alardea antola dezan eskatuz, aurkeztu zioten idatziaren kopia ere helarazi zaigu. Erreklamaziogileak, era berean, Irungo Udalak emakumei, jai ekitaldi honetan parte hartzeari dagokionez, erabateko berdintasuna

eragozten dien traba guztiak desagerrarazteko Konstituzioaren agindua bete behar zuela ere bazioen. Amaitzeko, Eusko Legebiltzarrak duela gutxi onetsi duen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak auzi honi zelán ukitzen zion galdetzen zuen.

2. Gure erakundeak 1996tik hona gai horretaz zabaldu dituen erabakien ildotik, eta Irunen urtero-urtero, gure ustez, kaltetzen den eskubidea babestu nahirik, joan den martxoaren 22an ere zuregana jo genuen, zuen Udalak, Eusko Legebiltzarrak duela gutxi onetsi duen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea (Berdintasun Legea) kontuan hartuta, 2005eko alardeari buruz zer jarrera duen jakin nahian, zeren lege horrek, gure iritziz, aurreko lege esparrua aldarazten baitzuen, herri aginteek berdintasunaren eta sexuaren ondoriozko bereizkeriarik ezaren printzipioa benetan bete dadin dituzten eginbeharrak zehaztu eta sendotuz. Zehazki, honako gai hauei buruz zer-nolako jarrera zeneukaten galdetu genizun:
  - a) “Irungo San Martzialeko Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” San Martzialeko 2005eko Alardearen edizioa antolatzeke jada eman diozuen baimenari buruz, nabarmena baita elkarte horrek Alardea emakumeei berdintasun baldintzetan parte hartzea ukatuz antolatu nahi duela.
  - b) Emakumeek berdintasunez parte har dezaten alde dauden bi kolektibok zuen Udalari egindako eskariari buruz, zeinetan emakume eta gizonentzako berdintasunezko herri Alardea antola dezazuen eskatzen baitizute.

Amaitzeko, gogorarazten genizun lege esparru berriak herri aginteek zein oinarri berriren gainean jardun behar duten finkatzen dutela, eta horrek arestiko bi alderdi horiei eragiten diela, zuen Udalak betebeharrak bikoitza baitu, batetik, ezin duela emakumeei berdintasunez parte hartzea ukatzen dien jaia zuzenean zein zeharka babestu eta, bestetik, zuen herriko emakumeek udalerriko jaietan bizi duten bereizkeria egoera horri amaiera emango dion berdintasunezko jai esparrua gaitu behar duela.

3. Gogoeta horiei buruz hausnartu eta gero, ondoren, idatzi bat bidali zenigun, non “Irungo San Martzialeko Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” emandako baime-narekin batera zihoan dokumentazio guztiaren berri eman zenigun –udalak abokatu partikular bati agindutako txosten juridikoa barne–; idatzian zenionez, herri Alardea antola dezazuen eskariari buruzko ebazpena ere helaraziko zenigun, behin ebazpena ematen zenuenean.

Bestalde, Arartekoak elkarrizketa eskatu zizun; 2005eko maiatzaren 9an elkartu ginen, eta bi erakundeok gaiari buruz dauzkagun iritzia eta jarrerak elkarri aurrez aurre argitzeko aukera izan genuen; bileran gure erakundeak EAEko Berdintasun Legeak Irun eta Hondarribiko Alardeetan duen eraginari buruz prestatu duen txostena ere eman genizun (txostenari aurrerantzean “berdintasun legearen analisisa” esango diogu), eta zuk guri zuen Udalak abokatu pribatu bati, Udalari herri Alardea antolatzeke egin zaion eskariaren gainean eta Eusko Legebiltzarreko Lege berriari adituz erabakitzeera begira, agindutako bigarren txosten juridikoa eman zenigun (aurrerantzean “abokatuaren txostena” esango diogu). Gerora, beste idatzi bat bidali

genizun, gaiari buruzko zuen behin betiko jarreraren berri eman zeniezaguten eskatuz eta, “berdintasun legearen analisisan” azaldutako oharzarazpenetan oinarrituz eta zuk emandako “abokatuaren txostenean” ageri ziren argudioak ondo aztertuz, kexa espediente hau ebazteko asmoa genuela jakin zenezaten.

Bai “Irungo San Martzialeko Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” emandako baimenarekin batera zihoan dokumentazio guztiarekin batera helarazi zenigun idatzitik, bai zurekin izandako elkarrizketatik, bai elkarrizketa horretan eman zenigun txostenetik, honako ondorio hauek atera ditugu, gai honetan duzuen jarrerari buruz:

- a. Ez duzue, gure ustez, Betiko alardea antolatzen duen erakundeari emandako baimena aldarazteko asmorik, Espainiako Konstituzioaren 14. eta 9. artikuluetatik datorren agindura, hau da, Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak jasotzen dituen betebeharretan zehazten den agindura egokitzera begira.
- b. Irungo emakumeei jaiari berdintasunez parte hartzeko aukera eskainiko dien gunerik gaituko duen herri Alardetik antolatzearen aurka zaudete.

Hona hemen, laburbilduta, zein arrazoitan oinarritzen den Irungo Udala jarrera horiei eusteko:

- a) “Irungo San Martzialeko Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” jada eman dion zuen baimenaren balioa, 2005eko otsailaren 17ko 386 ebazpenean dioenez, EAEko Auzitegi Nagusiaren 2002ko ekainaren 21eko epaiak baietsi zuen, Irungo 2001eko Alardeari zegokionez

Balio horren oinarrian Udalak baimentzen duen ekitaldi hori pertsona juridiko pribatuak antolatzen duela dago, eta horrek partikularren arteko harremanen esparruaren gainean proiektatutako berdintasun printzipioaren eraginkortasuna motelduko luke, eta printzipio hori ez litzateke, ondorioz, urratuko, Betiko alardea deritzon horretan ez baitzaie pertsonari tratu laidogarri eta ez-duinik ematen.

Gainera, baimena araupetuta dagoenez, udalak, baimena eman ala ukatzeko, delako jarduketa hori egin nahi dutenek legez eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituzten ala ez soilik aditu beharko luke.

Bestalde, baimena horrek ez du, zuen esanetan, Alardea antolatzeko monopoliorik ematen, zeren ez baitzaie beste pertsona edo talde batzuei “betiko” deritzon alarde horrez bestelakorik, eta emakumeei parte hartzen utziko dienik antolatzeko eskaririk egin dezaten eragozten.

- b) Berdintasunezko herri Alardetik antolatzea udalaren betebeharra den ala ez kontuari dagokionez, “abokatuaren txostenak” dio Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen 7/1985 Legeak (TAOL) ez duela, derrigorrezko udal zerbitzuei buruzko 26. artikuluan, Alardetik antolatzerik aurreikusten, eta San Martzialeko Alardeko Udal Ordenantzako artikuluetan ere ez dela Irungo Udalak halakorik antolatzera zuzenean behartuta dagoenik ondorioztatzen. Gainera EAEko Auzitegi

Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko eta 2002ko irailaren 10eko epaiak ere aipatzen dira (azkenekoa lehenengora bidaltzen duelako), Udala ez dagoela legez Alardea antolatzea behartuta baiesteko.

- c) Eusko Legebiltzarraren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege berriari dagokionez, zuen esanetan, lege horren bidez ez da berdintasun printzipioaren “konstituziozko listoirik” aldarazten, tratu ezberdina legitimatzeko “justifikazio objektibo eta arrazoizkoa” izan behar delako konstituzioaren jurisprudentziatzeko nozioa hitzez hitz jasoko lukeen 3.1. c) artikulua frogatuko lukeen modura. Horregatik, Udal horren ustez, berdintasuneko euskal legearen 25.1 artikulua bigarren ataleko klausula –espazio publikoetan zehar doazela, emakumeei berdintasunez parte hartzea ukatzen dieten kultura jarduerak antola daitezzen debekarazten du–, eta lege horrek abiaraztera behartzen duen ekintza positibo guztiak ere ez dira Alardeari ukitzen dioten eginbeharrak, Alardean, zuen iritziz, ez baita bereizkeria egoerarik gertatzen, xedapen horiek aplikatzeko gertatu behar den moduan.
4. Gertakari horien ostean, gure erakundean hasieran aipatutako kezarekin batera zetorren dokumentazioa gehitu zaigu; dokumentazio honetan “Alarde publikoaren alde, 2005erako kultur jarduketetarako dirulaguntzen udal deialdiari eutsiz, Alardezaleak” kolektiboak “2005erako Alarde mistoaren antolakuntzak sortzen dituen gastuak” finantzatzeko dirulaguntza eskari baten berri eman zaigu. Geroago, halaber, dirulaguntza eskatu duen kolektibo berberak Udalarari Alarde mistoa antolatzeko baimen eskearen kopia helarazi zaigu. Interesatuak jakinarazi digu udalaren ebazpenaren zain daudela baina, nolana ere, bi eskariei baiezkoa emango zaiela uste dutela, zeren, beraien ustez, Udalak Irunen berdintasuneko jai esparrua babestu eta gaitzearen aldeko baldintza materialak sustatu behar baititu.
5. Azkenik, zuk emandako 1342 ebazpenaren berri ere izan dugu, non 2005erako berdintasuneko herri Alardearen deialdiaren eskaria ezetsi duzun; jaso dugu, halaber, gure erakundeari 2005eko maiatzaren 24ko dataz zuzendu diozun idatzia, non eman genizun “Berdintasunerako Legearen analisiari” zer iritzi diozun adierazten diguzun. Udalaren bi idatzi horietan arestian azaldu diren eta “abokatuaren txostenean” jada jasota dauden argudioak errepikatzen dira. Argudio horiek aurrerago aztertuko ditugu.
6. Azkenik, berdintasuneko Alardean parte hartu nahi duten edo zuzenean zein zeharka babesten duten gazte eta nerabeen guraso talde batek Arartekoari aurrez aurre adierazi dioten kexa ere aipatu behar dugu. Irunen, egun, emakumeen berdintasuna berma dezan alarde eredia defendatzen duten pertsonen kontra bizi den indarkeria giroak beren seme-alaben osotasun fisikoa arriskuan jartzen duela salatzen dute gurasook, eta gure erakundeari esku hartzeko eskatu diote, Irungo jaiak diren egunetan ez eze, urteko gainerako egun guztietan ere, pertsona horientzako bake eta tolerantzia giroa bermatuko duten konponbideak bilatzeko. Irungo Alkatea eskari horren jakitun da, Arartekoak maiatzaren 9ko elkarriketan jakinarazi ziolako, eta indarkeria giro hori desagerrarazteko ekintzak abiarazteko prest dagoela adierazi du.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu Eusko Legebiltzarrean duela gutxi onetsi duten **Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege Berriak** (Berdintasunerako Euskal Legeak) **Irungo Alardean emakumeek pairatzen duten bereizkeriaren arazoaren irtenbidea sostengatu behar duten oinarri juridiko eta bitarteko berriak finkatzen dituela**. Ideia hori luze eta zabal azalduta dago Ararteko honek Irungo Alkateari emandako dokumentuan, non lege horrek Alardeen auziari zelan eragiten dion xehekiago jorratzen baita.

Arartekoak gai honetan duen jarrera irmoa behin eta berriro adierazi izan du eta, jakina denez, emakumeek Irungo Alardean herrikide gizonetzkoen parte hartze-ko eskubidea sendo eta tinko defendatzearen alde dago. Horretarako gure barneko lege antolamenduan eta nazioartekoan berdintasunaren eta sexuaren ondoriozko bereizkeriarik ezaren printzipioa finkatzen duten, eta herri aginteak berdintasunerako oztopoak desagerrarazi eta berdintasuna izatez gauza dadin bitartekoak ipintzera behartzen dituzten arau guztietan oinarritzen gara. Irungo Udalak erakunde den aldetik jarrera pribilegiatua dauka, gure iritziz, gizarte demokratiko batean helburu eztabaidaezin hau lortzeko eta, hartara, lorpen horren erantzule nagusia da.

Alabaina, orain arte, agerian geratu da emakumeak Alardera berdintasunez sar daitezten ahalbidetzeko bitartekoak ez ipintzeaz gain, emakumeek berdintasunez parte hartzerik ez duten Alardea urtero ospa dadin nabarmen erraztu duela. Horretarako lege bereizkeria egoera bukaraziko duen udal jarduketarik bideratzera behartuta ez dagoelako argudio juridikoan babestu da –generikoki formulatu dugu–. Baina, hara, badago emakume eta gizonen berdintasuna lortzera begira betebeharrak zehatzak finkatzen dituen arau bat, betebeharrak horien jomuga diren herri aginteentzat saihestezinak diren betebeharrak, alegia; arau hori, gaur, EAEn lurralde esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legea da, jakina. Horregatik, lege hau elementu berria da, eta gure erakundeak sostengatzen duen tesia nabarmen indartzen du, zer eta Irungo Udalak bereizkeriazko jai esparrurik ez gaitzea eta emakume eta gizonentzako berdintasunezko jai eremua sortzea ekarriko duten neurri zehatzak aktibatu behar dituela.

Irungo Udalak ez du, ordea, horrela ulertzen, iritziak elkarri jakinaraztean ondorioztatu ahal izan dugunez. Horregatik, puntu honetan udal horrek agindutako txosten juridikoak hizpide duen argudioa aztertu behar dugu, legeak lehenagoko egoera juridikoa ezertan aldatzerik duenik ukatzen baitu, eta argudio horretaz baliatzen baitira arau berri honetatik datorren edozein agindu baztertzeko. Jarrera teoriko horri heltzen dio udalak, gai honetan inmovilismo jarreran tematzeko eta, horrek, gure iritziz, konponbiderik gabeko blokeora eramanez gaitzake, berdintasunerako duten eskubidea urtero-urtero urratzen zaiela ikusten duten Irungo emakumei eskubide hori materialki inoiz aitortu dakien ikusmirarik eskaini gabe.

Horrela, “abokatuaren txostena” lege honen 3.1. c artikuluan oinarritzen da, non, emakume eta gizonentzako tratu ezberdineko neurriak onartzen direnean, betiere

“justifikazio objektiboa eta zentzuzkoan” oinarritzen badira, lehenago Konstituzio Auzitegiaren (KA) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) jurisprudentziak garatuta daukan nozio bat jasotzen ariko bailitzateke eta, hortik –txostenak ondorioztatzen duenez– aterako litzateke EAeko berdintasun legeak ez duela konstituzioaren listoa aldarazi eta, hartara, arau honen aurreko esparru juridikoak indarrean segitzen duela, eta esparru horretan udala gorago aipatu dugun agindu bikoitzari jaramonik egin barik ari litekeela, txostenaren esanetan.

Zehaztu behar dugu konstituzioko doktrinak eta jurisprudentziak “justifikazio objektibo eta zentzuzkoaren” nozioa emakume eta gizonentzako tratu ezberdina, Konstituzioaren 14. artikulua urratu gabe, definizioz murriztailea den zein esparrutan gerta daitekeen mugatzeko baliatzen dutela. Doktrina eta jurisprudentzia horiek kontzeptu hori garatu dute, ezohiko modura eta funtsik izatekotan, sexu batentzako neurri ezberdinak onartzeko eta, bereziki, ekintza edo bereizketa positibo deritzen neurriak onartzeko, neurri horien azkeneko helburua gizartean gutxietsitako emakumeen kolektiboari laguntzea baita, hots, emakumeentzat gizonentzat baino onuragarriagoa den tratua ekarriko duten neurriak justifikatzea. Neurri horiek objektiboki eta arrazoituz justifikatu behar dira, zeren tratu berdintasunezko arau orokorraren salbuespena baitira. Emakumeak Alardetik emakume direlako soilik baztertzeari ezin da, inola ere, nozio horretan sartu, ez baitago hori justifikatuko duen inolako funts objektiborik. Izan ere, horretan sartzeko ahalegina ezetsi zuten jada auzitegiek auzia planteatu zen administrazioarekiko auzi bideko prozesuetan (ikus Udalaren eta haren laguntzailekide “Irungo Betiko Alardearen Aldekoak” elkartearen defentsaren idatzia, Auzitegi Gorenerako Irunerako 2241/1998 kasazio errekurtsioan), eta ez du ondoren ere ezertarako balio izan Alardearekin zerikusirik daukan inolako auzitegitako epairik oinarritzeko. EAeko berdintasun legearen 3.1.c) artikulua nozio hau aipatzen duenean arauaren goiburuan adierazten den tratu berdintasun edo bereizkeriarik ezaren arauaren salbuespena justifikatzeko dela zehazten du eta, gainera, ekintza positiboko neurrien bi kasu ere jasotzen ditu. Esanguratsua da, nolana ere, Udalak ez duela, inola ere, eta jaso ditugun idatzietako batean ere, zein den emakumeak Irungo Alardetik kanpo uzteko dagoen justifikazio objektibo eta arrazoitu hori argitu.

Edonola ere, EAeko 4/2005 Legeak ezin du inoiz ere legegilearentzat xedatzerik ez dagoen, eta Udalaren txostenean hizpide den konstituziozko berdintasunaren “konstituzioko listoirik” jaitsarazi, baina badauka, ordea –eta horixe da, hain zuzen, bere zeregin nagusia–, konstituziozko printzipio hori erabat eraginkorra izan dadin, betebeharrak zehatzen legezko araubidea eratuz, zelan artikulatu behar den zehazteko eskumena eta, horrela, doktrinaren eta jurisprudentziaren legezketasunaren parametro berri eta ezinbestekoa eta, ondorioz, epairako funts izango dena erabakiko du. Horrela, Irungo Udala ezin da jada berdintasun printzipioaren zehaztasunik ezean babestu (ez eta lege araubide honen jomuga den beste ezein herri-agintari ere); printzipio horren birtualtasuna ahalmen eta eskubide guztien berri ematea da, baina, horrexegatik hain zuzen, ez dago organikoki beren beregi garatuta, gainerako oinarritzeko eskubideak bezala. Gerorako jurisprudentziak, halaber, bere nozioak lege honen xedapenetara doitu beharko ditu; ezin izango du Konstituzioak ezarritakoa

inola ere murriztu, baina bai finkatu ahal izango du Konstituzioko determinazioak zehazki zelan gauzatuko diren.

EAEko berdintasun legea, EAEren zein estatuaren esparruetan etorkizunean eman litezkeen gainerako berdintasun legeak bezala, lehenik eta behin herri aginteengana zuzenduko diren betebeharrak finkatzera xedatzen da, baina partikularrengana ere bideratzen da, lege antolamenduan, Konstituzioan, Europako Batasunean eta nazioarteko antolamenduan jasotzen den gizonen eta emakumeen berdintasuna izatez gauza dadin, benetan lor dadin berma dezaten, herri erakunde guztiek aktiboki inplikatu behar duten prozesu baten azken emaitza modura. Betebeharren araubide hori sortzen den unetik, zilegi da legearen hartzaileei agindu horiek betearaztea, eta horixe da, hain zuzen, EAEko berdintasun legeak Udal horri, Alardeari dagokionez, dakarkion gauza berria, hots, modu jakin batean jokatzeko eskatu ahal zaiola, baldin eta lege antolamendua urratu nahi ez badu, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62 eta 63. artikuluetan aurreikusten den zehapena jaso nahi ez badu.

Esparru honetan, hona hemen, Arartekoaren ustez eta 2005eko Alardeari dagokionez, Irungo Udalak izango lituzkeen betebeharrak.

2. Horretarako, hasteko, aztertu beharra daukagu alkatearen 2005eko otsailaren 17ko 386 ebazpenaren bidez “Irungo San Martzialeko Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” **2005eko ekainaren 30ean betiko Alardea –hau da, emakumeei berdintasunez parte hartzea eragozten diena– antolatzeko eman zitzaion baimena.**

Gure erakundeak, legea aldarrikatu denetik aurrera, herri erakundeek zein oinarri juridiko berriren mende aritu behar duten aztertzeko prestatu duen “Berdintasunerako Legearen analisisan” jasotzen den moduan, Irungo Udalak betiko Alardea, hots, emakumeei berdintasunez parte hartzea ukatzen diena antolatzeko eman duen baimena zeharkako bereizkeriako egintza da, lege horren 3.1. b) artikuluan dioenez, eta lege bereko 25.1 artikulua bigarren leerroaldea zeharo urratzen du. Horregatik, baimen hori, gure iritziz, baliogabea da, erabateko eskubidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62.1 a) artikulua araber.

EAEko berdintasun legearen 3.1. artikulua, herri aginteen jardura gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorren artean, tratu berdintasunaren printzipioa finkatzen du, eta printzipio horren urraketan balizko bi kategoria bereizten ditu, zuzeneko bereizkeria modura gerta daitekeena [3.1. artikulua a) atala] eta zeharkako bereizkeria modura gauza daitekeena [3.1. artikulua b) atala]; hona hemen artikulua hori, hitzez hitz:

### **3.1 artikulua - Tratu berdina**

*Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.*

*Lege honen ondoreetarako:*

(...)

- b) *Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.*

Artikulu horren arabera, zeharkako bereizkeria neurria izango litzateke tratu berdintasunaren haustura dena delako egintzan edo xedapenean –egintza edo xedapena itxuraz neutrala litzateke– esplizituki barik, egintza edo xedapen horren ondorioen eraginez gertatzen denean.

Legearen bereizketa horrek ikuspegi berria ematen du administrazioaren egintza juridiko bat bereizkeriazko egintza modura kalifikatzeko garaian. Irungo Udalak emakumeak baztertzen dituen Alardea baimendu izana legezkoa den ala ez aztertzeko, administrazioaren egintza horren ondorioz, emakumeek bazterketa ondorerik jasaten duten egiaztatzeraz behartzen duen parametro berri bati aditu behar zaio. Hala erabaki zuten, Irungo Alardeari dagokionez, EAEko Auzitegi Nagusiak eta Auzitegi Gorenak 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko irailaren 19ko epaietan, hurrenez hurren, epaiketako gaia, zalantzarik gabe, Udalaren egintza bat, hau da, administrazio egintza bat zenean. Irungo Udalak administrazio jarduera balioduna dela oinarritzeko aipatzen dituen EAEko Auzitegi Nagusiaren 496/2002 epaiak (Irunerako) eta 588/2002 epaiak (Hondarribirako), ez dute orduan inongo arautan idatziz jaso barik zegoen baina kasu honetan zuzenean aplikagarria den zeharkako bereizkeriaren nozioaren arabera epaitzen, eta epaiaren mamia baimenpean jartzen den jarduera pribatura bideratzen dute. Ebazpen horiek, nolahi ere, errekurrituta daude Auzitegi Gorenean, eta Auzitegiak, Konstituzioaren 14. artikuluari begira, EAEko jendaurreko ikuskizunen eta gozameneko jardueren 4/1995 Legearen 18 a) artikuluan, oinarritzeko eskubideak urratzen dituzten jendaurreko ikuskizunen debekuaren eraginkortasunaren gaineko epaia oraindik emateko dauka.

Irungo Udalak puntu honetan zera azaltzen du: baimena partikularren esparrura proiektatzen dela, partikularrak baitira emakumeen berdintasunezko partaidetzarik gabeko Alardea antolatzen dutenak eta, ondorioz, hori berdintasun printzipioaren eragimenerako aringarria dela. Ez gara azkeneko hori eztabaidatzen hasiko, konstituziozko doktrina sendo eta homogeen oinarritzerik ez dagoela uste dugun arren, zeren Konstituzio Auzitegiak berak hainbat eta hainbat epaitan Bundesverfassungsgericht (Alemaniako Konstituzio Epaitegia) delakoaren doktrina jaso baitu; “Drittwirkung” izeneko doktrinaz ari gara, hots, oinarritzeko eskubideen erabateko aurkagarritasunaz, partikularren aurrean. Bai interesatzen zaigu, ordea, Irungo Udalak Alardetik emakumeak baztertzen dituztenei eman dien baimena azpimarratzea, Berdintasunaren Legearen 3.1.b) artikuluen definizioak barnean hartzen duen egintza modura, hots, zeharkako bereizkeriako egintza modura, zeren baimen horrek auzi



honen muina eta, ondorioz, erabaki beharreko gaia egintza juridiko publiko baten balioan ala baliorik ezean birkokatzen baitu, egintza juridiko horretatik eratoritzen direlako emakumeentzako bereizkeriazko ondoreak. Horrek, beraz, berdintasunaren printzipioaren proiektzioa Alardeen auziaren jatorrizko esparrura, hots, esparru publikora darama berriro; ezin dugu ahaztu esparru publiko hori utzi bada, Alardean emakumeei lekurik emateko betebeharra, Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 19ko epaitik datorrena, saihesteko helburu bakarraz utzi dela. Oro har onartzen da, alde horretatik, berdintasun printzipioak erabateko eragimena duela herri aginteen aurrean.

Udalak, halaber, baimena araututa dagoela aipatzen du, berak, legez ezarritako baldintzak betetzen diren ala betetzen ez diren arabera, egin dezakeen bakarra baimena eman ala ukatzea dela argudiatzeko. Komeni da gogoratzea baimenak gaikuntza juridikoak direla, eta beren zeregin nagusia egin nahi den jarduera lege antolamendura egokitzten dela bermatzea dela. Alardearen kasuan, Udalak, baimena emateko, funtsezko legezketasun baldintza bat, hots, oinarriko eskubideen errespetua bete dadin eskatu behar du. Gai horri heltzen dio, zuzenean, Berdintasun Legearen 25.1 artikulua bigarren lerroaldeak. Xedapen honek bete-betea hartzen du Alardea, espazio publiko batean zehar doan kultura egintza izanik, ez baitie emakumeei berdintasunez parte hartzen lagatzen; hara zelan jasotzen den halako jarduera baten debekua:

*“Debekatu egiten da emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.”*

“Berdintasunerako legearen analisisian” luze eta zabalago azaldu dugun moduan, agindu hori legea legebiltzarrean tramitatzen ari zen bitartean sartu bazen, espresuki Irun eta Hondarribiko emakumeek Alardeak ospatzen direnean urtero pairatzen duten bereizkeria arazoa konpontzeko borondatez sartu zen. Ikuspegi horretatik, Alardea, legegilearentzat, 25.1 artikuluan jasotako debekua aplikatu behar zaion egitate prototipikoa da. Horrela, analisi horretan jada genioenez, *“Klausula horrek debeku moduan adierazten du gune publikoetan ezin direla emakumeak diskriminatu. Hortaz, egintza jakin bat baimentzeko ahalmena duen administrazioak egintza diskriminatzailea debekatu behar du, berariazko eta arau horretan oinarrituriko jarduera baten bidez. Ofizios debeka dezake –araua deskribatuta dagoen egitatezko kasua gerta litekeela pentsarazten duten zantzuak antzemango balitu administrazioak berak (“emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan)– edota alderdi batek eskatuta. Bigarren kasuan, hau da, udalari aurreikusitako egintza edo egintzak debeka ditzala eskatzen badiote, eskaera oinarritzeko balio duen arauaren xedea aintzat hartuz ebatzi beharko du udalak”.*

Azaldutako arrazoi horiengatik, Irungo Udalak “Betiko Alardeko Agintarien Batzarrari” emandako baimena lege antolamendura eta, bereziki, 4/2005 Legearen 3.1.b) eta 25.1 artikuluetatik ondorioztatzen diren eskakizunetara egokitzea behartuta

dago, Arartekoaren iritziz eta, hartara, eskatzaileei, emakumeei egintza horretan berdintasunez parte hartzeko aukera eskain diezaieten agindu behar diete edo, bestela, baimen hori baliogabetu.

3. Bigarren, **Udal horrek Irungo emakumeek Alardean berdintasunez parte har dezaten ahalbidetzeko formulak artikulatu behar dituela** aipatu behar dugu. Izan ere, Konstituzioaren 9.2 artikulutik generikoki ondorioztatzen den betebeharra dugu hori, eta azkeneko urteotan behin eta berriz ekin diogu gauza bera errepikatzeari, Irungo Udala herri Alarde bat antolatzea berreskuratzeko –emakumeei herri Alardean parte hartzen utzi behar zitzaizela agindu zuten auzitegietakoko epaiak irten arte bezala– aktiboki inplikatzeko leudekeen hainbat eta hainbat arrazoi emanez; jai ondarea herritar guztiei itzuliko dien herri Alardea antolatu beharko litzateke, Irungo emakumeek urtero-urtero pairatzen duten bazterkeriazko egoera bidegabeari amaiera emateko. Alabaina, Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak eratu duen lege esparru berriak xehekiago zehazten ditu herri aginteek berdintasuna lortzera begira jarrera aktiboa hartzeari buruz dituzten betebeharrak. Betebeharren araubide hori xehetasun handiagoz azalduta dago “berdintasun legearen analisisian” eta, beraz, puntu honetan funtsean dokumentu horretan esandakora jotzen dugu.

- a) **Irungo Udalak**, Arartekoari eman dion txosten juridikoan jasota, gai horretaz **jarri dituen eragozpenak** hizpide hartu behar ditugu berriro. Txosten horretan TAOLeko 26. artikulua, San Martzialeko Alardarako Irungo udal ordenantza, eta EAeko Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko eta 2002ko urriaren 10eko epaiak argudiatzen dira (azkenekoa aurrekora jotzeko diolako), horietatik guztietatik Udala Alardetik antolatzea behartzen duen ezer ez dagoela ondorioztatzen dela esateko. Egia esan, gure erakundearen lehenago ere jorratu izan ditugu argudio horiek. 2003eko ekainaren 10ean –eta oso-osorik dakargu auzi honetara– Irungo Udalak EAeko Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko epaian finkatzen duen doktrinaz egiten duen interpretazioaren aurkako arrazoi ugari eman ziren. Interpretazio hari partziala irizten diogu, “antolatu” hitzaren irakurketa mekanizista eta adiera bakarrekoa egiten baitu, Auzitegiak berak modu ezberdinetan uler daitekeela onartzen duen arren. Gure iritziz, Aretoak epai horren hirugarren oinarri juridikoan termino horrentzako bi esanahi ezberdin erabiltzen ditu, gomendio horren lehenengo gogoetan aztertuta geratu direnak; hara zer nabarmenduko genukeen aipatutako gomendio horretatik:

Laburbilduz, Auzitegi Nagusiak Alardea antolatzeko bi modu ezberdin aztertzen ditu: lehenengo moduan, udalak ospakizuna “programatu” egiten du –alegia, iragarri, sustatu– eta, eskuarki, diruz laguntzen du. Lehen aukera horren barruan, aldi berean, bi jarduera-mota bereizten dira, programatze-lana udalak bere kabuz hasia den ala ez kontuan izanik: ekimena udalarena izan bada, Alardea egiteko erakunde arduradunari deitzen dio eta, orduan, baimena inplizitua da; aldez, ekimen pribatua bada, administrazioaren baimena behar du. Bigarren moduan, antolatze hitzak gauzatzea, burutzea, materialki “antzezte” esan nahi du.

Orduan, auzitegiak –normala denez– biztanleen balizko eskaera horren kontra adierazi du, hain zuzen, udalak ez daukala Alardea “egiteko” inolako obligaziorik, edo epaian

erabilitako hitzak hona ekarriz, ezin dela exijitu "udalak jarduera hori zuzenean gauzatzeta". Ondorio horrekin guztiz bat gatoz, eta, berriro diogu, ezin da ezarri aztertzen ari garen kasuan, bada, kexagileen idazkian hitzez hitz adierazten denez, haiek inoiz ez diote eskatu udalari Alardea gauzatzeko, ezta antolatzeko ere. Hauxe baino ez zuten eskatu: "que por la autoridad municipal competente se convoque para el próximo día 30 de junio la celebración del ALARDE MUNICIPAL, a cuya organización nos brindamos".

Alegia, Alarde mistoaren aldekoen eskaera, jakina, "antolatu" hitzaz epaian egiten den lehen interpretazioaren barruan sartzen da erdiz erdi, eta interpretazio horrek aldi berean ematen dituen bi aukerez baliatuz, udalari eskatzen diote aurrea har dezala eta deialdi bat egin dezala. Horixe esan nahi du "antolatu" hitzak eskaera horretan, ez besterik.

Aztertu dugun epaian, inon ez da legez kanpokotzat jotzen Alardearen "udal antolaketa", zentzu horretan ulertuta. Areago, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko Legearen 25.2.m) artikuluan ezarritako udal eskumenen barruan sartzen dela adierazi ondoren, epaiaren gainontzeko zatian, interpretazio haren barruan dauden bi aukerak aztertzen ditu –ekimen publikoa eta ekimen pribatua–, erabat baztertzen baitu "antolatu" aditzaren beste interpretazioa, Alardea materialki burutzearen sinonimoa. Azalpen hori argi ikusten da epaiaren bosgarren oinarrian ateratako ondorioan:

*"Aunque a criterio de esta Sala todos los indicios presentes hacen suponer que el Alarde de Hondarribia de 8 septiembre de 1998 presenta todavía, como los anteriores, **el carácter público derivado de su promoción última por el municipio**, pues no se explicaría en otro caso ninguna otra implicación municipal que no fuese la de responder a las solicitudes de autorización que los particulares –mandos o no del Alarde–, le dirigiesen, sin poderse pronunciar sobre preferencias o modelos de organización de dicho acontecimiento popular y participativo, como las que en la resolución combatida se desarrollan, y sin poder ocupar tampoco papel institucional alguno en la dinámica reglamentaria de la organización (pues se trataría de una libertad de la sociedad civil que no admitiría dirigismos), **tanto en ese caso, como en el caso hipotético de que realmente la celebración del Alarde estuviese hoy en manos de los vecinos y sus agrupaciones más o menos espontáneas con personalidad o sin ella, se vería compelido el municipio a ejercitar facultades de policía administrativa de los derechos y de control sobre la igualdad en la participación de los vecinos.**"* (negrita añadida)

Nabarmena da elkarrri kontrajartzen zaizkiola "antolatu" aditzaren lehen interpretazioak izan ditzakeen bi aukerak –ekimen publikoa eta pribatua–, eta ondorio hau ateratzen da: ikuskizuna edonolako izanik ere, errespetatu egin behar dela emakumeek berdintasunez parte hartzeko duten eskubidea.

Azken batean, azterturiko epaiatz udal horrek egin duen interpretazioa partziala dela ondorioztatu behar da, izan ere, Auzitegi Nagusiak udalak Alardea antolatzeko obligaziorik ez duela dioenean, "antolatu" hitzaren esanahi berezi bati dagokio. Kexagileek udalari eskatu diotena eta hitzaren esanahi hori bat ez datozenez, kasu honetan ez dago erabilzerik jurisprudentzia-doktrina hori.

Hara bada, aurten, 2005ean egin den eskarian ez dute "antolatu" hitza aipatu ere egin, Udalari Alardearen deialdia egin dezan eskatzen baitzaio, laguntza eskainiz. Hona hemen, eskaria, hitzez hitz:

*Solicitamos del Ayuntamiento de Irun:*

*La convocatoria, conforme a la Ordenanza, del Alarde Municipal de San Marcial para 2005, para lo que brindamos desde ahora nuestra colaboración.*

Gakoa ez dago, beraz, Alardea materialki norik antolatzen duen eztabaidan, Alardea ekitaldi publikotzat jo dadin eta are gehiago, udalak herritarren eskubideak eta berdintasuneko partaidetzaren kontrolean administrazio polizia izateko ahalmen horiek baliatzera behartuta dagoelako kontuetan baizik, epai horren arabera, udala nahi zein nahi ez horretara behartuta baitago, (ikus arestian aipatutako 5. oinarri juridikoa), eta Udalaren txostenean epai hori argudiatzean betebeharrak hori, harrigarriki, aipatu ere egin ez arren.

TAOLEk gai honetan zelan eragiten duen begiratu, legearen 26. artikuluan udala alardea antolatzera behartuta dagoela esan ez arren –ezin bestela izan, jakina–, egia ere bada EAeko Auzitegi Nagusiak berak, Udalak argudiatzen duen epaian, Alardearen antolakuntza aipatzen duela, legearen 25. artikuluan, zehazki, 2 m) atalean jasotako udal eskumenetan ondo txertatzen den ekitaldi modura, hain zuzen. Egia esan, TAOLEk ez dakar ezer berririk eztabaidara zeren, behartu ez arren, Udala erabat gaitzen baitu ekitaldi horren antolakuntzan protagonismoa bere gain hartzeko. Aipatu den eta egun oraindik indarrean dagoen San Martzialeko Alardearen Ordenantzari dagokionez, 1980an onetsi zuen Udalbatzak, Irungo Udalak ospakizuna zelan antolatu behar zuen arautzeko, eta artikulua guztietan Alardea udal egintzat jotzen zen, tokiko erakunde hori garapen eta antolakuntza guztiaren protagonista zelarik. Alabaina, guk hizpide dugun betebeharrak berdintasun printzipioan eta printzipio hori gure araudi sisteman gauzatzen den modutik ondorioztatzen da, funtsean.

“Berdintasunerako legearen analisisan” garatu dugun bezala, gure arau sistematik eta, bereziki, 3.4. eta 25.1 (lehenengo lerroaldea) artikuluetatik zera ondorioztatzen da: udal horrek, bere kultur politikaren esparruan, emaitza jakin bat, hots, herrian ospatzen diren jaiak emakume eta gizonezkoentzat berdinak izan daitezten eta, Irungo emakumeek, herri horretako jai nagusian parte hartzeko orduan, gizonezkoen ahalmen berdinak izan ditzaten lortzeko aktiboki eta zuzenean inplikatu behar duela. Jarraian bi artikulua horiek idatziko ditugu, non legegilearen borondatea zein izan den ageri den, hots, ezin dela emakumeentzat baztertzaila den politika publikorik eta, gai honi dagokionez, kultur jarduerarik ere izan:

### **3.4 artikulua: Genero ikuspegiaren integrazioa**

*Euskal herri-aginteez genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzen eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko dute.*

*Lege honen ondoretarako, honakoa da genero ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak*

*modu sistematikoan kontsideratzea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.*

## **25. artikulua - Kultura jarduerak**

**1. (lehenengo leerroaldia):** *Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura jarduerak guztietan.)*

**b) Betebehar hori,** Irungo jai politikari dagokionez, **nola artikulatuko den** udalak erabaki behar du, bai, betiere **hautatzen duen sistemarekin emakumeak baztertuko ez dituen jai politika bermatzen bada.** Gure lege antolamenduan inolako lekurik ez duena, ordea, Irungo Alkateak egun, emakumeak baztertzen dituen Alardearen ospakizuna baimentzen duenean, eta Irungo emakumeentzat berdintasunezko jai esparrurik gaitzeko inolako neurririk abiarazten ez duenean, edo Alarde mistoa antolatu nahi duten herritarren ekimenek aurrera egin dezaten eragozten duenean atontzen duen jai politika da.

Izan ere, Irungo Udala 2005 urterako jai eredu zehatz bat moldatzen ari da, Alkateak betiko alardea baimentzea ebatzi duenean, eta herri Alarde bat antolatzeari uko egin dionean; ikusteko dago, oraindik, ea Alarde mistoa antolatzeko baimen eta dirulaguntzen eskariak ere ukatuko dituen ala ez, iaz berdintasunezko Alardea antolatzeko eskaria ezetsi zuen bezala. Hala egingo balu, ebazpen horien bidez, izatez, emakumeak baztertzen dituen jai politika moldatzen ariko litzateke, formalki autonomoki gertatzen diren arren, materialki, helburu eta eduki bakarrak, hots, Irungo jaiak emakumeei Alardean berdintasunez parte hartzea ukatuz artikulatu nahi izateak lotzen dituenek, jarraipenezko multzoa osatzen duten egintza ezberdinen bitartez. Horrek guztiak udalaren jarrera azaleratzen du, udalak, oztopoak desagerrarazi eta emakume eta gizonak, 4/2005 legeak dioten moduan, erabateko berdintasunean bizi daitezen errazteko neurriak hartzera begira ez-aktiboa den eta, gainera, helburu horretara xedatutako beste edozein ekimen aktiboki eragozten duen jarrera hartzen baitu.

Jai politika baztertzaila da eta, ondorioz, legearen kontrakoa; ez dago horretan administrazioaren zuzentzerako printzipioan babesterik, Udalak aukera ezberdinen artean hautatzeko duen askatasunak ez baitio bereizkeria betiketza ekarriko duen aukerarik eskaintzen. Aukera hori Zuzenbidearen aurkakoa da eta, horregatik, Alkatezaren ebazpenek itxuraz heldu nahi dioten egokitasun politikoaren esparrutik kanpo geratzen da.

Hara, bada, Arartekoak behin eta berriro proposatu du, oinarritzko eskubideak errespetatuko dituzten jaiak izatera begira, Alardea udalak herri ospakizun mo-

dura antola dezan berreskuratzea, horixe baita, gure iritziz, jaietan berdintasunez parte hartzea lortzea ongien bermatuko duen eta,aldi berean, herritar guztiena den ondarea lehengoratzeko ziurtatuko duen aukera. Gainera, Irungo historiari eta jai tradizioari izugarri lotuta zihoan formula izan da, harik eta udalak ordura arte zeregin modura zeukana utziz bide hori hautsi zuen arte, udalak auzitegiek garai hartan herri Alardea zen hartan emakumeei parte hartzen lagatzeko eman zioten agindua saihestu nahi zuela agerian utziz. Udal horrek oraindik ez dio gure erakundeari azaldu, ez eta eskariak ezetsi zaizkion jendeari ere, zergatik ez duen –legez behartuta ez dagoela esatetik harantzago– Alardea herri ospakizun modura antolatzea berrartu nahi, zergatik erabaki duen herri Alardetik ez antolatzea, eta zergatik uzten duen pribatuaren eskuetan urtetan herritar guztien ondare izan dena. Udalak bere borondatea argudiatzeko motibaziorik edo arrazoirik ez daukanez, honako hau ondorioztatu behar dugu: udalbatza horrek horrela jokatzeko badu –eta zaila litzaioke benetan zergatia argi eta garbi adieraztea–, herri Alarde baten esparruan, Irungo emakumeei berdintasunez parte hartzeko aukera eskaini behar izateari aurre egin nahi ez diolako da.

Irungo Alkateak, ordea, udalari 2005erako emakume eta gizonentzat berdina izango den Alardea antolatu nahi duelako baimena eta dirulaguntza eskatu dizkion kolektiboari ere baietz erantzuteko aukera dauka. Baina ekimen hori bitxiki babestuko duelako ikuspegitik egin behar du, herri horretako emakumeei urtetan itxi zaien bidea zabaltzen duen ekimena delako, eta inertzia historikoaren barrerak hautsiz, eta gure demokrazian hain beharrezkoa eta garrantzitsua den aldaketaren aitzindari izateko indarra eta ausardia duenaren kontra argi eta garbi dagoen testuinguruan abangoardia sozial bihurtuz ekin beharko lioke.

Horregatik, Irungo Udalak ezin ditu eskariok eskari arrunt modura tratatu, izatez gauza daitezen lehenetsi behar ditu, formalki tramitatu eta objektiboki baiestea aktiboki babestuz, puruki herri aginteen ardura beharko lukeen demokraziari bultzada emateko horrelako lana beren gain hartzeko meritua dutenek nahi dituzten termino eta baldintzetan. Udalak ekimen hori finantzatzea ere, deskribatutako esparru horretan, herri erakundeek Irunen emakumeek jai nagusian berdintasunez parte hartzea ziurtatuko duen herri ekimena gauzagarri egin eta laguntzeko duten betebeharrarekin lotzen da (ikus “berdintasun legearen analisiaren” III.2 atala, ekintza positiboko neurriei buruzko 3.5 artikuluari dagokionean). Udalak, esandakoarengatik, 2005ean Alardea berdintasun giroan ospa dadin erraztu eta lehenetsi behar du –antolatuta egon litekeen beste edozein ekitaldiren aldean–.

Testuinguru honetan gogora ekarri behar dugu Udalak Alarde baztertzaila egin nahi duten antolatzaileei eman dien baimenak Alardea antolatzeko monopoliorik ez dakarrela dioela eta, hartara, ulertu behar dugu –betiere, beraien pentsamenduaren arabera–, baztertzaila ez den beste Alarde bat izatea baimendu ez eze, sustatu ere sustatu beharko lukeela udalak, hain zuzen, azkeneko urteotan ematen ari den monopolio itxura saihesteko eta, horrela, betiko alardea deritzoten horren udal gaikuntza legitimatzeko (beren abiapuntutik, jakina). Baina orain arte behintzat ez da hala izan, zeren udal erakunde horrek ez baitu baztertzaila

ez den Alardea antola dezaten sustatu eta, gainera, 2004an halakoa antolatzea eskatu zenean, Udalak ez baitzuen lehentasunez eta premiaz tramitatzea erraztu, eskariaren idatziaren akats formalen aitzakiapean babestuz.

Udalak orain arte erakutsi duen borondateak Alarde baztertzailaren izatezko monopolioaren aurrean kokatuko gintuzke, baldin eta pertsona jakin batzuen ekimenik egon ez balitz –udal horrek, Alarde baztertzaila argi eta garbi babestuz, jarritako oztopo guztiak gainditu dituzte, udalaz kanpoko beste erakunde batzuen laguntzarekin bada ere–; horiei guztiei esker joan diren edizioetan emakumeek berdintasunez parte hartzen duten eta Irungo kaleetan zehar doan Alardea antolatzea lortu baita, beren udalaren inolako babesik gabe, ez izatezkorik ez sinbolikorik. Gainera, udalak Irunen urtero arazoari zeharka aditzeko duen jarrera horrek tokiko administrazioaren ageriko eta nahitako ez-aktibotasuna dakarkio, emakumeei Alardean berdintasunez parte hartzea ahalbidetuko dieten formulak bultzatzeko orduan, eta ez-aktibotasun hori, “berdintasun legearen analisisian” esan dugun moduan, gure iritziz, inpugnazioarako oinarri izan daiteke, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen 29/98 Legearen 25. artikulua araber.

Horregatik guztiarengatik, Ararteko honen ustez, Irungo Udalak, nolana ere, Irungo gizon eta emakumeentzat berdina izango den Alardea gaitzea ekarriko duen jai politika formulatu behar du, baztertzaila ez den herri Alardea deituz –horixe litzateke modurik egokiena, gure erakundearen iritziz–, zein herritarren ekimenari Alarde mistoa antolatzea erraztuz, udalak, babes formal eta materiala emanaz, espresuki eta aski, izatez gauza dadin bermatzeko.

4. Azkenik, **berdintasunezko Alardean parte hartu nahi duten edo zuzenean zein zeharka babesten duten, eta beren osotasun moral eta fisikoa arrisku larrian jartzen duen indarkeria eta intolerantzia giroaren mehatxupear bizi diren gazte eta nerabeen guraso talde batek** Arartekoari planteatu dion auzia ere jorratu behar dugu. Indarkeriaren arazoa behin eta berriro azaleratzen da Irun eta Hondarribian Alardeen gatazka piztu zenetik, eta gure erakundeari, denon partaidetza defendatzen duten emakumeen kolektiboengandik, eta Irunen berdintasunezko Alardea sustatzen aktiboki inplikatzan ari diren pertsonen taldeengandik indarkeriaren arazoari irtenbidea bilatzeko eskariak heldu zaizkio.

Ararteko honek aukera izan zuen zurekin gai honetaz hitz egiteko, joan den maiatzaren 9an izandako elkarrizketan, eta ondo ikusi zuen berdintasunezko jaiak defendatzen dituztenen kontrako ezinikusi bortitzeko giroari amaiera emateko erakutsi zenuen prestutasuna. Gure erakundeak duela gutxi jakin du “betiko alardezale” batzuek Alardearen ibilbidean taberna bat irekitzeko asmoa dutela, eta izugarri kezagarria iruditzen zaigu, beste urte batzuetan taberna hori jarri izanak ingurunetan oldarpen giro zakarra piztu izan duelako Alardearen egunean jaso izan diren salaketak kontuan hartuta. Lehengo eguneko bileran horren jakinaren gainean jarri zintugun arren, berriro eskatzen dizugu Udalak arduratsu joka dezan, bere polizia ahalmenez baliatuz, eta ez dezan taberna hori administrazioaren aldetik inola ere gaitu, edo pasibotasunez

jokatuz ireki dezaten utzi, emakume eta gizonen Alardean desfilatu nahi duten eta haiek babestera joaten diren pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jarriko bailuke.

Alabaina, indarkeriari dimentsiorik sakonenetik begiratu behar zaio, eskuartean dugun jai ospakizunaren moduko ekitaldi batean emakumeak sartzeak dakartzan aldaketekin ados ez daudenen adierazpena den aldetik. Izan ere, indarkeria eta sexismoa binomioa, egun, aginte maila guztietan ardura publikoak dituztenen kezkarik handienetakoa da, emakumeentzat dakartzan ondorio lazarriak ikusita. Horregatik, Irunen planteatzen den arazoari ekainaren 30ean indarkeriarik izan ez dadin helburu soilari begira ez eze, arazoaren zergatiak argitu eta horiek konpontzen saiatuko den estrategia zabalagotik heldu behar zaio.

Ideologia sexista eta patriarkalaren presentzia handia da oraindik gure gizartean, eta gizonezkoen estatusa aginte estatus modura mantendu nahi duen balio sisteman oinarritzen da, emakumeak egituraz haien mende kokatzen dituelako. Munduaren kontzepzio horren adierazpenik sinbolikoenak dira –emakumeak alardean gizonak bezalaxe ez agertzea, esaterako–, hain juxtu, aldatzen zailenak, ageriko adierazpena direlako, gizarte, politika eta ekonomia egituren antolamenduaren urte asko eta askotako historiako gotorlekurik atzemangarrienak direlako, pentsamolde horien arabera.

Herri erakundeek, alabaina, aldaketa horiek gizartean naturaltasunez barnera daitezkeen baldintzak bultzatu behar dituzte. Horretarako, EAEko Berdintasunerako legeak bitarteko zehatzak aipatzen ditu, hau bezalako bereizkeria egoerak hautematean, herri aginte eskudunek erabil ditzaten; iritzi publikoa sentsibilizatzeko jarduerak azpimarratuko genituzke bitarteko horien artean (ikus, legearen xedapen zehatzetarako, gure erakundeak prestatu duen “analisiaren” III.2 atala).

Gure iritziak, ezinbestekoa da, edonondik begiratuta ere, Irungo udalak egun herrian bizi den giroa aldarazteko lagungarri izango diren halako kanpainak egin ditzan, gizarteko harremanen berdintasun ikuspegia eta emakume eta gizonentzako berdina izango diren jaien eredu bultzatuz, horixe baita gizarte modura funtzionatzeko hartu dugun sistema demokratikoan txerta daitekeen bizikidetasun modu bakarra. Lagungarri izango da egun Irunen bizi den oldarmendua murrizteko eta herri horretako bizimodurako etorkizun demokratikoagoa eta oinarritzko eskubideekin abegitsua bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## **6/2005 GOMENDIOA, ekainaren 1ekoa, Irungo Udalarri egina**

1. Udal horrek betiko Alardearen Agintarien Batzarrari emandako baimena 4/2005 Legearen 3.1.b eta 25.1 artikuluetara egoki dadin baldintzaren mende jar dezala, eta Alardea antolatu ahal izateko emakumeei berdintasunez parte hartzen uztea ezinbestekotzat jo dezala.



2. Nolanahi ere, Irungo herritarrentzako berdintasunezko Alardea gaitzea bere gain har dezan, udalak herri Alardearen deialdia zabalduz edo, bestela, hala egin dadin bermatuko duten kolektiboei berdintasunezko Alardea antolatzeke laguntza formal eta materiala eman diezaien, udalbatzari horretarako egin zaizkion finantzaketa eta baimen eskariak baietsiz.
3. Udalak erakunde modura bere gain har dezala emakumeek Irungo Alardean parte hartzearekin zerikusirik duen edozein indarkeria edo oldarmendu aztarna errotik moztea, giro hori suspertzen duten establezimendurik zabaltzea eragozteko dituen polizia ahalmenak baliatuz, eta urte osoan oraingo iritzi egoera aldarazteko sensibilizazio jarduera eta kanpainak eginez, emakume eta gizonen berdintasuna onartzeko jarreretara iristeko, eta demokrazia eta bizikidetasun balioak herriko eguneroko bizitzan barneratzea lortzeko.

**7/2005 GOMENDIOA, EKAINAREN 16<sup>KOA</sup>, LASARTE-ORIAKO UDALARI EGINA, HAINBAT AGIRI LORTZEKO ESKAERA BERRIAZ EBATZ DEZAN.**

Aurrekariak

1. 2004ko apirilaren 21ean, (...) jaunak hainbat agiritara iristeko baimena edo, bestela, haien kopiak emateko eskatu zion Lasarte-Oriako Udalari. Agirien zerrenda bat egin zuen bere eskabidean –guztiak herriko lorategiak mantentzeari buruzkoak ziren–.
2. 2004ko uztailaren 20an, zeuk zuzentzen duzun udalak (...) jaunari adierazi zion eskabidean ez zuela aipatu zergatik lortu nahi zituen agiriok, eta huts hori 10 eguneko epean zuzen zezala eskatu zion, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 71. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. Eskabidea hobetzeko eman zioten epean, interesdunak justifikatu zuen bere alde zuen arrazoia. Hala ere, denbora aurrera zihoan eta Lasarte-Oriako Udalak ez zuen ezer adierazten eskabidearen mamiaz, ez bitartekorik jartzen ere interesdunari agiriak benetan eskuratzeko.
4. Erakunde honek, kexa bideratzeko onartu eta gero, txosten bat eskatu zion udal horri, eta (...) jaunak egindako eskabidea berriaz ebatz zezala eskatu zion. Eskaera hartan aurreratu genionez, itxuraz behintzat, ez zegoen inolako eragozpenik agiriak lortzeko eskabidea onar zezan.
5. Lasarte-Oriako Udalak udaletxe horretako langileak lanez gainezka daudela esanez zuritu du bere isiltasuna –nahiz eta hori aitzakiatzat ezin dela onartu aitortu duen–, eta, gainera, hauxe alegatu du: *“la atención a la petición formulada por el Sr. (...) supone, de hecho, afectar a la eficacia del funcionamiento de alguno de los servicios municipales”*.

Era berean, udal horrek jakinarazi digu luzaroan kontratu bidezko harremana izan zutela kexagileak eta Lasarte-Oriako Udalak.

Azkenik, Lasarte-Oriako Udalak hipotesiak eginez, oro har eta ez modu argian heldu dio gaiaren mamiari –alegia, zenbait administrazio-espeditetan dauden agiriak lortzea–, eta ez du zehaztu udalak eskabidea berriaz ebatziko duen ala ez.

Zehazki, (...) jaunak aztertu nahi dituen espedienteak gai ezberdinei dagozkiela eta sail desberdinetan daudela adierazi digu, espediente batzuk agian itxita egongo direla eta beste batzuk, ordea, ez. Gainera, espediente batzuk datuak babesteko araudiaren pean egon omen daitezke (batik bat abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Norberaren Datuak Babestekoa), giza baliabideak erabili behar omen dira espedienteok aztertu eta datuak babesteko araudiari buruzko zertzeladak egiaztatzeko, eta une honetan Lasarte-Oriako Udalak ezin omen ditu baliabide horiek eskaini.

Udal horrek emandako erantzuna kontuan izanda, Ararteko erakundeari beharrezkoa iruditzen zaio honako gogoeta hauek egitea:

### Gogoetak

1. 4/1999 Legeak zera onartzen du zioen adierazpenean: *“el silencio administrativo es una patología del procedimiento ajena al correcto funcionamiento de las administraciones” (...)* *“esa situación de falta de respuesta por la administración, siempre indeseable, nunca puede causar perjuicios innecesarios al ciudadano”*.

Orduan, alor honetan, hauxe da azken helburua –hala 30/1992 Legearena nola 4/1999 Legearena–: herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna lortzea, eta, ahal bada, ezarritako epean lortzea. Horretarako, beste neurri batzuen artean, berariaz ebatzi behar dutela agintzen die herri-administrazioei.

Kontu horren gainean, hara zer dioen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1, 42.7, 43.1, 43.3 artikuluetan:

*“42. artikulua. Ebatzi beharra*

1. *Administrazioak berariazko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.*

*(...)*

7. *Gaiak bideratzeaz arduratu behar duten herri-administrazioetako langileek eta instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio-organoetako titularrek, bakoitzak bere eskumen-esparruaren barruan, erantzukizun zuzena dute, epe barruan ebazpen adierazia emateko legez ezarrita dagoen eginbeharra bete dadin.*

*Eginbehar hori bete gabe utziz gero, diziplina-erantzukizuna eskatuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritako erantzukizunetz gainera.*

43. *artikulua. Administrazio-isiltasuna, interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.*

1. *Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, gehienezko epea igaro eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, interesdunak edo interesdunek zilegi dute eskaria administrazio-isiltasunez baietsi edo ezetsizat jotzea, dagokion bezala. Dena den, administrazioak ebazpena eman beharko du artikuluko honen 4. paragrafoan aurreikusitako moduan.*

(...)

3. *Administrazio-isiltasunez baiestea prozedura amaitzen duen administrazio-egintzatzat joko da, ondorio guztietarako.*

*Administrazio-isiltasunez ezestearen ondorio bakarra, ordea, interesdunei, kasuan-kasuan, administrazio-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko bide ematea da.”*

Alegia, administrazioaren isiltasun positiboak benetako administrazio-egintza eraginkorra sortzen du, eta egintza hori ezarrita dauden errebisio-prozedurak erabiliz bakarrik berrikusi ahal izango du herri-administrazioak. Hala ere, administrazioaren isiltasun negatiboa legezko fikzio gisa bakarrik sortzen da, herritarrak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera izan dezan, nahiz eta, edonola ere, herri-administrazioak berriaz ebatzi beharra daukan.

Bestela esanda, denbora igarotzeak ez du desagerrarazten administrazioak berriazko erantzuna emateko duen betebeharra. Horren gainean, udal horri ohartarazi behar diogu 2004ko apirilaren 21ean egin zela eskabidea, hau da, urtebete baino gehiago iragan dela udalari egin zitzaionetik. Epe horretan, interesdunari ez dizkiote eman eskatutako agiriak, ezta haietarako irispidea ukatzeko arrazoirik ere.

Argi dago udalerrri horri dagokiola beharrezkoak iruditzen zaizkion giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak lortzea, gure legeriak jarri dizkion betebeharrak zuzen bete ahal izateko. Beraz, ezin dugu onartu udal horren alegazioa, alegia, eskabideari erantzungo balitzaio, udal zerbitzuetakoren baten jarduna ez litzatekeela hain eraginkorra izango.

2. Herri-administrazioen eskuetan dauden agiriak lortzeari dagokionez, gure legeriak ezarritako xedapenak azaldu nahi ditugu.

Horrela, dakizunez, oraingo xedapenek Konstituzioko 105.b) artikuluan dute oinarria. Artikulu horrek zera ezartzen du: *“La ley regulará: (...) el acceso de los ciudadanos a los archivos y registros administrativos, salvo en lo que afecte a la seguridad y defensa del Estado, la averiguación de los delitos y la intimidación de las personas”.*

Eskubidea zehazteko hor aipatzen den legea azaroaren 26ko 30/1992 Legea da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, izan ere, 37. artikuluan, herritarrek artxibo eta erregistro publikoetara iristeko duten eskubidea taxutzen da. Honela dio artikulu horrek:

- “1. *Herritarrek erregistroetara jotzeko eskubidea dute eta, espedienteren batekoak izanik, administrazioko artxiboetan dauden agirietara irispidea izateko eskubidea, edozein dela ere agirion adierazpidea -idatzia, entzuzkoa nahiz irudizkoa- eta euskarri materiala, espedienteak ikusteko eskaera egiten den egunean espediente horien prozedurak amaituta badaude.*
2. *Pertsonen bizitza pribatuari buruzko datuak jasotzen dituzten agirietara pertsona horiek bakarrik izango dute irispidea, eta, datuok osatu gabe edo oker daudela ikusten badute, zuzentzeko edo osatzeko eska dezakete. Ezin dute zuzentzeko edo osatzeko eskatu, ordea, denbora pasatu eta prozedura bakoitzak zehazten dituen gehieneko epeen arabera iraungita dauden espedienteak badira, inolako funtsezko ondoriorik ez dakartenak.*
3. *Titularrez gain, bidezko eta zuzeneko interesa agertzen dutenek ere izan dezakete irispidea zuzenbidea aplikatzeko prozeduretako agiri izendunetara, zehatzeko eta diziplinazko prozeduretakoetara izan ezik, pertsonen bizitza pribatuari buruzko daturik agertzen ez bada, eta, agiri horietako edukien arabera, herritarrak beren eskubideez baliatzeko erabil badaitezke.*
4. *Hiru kasutan uka daiteke aurreko paragrafoetan ezarritako eskubideez baliatzea: interes publikoak hala agintzen duenean, besteren interes babesgarriagoak daudenean, edota legeren batean horrela ezartzen denean; horietakoren bat gertatuz gero, eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua eman behar du.*
5. *Ez dago espediente hauetara irispidea izateko eskubiderik:*
  - a) *Estatuko gobernuak edo autonomia-erkidegoetakoek, administrazio-zuzenbidez kanpoko konstituzio-eskumenak baliatzerakoan garatutako jardunari buruzko informazioa dutenak.*
  - b) *Estatuko defentsari edo estatuaren segurtasunari buruzko informazioa biltzen dutenak.*
  - c) *Delituak ikertzeko izapidetutakoak, beste inoren eskubide eta askatasunen babesa edo egiten ari diren ikerketak arriskutan jar daitezkeenean.*
  - d) *Merkataritzako edo industriako sekretuak babestutako gaien buruzkoak.*
  - e) *Diru-politikaren ondoriozko administrazio-jardunari buruzkoak.*
6. *Xedapen berezien bidez arautuko dira:*
  - a) *Gai sailkatuen araudipeko artxiboetara irispidea izatea.*
  - b) *Gaixoen osasun-datuak dituzten agiri eta espedienteetara irispidea izatea.*

- c) *Hauteskunde-legediak araututako artxiboak.*
  - d) *Funtzio estatistiko publikoaren eremuan estatistikarako bakarrik diren artxiboak.*
  - e) *Erregistro Zibila eta Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusia; baita erregistro publikoak ere, erabiltzeko arauak legez ezarrita badaude.*
  - f) *Gorte Nagusietako diputatuek, senatariek, autonomia-erkidegoetako legebiltzarkideek eta tokiko korporazioetako kideek herri-administrazioetako artxiboetako agirieta irispidea izatea.*
  - g) *Artxibo historikoetako dokumentu-funtsetan kontsulta egitea.*
7. *Herritarrek ezin dute murriztu zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasuna, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko eskubideaz baliatzerakoan. Herritarrek, hortaz, aztertu nahi dituzten agiriak banaka zehaztu behar dituzte eskaeran; hau da, ezin dute gai edo gaimultzo baterako eskabide orokorrik egin, eta, eginez gero, aukerakoa izango da kontuan hartzea. Hala ere, eskatzaileak ikertzaile badira eta historian, zientzian edo kulturaren interes handia dutela egiaztatzen badute, espedienteak zuzenean aztertzeko baimena eman dakieke, beti ere, pertsonen bizitza pribatua behar bezala bermatuta.*
8. *Artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko eskubideak esan nahi du, besteak beste, agirien kopiak edo ziurtagiriak lor daitezkeela, administrazioak agiri horiek aztertzeko baimena ematen badu, eta, legez ezarritako ordainarazpenik badago, aurrez kitatzen badira.*
9. *Herri-administrazioak aldizka argitaratuko dute beren esku dauden agiri hauen zerrenda: batetik, gizarte osoa ukitzen dutela-eta zabalkunde berezia egin behar zaien agiriena, eta, bestetik, herritarrek aztergai izan ditzaketen guztiena.*
10. *Aldiro argitaratuko dira herritarrek edo beste administrazioetako organoek aurkezturiko galdekizunen erantzun eta jarraibideak, zuzenbide positiboaren edo indarrean dauden prozeduren interpretazio direnean, herritarrek administrazioarekiko harremanetan alegaziotzat erabili ahal izan ditzaten.”*

Hau da, Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua eta 30/1992 Legearen 37. artikulua aldaketa sakon baten oinarriak jarri dituzte. Horrela, administrazioen jardueran nagusitzen aritu den opakutasunaren kontra, gardentasun-printzipioa ezarri da, eta printzipio hori agerian jartzen da, besteak beste, herritar guztiei artxibo eta erregistroetara josteko eskubidea dutela aitortzean.

Orduan, hasiera batean eta arau orokor gisa, zera hartu behar da abiapuntu: edozein herritarrek eskubidea du bukatuta dauden prozedurei dagozkien administrazio-espedienteak irispidean izateko.

Arau orokor guztiek bezalaxe, irispidea izateko eskubidea ere ñabartu beharra dago, bada egia da bukatutako espedienteetan izan ohi direla besteri jakinarazi ezin zaizkion agiri batzuk. Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu udal horrek orain arte ez duela arrazoi bidez alegatu babesgarriagoak izan daitezkeen beste interes batzuk lehenetsi behar diren kasu batean gaudenik, baizik eta soil-soilik adierazi du eskabidea onartzeak udal zerbitzuetakoren baten jardunaren eraginkortasunean eragingo lukeela.

Eskabidea ez dutela aztertu pentsarazten digu jokaera horrek. Gainera, eskatutako agirietan beharbada babestu beharreko datuak egongo direla alegatu du udalak. Ez ditu, ordea, datu horiek zehaztu, ez aipatu, ezta argitu ere zein espediente dauden zabalik eta zein itxita.

Sortu den zehaztasunik gabeko egoera gehiegi luzatzen ari da eta, egiaz, ondorio hau du errealitatean: herritar horri ukatzen ari zaio agiri batzuetarako irispidea, baina bere eskabidea zein arrazoi zehatzengatik ezesten den justifikatu barik, nahiz eta gure legeriak, irispidea ukatzen bada, ukapena arrazoitu behar dela agintzen duen, alegia, administrazioak argiro adierazi behar duela azaldutako kasuan zein arrazoi zehatzek uzten duten indarrrik gabe irispidea izateko eskubidea, eskubide hori gure legeriak babesgarriagozat jotzen dituen beste interes edo eskubide batzuekin kontraesanean dagoelako.

Bestalde, agirietarako irispidea zergatik ukatzen ari den adierazi ez denez gero, kexagilea babesik gabe dago, ezin baitu udal horren jarrera eztabaidatu edo arrazoietan oinarrituta horren kontra egin.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **7/2005 GOMENDIOA, ekainaren 17koa, Lasarte-Oriako Udalarari egina**

Berariaz ebatz dezala (...) jaunak agiri batzuk eskuratzeko egin zuen eskabidea, betebeharrak hori ezartzen baitio 30/1992 Legearen 42. artikulua. Horretarako, aintzat hartu beharko du azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 37. artikuluan agindutakoa, baita horrekin batera ezarri beharreko legeria ere.

**8/2005 GOMENDIOA, EKAINAREN 29<sup>KOA</sup>, BASTIDAKO UDALARI EGINA, TABERNA BATEN JABEARI ARAUDIAK AGINDUTAKO HOTS ISOLAMENDUZKO ETA MODULAZIOZKO NEURRIAK HAR DITZALA ESKA DIEZAION ETA, HALA EGIN EZEAN, ZUHURTA-SUNEZKO NEURRI GISA TABERNA ITXI LEZAKETELA OHARTARAZ DIEZAION.**

Aurrekariak

1. Bastida udalerriko biztanle batzuek erakunde honetara jo dute zera salatzeko: (...) tabernaren legez kanpoko jardueraren ondorioz, kalte larriak jasaten dituztela beren etxebizitzetan –taberna beren etxabeen kokatuta baitago– eta udalak ez duela ezer egiten beren arazoa konpontzeko.

Zehazki, haiek diotenez, tabernako musikaren bolumen altuak auzoei zaratazko eragozpen jasangaitzak sortzen dizkie astebururo, eta sobera gaintitzen dira legezko araudiak ezarritako hots-mugak. Era berean, ez daude konforme taberna horrek ixteko ordutegia behin eta berriz hausten duelako.

Orobat, kexagileek adierazi digute hainbat salaketa egin dizkiotela Bastidako Udalari jasaten ari diren kalte larriei konponbide bat bilatzeko. Hala ere, dagozkion hots-neurketak egin eta taberna-jabeari beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzala eskatu zaion arren, jarduera horrek baldintza beretan diharduela ziurtatzen dute, eta ez dela antzemandako irregulartasunetatik bakar bat ere konpondu.

2. Bastidako Udalari lehen laguntza-eskaera egin ondoren, zera egiaztatu dugu haren erantzunari esker: Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Paisaia Zerbitzuko Sailkatutako Jardueren eta Hondakinen Atalak, 2004ko otsailaren 17an, establezimendu horretan airetiko zarataren eta inpaktuzkoaren kontra zegoen hots-isolamendua neurtu zuela, eta 2004ko otsailaren 24an txosten batean jaso zituela neurketatik atera zituen ondorioak.

Txosten hartan ondorioztatu zen hots-isolamenduzko maila ez zela nahikoa lokal hori musika duen taberna moduan erabil zedin, ez baitzen iristen legeak exijitzen duen gutxienezko 64 dB(A)-ko mailara, alegia, musika-aparatuek gehienez 90 dB(A)-ko zarata sortzen duten lokaletan izan behar dutena. Halaber, egiaztatu zen lokal horretako 61dB(A)-ko hots-isolamendua nahikoa dela telebista edo irratia duen taberna gisa erabiltzeko, musika-aparaturik edo bozgorailu independenterik gabe, hau da, lokal barruan gehienez 75 dB(A)-ko zarata sortzeko.



Horrela, bi konponbide proposatu zituzten antzemandako irregulartasunak konponzeko:

A) Alde batetik, isolamendua indartzeko lanak egiten ez baziren, *“berehala kendu beharko lirateke hotsa erreproduzitzeko aparatu guztiak, baita bozgorailuak ere, eta telebista bakarrik utzi beharko litzateke, gehienez ere 75 dB(A)-ko emisio-zarata mugatuta, udalak emandako instalazio-lizentzian adierazitako moduan”*.

B) Beste alde batetik, ahalik eta epe laburrenean zera egitea proposatu zen: *“lokalaren hots-isolamendua indartzea 64 dB-etara iritsi arte, dantzalekue-tako musikari dagokion ‘espektr-egokitza-pena’ hitza aintzat harturik. Kasu horretan, musika-aparatu-etan hots-mugatzaile bat jarriko da, lokal barruan gehienez ere 90 dB(A)-ko zarata sortu ahal izateko.”*

Bukatzeko, txostenean adierazi zen bi kasu horietan tabernak hots-mugatzaile bat jarrita izan beharko zuela barruko hots-iturri guztietan.

Begi-bistakoa da, beraz, taberna horretan bakar-bakarrik irratia eta telebista erabiltzea izango litzatekeela zilegi, 75 dB(A)-tan mugaturik, eta musika-aparatuak kendu beharko litzatekeela, hots-isolamendua indartzeko beharrezkoak diren lanak bukatu arte.

3. Bastidako Udalak, Arabako Foru Aldundiak eskatutakoa kontuan izanik, egoera hori konpontzeko konpromisoa hartu zuen bere gain. Horretarako, 2004ko apirilaren 1eko Alkatetza Dekretuaren bidez, taberna-jabeari eskatu zion gauza zezala foru aldundiko zerbitzu teknikoek proposaturiko bi konponbideetako bat, tabernan hots-isolamendu egokia behin betiko bermatzeko. Era berean, lokalaren jabeari hiru hilabeteko epea eman zitzaion ezarritako neurriak har zitzan, baldin eta lokalaren hots-isolamendua areagotzea erabakitzen bazuen.

Geroago, jardueraren jabeak berak aurretiaz hala eskatuta, epe hori ebazpena jakinarazi zen unetik hasita 6 hilabetera luzatzea erabaki zen, hain zuzen, 2004ko maiatzaren 3ko 51/04 Alkatetza Dekretuaren bitartez. Horrela, jabeak lokalaren hots-isolamendua 64 dB(A)-tara gehitzeko beharrezkoak ziren lanak amaitu ahal izango zituen, aurreko dekretuan proposatu ziren bi aukeretako batean zehaztu zen moduan. Gainera, al bait arinen, musika-aparatu-etan hots-mugatzailea jar zedila agindu zen, lokalaren barruan 90 dB(A)-ko gehienezko zarata gainditu ez zedin.

4. Hala ere, aipaturiko erabakiak argitaratu zirenetik denbora luzea igaro zen arren, udalak ez zuen zehaztu horren gainean zein jarduera gauzatu ziren. Horregatik, eta gai horretaz gero eta auzo gehiago kexatzen ari zirenez, berriro informazio zehatzak eskatu behar izan genion udalari, alkatetza-dekretu horietan onartutako neurri zuzentzaileak bete ote ziren egiaztatzeko egin ziren ikusketa-bisitei buruz. Zehazki, galdetu genion ea jardueraren titularrak lokalaren hots-isolamendua areagotzeko proiektu teknikorik aurkeztu zuen, edo, bestela, ea hango musika-aparatuak kendu

zuten, hosgabetzeko lanak bukatu arte. Azkenik, hots-mugatzaila jarri zuten ere galdetu genion.

5. Gure informazio-eskaerari erantzunez, iazko urriaren 1eko ofizioaren bidez, udalak gauza berri bakarra eskuratu digu, alegia, tabernaren jabeak 2004ko maiatzaren 11n aurkeztu zuen ziurtagiri baten kopia. Ziurtagiri hori isolamendu eraginkorra (EQD-50) instalatzen duen (...) S.L. enpresak eman zuen. Honela dio bere txostenean: *“en el Café Bar (...), el limitador acústico se adecua completamente al señalado por (...) en su Informe de fecha 30 de Marzo de 2004.”*

Alabaina, ez zuen ezer zehaztu gainontzeko gaiez: zein hots-iturritan jarri zen hots-mugatzaila, musika-aparatua kendu zuten ala ez, eta jardueraren arduradunak hosgabetze-proiektua aurkezteko konpromisorik hartu zuen ala ez.

6. Bestalde, kexagileek jaso ahala eskuratu dizkigute Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza eta Ingurumen Saileko zerbitzu teknikoek prestatu dituzten txostenak, iazko ekainetik eta aurtengo otsaila bitartean lokal horretara zenbait ikusketa-bisita egin ostean. Txosten horien edukia begira, ondorio hauek atera ditugu:

Lehenik, musika-aparatuan jarri zen hots-mugatzaila ez zituela betetzen Arabako Foru Aldundiko teknikariek ezarritako zehaztapenak.

Bigarrenik, etengabe irregulartasunak nabari direla potentzia-mugatzaila erabiltzean, aski frogaturik geratu baita mugatzaila behin eta berriz deskonektatzen dela asteburuetan. Adibidez, azken txostenean –2005eko otsailaren 1ekoan– egiaztatu dugu jabeak mugatzaila propio deskonektatzen duela, aldi jakin batzuetan.

*“El día 19 de noviembre entre 23,38 h. (Noche) y las 3,02 (madrugada) los niveles de ruido rondaron entre los 85 dbA y 91dbA.*

*El día 20 de noviembre estuvo desconectado el limitador. El local tuvo la actividad desde las 17 h. de la tarde hasta 6,50 de la madrugada, durante 5 horas se sobrepasaron los 90 dbA y a las 4,15 h. de la madrugada se llegó a 99 dbA.*

- *El día 4 de diciembre entre las 23,35 h. de la noche y las 4,05 de la madrugada se superan los 85 dbA, llegando a alcanzar 91db.A.*
- *El día 7 de diciembre desde las 22,44 h. hasta las 5,00 el nivel de ruido producido en el interior del local llegó a ser 103 dbA y durante la mayor parte de este periodo rondó 100 dbA.*
- *El día 31 de diciembre entre las 0.30 h. y 5,30 niveles de ruido entre los 90-100 dbA.*
- *El día 11 de enero entre las 15,30 y 18,00 h. niveles hasta 94 dbA.*
- *El día 12 y 13 de enero tampoco está conectado el limitador, destacando en cuanto a niveles de ruido se refiere registros 92 a 94 dbA entre las 10,30 y 12,00 h. de la mañana.” (sic)*

### Gogoetak

1. Sailkatutako jardueretarako lizentziak “jarduera-lizentziak” deritzanak dira, izan ere, administrazioak instalazio bati horrelako lizentzia ematen dionean, instalazioa etengabe kontrolatu behar du –hura itxi arte–, beti egoten baita ingurumenean eragozpenak sortzeko arriskua.

Kontrolatzeko betebeharrak horren ondorioz, administrazioak, proportzionaltasun egoiarekin, baimendu duen jardueran esku har dezake, hor dihardutenei beharrezko neurri zuzentzaileak eta egokitzapen-neurriak exijituz, baita ofizioz ere, jarduerak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko.

2. Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, etxebizitzetarako hirilurretan jartzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezarri beharreko arau tekniko orokorrak onartzen dituenak, honako hau adierazten du 1. kapituluan, 3.2.4 atalean: irradi, telebista eta musika-haria duten jardueretan nahitaezkoa izango da hoshgabetze-proiektu bat aurkeztea, lokalaren edozein tokitan 75 dB(A) ez gainditzeko dagozkion kalkulua eginda, eta maila horrexetan mugatuko da hango soinua, lokalari bi ate jarri beharrik ez izateko.

Era berean, atal horrexetan berariaz adierazten da aipaturiko musika-aparatuez bes-telakoak dituzten jarduerak, hoshgabetze-proiekturako kalkulua egiterakoan, lokal barruan gutxienez 90 dB(A)-ko isolamendua erabiliko dutela.

Bi kasutan, dekretu horrek zera agintzen du: *“Zaratagabetze-egitasmoan tegiaren barruan sortutako zarataren maila, horma-hezurren, hormen eta horrelakoen hots-iresmena, gai jabalgarrien hots-iresmena, guztizko hots-zurrupamena eta jabalmen-neurria zehaztuko dira, dagozkien kalkuloekin”* (sic).

Beraz, kontuan izanik antzeman diren akatsak, baita Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritakoa ere –hain zuzen, foru-erakundeek beharrezkoak diren babesteko neurri zuzentzaile osagarriak agintzeko ahalmena dutela–, Arabako Foru Aldundiak 2004ko otsailaren 24ko bere txostenean zehaztu zuen zein neurri ziren beharrezkoak jarduera hori araudian ezarritako parametroetara berriz eramateko.

3. Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoak –64. artikuluan– toki-administrazioei ematen die instalazio-lizentzian ezarri ziren neurri zuzentzaileak kontrolatu eta ikuskatzeko eskumena, edo, hala gertatzen denean, jardueraren titularrak aurkeztutako eguneratze-proiektua dela-eta, geroago ezarri diren neurriak ikuskatzeko.

Orobat, eskumen horietan oinarrituta, udal zerbitzuek ikusketa-bisita bat egin beharko dute, halako jarduera bat araudi teknikoaren arabera gauzatzen dela egiaztatzeko, besteri eragozpenak eta arriskuak ekiditearren. Edonola, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoak 64.2 artikuluan ezartzen

duenez, alkateak jardueraren jabeari eskatuko dio antzemandako akatsak epe jakin batean zuzen ditzala. Behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, epe hori gehenez ere 6 hilabetekoa izango da.

4. Aztertzen ari garen kasuari helduz, Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek egin dituzten ikusketa-bisitetan lortutako emaitzak kontuan izanik, ondorio hau atera dezakegu: alkatetza dekretuetan emandako epeak sobera gainditu diren arren, ez dela nabari taberna-jabeak ezer egin duenik, dekretuetan zehaztu ziren neurri zuzentzaileak hartzeari dagokionez.

Horrela, ez da aipatu ere egiten –udalak eskuratu zizkigun agirien arabera– jardueraren titularrak itxuraz hartzera zihoan neurri zuzentzailea: alegia, bere tabernak orain duen hots-isolamendua indartzea.

Halaber, erakunde honek askotan galdetu du ea gauzatu diren foru aldundiko teknika-riek exijitutako neurri zuzentzaileak, baina oraindik ez dakigu jardueraren titularrak hosgabetze-proiektua aurkeztu duen ala ez. Horregatik, hasiera batean, proiektu hori ez dela aurkeztu ulertu behar dugu.

Gainera, Arabako Foru Aldundiak eman dizkigun datu teknikoek eta egiaztatu diren anitz irregulartasunek agerian jarri dute benetako eragozpenak sortzen direla eta udalak ez duela esku hartzen, izan ere, urtebete pasatxo igaro da jardueraren arduradunak hosgabetze-proiekturik aurkeztu gabe eta bere tabernatik musika-aparatua kendu gabe.

Beraz, Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek beren hasierako txostenean exijitu zuten bezala, lokal horretan musika-aparatua erabiltzea baimendu ahal izateko, nahitaezkoa da zaratatik babesteko 64 dB(A)-ko hots-isolamenduzko mailan hosgabetua egotea eta 90dB(A)-tan jarritako potentzia-mugatzailea izatea.

Bestela, lokala hosgabetzen ez den bitartean, debekatuta dago bertan musika-aparaturik erabiltzea; irratia eta telebista soilik erabil daitezke, 75 dB(A)-tan muga jarrita.

Kasu honetan gogoan izan behar dugu (...) tabernak airetiko zaratatik babesteko 61 dB(A)-ko hots-isolamendua besterik ez duela, hau da, ez dela iristen Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak, musika duen taberna berezi gisa jardun ahal izateko, beharrezkotzat jotzen dituen 64dB(A)-tara.

Hala ere, jarduera-zabaltze hori egiten denean, zehatz-mehatz bete beharko dira Zaratak eta Dardarak arautzeko Bastidako Udal Ordenantzak –2004ko irailaren 6koak– orain bertan 23. artikuluan ezartzen dituen baldintzak; ordenantza horrek, airetiko zaratatik babestearren, 70 dB(A)-ko hots-isolamendua exijitzen die taberna berezi, pub eta antzekoei.

5. Inolaz ere ez dago onartzerik neurri zuzentzaile bakartzat hots-mugatzailea 75 dB(A)-tan jarri izana, bada, aldundiaren txostenean zehazten denez, berariaz

debehatuta dago musika-aparaturik erabiltzea hots-isolamendu egokia izan arte. Musika-aparatuetan potentzia-mugatzailak jartzea derrigorrez bete beharreko neurri zuzentzailetzat hartu behar da, hala agintzen baitu ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezarri beharreko arau tekniko orokorrak onartzen dituenak.

6. Bukatzeko, nabarmena da ostalaritza-jardueren legez kanpoko funtzionamenduak horien inguruan bizi diren pertsonen bizi-kalitatean eragina duela, zarata, usain eta abarregatik eragozpenak sortzen baitituzte. Auzoek, ordea, ez dute zertan eragozpen horiek jasan.

Udalek uneoro zaindu eta bermatu behar dute beraiek baimendutako jarduerak instalazio-lizentzian ezarritako murrizketak eta neurri zuzentzaileak beteko dituztela, eta hala gertatu ez bada, baimendutako instalazioaren parametro eta mugetara bideratu behar dute berriz jarduera. Herritarren atsedena eta kalitateko ingurumena errespetatzen ez dituzten portaera edo jarrerak aldarazteko zigor-neurriak hartu behar badira, indarreko legeriak hainbat bide eskaintzen ditu, herritarren interes orokorra babeste aldera.

Begi-bistakoa denez, horrelako establezimenduen jarduna erregulazio tekniko eta juridiko egoki baten mende jartzen ez bada, lokal horiek gatazka larria sor dezakete eta, egiaz, sortzen dute lokalen titularren interes partikularraren (lokal barruan bere negozioa gauzatzea) eta interes publiko orokorraren artean (establezimendu horien inguruan bizi diren auzo guztiek intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea dute, eta auzoek ez dute beren atsedenaldirian asaldurarik jasan beharrik lokal horiek sortutako eragozpenak direla-eta).

Badakigu ez dela erraza instalazioak zaindu eta kontrolatzea, eta, gure ustez, nola-baiteko oreka bilatu behar da merkataritzako eta zerbitzuetako jarduera arrakastatsu bat gauzatzearen eta auzoen eskubideak errespetatzearen artean –hain zuzen, atsedenerako eta zaratazko asaldurarik ez duen kalitateko ingurumenaz gozatzeko eskubidea–.

Aurreko gogoetak kontuan izanik, udal horri berriro gogorarazi behar diogu beharrezko baliabideak eta prozedurak erabili behar dituela, ezinbestean, (...) tabernaren inguruan bizi diren pertsonen eskubideak –intimitaterakoa eta segurtasunerakoa– benetan gauza daitezten.

Ezin ditugu ahaztu auzitegiek hartutako azken erabakiak; erabaki horietan diotenez, etxean pairatzen diren soinu-inmisio gogaikarriek urratu egiten dituzte Espainiako Konstituzioaren 15. eta 18.1 eta 18.2 artikuluetan bermatutako eskubideak: hain zuzen, bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15. artikulua), norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea (18.1 artikulua) eta bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea (18.2 artikulua). Hori dela eta, udalek beharrezko babes-neurriak hartu behar dituzte, eskubide horiek ez direla urratuko bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**8/2005 GOMENDIOA, ekainaren 29koa, Bastidako Udalari egina**

Eska diezaiola (...) tabernaren titularrari hilabeteko epe luzaezinean aukera dezala, behin betiko, 2004ko apirilaren 1eko 38/2004 Dekretuan proposatu ziren bi aukeretatik bat, eta ohartaraz diezaiola hori egin ezean taberna itxiko dela, zuhurtasuneko neurri gisa, 3/1998 Lege Orokorrak –Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoak– 105. artikuluan agindutakoa urratzeagatik.

**9/2005 GOMENDIOA, EKAINAREN 29<sup>KOA</sup>, BILBOKO UDALARI EGINA, TRAFIKOKO PROZEDURA BATEAN JARRITAKO ISUNA NAHITAEZ ORDAINARAZTEKO PREMIAMENDU-BIDEA BALIORIK GABE UTZ DEZAN ETA HORREN ONDORIOZ BILDUTAKO DIRUKOPURUAK ITZUL DITZAN. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. (...) jaunak Arartekoari esku hartzeko eskatu zion, izan ere, (...) zenbakiko prozeduran jarri zioten trafikoko isuna ordaindu ez zuela-eta, Bilboko Udalak betearazte-bidez ordaintzeko errekerimendua bidali zion.

Interesdunak adierazitakoaren arabera, prozedura hori bideratu zenean ez ziren bete legezko hainbat betebeharrak, hain zuzen, bi gai hauekin lotutakoak: batetik, prozedura osatzen duten egintzen artean, bigarren jakinarazpen-ahalegina; eta bestetik, interesduna bizi den herriko udaletxeko iragarki-taulan ediktuak ezagutarazi direla egiaztatzea.

Orobat, kexagileak zioenez, errekerimendu horren kontra jarri zuen berraztertze errekurtsoaren ebazpenean ez zen ezer adierazi berak alegatutako arrazoien gainean, eta, hortaz, ezin zuen bere eskaera modu egokian defendatu.

2. Gure lehen informazio-eskaerari erantzunez, Herritarren Segurtasun eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkioak administrazio-espeditentearen kopia bat igorri zigun, baita egindako jardueren berri ematen zuen txosten bat ere.

Prozedura 2003ko maiatzaren 20an hasi zen, Bilboko udaltzain baten salaketa zela medio, baimendutako ibilgailuentzat erreserbatuta dagoen tokian aparkatzeagatik.

Salaketa interesdunari berari jakinarazten ahalegindu ziren 2003ko ekainaren 2an eta 3an, haren bizilekuan, eta azkenean familiarterako bati postetxean eskura emanez gauzatu zen jakinarazpena.

Zigortzeko erabakia, berriz, 2003ko abuztuaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bada alferrikakoak izan ziren norberari jakinarazteko ahaleginak (2003ko ekainaren 7an eta 8an egin ziren, 12:34ean eta 12:15ean, hurrenez hurren), bizilekuan hura jasotzeko inor ez baitzegoen. Espedientean ez da egiaztatu interesdunaren postontzian, dagokion moduan, jakinarazpena iritsia zela ohartarazteko agiria sartu zutenik, eta eskuratutako kopian ez da ezer adierazi interesduna bizi den herriko udaletxeko iragarki-taulan jakinarazpena ezagutarazteaz.

3. Agiri horiek aztertu eta gero, zalantzan jarri behar izan genuen isuna nahitaez ordainarazteko bideratu zen premiamendu-prozedura legezkoa ote zen, ikusi baikenuen zigortzeko erabakia ez zela legezko aginduen arabera jakinarazi.
4. Herritarren Segurtasun eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkioak udalaren jardura berronetsi zuen, izan ere, bere ustez, postetxeak bidalitako egiaztagirian idatziz jasota dago isuna jakinarazteko bi ahalegin egin zirela eta, nahiz eta agiri hori 2003ko uztailaren 8 eta 18 bitartean itxaron-zerrendan geratu, interesdunak ez zuela inolako izapiderik egin jakinarazpena jasotzeko. Era berean, adierazi zuen jakinarazpen hori (...) jauna bizi den herriko udaletxeko ediktu-taulan ezagutarazi zela 2003ko abuztuaren 14tik irailaren 1era bitartean.

### Gogoetak

1. Oro har eta kexa hau aztertzen hasi baino lehen, herritarrek nahiz herri-aginteez legeria bete beharra daukatela gogorazi behar dugu.

Exijentzia hori trafiko-arauak betetzeari ere badagokio. Arau horiek interes berezia dutela onartu behar da, gure oraingo gizarte-bizitzako alderdi funtsezkoetako bat arautzen dutelako eta, beraz, arauok hausteak ondorio larriak ekar ditzakeelako.

Horregatik, printzipio horiek oro har onar daitezten, ezinbestekoa da ez bakarrik herritarrek horretaz jabearazteko etengabe ekintzak burutzea, baizik eta baita ere arau-hausteak modu egokian gaitzestea, herri-administrazioek duten zigortzeko ahalmena erabiliz.

Era berean, zigor-prozedura bat bideratzen datozen ondorio larriak kontuan izanik, legezko formaltasunak zorrotz bete daitezten exijitu beharra dago, formaltasunok ez baitira helbururik gabeko baldintza-gehitze hutsa, ezpada administrazioaren jardura zigortzailearen kontra herritarrek duten bermerik garrantzitsuena. Horrela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak– hauxe ezartzen du printzipio orokortzat: herri-administrazioen zigortzeko ahalmena erabili ahal izateko, horretarako propio aurreikusita dagoen prozedura aplikatu beharko da; beraz, ezin izango da zigorrik ipini prozedura hori bideratu gabe.

2. Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari 2002. urteaz paratu zion txostenean<sup>1</sup>, gomendio orokor bat egin zuen, gai hauek aztertzeko: trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorrean postaz eginiko jakinarazpenek zein baldintza bete

---

1 EUSKADI: Ararteko. VI. Atala. Gomendio orokorrak: 4. Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiaturik egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean. *Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2002*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2003. Eskura dago [www.ararteko.net/web/orrialdean](http://www.ararteko.net/web/orrialdean).



behar dituzten jakinarazpen-ahaleginak behar bezala saiatuta egin direla uler dadin, hartzailea bizilekuan ez dagoenean. Han adierazitakoari lotzen gatzaizkio kexa honen erreferentzia-marko orokorrari dagokionez.

3. Zigortzeko prozedura batean, jakinarazteko izapideak berebiziko garrantzia hartzen du, izan ere, araudian agindutako baldintza guztiak zehatz-mehatz betez ziurtatzen da interesdunak baduela prozeduraren berri, eta, orduan, bere burua babesteko eskubidea erabil dezakeela.

Konstituzio Auzitegiak askotan eman izan du gai horretaz duen iritzia. Esate baterako, urtarrilaren 13ko 1/1983 Epaian (RTC 1983\1) zera baieztatu zuen:

“De todos los preceptos que las leyes procesales dedican a los actos de comunicación con las partes (notificaciones, citaciones, emplazamientos) y aun de los que se ocupan de los medios de impugnación dirigidos a remediar los vicios ‘in procedendo’, se advierte que el propósito del legislador es, ante todo, conferir a aquellas las garantías para la defensa de sus derechos e intereses, de modo que la notificación, citación o emplazamiento sirva a su objetivo de que, dando noticia suficiente del acto o resolución que la provoca, sirva para que el notificado, citado o emplazado pueda disponer lo conveniente para defender en el proceso los derechos o intereses cuestionados, por cuanto de faltar tal acto de comunicación o adolecer de nulidad equivalente a su falta, el interesado podría verse imposibilitado para ejercer los medios legales suficientes para su defensa.”

Edo, berrikiago, hauxe adierazi du 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002):

“...el cumplimiento de los requisitos que las Leyes procesales exigen para practicar el emplazamiento, citación o notificación ofrecen relevancia constitucional y son garantía de que el emplazado, citado o notificado conocerá el acto o la resolución que le afecta y podrá, en consecuencia, ejercer adecuadamente su derecho de defensa.”

Horregatik, jurisprudentziak ardura handiz jokatzeko exijitzen du prozesu bat jakinarazteko egintzak gauzatzeko orduan, uste baitu prozedura-legeek jakinarazpenak egiteko ezartzen dituzten baldintzak ez direla betekizun formal hutsak, baizik eta babesik eza galarazteko eta Konstituzioko 24. artikuluan onartutako eskubideak bermatzeko funtsezko elementuak.

Orduan, jakinarazpenaren funtsezko helburua norberari zuzenean egintza jakin bat ezagutaraztea denez gero, zilegi da exijitzea administrazioak beharrezko ardura eta baliabideak erabil ditzala, arrazoizkotasunaren muga barruan, helburu hori lortu ahal izateko.

Dena den, araudiak berak ezartzen ditu gutxienezko jarduera-baldintza batzuk jakinarazpen pertsonala hobetzearren, interesdunak bere jarrera babestu ahal izango duela bermatzeko metodo gisa, eta baldintzok betetzea saihestezina da.

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak–, zera ezartzen du 59.2 artikuluan: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiaturik dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.”*

Horren antzeko agindua ematen du abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuak –posta zerbitzuen prestazioa arautzeko Araudia onartzen duenak– 42. artikuluan.

Auzitegi Gorenak oraintsu –2004ko urriaren 28an– eman duen Epaian (RJ 2004\6594) ordu-diferentziari dagokion baldintza interpretatu du, eta legezko doktrina hau finkatu:

“Que, a efecto de dar cumplimiento al artículo 59.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reformada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, la expresión en una hora distinta determina la validez de cualquier notificación que guarde una diferencia de al menos sesenta minutos a la hora en que se practicó el primer intento de notificación.”

5. Posta zerbitzuen prestazioa arautzen duen Araudiak, bere aldetik, honako hau exijitzen du, gainera, posta zerbitzuaren bitartez egiten diren jakinarazpenetarako: bi ahaleginetatik batek ere arrakastarik izan ez badu, jakinarazpena zerrendan gorde dadila, hilabetez gehienez ere, eta hartzaileari hura iritsi dela ohartarazteko agiri bat utz diezaiotela bere etxeko postontzian. Oharpen-agiri horretan idatzita agertu behar du jakinarazpena non dagoen, noiz arte jaso daitekeen, baita bigarren jakinarazpen-ahaleginari buruzko zertzeladak ere.

Auzitegi Gorenak 1997ko abenduaren 12ko Epaian adierazi zuenez (RJ 1998\2264), *“funtsezkoa da jakinarazpen-ahalegina bi aldiz egin dela eta jakinarazpena iritsi dela ohartarazteko agiria –dagokion postontzian sartuz– jaso dela frogatzea; posta zerbitzuak frogatu behar du hori”*. Gainera, Auzitegi Gorenaren iritziz, administrazioari jakinarazpena itzultzen diotenean, iraungirik dagoelako, hark, besteak beste, *“administrazioaren espedientean sartu behar du posta zerbitzuaren ziurtagiria, non ziurtatuko baita noiz eta zein ordutan eman zen jakinarazpena iritsi zela ohartarazteko agiria eta, hala badagokio, hartzailea edo hark baimendutako pertsona ez zela joan postetxera gutuna jasotzera”*. Horrela, ondorio hau ateratzen du: administrazioak egintza horiek frogatu dituenean bakarrik jo daitekeela baliozkotzat iragarki bidezko jakinarazpena.

6. Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua ediktu bidezko jakinarazpenera jotzea baimentzen du, baldin eta norberari jakinarazten saiatu ondoren, jakinarazterik lortu ez bada.

Beraz, bide hori baliatu ahal izateko, ezinbestekoa da alde zuzenetik norberari jakinarazten saiatu izana, araudiak ezartzen dituen baldintza formal eta material guztiak betez. Orduan, ediktu bidezko jakinarazpena erabiltzea ez da baliozkoa izango alderdi horiek egiaztatzerik ez badago edo baldintza horiek ez direla zehatz-mehatz bete ondorioztatzen bada.

7. Aztertzen ari garen prozeduran, 19 minutuko aldea izan zen zigor-erabakia norberari jakinarazteko egin ziren bi ahaleginen orduen artean, hau da, ez zen arestian aipatu dugun Auzitegi Gorenaren epaian ezarritako gutxienezko aldea bete –60 minutukoa–, eta, gainera, espedientean ez da ziurtatu hartzailearen postontzian jakinarazpena iritsi zela ohartarazteko agiririk sartu zenik.

Ahalegin horiek ez ziren egin, beraz, lege araubidean ezarritako baldintzak betez; horregatik, nahitaez zalantzan jarri beharra dago ediktu bidea erabiltzea baliozkoa ote den zigor-erabakia jakinarazteko, eta, azken batean, ondorioztatu behar da jakinarazpena ez zela behar bezala egin.

Egiaztapen horrek eragina du, azkenean, isuna ordainarazteko geroago bideratu zen premiamendu-prozeduran, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudia onartzen duen 36/1997 Foru Dekretuan –martxoaren 18koan– ezarritakoa kontuan izanik, ez zegoen oinarririk premiamendu-prozedura hasi eta garatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **9/2005 GOMENDIOA, ekainaren 29koa, Bilboko Udalarari egina**

Baliorik gabe utz dezala (...) jaunaren kontra (...) erreferentziarekin bideratu den trafiko alorreko prozeduran jarritako isuna nahitaez ordainarazteko premiamendu bidea, eta itzul ditzala horren ondorioz bildutako diru-kopuruak, halakorik bildu badu.

**10/2005 GOMENDIOA, EKAINAREN 29<sup>KOA</sup>, EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILARI EGINA, INTERESDUNARI EZARRITAKO ISUNA BALIORIK GABE UTZ DEZAN, BALIZKO PREMIAMENDU-BIDEA BALIOGABETZEKO BEHARREZKOAK DIREN IZAPIDEAK EGIN DITZAN ETA BILDUTAKO DIRU-KOPURUAK ITZUL DITZAN. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. (...) jaunak Ararteko erakundera jo zuen, 2002ko uztailaren 5ean hasi zen trafiko alorreko zigor-prozedura bati buruzko alderdi batzuekin ados ez zegoela adierazteko. Prozedura hori ertzain batek egindako nahitaezko salaketa baten bidez hasi zen, eta hauxe idatzi zuen salaketan: *“Conductor de turismo circulando por vía interurbana, no haciendo uso del cinturón de seguridad obligatorio”*.

Interesdunak adierazitakoaren arabera, gertakariak jazo zirenean, ibilgailua geldirik zegoen eta segurtasun-uhala askatu zuen, paper-zorro bat aldean zeraman ala ez egiaztatzeko, beldur baitzen hurbileko gasolindegi batean ahaztuta utzi ote zuen. Gainera, kontatu zigunez, ertzainak modu desegokian tratatu zuen eta salaketa ez zioten une hartan bertan jakinarazi, ez geroago ere; horregatik, ez zuen bere burua defendatzeko alegazioak egiterik izan, zigor-erabakia jaso zuenean aurkeztu zituenak ezetsi egin baitzituzten, inolako baloraziorik egin gabe, bada administrazioak ulertu zuen alegazioak errekurtsio-aldia hasi baino lehen baliarazi behar zirela.

2. Gure lehen informazio-eskaerari erantzunez, Herrizaingo Sailak administrazio-espeditentearen kopia bat igorri zigun, baita 2003ko martxoaren 25an, prozedura bukatutakoan, salaketa egin zuen ertzainak prestatuturiko txostena ere, aipatutako gure eskaera zela eta.

Txosten hartan, uneoro modu egokian jokatu zuela baieztatu zuen ertzainak, eta ukatu egin zituen kexagilearen adierazpenak; horregatik, adierazpen kontrajarri horiek ikusirik, lege-haustearen tipifikazioa eta prozeduraren tramitazioa bera hartu genituen gure azterketarako ardatz nagusi.

Horrela, lehen puntuari buruz, interesdunak lehen unetik beretik adierazi zuen segurtasun-uhala lotuta zeramala eta ibilgailua gelditu zuenean soilik askatu zuela, paper-zorroa gasolindegian ahaztuta utzi ote zuen egiaztatzeko. Eta halaxe jakinarazi genion administrazioari.

Ertzainaren txostena adierazpen horiekin bateragarria zen, izan ere, ibilgailua zebilen bitartean gidaria segurtasun-uhalik gabe zihoala adierazi beharrean, bazirudien kontrakoa baieztatzen zuela, alegia, ertzaina ibilgailua geldirik zegoenean ohartu zela zertzelada horretaz. Beraz, salaketa-orrian salatutako egintza ertzainak ateratako ondorioa baino ez litzateke izango, interesdunak ukatutako ondorioa gainera, eta zalantzan jarraraziko luke salaketa legezkoa izan ote zen, berori oinarritzeko erabili zen Zirkulazioko Araudi Orokorren 117.1 artikuluan ezarritakoari begira.

Bestalde, interesdunak salaketa-orririk ez jaso izana aztertu genuen. Bi aldeek egiaz-tatu ziguten egintza hori, baina arrazoi ezberdinak eman zituzten hura oinarritzeko: (...) jaunaren esanean, ertzainak ez zion salaketa-orria eman nahi izan, sinatu ez zuelako; eta ertzainak zioenez, interesdunak ez zuen onartu salaketa-orria.

Administrazio-espeditentean ez zen horretaz ezer aipatu, “No desea” esapidea beste-rik ez, salaketa-orriaren kopian idatzita, salatuak sinatu behar zuen tokian; aipamen hori ez da nahikoa, gure ustez, jakinarazpenen araubidean finkatutako baldintzak betetzat jotzeko.

Azkenik, agerian jarri genuen prozeduraren geroko tramitazioan ez zirela zaindu zigortzeko alorrari datxezkion berme-bideak.

3. Herrizaingo Sailak ertzainak jarritako isuna berronetsi zuen, bi arrazoiongatik: alde batetik, bere iritziz, segurtasun-uhala lotuta eramateko betebeharrak indarrean zira-uelako ibilgailua geldirik egonda ere; eta, bestetik, prozedurazko akatsik balego ere, akats horrek ez lukeelako nahikoa indar izango jokaera hura ez zigortu izana justifikatzeko.
4. Berriro administrazioari idatzi genion, prozeduraren hasieran antzemandako akatsak sakonago azter zitzan eta isuna baiorik gabe uzteko aukera berriro hausnar zezan. Proposamen hori ere ez zuen onartu Trafikoko Zuzendaritzak.

### Gogoetak

1. Oro har eta kexa hau aztertzen hasi baino lehen, herritarrek nahiz herri-agintee-k legeria bete beharra daukatela gogorarazi behar dugu.

Exijentzia hori trafiko-arauak betetzeari ere badagokio. Arau horiek interes berezia dutela onartu behar da, gure oraingo gizarte-bizitzako alderdi funtsezkoetako bat arautzen baitute eta, beraz, arauok hausteak ondorio larriak ekar baititzake.

Horregatik, printzipio horiek oro har onar daitezen, ezinbestekoa da ez bakarrik herritarrak horretaz jabearazteko etengabe ekintzak burutzea, baizik eta baita ere arau-hausteak modu egokian gaitzestea, herri-administrazioek duten zigortzeko ahalmena erabiliz.

Era berean, zigor-prozedura bat bideratzetik datozen ondorio larriak kontuan izanik, legezko formaltasunak zorrotz bete daitezzen exijitu beharra dago, formaltasunok ez baitira helbururik gabeko baldintza-gehitze hutsa, ezpada administrazioaren jarduera zigortzailearen kontra herritarrek duten bermerik garrantzitsuena. Horrela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak– hauxe ezartzen du printzipio orokortzat: herri-administrazioen zigortzeko ahalmena erabili ahal izateko, horretarako propio aurreikusita dagoen prozedura aplikatu beharko da; beraz, ezin izango da zigorrik ipini prozedura hori bideratu gabe.

2. Zigortzeko prozedura batean, jakinarazteko izapideak berebiziko garrantzia hartzen du, izan ere, araudian agindutako baldintza guztiak zehatz-mehatz betez ziurtatzen da interesdunak baduela prozeduraren berri, eta, orduan, bere burua babesteko eskubidea erabil dezakeela.

Konstituzio Auzitegiak askotan eman izan du gai horretaz duen iritzia. Esate baterako, urtarrilaren 13ko 1/1983 Epaian (RTC 1983\1) zera baieztatu zuen:

“De todos los preceptos que las leyes procesales dedican a los actos de comunicación con las partes (notificaciones, citaciones, emplazamientos) y aun de los que se ocupan de los medios de impugnación dirigidos a remediar los vicios ‘in procedendo’, se advierte que el propósito del legislador es, ante todo, conferir a aquellas las garantías para la defensa de sus derechos e intereses, de modo que la notificación, citación o emplazamiento sirva a su objetivo de que, dando noticia suficiente del acto o resolución que la provoca, sirva para que el notificado, citado o emplazado pueda disponer lo conveniente para defender en el proceso los derechos o intereses cuestionados, por cuanto de faltar tal acto de comunicación o adolecer de nulidad equivalente a su falta, el interesado podría verse imposibilitado para ejercer los medios legales suficientes para su defensa.”

Edo, berrikiago, hauxe adierazi du 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002):

“...el cumplimiento de los requisitos que las Leyes procesales exigen para practicar el emplazamiento, citación o notificación ofrecen relevancia constitucional y son garantía de que el emplazado, citado o notificado conocerá el acto o la resolución que le afecta y podrá, en consecuencia, ejercer adecuadamente su derecho de defensa.”

Auzitegi Gorenak ere horien antzeko iritzia azaldu du, esate baterako, 1996ko urriaren 14ko Epaian (RJ 1996\7271):

“Como ya ha preconizado reiteradamente la doctrina jurisprudencial de esta Sala, todos los mecanismos y garantías con que las leyes procesales o procedimentales rodean los actos de comunicación entre el órgano decisor y las partes contendientes (sean notificaciones, emplazamientos, requerimientos, etc.) no tienen otra finalidad o razón de ser que la de asegurar que, en la realidad, se ha materializado aquella participación de conocimiento, o que, en la ficción jurídica, se ha producido la misma

en determinadas circunstancias, o no se ha producido. La entrega de una copia o traslado, la firma del receptor, su identidad, etc., no son más que signos materiales externos que, de alguna manera, revelan o presuponen una toma de conocimiento que, al ser consustancial al derecho de defensa, ha de verse rodeada de las máximas garantías. De ahí que, en los modernos ordenamientos tributarios, tales exigencias se lleven hasta el límite de lo que la eficacia y los intereses de terceros permiten; y en la jurisprudencia de los Tribunales se extreme el formalismo de estos actos, en contra de las corrientes informalistas que dominan las nuevas concepciones del procedimiento.”

Horregatik, jurisprudentziak ardura handiz jokatzeko exijitzen du prozesu bat jakinarazteko egintzak gauzatzeko orduan, uste baitu prozedura-legeek jakinarazpenak egiteko ezartzen dituzten baldintzak ez direla betekizun formal hutsak, baizik eta babesik eza galarazteko eta Konstituzioko 24. artikuluan onartutako eskubideak bermatzeko funtsezko elementuak.

3. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak haxe agintzen du 77.1 artikuluan: *“Agintaritzaren agenteek derrigorrezko salaketak egiten dituztenean, unean bertan jakinarazi behar diote salatuari. Horixe da arau orokorra. Gainera, 75. artikuluan aipatutako datuak jaso behar dira salaketa horietan, baita 79.1. artikuluan onartutako eskubidea ere”*.

Kasu honetan, interesdunak zera adierazi zuen bere kexan: *“Tras este incidente el alegante se negó a firmar la denuncia y el ertzaina no le dio el boletín de denuncia, por lo que no pudo presentar escrito de alegaciones.”*

Zigor-prozedurako administrazio-espedithea aztertu eta gero, gertakari horren aipamen bakarria salaketa-orrian salatuak sinatu behar duen tokian egiten dela ikusi dugu. Hor *“No desea”* esapidea agertzen da, eskuz idatzita, baina esapide horren bitartez ez dago jakiterik interesdunari agiria eman zitzaion ala ez, ezta emateko ahaleginaren zer-nolakoak ere.

Bestalde, Trafikoko zuzendariaren 2002ko abenduaren 5eko Erabakian –horren bidez ezetsi zen interesdunak jarritako gora jotzeko errekurtsioa– honako hau baieztatu zen: *“del examen del expediente se comprueba que al recurrente le fue notificada la denuncia en el acto...”*.

Hala ere, kexa honen testuinguruan egin genuen informazio-eskaerari erantzuteko asmoz berariaz prestatu zen 2003ko martxoaren 25eko txostenean, ertzainak honela kontatu zuen gertatutakoa: *“Tras cumplimentar el boletín de denuncia, el agente informante se dirigió hacia el vehículo denunciado. Al llegar a la altura de la ventanilla delantera izquierda del vehículo pregunta a su conductor si deseaba firmar la denuncia, manifestando el denunciado que no, por lo que el agente añadió de su puño y letra en el boletín de denuncia ‘no desea firmar’. El conductor denunciado inquirió al agente diciéndole ‘Me dejarás leer lo que has escrito’, a lo que el agente no puso ningún tipo de objeción, pasándole el agente el boletín de denuncia. Tras leer la misma el denunciado apostilló que*

*en el texto decía que estaba circulando y él manifestaba que estaba detenido, con lo cual no estaba de acuerdo con la denuncia., motivo por el cual la rehusó, devolviéndosela al agente, que la guardó. (...) Una vez en las dependencias de la Unidad Territorial de Tráfico de Álava dejó el boletín de denuncia en su lugar habitual para su tramitación a la Oficina Territorial de Tráfico de Álava.” (sic)*

Horrela bada, isuna jartzea erabaki ostean idatzitako txosten horretan gauza berri bat aipatzen da, hauxe hain zuzen: (...) jaunak, salaketa ez sinatzeaz gain, ez zuela jakinarazpena onartu, atzera itzuli baitzuen jaso behar zuen kopia eta, beraz, ertzainak kopia hori gorde zuela.

Beraz, dirudienez, ertzainak berretsi egiten du interesdunak ez zuela salaketa-orriaren kopiarik lortu, nahiz eta horretarako arrazoi desberdina ematen duen. Horrela, (...) jaunak kopiarik eman ez ziotela dioen bitartean, ertzainak adierazten du hark ez zuela onartu jakinarazpena.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak– honako hau ezartzen du 59.3 artikuluan: *“Interesdunak edo bere ordezkariak administrazioaren jardunaren jakinarazpena hartu nahi ez badute, hala jasoko da espedientean, eta jakinarazpen-saioaren zer-nolakoak zehaztuko. Horrekin, izapidea gauzatatuz joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.”*

Azaldu dugunez, espedientean ez zen idatziz jasota utzi interesdunak ez zuela salaketaren kopia onartu, ezta errefusatze hori nola gertatu zen ere; guztiz alderantziz, badirudi espedientean jakinarazpena gauzatu zela adierazten dela. Xehetasunok askoz geroago agertu ziren lehen aldiz, hain zuzen, prozedura bukatua zenean eta –guk hala eskatuta– prestatu zen txosten batean, eta ez datoz bat kexagileak kontatutakoarekin eta Trafikoko zuzendariak gora jotzeko errekurtsioa ezesteko erabakian adierazi zuenarekin.

Horrela, ertzainak jardun zuenean, ez zituen bete jakinarazpen-ahalegina ontzat jo dadin arauak ezartzen dituen baldintzak. Beraz, izapide hori ezin zen egintzat jo eta, azken batean, salaketa ez zen eraginkorra prozeduraren hasiera baliozkoa izateko.

Beraz, espediente honetan agertu den akatsak garrantzi handia hartzen du, izan ere, prozeduraren hasiera-ekintzan eragina duenez, prozeduraren tramitazio osoa akasten du eta zigorrari berari ere eragiten dio; horren ondorioz, baliogabetuta geratzen da zigorraren funtsa edo arrazoia.

Kexan aztertu denaren antzeko akatsak direla-eta, auzitegiek baliogabetzat jo behar izan dituzte halako zigorrak, bada, beren ustez, tartean prozedurarik ez zela eta legeak ustezko erantzuleari aitortzen dizkion bermeak bete gabe jarri dira zigor horiek.

Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak honako adierazpenok egin ditu 2003ko abenduaren 26ko Epaian (JUR 2004\78994):



“Se sigue de los anteriores datos que la denuncia y la incoación del procedimiento sancionador no fueron eficazmente notificadas al presunto infractor con los requisitos exigidos para ello por el artículo 59.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Procedimiento Administrativo Común, ya que el método empleado para ello no permitió documentar en el expediente administrativo la constancia de la identidad y contenido del acto notificado, ni la constancia de la recepción por el interesado o por su representante.

La irregularidad detectada en el medio empleado y en la consignación de la causa impeditiva de la entrega del envío impide, así mismo, que la actuación administrativa descrita pueda calificarse de una notificación intentada que no se hubiere podido practicar personalmente. Lo que, a su vez, excluye la legitimidad en el empleo del medio edictal de notificación que prevé el apartado 4 del propio precepto legal.

En consecuencia, la primera constancia que se ofrece en el expediente administrativo del conocimiento por el recurrente del procedimiento sancionador incoado y resuelto contra el mismo se corresponde con la notificación de la resolución sancionadora practicada el 17 de agosto de 1998.

Debe, por ello, concluirse que, al no llevarse a cabo la comunicación de la denuncia al presunto infractor en ninguna de las modalidades previstas en los artículos 77 y 78.2 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, la papeleta obrante al folio 1 del expediente administrativo no puede considerarse como un acto hábil para dar lugar a la incoación del procedimiento administrativo sancionador (artículo 75 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, en relación con el artículo 10.2 del Real Decreto 320/1994 de 25 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento Sancionador en materia de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial).

Por lo tanto, la sanción fue impuesta al recurrente sin que, legítimamente, mediara la regular incoación e instrucción de un previo procedimiento sancionador, con la consecuencia invalidante derivada de la palmaria infracción de la garantía establecida en el artículo 134.3 de la Ley 30/1992, que prescribe que la Administración en ningún caso podrá imponer una sanción sin que se haya tramitado el necesario procedimiento.”

Balearretako Auzitegi Nagusiak, berriz, hauxe adierazi 1997ko urtarrilaren 28ko Epaian (RJCA 1997\21):

“Naturalmente, la falta de notificación en legal forma de los acuerdos de iniciación de los expedientes en cada caso sacrifican el derecho de defensa del expedientado en la vía administrativa, lo que constituye lesión del derecho fundamental -artículo 24 de la Constitución- traduciéndose aquí en caso de nulidad radical de las sanciones impuestas -artículo 62.1, a) de la Ley 30/1992-.”

Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, bere aldetik, zera baieztatu du 1998ko maiatzaren 12ko Epaian (RJCA 1998\2761):

“A la vista de lo expuesto, y, en relación con las impugnaciones planteadas, cabe decir que, efectivamente, hay una real y bien determinada indefensión por cuanto no consta en el expediente administrativo (y así lo hemos indicado) que el boletín de denuncia se entregara al interesado y, en consecuencia pudiera formular alegaciones y proponer pruebas y no consta tampoco que se notificara después. No puede decirse como hace el Abogado del Estado que la denuncia inicial fue entregada por el denunciante al infractor, y así resulta del folio 6 del expediente, por cuanto lo que en este folio consta es un documento que es de fecha posterior a la resolución sancionadora dictada por el Gobernador Civil (esto es, de 8 marzo 1993 y el escrito en cuestión es de 24 de marzo de 1993), y que ha sido considerado como escrito de interposición del recurso de alzada, tal y como resulta de la lectura de su contenido.”

Azkenik, hona hemen zer adierazi duen Galiziako Auzitegi Nagusiak 2000ko uztailearen 3ko Epaian (JUR 2000\294152):

“Dispone el art. 10 del Reglamento de procedimiento sancionador en materia de tráfico de 25 de febrero de 1994 que como norma general las denuncias se notificarán en el acto a los interesados haciendo constar en las mismas, entre otros extremos que ahora interesan, que con ellas quedan incoados los correspondientes expedientes y que disponen de un plazo de 15 días para que aleguen cuanto consideren conveniente a su defensa y propongan las pruebas que estimen oportunas. Pues bien, en el presente caso, si bien dando crédito al informe obrante al folio 2 (que en todo caso no ratificado), se puede entender que verbalmente se hicieron al denunciado las citadas advertencias, las mismas no aparecen recogidas en el impreso de boletín de denuncia, ni lógicamente en la copia que se le entregó, lo que es tanto como confiar la garantía de sus derechos a la mejor o peor memoria que pudiera conservar de las advertencias recibidas de palabra. Si a ello se añade que tampoco se le dio posterior traslado escrito de la denuncia, ni de la propuesta de resolución, el resultado es que se llega a la imposición de la sanción en instancia sin haber dado al denunciado posibilidad real y efectiva de ser oído, es decir, en una situación de inobservancia del procedimiento proscrita en el art. 62.1. e) de la Ley 30/1992.”

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, baita lege horretatik datozen arauak ere, jokaera eskubide-bermatzailea izan dezatela exijitzen die herri-administrazioei, herritarren eskubideek eraginkortasun osoa izan dezaten prozedurak bideratzen direnean.

Eskubide horietako batek berebiziko garrantzia du zigortzeko administrazio-prozeduretan, honako honek, hain zuzen: interesdunek azaltzen dituzten arrazoiak kontrastatu egin behar direla, eta behar bezala arrazoitutako erantzun baten bidez ebatzi.

Kasu honetan, ordea, (...) jaunak ez zuen aukerarik izan bere burua defendatzeko prestatu zuen alegazio-idazkia azter zezaten.

Egiaz, ertzainak txostenean adierazi zuenez, lehen unetik beretik, interesdunak alegatu zuen ez zegoela salaketarekin ados, testuan esaten baitzen ibilgailua zirkulatzen ari zela, baina autoa geldirik baitzegoen. Desadostasun horrek ez zuen ondoriorik izan, bada, jakinarazpen-ahalegina zer egoeratan eta baldintzatan gertatu zen aipatzea saihestu zuen bezala, espedienteaz ez da inolaz ere horren berri ematen.

Administrazioa, prozeduraren hasierako akatsa aintzat hartu barik, ez zen kexagileari salaketa jakinarazten berriro ahalegindu. Espedienterik ere ez zion bidali, eta ez zuen entzuteko izapiderik hasi, nahiz eta, gure ustez, bidezkoa izango zatekeen hala jokatzeari, espedientearen instrukzioa zein egoeratan egin zen kontuan hartuta. Modu horretan, (...) jaunak ez zuen beste berririk izan zigor-erabakia jakinarazi zitzaion arte. Gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen erabaki haren kontra, eta han berriro alegatu zituen lehenago salatzailearen aurrean lehen azaldutako arrazoiak. Arrazoiok aztertu gabe geratu ziren, alegazio-fasean ez zirela azaldu argudiatu baitzuen administrazioak.

Gure aburuz, jokaera horrek baztertu egin zuen herritarren eskubideak bermatzeko betebeharra, hain justu, azaroaren 26ko 30/1992 Legetik eratorritako araubideak herri-administrazioei agintzen eta exijitzen diena, izan ere, zigortuari ez zion babesbiderik eskaini, ez jarrerak kontrajarri ahal izateko, ez hasieratik salaketari kontra egiteko egin zituen adierazpenak aztertzeke ere. Horrela, interesdunari kendu egin zitzaion bere burua babesteko arrazoiak aztertuak eta aintzat hartuak izateko aukera, haien garrantzia eta azken emaitza edozein izanik ere. Halaber, gai horretaz erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea ere kendu zitzaion.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **10/2005 GOMENDIOA, ekainaren 29koa, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailari egina**

Balio gabe utz dezala (...) jaunari (...) zenbakiko prozeduran jarritako isuna, beharrezkoak diren izapideak egin ditzala balizko premiamendu-bidea baliogabetzeko eta itzul ditzala horren ondorioz bildutako diru-kopuruak, halakorik egin bada.

**11/2005 GOMENDIOA, EKAINAREN 29<sup>KO</sup>A, EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILARI EGINA, INTERESDUNARI EZARRITAKO ISUNA BALIORIK GABE UTZ DEZAN, HORREN ONDORIOZKO PREMIAMENDU-BIDEA ERE BALIOGABETZEKO BEHARREZKOAK DIREN IZAPIDEAK EGIN DITZAN ETA BILDUTAKO DIRU-KOPURUAK ITZUL DITZAN. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. 2004ko apirilaren 15ean, Arabako Foru Aldundiko Zerga-bilketako Bulegoak interesdunari premiamendu-probidentzia bat jakinarazi zion, Eusko Jaurlaritzako Finantzetako zuzendariak egina, interesdunak ez baitzuen ordaindu Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Ordezkaritzak bere kontra (...) zenbakiarekin bideratu zuen prozeduratik eratorritako zor bat.

Aldez aurretik prozedura horren jakinarazpenik jaso ez zuelako azaldu zuen kexa interesdunak erakunde honetan.

2. Gure lehen informazio-eskaerari erantzunez, Herrizaingo Sailak administrazio-espeditentearen kopia bat igorri zigun. Horri esker egiaztatu genuen prozedura 2003ko apirilaren 23an hasi zela, Bergarako Udaltzaingoko agente baten salaketaren bidez, nahitaezko aseguruaren agiriak aldean ez eramateagatik. Salaketan ez zuen gidariari edo ibilgailuaren titularrari buruzko daturik idatzi, ezta sinadurarik ere, eta ez zuen adierazi ibilgailuaren arduradunari salaketaren kopiarik eman zion ala ez, edo hark salaketa sinatu edo jasotzeari uko egin zion ala ez.

2003ko maiatzaren 30ean, Trafikoko Lurralde Bulegoak jakinarazpen bat igorri zion interesdunari. Jakinarazpen hartan, bost eguneko epea eman zion aseguruaz bazuela egiaztatzeke eta, besteak beste, zigor-espeditente bat hasiko zela ohartarazi zion, ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilarri eta aseguruari buruzko Araudiaren 29. artikulua urratzeagatik. Idazki hura interesdunari berari jakinarazten ahalegindu ziren bi aldiz: ekainaren 30ean, 11:30ean (hala idatzita agertzen da jakinarazpenaren berri emateko ohartarazpen-agirian, baina hilaren 3az ari dela uste dugu), baina alferrikakoa izan zen, interesduna bizilekuan ez zegoelako; eta ekainaren 5ean, 11:40ean, orduan ere alferrik, nahiz eta postariak ez zuen adierazi zergatik.

Bestalde, ekainaren 17 eta 19an, 12:00etan eta 12:30ean hurrenez hurren, (...) jaunaren bizilekuan salaketa hori –nahitaezkoa den erantzukizun zibileko aseguruaz

ez edukitzeagatik egindakoa– jakinarazten saiatu ziren. Ez batean ez bestean ez zen jakinarazterik lortu, interesduna kanpoan zelako. Hark eskuratu digun espedientearen kopian ez da aipatzen salaketa ediktu bidez jakinarazi zen ala ez; horregatik, ez dakigu halakorik egin den.

Azkenik, zigor-erabakia jakinarazteko ahaleginak uztailaren 29ko 11:00ean eta uztailaren 31ko 11:30ean burutu ziren, eta, dirudienez, haiek ere alferrak izan ziren, nahiz eta postariak orduan ere ez zuen zergatia adierazi. Azkenean, 2003ko irailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen zigorraren berri.

Behin ere ez da espedientearen idatzita agertzen interesdunaren postontzian jakinarazpena iritsi zela ohartarazteko agiria sartu zutenik.

3. Agiriak aztertu ondoren, ibilgailuaren aseguruaren hasiera-data salaketa-eguna baino egun bat geroagokoa zela irakurrita ere, zalantzan jarri behar izan genuen prozeduraren baliozkotasuna, prozedura bideratzean hainbat lege-urratze gertatu zirela ikusi baikeuen.
4. Trafikoko zuzendariak txosten baten bidez erantzun zigun. Zigorraren ezarpena berronetsi zuen, izan ere, bere ustez, udaltzainaren salaketa-orriko akatsak konponduta geratu ziren geroago salaketa jakinarazi zenean, salaketa nahiz zigorra legez ezarritako prozedurari jarraiki gauzatu ziren, eta interesdunak zigor-erabakia zergatik ez zuen jaso adierazteari dagokionez, unean bertan zergatia zehazterik izan ez zelako gertatu zen hori.

### Gogoetak

1. Oro har eta kexa hau aztertzen hasi baino lehen, herritarrek nahiz herri-aginteez legeria bete beharra daukatela gogorarazi behar dugu.

Exijentzia hori trafiko-arauak betetzeari ere badagokio. Arau horiek interes berezia dutela onartu behar da, gure oraingo gizarte-bizitzako alderdi funtsezkoetako bat arautzen dutelako eta, beraz, arauok hausteak ondorio larriak ekar ditzakeelako.

Horregatik, printzipio horiek oro har onar daitezten, ezinbestekoa da ez bakarrik herritarrak horretaz jabearazteko etengabe ekintzak burutzea, baizik eta baita ere arau-hausteak modu egokian gaitzestea, herri-administrazioek duten zigortzeko ahalmena erabiliz.

Era berean, zigor-prozedura bat bideratzeetik datozen ondorio larriak kontuan izanik, legezko formaltasunak zorrotz bete daitezten exijitu beharra dago, formaltasunok ez baitira helbururik gabeko baldintza-gehitze hutsa, ezpada administrazioaren jarduera zigortzailearen kontra herritarrek duten bermerik garrantzitsuena. Horrela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak– hauxe ezartzen du printzipio orokortzat:

herri-administrazioen zigortzeko ahalmena erabili ahal izateko, horretarako propio aurreikusita dagoen prozedura aplikatu beharko da; beraz, ezin izango da zigorrik ipini prozedura hori bideratu gabe.

2. Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari 2002. urteaz paratu zion txostenean<sup>2</sup>, gomendio orokor bat egin zuen, gai hauek aztertzeko: trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorrean postaz eginiko jakinarazpenek zein baldintza bete behar dituzten jakinarazpen-ahaleginak behar bezala saiaturik egin direla uker dadin, hartzailea bizilekuan ez dagoenean. Han adierazitakoari lotzen gatazka kexa honen erreferentzia-marko orokorrari dagokionez.
3. Zigortzeko prozedura batean, jakinarazteko izapideak berebiziko garrantzia hartzen du, izan ere, araudian agindutako baldintza guztiak zehatz-mehatz betez ziurtatzen da interesdunak baduela prozeduraren berri, eta, orduan, bere burua babesteko eskubidea erabil dezakeela.

Konstituzio Auzitegiak askotan eman izan du gai horretaz duen iritzia. Esate baterako, urtarrilaren 13ko 1/1983 Epaian (RTC 1983\1) zera baieztatu zuen:

“De todos los preceptos que las leyes procesales dedican a los actos de comunicación con las partes (notificaciones, citaciones, emplazamientos) y aun de los que se ocupan de los medios de impugnación dirigidos a remediar los vicios ‘in procedendo’, se advierte que el propósito del legislador es, ante todo, conferir a aquellas las garantías para la defensa de sus derechos e intereses, de modo que la notificación, citación o emplazamiento sirva a su objetivo de que, dando noticia suficiente del acto o resolución que la provoca, sirva para que el notificado, citado o emplazado pueda disponer lo conveniente para defender en el proceso los derechos o intereses cuestionados, por cuanto de faltar tal acto de comunicación o adolecer de nulidad equivalente a su falta, el interesado podría verse imposibilitado para ejercer los medios legales suficientes para su defensa.”

Edo, berrikiago, hauxe adierazi du 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002):

“...el cumplimiento de los requisitos que las Leyes procesales exigen para practicar el emplazamiento, citación o notificación ofrecen relevancia constitucional y son garantía de que el emplazado, citado o notificado conocerá el acto o la resolución que le afecta y podrá, en consecuencia, ejercer adecuadamente su derecho de defensa.”

Horregatik, jurisprudentziak arduraz handiz jokatzeko exijitzen du prozesu bat jakinarazteko egintzak gauzatzeko orduan, uste baitu prozedura-legeek jakinarazpenak

<sup>2</sup> EUSKADI: Ararteko. VI. Atala. Gomendio orokorrak: 4. Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiaturik egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean. *Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2002*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2003. Eskura dago [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) web orrialdean.

egiteko ezartzen dituzten baldintzak ez direla betekizun formal hutsak, baizik eta babesik eza galarazteko eta Konstituzioko 24. artikuluan onartutako eskubideak bermatzeko funtsezko elementuak.

Orduan, jakinarazpenaren funtsezko helburua norberari zuzenean egintza jakin bat ezagutaraztea denez gero, zilegi da exijitzea administrazioak beharrezko ardurak eta baliabideak erabil ditzala, arrazoizkotasunaren mugen barruan, helburu hori lortu ahal izateko.

Dena den, araudiak berak ezartzen ditu gutxienezko jarduera-baldintza batzuk jakinarazpen pertsonala hobetzearren, interesdunak bere jarrera babestu ahal izango duela bermatzeko metodo gisa, eta baldintzok betetzea saihestezina da.

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak–, zera ezartzen du 59.2 artikuluan: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiaturiko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.”*

Horren antzeko agindua ematen du abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuak –posta zerbitzuen prestazioa arautzeko Araudia onartzen duenak– 42. artikuluan.

Auzitegi Gorenak oraintsu –2004ko urriaren 28an– eman duen Epaian (RJ 2004\6594) ordu-diferentziari dagokion baldintza interpretatu du, eta legezko doktrina hau finkatu:

“Que, a efecto de dar cumplimiento al artículo 59.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reformada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, la expresión en una hora distinta determina la validez de cualquier notificación que guarde una diferencia de al menos sesenta minutos a la hora en que se practicó el primer intento de notificación.”

5. Posta zerbitzuen prestazioa arautzen duen Araudiak, bere aldetik, honako hau exijitzen du, gainera, posta zerbitzuaren bitartez egiten diren jakinarazpenetarako: bi ahaleginetatik batek ere arrakastarik izan ez badu, jakinarazpena zerrendan gorde dadila, hilabetez gehienez ere, eta hartzaileari hura iritsi dela ohartarazteko agiri bat utz diezaiotela bere etxeko postontzian. Oharpen-agiri horretan idatzita agertu behar du jakinarazpena non dagoen, noiz arte jaso daitekeen, baita bigarren jakinarazpen-ahaleginari buruzko zertzeladak ere.

Auzitegi Gorenak 1997ko abenduaren 12ko Epaian adierazi zuenez (RJ 1998\2264), “funtsezkoa da jakinarazpen-ahalegina bi aldiz egin dela eta jakinarazpena iritsi dela ohartarazteko agiria –dagokion postontzian sartuz– jaso dela frogatzea; posta

zerbitzuak frogatu behar du hori”. Gainera, Auzitegi Gorenaren iritziz, administrazioari jakinarazpena itzultzen diotenean, iraungirik dagoelako, hark, besteak beste, “administrazioaren espedientean sartu behar du posta zerbitzuaren ziurtagiria, non ziurtatuko baita noiz eta zein ordutan eman zen jakinarazpena iritsi zela ohartarazteko agiria eta, hala badagokio, hartzailea edo hark baimendutako pertsona ez zela joan postetxera gutuna jasotzera”. Horrela, ondorio hau ateratzen du: administrazioak egintza horiek frogatu dituenen bakarrik jo daitekeela baliozkotzat iragarki bidezko jakinarazpena.

6. Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua ediktu bidezko jakinarazpena jotzea baimentzen du, baldin eta norberari jakinarazten saiatu ondoren, jakinarazterik lortu ez bada.

Beraz, bide hori baliatu ahal izateko, ezinbestekoa da alde zaurerik norberari jakinarazten saiatu izana, araudiak ezartzen dituen baldintza formal eta material guztiak betez. Orduan, ediktu bidezko jakinarazpena erabiltzea ez da baliozkoa izango alderdi horiek egiaztatzerik ez badago edo baldintza horiek ez direla zehatz-mehatz bete ondorioztatzen bada.

7. Aztertzen ari garen prozeduran, interesdunari berari jakinarazteko egin ziren bi ahaleginen orduen artean, 10 minutuko aldea izan zen hark aseguru bazeukala egiaztatzeko 5 eguneko epea ematen zuen komunikazioan, 30 minutuko salaketan eta 30ekoa, halaber, zigorrarenean. Beraz, kasu horietako bakar batean ere ez zen iritsi arestian aipatu dugun Auzitegi Gorenaren epaian ezarritako 60 minututara.

Gainera, espedientean ez da ziurtatu ahalegin haietan hartzailearen postontzian jakinarazpena iritsi zela ohartarazteko agiririk sartu zenik. Eta salaketari dagokionez, ez da ziurtatu ediktu-bidea erabili zenik, baina halakorik izan balitz, ediktu bidezko jakinarazpenak ezingo ziren baliozkotzat jo, lehen esan dugunez, irregulartasunak izan baitziren norberari jakinarazteko ahaleginetan.

Gure ustez, jakinarazpen horiek gauzatzeko moduan izan ziren akatsak aski garrantzitsuak dira, bai interesdunak bere kexan alegatu zuen prozedura-tramitazioaren berririk ez izateari begira, bai hark bere burua babesteko zuen eskubidea behar bezala gauzatzeari begira.

Ildo horretan, salaketaren jakinarazpena legez kanpoko izanenez gero, ezinbestean zalantzan jarri behar dago zigor-prozedura osoaren baliozkotasuna, horrek ez bailuke inolako eraginkortasunik izango prozedura hasteko ekintza gisa.

Areago, zigor-erabakia jakinaraztean izan ziren akatsek eragina izango zuten gero bideratu zen premiamendu-prozeduraren baliozkotasunean; edonola ere, premiamendu-prozedura horrek ez luke beharrezko funtsik izango.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



**11/2005 GOMENDIOA, ekainaren 29koa, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailari egina**

Balio gabe utz dezala (...) jaunari (...) zenbakiko prozeduran jarritako isuna, beharrezkoak diren izapideak egin ditzala balizko premiamendu-bidea baliogabetzeko eta itzul ditzala horren ondorioz bildutako diru-kopuruak, halakorik egin bada.

**12/2005 GOMENDIOA, UZTAILAREN 18<sup>KO</sup>A, OIARTZUNGO UDALARI EGINA, INTERESDUNAK UDAL ERROLDAN SARTZEKO EGIN ZUEN ESKABIDEA ONAR DEZAN.**

Aurrekariak

1. (...) jaunak behin baino gehiagotan Oiartzungo Udalean erroldatzeko eskabidea egin du, hain zuzen ere (...) helbidean. Zehatzago esateko, eskabideak aurkeztu ditu 2004ko ekainaren 10ean, 2004ko uztailaren 9an eta 2004ko irailaren 8an.
2. Udalaren Gobernu Batzordeak, 2004ko ekainaren 27ko erabakiaren bidez, (...) jaunak ekainaren 10ean egin zuen erroldatzeko eskabideari gaitziritzea ebatzi zuen. (...) jaunak berriz eskatu zuen erroldan inskribatzea, goian adierazi den bezala, uztailaren 9an; aldi berean aurreko ukapen horren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen eta berariaz eskatu zuen aplikagarria den araudiari buruzko informazioa emateko. Udalaren Gobernu Batzordeak uztailaren 29ko erabakiaren bidez ebatzi zuen aurkezturako errekurtsu hori.
3. Erroldatze-eskabidearekin batera aurkeztu dituen dokumentuak hauek dira:
  - Helbide horretan erroldatuta egotearen ziurtagiria, 2004ko martxoaren 26koa, (...)ren izenean. Ziurtagiri horretan ezarri da pertsona hori (...)n bizi dela 1991ko martxoaren 2tik. Helbide hori interesatuak inskripzioa eskatzeko ematen duena bera da.
  - (...) jaunaren zinpeko aitortpena. Dokumentu horretan esaten du (...) arestian aipatu den helbide horretan bizi dela.
  - Helbide hori duen telefono faktura bat.
4. Oiartzungo udalak eskabideari uko egiteko erabili duen arrazoia da (...) jaunak inskripzioaren ondoreetarako adierazten duen helbidea herri erabilerako baso baten dagoela.

Udalak (...)ri erosi zizkion (...) eta helbide hori dagoen finka; eragiketa horren eskriturak 1998ko azaroaren 26ko sinadura du. Ondasun horiek, adierazi duenaren arabera, herri jabaritzako izaera dute eta, ondorioz preskribiezinak eta enbargaezinak dira eta, aldi berean, pertsonen merkatarizatik kanpo daude. Ondasun horien erabilera lehiaketa publikoaren bidezko emakidarekin baino ezin da adjudikatu.

Halaber, esaten du kasu honetan aplikagarria den arautegia Toki Araubidearen Oinarri (TAOL) buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 79. artikulua eta hurrengoak eta ekainaren 13ko 1372/1986 EDren bidez onetsi zen Toki Araubideari eta Toki Korporazioen Ondasunei buruzko Araudiaren arloko indarreko xedapenak onetsi dituen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko EDren 74. artikulua eta hurrengoak direla.

5. 2004ko irailaren 8an interesatuak berriz egin zuen erroldatzeko eskabidea, bizi den helbide horretan, alegia, eta ez zuen erantzunik jaso. 2005eko maiatzaren 13an berariaz eskatu zuen aurreko erroldatze-eskabide horri erantzuteko, eta egunera arte ez du inolako erantzunik jaso.
6. Erakunde honek, kexa horren tramitazioa onartu ondoren, informazio eskabidea egin zion udalari aurreko gertaera horiei buruzko bere iritzia ezagutzeko. Eskabide horretan erroldan inskribatzea ukatzen den kasuetan izaten diren kexetan, baldin eta eskatzaile horiek udalerrian bizi badira, erakunde honek dituen irizpideak aurreratu zitzaizkion, eta hori da aztergai dugun kasuan gertatzen dena.
7. Oiartzungo Udalak 2005eko ekainaren 21ean erantzun zigun. Labur bilduta hauek dira eman dituen argudioak:

Alde batetik, esaten du 2004ko uztailaren 27ko erabakia irmoa dela ez delako horren aurkako inolako errekurtsio judizialik aurkeztu.

Beste alde batetik, adierazten du (...) jaunak erroldatzeko eskabidea egin zuenean Errenteriako udalerrian zegoela erroldatuta.

Azkenik, gaiaren funtsari dagokionez, berriz adierazten du errekurtsioa ebatzi zuen eta arestian aipatu den erabakian ezarri zena. Inskripzioa egiteko eskabidean azaltzen den helbidea herri jabaritzako ondasuna da eta partikular batek ez du hor bizitzeko baimenik. Bere iritziz horrela egiteak Udalak ondasun horren legez kanpoko erabilera onartzea litzateke. Hori ez ezik, esaten du parke naturalean dagoela kokatuta eta, ondorioz, babesteko beharrian batzuei dagoela lotuta. Amaitzeko, adierazten du eman nahi zaion erabilera "Aiako Haitzak" parke naturalaren erabilera eta kudeaketa arautzen duen apirilaren 16ko 87/2002 Dekretuaren aurka dagoela.

Toki erakundeak eman digun erantzuna kontuan hartuta, Ararteko erakundeak uste du derrigorrezkoa dela ondoko gogoetak egitea:

#### Gogoetak

1. Udalak behin eta berriz esaten du ezinekoa dela pertsona bat bizitzeko titulu eta baimenik ez duen toki baten erroldatzea. Hori gorabehera, hala erroldaren izaera juridikoak nola erroldatzea bera eraentzen duen arautegiak interesatuaren eskabidea babesten dute.

Udal errolda administrazioaren erregistroa da. TAOLren 16. artikulua ezarri du “Udalerriko errolda udalerriko herritarrek jasota azaltzen dituen administrazio-erregistroa da...”. Administrazio-erregistroek ez dute, inskripzioa egiten denean, inolako funtsezko ondorio juridikorik. Ordea, erregistro juridikoen ezaugarria da euren araubidearekin funtsezko ondorio juridikoak ematearena eskubide, ekintza edo gertaerak erregistroan jasota geratzen direnean, adibidez jabetza erregistroan gertatzen den bezala. Udal erroldak, ordea, ez du inolako ondorio juridikorik ematen, salbu eta herritar izaera.

Udalerrri baten bizi diren pertsonen derrigorrez egon behar dute erregistro horretan inskribatuta. TAOLren 15. artikulua berariaz esaten du “Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerrian inskribatu behar du bere burua” eta, aurrerago, hau esaten du: “Udal erroldan inskribatutakoak dira udal auzotarrak”. Halaber, uztailaren 11ko 1690/86 EDren bidez onetsi zen Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia aldarazi duen abenduaren 20ko 2612/1996 EDren 54. artikulua ezarri du derrigorrezkoa dela inskripzioa egitea eta, 55. artikuluan “Udalerriko auzotarrak dira normalean bertan bizi direla, hain zuzen ere 54.1. artikuluan ezarri diren terminoetan, udal erroldan inskribatuta daudenak”. Beraz, udalerrri bateko auzotarra izateko eskubidea eta udalerrri horretan erroldatuta egoteko obligazioa udalerrri horretan era arruntean bizitzearekin lortzen diren kontuak dira. Auzotar bati biztanleen udal erroldan inskribatzea ukatzeak gai publikoetan berdintasun baldintzetan esku hartzeko eskubidea hautsi dezake, auzotar izate hori nahitaezko abiaburua delako. hauteskundeetako legerian ezarri diren terminoetan, sufragio aktiboaren eta pasiboaren eskubidea betearazteko eta udalaren kudeaketan parte hartzeko. Halaber, eragotzi egiten du TAOLek 18. artikuluan ezarritako gainerako eskubide eta betebeharrak.

(...) jauna Errenteriako udalerrian inskribatuta egoteak ez du bizi den udalerrian erroldatzeko eskubidea eta betebeharra ukitzen. Errenteriako Udalak, Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 72. artikuluan ezarri dena betetz, baja eman diezaioke ofizioz edozein unetan ez baita udalerrri horretan bizi. Hain zuzen ere interesatuak alta Oiartzungo udalerrian tramitatuta balu, arestian aipatu den araudi horren 70. artikuluan ezarri dena betetz, egun baja izango luke Errenteriako Udalean bestelako tramiterik gabe.

2. Administrazio-erregistro honek errealitatearekin bat datozen datuak izan behar ditu. Udalak auzotarrek ematen dituzten datu horien egitasuna frogatu dezake, ondore horretarako nortasun agiri nazionalak edo egoitza-txartelak, famili liburua, etxebizitzaren lege okupatzen dela adierazten duen titulua edo antzeko dokumentuak eskatuz (Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 59. artikulua). Frogatze horren helburua ez da dokumentu horien legezotasunari buruzko iritzia ematea, adierazten diren datu horiek egia direla frogatzea baizik. Estatistikako Nazio Institutuko lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiaren 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenean, hau da, udal errolden eguneratzeari dagokienez Udalei agindu teknikoak ematen dituen horretan, 3. zenbakiko idatz-zatian “Datuak frogatzea”, eman diren datu horien egitasuna frogatzearen hedakuntza argitzen

da, “...udalak auzotar bati etxebizitza okupatzen duela legezkatzea eskatzeko aukerak ez die ematen udal administrazioei jabetza, hiriko errentamendu edo, orokorrean, izaera juridiko-pribatuko gaiak epaitzeko inolako eskumenik, eta aukera horren xede bakarra auzotar hori benetan adierazi duen udalerrian bizi dela benetakotzea frogatzeko elementua izatea da. Horregatik, delako titulu hori jabetza eskritura edo errentamendu kontratu bat izan daiteke, baina baita etxebizitzaren zerbitzuen hornikuntzako kontratu bat ere (ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, etab.) edo, horiek ez ezik, gerta daiteke **arean ere ez egotea (inoren jabetza, publikoa zein pribatua, titulurik gabe okupatu den kasuetan)**. Azken kasu honetan udal kudeatzaileak beste bitarteko batzuen bidez frogatu beharko du (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren beraren ikuskapena, etab.) auzotarra benetan bizi dela helbide horretan eta, horrela bada, erroldan inskribatu, eta hori horrela da legezko jabeak eskumenak dituzten agintari edo auzitegietan bere eskubideak betearaztea gorabehera, hori erabakitzen dutenak ez direlako inoiz izango Errolda kudeatzen dutenak”.

Aurrerago, 4. idatz-zatian (“Marjinatuen erroldatzea” izenekoan) berriz adierazten du helburua datu bat egiaztatzea dela, “Aurreko arauan ezarri den bezala, erroldak udalerriko auzotar bakoitza benetan bizi den helbidea islatu behar du. Errealitate hori gertatzen denean erroldan jasota geratu behar du. Eta, erroldako inskripzioak etxebizitzaren titulartasunari buruzko gatazka juridiko-pribatuekin zerikusirik ez duen bezala, ez du inolako loturatik helbide hori ukitzen duten inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin”.

Ondorioz, baldin eta udal kudeatzaileak ezagutzen badu eskatzailea adierazi duen helbidean bizi dela, inskripzioari ekin behar dio. Okupazio-tituluaren baliagarritasunari buruzko gaiak auzitegiek edo eskumenak dituzten beste organo batzuek ebatzi behar dituzte. Frogatzeko ahalmen horrek ez du okupazioaren legezkotasunari buruzko irizpenik emateko inolako biderik ematen.

2004ko uztailaren 27ko Erabakian eta erakunde honek jaso duen erantzunean jasota geratu den bezala, udalak jakin daki (...) jauna (...)n dauden instalazioetan bizi dela eta, hori ez ezik, jakin daki erroldan beste pertsona bat dagoela inskribatuta helbide horrekin, (...), alegia. Horrek esan nahi du Udalak badakiela udalerriko helbide horretan pertsona bat baino gehiago bizi dela eta horietariko bati ukatu egiten diola erroldan inskribatzea. Ondasun horren izaerak eta parke natural baten egoteak ez du baldintzatzen udalak duen betebeharra, hau da, udalerririk horretan bizi bada eskabidea onartzekoa.

Labur bilduta, erroldatzea ukatzeko alegatzen diren argudio horiek ez dute inolako legezko estaldurarik. Antzeko kasu baten EAeko Auzitegi Nagusiak, 2000ko martxoaren 21eko epaian, adierazi zuen ez datorrela zuzenbidearekin bat alkateak erroldatzea ukatzea, eta oinarri moduan esaten zuen “bertako alkateak, ezarrita dauden legezko beharkizunak betez aurkeztu zen erroldatzeko eskabidearen kasuan, onartu egin behar zuen eta delako aintzatespen horretarako ez dute inolako zerikusirik edo garrantzirik etxebizitzaren bizigarritasun baldintzek edo

*hori ukitzen duten hirigintzako beste inguruabar batzuek, **horiek lehengoratzeko toki erakundeek legezko beste bide batzuk dituztelako ezarrita, eskatu den administrazio-lotura hori ukatu gabe***”.

Beraz, ez dago inolako legezko ziorik administrazioko erregistro baten inskribatzea ukatzeko udalerrian bizitzeko beharkizunak betetzen badira.

3. Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legea aldarazi zuen urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak udal erroldaren araupetze berria ekarri zuen, horren informatizazioa normalizatu zuelako. Sistema berriaren ezaugarririk behinena udal errolden kudeaketa iraunkorra eta informatizatu da, horrela erraztu egiten dela erroldaren etenik gabeko eguneratzea eta aukerak daude epe motzean errealtateari egokituta dauden biztanleei buruzko datuen kopuruak eskuratzeko. Legezko aldarazpen horren ondoriozko aginduen<sup>3</sup> helburua erroldan gertatzen diren aldarazpenen tramitazioa arautzea da, udalen jarduketak koordinatzea, informazioa elkartrukatzea... azken finean, udal errolda, administrazio-erregistroa den neurrian, kudeatzea.

Araudian udalak errolda kudeatzeko burutu behar dituen ahalmenak eta jarduketak biltzen dira, udala delako **bere erroldak eguneratuta edukitzearen ardura eta erantzukizuna duena datu horiek errealtatearekin bat etor deitezen**: (Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 62.1. artikulua: *“Udalek euren erroldak eguneratuta edukitzeko beharrezkoak diren jarduketak eta eragiketak egingo dituzte, horrela horietan azaltzen diren datuak errealtatearekin bat etor daitezten*). Auzotarren betebeharra da, 68. artikulua, euren inguruabar pertsonaletan gertatzen diren aldaketak udalari jakinaraztea baldin eta aldaketa horiek udal erroldan derrigorrez azaldu behar duten datuen aldaketa eragiten badute, eta administrazioak ezin ditu auzotar horien inskripzioko aldaketak ukatu salbu eta jakinarazi den aldaketa hori gertatu ez dela egiaztatzen duenean. Ikusten den bezala udal errolda arautzen duen arautegiak egiten duen gauza bakarra erregistratzen diren datuak egia direla bermatzea da, datuen erregistro hutsa delako.

Ildo horretatik, 77. artikulua ezarri du udalek laginak hartzeko eta kontrolatzeko eragiketak egin ditzaketela erroldatzearen benetako egoera frogatzeko eta bertako datuak eguneratzeko, eta berriaz egingo dituzte lan horiek urbanizazio berriak egiteko udal lizentziak ematen diren aldeetan... udal errolda errealtatearekin bateragarria izatea lortzeko. Hau da, frogak egiteko obligazio eta ahalmenaren helburua errolda eta errealtatearen artean jauzia egotea ekiditea da. Bikoizketak eta alta eta

---

<sup>3</sup> 1997ko apirilaren 1eko Ebazpena, udal errolden kudeaketa eta eguneratzeari dagokienez udalei agindu teknikoak ematekoa; 1999ko urriaren 6ko Ebazpena, udalek erroldaren urteroko berrikuspenen emaitzako zenbakien laburpena Estatistikako Institutu Nazionalera igortzeko duten epea aldarazten duena; 2003ko abenduaren 29ko Ebazpena, udal erroldaren berrikuspenari eta biztanleen kopuru ofizialak eskuratzeko prozedurari buruzkoa...

baja ez egokiak ekiditeko Toki-erakundeetako Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiak ofiziozko jarduketak ezarri ditu 71. artikuluan eta hurrengoetan.

4. Azkenik, azaldu den moduan udalerriko biztanleak zenbat diren ezartzeko eta auzotarraren izaera emateko ez ezik, egoitza eta ohiko helbidea egiaztatzeko balio du. TAOLren 16. artikulua ezarri du datuak udalerrian bizitzearen eta bertan ohiko egoitza izatearen froga direla. Datu horiei dagokienez jaulkiko diren ziurtagiriek dokumentu publikoen izaera izango dute eta fedea emango dute administrazioaren ondore guztietarako. Erroldako ziurtagiriek, beraz, beste administrazio batzuen aurrean udalerriko egoitza benetakotzeko balio dute (adibidez, Osakidetza, Hezkuntza Saila...). Funtzio hori oso garrantzitsua da gizarte eskubideen betearazpena baldintzatzen duelako eta, hau guztia gorabehera, gatazka judizialen bat baldin badago horren eragingarritasuna erroldaren edukia eta errealitatearen arteko bateragarritasun falta dagoela frogatzeko beste bitarteko batzuekin erkatu daiteke zeren eta, arestian adierazi denaren ildotik, datu horiek administrazioa baino ez den erregistro batetik datoz eta horregatik ez dute ondorio juridikorik.
5. Beraz, pertsona bat udal erroldan inskribatzeko nahiko da frogatzea pertsona horren ohiko egoitza udalerrira dagoela. Inskripzioa derrigorrezkoa da hala Udalarrentzat nola udalerrira baten bizi den pertsonarentzat. Inskripzioaren ondore auzotar izaera lortzea da eta horrek bidea ematen du berezkoak diren eskubide eta betebeharrak batzuk betearazteko, estatu demokratiko baten oso garrantzitsuak diren batzuk tartean, adibidez, auzotarren esku hartzearena. Udalek eguneratuta eduki behar dituzte erroldako datuak eta horretarako errealitatearekin bateragarriak izateko beharrezko eguneratzeak egin behar dituzte eta, halaber, administrazio-erregistro baten inskribatzeak ez du ondore juridikorik eskubideak lortzeari dagokionez eta, beraz, ez da etxebizitzaren okupazio-titularen legezkotasuna baloratu behar. horretarako legeak beste bide batzuk dituelako ezarrita.

(...) ez erroldatzeko erabakiak ez du legezko estaldurarik eta ezin da bidezkotu denboraz eta eraz errekurtsorik ez delako aurkeztu irmoa dela esanda.

Puntu honetan beharrezkoa da Konstituzioaren 103. artikulua aipatzea, ondokoa ezarri duena: “Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, **legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez**”. Aldi berean, ez dator legearekin bat eskabide bati ez erantzutea, ebazpena emateko obligazioak prozedura guztiak ukitzen dituelako, administrazioko araubideari eta administrazioko prozedura erkideari buruzko Legearen 42. artikuluan ezarri diren salbuespenekin eta, ondorioz, ebatzi egin behar da 2004ko irailaren 8ko eskabidea, kexaren sustatzaileak 2005eko maiatzaren 12an eskatu duen bezala.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**12/2005 GOMENDIOA, Oiartzungo Udalari egina**

(...) jaunak udal erroldan inskribatzeko egin duen eskabidea onar dezan, hain zuzen ere, Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen 15. artikuluan eta Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 54 eta 62. artikuluetan ezarri dena betetzeko.



**13/2005 GOMENDIOA, UZTAILAREN 19<sup>KOA</sup>, BERGARAKO UDALARI EGINA, INTERESDUNARI OKER JAKINARAZI ZITZAION LIKIDAZIO BATI APLIKATUTAKO PREMIAMENDU-ERREKARGUA BALIORIK GABE UTZ DEZAN, ETA JAKINARAZTEKO ERABILTZEN DITUEN EREDUAK BERRIKUS DITZAN, EREDUOK INDARREKO LEGERIARI EGOKITZEKO. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. Kexa honen sustatzaileak gure esku hartzea eskatu zigun ez zegoelako ados hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zergaren (aurrera antzean HLBGZ) arloko zerga-zorra kobratzeko prozesuan Bergarako Udalak burututako jarduketarekin, eta ez zegoen ados bere iritziz borondatezko epean ez ordaintzeagatik Udalak eskatzen zion premiamenduzko errekarquaren arrazoia horri buruzko informazioa argia ez izateagatik zelako, hau da, ezin zuela kasu honetan aztergai dugun zorra aldiro ordaindu behar diren udalaren ordainagiriak helbideratuta dituen bankuko kontuaren bidez ordaindu.
2. Interesatuak bere etxean jaso zituen HLBGZren bi likidazio, dirudienez bere emaztea hil zenean sortutako jaraunspenezko transmisio baten emaitza zirenak.

Likidazio horien edukiaren arabera, eta bere kexan adierazten duena kontuan hartuta, bidezko ordainketari ekiteko borondatea duela, erreklamatzailerak baieztatzen du jakinarazpen horiek irakurri zituenean uste izan zuela Udalak horien zenbatekoa zuzenean kenduko zuela helbideratzeak dituen bere kontutik. Baina hori ez zen horrela gertatu eta borondatezko ordainketarako epea igaro ondoren Bergarako Udalak betearazpidetzako prozedurari ekin zion eta ordaindu gabe zeuden zor horiengatik bidezko premiamenduzko probidentziak jakinarazi zizkion.

Interesatuak kudeaketa batzuk egin zituen udalean ezarri zitzaizkion errekarqu horiek saihestearen ondoretarako eta alegazioak aurkeztu zituen, lehenengo eta behin ahoz eta gero idatziz, bere borondatea beti izan dela ordaintzea esanez eta zorra borondatezko epean ordainduta ez egotearen arrazoi bakarra helbideratze sistemaren erabileran egon den gaizki ulertzea izan dela.

Hori gorabehera Udaleko Zerga-Bilketa Zerbitzuak ezetsi egin zituen erreklamatzaileraren alegazioak, eta ondokoa esaten zuen jakinarazpena igorri zion:

*“Helbideratu daitezkeen ordainagiriak aldiro jakinarazten direnak dira, hau da, OHZ, JEZ, ibilgailuak, ibiak, azoka... Jakinarazpen norbanakotua duten*

*ordainagiriak, adibidez gainbalioak, ez dira helbideratzen eta horregatik dauzkate inprimatuta atzealdean ingresoa egiteko epeak eta tokia”.*

3. Gure aldetik, interesatuak eman zizkigun jakinarazpenak aztertu ondoren, ondoko oharrak egin genizkion Udalari:

- Bankuko helbideratzearen bidez ordain daitezkeen ordainagiriak azaltzen dituen udal jakinarazpenak, hau da, erreklamatzailari igorritako “gainbalioena” kanpo uzten duena, zuzena da ikuspegi teorikoa kontuan hartuta, baina bateraezina da aurrez Udalak interesatuari igorritako ordainketa-gutunen edukiarekin, horien aurrealdeko goiko eta eskuineko atalean azaltzen den esaldian gainbalioari aldiro ordaindu beharrekoaren kalifikazioa ematen zaiolako:

*“Jakinarazpen hau ez da nahitaezkoa aldiro ordaindu behar den bitartekoa delako; ez jasotzeak ez du eteten kobratzeko borondatezko epea”.*

- Halaber, aipatu diren ordainketa-gutun horiek lauki baten barruan letra larriak erabiliz idatzita dagoen mezua dute eta horretan jasotzaileei gonbidapena egiten zaie ordainketak banku baten helbideratzeko:

HELBIDERATU EZAZU ZURE ORDAINKETA BANKU EDO AURREZKI KUTXA BATEN, ZURETZAT EROSOAGOA IZANGO DA ETA UDALARENTZAT MERKEAGOA.

Uste dugu ez dela egokia ordainketa-gutun horietan testu hori sartzea, kasu horietan ezinezkoa delako horien ordainketa aurretiaz helbideratzea eta, beraz, horiek irakurtzerakoan jasotzaileak okerreko ideia egiten du Udala eskaintzen ari zaion ordaintzeko formulari dagokionez.

- Udalak jakinarazpen norbanakotuen berariazko ezaugarriei dagokienez interesatuari igorri zion erantzunean aipatzen dituen ingresoa egiteko epe eta tokiari buruzko agindu horiek ez dira ordainketa-gutunean azaltzen, baizik eta likidazioaren atzealdean eta horregatik informazio hori, ikusteko erraztasunari dagokionez, ordainketa-gutunean agertzen den helbideratzeko iradokizuna baino gutxiago ikusten da.

Kontraesan horiek, hau da, bai ordainketa-gutunean esaten denaren eta Udalaren ondoko jakinarazpenaren artekoak eta bai helbideratzeari dagokion mezuan dagoenak ere, argi adierazten dute aztergai dugun kasu honetan likidatu den zerga horretarako egokia ez den jakinarazpen eredia erabili dela eta hori, gure iritziz, akatsa da eta administrazio horrek horren ustezko ondorioak onartu behar ditu.

Horregatik, Udal ukituari kasu hau berriz aztertzeko iradokizuna egin genion, hau da, erreklamatzailari jarri zion premiamenduzko erreklargua indarrrik gabe utziz eta itzuliz. Halaber, agindeia egin genion korporazioari HLBGZren likidazioen emaitzako ordainketa-gutunetan aurreinprimatuta zituen testuak zuzentzeko, gaur egun helbi-

deratzeari buruz egiten den erreferentzia hori kenduta, hori bakarrik delako aldiro ordaintzen diren zergetarako.

4. Baina hori gorabehera Bergarako Udalak erabat errefusatu zituen gure iruzkinak, ondoko termino hauetan:
  - *“Bi likidazio horien jakinarazpenak legeak ezarri duena betez egin ziren. Horietan ez da helbideratzeko aukerarik ematen eta argi eta garbi azaltzen da ordaintzeko epea”.*
  - *“Ordainagiritan erabiltzen den eredu ordainketa hala banketxeetan nola Interneten bidez egiteko IZFEk Gipuzkoa osorako ezartzen duena da”.*
  - *“Arartekoaren irizpena ez da loteslea”.*

### Gogoetak

1. Legezko interesak defendatzeko gure antolamendu juridikoak herritarren eskura jartzeko dituen administrazio- eta jurisdikzio- errekurtsioak ez ezik, administrazioek, aldi berean, euren ekintzak berrikusteko bide propioak dituzte, zertarako-eta beharrezkoa den kasuetan ofizios jarduteko eta, horrela, Konstituzioaren 103. artikulua ezartzen dizkien legearen menpean egoteko konstituzioaren agindua era eragingarrian eta iraunkorrean bete.

Halaber, gogorarazi behar dugu gure antolamendu juridikoak parlamentuko batzordeen eskutan uzten duela, herri administrazioen jardunaren legezotasunaren defendatzaile moduan, herritarren eskubideak bermatzeko dituen erakunde batzuen zeregina. Horrela, Euskadiko Autonomia Erkidegoan erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen zioen azalpenenean ikusten den bezala Ararteko erakundeari agindu zaizkion zereginen artean euskal administrazio publikoen jarduketak fiskalizatzea dago, hain zuzen ere bermatzeko herritarrek era egokian administratuak izateko eskubidea betetzen dela eta, aldi berean, legezotasunaren oinarria bermatzeko. Zehatzago esateko, adierazi den lege horren 11. artikulua Arartekoari ematen dizkio, beste funtzio batzuen artean, gomendioak ematekoa eta eskumenak dituzten organoei, funtzionarioei edo horien buruei euren betebeharra gogoraraztekoa, legezkoak edo ez-doiak diren ekintzak zuzentzeko edo administrazioen zerbitzuen hobekuntza lortzeko.

Testuinguru horretan uste dugu erakunde honen gomendioak lotesleak ez izatea ezin dela argudio baliagarritzat jo administrazioek irizpen horiei gaitziritzeko baldin eta, aztergai dugun kasu honetan gertatzen den bezala, aztertzen ari den administrazioaren jarduketaren legezotasuna bermatzen duen oinarri juridikoak badaude.

2. Horrela, bada, ezin dugu bat etorri Udalaren jarrerarekin erreklamatzailari igorri zaizkion jakinarazpenen legezotasuna baieztatzen duenean, bere baieztapen horretan ez duelako egiten dudatan jarrita dauden gai horiei buruzko inolako hausnarketarik.

Udal horren aburuz legezkoak diren HLBGZren jakinarazpenak, dokumentu horietan ematen den autokalifikazioaren arabera, “*borondatezkoak dira, aldiro ordaindu behar diren bitartekoak direlako*”, eta hori, denok dakigun bezala, ez dator inondik inora ere errealitatearekin eta indarreko legeriarekin bat, berehalako sortzapena duen zerga bat ukitzen duten nahitazko jakinarazpenak direlako.

Helbideratzeko aukerari dagokionez Udalak ezin argiago baieztatzen du ez duela aztertu diren ordainagirietan eskaintzen, baina baieztapen horrekin batera ez dute inolako azalpenik ematen “*helbideratu ezazu...*” leloari buruz.

Besterik ezean arraroa da, akats arrunta baino ez dela onartzen ez bada, helbidertzea egiteko gonbidapen horrek itsatsi zaion dokumentuarekin inolako zerikusirik ez izatea baina, horrela bada, uste dugu Udalak zehaztu egin beharko lukeela herritarrei zalantza eta nahasterik ez eragiteko.

3. IZFEk diseinatuta dauden galdera-sortak erabiltzeak ez du bermatzen, berez, udalek egiten dituzten jakinarazpenak legezkoak direnik, Udal horrek ustez esaten duen bezala.

Izan ere, kasu honetan erabili den eredu egokia da bakarrik aldiro kobratzen diren zergen emaitzako zorrak jakinarazteko. Okerreko erabilera hori ereduaren aukeraketan akatsa egon delako izan daiteke edo, bestela, berehalako sortzapena duten zergen likidazioak jakinarazteko egokia den bat diseinatu ez delako. Kasu batean zein bestean Udal Korporazioak antzeman diren akats eta mentsa horiek ongitzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, horrela herritarrei informazio zuzena eta zehatza zuzkitzeko, herritar horiek dituzten legezko betebeharrak betetzea errazteko eta beharrezkoak ez diren kalteak saihesteko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **13/2005 GOMENDIOA, uztailaren 19koa, Bergarako Udalari egina**

Baliorik gabe utz ditzala (...) jaunari HLBGZren likidazioetan ezarri dizkion premiamenduzko errekarguak, hain zuzen ere (...) eta (...) erreferentziakin identifikatuta daudenak, eta berrius ditzala jakinarazpenak egiteko erabiltzen dituen ereduak, eredu horiek indarreko legeriari egokitzeko.

**14/2005 GOMENDIOA, UZTAILAREN 20<sup>KO</sup>A, LEMOIZKO UDALARI EGINA, ONDASUNEN ARAUDIKO 71. ARTIKULUARI JARRAIKI, URIZARREKO GURDIBIDEAREN JABETZA OFIZIOZ BERRESKURATZEKO HASI ZUEN PROZEDURA JARRAI ETA EBATZ DEZAN. ONARTU DA.**

Aurrekariak

1. 2004ko martxoan kexagileak zera salatu zion Lemoizko Udalari: (...) jaunak bi bidoi jarri zituela, hormigoiz zatituz eta urez beteta, (...) baserrira ibilgailuz sartzeko dagoen jabetza publikoko gurdibidearen errodaduretan –bide hori Urizarreko 1 zenbakiko lurzoru urbanizagarrian (SAPU) sartua dago–. Baserri horren titularkide da (...) andrea.
2. Egun batzuk geroago, 2004ko apirilaren 19an, bidoi horien ordean, errodadura-lerro berean, lurrari itsatsitako hormigoizko bi zutoin jarri zituztela salatu zion interesdunak Lemoizko Udalari. Bide horretatik barrena bere baserrira ibilgailuak sartzeko guztiz eragozten zuelako egin zuen salaketa kexagileak, eta zutoin horiek ez zituztelako betetzen herri-bideekiko itxitura partikularrak arautzen dituen udal Ordenantzan aurreikusitako gutxienezko banantze-tarteak.
3. Erabilera publikoko gurdibidea ofizioz berreskuratzeko prozedura hasi zenean, Alkatetzaren 2004ko maiatzaren 25eko Izapidearen bidez, salatuak honako hauek alegatu zituen entzunaldiaren izapidean:
  - zutoinak bere jabetzaren barruan kokatuta zeudela,
  - zutoin horiek ez zirela inolako arazorik sortzen ibilgailuen zirkulazioari,
  - eta salatzailearen jabetzarako sarrera ez dela bide horretatik egiten, salatzaileak berak moztu zuen beste bide batetik baizik.
4. 2004ko ekainean, udal teknikaria ikusketa-bisita egitera joan zen eta egiaztatu zuen bi zutoin haiek oztopatu egiten zutela SAPU 1ean sartuta dagoen Urizarreko gurdibide horretatik igarotzea.
5. Burututako jarduerak ikusita, Gobernu Batzordeak, 2004ko ekainaren 14an egindako bileran, Udaltzataren iritzipean jartzea erabaki zuen –horren eskumenekoa baita ekintza administratiboak eta judizialak gauzatzea– bidezkoa ote zen ala ez administrazio bidean ondasunak ofizioz berreskuratzeko prozedura bideratzen jarraitzea,

eta, bereziki, bidezkoa ote zen (...) jaunari bidea oztopatzen zuten elementuak ken zitzan eskatzea. Izan ere, frogatutzat jo zen administrazioaren jabetza zela –erabilerera publikoko bidea baita– eta erabilerara hori oztopatu egin zela, ibilgailuak bidetik igarotzea eragozten zuten bi zutoin jarri zirelako.

Une hartatik aurrera, udalak bertan behera utzi zituen ofizioz berreskuratzeko espediente honekin lotutako jarduera guztiak; horregatik azaldu zion kexa Arartekoari (...) andreak.

6. Erakunde honek txosten bat eskatu zion Lemoizko Udalari eta gogorarazi zion gure legeriak betebeharrak ezartzen diela udalei, hain zuzen, bere ondasunak eta eskubideak babesteko beharrezkoak diren ekintzak gauzatu behar dituztela (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 68. artikulua; ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartu zuen Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 9.2 artikulua; Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzko Araudiaren 220.1 artikulua), eta, babes-lan horretarako, legeriak berak oso eskumen zabalak ematen dizkiela beraien ondasunak eta eskubideen gainean.
7. Erantzun gisa, Lemoizko Udalak 2004ko ekainera arte gauzaturiko jardueren kopia bat eskuratu zigun, baita Gobernu Batzordeak 2004ko azaroaren 30ean egindako bileran hartu zuen erabakiaren ziurtagiri bat ere. Erabaki horri jarraiki, Udaltzaren iritzipean jarri zen erabakia, hark aztertuko baitzuen 2004ko abenduaren 28an egitekoa zen ohiko bilkuran.
8. Lemoizko Udalaren Batzak 2004ko abenduaren bukaerarako aurreikusi zuen bilkura hartan ez zen, antza, gai hori ebatzi; horregatik, erakunde honek berriro eskatu behar izan zion txostena.
9. Informazio-eskaera horri erantzunez, udal horrek adierazi zion Arartekoari Lemoizko Udalaren Batzak hauxe erabaki zuela 2004ko abenduaren 22ko bilkuran: *“dejar el asunto sobre la mesa con el fin de solucionar el conflicto amistosamente”*.

Udal horrek emandako erantzuna ikusirik, Ararteko erakundeari bidezkoa iruditzen zaio gogoeta hauek helaraztea:

#### Gogoetak

1. Udalek ahalmen juridiko osoa dute era guztietako ondasunak erosi eta edukitzeko, baita ere beren ondasuna babesteko bidezkoak diren ekintzak burutzeko eta balia-bideak erabiltzeko. Alabaina, gure legeriak onartzen duen ahalmen hori betebeharrak bihurtzen da beren ondasunak eta eskubideak babesteko ekintzak gauzatzeko jokoan dagoenean.

Gai horren gainean, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, 68.1 artikuluan, toki erakundeei berariak agintzen die beraien ondasunak eta

eskubideak babestu behar dituztela, hauxe baitio: “*Beren ondasunak eta eskubi-deak aldezteko beharrezko auzibide eta administrazio-bideak erabili beharra dute toki-erakundeek*”. Gainera, betebeharrak hori behin eta berriz agertzen da toki jaurbidearen gaineko legerian: Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 9.2 artikuluan, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 220.1 artikuluan.

Betebeharrak hori hain zorrozki bete behar dute udalek ezen, araudian berariaz xedatuta dagoenez, udalak ezin baitira jarri beren jabarian edo beren ondarea osatzen duten gainontzeko eskubide benetakoetan eragina duten auzi-eskeen mende (Ondasunen Araudiaren 73. artikulua).

Erakunde hau horrexegatik ezin da ados egon administrazio horren asmoarekin, hau da, uneotan espedientea mahai gainean uztearekin, arazo hori eragindako bi aldeetan artean adiskidetasunez konpon dadin.

2. Hasitako espedientean parte hartu duten pertsonetatik bakar batek ere ez du zalantzan jarri, orain arte, gurdibide hori publikoa dela. Izatez, prozeduran ez da alegatu zutoinak jarri diren bide-zatia titulartasun pribatukoa denik, baizik eta denak pentsarazten du adostasunez onartzen dela gurdibide horrek titulartasun publikoa duela. Horren gainean, salatuak berak, alegia, bidearen izaera publikoa zalantzan jarri eta bide-zor bat egon daitekeela aldeztu interes handiena izan dezakeenak, honako hau erabili du bere burua defendatzeko argudio nagusitzat: “*la alineación de los pivotes se corresponde con la delimitación de las parcelas y, en consecuencia, ni se ha afectado, ni podido afectar, a bien de dominio público alguno.*”
3. Bide horrek erabilera publikoa duela onartu denez gero eta ondasunaren izaera pribatua alegatu ez denez gero, onartu beharra daukagu bide-zati horretan Urizarreko gurdibidea bide publikoa dela eta Lemoizko Udala dela bidearen titularra.
4. Dakizunez, gizabanakoei interdiktuek ematen diete babesa, haiek beren jabetzari eusteko eta jabetza berreskuratzeko. Horixe bera da administrazioarentzat interdiktuzko ekintza edo *interdictum proprium* deritzana, alegia, administrazioak bere ondasunak –publikoak zein ondarezkoak– ofizioz berreskuratzeko duen ahalmena. Administrazioentzat ezaugarri berezi bat du *interdictum proprium* delakoa erabiltzeak, hain justu, administrazioek beren kabuz erabakitzeko pribilegioa dutela, auzibidera jo behar izan gabe, baldin eta berreskuratzeko ahalmena sortzeko beharrezkoak diren egitatezko baldintzak gertatzen badira: ondasunak jabetza publikoa izatea, inork jabetza horretan eskua sartzea edo jabetza-eskubidea eragozteak.

Berreskuratzeari buruzko adierazpen horrek ahalmen bat ematen dio administrazioari: bere jabetzan eskua sartu duenari jabetza itzul dezan agindu diezaioke, eta, horretarako, legeriak eman dion behartze-ahalmena ere erabili ahal izango du administrazioak.

Horrela, oso argiak dira Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (82. a artikuluan) eta Ondasunen Araudiak (70.1 artikuluan) toki erakundeei ematen dizkieten pribilegioak, haxe adierazten dutenean: *“Toki erakundeei, beren ondasunei dagokienez, honako burupe hauek dituzte: beren kabuz ondasunak berreskuratzea; noiznahi, herri-erabilerakoak direnean, eta urtebeteko epean, ondarezkoak badira”*.

5. Bidean, errodadura lerroan, hormigoizko bi zutoin jarriz gauzatu da esku-sartze pribatiboa bide horretan. Urizarreko gurdibidearen jabari publikoa eta babesteko eremuak noraino iristen diren zehazteko orduan, kontuan izan behar dira errepideei buruzko legerian agertzen diren xedapenak, izan ere, legeria hori hartu behar dugu, guk uste, gutxienez erreferente gisa, alderdi horiek ez baitira zehazten, ez mugatzen ere, udalak onartu dituen eta erakunde honek eskuratu dituen bi arauetan –Lur-sail partikularretako itxituretatik udal-bide publikoetarako sarbideetara edo herrigunean zehar doazen sarbideetara egon beharreko gutxienerako distantziak arautzen dituen udal ordenantza (BAO 75. zk., 2004-04-22) eta Itxiturak egiteko erabili beharreko materialak, finka partikularren itxituren arteko distantzia minimoak eta udalerriko kaleetan edo udaleko hiri gunea zeharkatzen duten bideetan dituzten sarbideak araupezen dituen ordenantza (BAO, 145. zk., 2004-07-29)–.

Ildo horretan, errepideen alorreko legeriak –Estatukoak nahiz Bizkaia lurralde historikoak onartu zuenak– errepide batean jabari publikoko eremua zehazterakoan, eremu hori ez du mugatzen errepideek hartzen dituzten lurretara soilik, baizik eta onartzen du areka, lubeta edo lur-erazketaren kanpoko bi ertzen artean dauden errepideko elementu funtzionalak ere eremu horren barruan sartzen direla. Zehazki, Errepideen Legeak zera adierazten du 21. artikuluan: *“Son de dominio público los terrenos ocupados por las carreteras estatales y sus elementos funcionales y una franja de terreno (...), medidas en horizontal y perpendicularmente al eje de la misma, desde la arista exterior de la explanación. La arista exterior de la explanación es la intersección del talud del desmonte, del terraplén o en su caso, de los muros de sostenimiento colindantes con el terreno natural”*.

Hortaz, onartu beharra daukagu gizabanako baten esku-hartzeak eragina izan duela bidearen jabari publikoan, esku-hartze hori errodadura-lerroan gauzatu delako.

6. Lemoizko lur-sail partikularretako itxituretatik udal-bide publikoetarako sarbideetara edo herrigunean zehar doazen sarbideetara egon beharreko gutxienerako distantziak arautzen dituen udal Ordenantzak (BAOko 75. zenbakian argitaratua, 2004ko apirilaren 22an) honako hau ezartzen du 2.1 artikuluan: *“bideekin edo bide-sareekin mugakide diren itxituretan, 2 m-ko tartea utziko da horietatik”*. Hala ere, lur-saila mugatzen duten bi zutoin horiek errepidearen errodadura-lerroan jarri dira, espedienteen idatzita adierazi den bezala; beraz, zutoinok ez datoz bat Ordenantzan ezarritako aginduekin.
7. Gogoratu behar dugu jabari publikoan gertatzen diren esku-hartze pribatiboak ez dutela preskribitzen, bada horrelako ondasunen oinarriko ezaugarrietako bat da



ezin preskribituzkoak direla (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 80.1 artikulua eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 5. artikulua). Beraz, denboraren joanak ez ditu halako egoerak sendotzen, eta gizabanakoei ez die inolako eskubiderik ematen jabari publikoari dagokionez.

8. Azkenik, administrazioak zedarritzeko edo mugatzeko duen ahalmena aipatu behar dugu, hori ere jabari publikoa babesteko araubide juridikoan sartzen baita. Horrela, Ondasunei buruzko Araudiak hauxe adierazten du 56.1 artikuluan: *“las Corporaciones Locales tendrán la facultad de promover y ejecutar el deslinde entre los bienes de su pertenencia y los de los particulares, cuyos límites aparecieren imprecisos o sobre los que existieren indicios de usurpación”*. Jabari publikoa zehazteko arazo hori agerian jarri da espediente honetan, bada, lehen adierazi dugunez, lurzoruan bertan ez dago batere argi noraino iristen den gurdibidea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### **14/2005 GOMENDIOA, uztailaren 20koa, Lemoizko Udalari egina**

Urizarreko gurdibidearen jabetza ofizioz berreskuratzeko hasi zuen prozedura jarrai eta ebatz dezala. Jarduera hori Ondasunei buruzko Araudiaren 71. artikulua ezarritakoaren arabera burutu beharko da.

Horrela, modu egokian mugatu behar da gurdibidearen zati hori, baita gurdibidea lurzoruan zedarritu ere, gero udal horren Ondasun Higiezinaren Zerrendan sartu ahal izateko.

**15/2005 GOMENDIOA, ABUZTUAREN 11<sup>KO</sup>A, HONDARRIBIKO UDALARI EGINA, XEDE HAUEKIN:**

- 1. GIZON ETA EMAKUMEENTZAKO BERDINTASUNEZKO JAI-GUNE BAT SORTZEKO ARDURA BEREGANA DEZAN, ALARDE PUBLIKOA IRAGARRIZ EDOTA ALARDE FUNDAZIOARI JADA BAIMENDU DION ALARDEAN JAIZKIBEL KONPAINIA SAR DADIN SUSTATUZ. HORRETARAKO, BALDINTZA HONEN MENDE JARRI BEHARKO DU BAIMEN HORI: EZ DADILA SEXUAGATIK BEREIZKETARIK EGIN, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUSKO LEGEBILTZARRAREN 4/2005 LEGEKO 3.1 b) ETA 25.1 ARTIKULUETAN EZARRITAKOAREN ARABERA.**
- 2. GUTXIENGOEKIN BAKETSUA ETA ERRESPETUZKOA IZANGODEN JAI GIROA BERMATZEKO ORDUAN, ERAKUNDE GISA DUEN ERANTZUKIZUNA BERE GAIN HAR DEZAN, JAIETAN JENDEAK JAIZKIBEL KONPAINIAKO PERTSONEKIN PORTAERA GIZABIDEZKOA ETA DEMOKRATIKOA IZAN DEZALA ESKATUZ, ETA, URTE OSOAN ZEHAR, ORAINGO IRITZI-EGOERA ALDARAZTEKO SENTSIBILIZAZIO JARDUERAK ETA KANPAINAK EGINEZ, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA ONARTZEKO JARRERETARA IRISTEKO. EZ DA ONARTU.**

Aurrekariak

1. Joana Mugarrietakoa eta Jaizkibel Konpainia erakundeen ordezkariak egin ziguten kexa-idazkiaren bidez erakunde honen esku-hartzea eskatu zen, hain zuzen ere 2005eko irailaren 8an ospatuko den Hondarribiko Alardean emakumeek, gizonzkoek dituzten aukera berberekin, esku hartzeko duten eskubidea babesteko. Kexa hori egin zutenean ustez, herritar guztien parte-hartzea bideratzeko –sexuagatik bereizkeriarik gabe– derrigorrezkoa zen Hondarribiko Alardea berriz ere alarde publiko bihurtzea, udalak antolatuta, alegia, emakume batzuek alarde horretan berdintasunez esku hartzeko borondatea adierazi zutenean sortu zen gatazkaren aurretik egiten zen bezala.

Aldi berean, kexa azaldu ziguten talde horiek 2005eko martxoaren 21ean Hondarribiko alkateari igorritako idazkiaren berri eman ziguten. Idazki hartan, Alarde publikoa antola zedila eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legearen 25. artikulua bete zedila eskatu zuten –artikulu horrek esparru publikoetan gertatzen diren bereizkeriazko jarduerak antolatzea debekatzen du–; aldi berean, jakinarazi zigutenez, oso kezkatuta zeuden udalak ordurako, Alkatetzaren martxoaren 1eko 248/05 Dekretuaren bidez, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerei buruzko 4/1995 Euskal Legearen esparruan, betiko Alardea deritzanaren antolatzailerei baimena emana zielako (emakumeen berdintasunezko partaidetza eragozten duenari), eta dekretu horren kopia bat helarazi ziguten.

Halaber, Eusko Legebiltzarrak onartu berria duen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak kasu honetan oro har nola eragin behar zuen azaldu ziguten.

2. Erakunde honek 1996tik aurrera egin dituen adierazpen guztiekin bat etorri eta gaur egun Hondarribian urtero benetan gertatzen den egoera horrek, gure ustez, urratu duen eskubidea babesteko asmoz, zugana jo genuen joan den martxoaren 29an, udalak 2005eko Alardeari dagokionez zein jarrera duen jakiteko, Eusko Legebiltzarrak oraintsu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea (Berdintasunerako euskal Legea) onetsi duela kontuan hartuta, izan ere, gure aburuz, lege horrek aurreko esparru juridikoa aldarazten du, herri-aginteei dagozkien betebeharrak zehaztuz eta sendotuz, berdintasun printzipioa eta sexuagatik ez baztertzekoa bete daitezten. Zehatzago esateko, gutun hartan, guri honako hauen berri emateko eskatu genizun:

a) 2005eko Alardea antolatzeko Alarde Fundazioa erakundeari ordurako emanda zegoen baimena, argi eta garbi baitago erakunde horrek emakumeen berdintasunezko partaidetzarik gabe antolatu nahi duela Alardea.

b) Emakumeen berdintasunezko esku-hartzea defendatzen duten bi taldek udal horri egin zioten eskabidea, Hondarribiko herritar guztientzat, gizon zein emakumeentzat, berdintasunezko alarde publikoa antola dezan galdatzeko.

Azkenik gogorarazi genizun esparru juridiko berri horrek herri-aginteei jarduteko oinarri berriak ezarri dituela, oinarriok arestian aipatu ditugun bi alderdietan eragina dutela eta, horregatik, udal horrek bi betebeharrak dituela: alde batetik, ezin duela emakumeen berdintasunezko partaidetza ukatzen duen jai baten alde egin, zuzenean nahiz zeharka, eta, bestetik, herri horretako emakumeek jaiak direla-eta bizi duten bereizkeriazko egoera buka dadin, berdintasunezko jai-gunea prestatu behar duela.

3. Norberaren ideiak kontrastatuz jarrerak hurbiltzeko, Arartekoak elkarrizketa eskatu zizun, eta 2005eko maiatzaren 9an egin zen Hondarribiko Udaletxean. Bilera horretan, bi erakundeok gai honetaz ditugun iritzi eta jarrerez hitz egiteko aukera izan genuen eta, aldi berean, Irungo eta Hondarribiko Alardeen gaitan Berdintasunerako Euskal Legeak duen eraginari buruz erakunde honek prestatu duen agiria eman

genizun (aurrerantzean “Berdintasunerako Legearen azterketa”). Bilera horretan zuk oso argi adierazi zenigun ez zenuela orain arte burutu diren jarduerak aldatzeko inolako asmorik, hau da, ez zenuela aldatuko emakumeen berdintasunezko esku-hartzea eragozten duen betiko Alardea egiteko eman zenuen baimen hori, eta udalak ez zuela inolako baliabiderik jarriko hondarribiarren berdintasunezko jai-esparrua prestatzeko; hori guztia Mikel Badiola abokatuak egindako txostenean oinarrituta erabaki zela esan zenigun. Hala ere, Berdintasunerako Legearen azterketan erakunde honek azaldu zituen argudioak noiz aztertuko zenituen zain geratu ginen, bada, gure ustez, gai honetan Hondarribiko Udalari dagozkion legezko betebeharrak argitzen dituen esparru juridikoa zehaztu da.

4. Geroago, 2005eko maiatzaren 11n, beste idazki bat igorri genizun, zera eskatzeko: guk emandako Berdintasunerako Legearen azterketa lasaiago eta sakonago aztertu ondoren, gaiari buruzko zure azken iritzia jakinaraz zeniezagula. Halaber, idazki hartan zabal azaldu genizkizun zure jarrera aldatzea beharrezko egiten duten arrazoi juridikoak. Aldi berean, kexa-espeditente honen gaineko ebazpena emateko asmoa genuela adierazi genizun, “Berdintasunerako Legearen azterketan” azaldutako go-goetetan oinarrituta, bilera hartan zuk azaldutako argudioak aztertu eta gero.
5. Zuri hausnarketa horiek helarazi arren, udal horrek ez zigun erantzunik bidali gai horietaz zuen azken iritzia azaltzeko. Dena dela, gertaera horien ostean, maiatzaren 18an, kexagileek Hondarribiko Udalaren Gobernu Batzordearen 2005eko apirilaren 26ko Ebazpena igorri ziguten, eurei aurtengo maiatzaren 13an jakinarazi zitzaiena. Ebazpen horren bidez ezetsi egin zen euren eskabidea: alegia, udalak herri Alardea antola zezala herritar guztientzat, sexu-bereizketarik egin gabe. Alardea ez antolatzeko erabaki hori oinarritzeko, udalak adierazi zuen legean ez dela berariaz agintzen zerbitzu udalak hori eman behar duenik –ez dela halako agindurik agertzen Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen (TJOL) 26. artikuluan–; halaber, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 1999ko urriaren 7ko 739/99 zenbakiko Epaiak aipatu zuen, eta horren edukiari eutsi zion. Gainerakoan, ez zuen aipatu ere egin Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, ezta ere Alardeen gaineko gaian arau hori aplikatzeari buruz eman genizkion argudioak.
6. Beraz, aztergai dugun kasuan, guk hiru iturri ditugu ondorioak ateratzeko: lehenengoa, zurekin izan genuen elkarrizketaren edukia; bigarrena, “betikoa” deritzon Alarde horren antolaketa Alarde Fundazioari baimentzen dion Alkatetzaren 248/05 Dekretua; eta hirugarrena, udalaren Gobernu Batzordeak 2005eko apirilaren 26an hartutako erabakia, kexagileek Alarde publikoa antolatzeko egin zuten eskabidea ezetsi zuena. Bada, horiek abiaburutzat hartuta, ondorio hauek atera ditugu gai honetaz duzun jarrerari buruz:
  - a) Uko egin diozu betiko Alardearen erakunde antolatzaileari emandako baimena aldatzeari, baina gure ustez baimen hori Espainiako Konstituzioaren 9 eta 14. artikuluetara egokitu beharra dago, eta Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak biltzen dituen obligazio zehatzetan gauzatzen da betebeharrak hori.

- b) Hondarribiko herritarrentzat, gizonezko zein emakumezkoentzat, berdintasunezko jai-esparrua bideratuko duen Alarde publikoa antolatzearen aurka zaude.

Udal horren arrazoien oinarriak, labur bilduta, hiru direla esan dezakegu:

**b.1)** Alarde Fundazioari eman zitzaion baimenaren baliagarritasuna, Alkatetzaren 248/05 Dekretuan ezarri denaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2001eko irailaren 7 eta 10eko Autoen eta 2002ko irailaren 10eko Epaiaren bidez baieztatuta zegoela; Auto horietan ezetsi egin ziren Joana Mugarrietakoa elkarteak kautelazko neurriak hartzeko egin zuen eskabidea, lehenik, eta administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa, geroago. Elkarte horrek indarrrik gabe utzi nahi zuen Hondarribiko Udalak emakumeen berdintasunezko esku-hartzerik gabeko Alardearen antolatzaileei eman zien baimena.

Baliagarritasun hori oinarritzeko asmoz, zera adierazten da: udalak baimendutako egintza pertsona juridiko-pribatuak antolatzen duela eta horrek arindu egingo lukeela partikularren arteko harremanen esparruan proiektatzen den berdintasun printzipioaren eraginkortasuna eta, ondorioz, ez litzatekeela printzipio hori hautsiko, betiko Alardeak ez duelako pertsonentzako tratu iraingarri edo erdeinagarririk sorrarazten, dauden aukeren artean Alardea ulertzeko era bat baino ez delako eta, bestelakorik ez badago, aukera horiek defendatzen dituzten pertsonen borondaterik ezagatik dela.

Horregatik betiko Alardea debekatzea ez litzateke –udal horren iritziz– Zuzenbidearekin bat etorriko, ezta emandako baimen horretan aldaketak egitea ere, horren izaera *conditio non iuris* litzatekeelako, eta horrek gainditu egingo litzukeelako arlo honetan toki administrazioari partikularren askatasunean esku hartzeko eman zaizkion ahalmenak.

**b.2)** Alarde publikoa eta berdintasunezkoa antolatzeari dagokionez udalak duen edo ez duen betebeharrari buruz, zera adierazten da Hondarribiko Udalaren Gobernu Batzordeak 2005eko apirilaren 26an hartutako Erabakian –horren bidez ezetsi zen kexa hau azaldu duten taldeek egindako eskabidea–: TJOLk ez duela ezarri, bere 26. artikuluan ematen dituen derrigorrezko udal zerbitzuen artean, Alarde bat antolatzea. Halaber, udalak ez duela Alardea antolatzeko legezko betebeharririk baieztatzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko Epaiak aipatzen da, eta epai horren edukari lotzen zaio.

**b.3)** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Lege berria dela-eta, esku artean ditugun agirietan ez da behin ere aipatu eta orain arte, ez zuzenean eta ez zeharka, ez zaigu jakinarazi udal horrek zein jarrera duen Ararteko erakundeak agertu dion iritziz honetaz: alegia, lege horrek nabarmen argitzen dituela udalak bere herriko jaien esparruan berdintasun printzipioa gauzatzeko dituen betebeharrak eta, horren ondorioz, aldatu egin dela lehengo egoera, Alardean berdintasunez parte hartu nahi duten Hondarribiko emakume batzuen nahia benetan gauza dadin udal horrek dituen betebeharrak zehatzei dagokienez.

7. Bukatzeko, aipa dezagun Arartekoaren kezka nagusia: gai honetan izan daitezkeen jarrera desberdinak alde batera utzita, Hondarribiko alkateak bere gain hartu behar du datorren irailaren 8an bake eta tolerantzia egoera lortzeko duen erantzukizuna. Kezka hori berriaz jakinarazi genion alkateari joan den maiatzaren 9ko bileran, eta datozen jaietan herritar guztiei jarrera gizabidezko eta demokratikoa izan dezaten eskatzeko galdatu genion.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, zera azpimarratu behar dugu –Irungo Alardea zela-eta hango udalari ekainaren 1ean luzatu genion 6/2005 Gomendioan egin genuen bezalaxe–: Eusko Legebiltzarrean duela gutxi onetsi duten **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege Berriak** (Berdintasunerako euskal Legeak) **Hondarribiko Alardean emakumeek pairatzen duten bereizkeriaren arazoaren irtenbidea sostengatu behar duten oinarri juridiko eta bitarteko berriak finkatzen ditu**. Ideia hori luze eta zabal azalduta dago Ararteko honek Hondarribiko alkateari emandako dokumentuan, non lege horrek Alardeen auziari zelan eragiten dion xehekiago jorratzen baita.

Arartekoak gai honetan duen jarrera irmoa behin eta berriro adierazi izan du eta, jakina denez, emakumeek Hondarribiko Alardean herrikide gizonetzkoen pare parte hartzeko eskubidea sendo eta tinko defendatzearen alde dago. Horretarako, oinarri hartzen ditugu gure barneko lege antolamenduan eta nazioartekoan berdintasunaren eta sexuaren ondoriozko bereizkeriarik ezaren printzipioa finkatzen duten arau guztiak, baita ere herri-aginteak berdintasunerako oztopoak desagerrarazi eta berdintasuna benetan gauza dadin bitartekoak ipintzera behartzen dituzten arauak ere. Hondarribiko Udalak erakunde den aldetik jarrera pribilegiatua dauka, gure iritziz, gizarte demokratiko batean helburu eztabaidaekin hau lortzeko eta, hartara, lorpen horren erantzule nagusia da.

Alabaina, orain arte agerian geratu da udal horrek, emakumeak Alardean berdintasunez parte har dezaten ahalbidetzeko bitartekoak ez ipintzeaz gain, nabarmen erraztu duela emakumeek berdintasunez parte hartzerik ez duten Alardea urtero ospa dadin. Hori egiteko, lege bereizkeria egoera bukaraziko duen udal jarduerarik bideratzera behartuta ez dagoelako argudio juridikoa erabili du –generikoki formulatu dugu–. Baina, hara, badago emakumeen eta gizonen berdintasuna lortze aldera betebeharrak zehatzak finkatzen dituen arau bat, betebeharrak horien hartzailen diren herri aginteentzat saihestezina diren betebeharrak, alegia; arau hori, gaur, EA Eren esparruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea da, jakina. Horregatik, lege hau elementu berria da, eta gure erakundeak aldeztu duen tesia nabarmen indartzen du: alegia, Hondarribiko Udalak neurri zehatzak hartu behar dituela bereizkeriazko jai-esparrurik ez gaitzeko eta emakume eta gizonentzako berdintasuneko jai-eremua sortzeko.

Hondarribiko Udalak ez du, ordea, horrela ulertzen, iritziak elkarri jakinaraztean ondorioztatu ahal izan dugunez. Horregatik, puntu honetan kontuan hartu behar

da Hondarribiko Udalak Alardeari buruz 2005ean hartu dituen erabakietan ez dela inolaz ere aipatu Berdintasunerako euskal Legea. Horrela jokatzuz, inplizituki ukatzen da legeak lehenagoko egoera juridikoa ezertan alda dezakeela, eta argudio horretaz baliatzen da arau berri horretatik datorren edozein agindu baztertzeko. Jarrera teoriko horri heltzen dio udalak, gai honetan immobilismo jarreran tematze eta, horrek, gure iritziz, konponbiderik gabeko blokeora eraman gaitzake, berdintasunerako duten eskubidea urtero-urtero urratzen zaiela ikusten duten Hondarribiko emakumeei eskubide hori materialki inoiz aitortu dakien ikusmirarik eskaini gabe.

Berdintasuneko euskal Legearen zeregin nagusia hau da: betebeharrak zehatzen legeko araubidea eratuz, Konstituzioko berdintasunaren printzipioa nola artikulatu behar den zehaztea, pertsonen sexuari dagokionez erabat operatiboa izan dadin, eta, horrela, doktrinaren eta jurisprudentziaren legekotasunaren parametro berri eta ezinbestekoa eta, ondorioz, epairako funts izango dena bihurtzea. Horrela, ez Hondarribiko Udala ez legeko araubide horren hartzaile den ezein herri-aginte ezin da jada berdintasun printzipioaren zehaztasunik ezean babestu; printzipio horren birtualtasuna ahalmen eta eskubide guztien berri ematea da, baina, horrexegatik hain zuzen, ez dago organikoki beren beregi garatuta, gainerako oinarrizko eskubideak bezala. Alardeen gainean orain arte izan den jurisprudentziak –Hondarribiko Udalak bere idazkietan aldarrikatzen duenak–, Berdintasunerako euskal Legea onartu aurrekoa denez, arau hori ez du hartzen gai horretan zuzeneko erantzukizuna duten herri-aginteen jardunerako beharrezko esparru juridiko gisa. Alor honetan etorkizunean sor daitekeen jurisprudentziak, halaber, bere nozioak lege horren xedapenetara doitu beharko ditu; ezin izango du Konstituzioak ezarritakoa inola ere murriztu, baina bai finkatu ahal izango du Konstituzioko zehaztapenak zehazki zelan gauzatu diren.

Berdintasunerako euskal Legeak, EAEn edo Estatuan etorkizunean eman daitezkeen gainerako berdintasun legeek bezala, lehenik eta behin herri-aginteei zuzenduko zaizkien betebeharrak finkatzeko xedea du, baina partikularrengana ere bideratzen da, lege antolamenduan, Konstituzioan, Europako Batasunean eta nazioarteko antolamenduan jasotzen den gizonen eta emakumeen berdintasuna egiaz gauza dadin, benetan lor dadin berma dezaten, herri-erakunde guztiek aktiboki inplikatu behar duten prozesu baten azken emaitza modura. Betebeharren araubide hori sortzen den unetik, zilegi da legearen hartzaileei agindu horiek beteaztea, eta horixe da, hain zuzen, Berdintasunerako euskal Legeak udal horri –Alardean duen jokaerari dagokionez– dakarkion gauza berria: hau da, modu jakin batean jokatzeko eskatu ahal zaio, baldin eta legeria urratu nahi ez badu, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62 eta 63. artikuluetan aurreikusitako zigorra jaso nahi ez badu.

Lege-esparru berri horretan, hona hemen, Arartekoaren ustez, 2005eko irailaren 8an izango den Alardeari dagokionez Hondarribiko Udalak izango lituzkeen betebeharrak.

2. Hasteko, azter dezagun 2005eko martxoaren 1eko 248/05 Alkatetza Dekretuaren bidez Alarde Fundazioari **2005eko irailaren 8an betiko Alardea deritzona antolatzeko** eman zaion baimena, **emakumeei berdintasunez parte hartzea eragozten diena.**

Ararteko erakundeak, legea aldarrikatu denetik aurrera, herri-erakundeek zein oinarri juridiko berriren mende aritu behar duten aztertzeko prestatu duen “Berdintasunerako Legearen azterketan” jasotzen den moduan, Hondarribiko Udalak betiko Alardea, hots, emakumeei berdintasunez parte hartzea ukatzen diena antolatzeko eman duen baimena zeharkako bereizkeriako egintza da, lege horren 3.1 b) artikulua dioenez, eta lege bereko 25.1 artikulua bigarren lerroaldea zeharo urratzen du. Horregatik, baimen hori, gure iritziz, baliogabea da, erabateko eskubidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62.1 a) artikulua arabera.

Berdintasunerako Legearen 3.1. artikulua, herri aginteen jardura gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorren artean, tratu berdintasunaren printzipioa finkatzen du, eta printzipio horren urraketan balizko bi kategoria bereizten ditu, zuzeneko bereizkeria modura gerta daitekeena [3.1. artikulua a) atala] eta zeharkako bereizkeria modura gauza daitekeena [3.1. artikulua b) atala]; hona hemen artikulua hori, hitzez hitz:

### **“3.1 artikulua- Tratu berdina**

*Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.*

*Lege honen ondoretarako:*

(...)

*b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.”*

Artikulu horren arabera, zeharkako bereizkeria-neurria izango litzateke tratu berdintasuna egintza edo xedapen jakin batean esplizituki ez –egintza edo xedapena itxuraz neutroa litzateke–, baina egintza edo xedapen horren ondorioen eraginez hausten denean.

Legearen bereizketa horrek ikuspegi berria ematen du administrazioaren egintza juridiko bat bereizkeriazko egintza modura kalifikatzeko garaian. Beraz, Hondarribiko Udalak emakumeak baztertzeko dituen Alardea baimendu izana legezkoa den ala ez aztertu nahi bada, parametro berri bati aditu behar zaio, administrazioaren egintza



horren ondorioz emakumeek bazterketarik jasaten duten egiaztatzera behartzen duen parametroari. Hondarribiko Alardeari dagokionez, halaxe erabaki zuen Auzitegi Gorenak 2002ko irailaren 13 Epai irmoan, 2241/1998 kasazio-errekurtoan, epaiketako gaia –zalantzarik gabe– udalaren egintza bat, hau da, administrazio egintza bat zenean (ikus, halaber, Irunen kasuan, Auzitegi Gorenak 2002ko irailaren 19an emandako Epai, 2241/1998 kasazio-errekurtoan). Alarde Fundazioari emandako baimena baliouduna dela oinarritzeko Hondarribiko Udalak orain aipatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 588/2002 Epaiak ez du epaitzen orduan inongo arautan idatziz jaso barik zegoen baina kasu honetan zuzenean aplikagarria den zeharkako bereizkeriaren nozioaren arabera, eta epaiaren mamia baimenpean jartzen den jarduera pribatura bideratzen du. Nolanahi ere, udalak aipaturiko ebazpen hori ez da irmoa, errekurrituta baitago Auzitegi Gorenean, eta Auzitegiak oraindik ez du ebazpenik eman, Konstituzioaren 14. artikuluari begira, oinarritzeko eskubideak urratzen dituzten jendaurreko ikuskizunen debekuaren eraginkortasunaren gainean. Debeku hori Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueri buruzko 4/1995 Legearen 18 a) artikuluan jasota dago.

Hondarribiko Udalak puntu honetan zera azaltzen du: baimena partikularren esparrura proiektatzen dela, partikularrak baitira emakumeen berdintasunezko partaidetzarik gabeko Alardea antolatzen dutenak eta, ondorioz, ezin dela pentsatu horrek bereizkeria dakarrenik, alor pribatu horretan berdintasun printzipioa babestua geratzen delako, Alardearen antolaketa emakumeentzat erdeinagarria edo iraingarria ez den bitartean. Ez gara azkeneko hori eztabaidatzen hasiko –badirudi udalak hori ondorioztatzen duela bere alde aldarrikatzen duen EAEko Auzitegi Nagusiaren epaitik– baina, gure ustez, tesi hori ez dago oinarritzerik Konstituzioko doktrina sendo eta homogeneousan, bada Konstituzio Auzitegiak berak hainbat eta hainbat epaitan adierazi du Bundesverfassungsgericht (Alemaniako Konstituzio Epaitegia) delakoaren doktrina; “Drittwirkung” izeneko doktrinaz ari gara, alegia, oinarritzeko eskubideen erabateko aurkagarritasunaz, partikularren aurrean. Interesatzen zaigu, ordea, zera azpimarratzea: Hondarribiko Udalak Alardetik emakumeak baztertzten dituztenei eman dien baimena Berdintasunerako Legearen 3.1.b) artikulua definizioak barne hartzen duen egintzat jotzen bada, hau da, zeharkako bereizkeriako egintzat, berriz ere egintza juridiko publiko baten balioan edo baliorik ezean kokatzen da auzi honen muina eta, beraz, erabaki beharreko gaia, egintza juridiko horretatik eratortzen baitira emakumeentzako bereizkeriazko ondoreak. Hortaz, berdintasunaren printzipioaren proiektzioa Alardeen auzia sortu zen esparruan kokatzen da berrito, esparru publikoan; ezin dugu ahaztu esparru publiko hori utzi bada, Alardean emakumeei leku bat emateko betebeharra –Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 19ko epaitik datorrena– saihesteko helburu bakarraz utzi dela. Oro har onartzen da, alde horretatik, berdintasun printzipioak erabateko eragimena duela herri-aginteen aurrean.

Era berean, udalak dioenez, betiko Alardearen antolatzaileei eman dien baimenari ezin zaizkio ezarri baldintza juridikoez kanpoko (*conditio non iuris*) beste baldintza batzuk. Komeni da gogoratzea baimenak gaikuntza juridikoak direla, eta beren helburu nagusia egin nahi den jarduera legeriari egokitzen zaiola bermatzea dela. Alardearen kasuan, Udalak, baimena emateko, emakumeen berdintasunezko partaidetzaren

baldintza bete dadin eskatu behar du, oinarrizko eskubideak bete daitezzen exijituz. Baldintza hori ez da inolaz ere conditio non iuris, baizik eta, guztiz alderantziz, sistema juridikoaren beraren oinarrian eragina duen funtsezko legezkotasun baldintza da, berdintasuna oinarrizko eskubidea delako. Gai horri heltzen dio, zuzenean, Berdintasunerako Legearen 25.1 artikuluaen bigarren erroaldeak. Xedapen horrek bete-betean hartzen du Alardea, espazio publiko batean zehar gauzatzen den kultura egintza izanik, ez baitie emakumeei berdintasunez parte hartzen lagatzen; hara zelan jasotzen den halako jarduera baten debekua:

*“Debekatu egiten da emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.”*

“Berdintasunerako Legearen azterketan” luze eta zabalago azaldu dugun moduan, agindu hori legea Legebiltzarrean tramitatzen ari zen bitartean sartu bazen, espresuki Irun eta Hondarribiko emakumeek Alardeak ospatzen direnean urtero pairatzen duten bereizkeria-arazoa konpontzeko asmoz sartu zen. Ikuspegi horretatik, Alardea, legegilearentzat, 25.1 artikuluan jasotako debekua aplikatu behar zaion egitate prototipikoa da. Horrela, azterketa hartan azaldu genuenez, *“Klausula horrek debeku moduan adierazten du gune publikoetan ezin direla emakumeak diskriminatu. Hortaz, egintza jakin bat baimentzeko ahalmena duen administrazioak egintza diskriminatzailea debekatu behar du, berariazko eta arau horretan oinarrituriko jarduera baten bidez. Ofizioz debeka dezake –arauan deskribatuta dagoen egitatezko kasua gerta litekeela pentsarazten duten zantzuak antzemango balitu administrazioak berak (“emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan)– edota alderdi batek eskatuta. Bigarren kasuan, hau da, udalari aurreikusitako egintza edo egintzak debeka ditzala eskatzen badiote, eskaera oinarritzeko balio duen arauaren xedea aintzat hartuz ebatzi beharko du udalak”.*

**Azaldutako arrazoi horiengatik, Arartekoaren iritziz, Hondarribiko Udala legez behartuta dago Alarde Fundazioari eman dion baimena legeriara egokitzera, bereziki 4/2005 Legearen 3.1.b) eta 25.1 artikuluetatik ondorioztatzen diren eskakizunetara. Horretarako, emakumeei egintza horretan berdintasunez parte hartzeko aukera eskain diezaietela agindu behar die baimen-eskatzailerei, edo, bestela, baimen hori baliogabetu behar du.**

3. Bigarren, **Udal horrek Hondarribiko emakumeek Alardean berdintasunez parte har dezaten ahalbidetzeko formulak artikulatu behar dituela** aipatu behar dugu. Izan ere, Konstituzioaren 9.2 artikulutik oro har ondorioztatzen den betebeharra dugu hori, eta azken urteotan behin eta berriz eskatu dugu hori bete dadin. Asmo horrekin, arrazoi ugari eman ditugu Hondarribiko Udalak aktiboki parte har dezan herri Alarde baten antolaketa berreskuratzeko –emakumeei herri Alardean parte hartzen utzi behar zitzaieela agindu zuten auzitegietako epaiak eman

arte bezala–; jai-ondarea herritar guztiei itzuliko dien herri Alardea antolatu beharko litzateke, Hondarribiko emakumeek urtero-urtero pairatzen duten bazterkeriazko egoera bidegabea konpontzeko. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak eratu duen lege-esparru berriak xehekiago zehazten ditu herri-aginteez zein betebeharrak dituzten berdintasuna lortzeko asmoz jarrera aktiboa hartzeaz. Betebeharren arabide hori xehetasun handiagoz azalduta dago “Berdintasunerako Legearen azterketan” eta, beraz, puntu honetan, funtsean dokumentu horretan esandakora jotzen dugu.

- a) Hala ere, herri Alardea antolatzeke eskaera ukatzeko, **Hondarribiko Udalak** 2005eko apirilaren 26ko Alkatezaren Erabakian erabili dituen argudioak hartu behar ditugu berriro hizpide. Erabaki horretan, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (TJOL) 26. artikulua eta EAEko Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko Epaia aipatzen dira, Udala Alardea antolatzera behartzen duen legezko betebeharrak ez dagoela adierazteko.

Egia esan, Ararteko erakundean lehenago ere jorratu izan ditugu argudio horiek. 2003eko ekainaren 10eko 17/2003 Gomendioan –oso-osorik dakargu auzi honetara– arrazoi ugari eman genituen EAEko Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 7ko Epaian finkatutako doktrinaz Irungo Udalak egin zuen interpretazioaren aurka (interpretazio hura bat dator Hondarribiko Udalak 2005eko apirilaren 26ko Alkatezaren Erabakian labur-labur egiten duenarekin). Interpretazio horri partziala irizten diogu, “antolatu” hitzaren irakurketa mekanizista eta adiera bakarrekoa egiten baitu, Auzitegiak berak modu ezberdinetan uler daitekeela onartzen duen arren. Aldiz, gure iritziz, funtsezkoa da Sala horrek Hondarribiko Udalarari ematen dion zeregin saihestezina gizonen eta emakumeen berdintasunezko partaidetza zaintzeko orduan, izan ere, Salaren ustez, udalak edozein kasutan –hau da, Alardearen antolatzaile nagusi izatea erabakitzen badu nahiz herritarrek antolatzen badute– berezko dituen polizia-eskumenak gauzatu behar ditu, oinarriko eskubideak eta, zehazkiago, parte hartzeko eskubidea betetzen direla zaintzeko. Epaia horren 5. oinarri juridikoak argitzen du gai garrantzitsu hori:

*"Aunque a criterio de esta Sala todos los indicios presentes hacen suponer que el Alarde de Hondarribia de 8 septiembre de 1998 presenta todavía, como los anteriores, el carácter público derivado de su promoción última por el municipio, pues no se explicaría en otro caso ninguna otra implicación municipal que no fuese la de responder a las solicitudes de autorización que los particulares -mandos o no del Alarde-, le dirigiesen, sin poderse pronunciar sobre preferencias o modelos de organización de dicho acontecimiento popular y participativo, como las que en la resolución combatida se desarrollan, y sin poder ocupar tampoco papel institucional alguno en la dinámica reglamentaria de la organización (pues se trataría de una libertad de la sociedad civil que no admitiría dirigismos), **tanto en ese caso, como en el caso hipotético de que realmente la celebración del Alarde estuviese hoy en manos de los vecinos y sus agrupaciones más o menos espontáneas con personalidad o sin ella, se vería compelido el municipio a ejercitar facultades de policía administrativa de los***

***derechos y de control sobre la igualdad en la participación de los vecinos.***” (letrakera lodia eta azpimarratua guk erantsiak dira)

Kontu horren gakoa –eta emakumeen berdintasunezko partaidetza aldezen duten taldeek udalari 2005eko martxoan egindako eskaeraren azken helburua– ez da, beraz, Alardea materialki nork antolatzen duen eztabaidatzea, baizik eta Alardea, herritar guztien jai-ondare gisa, ekitaldi publikotzat jotzea eta, are gehiago, **udalak eskubideak betetzen ote diren ikuskatzeko dituen administrazio-kontrollezko eskumenak gauzatzea eta herritarrek berdintasunez parte hartuko dutela kontrolatzea, hori egitera behartuta baitago (ikus arestian aipatutako 5. oinarri juridikoa)**, nahiz eta Alkatetzaren Erabakian, harrigarria bada ere, hori ez den aipatzen.

TJOLk gai honetan zelan eragiten duen begiratu, legearen 26. artikuluan udala alardea antolatzera behartuta dagoela esaten ez bada ere –ezin bestela izan, jakina–, egia ere bada EAeko Auzitegi Nagusiak berak, udalak argudiatzen duen epaian, Alardearen antolakuntza aipatzen duela, legearen 25. artikuluan, zehazki, 2 m) atalean jasotako udal eskumenetan ondo txertatzen den ekitaldi modura, hain zuzen. Egia esan, TJOLk ez dakar ezer berririk eztabaida honetara, izan ere, behartu ez arren, udala erabat gaitzen baitu ekitaldi horren antolakuntzan protagonismoa bere gain hartzeko.

- b)** Alabaina, guk hizpide dugun betebeharra berdintasun printzipioan eta printzipio hori gure araudi sisteman gauzatzen den modutik ondorioztatzen da, funtsean.

“Berdintasunerako Legearen azterketan” garatu dugun bezala, gure arau sistematik eta, bereziki, 4/2005 euskal Legearen 3.4. eta 25.1 (lehenengo lerroaldea) artikuluetatik zuzeneko betebeharrak hau ondorioztatzen da: udal horrek, bere kultur politikaren esparruan, aktiboki parte hartu behar duela emaitza jakin bat lortzeko, hau da, herrian ospatzen diren jaiak emakume eta gizonezkoentzat berdinak izan daitezten eta, Hondarribiko emakumeek, herri horretako jai nagusian parte hartzeko orduan, gizonezkoen ahalmen berdinak izan ditzaten. Jarraian bi artikuluo idatziko ditugu, horietan legegilearen borondatea zein izan den ageri baita: ezin dela emakumeentzat baztertzaila den politika publikorik eta, gai honi dagokionez, kultur jarduerarik ere izan:

**3.4 artikulua: Genero ikuspegiaren integrazioa**

*Euskal herri-aginteeek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.*

*Lege honen ondoretarako, honakoa da genero ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea eta, horretarako, politika eta ekintza*

*guztietan, maila guztietan eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.*

## **25. artikulua- Kultura jarduerak**

**1. (lehenengo leerroaldea):** *Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura jarduerak guztietan.*

**Betebehar hori nola artikulatuko den** udalak erabaki behar du Hondarribiko jai-politikaren barruan, bai, betiere **hautatzen duen sistemarekin emakumeak baztertuko ez dituen jai-politika bermatzen badu**. Gure lege antolamenduan inolako lekurik ez duena, ordea, Hondarribiko alkateak egun prestatzen duen jai-politika da, emakumeak baztertzen dituen Alardearen ospakizuna baimentzen baitu eta ez baitu inolako neurrik abiarazten Hondarribiko emakumeentzat berdintasunezko jai esparrurik gaitzeko.

Izan ere, Hondarribiko Udala 2005 urterako jai-eredu zehatz bat moldatzen ari da, alkateak betiko Alardea baimentzea ebatzi duenean, eta herri Alarde bat antolatzeari uko egin dionean. Ebazpen horien bidez, egiaz, emakumeak baztertzen dituen jai-politika moldatzen ari da, formalki autonomo moduan gertatzen diren baina materialki jarraipenezkoak diren egintzen bitartez, egintzok helburu eta eduki bakarrak dituztelako: Hondarribiko jaiak emakumei Alardean berdintasunez parte hartzea ukatuz artikulatzea. Horrek agerian uzten du udalaren jarrera: udalak ez bakarrik ez du ezer egiten oztopoak kendu eta emakume eta gizonen erabateko berdintasuna errazteko, 4/2005 Legean adierazitako moduan, baizik eta aktiboki oztopatzen du helburu hori lortu nahi duen edozein ekimen.

Jai-politika baztertzaila da eta, ondorioz, legearen kontrakoa; ez dago horretan administrazioaren aukeramen printzipioan babesterik, udalak aukera ezberdinen artean hautatzeko duen askatasunak ez baitio bereizkeria betiketza ekarriko duen aukerarik eskaintzen. Aukera hori Zuzenbidearen aurkakoa da eta, horregatik, Alkatezaren ebazpenek kokatu nahi duten egokiera politikoaren esparrutik kanpo geratzen da.

Hara, bada, Arartekoak behin eta berriro proposatu du, oinarrizko eskubideak errespetatuko dituzten jaiak izateko modutzat, **Alardea udalak herri ospakizun modura antola dezala, lehen egiten zuen bezalaxe, horixe baita, gure iritziz, jaietan berdintasunez parte hartzea ongien bermatuko duen eta, aldi berean, herritar guztiena den ondarea lehengoratzeari ziurtatuko duen aukera**. Gainera, Hondarribiko historiari eta jai tradizioari estu-estu lotuta zegoen formula zen, harik eta udalak ordura arte zeregin modura

zeukana utziz bide hori hautsi zuen arte, auzitegiek orduan herri Alardea zen hartan emakumeei parte hartzen lagatzeko udalari eman zioten agindua saihestu nahi zuela agerian utziz.

Udal horrek oraindik ez du azaldu zergatik ez duen bere gain hartu nahi –legez behartuta ez dagoela esatetik harantzago– Alardea herri ospakizun modura antolatzea, zergatik erabaki duen herri Alarderik ez antolatzea eta zergatik uzten duen pribatuen eskuetan urteetan herritar guztien ondare izan dena. Udalak bere borondatea argudiatzeko motibaziorik edo arrazoirik ez daukanez, ondorioztatu behar dugu udal horrek horrela jokatzeko badu –eta zaila litzaioke benetan zergatia argi eta garbi adieraztea–, herri Alarde baten esparruan, Hondarribiko emakumeei berdintasunez parte hartzeko aukera eskaini behar izateari aurre egin nahi ez diolako dela.

Haatik, Hondarribiko Udala herriko jai nagusiaren antolaketa esku pribatuetan uztea aukeratzen ari dela ikusirik, gogorarazi behar dugu, berriz ere, udal administrazio hori ez dela horregatik jaiaren antolaketa berdintasun printzipioa bermatzeko esku hartzetik libre geratzen, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 1999ko urriaren 7ko Epaian aipatu zituen polizia-eskumenak erabili behar dituela, kasu honetan, bete egin behar duela Berdintasunerako euskal Legearen 25.1 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren euskal Legearen 18. artikuluan ezarritako agindua.

Hondarribian, emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza aldeztu duen herritarren ekimena Jaizkibel Konpainia mistoa antolatuz gauzatu da, herriko emakumeei berdintasunezko espazioa errazteko bide errealista baita. Aldi baterako pentsatu zen tresna edo bidea da, harik eta pixkanaka emakumeak Alarde osoan –hau da, konpainia guztietan eta gainontzeko unitateetan– erabat sartzea lortu arte. Beraz, udal horrek, baimendutako Alardean konpainia misto hori sartuko dela berma dezake, datorren irailaren 8rako iragarrita dagoen Alardearen baitan Jaizkibel Konpainia hartzeko baldintzapean emanez baimena. Hartara, gero eta hobeto elkar ulertzeko bidea abiaraziko luke, bada egintza horrek ez luke gainontzeko konpainia eta unitateetan eraginik izango. Udalak sinestarazi nahi digu Hondarribiko kaleetan barrena igarotzen den jai hori, hondarribiarrek beren kultura identitatearen adierazgarritzat jotzen duten egintza historiko baten oroigarri hori, pertsona multzo baten –antolatzaileen– ondare pribatutzat jo daitekeela, eta udalak –horretan babestuz– Alardean esku hartzeari utz diezaiokeela, nahiz eta horrek funtsezko legezketasuna larriki urratzen duen. Hori onartezina da, ordea. Jai-politika eta horren konfigurazio zehatza udalaren eskumenekoa da eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuz gauzatu behar da; bete-behar hori ez betetzea oinarritzko eskubideak urratzen dituen administrazioaren jardura eza da.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren ustez, **Hondarribiko Udalak, nolahi ere, Hondarribiko gizon eta emakumeentzat berdina izango den Alardea prestatzea ekarriko duen jai-politika eratu behar du, baztertzaila ez**

**den herri Alardea iragarri –horixe litzateke modurik egokiena, erakunde honen iritziz– edo herritarren ekimenari irailaren 8rako udalak baimendu duen Alardean Jaizkibel Konpainia sartzea erraztuz; konpainia hori Alardean benetan sartuko dela bermatzeko, udalaren babes formal eta materiala izan beharko du, berariazkoa eta nahikoa.**

4. Azkenik, Hondarribiko Udalari honako hau gogorarazi behar diogu: **erakunde gisa, gutxiengoen jarrereri zor zaien begirune demokratikoa zaindu behar duela, herritar guztiei gizabide demokratikoz joka dezaten eskatuz, irailaren 8an Hondarribian bake eta errespetu giroa berma dadin**, batik bat Jaizkibel Konpainiaren partaide moduan kaleetan desfilatuko duten pertsonetikiko.

Joan den maiatzaren 9an izandako elkarrizketan, Arartekoak gai hori azaltzeko aukera izan zuen, eta pozik ikusi zuen berdintasunezko jaiak aldeztu dituztenen kontrako ezinikusi bortitzeko giro hori desagerrarazteko prest zaudela. Udal horri bere erantzukizuna bereganatu dezaten eskatzen diogu berriro –bilera horretan egin genuen bezala–, bere polizia-ahalmenak erabil ditzala –arlotan honetan Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari dagozkion eskumenak gorabehera– bere jarduerak ezak indarkeria-egoera nagusitzen utzi ez dezaten, indarkeriak arriskuan jarriko bailuke Jaizkibel Konpainian desfilatu nahi duten pertsonen osotasun fisikoa, baita haien alde egitera ateratzen diren ere.

Alabaina, indarkeriari dimentsiorik sakonenetik begiratu behar zaio, eskuartean dugun jai ospakizunaren moduko ekitaldi batean emakumeak sartzeak dakartzen aldaketekin ados ez dauden adierazpena den aldetik. Izan ere, indarkeria eta sexismoa binomioa, egun, aginte-maila guztietan ardurak publikoak dituztenen kezkarik handienetakoa da, emakumeentzat dakartzen ondorio larriak ikusita. Horregatik, Hondarribian azaltzen den arazoari estrategia zabalagoa erabiliz heldu behar zaio, ez bakarrik irailaren 8an indarkeriarik izan ez dadin, baizik eta baita arazoaren zergatiak argitu eta konpontzen saiatzeko ere.

Ideologia sexista eta patriarkalaren presentzia handia da oraindik gure gizartean, eta gizonezkoen estatusa aginte estatus modura mantendu nahi duen balio sisteman oinarritzen da, emakumeak egituraz haien mende kokatzen dituelako. Munduaren ikuspegi horren adierazpenik sinbolikoenak dira –emakumeak alardean gizonak bezalaxe ez agertzea, esaterako–, hain juxtu, aldatzen zailenak, ageriko adierazpena direlako, gizarte, politika eta ekonomia egituren antolamenduaren urte asko eta askotako historiako gotorlekurik atzemangarrienak direlako, pentsamolde horien arabera.

Herri erakundeek, alabaina, aldaketa horiek gizartean naturaltasunez barneratu daitezkeen baldintzak bultzatu behar dituzte. Horretarako, Berdintasunerako euskal Legeak bitarteko zehatzak aipatzen ditu, hau bezalako bereizkeria egoerak hautematean, herri-aginte eskudunek erabil ditzaten; iritzi publikoa sensibilizatzeko jarduerak azpimarratuko genituzke bitarteko horien artean (ikus, legearen xedapen zehatzetarako, erakunde honek prestatu duen “azterketaren” III.2 atala).

Gure iritziz, ezinbestekoa da Hondarribiko udalak egun herrian bizi den giroa aldarazteko lagungarri izango diren halako kanpainak egin ditzan, gizarteko harremanen berdintasun ikuspegia eta emakume eta gizonentzako berdinak izango diren jaien eredia bultzatuz, horixe baita gizarte modura funtzionatzeko hartu dugun sistema demokratikoan txerta daitekeen bizikidetasun modu bakarra. Lagungarri izango da, zalantza barik, herri horretako bizimodurako etorkizun demokratikoagoa eta oinarriko eskubideekin abegitsuagoa bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **15/2005 GOMENDIOA, abuztuaren 11koa, Hondarribiko Udalari egina**

1. Erabil ditzala bere eskumenak Hondarribiko jai-politika eratzeko orduan, herri horretako gizon nahiz emakumeentzat berdintasunezko gune bat sortzeko ardura bere gain hartuz,
  - a) udalak Alarde publiko bat iragarritz
  - b) edota, gutxienez, irailaren 8rako baimendu duen Alardean Jaizkibel Konpainia mistoa sartzea formalki eta materialki sustatuz, Alarde hori benetan ospatzeko baldintza gisa jartzen duela. Horretarako, udalak Alarde Fundazioa erakundeari eman dion baimena baldintza honen mende jarri beharko du: ez dadila sexuagatik bereizkeriarik egin, 4/2005 Legearen 3.1.b eta 25.1 artikuluetan agindutakoaren arabera.
2. Udalak erakunde gisa bere gain har dezala gutxiengoekin baketsua eta errespetuzkoa izango den jai giroa bermatzerakoan duen erantzukizuna. Horretarako, beharrezkoa bada, jaietan Jaizkibel Konpainiako pertsonak Hondarribiko kaleetan ibiltzen direnean, jendeak haiekin portaera gizabidezkoa eta demokratikoa izan dezala eskatu behar du eta oraingo iritzi-egoera aldarazteko sentsibilizazio jarduera eta kanpainak egin behar ditu urte osoan, emakume eta gizonen berdintasuna onartzeko jarreretara iristeko, eta demokrazia eta bizikidetasun balioak herriko eguneroko bizimoduan barneratzeke.



**16/2005 GOMENDIOA, IRAILAREN 23<sup>ko</sup>A, PORTUGALETEKO UDALARI EGINA, KEXA SORTARAZI DUEN POLIZIA-JARDUERA IKERTZEN JARRAI DEZAN ETA “POLIZI KIDEGOEK KONTROL-TRESNAK EZARRI BEHARRA, AGENTEEN ARAUZ KANPO JARDUTEN DUTEN KASUETARAKO” GOMENDIO OROKORRA BETE DEZAN<sup>4</sup>. EZ DA ONARTU.**

Aurrekariak

1. Magrebtar batek erakunde honetara jo zuen Portugaleteko Udaltzaingoko bi agentek, iazko abenduaren 9an, herriko merkatuan kalez kaleko salmenta egiten ari zen lagun batekin zegoenean eman zioten tratuatik kexatzeko.

Kexagileak kontatu zigunez, udaltzainengana joan zen, bere laguna saltzen ari zen produktua ez zezaten atzeman eskatzera. Udaltzainetako batek honela erantzun omen zion eskaera horri: *“Mira el hijo de puta del moro este, se cree el listo de los moros”*. Adierazpen xenofobo eta lotsagabe horrengatik protesta egin zuenean, udaltzainak hauxe adierazi omen zion: *“Yo te llamo lo que a mí me sale de los cojones y tienes suerte de estar en la calle, porque si estuvieras en otro lugar te daba una paliza”*. Erantzun horrengatik berriz protesta egin ondoren, udaltzainei beren identifikazio profesionaleko zenbakiak emateko eskatu zien, baina haiek zenbakiak ukatu eta zera ihardetsi zioten: *“Te voy a dar una mierda. Si quieres mi número pasas por la comisaría”* eta *“Anda, mira este morito que ve muchas películas americanas, dale una hostia y enseñale lo que son los derechos aquí”*.

Interesdunaren bertsioaren arabera, udaltzainetako batek gero berriz erabili zituen esapide xenofobo eta lotsagabe horiek, hauxe esan baitzien bertara joan ziren bi patruilatako kideei: *“Mirar el hijo de puta éste de moro de mierda que es el listo de los moros”*.

Kexagilearen esanean, azkenean, lehenengo patruilako udaltzainek bera salatu zuten, agintaritzako agenteei eraso egiteagatik eta haiek iraintzeagatik, berak dioenez, eman zioten tratuatik protesta egin zuelako soilik.

---

4 EUSKADI. Ararteko. Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako. *Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2003*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2004. Eskura dago [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) orrialdean.

Geroago bertara joan ziren patruilen jarduerari ere bazegokion kexa. Interesdunak adierazi duenez, patruila horietako udaltzainak bi polizia-ibilgailutan iritsi ziren, sirenak piztuta, bera inguratu zuten eta identifikatu ondoren, ibilgailuaren agiriak eskatu zizkioten eta oker aparkatzeagatik salatu zuten. Hango ibilgailu guztiak egoera berean zeudela adierazi zienean, honako hau erantzun omen zioten: *“Nosotros denunciaremos a quien nos sale de los cojones y no te queremos ver más en Portugaleta”*.

2. Portugaleteko Udalera jo genuen, kexagileak salatutako egintzak iker zitzan eta helburu hori lortzeko gauzatu zituen jardueren berri eman ziezagun, baita ikerketaren emaitzaren berri ere.

Gure laguntza-eskaeran, horrelako kexak ikertu beharraz erakunde honek duen iritzia gogorazi genion udalari. Iritzi hori (...) zenbakiko aurreko espediente batean ere jakinarazi genion, bada, orduan ere, espediente honetan agertzen diren oinarritzko bi gaiak jarri zituzten gure iritziaren: bata, poliziaren tratu bidegabekoa, eta bestea, kasu hartan esku hartu zuten agenteek errespetu faltagatik kexagilearen kontra jarritako salaketa, kexagilearen ustez, poliziaren jarduera zalantzan jartzeagatik egina zela, ez bere jokoeragatik.

Era berean, “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorraren kopia bat ere bidali genizun<sup>5</sup>, eta, gure iritzian, kexaren trataera gomendioan azaldutako parametroetara moldatu behar zela adierazi genizun.

Azkenik, berriro adierazi genizun –lehen ere esan baikenizun hori, (...) kexa-espedientean–, kezkatuta geundela poliziaren jarduera zalantzan jartze hutsa, batzuetan, agenteek errespeturik eza edo obedientziarik eza bezala interpreta dezaketelako; halaber, balizko portaera horiei aurrea hartzeko, gure ustez zein tresna erabili behar diren azaldu genizun oster.

3. Gure eskaerari erantzunez, udalak udaltzainburuaren txosten bat igorri zigun, honako agiriokin batera: egintzak gertatu ziren egunean kidego horrek egindako zerbitzuen parte bat, lehenbizi esku hartu zuten bi agenteek kexagilearen kontra bideratu zuten atestaturia (arrazoi hau emanez: *“insultos-amenazas y una falta de respeto y consideración debida a los agentes de la autoridad”*), atestatuaren ondorioz gauzatzen ari zen hutsegite-epaiketaren ahozko ikustaldian agente horiek lekuko gisa agertzeko deia, eta interesdunak, eman zioten tratuagatik, ertzain-etxe batean agenteen kontra egin zuen salaketa.

Udaltzainburuaren txostenean, egintzak argitzeko burutu ziren jarduerak kontatu ziren, honela hain zuzen: *“Cuando se recibió la denuncia interpuesta por el ciudadano, con manifestaciones contrarias a las recogidas en el atestado,*

---

<sup>5</sup> EUSKADI. Ararteko. Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako, 451. orrialdea eta hurrengoak.

*por parte de esta Jefatura, y a pesar que del atestado policial no se deduce la existencia de irregularidad en la gestión policial, se procedió a investigar los hechos, llegando a la conclusión de que no existe ninguna infracción deontológica, elevándose un informe verbal a la autoridad competente. No obstante, los hechos están siendo objeto de un procedimiento penal y una vez emitida la sentencia se volverá a evaluar la calidad de la actuación policial”.*

Udaltzainek kexagilearen kontra jarri zuten salaketari buruz, txostenean, haiek beren eginkizunak betetzean ezagutzen dituzten arau-hauste penalak salatu behar dituztela adieraziz justifikatu zen haien jokaera. Hauxe argitu zen, gainera: *“la Policía Local de Portugalete tiene como práctica habitual el dar explicaciones sobre su actuación”.*

4. Gure aburuz, informazio hori ez zetorren bat udalari eskatu genionarekin, bada ez zuen ezer adierazi erakunde horrek egintzak argitzeko gauzatu zituen berariazko jardueraz, ezta haien edukiaz ere, horiek esplizituki eskatu genizkion arren.

Era berean, informazio horrek ez zuen ematen, guk uste, iritzia osatzeko beharrezko elementurik erakunde honek berez baloratu ahal izan zezan esku hartu zuten udaltzainek behar bezalako parametroen arabera jokatu zuten ala ez.

Horregatik, udalari laguntza galdatu genion berriro, honako hauek adieraz ziezazkigun: ea berariazko zein jarduera burutu zituen kexagileak salatutako egintzak argitzeko, eta zein egintza zehaztuta oinarritzen zen udaltzainburuak bere txostenean udaltzainen jokaeraz egin zuen balorazioa.

5. Udalak bidali zigun lehen informazioa jaso eta gero jakin genuen jurisdikzio penalak artxibatu egin zituela interesdunak udaltzainen kontra egin zuen salaketaren ondorioz bideratzen ari ziren aurretiazko izapideak, salatutako egintzak arau-hauste penalak ez zirela iritzi ziolako.

Orobat, udaltzainek errespetu faltagatik kexagilearen kontra bideratutako atestatua zela-eta gauzatu zen prozedura penalean, kexagilea udaltzainekiko errespetu faltagatik kondenatu zutela jakin genuen.

Alabaina, eskura genituen datuak aztertu ostean, ez genuen erabateko bat etortzerik nabaritu bi prozeduretan jurisdikzio penalari jakinarazi zitzaizkion egintzen eta kexa sortarazi zuten artean.

Datu horietatik ondorioztatu genuenez, esku hartu zuten udaltzainek bideratutako atestatuaren ondoriozko prozeduran, agiri hartan egindako salaketari zegokionez kexagileak izandako portaera epaitu zen, ez ordea kexagileak udaltzainengandik jaso omen zuen tratu bidegabea, nahiz eta horixe izan kexan azaldutako gai nagusia.

Interesdunak Ertzaintzari egin zion salaketaren ondoriozko jarduera judizialak direla-eta, gure ustez, egintza batzuek garrantzi penalik ez izateak ez zuen baztertzeko,

ezinbestean, beste era bateko erantzukizuna izateko aukera, diziplinazkoa adibidez, auzipetzeko parametroak ezberdinak baitira alor batean eta bestean. Eta ez zuen bazterten, halaber, udaltzainen portaera dagozkion jarduerazko jarraibideei egokitzaren ikuspegitik aztertzea.

Horregatik, prozedura judicial horiek ez ziren oztopo, guk uste, kexagileak salatutako egintzak ikertzeko, ezta ere salatutako polizia-jarduera diziplinaren ikuspuntutik aztertu eta bete beharreko parametroei egokitu ote zitzaien egiaztatzeko.

Horixe jakinarazi genion udalari bidali genion bigarren laguntza-eskaeran. Udaltzainburuaren txostenaren edukia ikusita, bigarren eskaera horretan ere azpimarratu genion pertsona batekin edo gehiagorekin istilua izan duten udaltzainek lekuko inpartzial eta objektiboen izaera galtzen dutela beraien portaera azaltzeko orduan. Gai horren gainean erakunde honek lehen aipaturiko gomendio orokorrean azaldu zuen irizpidea ere gogorarazi genion, izan ere, erakunde honen iritzian, gizabanakoen kexak edo salaketak ezin dira gaitzetsi edo baztertu gaiarekin zerikusi zuzena duten polizia-funtzionarioen bertsioa kontrakoa izate hutsagatik, eta kexa sortarazten duten egintzei buruz agenteek bideratzen dituzten atestatuek ezin dute balio beste ikerketa batzuk egiteko aukera baztertzeko, ezta ere poliziaren jarduerari buruzko iritzi bat atestatu horietan bakarrik oinarritzeko ere.

6. Bestalde, lehen aipatu dugun (...) zenbakiko kexa-espedientean, udalari eskatu genion –aipaturiko gomendio orokorrari jarraiki– adieraz ziezagula ea zenbatuz kontrolatzen dituzten udaltzainek beraiei kontra edo eraso egiteagatik, ez obeditzeagatik edo horien antzeko arau-hauste penalengatik jartzen dituzten salaketak, zenbait datu jakitearren: salaketen zergatia, udaltzainak zenbatero agertzen diren salatzaile gisa arau-hauste horiengatik atestatuetan, ea horrelako salaketak udaltzain edo patruila batzuetan metatzen diren, zein proportziotan eman diren zigortzeko epaiak.

Udaltzainburuak zera erantzun zigun gai honen gainean: “*consideramos que este control interno existe, aunque no suelen darse casos similares, pues, en general, los agentes sólo presentan denuncias en los juzgados cuando hay agresiones, con partes facultativos por medio (muy poco frecuentes)*”. Horregatik, bigarren laguntza-eskaera hori aprobetxatuz, polizia-arduradunek kontrol-sistema horren bidez azken urtean zer datu bildu zituzten galdetu genion, baita ere lortutako datuen arabera zein balorazio egin zuten kexa honen kasuan, eta ea balorazio horrek elementu garrantzitsurik gehitu zion kexagileak salatu zituen egintzen ikerketari.

7. Udaltzainburuaren beste txosten baten bidaliz erantzun zien udalak gure galderei. Txosten horretan, lehenbizi, egindako ikerketaren edukia adierazi zigun, eta kexa sortarazi zuten egintzak argitzeko burutu ziren jarduerak honako hauek zirela jakinarazi zigun:

“a) *Requerimiento verbal del Concejal Delegado de la Policía Municipal al Jefe de la Policía, interesándose por lo sucedido (...)*.”

- b) *El jefe, junto con el Concejal Delegado analizaron los hechos objetivos que proporcionaba la denuncia efectuada por el ciudadano ante la Er-zaintza.*
- c) *A continuación el jefe de la Policía tuvo una entrevista personal con los agentes intervinientes donde se reconstruyeron los hechos.*
- d) *Reunión con el Concejal delegado para volver a analizar toda la situación”.*

Udaltzainburuak udaltzainen jokaera zuzena izan zela ondorioztatzeko aintzat hartu zituen egintza zehatzei buruz, hauxe zioen txostenak:

*“Toda investigación consiste en recopilar información, testimonios y todo tipo de vestigios; y éstos son los presupuestos de hecho con los que se ha dispuesto para emitir el juicio de valor remitido al Ararteko. No podemos olvidar que los policías locales, además de funcionarios, tienen la condición de agentes de la autoridad. Y, en este sentido, el ordenamiento jurídico les reconoce imparcialidad y objetividad en sus observaciones y otorga a sus denuncias presunción de certeza y veracidad, concediéndoles valor probatorio a los hechos denunciados, salvo prueba en contra. Por estos motivos, no estamos de acuerdo con el juicio de valor efectuado por la institución de que los agentes implicados en un enfrentamiento pierden su calidad de testigos imparciales y objetivos al explicar su propia conducta. Ni estamos de acuerdo en la apertura de un expediente disciplinario, cada vez que un ciudadano haga un juicio valorativo del comportamiento de un agente de policía, sin presentar pruebas. No obstante, estamos de acuerdo en que no pueden rechazarse sin más las quejas o denuncias de los particulares por el mero hecho de que los agentes afectados proporcionen otra versión.*

*Para emitir el citado juicio de valor (anterior escrito de remisión) se ha tenido en cuenta la profesionalidad de los agentes, el buen juicio de los policías demostrado a lo largo de los años, su capacidad de análisis, su sentido de la observación, su comportamiento con el público, su presentación y educación, su autocontrol, su capacidad de mediación y su capacidad de trabajo en equipo. Por todo ello, y, ante la inexistencia de otros presupuestos de hecho (sólo el juicio de valor del reclamante de la queja) en contra de su actuación, llegamos a la conclusión que los agentes actuaron correctamente y, de su actuación se deduce de que no existe ninguna infracción deontológica ni disciplinaria (sic). En definitiva, no observamos que existan objetivamente datos que hagan sospechar la existencia de un trato indebido, xenófobo o irrespetuoso, por parte de los agentes”.*

Udalak salaketen kopurua kontrolatzeko jarri zituen prebentzio-tresnak erabiliz lortutako datuei buruz, txosten horretan adierazi zigun guk eskatutako denboraldian Udaltzaingo osoak zenbat salaketa jaso zituen udaltzainei ez obeditzeagatik, kontra

edo eraso egiteagatik edo horien antzeko arau-hauste penalengatik. Gainontzekoetatik bereiz agertzen ziren eraso batengatik egindako salaketak, eta horiek ez zirela patruila zehatz batzuetan metatzen jakinarazi zigun.

Datuok ez zetozen bat udaltzainburuak (...) espedientean eman zizkigunekin (“*en general, los agentes sólo presentan denuncias en los juzgados cuando hay agresiones*”), izan ere, arrazoi horrengatik egindako salaketak, azalpen berri horien arabera, salaketa guttien zati txiki bat baino ez ziren.

Bestalde, udalak honela baloratu zituen aipaturiko kontrol-sistemari esker lortutako datuak kexa zehatz honetan: “*ha sido altamente positiva, pues a lo largo del año son miles las actuaciones de la policía y, en su conjunto, demuestran una actitud de servicio hacia la comunidad, más allá de lo exigido*”.

Paradoxikoki, informazio hori ematearekin batera adierazi zigun Udaltzaingoak ez daukala giza baliabide nahikorik horrelako prebentzio-kontrola egiteko eta kexak ikertzeko “oinarritutako susmorik edo egintza zehatzik izan gabe, balorazioak salbu”. Beraz, informazio hori kontraesanean dago, berriro ere, (...) espedientean kontrol-tresna horiek izateaz eman zizkigun azalpenekin.

8. Azkenik, espediente hau aztertzeke balio baitu, zera azpimarratu nahi dugu: kexa sortarazi zuen polizia-jarduera argitzeko burututako ikerketaren edukiaz eta jarduera hura zuzena izan zela ondorioztatzeko aintzat hartu dituen egintza zehatzez udalak eman digun informazioa –lehen transkribatutakoa– (...) espedientean atera genituen ondorioei erantzuteko bidali zigun azalpenaren ia berdin-berdina da, hitzez hitz hartuta.

Aldi hartan iruditu zitzaigun kexari eman zitzaion trataera ez zitzaiela egokitzen “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrean aipatu genituen parametroei, bada eragindako agenteen bertsioa jasotzea izan zen egintzak argitzeko egin zen ikerketa bakarra, eta jokaera hori ez zegoen justifikatuta. Gauza bera gertatu da, gure aburuz, oraingo kasu honetan, aurrerago arrazoituko dugunez.

### Gogoetak

1. Herritarren eskubideen kontra gauza daitezkeen jardueri aurea hartzea dagokio Arartekoari. Lan hori betetzean, erakunde hau hainbat gomendio egiten ari zaie euskal administrazio publikoen mendeko polizia-kidegoei. Besteak beste, adierazi die agenteren batek agian oker jokatu duela jakiten duten aldi orotan, polizia-arduradunek ikertzeko barne-prozedura bat hasi beharra daukatela ofizioz, zer gertatu den argitzen saiatzeko, jarduera hori bidezko den moduan burutu den egiaztatzeko, eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartzeko, diziplinazkoak edo bestelakoak.

“Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrak –aurreko epigrafean aipatu dugu– zehatz-mehatz

azaltzen du gai horretaz dugun iritzia, iritzi horren oinarriak eta polizia-arduradunek, agian arauz kontra jokatu dela jakiten dutenean, gure ustez bete behar dituzten portaerazko jarraibideak.

Espediente honi buruz, gomendio hartan adierazi genuen polizia-arduradunek lehen zantzu gisa hartu behar dituztela kexa hauek, beti ikertu eta argitu behar dituztela, argiro gezurrezkoak edo sinesgaitzak direnean izan ezik.

Era berean, azpimarratu genuen salatutako egintzen ikerketa ezin dela mugatu egintzak burutu zituzten agenteek emandako bertsioa ontzat ematera bakarrik, edo gertatutakoaz kontaktzen dutena biltzera bakarrik, jokaera hori kexa erabat gaitzes-tearen parekoa izango litzatekeelako.

Orobat, azaldu genuen moduan, kexak eragindako agenteen kontrako bertsioa edo salatutako egintzekin bat ez datorren polizia-atestatua izateak ez du balio, berez, kexa ez onartzeko, beste ikerketa-jarduerarik egitea baztertzeko edo polizia-jardueraren egokitasunari buruzko balorazio bat horretan soilik oinarritzeko.

Azkenik, honako hau nabarmendu genuen: gure iritzian, kexak eragindako agenteek galdu egiten dutela lekuko inpartzial eta objektiboen izaera beraien portaera azaltzeko orduan, eta, horregatik, beren adierazpenek ezin dutela izan legeak beste alor batzuetan –zigortzeko alorrean, adibidez– berariaz onartzen dien zinezkotasun presuntzioa.

2. Hala ere, Portugaleteko Udalak eman digun informazioak –aurreko epigrafean horren berri zehatza eman dugu–, agerian jartzen du herri horretako polizia-arduradunen portaera ez zaiola egokitu, kexa honetan, goian aipatutako gomendio orokorrari.

Izan ere, informazio horren arabera, gaiarekin zerikusia duten agenteen bertsioa jasotzea izan da kexagileak salatu zituen egintzak argitzen ahalegintzeko egin duten ikerketa-jarduera bakarra. Bertsio hori ez digute ezagutarazi eta, dirudienez, salatazailaren bertsioaren kontrakoa da.

Gainera, azalpen ofizialei jarraiki, salatutako udaltzainen ibilbidean eta lanbide-dohainetan eta haien deklarazioan bakarrik oinarritzen da udalak udaltzainen portaera zuzenaz egin duen balorazioa –gertatutakoaren froga-balioa eman zaio deklarazio horri, agintaritzaren agenteek administrazio alorreko lege-hausteez salaketetan idazten dituzten egintzei legez onartzen zaien egiazkotasun-ustean eta kexagileak horren kontrako frogarik ez izatean oinarrituz–.

Alabaina, adierazi dugunez, erakunde honen iritzian, salatutako egintzetan parte hartu zuten agenteen deklarazioa lortzera mugatutako ikerketa ez da nahikoa gertatutakoa argitzeko, ezta ere eztabaidaturiko polizia-jardueraren zuzentasunari buruzko balorazio bat oinarritzeko, eta, izatez, kexa ez onartzearen pareko zerbait da.

3. Portugaleteko Udalak bere jokaera azaltzeko eman digun informazioaren azpian dau-den arrazoiek ez dute justifikatzen, guk uste, aipatutako ikerketa kexarekin zerikusia

duten agenteen bertsioa eskatzera mugatu izana, eta bestelako ikerketa-jarduerarik ez burutu izana.

Lehen ere adierazi dugunez, legeriak zigortzeko prozeduraren alorrean agintaritzaren agenteen deklarazioei, egoera jakin batzuetan, ematen dien egiazkotasun-ustea ez dago aplikatzerik, gure iritiz, argitu beharrekoa agenteen beren portaera denean. Horren gainean, berriro diogu, kasu horietan ez gaude administrazioaren zigortzeko eskubidearen eremuan, baizik eta salatutako agenteen portaera argitzera bideratuta dauden ikertzeko barne-prozeduren eremuan, eta, prozedurotan, agenteei beren zereginak betetzean onartzen zaien alderdikierarik eza eta objektibotasuna izugarri ahulduta geratzen dira, gaian duten interes pertsonalarengatik.

Polizia-jarduera jakin batez kexu denak bere salaketa bermatzeko edo eragindako agenteen bertsioa indarrrik gabe uzteko frogarik ez emateak ezin du bazterrarazi gero ikerketa bat egitea. Behin eta berriz adierazten ari garenez, gure aburuz, argiro gezurrezkoak edo sinesgaitzak diren kexak bakarrik errefusa daitezke, eta kalitate horiek ez dira agertzen, lehen begiratuan, kexagileak gure iritzipean jarri duen kasuan.

Iritzi bera dugu jardueran parte hartu zuten agenteen ibilbideaz eta kualifikazio profesionalaz. Gai horren gainean, ostera adierazi behar dugu polizia-jarduera jakin bat beharrezko jarraibideei egokitu ote zaien argitzeko asmoz barruko ikerketa bat hastea ez dela ulertu behar, inolaz ere, agente horien profesionaltasuna zalantzan jartzea bezala, eta ez duela esan nahi salaketari erabateko sinesgarritasuna edo balio nagusia eman zaionik. “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrean adierazi genuenez, polizi lanaren alderdi kualitatiboen prebentziorako eta kontrolerako tresna beharrezko bat besterik ez da, eta pauso saihestezina, abusua egin delako aukera gutxienezko bermearekin baztertu ahal izateko.

Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile batek ezin du onartu ikerketarik ez egiteko justifikazio gisa behin eta berriz baliabiderik eza argudiatzea. Gogoratu behar dugu justifikazio berbera eman zigula udalak (...) zenbakiko espedientean –gomendio honetan zenbaitetan aipatu dugu espediente hori–.

Baldin eta udalari zeregin horiek egoki bete ahal izateko bere oraingo baliabideak nahikoak ez direla iruditzen bazaio, egoera hori konpontzen saiatu behar duelakoan gaude, oztopo garrantzitsu hori gainditzeko beharrezkoak diren jarduerak burutuz. Gure ikuspegitik, ikerketa ekiditeko beti arrazoi hori ematea da, hain zuzen, ezin egin daitekeena, aldi berean egoera konpontzeko beharrezko baliabideak jarri gabe.

4. Arartekoaren ustez, honako hau ez da Portugaleteko Udalak Udaltzaingoaren jarduerengatik jasotako kexei eman dien erantzuna gomendio orokor horretan adierazitako jarraibideekin bat ez datorren lehen aldia.

Aurrekarietan agerian jarri dugun bezala, ondorio bera ateratu genuen (...) zenbakiko espedientean. Espediente hartan, herri horretako biztanle bat trafikoko gertakari



batean poliziak emandako tratuaz kexatu zen, eta adierazi zigun, bere ustez, gertakarian parte hartutako agenteek beraren kontra egin zuten salaketa –agintaritzari errespeturik ez erakusteagatik– neurritz gaineko erreakzioa izan zela, berak azalpenak eskatu zizkielako egina.

Orduan, orain aztertzen ari garen kasuan bezalaxe, zera iruditu zitzaigun: informazio ofizialaren arabera, inplikaturako udaltzainen beraien bertsioa lortzera mugatu zela egintzen ikerketa, eta jokaera hori ez zegoela justifikatuta.

Gainera, espediente hau aztertzean egiaztatu dugunez, udalaren polizia-arduradunek berdin-berdin tratatu dituzte bi kexok, eta ez batean ez bestean ez dira bete aipaturiko gomendio orokorrean proposatu genituen jarraibideak. Hori dela eta, komenigarria iruditu zaigu udalari gomendio berezia egitea, horrelako salaketei eman behar dien erantzuna, nahitaez, gomendio hari egokitu behar zaiola berriz adierazteko.

Orain aztertzen ari garen kasu zehatzean, hori egiteko ezinbestekoa iruditzen zaigu kexan salatutako egintzak ikertzen jarraitzea –eragindako udaltzainen deklarazioaren hasitakoa–, eta hori lehenbailehen egitea, bada, gomendio orokorrean azaldu-takoaren arabera, ikerketa berehala egitea erabakigarria da berorrek duen helburua –gertatutakoa argitzea– arrakastaz erdiesteko.

5. Bestalde, kexa sortarazi duen polizia-jarduera zuzena izan dela ondorioztatu ahal izateko udalak aintzat hartu dituen egintza zehatzei buruz, informazio orokorra bidali digula ohartarazi behar dugu. Hain orokorra ezen informazio horren enuntziatua ia hitzez hitz bat dator (...) zenbakiko espedientean salatu ziren egintzak ikertzean aterako ondorioak justifikatzeko eman zigunarekin, aurrekarietan aipatu dugunez.

Ez dakigu polizia-arduradunek, orain arte egindako bilaketei esker, ikerturiko egintzei buruzko datu zehatzak lortu ahal izan dituzten, bada, esaten ari garenez, orain arte eskuratu digun informazioaren formulazioak galarazi egiten du halakorik jakitea. Gainera, itxuraz egin den ikerlan mugatu horren eduki zehatzik ere ez digute helarazi.

Nolanahi ere, zera argitu behar dugu: kexa hau sortarazi duena bezalako kasuetan, erakunde honek jakin beharra dauka polizia-arduradunek zein egintza zehatz biltzen dituzten dagokion ikerketan, eta zein egintza hartzen dituzten oinarritzat aztertutako polizia-jarduera baloratzeko, baita burutu diren ikerketa-izapide guztien edukia ere. Osterantzean, gure lana egin ahal izateko, ez genituzke iritzia osatzeko beharrezkoak diren elementuak izango, eta ontzat jo beharko genituzke eragindako administrazioak bidalitako balorazioak, horiek kontrastatzeko inongo aukerarik izan gabe.

6. Aurrekarietan azaldu dugunez, Portugaleteko Udalak informazioa bidali digu “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorra nola betetzen duen azaltzeko, udaltzainek beraiei kontra edo eraso egiteagatik, ez obeditzeagatik edo antzeko arau-hausteengatik egiten dituzten salaketak kontrolatzeari dagokionez. Informazio horrek agerian uzten du herri horretan oraindik ez direla ezarri kontrol hori gauzatzeko asmoz gomendioan

aipatu genituen tresnak. Gure iritziz, egintza hori udaltzainburuak berak inplizituki onartu du, sistema hori ez ezarri izanaren justifikazio gisa egungo baliabide urriak aipatu dituenen.

Gai horren gainean espediente honetan eman dizkiguten datu berriak kontraesanean daude, beraz, udaltzainburuak hasieran (...) zenbakiko espediente horretaz eman zizkigun azalpenekin, kontrol hori egon bazela adierazi baitzigu.

Egiaztapen horrengatik, eta, azken espediente honetan, halako arau-hausteengatik salaketen zergatiaz lehen eman ziguten informazioaren eta orain helarazitakoaren artean desadostasunak ikusi ditugunez gero, udalari gogorarazi behar diogu lankidetzeta eta leialtasun printzipioak bete behar dituela erakunde honekin dituen harremanetan, eta puntu honetan ere bete behar duela gomendio orokorrean adierazitakoa, orain bertan hori egitea eragozten omen dioten trabak kentzeko beharrezko jarduerak burutuz.

Horrengatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **16/2005 GOMENDIOA, irailaren 23koa, Portugaleteko Udalari egina**

Kexagileak salatutako egintzak ikertzen jarrai dezala, “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrean adierazitako parametroak erabiliz, eta horretarako gauzatzen dituen jardueren berri eman diezagula.

Udaltzainek agian arauz kontra jokatu dutela salatzen duen kexaren bat jasotzen duenean, gomendio horretara molda dezala bere jokaera.

Beharrezkoak diren baliabideak jar ditzala, gomendio berean aipatu genituen polizi zerbitzuaren kalitatea kontrolatu eta ebaluatzeko prebentzio-sistemak eskura izate aldera.

**17/2005 GOMENDIOA, URRIAREN 27<sup>koa</sup>, BILBOKO UDALARI EGINA, BIDERATU DITUEN TRAFIKOKO ZIGOR-PROZEDURETAN JARRITAKO ZIGORRAK BALIORIK GABE UTZ DITZAN, ETA, HALA BADAGOKIO, KONTZEPTU HORREGATIK BILDUTAKO KOPURUAK ITZUL DITZAN. EZ DA ONARTU.**

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoari azaldu zion, azter zezan, Bilboko Udalak (...) eta (...) erreferentziekin identifikatu zituen zigor-prozedurak izapidetzeko modua.

Kexagileak adierazi zigunez, ibilgailuaren titularrak ez zuen prozedura horien berri jakin zigortzeko bi erabakiak jakinarazi zizkioten arte; horrek eragotzi egin zion salaketak egin zirenean ibilgailua bere kargura zeukan pertsona garaiz identifikatzea, eta, azken batean, bi arau-hausteei aurre egitera behartu zuen.

2. Gure lehen informazio-eskaerari erantzunez, Herritarren Segurutasun eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkariak administrazio-espeditenteen kopia bat bidali zigun, baita burututako jarduerak deskribatzen zituen txosten bat ere.

Horrela, (...) prozedura 2003ko urriaren 17ko salaketaren bidez hasi zen; interesdunari berari jakinarazten ahalegindu ziren azaroaren 5ean eta 7an, 12:40ean bi kasuetan, eta bietan alferrikakoa izan zen, ez baitzegoen jakinarazpenaz arduratzeko inor. Ez dago egiaztatuta postontzian, dagokion moduan, jakinarazpena iritsia zela ohartarazteko agiria sartu zenik. Geroago, salaketa azaroaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, baina ez dakigu jakinarazpena ibilgailuaren titularra bizi den herriko udalaren iragarki-taulean jarri zen ala ez, espeditentean ez baita halakorik aipatzen.

Azkenik, Posta Zerbitzuak 2004ko urtarrilaren 31ko zigor-erabakia entregatu zuen.

(...) prozedurari dagokionez, berriz, salaketa 2003ko abenduaren 18an agertu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, azaroaren 24an eta 26an interesdunari berari jakinarazteko bi ahalegin egin ostean, 12:45ean eta 12:40ean hurrenez hurren, alferrikakoak biak ere, bizilekuan inor ez baitzegoen. Espeditentean ez da agiriz egiaztatu postontzian jakinarazpena iritsia zela ohartarazteko agiririk sartu zenik, ezta udalaren iragarki-taulan argitaratu zenik ere.

Zigorraren jakinarazpena Posta Zerbitzuak 2004ko urtarrilaren 31n egindako entregaren bitartez egin zen.

Otsailaren 4an, pertsona zigortuak ibilgailuaren gidaria identifikatu zuen, Herritarren Segurtasun Zerbitzuko zuzendariak orduz kanpokotzat jo zuen izapide batean.

3. Dokumentuen azterketak agerian jarri zuen hainbat akats izan zirela salaketen jakinarazpena gauzatzeko orduan. Halaxe adierazi genuen Bilboko Udalari igorri genion idazki luze batean, non, zigorrak baliorik gabe utzi behar zirela argudiatzeaz gain, gure planteamenduaren berariazko balorazioa eskatu genion.

Herritarren Segurtasun eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkariak udalaren jarduera beronetsi zuen, guk emandako arrazoiak aztertu ez zituen txosten orokor baten bidez.

### Gogoetak

1. Oro har eta kexa hau aztertzen hasi baino lehen, herritarrek nahiz herri-aginteez legeria bete beharra daukatela gogorarazi behar dugu.

Exijentzia hori trafiko-arauak betetzeari ere badagokio. Arau horiek interes berezia dutela onartu behar da, gure oraingo gizarte-bizitzako alderdi funtsezkoetako bat arautzen dutelako.

Horregatik, printzipio horiek oro har onar daitezten, ezinbestekoa da ez bakarrik herritarrak horretaz jabearazteko etengabe ekintzak burutzea, baizik eta baita ere arau-hausteak modu egokian eta garaiz gaitzestea.

Era berean, zigor-prozedura bat bideratetik datozen ondorio larriak kontuan izanik, legezko formaltasunak zorrotz bete daitezten exijitu beharra dago, formaltasunok ez baitira helbururik gabeko baldintza-gehitze hutsa, ezpada administrazioaren jardura zigortzailearen kontra herritarrek duten bermerik garrantzitsuena.

Ildo horretan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak– hauxe ezartzen du printzipio orokortzat: herri-administrazioen zigortzeko ahalmena erabili ahal izateko, horretarako propio aurreikusita dagoen prozedura aplikatu beharko da; beraz, ezin izango da zigorrik ipini prozedura hori bideratu gabe.

2. Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari 2002. urteaz paratu zion txostenean<sup>6</sup>, gomendio orokor bat egin zuen, honako hau aztertzeko: trafiko, ibilgailu motordunen

<sup>6</sup> EUSKADI: Ararteko. VI. Atala. Gomendio orokorrak: 4. Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiaturik egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean. *Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2002*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2003. Eskura dago [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) web orrialdean.

zirkulazio eta bide segurtasunaren alorrean postaz eginiko jakinarazpenek zein baldintza bete behar dituzten jakinarazpen-ahaleginak behar bezala saiatuta egin direla uler dadin, hartzailea bizilekuan ez dagoenean. Han adierazitakoari lotzen gatzazkio kexa honen erreferentzia-marko orokorrari dagokionez.

3. Zigortzeko prozedura batean, jakinarazteko izapideak berebiziko garrantzia hartzen du, izan ere, araudian agindutako baldintza guztiak zehatz-mehatz betez ziurtatzen da interesdunak baduela prozeduraren berri, eta, orduan, bere burua babesteko eskubidea erabil dezakeela.

Konstituzio Auzitegiak askotan eman izan du gai horretaz duen iritzia. Esate baterako, urtarrilaren 13ko 1/1983 Epaian (RTC 1983\1) zera baieztatu zuen:

*“De todos los preceptos que las leyes procesales dedican a los actos de comunicación con las partes (notificaciones, citaciones, emplazamientos) y aun de los que se ocupan de los medios de impugnación dirigidos a remediar los vicios ‘in procedendo’, se advierte que el propósito del legislador es, ante todo, conferir a aquellas las garantías para la defensa de sus derechos e intereses, de modo que la notificación, citación o emplazamiento sirva a su objetivo de que, dando noticia suficiente del acto o resolución que la provoca, sirva para que el notificado, citado o emplazado pueda disponer lo conveniente para defender en el proceso los derechos o intereses cuestionados, por cuanto de faltar tal acto de comunicación o adolecer de nulidad equivalente a su falta, el interesado podría verse imposibilitado para ejercer los medios legales suficientes para su defensa.”*

Edo, berrikiago, hauxe adierazi du 2002ko urriaren 28ko Epaian (RTC 199\2002):

*“...el cumplimiento de los requisitos que las Leyes procesales exigen para practicar el emplazamiento, citación o notificación ofrecen relevancia constitucional y son garantía de que el emplazado, citado o notificado conocerá el acto o la resolución que le afecta y podrá, en consecuencia, ejercer adecuadamente su derecho de defensa.”*

Horregatik, jurisprudentziak ardura handiz jokatzeko eskatzen du prozesu bat jakinarazteko egintzak gauzatzeko orduan, uste baitu prozedura-legeek jakinarazpenak egiteko ezartzen dituzten baldintzak ez direla betekizun formal hutsak, baizik eta babesik eza galarazteko eta Konstituzioko 24. artikuluan onartutako eskubideak bermatzeko funtsezko elementuak.

Orduan, jakinarazpenaren funtsezko helburua interesdunari berari zuzenean egintza jakin bat ezagutaraztea denez gero, administrazioak ardura osoa eta beharrezko baliabideak erabili behar ditu, arrazoizkotasunaren mugen barruan, helburu hori lortu ahal izateko.

Dena den, araudiak berak ezartzen ditu gutxienezko jarduera-baldintza batzuk jakinarazpen pertsonala hobetzearren, interesdunak bere jarrera babestu ahal izango duela bermatzeko metodo ezin hobe gisa, eta baldintzok betetzea saihestezina da.

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak–, zera ezartzen du 59.2 artikuluan: *“Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu. Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiaturiko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.”*

Horren antzeko agindua ematen du posta zerbitzuen prestazioa arautzen duen Araudiak, 42. artikuluan (1.829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa).

Auzitegi Gorenak oraintsu –2004ko urriaren 28an– eman duen Epaian (RJ 2004\6594) ordu-diferentziari dagokion baldintza interpretatu du, eta legezko doktrina hau finkatu:

*“Que, a efecto de dar cumplimiento al artículo 59.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reformada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, la expresión en una hora distinta determina la validez de cualquier notificación que guarde una diferencia de al menos sesenta minutos a la hora en que se practicó el primer intento de notificación.”*

5. Bestalde, posta zerbitzuen prestazioa arautzen duen Araudiak honako hau agintzen du gainera: Posta Zerbitzuak egindako bi ahaleginetatik batek ere arrakastarik izan ez badu, jakinarazpena zerrendan gorde dadila, hilabetez gehienez ere, eta hartzaileari hura iritsi dela ohartarazteko agiri bat utz diezaiotela bere etxeko postontzian. Oharpen-agiri horretan idatzita agertu behar du jakinarazpena non dagoen, noiz arte jaso daitekeen, baita bigarren jakinarazpen-ahaleginari buruzko zertzeladak ere.

Auzitegi Gorenak 1997ko abenduaren 12ko Epaian adierazi zuenez (RJ 1998\2264), *“funtsezkoa da jakinarazpen-ahalegina bi aldiz egin dela eta jakinarazpena iritsi dela ohartarazteko agiria –dagokion postontzian sartuz– jaso dela frogatzea; Posta Zerbitzuak frogatu behar du hori”*. Gainera, Auzitegi Gorenaren iritziz, administrazioari jakinarazpena itzultzen diotenean, iraungirik dagoelako, hark, besteak beste, *“administrazioaren espedientean sartu behar du Posta Zerbitzuaren ziurtagiria, non ziurtatuko baita noiz eta zein ordutan eman zen jakinarazpena iritsi zela ohartarazteko agiria eta, hala badagokio, hartzailea edo hark baimendutako pertsona ez zela joan postetxera gutuna jasotzera”*. Azkenik, ondorio hau ateratzen du: administrazioak egintza horiek frogatu dituenen bakarrik jo daitekeela baliozkotzat iragarki bidezko jakinarazpena.

6. Goian aipaturiko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua ediktu bidezko jakinarazpena jotzea baimentzen du, baldin eta norberari jakinarazten saiatu ondoren, jakinarazterik lortu ez bada.

Beraz, ediktu bidezko jakinarazpena egin ahal izateko, ezinbestekoa da aldez aurretik norberari jakinarazten saiatu izana, araudiak ezartzen dituen baldintza formal eta material guztiak betez. Horregatik, baldintzok zuzen bete ez badira edo horiek guztiak justifikatu ez badira, jakinarazpena baliogabetzat jo behar da.

7. Aztertzen ari garen prozeduretan, salaketak interesdunari berari jakinarazteko orduan, ez ziren bete legezko baldintzak, izan ere, alde batetik, jakinarazpenen bi ahaleginen orduen artean, 0 eta 5 minutuko aldeak izan ziren, hurrenez hurren, eta bestetik, ez zen egiaztatu postariak postontzian jakinarazpenak iritsi zirela ohartarazteko agiriak sartu zituenik.

Ondorengo ediktu bidezko jakinarazpenek ez dute antzemandako akatsak zuzentzeko ahalmenik, eta, gainera, ez dugu aurkitu jakinarazpenak udalaren iragarki-taulan argitaratu zirela egiaztatzen duen agiririk ere.

Beraz, jakinarazpen horiek arauz kanpokoak izan zirenez gero, salaketek ezin dute inolako eraginkortasunik izan zigor-prozedurak hasteko egintza gisa, eta, hortaz, nahitaez zalantzan jarri beharra dago jakinarazpen horien baliozkotasuna bera.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **17/2005 GOMENDIOA, urriaren 27koa, Bilboko Udalari egina**

Baliorik gabe utz ditzala (...) eta (...) zenbakiekin bideratutako trafikoko zigor-prozeduretan jarritako zigorrak eta, hala badagokio, itzul ditzala kontzeptu horregatik bildutako kopuruak.

**18/2005 GOMENDIOA, AZAROAREN 21EKOA, PORTUGALETEKO UDALARI EGINA, UDAL ERROLDAN IZENA EMATEKO ESKABIDEEI BERARIAZKO EBAZPEN BATEN BIDEZ ERANTZUN DIEZAIEN, BENETAN HERRIAN BIZI DIREN PERTSONAK ERROLDA DITZAN ETA, OSTATU GABEZIARI AURRE EGITEKO, GIZARTEKINTZA BAT GARA DEZAN.**

Aurrekariak

1. Portugaleteko Udalak ez zion erantzun (...) eta (...) eta beren familiek erroldatzeko egin zuten eskabideari eta, hortaz, ez zeuden erroldatuta. Horrexek eragin zuen kexa. Familia horiek Portugaleten bizi zirenez gero, erroldatzea eskatu zuten 2004ko maiatzaren 7an, eta berriro 2004ko ekainaren 29an, baina ez zuten erantzunik jaso.

Behin kexa bideratzeko onartuta, erakunde honek informazioa eskatu zion udalari. Erantzunean zera adierazi zigun: *“resulta inviable la aceptación de la petición de empadronamiento ya que en el municipio de Portugalete no existen espacios habilitados para acampada de vehículos no considerándose apto para residir el interior de un vehículo, por carecer de las mínimas condiciones de habitabilidad”*.

2. Horri erantzunez, zenbait gogoeta helarazi genizkion udalak benetan herrian bizi diren pertsonak erroldatzeko legez duen betebeharrak eta egiten dizkioten eskabideei –esaterako, errolda-eskabideei– erantzun beharraz, eta horiei zer zeritzen galdetu genion.

Udalak, bere aldetik, honako hau ihardetsi zigun: *“las personas a las que se hace mención en su escrito, figuran de alta en el padrón de otro municipio, sin que hayan reiterado ante el ayuntamiento su petición inicial de empadronamiento en vehículo, por lo que actualmente la petición cursada en su día por aquellas carece de objeto”*. Beste alderdi batzuei dagokienez, lehen esandakoa bera adierazi zuen, alegia, ibilgailu baten barrualdea ez dela toki egokia ohiko etxebizitza gisa erabiltzeko, ez baititu gutxienezko bizigarritasun-baldintzak.

Udal horren erantzuna ikusita, Ararteko erakundeari beharrezkoa iruditzen zaio gogoetok helaraztea:



### Gogoetak

1. Ezer baino lehen, adierazi beharra dago udalak denbora luzea hartu duela gure informazio-eskaerei erantzuteko, keixaren biderapenean hainbat errekerimendu egin dizkiogula eta ez duela bete otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– ezarritako betebeharrak hau: lehentasunez eta berehala bidaltzea eskatzen zaizkion datu, agiri, txosten edo argibide guztiak.
2. Udalak ez zion ihardetsi (...)k eta (...)k erroldatzeko egin zioten eskabideari. Adierazi genuenez, jokatzeko modutzat isiltasuna erabiltzeak beren eskubideak babesteko oso egoera txarrean uzten ditu administratuak. Administrazioak erantzun beharra dauka, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Errolda-eskabideei erantzun ez dienez gero, herritar horiek beren eskubideez inolako ziurtasunik ez dutela utzi ditu, eta eragotzi egin die erroldan izena emateko duten betebeharrak betetzea [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (TAOL), 15. artikulua]: *“Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du bere burua”*.
3. Udal erroldan erroldatuta ez egoteak zaildu egin du Portugaleteko pertsona horien egonaldia, eta azkenean handik joatea erabaki dute.

Ilbilgailuetan bizi diren atzerritarrak erroldatzea ez onartzeak Arartekoaren hainbat gomendio eragin ditu; haietan, herritarrak legez erroldatu beharra daukala gogorarazi zion udalari. Udal erroldaren izaera juridikoak, bere helburuak eta zereginak galarrak egiten dute udal kudeatzaileak pertsonen erroldatze-eskubidea mugatzen duten jardueraren bat gauza dezan. Atzerritarrek erroldatzeko betebeharrak eta eskubideak dute, eta udalek udalerrian bizi diren atzerritarrak erroldatu behar dituzte eta haiei buruzko informazioa eguneratuta eduki behar dute [Espainian atzerritarrek dituzten askatasun eta eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko lege organikoaren (LOEX) 6. artikulua]. TAOLen 17. artikuluan eta Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren (BLMA) 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalak errolda osatu, eguneratu, berrikusi eta zaintzeko eskumena du. Beraz, udalak erregistro hori osatu eta eguneratuta mantendu beharra dauka, erroldak herriko benetako biztanleria isla dezan. Gainera, edozein pertsonak erroldatzeko duen betebeharrak ez betetzea zigortu egin daiteke, BLMAren 107. artikuluan adierazten denez.

Toki erregimeneko araudiak (TAOLen 16.etik 18.era bitarteko artikulua) erroldatzeko prozedura arautzen du. Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudian, II. tituluak, egiaztatzeko eskumenak ezartzen dira. Eskumen horiek Estatistika Institutu Nazionaleko lehendakari andrearen eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren 1997ko uztailaren 4ko Erabakian arautu dira, eta errolda osatu eta eguneratzeko orduan zein prozedura erabili behar den argitzen dute. Erroldatze Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek egin dizkioten kontsultei –adibidez, 2004ko abenduaren 1eko bileran– emandako erantzunek ere argitzen dute, halaber, erroldaren kudeatzaileak dituen eskumenen edukia, herrian bizi diren pertsonen erroldan alta emateko. Eskumenok zerikusia dute erroldaren administrazio-erregistro izaerarekin, bada erroldatzeak

ez dakar bertan azaltzen diren datuekin lotutako ondorio juridikorik, baizik eta bakar-bakarrik legeak biztanle maila lortzea dela-eta ezartzen dituen ondorioak (TAOLen 15. artikulua), eta errola, jakina, agiri publiko fede-emaile da bizilekua egiaztatu behar den administrazio-ondorio guztietarako (TAOLen 16. artikulua). Horregatik, hala araudiak nola aipatu ditugun jarraibideek erroldatzeko betebeharra agintzen dute behin eta berriz, etxebizitzaren titulartasunari buruzko eztabaida juridiko-pribatuak edo bizilekuari dagozkion zertzelada fisikoak, higiene edo osasunekoak edo bestelakoak kontuan hartu gabe.

Are gehiago, karabana batean erroldatzeko aukera ere aurreikusi da. Horrela, 1997ko uztailaren 4ko Erabakian bertan zera adierazten da: *“En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas, etc. e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el padrón, ya que la realidad es en ocasiones así”*. Erabaki horrexetan alegiazko bizileku bat erabiltzea ere aurreikusi da, baldin eta aterperik gabeko pertsona bat normalean herri batean bizi bada eta dagozkion gizarte-zerbitzuek ezagutzen badute. Beraz, karabana batean bizi den pertsona batek erroldan izena ematea bat dator erroldari buruzko araudian ezarritakoarekin eta, izatez, aurreikusita dago, “batzuetan halakoxea baita errealtatea”. Orduan, ezin zaio inolako eragozpenik jarri herri batean egiaz bizi diren pertsonak erroldatzeari. Bestalde, erroldan izena emateak ondorio garrantzitsuak ditu eskubideak gauzatzeko. Erroldatuta dauden atzerritarrek osasun-laguntza jasotzeko eskubidea dute (LOEX, 11. artikulua). Erroldatzeari esker, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea gauza daiteke (LOEX, 22. artikulua) eta udalek kudeatzen dituzten gizarte zerbitzu eta prestazioak jaso daitezke, erroldatzean biztanle maila lortzen da, esan dugunez, eta horrek funtsean TAOLen 18. artikuluan ezarritako eskubide eta betebeharren titular izatea dakar berekin.

4. Aurreko gogoetei buruz, udalak behin eta berriz erantzun digu “ibilgailu baten barrualdea ez dela ohiko bizimodua egiteko tokia, gutxienezko bizigarritasun baldintzak ez dituelako”. Portugaleteko Hiri-antolamendurako Plan Nagusiko ordenantza eta arauetan ezarrita dauden bizigarritasun-baldintzak eraikinei dagozkie; beraz, ibilgailu batek inoiz ezin izango ditu bete araudi horretan aurreikusitako baldintzak. Beste alde batetik, gutxienezko bizigarritasun-baldintzak ez izateak ezin du galarazi udalaren erroldan sartzea, izan ere, araudian, Hiri-antolamendurako Plan Nagusian ezarritako bizigarritasun-baldintzak ez betetzea ez dago erroldatzea ukatzeko arrazoi gisa aurreikusita.
5. Erroldan izena ematea, jurisprudenzian izan duen garapenaren arabera, bizilekua aske aukeratzeko eskubideari lotzen zaio, eskubide hori bizileku-askatasunerako eskubidearen zati bat baita. Erkidegoko gainontzeko kideen eskubide-askatasunak errespetatu daitezkeen legeak ezarri dituen mugei lotuta dago eskubide hori, baita ordena publikoari eta guztien ongizateari buruzko eskakizunei ere.

Beraz, mugak jar dakizkioke bizileku-askatasunerako eskubidearen erabilerari. Udalak, udalerrriaren lurraldea era ordenatuan erabiliko dela bermatzeko dituen eskumenak baliatuz, (TAOLen 25. artikulua), lurralde hori erabiltzeko hainbat baldintzapean jar ditzake.

Haatik, udalaren eskumenok nahitaez beste zeregin batzuekin bateratu behar dira, hain zuzen Estatu Sozialetik eratorritakoekin; zeregin horiek gizartean esku hartzera behartzen dute: *“euskal herri-agintariek, beren eskumenen esparruan, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezzen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute”* (Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. artikulua, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluari jarraiki).

Udalen eskumenei dagokienez (TAOLen 25. artikulua), eskumenok gizarte-zerbitzuak ematean eta horiek bermatzeko erantzukizun publikoan zehazten dira batez ere. Gizarte bazterketaren alorrean, maiatzaren 22ko 12/1998 Legean ezarritakoaren arabera, udalen eginkizunen artean daude gizarteratzeko udal programak garatzea, baztertutako pertsonak detektatzea eta, oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez, gizarteratzeko esku-hartze eta jarduerak garatzea.

Gizarte zerbitzuak Estatu Soziala edo Ongizate Estatua garatzeko zati garrantzitsu bat dira. Pertsonak eta taldeak babestea helburu duten baliabideak eta jarduerak dira. Urriaren 18ko 5/1996 Legeak –gizarte zerbitzuei buruzkoak– eta uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak –gizarte zerbitzuen alorrean zereginak zehaztekoa, 4. artikulua– egindako zeregin-banaketan, udalen eginkizuntzat jotzen dituzte honako hauek: familian esku hartzea, gizarteko beharrak detektatzea, gabezia sozioekonomikoak dituzten edo bizileku finkorik ez duten pertsonen eman dakiekeen presako harrera-zerbitzua... Beraz, udalek aurre egin behar diete herrian gertatzen diren gizarte-beharrei eta pertsonen babesari.

Gizartean sortu den behar berri bat da etorkinak hartzea, eta udalek jarduerak sustatu behar dituzte, haiek errazago gizartera daitezzen. Egiturazko fenomeno gisa, inmigrazioak ezinbesteko egiten du esku-hartze publikoa, gure herrietan biztanle berrien asentamendua arautu eta ordenatzeko. Jarduera horiek burutzeko, administrazio guztiek ekintza koordinatuak gauzatu behar dituzte, (...) zenbakiko espedientean adieraz genuen legez. Etorkinen zailtasun handienetako bat etxebizitza bat lortzeko aukera izatea da. Uneotan, etxebizitza erdiesteko zailtasuna da gizarteko arazorik garrantzitsuenetako bat. Gizarte bazterketa larriaren arazoarekin oso lotuta dago. Arazo hori konpontzeko ematen ari diren erantzunen artean, berori giza eskubidetzat hartzea da: nonbait seguru, bakean eta duintasunez bizi izateko eskubidea. Eskubide hori bete dadin, administrazioei exijitzen zaie biztanleek etxebizitza bat lortzeko dituzten eragozpenak arindu ditzatela eta, aterpe duinik ez dutenei buruz, bazterketa larriko egoerak eragotz ditzatela. Horrela, Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legeak, urriaren 18koak, hauxe ezartzen du: *“20.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan, oinarrizko gizarte-zerbitzuaz gain, kasu larrietan jendea hartzeko zerbitzuak egongo dira, loiamendurik ezak edo elkarrekin bizi izateko gatazka latzek sortutako zenbait egoera larri erantzuteko; herritarren elkartasuna eta elkarbizitza erraztuko duten zentroak ere egongo dira”*.

6. Azken batean, herri-bidearen erabilera arautzeko eskumenak gauzatzeak ezin du udala bere betebeharretatik libre utzi, gizarte-zerbitzuak emateari eta gizarte-eskubideak

betetzeari dagokienez. Era berean, udalak legeriaren arabera jokatu behar du, eta, kasu honetan, erroldatze-eskabidea berariaz ebaztera eta eskatzailea erroldatzera behartuko luke legeriak.

“Gutxienezko bizigarritasun-baldintzak ez dituela” alegatzea ez da erroldatzeko ukapena justifika dezakeen legezko arrazoi bat, ezta herri-administrazio guztiek berariaz ebazteko duten betebeharretik salbuesteko arrazoia ere, baizik eta, ezer erakustekotan, Portugaleteko Udalak gizartean parte hartu behar duela erakusten du, pertsona horiek ostatu duin bat ez izateari aurre egiteko.

(...) eta (...) eta beren familiak dagoeneko Portugaleten bizi ez badira ere, beharrezkoa iruditu zait zuri aurreko legezko betebeharrak gogoraraztea, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrerantzean erroldatzeko eskabideei buruzko jarduerak zuzentzen ahalegintzeko eta udalak gizartean parte hartzeko beharrei aurre egin behar diela gogorarazteko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **18/2005 GOMENDIOA, 2005eko azaroaren 21ekoa, Portugaleteko Udalari egina**

- 1) Berariazko ebazpen baten bidez erantzun diezaiela udal erroldan izena emateko eskabideei, eta benetan herrian bizi diren pertsonak errolda ditzala.
- 2) Lehentasuna eman diezaiola, beste jarduera batzuen aurretik, ostaturik ezari aurre egiteko gizartean esku hartzeari, gizarte-zerbitzuen alorrean duen eskumena erabiliz.

**19/2005 GOMENDIOA, AZAROAREN 21<sup>E</sup>KOA, PORTUGALETEKO UDALARI EGINA, UDAL ZERBITZUEN ARTEAN JARDUERA-PROTOKOLO BAT EGIN DEZAN, IJITOEI EGITEN ZAIEN HARRERA HOBETZEKO ETA HAIEN INTEGRAZIOA ERRAZTEKO, ETA MUGAKIDE DITUEN UDALEKIN ERANTZUN KOORDINATUAK EZAR DITZAN, BIZTANLE ETORKINAK ARTATZEKO ETA HARTZEKO.**

Aurrekariak

1. Portugaleteko Udaltzaingoak 2004ko maiatzaren 4an Buena Vista zelaiko asentamendu batean eta Ortuellako Udalak 2004ko urriaren 20an Ballonti aldeko kanpalekuan burututako jarduerak dira espediente honen gaia.
2. Buena Vista zelaiko kanpaldiari dagokionez, kexagilearen esanean, Portugaleteko Udaltzaingoa bertara joan zen, han bizitzen ari ziren pertsonen alde egin zezatela esatera. Lehen ikustaldi horretan, ibilgailuetako bat ibilgetu zuten. Bigarren ikustaldia egun berean egin zen eta, kexagileak adierazi digunez, hango pertsonak lo zeudean; horregatik, iratzarri egin zituzten eta toki hura uzteko ohartarazi zieten, gaua pasatzeko beste lekurik eskaini gabe.

Ballonti ibaiaren ondoko errotondako zelaiunean kokaturik zegoen asentamenduari dagokionez –Portugalete eta Ortuellaren arteko alde mugakidean–, kexagileak adierazi zigun kezkatuta zegoela alde hartan sortzen ari zen alarma sozialagatik eta Portugalete eta Ortuellako udalek kasurik egiten ez zirelako.

3. Kexa bideratzeko onartu eta gero, erakunde honek informazioa eskatu zion Portugaleteko Udalarari Buena Vista zelaiko eta Ballonti aldeko asentamenduez, eta Ortuellakoari Ballonti aldeko asentamenduaz. Era berean, herrira iristen diren etorkinak hartzeko, udalak zer jardueraren protokolo daukan ezarrita galdetu genion, eta ea inmigrazioari buruzko udal planik baduen.

Gure eskaerari erantzunez, Portugaleteko Udaltzaingoko buruak txosten bat bidali zigun, Buena Vistako zelaian burututako jardueren gainean. Hona hemen laburturik:

- Udaltzaingoak kanpaldien alorrean indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera jokatu zuen. Indarreko araudiaren arabera, Portugalete udalerrian kanpaldia ez dago baimenduta.

- Gutxienezko higiene- eta osasun-baldintzarik ez zuen pertsona multzo handi batek modu iraunkorrean hartu zuen jabetza publikoko zelai batean jardun zuen, eta bertan sortzen ari zen zikinkeria- eta osasungaitzasun-gunea eragozteko.
- Arrazoi hauengatik joan ziren hara 2004ko maiatzaren 4an: osasungarritasun faltagatik auzoen salaketa asko izan zirelako, hainbat ume txiki abandonatuta zeudelako, kanpalekuan bizi ziren eta alde horretan paseatzen duten auzoen artean liskarrak piztu zirelako, ardurarik gabe gidatzeagatik, legez kontrako kanpaldia zelako, e.a.
- Udaltzainek begirunez jakinarazi zien indarreko legeriaren arabera ezin zutela han kanpatu, eta baimenak eta dokumentazioa eskatu zizkieten. Ibilgailua, berriz, ibilgailu-baimenik eta derrigorrezko aseguruurik ez izateagatik ibilgetu zuten. Agiriak aurkeztu zituztenean, ibilgetzea kendu zitzairen, ibilgailua ibilgetzeagatik udal ordenantzetan exijitzen den tasa kobratu barik.
- Egun hartantxe berriro joan zirenerako, kanpamendua kendua zuten.
- Azkenik, pertsona horiek Portugaleteko bizileku batean erroldatuta zeuden eta, beraz, bazuten gaua non igaro.

Ballonti aldeko kanpaldia dela-eta, Ortuellako Udaltzaingoko buruak ere eman zigun burutu zituzten jardueren berri. Honatx laburturik:

- 2004ko urriaren 20an alde horretara joan ziren, Ortuellako auzoek kexak azaldu baitzituzten, baita Portugaleteko auzoek ere –Portugaleteko Udaltzaingoak adierazi zuenez–, hainbat familia Ballonti aldean bizitzen jarri zirelako. Alde hori Portugaleterekin mugan dago, baina Ortuellakoa da.
- Hara heldu zirenean, zazpi furgoneta ikusi zituzten etxebizitza gisa prestatuta; haietan berrogei bat errumaniarrek egiten zuten lo.
- Toki hartara iristeko, furgonetak bidegorritik igarotzen dira, hau da, autoen trafikoa debekatuta dagoen aldetik. Kanpatzea debekatuta dagoenez gero –horretarako prestatuak dauden tokietatik at–, handik alde egiteko agindu zitzairen eta kanpalekura bidegorritik sartzea debekatu zitzairen.
- Pertsona horietako batzuk identifikatu zituztenean, batzuek Portugaleteko udalari emandako bizikidetzaz-ziurtagiriak erakutsi zituzten, eta beste batzuek, berriz, Portugaleteko Udalak artean onartzeke zituen erroldatze-eskaerak. Horregatik, udal horietako Gizarte Ongizateko sailetara igorri zituzten.

Jarduera-protokoloari eta inmigrazioarako udal planari buruz, Portugaleteko Udaleko alkateak adierazi zigun udalak ez duela etorkinei buruzko jarduera-planik; azaltzen zaizkien inmigrazio kasuetan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko arreta juridiko-sozialerako zerbitzura (HELDU) jotzen dutela; eta alde horre-

tako beste udalerrri batzuekin batera jarduteko protokolo bat bideragarria ote den aztertzen ari direla, halako kasuetan era koordinatuan jarduteko.

Bestalde, gizarte zerbitzuetako zuzendariak gogoeta hauek helarazi zizkigun etorkinak artatzeari buruz:

*“Los servicios sociales de Portugalete cuentan con un servicio de acogida que en menos de 72 horas realizan entrevista, con cualquier persona que realiza una solicitud, sin requisito alguno de empadronamiento o nacionalidad, al objeto de valorar su demanda y la urgencia de la misma.*

*En los casos de personas no empadronadas en ningún municipio español, son atendidos en los servicios sociales municipales, con las únicas limitaciones que establecen las normativas de acceso a determinados recursos de ámbito supramunicipal.*

*En los casos de personas empadronadas en otro municipio, se les orienta a acudir a los servicios sociales del mismo, y si siendo así residen en Portugalete, se les orienta a regularizar su empadronamiento.*

*El empadronamiento en el proceso de incorporación social, de la misma forma que para el resto de vecinos y vecinas del municipio, comienza con facilitar el acceso a la cobertura de las necesidades básicas, entre las que se encuentran el alimento y la vivienda, sea ésta en el propio municipio o en cualquier otro.*

*No se observan, desde la impresión técnica de las profesionales de los servicios sociales, circunstancias que caractericen a la población inmigrante de Portugalete con connotaciones que indiquen mayor riesgo de exclusión, que las personas que residen habitualmente en el municipio y tienen dificultades de acceso a la vivienda.*

*No obstante, en la actualidad se está realizando un estudio que muestre una imagen más objetiva de la población inmigrante de Portugalete, que oriente hacia las necesidades más acuciantes de esta población y que posibilite, en los casos necesarios, organizar una actuación municipal planificada de manera específica para dar respuesta a las necesidades detectadas”.*

Ortuellako Udaleko alkateak adierazi zigunez, beraiek ere ez dute inmigratioari buruzko udal planik, ezta herrira iristen diren etorkinei harrera egiteko jarduera-protokolo propiorik ere. Beraiek ere Eusko Jaurlaritzaren HELDU zerbitzura jotzen omen dute, eta udalerrri mugakideekin jarduera koordinatuak egiteko asmoa omen dute, arazo honi erantzunik onena eta konponbidea emateko.

Udal horrek emandako erantzuna kontuan izanik, Ararteko erakundeari beharrezkoa iruditzen zaio honako gogoetok egitea.

### Gogoetak

1. Ezer baino lehen, adierazi beharra dago Portugaleteko Udalak denbora luzea hartu duela gure informazio-eskaerei erantzuteko, keixaren biderapenean hainbat erreke-  
rimendu egin dizkiogula eta ez duela bete otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Arar-  
teko erakundea sortu eta arautzekoak– ezarritako betebeharrak: lehentasunez eta  
berehala bidaltzea eskatzen zaizkion datu, agiri, txosten edo argibide guztiak.
2. Etorkinak hartzea gizartean sortu den behar berri bat da, eta ezinbestekoa da udalek  
jarduerak bultzatzea, haiek gizartean errazago txerta daitezela. Inmigratioak, egiturazko  
fenomeno gisa, herri-agintarien esku-hartzea behar du, gure herrietan herritar berrien  
asentamendua arautu eta ordenatzeko. Horregatik, inmigratioari buruzko plangintza  
egiten ari da administrazioa, autonomikoa nahiz tokikoa. 2003-2005. urteetarako  
Inmigratioeko Euskal Planak berriaz aurreikusten du herri-erakunde guztiek erantzuz-  
kizuna partekatu behar dutela eta administrazio guztiek elkarrekin koordinatu behar  
dutela. Orobat, udalaren esku-hartzea garrantzitsua dela adierazten du, eta udalaren  
oinarizko harrera-sare bat sortzea sustatzen du, inmigratio arloko teknikariak kontrata-  
tuz eta inmigratioeko udal planak eratuz. Horretarako, honako araudiak ditu tresnatzat:  
ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua, inmigratioaren alorrean jarduerak burutzeko  
laguntzak arautzen dituena; 2003ko irailaren 2ko 200/2003 Dekretua, atzerriko etor-  
kinen udal mailako harrera sarea finkatzeko toki erakundeentzako laguntzei buruzkoa.  
Gainera, Eusko Jaurlaritzak zenbait programa eta neurri sustatu ditu, aholkularitza  
juridikoko beharrei (HELDU programa) edo Europako Batasunean bitartekaritza-lanak  
egiteko edo jarduteko beharrei aurre egiteko (BILTZEN programa).

Beraz, gure herrira jatorri ezberdinetako pertsonak iristean, udalek jardun egin behar  
dute, integrazioa eta gizarte kohesioa errazte aldera. Portugaleteko gizarte-zerbitzuek  
egiten duten artatze-lanak integrazioa errazten du, normalizatzea duelako helburu eta  
jatorriagatik inor baztertzeko ez duelako. Hala eta guztiz ere, gizarte-zerbitzuak moldatu  
beharra dago, beste zerbitzu publiko batzuen antzera, inmigratioak herrian sortzen  
dituen gizarte-behar berriei aurre egiteko. Udalek herritar berri horien premiak ere  
kontuan hartzea, horixe da kontua.

Biztanle horiek askotariko izaerak dituzte, oso kultura eta gizarte ezberdinetatik  
datozelako. Orduan, erantzun egokia emateko, beraien bereizgarriak eta aniztasuna  
aintzat hartu behar dira. Kasu honetan, ibilgailuetan bizi diren jatorri errumaniarreko  
pertsonak dira. Egoera horretan, funtsezkoa da udalen arteko koordinazioa, asenta-  
menduak ez daitezela egon herri jakin batek egiten dien harreraren mende, horrek  
lurraldeen arteko desorekak eta segregazioa eragin ditzakeelako.

Udalek honako jarduerak hauek burutu zituzten: Buena Vista zelaian eta Ballonti aldean  
kanpatzea ez dagoela baimenduta adieraztea, eta toki horietan sartzeari eragozteak.

Udalek toki publikoen erabilera arautzeko eskumena dute, baina gizarte-zerbitzuak  
ematean ere badute eskumena, eta, hortaz, beren udalerrietan sortzen diren gizarte-  
beharrei eta pertsonak babesteari aurre egin behar diete.



3. Udal batzuek, Gasteizkoak kasu, errealitate hori ikusita, hainbat ekipamendu jarri dituzte gizarte-behar berri horiei erantzuteko: Caminante programa. Programa hori lur-zatiak eskaintzean datza, asentamendu erdinomadak egiteko, zerbitzu komunekin: jantokiaren eta bainugelen aldea eta langile egokiak, gizarte langileak eta gizarte hezitzaileak, gizartean parte hartzeko lan-plan bat aurrera eramateko. Eredu hori beste udalerrri batzuetara egokitzerik badagoen ala ez alde batera utzita, azpimarratu nahi dugu udalak erantzun desberdinak ematen ari zaizkiela udalerrietan karabane-tan egiten diren asentamenduei. Erakunde honen ustez, udalerriek zuzen erantzun behar diete gizarte-behar berriei, dauzkaten biztanleria eta baliabideen arabera, gizarte-zerbitzuen sare garatuagoa duten udalerrriak edo, beren tamainagatik, polizia- asentamendu guztiak kontrolatzea zail gertatzen den udalerrriak ez daitezen izan gizarte-behar berri horiei aurre egiten dieten bakarrak.

Europako Batasuna zabaltzeko prozesuaren ondorioz, ijito kopuru handia duten estatuak sartu dira bertan, esate baterako, Txekiar Errepublika, Eslovakia eta Hungaria, eta 2007an, Errumania eta Bulgaria sartuko dira. Europako Batasuna arreta eskaintzeko politikak bultzatzen ari da talde horren bizi-baldintzak hobetzeko, izan ere, talde horrek pobrezia, gizarte-bazterketa eta gehiengoa duten gizarte- gaitzespen orokorra ditu bereizgarri. Ijitoen taldea aintzat hartzen dute Europako politikek, Ekialderanzko zabaltze prozesu horretan bereizkeriari eta gizarte-bazterketari kontra egiteko. Geografiaren eta kulturaren ikuspegitik, Europa osoan sakabanatu den gutxiengoa dira, eta herri-erakundeek beren jarrera aldatu beharra daukate haien kultura-, ekonomia- eta politika-garapena ahalbidetzeko. Integrazio-guneak sustatu beharko liriateke, eta ez, ordea, ijitoak udalerrian asentatzea oztopatu, Europako Batasuneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko bereizkeriaren eta gizarte-bazterketaren kontrako araudian ezarritakoaren arabera. Gauza bera adierazten da lehen aipaturiko Inmigratioko Euskal Planean, Gizarteratzeko Euskal Planean (2003-2005) eta ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako euskal Planean<sup>7</sup>. Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua edukiz betetzea litzateke, xedapen hori Euskal Herriko Autonomia Estatutuan ere agertzen baita: *“euskal herri-agintariek, beren eskumenen esparruan, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute eta Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute”*.

Une honetan Portugaleta edo Ortuella udalerrietako gune publikoetan asentamendurik ez dagoen arren, beharrezkoa iruditu zait zuri aurreko legezko betebeharrak gogoraraztea, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak–

<sup>7</sup> Gizarteratzeko Euskal Planak honako neurri hau ezartzen du: erabateko ekintzak abiaraztea Europako Batasunetik kanpoko etorkin taldeekin eta bazterturik dauden gutxiengo etnikoekin. Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako euskal planak, berriz, helburu orokor hau du: beharrezko aldaketak bultzatzea, oztopoak kendu ahal izateko eta ijitoek era guztietako aukerak, baliabideak eta zerbitzuak izan ditzaten.

11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, talde horien asentamendua eragozten duten jarduerak aurrerantzean zuzen daitezen, jarduerotan ez baita neurririk aurreikusten estatu sozial eta zuzenbidezko batek berezko dituen gizarte-partaidetzarako beharrak kontuan hartzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **19/2005 GOMENDIOA, 2005eko azaroaren 21ekoa, Portugaleteko Udalari egina**

- 1) Udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko duen jarduera-protokolo bat egin dezala, ijitoak diren herritar berriei harrera hobea egiteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak aintzat hartuz.
- 2) Herritar berrien gizarteratzea errazteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak kontuan hartuko dituzten eta gizarte-bazterketa galaraziko duten jarduerak neurriak har ditzala.
- 3) Mugakide dituen udalekin batera, erantzun koordinatuak hitzartu ditzala, biztanle etorkinak hartzean, lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

**20/2005 GOMENDIOA, AZAROAREN 21<sup>E</sup>KOA, ORTUELLAKO UDALARI EGINA, UDAL ZERBITZUEN ARTEAN JARDUERA-PROTOKOLO BAT EGIN DEZAN, IJITOEI EGITEN ZAIEN HARRE-RA HOBETZEKO ETA HAIEN INTEGRAZIOA ERRAZTEKO, ETA MUGAKIDE DITUEN UDALEKIN ERANTZUN KOORDINATUAK EZAR DITZAN, BIZTANLE ETORKINAK ARTATZEKO ETA HARTZEKO.**

Aurrekariak

1. Ortuellako Udaltzaingoak 2004ko urriaren 20an Ballonti aldeko kanpalekuan –Portugaletete eta Ortuella udalerrien artean– burututako jarduerak sortarazi zuten kexa. Kexa horretan kezka agertu ziguten, Portugaletete eta Ortuellako Udalek hango asentamenduari kasurik egiten ez ziotelako eta egoera hori alarma soziala sortzen ari zelako.
2. Kexa bideratzeko onartu eta gero, erakunde honek informazioa eskatu zien Portugaletete eta Ortuellako Udalei, bai asentamenduari buruz, bai herrira iristen diren etorkinak hartzeko ezarrita duten jarduera-protokoloaz. Inmigrazioari buruzko udal planik baduten ere galdetu zien.

Gure eskaerari erantzunez, Ortuellako Udaltzaingoko buruak gauzatutako jardueren berri eman zigun. Portugaletete Udaltzaingoak ez zuen jarduerarik burutu. Honatx Ortuellako Udaltzaingoaren jarduerak laburturik:

- 2004ko urriaren 20an alde horretara joan ziren, Ortuellako auzoek kexak azaldu baitzituzten, baita Portugaletete auzoek ere –Portugaletete Udaltzaingoak adierazi zuenez–, hainbat familia Ballonti aldean bizitzen jarri zirelako. Alde hori Portugaleteterekin mugan dago, baina Ortuellakoa da.
- Hara heldu zirenean, zazpi furgoneta ikusi zituzten etxebizitza gisa prestatuta; haietan berrogei bat errumaniarrek egiten zuten lo.
- Toki hartara iristeko, furgonetak bidegorritik igarotzen dira, hau da, autoen trafikoa debekatuta dagoen aldetik. Kanpatzea debekatuta dagoenez gero –horretarako prestatu dauden tokietatik at–, handik alde egiteko agindu zitzairen eta kanpalekura bidegorritik sartzea debekatu zitzairen.
- Pertsona horietako batzuk identifikatu zituztenean, batzuek Portugaletete eta Sestaoko udalerriek emandako bizikidetzako ziurtagiriak erakutsi zituzten, eta beste

batzuek, berriz, Portugaleteko Udalak artean onartzeke zituen erroldatze-eskaerak. Horregatik, udal horietako Gizarte Ongizateko sailetara igorri zituzten.

Jarduera-protokoloari eta inmigraziorako udal planari buruz, Ortuellako Udaleko alkateak adierazi zigun udalak ez duela inmigrazioko udal planik, ezta herrira iristen diren etorkinak hartzeko jarduera-protokolo propiorik ere. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko arreta juridiko-sozialerako zerbitzura (HELDU) jotzen omen dute, eta udalerrri mugakideekin jarduera koordinatuak egiteko asmoa omen dute, arazo honi erantzunik onena eta konponbidea emateko.

Portugaleteko Udaleko alkateak, informazioa hainbat aldiz eskatu ondoren, hauxe adierazi zigun: beraiek ere ez dutela etorkinei buruzko udal planik, Eusko Jaurlaritzaren HELDU zerbitzura jotzen dutela azaltzen zaizkien inmigrazio kasuetan, eta alde horretako beste udalerrri batzuekin batera jarduteko protokolo bat bideragarria ote den aztertzen ari direla, halako kasuetan era koordinatuan jarduteko.

Udal horrek emandako erantzuna kontuan izanik, Ararteko erakundeari beharrezkoa iruditzen zaio honako gogoetok egitea.

### Gogoetak

1. Etorkinak hartzea gizartean sortu den behar berri bat da, eta ezinbestekoa da udalek jarduerak bultzatzea, haiek gizartean errazago txerta daitezen. Inmigrazioak, egiturazko fenomeno gisa, herri-agintarien esku-hartzea behar du, gure herrietan herritar berrien asentamendua arautu eta ordenatzeko. Horretarako, administrazio guztien arteko koordinazioa behar da. Eusko Jaurlaritzak zenbait programa eta neurri sustatzen ari da, aholkularitza juridikoko beharrei (HELDU programa) edo Europako Batasunean bitartekaritza-lanak egiteko edo jarduteko beharrei aurre egiteko (BILTZEN programa). 2003-2005. urteetarako Inmigrazioko Euskal Planak udalaren esku-hartzea garrantzitsua dela adierazten du, eta udalaren oinarriko harrera-sare bat sortzea sustatzen du, inmigrazio arloko teknikariak kontratatuz eta inmigrazioko udal planak eratuz. Horretarako, araudi hauek ditu tresnatzat: ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua, inmigrazioaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak arautzen dituena; 2003ko irailaren 2ko 200/2003 Dekretua, atzerriko etorkinen udal mailako harrera sarea finkatzeko toki erakundeentzako laguntzei buruzkoa.

Beraz, gure herrira jatorri ezberdinetako pertsonak iristean, udalek jardun egin behar dute, integrazioa eta gizarte kohesioa errazte aldera.

Biztanle horiek askotariko izaerak dituzte, oso kultura eta gizarte ezberdinetatik datozelako. Orduan, erantzun egokia emateko, beraien bereizgarriak eta aniztasuna aintzat hartu behar dira. Kasu honetan, Portugalete eta Ortuella udalerrien artean dagoen Ballonti aldean ibilgailuetan bizi diren jatorri errumaniarreko pertsonak dira. Egoera horretan, funtsezkoa da udalen arteko koordinazioa, asentamenduak

ez daitezten egon herri jakin batek egiten dien harreraren mende, horrek lurraldeen arteko desorekak eta segregazioa eragin ditzakeelako.

Udalak toki horretan kanpatzea ez dagoela baimenduta adierazi zien, eta bertan sartzea eragotzi zien. Udalak gizarte-zerbitzuen alorrean ere badu eskumena, nahiz eta, guk dakigunez, gizarte-zerbitzuek ez zuten inolaz ere esku hartu, Udaltzaingoak baizik.

2. Udalak, udalaren lurrak era ordenatuan erabiliko direla bermatzeko dituen eskumenak erabiliz, lurra erabiltzeko hainbat baldintza jar ditzake (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, 25. artikulua).

Hala ere, udalaren eskumenok nahitaez beste zeregin batzuekin bateratu behar dira, hain zuzen Estatu Sozialetik eratorritakoekin; zeregin horiek gizartean esku hartzera behartzen dute: *“euskal herri-agintariek, beren eskumenen esparruan, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezten baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute”* (Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. artikulua, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluari jarraiki).

Eginkizun horiek, batez ere, gizarte-zerbitzuak ematea eta horiek bermatzeko duten erantzukizun publikoa dira. Gizarte bazterketaren alorrean, maiatzaren 22ko 12/1998 Legean ezarritakoaren arabera, udalen eginkizunen artean daude gizarteratzeko udal programak garatzea, baztertutako pertsonak detektatzea eta, oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez, gizarteratzeko esku-hartze eta jarduerak garatzea.

Gizarte zerbitzuak Estatu Soziala edo Ongizate Estatua garatzeko zati garrantzitsu bat dira. Pertsonak eta taldeak babestea helburu duten baliabideak eta jarduerak dira. Urriaren 18ko 5/1996 Legeak –gizarte zerbitzuei buruzkoak– eta uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak –gizarte zerbitzuen alorrean zereginak zehaztekoa, 4. artikulua– egindako zeregin-banaketan, udalen eginkizuntzat jotzen dituzte honako hauek: familian esku hartzea, gizarteko beharrak detektatzea, gabezia sozioekonomikoak dituzten edo bizileku finkorik ez duten pertsonen eman dakiekeen presako harrera-zerbitzua... Beraz, udalek aurre egin behar diete herrian gertatzen diren gizarte-beharrei eta pertsonen babesari. Uneotan, etxebizitza erdiesteko zailtasuna da gizarteko arazorik garrantzitsuenetako bat. Gizarte-bazterketa larriaren arazoarekin oso lotuta dago. Arazo hori konpontzeko ematen ari diren erantzunen artean, berori giza eskubidetzat hartzea da: nonbait seguru, bakean eta duintasunez bizi izateko eskubidea. Eskubide hori bete dadin, administrazioei exijitzen zaie biztanleek etxebizitza bat lortzeko dituzten eragozpenak arindu ditzatela eta, aterpe duinik ez dutenei buruz, bazterketa larriko egoerak eragotz ditzatela.

3. Udal batzuek, Gasteizkoak kasu, errealitate hori ikusita, hainbat ekipamendu jarri dituzte gizarte-behar berri horiei erantzuteko: Caminante programa. Programa hori lur-zatiak eskaintzean datza, asentamendu erdinomadak egiteko, zerbitzu komunekin: jantokiaren eta bainugelen aldea eta langile egokiak, gizarte langileak eta gizarte

hezitzaileak, gizartean parte hartzeko lan-plan bat aurrera eramateko. Eredu hori beste udalerrri batzuetara egokitzerik badagoen ala ez alde batera utzita, azpimarratu nahi dugu udalak erantzun desberdinak ematen ari zaizkiela udalerrietan karabane-tan egiten diren asentamenduei. Erakunde honen ustez, udalerriek zuzen erantzun behar diete gizarte-behar berriei, dauzkaten biztanleria eta baliabideen arabera, gizarte-zerbitzuen sare garatuagoa duten udalerriak edo, beren tamainagatik, poli-ziak asentamendu guztiak kontrolatzea zail gertatzen den udalerriak (hiriburuak) ez daitezzen izan gizarte-behar berri horiei aurre egiten dieten bakarrak.

4. Europako Batasuna zabaltzeko prozesuaren ondorioz, ijito kopuru handia duten estatuak sartu dira bertan, esate baterako, Txekiar Errepublika, Eslovakia eta Hungaria, eta 2007an, Errumania eta Bulgaria sartuko dira. Europako Batasuna arreta eskaintzeko politikak bultzatzen ari da talde horren bizi-baldintzak hobetzeko, izan ere, talde horrek pobrezia, gizarte-bazterketa eta gehiengoa duten gizarteen gaitzespen orokorra ditu bereizgarri. Ijitoen taldea aintzat hartzen dute Europako politikak, Ekialderanzko zabaltze prozesu horretan bereizkeriari eta gizarte-bazterketari kontra egiteko. Geografiaren eta kulturaren ikuspegitik, Europa osoan sakabanatu den gutxiengoa dira, eta herri-erakundeek beren jarrera aldatu beharra daukate haien kultura-, ekonomia- eta politika-garapena ahalbidetzeko. Integrazio-guneak sustatu beharko lirarteke, eta ez, ordea, ijitoak udalerrian asentatzea oztopatu, Europako Batasuneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko bereizkeriaren eta gizarte-bazterketaren kontrako araudian ezarritakoaren arabera. Gure erkidegoan, gizartean parte hartu behar dela adierazten da, etorkinen integrazioa eta gizarteratzea errazteko, beraien kultura errespetatuz. Horretarako, hainbat neurri aurreikusten dituzte lehen aipatu dugun Inmigratioko Euskal Planak, Gizarteratzeko Euskal Planak (2003-2005) eta ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako euskal Planak<sup>8</sup>.

Une honetan Ortuellan asentamendurik ez dagoen arren, beharrezkoa iruditu zait zuri aurreko legezko betebeharrak gogoraraztea, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, talde horien asentamendua eragozten duten jarduerak aurrerantzean zuzen daitezzen, jarduerotan ez baita neurririk aurreikusten estatu sozial eta zuzenbidezko batek berezko dituen gizarte-partaidetzarako beharrak kontuan hartzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

---

<sup>8</sup> Gizarteratzeko Euskal Planak honako neurri hau ezartzen du: erabateko ekintzak abiaraztea Europako Batasunetik kanpoko etorkin taldeekin eta bazterturik dauden gutxiengo etnikoekin. Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako euskal planak, berriz, helburu orokor hau du: beharrezko aldaketak bultzatzea, oztupoak kendu ahal izateko eta ijitoek era guztietako aukerak, baliabideak eta zerbitzuak izan ditzaten.

**20/2005 GOMENDIOA, 2005eko azaroaren 21ekoa, Ortuellako Udalari egina**

- 1) Udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko duen jarduera-protokolo bat egin dezala, ijitoak diren herritar berriei harrera hobea egiteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak aintzat hartuz.
- 2) Parte hartzeko neurriak har ditzala, herritar berrien integrazioa errazteko eta haien gizarte-bazterketa eragozteko.
- 3) Mugakide dituen udalekin batera, erantzun koordinatuak hitzartu ditzala, biztanle etorkinak artatzean eta hartzean lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

**21/2005 GOMENDIOA, AZAROAREN 25EKOA, HEZKUNTZA, UNIBERSITATE ETA IKERKETA SAILARI EGINA, PROZEDURAZKO BERME GUZTIAK BETEZ, ARAUDIAK ESPEZIALITATE BAKOITZERAKO BERARIAZ ESKATZEN DUEN TITULAZIOA EZ DUTENAK ORDEZKAPENEN ZERRENDATIK KANPO UTZ DITZAN, ZERRENDAN OKER SARTZEKO EGINTZAK BERRIKUS DITZAN ETA, HAINBAT TITULUREN KODIFIKAZIO ZEHATZARI BURUZ, ERREGISTRO INFORMATIKOAK EGIAZTA ETA ARGI DITZAN.**

Aurrekariak

1. Hezkuntza-administrazioak irakasleen ordezkapenatarako zerrendan hautagai bat oker tratatu zuela jakinarazi ziguten kexa batean. Arrazoizko zantzuak ikusi genituen zuzen, 2003ko abenduaren 22an informazioa eskatu genion sail horri: hain zuzen, ea hautagai hura zein espezialitatetarako gaitu zuten, espezialitate bakoitzerako zer titulazio alegatu eta egiaztatatu zuten eta zein datatatik aurrera zegoen gaituta.

2004ko urtarrilaren 23an, Langileriaren Kudeaketarako zuzendari andreak adierazi zigun hautagaia zazpi irakaskuntza-espezialitatetan onartua zegoela eta haietarako nahitaezkoa zen titulazioa zuela ziurtatu zuela. Zehazki, honako hauek ziren:

ESPEZIALITATEA	TITULAZIOA
Elikagaien industriako prozesuak	Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatua
Osasun prozesuak	OLTn diplomatua/Fisioterapeuta espezialitatea
Diagnostiko klinikoaren prozesuak eta produktu ortoprotesikoak	OLTn diplomatua/Fisioterapeuta espezialitatea
Elikagaien Elaborazio-Lanak eta Ekipoak	Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatua
Estetika	OLTn diplomatua/Fisioterapeuta espezialitatea
Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoaren prozedurak	OLTn diplomatua/Fisioterapeuta espezialitatea
Osasun- eta laguntza-prozedurak	OLTn diplomatua/Fisioterapeuta espezialitatea

2. 2004ko otsailaren 11n beste informazio-eskaera bat luzatu genion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, 15 eguneko epean bere erantzunean aipatu ez zuen datua eman ziezagun (gaikuntza bakoitza noiz jarri zen indarrean), baita bi tituluen kopia bat ere.



2004ko apirilaren 20an, ekainaren 4an eta abuztuaren 3an, agiri horiek bidaltzeko eskatu genion berriro.

Azkenean, urriaren 26an, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren txosten bat jaso genuen. Hautagaia zerrendan 2001. urtean sartu zela adierazi zigun eta Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatua eta Fisioterapiari diplomatua tituluen fotokopiak ere igorri zizkigun.

3. Horrela konturatu ginen titulu horietako bat (Fisioterapiari diplomatua) ez zela hezkuntza-administrazioak pertsona horri esleitu ziona (OLTn diplomatua/Fisioterapeuta espezialitate), baizik eta titulu sortu berria zela, ezberdina eta autonomoa, eta araudiak ez duela onartzen, ez lehen ez orain, ezein espezialitaterako baliozko titulaziotzat.

2004ko azaroaren 25ean, hamar egun eman genizkion administrazioari, exijitutako titulaziorik ez duen pertsona bati hainbat espezialitate esleitu izanaren legezko justifikazioa adieraz ziezagun, edo, bestela, okerren bat izan zelako aukera aintzat har zezan.

2005eko apirilaren 12an, orduan ere erantzuna berriz eskatu behar izan ondoren, Langileriaren Kudeaketarako zuzendari andrearen idazki bat hartu genuen. Honela zioen: *“lehenago indarrean zegoen legeria eta gaurkoa aztertzen badugu, egia da [hautagaiak] ez duela titulazio bat bera ere, ikastetxe publikoetako ordezkapenak arautzeko Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariaren Ebazpen desberdinetan jasotzen direnen artean.”* (sic)

Agiri horretan bertan onartu zuen ez zegoela zehazterik zergatik sartu zen hautagai hori zerrendetan, baina, hipotesi gisa, aurreratu zuen agian okerren bat gertatu zela, edota jakinaren gainean jokatu zela horrela, titulazio hori zuen pertsonarik ez zegoelako eta irakasgai horiek ematea interes orokorreko zerbait zelako. Bestalde, gai honi buruzko eskabide bat tramiterako onartu zela aipatu zuen, baina ez zituen zehaztu eskabidean azaldukoaren nondik norakoak.

4. 2005eko maiatzaren 4an igorri genituen gure ondorioetan, hipotesi hori –alegia, titulazio egokiko irakaslerik eza– oso ahula zela nabarmendu genuen, izan ere, 2001. urteko zerrenda ofizialetan –horiek ikusteko aukera izan baikenuen– hautagai asko zeuden, puntu gehiagorekin edo gutxiagorekin.

Beraz, hezkuntza-administrazioak oker batengatik pertsona hori hainbat espezialitatan gaitu zutela onartu zuenez gero, nahitaez neurri egokiak hartu behar zituen, gure ustez, legezkoatasuna lehengoratzeko eta egoera horrek zerrendako gainontzeko hautagaiei kalteak eragiten ez jarraitzeko.

Arazoi horiengatik eta bideratzen ari zen auzi-eskeak gure jarduerako zein alderdi zehatzi eragin ziezaiokeen adierazi ez zigutenez gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu genion hamar eguneko epean jakinaraz ziezagula gain horren gainean zein erabaki hartuko ziren.

Beste bi errekerimendu egin ostean (uztailaren 12an eta irailaren 12an), irailaren 23an Langileriaren Kudeaketarako zuzendari andreak jakinarazi zigun 2005eko uztailetik aurrera, hautagai hori zerrendetatik kanpo utzi zutela “Osasun prozesuak” eta “Diagnostiko klinikoen prozesuak eta produktu ortoprotesikoak” irakasgaietan, aipatu dugun auzibideko epaile-erabakiaren ondorioz eta erabaki hori betetzeko, izan ere, epaileak jokaera hori zuzenbidearekin bat ez zetorrela iritzi zion, eta baliorik gabe utzi zuen, neurri batean, 2004. urteko birbaremazioaren azken zerrenda, arrazoi honengatik: *“en la medida que incluye como candidata a [una persona] que carece de la titulación exigida”*.

Orobat, hezkuntza-arduradun horrek adierazi zigunez, interesdunak berak eta Euskal Herriko Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatuen eta Fisioterapeuten Elkarte Ofizialek hala eskatuta, Hezkuntza Berriztapenerako Zuzendaritzari iritzia eskatu zion, aipatutako irakasgaiak emateko Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatuen eta Fisioterapien diplomatuen titulazioak egokiak diren ala ez jakiteko, eta joan den maiatzaren 25ean, Akademi Antolakuntza Zerbitzuak aldeko iritzia eman zuen titulazio horiek honako espezialitateak irakasteko egokitzat jo daitezten:

TITULAZIOA	ESPEZIALITATEAK
Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomaturia	“Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoen prozedurak” “Osasun- eta laguntza-prozedurak” “Sukaldaritza eta gozogintza” “Jatetxe arloko zerbitzuak”
Fisioterapien diplomaturia	“Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoen prozedurak” “Estetika”

Azkenik, ziurtatu zigun titulazio eta espezialitateen taulak hurrengoan aldatzen direnean, azken bi titulu horiek aipaturiko espezialitateekin bateragarritzat joko direla.

Ez zigun adierazi, ordea, hautagai hori oraindik ere zerrendako hiru espezialitate-tan gutxienez gaituta dagoela, horietarako exijitzen den titulaziorik ez duen arren (“Estetika”, “Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoen prozedurak” eta “Osasun- eta laguntza-prozedurak”), ezta ere ikasturte honetan espezialitate horietako bati dago-kion lanpostua betetzen ari dela.

### Gogoetak

1. Ezer baino lehen, azpimarratu behar dugu kexa honen biderapena dezente atzeratu dela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gure eskaerei ezin ulertuzko atzerapen izugarriaz erantzun dielako. Horrela, eskaera guztietan, lehenengoan izan ezik, sobera gainditu du erantzuteko jarri genion epea, eta, horregatik, behin eta berriz eskatu behar izan diogu informazioa.

Esate baterako, zortzi hilabete baino gehiago eman zituen bi titulazioen fotokopia bidaltzeko eta interesduna zerrendan zein egunetan sartu zen adierazteko; informazio

hori erraz lor daiteke eta ez du prestatze-lanik eskatzen, baina ez genuen lortu beste hiru bider eskatu genuen arte.

Jokaera hori otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 23. artikuluan ezarritakoaren kontrakoa da, bada, horren arabera, euskal herri-administrazioek lehentasunez eta berehala bidali behar dituzte Arartekoak eskatzen dizkien xehetasun, agiri edo argibide guztiak.

Gainera, Eusko Legebiltzarrari 2004. urteaz egin genion txostenean adierazi genuenez, atzerapen horiek agerian jartzen dute *“axolarik eza, erakunde honek kontrolaren arloan duen eginkizuna eta, ondorioz, erreklamazioak jartzen dituzten herritarren eskubideak gutxien dituen jarrera, alegia”*, eta, gure ustez, portaera hori ezin da bateratu administrazioaz gaur egun dugun –eta legezkoa den– ikuskerarekin, ulertzen baitugu administrazioa herritarren zerbitzurako erakundea dela, kaltetutako gizabanakoen eskubideak bermatu behar dituen prozeduraren barruan jarduten duena.

2. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak hauxe zehazten du 13. artikuluan: Arartekoa ez da banan-banan aztertzen hasiko epailearen erabakia jaso duten edo epailearen erabakiaren zain dauden kexak. Bere jarduera geldiaraziko du, baldin eta, jarduten hasi eta gero, interesdunak eskaera edo errekurtsio bat jartzen badu auzitegi arruntetan edo Konstituzio Auzitegian.

Egia da kasu honetan, kexa azaldu eta bideratzen hasi eta gero, beste pertsona batek administrazioarekiko auzietarako errekurtsio bat jarri zuela pertsona hori bera zerrendan sartu izanaren kontra, eta errekurtsogilearen aldeko epaiaren bidez bukatu zela errekurtsioa.

Hala ere, auzibide horren edukia zati batean baino ez dator bat espediente honen edukiarekin, zehazki, *“Osasun-prozesuak”* eta *“Diagnosticoko klinikoen prozesuak eta produktu ortoprotesikoak”* espezialitateei dagokienean; hortaz, goian aipatu dugun xedapena alor horretara mugatu behar dugu.

Beraz, ez dago inolako arrazoirik erakunde honek ez dezan esku hartu epaian baliogabetutako zerrendaratze hori berori objektatu den gainontzeko espezialitateetan. Aitzitik, aipaturiko aurrekariak kontuan izanda, guztiz beharrezkotzat jotzen ditugu gure aurreko lana eta gomendio hau –nahiz eta epaitegiak aztertu ez duen eremura mugatuta egon–.

3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendari andreak 2004ko maiatzaren 26an hartutako Erabakian (EHAA, ekainaren 11koa) onartu ziren, jakina denez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko argibideak.

Testu horren 2. artikulua baldintza hau ezinbestekotzat jotzen du zerrendan sartzeko: aukeratu den espezialitatea irakasteko beharrezkoa den titulu akademikoaren jabe

izatea, edo titulu hori eskuratzeko baldintzak betetzea. Espezialitate hori zein mailatan kokatuta dagoen, harexeri dagokion titulua izan beharko da.

Era berean, zera dio 4. artikulua: *“Bigarren Hezkuntzari, Lanbide Heziketari eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntzei dagokien mailan, berriz, izangaiak espezialitateak eman ahal izango dituzte, egiaztaturiko titulazioari esleitutako kidetasunen arabera, 3. eranskinean argitaratzen den titulazioen eta espezialitateen taulan agertzen denaren ildotik.”*

Eranskin horretan agindutakoari jarraiki, aztergai dugun hautagaiak “Elikagaien industria prozesuak” espezialitatean bakarrik agertu beharko luke, horixe baita bere titulazioarekin –Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatua– bat datorren espezialitate bakarra. Fisioterapian diplomatua titulua, berriz, ez da agertzen; beraz, ondorio hauetarako ez du inolako eraginkortasunik.

Horren antzeko xedapenak agertzen dira Langileen Kudeaketarako zuzendariaren 1995eko irailaren 13ko Erabakian. Erabaki horrek antolatzen zuen lehen arlo hori, eta titulazioen eta espezialitateen arteko nahitaezko lotura exijitzen zuen eranskinean oinarrituta zegoen. Pertsona hori zerrendan sartu zenean –2001ean– indarrean zegoen bertsioa, hau da, Langileriaren Kudeaketarako 2000ko ekainaren 2ko Erabakiaren bidez argitaratutakoa, geroko bertsioaren berdina zen puntu horretan; beraz, “Elikagaien industria prozesuak” espezialitaterako bakarrik gaitzen zuen hautagai hori.

Langileriaren Kudeaketarako zuzendari andreak baieztatu digunez, araudia aldatzen denean, denbora luze honetan oker batengatik hautagai horri baimendu zaizkion espezialitateetako batzuk beraren titulazioarekin uztartuko ditu taulak.

Alabaina, baimen-zabaltze hori oinarritzeko asmoz aipatu dituen Akademi Antolakuntza Zerbitzuaren txostenak aurtengo maiatzean prestatu ziren, eta oraindik ez dute aldaketa hori eragin.

Ildo horretan, zera adierazi nahi dugu: 1998. urteaz geroztik, lehenagoko espediente bat zela bide, erakunde honek hainbat aldiz jo zuen hezkuntza-administrazioa, ordezkapen-zerrendak kudeatzeko sisteman Giza Elikadura eta Dietetikako diplomatura aintzat har zitekeen ala ez azter zezan, eta gomendio berezi bat ere egin zion (11/2001 zenbakikoa). Gure azterketa hartan Eusko Legebiltzarrak 1999ko martxoaren 5eko osoko bilkuran onaturiko legez besteko proposamena aipatu genuen, non Eusko Jaurlaritzari eskatu baitzion beharrezko neurriak har zitzala, gehienez ere sei hilabeteko epean, Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatuek zerrenda horietarako sarbidea izan zezaten. Hala eta guztiz ere, garai hartan korrespondentzien taulan gauza berri garrantzitsuak egin ziren arren, titulazio hori ez zuten onartu beste ezin espezialitaterako gaitzeko arrazoi gisa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, herri-administrazioa denez, ahalmen zabala du bere baliabideak egokien iruditzen zaion moduan antolatzeko, eman dio-

ten helburu publikoa lortzearen. Horregatik, taula hori aldatzearen kontra ez dago ezer esateko, bada, azken batean, orain arte aldeztu ditugun tesiak azkenean onartu dituela pentsa daiteke.

Haatik, aldaketa hori gauzatu eta bitarteko egokiak erabiliz jakinarazten ez den bitartean, ezin zaio eragin juridikorik eman, aldaketarik ez dagoelako, horrexegatik bakarrik.

4. 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 9. artikulua herri-aginteen arbitrarotasunaren debekua bermatzen du, eta herri-aginteak antolamendu juridikoaren menpean daudela adierazten du oro har, eta gero, zehatzago, gauza bera dio herri-administrazioei buruz, testu bereko 103.1 artikuluan (*“Administrazio publikoak objektiboki zerbitzatzen ditu interes orokorrak, eta eraginkortasun, hierarkia, dezentralizazio, deskonzentrazio eta koordinaketa printzipioen arabera jarduten du, legerari eta Zuzenbideari erabat men eginez”*).

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– xedapen horixe biltzen du 3. artikuluan, bere printzipioen artean.

Beraz, herri-erakundeek indarreko legeriara doitu behar dituzte beren egintzak, ezin dute legeak agindutakoa bazter utzita jardun, eta, are gutxiago, legea argi eta garbi hautsi.

Ez dago arrazoirik administrazio batek zuzenbidea ez betetzea zuritu dezakeenik. Aitzitik, lehen aipatu dugun 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, deuseztat edo deuseztagarritzat jotzen ditu horrelako egintzak, larritasun-mailaren arabera.

Zerrenda kudeatzeko hartu diren geroko erabakiek argi zehaztu dute aztergai dugun hautagaiak alegatutako bi titulazioek zein espezialitatetarako sarbidea ematen duten; beraz, hautagai hori beste espezialitate batzuetarako gaitu dutenean argiro hautsi dira –arauen aginduz– orokorki eta eragindako pertsona guztiei berdin aplikatu behar zaizkien xedapen juridiko horiek.

Balizko azalpen moduan, Langileriaren Kudeaketarako zuzendari andreak iradoki du bere garaian, beharbada, ez zirela behar bezala gaitutako beste pertsona batzuk agertu, eta aldarrikatu du –bere ustez– interes orokorrak gailendu behar zuela kaliteturik gerta litezkeen beste pertsona batzuen interes partikularren gainetik.

Horren gainean, aurrekarietan jada argitu dugu izan bazirela hautagai kualifikatuak espezialitate horietan, hautagai horren aurreko postuetan nahiz ondorengoetan. Beraz, ez dago premiazko arrazoirik alegatzerik.

Bestalde, ez zaigu egokia iruditzen interes orokorra titulu abstraktu baten moduan, zuzenbide positiboan zehazki betearaztetik aparte dagoen zerbait balitz bezala ulertzea, araututa dauden jardueretan egokierazko irizpideak sartzeko edo, azken

batean, arauak ezartzeko betebeharretik salbu geratzeko. Izatez, arrazoiok ere ez lukete galaraziko administrazioaren egintza legean aurreikusitako deuseztasun- edo deuseztagarritasun-zioen batean jaustea.

Gai honetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu du hautagai horrek ez zuela titulurik, eta, auzitegiaren erabakiaren ondorioz, bi espezialitateetatik kanpo utzi behar izan du, baina, hala ere, oraindik espezialitate horietako batzuetan mantentzen du pertsona hori. Orduan, arauz kontra jokatzear gain, larriki urratzen ari da legezketasuna betetzeko duen betebeharra.

Horregatik, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak VII. Tituluaren I. kapituluan ezarritakoaren arabera, hezkuntza-administrazioak berriz aztertu behar ditu bai pertsona hori baliozko titulaziorik gabe hainbat espezialitateetan sartu izana, bai sarrera horren ondoriozko egintzak ere, bereziki –jakin dugunez– pertsona hori aurten espezialitate horietako batean irakasteko izendatu izana.

5. Egoerak bere horretan jarraitzea ez da, soil-soilik, lehenbailehen bukarazi beharreko jarduera irregularra, baizik eta, gainera, norgehiagoka bati dagokion gaia izanik –beste pertsona batzuen bidezko eskubideak eta interesak agertzen dira bertan–, kalte nabarmena sortzen die titulazio-baldintzak beteta ere sare publikoan lanpostu baterako sarbidea kendu zaien pertsonen, hain zuzen ere lanpostu horretan administrazioak berak eskatutako baldintzak betetzen ez dituen hautagai bat dagoelako.

Lehenbailehen ez jardun izanak areagotu egin ditu gertakari horren ondorioak; horrela, hezkuntza-administrazioak kexaren berri izan zuenetik jada bi ikasturte oso eta hirugarrenaren hasiera igaro dira, baina oraindik ez du zuzendu espezialitateak oker esleitze hori. Azken batean, zertzelada horren ondorioz, luzatu egin dira denboran eta pertsonalki oker haren ondorioak, eta egoerak hala jarraituko du okerra zuzentzen ez den bitartean.

6. Denbora luzea igaro den arren eta erakunde honek eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak elkarri idazki asko bidali dizkioten arren, ez dugu jakiterik izan hautagai hori zergatik sartu zen zenbait espezialitateetan haietarako titulu egokirik izan gabe.

Halaber, ez da justifikatu zergatik hasieran adierazi ziguten hautagaiak OLT/Fisioterapia espezialitatea titulua zuela, agiritan Fisioterapiari diplomatua titulua egiaztatutako baldin bazuen.

Ez dago bermatzerik, beraz, hutsegite hori bakarra eta ustekabe gertatua izan dela. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu irakasleak ordezkatzeko zerrendako pertsonen aurkeztu dituzten Fisioterapiako diplomatura guztiak zehatz-mehatz egiaztatzea, izan ere, titulu hori sortu berria denez gero, menturaz okerrak eragin ditu eta sail horren erregistro informatikoetan OLT/Fisioterapia espezialitateko tituluak izango balira bezala islatu dira.

7. Azkenik, guk ateratako ondorioek kexaren bideratze-prozesuan parte hartu ez duten pertsoneri ondore garrantzitsuak dakarzkietela ikusi eta gero, gogoeta labur bat egin behar dugu gure esku-hartzearen izaera juridikoaz eta nolakotasunaz.

Jakina denez, otsailaren 27ko 3/1985 Legean –erakunde hau sortu eta arautzekoak– Legebiltzarraren goi ordezkari gisa eratu zuen Arartekoa, herritarrak euskal administrazio publikoen agintekeria, nagusikeria eta zabarkeriatik babesteko, eta zeregin hori betetzean, administrazio horien egintzak, erabakiak eta ez-egiteak indarreko legeriari egokitzen zaizkion aztertze ahalmena eman zion.

Horrela, administrazioaren jokaerak araudiari men egiten dion ala ez objektiboki kontrolatzea da gure lanaren funtsa. Beraz, ez dugu interes partikularrak ordezkatzeko edo aldezteko asmorik –ezta kexagileenak ere–, nahiz eta, aztertzen ari garen kasuan gertatzen den bezala, eztabaidatutako administrazio-egintzan, elkarren kontrakoak izatera irits daitezkeen hautabide pribatu asko elkartu.

Ildo horretan, azaldutako gaien azterketa ez da ohiko administrazio-prozedura baten bidez bukatzen, eta ez dago entzunaldiaren edo jarrerak kontrajartzeko izapideei buruzko baldintzen menpe, hau da, tartean egon daitezkeen beste pertsona batzuei begira, legeriak administrazioaren jarduerarako agintzen dituen baldintzen menpe.

Kasu honetan, hartutako erabakia oinarritzea ahalbidetzen duten funtsezko elementu guztiak ezagutu ditugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bidali dizkigun txosten eta agirien bidez, sail horren argudioak ere baloratu eta erantzun ditugu, eta erabaki hori oinarritzeko ez zaigu beharrezkoa iruditu parte-hartzearen alor subjektibo zabaltzea, beste pertsona batzuei alegazioak egin ditzaten eskatzeko.

Horrek guztiak ez du esan nahi gomendioaren edukiaren ondorioz beren egoera zehatza kaltetuta ikusi dutenei beren eskaerak defendatzeko aukerak murriztu zaizkienik, izan ere, edonola, defentsa hori administrazioak gomendioan adierazitakoa betetzeko jarri beharko duen prozeduran zehaztu eta baliarazi beharko da, eta prozedura horretan indarreko legeriak gai honetaz ezarritako berme guztiak kontuan hartu eta bete beharko dira.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## **21 GOMENDIOA, 2005eko azaroaren 25ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina**

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetako irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko argibideak ezarri, eta legeriak onartutako prozedurazko berme guztiak betez, zerrendatik kanpo utz ditzala argibideetan agertzen diren espezialitateetarako berariaz aurreikusi diren titulazioak ez dituzten pertsona guztiak, besteak beste, kexa honetan aztergai izan dugun hautagaia.

Kontu berberaz berriki ditzala argitaratuta eta indarrean dagoen araudian berriaz aurreikusitako titulazioak izan gabe, pertsona horiek guztiak hainbat espezialitate-tan sartu izanaren ondoriozko egintzak, batez ere haiek 2005-2006 ikasturterako izendatu izana.

Egiazta dezala bere erregistro informatikoetan azaltzen den informazioa, hau da, OLT/Fisioterapia espezialitatea eta Fisioterapiari diplomatuaren tituluen kodeketa guztiz bat datorrela hautagaiek beren izenean egiaz eman dituzten tituluenarekin, eta okerrik aurkitzen badu, zuzen dezala.



## 2. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: “*Dagokien ihardutze-sailei, herrilariari edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Ardulararitza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko*” (sic). Kexak bideratzeko lana garatzean, batzuetan administrazio-jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugu, bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai aztertutako administrazio-jokaera hobea izan daitekeelako, ikuspegi bermatzaileago batetik, edo eraginkorragoa, zerbitzu publiko baten helburu propioak betetzean. Kasu horietan, Arartekoak gomendio bat bidaltzen du kexak eragindako administraziora, jokaera alda dezan eskatzeko.

Hala ere, komeni da zehaztea beti ez dela beharrezkoa gomendioa egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezotasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregulartasunak antzeman dituzten 341 administrazio-jokaera gomendiorik egin gabe konpondu dira.

Nolanahi ere, egindako gomendioak betetzeari bakarrik lotuko gaitzaizkio: 2005. urtean egindako 21 gomendioetatik eta 2004an erabakitzeko zeuden beste 4 gomendioetatik, 10 onartu dira; 8 ez dira onartu eta 7 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daude.

Kopuruaren ikuspegitik, 2005ean egindako gomendioetatik gutxi gorabehera % 50 onartu direla aipatu behar da, erabakitzeko daudenak kontuan izan gabe, jakina.

Emaitza horiek baloratzerakoan, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendioak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola herri-administrazioetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arrazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisisetan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzea eta gure argudioak errepikatzea, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio-jokaera bat aldatzea gomendatzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela. Administrazioaren desadostasun juridikoa gertatzekotan, erakunde honek bere gomendioari eutsiko dio, hala badagokio, eta urteko txostenean ez dela onartu agertuko du.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendia onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendia ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendia, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean. Erakundeen artean begirune eza erakusten duen jarrera horrek eragotzi egiten du gomendia ez onartzeko arrazoiak jakitea, eta, askotan, besterik gabe, hartutako administrazio erabakiak ez duela oinarri juridikorik azaldu beharra saihesten du.

Gure ustez, gomendia eragin duten espedienteak amaitzeko beste modu desegoki bat gomendia ez onartzea da, eragindako administrazioak kontrako jokaera hori oinarritzen duten argudioak azaldu gabe.

Uste dugu jokaera horiek –erantzun nahi ez izatea edo arrazoitu gabeko ezezko erantzuna ematea– urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokaera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde eskubidebermatzaile batera babes eske joan diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorarazi behar da onartu gabeko gomendio bakoitzak, erakunde honen bermatze-lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Atal honetan 2005ean egin diren eta 2004ko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden gomendioen egoera aipatuko dugu. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak eta 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak.

Hala ere, zehaztu behar dugu zatiz bakarrik onartu dela 3/2005 Gomendia, otsailaren 2koa, Donostiako Udalari egina, bizikleta, patin, gurrpil-ohol eta antzeko gailuak oinezkoentzako hiri-guneetan ibiltzearen gainean. Horrela, ontzat jotzen dugu udalak gai horretaz egin nahi duen informazio-kanpaina egitea, baina, gure ustez, Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulazioko Ordenantza izango den testuan egin diren aldaketek ez dute lortu gure analisisian azaldu genituen lege alorreko arazoak konpontzea.

## 2.1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Herrizaingo Saila

\* **86/2003/24 espedientea (10/2005 Gomendioa)**. Gomendatu zen baliorik gabe utz zedila (...) jaunari (...) zenbakiko prozeduran jarritako isuna, beharrezko izapideak egin zitezela balizko premiamendu-bidea baliogabetzeko eta itzul zitezela horren ondorioz bildutako diru-kopuruak, halakorik egin bazen.

\* **433/2003/24 espedientea (11/2005 Gomendioa)**. Gomendatu zen baliorik gabe utz zedila (...) jaunari (...) zenbakiko prozeduran jarritako isuna, beharrezko izapideak egin zitezela balizko premiamendu-bidea baliogabetzeko eta itzul zitezela horren ondorioz bildutako diru-kopuruak, halakorik egin bazen.

### B) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

#### BIZKAIKO UDALAK

##### Bilboko Udala

\* **917/2004/24 espedientea (9/2005 Gomendioa)**. Gomendatu zen baliorik gabe utz zedila (...) jaunaren kontra (...) erreferentziarekin bideratu zen trafiko alorreko prozeduran jarritako isuna nahitaez ordainarazteko premiamendu bidea, eta itzul zitezela horren ondorioz bildutako diru-kopuruak, halakorik bildu bazen.

##### Dimako udala

\* **89/2004/29 espedientea (29/2004 Gomendioa)**. Osoko bilkurak 2002ko otsailaren 6an eta 2003ko urtarrilaren 15ean hartutako erabakiak kontuan izanik, (...) jaunak lurzoru urbanizaezinean jasotako legez kontrako eraikina botatzeko hasi zen espedientearen aurrera egin zedila gomendatu zen, harik eta erabakiak betearazi arte.

##### Lemoizko Udala

\* **1282/2004/22 espedientea (14/2005 Gomendioa)**. Urizarreko gurdibidearen jabetza ofizioz berreskuratzeko hasi zen prozedura jarrai eta ebatz zedila gomendatu zen, Ondasunei buruzko Araudiaren 71. artikulua ezarritakoaren arabera.

Horrela, gurdibidearen zati hori modu egokian mugatu ondoren, udal horren Ondasun Higiezinaren Zerrendan sartu ahal izango zen.

## Sestaoko Udala

\* **1082/2002/24 espedientea (4/2005 Gomendioa)**. 2002ko maiatzaren 27an (...)k bere ibilgailua ibilgetzeagatik tasa gisa ordaindu zuen 60,10 €-ko zenbatekoa itzul zedila gomendatu zen.

## GIPUZKOAKO UDALAK

### Bergarako Udala

\* **411/2005/16 espedientea (13/2005 Gomendioa)**. Gomendatu zen baliorik gabe utz zitezela (...) jaunari HLBGZren likidazioetan ezarri zitzaizkion premiamenduzko errekarquak, hain zuzen ere (...) eta (...) erreferentziekin identifikatuta zeudenak, eta berrius zitezela jakinarazpenak egiteko erabiltzen diren ereduak, eredu horiek indarreko legeriari egokitzeko.

### Donostiako Udala

\* **456/2004/24 espedientea (3/2005 Gomendioa)**. Bizikleta, patin, gurrpil-ohol eta antzeko gailuak espaloietan eta oinezkoentzako guneetan ibiltzeari buruz trafikoko araudi orokorrean ezarritakoa bete zedila gomendatu zen, ibilgailu horiei dagokienez araudiak gune horietan baimentzen dituen erabilerak jendeari ezagutaraz zekizkiola eta, aurrerantzean, erabilera bidegabeak saihesteko behar den zorrotasunez jardun zedila.

\* **737/2004/16 espedientea (2/2005 Gomendioa)**. Gomendatu zen baliorik gabe utz zedila Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan (...) andreak –bere ezintasunagatik– egindako salbuespen-eskaera ezetsi zuen administrazio egintza, eta interesdunari 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera onura hori izateko eskubidea aitortzeki, hark betetzen baitzituen 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua eta hizkian eta udalaren zerga-ordenantzan bertan horretarako aurreikusita dauden baldintza guztiak.

## C) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

### Legelarien Euskal Kontseilua

\* **366/2001/21 espedientea (1/2005 Gomendioa)**. Gomendatu zen beharrezko neurriak har zitezela kexagileak 2001eko urtarrileko bere idazkian eskatu zituen agiriak –(...) zenbakiko gora jotzeko errekursoaren espedientearen zeudenak– eskura zitzan ahalbidetzeko. Era berean, aurrerantzean, Kontseilu horrek jarduerara arau orokortzat har zezala administrazio-prozedura batean parte hartu dutenei –baita zigor-espediente batean salatzaile badira ere– espediente hori osatzen duten agiriak ezagutzea erraztea. Espediente edo agiri zehatz baterako irispidea ukatzeko arrazoi oinarritu eta banan-banakorik balego, arrazoiok kexagileari jakinaraziko litzazkioke, ebazpen arrazoitu baten bidez.

## 2.2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

\* **608/2003/27 espedientea (16/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: indarrik gabe utz zedila Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak 2003ko maiatzaren 2an emandako ebazpena, (...) jaunari eta (...) andreaki etxebizitza libre erabilia erosteko laguntza ukatu ziena, erabat deuseza delako.

Era berean, hala bazegokion, legez ezarritako prozedura erabil zedila Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak abenduaren 18an emandako ebazpena berrikusteko, haren bidez onartu baitzen etxebizitza libre erabilia erosteko laguntza ematea.

### B) FORU ADMINISTRAZIOA

#### **Gipuzkoako Foru Aldundia**

\* **594/2002/19 espedientea (5/2005 Gomendioa)**. (...) zenbakiko zigor-prozeduran ezarritako zigorra baliorik gabe utz zedila gomendatu zen, baita zigor hori betearazteko egintzak ere, halakorik bazen.

### C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

#### **ARABAKO UDALAK**

##### **Eskuernagako Udala**

\* **340/2002/23 espedientea (15/2004 Gomendioa)**. Arau subsidiarioak berraztertzeke prozesuan, Errementari kaleko (...) zenbakian dagoen eraikinaren oin eta arkitektura osagaien babes morfologikoa ondasunen katalogoan sar zedila gomendatu zen, herriaren historia- eta kultura-ondararako duen interesa egiaztatu delako.

Bestela, udalaren katalogoan sartzea erabakitzen ez bazen, eraikina birgaitzeko unean, fatxada oraingo arauetan ezarritako lerroakadurara aldatzeko gastuetan laguntzeko gomendatu zen, beste administrazio batzuekin bat etorritz.

#### **BIZKAIKO UDALAK**

##### **Bilboko Udala**

\* **869/2003/24 espedientea (27/2004 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: baliorik gabe utz zedila (...) zenbakiarekin (...)ren kontra bideratu den trafiko alorreko

prozeduran ezarri zen zigorra nahitaez betearazteko premiamendu-bidea, eta, hala balegokio, itzul zitezela horregatik bildu ziren zenbatekoak.

\* **439/2004/24 espedientea (17/2005 Gomendioa).** (...) eta (...) zenbaki-ekin bideratutako trafikoko zigor-prozeduretan jarritako zigorrak baliorik gabe utz zitezela gomendatu zen, eta, hala balegokio, itzul zitezela kontzeptu horregatik bildutako kopuruak.

### Portugaleteko Udala

\* **1494/2004/19 espedientea (16/2005 Gomendioa).** Kexagileak salatutako egintzak ikertzen jarrai zedila gomendatu zen, "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako" gomendio orokorrean adierazitako parametroak erabiliz, eta horretarako gauzatzen dituen jardueren berri eman ziezagutela.

Era berean, udaltzainek agian araz kontra jokatu dutela salatzen duen kexaren bat jasotzen zutenean, bere jokaera gomendio horretara molda zezala gomendatu zen, eta beharrezko baliabideak jar zitezela, gomendio berean aipatu genituen polizi zerbitzuaren kalitatea kontrolatu eta ebaluatzeko prebentzio-sistemak eskura izate aldera.

## GIPUZKOAKO UDALAK

### Hondarribiko Udala

\* **361/2005/30 espedientea (15/2005 Gomendioa).** Honako hau gomendatu zen:

1. Erabil zitezela udalaren eskumenak Hondarribiko jai-politika eratzeko orduan, herri horretako gizon nahiz emakumeentzat berdintasuneko gune bat sortzeko ardura bere gain hartuz,
  - a) udalak Alarde publiko bat iragarri
  - b) edota, gutxienez, irailaren 8rako baimendu zuen Alardean Jaizkibel Konpainia mistoa sartzea formalki eta materialki sustatuz, Alarde hori benetan ospatzeko baldintza gisa jartzen zuela. Horretarako, udalak Alarde Fundazioa erakundeari eman zion baimena baldintza honen mende jarri beharko luke: ez zedila sexuagatik bereizkeriarik egin, 4/2005 Legearen 3.1.b eta 25.1 artikuluetan agindutakoaren arabera.
2. Udalak erakunde gisa bere gain har zezala gutxiengoekin baketsua eta errespetuzkoa izango den jai giroa bermatzerakoan duen erantzukizuna. Horretarako, beharrezkoa balitz, jaietan Jaizkibel Konpainiako pertsonak Hondarribiko kaleetan ibiltzen direnean, jendeak haiekin portaera gizabidezkoa eta demokratikoa izan dezala eskatu beharko luke eta oraingo iritzi-egoera aldarazteko sentsibilizazio jarduera eta kanpainak egin beharko lituzke urte osoan, emakume eta gizonen berdintasuna onartzeko jarreretara iristeko, eta demokrazia eta bizikidetasun balioak herriko eguneroko bizimoduan barneratzeko.

## Irungo Udala

\* **286/2005/30 espedientea (6/2005 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen:

1. betiko Alardearen Agintarien Batzarrari emandako baimena 4/2005 Legearen 3.1.b eta 25.1 artikuluetara egokitu zedin baldintzaren mende jar zedila, eta Alardea antolatu ahal izateko emakumeei berdintasunez parte hartzen uztea ezinbestekotzat jo zedila.
2. Nolanahi ere, Irungo herritarrentzako berdintasunezko Alardea gaitzea udalak bere gain har zezala, udalak herri Alardearen deialdia zabalduz edo, bestela, hala egin zedin bermatuko zuten kolektiboei berdintasunezko Alardea antolatzeko laguntza formal eta materiala eman ziezaiela, udalbatzari horretarako egin zaizkion finantzaketa eta baimen eskariak baietsiz.
3. Udalak erakunde modura bere gain har zezala emakumeek Irungo Alardean parte hartzearekin zerikusirik duen edozein indarkeria edo oldarmendu aztarna errotoz moztea, giro hori suspertzen duten establezimendurik zabaltzea eragozteko dituen polizia ahalmenak baliatuz, eta urte osoan oraingo iritzi egoera aldarazteko sentsibilizazio jarduera eta kanpainak eginez, emakume eta gizonen berdintasuna onartzeko jarreretara iristeko, eta demokrazia eta bizikidetasun balioak herriko eguneroko bizitzan barneratzea lortzeko.

## 2.3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **1306/2003/24 espedientea (21/2005 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikaste-txeetako irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko argibideak ezarriz, eta legeriak onartutako prozedurazko berme guztiak betez, zerrendatik kanpo utz zitezela argibideetan agertzen ziren espezialitateetarako berariaz aurreikusi diren titulazioak ez zituzten pertsona guztiak, besteak beste, kexa honetan aztergai izan genuen hautagaia.

Kontu berberaz berrikus zitezela argitaratuta eta indarrean dagoen araudian berariaz aurreikusitako titulazioak izan gabe, pertsona horiek guztiak hainbat espezialitatetan sartu izanaren ondoriozko egintzak, batez ere haiek 2005-2006 ikasturterako izendatu izana.

Azkenik, bere erregistro informatikoetan azaltzen zen informazioa egiazta zedila eskatu zen, hau da, OLT/Fisioterapia espezialitatea eta Fisioterapian diplomatua tituluen kodeketa guztiz bat zetorrela hautagaiek beren izenean egiaz eman zituzten tituluengatik, eta okerrik aurkituko balitz, zuzen zedila.

### B) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

#### ARABAKO UDALAK

##### Bastidako Udala

\* **457/2004/28 espedientea (8/2005 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: eska zekiola (...) tabernaren titularrari hilabeteko epe luzaezinean aukera zezala, behin betiko, 2004ko apirilaren 1eko 38/2004 Dekretuan proposatu ziren bi aukeretatik bat, eta ohartaraz ziezaiola hori egin ezean taberna itxiko zela, zuhurtasunezko neurri gisa, 3/1998 Lege Orokorrak –Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoak– 105. artikuluan agindutakoa urratzeagatik.

#### BIZKAIKO UDALAK

##### Ortuellako Udala

\* **1231/2004/31 espedientea (20/2005 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen:

- 1) Udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko zuen jarduera-protokolo bat egin zedila, ijitoak diren herritar berriei harrera hobea egiteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak aintzat hartuz.



- 2) Parte hartzeko neurriak har zitezela, herritar berrien integrazioa errazteko eta haien gizarte-bazterketa eragozteko.
- 3) Mugakide dituen udalekin batera, erantzun koordinatuak hitzartu zitezela, biztanle etorkinak artatzean eta hartzean lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

### **Portugaleteko Udala**

\* **1176/2004/31 espedientea (18/2005 Gomendioa)**. Hauxe gomendatu zen:

- 1) Berariazko ebazpen baten bidez erantzun ziezaietela udal erroldan izena emateko eskabideei, eta benetan herrian bizi diren pertsonak errolda zitzatela.
- 2) Lehentasuna eman diezaiola, beste jarduera batzuen aurretik, ostaturik ezari aurre egiteko gizartean esku hartzeari, gizarte-zerbitzuen alorrean duen eskumena erabiliz.

\* **1231/2004/31 espedientea (19/2005 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen:

- 1) Udal zerbitzu guztien arteko koordinazioa erraztuko zuen jarduera-protokolo bat egin zedila, ijitoak diren herritar berriei harrera hobea egiteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak aintzat hartuz.
- 2) Herritar berrien gizareratzea errazteko, haien bereizgarriak eta berariazko beharrak kontuan hartuko dituzten eta gizarte-bazterketa galaraziko duten jarduerak neurriak har zitezela.
- 3) Mugakide dituen udalekin batera, erantzun koordinatuak hitzartu zitezela, biztanle etorkinak hartzean, lurraldeen arteko desorekak saihesteko.

## **GIPUZKOAKO UDALAK**

### **Lasarte-Oriako Udala**

\* **22/2005/22 espedientea (7/2005 Gomendioa)**. (...) jaunak agiri batzuk eskuratzeko egin zuen eskabidea berariaz ebatz zedila gomendatu zen, betebeharrak hori ezartzen baitu 30/1992 Legearen 42. artikulua. Horretarako, aintzat hartu beharko litzateke azaroaren 26ko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 37. artikuluan agindutakoa, baita horrekin batera ezarri beharreko legeria ere.

### **Oiartzungo Udala**

\* **459/2005/31 espedientea (12/2005 Gomendioa)**. (...) jaunak udal erroldan inskribatzeko egin zuen eskabidea onar zedila gomendatu zen, hain zuzen ere, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 15. artikuluan eta Toki-erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 54 eta 62. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.



III. ATALA

**GOMENDIO OROKORRAK**



## 1. EREMU SOZIALEAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEETARAKO ERAKUNDE LAGUNTZAKO BIDEAK ETA PROZEDURAK HOBETU BEHARRA

### 1. Elkarteek eurek agertutako arazoak

Ararteko erakundeak eremu sozialean lan egiten duten elkarte ezberdinekin al-dian-aldian dituen bileretan, elkarte horiek maiz agertu dituzte herri administrazioen diru-laguntzekin dituzten arazoak. Oro har, ez dira kontu berriak, horietako asko urtez urte doazelako; era berean, ez diote sail bakarrari edo administrazio zehatz bati eragiten, nahiz eta elkarteek kasuen arabera ezberdintasun garrantzitsuak daudela adierazten duten (urte batetik bestera, sail batetik bestera edota sail bereko deialdi batzuen artean).

Arazo horiek beste jarduera-arlo batzuei eragin diezaieketen arren, hemen egoera txar-tzarrean dauden pertsonentzat arreta-programak burutuz eremu sozialean lan egiten duten elkarteek ari gara. Askotan elkarte horiek bestela egongo ez liratekeen edo nahikoak izango ez liratekeen baliabideak eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, erakunde erantzukizun argia duten arreta eremuak betez eta administrazioen gabezia batzuk ordeztuz.

Egia esan, badaude irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeak, beren bazkideen edo boluntario gisa laguntzen duten beste pertsona batzuen ardurara, ahalegin eta ekarpenei esker aurrera ateratzen direnak. Dena den, horietako askok herri erakundeetara jotzen dute proiektuak garatzeko beharrezkoak diren diru-laguntzak eskatzeko, logikoa denez. Are gehiago, horietako baten bat erakunde laguntzen mende dago erabat, bere programei eutsi ahal izateko. Diru-laguntza horiek urteko deialdi espezifikoek jarraiki banatu ohi dira.

**Maizen agertzen dizkiguten arazoak** honako hauek dira:

- 1) Atzerapenak laguntzen deialdietan eta bereziki horien ebazpenean: deialdiak Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira, eta urtearen zati handia igaro ondoren ebazten dira.
- 2) Atzerapena laguntzak jasotzeko orduan, eta presa esleitutako kopuruak gastatu eta gastuak behar bezala justifikatzeko.
- 3) Ziurgabetasuna urte batetik bestera, laguntzen jarraipen edo kopuruari buruz.
- 4) Desadostasuna edo iritzi-ezberdintasuna elkartearen antolamendu eta kudeaketa beharrianen eta aukeren artean, eta deialdiaren eskaera edo eskakizunen artean.

- 5) Komunikatzeko zailtasunak deialdien arduradunekin edo kexak adierazteko, ondorio negatiborik sortu gabe, askotan diru-laguntzen mendekotasun-maila dagoela kontuan hartuta.
- 6) Argitasun urria erakunde eskudunei buruz eta erakunde bakoitzari eska dakizkikeen erantzukizun edo konpromisoei buruz.
- 7) Aldi berean finantzatzeko eskaerak zenbait programatan parte hartu ahal izateko eskakizun gisa, aldi berean finantza lezaketan administrazioen aurreko koordinaziorik gabe.
- 8) Gastuak justifikatzeko kontuan hartu beharreko irizpide bateratu edo berdintsurik ez izatea (justifika daitezkeen kontzeptuak, fakturak, datak, azalpen memoria...).

Azken hiru kontu horiei dagokienez, arazoak maiz areagotzen dira elkarte berak, edo hobeto esanda programa zehatz batek, administrazio ezberdinen laguntza (adibidez, zerbitzua kokatuta dagoen herriko udalarena, bidezko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailarena eta Eusko Jaurlaritzaren Sailen batena) jaso duenean edo jasotzen duenean: administrazio batetik bestera ibili behar da, ustekabeko irizpide aldaketak daude urte batetik bestera, egutegi eta prozedura ezberdinak dituzten laguntzen deialdiak egiten dira ...

Funtzionatzeko modu horien **ondorioei** dagokienean, asko aipatu ohi dira:

- Hainbat hil (normalean, urteko lehenengo hilak) laguntza jasoko duten eta jasoz gero zenbat diru jasoko duten jakin gabe irauten duten programak eta jarduerak.
- Banku-kredituak eskatu beharra, sortzen diren gastuei aurre egin ahal izateko laguntza jaso arte.
- Urte amaieran jasotako diru-kopuru bat azkar gastatu beharra, edota benetan egindako gastuekin bat ez datozen fakturak edo frogagiriak lortu beharra.
- Zenbait programa kendu behar izatea, bermerik ez izateagatik edo laguntzen urritasuna edo ustekabeko murrizketa dela-eta horiei eutsi ezin izateagatik.
- Funtzionamendua adostu edo elkartearen antolamendua derrigortu beharra eskatzen zaizkion eskakizunetara moldatu ahal izateko, bere helburuetatik urrunduz edo beharrik izan gabe nahastuz...

Aurretik adierazi dugun bezala, ez dira kontu berriak. 1995etik, behintzat, Arartekoak kontu horietako batzuetan esku hartu du. Baina egia esan, arlo horretan inoiz ez zaizkigu aurkeztu azken bi urteetan beste arazo, elkarteekin aldian-aldian egindako bileretan, arreta sozialeko zenbait baliabidetara egindako bisitetan eta kexa formalen bidez. Kexa edo arazo horiek **oso jarduera-arlo ezberdinei eragiten diete:**

- Minusbaliatuei arreta emateko baliabideak;
- Adingabe eta guraso bananduentzako topalekuak;
- Espetxean esku hartzeko programak;
- Babesik gabeko adingabeentzako baliabideak;
- Espetxetik irten diren edo espetxeetako hirugarren mailan dauden pertsonentzako arreta programak edo baliabideak;
- Drogazaletasun arazoak dituzten pertsonentzako arreta soziosanitarioko baliabideak;

- Buru-gaixotasunak dituzten pertsonentzako tutoretzapeko ostatua;
- Baliabide gutxi dituzten emakumeentzako arreta;
- Etxerik gabeko pertsonentzako ostatua, ...

Ararteko erakundearen arlo horiei buruzko kezak edo informazioak jaso dira, behintzat, eta askotan kontu horietan esku hartu da.

Bistan denez, aipatutako arazoek ez diete berdin eragiten elkarte guztiei. Beren profesionalizazio-maila, kide kopurua, antolamendua, lanaren eremu espezifikoak, garatutako programen izaera, finantza-konpromisoak, langileak edo aurretik lortu duten azpiegitura, besteak beste, kontuan hartu beharreko faktoreak dira. Bestalde, arazo guztiak ez dira berdinak edo ez dute antzeko oinarririk. Hala ere, arazo horietako asko prozedurari, edo zehatzago laguntzak zehazteko epeari eta moduari, egotz dakizkieke. Gomendio honetan laguntzetan jarriko dugu arreta, bereziki.

## 2. Deialdi batzuen azterketa eta azterketa horretatik ateratako ondorioak

Kexa zehatzen aurrean burututako jarduerak edo aspaldian foru aldundietako Gizarte Ekintza Sailen aurrean egindako esku-hartzeak alde batera utzita, oraingoan Ararteko erakundeak **deialdiei eta elkarteekiko bileretan kritika gehien jasotzen zituzten sailei buruzko ofiziozko ikerketa zabaltzea** erabaki zuen.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren bi sailetara jo zuen: Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako Sailera eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailera, hain zuzen ere. Bi kasuetan antzeko informazioa eskatu zen –2003an eta 2004an elkartei zuzendutako laguntzen deialdi guztiei buruzkoa–, eta hurrengo datuak emateko ere eskatu zitzaizen:

- Deialdi bakoitzaren erreferentzia (izenburua) eta bere aurrekontuko diru-kopurua.
- Deialdia EHAA-n argitaratu zen eguna.
- Deialdia ebatzi zen eguna (EHAA).
- Igorpenak egin diren eguna (laguntzak benetan jaso diren egunetik ahalik eta hurbilen dagoena).
- Elkarteek esleitutako diru-kopuruak gastatzeko zituzten egunak, eta gastuen frogagiriak aurkezteko izan zuten azken eguna.

Horren bidez, elkarte askotan eragin nabarmena izan zuten deialdi ezberdinei buruzko datu objektibo batzuk lortu nahi ziren.

Datu objektibo horietaz gain, aipatutako bi sailei eskatu zitzaizen beren ustez erabilgarria zen edozein ekarpen edo balorazio egiteko, bai aipatutako arazoaren arrazoiei buruz, bai horiek konpontzeko balizko proposamenei buruz.

Adierazi behar dugu Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren erantzuna azkarra ez ezik, zabala eta zehaztua ere izan zela. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren erantzuna urtebete pasatu ondoren heldu da, berriro eskatu eta gero, eta urteko bi deialdiren berri baino ez du ematen.

Horren ondorioz, datuen azterketa ezin izan zen gehitu iazko txosten arruntera, hasieran aurreikusi genuen bezala.

- **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak** hurrengo deialdien 2003ko eta 2004ko datuak eman zituen:
  - Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren arlo edo kudeaketa eremutik:
    1. Gay, lesbiana eta transexualen taldeei zuzendutako jarduerak garatzen dituzten erakundeetarako laguntzak.
    2. Lurralde z gaindiko jarduerak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen funtzionamendurako laguntzak.
    3. Prebenitu, lagundu eta gizarteratzeko programetarako laguntzak.
    4. Irtenbide berritzaileak ematen dituzten gizarte-ekimen esperimentaletarako laguntzak.
    5. Borondatezko lan antolatuari lagundu eta bultzatzeko neurriak.
    6. Ikastaroak eta mintegiak antolatzekeo laguntzak.
    7. Jardunaldiak, biltzarrak eta antzekeo gertaerak antolatzekeo laguntzak.
    8. Euskal Autonomia Erkidegoan borondatezko lana sustatzeko laguntzak, boluntarioak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeekin batera lan eginez boluntarioen aseguruia finantzatzeko.
    9. Ikasle minusbaliatuen unibertsitate garraioaren gastuak ordaintzekeo laguntzak.
    10. Hiru urtetik beherako umeak dituzten familientzako eta hiru urtetik beherako adingabeei arreta ematekeo zentroen sarea finkatzeko laguntzak.
  - Inmigrazio Zuzendaritzatik:
    1. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan etorkinen partaidetza lagundu eta bultzatzeko laguntzak.
    2. Gazte atzerritarrei gizarteratzeko prozesuan arreta eskaintzekeo laguntzak.
    3. Inmigrazioaren eremuan ikastaroak eta mintegiak antolatzekeo laguntzak.
    4. Kultura aniztasuna sustatzeko laguntzak.
    5. Atzerriko herritarrak gizarteratzeko programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetarako laguntzak.
  - Droga Gaietako Zuzendaritzatik:
    1. Agindua, prebentzio programak burutzeko eta arrisku eta kalteak murriztekeo diru-laguntzak deitzen dituen.
  - Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzatik:
    1. Garapenerako Lankidetzako proiektuetarako laguntzen deialdia.
    2. Euskal borondatezko lankideen programa.
    3. Nazioarteko Erakundeetarako laguntzen programa.
    4. Espezializazio-bekak.



- **Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak** lau deialdiri buruzko informazioa eman du: bi 2003koak dira, eta beste biak, berriz, 2004koak.
  - Agindua, gizarteratzearen arloan jarduerak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituena.
  - Agindua, familiaren arloan programak eta jarduerak burutzeko diru-laguntzak arautu eta deitzen dituena.

Hortaz, **44 deialdiren** (22 2003koak ziren, eta beste 22ak, berriz, 2004koak) **datuak** aztertu ahal izan ditugu, nahiz eta hemen eskaintzen diren datuak eta ondorioak nabarmentzeko lau deialdi baztertu ditugun, oso ezaugarri bereziak izateagatik eta elkarteei ez eragiteagatik, pertsona fisikoei baizik. Gure ustez, gainerako deialdiak gomendio honen xedearen barnean daude erabat.

Deialdi bakoitzari dagozkion izapidetze epeei buruz eskatutako datuez gain, kasu batzuetan eskura izan ditugu sailen iritziak edo ekarpenak. Esate baterako:

- Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak iritzi asko eta urte ezberdinetan (2001etik 2004ra) bideratutako espedienteen lagin baten azterketatik ondorioztatutako emaitza batzuk gehitu dizkie datuei, horri esker datuak lotuago daudela errealtateari.
- Gizarteratze Zuzendaritzak gizarteratze jardueri buruzko Aginduari dagokion 2005eko izapidetze egutegiaren laburpena erantsi du, 2005eko urtariletik azarora doana.

Gomendio honen xedearekin hobeto bat etortzeagatik eta argiagoa izateagatik, uste dugu komenigarriagoa dela hemen datuen azterketatik ateratako ondorio nagusiak biltzea, eta ez erabilitako datuen taulak.

### **Hurrengo ondorioak azpimarratuko ditugu:**

1. Erantzunen azterketatik argi eta garbi ondoriozta daiteke kudeaketaren arduradunek jakin badakitela deialdi horiek bideratzean arazoak sortu ohi direla. Esate baterako, hurrengoetan arazoak egon ohi direla aitortzen da:
  - Eskatutako informazioa Arartekoari bidaltzeko ofizioetan (*“Adierazi nahi dizut kontu horrek asko kezkatzen gaituela eta hori hobetzeko ahaleginak egiten jarraituko dugula”*).
  - Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak egindako espediente zehatzen azterketan eta egindako azterlanetik Zuzendaritzak berak ateratzen dituen ondorioetan.
  - Gizarteratze Zuzendaritzak erantsitako 2005eko izapidetze egutegian.
2. Hala ere, arazoei ez zaie arrazoirik egotzen, kasu zehatz batzuetan arrazoi ezberdinak hauteman edo bereiz daitezkeen arren:
  - Sailaren kudeaketari berari egotz dakizkiokeen atzerapenak.
  - Administrazioaren beste organo batzuei (bereziki Kontrol Ekonomikoko Bulegoari) egotzitakoak.
  - Elkarteei beraiei egotzitakoak, izapideren batean (adibidez, gastuen justifikazioan) huts egiten dutenean.

3. Deialdien izapidetze epeei dagokienez, batzuen eta besteen artean eta urte batetik bestera aldeak badaude ere (urteen arteko aldeak batzuetan oso nabarmenak direla), **joerak** oso argiak dira:
- Urteko deialdiak martxoan argitaratu ohi dira EHAAAn. Dena den, askotan deialdiak ez dira argitaratzen maiatza heldu arte (2003ko deialdi guztiak maiatzetik aurrera argitaratu ziren), eta maiz laguntzen urte zehatz bateko deialdia urtearen zati handia igaro ondoren argitaratu da.
  - Deialdiaren eta ebazpenaren artean dagoen batez besteko denbora sei edo zazpi hilabetekoa izan ohi da, erabakia hartzen den arte zenbatuta. Erabakia hartu ondoren, normalean eskatzaileei jakinarazten zaie berehala, eta bi edo hiru hilabete beranduago, ebazpena EHAAAn argitaratzen da.
  - Askotan elkarteei lehenengo ordainketa (normalean, emandako laguntzaren ehuneko zehatz bat: % 50, % 70, ...) urtearen amaieran (abenduan) ematen zaie, eta batzuetan, eta salbuespen gisa, hurrengo urtean (urtarrilean), hau da, benetako gastuaren aldia amaitu ondoren. (Ez da erraza jakitea adierazitako egunak ordainketa-egunari ala eskatzaileek benetan kopurua jasotzen duten egunei dagozkien).
  - Bai aztertutako datu koadroetatik, bai Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak egindako espedienteen laginetik, honako hau ondorioztatzen da: edozein elkarte bere proiektua aurkeztu eta laguntza eska dezakeen azken egunetik (deialdiaren azken eguna) ordainketa igorri arte igarotzen den batez besteko denbora sei eta zortzi hilabete bitartekoa izan ohi da.
  - Gastuak justifikatzeko ezarritako epea laburregia izan ohi da: kasu askotan, egun gutxitakoa. Noizean behin –hutsunea izan liteke, baina ez du horrelakorik ematen–, gastuak justifikatzeko azken eguna ebazpenaren aurrekoa da, eta horren ondorioz, EHAAko argitalpenaren aurrekoa ere bai.

Hemen interesatzen zaigun ikuspegitik (ondorio negatiboak programetan eta elkarte funtzionamenduan), uste dugu horiexek direla nabarmendu beharreko joera nagusiak. Nolanahi ere, joerak dira, “batez besteko denborak”. Hala eta guztiz ere, kasu zehatzagoak daude, Zuzendaritza zehatz bati edo urte zehatz bati eragin diezaioketeenak, deialdi guztiak urtearen azken hiletan argitaratu direla, hurrengo urteko urtarrilaren amaieran edo otsailean ebatzi direla, eta gastuak otsaila amaitu aurretik justifikatu behar direla. Hori oso kudeaketa ez-eraginkorren seinale da, programen funtzionamendurako ondorio larriak dituela.

Bildutako informazioari esker, beste azterketa asko egin daitezke (Zuzendaritza edo kudeaketa-organo zehatz batena, aldi zehatz batena, diru-kopuru berezia edo jarduerar- arlo zehatz batean eragina duen deialdi zehatz batena, eta abar). Azterketa horiek oso interesgarriak izango lirake arrazoiak aztertze eta prozedurak berrikusi eta hobetzeko. Gure ustez, eginkizun hori Administrazioari berari dagokio, horretan interes handiena duen erakundea izan beharko litzatekeela.

Hemen eremu sozialean esku hartzen, eta azken beltzean, bereziki ahulak diren pertsonen zerbitzua ematen lan egiten duten elkarteetan ondorio negatibo bereziak dituzten arazoak aipatu baino ez dugu egin. Ikuspegi horretatik, berdina da atzerape- nak sail arduradunak izapideak berandu hasteagatik, Aldizkari Ofizialak argitalpena berandutzeagatik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren edo Erakunde arteko Batzorde

Iraunkorraren txostena berandu heltzeagatik edo Ogasun Saileko Kontu-hartzaitza ordainketak egiteko orduan berandutzeagatik gertatu diren. Izan ere, elkarteetarako eta beren zerbitzurako ondorioa berdina da, eta betiere negatiboa.

### 3. Hobetzeko zenbait proposamen

Ez omen da bidezkoa hainbat urtetan eremu sozialean esku hartzen, laguntzarik ez duten pertsoneri arreta eskaintzen, eta beren ekimen eta arduraz administrazioek bete gabeko jarduera-arloak babesten lan egiten duten baliabideek, programek eta erakundeek urtero mota horretako prozedurak bete behar izatea, prozedura horiek lagundu eta bermeak eman beharrean, etengabe oztopoak, zalantzak eta kezkek besterik sortzen ez dituztela.

Beharrezkoa bada ere, hemen ez dugu eztabaidatuko zein zerbitzu hartu behar duten zuzenean beren gain administrazioek edo beste agente sozial batzuek, “elkartasun-elkarteen” –gizarte zerbitzu eta arreten erakunde arduradunak edo emailak diren aldetik– eta administrazioen arteko lankidetzaz hobetu ahal izateko. Dena den, erakunde honek hurrengo proposamenak edo gomendioak egin ditu:

- 1.** Arreta sozialaren arloko eskumenen gaur egungo banaketa kontuan hartuta –udal, lurralde eta autonomi erakundeak zuzenean sartuta daudela–, eta eskumenak mugatzeko urratsak eman diren arren, beharrezkoa da alde bakoitzari eragiten dioten erantzukizunak edo konpromisoak argiago zehaztea, bereziki partaidetza motei eta elkarteek sustatutako gizarte-ekimenei egoki dakizkiekeen laguntzei dagokienean.  
Mugatzeko eginkizun hori oso presazkoa eta beharrezkoa da zenbait eremutan, esate baterako eremu soziosanitarioaren barnean sartuta daudenetan.
- 2.** Erakundeek partaidetzako mekanismo egonkorak ezarri behar dituzte oraindik horrelakorik ez duten eremuetan. Mekanismo horiek gizarte-ekintza koordinatuagoa, inplikaturako sektore ezberdinen arteko informazioaren trukea eta gizarte ongizate handiagoa lortzera bideratzen diren politika, programa eta prozeduren baterako berrikuspena eta hobekuntza ekarri beharko dituzte beraiekin.
- 3.** Laguntzarik ez duten sektore sozialetarako arretan parte hartzen duten erakunde ezberdinekin laguntza- eta lankidetzaz bidezkoak ezarri edo bultzatzeko aukera hausnartu beharko litzateke urteko aurrekontuak egiteko izapideetan. Bidezko horiek aurrekontuko urtearen denbora esparru murrizta baino luzeagoak izan behar dira, eta segurtasun handiagoa eskainiko dute egokitzat jotzen diren formulen bidez: epe ertainerako hitzarmenak, hainbat urtetarako konpromisoko kredituak, etab.
- 4.** Tradizio edo eragin handia duten urteko deialdiei dagokienez, izapidetze prozesuak berrikusiko dira guztien artean, zailtasun iturri nagusiak zeintzuk diren nabarmendu, haien arazoak aztertu eta horren ondorioz, izapideak eta

prozedurak erraztu, zuzendu edo bizkortzeko, edo bestela horien ordeztu bide egokiak –aurreko atalean adierazitakoak kasu- ezartzeko.

Uste dugu gomendio horien aplikazioak administrazioen kudeaketa nabarmen hobetuko lukeela, eremu sozialean aktiboki lan egiten duten elkarte eta gainerako erakunde sozialetarako argitasun eta berme handiagoak ekarriko lituzkeela, eta azken batean, bereziki ahulak diren pertsonen arreta hobea ematea eragingo lukeela, Administrazioari dagozkion diruz lagundutako programa eta baliabideen segimendu eta ebaluazioaren kalterik gabe.

Bestalde, uste dugu gomendio horietako gehienak gure Gizarte Zerbitzuen Legeak (5/1996) ezartzen duen herritarren partaidetza printzipioaren aplikazioa baino ez direla. Izan ere, lege horrek bide edo formula ezberdinak (adibidez, gizarte-ongizaterako udal, lurralde eta autonomi kontseiluak) sortzea ezartzen du, gizarte-zerbitzuen planifikazio, informazio, antolamendu eta funtzionamendu zereginak izango dituztenak. Hemen aztertutako problematikak eremu sozialean aktiboki esku hartzen ari diren agente guztien partaidetza eta koordinazioa bermatu beharra indartzen du.

Ziur aski, hemen adierazitako arazoetako asko elkartegintzaren elkarriketa eta partaidetza handiagoaren bidez konponduko lirateke, Administrazioaren alde bakarreko jokabideak edota elkartasun-elkarteen beharrianak eta ikuspegiak behar bezala aintzakotzat hartzen ez dituztenak alde batera utziz.

Beste arazo batzuk konpontzeko, erakundeen arteko koordinazio handiagoa behar-ko litzateke, zalantzarik gabe, eta ziur aski, mota horretako deialdietarako hausnartu ez baziren ere, laguntzen esleipen, kudeaketa eta gastuen justifikazioaren prozedura osoa baldintzatzen duten araudi orokorrak berrikustea.

## 2. GURE AUTONOMIA ERKIDEGOAN TXAKUR GIDARIEN EDO LAGUNTZEKO TXAKURREN KONTZEPTUA BERRIZ DEFINITU BEHARRA

Ararteko erakundean ardura sortu izan du beti ezgaitasunen bat duten pertsonen beren eskubideak erabiltzeko dituzten zailtasunak.

Azken urte hauetan pertsona ezgaituek jasan behar dituzten arazoak ezagutu ahal izan ditugu erakunde honetan, partikularrak edo kaltetuen elkar-teek, senideek edo laguntza taldeek adierazitako kexei esker.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako ezohiko txosten batzuetan azaldu izan ditugu pertsona ezgaituen eskubideak kaltetzen dituzten arazoak.

Horrela, *Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera EAEn* (1999) txostenean, kontuan hartzen dira zerbitzu horietako irisgarritasun eta mugikortasun baldintzak; *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo* (2000) txostenean, talde honek lan munduan sartzeko dituen aukerak aztertzen dira, eta *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* (2001) txostenean hezkuntza integrazioaren aukera aztertzen da.

2003. urtean, pertsona ezgaituen urteurren europarrarekin bat eginez, bi txosten aurkeztu ziren Eusko Legebiltzarrean pertsona horiek bereziki kezkatzen dituzten bi konturi erantzuna eman nahian:

- *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* (2003).
- *EAEn erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* (2003).

Aipatutako txosten hauek ezgaitasunaren web orrialdean aurki daitezke, gure web orriaren, [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net), leiho batean.

Txosten hauen bidez jakin ahal izan da, pertsona hauek aurkitzen dituzten arazoak, ugariak eta mota askotakoak direla: hirigintza oztopoak, traba arkitektonikoak eta komunikabideenak; irisgarritasun arazoak garraibideetan; arazoak etxebizitzetara, lan mundura edo hezkuntzara heltzeko; teknologia berriak erabiltzeko trabak; egoitza arazoak; zerga arloko neurriak; elbarritasunaren balorazioa, errehabilitazioa; laguntza goiztiarra; laguntza informala eta zainketaz arduratzen diren pertsonen beharrak; aurrea hartzea; laguntza teknikoak...

Izaera orokorra duen gomendio honetan Laguntzeko txakurren Espainiako Elkar-teak (aurrerantzean AEPA) erakunde honi azaldutako kontuaren berri eman nahi dugu, uste baitugu hori Eusko Legebiltzarrari itsu txakurren azaroaren 21eko 17/1997 Legea aldatzeko aukera hausnarrarazteko baliagarria izango zaiola. Arau horrek txakur gidari batekin honako lekuetara sartzeko eskubidea bermatzen die ikusmen-ezgaitasunen bat duten pertsonen: Euskal Autonomia Erkidegoko leku, zerbitzu eta garraio publikoetara edo erabilera publikoa dutenetara. Horrela, itsu edo laguntzeko txakurren kontzeptua berriro definitzen da, horien erabilera urritasun ezberdinak dituzten pertsonetara zabalduz.

Laguntzeko txakurrak bereziki trebatutako animaliak dira, orokorrean urritasun fisikoak dituzten pertsonen laguntzeko lanak egiteko.

Erabiltzailearen premien eta jaso duten heziketaren arabera, laguntzeko txakurrek hainbat lan egin ditzakete, esate baterako, gauzak lurretik jaso, gorpil-aulkiei tira egin, argiak piztu eta itzali, larrialdiko dei bat egin, abisatzeko zaunka egin, etab. Lan horiei

esker, ezgaitasunen bat duten pertsonak errazago balia daitezke inoren laguntzarik gabe, beren mugak eta inguruko oztopoak gainditzeko laguntza dutela.

Gainera, AEPAn kideek jakinarazi digute, laguntzeko txakurrak laguntza psikologikoa ematen dutela lehenik eta behin, maitasuna, jostaketa eta laguntasuna eskaintzen dietelako erabiltzaileak diren pertsonen, horren bidez, konfiantza eta segurtasuna areagotuz. Era berean, txakurrek jabeak kalera aterarazten dituzte maizago, eta horrela, gizarte bizitza zabalagoa garatzen dute eta beren bizi kalitatea hobetu egiten da nabarmenki.

Aukera horiek kontuan hartuz, laguntzeko txakur hitzak –zein espezialitatetan trebatu diren kontuan hartu gabe– honako katalogazio hau jasotzen du:

- Ikusmen urritasuna duten pertsonen txakurrak, itsu txakurrak hain zuzen.
- Entzumen urritasuna duten pertsonen txakurrak. Horien funtzio nagusia, soinu mota ezberdinak antzematea, eta horiek beren jabeari jakinaraztea da.
- Elbarritasun fisiko ezberdinak dituzten pertsonen erabiltzen dituzten txakurrak.
- Eta, azkenik, lagundutako terapiatako txakurrak. Animalia horiek sendagileak laguntzen dituzte gaixoen osasun emozionala hobetzeko lanean, txakurrekin elkarrekintza ariketak egitea ahalbidetzen duelako. Talde honetan sartzen diren pertsonak, ezgaitu psikikoak eta nahaste psikologikoak dituztenak dira. Halaber, txakur mota hau erabiltzen da zaharren egoitzatan, espetxetan, eta abar.

AEB, Britainia Handia, Kanada eta abar bezalako herrialdeetan, txakur hauek ospe eta estimu handikoak dira burutzen duten lanarengatik. Estatu espainiarrean eta gure autonomia erkidegoan ordea, itsu txakurrak gain besteak ez dira oso ezagunak.

Hala eta guztiz ere, behin txakur hauek urritasun ezberdinak dituzten pertsonen autonomia hobetzeko dituzten gaitasunak baieztatzen direnean, beharrezkoa suertatzen da neurri zuzenak hartzea pertsona hauek –beren txakurrek lagunduta– erabilera publikoko toki eta zerbitzuetara iristeko. Era berean, garraio publikoetara iristea erraztu behar da, gaur egun ikusmen urritasuna duten pertsonak dituzten baldintza berdinekin.

Gure autonomia erkidegoan, azaroaren 21eko 17/1997 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, bakarrik ikusmen urritasuna –erabatekoa edo neurri batekoa– duten pertsonen erabil dezakete edozein leku publikora edo erabilera publikokora itsu txakurrekin sartzeko eskubidea, urritasun hori ez duten pertsonen baldintza berdinetan.

Arau horrek ezartzen duenaren arabera, laguntzeko txakurrak dira *“Ikusteko arazoak dituzten pertsonen lagun egin, pertsona horiek gidatu eta laguntza emateko trebatutako txakurrak dira itsu txakurrak, betiere balio ezaguneko zentro berezitatean prestatutakoak. Dena den, itsu txakur gisa hurrengo atalean esaten den moduan errekonozitu eta identifikatutakoak izan beharko dute”*.

Horregatik, denborak aurrera egin ahala txakur hauek gero eta gehiago erabiltzen dira urritasun ezberdinak dituzten pertsona hauen eguneroko bizitzan laguntza elementu gisa, eta horren ondorioz, 17/1997 Legea zurruna eta mugatzaileegia bilakatu da, batez ere kontuan hartzen badugu pertsona ezgaituek ezin dituztela txakur hauek laguntzan erabili, behinik behin ikusmen urritasuna ez bada beren ezgaitasuna.

Dena den lege honek, orain arte sakabanatuta egon den sektore araudia bateratzeko balio izan du, ikusmen urritasuna duten eta itsu txakurrak erabiltzen dituzten pertsonen sektore araudia, hain zuzen. Horren bidez, animalia hauen onarpenerako baldintzak zehaztu dira, eta higiene eta osasun aldetik bete beharreko baldintzak ere mugatu dira.

Era berean, lege honen beraren 5. artikulua, leku publikoetan edo erabilera publikoko edozein lekutan sartu, ibili eta egoteko eskubidea onartzen die pertsona hauei, beren laguntzeko txakurra lagun dutela. Leku horiek, honako hauek dira:

- a) Bideei buruz ezartzekoa den hirigintzako legerian oinezkoentzako pasabide, oinezkoentzako bide edo oinezkoek bakarrik erabiltzeko jotako bideak.
- b) Aire librean denbora emateko lekuak.
- c) Era guztietako zentro ofizialak, titularitatea edonolakoa dela ere, orokorrean herritarrek sartzeko debekurik ez baldin badute.
- d) Maila eta arlo guztietako ikastetxeak.
- e) Osasun- eta laguntza-zentroak.
- f) Kirol-instalazioak.
- g) Zaharren egoitza, zaharren etxeak eta zaharrei laguntzeko gainerako elkar-teak.
- h) Erlijio-zentroak.
- i) Merkataritzako denda handi eta txikiak.
- j) Profesional liberalen bulegoak.
- k) Autobus, metro, tren eta garraio publikoko ibilgailu arinen geltokiak, aire-portuak eta portuak.
- l) Azaroaren 10eko 4/1995 Legearen menpe dauden lokal eta instalazioak. Lege hori ikuskizun publiko eta jolas-ekintzei buruzkoa da.
- m) Hotelak, aterpeak, kanpamenduak, bungalow-ak, apartamentuak, opor-guneak, bainuetxeak, kanpinak eta diru-ordainaren truke pertsonen logelaren bat edo egoitza eskaintzeko diren establezimenduak. Baita turismoarekin zuzeneko zerikusia duten zerbitzuak eskaintzen dituzten bestelako jendare-erako zerbitzuak ere.
- n) Edozein garraio kolektibo publiko edo erabilera publikoko edozein garraio kolektibo eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen aginpidekoak diren hiriko edo hiriarteko ibilgailu arinen bidezko zerbitzuak.
- ñ) Orokorrean jardunda, beste edozein leku, lokal edo establezimendu, erabilera publikokoa edo jendeari kasu egitekoa baldin bada”.

Legearen II. Atalean zigor erregimena arautzen da. Horren bidez, arauan jasotzen diren eskubide eta betebeharrak betetzen direla bermatu nahi da, eta eskuduntza zigortzaileak foru aldundiari onartzen zaizkio.

Arrazoi hori dela-eta, eta kontuan hartuz aipatutako arauak zehazten duen babes esparrua, erakunde honek uste du justifikatuta dagoela gaur egungo araudi esparrua gaitzeta eta esparru berri bat onartzea aipatzen ari garen beharretara egokitu ahal izateko. Horren helburua, lege horretan laguntzeko txakurrak erabiltzen dituzten pertsona guztiak sartzera izango litzateke.

Norabide berri hori kontuan hartuz, bai Valentziako Autonomia Erkidegoak eta baita Galiziako Autonomia Erkidegoak ere, egokitu egin dituzte jada beren araudiak, “laguntzeko txakur” kontzeptua zabaltzeko balio duten legeak onartuz, eta horien erabilera pertsona ezgaitu guztiei zabalduz.

Horrela, Valentziako legeak honakoa dio (ezgaitasunak dituzten pertsonentzat “laguntzeko txakurrei” buruzko apirilaren 10eko 12/2003 Legea): “Ikusmen, entzumen,

*mugimendu edo bestelako urritasunen bat –erabatekoa edo neurri batekoa– duen eta laguntzeko txakurraren erabilera beharrezkoa edo gomendagarria zaion pertsona orori onartzen zaio leku, egoitza, establezimendu, lokal, erabilera publikoko bestelako gune, garraio publiko nahiz erabilera publikokoetan sartu, ibili eta egoteko eskubidea.”*

Pareko hitzak erabiliz, Galiziako Autonomia Erkidegoak, laguntzeko txakurrek lagundutako pertsona ezgaituak tokietan sartzeko 10/2003 Legearen bidez, honakoa babestu eta bermatzen du: *“urritasun bat dela-eta laguntzeko txakur bat behar duen pertsona orok du txakurrarekin erabilera publikoko edozein leku, establezimendu edo garraiotan sartzeko, ibiltzeko eta egoteko eskubidea, horien titulartasuna publikoa nahiz pribatua izan”*.

Guk proposatzen dugun azterketa juridikoa, pertsona ezgaituen taldearen integrazioa sustatuko dela bermatuz egin behar da, oztopoak desagerraraztea eta ingurunerako irisgarritasuna sustatuz.

Gai honen inguruan gogorarazi behar dugu, Konstituzioaren 9.2 artikulua honakoa jasotzen duela: *“Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eragingarriak izan daitezen”*. Konstituzioaren arau honetan jasotzen den berdintasun ideiak, orain arte onartu izan den legearen berdintasun esparru murrizta gainditzen du. Horixe bera jasotzen da ere, Konstituzioaren 14. artikuluan, *“bizi baldintzen berdintasunaren”* esparru zabalenean bilakatuz. Printzipio horrek suposatzen du hasieratik desberdintasun egoeran dauden gizarte talde zehatzei onuragarri suerta dakizkiela herri agintariek hartutako neurri positiboak, horrela benetako berdintasuna lortzeko. Zentzu horretan, pertsona ezgaituek berdintasuna lortzeko, besteak beste, ingurunerako irisgarritasuna ahalbidetzeko neurri positiboak hartu behar dira.

Kontuan izan behar dugu Konstituzioaren 49. artikulua jasotzen duen agindua: *“Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko”*.

49. artikulua hau *“politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak”* atalean jasotzen bada ere, ez da politika erretorikaren esparrura mugatzen den programa-arau bat bakarrik. Konstituzioaren dotrina eta jurisprudentziak baieztatu ahal izan dutenez, printzipio horiek balio arautzailea dute, eta agintaritzak publikoarentzat agindu argia dira horiek lortu ahal izateko, pertsona guztien arteko benetako berdintasuna lortzeko, alegia.

Gure autonomiaren esparruan, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak, gure autonomia erkidegoko pertsona guztiak inguru fisikora eta komunikaziora iristea sustatu eta bermatu egin behar du. Modu berezi batean, arrazoi ezberdinengatik gizarte desberdintasun egoeran kokatzen dituzten mugak dituzten pertsonen integrazioa ahalbidetzeko balio duten neurri positiboak sartzeko dituzte. Babes neurri hauek oinarritzko elementuak dira, herritar guztiei oinarritzokotzat hartzen diren eskubideez gozatzea ahalbidetzeko.

Pertsona ezgaituen benetako integrazio eraginkorra lortzera daraman araubide eredu hau bere garaian onartu zen itsu txakurren azaroaren 21eko 17/1997 euskal Legean. Hala eta guztiz ere, azpimarratzen ari garen bezala, pertsona ezgaituen taldeek egoera eta behar berriak aurkezten dituzte, eta horiek direla-eta, beharrezkoa suertatzen da egungo araudia esparrua gaintitzea. Uste dugu nahikoa frogatu dela laguntzeko



txakurrek dituzten gaitasunek areagotu egiten dutela ikusmen urritasuna duten pertsonen autonomia, baina ez horiena bakarrik. Bestelako urritasunak dituzten pertsonentzat ere baliagarria izan daiteke horrelako txakur bat izatea beren eguneroko bizitzan laguntza elementutzat izateko, eta aurre egin beharreko oztopoak ezabatzen laguntzeko.

Azaldutako guztiagatik, kontuan izan behar da herri agintariek ez dutela gizartearen jardunbide zuzena ordezkatu edo mugatu behar, baizik eta sustatu egin behar dituztela mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko herritar erakundeek proposatzen dituzten ekimenak. Horrela, Laguntzeko txakurren Espainiako Elkartearen aldarrikapenarekin bat eginda, Arartekoak arau berria onartzeko eskatzen du. Arau horrek beren ezgaitasunaren ondorioz txakur batekin joan nahi duten pertsoneri onartu eta bermatu beharko die erabilera publikoko edozein lekutara, establezimendutara edo garraiotara txakurrarekin joan, han ibili edo egoteko eskubidea, Euskal Autonomia Erkidegoaren barnean, lekua titulartasun publikokoa edo pribatukoa den kontuan hartu gabe.

Gainera, beharrezkotzat jotzen dugu informatzeko eta hezteko kanpainak bultzatzea eta egitea, eta herritar guztiei zuzentzea, ezgaitasunen bat duten pertsoneri eskubide hori erabiltzea inolaz ere ez zailtzeko. Horren bitartez, laguntzeko txakur batekin doazen eta ezgaitasunen bat duten pertsonen benetako gizarteratze eraginkorra bermatuko da.

### **3. UDALEK EUROPAKO ERKIDEGOKOAK EZ DIREN ATZERRITARRAREN ERROLDAKO IZEN-EMATEA ETA IRAUNGIPENA ERABAKITZEKO ETA DATUAK BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEI UZTEKO ERABILTZEN DUTEN PROZEDURARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA**

- **Sarrera**
- **Aplikatu daitekeen araubide juridikoa**
- **Udal erroldaren helburuak eta izaera**
- **Atzerritarren izen-ematea udal erroldan**
- **Erroldako izen-ematearen iraungipena**
- **Administrazioen artean datuak uztea**
- **Ondorioak**

Toki Administrazioak gero eta garrantzia handiagoa du etorkinen integrazioan. Udal batean erroldatzeak ondorio garrantzitsuak ditu, atzerriko etorkinak eskubideez eta zerbitzuez baliatu ahal izateko, bai eta udalerrian integratzeko. Atzerritarrek herritar berriak dira, eskubideak dituzte administrazioaren aurrean, eta, horren ondorioz, gure ordenamendu juridikoak eskaintzen duen babesaren helburu ere badira, parlamentuko ordezkarien bitartez, horiek baitira legalitatearen defendatzaileak administrazio publikoen jardunean.

14/2003 Lege Organikoak (Atzerritarren eskubide eta askatasun, eta horien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa, hau da, Atzerritarrei buruzko Legea –LOEX–, aldatzen duena) aldatu egiten ditu, alde batetik, atzerritartasun gaietan udal erroldari aplikatu dakioken araubide juridikoa (7/85 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena), eta, beste batetik, administrazio prozedura erkidearen bermeak (30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzkoa).

4/2000 Lege Organikoan berritasun bat sartu zen, hain zuzen ere, errolda integratzaileko tresna bihurtzea, eta hori 8/2000 Lege Organikoak<sup>1</sup> egindako aldaketaren bitartez murriztu egin zen; izan ere, aldaketa handia izan du arautze berrian. Atzerritarrei buruzko Legearen azken aldaketaren ezaugarri nagusienetakoa da gogortu egin dituela kontrolerako tresnak eta ez dakarrela aurrerapausorik integrazio eskubideetan ezta politikan. Egindako aldaketen artean eta 4/2000 Lege Organikoaren hasierako erredakzioan ez bezala, erroldari beste izaera eta funtzio batzuk eman zaizkio, eskubideak murriztu ditzakeenak.

Gomendio honen asmoa aldaketa horiek aztertzea da eta irizpide batzuk prestatzea gure erkidegoko udalen jardunerako, errespetuz jokatu dezaten atzerritarren berme eta eskubideekin.

---

<sup>1</sup> 8/2000 Lege Organikoak 4/2000 Lege Organikoa aldatu zuenean, gizon-emakumeen eskubideak murriztu ziren, edozein izanik ere horien egoera juridikoa; horren adibide da bizileku baimena behar izatea etxebizitza arloko laguntza sistema publikoan sartzeko.

Arartekoa gizon-emakume guztien eskubideak bermatzeko erakundea da. 3/1985 Legearen (otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan erakunde hau sortzen eta arautzen duena) 11. artikulua zera dio: Arartekoari dagokio, besteak beste, araudiaren gabeziak jakinaraztea eta gomendioak egitea, administrazioak eta zerbitzu publikoek objektibotasun eta eraginkortasun osoz jardun dezaten, herritarren eskubideak bermatzeko.

Gomendio orokor honekin atzerritarren erroldatzearen esparrua eta esanahi praktikoa zehaztu nahi dira, 14/2003 Lege Organikotik datorren toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea aldatu eta gero. 14/2003 Legeak berritasunak jasotzen ditu erroldan izena emateari dagokionez, betebeharrak ezartzen ditu errolda mantentzeko eta administrazio publikoen artean atzerritarrei buruzko datuak uzteko aukera jasotzen du.

Arartekoak hainbat gomendio eman du atzerritarrek erroldan izena emateari buruz. Eskubideez, zerbitzu publikoek eta gizarte prestazioez baliatzeko, edo Estatuan daudela egiaztatzeko erroldan izena emateak duen garrantzia jabeturik, eta udal batzuek izan duten jokaera kontraesankorraren ondorioz, Arartekoak hainbat gomendio egin ditu erroldari buruz, aplikatu daitekeen araubide juridikoa argitzeko. Kasu honetan, TAOLri 14/2003 Legeak egindako aldaketaren ondoren, erroldako izen-ematean gertatu diren egoera berriak argitzea komeni da. Horren ondorioz gomendioak egin dira erroldako izen-ematearen iraungipena eta erroldako datuen lagapena herritarren bermeak beteta egin daitezten.

3/85 Legearen (otsailaren 27koa, erakundearen sortze eta arautzeari burukoa) 9. artikulua arabera, Arartekoak euskal administrazio publikoen jarduna fiskalizatu behar du herritarren eskubideen alde, ondo administratuak izan daitezten eta legalitate abiaburua bermatu dadin. Horregatik gomendio hau Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dago zuzenduta.

## **Aplikatu daitekeen araubide juridikoa**

Hau da aplikatu daitekeen araudia: alde batetik, udal erregimena arautzen duen araudia, batez ere, 7/1985 Legea (toki araubidearen oinarriak arautzen dituena –TAOL–; eta, batez ere, 15etik 18ra arteko artikulua, urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak horiei emandako erredakzioaren arabera), 14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, eta 1690/1986 ED (toki erakundeetako biztanleriaren eta lurralde mugapenaren araudia onartzen duena –BLMA–; batez ere, 53tik 87ra arteko artikulua, 2612/1996 EDk horiei emandako erredakzioaren arabera).

Beste alde batetik, atzerritarrei buruzko araudia aplikatu daiteke: 4/2000 Lege Organikoa, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasun, eta gizarteratzeari buruzkoa (8/2000 Lege Organikoa eta 14/2003 Lege Organikoa aldatutakoa) eta 5/1984 Legea, asilo eskubidea eta errefuxiatu egoera arautzen dituena (9/1994 Legeak aldatutakoa).

Hau da lehendabiziko premisa: atzerritarrek administrazioarekin duten harremana arautzen duen araudia eta Estatukoentzako araudia berbera da; beraz, herri administrazioaren araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko legean aurreikusitako berme eta neurriek agintzen dute. Araudi hori aplikatzen zaie administrazio publiko guztiei, Izan ere, hau da 30/1992 Legearen zioen azalpenean adierazten den helburuetako bat. “honela, herritar guztiei dagokien oinarriko baldintza juridikoen

berdintasuna bermatu nahi da administrazio publikoekin izaten diren harremanetan”. Beraz, ezin da herritarren artean desberdintasunik ezarri atzerritarra izateagatik. Izatekotan, berezitasunak gaiagatik izan behar du; horrela, prozedurak hainbat erakundeen artean egindako espedienteen tramitazioak dituen zehaztasun guztiak jaso behar ditu, herritarren bermeak eta eskubideak murriztu gabe. Berezitasun horiek konstituzioko balioak eta abiaburuak errespetatu behar dituzte.

4/1999 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarriak (urtarrilaren 13koa, 30/1992 Legea aldatu zuena) hauxe dio: “prozeduren berezitasunek ezin izango dute, inola ere, lege honek emandako bermeak gutxitu, ezta mugatu”.

8/2000 Lege Organikoak aldatutako 4/2000 Lege Organikoak lege-aurreikuspen bera egiten du 20.2 artikuluan: “atzerritarrei buruzko gaietan ezarriko diren administrazio prozedurek administrazio prozedurari buruzko legeri orokorrak ezarritako bermeak errespetatuko dituzte edozein kasutan ere, batez ere, arauen publikitate, kontraesan, interesdunei entzutea eta ebazpenen arrazoitzeari dagokionez, Lege honen 27. artikuluan dakarrena izan ezik.

14/2003 Lege Organikoak beste xedapen gehigarri bat gehitu du 30/1992 Legean –hemeretzigarren xedapen gehigarria–. Horren bidez, zera ezarri da: “Atzerritarrei buruzko Legean araututako administrazio prozedurak araudi bereziaren arabera arautuko dira, eta horren ordez lege hau aplikatuko da”. Legearen berrikuspen honek ezin ditu atzerritarren eskubideen murriztu administrazioaren aurrean.

Atzerritarrei dagokien tramite guztietan administrazioa legearen esanetara dago eta administrazioaren jardunak ezin ditu herritar batzuen berme eta eskubideak murriztu, beste batzuen aldean, eta ezin dira konstituzioaren abiaburuak urratu.

Ondorioz, atzerritarrak Estatuko herritarrak dituen eskubide eta betebeharrak berberak ditu administrazioarekin dituen harremanetan. Ez dauka estatutu juridiko desberdinek “herritar atzerritarra” izateagatik; desberdintasuna da betekizun batzuk bete behar dituela –espainiar lurraldean sartzeko, bizitzeko edo lan egiteko– beharrezko baimenak lortzeko eta horretarako eskatzen zaizkion tramiteak egin behar dituela. Gogoratu behar da, garrantzitsua baita, atzerritarrak oinarrizko eskubideen titularrak direla berdin-berdin. Jurisprudenzia konstituzionalak behin eta berriro adierazi du oinarrizko eskubideak, hau da, giza duintasuna bermatzeko nahitaezko eskubideak, berdin direla Estatuko herritarrentzat zein atzerritarrentzat. Auzitegi Konstituzionalaren 107/1984 epaiak hauxe dio: “eduki berbera dute espainiarrentzat zein atzerritarrentzat, eta eskubide eta askatasun hauei dagokienez, Konstituzioak, eskubideari dagokionez, eduki berbera bermatzen du bere araudi espezifikokoan”. Gainerako eskubideei dagokienez (Espainiako Konstituzioaren –EK– 23. artikuluan aitortutako eskubideak izan ezik, 13.2 artikuluan xedatutakoaren bat etorritik), legegileak edo Itunek euren jardunean ezarriko dituzten baldintza osagarriek ere konstituzioaren aginduak bete beharko dituzte.

Beraz hauxe da abiapuntua: erroldan izena emateko eta mantentzeko, eta datuak uzteko aurreikusita dauden desberdintasunek ezin dituzte herritarren oinarrizko eskubideak, abiaburuak eta bermeak urratu, administrazioarekin dituzten harremanetan. Gومendio honetan udalen eskumenak aztertuko ditugu eta bermeak proposatuko ditugu udalen jardunean eskubideak, eta konstituzioaren arabera garrantzitsuak diren balioak eta abiaburuak betetzen direla bermatzeko, udal erroldako izen-ematean eta horren iraungipenean, eta beste administrazio batzuei datuak lagatzean. Gainera, hori guztia ordenamendu juridikoarekin bat datorrela bermatuko dugu.

## Udal erroldaren helburuak eta izaera

Errolda, hau da, biztanle zentsuak administrazioaren eta gobernuen tresna izan dira historikoki, eta hainbat helburu izan dituzte: polizia, segurtasuna, zergak, soldadutzara deitzea eta “Estatua ondo administratu eta gobernatzea”<sup>2</sup>. Erroldaren funtzioak aldatu egin dira Estatu ereduaren arabera; beraz, gure testuinguru sozial eta politikokoaren barruan aztertu behar dira, botere publikoen tresna direlako. Gaur egun Estatuak zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratikoaren egitura du eta horrek erroldaren izaera zehazten du. Estatu hau soziala da politika sozialen bitartez esku-hartzen duelako, eta horretarako ezinbestekoa da nori zuzenduta dagoen jakitea, eta udal erroldaren helburua udalerriko biztanleria osatzea da (TAOLren 15.2 artikulua). Zerbitzu publikoak planifikatzeko udal-erri bateko benetako biztanleriaren ezaugarriak jakin behar dira.

Gainera, indarrean dagoen legeriak udal biztanleria hartzen du kontuan funtsak toki erakundeen artean banatzeko. Horri gehitu behar zaio errolda oso tresna garrantzitsua dela udalen plangintzetan (udal jarduna jasotzen duten agiriak, helburuak zehazteko eta lan ildoak erabakitzeko).

Estatu demokratikoa da; beraz, abiaburutzat parte hartze publikoa du eta hori hauteskunderen bidez edo bizitza publikoan parte hartzeko beste era batzuen bidez gauzatu behar du; kasu horretan udaleko bizitza publikoak parte hartzeko aukera handiagoa ematen du. Azkenik, zuzenbidezko Estatu da, beraz, eskubide eta askatasun publikoak erabat errespetatu behar ditu. 14/2003 Lege Organikoa dela-eta erroldaren araudiak izan dituen aldaketak aztertu egin behar dira, eta guk horixe egingo dugu testuinguru sozial eta politiko hau kontuan izanik.

Errolda administrazio erregistro bat da. TAOLren 16. artikulua zera dio: “udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak...”. Administrazio erregistroek, erregistro juridikoen ez bezala, ez dute ondorio juridikorik bertan jasota dauden egitate, egintza edo eskubideetarako. Atzerritartasun gaitako legegileak zera adierazten du (TAOLren 18.2 artikulua): “atzerritarra udal erroldan izena emanda egoteak ez du esan nahi Espainian legez dagoenik, eta ez dio indarreko legeriak aitortzen ez dion eskubiderik ematen, batez ere atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei dagokienez”.

Aldi berean, Estatistikako Institutu Nazionalaren 1997ko uztailearen 4ko ebazpenean (1997ko uztailearen 21eko BOE) zera dio argi eta garbi: “Udalak ez du esku hartzen bizileku baimenak ematerakoan eta ez du horiek kontrolatzeko eskumenik”. Udalen betebeharra da erregistro –errolda– batean jasotzea herrian bizi diren pertsona guztien helbidea eta inguruabarrak. Era berean, ez du erroldaren bidez kontrolatu behar etxebizitza legez edo legez kanpo okupatuta dagoen, ezta herritarrak legez edo legez kanpo bizi diren espainiar lurraldean”.

Beraz, erroldan izena emateak ez du inolako ondorio juridikorik harreman juridiko publikoetan, esate baterako Espainian bizitzeko baimenei dagokienez, ezta pribatuetan, esate baterako, etxebizitza legez okupatzeari dagokionez. Bizi den herriko erroldan izena emanda egotea pertsona horren une horretako bizilekuaren froga baino ez da, hau da,

---

<sup>2</sup> 1857ko martxoaren 14ko EDaren arabera, gertatzeko bizilekuaren araberrako erroldatze orokorra eta biztanle zentsua egiteko agintzen duena.

une horretan herrian bizi dela eta bere ohiko bizilekua bertan duela egiaztatzeko baina ez du balio. Datu horietatik egingo diren ziurtagiriak agiri publikoak eta fede-emaileak izango dira administrazio ondorio guztietarako (TAOLren 16.1 artikulua). Beraz, errolda ziurtagiriak izena emanda dagoen pertsona herrian bizi dela egiaztatzeko balio du, eta, beraz, bizilekuaren arabera dagokion anbulatoriora edo ikastetxera joan daitekeela. Era berean, erroldan izena emanda udaleko herritar izaera hartzen da: *“udaleko herritar izaera erroldan izena ematen den une berean lortzen da”* TAOLren 15. artikulua; horrek TAOLren 18. artikulua jasotzen dituen eskubide eta betebeharren titulartasuna dakar.

Bestalde, errolda datu-erregistro bat da, hauteskunde zentsua (Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Legearekin bat etorrira) eta estatistika ofizialak (Estatistika Funtzio Publikoaren 12/1989 Legea, maiatzaren 9koa) egiteko erabiltzen dena. Gainera, datu-erregistroa den heinean, informatizatutako edo automatizatutako fitxategia da, eta datu pertsonalen babesari buruzko araubide juridikoa aplikatu dakioko (datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan araututakoa –DPBLO–)

### **Atzerritarren izen-ematea udal erroldan**

Espanian bizi diren pertsonak izena eman behar dute erroldan nahitaez, eta zeha-penak daude aurreikusita hori ez bada betetzen (BLHAren 107 artikulua). Herrian bizi diren pertsonak erroldan jasotzeko betebeharra dute udalek. Betebehar hori bizi nahi den bizilekua aukeratzeko eskubidearen ondorioa da (EKren 19. artikulua).

Atzerritarrek udal erroldan eman dezakete izena euren egoera juridikoa kontuan izan gabe. Puntu honetan gogora ekarri nahi dugu atzerritarrek udal erroldan izena emateari buruz Arartekoak eman zuen gomendio orokorra eta Legebiltzarraren 1998ko Txostenean jaso zena. Gomendio horren ondorioetan esaten da erroldatuta egoteko bete behar den betekizun bakarra benetan udalean bizitzea dela, berdin izanda atzerritartasunari dagokionez zein egoeretan dagoen. 4/2000 Lege Organikoaren bitartez atzerritartasun erregimenean egin ziren araudi aldaketek irizpide hori konfirmatu zuten, erroldan izena emanda zeuden atzerritarrei hainbat eskubidez baliatzeko aukera emanez, horien egoera juridiko-administratiboa kontuan izan gabe. Gomendio horretan esaten zen toki araubidean aldaketak egin ondoren (eta are gehiago 4/2000 Lege Organikoaren ondoren) dokumentuen aldetik ez litzatekeela zailtasunik egon behar erroldan izena emateko, edo udalak erroldan jasotzeari uko egiteko justifikaziorik. Adierazi genuen erroldatuko denak atzerritar txartela ez badu, identifikatzeko balio duen beste edozein agiri onartu beharko dela. Baina, 14/2003 Lege Organikoak zaildu egin du erroldan izena ematea, mugatu egin dituelako errolda-orrako datuak betetzeko balio duten dokumentuak eta horien ezaugarriak.

TAOLren 16.2 artikulua arabera (4/1996 Legeak emandako erredakzioan):

*“Udal Erroldan izena emateko, hurrengo datuak baina ez dira derrigorrezkoak: a) Izen-abizenak. b) Sexua. c) Ohiko bizilekua. d) Nazionalitatea. e) Jaiotze tokia eta data. f) Nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo, atzerritarren kasuan, horren ordezkotza agiriarena. g) Eskola edo ikasketen ziurtagiria edo titulua (daukana). h) Hauteskunde Zentsua egiteko behar diren gainerako datuak, betiere, Konstituzioan aitortutako oinarriko eskubideen errespetua bermatzen bada.”*

14/2003 Lege Organikoak f) letrari emandako erredakzio berria:

*“f) Nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo, atzerritarren kasuan, horren ordezkotza agiriarena.*

*Indarreko egoitza-txartelaren zenbakia, espainiar agintariek emandakoa, edo, hori ezean, nortasunaren egiaztagiriaren edo pasaportearen zenbakia, jatorrizko herrialdeko agintariek emandakoa, hurrengo herrialde hauetako herritar nazionalak badira: Europar Batasuneko kide diren estatuetoakoak, Europar Esparru Ekonomikoari buruzko akordioan parte diren Estatuetoakoak edo, nazioarteko hitzarmen baten bidez, aipatutako Estutuetoako herritarrentzat aurreikusitako ordenamendu juridiko bera duten Estatuetoakoak.*

*Indarreko agirian agertzen den atzerritarren identifikazio- zenbakia, espainiar agintariek emandakoa, edo, hori ezean, horien titular ez direlako, indarreko pasaportearen zenbakia, jatorrizko herrialdeetako agintariek emandakoa, paragrafo honetako aurreko atalean jasota ez dauden Estatuetoako herritar nazionalak badira.”*

Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duen 4/1996 Legeari 14/2003 Lege Organikoak emandako erredakzioak eta udalek egiten duten interpretazioak zaildu egiten dute atzerritarrek erroldan izena ematea.

### Erroldaren garrantzia eskubideez baliatzeko

4/2000 Lege Organikoak zera ezartzen du: atzerritarrek zenbait eskubidez baliatzeko oinarritzko betekizuna da Espainian ohiko bizilekua duten herriko udal erroldan izena emanda egotea. Gainera, erroldatzeak eskubideez eta zerbitzuez baliatzeko aukera emango die, euren egoera juridikoa edozein izanda ere.

Erroldatuta dauden atzerritarrek osasun laguntza (4/2000 Lege Organikoaren 11. artikulua) eta doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea dute (4/2000 Lege Organikoaren 22. artikulua), eta udalek kudeatzen dituzten gizarte zerbitzu eta prestazioez baliatzeko eskubideak dute (4/2000 Lege Organikoaren 14. artikulua).

Halaber, erroldatuta egoteak herrialdean zenbat denbora daramaten bizitzen egiaztatzeko balio du; hori oso garrantzitsua da dokumentazioa lortzeko, agiriak erregulatzeke egiten diren ezohiko prozeduretan (2005. urtean egin den bezala) zein finkatze arazoia direla-eta aldi baterako bizilekua izateko hasietako baimena eskatzean.

Udalerrri batean erroldatzean udal horretako herritar izaera hartzen da eta horrek TAOLren 18. artikulua aipatzen dituen eskubide eta betebeharren titulartasuna dakar. Horien artean dago herrian parte hartzeke eskubidea, araudiak ezarritako mugekin. TAOLk aipatzen duen parte hartzea administratiboa da eta ez politikoa. EKren 13. eta 23. artikuluen arabera, Europar erkidegotik kanpoko atzerritarrek ez dute sufragio aktibo ez pasiborako eskubiderik, baina udalerrri batean bizi diren atzerritarrek udal mailan parte hartzeke eskubidea dute. Izan ere, “udalerrrian bizi diren eta erroldatuta dauden atzerritarrek toki araubidearen oinarrien legerian gai horri buruz ezarritako eskubide guztiak dituzte, eta haien iritzia entzun ahal izango da dagokien gaien inguruan, aplikatu daitekeen araudiak agintzen duenarekin bat etorrita (8/2000 Lege Organikoaren 6.2 artikulua).

### Erroldan izena emateko betekizunak

TAOLk 16 f) artikuluan dio zein datu izan behar diren kontuan atzerritarren dokumentuetan. Aurreko erredakzioan eta BLHaren 57. artikuluan honakoa baino ez aipatzen: “nortasun agiriaren zenbakia edo, atzerritarrak direnean, horren ordeko agiriarena”.

Aldaketa hau arte, erakunde honen iritzia eta udal askok egiten zutena zen identifikazioa egiaztatzen zuen edozein agiri onartzea, eta, atzerritar txartelik izan ezean, pasaporteari lehentasuna ematea. Araudia aldatu ondoren, udalek indarrean dagoen pasaportea eskatzen dute, atzerritar txartela ez dutenean, eta horrek zaildu egiten du eta sarritan eragotzi egiten du erroldan izena ematea.

Atzerritarrek udal erroldan izena emateko dituzten zailtasun nagusiak dira indarrean dagoen pasaportetik ez edukitzea eta etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte elkarte batek eta beste Gizarte Erakunde batzuek ere argitaratu dituzten kexen arabera.

Lehen esan bezala udalak kudeatzen du administrazio erregistro hori. TAOLren 17. eta BLHaren 60. artikuluen arabera: “udalari dagokio udal errolda egitea, eguneratzea, berrikustea eta zaintzea...” Erregistro horrek ez du inolako ondorio juridikorik. Erregistro horren helburua errealitatea islatzea da, beraz, errealitatean oinarritutako datuak izan behar dira. Horretarako udalak errealitatean oinarritutako datuak diren kontrolatzeko eskumena du: *Udalak herritarrek emandako datuak egiaztatu ahal izango ditu eta horretarako agiri hauek eskatu ahal izango ditu: nortasun agiri nazionala edo bizileku txartela, familia liburua, etxebizitza okupatzen ari dela egiaztatzen duen titulua edo antzerako dokumentuak* (BLHaren 59.2 artikulua).

Udalak datuak egiaztatzeko dituen ahalmenak noraino iristen diren baloratu ahal izateko garrantzitsua da 1997ko uztailearen 4ko Ebazpena aipatzea, Estatistikako Institutu Nazionalaren presidentearena eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiarena. Horren bidez Udalei udal errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen zaizkie. Emandako datuak benetakoak diren egiaztatzea noraino iristen den argitzen da 3. atalean (“Datuak egiaztatzea”): “... udalak herritarrari etxebizitzaren okupazioa egiaztatzeko titulua eskatzeak ez du esan nahi toki administrazioek jabetza, hiri errentamendu edo izaera juridiko-pribatuko kontuak epaitzeko eskumena dutenik; esan nahi du helburu bakarra herritar hori benetan adierazitako herrian bizi dela egiaztatzea dela. Horregatik, titulu hori jabetza eskritura edo errentaren kontratua izan daiteke, bai eta etxebizitzaren zerbitzu baten horniketa kontratua ere (ura, gasa, elektrizitatea, telefonoa, etab.); izan daiteke ez izatea ere (kasu hau izango litzateke norberarena ez den jabetza publiko zein pribatu baten titulu gabeko okupazioa). Azken kasu horretan, udal kudeatzaileak beste bitarteko batzuk erabili beharko ditu herritarra benetan etxebizitza horretan bizi dela egiaztatzeko (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren inspektzioa, etab.), eta hala bada, udal erroldan izena eman beharko dio, kontuan izan gabe jabe legitimoa bere eskubideez baliatzen den agintarien edo Auzitegi eskudunen aurrean (horiek ez dira inoiz Erroldaren kudeatzaileak izango)”.

Aurrerago, 4. atalean (“Baztertuen erroldatzea”) dio helburua datu bat jasotzea dela: “Aurreko arauan esan bezala, erroldak udalerriko herritar guztien benetako bizilekua zein den islatu behar du. Errealitate hori gertatzen den bakoitzean erroldan jaso behar da. Erroldan izena ematea eta etxebizitzaren titulartasunari buruzko auzi



*juridiko-pribatuak zerikusirik ez duten bezala, gauza bera gertatzen da etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin<sup>3</sup>.*

Era berean, 5. atalean (“Atzerritarren erroldatzea”) zera dio:

*“Udalak ez du esku hartzen bizilekua izateko baimenak ematerakoan eta ez du horiek kontrolatzeko eskumenik. Udalaren betebeharra da erregistro batean, erroldan, jasotzea udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak. Ez du erroldaren bidez kontrolatu behar etxebizitza legez edo legez kanpo okupatuta dagoen, ezta herritarrek legez edo legez kanpo dauden espainiar lurraldean.”*

Egiaztatzearen helburua ez da dokumentuen legalitatea epaitzea, baizik eta adierazi diren datuak benetakoak diren egiaztatzea. Horrela udal kudeatzaileak pertsonaren nor-tasuna eta errolda-orrian adierazitako etxean bizi dela egiaztatu baditu, pertsona horren izena eman dezake erroldan. BLHAren 59.2 artikulua beren beregi aipatzen du “beste antzerako dokumentu batzuk” aurkezteko aukera; horrez gain, BLHAren 73 artikulua jasotzen du udalak ofizioz deklaratu dezakeela udalerrian bizi baina erroldan agertzen ez diren pertsonen izen-ematea. Beraz, erroldaren helburua da udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea. Datu horiek errealitatearekin bat etorri daitezten, udalak ez dauka egiaztatze eskumena soilik, baizik eta, ofizioz eman dezake alta edo baja, 71. eta hurrengo artikuluen arabera.

Araudiak errolda-orrietan nahitaez jaso behar diren datuak ezartzen ditu. Hauek dira: izen-abizenak, sexua, ohiko bizilekua, nazionalitatea, jaiotze tokia eta data, eskola edo ikasketen ziurtagiria edo titulua (daukana), bai eta hauteskunde zentsua egiteko behar diren gainerako datu guztiak, betiere, Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubi-deen errespetua bermatzen bada, eta, azkenik, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, edo, atzerritarren kasuan, indarrean daukan agiriaren zenbakia, espainiar agintariak emandakoa, edo horren titular ez bada, indarreko pasaportearena (TAOLren 16. artikulua). Betekizun horrek zaildu egiten du pasaportetik ez duten edo pasaportea iraungita duten pertsonen izen-ematea. Zailtasun horrek kalte handiak eragiten dizkie, hainbat arrazoiengatik eta euren borondatearen aurka indarreko pasaportetik ez duten pertso-nei: pasaportea berritzeko tramiteak egiten ari direlako, Espainian ez dagoelako euren herrialdeetako enbaxadarik, edo euren herrialdeetatik jazarpen arazoengatik alde egin dutelako, poliziak pasaportea atxiki dielako atzerritartasun legeriaren ondorioetarako edo pasaportea galdu edo lapurtu dietelako, etab. Aipatutako arazo horrengatik edo beste batzuegatik, gertatu liteke erroldan izena eman ahal ez izatea, eta horren ondorioz,

<sup>3</sup> 2004ko abenduaren 1eko batzarrean, Erroldatze Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek hauxe adierazi zuen udal erroldan alta emateko aukerari buruz, Europar Batasuneako ez diren herrialdeetako nazionalak okupatutako etxebizitzetan, etxebizitzon bizigarritasun baldintzen gainetik dagoen pertsona kopurua bizi denean: “Europako erkidegokoak ez diren atzerritarrek okupatutako etxebizitzetan Udal erroldan alta eman dezake etxebizitzon bizigarritasun baldintzen gainetik dagoen pertsona kopuruak, betiere bertan bizi badira. Horretarako Udalak atzerritarra benetan etxebizitza horretan bizi dela egiaztatu dezake, erroldan izena emateak ez duelako inolako zerikusirik etxebizitzaren titularitateari buruzko auzi juridiko-pribatuekin, ezta etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoekin. Hala ere Udalak horrelako egoerak hobetze aldera jardun dezake”.

eskubideez baliatzeko eragozpenak izatea, pertsona hori beste agiri batzuekin edo beste era batera identifikatu ahal izan arren.

Kasu guzti hauetan, indarreko pasaporterik egon ez arren, udal erroldaren kudeatzaileak beste agiri batzuen bidez egiaztatu dezake pertsonaren nortasuna, edo udalerrian nolabaiteko bizitza soziala duelako, eta hori erabat baliagarria izan beharko litzateke.

Horrekin lotuta eta etxebizitza okupatzeari dagokionez, udal kudeatzaileak alta eman diezaiokie pertsona bati etxe batean, udaltzaingoaren txostenaren bitartez, edo inspezio baten bidez. Ez du behar etxebizitzaren okupazioa legitimatzen duen titulurik. Erroldan udalerriko herritar bakoitza zein etxetan bizi den jaso behar da, eta horren ondorioz, pertsona hori benetan bizi den etxearen helbidea onartu behar da bizilekutzat. Kasu honetan, balio duten agirien zerrenda luzeagoa da: OHZren ordainagiria, jabea bada, jabeen komunitateko ordainagiria, errentaren ordainagiriak, telefonia finko, ur, elektrizitate edo gasaren konpainia hornitzailearen kontratua edo egungo faktura, bai eta etxebizitzaren jabeak edo maizterrak edo bertan erroldatuta dagoenaren baimena; hau da, hainbat aukera dago. Aurreikusten da ere etxebizitzarik gabeko pertsonak erroldan izena emateko eskaera egitea (gizartean zoritxarrez gero eta gehiago gertatzen ari den arazo bati buruz ari gara, "etxebizitzarik ez dutenak"). Horrela, 1997ko uztailaren 4ko ebazpenean jasota dagoen bezala: "Ondorioz, infra-etxeek (txabolak, karabanak, kobazuloak, etab., bai eta inolako bizileku motarik ez edukitzea) bizileku baliagarritzat hartu ahal dira eta hartu behar dira erroldan, batzuetan errealitatea horixe delako".

Kasu horietan, hau da, etxerik ez duen pertsona bat udalerrian bizi denean eta herri horretako Gizarte Zerbitzuek ezagutzen dutenean, gezurrezko helbide bat erabiltzen da. Hori oso garrantzitsua da gaur egun etxebizitzarena arazo larria delako, eta erroldan izena emanda egotearen eta gizarte laguntza, eta gainerako zerbitzuez baliatzeko aukeraren artean dagoen loturagatik.

Errolda datuen administrazio erregistroa da eta ondorio administratiboak baino ez ditu (pertsona bat udalerrian bizi dela jasotzea). Ez du inolako baloraziorik egiten atzeritarrak aurkeztu dituen agirien balioari buruz. Inguruabarrak hain ugariak eta konplexuak direnez, udal kudeatzaileari ezin zaio legalitatearen gaineko epairik emateko eskatu. Gainera, horrek, indarreko legeriaren arabera justifikatu ezinezko zailtasunak sortu ditzake erroldan izena ematerakoan.

Gai hau arautzen duen araudiak aipatutako bera adierazten du. Atzeritarrei buruzko legearen 6.3 artikulua dio udalak udalerrian bizi diren atzeritarren gaineko informazioa jaso behar duela erroldan eta informazio hori eguneratuta eduki behar duela. TAOLk ere dio Espainian bizi diren pertsona guztiak bizi diren udalerriko erroldan izena emanda egon behar dutela, eta errolda eguneratuta edukitzeko behar den guztia egin behar dela, erroldetan jasotako datuak errealitatearekin bat etorri daitezen. Azken batean araudiak, eta erroldaren izaerak eta helburuek mesede egiten diote atzeritarrek udal erroldan izena emateko duten aukeraren interpretazioari.

## **Erroldako izen-ematearen iraungipena**

TAOLren 16.2 artikulua (14/2003 Lege Organikoak emandako erredakzioaren arabera) zera dio:

*“udal erroldan izena emateak lege honen 15. artikulua arabera izango ditu ondorioak soilik, horren arrazoiak iraun bitartean, eta, edonola ere, urte birik behin berritu beharko da, Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren kasuan Espainian betiko bizilekua izateko baimenik ez badute.*

*Aurreko paragrafoak aipatutako epea igaroz gero, aldizka berritu behar diren izen-emateak iraungi egingo dira, betiere interesatuak ez badu berritu. Kasu horretan, iraungi egingo da, aldez aurretik interesdunari jakinarazi beharrik gabe”.*

Aldaketa hori 2005eko abenduaren 22tik aurrera aplikatuko zaie 2003ko abenduaren 22tik dauden izen-emateei, bi urte igaro direlako 14/2003 Lege Organikoa indarrean dagoenetik. Ondorioz, egun horretatik aurrera iraungipena aplikatu ahal izango zaie egun horretatik dauden erroldako izen-emateei, europar erkidegokoak ez diren eta Espainian betiko bizilekua izateko baimenik ez duten atzerritarren kasuan (ikasleak, aldi baterako bizilekua duten pertsonak eta egoera irregularrean daudenak).

Lege erreformak hainbat zalantza planteatzen du derrigorrezkoak diren datuen gainean eta lege agindua bete ahal izateko beharrezkoak izango diren gainean. Udalak jakinarazi dizkioten datuen berri baino ez du. Datu horiek jaso behar dira errolda-orrian, eta TAOLren 16. artikuluan jasota daude, lehen ikusi dugun bezala. Datu horien artean ez dago jasota egoiliar txartelak zein motatakoa izan behar duen (aldi batekoa ala iraunkorra), edo bi urte igaro eta gero pertsona horrek atzerritar txartela duen. Beraz, udalak ez daki pertsonak Espainian betiko bizilekua izateko baimenik duen.

Lege aurreikuspen hori aurrera eraman ahal izateko, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) presidenteak eta Toki Lankidetzako zuzendari nagusiak jarraibideak eman dituzte erroldako izen-emateen iraungipena erabakitzeko, europar erkidegokoak ez diren eta Espainian betiko bizilekua izateko baimena ez duten atzerritarren kasuan, datuak ez badira urte birik behin berritzen (2005eko apirilaren 28ko ebazpena, 2005eko maiatzaren 30eko BOEn argitaratutakoa).

Ebazpen horrek jasotzen du Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak hilero jakinaraziko diola INEri, Espainian betiko bizilekua izateko baimena lortzen duten atzerritarren zerrenda. Horrela, hasiera batean, udalak herrian bizilekua duen atzerritarren txartel motari buruz duen informazio falta beteko litzateke.

Errolden eguneratzeak araudi espezifikoa du, hurrengoak hain zuzen ere: BLHaren 75. artikulua eta hurrengoak eta 1997ko apirilaren 1eko ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) presidente eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiarena. Ebazpen horrek jarraibide teknikoak ematen dizkie udalei udal errolda kudeatzeko eta berrikusteko.

2005eko apirilaren 28ko ebazpenaren bitartez, beste prozedura bat aurreikusi da erroldako datuak eguneratzeko: Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak Estatistikako Institutu Nazionalari jakinaraziko dizkion datuak ez dira izango udal erroldako izen-emateak eduki behar dituen derrigorrezko datuak (TAOLren 16. artikulua).

Eguneratze hori Ekonomia eta Barne Ministroek egitea aurreikusi zen. 14/2003 Lege Organikoaren Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera *“udal erroldetan atzerritarren datuak eguneratuta edukitzeko, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak hilero jakinaraziko dizkio Estatistikako Institutu Nazionalari, bere eskumenez baliatu dadin, Atzerritarren Erregistro Zentralean jasotako atzerritarren datuak. Eskumena eman*

*zaie Ekonomia eta Barne Ministroei behar diren ebazpenak emateko Atzerriarren Erregistro Zentralean jasotako atzerriarren datuak Estatistikako Institutu Nazionalari bide elektronikoz, informatikoz edo telefonikoz jakinarazteko”.*

Hala ere, INEren presidentearen eta Toki Lankidetzako zuzendariaren arteko ebazpen baten bidez arautu da. Ebazpen horren helburua da udalei jarraibide teknikoak ematea erroldako izen-emateen iraungipena erabakitzeko, Europako erkidegokoak ez diren atzerriarren kasuan, baina, aldi berean, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren fitxategi baten erabilera arautzen du<sup>4</sup>.

Gai honetan gogora ekarri behar da, garrantzitsua baita, oinarritzko eskubide bat arautzen dela, hau da, datuen babeserako eskubidea; eta horrek esan nahi du ez direla soilik datuak babestu behar, baizik eta, prozedurako neurri eta berme guztiak hartu behar direla. Eta horri dagokionez, 2005eko apirilaren 28ko ebazpenak ez ditu datuak babesteko oinarritzko eskubidea arautu beharrak dakartzan berme guztiak betetzen, aipatutako arrazoiengatik eta aipatuko direnengatik.

Ebazpen hori aztertzen jarraituta dio INEk (Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak emandako datuak erabili ondoren) atzerriar horiek bilatuko dituela bere datu basean, eta, horien artean, Europako erkidegokoak ez direnak eta Espainian betiko bizilekua izateko baimenik ez dutenak zeintzuk diren ikusiko duela. Gero, hiru hilabeteren buruan izen-ematea zeintzuei iraungiko zaien jakinaraziko die udalei.

Informazio horrekin, eta izen-ematea iraungi baino lehen, udalek iraungipenaren berri emango diete pertsona horiei. Ez da derrigorrean abisu hori eman behar, baina eskubideak mugatzen dituzenez, oso gomendagarria da jakinaraztea, geroago aztertuko den bezala.

Azkenik, beste hau ere aurreikusten du: erroldan alta eman edo azken berritetik bi urte igarota, izen-ematea iraungi dela adierazi ahal izango da interesatuari jakinarazi gabe, alkatearen ebazpen arrazoituaren bidez. Bajaren eguna jakinarazpenari dagokiona izango da.

Hau da, udalek, behin poliziak emandako informazioa dutenean, eta izena eman edo berritu denetik bi urte igarota, iraungi dela adierazi behar dute, eta hori baino lehen euren borondatez jakinarazi diezaiokeite interesdunari.

Iraungi dela adieraztea araudiko salbuespen bat da eta Espainian betiko bizilekua izateko baimenik ez duten atzerriarrei dagokie soilik. Horren ondorioak oso larriak dira, horien integrazioa eta eskubideez baliatzeko aukera kaltetzen duelako, lehen aipatu dugun bezala

Horregatik, erakunde honen iritziz, udalei balio eta abiaburu konstituzionalak eta atzerriarren eskubideak errespetatzeko behar diren berme guztiak jartzeko gomendatzen zaie, pertsona horiek ahuldade egoera batean egoten direlako, bizi duten egoeragatik edo tramiteak egiteko dituzten zailtasunengatik.

Berma horien artean dago iraungipen adierazpena egin baino lehen interesatuari deitzea esan behar duena entzuteko. Deitze hori ez da derrigorrezkoa 14/2003 Lege Organikoaren arabera, ezta 2005eko apirilaren 29ko ebazpenaren arabera, baina prozeduraren bermeetako bat da, eta lehen arrazoitu den bezala “Prozedurek dituzten

---

<sup>4</sup> INE Ekonomia Ministerioari atxikita dagoen erakunde autonomoa da. 508/2001 ED, maiatzaren 11koa, INEren estatutua onartzen eta horren funtzioak arautzen dituena.

berezitasunek ezin izango dute Lege honetan jasotako bermeak murriztu, ezta mugatu” (30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen lehenengo xedapen gehigarria, 1, in fine).

Interesdunari ez deitzeak EKren 24. artikulua urratzen du Auzitegi Konstituzionalaren arabera, defentsarako eta errugabetasun presuntziorako oinarrizko eskubidea aitortzen duen artikulua hain zuzen ere. Interesdunak egotzi zaizkion egiteen gaineko eta horrek izango dituen ondorioen gaineko informazioa jasotzeko eskubidea du, horren ondorioz bere eskubideak mugatuko badira. AKren 1982ko apirilaren 1eko epaiak zera dio: “oinarrizko eskubidea da, botere publiko guztiei eragiten diena, eta berehala aplikatzen dena, eta ulertu behar da pertsonen egoera eta jokaeran oinarritutako edozein ebazpen administratibo zein jurisdikzionalaren gainetik dagoela, pertsona horiek zigortzen baditu edo horien eskubideak mugatzen baditu”.

TAOLk, erroldako ofiziozko baja arautzean espedientean interesdunari deitu behar zaiola jasotzen du (LBRLren 72. artikulua). Auzitegi Gorenarentzat nahitaezkoa da interesdunaren iritzia jasoko duen espedientea egitea erroldan ofizioz baja eman baino lehen; beraz, espediente hori ez badago baja erabakiaren erabateko baliogabetasuna gertatzen da, 30/92 Legearen 62.1 e) artikulua (AGE 2002-10-7, 01-3-21 eta 1995-12-5).

Jurisprudenziaren arabera, erroldan baja ematea (eta iraungipen adierazpenaren ondorioak berberak izango dira, bietara erroldan automatikoki baja ematen delako) ez da zuzenbidearen araberakoa, ez bada egiaztatzen ez dela udalerrian bizi, hainbat eskubide mugatzen dituelako: sufragiorako eskubidea, udal gestioan parte hartzeko eskubidea beste herritarren eskubide berberekin, eta toki batean bizitzeko askatasunaren eskubidea. Jurisprudenziaren arabera, erroldatzea bizilekua aukeratzea baino gehiago da, administratiboki jarduteko duen gaitasunean eragiten duelako, aukeratutako bizilekuarekin lotuta dauden eskubideez benetan baliatzeko aukera dakar, eta, bestalde, udalerriko herritar izaera lortzeko aukera ematen du (139/2002 Euskal Autonomia Erkidegoko JANE, otsailaren 15ekoa; AGE 1996-1-2; 28/1999 AKE, martxoaren 8koa).

Atzerritarrek ez dute sufragiorako eskubiderik, baina bizileku-askatasunaren eskubidea dute (94/1993 AKE), eta udal gestioan parte hartzeko eskubidea dute (Atzerritarrei buruzko Legearen 6.2. artikulua). Erakunde honen iritziz, aurretiaz interesdunari jakinarazi gabe izen-ematea iraungitzeak oinarrizko eskubideak urratu ditzake, besteak beste, defentsarako eskubidea, benetako tutoretza judizialerako eskubidea, arlo publikoetan parte hartzeko eskubidea eta bizileku-askatasuna (Atzerritarrei buruzko Legearen 5., 6. eta 18. artikulua eta EKren 19. eta 24. artikulua). Eskubide horiek oso garrantzitsuak dira, eta hori agerian geratu da Estatuak parte hartzen duen hainbat Nazioarteko Itun eta Hitzarmentan jasota daudelako.

Interesdunari jakinarazteko tramiterik ez egoteak oinarrizko eskubideak urratu ditzake, jakinarazte hori berme bat delako herritarrarentzat eta udalek hori errespetatu behar dutelako. Legeriaren arabera iraungipena interesdunari jakinarazi gabe adierazi daiteke, baina ikusi dugun bezala, eskubideak urratzen ez dituzten bideetatik egin daiteke.

Udalek une eta toki egokian, eta hizkera ulergarri batez jakinarazi dezakete derri-gorrezkoa dela errolda berritzea, eta gainera, erroldatuta dauden pertsonen hizkuntza nagusietara itzuli dezake; eta bi urte igaro eta ez bada berritu, interesdunari jakinarazi diezaiokete ordenamendu juridikoan jasota dagoen bezala eta erroldako izen-ematea iraungi dela adierazi baino lehen. Horrela, udalek atzerritarren eskubideak eta bermeak errespetatzen dituzte eta ordenamendu juridikoaren arabera jarduten dute.

## Administrazioen artean datuak uztea

14/2003 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarriak udal erroldetako datuak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari emateko aukera jasotzen du.

Lege aurreikuspen berri horri konstituzio-kontrakotasun errekurtsua<sup>5</sup> jarri diote, datu pertsonalak babesteko eskubidea urratzen duelakoan. Sarritan jarri da zalantzan ere erroldatzeko beldurra sortu dezakeelako, eta, udal batzuek iragarri dute ez dietela erroldatutako atzerritarren datuak poliziari emango agindu judizial batekin ez bada.

Datuak biltzeko eta tratatzeko dauden aurrerapen teknologikoez datuok babestu beharra ekarri dute, informatikak eskaintzen dituen aukera zabalek sarritan mehatxu direlako pertsonen duintasun eta eskubideetarako. Gero eta sarrigo ikusi da bermeak jarri behar direla programa informatikoez pertsonen buruz erabiltzen duten informazio fluxua kontrolatzeko.

Testu eta nazioarteko hitzarmen<sup>6</sup> askotan aitortzen eta bermatzen da intimitaterako eskubidea, eta, oraintsuago, datu pertsonalen babeserako edo informazio autodeterminaziorako eskubidea; hori, lehen aipatu den bezala, datu pertsonalak era mekanizatuan tratatzean informatikak eskaintzen dituen aukeren ondorioz gertatzen da.

Testu horiek EKren 18. artikuluan (10.2 artikuluaekin bat etorrita) aitortutako eskubideak interpretatzeko jarraibideak dira.

Bestalde, Europako Konstituzioak datuen babesa aipatzen du pertsonen oinarrizko eskubideen artea eta Europar Batasunaren egitura demokratikoaren aurretiko baldintza dela dio. Gainera, Alemaniako Auzitegi Konstituzionalaren adierazpen bat jasotzen du, zentsuari buruzko 1983ko epai garrantzitsu bat hain zuzen ere; horren arabera, "datuen babesak bermatu egiten du pertsonen komunikatzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna; beraz, oso elementu garrantzitsua da gizarte demokratikoa izateko, eta aurrera egiteko".

Bermeak ezarri behar dira informatika erabiltzeak intimitaterako duen arriskua saihesteko, EKren 18.4 artikuluan aitortzen den bezala. Berme horiek barne zuzenbidean ezarri dira datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoaren bitartez (DBLO).

Intimitaterako eskubideak eta datuak babesteko eskubideak garapen doktrinal handia izan dute Giza Eskubideen Europako Auzitegi, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzorde eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziaren aldetik. Horri dagokionez, AKren 292/2000 epaiak, Herriaren Defendatzaileak DBLOren 21.1 eta 24.1 artikuluen kontra jarritako konstituzio kontrakotasun errekurtsuan gai honetan nagusi den doktrina jasotzen du eta oinarrizko eskubide honetaz baliatzeko legegileak kontuan izan behar

<sup>5</sup> Konstituzio kontrakotasun errekurtsua, Eusko legebiltzarrak jarritakoa 4/2000 Lege Organikoa (atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa) aldatzen duen 14/2003 Lege Organikoari; 7/85 Legea, Toki Araubideen Oinarri buruzkoa; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

<sup>6</sup> Besteak beste: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europar Hitzarmena, Erroma, 1950; Europar Kontseiluaren Hitzarmena, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez pertsonak babesten dituen, Estrasburgo, 1981; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/CE Artzataraua, datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituen; Nazio Batuen Bilkura Nagusiaren 45/1995 Ebazpena; eta EBren Oinarrizko Eskubideen

dituen baldintzak jasotzen ditu; beraz, ezinbestekoa da kontuan hartzea, bete egingo dela bermatuko duten ekintzak gomendatzeko.

Auzitegi Konstituzionalak zehaztu egin du eskubide hau: “eskubide horren helburua da norbanakoari bere datu pertsonalak, horien erabilera eta helburua kontrolatzeko gaitasuna bermatzea, legez kontrako trafikoa eragozteko eta pertsonaren duintasuna eta eskubidea kaltetu ez ditzan”.

Datu pertsonalak kontrolatu eta erabili ahal izateko botere horrek eskubide hauek dakartza: datu pertsonalak bildu, biltegiratu, tratatu eta erabili baino lehen baimena behar izateko eskubidea, datu horien helburuari buruz eta beste pertsona batzuek edo Estatuak erabiltzeari buruzko informazioa izatea, eta datu horiek erabiltzeko, zuzentzeko era baliogabetzeko eskubidea.

Babes eremuari dagokionez, edozein datu pertsonal izan daiteke, datu hori jakinda edo erabilia edozein eskubide kaltetzen bada; hau da, eskubide honen bitartez ez dira soilik datu intimoak babesten.

Atzerritarrek eskubide horren titular dira, euren egoera juridikoa edozein izanda ere. Horrela, AKren 115/87 epaiak zera adierazten du: “... *erabateko berdintasuna dago espainiar eta atzerritarren artean, pertsonari, pertsona delako eta ez herritar, dagozkion eskubideekin gertatzen den bezala, edo, bestela esanda, nahasgarria den terminologia hori baztertzen bada, giza duintasuna bermatzeko ezinbestekoak diren eskubideekiko berdintasuna. Eta hori, gure konstituzioaren 10.1 artikulua arabera, Espainiako ordenamendu juridikoaren oinarria da, beste eskubide hauekin batera: bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, intimitaterako eskubidea, askatasun ideologikorako eskubidea... Konstituzioak agintzen duen bezala, atzerritarrei dagokie ohorerako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta EKren 18.1 artikulua dakarrena, espainiarrekiko desberdintasunik egin gabe. Horrez gain, 18.4. artikuluan aipatzen den datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidea dute. Eskubide horietan guztietan erabateko berdintasuna dago espainiarren eta atzerritarren artean”.*

Hori betetzen dela bermatzeko, esan dugun bezala, DBLOk mugak ezartzen dizkio datuak bildu, tratatu eta erabiltzeari, eta fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari. Datuei dagokienez, arautu egiten ditu pertsonen eskubideak, bai eta kontrol erakunde baten sorrera, Datuak Babesteko Bulegoa, hain zuzen ere, eta lurralde mailako beste kontrol erakunde batzuk sortzea aurreikusten du<sup>7</sup>. Legea AKren 292/2000 epaiaren arabera interpretatu behar da, batez ere, gai honi dagokionez, konstituzioaren kontrakotzat jotzen dituelako DBLOren artikulua, batez ere, administrazio artean datuak lagatzea arautzen duten artikulua, datuak bildu ziren helburuetarako barik beste helburu batzuetarako erabiltzen direnean.

Erroldak datu fitxategiak dira eta udalak dira fitxategi horien titularrak. Ondorioz, udalek datuak bildu, erabili eta tratatzen dituztenean, datuen babeserako eskubidea eta DBLOk ezartzen dituen baldintzak eta mugak errespetatu behar dira.

---

<sup>7</sup> Otsailaren 25eko 2/2004 euskal legeak (BDBEL) datu pertsonalen fitxategiak arautzen ditu eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzen du, gai horri dagokion gutzia eta Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako edo kudeatutako fitxategiak kontrolatzeko.

14/2003 Lege Organikoan aurreikusita dagoen bezala, datuak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren eta udal errolden artean uztea ez dator bat datuen babeserako eskubidearen oinarrizko edukiarekin<sup>8</sup>, datu pertsonalak erabiltzen ari direlako interesdunaren baimenik gabe. Aztertu behar da eskubidea zentzuzkoa dena baino gehiago mugatzen ote den eta hori eragozteko bermeak ezartzea posible ote den.

DBLOk eta AKren 292/2000 epaian ezarritakoaren arabera, ezin dira administrazio publikoen artean datuak jakinarazi, pertsona horren baimenik gabe, eskumen desberdinak gauzatzeko edo gai desberdinei buruzko eskumenetarako, ez bada legeren batean aurreikusten. Kasu horretan datuak uztea lege batean aurreikusita dago.

Baina legegileak oinarrizko eskubide bat arautzean, ez du soilik lege mailako araua eman behar, baizik eta arau horrek eskubidearen oinarrizko edukia bermatu behar du.

Baina gai hori legez arautu zenean (administrazioen artean datuak baimenik gabe uztea, bildu zirenerako barik beste helburu baterako erabiltzeko) legegileak ez zituen ezarri datuen babeserako eskubidea bermatzeko behar ziren muga guztiak.

Datu pertsonalak EKren 18.4 artikulua errespetatuz biltzeko eta tratatzeko, datuak zertarako erabiliko diren zehaztu behar da, eta eskatutako datuek helburu horretarako egokiak eta beharrezkoak izan behar dute.

Auzitegi Konstituzionalak, 292/2000 Epaian, hauxe dio DBLOren 21.1 artikulua konstituzioaren kontrakoa dela arrazoitzeko: *“puntu honi dagokionez, DBLOk ez dizkio mugak ezarri, Konstituzioak agintzen duen bezala, administrazio publikoen artean datu pertsonalak uztea baimentzeko eskubideari, datu horiek bildu ziren helburuetarako barik beste helburu batzuetarako erabiltzen direnean, kontuan izanik interesdunak hasierako helbururako baino ez duela eman baimena; gai hori arautu dezakeen araua identifikatzera mugatu da. Arau hori arauzkoa izan daiteke, inpugnatutako aginduaren arabera maila goragoko araua izango delako, eta arrazoi handiagoz, fitxategia sortzen duen arauaren antzeko mailako arau baten bidez aldatzen bada, datu pertsonalak interesdunak onartu gabe uztea baimentzen duena, eta, izan ere, hori, Konstituzioaren aurkakoa da”*.

14/2003 legeak, helburua zehazterakoan, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak datuok erabili ahal dituela dio: “Helburu bakarra izango da: Espainian atzerritarrek dituzten Eskubide eta Askatasunei, eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoan ezarritako eskumenak gauzatea<sup>9</sup>. Hauek dira Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak dituen eskumenak atzerritarrei dagokien gaitan: Estatuko lurraldean sartzeko eta irteteko kontrola espainiarren zein atzerritarren kasuan eta legerian aurreikusitakoak, besteak

<sup>8</sup> Auzitegi Konstituzionalak funtsezko edukia honela definitzen du apirilaren 11/1981 epaian: “eskubide subjektibo baten funtsezko edukia osatzen dute eskubidea azaldutako tipoari egokia zaiola aitortzeko bide ematen duten gaitasun edo aukera guztiak, izan ere, gaitasun eta aukera horiek gabe tipo horretakoa izateari uzten dio, beste baten barruan geratzen da eta bere izaera galtzen du...”. Ondorioz, funtsezko edukia errespetatu behar da; horrela, babestu nahi dituen interesak “benetan zehatza eta benetan babestuak izango dira. Horrela, funtsezko edukia gainditu edo ezezagun egiten da eskubidea mugatzen denean, eta horren ondorioz ezin denean eskubide horretaz baliatu, zentzuzkoa dena baino gehiago zailtzen denean edo behar duen babesa kentzen diotenean...”.

<sup>9</sup> Zazpigarren Xedapen Gehigarria: “Espainian atzerritarrak egoteari eta horien kontrolari dagokionez, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoan jasotako eskumenez baliatzeko helburu bakarrarekin, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak udal erroldetan izena emanda dauden atzerritarren datuak erabili ahal izango ditu, ahal dela bide telematikoz”.



beste, atzerritar, babes eta asilo, estradizio, kanporatze, emigrazio eta immigrazioari dagokionez (2/1986 Lege Organikoaren 12. artikulua, Segurtasun Indarren eta Ki-degoen eskumenak arautzen dituena). Beraz, eskumen horiek asko dira eta helburu administratiboak zein polizialak dituzte, hau da, atzerritarrei buruzko araudia betetzen den kontrolatzeko eta zehatzeko eskumena.

INT/1751/2002 AGINDUA, ekainaren 20koa, gai honi dagokion fitxategia sortzen duena (ADEXTRA). Lege horrek dio helburua dela tramiteak, txostenak eta ebazpenak kudeatzea, atzerritar, babes eta asilo gaitako legeria aplikatzeko. Fitxategiaren oinarritzko egituran bizilekuaren datua fitxategian sartu beharreko datuen artean dago.

Legeak ez du garbi adierazten erroldako datuak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari uzteak zein helburu duen, eskumen ugari duelako. Bestalde, poliziak atzerritarren helbideari buruzko datua du, eta, TAOLren 16.3 artikulua arabera, : “udal erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei uztea aurreikusten da, pertsonaren alde aurreko baimenik gabe, administraziook euren eskumenak gauzatu ditzaten, eta, betiere, bizilekuaren datua garrantzitsua denean”, hau da, TAOLren arabera, erroldako datuak utzi egin daitezke bizilekuari buruzko datuak garrantzitsuak direnean. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak bizilekuari buruzko datua baduenez eta legeak ez duenez garbi adierazten horren helburua, ez da lege aurreikuspen horren zergatia ulertzen.

Datuen babeserako eskubidea arriskuan jartzen duen zehaztasun ez hori saihesteko, gomendagarria da udalek hainbat neurri edo berme hartzea. Berme horiek ekainaren 11ko 994/1999 EDn agertzen diren segurtasun neurriak ezartzearekin lotuta ulertu behar dira. Lege horren arabera datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurrien araudia onartzen da. Araudi horrek neurri bereziak aurreikusten ditu babes handiagoa behar duten fitxategietarako, datuak bereziak direlako edo datuen ezaugarriek hala eskatzen dutelako.

Segurtasun neurriek martxan behar lukete dagoeneko, araudiaren xedapen iragankor bakarraren arabera. Alkateak dira errolda fitxategien arduradunak, TAOLren 21. artikuluan aipatzen den eskumen generikoaren arabera, hala ere, beste organo batean eskuordetu ahal izango du<sup>10</sup>.

Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak datuak eskatzen dizkionean udalari horren helburu zehatza adierazi beharra aurreikusten dute neurriek, atzerritartasun gaitan atxikita dituen eskumenekin bat etorrira. Gainera, eskaeran zehaztu egin beharko litzateke helburu administratibo edo polizialeterako den. Kasu horretan, DBLOren 22.2 artikuluaekin bat etorrira, justifikatu egin beharko da datuak biltzea beharrezkoa dela segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurre hartzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko; izan

---

<sup>10</sup> Fitxategien eta horien tratamenduaren arduradunek DBBELan jasotako arau-hauste eta zehapen araubideari lotuta daude (DBBELren 21. artikulua).

Fitxategiaren arduradunak eta datu pertsonalak tratatzeko fasean esku hartzen duten guztiek lanbide-isilpekotasuna gorde behar dute, datuoi eta horiek gorde beharri dagokionez. Datu pertsonalak legez kanpo erabili edo uzteagatik arau-hauste larria egin bada, eta horren ondorioz herritarren eskubideak eta nortasunaren garapen askea (konstituzioak eta legeek bermatzen duten bezala) larriki eragotzi edo urratu badira, Datuen Babeseko Euskal Bulegoaren zuzendariak eskumena dauka datu pertsonalon arduradunei datuok legez kanpo ez uzteko edo ez erabiltzeko eskatzekoa, eta, eskaera horri ez balitzaio jaramonik egingo, fitxategiak inmobilizatu ditzake (DBELren 25. artikulua). Diziplina neurriak hartzea ere proposatu dezake, hala badagokio.

ere, ez dago onartuta datuak helburu poliziatarako jakinaraztea pertsonaren baimenik gabe, bi kasu horietatik kanpo bada.

Datuen Babeserako Lege Organikoan, legegileak ez ditu datu pertsonalak uzteko aukeraren mugak arautu, bildu zirenerako barik beste helburu batzuetarako erabiltzen direnean. Lehen esan bezala, 14/2003 Lege Organikoa ez da nahikoa, hau da, administrazioen artean datuak uztea lege mailako arau batekin aurreikusi izana. Hutsune bat dago, eta hori arautu egin beharko litzateke EKren 18.4 artikulua eskatzen duen bezala. Beraz, mugak jarriko dituen lege bat behar da. Legearen zehaztasun ezak segurtasun juridikorik eza dakar eta ez du bere funtzioa bermatzen, hau da, oinarrizko eskubidea betetzea.

Auzitegi Konstituzionalak zera esan du, 292/2000 epaian<sup>11</sup>, “datu bilketaren helburuan edo horien edukian zehaztasunik ez egoteak, segurtasun juridikoaren abiaburua kaltetuko luke; izan ere segurtasun hori aplikatu daitekeen ordenamenduaren ziurtasuna da, bai eta gizon-emakumeen arrazoiz oinarritutako iguripena, agintariak zuzenbidea aplikatuz egin behar dutena lanari buruz”.

Azken batean, Estatu demokratiko batean pertsonen eskubideak mugatzeak proportzionaltasun bat gorde behar du lortu nahi den helburuarekin, eta, ezin dute eskubidea galarazi, zentzuzkoa dena baino gehiago zaildu edo behar duen babesik gabe utzi...”<sup>12</sup>.

Erakunde honen iritziz, 14/2003 Lege Organikoak habilitazio orokorra ezartzen du eta ez du datuen jakinarazpenaren edukia edo helburua mugatzen, ez ditu jakinarazpenaren ondorioak zehazten ezta aurreikusten, eta, datuen babeserako eskubidearen funtsezko edukia urratu dezake.

Hutsune hori betetzen ez den artean, eta, oinarrizko eskubide eta askatasunek botere publikoak binkulatzen dituztenez (EKren 53.1 artikulua), neurri guztiak hartu beharko lirateke datu pertsonalak babesteko. Horri dagokionez, udalak beharrezko neurri eta berme guztiak ezarri ditzake, datu pertsonalen babeserako eskubidea betetze

<sup>11</sup> Giza Eskubideen Europar Auzitegiak eskakizun bat egin du: legeak interesdunari baimena eman behar diola agintariak bere intimitatean esku-hartzean zein ondorio izango diren jakiteko; gainera, seguru egon behar du esku-hartze hori legearen eta zuzenbidezko Estatuaren arabera dela. Auzitegiaren arabera, lege batek zuzenbidezko estatu batetako lege betekizun guztiak betetzeko, lege hori aurreikusi egin behar da, ez du inolako arbitrariotasunik izan behar eta interesdunari esku-hartzearen nondik norakoa eta edukia jakiteko aukera eman behar dio. P.G. eta J.H. kasua Erresuma Batuen aurka: Auzitegiaren arabera esku-hartzea lege esparru batean kokatu behar da, eta ezinbesteko betekizuna da baina ez nahikoa: “«Legeak aurreikusitako» azalpenak zera eskatzen du lehenengo eta behin: inpugnatutako neurriak oinarriren bat izan behar du barne Zuzenbidean, eta, bigarrenaz, lege horren kalitatea aipatzen du; inplikaturako pertsonaren eskura egon behar du. Gainera, berarentzat dituen ondorioak aurrez ikusteko gaitasuna izan behar du eta bateragarria izan behar du Zuzenbidezko estatuarekin”. Kopp Suitzaren aurka, 1998ko martxoaren 25a kasuaren epaia, “Esku-hartze horrek 8 artikulua urratzen du, kasu honetan izan ezik: «legeak aurreikusita», helburu legitimoak lortu nahi baditu, 2. atalari dagokionez, eta, gainera, «helburuok lortzeko beharrezkoa bada gizarte demokratiko batean». «Legeak aurreikusita» hitzek, 8.2. artikulua zentzuan, esan nahi dute inkriminatu den neurriak oinarri bat izan behar duela barne zuzenbidean, baina lege horren kalitatea ere aipatzen dute: inplikaturako pertsonak eskura izan behar du, eta gainera berarentzat izango dituen ondorioak aurrez ikusi behar ditu eta, gainera, eskubidearekin bateragarria izan behar du” Europako Erki-degoko Justizia Auzitegiak zera dio, 2003ko maiatzaren 20 epaian: “egiaztatu egin behar da esku-hartzea beharrezkoa den gizarte demokratikoan nahi den helburu legitimoa lortu ahal izateko...”.

<sup>12</sup> Ikus 10. oharra.

aldera. Horretarako, DBLOk aipatzen dituen datuen babesaren eta pertsonen eskubideen abiaburuak aplikatu daitezke.

Horri dagokionez, 4. artikulua zera dio: “tratatu behar diren datu pertsonalak ezin izango dira erabili bildu zirenerako barik beste helburu batzuekin bat ez datozen gaietarako”.

5.1 artikulua zera dio: “datu pertsonalak eskatu behar badira, lehenengo interesdunei jakinaraziko zaie zehatz eta argi datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, zertarako bildu diren datuak eta informazioa nori zuzenduta dagoen.

Bere aldetik, 11.1 artikulua zera dio: “tratatu behar diren datu pertsonalak bakarrik jakinarazi daitezke datuok utzi eta hartuko dituztenen funtzio legitimoekin zerikusia duten helburuak betetzeko, betiere, aldezturik interesdunaren baimena izanik”.

Azkenik, 11.3 artikulua zera agintzen du: “datu pertsonalak hirugarren bati jakinarazteko baimena baliogabea izango da, interesdunari eman zaion informazioagatik ez badaki baimendu diren datuok zertarako erabiliko diren edo datuon hartzaileak zein jarduera garatu behar duen”.

Oinarritzko eskubide hau bermatzeko martxan jarri daitezkeen neurrien artean nabarmendu behar da pertsonari jakinaraztea bere datuak beste helburu baterako erabiliko direla”. Horrela, AKren 292/2000 epaiak zera dio: “argi dago interesdunari jakinarazi egin behar zaiola datu pertsonalak utzi ahal direla, eta, nori utziko zaizkion. Soilik horrela izango da eraginkorra hori baimentzeko eskubidea, norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta erabiltzeko eskubidearen funtsezko ahalmena delako”.

Udalak, datuak utzi ahal izateko, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren helburua zein den jakin beharko luke, atzerritarren gaineko kontrolari buruz duten eskumenen barruan, bai eta bizilekuari buruzko datuak garrantzizkoak diren. Ondorioz, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak udalari egingo dizkion kontsultak zehatzak izan behar dira eta arrazoituta egon behar dira.

Udalak, behin Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak datuok zertarako nahi dituen zehatz jakinda, interesdunari jakinarazi beharko dio datuak nola erabiliko diren, DBLOren 22.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik. Helburuak polizialak eta bildu zirenerako barik beste helburu batzuetarako badira, interesdunaren baimena beharko litzateke, DBLOren arabera.

Atzerritarrak udal erroldan izena emateko betebeharra betetzen duenean, horrek dituen eskubide eta betebeharrak guztiekin, bere datu pertsonalak jartzen ditu udalaren eskura. Izena emateak helburu zehatza du, lehen ikusi dugun bezala (benetan herrian bizi dela eta bizilekua duela egiaztatzea, herritar izatera hartzea...). Lege berriaren ondorioz, bere datuak beste helburu batzuetarako erabili ahal izango dira. Garrantzitsua da jakitea datuak zertarako erabiliko diren, eta, helburu polizialekin erabiliko badira, baimena eman behar du, DBLOn jasotako kasuetan izan ezik.

## Ondorioak

Azterlan honen ondorioak udalei zuzendutako gomendio hauetan laburbildu dira, herritarren eskubideak bermatzeko:

1. Errolda oinarritzko baliabidea da atzerritarrak gure udalerrietan integartzeko eta

eskubideez baliatzeko; beraz, erroldaren izaera eta helburuaren arabera, udalei gomendatzen zaie atzerritarren nortasuna eta udalerrian duten bizilekua egiaztatzeko behar den guztia egiteko, atzerritarrek duten betebeharra bete dezaten, hau da, benetan bizi diren udalerriko erroldan izena ematea.

2. Erroldako izen-ematea iraungi dela adierazteak, interesdunari aldez aurretik jakinarazi gabe, atzerritarren eskubideak mugatzen ditu; beraz, udalei gomendatzen zaie atzerritarrei toki eta une egokian jakinaraztea errolda berritu behar dutela, eta, horrez gain, erroldan baja eman baino lehen, jakinarazi diezaietela errolda ez berritzeak dituen ondorioak; eta hori guztia hizkera ulerterrazean, alarmarik sortu gabe, eta udalerrian atzerritarrek hitz egiten duten hizkuntzetara itzulita.
3. Erroldako datuak interesatuaren baimenik gabe Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari uzteak, eman zirenerako barik beste helburu batzuetarako erabiltzeko, datuen babeserako eskubidearen funtsezko edukia kaltetu dezake. Eskubide hori beteko dela bermatzeko, Poliziak datu horiek zertarako erabiliko dituen jakitea gomendatzen diegu udalei. Datuak emateko bizilekuari buruzko datuek duten garrantzia justifikatuko da, eta segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurre hartzeko edo arau-hauste penala saihesteko direla ere justifikatuko da. Kasu horietan izan ezik, udalak interesdunari jakinarazi behar dio bere datuak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi dizkiola eta bere baimena eskatu behar du, hasierako helbururako barik beste helburu polizial batzuetarako erabiltzen badira.

#### 4. ATZERRITARREN EGOERA JURIDIKOA NORMALIZATZEKO PROZESUAN, UDALEK ERROLDA-ZIURTAGIRIAK EGITEARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA

##### I. Sarrera

2005eko otsailaren 7an, normalizatzeko prozesurako eskaerak aurkezteko epea hasi zen, ondoko hauetan ezarritakoren arabera: abenduaren 30eko 2393/2004 EDaren hirugarren xedapen iragankorra (urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, atzerritarrek Espainian dituzten askatasun eta eskubideei eta atzerritarrak gizarteratzeari buruzkoa, onetsi zuena), eta otsailaren 2ko 140/2005 LEH Agindua (normalizatzeko prozesuari aplikatu beharreko prozedura garatzen duena).

Egoitzako eta laneko hasierako baimena eskatzeko epea 2005eko maiatzaren 7an bukatuko da (3. xedapen iragankorra, 1).

Prozesu honek oso eragin garrantzitsua izango du gure erkidegoan bizi diren etorkin atzerritarren eskubideen titularitatean eta eskubideok gauzatzeko orduan. Dokumentazioa eskuratuz, gero lan egin ahal izango dute, eta gure udalerrietan gizarteratzea errazago izango zaie.

Eskaera aurkezteko bete behar dituzten baldintzetako bat da langilea Espainiako Estatuko udalerrri batean erroldaturik egotea 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik (3. xedapen iragankorra, 1.a).

2004ko abuztuaren 8a baino lehen estatuko udalerriren batean bizi ziren arren artean erroldatuta ez zeuden atzerritarrentzat, oso zaila izaten ari da baldintza hau betetzea. Etorkinen eskubideen alde lanean ari diren gizarte erakundeek, abokatu elkargoek eta Gizarte Elkarrizketako Mahaiak berak, baldintza hau bete beharraren jakitun izan ziren unetik bertatik, behin eta berriro eskatu dute Espainiako Estatuan bizitzea frogatzeko modua **malgutzeko**; horrela, 2004ko abuztuaren 8a baino lehen Espainiako Estatuan bizi ziren atzerritarrak normalizatzeko prozesuan sartu ahalko lirateke.

Eskaerak aurkezteko epea hasi zenetik, ikusi da atzerritar batzuek, aipatutako arautegian ezarritako baldintzak bete arren, ezin izan dutela dokumentazio-eskaera aurkeztu normalizatzeko prozesu honetan, ez zeukatelako errolda-ziurtagiria. Zehazki, bi egoera hauek eman dira: pertsona bat udalerrri batean erroldaturik egotea, baina ez abuztuaren 8a baino lehen, edo egun hori baino lehen eta gaur egun ere Espainiako Estatuko udalerrri batean bizi arren oraindik erroldan izena emateko eskaera egin ez izana.

Gobernuak, apirilaren 7tik aurrera, azaldutako egoera horiek aintzat hartuko direla jakinarazi zuen. Eskaerarekin batera erroldako ziurtagiria aurkeztu beharra kendu ez den arren, jarduera hauek egin dituela adierazi zuen:

Erroldatze Kontseiluko lehendakariak, apirilaren 12an, udalei ondoko gutuna bidali zien, premiaz: “Gutun zirkularra, normalizatzeko prozesuan atzerritarrak erroldan inskribatzeari buruzkoa”.

Zirkular hartan azaltzen zenez, udalek errolda-ziurtagiriak atzerako eraginez eman ditzakete, normalizatzeko prozesurako ondorioak sortzeko datari dagokionez, abenduaren 30eko 2393/2004 EDaren hirugarren xedapen iragankorrean ezarria.

Egoerak:

- a) Atzerritarra ez dago erroldan izena emanda. Bere egoitza iraunkorra udalerrian daukala frogatzen duen egunetik aurrera inskribatu ahal izango da erroldan, alkatearen ebazpen berariazko eta arrazoitu baten bidez.
- b) Atzerritarra erroldan izena emanda dago, baina 2004ko abuztuaren 7a baino beranduago. Erroldan izena emateko data alda dakioke, alkatearen ebazpen berariazko eta arrazoitu baten bidez.

INEak, aipatutako gutun zirkularraren data berean, komunikazio bat eman zuen jakitera. Bertan adierazi zuen udal bakoitzak, udal erroldan, altaren eguna alda dezakeela, “omisio bidezko altaren” prozeduraren bidez. “Agiri publiko ezberdinen heterogeneotasuna ikusita, udal bakoitzak erabakiko du zein dokumentu diren fede-emaile”. Bestalde, Erroldatze Kontseiluaren hurrengo batzarra aurreratu zen. Batzar hartan, errolda-ziurtagirian kontuan izan beharreko dokumentu publikoak zehatzago aztertu behar ziren. Gainera, Espainiako Udalerrien Federazioak INEri eskatu zion udalek kontuan izan beharreko dokumentuak zein diren zehatzago azal zezan, agindutako lana emandako epean burutzea konplexua zelako.

Horrenbestez, Erroldatze Kontseiluak ondoko ebazpena eman zuen: “Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariaren eta Tokiko Lankidetzako zuzendari nagusiaren 2005eko apirilaren 14ko ebazpena. Horren bidez, udalei jarraibide teknikoak ematen zaizkie, normalizatze prozedurak ukituta egonik erroldan 2004ko abuztuaren 8a baino beranduago izena eman zuten atzerritarrei egoitza 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik dutela frogatzen duten errolda-ziurtagiriak emateko.” Ebazpen horren arabera, abenduaren 30eko 2393/2004 EDaren hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako normalizatze prozeduran ondoko hauek onartu ahal izango dira: **EB kanpoko atzeritarrek (16 urtetik gorakoak) eskatzen dituzten errolda-ziurtagiriak, normalizatze prozesuak dirauen bitartean ematen direnak, Espainiako Estatuan 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik bizi direla frogatzen duten agiriekin batera, eskatzaileak identifikaturik agertuz.**

Eskaera hauetaz ari da:

- a) Omisio bidezko alta eskaerekin batera bideratzen diren ziurtagiri-eskaerak (udalerrian modu iraunkorrean bizi diren eta erroldan ageri ez diren pertsonak).
- b) Atzeritarrak erroldan sartzeko eskaerak, 2004ko abuztuaren 8a eta gero eginak (erroldan data hori baino beranduago ageri arren euren bizileku iraunkorra udalerrian zuten pertsonak).

Gainera, aipatutako ebazpen horretan, 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik Espainiako Estatuan bizi izatea frogatzen duten agiriak aipatzen dira. Erroldan izena emanda egotearen ziurtagiri-eskaera eta erroldan izena ematea ziurtatzeko eredu bat eransten dira.

Eskaera horiek **2005eko maiatzaren 7a baino lehen** bideratu behar dira, egun horretan bukatzen baita atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozedura.

Udalak prozeduran egiten ari diren jarduerak azertu aurretik, erakunde honek uste du alde aurretik zenbait gogoeta egin beharko litzatekeela.

Prozeduraren konplexutasuna ikusita, uste dugu beharrezkoa dela aipatutako normalizatzeko prozesuan eskaerak aurkezteko **epea luzatzeko** aukera aztertzea, Estatuan bizitzea frogatzeko aukera hau noiz eman den kontuan izanik.

Baldintzak malgutuko direla jendaurrean esan zenean (apirilak 7), “Erroldatze Kontseiluko lehendakariaren gutun zirkularra” eman zenean (apirilak 12) eta “Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariaren eta Tokiko Lankidetzako zuzendari nagusiaren ebazpena” eman zenean (apirilak 14), epea bukatzeaz zegoen (epea maiatzaren 7an bukatzen baita). Hain denbora laburrean, beraz, oso zaila da atzerritarrek aipatutako jardueretan ezarritako aurreikuspenak betetzea. Gainera, errolda-ziurtagiriak jasotzeko, udalen laguntza beharrezkoa da. Laguntza hori, ordea, orain dela gutxi eta presaka eskatu da, eta argipen asko izaten ari dira beharrezko; horrenbestez, zaila izango da ziurtagiriak maiatzaren 7a baino lehen eman ahal izatea.

Bestetik, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi zuen abenduaren 30eko 2393/2004 EDko arazoien azalpenean adierazi zenez, “atzerritar asko daude Espainiako Estatuko lurraldean baimenik gabe. Beraz, atzerritarrek onartzeko ohiko bideak aldi batez baztertu beharra dago, atzerritar horien egoera normalizatzeko neurri bat aintzat hartzeko...”.

Atzerritarren egoera normalizatzeko edo arautzeko prozesua komenigarria zela jakinarazi zenean, hasiera batean Gobernuak uste zuen (sarritan esan duenez) 800.000 eskaera inguru egingo zirela. Aitzitik, Laneko eta Gizarte Gaietako Administrazioaren datuen arabera, apirilaren 15era arte 386.173 eskaera baino ez ziren aurkeztu (horietatik 7.757, Euskal Autonomi Erkidegoan). Kopuru hau hasieran aurreikusitakoa baino askozaz ere txikiagoa da. Horregatik, **epea luzatzea** beharrezkoa dela jotzen dugu, normalizatzeko prozedura honek espero diren emaitzak izango dituela bermatzeko, egiten diren administrazio egintzek administrazio prozedura bete dezaten eta haien edukia antolamendu juridikoaren arabera izan dadin, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak exijitzen duen moduan.

## **II. Normalizatzeko prozesuan (urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi zuen abenduaren 30eko 2393/2004 EDaren arabera ezarria), atzerritarrek dokumentazio-eskaera aurkezteko erroldako inskripzioaren ziurtagiriaren eskaeren aurrean Euskal Autonomi Erkidegoko udalak egiten ari diren jardueri buruzko gogoeta.**

Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legean eta Tokiko Erakundeen Lurralde Mugapenaren eta Biztanleriaren Araudian ezarritako arautegia aplikatzeko eskumena udalena da.

Arautegi horren arabera, udalak eratu, mantendu, berrikusi eta jagon behar du udal errolda, eta berari dagokio erabakitzea bere erroldan egiten diren altak bidezkoak diren (Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 17.1 artikulua).

Bestalde, udalerrian egoitza izatearen eta bertan ohiko bizilekua izatearen froga dira erroldako datuak. Datu horiei buruz egiten diren ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira, administrazioko ondorio guztietarako (Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikulua eta Lurralde Mugapenaren eta Biztanleriaren Araudiaren 53. artikulua).

Abenduaren 30eko 2393/2004 EDaren hirugarren xedapen iragankorrean (urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko Araudia onetsi zuena) ezarritako normalizatzerako eskaera aurkezteko eskatzen ari diren ziurtagiri berriak arrazoitutako ebazpen baten bidez eman behar dira, arategi honetan oinarriturik:

- a) Omisio bidezko alta-eskaerekin batera bideratzen diren eskaerentarako ziurtagiriak. Aplikatu beharreko arategia 1997ko apirilaren 9ko ebazpena da, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariaren eta Tokiko Lankidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 14ko ebazpena argitaratzea xedatu zuena (beraren bidez, udaleko errolda kudeatzeko eta berraztertzekeo jarraibide teknikoak eman zitzaizkien udalei).
- b) 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik udalerrian bizi diren atzerritarrek erroldan izena emanda daudela frogatzen duten ziurtagiriak jasotzeko, egun hori baino beranduago eginiko eskaerentarako ziurtagiriak. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 57.3 eta 105. artikulua aplikatu behar dira kasu honetan, 1997ko apirilaren 9ko aipatutako ebazpenaz gain.

Erroldan inskribaturik egotearen ziurtagiriaren eskaera-ereduan eta erroldan inskribaturik egotearen ziurtagiri-ereduan, apirilaren 14ko ebazpenari erantsi zitzaizkionak, atzerritarrek aurkeztu beharreko zenbait dokumentu publikoren zerrenda jasotzen da. Eskaera-ereduan, bestelako agiriak aurkezteko aukera mugatzen da, udalerrri batean bizitzea froga dezaketen dokumentu publikoen kasuistika eta heterogeneotasuna oso handia denean, lehenago ere (apirilaren 12ko zirkularren bidez ere) esan baldin bada “ziurtapena agiri publiko fede-emaileak aurkeztuz egingo dela”.

Udalak eredu hauek erabiltzen ari dira; beraz, nahasgarri izan daitezke, ez dutelako beren beregi azaltzen eskaeran aipatzen diren agirien orde bestelako agiriak aurkez daitezkeela. Erregistroko inskripzioaren ziurtagiriaren eskaera-eredu horretan, 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik Espainiako Estatuan bizitzea frogatzeko eskaerari erantsi ahal zaizkion agirien zerrenda dago. Bada, eredu hori erabiliz antolamendu juridikoa zaurtu daiteke, zehazki, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua, herritarrek administrazio publikoarekiko harremanetan dauzkaten eskubideak arautzen dituena. Horrela, defentsa-gabeziako egoerak gerta daitezke.

### III. Gomendioak

Horregatik guztiarengatik, erakunde honen ustez, normalizatze prozesurako errolda inskripzioko ziurtagiria eman behar duten udalei ondoko gomendioak egitea beharrezkoa da:



1. Atzerritarrei informazio zehatza ematea 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik udalerrian bizi direla frogatzerakoan egon diren aldaketei buruz. Komenigarri litzateke azaltzea, halaber, erroldan izena emanda egotearen ziurtagiria eskatze aldera, apirilaren 14ko ebazpenean beren beregi aipatzen diren agiriak aurkez ditzaketela, baina horien ordez **2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik udalerrian bizi direla frogatzen duten bestelako agiriak ere aurkez ditzaketela.**
2. Atzerritarrei erroldan izena emanda egotearen ziurtagiri-eskaeren bestelako ereduak ematea, **beste agiri batzuk aurkezteko aukera ematen dutenak, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariaren eta Tokiko Lan-kidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 14ko ebazpenean beren beregi aipatutakoez gain.**
3. Atzerritarrei ziurtagiri-eskaeraren kopia bat ematea, behar bezala zigilatuta eta erregistratuta. Horrela, egoitzako eta laneko hasierako baimena administrazioan (eta atzerritarren egoera normalizatzeko prozesuen berri jakiteko eskudun den bulego publikoan) epe barruan aurkeztu ahal izango lukete. Gainera, horrela **ahozko ukorik ez litzateke emango, horrek defentsa-gabezia ekar dezake-eta.**

Gomendio horien guztien helburua zera da: normalizatzeko prozesuan, atzerritarren eskubideak berma ditzala udalek erroldako inskripzioaren ziurtagiria ebazteko erabiliko duten prozedurak. Normalizatzeko prozesu hori urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia onetsi zuen abenduaren 30eko 2392/2004 EDaren hirugarren xedapen iragankorrean ezarri zen.

## 5. HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA ETA PARTE-HARTZEA TOKI EREMUAN

### Hitzaurrea

“Herritarrentzako informazioa eta parte-hartzea” Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen IV. atalaren izenburua da. Epigrafe horrek gaur egungo demokrazietan oinarritzotzat jotzen diren elementuetako bi batzen ditu: jakiteko eskubidea eta herri gaietan parte hartzeko eskubidea.

Gogoeta honetan informaziorako eskubidean jarriko dugu arreta berriaz, herritarrek beren erakundeetan parte hartzeko beharrezkoak diren aldeetako bat den aldetik. Izan ere, informazioa behar bezala eskuratu ezin duen herritarrik gabe, oso zaila izango da –eta beharbada ezinezkoa– herri gaietan haien laguntza eskuratzea. Bestalde, gogoeta horren alde asko gainerako administrazioetara zabal daitezkeen arren, guk toki eremura zuzenduko dugu, toki araubidea arautzen duen araudiaren eta horri buruz jaso ditugun kexen ildotik.

Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute informazioa eskuratzeko. Azken batean, gero eta hobeto dakite zeintzuk diren beren eskubideak, eta horregatik, herri administrazioen eginkizunen gardentasun handiagoa eskatzen dute, bai berriazko prozedura batean interesdunak izanda zuzenean eragiten dieten erabakiei buruz, bai beren ustez eragiten dieten beste jarduera batzuei buruz.

Gainera, pertsonak gero eta maizago eskatzen dute informazio hori argia, garrantzitsua eta eskuratzeko erraza izan dadin. Hori dela eta, administrazioek uste osoz lan egin behar dute informazioaren kudeaketa eraginkorragoaren alde. Kudeaketa horrek herri erakundeetan nagusitu den ohiko opakutasuna desagerrarazi behar du, erakunde horiek herritarrek beren eskutan dauden informazioa eta dokumentazioa eskuratzea mugatu dutela.

Gero eta pertsona gehiagok dituzte eskura teknologia berriak, eta fenomeno horrek tresna horiek erabiltzeak informazioa lortu eta prozesatzeko eskaintzen dituen posibilitateei buruzko aukerak ugaritzen lagundu du neurri handian. Horren ondorioz, ezinbestekoa izan da baliabide horiek gehitzea, herritarrek informazioa jasotzeko dituzten bidezko asmoei erantzuteko.

Azken urteotan herri administrazioek inbertsio handiak egin dituzte teknologia berrietan. Inbertsio horiek aurrerapenak ekarri dituzte aurreko egoeraren aldean, zailtarik gabe, baina beharbada berrikuntza teknologikoan egindako ahalegin horiek ez dira behar bezalakoak izango, administrazio organoen funtzionamenduan benetako aldaketa dinamikarik, hau da, herritar guztiei zuzendutako zerbitzua den aldetik informazioa kudeatzeko jarduera osoko eredurik, ezarri ezean.

Bestalde, ezin dugu ahaztu teknologia berrien erabilera laguntza tresna dela, herritarren eskura dauden edukiak sortu eta ustiatzea ahalbidetzen duen baliabidea, hain zuzen ere. Hala ere, herritar horietako asko –batez ere talde handiak edo talde sozial zehatzak– teknologia horiek erabiltzetik baztertuta daude momentuz, eta horregatik kontuan hartu behar dira informazioaren kudeaketaren estrategia aktiboan.

Alde horretatik, alkateak eta tokiko eta eskualdeetako agintarien ordezkariak Bilbon bildu dira orain dela gutxi, eta Informazioaren Gizartea tokian-tokian garatzeko

ekintzetan jarraitu beharreko printzipio eta balioak adostu dituzte. Dekalogoaren IV. puntuak honakoa adierazten du:

*“Informazioaren Gizartearen garapenak herritar guzti-guztiei on egin behar die, inor baztertu gabe, eta arrail digitala saihestu behar du, arreta berezia eskainiz kolektiborik behartsuenei, ezgaituei eta tokirik isolatuenetan bizi direnei, batik bat, landa eremuetan eta ekonomikoki gutxien garatuta dauden esparruetan bizi direnei.”*

Jakin badakigu administrazio asko kezkatuta daudela hemen aipatutako kontuengatik beren erakundeetan gauzatzen ari diren aldaketa eta modernizazio prozesuen esparruan, zerbitzuen kudeaketa herritarrengatik eta herritarrentzat hobetzera bideratutako helburuak dituztela.

Testuinguru horretan, gomendio orokor honek ekarpen txiki bat gehiago izan nahi du abian dagoen prozesu horretan, toki administrazioetan dagoen informazioaren kudeaketan eta herritarrek horixe eskuratzeko duten eskubidean hausnartu beharreko gidalerro batzuei buruzko gogoeta, alegia.

### **Informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez toki araubidean indarrean dagoen araudiaren aipamen laburra**

Gaiaren arreta berariazko bi alde hauetan jarri nahi dugu:

- a) Administrazioak berak administrazio jarduerari buruz ematen duen informazioaren edukia.
- b) Prozedura batean zuzeneko interesduna ez den herritar batek informazioa eskuratzeko duen eskubidea.

#### **a) Administrazioaren informazio orokorraren edukia**

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen –TJOAL– 69. artikulua honakoa adierazten du: *“Toki korporazioek ahal den informazio gehiena emango dute beren jardueraz, eta bide emango dute herritar guztiek bertako bizitzan parte har dezaten”*.

Ez dago toki erakundeen betebeharrak bere osotasunean garatzen duen berariazko araudirik. Arauak –TJOALen 70.2 artikulua– adierazten du hartutako erabakiak Legearen arabera argitaratu edo jakinarazten direla, eta berariaz aipatzen du ordenantzak –hirigintza-arauak barne– eta aurrekontua Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharra. Arloko beste arau batzuek –esate baterako, kontrataziokoak eta plangintzakoak– horri buruzko lege betebeharrak zehazten dituzte, gehienetan bidezko espediente bideratzeari buruzko publizitate formal laburra ematera mugatzen direnak.

Iturrien sisteman espero liteke hainbat alditan iragarritako Euskadiko Udalei buruzko Legeak hutsune hori betetzea; lege horrek zuzenbidearen gutxieneko eduki batzuk ezarri

eta informazioaren printzipio edo balioak, herritarrei ezinbestean eman behar zaizkienak haien eskubide eta askatasunak burutzea bermatzeko, zehatz litzake.

Toki Erakundeen Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak –AFA–, azaroaren 28ko 2568/1986 EDk onetsitakoak, udal organoen jarduera orokorrari buruzko gutxieneko publizitate betebeharrak ezartzen ditu 229. artikuluan. Horrela, Udalaren osoko bilkuraren deialdiak eta eguneko aztergaien zerrendak herriko komunikabide sozialetara bidaliko direla eta udalbatzako iragarki-oholean argitaratuko direla adierazten du. Gainera, Udalaren osoko bilkuraren eta Gobernu Batzordearen bileren edukien eta erabaki guztien publizitate laburtua eman beharko da, baita alkatearen ebazpen eta horrek eskuordetuta zinegotzi eskuordetuek ematen dituzten ebazpenena ere.

Bestalde, AFAREN 230. artikulua adierazten du administrazio erakundeetan Informazio Bulego bat egongo dela, Udalaren osoko bilkuraren bileren deialdi eta eguneko aztergaien zerrenden publizitateari buruzko jarduera osoa ez ezik, administrazio erakundeak emandako gainerako informazioa ere bideratuko duena, TJOALen 69.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, toki gobernua eguneratzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gai honi lotutako bi konturi buruz egin dituen aurreikuspenak aipatu behar dira: herritarrek udal bizitzan parte hartzea eta teknologia berrien erabilera sustatzea. Aipatutako Legeak 7/1985 Legean sartutako 70 bis artikulua berriak ondokoa adierazten du 1. atalean:

*“Udalek herritarrek tokiko bizitza publikoko gaitan eraginkortasunez parte hartzeko egokiak diren prozedurak eta organoak ezarri eta arautu beharko dituzte arau organikoetan, bai udalerrri osoaren eremuan, bai barrutien eremuan, udalerrian aipatutako lurralde banaketak egotekotan.”*

Bestalde, 3. atalak ondokoa adierazten du:

*“Halaber, toki erakundeek eta bereziki udalek informazio eta komunikazioaren teknologien erabilera elkarrengile sustatu beharko dute, herritarrek parte hartu eta horiekin komunikatzea errazteko, dokumentuak aurkezteko, eta administrazio izapideak, inkestak, eta hala denean, herritarrentzako kontsultak egiteko.”*

**b) Interesduna ez den herritar batek informazioa eskuratzeko duen eskubidea.**

Hausnartu beharreko gaiaren beste alde bat herritar batek informazioa eskuratzeko ekimena egiten duenean da, herritar hori prozedura bateko interesduna ez dela eta bere interesak kezka orokorrari edo sozialari erantzuten diola.

Mota horretako informazio eskaera aurreko atalari estu lotuta dago, Administrazioaren ezagutzak eta bere jarduerak ariketa hori ahalbidetu, bultzatu edo hala denean, eragotziko du eta. Aldi berean, eskaera horrek funtsezko zeregina du, herritarrek jarduera publikoan parte hartzeko duten eskubidea eraginkortasunez gauzatzeko tresna gisa.

TJOALen 70.3 artikulua ondokoa xehatzen du:

*“Herritar guztiek toki erakundeen erabakien eta aurrekarien kopiak eta egiaztagiriak eskuratzeko eskubidea daukate, baita artxiboek eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea ere, Konstituzioaren 105. artikulua b) paragrafoa garatzen duen legediak xedatzen duen bezala. Estatuaren segurtasun eta defentsari, delituen miaketari edo pertsonen intimitateari eragiteagatik eskubide hori ukatu edo mugatzen bada, zirkunstantzia horiek ebazpen arrazoituaren bidez egiaztatuta beharko dira.”*

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –HAAJL– 37. artikulua gai hori arautzen du herri administrazio guztietarako, oro har.

Horrela, HAAJLren 37. artikulua 1. atalak adierazten du espediente baten zati izanda artxiboatik dauden erregistroak eta dokumentuak eskuratzeko eskubidea izango dutela herritarrek, betiere aipatutako espedienteak prozedura itxiei badagozkie.

Bestalde, artikulua 7. atalak xedatzen du partikularrek eskuratzeko eskubidea burutuko dutela, herri zerbitzuen funtzionamendua eraginkortasunari eragin gabe. Hori dela eta, eskaera kontsultatu nahi diren dokumentuetara mugatu beharko da, arlo bati edo arlo multzo bati buruzko eskaera orokorrik egin ezin izango dela, hautaz hausnartzeko izan ezean.

### **Informazioa jasotzeko eskubidea burutzea: muga formalak eta izatezko murrizketak**

Aurreko atalean aipatu dugun toki araubideko araudia oso laburra da, egia esan. TJOALen 69.1 artikulua egiten duen adierazpen formalak gorabehera, lege betebeharrak urriak dira arlo horretan, eta nahiz eta ezarritako ebazpenak bete, herritarrek Toki Erakundeek garatzen duten jardueraren gutxi gorabeherako ideia bat eta hurbileko administrazioaren egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza baino ez dituzte izango.

Gutxienekoen araudi hori gorabehera, jaso ditugun kexa batzuen bidez egiaztatuta dugu zenbait udalek beren udal organoen jardueraren berri eman beharra sistematikoki betetzen ez dutela; ez dute beren deialdien eta hartutako ebazpenen berri ematen, eta ez dute ediktu-ohol ofizialetan horrelakorik argitaratzen. Horren ondorioz, herritarrek ez dakite ezer beraiei eragiten dieten erabaki eta ebazpenez.

Oinarrizko betebeharrak horiek ez betetzea oso larria da, herritarrei udalerriari buruzko herri gaitan parte hartzeko ezinbestekoa den tresna galarazten delako eta jardura publikoa parte-hartzearen goranzko eskaerarekin bat ez datorren moduan ulertzen dela adierazten delako. Horri herritarrek udal eskumen eta zerbitzuen berri ez izatea, euren artean loturarik ez duten atal hermetikoetan bereizita dagoen udal antolamendua gaineko ulermenik eza eta prozedura administratiboan nahaspila gehitzen bazaizkio, informazioa eskuratzeko zailtasunak izugarriak izan daitezke.

Gainera, Administrazioak bere taldeko organoen deialdi eta erabakiei buruzko informazioa berez ematen ez duenean, dokumentazioa eskuratu edo gai edo arlo baten izapidetzea zertan dagoen jakin nahi duen herritar interesdunak zailtasun handiak ditu hori lortzeko. Izan ere, mota guztietako lege aukerak –eta batzuetan arrazoirik gabeko

isiltasuna– erabili ohi dira, informazioa emateko ukoa arrazoitzeko, nahiz eta eskaera ukatzen denean legez erantzun arrazoitua eman behar den.

Era berean, askotan pertsona batek espediente edo interes orokorreko informazio bat eskuratzea lortzen duenean, espediente edo informazio hori ez dago behar bezala dokumentatuta gaia bere osotasunean baloratzeko aukera ematen duen azterketa osorik egiteko, partikularra babesik gabe utziz.

Hainbat egilek adierazi duten bezala, egia da hemen aipatu dugun artxibo eta erregistroak eskuratzeko eskubidearen lege araudia murriztailegia izan daitekeela –espediente itxiak, eskaera mugatua, interesduna izan behar izatea zenbait espediente eskuratzeko, ...-; muga horiek justifikatzen dira konstituzioaren bidez bermatuta dauden beste eskubide batzuk ere –hala nola, datu pertsonalen babesa edo intimitaterako eskubidea- kontuan hartu behar direlako.

Nolanahi ere, hemen ondokoa adieraztea interesatzen zaigu: lege araudi zuzena edo okerra eta besteen eskubidea bermatzeko beharrezko mugak alde batera utzita, mota horretako eskaera bat jasotzen duen administrazioak hausnartu beharko luke eskaera horri nola erantzun modu positiboan, hau da, abiapuntua informazioa herritarren eskubidea dela eta guztien eskura dagoen benetakoa herri zerbitzua dela izan beharko litzateke.

Egiten diren eskaeren murrizketek neurri handiagoan erantzuten diote arrazoi ezberdinengatik publikoak izan behar ez diren zenbait jarduerari buruzko informazioa lapurtzearen beldurrari, babestu behar diren eta arriskuan dauden beste interes batzuk egoteagatiko kezkarri baino. Hona hemen aipatutako arrazoi horietako batzuk: ekintzen azalpenik eman behar ez izatea, kritikarik ez jasotzea, legez kontrako jardueren berri ez ematea, etab., hau da, administrazio jardueraren gardentasunik eza.

Gainera, askotan horrelako jarrerak agertzeko arrazoiak anitzak dira: informazioaren gaia berezia izatea eta horren gaineko aginduak edo arauak egotea, erakundearen beraren alferkeria... Gogora dezagun administrazioaren dokumentazioaren opakotasuna eta hori eskuratzeko murrizketa bultzatu direla, eta horren ondorioz, gai horretan berariaz eta herritarrengatiko eta herritarrentzako zerbitzuaren benetako orientabideaz sakondu ezean, nekez gertatuko da behar den aldaketa.

M. A. Sendín García<sup>13</sup> honakoa adierazi du, beste egile batzuen hitzak aipatuta: *“En realidad, para que el derecho de acceso tenga una operatividad real y adecuada, no basta con una simple mejora de la errónea regulación del mismo que vamos a estudiar, sino que se hace preciso, además, una transformación radical del proceder administrativo, que le haga más acorde con las exigencias del principio de transparencia. Lo que exige, entre otras cosas, reforzar y clarificar la obligación de documentar suficientemente e incorporar a los archivos la información documentada que sea de interés público”*.

Hitzaurrean aipatu dugun “Bilboko dekalogoan” ere gai hori aipatzen da, eta honakoa (VII. puntua) hartzen du toki ekintzaren gidari: *“Tokiko eta eskualdeetako gaien kudeaketan gardentasuna sustatuko da eta herritarren partaidetza indartuko da”*.

<sup>13</sup> “El derecho de acceso a los documentos administrativos: un instrumento esencial para la participación ciudadana”, in REALA, 294.-295. orr. (2004ko urtarrila-abuztua).

## Nola antolatu informaziorako eskubidea

Testuinguru horretan, uste dugu toki administrazioek informazio osoko zerbitzu bat diseinatu eta ezartzen aurrera egin behar dutela, erakunde osorako gidaria den politika koherentea izanda eta horretarako eskura dituzten tresna guztiak erabilia. Politika horrek informaziorako eskubidea eraginkorra izan eta herritarren arazoizko eskaerari erantzuteko bidea eman behar du.

Hitzazurrean aipatzen genuen bezala, zenbait administrazio bide hori jorratzen ari dira beren erakundeak aldatu eta modernizatzeko prozesu orokorraren barnean, informazioa eskuratzeko zein emateko estrategia eraginkorrak agertuta.

Hala ere, oraindik ere udal askok gabezia handiak dituzte ezarritako lege gutxienekoak betetzeko eta sistema propioetan sakondu eta horiek garatzeko. Askotan kontua ez da baliabide tekniko edo material gehiago izatea, baizik eta borondate politikoa egotea, administrazio zabala eta gardena lortzeko asmoz erakundearen ahalmen osoa sustatzeko dauden baliabideen bidez.

Uste dugu ezarritako lege gutxienekoetatik abiatuta eta haiek eraginkortasunez beteko direla bermatuta, udalek gai horri buruzko gogoeta egin eta horretan sakondu beharko luketela, autoantolaketa eta autonomiako ahalmenak erabilia, eta oinarritzko eduki batzuekiko konpromisoak hartu beharko lituzketela. Hona hemen eduki horietako batzuk:

- Egokia eta edozein herritarrentzako ulergarria den udalerrri eta antolaketari buruzko informazioa.
- Garatzen dituen jardueri buruzko informazioa, bere gobernu organoen deialdiak eta ebazpenak bereziki aipatuta.
- Jendaurreko eta partaidetzako epeak legez ezarrita dituzten interes orokorreko proiektu handien berariazko informazioa, proiektuok sortzen diren unetik bertatik: aurrekontuak, obrak, inbertsioak, plangintza...
- Ordenantza eta araudiei buruzko informazioa, oro har aplikatu beharreko hiri-gintza-arauak barne.
- Prozedura administratiboei eta udal zerbitzuei buruzko informazioa.

Bestalde, informazio hori guztia erakunde bakoitzean erabilgarri dauden baliabide ezberdinen bidez eskuragarria izan beharko litzateke. Une honetan ezin da ukatu teknologia berriek eginkizun garrantzitsua betetzen dutela informazioa eskuratzeko errazteko tresna eraginkor gisa. Tresna horien ezarpena erritmo bizian dabil, oraindik ere kasu askotan eremu horretako ekimenen irteerak eskaintzen diren edukiak finkatu, sakondu eta egokitzeko bultzada handiak behar baditu ere.

Alde horretatik, udal gehienek webgunea<sup>14</sup> dutela egiaztatu dugu; hala ere, erabilgarri dagoen informazioaren edukia oso ezberdina da, eta oraindik oso gutxi dira tresna berri hori izanda, beren ohiko jarduera ezagutarazteko baliabide gisa sistematikoki erabiltzen dutenak. Esate baterako, normalean webgunea ez da erakundeen “ediktu-ohol elektronikoa”.

<sup>14</sup> Gipuzkoako 2004ko Planaren memoriaren datuen arabera, Gipuzkoako biztanleen % 94 barne hartzen dituzten 88 udaletako 81ek webgunea zeukaten ekitaldi horretan.

Gaur egun, gero eta pertsona gehiago sar daitezke Interneten etxetik<sup>15</sup> edo leku publikoetatik –kultur etxeak, balio anitzeko gelak, ...–, eta horren ondorioz, argi dago baliabide hori sustatzea oso erabilgarria izango dela tresna horren bidez informazioa eskuratu nahi duten herritarrentzat.

Dena den, ezin dugu ahaztu gaur egun oraindik herritar askok ezin dutela eskuratu informazioaren teknologiarik; hori dela eta, informazioa eskuratzeko ohiko bideei eutsi eta bultzatu beharko dira. Udalerri txiki askotan auzoetako iragarki-oholak beti izan dira garrantzitsuak, iragarki ofizial interesgarriak ezagutarazteko (euskarri hori eguneratu edo erabiltzen ez dela esaten duten hainbat kexa jaso ditugu). Hala eta guztiz ere, udalerrri gehienetan gaur egun badaude zenbait ekipamendu –kultur etxeak, balio anitzeko zentroak, zahar etxeak, ...–, herritar gehiagok udal jarduerari buruzko informazioa errazago eskuratuko dutela gune horietan.

Nolanahi ere, adierazitako baliabideek ezin dute alde batera utzi Herritarren Arretarako Bulegoen edo antzeko egituren bidez udaletxeetan ematen den zuzeneko arretaren garrantzia, Administrazioaren atal ezberdinetan eska daitekeen informazio zehatzagoa ahaztu gabe. Beraz, oso garrantzitsua da gidalerro argi batzuk ezartzea, eskaerei erantzuteko eta zerbitzu hori ahalik eta baldintza onenetan eskaintzeko erakundeetan dauden erresistentziak eta gogogabetasunak ezabatuko dituztenak, erabilitako baliabidearen edo eskaera zehatz bati erantzuten dion langilearen arabera bereizkeriarik gabe.

Amaitzeko, informazio zerbitzu osoa emateko, nahitaezkoa da ezarritako prozedura administratiboen eta izapideen hobekuntzan sakontzea, informazio osoa eskuratzeko zati eta eragozten duten atalkako banaketa arruntak deseginez kudeaketa herritarren beharrezanetara bideratzeko moduan.

Toki araubideko Legearen aldaketa berriak herritarren benetako parte-hartzerako arau organikoak arautu beharra ezartzen du. Laburbilduz, aldaketa horren testuinguruan uste dugu herritarrentzako informazioaren atalak arreta eta garapen bereziak izan behar dituela, guztiok toki bizitzan aktiboki parte hartzea lortzeko ezinbesteko elementuetako bat den aldetik.

## GOMENDIOA

Azaldutako iritziak kontuan hartuta, uste dugu udalek beren erakundeetako informazio politikari buruzko gogoeta sakona egin, eta horren ondoren, informazio zerbitzua osorik arautu beharko luketela, hurrengo irizpideetan oinarrituta:

- Udal jarduera inspiratzen duten printzipioak eta balioak, eta informaziorako eskubidea bermatzen duten antolaketa gidalerroak eranstea, herritarrentzako zerbitzuaren benetako izaera duen administrazio gardenagoa eta eraginkorragoa lortzeko testuinguruaren barnean.

<sup>15</sup> Etxeetako informazio eta komunikazioaren teknologien ekipamendu eta erabilerari buruzko 2005eko II. hiruhilekoko inkestaren arabera –iturria: EIN–, Euskal Autonomia Erkidegoko etxean % 40,8k Interneterako sarbidea daukate.



- Lege gutxienekoetan ez ezik, udalak berak bultzatu nahi dituen edukietan ere sakontzea, herritarren beharizanetara bideratutako informazioaren hobekuntza azpimarratuta.
- Informazioa interesdun guztiei helarazteko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea, zailtasun gehien dituzten talde sozialetara heltzeko estrategiak bereziki aipatuta.

## 6. ERAIKUNTZA IRAUNKORRA. ERAIKINEN ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIAGORANTZ

### SARRERA

Agintaritza publikoen eta herritarren ardura nagusietako bat da ingurumena. Gure erkidegoan, laurogeita hamarrek hamarkadaren amaieratik, dibertsitatearen galerari aurre egiten saiatzen da Eusko Jaurlaritzak proposatutako ingurumen-estrategia, baita lur, ur eta airearen kutsadurari ere. Gainera, hurrengo belaunaldiei errespetua erakusten dien garapenaren alde egiten du, mugatuta dauden baliabide naturalak indarrez ebas-tea eragotziko duen garapenaren alde, alegia. Kontuan hartu behar den ingurumen-adierazleetako bat energiaren kontsumoa da, ez soilik industrian edo garraioan, baizik eta etxeetan eta dauden gainerako eraikinetan edo eraikiko direnetan ere. Etxebizitzetako kontsumo horrek ez du garrantzi gutxi; izan ere, Europar Batasunean, energiaren kontsumo osoaren % 40 osatzen du. EAEn ez dira parametro horiek lortzen –% 18 ingurukoa da kontsumoa hemen–, baina antzeko egoera batera heldu gaitetze, eraikinetako instalazio modernoen ondorioz (zerbitzu berriekin, esaterako, klimatizagailua edo aire girotua) eta kontsumoa gorantz egiten ari delako zalantza izpirik gabe. Baliabide fosil naturalak laster amaituko direla dioen hipotesiaren alde egiten du energiaren neurrigabeko gastuak. Horrez gain, atmosferarako isurtze kutsatzaileen kopuru handia dakar eta, bereziki, berotegi efektua sortzen duten gasena. Horrek modu lauso baina etengabe eragiten du gaur egun jasaten dugun klima-aldaketan. EAeko ingurumenari buruzko txostenean –2005eko ingurumen adierazleak–, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak adierazi du 20,4 milioi tona CO<sub>2</sub> isuri zirela EAEn 2004. urtean, hau da, aurreko urtean baino % 5 gehiago eta 1990ean baino % 35 gehiago.

Ingurumenean eragina duten arren, giza prozesu horiek ez dute izan isla argirik lurralde antolamenduko eta eraikuntzako arautegian, duela gutxi “ingurumen kontzientziaren” gaineko ideiak agertu diren arte. Horren nazioarteko ereduak izan ziren 1972ko giza inguruneari buruzko Nazio Batuen Stockholmeko Biltzarra eta 1992ko ingurumenari eta garapenari buruzko Rioko Adierazpena. Garapen iraunkorraren kontzeptua sortu zen adierazpen horretan, etorkizuneko belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe gaur egungo premiak betetzen dituen garapena adierazteko.

Gauzak horrela, eraikinek ingurumenean duten eragina arintzen saiatzeko eta energia-gastua gutxitu eta haren eraginkortasuna handitzeko, ikusi genuen agintaritza publikoek –Europakoek, estatukoek, autonomia erkidegokoek eta udalerrietakoek– tresna batzuk, arauak eta xedapenak, jaso dituztela, eraikuntzako eragileen gida izan daitezten. Tresna horiek eraikuntza iraunkorrek irizpideak aplikatzeko sortu dira, kontsumitutako energia gutxitzeko, bestelako energia berriztagarriak bilatuta, esaterako, eguzki-energia, edo kontsumitutako baliabideak eraginkorrago egiten dituzten eraikitze moduak erabilita. Bestalde, badaude lursailetan eraikitze teknika tradizionalen adibideak, eraikinaren eguzki-orientazioari edo lehen mailako energia-iturriak berriro erabiltzeari garrantzia ematen diotenak. Horren adibidea da baserri tradizionala. Era berean, hiri-kokalekuen eredia aipatu behar da, esaterako, Mediterraneoko hiriena; izan ere, trinkoak eta konpaktuak direnez, bestelako kokaleku barreatuek baino baliabide gutxiago kontsumitzen dituzte.

Hala ere, sektore horretan gizarte-kontzientzia handia sortu bada ere, egin diren aurrerapenak zenbait errealitatei aurre egin behar diete, esaterako, lehendik zeuden eraikinei. Askotan, ingurumena eta baliabide naturalak babesteko proposamen berriak baino lehenagoko arkitekturaren ikuskeratik egin dira eraikin horiek. Horren ondorioz, energia-kontsumoak gora egiteko joera etorri da, eta gaur egun dauden etxebizitzetako energiaren erabilerako eta hiri-hondakinen ekoizpeneko zifrek ez dute parekorik historian.

Beste batzuetan, hirigintza-plangintzako arauak berak edo eraikitzeako udal ordenantzak muga bihurtzen dira, eta sustatzaile partikularrei eraikitzeako modu berri horiek eraikuntza-proiektuetan jasotzea eragozten diete, ingurumenerako egokiagoak badira ere. Edozelan ere, eraikuntzan garapen iraunkorarekin lotutako faktore bat txertatzeak premia berriak bultzatzeko balio dezake, esate baterako, hiri-hondakin solidoak gutxitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko beharretara egokitzea eraikinen espazio komunak.

Horren guztiaren ondorioz, lehen iritzia eman dezakegu. Orain arte gai honetan aurrerapen ukaezinak egon diren arren, beharrezkoa da baliabideen kontsumoa eta isurpen kutsatzaileak gutxitzeko lanean jarraitzea.

## EGOERAREN AZTERKETA

Arauetan egon diren aurrerapen nagusiei dagokienez, Europako esparru horretan eraikinen energia-eraginkortasuna bultzatzeko beharra erakusten du Europar Batasunaren jarduerak, eta ingurumena babestetik eratorzen diren politikek eta jarduerak ere –Europako Erkidegoa eratzen duen Itunaren 6. artikuluan ezarritakoak– .

Ekimen horien ondorioz, 2002ko abenduaren 16ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2002/91/CE Zuzentarauak, eraikinen energia-errendimenduari buruzkoak, ezartzen du esparru bateratu bat beharrezkoa dela, eraikinen energia-errendimendua hobetu dadin bultzatzeko. Horretarako, kontuan hartu beharko dira kanpoaldeko klima eta berezitasun lokalak, baita barruko ingurumen-baldintzak eta kostu ekonomikoak ere. Aurreikusten dituen neurriak honakoak dira, besteak beste: energia-eraginkortasuneko gutxieneko baldintza batzuk bermatzea 1000 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera erabilgarria duten eraikin berrietan edo berrikuntza handia izango duten lehendik dauden eraikinetan. Bestalde, eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagiria sortu du. Zuzentaru hori barne-zuzenbidean jasotzeko epea 2006ko urtarrilaren 4an amaitu zen, zuzentaruak dioenaren arabera, baina egun horretan ez zegoen prestatuta garapeneko arautegirik barne-zuzenbidean.

Estatuan, arau nagusia azaroaren 5eko 38/1999 Legea da, eraikuntza antolatzeari buruzkoa. Besteak beste, lege horrek aurreikusten du ingurumena babestuta eraiki eta mantendu daitezela eraikinak. Horretarako, 3.1.c artikuluan zehazten diren bizigarritasunari buruzko zenbait baldintza bete behar ditu:

*“c.1) Higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa, onartu daitezkeen osasungarritasun eta iragazgaiztasuneko baldintzak lortzeko eraikinen barruko giroan, eta eraikinak ingurumena ez kaltetzea hurbileko ingurunean, horretarako hondakin guztien kudeaketa egokia bermatuta.*

*c.2) Zarataren kontrako babesa, jasotzen den zaratak pertsonen osasuna arriskuan jarri ez dezan eta pertsona horiek jarduerak behar den bezala egin ditzaten.*

*C3) Energia aurreztea eta isolamendu termikoa, eraikina era egokian erabiltzeko beharrezkoa den energiaren erabilera arrazionala lortzeko.*

Europako eta estatuko arauetan erreferentzia horiek dauden arren, arkitektura bioklimatiko eta iraunkorrerako oinarritzko eskaerak –eraikinetan eta instalazioetan nolabaiteko energia-eraginkortasuna eskatuko duena– zehazteke daude oraindik, Eraikuntzaren Kode Tekniko bat egin arte. Tresna arau-emaila hori estatuko gobernuek onartu behar du, eraikuntza antolatzeari buruzko legeko azken xedapenetatik bigarrenaren arabera. Orain arte ez da onartu, proiektu oso aurreratu bat Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko zain dagoen arren. Proiektu horrek energia aurrezteko oinarritzko zenbait neurri ezartzen ditu, energia-eskaria mugatu dadin ahalbidetzeko eta, edozelan ere, eraikineko instalazioen energia-eraginkortasuna bultzatzeko. Ur bero sanitarioaren aurreikuspena duten eraikin berriek edo asko berri diren eraikinek eskari horrek sortzen dituen energia-premien zati bat nahitaez bete behar izatea da ekarpenik berritzaileena, eguzki-energia biltzeko, metatzeko eta erabiltzeko sistemen bitartez. Eguzki-energia biltzeko eta energia elektriko bihurtzeko sistema fotovoltaiakoak jartzea ere arautzen du Eraikuntzaren Kode Teknikoak, norberak erabiltzeko zein sare elektrikoan isurtzeko. Ondorio nagusia da geure autonomia erkidegoan instalatuta dauden eguzki-plaken metro koadroen beharrezko gorakada ekarriko duela kode hori indarrean jartzeak, eta horrek energia aurreztea eta kutsadura murriztea eragingo duela.

Indarrean sartu arte, aplikatu behar den eraikinen araudi teknikoa eraikuntzari buruzko oinarritzko arauak aurreikusitakoak da, baita nahitaez bete beharreko gainerako araudi teknikoek aurreikusitakoak ere, besteak beste, 1751/1998 Errege Dekretuak, hau da, eraikinetako instalazio termikoei buruzko araudia onartzen duen Errege Dekretuak. Eraikinetako instalazio termikoei bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu araudi horrek, energiaren erabilera arrazionala lortzeko helburuarekin. Horretarako, kontuan hartzen ditu ekonomiarekin zein ingurumenaren babesarekin lotutako alderdiak eta, aldi berean, eraikinetan bete behar diren gainerako oinarritzko baldintzak ere; hori guztia ekonomiaren aldetik arrazoizkoa den epe batean.

Eraikitzeko arau tekniko horiek arautegi propioan ezarritako eskakizunekin bete daitezke, eskumena duten organoek gure autonomia erkidegoan egin zuten arautegiko eskakizunekin hain zuzen. Eraikuntzaren kode teknikoaren eta eraikinetako instalazio termikoei buruzko araudiaren eskakizunetatik sortutako balioak gutxienez jotzen dira, eta ez dute eraginik tokiko administrazio eskudunek sustatu ditzaketan bestelako asmo handiagoko balioetan, beren lurralde-esparruko ezaugarri propioei erantzuteko sustatu ditzakeenetan, alegia.

Erkidegoen esparrura bagatoz, egoitzetarako edo zerbitzuetarako eraikinetan energia-eraginkortasuneko edo eraikuntza bioklimatikoko irizpideak zuzenean ezartzen dituen araurik ez dago gure autonomia erkidegoan. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2003ko urriaren 22ko aginduaren eranskinean agertzen da energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagiriari egin zaion aipamen bakarra. Agindu horren bitartez Eraikineko Liburua osatzen duten dokumentuen ereduak onartu ziren. Bestalde, hotel-establezimenduak antolatzeari buruzko maiatzaren 29ko 102/2000 Dekretuak jasotzen duenez, hiru izar edo gehiago dituzten hotel-establezimenduek energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagiria eduki behar dute, Energiaren Euskal Erakundeak

eginda. Autonomia erkidegoren batek, Kataluniakoak adibidez, eraikinetako ingurumen eta ekoeraginkortasun irizpideak hartzea arautu du orain dela gutxi (Kataluniako Generalitatearen 21/2006 Dekretua, otsailaren 14koa. Komeni da nabarmentzea Lurzoruaren eta Hirigintzaren Lege-proiektuak eskumena ematen diela udalei eraikuntzari buruzko ordenantzen bitartez energia-eraginkortasuneko, isurpen kutsatzaileak gutxitzeko eta arkitektura bioklimatikoko irizpideak ezartzeko. Lege horrek tramitazio-fasean jarraitzen du, legebiltzarrean.

Nolanahi ere, udalei dagokie udalerriko eraikuntzen baldintzak arautzea, hirigintza-plangintzaren bitartez –1976ko Lurzoruaren Legeko Testu Bategineko 12.1 artikulua–. Hori dela-eta, tokiko erakunde horiek dute eraikitze lanetan energia aurrezteko eta iturri berriztagarriak erabiltzeko irizpide horiek jasotzeko ardura.

Hala ere, orain arte, gure autonomia erkidegoan, udal plangintzako tresna batzuek baino ez dute ezarri honakoa aipatzen duen xedapen orokor bat: eraikitze arauetan energia era arrazionalizatuan erabiltzeko edo ingurumena errespetatzen duten materialak erabiltzeko printzipioak. Horren adibidea da Gasteizko Udaleko Eraikitze Arau Orokorren 5.01.61 artikulua.

Halaber, ez da ikusi EAEko udalerrri batek ere neurri aktiboak hartu dituenik orain arte eraikuntza berrietan betebeharrak zehatzak ezartzeko. Neurri horien artean, estatuko beste udalerrri batzuetan egin diren ekimenak nabarmendu behar ditugu, eguzki-panelen ordenantza ezagunak onartu baitituzte, esate baterako, Bartzelonan edo Iruñean. Ordenantza horiek ezartzen dute eguzki-energia bildu eta erabiltzeko sistemak jarri behar direla ur bero sanitarioa ekoizteko, eraikin berrietan edo eraikinetan goitik behera berritzen direnean.

Arlo horretako udal-eskumenak erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu behar da. Eskakizun horiek zuzenean aplikatu ahal izango dira aipatutako Europako zuzentarauaren transposizioaren ostean. Hori alde batera utzita, eraikuntzaren kode teknikoaren indarrean sartuko denean, udalek beste tresna bat izango dute, hau da, ordenantza lokalak izango dituzte, udalerrien artean egon daitezkeen ezberdintasunak behar den bezala modulatzeko, energia-eskariaren eta klima- eta hirigintza-egoera propioaren aldetik. Horregatik, oso interesgarria iruditzen zaigu gure autonomia erkidegoan udal antolamenduko tresna horiek garatzea, estatuko arautegian edo autonomikoan aurreikusitako eskakizunetara egokitzeko, udalerrri bakoitzaren ezaugarriekin proportzionalagoa izango den eran.

\* \* \*

Hiru faktore ezberdin gogoan hartuta pentsatu du Eusko Jaurlaritzak eraikuntza iraunkorrean esku hartzeko beharra, hain zuzen ere, energia, ingurumena eta etxebizitza publikoa.

- Eusko Jaurlaritzak ezarritako Euskadiko Energia Estrategia 2010era begira dago, eta haren helburua energia-garapen iraunkorra lortzea da, energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarriak bultzatzean oinarrituta. Lehentasuna duen ildoetako bat energia-ziurtagiriak egiteko sistemak zabaltzea da, eraikin berrietan zein euskal administrazioaren instalazioetan. Horrez gain, eraikinetan eguzki-kolektoreak jartzea pentsatzen da epe labur edo ertainerako, eta sistema

fitovoltaiakoak epe ertain edo luzerako. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak berak darama eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko indarrean dagoen sistema. Orain arte, CADEM/EEE da eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagiriak egiteaz arduratzen den erakunde publikoa, etxebizitzaren zein zerbitzuen sektorean. Eraginkortasuneko eta beharrezko energia aurrezteko neurri batzuk betetzen dituzten eraikinei onarpena erakustea da ziurtagiri horren helburua. Energia hori berokuntzarako edo ur bero sanitarioa ekoizteko da beharrezkoa batez ere. Gaur egun, ziurtagiria lortzeko prozedura boluntarioa da, eta eraikinen sustatzaileak zuzenean eskatu behar dio erakunde horri prozedura hasteko.

- Bestalde, etxebizitzaren sektoreari begiratzen dio Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak, ingurumen-presio handienetakoa egiten duen sektoreetako bat delako. Energiaren kontsumoa murrizten lagunduko duten eta ingurumena kutsatzea eragotziko duten politiken beharra proposatzen da, bai eta hondakinak ekoiztea zein lurzorua hirigintza-garapen berrietarako erabiltzea gutxituko dutenak ere. Horretarako, energia-eraginkortasunarekin eta arkitektura iraunkorarekin lotutako konpromisoak ezarri dira eraikuntzaren sektorean. Jaurlaritzak adierazi duenez, 2004. urtetik aurrera, administrazioaren eraikin berriek eta sustapen publikoko etxebizitza guztiek izan beharko dituzte energia-eraginkortasuna bermatzen duten ziurtagiriak, eta, 2006. urtetik aurrera, eraikin publikoek arkitektura bioklimatikoko irizpideak bete beharko dituzte. Halaber, 2006a baino lehenago, erregulazio teknikoa egon beharko litzateke eguzki-energia termikoa erabiltzeko eraikin berrietako ur bero sanitarioaren ekoizpenean. EAEko 2005eko ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenak dio konpromiso horiek oso aurreratuak daudela. *Etxebizitzarako eraikuntza iraunkorreko gida* aipatu behar da orain, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailen artean egin dutena. Hirigintzaren antolakuntzari, eraikinen sustatzaileei eta eraikitzaileei eta eraikinak erabiliko dituztenei aplikatu dakizkiekeen jokabide onen zerrenda luzea du gida horrek. *Energia iraunkortasunari buruzko udal gida* da udalei zuzendutako beste tresna bat, EEEK eta EUDELek prestatutakoa. Gida horrek udaletan eragina duten ekimen batzuk proposatzen ditu, eraikinetan energia modu arrazionalen erabiltzeko; esate baterako, eguzki-energia termikoa biltzera zuzendutako udal ordenantzak onartzea proposatzen du.
- Amaitzeko, 2002-2005erako Etxebizitza Plan Zuzentzaileari begiratuko diogu. Plan horren jarduera-ildoak eraikuntzaren kalitatea eta iraunkortasuna da. Hauxe aipatzen du energia-eraginkortasuneko irizpideak sustatzeko neurrietan, besteak beste: *“Eusko Jaurlaritzak EAEn eraikiko diren eraikin guztietara, publikoetara zein pribatuetara, zabalduko du energia aurrezteko eskakizuna. Eraikinen % 100ek energia-eraginkortasuna bermatzen duen ziurtagiria eskuratzea nahi da”*. Eraikin berrietan arkitektura bioklimatikoa garatzea ere proposatzen zuen, eraikinetan eguzki-energia termikoa erabiltzeko sistemak jartzearen bitartez, ur bero sanitarioa ekoizteko, eta eraikitzeko material eta sistema jakin batzuk erabiltzearen bidez. Sailak berak emandako informazioaren arabera, hori zein mailatan betetzen den jakiteari dagokionez, sustapen publikoko edo itunduko babes ofizialeko etxebizitza ia guztietan ziurtatzen da energia-eraginkortasuna.

Era berean, sustapen horietan kontuan hartzen dira energia aurrezteko neurriak, etxebizitzaren diseinuan eta orientazioan. Horrez gain, eguzki-energia biltzeko kolektoreak jartzea bultzatzen da ur bero sanitarioa eskuratzeko, betiere errendimendua egokia bada aurreikusitako estalkiaren arabera.

Amaitzeko, gai horrekin lotuta, legez besteko proposamen bat onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, 2002ko otsailaren 28an. Proposamen horretan, energia-eraginkortasunari, energia berriztagarriak eraikuntzan erabiltzeari eta eraikinak berritzeari buruzko neurri batzuk hartzeko eskatu zitzaion Gobernuari. Neurri horien artean nabarmentzen zen eraikuntzari buruzko lege-proiektu bat aurkeztea 2004ko martxoa baino lehen. Proiektu horretan eraikin berrietarako eta eraikinak berritzeko proiektuetarako energia-ziurtagiriak sartuko ziren.

## ONDORIOAK

Euskal administrazioek hainbat jarduera egin dituzte gai horren inguruan, eta positiboak izan dira, baina oraindik urrats asko egin behar dituzte edo hartutako konpromisoak ere bete behar dituzte. Aurrerapen nagusiak modu boluntarioan edo administrazioak bultzatuta egin dira, administrazioek berek eraikitako edo kontratatutako eraikin publikoetan, edo sustapen publiko edo itunduko babes ofizialeko etxebizitzetan. Hala ere, ez dago eraikuntza antolatzeari buruzko legearen aginduak garatuko dituen estatuko eta autonomia erkidegoko esparru arau-mailerik, eraikuntzaren kode teknikoa onartu arte. Horren ondorioz, ezin izan da zabaldu eraikin guztietara eraginkortasuna bermatzeko ziurtagiria eskuratzeko betebeharra (sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak barne), eta osorik berritu diren eraikitako etxebizitzetara ere ez. Bestalde, energia aurrezteko irizpideak edo arkitektura bioklimatikoa oinarri hartuta hirigintza antolatzen duten administrazioek eta sustatzaile edo eraikitzaileek jarraitu behar dituzten ebazpen teknikoak jardute onen gida onak baino ez dira, eta ez dira nahitaez bete beharrekoak eta herritarrek edo etxebizitzak erosten dituztenek ezin dituzte zuzenean eskatu.

Arrazoi horregatik, Ararteko erakundeak gomendio batzuk proposatzen dizkie arlo horretan eskumenak dituzten euskal administrazio publikoei, agintaritza publikoek eraikuntza iraunkorrerako egin duten bidea bultzatzen laguntzeko asmoarekin.

- Lehenengo eta behin, eraikuntza iraunkorra espezifiko eta hainbat diziplina-takoa denez, interesgarria litzateke agintaritza publikoek jarduteko programa argi bat idaztea, eraikinak eraikitzeko eta berritzeko benetako eskakizunak jasoko litzakeena. Udalerri bakoitzean kontsumitutako baliabide naturalak gutxitzea eta isurpen kutsatzaileak ezabatzea izan beharko litzateke plan horren helburu argi eta zenbakarria, eta hori betetzeko balio beharko luke. Horretarako, ez lirateke eraikin berriak bakarrik kontuan hartu behar, baizik eta lehendik dauden eraikinak egokitzeko beharra ere. Administrazioak klima-aldaketaren aurka duen programaren barruan egon beharko litzateke hori, sortuko omen den klima-aldaketaren euskal bulegoaren barruan hain zuzen.

- Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritako terminoetan arautu beharko du Eusko Jaurlaritzak energia-eraginkortasunaren ziurtagiria. Hura eskuratzeko baldintzak ezarri beharko ditu, eta hirigintza eta eraikuntzako baimenen prozesuan baimena emateko eskumena izango duen erakundea izendatu beharko du. Ziurtagiriaren eskakizun hori eraikin berri guztietara zabaldu beharko litzateke, eta osorik berritzen diren etxebizitzetara, 2002/91/CE Zuzentarauak ezartzen duenaren arabera.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzak erregulazio tekniko bat ezarri beharko luke ur bero sanitarioa ekoizteko eguzki-panelak eta instalazio fotovoltaikoak jartzeari buruz.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinuari buruzko ordenantzek berariaz hartu beharko lukete kontuan beharrezkoa dela energia-eraginkortasuneko eta arkitektura bioklimatikoko irizpideetara egokitzea eta irizpide horiek betetzea (ordenantza horiek Etxebizitza Sailak onartzen ditu), aurreko arautegian aurreikusitako irizpideak, alegia.
- Bestalde, administrazio publikoek izaera orokorrarekin sartu beharko lituzkete eraikuntza iraunkorreko irizpideak eraikuntza publikoak egiteko lanen kontratazio publikorako agiri orokorretan.
- Hirigintzaren plangintzan, udal administrazioek kontuan hartu beharko lituzkete diseinu eta eraikuntza bioklimatikoko irizpideak, eta jaso egin beharko lituzkete.
- Udalek modu espezifikoan arautu beharko lukete eguzki-energia biltzeko sistemak jartzeko betebeharra, ordenantza baten bitartez. Udalerriko eraikin eta eraikuntzetan ur bero sanitarioa ekoizteko izango lirateke sistema horiek.
- Halaber, udaletako energiaren kudeaketa hobetzeko jardueren barruan, udaleko instalazioetako energia-eraginkortasuna hobetzeko plana egin beharko litzakete, eta hor, besteak beste, kanpoaldeko herriko argiak ere sartu ahal izango lirateke.



IV. ATALA

**EZHOIKO TXOSTENAK**



## **1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BE-REZIETAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK**

Ararteko erakundeak azken urteetan prestatu dituen txosten berezien jarraipena egiteko jarduerak burutzen ditu. Arartekoa erakundearen txosten guztiek, bukatzeko, zenbait gomendio ematen dizkiete kasuan kasuko administrazio eskudunei eta beraz, jarraipenaren helburua ez da besterik gomendioak zenbateraino betetzen ari diren jakitea baino. Horretarako, bide desberdinak erabiltzen dira, gaia zein den, txostena egin denetik zenbat urte igaro diren, gomendioa abian jartzeko zerbitzuak zeintzuk eta zenbat diren, beste urte batzuetatik daturik ezagutzen dugun...

Hain zuzen ere, hauek dira biderik erabilienak:

- Bisitaldiak egitea aztertutako zentroetara edo zerbitzuetara (esate baterako, komisariak, harrera-zentroak edo barruan egoteko zentroak).
- Arlo bakoitzean diharduten elkarteekin edo profesional-taldeekin harremanetan jartzea.
- Kasuan kasu eskudun den administrazioari datuak, informazioa eta balorazioak eskatzea.

Aipatutakoez gain, beste bide batzuk ere erabiltzen ditugu, erkatzeko: kexen bidez jasotako informazioa; aztertzen ari garen aldian argitaratu diren planak, programak, deialdiak edo memoriak; bilerak sailetako ardura duten politikoeekin...

Administrazioei datuak eskatzen dizkiegunean informazio gaurkotua, ahalik eta gaurkotuena, eskura eduki gura dugulako da. Horregatik, sarritan, eskakizuna urtearen azken bi hiletan egiten dugu eta urtea bukatu bitarteko epea eman –azken ekitaldiko datuak txostenean sartu ahal izateko–, baina erantzunak hurrengo urtearen aurreneko bi hiletan jaso eta aztertzen ditugu. Horrela, bada, hurrengo ataletan agertuko diren datu asko eta asko 2005. urteari dagozkio baina 2006ko urtarrilean edo otsailean jaso ditugu, txosten hau amaitu baino lehentxeago. Kontuan hartzekoa da hori.

Aurreko txostenetan, ezohizko txostenen kontrol jarduera horiek atal honetako zati batean erakusten ziren, bertan kontrolpean jarritako ezohizko txosten bakoitzaren inguruan burututako jarduerak xehatzen zirela.

Kasu askotan, aukera metodologiko horrek atal honetan agertutako informazioa txosteneko beste zati batzuetan agertzea ere bazekarren, hala nola arlo materialei edo taldeen problematikaren berariazko arretaren arloei buruzko zatietan edo Ondorio, Eskubide eta Askatasunei buruzko amaierako zatian.

Txostenaren edukia sinplifikatzeko asmoz, ekitaldi honetatik aurrera jarraipen jarduerak arlo materialetan sartuko dira, edo hala denean, lehentasunezko arretako taldeei buruzko arloetan. Honela:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko kartzetako egoerari** buruzko informazioa Justiziaren arloari buruzko **I. atalaren 8.3. zatian** sartu da.
- Adingabeen lehentasunezko arretako taldeari buruzko **V. atalaren 3. zatian** hurrengo eremuei buruzko jarduerak sartuko dira:
  - Arabako sasoikako langileen jarraipena –**sasoikako familien ikasleak** eskolatzeari dagokionean–;
  - **Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak;**
  - **Adin txikiko lege-hausleekin esku hartzea;**
  - **EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna,** eta
  - **Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo –haur eta nerabeei dagokienean–.**
- **EAEEn hirugarren adinekoak egoitzetatik kanpo urgazteari** buruzko jarduerak adinekoentzako berariazko arretaren arloan agertuko dira. Ikusi **V. atalaren 2. zatia.**
- **Ertzaintzaren ziegen eta udal atxiloguneen egoerari buruz egindako** jarraipenak Herrizaingoaren arloan daude. **Ikusi I. atalaren 7.3. zatia.**
- **Pertsona ezgaituen lanerako aukerei eta erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasunari** buruzko jarduerak ezgaitasunen bat duten pertsonentzako lehentasunezko arretaren arloan agertuko dira. Ikusi **V. atalaren 5. zatia.**
- **Emakumeen kontrako indarkeriari** erakundeek emandako erantzunari buruzko jarraipena emakumeentzako lehentasunezko arretaren arloan islatu da. Ikusi **V. atalaren 1. zatia.**

## 2. 2005. URTEAN AURKEZTUTAKO EZOHIKO TXOSTENAK

### 2.1. EAEN ADINEKOEI ARRETA EMATEKO SISTEMEI BURUZKO EZOHIKO TXOSTENA

2004ko abenduaren 23an amaitu zen EAeko adinekoei arreta emateko sistemari buruzko ezohiko txostena.

Txosten hori ematea atzeratu egin zen 2005eko uztailaren 28ra arte, hauteskunde autonomikoak deitu zirelako eta Legebiltzar berria eratzeko eta Legebiltzarreko Lehen-dakaria aukeratzeko beharrezko tramiteak egin behar izan zirelako. Giza Eskubideen eta herritarren eskaeren Batzordean aurkeztea ere atzeratu egin zen urte bereko azaroaren 3ra arte.

2004ko urteko txostenean eman zen txosten honen berri, baina egoki ikusi dugu haren edukiaren aipamena hemen sartzea.

Txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona nagusiei eman zaien zuzeneko arreta-sistemari buruzko zerbitzu nagusiak aztertzen ditu –etxeko laguntza zerbitzua, egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak–, sektorearen egungo egoera ezagutzeko helburuarekin; izan ere, azken urteotan atzemandako hazkunde garrantzitsuaren ondorioz, egoitzako arretaren formula berriak agertu dira, eguneko zentroak modu nabarian garatu dira eta erakunde pribatuen esku-hartzea gehitu egin da.

Xede hori aintzat hartuta, alde batetik, aplikatzeko moduko esparru juridikoa, zerbitzuak eskuratzeko sistema eta finantzaketa-eredua deskribatu ditu; eta, beste aldetik, sektore horren garapena alderatu du 1991 eta 2001. urteen bitartean Gizarte zerbitzuen Estatistikak, Erakundeek eta Zentroek emandako informazioarekin; ondorenez, antzeman daiteke zer nolako ezberdintasuna dagoen gaur egungo egoeraren eta Arartekoak Legebiltzarrari gai honen txostena eratu zion unearen artean –Euskal Autonomia Erkidegoan dauden adinekoen etxeei buruzko aparteko txostena eta Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoei ematen ez zaien egoitza-laguntzari buruzko aparteko txostena–. Txostena, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden egoitza-zentroek eta eguneko zentroek dituzten ezaugarri material eta horien funtzionamenduaren ezaugarri garrantzitsuenen azterketarekin osatzen da.

Guzti horren helburua da, sistemaren alderdi positiboak azpimarratzeari kalterik egin gabe, beraren gabeziak edo disfuntzioak antzeman eta etorkizunean jarduteko jarraibideak proposatzea.

Txostena lau zatitan egituratzen da:

- Lehenengo zatiak pertsona nagusiei emandako arreta-zerbitzuaren esparru juridiko-administratiboa erakusten du, eta, zerbitzu eta zentroi dagozkien esku-men-arazoak, baimenen inguruko indarreko arautegia, erregistroa, ikuskapena eta homologazioa, erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrak, zerbitzu desberdinen arauketa, horiek eskuratzea, finantzaketa-eredua, eta, azkenik, gune soziosanitarioan lortutako aurrerakuntzak jorratzen ditu.
- Bigarrenak 1991-2001. urteen bitartean pertsona nagusien biztanleriak eta gizarte-baliabideek espermentatutako garapenari buruzko informazioa eskaintzen du, horiek ikuspuntu ezberdinetatik aztertuta, hala nola, programen eta

zerbitzuen dimentsioa, erakunde sustatzaileen izaera, langileria, gastuak, ekarpen publikoak, kuotak eta estaldurak.

- Hirugarrenak egoitza-zerbitzuen eta eguneko zentroen egoera deskribatzen du, zentroek ekarritako datuak oinarri hartuta, bai eta hautatutako 52 egoitza-zentroetan eta 12 eguneko zentrotan betekizun materialak, funtzionalak eta langileriaren betekizun esanguratsuenak aztertuta ere.
- Azkenik, ondorioen eta gomendioen kapituluan gaur egungo egoeraren balantzea aurkezten da eta jardunaren inguruko zenbait arau proposatu dira, Ararteko Erakundearen ustez, pertsona nagusiei emandako arreta-sisteman eskuratutako hobekuntzak indartzen laguntzeko modukoak izanik; horrez gain, uste da egoitzat jotako aldaketak nahiz berrikuntzak barneratzen ere lagunduko dutela.

Izan ere, arestian esan bezala, txostenean ikerketa sakona egin da eta horren barruan, besteak beste, indarra duen arautegiaren azterketa juridiko eta administratiboa dugu:

- Oinarrizko esparru juridikoa. Urriaren 18ko 5/1996 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- Eginkizunak mugatzen dituen araua: uztailearen 30eko 155/2001 Dekretua, gizarte zerbitzuen arloko eginkizunak mugatzen dituena.
- Zerbitzu eta zentroak erregistratu, baimendu, ikuskatu eta homologatzeko arauak.
- Zerbitzu eta zentroek baimena lortzeko bete behar dituzten baldintzak (hau da, behar dituzten baliabide materialak, baliabide funtzionalak eta langileak) zehazten dituzten arauak: egoitza-zentroei buruzko arautegia eta eguneko zentroei buruzkoa.

Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta langileen eskubideak eta betebeharrak ere aztertu egin dira, bai eta adinekoei arreta emateko zerbitzuak erabiltzeko aukera ere.

Zehazki, honako alderdi hauek:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuak erabiltzeko aukera.
- Egoitza-zerbitzuak erabiltzeko aukera.
- Eguneko zentroak erabiltzeko aukera.
- Epeen kudeaketa. Itxaron-zerrendak.

Arazo eztabaidatuenetariko bat, hots, zerbitzuen finantzaketa, zehatz-mehatz jorratu da:

- Administrazioen finantza-erantzukizuna 155/2001 Dekretua onetsi ondoren
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketa
- Egoitza-zerbitzuen finantzaketa
- Eguneko zentroen finantzaketa.

Gizarte eta osasun eremua sortzeko bidean egin diren urratsak ere txostenean jaso dira.

Aurrean esan dugunez, txostenean azken hamarkadako bilakaeraren ikuspegia eskaini nahi izan da; horregatik, menpekotasun arazoak dituzten adinekoentzat EAEn dauden gizarte zerbitzuak 1991tik 2001era bitartean nola garatu diren aztertu da, biztanleriaren bilakaera eta zerbitzuen bilakaera kontuan hartuta.

Zehaztasun osoz jaso dira, gainera, egoitza-zentroen eta eguneko zentroen ezau-garriak.

Azkenik, ezohiko txosten guztietan bezala, gomendioen atala da garrantzitsuen.

Txosten berezi honek berrikuntza metodologiko aipagarria dakar. Gomendio bakoitzaren ondoan balorazioa egin da, gomendio hori zergatik egin den azaltzen duena.

Atal horretan 52 gomendio bildu dira, txostenaren kapituluaren hurrenkerari jarraituz egituratuta.

Liburuan argitaratu, eta [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) gure web orrian sartu da adinekoen arretari buruzko txostena.

## 2.2. EZOHIKO TXOSTENA: BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO ATZERRITARREN EGOERA EAEN

Iazko ohiko txostenean esan zenez (ikus I. kap., 1.2 atala), 2005. urtean gure Erkidegoan bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari buruzko ezohiko txostena amaitu genuen. Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion, irailaren 7an argitaratu zen eta azaroaren 16an aurkeztu eta eztabaidatu zen Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean.

Horrela, txosten osoa publikoa denez, atal honetan laburpen txiki bat egingo dugu, hurrengo bost elementu hauetan oinarrituta:

- Txostenaren arrazoiak eta gaurkotasuna.
- Erantzun nahi dituen arazo nagusiak eta arazook ulertzeko erak.
- Egoera orokorrari buruzko datu esanguratsuren bat.
- Antzeman diren arazo nagusiak.
- Emandako gomendioak.

Etorkizunera begira azken gogoetaren bat ere egingo dugu.

- Ararteko erakundeak adin txikiko horien egoera era monografikoan aztertzeke izan dituen arrazoiei dagokienez, gogoratu behar da Arartekoak ez duela gai hau lehenengoz planteatzen. Izan ere, 1998. urtetik hona aurkeztutako urteko txosten guztietan gai hau beren-beregi aztertzen duen atalen bat dago. Hala ere, sakonago aztertu behar zela iruditu zitzaigun eta orain aurkeztu behar zela, **ezohiko txosten** eran. **Hainbat arrazoi dagoelako.**
- Lehendabizikoa, ahultasun egoeran dagoen herritar sektore bat delako. Izan ere, pertsona horien ezaugarrien artean, gutxienez hiru, “arrisku egoeratzat” jotzen dira:
  - Adin txikikoak dira;
  - Atzerritarrak dira;
  - Ez dute euren familien laguntzarik –ez behintzat hurbileko laguntzarik–.
- Bigarrena, egoera berria delako, baina gero eta zabalagoa. Horren aurrean gure babes sistemak zailtasun handiak aurkitzen ditu erantzun egokiak eman ahal izateko.

Orain hamar urte, esaterako, babes zentro eta egoitza guztiak bisitatu zirenean eta Eusko Legebiltzarrean *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak* ezohiko txostena aurkeztu zenean, artean existitzen ez zen errealitatea zen. Bada, harrezkero, hamar urte gutxiaren buruan, bakarrik dauden 2.000 adin txikiko atzerritar egon dira gure harrera zentroetan.

- Gizartean gertaera horren gaineko ardura dagoelako. Horrela, noizean behin, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren gaineko albisteak agertzen dira hedabi-



deetan. Gehienetan, albiste kezkarriak izaten dira: harrera zentroak gainezka daudela, zentroren batean gatazka larria izan dela, Erandion edo Iruña Okan ez dutela gazte horiei zuzendutako zentrorik ireki nahi... Egiaren gain oinarritutako albisteak dira, eta gizartean gazte horiei buruz dagoen ustea sendotzen dutenak, hau da, gazte horiek konfliktiboak direla. Soilik horrela ulertu daiteke, esate baterako, gizartean zentro berriak irekitzearen aurka dauden jarrerak.

Hala ere, errealitate orokorrak, osorik aztertzen badugu, zerikusi gutxi du irudi horrekin. Azken urteotan harrera zentroetan hartu diren bakarrik dauden 2.118 adin txikiko atzerritarretatik, gure babes erakundeetan denbora apur bat egin duten gehienak, gizarteratzeko aukera txikiena eman zaienean, nabarmen aprobe txatu dute denbora hori hizkuntza hobeto ikasteko, lanbide kualifikazio bat lortzeko eta lanean hasteko. Izan ere, askok 18 urte egin dituzte eta euren kabuz bizi dira gure artean.

- Esparru juridikoa eta eskumenen gaia konplexuak direlako.

Txostena adin txikikoen gainekoa da; “adin txikiko atzerritarrek”, baina adin txikikoak; hau da, arretan lehentasuna eta babes berezia behar dutenak, nazioarteko legeriak jasotzen duen “adin txikikoaren interes nagusiaren” printzipioarekin bat etorrita. Printzipio hori hartu behar dute oinarri erakundeen jardunbide guztiek, beste edozein erabakiren gainetik (esate baterako, pentsatu dezagun aberriratzeko edo familia berriro batzeko aukeretan), baina beti ez da erraz gauzatzen.

Bestalde, gure egungo eskumen banaketaren arabera, adin txikiko horiei arreta eta laguntza egokia emateko ardura foru aldundiei dagokie. Hala ere, beste erakunde batzuek ere badute zerikusia arretarekin, esate baterako, Eusko Jaur-laritzaren hainbat sailek, udalek eta Estatuko beste organo batzuek.

Horregatik, txostenean sakon aztertu nahi da adin txikiko hauek zein egoera duten gure Erkidegoan, lurralde guztietan, bai eta aldizka bisitatu diren harrera zentro eta egoitza guzti-guztietan.

- Txostenak **best gai nagusi** erantzun edo aztertu nahi ditu:
  - Legeak zer exijitzen duen adin txikiko horiei dagokienez, eta nori dagokion adin txikiko horiei arreta egiteko ardura betetzea (1. kapitulua - *Esparru juridikoa*).
  - Adin txikiko horiek zenbat eta nor diren, zein ezaugarri, premia eta itxaropen duten (2. kapitulua - *Euskal Autonomia Erkidegoan harrera zentroetan dauden adin txikiko atzerritarren ezaugarriak*).
  - Zein erantzun ematen zaien adin txikiko hauei lurralde edota harrera zentro bakoitzean (3. kapitulua - *Erakundeen erantzuna*).
  - Erakundeen erantzunean, zein diren antzeman diren arazo nagusiak (erakundeen erantzuna, legeak ezartzen duena eta adin txikikoek behar dutena

alderatzearren) (4. kapitulua - *Balorazio orokorra. Antzemandako arazo nagusiak*).

- Arartekoak zein gomendio ematen dien administrazioei antzemandako arazo horiek konpontzeko (5. kapitulua - *Gomendioak*)

Hala ere, bakoitzaren interesaren arabera, txostena **hainbat eratara ulertu daiteke**. Horrela, esate baterako, harrera zentroetan dauden 33 mutikok eta 5 neskatok kontatutako 38 bizipenen irakurketa independentea egin daiteke, oso esanguratsua gizarteari zein euri begira. Bisitatu den zentro bakoitzaren deskripzioak eta balorazioak ere, irakurketa independente bat eskaintzen du edo beste zentroekin alderatzeko modukoa; berdin gertatzen da aztertutako 78 espediente pertsonalen azterketatik lortutako emaitzekin, Lurralde Historiko jakin bati buruz eskaintzen den informazioarekin edo datu numerikoen azterketarekin, etab.

- **Datuei** dagokienez, txostenak 30 datu taula eta 18 grafiko eskaintzen ditu. Horiei esker, lurralde bakoitzean, zentro bakoitzean edo erkidegoan izandako bilakaera ikusi daiteke. Kontuan izanik etengabe aldatzen ari den errealitatea dela, ahalegin berezia egin zen ordura arte (2004ko abenduaren 31) zeuden datu guztiak biltzeko. Geroago izan diren aldaketa batzuk oin-ohar bezala jaso ditugu, esate baterako, zentroren bat kentzea edo lekuz aldatzea. Geroago egondako beste aldaketa batzuk urteko txosten honetako beste atal batean jaso ditugu.

Adibide gisa, aztertutako errealitatearen ikuspegi orokorra eman dezaketen datu batzuk jaso ditugu.

Azken 9 urteotan (1996-2004), bakarrik dauden 2.118 adin txikiko atzerritar hartu dira, uneren batean, gure babes baliabideetan. 2.026 mutilak izan dira (% 95,6); 92, neskak (% 4,3).

Honela banatu dira lurraldeka:

- Araban, 150 (% 7): 140 mutil eta 10 neska.
- Bizkaian, 1.117 (% 53): 1.068 mutil eta 49 neska.
- Gipuzkoan, 851 (% 40): 818 mutil eta 33 neska.

Hala ere, datu horiek ez dira nahiko arretaren gaineko benetako premiak zein diren ondo jakiteko. Batez ere, adin txikiko askok egun batzuk baino ez dituelako ematen gure artean: batzuetan, 18 urte baino gehiago dutela jakiten delako eta harrera zentroak utzi behar dituztelako; beste batzuetan zentroak ez dituelako euren itzaropenak betetzen eta beste toki batzuetara joatea erabakitzen dutelako.

Une jakin bateko egoera zein den era orokor batean jakin ahal izateko, 2004ko abenduaren 31ra dauden datuak hartu daitezke erreferentzia gisa.

- Araban (zentro 1 eta aterpetzeko plazak): 14 adin txikiko.
- Bizkaian (zentro 1, 3 egoitza eta zenbait pisu): 162 adin txikiko.
- Gipuzkoan (2 zentro): 19 adin txikiko.

Hau da, 195 adin txikiko atzerritar; horietatik 64, Bizkaian, emantzipazio zentroetan zeuden eta gainerakoak (131), beren-beregi herritarren sektore horri zuzenduta dauden 7 baliabideetan banatuta (zentroetan eta egoitzetan). Baliabide horietan, guztira, 112 plaza zeuden, eta horietan 100 profesional inguru ari ziren lanean.

Argi dagoenez, txosteneko taula eta grafikoetan, kuantifikatu daitezkeen gaien gaineko beste datu asko eman dira, baita aurrekontuen gainekoak. Baina ez dugu datuez jositako txostena egin nahi izan, baizik eta alderdi kualitatiboetan zentratu nahi izan dugu. Horrela, txostenean elkarriketatutako 38 adin txikiko edo gazte atzerritarren 38 kontakizun jaso dira. Askotan eurek esandako hitzak erabili ditugu eta euren ahotsa jaso dugu. Kontakizun bakoitza desberdina da, baina badituzte **elementu berberak**, eta horiek euren ezaugarri berezkoenak ezagutzen lagundu digute: gehienak Marokotik datoz; Marokon bizi da euren familia, bide zailak egin dituzte hona heltzeko, lehenbailehen hasi nahi dute lanean, lanbide bat ikasi nahi dute behar izanez gero, zailtasun handia dute bertoko lagunak egiteko, desesperatu egiten dira agiriak lortzea eta euren itxaropenak betetzea zaila eta motela delako.

- Antzemandako **hamar arazo nagusiei** dagokienez, Arartekoaren ikuspuntutik (hain zuzen ere, adin txikiko hauen eskubideak bermatzen dituen eta eskumena duten administrazioei exijitzen dien erakundea den aldetik), txostenak honako hauek nabarmendu eta garatu ditu:

1. Adin txikiko horiei arreta eskaini eta babesteko ez dago irizpide komunik, ezta erakunde desberdinen arteko koordinaziorik ere. Horren ondorioz, adin txikikoak leku batetik bestera joaten dira, han-hemenka lortzen duten edo espero duten erantzunaren arabera.

Argi dagoenez, errealitate horrek gainditu egiten du lurralde bakoitzak edo baita Erkidegoak erantzuteko duen gaitasuna. Beraz, eskumena duten administrazioen arteko jarduketa esparru bateratuak eta jardunbide koordinatuak behar dira.

2. Adin txikiko horiei zuzendutako egoitza baliabideen mugak eta baldintzak, batez ere dauden plazei dagokienez. Horren ondorioz, harrera zentroak maiz gainezkatuta egoten dira.

Aspaldion, esan daiteke lehenengo harrerarako baliabideak gainezka egon direla etengabe. Datu hori, bere baitan, tentsio iturri garrantzitsua da, eta, gure iritziz, gatazka egoerak, batzuetan larriak, sortzen lagundu du.

Hala ere, baliabideen mugak ez dira bakarrik plaza kopuruari dagokionez. Beste hainbat alderditara ere zabaltzen dira: tamaina, kokalekua, jarduera jakin batzuk egiteko ezinbestekoak diren lokalik eza, pertsona bakoitzak erabili dezakeen lekua txikia izatea...

Gainera, baliabide hauen ezaugarri bat gogoratu behar da, gutxitan ezta-baidatzen dena: bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak hartzen dituzten egoitza zentro edo baliabideak adin txikiko horientzat baino ez dira; zentro edo egoitza horietan ez dago bertoko gazterik, salbuespeneko kasuetan ez bada. Gainera, egoitza harrerari ez zaio bide alternatiborik bilatu.

3. Baliabideen kudeaketari eta horietan lan egiten duten profesionalen lan-egoerari lotutako gaiak (ratioak, prestakuntza, esperientzia, bajak, lan-baldintzak, etab.). Gehienak zentroak zuzentzen dituzten elkarteek kontratatu dituzte.

Erakunde honi gehien interesatzen zaion ikuspuntutik –hau da, adin txikikoei erantzun egokia bermatzea–, gure ustez, aipatu ditugun arazo horiek eta gazteekin zuzenean lan egiteak dakarren zailtasunak eta desgasteak zerikusia dute laneko bajetan, ekipoetan maiz egoten diren aldaketetan, haserre-tan... Haserre horren ondorioz, gertatu izan da zentroak itxi beharra edo komenioari uko egitea.

4. Horien integrazioa erraztuko luketen prozeduretan ematen diren atzerapenak eta zailtasunak, batez ere, bizileku- eta lan-baimenak bideratzeko orduan. Sarritan urteak atzeratzen dira.

Arazo larria da eta Arartekoak urteak daramatza horietaz arduratzen. 78 espedienteren analisi zehatzetik lortutako datuek ez dute zalantza izpirik uzten: esate baterako, bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora 7 hilabete da Araban eta ia 2 urte, Gipuzkoan. Horrek frustrazioa dakar integrazio prozesuan, eta, gainera, beste zailtasun bat.

5. Zailtasunak, batetik, eskolatzean eta, bestetik, adin txikiko horien hizkuntza-beharrizan eta lanbide-prestakuntzari emandako hezkuntza-erantzunean.

Sarritan jatorrian ere gabeziak dituzte eskolatzean, edo ikasturtea hasita hasi dira eskolan, edo gure artean ohikoak diren komunikazio hizkuntzetan oinarritzko gaitasuna falta zaie...

6. 18 urte betetzean emantzipatzeko aukerei dagokienez dauden mugak, batez, ere ostatu eta lanari dagokionez.

Harrera zentroetan dauden adin txikiko askok 18 urte egiten dituztenerako oraindik ez dute erregularizazioa lortu, eta, horregatik, ez dute lan egiteko edo euren kabuz bizitzeko aukerarik. Horri dagokionez, alderdi positibo bat

nabarmentzearen, gazte horien emantzipaziorako baliabideek Bizkaian izan duten garapena aipatzen du txostenak (gehienetan nolabaiteko tutela duten pisuak).

7. Adin txikiko atzerritar arau-hausleen kopuruaren hazkundera, internamenduzentroetan.

Txostenean aztertutako azken urteko datuen arabera, kautelazko hiru internamendutatik bat eta 10 internamendu neurritatik 3 adin txikiko atzerritarrenak dira. Txostenak datu horien gaineko hausnarketa egiten du eta horren zergatiak aztertu beharra aipatzen du.

8. Gure artean inongo erakundetik arretarik jasotzen ez duten adin txikiko atzerritar babesgabeak egoteko aukera.

Jasotako informazioen arabera, txostenak egoera horretan hiru talde egon daitezkeela aipatzen du eta horiek hobeto ikertu beharko liratekeela:

- Prostituzio sareek harrapatutako neskak.
- Kalean, sarritan “trapitxeotik”, bizi diren adin txikiko atzerritarrak.
- Gerran dauden herrialdeetatik edo jazarpen egoeretatik datozen adin txikikoak.

9. Gabeziak osasun-zerbitzuetan eta osasunerako eskubidea bermatzerakoan, batez ere, droga-kontsumo problematiko edo buruko gaixotasunen aurrean.

Gure Erkidegoan ez daukagu arazo horiei aurre egiteko baliabide espezifikorik.

10. Zenbaitetan adin txikiko multzo horri buruz igortzen edo indartzen den irudi soziala, talde homogeen eta bereziki konfliktiboa izango balitz bezala.

- Txostenean administrazio ezberdinei zuzendutako **36 gomendio** egiten dira: gehienak babes arloan eskudunak diren hiru foru aldundiei zuzendu zaizkie, baina beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari, Osasun Sailari, Justizia Sailari edo Herrizaingo Sailari eta udal batzuei egin zaizkie (esate baterako, adin txikiko horiek errolatzeari edo herritarren sentsibilizazioari buruzkoak)
- Lehenengo bost gomendioek erakundeen arteko planifikazioa eta koordinazioa hobetu nahi dituzte. Behar-beharrezkoak dira antzeman diren oinarrizko arazoak gainditu nahi badira.

Gure Erkidegoari dagokionez, behintzat, inplikaturako administrazioen arteko koordinazioa lortuko balitz, horietako arazo batzuk ez lirateke egongo eta egoera batzuen aurrean erantzuteko gaitasuna hobea izango litzateke.

Beharizan hori Arartekoari ere planteatu izan zaio erakundeen arduradunekin izandako harremanean. Arduradun horiek erakundeen arteko elkarlan handiago eta hobe bat eskaintzeko prest agertu izan dira.

- Zazpi gomendio, oster, nahikoak ez diren egoitza-baliabideen harrera ahalmena hobetu, baliabideak dibertsifikatu edo zentroen baldintzak eta funtzionamendua hobetzera zuzenduta daude.

Aipatu dugu adin txikiko horiei zuzendutako baliabideek dituzten muga batzuk, eta gainezka daudela. Proposamena hauek egoera hori gainditu nahi dute: ez bakarrik baliabideak gehitzea, baizik eta dibertsifikatzea (horrek insertzio ibilbideak erraztuko lituzke), eta adin txikiko horien ezaugarrietara gehiago egokitzea.

- Gomendioen multzo handi batek adin txikikoen egoera administratiboa erregulatzeko beharrezkoak diren izapideak arindu beharra agertzen du: heltzeko uneko hezur-probak, erroldatzea, tutoretzaren ardura, egoitza- eta lan-baimenak...

Adin txikikoarentzat dituzten ondorio kaltegarriak ikusita, prozeduran edozein atzerapen egonez gero, fase bakoitzean aurkitzen dituzten lorpen eta zailtasunen gaineko jarraipen sistematikoa egin behar da. Era berean, tramiteak kudeatzeko irizpideak eta erak aldatu behar dira, horrela behar izanez gero. Ararteko erakundea garen aldetik, ofiziozko hainbat jardunbideren bitartez egin dugu eta aurrerantzean ere egiten ahaleginduko gara. Baina, gure ustez, Foru Aldundien erantzukizuna da, eurei baitagokie adin txikiko horiek babestea edota zaintzea.

- Hiru gomendio Hezkuntza Sailari zuzendutakoak dira eta eskolatzeko edo adin txikiko horientzako hezkuntza-arretari buruzkoak dira, eta, bi Osasun Sailari zuzendutakoak, osasun-arreta hobetzeko (batez ere buru-osasuneko arazo eta droga-kontsumo problematikoen aurrean).

Bietan eskatzen da osasun eta hezkuntza zerbitzuen inplikazio handiagoa adin txikiko horien premiei eman beharreko erantzunean, eta etorkizunerako oso garrantzitsua izango den proposamena planteatu da: adin txikiko horiei eskolatzeko edo osasun laguntza egokia eskaintzeak (batez ere, irakas-hizkuntza edo gure artean ohikoak diren hizkuntzak ez dakizkitenean) beharrezkoa egiten du beste gaitasun eta ezaugarri batzuk dituzten profesionalak izatea. Hori oraindik ez da aztertu ez sistema batean, ez bestean.

- Emantzipatzeko aukerei buruzko bi gomendio zehatz daude, 18 urte betetzen dituztenean insertzio aukerak hobetu ahal izateko.
- Beste bi, babes-zerbitzuen eta gazte-justiziaren arteko lankidetzari buruzkoak, adin txikiko arau-hausleen kasuan.

- Babesgabetasun egoerak (hala nola, kalean bizi diren adin txikikoak edo adin txikikoak erabiltzen dituzten prostituzio-sareak) ikertu, eta hala denean, horiei aurre egin beharra ere azaltzen da, baita poliziak adin txikiko atzerritarrekin izandako jokaera zaindu beharra ere. Horietako gai batzuen inguruan ofizios lan egiten jarraitu dugu txostena amaitu eta gero ere. Horren berri eman da txosten honetan.
- Eta, amaitzeko, txostenean informazioaren tratamenduari eta beharrezko sentsibilizazio sozialari buruzko gomendioak egin dira. Eurretari batek lotura zuzena du informazio lanekin. Berriz esan behar dugu nolako garrantzia duten komunikabideek talde jakin baten irudi soziala egiterakoan. Adin txikikoak dira, eta, horregatik, euren irudia babesteko eskubidea dute. Irizpide edo kode deontologikoak aplikatu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide guztietako zuzendariek 2000. urtean egin zuten bezala. Hala ere, zoritxarrez, kode hori etengabe urratzen da.

Laburpen hau amaitzeko, hausnarketa eta konpromiso handiagoa eskatzen duten gai batzuk jaso ditugu hemen:

- Gizartearen eta erakundeen inplikazioa lortu behar da. Gazte hauek gizarte sareetan eta dauden baliabideetan integratu behar dira. Funtsezkoa da gure gizartea osatzen duten gizon-emakume guztiek kontaktua izatea eta elkar eza-gutzea, aurreiritzirik egon ez dadin, eta aukerak eskaintzea, esate baterako, gizarte sare batean sartu eta prestakuntza eta enplegu baliabideak eskuratzeko aukera. Horrela gogoratu egin behar da adin txikikoen heziketan gizarteak (hau da, denok) eta erakundeek duten erantzukizuna, jatorri nazionalaren arabera diskriminaziorik egin barik, erabat aplikagarria den giza eskubideen nazioarteko araudiak agintzen duen bezala.
- Egun dauden baliabideak egokitzea, adin txikiko atzerritarren kopurua hazten doala, eta horien ezaugarriak eta premiak kontuan izanik: lehenengo harrera eta bizileku egonkorra bereiztu behar diren, eredu egokiena zein den, konfliktiboak diren edo jokabide-arazo larriak dituzten gazteentzako baliabide espezifikoak behar diren, baliabideen tamaina zein izan behar den...
- Beren-beregi adin txikikoei zuzendutako baliabideak komenigarriak diren edo ez diren, edo, bestela, dauden baliabideetan integratu behar diren eta euren berezitasunak kontuan dituzten programa espezifikoetan parte hartu behar duten.
- Lurraldean arteko koordinazioaren beharra, baliabide ereduari eta horien kapazitateari dagokienez, desorekarik egon ez dadin. Gizarte gaiak-eta jorratzen dituzten txosten gehienetan aipatu izan dugu.

Hemen laburtu dugun txostena amaitu eta gero, Ararteko erakundeak bisita gehiago egin du harrera zentroetara, eta hainbat gaitan esku hartu du. Horren guztiaren berri eman da txosten honetako beste atal batzuetan (ikusi, esaterako, V. kapituluan, adingabeen lehentasunezko arretarako taldea, edo herrizaingo arloa, I. kapitulua, 7. atala).

### **3. 2005. URTEAN EGITEN ARI DIREN EZOHIKO TXOSTENAK**

#### **3.1. HURRENGO EZOHIKO TXOSTENA: IKASLEEN ARTEKO BIZIKIDETZA ETA GATAZKA IKASTETXEETAN**

Iazko ohiko txostenean (ikusi I. kap., 2.5 atala), Arartekoaren ekimen baten berri eman genuen, hain zuzen ere, ikastetxeetan gertatzen diren berdinkideen arteko tratu txarren gaineko ekimena. Herritarren Parte-hartzeari buruzko II Foroa zen. Foro horren helburua gaia aztertzea zen, eta horri buruzko informazio laburra emango dugu kapitulu honetan ere.

Ararteko erakundea kezkatuta dago hainbat adin txikikori eragiten dion arazo horren aurrean, eta horren isla dira hemen aipatu ditugun ekimena eta txostena. Izan ere, arazo horrek oinarritzko eskubideak urratzen ditu, horren gainean gizartean dagoen kontzientziazioa gero eta handiagoa izan arren. Nolanahi ere, ikusiko denez, prestatzen ari den txostenak “bullying” edo berdinkideen arteko gehiegikeriaren arazoa baino harago joan nahi du, eta ikastetxeetako elkarbizitza- eta indarkeria-eren azterketa zabaldu nahi du.

Hemen, 2005. urtean egindako urratsen eta egin beharreko txostenaren egungo ikuspuntuen berri emango dugu.

##### **1) Azterketaren oinarriak:**

Txosten honetan egoera berezia gertatzen da: gaia Kataluniako Síndic de Greuges defendatzailearekin batera, eta berarekin koordinatuta, lantzeko erabakia hartu da.

Horretarako, azterlanaren oinarriak bi erakundeen artean erabaki dira, nahiz eta metodologiaren gaineko edo kasu bakoitzean aztertu beharreko zentroen laginaren gaineko ezaugarri espezifikoak gorde. Bi erakundeen arteko koordinazio lanak 2005. urteko maiatza baino lehen egin ziren.

##### **2) Proiektuen analisia eta azterketaren adjudikazioa:**

Arartekoari dagokionez, azterketaren oinarriak izen eta esperientzia handiko lau ikerketa talderi helarazi zitzaizkien. Jasotako lau ikerketa proiektuak aztertuta -denak ziren kalitate eta interes handikoak-, lana Hezkuntza Ikerketa eta Aholkularitza Institutuari (IDEA) adjudikatzea erabaki zen. Lan taldea EAeko eta Madrilgo hainbat unibertsitate-tako irakasleek osatzen dute.

Hauek dira azterlanaren helburuak:

1. Bigarren hezkuntzako irakasle, guraso eta ikasleen ustez eskolako bizikidetzari eragiten dioten faktoreak eta faktore bakoitzari ematen dioten garrantzia jakin eta egiaztatzea.
2. Talde horien ustez, ikastetxeetan sortu ohi diren gatazka mota ezberdinen jatorrian dauden kausak eta egokientzat jotzen dituzten irtenbideak jakin eta egiaztatzea.
3. Bigarren hezkuntzako ikasleek beren ikaskideekin zein beraiekin bizi diren helduekin dituzten pertsona arteko harremanak gidatzen dituzten balioak aztertzea.



4. Ikastetxeetako bizikidetzak hobetzeko asmoz bigarren hezkuntzako ikastetxeak burutzen ari diren jarduerak, eta gatazkak konpontzeko erabiltzen ari diren prozedurak ezagutzea.
5. Bizikidetzak hobetzeko eta gatazkak prebenitu eta konpontzeko gizarte-zerbitzuekin batera -eta hala denean, auzibidetik- burutzen ari diren jarduerak jakitea.
6. Talde ezberdinek ikastetxean burutzen ari diren esku-hartzeko programez eta Administrazioaren eremu horretako jardueraz egiten duten balorazioa jakin eta egiaztatzea, eta horiek erraztu edo zailtzen dituzten baldintzak identifikatzea.
7. Azterlanaren emaitzetatik ondoriozta daitezkeen esku-hartzeko zenbait gomendio proposatzea.
8. Eta hezkuntza-komunitateak ikastetxeetako bizikidetzari, bere baldintzei, eta eskola eremuan giro integratzailea eta errespetuzkoa sortzeko estrategia egoikienei buruz eztabaidatzea erraztea.

Elkarbizitzaren analisisan, hainbat faktore aztertuko dira, horien artean, familia, ikastetxe, ikasle, inguru eta abarrekin zerikusia dutenak.

Proposatutako helburuak anitzak dira eta horregatik hainbat metodologia konbinatu behar da. Horregatik, azterketak bi estrategia metodologiko desberdin erabiliko ditu, estu lotuta badaude ere: bata, metodologia kuantitatiboa, galdetegi bidez; bestea, metodologia kualitatiboa, azken hori, elkarriketa, dokumentuen analisi eta zentroek elkarbizitzaren arloan dituzten kudeaketa organoen funtzionamenduaren behaketaren bidez.

Lehendabiziko kasuan, aztertuko diren zentroak 80-85 izango dira, lurralde eta titulartasun desberdinetakoak; bigarrenean, dozena bat zentro hartu da.

### 3) **2005-2006 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egindako urrats nagusiak**

Ikasturtea hasita, zoriz aukeratutako Bigarren Hezkuntzako 85 zentroetako zuzendariengana jo zuen Arartekoak, azterketaren hasierako informazioa emateko. Urriaren 20 eta 21ean lurraldeka egingo ziren batzarretara joateko gonbita luzatu zien.

Batzarrera joan ezin izan zutenei telefonoz deitu zien eta idatziz bidali zitzaizen informazioa. Era berean, Hezkuntza sailburuari ere jakinarazi zitzaion, lehenengo idatziz eta, gero, elkarriketa pertsonal baten bidez.

Lehenengo fasean erabilitako lau galdetegiak (ikasleak, irakasleak, gurasoak, zuzendaritza taldeak) azaroaren amaiera aldera bidali eta aplikatu ziren, eta orain aztertzen ari dira.

Emandako erantzunek lagin tarte zabala eskaintzen dute:

- 80 zentro Bigarren Hezkuntzakoak.
- 80 zuzendari.
- 2.787 galdetegi, familienak.
- 1.707 galdetegi, 2. kurtsoko ikasleenak.
- 1.607 galdetegi, 4. kurtsoko ikasleenak.
- 1.257 galdetegi, irakasleenak.

#### 4) **Hurrengo hilabeteetako aurreikuspenak:**

Galdetegietako datuen ustiapena burututa egongo da 2006. urteko lehenengo hiruhilekorako. Gainera, parte hartu duen zentro bakoitzari dagokion informazioa bidaliko zaio, zentroak ere horren gaineko hausnarketa egiteko aukera izan dezan. Horrez gain, azterketa kualitatiboago bat egiteko erabiliko diren zentroak aukeratuko dira eta azterketa hori egiten hasiko da.

Txostena ikasturte amaierarako bukatuko da; beraz, behin betiko txostena 2006. urtea amaitu baino lehen argitaratuko dugulakoan gaude.

Atal hau amaitzeko, gogoratu behar dugu Arartekoak gai honi buruzko txostena aurkeztu zuela herri defendatzaileen koordinazioari buruzko azken jardunaldietan, "Eskolako eta familiako indarkeria" izenburupean. Txosten honetan jaso dugu (ikusi I. Eranskina).

### 3.2. EAEko GAZTEEI ZUZENDUTAKO ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOEI BURUZKO HURRENGO TXOSTEN BEREZIA

Erakunde honek "EAEko Gazteei zuzendutako Etxebizitza Politika Publikoei" buruz egingo duen txosten berezia laster amaitzeko dago, eta 2006ko lehenengo seihilekoan Eusko Legebiltzarreko presidenteari aurkeztuko zaio.

Atal honetan, aurrerapentzat, horren funtsezko edukia planteatzen dira.

Txostenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek, euren eskumenean arloan, gazteei zuzendutako etxebizitza politika publikoak aztertzen dira; izan ere, lehenengo etxebizitza eskatzen duten talde nagusitzat, bazterturiko beste talde batzuekin batera (guraso bakarreko familiak, ezintasun fisikoak edo psitikoak dituzten pertsonak, adineko pertsonak edo etorkinak, besteak beste), eurek jasaten dute gehien etxebizitzaren arazoa, horrek eragina dauka euren bizitzako erabaki oso garrantzitsuetan, esate baterako, familiarekiko emantzipazioan.

"Etxebizitzaren arazoa", aspaldi-aspalditik hona, EAEko eztabaida politikoa eta sozialaren erdigunean dago; gainera, hiritarrei eta, hain zuzen ere, gazteei zuzendutako iritzi inkestetan adierazitakoaren arabera, gizartean kezkarik handiena sortzen duen arazoetariko bat da. Alderdi politikoek ere euren programa barruko esfortzuaren zati handia eskaintzen diote, eta Herri Administrazioek ere parte hartzen dute horretan, arazoa aztertzeko eta horren ondore kaltegarriak arintzeko ekimen askoren bidez. Halaber, eragile eta talde sozialek ere arretaz jarraitzen dute etxebizitzaren arazoa, hasi arlo akademikotik eta enpresa arlora, sindikatuetatik gazte-asoziazionismora. Arazoaren garrantzia eta konplexutasuna aintzat hartuta, adostasuneko puntu garrantzitsuak egon arren, iritzi desberdintasun handiak ere badaude.

Kontzeptuak berak ere (*etxebizitzaren arazoa*) kritika asko jaso ditu, sektoreko profesionalen aldetik. Aditu askok diotenez (elkarrizketaturiko pertsona kopuru handiak horixe esan du, behintzat), ez dago *etxebizitzaren arazorik*, hau da, ez dago *stockaren* edo etxebizitza kopuruaren defizit handirik: mila biztanleko etxebizitza tasak, bai Estatuan eta bai EAEn, Europako batez besteko tasak baino askoz ere handiagoak dira; aldi berean, hutsik dauden etxebizitzen kopuruak ere Europako tasak baino askoz ere handiagoak dira; horrek aditzera ematen du etxebizitzak inbertsio ondasuntzat duen garrantzia, baita alokairuaren merkatuan dauden zailtasunak ere. Bestalde, azken urteotan, etxebizitzen eraikuntzak goranzko progresio handia izan du, baina higiezin eskaintzaren gorakadak ezin izan du murriztu etxebizitzen prezioen goranzko joera ikaragarria; sektore ugariko adituek diotenez, gainera, etxebizitzaren prezioen hazkundeak ez dira funtsezko faktoreen eraginezkoak, higiezinaren espekulazio burbuila sortzearen ondoriozkoak baizik.

Horrenbestez, zuzenagoa eta zehatzagoa izango litzateke etxebizitza eskuratzeko arazoa aipatzea, etxebizitzaren arazoa aipatzea baino. Gizarte segmentu askok ez dute etxebizitza lortzeko inolako aukerarik, ez alokairuan eta ez erosita. Gainera, pertsona kopuru handiak ez dauka etxebizitza egokirik, eta hiritar asko (batik bat, gazteak, oraintsu etxebizitzaren jabetzako merkatuan sartu direnak), halaber, gehiegizko zorpetze maila jasaten dute eta horrek arazo ekonomiko nahiz sozial larriak sortzen ditu; zorpetze hori, gainera, areagotu egin daiteke, interesek euroaren zonan izan dezaketean gorakadaren ondorioz.

Metodologiaren ikuspegitik begiratuta, ikerketa nazioarteko, Estatuko eta Erkidegoko **literatura espezializatuaren azterketan** oinarritzen da; bertan, era guztietako

argitalpen akademikoak sartzen dira, esate baterako, erakunde publikoek eta pribatuek sustaturiko txostenak eta ikerketak, eta horiek guztiak bibliografian jasota daude.

Bestalde, etxebizitzaren arloan esku hartzen duten Herri Administrazio guztien informazio gaurkotua lortzeko, **kontsulta lan** handia egin da: alde batetik, EAEko udalerrri guztiei zuzendutako inkesta egin da, eta bestetik, elkarrizketa pertsonalak egin dira Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udal handienetako (50.000 biztanletik gorako biztanleria duten zazpi udalak) etxebizitza politikaren arduradunekin, baita gazteen etxebizitzarekin erlazonaturiko arloetan partaidetza zuzena duten gizarte eragileekin ere.

Txostena deskribatzailea eta baloraziokoa da, eta horren helburu nagusienetariko bat, izan ere, arlo honetan dauden era askotako eta, sarritan, elkarren aurkako iritziak jasotzea da, administrazioen eta inplikaziorik handiena duten gizarte eragileen iritziak, eta hausnarketarako elementu kopuru ahalik eta handiena jaso nahi izan da. Azken batean, alde batetik, etxebizitza politika publikoen alderdi positiboak nabarmendu nahi dira, EAEko gazteek etxebizitza errazago lortzeari dagokionez, eta bestetik, oraingo gabeziak edo disfuntzioak detektatu eta, ahal den neurrian, etorkizuneko jarduketarako jarraibideak proposatu nahi dira.

Txostenaren zirriborroa, une honetan, sei kapitulutan egituratzen da, eta, horiek, lanaren behin betiko bertsioan, apur bat aldatu egin daitezke:

- Lehenengoan, gazteek etxebizitza lortzeko dituzten arazoan sarrera egiten da; arreta berezia jartzen zaie etxebizitzaren prezio gero eta garestiagoei nahiz horren zergatiei, jabetzako zein alokairuko etxebizitza eskuratzearen kostuari, errealitate horrek gazteen emantzipazio prozesuan duen eraginari eta, azkenik, EAEko gazteek duten etxebizitza eskariari.
- II. kapituluan, etxebizitza politikaren funtsak agertzen dira; horren ezagupena ezinbestekoa da aurrerago EAEko gazteei buruz egiten den azterketa ulertzeko. Halaber, laburbilduta, Europar Batasuneko herri batzuetan (arloan honetan esku-hartzerik handiena izan duten herriak) aplikatu diren etxebizitza politikak ere azaltzen dira, eta azkenik, ikuspegi historikotik begiratuta, Estatuan eta EAEn aplikaturiko etxebizitza politika publikoak aztertzen dira.
- Hirugarren zatian, txostenean Europar Batasuneko herri batzuetan, Estatuan eta EAEn gazteei zuzendutako etxebizitza politikak aztertzen dira.
- Ondoren, IV. kapituluan (txosteneko kapitulu nagusia), EAEn gazteei zuzendutako etxebizitza politikaren arloan azken urteotan garatu diren tresnak eta ekimenak zehatz aztertzen dira. Hain zuzen ere, honako alderdi hauek aztertzen dira:
  - etxebizitza babestua: ezaugarriak, gazteek etxebizitza formula horri dagokionez dituzten eskariak, etxebizitza tasatua, lortzeko baldintzak, halako etxebizitzaren esleipenaren inguruko alderdiak, etxebizitza babestuaren eskabide erregis-troak, etxebizitza babestuaren kalifikazioa;
  - gazteentzako alokairuko etxebizitza: alokairuko etxebizitza babestua eta gazteei arlo honetan zuzendutako ekimenak;

- esku-hartze publikoa alokairuaren merkatuan: Eusko jaurlaritzako Etxebizitza Saileko Bizigune Programa, Donostiako Alokabide Programa, Gasteizeko Udalaren Etxebizitza Bulegoko Alokairuko Etxebizitza Poltsa;
  - gazteentzako etxebizitza programak eta tipologiak;
  - etxebizitza bihurturiko lokalak;
  - etxebizitzarako laguntzak eta prestazioak;
  - etxebizitzarako laguntzak eta prestazioak: etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak; gizarte larrialdiko laguntzak;
  - gazteentzako etxebizitzaren fiskalizazioa;
  - gazteentzako etxebizitzaren finantziazioa;
  - Herri Administrazioen estamentuen jarduketa eta koordinazioa.
- Txostenaren amaieran, Herri Administrazioek gazteen etxebizitza politikaren arloan duten esku-hartzea hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen jarduketa jarraibide batzuk proposatzen dira.

### 3.3. BAZTERKETA EGOERA LARRIAN DAUDEN ETXERIK GABEKO PERTSONEN OINARRIZKO BEHARRIZANEI EMAN BEHARREKO ERANTZUNARI BURUZKO EZOHIKO TXOSTENA

Iazko ohiko txostenean (ikusi I. kap., 1. 5. atala) ordurako hasita zegoen ikerketa lanari buruzko lehen informazioa eman genuen, eta gaiaren aukeraketa eta garrantzia agerian uzten saiatzeaz gain, lanarekin lortu nahi genituen helburuak zehaztu genituen.

Aurreikuspenarekin bat, 2005ean informazio bilketa amaitu genuen, eta bazterketa egoera larrian dauden etxerik gabeko pertsonen beharrizanei Administrazioa eta Hirugarren Sektorea ematen ari zaien erantzuna azaltzen duen txostena egin genuen. Txosten horretan bazterketa egoerak eta agertu diren profil berriak aztertu ditugu, eta Erkidegoan pertsona horiei laguntzeko dauden baliabideak zehazki bildu ditugu. Legebiltzarrean 2006ko lehen hiruhilekoan aurkeztu ahal izatea aurreikusi dugu, lerro hauek idazten ari garenean txostena edizio prozesuan baitago.

Azaldutakoa kontuan izanda, atal honetan, txostenaren oinarrizko edukiak zeintzuk izango diren zehaztu baino ez dugu egingo:

- **1. kapitulua** sarrerakoa da eta, bertan, txostenaren ikuspuntua, asmoa eta helburuak azalduko ditugu.
- **2. kapituluan** erabilitako metodologia deskribatuko dugu, hala nola, iturri dokumentalak, lan-taldeak, elkarriketak, erabilitako teknikak eta txostenaren mugak. Mugei dagokienez, informazioaren sistematizazioa zailtzen duen irizpide aniztasuna nabarmendu nahi dugu, horrek ahalegin handiagoa eskatu baitigu.
- **3. kapituluan** gizarte politiken esparru arau-emailea deskribatuko dugu. Horrela, politika horiek ongizate estatuan kokatuko ditugu, esku-hartze soziala, globalizazioaren ondorio den testuinguru sozial eta ekonomiko berria, familia-ereduen aldaketak eta abar garatzeko antolakuntza modua bezala. Horretaz gain, nazioarteko eta bertako ordenamendu juridikoetako eskubide sozialak gainbegiratuko ditugu, eta baita sortzen joan diren babes sistemak. Azkenik, bazterketaren aurkako EAEko politika sozialak eta zerbitzu sozialen esparru instituzionala zehazkiago aztertuko ditugu, eta galdetutako pertsonen arabera horren guztiaren ahulguneak eta gune sendoak zeintzuk diren bilduko dugu.
- **4. kapituluan** testuingurua emango diogu maila teorikoan bazterketa larriari: kontzeptua, etxerik gabeko pertsonen profil zaharrak eta berriak, EAEn zehazki, etorkizunerako joerak... Era berean, atal honetan, etxerik gabeko pertsonen gizarteratzeaz hitz egingo dugu maila teorikoan, eta baita esku-hartze prozesuaz, zein prozesuaren beraren ibilbideez, aukerez eta mugez.
- **5. kapituluak** –kapitulu nagusiak– txostenaren helburu garrantzitsuena biltzen du, hau da, etxerik gabeko pertsonen beharrizanei EAEn erakunde publikoen eta ekimen pribatuaren aldetik ematen ari zaien erantzuna. Kapitulu honek herritarren erantzuna ere bere baitan hartzen du. Lurraldean arabera estaldura ere aztertuko dugu, hiru hiriburuetan dagoena batik bat, hau da, Gasteizen, Bilbon eta Donostian dauden arreta moduak. Estaldura, motaren arabera ere jorratuko

- dugu: bai gauekoa (larrialdietarako edo egonaldi laburretarako ostatua ematea, egonaldi ertain eta luzeetarako ostatua, etxebizitza autonomorako laguntza...), eta baita egunekoa. Eguneko arretari dagokionez, eskaintzen diren zerbitzuak aztertuko ditugu: elikadura, jantziak eta dutxak, gizarteratze-zentroak, zerbitzu soziosanitarioak, lanerako prestakuntzako lantegiak eta lanean hasi aurrekoak... Azkenik, etxerik gabeko pertsonen arretarako EAEko sistemaren balorazioa egingo dugu, hala nola, sistema horren estaldurarena eta mugena.
- **6. kapituluak** nabarmentzeko modukoak diren EAEtik kanpoko arreta esperimentzialak azalduko ditu.
  - **7. kapituluak** bederatzi istorio bilduko ditu: iragana, oraina eta etorkizunerako aukerak elkarriketatutako pertsonen iritziaren arabera.
  - Eta, azkenik, Arartekoaren beste txosten guztietan bezala, bukaeran, erakundeei zuzendutako proposamen eta gomendioak azalduko dira.

Hori da, oinarrian, txostenaren eskema orokorra. Esan bezala, txostena itzulpen eta edizio prozesuan dago eta, ziurrenik, Legebiltzarrean 2006ko lehen hiruhilekoan aurkeztu ahal izango dugu. Hau idazten ari garen bitartean, gure txosteneko kapitulu pare bat zabalik dauzkagu oraindik euren arduradunekin izandako harremanen ondoren, badaezpada, EUSTATEk, Estatistikako Institutu Nazionalaren lankidetzarekin, etxerik gabeko pertsonen buruz egin duen ikerketako datuak jendaurrean jakinarazten dituen geure datuak osatzeko edo proposamen jakin batzuk sendotzeko aprobeixatu ditzagun.

Etxerik gabeko pertsonen gutxi ahula den herritar sektorea osatzen dute, ez baitauzkate aseta oinarriko beharrik. Gainera, sarri askotan, pertsonaren eta egoera horretan daraman denboraren arabera larriagoak izan daitezkeen ezintasunak edota gaixotasunak jasan behar izaten dituzte euren egoerarekin batera (gaitz fisikoak, mentalak, alkoholarekiko edo sustantzia estupefazianteekiko zaletasuna...). Etxerik gabeko pertsonen profila aldatuz joan da, eta, ikerketaren helburua pertsona horiek zenbatzea eta euren ezaugarriak ematea ez zen arren, ziurrenik beste bolada batean euren familia eta gizarte-sareetatik laguntzak jasoko zituzten pertsonen gorakada egon dela ikusi dugu. Gaur egun, arazoak eta profilak oso desberdinak dira. Pertsona horiek ez daukate antolatze edo baliabideak zein prestazioak eskatzeko gaitasunik, sistematik kanpo baitaude eta ez baitute parte hartzen bide sozial eta instituzionalean. Hori dela eta, txosten hauek berebiziko garrantzia dute euren baldintzak eta beharrik diren jakiteko.

Horren guztiaren ondorioz, Arartekoak, ezohiko txosten honen bitartez, lehen hurbilketa egin du pertsona horiei berriaz bideratutako edo hein handi batean eurek erabilitako baliabide eta zerbitzuen gaur egungo sarea ezagutu, deskribatu eta aztertzeko. Baita ere, adinaren, generoaren, ezintasunaren, buruko gaixotasunaren eta abarren arabera baliabideek eta araudiak duten egokitasunari buruz elkarteek, erakundeek eta erabiltzaileek eurek egiten duten balorazioa ezagutzeko. Txostena baliagarria izango da era berean, sistemaren gabeziak, ase gabeko beharrik, laguntzarik gabeko sektoreak eta hobetzea behar duten funtsezko alderdiak antzemateko, eta ematen ari den erantzuna hobetu eta eskuragarri dauden baliabideek ahalik eta emaitzarik onena eman dezaten jardun eremuak proposatzeko.

Hainbat ondorio aurreratu genitzake hemen, baina, orain, hausnarketarako puntu bi baino ez dugu nabarmenduko: ongizatea handitzen ari den gure gizarte honetan,

paradoxikoki, etxerik gabekoen fenomenoak hazten ari da; eta, beste alde batetik, erantzunak, eraginkorrak izateko, eragile publiko nahiz sozialen parte hartzea eta ahalegina behar dute, eta horrek erronka bat dakar koordinazioaren eta sentsibilizazioaren eremuetan eta baita egoera horiek aurreikusi eta gainditzeko lehentasunak ezartzerako orduan.



### **3.4. 2005. URTEAN HASITAKO BESTE EZOHIKO TXOSTEN BATZUK**

2005. urtean, beste ezohiko txosten bi jarri dira abian; oraingoz, txosten horien helburua, metodologia eta azterketa-esparrua zehazten ari gara.

Lehenengoak, EAEko terrorismoaren eta jazarpen-indarkeriaren biktimen premiei erakundeek ematen dieten erantzuna aztertuko du.

Erakunde honek ardura berezia erakutsi du beti terrorismoaren biktimen eskubi-deekin; hori dela-eta, haien premia eta arazoei buruzko hainbat jarduera egin ditu.

Hala ere, jarduera horietan sakondu nahi dugu eta, horretarako, terrorismoaren biktimei eta jazarpenaren biktimei lehentasuneko arreta emateko arlo berria eratu da, eta aipatzen ari garen ezohiko txostena hasi dugu bide horrekin jarraitzeko.

Azken urteetan, EAEko agintaritza publikoak gero eta gehiago inplikatu dira biktimei era moral eta materialean ordaintzeko, hainbat neurri instituzionalen bitartez.

Egoki ikusi da neurri horien eragina aztertzea, baita zein mailatan betetzen diren, eta biktimak zein mailatan gogobetetzen dituen ere.

Bigarren txostena hasierako fasean dago; giza balioen transmisioa aztertu nahi du eta, zuzenean edo zeharka, lotuta dago ikasturte honetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egiten ari garen azterlan bati, berdinen arteko bizikidetzari eta norgehiagokari buruzkoa.

Ikastetxeetako bizikidetzari buruzko azterlanaren alderdi kuantitatiboan (ikasle, irakasle eta familientzako galdera-sortetan), zein alderdi kualitatiboetan (ikastetxeetan egindako bilera eta elkarrizketetan) giza balioen gaira hurbildu gara lehenengo, eta sektore bakoitzaren balioespenak noiz datozen bat eta noiz ez antzematen saiatu gara. Horrez gain, balioen transmisioan esku hartzen duten gizarte-eragileei sektore bakoitzak ematen dien garrantzia neurtu nahi izan dugu. Ez soilik ikastetxeko hezkuntza-eragileei ematen dietena, beste batzuei ematen zaiena ere, esate baterako, komunikabideei.

Ez du inork zalantzan jartzen balioetan hezteak gizartean duen garrantzia. Horregatik, beharrezkotzat jo da balioen transmisioari buruzko azterketa espezifikoa eta monografikoa egitea, aipatutako azterlanean agertzen diren alderdi batzuetan sakondu eta beste batzuk jorratu ahal izateko. Lan hori ikastetxeetako berdinen arteko bizikidetzari eta norgehiagokari buruzko txostenarekin jarraitzeko egingo da, euskal gizarte demokratikoa, pluralago eta inklusiboagoa osatzeko garrantzi handia duelako.



V. ATALA

**BERARIAZKO ARRETA  
LEHENTASUNEZKO TALDEEN  
ARAZOEI**



Alorren egituraketa beti gaikako banaketaren arabera egin izan da. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoen berariazko tratamendua egiten da.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, urteko txostenean haien arazoen berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharriaz beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi izan dituzte.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Talde horiekiko lehentasunezko esku-hartze horiei eman nahi zaien garrantziak justifikatzen du Urteko txostenean atal propio batean islatuta agertzea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori bistara dadin.

Atal honetan bost zatitan biltzen dira lehentasunezko arretako hurrengo taldeen inguruan burutu diren jarduerak:

- emakumeak
- adinekoak
- adingabeak
- atzeritarrak eta gutxiengo etnikoak
- ezgaitasunen bat duten pertsonak

Gainera, 2006tik aurrera lehentasunezko arretako taldeei buruzko beste bost arlo sortzea erabaki da. Aspalditik hasi ginen arlo horiek jorratzen, baina egokitzen joan da ondo planifikatutako etengabeko jarduera-ildoak ezartzea.

Lehentasunezko arretako taldeei buruzko arlo berri horiek ondokoak dira:

- Terrorismoaren eta jazarpen-indarkeriaren biktimak
- Gayak, lesbianak eta transexualak
- Osasunaren gaixotasun kronikoa duten pertsonak
- Espetxeratuta dauden pertsonak
- Gizarte-bazterkeriako edo pobrezia-egoeran dauden pertsonak

## 1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI

Deigarria eta tristea da XXI. mendean, Europako gizarte garatu batean, emakumeak arreta berezia behar duten taldeen artean sartzen jarraitu behar izatea oraindik ere giza eskubideak babesteko erakundeek. Hala ere, errealitate egoskorrak behin eta berriro erakusten digu emakumeek bereziki kontrakoak diren baldintzak jasaten jarraitzen dutela bizitzako esparru askotan, eta eskubideak erabiltzeko orduan zailtasunak eta oztupoak aurkitzen dituztela.

Nazioarteko erakundeek azpimarratzen dutenez, giza eskubideen unibertsalizazioa eta, zehazki, generoa dela-eta dauden desberdintasunak errotik kentzea ezinbesteko oinarria dira gizakiaren garapenarekin jarraitzeko eta bizikidetzak baketsua eskuratzeko. Ezin dira ukatu gai horren inguruan lortu direnak, baina ezin dugu ahaztu gure gaur egungo gizarteek sexismoaren ikuspegian murgilduta jarraitzen dutela. Ideologia hori leku guztietan dago, eta gizarteko harreman eta egitura guztietan eragin handia eta sakona du. Emakumeak gizonen menpe daudela dioen iritzitik abiatzen da sexismoa, eta hainbat modutan ageri da, batzuetan ez ohartzeko moduan, bestetan era nabariagoan, eta gehiegitan gizarte honetako gaitz baten bitartez, hau da, genero-indarkeriaren bidez. Gure sistema sozialari nazka eman behar dion munduaren ikuskera baten adierazpen paradigmaticoa da genero indarkeria, gure sistema, teorikoki, arrazoiaren printzipioan eta gizakiarenganako konfiantzan oinarrituta baitago. Izan ere, horiek dira gure antolatzeke moduaren ardatza.

Duela sei urtetik hona, genero-ikuspegia deitutakoa hartu zuen erakunde honek funtzionatzeko, eta, hori dela-eta, atal espezifiko hau sartu dugu urteko txostenetan. Atal honetan Arartekoak jarduten duen arloen zeharkako irakurketa egin nahi da, “generoaren faktoreak” dituen ondorioak sumatzeko, erakunde honetan herritarrek adierazten dituzten auzi eta arazoen aldetik zein administrazio publikoen jardunaren aldetik, baita gure funtzioak betetzeko orduan ere. Arrazoi hori dela-eta, erakunde honetan jasotako erreklamazio guztien multzoa aztertuko dugu atal honen lehen goiburuan, eta emakumeek egin dituztenak espezifikoki bereziko ditugu, kexa horietan gehien agertzen diren zailtasunak edo interesak analizatzeko, eta gizonak eta emakumeak arlo batzuetan edo beste batzuetan kexak jartzeko dituzten arrazoiak agerian uzteko.

Tamalez, azken txostenetan, indarkeria sexistaren fenomeno kezkarria izan da jorratu dugun gai nagusia, gizarteko errealitateak behartu gaituelako: duintasunari, askatasunari eta emakumeen integritateari etengabe egindako erasoak, giza eskubideak modu oso larrian urratzen dituenak, eta, agian, gure gizarteko ohikoena eta zigor guztien jasotzen duena. Atal honetako bigarren goiburuan, erakunde honek 2003. urtean egindako txosten honi aurre egin zaion jarraipena islatu nahi izan dugu, eta horrek izan du lehentasuna: *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAE*n gaiari buruzko txosten monografikoa. Horrez gain, *Genero indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko lege organiko* berriaren edukia abian jarri direla ere kontuan hartu da. Horretarako, indarkeriako egoera batetik irteten ari diren emakumeei eragiten dieten hainbat alderdi izan ditugu kontuan, esate baterako, poliziaren jarduerak, laguntza juridikoa, gizarte-zerbitzuen eta harrera-zerbitzuen funtzionamendua eta etxebizitza eskuratzeko.

Halaber, idatziz jasota utzi nahi izan dugu administrazio publikoren bati diskriminazioa gotzi dioten erreklamazioak egon direla. Hirugarren goiburua horri buruzkoa izan

da, eta bereziki azpimarratu ditugu ebatzi gabe jarraitzen duten gaiak. Ikusiko dugunez, auzi horiek kulturaren, kirolaren eta herriko jaien esparruari eragiten diete batez ere. Dagoeneko adierazi dugu, beste batzuetan, zuzeneko diskriminazioak edo agerikoak harreman pribatuen esparruan gertatzen direla gehienbat. Hala ere, agintaritzaren publikoek dagokien eginkizun berezia nabarmentzen saiatu gara, hau da, harreman horiek aldatzeko eginkizuna. Hain zuzen ere, benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko agintaritzaren horiek duten oinarritzko erantzukizunari dei egin diogu, eta inhibizio edo pasibitateko jokabidearekin amaitzeko beharra nabarmendu dugu. Izan ere, gehiegitan, diskriminazioak betikotzea ahalbidetzen du, pribatuak direnez, estalita daudelako.

Laugarren goiburuan aipatu ditugunak askotan ez dira zuzeneko diskriminazioak izaten, baina emakumeei bereziki eragiten diete eta, zenbaitetan, zeharkako diskriminazio moduak edo jokabideak erakusten dituzte. Beste batzuetan, jarduera publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko beharra adierazi nahi izan dugu, besterik ez, bereziki administrazioaren prestazio-jardueretan.

Amaitzeko, bosgarren goiburu bat sartzea komeni dela pentsatu dugu, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 EAEko Legeak* izan beharko lituzkeen ondorioak aztertzeko. Lege hori 2005. urtean eman zen, eta tresna juridiko bat da, emakumeek bizi duten egiturazko desberdintasunean aldaketa sakona sustatzeko sortutakoa. Arau horrek ikuspegi interesgarria du, teoria feministak ezarritako postulatuak jasotzen baititu hein handi batean. Gainera, diskriminazioaren kontrako zuzenbidearen nozioak jasotzen ditu, eta nozio horiek asko argitzen dituzte diskriminazio-kasuen aurrean egin daitezkeen jarduerak; baina, batez ere, obligazio publiko zehatzen ikuspegi bat argitu eta xehatzen du, EAEko administrazioei eragiten diena, berdintasun materiala sustatzerakoan. Erakunde honen iritziak, arau hori parametro garrantzitsua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan egiten dituen jardueretarako, pertsonen arteko berdintasuna bultzatzen jarraitzeko bitartekoa baita. Arau hori balioen eta pentsamoldearen aldaketa sakonean oinarritu behar da, eta erakunde publiko guztiek, Ararteko erakundeak ere, aldaketa horren buru izateko betebeharra dute, zalantzarik gabe.

## 1. Erreklamazioak egiten dituzten emakumeak

Estatistika soziologikoari zuzendutako atalean (VII. kapitulua), erreklamazioa egin duen pertsonaren generoaren arabera banatu dugu kexa-kopurua. Orain kopuruak banakatu nahi ditugu, kexa horiek zeri buruzkoak diren aztertzeko. Hala ere, beste batzuetan adierazi dugunez, ez da erraza kopuru hutsetatik azalpen posibleak ematea. Zalantzarik gabe, interesgarria litzateke emakumeek eta gizonen defentsa-erakunde batera joateko dituzten arrazoien ezberdintasunetan eta antzekotasunetan sakontzea, ikuspuntu kualitatibotik. Tresna bat gehiago izango litzateke sexuaren arabera banatutako eginkizunek gure gizartean oraindik ere eragiten dituzten baldintzapenak argitzeko. Hala ere, erakunde honek ez du azterlan hori egiteko aukerarik.

Erreklamazioak arloka eta generoka banatu baino lehen, emakumeek aurkeztutako erreklamazioen ehunekoa begiratu dugu. Noiz edo noiz aipatu ditugu gertatu diren oszilazioak: 1998an indize altua lortu zen, eta, horren ostean, bi denboralditan beheranzko joera nabaritu zen. Joera hori 2001. urtean gelditu zen, eta hurrengo urtean berriro abiatu zen. Bestalde, 2003an, emakumeek sustatutako kexen proportzioa

kexa guztien % 40 baino handiagoa izan zen berriro, baina 2004an % 36ra egin zuen behera beste behin –lortutako indize guztietan txikiena–, eta aurtien berriz berreskuratu da ehunekoa. Hurrengo koadroan ikus daiteke hori guztia.

	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Taldeak</b>
1996	36,74	46,89	16,25
1997	39,88	48,72	11,90
1998	45,19	46,84	7,97
1999	38,97	45,99	14,65
2000	36,55	49,80	13,65
2001	41,31	43,82	11,57
2002	38,23	47,65	13,57
2003	40,45	45,54	13,36
2004	36,38	47,94	15,09
2005	39,48	49,42	10,42

Badakigu ez datu horiek ezta datu horien aldakuntzak ere ez direla sexu bien artean lortu den berdintasun-mailaren bilakaeraren isla, baina ezin da alde batera utzi erreklamazio-kopurua orekatuko balitz –epe luze batez–, gizartean parekotasun handiagoa dagoela erakutsiko litzatekeela modu ukaezinean.

Iaz gertatu zen bezala, deigarria da emakumeek sustatutako erreklamazioen gorakada taldeek egindakoen beherakadaren parekoa izan dela, baina alderantziz. Gizonezkoek egindako erreklamazioen kopurua, berriz, ez da gutxitu, kontrakoa baizik. Bestalde, kontuan hartu behar da taldeen artean erakunde mistoak edo gizonezkoenak baino ez direnak daudela, baina beste erakunde batzuk emakumeenak dira edo haien eskubideak babestearen alde lan egiten dutenak. Genero ikuspegi batetik, talde horien jardueren azterketa sakona egiteak interes handia izango luke.

Kexekin gertatu den bezala, 2005. urtean gora egin du berriz ere emakumeek arreta zuzeneko gure bulegoetara egin dituzten bisiten kopuruen ehunekoak. Iaz % 42,31 izan ziren, eta 2000. eta 2003. urteen arteko goranzko joera (% 39, % 41,26, % 43,61 eta % 44,87) hautsi zela esan genuen, baina ekitaldi honetan ehunekoa igo egin da berriro, hain zuzen ere, % 44,07koa izan da, gizonezkoen ehunekoaren antzekoa (% 44,81), beraz. Aurrekoetan bezala, sexuaren arabera bisiten banaketei dagokienez, ezberdintasunak daude hiru lurraldeetan. Donostiako bulegora gizonak baino emakume askoz gehiago joaten dira kontsultak egitera (341 emakume eta 265 gizon). Kopuru horiek iazkoen antzekoak dira. Gasteizen nabarmena da kopuruak hurbiltzen ari direla (378 emakume eta 407 gizon). Bilbon, ordea, kopuruak urruntzen ari dira berriro, gizonezkoek nahiko bisita gehiago egin baitzituzten (412 emakume eta 347 gizon). Gogoratu behar dugu aurreko datuak bakarrik datozen pertsonen buruzkoak direla. Ez dira kontuan hartu bikoteak edo taldeak etorri zaizkigun kasuak.

Erreklamazioen edukira gatzoz berriro. Ikus dezagun jarraian nola banatzen diren emakumeek aurkeztutako 576 kexak, gaiaren arabera:



**Kexen banaketa, arloaren eta erreklamazioa  
egin duenaren sexuaren arabera**

ARLOA	Gizonak	Emaku- meak	Taldeak	Anoni- moak
NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	9	13	3	–
GIZARTE ONGIZATEA	37	50	5	1
KULTURA ETA ELEBITASUNA	10	5	4	–
HERRIAREN DEFENDATZAILEAK	45	28	2	1
HEZKUNTZA	33	51	31	–
FUNTZIO PUBLIKOA	33	63	10	–
HAINBAT KUDEAKETA	20	14	5	–
OGASUNA	47	30	7	–
HERRIZAINGOA	57	18	6	–
JUSTIZIA	34	7	5	–
INGURUMENA	39	26	13	–
HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK	74	67	19	–
ATZERA BOTATAKOAK	148	75	14	8
OSASUNA	37	51	10	–
LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA	2	5	–	–
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	96	73	18	–
	<b>721</b>	<b>576</b>	<b>152</b>	<b>10</b>

Inozoa litzateke kopuruak aztertze hutsetik ondorioak atera nahi izatea emakumeak erakunde honetara etortzera eramaten dituzten interesei buruz. Dena dela, ezin da gutxietsi urtez urte datuek erakusten duten joera. Izan ere, errepikatu egiten dira emakumeek egindako kexen kopurua gizonezkoena baino handiagoa den arloak. Alde batetik, Funtzio publikoa da arloetako bat, eta, bestetik, Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Osasuna daude. Hain zuzen, 1999. urtean hasi ginen aztertzen kexen banaketa erreklamazioa egiten duen pertsonaren generoaren arabera, eta ordutik, ikusi dugu aipatutako arloetan erreklamazioa egiten dutenen artean emakumeak gehiago direla, aldaketa txikiakin.

Funtzio publikoaren arloan, emakume askok dute enplegu publikoren bat, eta, agian, horrek azaltzen ditu datu horiek –2004koak alde batera utzita–. Izan ere, enplegu publikora sartzekoan diskriminazio gutxiago izaten dute lan pribatuko merkatura sartzekoan baino. Beste hiru arloei dagokienez, baliteke emakumeen kexak gehiago izatea emakumeek lan gehiago egiten dutelako inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzen (adingabeak, adinekoak...) eta, beraz, “laguntzakoak” diren arlo horietan sortzen diren arazoak konpondu behar dituztelako.

Edozelan ere, kontuan hartu behar da, nahiko sarritan, arazoa zuzenean jasaten duen pertsona ez dela izaten arazo hori erakundean aurkezten duen pertsona bera. Alde horretatik, oso adierazgarria litzateke emakumeek beren arazoan gaineko kexak zein kasutan egiten dituzten ikustea, noiz diren zaintzen dituzten pertsonen interesen

defendatzaileak eta, amaitzeko, noiz uzten duten gizonezko bat izatea beren ordezkaria. Oraingo ez dugu bitartekorik azterketa hori egiteko; hortaz, emakumeek egindako kexak bakarrik aztertu ditzakegu.

Bestalde, datu kuantitatiboak alde batera utzita, arlo guzti horietan ikus daitezke ezberdintasun kualitatiboak erreklamazioa egin duenaren generoaren arabera. Esate baterako, aipatutako Funtzio publikoaren arloan, zenbait gai emakumezko funtzionarioek baino ez dituzte aipatzen –lanaldia murriztea, adingabeak zaintzeko eszedentziak, etab.–. Ezin da ukatu emakumeen eta gizonen arteko eginkizunen banaketa desberdinarekin duen lotura.

Kopuruak berriro aztertuz gero, ikus daiteke emakumeek sustatutako kexarik gehienak Hirigintza eta Etxebizitzaren arlokoak direla (73) –atzera botatakoak alde batera utzita, horien kopurua baita handiena banaketaren atal guztietan–. Horri dagokionez, komeni da argitzea etxebizitzari buruzko erreklamazioek gora egin dutenez, arlo horrekin beste atal bat egitea erabaki dela. Txosten honetan ere arlo independente gisa jorratu da, baina datorren urtera arte itxaron beharko da erreklamazioak egin dituztenen generoaren arabera datu banakatuak zein diren jakiteko. Hala ere, aurrera dezakegu gehiago direla emakumeek etxebizitzari buruz egindako kexak hirigintzari buruz egindakoak baino eta, esparru haren barruan, emakumeak dira babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko auzi askori buruzko kexak jartzen dituztenak –esate baterako, etxebizitza horien esleipenari buruzkoak–; bereziki, guraso bakarreko familiei gordetako etxebizitzaren gaineko kexak izaten dira.

Etxebizitza eskuratzeko arazoak biztanle guztiei eragiten die, baina bistan da gizarte-erakunde talde batzuek zailtasun handiagoak dituztela etxebizitza lortzeko bidean. Talde horien artean, gero eta gehiago dira bakarrik dauden emakumeak, banandu direlako gaitasun ekonomiko gutxiago duten emakumeak, hain zuzen ere. Horrek ez du nahitaez esan nahi kexa-kopuruak gora egin duenik. Horren jakitun denez, Arartekoa errealitate horretara hurbiltzen saiatu da inork horretarako eskaerarik egin gabe. Indarkeria sexistari erakundeek emandako erantzunari buruzkoa da hurrengo goiburua, eta hortxe azalduko dugu zer egin den hurbilpen horretan.

Kopuruaren aldetik, Herri Lan eta Zerbitzuen arloa (67) izan da emakumeek egindako bigarren erreklamazio-kopururik handiena eduki duena. Arlo horretan ere, gizonezkoek kexa gehiago jarri dituzte, baina zenbait ataletan emakumeak gehiago izan dira, esate baterako, garraio publikoan. Horren arrazoia da emakumeek gehiago erabiltzen dituztela horrelako zerbitzu publikoak, beren gizarte-talde bereko gizonekin alderatuta ere.

Beste urte batzuetan ikusi izan dugunaz bestela, oraingo honetan gizonen baino emakume gehiagok egin dituzte kexak arlo hauetan: Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa eta Lana eta Gizarte Segurantzak. Atal bi horiek nahiko bazterrekoak dira. Auzi asko ezin dira tramitera onartu, partikularren arteko gatazkak direlako edo jardun duten administrazioak ez direlako EAEkoak.

Bestela, ez da berritasunik ikusi kexa gehienak gizonen egin ohi dituzten arloetan: Kultura eta elebitasuna, Ogasuna, Herrizaingoa... Hala ere, deigarria da Justiziaren arloan dagoen desfase handia. Izan ere, normalean, arlo horretan nahiko orekatuta egon ohi da pertsonaren generoaren arabera kexen banaketa. Aurtengo ezberdintasunaren arrazoia da –gizonen ia bost aldiz kexa gehiago jarri dituzte– presoek egindako kexak direla gehiengo, justizia-administrazioari lotutako beste auzi batzuekin alderatuta.

Ingurumenaren arloan ere, gizonak egin dituzte kexa gehienak, beste urte batzuetan bezala, baina Ogasunean edo Herrizaingoan egon den jarraitutasunik gabe. Arlo horretan auzi oso ezberdinak ere jorratzen dira: kexa batzuk pertsona batek aurkeztu ohi ditu –beharbada familia edo bizilagunen elkarte baten izenean–, esate baterako, “molestatzen duten jardueri” buruzko zenbait kexa, eta beste batzuk, orokorrakoak, eragindako pertsonen taldeek edo talde ekologistek egin ohi dituzte –ingurumenaren babesari buruzkoak, ingurumenaren kutsadurari eta kutsadura akustikoari buruzkoak, etab.–. Hirigintzako edo Herri Lanetako kexak egiten dituztenak ere erakundeak izan ohi dira eta, aurten, Hezkuntzakoak ere, arlo horretan taldeek duten esku-hartzea hain deigarria izaten ez den arren.

Amaitzeko, “gizonezkoenak” izan ohi diren arloak era laburrean aipatu behar ditugu. Herrizaingoari dagokionez –beste batzuetan nabarmendu dugunez–, azalpena izan daiteke administrazio-zigorrei (trafikoko isunak, etab.) buruzko kexa asko daudela. Horrelako kexak gizonak sarriago jartzen dituzte. Gainera, poliziaren atxiloketei buruzko kexak ere badaude, eta horrelakoak emakume oso gutxiri gertatzen zaie. Zergei buruzko erreklamazioei dagokienez, arlo horretan “familia-buruaren” kontzeptu patriarkalak nola edo hala jarraitzen duela pentsatu daiteke. Arlo horretakoak dira zenbait laguntza ekonomikori buruzko auziak ere. Bada, emakumeak izan ohi dira eszedentzien edo amatasunagatik eskatutako lanaldi-murrizketen laguntza kasuetan balizko irregulartasunak salatzen dituztenak. Dirudienez, aitek oraindik ez dituzte hartzen familia eta laneko bizitza bateratzeko neurri horiek.

## 2. Emakumeen kontrako indarkeria diskriminazioaren paradigma gisa

Herritarren eskubideen defendatzailea denez, Arartekoari dagokio indarkeria sexistaren aurkako borrokan murgiltzea eta borroka hori erabakitasunez bultzatzea. Izan ere, emakume izate hutsagatik emakumeek jasaten duten indarkeria hori da gure gizartean dagoen giza eskubideen urratze larriena, zabalduena eta gutxien zigortzen dena.

Eginbehar hori betetzeko, erakunde honek ezohiko txosten bat egin zuen indarkeria hori jasan duten emakumei EAEko erakundeek ematen dieten erantzunari buruz. Txosten hori 2003. urte amaieran argitaratu zen. Haren izenburuak adierazten duenez, tratu txarrak jasan dituzten eta aholkularitza edo laguntzaren bat eskatu duten emakumei erakundeek ematen dieten arreta aztertzen du txostenak –kriminalitate horren aurkako borrokan duten erantzukizuna onartzeko agintaritza publikoek duten obligaziotik abiatuta–.

Helburua erakundeek emakume horien premiei ematen dieten erantzuna balioestea zen eta, beraz, administrazioko egituren eta genero-indarkeriako egoerez arduratzeko antolatutako baliabide espezifikoek egokitzapena hobetzeko proposamenak zehaztea.

Logikoa denez, txostena ez zen egin ahala amaituko zen zerbait izateko sortu, baizik eta gure ikuskapen-lanaren lehen urrats izateko, aipatutako arloan administrazio publikoek zuten jarduna aztertzeko. Horretarako, Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako aurreko urteko txostenean, egindako segimendu-lana aipatu genuen. Laburbilduz, indarkeria jasan duten emakumei zuzendutako zerbitzuek izandako bilakaerari –2003. eta 2004. urteetan– buruzko informazioa bildu genuen.

Gizartea kontzientzia hartzen ari da gutxika-gutxika genero-indarkeriaren fenomenoaren larritasunari buruz, eta, horren ondorioz, herritarrek inplikatzeko eskakizun handiagoa egiten diete agintaritzak publikoei. Horrek aldatetak dakartza behin eta berriro erakundeek indarkeria horri aurre egiteko ematen duten erantzunean. Hala ere, administrazioei datuak berriz eskatu beharrean, aurten erabiltzaileei hurbiltzen saiatu gara, beren testigantza entzuteko, informazio-iturri nagusia baitira. Emakume horiek dira arreta ematen dieten zerbitzuen benetako funtzionamendua hobeto ezagutzen dutenak, eta, beraz, ikuspegi kritikoena eman dezaketenak, beste bitarteko batzuk erabiltzaile erakunde honek ezin du eta ikuspegi hori eskuratu.

Hala ere, lan horren zailtasunak aipatu behar dira. Txosten monografikoan azaldu genuenez, arreta ematen dieten zerbitzuak dira emakumeekin harremanetan jartzeko bide bakarra, eta hori lehenengo iragazki bat da, eta garrantzitsua. Bestalde, elkarrizketatu ahal izan ditugun erabiltzaile apurrak epe ertaineko egonaldietarako pisuetan bizi ziren –bisitatu genituen larrialdiko harrerako zentro biak hutsik zeuden egun horietan–. Normalean, etapa hori lasaitasuneko “oasi” gisa bizi dute emakumeek, bizitako indarkeria-esperientzia ikaragarrien eta epe ertainean biziko duten ziurgabetasunaren artean. Egoera horrek ulergarria den esker oneko jarrera sortu dezake administrazioarekiko.

Emakume horiekin egin diren elkarrizketez gain, bilerak egin ditugu esparru horretan lan egiten duten pertsona edo talde batzuekin, baita bisitatutako harrera-zentroetako hezitzaileekin ere. Beste jarduera batzuk egin direnean ere aipatu ditugu tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako arretari buruzko auziak (topaleku edo jarduera espezializatuetan; polizia-etxeetara egindako bisitetan, etab.). Amaitzeko, eta Justiziaren arloko Sarreran adierazi dugunez (I. kapitulua, 8.1), erakunde honetan jasotako kexa askotan, jasadako agresioak salatu dituzten emakumeek desadostasuna adierazi dute epaileen jarduerekin. Zenbaitetan, beste zerbitzu publiko batzuekin (laguntza juridikoa, polizia...) izandako esperientziak ere kontatzen dituzte, baina, oro har, horrelako auzietan ezin dugu esku hartu, auzitegietan aztertu diren kasuak direlako. Hori bai, horrek ez du esan nahi ezin dugunik kontuan hartu emakume horiek kontatutakoa.

Egindako bisitei dagokienez, erakunde honetako ordezkariak egon dira epe ertaineko egonaldietarako Arabako hiru pisutan eta Gipuzkoako batean, Bilboko eta Donostiako harrera-pisu batean eta Bizkaiko epe ertaineko egonaldietarako zentro batean.

Lortutako informazioak azaltzeko, egokia iruditu zaigu gaiaren arabera antolatzea. Bereziki landu dugu indarkeriaren biktimek autonomia pertsonal osoa berreskuratzeko garrantzi handia duen gai bat: etxebizitza eskuratzeko. Gaia aurkezteko, komeni da emakumeek azalduetako ibilbide pertsonalak labur-labur aipatzea, baita aurkitutako oztopoei buruz duten ikuspegia ere.

### a) **Zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeen ikuspuntua**

Informazioa eman diguten emakumeen artean, bereizi egin behar da babeseko pisuetan edo zentroetan bizi direnen egoera, eta indarkeria sexistaren biktimei laguntzeko beste zerbitzu batzuk erabiltzen dituztenen egoera. Hala ere, talde horietako bakoitzaren barruan, esperientziak eta balioespenak ez dira batere homogeenak.

Adin oso ezberdineko eta familia-egoera desberdineko emakumeekin (seme-alaba adingabeekin edo ez) egon gara harremanetan; hemengoekin eta immigranteekin.

Batzuek urteetan jasan dituzte tratu txarrak, beste batzuk haiek hiltzeko saiakeretatik bizirik atera dira –ia kasualitatez–, eta beste emakume batzuek erasotzailearengandik ihes egin dute lehen eraso larritzat jo dutena egin dietenean. Hori bai, guztiek dute honako ezaugarria: gizarte-zerbitzuetatik laguntza ekonomikoak jasotzeko beharra. Zenbaitetan, hasierako egoera prekariora zen jadanik, baina, beste batzuetan, banantzearen ondorioz pobretu dira.

Alde horretatik, hainbat kexa oso garrantzitsu jaso ditugu. Horietako batean, interesatuak azaldu zuen etxetik alde egin zuela bizitza salbatzeko, eraso oso larri bat jasan baitzuen, eta indarkeriaren biktimak berreskuratzeko zentro batean bizi izan zela. Horren ostean, epaileak zenbait ebazpen egin zituen, zibilak eta penalak, eta emakume horren kontrakoak izan ziren, bai edukia ez zelako bidezkoa –haren iritziz–, bai ez zelako inoiz bete. Auzitegiek larriki biktimizatu zutela sentitzen zuen, baina deigarriena zen senarrarekin egoera ekonomiko oso eroso bizi izan zuen arren, orain gizarte-laguntzetatik bizi zela, ez zuelako lortu irabazpidezko sozietatea likidatu zedin.

Erreklamazioa egin zuten beste bi emakumek esperientzia berbera bizi izan zuten bikotekide izandakoaren aldetik, hau da, jazarpen ekonomiko eta lege-bitartekoen gehiegizko erabilera (auzi zibilak, kereilak, etab.). Kasu bietan familiako enpresak izan zituzten, eta haien kontrola gizonen esketan geratu zen, eta bietan, urte asko atzeratzen ari zen emakumeei zegozkien ondasunak berreskuratzea. Ezkontideen arteko hausturaren hasieran emakume horiek ez zuten tratu txarrak salatu, baina biek ala biek jotzen zituzten indarkeria psikologikotzat jasaten zuten presio ekonomiko eta auzi judizialak.

Auzitegiatan bitzako esperientzia oso txarrak kontatu zituzten beste emakume askok, esate baterako: bati ez zioten jakinarazi kartzelatik irten zela bera hiltzen saiatu zen gizona, eta hilko zuela esan zuena; hainbatek esan dute ez dituztela zuzen tratatu, sinesten ez dietela sentitu zutela, ordu asko irauten duten tramiteak egin behar dituztela epaitegian, areto berean itxaroten aurkitu dutela erasotzailea, etab.

Bistan denez, tutoretza judizialeko disfunczio eta gabezia horietako asko saihestu egingo dira arautegian duela gutxi egin diren aldaketen bitartez –bereziki, genero-indarkeriaren aurkako babes osoko Legea indarrean sartzean–, baina kexak heltzen dira oraindik ere. Esate baterako, emakume batek, beste eraso batzuen artean, bikotekide ohiari egozten dio bien alaba bortxatu eta hari sexu-abusuak egin izana, eta azaldu du kausa penala atzeratzen ari dela. Auzi horretan, emakumeari adituaren txosten psikiatrikoa egitea eskatu du akusatua, beste frogak batzuen artean. Gizon horrek hainbatetan ez du bete urruntzeko agindua eta kartzela-zigorra ezarri diote horregatik, baina ez da betetzen hasi. Bitartean, aitak alabari bisitak egiteko behin-behineko erregimena mantentzen da. Baina kexaren arrazoi espezifikoak hauxe izan zen: mehatxuengatik jarritako beste salaketa baten ondorioz egin zen epaiketa batean, absoluzio-epaia eman zen, egintzek ez zutelako garrantzirik legearen aldetik. Gainera, laguntza juridikoari buruzko desinformazioa jasan zuen. Emakume horrek dioenez, zergatik iritsi ziren epaiketara, eta ez zen salaketa hasieran artxibatu?

Beste emakume batek bere kasuaren hasieran gertatu ziren akatsak eta atzerapenak azaldu ditu: Gasteizko Epaitegira joanarazi zioten, eta gero konturatu ziren hori ez zela gai horretan eskumena zuena; epaiketa atzeratu zen akusatuari deitzerakoan egin zen akats bategatik... Hala ere, jasotako arretarekin konforme ez egoteko arrazoi nagusia da bost aldiz baino gehiagotan errepikatu behar izan zuela bere historia, instantzia ezberdinen aurrean, eta, batzuetan, berak iraingarri sentitu zituen egoeretan. Errepikapen

horiek dira hain zuzen erakundeen arteko hitzarmenen bitartez ekiditen saiatu direnak, baina emakume horrek “kafkiartzat” jotzen duena da gizarte-zerbitzuei jarraitu zen prozesu osoa azaldu behar izan ziela, gertaturikoak kontatzeaz gain, “*protokoloa bete zela*” egiaztatzeko!

Horrez gain, nabarmendu behar da emakume batzuk ez direla gai indarkeria sexistaren aurkako tutoretza judiziala eskuratzeko, beren baldintzapen pertsonalengatik. Ezagutu ditugun kasuetako batzuetan, emakumeek ez dute aukera bideragarritzat jotzen salaketa penala jartzea –eta poliziaren babes eskatzea ere ez–, arrazoi kulturalengatik, lehenago izandako esperientziengatik, edo erasotzailearen errepresalia posiblei benetako ikara handia dietelako. Beste emakume batek ezkontidearekin zuen etxebizitzaren erabilera eskuratu zuen banantze-prozesuan, baita alaba elikatzeko pentsioa ere, eta orain harrera-pisutik irten gabe bizi da, beste udalerrri batera joan ahal izateko zain. Hala ere, epaia bete dadin exijitzeari utzi behar izan dio, ezkontide ohiak bera gehiago ez jartzeko. Gainera, itun horren ondorioz, ezin du laguntza ekonomikorik jaso, ezta babes ofizialeko etxebizitza baterako izena eman ere, epailearen erabakiaren arabera, ez baitu horrelakorik behar. Itun hori gizarte-zerbitzuen esku-hartzearen bidez izenpetu zen.

Tamalez, horrelako kasuak ez dira salbuespena. Arartekoak badaki kasuak konplexuak direla eta sistema juridikotik jorratzeko zailtasunak daudela. Sistema horrek eman dezakeen babes osoa eskaintzen die mehatxatuta dauden emakumeei, baina hauek badakite segurtasuna ezin dela osoa izan –gutxienez, askatasuna osorik galdu gabe– eta, beraz, defendatzeko beste bide batzuk aukeratzeko dituzte. Baina aukera hori ez da erabat boluntarioa, gaitz erdia baino ez da, eta hori kontuan hartu beharko lukete gizarte-zerbitzuek herritar horiei laguntzerakoan.

## b) *Ostatu emateko zerbitzuak*

Ostatu emateko zerbitzuetara egindako bisitetan sortuta ziren zenbait auzi azalduko ditugu jarraian.

- **Araba:** Gasteizko Udalaren hiru pisutara joan ginen. Indarkeria jasan duten emakumeak bizi diren bi etxebizitza motak ezagutzen saiatu ginen –emakume horientzat espezifikoak direnak eta bestelakoentzat ere badirenak–, baina ezin izan genuen, eta bisitatu genituen hirurak aipatutako kolektiboarentzat baino ez ziren. Pisu guztiak berriak ziren, duela gutxi eraikitakoak edo berriak.

Bat oso txikia zen, baina besteek gela bi zituzten eta emakume bi jasotzeko zeuden prestatuta, seme-alabekin. Zenbait unetan, pertsona-kopuruak edo pertsona batzuen ezaugarriek bizikidetzaz arazoak sortu zituzte.

Pisu berri biek alarma-sistema bat zuten, poliziarekin zuzenean konektatuta zegoena, eta dei laburretarako telefonoa ere bazuten, herri barruko deiak edo 112rako deiak egiteko. Berritutako pisuak ez zuen bietako bat ere, baina horiek instalatzea pentsatuta zegoen. Aurreikusitakoa baino lehenago hasi zen erabiltzen eta, horren ondorioz, oinarrizko zenbait altzari falta ziren pisan.

Alarma-sistemari dagokionez, zerbitzuaren arduradunak adierazi zigun genero-indarkeriaren biktimentzako sei pisu espezifikoetan jarri dela –edo laster jarriko dela–, baina edozein motatako arazoak dituztenentzat atondutako pisuetan ez. Arazoa da

horrelako pisuek nahiko sarritan hartzen dituztela erasoak jasan dituzten emakumeak; beraz, komeniko litzateke Udalak irizpidea berriro aztertzea eta pisu guztietan aipatutako sistema jartzea.

Etxebizitzetan daudenek ez dute etengabe lagun egingo dien norbait. Zerbitzu hori enpresa batekin kontratatuta dago. Bi hezitzaile ditu enpresak, eta bien artean 60 orduko lanaldia dute udaleko 14 pisuetan lan egiteko. Pisu horietan mantentze-lanak ere egiten dituzte. Era objektiboan begiratuta, ez dirudi denbora asko dutenik, eta horrek lan-karga handiegia ekar diezaike langileei, pisuak erabiltzen dituztenek arreta ona jasotzen dutela sentitzen badute ere. Normalean, astean behin edo birritan bisitatzen dute emakume bakoitza –egoeraren arabera–, baina beharrezkoa bada eta deitzen bazaie, egunero joaten dira. Erakundeetan kudeaketak egitera ere laguntzen diete emakumei.

Pisuetan dauden emakume guztiek nabarmendu dute han egoteko baldintzarik zailena bisitarik jaso ezin izatea dela. Emakume batek kontaktu zuen ebakuntza bat egin ziotela pisu batean bizi zenean, eta ezin izan zela inor joan hartaz arduratzera suspertzen ari zenean. Denek nabarmendu dute gogorra dela bizi duten bakartzea, baina onartzen dute segurtasunagatik beharrezkoa dela inork ez jakitea pisua non dagoen.

**- Bizkaia:** Lurralde historiko honetako udalerrri askok dituzte harrera-pisuak, baina Foru Aldundiaren baliabide bitara joatea erabaki genuen.

Larrialdiko harrerarako zentroa enpresa pribatu batek kudeatzen du. 2004. urteko urritik, indarkeria sexista jasan duten emakumez baino ez da arduratzen. Lehenago enpresa hori bera arduratzen zen gizarte-arazo oso askotarikoak zituzten emakumez. Batzuetan, nahaste horrek gatazkak sortu zituen bizikidetzan, baina gaur egun badirudi egoitza-baliabiderik ez duten eta gizarte-bazterketako arrisku larrian dauden emakume-talde handia dagoela.

Zentroak hamabi pertsonarentzako lekua du, hiru gelatan banatuta; geletako batek bainugela egokitua du, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, eta horren balio-espen oso positiboa egiten dugu. Hala ere, arduradunek onartu dute ezingo litzatekeela hartu autonomia pertsonalik ez duen emakumerik.

Lekua nahiko berria da, eta egoera oso onean dago kontserbazioaren zein garbitasunaren aldetik. Egongela jantoki bat dute –zentroa beterik egonez gero, txikiegia izango litzateke– eta sukalde bat, baina zentroan bizi direnei ematen zaien janaria ez da prestatzen sukalde horretan.

Baliabide horretan langileak daude etengabe. Lan-taldea hamar hezitzailek eta koordinatzaile batek osatzen dute, eta zentroan beti dago baten bat, zentroan inor bizi ez denean ere –gure bisita egin genuenean horixe gertatu zen–, edozein unetan heldu daitekeelako norbait.

Zentroaren helburua larrialdiko kasuetan harrera egitea da, eta, zentroan sartze-ko arauen arabera, tratu txarrak jasan dituen emakumea soilik dago egoera horretan poliziarengana joan denean. Horri dagokionez, Foru Aldundiko ordezkariak behin eta berriro esan zuen ez dela beharrezkoa salaketa egin izana, soilik babesa eskatu izana da ezinbestekoa. Ñabardura garrantzitsua da, baina gogoratu genien emakume batzuk ez zirela inoiz joango poliziarengana, hainbat arrazoiengatik –EAEn 2005ean hil zuten emakumeetako bati hori gertatu zitzaion–. Hortaz, beharrezkoa dirudi arau nagusiaren-tzako salbuespenen bat aurreikustea.

Zentroa kudeatzen dutenen iritziz, ez da inongo arazorik egoten poliziarekin, baina kasuren batean lana bata bestearen teiltuan jartzen egon dira Udaltzaingoa eta Ertzaintza (ibai-ekerraldeko udalerrri batean), eta horrek atzeratu egin du eragindako emakumea zentroan sartzea. Horrez gain, salaketa egiteko ordu asko behar direla ere ikusi dute. Horregatik, proposatu dute zentroan sartzeko betekizuna ez denez, laguntza gauzez ematen denean, salaketa hurrengo egunean idaztea, kontrakoa aholkatzen duten arrazoi espezifikoak daudenean izan ezik.

Zerbitzuaren ezaugarriak direla-eta, harrerak egun batzuk baino ez ditu irauten –gehienez 20–. Egun horietan, emakumeak lasaitzen saiatzen dira, eta prozesu pertsonaleko hurrengo etapetarako prestatzen dituzte. Hezitzaileek erakundeetara ere laguntzen diete (doako laguntza juridikoa, oinarrizko errenta, etab. eskatzera).

Zentrotik irteterakoan, emakumea Bilbon erroldatuta badago, Udaleko epe ertaineko egonaldietarako zentro batean sar daiteke. Horretarako, Emakumearen Zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan. Erroldaren betekizunak arazoak sor ditzake kasu batzuetan (etorkinak...), zenbaitetan ez zaielako erroldan inskribatzen uzten helbiderik izan ezean, edo etxe berean pertsona gehiegi bizi badira, etab. Bestalde, udalaren pisuetan bikotekidearen erasoak jasan dituzten emakumeak baino ez dituzte onartzen –eta ez, esaterako, semearen erasoak jasan dituztenak–. Gainera, salaketa egitea eta babes Agindua eskatzea ere exijitzen zaie. Hona helduta, adierazi behar dugu deigarria dela, oro har, EAEko administrazio publikoek dituzten irizpideetan homogeneotasunik ez egotea, genero-indarkeriatzat zer jotzen den era zehatzean determinatzerakoan eta biktimei esku-hartze publikoa egiteko zein baldintza bete behar dituzten zehazterakoan. Komeniko litzateke irizpide bateratu batzuk ezartzea eta irizpide horiek malguak eta zabalak izatea. Horrela, arreta erraztuko zaie salaketak jartzeko edo poliziarenera joateko zailtasun objektiboak dituzten emakumeei.

2003ko txosten monografikoan zein azken urteko txostenean dagokion atalean (I. kapitulua, 1.1.15), erakunde honek agerian utzi du salaketaren betekizuna bidegabea dela. Logikoa da administrazioak bideak bilatzea emakumeak harrerarako benetako premia duen ala ez egiaztatzeko, baina, era berean, onartu egin behar du salaketa indarkeriaren kontra babesteko tresnetako bat baino ez dela, eta ez dela bakarra ezta eraginkorra ere. Azken batean, zenbait alditan azaldu ditugun hainbat arrazoi direla-eta, behin eta berriro esan behar da bide penala hastea tratu txarrak jasan dituen emakumearen aukera bat dela, eta ezin dela inolaz ere izan emakume horrentzako betebeharra.

Bestalde, larrialdiko harrerarako zentroa Foru Aldundiarena da, eta horren ondorioz, Bilbokoak diren emakumeek gutxienez elkarrizketa bi egin behar dituzte gizarte-zerbitzuarekin (aldundikoekin eta udalekoekin), balioespenak egin ditzaten, baina ez dirudi hori egokia denik. Koordinazio eta lankidetzari handiagoa eskatu behar da zerbitzu bien artean.

Indarkeria jasan duen emakumea Bizkaiko beste udalerrri batetik datorrenean, udalerrri horretan ostatu emateko zerbitzuren bat egonez gero, larrialdiko harrera-zentrotik irteterakoan, printzipioz, hara joan beharko litzateke bizitzera. Hala ere, askotan aukera hori ez da gomendagarria izaten (laguntza behar duelako edo pisua non dagoen bada-kitelako, etab.). Horrelakoetan, tratu txarrak jasan dituen emakumea Foru Aldundiaren epe ertaineko egonaldietarako zentroan hartu daiteke. Hala ere, beharbada komeniko litzateke udalen artean hitzarmenak sustatzea, emakumeek bizitzeko udalerrria aldatu ahal izateko eta, horrela, segurtasun handiagoa eskuratzeko.



Aipatutako epe ertaineko egonaldietarako zentroa gaur egun dagoen lekuan dago 2005eko abuztutik, baina baliabidea duela bi urtetik hona dago abian eta hasieratik kudeatu izan du enpresa pribatu berak.

Zentroak hamar gela ditu (26 pertsonarentzako lekua); geletako bat egokituta dago mugikortasun murriztua duten pertsonentzat –bainugela barne–. Bost bainugela ere baditu, hainbat egongela, hezitzaileentzako bulegoak eta guztientzako bestelako zerbitzuak. Garbi dago eta ondo mantenduta, oraindik altzari batzuk falta diren arren. Normalean, zentroa erabiltzen duten emakumeek egiten dituzte etxeko lan guztiak, janaria izan ezik. Txanda-sistema bat dago eta, arazoren bat dagoenean, taldeko bileretan aztertzen da.

Ikuskatzailea, koordinatzailea, sei hezitzaile, gaueko zaintzaile bi, sukaldaria eta psikopedagogo (lanaldi partzialarekin) dira hango langileak. Hezitzaileetako bik “tutoretza” lana egiten dute zentroan bizi direnekin. Bisita egin genuenean sei ziren, eta horietako zenbaitek umeen ardura zuten.

Ostatua emateaz gain, zentroan emakumeei laguntza ematen saiatzen dira, autonomia osoa lortu dezaten. Zentroaren arduradunek adierazi dute han bizi direnek sarritan dituztela genero-indarkeriari lotutako arazoak eta, batzuetan, gizarte-zerbitzuenganako nolabaiteko mendekotasuna. Hori dela-eta, behaketa-fase baten ostean, pertsonari egokitutako “heziketa-proiektu” bat egiten da, hiru alderdiren artean egindako konpromiso gisa ezartzen dena (emakumea, Foru Aldundia eta baliabidea kudeatzen duen erakundea). Ez bada betetzen, zentrotik kaleratu dezakete emakumea, baina arduradunek esan dutenez, horrelako kasu bakarra egon da hiru urtetan.

Gure iritziz, zentroa erabiltzen dutenei eskaintzen zaien laguntza-lana beharrezkoa da, baina onartu egin behar da askotan zaila dela honakoen arteko oreka bat lortzea: alde batetik, zentroan bizi direnen berezitasunari zor zaion errespetua eta haien askatasuna eta, bestetik, zentroaren barruko antolakuntza (ordutegiak, etab.) eta “heziketa-proiektu” bat betetzeko eskakizuna. Elkarrizketatu genituen emakumeak ez ziren kexatu –batek egin zuen ordutegi-malgutasun handiagorako eskaera alde batera utzita–. Hala ere, ezagutzen dugu honen aurretik egon zen zentroan (erakunde berak kudeatzen zuen) bizi izan zen emakume baten kasua, zentroan sartuta egotearen sentsazioa jasan ezin izan zuena.

Erabiltzaileek seme-alabentzako haurtzaindegi zerbitzua edo antzekoren bat ere eskatu dute. Esate baterako, esaten dute ia ezinezkoa dela umeen eskolekin bateratu daitekeen lana aurkitzea... Hezitzaileen ikuspegiaren arabera, umeak hezteko erantzukizuna amarena da bakarrik, eta erantzukizun hori lortzeko gaitasuna prozesuaren helburuetako bat da.

Zentroan bizi diren emakumeen seme-alabak adinez nagusiak badira, ez dituzte zentroan onartzen. Egia da beste zerbitzu espezifiko batzuk daudela –ez gehiegi adin horretarako–, baina kasu batzuetan banantzea traumatikoegia izan daiteke amarentzat eta seme-alabentzat.

Hezitzaileetako bat legelaria da eta besteak psikologoak. Hortaz, zentroan aholkularitza juridikoa ere ematen da –prozedura judizialen segimendua egiten da; abokatuen arteko koordinazioa, etab.–, baita laguntza psikologikoa ere, asteroko tutoretza indibidualaren bidez.

Bizkaian bisitatu ditugun zentro bietako batean ere ez dago segurtasun-zerbitzurik. Lekua aurkitzen duen erasotzaileraren batekin gatazka egonez gero, poliziari deitu beharko zioten, horrelakoren bat gertatu denean –larrialdietako zentroan–, oso azkar joan diren arren. Epe ertaineko egonaldietarako zentroan, Ertzaintzak emakume jakin

batzuk zaintzeko lanak egiten ditu. Inoiz auto ofizialarekin egin dute –bereizgarriekin–, baina ez dirudi horrela egitea egokiena denik.

- **Gipuzkoa:** Donostian, Udalaren baliabide bitara joan ginen: pisu batera eta Berehalako Harrera Zentroa. Zentro hori 2005eko otsailean jarri zen abian eta enpresa pribatu batek kudeatzen du.

Bara besteaen alboan dauden pisu zabal bik osatzen dute zentroa. Beheko solairuan daude eta, beraz, printzipioz, ez dute oztopo arkitektonikorik, bainugelak egokituta ez badaude ere mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. 13 pertsona hartu ditzake, lau gelatan banatuta. Hiru bainugela ditu eta telebista duten bi egongela handi ere, baina jantoki gisa bietako bat baino ez da erabiltzen oraingoz.

Bisita egitera joan ginen unera arte, zentroan gehienez bederatzi pertsona egon ziren aldi berean (emakumeen eta adingabeen artean). Uneren batean zentroa beteta egongo balitz, hotel batera igorriko lituzkete emakumeak, horretarako hitzarmena baitago.

Berehalako Harrera Zentroa Donostiako emakumeentzat dago pentsatuta. Larrialdietako zerbitzuaren bitartez joaten dira emakumeak zentrora. Hala ere, Foru Aldundiaren maila bereko zerbitzuarekin koordinazioa ezartzen saiatzen ari dira. Izan ere, aldundiak ez du harrerarako zentrorik eta, hortaz, hoteletara igorri behar ditu emakumeak. Inoiz, emakumeak joan dira zerbitzura hiriburutik hurbil dauden udalerrietatik, eta hartu egin dituzte –egun batez edo bi egunez–. Gero, beren udalerriko zerbitzuetara igorri dituzte.

Berehalako Harrera Zentroan hilabete egin daiteke gehienez. Epe horretan pertsona bakoitzari egokitutako esku-hartze plana jartzen da abian. Hezitzaileek lagun egiten diete emakumeei eta haien “euskari emozionalak” izaten dira. Hilabete hori igarota, emakumeak oraindik ostaturik ez badu, epe ertaineko egonaldietarako zentrora pasatzen da (hiru hilabete), eta esku-hartze planarekin jarraitzen du han. Lanean hasten laguntzeko prozesua ere egiten da.

Berehalako Harrera Zentroko langileak ezin dira arduratu zentroan bizi direnen seme-alabez. Hala ere, haien egoera behatzen dute, eta –beharrezkoa izanez gero–, familiar esku-hartzeko zerbitzua arduratzen da horretaz. Babes falta larria izango balitz, Foru Aldundiak esku hartuko luke. Nolanahi ere, hezitzaileek laguntza ematen diete emakumeei, umeen zaintzaren erantzule egin daitezen.

Berehalako Harrera Zentroan sartzeko uneari dagokionez, jarduera-protokolo batzuk egiten ari dira, poliziekin batera. Izan ere, koordinazio-arazoren bat dago oraindik –Ertzaintzarekin gehiago–, batez ere larrialdia gaez gertatzen denean.

Berehalako Harrera Zentroaz gain, pisu bat bisitatu genuen, Donostiako Udalak genero-indarkeriaren biktimentzako dituen bost pisuetatik bat hain zuzen; “*zaharrena*” –azaldu zigutenez–. Mugikortasun murriztua duten pertsonak ezin dira pisura sartu. Emakume bi bizi ziren pisuan, eta bietako batek seme adingabe bi zituen. Arazorik gabe bizi ziren elkarrekin, antza, pisua txikia bada ere.

Elkarrizketatu genuen emakumeak hiru urte lehenago egin behar izan zuen ihes etxetik –EAetik kanpo bizi zen–. Jarraipenak egin zizkieten eta behin eta berriro aldatu behar izan zuen bizilekua. Horren ondorioz, jarduera –eta akats– judizialei buruzkoak ziren haren kexa gehienak eta, noiz edo noiz, poliziari buruzkoak.

Donostiara heldu zenean, izena eman zuen erroldan eta ez zuen arazorik izan pisuan hartu zezaten. Hala ere, oraindik ezin du jaso larrialdi sozialeko laguntzarik.

Langabeziako laguntza bat jasotzen ari zen eta oinarrizko errenta eskatu zuen, baina, haren iritiz, egoera normalean –erasotzaileak ez bazuen aurkitzen–, erraz aurkituko zuen lana. Pisuari gehienez hiru hilabete egin daitezke, baina batzuetan luzapenak onartzen dira, eta hauxe da agian kasu horietako bat.

Gurekin hitz egin zuen emakumea laguntza psikologikoa jasotzen ari zen, eta seme-alabentzako ere eskatu zuen.

Pisuetan dauden emakumeei astean behin lagun egitea eskaintzen zaie (ordu bat edo bi), baina beharren bat egonez gero, hezitzaileei dei diezaiekete edozein unetan.

Etxebizitzak ez du alarma-sistematik, ezta telefonorik ere, baina gurekin hitz egin zuen emakumeak bere telefono mugikorra zuen eta Ertzaintzak emandako beste bat (ez du GPSrik). Bestalde, emakumeari bizkartzaina jartzea aztertzen ari ziren.

### c) **Indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko beste zerbitzu batzuk**

Egindako elkarrizketetan eta bileretan, erakundeek indarkeria sexistari emandako erantzunaren inguruko galdera asko sortu dira. Oso zorrotzak izateko asmorik gabe, lorturiko informazio batzuk aipatuko ditugu:

- **Polizia zerbitzua:** Orokorrean, laguntzan hobekuntza ikusi da, sentsibilizazio handiagoaren eraginez; hala eta guztiz ere, oraindik eta laguntza desegokiko kasuak eta, batik bat, koordinazio ezari (polizia kidego desberdinen arteko koordinazioa, ostatu zerbitzuekiko koordinazioa, etab.) loturiko kasuak daude. Sarrien ikusten den arazoa, hiru lurralde historikoetan, abokatu elkargoen txanda bereziaren konturako laguntza juridikoaren eskaintzarik ezari buruzkoa da (abokatuari babes Agindua eskatuko bada baino ez zaio dei egiten; biktimari Epaitegian lagunduko diola esaten zaio; telefonoaren bidezko laguntza ematen da, abokatuaren presentzia barik, etab.). Akats horrek eragina dauka zenbait udaltzaingotan eta Ertzaintzaren komisaria batzuetan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Sail eskudunak, bestalde, zenbait herritako gizarte zerbitzuek emandako datuak bildu ditu, eta horiek zenbait urratze ikusi dituzte gaiari buruzko “Erakunde arteko protokoloari” dagokionez.

Udaltzaingoez ez dute beharrezko aurrerapausorik eman emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu bilketa bateratzeko orduan; halaber, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ere ez du beharrezko lanik egin, horren inguruko sustapena eta koordinazioa garatzeko. Bestalde, eskaintzen diren heziketa ikastaro urriak ez zaizkio langileria osoari zuzentzen, eta boluntarioentzat baino ez dira. Ertzaintzaren sindikatu batek egindako salaketaren arabera, “*Herrizaingo Sailak agindutako indarkeria sexistari buruzko ikastaroa aginte batzuei baino ez zitzaien eman, eta ez ertzainei eta udaltzainei, baina horietatik dira egunetik egunera biktimekin egon behar dutenak*” (El Correo, 2005-03-07).

- **Laguntza juridikoa:** Genero indarkeria kasuetan laguntzeko ofiziorik txandek Autonomia Erkidego osoan funtzionatzen dute, eta hasieran erabakitako zuzkidura handitu egin da. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargokideek egindako salaketaren arabera, kasu batzuetan zerbitzuak gainezka egiten du, kasuen gorakadak aurreikuspen guztiak gainditu baititu. Arazoak ikusi dira txandaren funtzionamenduan

(ez dago presentziadun laguntzarik, aholkularitza telefonoz egiten da, biktimari epaitegi egokia ezin den adierazteko orduan akatsak egin dira, etab.; kasu batean, bortxaketa bat salatu nahi izan zen, eta abokatua ez zen bertaratu hori “genero indarkeria” ez zelakoan); hala ere, akatsik hedatuena, agian, emakumeei “doako lehenengo laguntzaren” eduki bereziari buruzko informaziorik ez ematea da; dirudienez, erakundeen kanpaina batzuek itxaropen faltsuak sortu dituzte. Bestalde, emakume batzuek esan dutenez, txandako profesionalek tratatu txarra eman zieten; eurek diotenez, profesional horiek ez dute sentsibilitaterik eta ez dituzte ezagutzen indarkeria sexistaren eraginezko egoerak.

Gipuzkoan, arlo honetan lan egiten duten pertsona asko kexu dira 2004aren amaierara arte ibilitako aholkularitza juridikoaren zerbitzua ezabatu dutelako; izan ere, euren ustez, ofizio txandak ez ditu betetzen bestearen aholkularitza eskariak. Hori egia da eta, gainera, herri askotan oraindik ere laguntza juridiko mota desberdinak eskaintzen dira; horiek Abokatuen Elkargoek egindakoarekin batera bizi dira, eta beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, agian, hori guztiz ezabatzeko erabakia ikuskatu beharko du. Aldiz, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizeko Udalak, laguntza juridikoko zerbitzu berezia eskaintzeaz gain, hitzarmena sinatu dute Abokatuen Elkargoarekin, Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko txanda indartzeko; espero dugu hitzarmen horrek berme berriak gehitzea dagoeneko daudenei.

Beste protesta bat, leku askotan egiten dutena, Orientazio Juridikoko Zerbitzuak doako laguntza juridikoa lortzeko eskatzen duen dokumentazioaren konplexutasunari buruzkoa da. Emakume askok esan dutenez, krisi pertsonal sakoneko une batean, ohiko bizilekutik kanpo egonik, ia ezinezkoa da dokumentazio guztia biltzea. Bestalde, zenbait kasutan, doako laguntza juridikoa lortzeko eskubidearen onarpenera nahiko atzeratzen da, eta horrek praktikan arazo asko sortzen ditu.

- **Gizarte zerbitzuak:** Indarkeria jasan duten emakumeen kritikak oinarrizko gizarte zerbitzuetara bideratzen dira batik bat, eta ez zerbitzu espezializatuera. Arazoak, gehienbat, babes agindurik ez dagoenean sortzen dira (adibidez, orain dela urte batzuk indarkeriaren eraginez banandu diren emakumeak; zigor salaketarik egin nahi izan ez duten emakumeak, etab.); izan ere, “genero indarkeriaren biktima” kontzeptuak, administrazio batzuek erabiltzen dutena, oso murrizgarria da. Horri dagokionez, tratatu txarra duten emakumeek, harrerako etxebizitzetan bizi ez direnek, zailtasunak dituzte “oinarrizko errenta” lortzeko. Sarritan, oinarrizko gizarte zerbitzuen txostenak ez dira nahikoak prestazioa lortzeko. Horrek guztiak agerian jartzen du zerbitzuen arteko koordinazio eza handia dagoela, eta horrek kalte egiten die erabiltzaileei. Horrela, ez da zentzuzkoa gizarte zerbitzuek emakume bati laguntza jakina lortzeko egindako balorazioa beste zerbitzu edo administrazio batzuetan aintzat ez hartzea, esaterako, hezkuntzako beka, doako laguntza juridikoa eta abar eskatzeko orduan.

Bestalde, aurrekoei lotuta dagoen baina desberdina den beste gai bat ere aipatu behar da. Kasu batzuetan, txostenean zehar senar-emazteak banantzeko epaien be-tearazpenetan egoten diren atzerakuntzen eraginezko arazoak aipatu dira, batez ere, irabazizkoen sozietatea likidatzeari dagokionez. Sarritan, emakumeei ukatu egiten zaizkie gizarte laguntzak edo doako laguntza juridikoa, teoriarik ez dutelako, eta emakume horiek ezin izaten dituzte euren ondasunak erabili. Bestalde, likidazioa egiten denean, sarritan emakumeak eskudirua kobratzen du, eta beraz, galdu egiten

ditu gizarte laguntzak; hala ere, aldi berean, lorturako dirua ez da nahikoa bizitzeko edo, hain zuzen ere, etxebizitza lortzeko.

Emakumeek arlo honetan egiten dituzten beste kexa orokor batzuk honako hauek dira: gizarte zerbitzuekiko hitzorduetan dauden atzerakadak; gizarte langile batzuen jarrera agintzaileak edo diskriminaziokoak; laguntzen ukapena, “*urrekontua amaitu egin delako*”; elkarrizketa ugariak eta alferrekoak, etab. Erreklamaziogile batzuek, harrerako etxebizitzan bizitzeko erabakia hartu ondoren, esan digute zailtasunak dituztela gizarte laguntzak kobratu arte bizi ahal izateko: “*44 egun egin ditut 150 €-rekin eta esan didate udaleko AES deritzenak agortuta daudela*”.

Erakunde honek badaki zailtasunak daudela laguntza azkarra, eraginkorra eta, aldi berean, indarkeria jasan duten emakumeen duintasunarekiko errespetuzkoa antolatzeko. Hala eta guztiz ere, esan behar da emakume askok, banaka edo taldeetan antolatuta, “erakunde indarkeria” salatu dutela, eta indarkeria hori, berriz, diskurso publikoaren eta jarduketa praktikoen arteko inkoherezietan ikusten da. Gizarte zerbitzuek, batzuetan, adin txikikotzat edo erabakiak hartzeko gauza ez diren pertsonatzat tratatzen dituzte emakumeok, eta horiek kexu dira horregatik. Emakume batek azaldutakoaren arabera, irainduta sentitu zen, gizarte laguntza lortzeko “Gizarteratze Hitzarmena” sinatu behar izan zuelako. “Ohiko” hitzarmena da eta ez dago egokituta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen ezaugarrietara (inoiz ere gizarte bazterkeriako arazoak ez dituzten emakumeen ezaugarrietara). Erreklamaziogilearen ustez, iraingarria da “*guzti-guztia kontatu behar izatea, baita gauzarik barnekoienak ere*”.

#### d) **Indarkeria sexistaren biktima izandako emakumeek etxebizitza lortzea**

Harrerako baliabide publikoetara egindako bisitaldietan (etxebizitzak edo zentroak), indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeak aldi batean halakoetan bizi izaten baitira, ikusi dugu etxebizitza funtsezko baliabidea dela emakume horiek bizitza normalizatura itzuli ahal izateko. Etxebizitza bat lortzea, batik bat ezkontza apurtu ondoren, oso zaila da indarkeria sexistaren biktimak izan diren emakumeentzat, eta zailtasun hori emakumeok sarritan izaten duten kolokatasun laboralari eta ekonomikoari lotuta dago, edo ordura arteko ohiko bizilekutik irten eta beste batera joan behar izateari lotuta. Emakume askok euren etxebizitzak utzi behar izaten dituzte, edo euren ordura arteko etxebizitza komuna saldu behar izaten dute, diru-sarrerarik ez edukitzean ezin izaten baitute horren hipoteka ordaindu.

Halako emakumeei laguntzeko gizarte zerbitzuek (gehienetan, harrerako zentroen edo etxebizitzaren laguntzako langileak, edo oinarrizko gizarte zerbitzuetako gizarte langileak), ikusi ahal izan dugunez, funtsezko informazio eta aholkularitza lana egiten dute arlo honetan. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko informazio eta orientazio eza ikusi dugu, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak tratu txarren egoeratik irtetzen ari diren emakumeei etxebizitza lortzeko eskaintzen dizkien bideei buruz.

Hori dela eta, Sailari jarduketa protokoloari buruzko informazioa eskatu diogu, eta protokoloa honako hau dela bide jarri zen martxan: *Etxebizitza Sailburuordetzak egindako Jakinarazpena, babesturiko etxebizitzaren arloko planari loturiko jar-*

*duketa prozedurari buruz, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat.* Jakinarazpen hori 2005eko otsailaren 3koa da eta udalaren gizarte zerbitzuei zuzenduta dago; horren helburua *genero indarkeria jasan duten emakumeen babes berezirako Babesturiko Etxebizitzaren arloko Jarduketa Plana* jakinaraztea da. 2005eko otsailetik aurrera martxan jarri den plan horretan, hiru formula berezi daude jasota genero indarkeriaren biktimak diren emakumeek etxebizitza lortzeko (Etxebizitza eta Gizartekintza Sailak zuzenean eskainitako etxebizitzak):

1. Alde batetik, emakume horiek **kupo berezi** baten barruan sartuko dira babes ofizialeko etxebizitzen edo etxebizitza sozialen zozketetan, alokairu erregimean. Horretarako, etxebizitza eskabide horiek guraso bakarreko familientzat dagoen kupoan sartuko dira, eta kupo hori bigarrena da kupoen lehentasunean, ezintasun fisikoa duten pertsonen kupoaren atzetik. Etxebizitzarik ez baina epe laburrean etxebizitza arazoa konponduta (euren familia edo gizarte sareekin) duten emakumeentzat pentsaturiko neurria da; horrela, emakumeok itxaron egin dezakete harik eta etxebizitzaren esleipena egin arte. Kasu horretan, Etxebiden izena eman ondoren, kupo horretan sartzean nabarmen handitzen dira zozketan etxebizitza lortzeko benetako aukerak. Emakume horiek alokairuko etxebizitza babestuen zozketetan sartuko dira, kasuan kasuko udalerrietan, 2 urteko aldian, kupo horretan sartzen direnetik zenbatzen hasita, Etxebizitza Sailburuak horretarako emandako salbuespen Aginduaren bidez. Etxebizitza lortzeko bide horrek, gainera, Etxebideko eskatzaileen erregistroan sartzeko baldintza orokorren betetzea salbuesteko aukera ematen du, baita esleipen prozedura arrunta salbuesteko aukera ere, baldin eta etxebizitza beharrezana benetan egiaztatzen bada. Beharrezkoa izango da, nolnahi ere, Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzeko unean, indarkeria sexistaren biktima izatea, eskabidea egin aurreko bi urteetan eta tratu txarrak eman dituen pertsonarekin ez bizitzea. Gure iritziz, gauza ona da Etxebizitza Sailak malgutasuna erakustea, bi alderdi horiek egiaztatzeko moduak onartzean. Hain zuzen ere, kontuan hartuta emakume batzuek blokeaturik gelditzen direla (beldur baitira tratu txarren egilearen aurkako salaketa aktibatzean), oso garrantzitsua da babesteko edo urruntzeko agindua, edo zigor epai judiziala, halakorik egonez gero, indarkeria egon dela egiaztatzeko modu bakarrak ez izatea; egin-eginean ere, halakorik ezean, oinarritzko gizarte zerbitzuen txostena ere nahikoa da.
2. Bigarrenez, **trukearen formularen** bidez, aukera dago etxebizitza lagatzeko, emakumeok horren jabe direnean edo erabiltzeko aukera dutenean, babes ofizialeko beste etxebizitza baten truke. Formula horren helburua beharrezko egoeretan erantzuna ematen da, segurtasun arazoiak erabiliz, eta horrela, bizilekua beste lurralde eremu batean hartzen da. Kasu horretan sartzeko araubidea ere alokairukoa izango da. Neurri honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizartekintza sailak inplementatu egin nahi du Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 64.2 artikuluan horri buruz ezarritakoa. Beraz, epailearen baimena behar da, truke hori martxan jartzeko. Sail horrek, orduan, emakumeak eskainitako etxebizitza alokatu egingo dio Etxebiden etxebizitza eskatzailetzat erregistraturiko

pertsona bati (hutsik dagoen etxebizitzaren alokairurako Bizigune programaren barruan), eta, aldi berean, alokairuko etxebizitza bat eskainiko dio bere etxebizitza laga duen pertsonari.

3. Azkenik, Etxebizitza Sailak **etxebizitzaren esleipen zuzenaren formula** eskaintzen du; horretarako, Sailak duen etxebizitza parke txiki batera jotzen du, larrialdiko egoeretarako parkea, edo Bizigune Programaren barruko etxebizitzetara jotzen du. Bi kasuetan ere, alokairuko etxebizitza bat lortzen da, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailaren agindu baten bidez. Formula hori martxan jartzeko, indarkeria jasan duen emakumeari laguntzeko errekursoaren arduradun politikoak egindako eskabidea beharko da (hau da, alkatea edo zinegotzia, edo Foru Aldundiko organo egokia), eta horrek oinarrizko gizarte zerbitzuko langileak emandako txostena egiaztatu beharko du. Txosten horretan, egiaztatu egin beharko da eskabidea egin duen emakumeak premiazko harrerako udal edo foru balia bideak erabiltzen dituela (genero indarkeria kasuetarako balia bideak); halaber, horietan egoteko aldia amaitu egin dela ere egiaztatu behar da, eta ezin izan dela etxebizitzarik aurkitu. Era berean, gainerako kasuetan bezala, tratu txarrak eman dituen pertsonarekin ez dela bizi egiaztatuko da. Jaso dugun kexa batean, erreklamazio gilea ez zuten harrerako balia bideetan onartu, bere karguan adin nagusiko semea zuelako eta seme horrek buruko gaixotasuna zeukalako. Kasu horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela harrerako zerbitzuen erabiltzailea izateko baldintza malgutu egin behar dela; era berean agerian jartzen du, gure ustez behintzat, kasuak malgutasunez aztertu behar direla, beti ere funtsezko baldintzak egiaztatuz, hau da, genero indarkeriaren biktima izatea eta tratu txarrak eman dituen pertsonarengandik banandu ondoren bizilekurik ez edukitzea. Nolanahi ere, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailak esandakoaren arabera, 315/2002 Dekretuko 2. Xedapen Gehigarriko salbuespen izaeraren aurreikuspena baliozkoa izan daiteke beste formula bat gaitzeko, eta bertan, udal edo foru administrazioak biktimaren laguntza soziala kontuan hartuta eskatu eta egiaztatuz gero, salbuetsei egin daiteke harrerako balia bidean egoteko baldintza, azaldutakoa bezalako kasuetan.

Horiexek dira Eusko Jaurlaritzak indarkeria sexistaren biktimak diren emakumei orain eskaintzen dizkien etxebizitza lortzeko hiru formulak. Horietan guztietan, 315/2002 Dekretuko 2. Xedapen Gehigarria dela bide, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailburuaren Salbuespen Agindua aktibatu behar da, emakume horiei Etxebiden sartzeko ohiko baldintzen salbuespenari estaldura emateko.

Lehen esan dugunez, nolabaiteko informazio edo orientaziorik eza dago, indarkeria sexista jasan duten emakumeen aukerei buruz, bai harrerako balia bideetan aldi batean bizi diren emakumei laguntzeko ardura duten pertsonari, bai balia bideok erabiltzen dituzten emakumei dagokienez; hala eta guztiz ere, Etxebizitza Sailak adierazitakoaren arabera, udalen eta aldundien arduradun politikoei jakinarazpena bidali zaie eta, bertan, plan hau martxan jartzeko jarduketa protokoloa dago jasota. Nolanahi ere, gure ustez, komenigarria da (eta horixe adierazi diegu plana martxan jartzeko ardura duten pertsonari) Etxebizitza sailak informazio hori argi eta modu grafikoan ematea, halako emakumeen laguntzan ardura zuzena duten pertsonari; horretarako, berriro

ere, udaletako eta foru aldundietako zerbitzuetara jo behar da, baita jasotzaileak diren emakumeengana ere. Etxebizitza Sailean esan digute triptiko bat edo informazioko materialen bat zabaltzeko asmoa dutela, eta bertan, aukera horiek guztiak argi azalduta egongo dira. Halaber, garrantzitsua da udal eta foru erakunde horietako zerbitzuek baliabide gehiago jartzea, planaren jasotzaileak diren emakumeei informazio argia eta nahikoa helarazteko, genero indarkeriaren ostean etxebizitza lortzeko dituzten aukerei buruz; izan ere, hori funtsezkoa da bizimodu berria hasteko, eta gainera, orokorrean, emakume horiek bizitza autonomia garatzeko aukera dutela agerian jartzeko modua da. Horretarako, ezinbestekoa da informazioa ondo bideratzea, harrerako aldi baterako baliabideetan (etxebizitzak edo zentroak) dauden emakumeen arretaren ardura duten pertsoneri; horiek, kasu askotan, enpresentzat egiten dute lan ea halako zerbitzuen zeharreko kudeaketa enpresa horiek egiten dute.

Halaber, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailburuak 2002ko ekainaren 14an emandako Aginduko 5. artikuluan ezarritakoaren arabera (babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko prozedurari buruzko agindua), foru aldundiek edo udalek Sailaren sustapen zuzenean dauden etxebizitzaren %10 eskatu ahal dituzte, ikusi diren gizarte beharrian batzuei aurre egiteko. Halako kasuetan, toki edo foru erakundeak etxebizitza sozialaren prezioan lortuko du etxebizitza, eta gero, alokairuan utziko dio beharrian egoera horretan dagoen pertsonari. Hala eta guztiz ere, orain arte, Etxebizitza Sailak emandako informazioaren arabera, udal edo foru administrazioek ez dute mekanismo hori erabili.

Bestalde, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailak emandako datuetatik ondorioztatzen denez, 2005ean, sailak indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeei eskainitako aukera horiek (etxebizitza eskuratzeko aukerak) ondoren adierazitakoaren arabera eta aipaturiko maiztasunarekin erabili dira:



**GENERO INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEMTZAKO ETXEBIZTITZA  
BABESTUAREN ARLOKO JARDUKETA PLANA**

**AGIRIAREN DATA: 06-01-13**

**ALDIA: 2005. urtea**

**1.- JASOTAKO ESKABIDEEN LABURPENA**

**1.A.- KUPOAN SARTZEKO NEURRIA**

ALD.	GAITZIRIZPENAREN ZERGATIAK										ESKATURIKO SALBUESPENA							
	Jasotako eskab.	Tramit.	Kup.	Gaitz.	Bor. ukap.	Bide arunt. laguntza	Helbur. ez	VG+ 2A	Ez VG U.C.	Ez VG-FIN U.C.	Ez FIN U.C.	Etk. beh. ez	Etxeb. dok. ez	Beste batzuk	Data	Errol.	Dinu-sarr.	Ex. dute
ARABA	30	2	15	9	4	2		2	4	2			1	2 esk. ez	7	15	5	1
BIZKAIA	114	54	31	27	2	0	1	8	6	5	4		3	5 esk ez eta dinu-sarr. asko	6	31	7	2
GIPUZKOA	35	12	14	9			1	1	2			4	1	1 esk. ez	2	14	3	
EAE	179	68	60	45	6	2	2	10	11	7	6	4	5	8	15	60	15	3

2005. URTEA

1.B.-ESLEIPEN ZUZENEKO NEURRIA							
ALDIA	LH	JASOTAKO ESKABIDEAK	TRAMIT.	ONETSITA	UKATUTA GAITZIRITZITA	BORON UKAP.	ERAKUNDE ESKATZAILEA
2005. URTEA	ARABA	5	0	3	2		2 Gast. Ud+1 Zuiako Ud.- AFA+1 Laudioko Ud.+ 1 AFA
	BIZKAIA	10	0	5	4	1	5 BFA+4 Bilboko Ud. + 1 Bermeoko Ud.
	GIPUZKOA	3	1	1	1		1 Pasaiaiko Ud. + 1 Zarautzeko Ud. + 1 Tolosako Ud.
	EAE	20	1	9	8	1	

### 1.B.- Jasotako esleipen zuzeneko eskabideak ukatzeko/gaitzirizteko arrazoiak:

ARABAKO LH
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxebizitza lortzeko ezintasuna ez egiaztatzea (eskatzailearen eremuan alokairuko etxebizitzen merkaturia dago eta eskatzaileak baliabide ekonomiko nahikoa dauka gastuari aurre egiteko, irabazizkoen sozietatearen likidazioa ere aintzat hartuta)</li> <li>- Etxebizitza lortzeko ezintasuna ez egiaztatzea (eskabidearen tramitazioan alokairuko etxebizitza aurkitu du)</li> </ul>
BIZKAIKO LH
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxebizitza lortzeko ezintasuna ez egiaztatzea (alokairuari aurre egiteko baliabide ekonomikoak ditu, irabazizkoen sozietatea likidatu ondoren)</li> <li>- Hiru eskabidek ez dute etxebizitza lortzeko ezintasuna egiaztatu (eskabidea egiteko unean alokairuko etxebizitzan bizitzen ari ziren)</li> <li>- Borondatezko ukapena (eskabidea egiteko asmoa jakinarazi baina ez da jaso ondo, eskaturiko dokumentazioarekin)</li> </ul>
GIPUZKOAKO LH
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Borondatezko ukapena (tramitazioan ama gazteentzako ostatu babestuen programa batean sartu da)</li> </ul>

1.C.-BESTE BATZUK							
ALDIA	LH	JASOT. ESKAB.	TRAM.	ONET.	UKAT.	BOR. UKAP.	EDUKIA
2005. URTEA	ARABA	1		1			O.E.VOE etxebizitza esleiturik edukitzea (delitu sexuala)
	BIZKAIA	3		3			2 O.E. Etxebizitza edukitzea eta 1 O.E. diru-sarrerak Leioako Ud. + 1 O.I. titularitate bakarreko ikus-onespena. 3 kasuetan BOE ohiko bidetik esleitzeko
	GIPUZKOA						
	EAE						

2005. urte honetako esperientzia guztiz berria da arlo honetan; hala eta guztiz ere, etxebizitza eskaria, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailak gaituriko formula berezi honen araberako eskaria, dagoeneko handia izan da. Bestalde, komenigarria da toki eta foru administrazioek (tratu txarren biktima izandako emakumeen erlaziorik zuzenena eta berehalakoena dute, eta beraz, arlo honetan sortzen diren beharrianak hurbilagotik ezagutzen dituzte) Sailarekiko erlazio koordinatua edukitzea; behar izanez gero, gainera, emakume horien alokairurako etxebizitzaren ondarea eskuratzeko aukera ere erabil daiteke, 2002ko ekainaren 14ko Aginduko 5. artikulua eskainitako bidea erabiliz (babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko artikulua). Bestalde, ez da ahaztu behar babes ofizialeko etxebizitzaren ohiko lorpenaren barruan, guraso bakarreko familien aldeko bide bat dagoela jasota, eta horretarako, kupoak edo erreserbak sortu dira halako bizikidetzaren unitateetarako, unitate horien arduraren gehienetan emakume bat egoten da. Erreserba hori bigarrena da (ezintasun fisikoaren duten pertsonen zuzendutakoaren atzetik), sustapen bakoitzak errespetatu beharreko erreserben lehentasunean. Jakina, bide hori interesgarria izan daiteke genero indarkeriaren biktimak diren eta euren karguan seme-alabak dituzten emakumeen etxebizitza eskariari aurre egiteko, emakume horiek ordura arteko bizikidetzaren egoera apurtzen dutenean.

e) **Erakundeek indarkeria sexistari emandako erantzunaren inguruko beste alderdi batzuk**

2003ko txosten monografikoan esan dugunez, erakundeek emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzuna errealitate oso aldakorra da, eta bertan, ekimen berriak sortzen dira etengabe, baina horiek beti ez daude ondo koordinatuta eta planifikatuta. Horrenbestez, ezinezkoa da arlo horretan 2005ean egon diren berritasun guztiak azaltzea.

Bide desberdinen bitartez, honako honen berri izan dugu: udal titularitateko harrera etxebizitza berriak ireki dira; mugikortasun urriko pertsonentzako etxebizitzaren bat gaitu da; udal batzuek bilagailuak dituzten sakelako telefonoak eman dituzte; laguntza telematikoko zerbitzuak sortu dira; laguntzako edo informazioko doako telefonoak mar-txan jarri dira; udal jarduketarako protokoloak landu dira; oinarrizko osasun laguntzako profesionalentzako heziketa programak sortu dira, etab.

Bizkaiko Foru Aldundiak esan du 2006an emakumeei laguntzako plan aurrendaria abiatuko duela; plan hori erasoak jasan ondoren etxera itzultzeko edo bertan gelditzeko erabakia hartzen duten emakumeei zuzenduta egongo da. Horren bidez, emakume ho-rien autonomia pertsonala sustatu nahi da, behin betiko banantzea lortzeko edo euren segurtasuna hobetzeko. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak “Larrialdien zerbitzu orokorra” abiatu du; hori ez da indarkeria sexistari loturiko kasuetarako bakarrik, baina nabarmen hobetu du indarkeria hori jasaten duten emakumeen laguntza, batez ere, eraso gauez gertatzen denean; hala ere, lehen esan dugunez, foru erakunde honek ez dauka premiazko harrera zentrorik, eta beraz, emakumeok oraindik ere hoteletan hartu behar izaten dute ostatu.

Atal hau amaitzeko, “*Emakumeen aurkako indarkeriak EAEn duen eraginaren diagnostikoa*” (2005-11-30) deritzon agiri interesgarria aipatu nahi dugu; agiri hori Emakundek aurkeztu du, oraintsu, Eusko Legebiltzarrean. Bestalde, erakundeen arteko Akordioaren jarraipen Batzordeak azterketa bat egin du arartekoak honi buruz egindako txostenaren inguruan: erakundeek emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzua. Bertan, administrazio eta organismo batzuek erakunde honen gomendioei dagokienez egindako jarduketan berri eman dute. Biak ere baliozko tresnak dira erakundeen arteko koordinazioa eta zerbitzuen ebaluazio iraunkorra indartzeko, arartekoaren ustez alderdi horiek ezinbestekoak baitira indarkeria sexista ezabatzeko.

### 3. Administrazioa eta sexuaren arabeko diskriminazioak

Aurreko urteetan bezala, aurten ere ez dira asko izan gure esku-hartzea eska-tzen duten kexak, herri administrazioei zuzenean egozteko moduko diskriminazioei dagokienez. Horien artean, hala eta guztiz ere, aurten ere aipagarria da Iruneko eta Hondarribiako Alardeetako berdintasunezko partaidetzaren eskaria; izan ere, 1996tik hona gure esku-hartzea eskatu da arlo horretan, baina zoritxarrez, oraindik ez dugu emaitza pozgarririk lortu.

Lehenagoko txostenetan, ondo azaldu da bi Alarde horietan emakumeen ber-dintasunezko partaidetzaren eraginez sortu den liskarraren egoera. Lehen ere esan dugu beharrezkoa dela Iruneko eta Hondarribiako udalek bidezko mekanismo guztiak aktibatzea, herriko jaietan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko, eta horretarako, Alardearen antolaketa publikoa egin behar da, emakumeak (kantineren kasuan izan ezik) baztertzen dituzten bi jai horietan esku hartu barik gelditu beharrean, Alardeen antolaketa esku pribatueta egotearen aitzakia erabiliz. Iazko txostenean esan-dakoaren arabera, antolaketa pribatu hori ezin da oinarriztat erabili erakundeek arazoa konpontzeko ezer ez egiteko, kasu honetan urratu egiten baita berdintasun eskubidea; gainera, jaien nahiz kulturaren arloan gauzatzen denez (hiritar guztien ondarea) eta kaleetan ikusten denez (jabari publikoko ondasunak), dimentsio publiko nahikoa dauka

hiritar guztien interes orokorrekoa izateko, eta beraz, zalantzarik gabe, arduradun publikoek guztien eskubideak bermatu behar dituzte.

Hori guztia oso larria da, kontuan hartuta, gainera, udal horiek bertan behera utzi dutela lehen udalaren antolamenduaren tradizio luzea izandakoa, bi alardeen kasuan, saihestu egiten baitute desfiletan emakumeek berdintasunezko partaidetza izateko eskubideari dagokienez duten betebeharra (Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak eta Auzitegi Gorenak bi herri horietarako egindako pronuntziamentuen eraginezko betebeharra.

Eusko Jaurlaritzak gizonen eta emakumeen Berdintasunerako emandako 4/2005 Lege berriak (BL) aurrerapauso handia ekarri behar zuen gai honetan, legezko oinarri berriak sartu baitzituen, udal korporazioek berdintasun eskubidearen inguruan egindako urraketak argitzeko. Erakunde honek horixe adierazi zuen, emakumeen berdintasunezko partaidetzaren (Alardeetan) aldeko taldeek eskatuta egindako txostenean. Ikerketa horretan adierazitakoaren arabera, bi udal horiek, alde batetik, urtero baimena ematen dute emakumeei berdintasunezko partaidetzarako aukera ematen ez dien Alardea antolatzeke, eta bestetik, gainera, ez dute formularik sortu nahi, euren udalerrietako emakumeek herriko jai nagusian parte hartzeko. Hori ez da bateragarria Berdintasunari buruzko Euskadiko Legean ezarritakoarekin.

Bateraezintasun hori, gure iritziz, bi gai desberdini dagokienez gertatzen da. Alde batetik, Alardeen antolaketak baimena ematen duen udal egintzari dagokionez. Baimen hori beharrezko gaitze juridikoa da Alarde tradizionalak egin ahal izateko. Ez dira azaltzen bi ikuskizun horiek eremu publikoetan garatzearen ondorioak; hala ere, ikuskizunok emakumeentzat dituzten diskriminazio ondorioak kontuan hartuta, egintza juridiko hori BLko 3.1 b) artikulua zeharkako diskriminaziotzat hartzen duenaren barruan sartzen da; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko (APL) 62.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, horrek gutxienez zuzenbide osoko baliogabetasun zehapena merezi du. Halaber, BLko 25.1 artikuluko bigarren paragrafoan jarduera kultural batzuk debekatzeko legezko agindua dago, baldin eta jarduera horiek, eremu publikoetan eginik, emakumeei berdintasunezko partaidetza ahalbidetzen ez badiete. Ikuskizun Publikoei buruzko 4/1995 euskal Legeko 10 a) artikulua indartu eta zehaztu egiten du debeku hori, Alardeen gaiari dagokionez, eta beraz, agintaritzaren eskudunari egindako agindu zuzena da, eta agintaritzaren hori, 2/1995 Legeko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udala da.

Bestalde, Berdintasunari buruzko Legeko xedapenen urraketa gertatzen da udalek ezer ez egiteari dagokionez, hau da, herriko jaietan diskriminaziozkoa ez den eremua gaitzeko formulak sortzeko betebeharraren aldetik ezer ez egiteari dagokionez. BLko 3.4 eta 25.1 artikuluetatik ondorioztatzen denez, udal horiek generoko ikuspegia sartu behar dute jaien eta kulturaren inguruan garatzen dituzten politiketan, benetako berdintasuna lortzeko, eta horretarako, beharrezko neurri guztiak hartu behar dituzte. Alarde publikoaren antolaketaren berreskuratzea, hiritar guzti-guztien ondarea osatzen duten jaien berrespentsat, edo behintzat, berdintasunezko Alardea antolatzen dutenei baimena nahiz diru-laguntza ematea, ezinbestekoak dira Legea betetzeko. Udalak inplikazio aktiboa izan behar du, neurri horien bidez, eta beste botere publikoek ere beste horrenbeste egin behar dute, euren eskumenen arabera, eta hori BLko 3.5 eta 3.6 artikuluetatik ondorioztatzen da; lege horren arabera, ekintza positiboko neurriak hartu behar dira emakumeen alde, ordezkapen txikieneko sektorea osatzen dutelako, eta sexuaren araberako estereotipoak

ezabatzeko neurriak ere hartu behar dira. Administrazioak arlo horretan ezer ez egitea (APLko 62.1.a artikuluan jasotako baliogabetasun kasuaren barruko diskriminazio zuzena edo zeharrekoa ez denean) APLko 63. artikuluko baliogabetasun araubideari lotuta dago, eta aurkatu egin daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa (AAJL) arautu duen 29/1998 Legeko 25.2 artikuluan oinarrituz, antolamendu juridikoaren urraketa baita, APLko artikulua horretan ezarritakoaren arabera.

Azkenik, esan dugu Berdintasunari buruzko Legeak nabarmen aldatzen duela udalen zuhurtziarakotasun eremua, herriko jaiak antolatzeari dagokionez; izan ere, bi udalerrri horien oraingo desberdintasunarekin amaitzeko eraginkorrak diren aukerak mugatu egiten dira, gainerako aukera guztiak ez bailirateke zuzenbidearen arabera izango.

Horiexek dira, laburbilduta, bi udalei jakinarazi genizkien ondorioak; izan ere, gure ustez, lege hau indarrean sartzeak indartu egiten zituen udalei geldotasun eta onirizpen jarreraren mantenamendua (Alardearen antolamendu pribatuari eta diskriminaziozkoari dagokionez) ekiditen dieten legezko arrazoiak. Arartekoak bilerak egin zituen bi alkateekin, baina horrek ez zuen balio izan euren jarrera aldatzeko.

Gainera, emakumeek herri bietako alardeetan parte hartzeko dituzten eskubideen ordezkariak 2005ean planteaturiko kexak ikusita, bi udal horiei informazioa eskatu genien, 2005eko alardeetarako zituzten asmoak jakiteko. Hondarribiako Udalak ez zien erantzunik eman geure eskabideei, eta Iruneko Udalak kanpoko txosten juridikoa agindu zuen, eta txosten hori bidali zigun, Berdintasunari buruzko Legeak orain arteko egoerarekiko aldaketa nabaririk sortzen ez zuela dioen tesia berresteko; irizpide horren arabera, udalaren jarrera Legearen arabera da, hau da, diskriminaziozko Alardeko berriazko baimena ematea eta emakumeen partaidetzaren aldeko taldeek egindako eskabideari (Alarde publikoa eta diskriminazio gabea egiteko eskabidea) erantzun egokia ez ematea Legearen arabera da.

Hori guztia kontuan hartuta, erakunde honek, azkenean, gomendio bat bidali zuen bi udal horietara; bi kasuetan ere, Alarde tradizionalaren antolaketarako baimena Berdintasunari buruzko Legea egokitzeko baldintzapean jartzeko eskabidea egin zen, eta, horretarako ezinbesteko baldintzatzat, emakumeen berdintasunezko partaidetza jartzen zen; Hondarribiaren kasuan, partaidetza hori bermatzeko, onartu egin behar da Jaizkibel konpainia mistoak parte hartzea. Gainera, berdintasunezko eremua gaitu behar da, Udalak diskriminaziozkoa ez den alarde publikoa antolatuz. Bi gomendio horietan, gainera, udalek euren erantzukizunak betetzeko eskabidea egin genuen, indarkeriarik gabeko jai giroa bermatzeari dagokionez, emakumeen partaidetzaren aurkako ekintza bortitzak egoten baitira, eta horretarako, hiritarren sentsibilizazio kanpinak aktibatu behar dira urte osoan.

Hala eta guztiz ere, gure esku-hartzearen emaitzak jakinak dira. Iruneko eta Hondarribiako Alardeak berriro ere ikuskizun negargarriak izan dira, emakumeak baztertzeari dagokionez, udal agintarien oniritziarekin. Irunen kasuan, emakumeen partaidetzaren aldeko taldeek, Udalaren laguntza barik, emakumeen eta gizonen berdintasunezko Alardea antolatu dute, modu altruistan, eta gainera, alkateak baimendutako ikuskizun sexista eta ez-demokratikoa ikusi behar izan dute; izan ere, alkateak, Udaletxeko balkoian izandako presentzia sinbolikoarekin, betiko Alardea deritzanaren tropak babestu ditu, eta Alarde horrek emakumeen berdintasunerako eskubidea urratzen du. Hondarribiaren kasua oraindik ere larriagoa izan da; izan ere, herri horretan emakumeen partaidetza defendatzen duten taldeek konpainia misto bakarra antolatzen dute, eta horrek urte

horretan Alardearen hasiera ireki behar zuen, manifestazio eskubidearen arloan Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ezarritako ordutegi eta antolaketa jarraibideak hartu zituelako. Alkateak, kasu honetan, parte hartu zuen Herrizaingo Sailaren erabakiaren aurkako manifestazioan, eta gainera, adierazpen publikoa egin zuen; manifestazio hori, zalantzarik gabe, aurrendaria eta eragilea izan zen, Jaizkibel Konpainiako kideen duintasunaren aurkako jarrera erasokorra sustatzeko, eta hori biharamunean gelditu zen agerian, Alardearen egunean.

Nolanahi ere, erakunde honek eta beste batzuek pronuntziamentu asko egin dituzte, ia hamar urtetan, Iruneko eta Hondarribiako udalek bide guztiak aktibatzeke eta, horrela, erokeria anakroniko horri amaiera emateko; izan ere, halako erokeriek ez dute euskarririk aurkitu behar geurea bezalako gizarte demokratiko batean; gainera, Euskal Herriko hiritarrik gehientzat ulertezina eta onartezina da. Berdintasunari buruzko Euskadiko Lege berriak borondate politikoa dauka, gure gizarteak oraindik ere jasaten duen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunari amaiera emateko; horrenbestez, tresna juridiko egokia eta nahikoa izan behar da sexuaren araberako diskriminazioari aurre egiteko, diskriminazio hori duten leku guztietan.

Koherentzia, erantzukizuna eta Estatu demokratikoaren arrazoiak nagusitu egin behar dira, eta beraz, erantzukizun politikoren bat duten pertsona guztiek beharrezko adostasuna lortu behar dute, urtero emakumeen duintasunaren aurkakoa den ikuskizun hori ahalbidetzen duten baldintzak ezabatzeko; izan ere, ikuskizun horretan hiritarren erdiaren bazterkeria egiten da, emakumeak izatean oinarrituz. Bestela, biztanleek ezintasun sentazioa eta konfiantza ezaren sentazioa edukiko dute, arazoari aurre egiteari dagokionez; hala ere, itxuraz behintzat, horren zama sinboliko itzela txikiagoa da, eta hortaz, soluzioa aurkitzea nahiko erraza izan beharko litzateke, borondate politikoa egonez gero.

Beste emakume batek ere diskriminazio kasu bat aurkeztu digu aurrean; hain zuzen ere, debekatu egin diote Zarautzeko gastronomia elkarte bateko kidea izatea; aukera hori senarra hil ondoren eskuratu zuen, elkarteko estatutuetan jasotako xedapen batean oinarrituz. Kasu honetan, Zarautzeko Udalera jo genuen (erakunde erreklamaziogilea, gainera), eta elkarte horren jardueretarako dirulaguntzak edo bestelako laguntzak ematearen inguruko erantzukizunak aztertzeke eskabidea egin genion. Horri dagokionez, gogoratu egin genion berariazko debekua dagoela diskriminaziozko edozein jarduerari laguntza publikoa ematea, eta debeku hori, berriz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Euskadiko Legean jasota dago. Halaber, aditzera eman genion mugak genituela norbanakoen arteko harremanen arloan esku hartzeke; hala ere, udalak, elkarte horri laguntzaren bat ematen badio, laguntza hori emakume hori kideztat onartzearen baldintzapean jar dezake. Gure jarduketan, berriz, hortxe amaitu zen, eta ez dugu ondorengo beste esku-hartzerik baztertzeko, diskriminazioaren mantentzearen inplikazio publikoa dagoela ikusiz gero. Emakumeak diskriminatzen dituzten elkarte gastronomikoen kasuak hedapen handia dauka Euskadin; gai horren eremua harreman pribatuen eremua izan arren, esan behar dugu erantzukizuna duten herri administrazio guztiek bete egin behar dituztela gure sistema juridikoan jasotako betebeharrak, diskriminaziozko jarduerak edo horiek babesten dituzten erakundeak euskarritzeke eta horiei laguntza emateko modu guztiak debekatzeko. Halaber, ezinbestekoa da botere publikoek baliabide guztiak jartzea gizonen eta emakumeen arteko beste harreman modu batzuk

sustatzeko, berdintasun printzipioan oinarrituriko harremanak, batez ere, kulturaren, aisialdiaren eta jaien arloan.

Ugaoko jaietan urtero egiten den indaba-jan bati dagokionez ere antzeko kasua planteatu zaigu; bertan udalerriko gizonak baino ezin dute parterik hartu. Kasu honetan, jarduera eremu pribatura bideratu behar zen, Udalak esan baitzigun ez zuela zuzeneko edo zeharreko erlaziorik egintza horrekin, egintza norbanakoek antolatzen baitzuten. Hala eta guztiz ere, kexa horrek agerian jartzen du errealitate hori Euskadiko beste udalerrri batzuetan ere egon daitekeela. Horri dagokionez, ikusi behar da ea Euskadiko beste herri batzuetan ere hauxe hedatuta dagoen: udalerrietako hiritarrentzat garrantzizkoak diren ospakizun edo ikuskizun asko diskriminazioz antolatuta egotea (emakumeak argi eta garbi baztertuta), ikuskizunen antolaketa pribatua dela arbuaiatuz. Gure ustez halako ospakizunak ondare publikoak direla esan behar da, herriko jaietan egiten direnean eta herriak udalerrriaren historiarekin edo idiosinkrasiarekin identifikaturiko tradizioak oroitzeko egiten dituenean. Gure iritzian, halako kasuetan, inplikazio publikoa duten mekanismoak aktibatu behar dira, herri horietan dauden emakumeen aurkako diskriminazio jarrerak ezabatzeko, kontuan hartuta udalaren botere publikoek tresna garrantzitsuak dituztela halako ohituren aldaketa sustatzeko, ohitura horiek ez baitira jasangarriak geurea bezalako berdintasunezko kultura demokratiko batean.

Gure esku-hartzea eskatzeko beste kexa batzuk ere aurkeztu dira, sexuaren arabera diskriminazioaren kategoria zabalagoaren barruan sartzeko moduko egoeren ondorioz. Horrela, kultura arloaren barruan, Euskadiko telebista publikoetako kirol programetan emakumeek duten presentzia txikia aipatu da, gizonen presentzia handiari dagokionez. Hain zuzen ere, adibidetzat, Hondarribia-Iruneko emakumeen saskibaloi taldeak izandako garaipenek ETBren programetan izan duten oihartzun txikia aipatu da. Euskadiko erakunde autonomo horri erreklamazioaren berri eman diogu, eta esan diogu kontuan hartu behar dela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeko 25.3 artikuluan ezarritakoa, herri administrazioek emakumeen eta gizonen arteko tratu nahiz aukera berdintasuna (kirol modalitate guztietan) bermatzeko beharrezko neurriak hartu behar izateari buruzkoa; halaber, Lege horretako 26.3 artikuluan ezarritakoa ere bete egin behar da, eta, horren arabera, komunikabide guztiek, euren programazioak egitean, bermatu egin behar dute bi sexuen presentzia orekatua eta irudi anitza. Espedientea oraindik irekita dago, txosten hau amaitu dugun egunean. Hala eta guztiz ere, rolen edo estereotipoen indar handiagoko eremuetan emakumeek egiten dituzten jarduerak modu aktiboan eta positiboan sustatzeko asmoa daukagu, esate baterako, kirolaren arloan, bertan gizarte inertziak gizonen sinbolismoaren eraginpean baitaude oraindik (erreferente bakarra gizonak). Argi dago halako jarduera batek komunikabideetan presentzia handiagoa edukitzeak balio bikoitza duela; alde batetik, errealitate bat islatzen du, eta bestetik, berori sustatzen du; beraz, gure ustez oso garrantzitsua da desberdintasun estrukturalari aurre egiteko, eta, batik bat, arlo horretan dagoen desberdintasunari aurre egiteko.

Emakumeen diskriminazioari loturiko beste kexa bat, izan ere, erantzukizun eta proiektzio publikoa duten pertsona batzuek erabiltzen duten hizkerari buruzkoa da. Kexa horretan planteaturikoaren arabera, Estatuko Legea onartzearen ondorioz (sexu bereko pertsonak ezkontzeko aukera ematen duen legea), erantzukizun publikoa



duen pertsonak, pertsona homosexuali buruz mintzatzean, emakumeak ez zituzten gay hitzaren barruan sartzen, beti erabiltzen baitzuten lesbiana hitza, horiek gay diren pertsonen kategoria orokorraren barruan sartuta ez baleude bezala. Erreklamazioa egin duen emakumeari emandako erantzunean azaldutakoaren arabera, lesbiana hitza erabiltzea gure ustez ez da hizkuntzaren barruko diskriminazioa; aldiz, emakume lesbianen presentzia adierazteko modua da: horiek, bestela, gay kategoria orokorraren barruan sartuz gero (gizartean hitz orokor hori, gero eta gehiago, gizonekin identifikatzen den neurrian) ahaztuta geldituko lirateke. Izan ere, lesbiana hitza mugimendu feministak sarturiko hitza da, hizkera sexistaren aurkako borrokaren postulatuetan oinarrituz, emakume eta gizon homosexualak bereizteko; izan ere, gizon homosexualak estigma sozial handia izan badute, emakume homosexualak (emakumeen sexualitate autonomoa ukatzeko paradigman euskarrituz) isiltasun historikoan eta ezkutuan gelditu dira. Nolanahi ere, oso interesgarria eta esanguratsua da (aditzera ematen baitu gizartean gero eta kontzientzia handiagoa dagoela, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez) erreklamazio honetan hizkuntza aipatzea; izan ere, hiritarrak nekez jabetzen dira hitzek berdintasunetzko gizartea segurtatzeko duten balio adierazkorraz eta sinbolikoaz.

Gizon elkarte bateko burua den beste pertsona batek egindako erreklamazioaren arabera, Emakundek emakume elkarteei soilik emandako dirulaguntzak diskriminatzaileak dira; izan ere, bere elkarteari (emakumeek eta gizonen osaturiko elkarteak) ukatu egin zitzaion eskaturiko dirulaguntza. Kexa hori aztertu ondoren, kasua zehatz jakiteko aukera ematen ez badu ere, esan behar da ez dela berdintasun printzipioa urratu, eta horixe esan genion erreklamazioarekiko. Izan ere, alde batetik, ezin da ahaztu dirulaguntzen emakida herri administrazioen zuzentzerako ahalmenen barruan dagoela; izan ere, administrazioek eurek aukeratzen dituzte ezarritako helburuak lortzeko sustatu behar diren jarduerak, baita lagundu beharreko taldeak ere, helburu horiek lortzeko; kasu honetan, helburua pertsona guztien arteko benetako berdintasuna da. Gainera, jakina denez, Emakunderen helburua gizarte desberdintasunak ezabatzea da eta horiek, batez ere, emakumeek jasaten dituzte; desberdintasun horien ondorioz, emakumeek gizonen baino baldintza txarragoak dituzte bizitzaren arlo guztietan. Helburua lortzeko, zilegia da emakumeen eskubideak sustatzeko eta defendatzeko jardueretarako bakarrik diren laguntzak ematea; halaber, jarduera horiek emakumeek proiektatu, garatu eta, azken batean, protagonizatu behar dituzte; izan ere, hori euren antolaketa sustatzeko eta, horrenbestez, gizartearen barruko bizitzan parte hartzeko modua da. Berdintasuna ez da egoera desberdinei tratamendu bera ematea, hasierako baldintza desberdinak kontuan hartzea eta horiek gainditzeko ahalegina egitea baizik, benetako berdintasuna lortu ahal izateko. Sistema demokratiko guztien oinarritzko printzipio hori Konstituzioko 9.2 artikuluan jasota dago eta, oraintsu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskadiko Lege berriak horren alderdi batzuk garatu ditu.

Azkenik, sexuaren araberako diskriminazioa aztertzeke orduan ezin daiteke etxe barruko lana ahaztu; lan merkatuko sektore horretan emakumeen presentzia baino ez dago, eta lan baldintzek kolokatasun handia dute, gainerako lan sektore guztietan ez dagoen kolokatasuna. Etxeko lana, batez ere, emakumeek egiten dute oraindik ere, bai horiek euren etxeko lana egiten dutelako, bai (azken hori egingarria izan ezean) gizarte osoaren funtzionamendu egokirako oinarritzko beharrezan hori garatzeko ardura beste

emakume batzuk hartzen dutelako, batez ere etxean mendekotasuna duten pertsonak bizi direnean. Testuinguru horretan, kezkarria da etxeko enplegatuak edo langileak diren emakume askoren kolokatasuna, bizitzeko halako lanak egin behar izaten dituzte, beste sektore batzuetako langileen eskubiderik gabe; horrek agerian jartzen du gizarteak oso gutxi baloratzen duela betidanik emakumeek egin duten lan hori. Ia emakumeen monopolioa duen okupazio sektorea denez, esan daiteke emakumeen aurkako zeharreko diskriminazio modua dela, kontuan hartuta bere arauketaren alderdi berezi batzuk (esate baterako, Estatuko araudian lan erlazio berezia jasota egotea) eta lan kontratu arrunta dutenen eskubideekiko berdintasunik eza. Hala eta guztiz ere, gai horrek gainditu egiten du gure esku-hartze eremua, Estatuaren arauketan sartzera baikaramatza, eta beraz, emakume horien oraingo egoera hobetzeko neurriak aipatuko ditugu. Emakundek ikerketa bat egin du oraintsu, etxeko langileek Euskadin duten egoerari buruz; bertan adierazitakoaren arabera, emakume horietariko asko kolokatasun handiarekin egiten ari dira lan, soldatei, lanaldiari eta Gizarte Segurantzaren sartuta ez egoteari dagokionez. Alderdi horretatik, garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak, zehapen eta ikuskapen ahalmenak erabiliz (azken horiek, lanaren eta gizarte segurantzaren arloan, Estatuko ikuskapen kidegoekiko beharrezko lankidetzara eta partaidetzara mugatuta, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Ikuskapena antolatu duen azaroaren 14ko 42/1997 Legean ezarritakoaren arabera) beharrezko neurriak hartzea, enplegataileek langile horiek Gizarte Segurantzaren alta emateko betebeharra kontrolatzeko, baita legezko baldintza guztiak betetzeko ere, soldadari eta lanaldiari nahiz oporrei dagokienez.

#### **4. Emakumeengan eragin berezia duten beste alderdi batzuk**

Generoko ikuspegia aplikatzeko, ezinbestekoa da erakunde honen jardueraren zeharreko irakurketa egitea, emakumeen erreklamaziorik gehien eragiten duten alderdiak nabarmenduz, hau da, generoko dimentsioa duten gaiak azpimarratuz, horien jasotzaile nagusiak emakumeak baitira. Emakumeen gaineko eragin handiagoa azaltzen duten arrazoiak, orokorrean, mendekotasun estrukturalako egoeretan oinarritzen dira, eta mendekotasun hori, berriz, rolen banaketa estereotipatuan euskarritzen da; horrek eragin handiagoa dauka arlo batzuetan, esate baterako, familian, etxean eta mendeko pertsonen zaintzan.

Ondoren aztertuko ditugun alderdiak (arlotan horiekin erlazio naturikoak) honako honi buruzkoak dira: bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa adiskidetzeko arazoak, emakumeek familia harremanetan duten posizio berezia (gizarte sistema osoan duen posizioaren eragilea), mendekotasuna duten pertsonen zaintza eta horren eraginezko beharrian nahiz zailtasun bereziak, baita gizarte bazterkeria ere, pobreziaren feminizazioaren adierazletzat.

Lana eta bizitza pribatua bateratzeko neurriei dagokionez, lehenengo eta behin, esan behar dugu, gure ustez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Euskadiko 4/2005 Legeak ondo jorratu duela gai hori. Izan ere, Legeko 47. artikuluan (gaiari buruzko III. tituluko VI. kapitulua) bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa adiskidetzearen kontzeptua jasotzen da lehenengoz, eta laneko bizitza adiskidetzearen barruan bizitza pribatuko gaiak sartzen dira eta horiek beti ez daude erlazioatuta fami-

liarekin. Horrek edozein pertsonaren giza beharrianen inguruko ikuspegi zabalagoa adierazten du; horiek, horrela, beste pertsona batzuen zaintza zorrotzetik edo familia kontzeptutik bereizita gelditzen dira, familia pertsona guztiak barne hartzen ez dituen unitatetzat hartuta. Norberaren buruaren zaintza aipa daiteke, hau da, bizitza pribatua edo pertsonala, eta beharrian hori ere baloratu eta integratu egin behar da lanaren arloko arauketetan; lanaldia egokitu egin behar da, soberan gelditzen den denbora erabilgarria familiara bideratzea edo ez bideratzea aintzat hartu barik. Hori, gure ustez, aurrerapauso handia da beharrian pertsonalen eta, orokorrean, lanak gure bizitzetan duen funtzioaren integrazioa ulertzeko moduan, beste pertsona batzuen zaintza (batik bat, mendekotasuna duten pertsonak) kontuan hartzearen kalterik gabe, laneko astia eta bizitza pribaturako astia adiskidetzeko neurriak eratzeko orduan. Legezko kategoria berri horren garapena eta aplikazioa ikusi behar dira, baina oraingoz, harrera positiboa egin behar diogu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak orain arte harturiko neurriak, laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko harturikoak, besteen kontura lan egiten duten pertsonen dirulaguntzak ematean oinarritu dira batez ere, pertsona horiek eszedentziako edo lanaldia murrizteko egoeretan sartzen direnean, adin txikiko seme-alabak zaintzeko, baita langabezian dauden pertsonak kontratatzen dituzten enpresa pribatuei dirulaguntzak ematean ere, eta kontratu horien helburua aipaturiko lanaldi murriztapena edo eszedentzia duen pertsona hori ordezte da. Eusko Jaurlaritzak enplegurako laguntzak arautzeko eman duen 329/2003 Dekretuko VI. kapituluan, laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko formula horien baldintzak ezartzen dira. Laguntza horien zenbatekoa Dekretuko 49. artikuluan jasota dago, eta pertsona onuradunaren sexuaren arabera bereizketa egiten da; horrela, gizonentzat ezarritako zenbatekoak emakumeentzat ezarritakoak baino handiagoak dira, familiako eta laneko erantzukizunak adiskidetzeko modalitate horiek erabili ahal izateari dagokionez. Arauketa horren zergatia, bestalde, gizonen familiako erantzukizunetan inplikazio handiagoa edukitzeko ekintza positiboak bultzatzeko ideian oinarritzen da; horrela, etxeko lanetan eta, kasu honetan, seme-alaben zaintzan gizonen eta emakumeen arteko baterako erantzukizuna sustatuko da. Erakunde hauek kezkatuak dabilta tratatu desberdin horren jarraipena ikusita, helburua ez baita lortu, Eusko Jaurlaritzako Sailburuak bere garaian jakinarazi zuenaren arabera, esan baitzuen halako neurriak erabiltzen dituzten pertsona guztien artean %7 baino ez direla gizonak. Horrela, tratamendu desberdina mantentzen da, eta horrek ez dauka justifikaziorik, are gutxiago familiaren modalitate berrien testuinguruan; horiei dagokienez, arau hauek guztiz diskriminatzaileak dira. Hain zuzen ere, titulartzat emakume bat duten guraso bakarreko familiei buruz ari gara (bakarrik dauden amak), baita amak diren lesbianeiei buruz ere, azken horiek arauketa honekin erabateko diskriminazioa dute, bakarrik dauden aitei eta aita diren gay bikoteei dagokienez. Kasu horietan guztietan, ekintza positiboaren arrazoiketa ez da eusten, eta, gure ustez, bikote heterosexualeen kasuan ere ez da eusten, baldin eta, arauak denbora aldi nahiko luzean aplikatu ondoren, tratatu desberdina justifikatzen duen helbururako eraginkorra ez dela egiaztatzen bada. Ez da ahaztu behar ekintza positiboko arauak aldi baterakoak direla, eta tratatu desberdina arrazoi objektiboa eta zentzuzkoa egonez gero baino ez dutela justifikatzen; izan ere, halako arrazoirik egon ezean, legitimitate guztia galdu eta diskriminaziozkoak dira. Beraz, gure iritziz, funtsezkoa eta premiazkoa da arauketa horren eraginkortasunaren ebaluazio objektiboa egitea, helburua lortzen duen ikusteko; gainera, *lege ferenda* eran hartu

behar dira lehen aipatu diren familia modalitate berriak. Gure ustez, baldintza horiek betez gero, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahalik eta lehenen lortuko da, Dekretuan ezarritako laguntzen zenbatekoei dagokienez. Bestalde, autonomoentzat ez dago halako arauketarik, eta horiek ez dituzte halako neurrien hobariak jasotzen, nahiz eta besteen kontura lan egiten dutenen zailtasun berberak edo handiagoak izan, laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko. Komenigarria izango litzateke, araudian egiten diren hurrengo aldaketetan, euren kontura lan egiten dutenei eman beharreko estaldura ere aztertzea, horiek seme-alabak zaintzeko asti gehiago edukitzeko. Halaber, beste batzuetan ere aipatu dugu komenigarria dela, lanaldia murrizteko kasuetan, murriztapen hori bi bikotekideen artean banatzeko aukera ematen duen araudia finkatzea, bikotekide biek ere horren hobariak jaso ahal izateko.

Erakunde honetan gai horri buruz aurkeztu diren kexei dagokienez, funtzio publikoaren arloari buruzko kapituluan ere esan dugu lizentziei eta baimenei loturiko kexa iturri berria finkatu dela; horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa hobeto adiskidetzeko neurrietan sakontzea. Izan ere, toki administrazioaren enplegatu batek aurkezturiko kexak agerian jartzen du hori; emakume horrek lanaldia murrizteko eta malgutzeko eskabidea egin du, adin txikiko alabaren zaintzari aurre egiteko. Enplegatuak asteko lanordu guztiak hiru egunetan sartu ahal ditu, eta horrela, gainerako egunetan alaba behar bezala zaindu ahal izango du. Kexa oraindik ere tramitazio fasean dago; hala eta guztiz ere, Europar garatu diren azken ekimenekin bat etorriz, erakunde hau lanaren antolaketan malgutasun handiagoa sustatzearen aldekoa da, enplegatuen familia beharrezko erantzun egokia emateko. Era berean, funtzio publikoaren arloko beste kexa bat ere jaso dugu; kexa horrek unibertsitateko irakaskuntza sektoreko langile batek aurkeztu du; hain zuzen ere, esaten da EHUK modu irregularrean berresleitzen duela irakaskuntza, amatasunaren eraginezko baimenen eta eszedentzien kasuan, eta berresleitze horrek birtualtasuna kendu ahal die familiako eta laneko bizitza adiskidetzeko neurriei; gainera, kasu batzuetan, sexuaren araberrako zeharreko diskriminazioa ere izan daiteke. Balorazio horixe egin dugu gure iritzipean jarritako kasuan; hala ere, gure esku-hartzeari amaiera eman behar izan genion, erakunde hau sortu duen Legeko 13.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, kexaren helburu bereberekko jurisdikzio errekurtsioa jarri baitzen.

Halaber, emakumeek familia erlazioetan duten eginkizunaren testuinguru zabala-goan, ez dagoen aita edo ama baten izena asmatu beharra (jaioberria edo adopzioan hartutakoa Erregistro Zibilean inskribatzeko orduan) zalantzan jartzen duten bi kexa ditugu, gurasoetarik baten seme-alabatasuna soilik zehaztuta dagoenean. Izan ere, hori 1958ko azaroaren 14ko Dekretuko 191. artikuluan ezarrita dago, eta dekretu horren bidez Erregistro Zibilaren Araudia onetsi da. Bere garaian, artikulua horren helburua datu bat ematea zen, identifikazioaren ondoretarako, guraso bakarrek pertsonaren dokumentazioak (iturazko datuetan oinarrituz) gainerakoen itxura izateko. Hala eta guztiz ere, oraingo gizarte testuinguruan neurri horrek ez dauka zentzurik; lehen agian bai, ezkontzatik kanpoko jaiotzak diskriminatu egiten zirelako. Erakunde honen ustez, itxurazko izenak jarri beharra nekez onar daiteke familiaren indarreko ulermenean (anitza eta heterogeneoa), eta horixe jakinarazi diegu horren inguruko erreklamazioak egin dituztenei. Hala ere, kexa horien tramitazioan xedapen horren erreforma ikusi dugu; erreforma hori, berriz, Erregistro Zibilaren Araudia aldatu duen 2005eko uztai-

laren 8ko 820/2005 Errege Dekretuaren bidez egin da. Erreformaren helburua jaiotza erregistroan inskribatzea da, seme-alabatasun bakarra dagoenean, pertsonen intimitatea babesteko, Erregistro Zibilaren arloan, beste printzipio juridiko batzuekiko koordinazio eta bateragarritasun handiagoa lortzeko, esate baterako, erregistroko idazpenen edukia- ren egitasun eta zehaztasun printzipioekin. Horrela, beraz, amaiera ematen zaio gure testuinguru historikoan batere beharrezkoa ez den eta zentzurik ez duen betebeharrari. Hala eta guztiz ere, eta gai horri lotuta, araudi hori egokitu egin behar da Kode Zibila- ren oraingo erreformaren eraginezko seme-alabatasunetara, kode horrek sexu bereko pertsonen arteko ezkontza ahalbidetzen baitu.

Batez ere emakumeengan eragina duten eta seme-alabatasun erlazioen edo familia erlazioen testuinguruan sartzen diren beste bi gai, izan ere, tutoretza gabetzei (Foru Aldundiak zenbait arrazoiren eraginez egiten dituztenak) eta egitatezko ezkontideei (ezkongabeei) alarguntasun pentsioak ukatzeari buruzkoak dira. Lehenengo gaiari da- gokionez, tutoretza gabetze horiek eragin handiagoa dute amengan aitengan baino, eta horrek agerian jartzen du emakumeek seme-alaben ardura hartzeko orduan oraindik duten protagonismoa. Alarguntasun pentsioak kobratu ezin izateari dagokionez, ora- indik ere emakumeen kexak jasotzen ditugu, eta, horiek diotenez, arauketa horrekin batere babes barik gelditzen dira. Gure iritzian, praktika hori zuzendu egin behar da, behintzat bikotekidearekin bizitzean autonomia ekonomikorik eduki ez duten emaku- meen kasuan; izan ere, horiek erabateko babesik gabe gelditzen dira eta hori ez da bidezkoa, kontuan hartuta emakumeek halako kasuetako ohiko zaintza eginkizunetan izaten duten arduraldi osoa.

Azkenik, aipagarria da emakumeek sistema sozialean mendekotasuna duten per- tsonen zaintzailatzat duten posizio berezia. Aurten ere gauza bera ikusi dugu, hau da, mendekotasuna duten pertsonen zaintzaren ardura emakumeek hartzen dute batik bat. Hori agerian gelditzen da pertsona horiek behar dituzten prestazioei edo baliabideei buruzko gaitan. Gehienetan, kexa horiek emakumeek planteatzen dituzte, batik bat gutxieneko autonomia funtzionalik ez duten edo autonomia hori oso mugatuta duten pertsonen kasuan; esate baterako, adimen mailako ezintasunak edo buruko gaixotasunak dituzten pertsona batzuen kasuan, adineko pertsona batzuen kasuan edo elbarritasun fisiko larriak dituzten pertsonen kasuan. Arlo horretan, Estatuan mendekotasunari buruz proiektatu den legean konfiantza izan behar dugu (parlamentuan tramitazioan); izan ere, horrek hobari handiak ekar ditzake halako pertsonen zaintzaren ardura duten emakume askorentzat. Ikuspegi horretatik begiratuta, EAeko administrazio eskudunek legezko aurreikuspenen inplementazio egokia egiten dutela egiaztatu behar dugu, administrazio horien finantziazio betebeharrak berriei aurre egiteko zuzkidura ekonomikoetarako dagokienez.

Bestalde, beste pertsona batzuei inolako ordain barik emandako laguntza edo gi- zonarekiko mendekotasun posizio bereziari loturiko beste arrazoi batzuk aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailak 2004an pobrezia- ri eta gizarte desberdintasunei buruz egindako inkestan jasotako datuetatik ondorioztatzen denez, pobrezia egoerek eragin handiagoa dute 45 urtetik beherako emakumeek edo bakarrik bizi diren emakumeek osaturiko familietan.

Erakunde honek laster emango duen txostenaren prestakuntzan ikusi dugunez (etxerik ez duten eta bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen oinarritzko beharri- zanez)

eman beharreko erantzunari buruzko txostena), bazterkeria larriko egoeran dauden emakumeen kopuruak gora egin du. Eustatek etxerik gabeko pertsonei buruz 2006an egindako inkestak egiaztatu egin du datu hori. Etxerik gabeko pertsonen profil berriaren ezaugarrietariko bat hauxe da: kalean bizi direnak kasurik gehienetan gizonak izan arren, etxebizitzarik ez duten emakumeen kopuruak gorakada handia izan du. Horien presentzia nabariagoa izaten da eskakizun ertaineko eta handiko baliabideetan, eskakizun txikiko baliabideetan baino. Etxerik gabeko emakume kopuruaren gorakadak hausnarketa eragiten du, etxebizitzarik eta familiakorik gabe kalean dagoen emakume kopuru gero eta handiagoa izatearen zergatiei buruz. Era berean, halako emakumeen beharrezko baliabideak ugaritzeko eta lortzeko beharrezko jartzen du agerian, bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzako baliabiderik gehienak gizonen bideraturik baitaude. Testuinguru honetan, beharrezkoa da egoitza baliabidea, gizarte esku-hartzeko tresnak eta gizarteratze lanean diharduten profesionalak eskaintzea, eta profesional horiek emakumeen beharrezko baliabideetarako (emozionalak, osasunekoak, etab.) profil egokia izan beharko dute; horrela, gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren politikan generoko ikuspegia sartuko dugu.

## **5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Euskadiko Legea, herri administrazioen jarduketak kontrolatzeko parametro berrizat**

### **A. *Kategoria eta tresna juridiko berrien sarrera***

Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruz emandako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (BL) lege aurrendaria da gure lurraldean; izan ere, diskriminazioaren aurkako zuzenbidetik harturiko teknika eta tresna juridikoak jasotzen dira lehenengoz, eta horiek, orain arte, Europar Batasunaren arloan baino ez zeuden garatuta; hain zuzen ere, lan harremanen eta enpleguaren arloan, eta arlo horretan Espainiako estatuan Europar Batasuneko neurrien barne transposizioa dago. Testuinguru horretan, aipagarria da 2002/73/EE Zuzentarauaren garrantzia; horren helburua, izan ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak arlo horretan egindako interpretazio prozesu guztiak jasotzea izan da; gainera, diskriminazioaren aurkako Zuzentaru markoa izan nahi du, eta beraren barruan, zeharreko diskriminazioa eta jazarpen morala nahiz sexuala sartzen dira; halaber, berdintasun printzipioarekiko salbuespenak ezabatu eta, era berean, hobetu egiten ditu bermeen prozedurak (berdintasun printzipioaren jurisdikzio tutoretzari dagokionez) eta zehapen sistema. Estatuaren arloko transposizioa laster egingo da, eta, horretarako, gaur egun, berdintasunari buruzko Estatu lege proiektua tramitatzen ari dira. Berdintasunari buruzko Euskadiko Legearen barruko xedapenek, praktikan, Euskadiko eskumen eremuaren barruan, Zuzentaru horren xedapen batzuen transposizioa eragin dezakete. Horri dagokionez, bazterturik gelditzen dira lanaren arloko eta jurisdikzio tutoretzaren arloko neurriak edo ondoreak; hala ere, zeharka, Berdintasunari buruzko Euskadiko Legearen xedapen askok eragina dute lanaren arloan, betebeharrak sortzen baitituzte enpresentzat eta enplegatzaileentzat.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak lehenago ere zenbait kontzeptu sartu ditu gure antolamendu juridikoan, esaterako, zuzeneko diskriminazioa, zeharreko diskriminazioa (KAE, 145/1991) edo funtsezko bereizketa batzuk, adibidez, babes ekintza, ekintza

positiboa eta diskriminazio positiboa kontzeptuak bereizten dituztenak (KAE, 128/1987); hala eta guztiz ere, jurisprudentzia ekarpen horietariko batzuk jasotzean eta teknika edo kategoria juridiko jakinak berariaz zehaztean (diskriminazioaren aurkako zuzenbidetik jasotako paradigmen arabera), BLk kontzeptu panorama jakina argitzen du, xedapen idatzien bitartez, panorama hori orain arte nahasia izan baita gure sistema juridikoan.

Legeak, nolana ere, kategoria eta teknika berriak egituratzen ditu, berdintasuna lortzeko; horien bidez, bermatu egiten da ararteko honen eskumenekoa den administrazio jarduketan kontrolak eta zaintzak oinarri juridiko zehatza aurkituko dutela, hedapen handiagoa izateko; horrela, erakunde honek, aurrerantzean, herri administrazioei diskriminaziorik ez egiteko esango die (berdintasunaren edo legezko bermearen ulermen liberal formala), eta gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetan sustatzeko eskabidea ere egin ahal izango die (esku-hartze publiko integrala eta aktiboa, batez ere benetako berdintasunaren aurkako oztopoak ezabatzeko; 9.3 EE eta 9.2 EAE). Azken batean, legezko arau horren barruan, Euskadiko herri administrazioei berariaz eskatzen zaie politika publiko guztietan berdintasuna sartzeko eta gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloan politika aktiboak egituratzeko, eta, horren barruan, ekintza positiboak eta planifikazio espezifikoak sartzen dira. Horrela, administrazio arduradunek zerbait egin behar dute diskriminazioa ikusten dutenean (diskriminazio larriak edo zuzenak, eta zeharreko edo ezkutuko diskriminazioak), eta gainera, mekanismo aktiboak artikulatu behar dituzte benetako berdintasun egoera sortzeko. Iruneke eta Hondarribiko Alardeak aipatu ditugu lehen; horiek, gaur egun, agerian jartzen dute Euskadiko erakundeen burugogorkeria: ezer ez eginda edo ikuskizun negargarri horiek sustatuta, emakumeen aurkako diskriminazio egoera onartezina mantentzen dute eta hori bateraezina da Berdintasunari buruzko Legean jasotakoarekin. Horrek agerian jartzen du erakundeek ez dutela gauzak aldatzeko asmorik; horrela, agerian gelditu dira Berdintasunari buruzko Euskadiko Legearen ahultasunaren aplikazioak, legea sortu eta lehenengo urtean.

Ararteko erakundeak administrazio jarduketan kontrola eta zaintza eginkizunak ditu eratzikita, baina baita eskubideak sustatzeko funtsezko eginkizuna ere, berdintasunezko kultura bultzatzeko, eta ez da legalitate formalaren kontrol hutsera mugatu behar. Eginkizun horien erabileran, agerian gelditu da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna errealitate estrukturala dela; gizarte sektore nahiz maila guztietara hedatu eta eragina dauka harremanen arlo guztietan. Zeharkakotasun edo *mainstreaming* kontzeptua ere diagnostiko horren araberakoa da; hori legez ezartzen da, jarduketa publiko guztiak euskarritzen dituen soluzio printzipiotzat edo filosofiatzat. Emakumeen eta gizonen arteko harremanen hierarkia, estereotipoak edo rola, sexuaren araberako eginkizunak, eta emakumeek edo gizonen egindako jardueren balorazio desberdina eta onarpen soziala nahiz ekonomikoa: horrek guztiak deskribatzen duen fenomeno unibertsalak (ez da gure lurralde eremura mugatzen eta horrexegatik dauka halako sustrai handia) eta estrukturalak, zalantza barik, baldintzatu egiten du hiritartasun eskubideen erabateko erabilera. BLk hori guztia aintzat hartu eta arazo estrukturaltzat hartu nahi du desberdintasunaren arazoa. Beraz, gure iritzian, arau hori erreferentziako parametro garrantzitsua da gure erakunderako, adierazitako funtzioak garatzeko orduan.

BLk funtsezko eragina izan nahi du arlo juridiko publikoan, bai barruko antolamenduan eta bai herri administrazioen jardueretan. Hori dela eta, erakunde honen helburua

hauxe da: Euskadiko herri administrazioek arauan ezarritakoa betetzea, Euskadiko administrazioen antolamendua eta *modus operandi* deritzona goitik behera aldatzeko eta, horrela, erabateko berdintasuna lortzeko.

**1. Antolaketa mailako alderdiei** dagokienez, legeak erabiltzen dituen tekniken helburua sektore publikoan berdintasuna ezartzea da, bai dimentsio politikoan eta bai dimentsio ekonomikoan nahiz lanekoan; hau da, azken kasu horretan, herri administrazioan berdintasuna ezarri nahi du, enplegatzaile nagusia eta eredu edo erreferente ekonomikoa baita, lan harremanetan eta enpresa antolaketan. Lehenengo alderdiari dagokionez, BLren barruan jasotako neurri batzuen helburua, izan ere, ordezkapen orekatuaren printzipioa gauzatzea da, eta horretarako, gehienez %40ko kuota ezarri behar da, sexu bakoitzaren ordezkapenari dagokionez, Eusko Jaurlearitarako (*BLko 3. Azken Xedapena*); gainera, herriaren ordezkariaren legegintza ganbera guztietarako zerrenda paritarioak aurkeztu behar dira, hau da, Eusko Legebiltzarrerako eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako (*BLko 4. eta 5. Azken Xedapenak*). Gainera, aipaturiko bigarren dimentsioari dagokionez, arauan jasotako neurrien helburua, izan ere, bi sexuek Euskadiko funtzio publikoan duten ordezkarietan benetako berdintasuna sustatzea da; adibidez, sektoreetan sartzeko lehentasunari buruzko klausularen kasuan, eta bertan, emakumeek ordezkari izateko oso txikia dute: hori funtzio edo enplegu publikoa lortzean eta horren barruko sustapenean aplikatzen da (*BLko 2. Azken Xedapena* eta 20. artikulua). Testuinguru horretan, kontuan hartu behar da Funtsezko Eskubideen Gutun Komunitarioko 23. artikuluan jasotako gaikuntza: *“gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna arlo guztietan bermatuko da, baita enpleguan, lanean eta ordainketan ere. Berdintasun printzipioak ez du ekiditen ordezkari izateko txikiak duen sexuaren aldeko hobariak eskaintzeko neurrien mantentzea edo sorrera”*. Erakunde honek klausula horiek bete egiten direla segurtatu behar du; klausulok, aurrerantzean, enplegu publikoa lortzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautapen prozesuak arautzeko arauetan jaso behar dira, eta hiritarrei helegite zuzenerako aukerak eskainiko zaizkie. Gainera, BLk aldaketak egingo ditu herri administrazioen antolaketan; esate baterako, berdintasun unitate, organo edo erakunde berriak sortuko ditu, eta horien helburua, berriz, administrazioaren jardura guztietan generoko ikuspegia sartzeko da. Horrela, BLko 9-13. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Euskadiko administrazioarako berdintasun unitateak sortuko dira, eta gainera, toki eta foru administrazioetarako berdintasun organismoak sortuko dira, baita administrazioen arteko koordinazioarako organoak ere.

**2. Herri administrazioen jarduerari** dagokienez, BLk tresna asko ditu jardura publikoak zuzeneko edo zeharreko diskriminaziorik ez sortzeko (zuzeneko eta zeharreko diskriminazioaren debekua, BLko 3. artikuluan) eta benetako berdintasuna sustatzeko (EEko 9.3 artikulua eta BLko xedapen batzuk). Azken horri dagokionez, garrantzizkoa da politika eta ekintza publiko guztietan generoko ikuspegia sartu behar izatea, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioaren bidez. Jardura publikoek oraingo errealitate soziala eta ekonomikoa eratzeko orduan duten garrantzi itzela aintzat hartuta, teknika horiek



erabakigarriak izan daitezke, gizarte aldaketa eragiteko eta sustatzeko. Tresna horien artean, euren garrantzia kontuan hartuta, honako hauek aipa daitezke:

- Eusko Jaurlaritzak Autonomia Erkidegorako lau-urteko plan orokorra lantzeko duen betebeharra, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako; plan hori Euskadiko herri administrazio guztiei zuzenduta egongo da, **berdintasun planak edo programak** sortzeko (BLko 15. artikulua). Plan horiek, izaera programatikoa eduki arren, funtsezko erreferenteak izango dira, administrazioei kasu bakoitzean ezarritako helburuen betetzea eskatzeko orduan. Horretarako, oso garrantzitsuak izango dira ebaluazioaren adierazleak; horien bidez, administrazioek planetan ezarritako helburuak betetzearen ebaluazioa egin eta horren emaitzak jakinarazi egingo dituzte. Erakunde honek, beraz, arretaz begiratu beharko dio halako planak sortzeko prozesuari (Euskadiko administrazio guztietan garatu beharreko prozesua), baita horietatik ondorioztatzen diren helburuak betetzeari ere.
- **Administrazio neurri batzuek generoaren arabera duten eraginaren aurretiatzko ebaluazioa**, BLko 19. artikuluan jasotakoa (BLren indarraldi orokorra baino urtebete geroago sartuko da indarrean, eta beraz, 2006-3-3an sartuko da indarrean). Neurri horiek, berriz, ondorengo arauzko garapenaren bidez zehaztu behar dira. Zeharkakotasun printzipioaren aplikazioa da, eta printzipio hori, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko Estrategia Komunitarioan emandako definizioaren arabera, honexetan oinarritzen da: *“berdintasunaren helburua emakumeengan eragin zuzena edo zeharrekoa duten politika guztietan sartzea, eta beraz, politika guztien diseinuan eta aplikazioan aintzat hartu behar dira emakumeen kezkak, beharrianak eta helburuak, gizonen kasuan egiten den bezala”*. Jatorrian, ingurumen gaineko eraginaren teknikatik sortu da eta beraren artikulazioa oraindik ere garatu egin behar da, araudiaren bitartez. Funtsezkoa da teknika horri lotuko zaizkion neurriak zehaztea, baita horren funtzionamenduaren mekanismoak ere. Garatu ondoren, argi dago tresna hori arartekoaren kontroleko parametro garrantzitsua izango dela, eta eragina izango du Euskadiko administrazioen arauzko ahalean; izan ere, BLk teknika horren helburutzat hartzen ditu administrazio egintzak eta arauak, eta horrenbestez, gure iritzian, erakunde honetarako erantzukizun eremu oso zabala planteatzen du, administrazioaren jarduketan berdintasunaren aldagaiaren benetako integrazioa egiten dela egiaztatzeko orduan. Bestalde, lege proiektuak ere irizpide horren arabera ebaluatu behar dira, BLko Hirugarren Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera, eta horretarako, aldatu egin behar da Gobernuaren 7/1981 Legea.
- **Gizonen eta emakumeen gizarte berdintasuna sustatzeko berariazko jarduerak sortzeari** loturiko betebeharrak; esate baterako, berdintasuna sustatzen duten erakundeen sentsibilizazio kanpainak, estatistika, dirulaguntzak eta laguntzak; barne antolamenduan berdintasun plana edo programa duten enpresen kontratazio publikoaren sustapena, eta beste batzuk. Legeak

funtzio desberdinak bereizten ditu, kasuan kasuko eskumen eremuen arabera, Euskadiko herri administrazio publiko desberdinetarako, administrazio autonomikorako, udaletarako eta foru aldundietarako. Betebehar horiek, berriz, **BLko III. tituluan** ezarritako esku-hartze eremuei buruzkoak dira: partaidetza soziopolitikoak (**I. kapitulua**), kultura eta komunikabideak (**II. kapitulua**), hezkuntza (**III. kapitulua**), lana (**IV. kapitulua**), oinarriko gizarte eskubideak (**V. kapitulua**), bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren adiskidetasuna (**VI. kapitulua**) eta emakumeen aurkako indarkeria (**VII. kapitulua**). Horien artean, aipagarria da gizartearen pentsaera eta balioak aldatzea eragiteko betebeharren garrantzia, adibidez, hezkuntza mailako neurriak edo komunikabideen jarrerari loturiko neurriak. Administrazio sektorial batzuetan eragina duten betebehar horiek ez ezik, Euskadiko gainerako administrazioek ere neurriak sustatu behar dituzte, adibidez, sentsibilizazio kanpainak, funtsezko helburu hori lortzeko, eta horrela, berdintasuneko gizarte edukitzeko eta epe ertainean gizarte garaikidearen barruko desberdintasun estrukturalaren adierazpenik gogorrenak ezabatzeko (emakumeen aurkako indarkeria). Berdintasunari buruzko Legeak diagnostiko egokia egin du diskriminazio estrukturalako egoera aipatzea; izan ere, Euskadiko herri administrazioen betebeharren artean, honako hauek aipatu ditu: sentsibilizazio kanpainak egitea edo laguntzak nahiz kontratazio publikoa bultzatzea, berdintasunean eta emakumeen presentzia orekatuaren sustapenean oinarrituriko funtzionamendua eta antolaketa duten erakundeetan. Ararteko erakundeak, aurrerantzean, betebehar positibo horiek bete egiten direla zaindu beharko du, eskakizun hori berria baita Euskadiko administrazioentzat; administrazio horiek, beraz, dagoeneko neurriak hartu beharko dituzte euren funtzionamendu egiturak eskakizun berrietara egokitzeko.

### **B. Legearen eraginkortasuna: arauzko garapena eta eragin zuzena.**

Une honetan ezin daiteke oinarri egokiko ebaluaziorik egin, lege honen aplikazioari eta eraginkortasunari buruz. Izan ere, oraindik urtebete baino ez da igaro Legea indarrean sartu zenetik, eta gainera, funtsezko xedapen batzuk daude lege horren edukiak benetan inplementatzeko (esate baterako, generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren teknikari buruzkoak) eta horien eraginkortasuna denboran diferiturik gelditzen da, 2006ko martxora arte ez baitira indarrean sartuko. Gainera, funtsezkoa da (lege horrek herri administrazio desberdinetarako ezarritako funtzio berrien betetze maila jakiteko) Legearen arauzko garapena nolakoa den ikustea, eta gero, eragile publikoek Legearen edukiak gauzatzeko duten benetako borondatea ere ikusi egin behar da.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, Legearen xedapen askok eraginkortasun zuzena dute eta berehalako aplikazioa eduki dezakete. Horixe gertatzen da, esate baterako, diskriminazio motak zehazten dituzten kategoria berrien kasuan; izan ere, zeharreko diskriminazioaren kontzeptua arau idatzi batean jasotzen da eta hori zuzenean inbokatze aukerak diskriminazio egintzen aurkako defentsa bide berria irekitzen du; gainera, beste modu batera ikusten ez diren diskriminazio moduen debekua eragiten du. Debeku bereziak planteatzen dituzten xedapenen kasuan ere gauza bera gertatzen da, esaterako,

BLko 25.1, 25.2, 26.1, 26.2 eta 30.1 artikuluetan jasotakoak (diskriminaziozko kultura egintzei loturiko debekuak, diskriminaziozko egintzetarako laguntza nahiz partaidetza publikoari loturikoak, komunikabideek egin ditzaketen diskriminaziozko jardueri loturikoak, edo hezkuntzako material sexistak egiteari, hedatzeari edo erabiltzeari loturikoak). Legeak halako diskriminazio moduak lantzeko modua eta horiekiko ezartzen duen debekua oso garrantzitsua da, diskriminazio modu ezkutuen kasuan, adibidez, komunikabide batzuek, publizitateak edo liburu nahiz material didaktiko batzuek emakumei buruz egiten duten tratamendu sexista eta estereotipatua. Erakunde honen ustez, oso garrantzitsua da ezkutuko diskriminazio modu horiek legeetan jasotzea, legezko testu batean jasota agertuz gero aurkatu egin daitezkeelako.

Azken batean, pozik egon gaitzke lege hori promulgatu delako, horren bidez ibilbide berria hasten baitugu; izan ere, diskriminazioaren aurkako zuzenbidea eratzen duten kategoria eta nozio juridikoak argitzen ditu, eta erakunde publikoentzat eta euren funtzio desberdinei dagokienez (kasu askotan modu hertsian) benetako eta eraginkortasunezko berdintasunaren agindua gauzatzen du (Konstituzioko 9.2 artikuluan jasotakoa); erakunde honek horixe erabili behar izan du zenbait kasutan printzipio orokortzat, administrazioen jarduketa eza ikusita. Lehendik ere konstituzio-agindu zuzena zenaren arauketa honek, zalantzarik gabe, erraztu egingo du herri administrazioek sexuen arteko berdintasunaren arloan dituzten legezkotasun mugen ezagupena; gainera, betebeharrak publiko berriko horiek inbokatzeak aukera bermatuko du, eta horrela, hiritarrei horiek zorrotz betetzeko eskabidea egiteko gaitasuna bermatuko zaie, eta ararteko erakundeak beti bultzatuko du gaitasun hori.

## 2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI

Gure Erkidegoan, adinekoak gero eta gehiago dira. Azken urteotako datuek diotenez, sektore hori etengabe hazten ari da, eta, aurreikuspenen arabera, luzaro barik gure Erkidegoan bizi diren bost pertsonatatik batek 65 urte baino gehiago izango du.

Arartekoak arreta berezia eskaini dio pertsona horien egoerari, biztanle kopuruan duten garrantziagatik zein beren ezaugarri eta premia espezifikoengatik. Hori erakusten du hirugarren adinekoen egoitzen gainean egindako ezohiko txostenak (1994. urtean aurkeztu zena), bai eta egoitzakoa ez den laguntzaren gainean egindakoak (1996. urtean aurkeztu zena).

Azken urte honetan beste txosten bat amaitu dugu, hain zuzen, *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: Etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak* izenburua daramana. Uztailaren 28an argitaratu eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion. Geroago, azaroaren 3an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordean eztabaidatu zen.

Txosten mardula da eta datu ugari jaso du. (151 grafiko, 159 taula eta 19 eranskin). Horiek argitaratutako bertsioetan kontsultatu daitezke, euskaraz eta gaztelaniaz, bai eta web orrian: [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net).

Hemen alderdi esanguratsuenak baino ez ditugu nabarmenduko.

Izenburuak dioen bezala, txostenaren **helburua** hauxe da: EAEn adinekoei eskaintzen zaien zuzeneko arreta-sistemaren zerbitzu nagusiak aztertzea -etxeko laguntza zerbitzua, egoitza zerbitzuak eta eguneko zentroak-. Horrekin sistemaren alderdi positiboak nabarmendu, gabeziak zeintzuk diren jakin eta etorkizunera begira jarduteko bideak proposatu nahi dira.

Txostenaren egitura aurreratu genuen iazko ohiko txostenean (ikus 2004ko Txostena, I. kap., 1.2. atala).

Txostena lau atal handitan banatu da eta hemen atal bakoitzaren elementurik garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu. Hala ere, arreta handiena ondorio eta gomendioen kapitulu jarriko dugu; izan ere, kapitulu horretan zehatz-mehatz azaltzen dira egoeraren balorazioa eta gure erkidegoan adinekoei eskaintzen zaien arreta-sistema hobetzeko gomendioak.

## I. ESPARRU JURIDIKOA ETA ESKUMEN BANAKETA

### 1) Indarreko legeria

Txostenak, Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legea onartu eta gero, azken urteotan esparru juridikoan izan diren aurrerapauso garrantzitsuak jaso ditu. Horri dagokionez, hiru arau azpimarratu nahi ditugu:

- 40/1998 Dekretua, gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskaritza arautzen dituena.
- 41/1998 Dekretua, hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzuak arautzen dituena.

- 2002/2000 Dekretua, inoren laguntasuna behar duten adinekoen eguneko zentroak arautzen dituena.

Arau esparru hau osatzeko, beharrezkoa izango litzateke, aldi berean, etxez etxeko laguntza zerbitzuak arautuko lituzkeen dekretu autonomiko bat.

Gizarte zerbitzuen arloan gai garrantzitsu bat argitu gabe egon da denbora luzez, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko eginkizunak mugatzea. Horregatik, oso positiboki baloratu behar da 155/2001 Dekretua onartu izana, gizarte zerbitzuen arloan eginkizunak mugatzen dituena. Dekretu horren onarpenarekin burutu zen Gobernu, foru aldundi eta Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen arteko negoziazio prozesua. Arau horrek bi printzipio nagusi ezartzen ditu:

- eginkizun desberdinak administrazio bakar bati egokituko zaizkio, hasieran behintzat, eta
- foru aldundien eta udalen arteko eskumen banaketaren irizpidea lagundutako pertsonen mendekotasun mailaren arabera izango da.

Hemen aztertzen ari garen gai honetan, lege aurreikuspen horren arabera, adinekoen egoitza eta eguneko zentroak aldundien ardurapekoak dira; berriz, etxez etxeko laguntza zerbitzua, etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko etxebizitzak udalen ardurapekoak dira.

Hala ere, praktikan, eginkizunen mugatze horrek oso aplikazio anitza eta arazotsua izan du oinarritzko gaitan, esate baterako, arretaren finantziazioan.

## **2) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak**

Arartekoa berme erakundea den aldetik, uste dugu sistemaren aurrerapauso garrantzitsuetako bat dela gizarte zerbitzuen, eta zehazki, egoitza arretaren arloan eskubideak aitortzea. Horregatik ematen diogu holako garrantzia gai honi txostenean.

Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen eta Profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutuna lorpen demokratikoa da, eskubide garrantzitsuak jasotzen dituelako, esate baterako, duintasuna, pribatutasuna, konfidentzialtasuna, autonomia, atentzioaren indibidualizazioa edo parte hartzea. Gutuna bultzatzeko ahalegina egin behar da, gizarte zerbitzuen erreferentzia esparru gisa.

## **3) Adineko pertsonen laguntzeko zerbitzuak eskuratzeko aukera**

Egindako ikerketan agerian geratu da desoreka handiak daudela hiru lurralde historikoen artean; izan ere, kudeaketa eredu eta erakundeen aldetiko eskaintza desberdinak daude, edo eskubide eta zerbitzuez baliazterakoan irizpideak eta baldintzak ez datoz bat.

Kezka berezia sortzen duten bi gai daude: batetik, adinekoek laguntza zerbitzuez baliaztzeko aukera izatea, eta, bestetik, finantziazioa.

Adineko bat laguntza zerbitzuez baliatzerakoan, baldintzak eta irizpideak desberdinak dira lurralde historikoen arabera, eta, gainera, gauza bera gertatzen da hiru baliabide asistentzial handiei dagokienez.

– Horrela bada, **etxez etxeko laguntza zerbitzuei (ELZ)** dagokienez:

Arabian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak lurralde historiko osoan norbaiten beharra duten pertsona guztiei laguntza ematen die, eta inoren beharrik ez duten pertsonen kasuan, berriz, Gasteizkoei ez beste guztiei, hiriburukoak udalaren esku daude eta.

Beste lurralde historikoetan ELZko sare bakarra dago: udalek kudeatutakoa. Udal bakoitzak bere araudia aplikatzen du zerbitzua eskuratzeko aukerei eta prezio publikoei dagokienez; ondorioz, Bizkaian eta Gipuzkoan egoera aniztasuna nabarmena da, eta halaxe salatu genuen egoitzetatik kanpoko laguntzari buruz duela hamar urte egin genuen txostenean.

– **Egoitza-zerbitzuei** dagokienez.

Egungo eskumen banaketaren arabera, adierazi dugu norbaiten beharra duten adineko pertsonen laguntzeko egoitzak foru aldundien ardurapekoak direla, eta etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko etxebizitzak, berriz, udalenak. Kasu horretan ere, zerbitzu horietaz baliatzeko baldintzak desberdinak dira lurralde historikoetan:

- Araban eta Bizkaian, eskabidea egiteko, erroldan hiru urtez egon behar da, eta Gipuzkoan, bi urtez.
- Mendekotasun-maila baloratzeko erabilitako bitartekoak ere desberdinak dira hiru lurralde historikoetan; beraz, pertsona beraren kasuan, norbaiten beharra duela esan daiteke lurralde historiko batean eta inoren beharrik ez duela beste batean.
- Bizkaian, hainbat diru-sarrera baino gehiago duten pertsonen ez zaie zentro publiko batera joateko aukerarik ematen.

Baldintza horren ondorioz, arrazoi ekonomikoak direla-eta, lurralde historiko horretan hainbat biztanle zerbitzu publikoa jasotzeko aukera gabe uzten dira; beraz, Arabako eta Gipuzkoako biztanleekiko aldea nabarmena da. Egoera horrek beste ondorio bat ere badauka, ez hain garrantzitsua, baina: sistematik kanpo uzteko eragile gisa diru-sarrera kopurua hartzen denez, gutxienerako sarrera kopurua gainditzen duten pertsonak ez dira Bizkaiko itxaron-zerrendan azaltzen eta, beraz, zerrenda horiek ez dute lurralde historiko horren benetako beharizana islatzen.

#### 4) Zerbitzuen finantziakzioa

Adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen finantziakzioa aztertu beharreko beste puntu garrantzitsu bat da. Kasu honetan, administrazioek, bakoitzaren eskumenen ara-

bera, euren artean egindako banaketa ere kontuan izan behar da, baita erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa ere.

Hemen, berriz ere, lurralde historikoen arabera modu desberdinean planteatzen da administrazioen parte-hartze ekonomikoa, eta erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa dagokionez ere ez dago adostasunik; izan ere, ekarpen ekonomikoen puntua modu desberdinean araututa dago prezio publikoei buruz bakoitzak dituen arauetan.

Luzeegia izango litzateke administrazioaren eta erabiltzaileen ekarpenak lurralde historiko bakoitzean nola planteatzen diren azaltzea; gainera, kontuan izan behar da planteamendua desberdina dela baliabide-motaren –egoitza, eguneko zentroa, etxez etxeko laguntza– eta zentroaren titulartasunaren –publikoa edo pribatua– arabera.

Hala ere, adierazi behar da, kasu honetan ere, hiru lurralde historikoen arteko arauak desberdinak direla, eta erabiltzaileek, jatorriaren arabera, ordaindu beharreko zenbatekoak ere bai.

- Adibidez, egoitza zerbitzuen prezio publiko edo gehienezko tarifa teorikoak Araban baino ia bi bider handiagoak dira Gipuzkoan eta Bizkaian. Hala ere, erabiltzaileen batez besteko ekarpena handiagoa da Gipuzkoan edo Araban Bizkaian baino.
- Eguneko zentroetan ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako prezio publiko edo gehienezko tarifa teorikoa Arabakoaren bikoitza baino handiagoa da.
- Arabako eta Bizkaiko aldundiek banakako zenbait laguntza ekonomiko aurreikusi dituzte, sare publikotik kanpoko zentroetako plazak finantzatzeko; Gipuzkoan ez da horrelakorik aurreikusi.
- Erabiltzaileen ordainketak ziurtatzeko bermeei dagokienez ere, alde nabarmenak daude:
  - Araban zor-aitorpena deritzana aurreikusita dago; hau da, zerbitzua erabiltzen duen pertsonaren ondasunak ez besterentzeko eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin zorra kitatu arte ekonomi edo ondare arloko eskubideei uko ez egiteko obligazioa hartuko da.
  - Bizkaian eta Gipuzkoan ez dago zor-aitorpenik; tarifaren gaineko hobariak aplikatu aurretik ondarea agortu izana eskatzen da.

## 5) Eremu soziosanitarioa sortzea

Gai horri dagokionez, gogoratu behar dugu, garrantzitsua baita, adineko pertsonen laguntzeko tratamendu osoa lortzeko beharrezana dagoela; tratamendu horrek adineko pertsonen osasun nahiz gizarte arloko beharrezanean erantzuteko gai izan behar du. Horri dagokionez, txostenean adierazienez, benetako eremu soziosanitarioa sortzeko aurre-erapausoak ematen jarraitu beharra dago; horretarako ditugu EAEko Plan Soziosanitarioa edo Jaurilaritzaren, foru aldundien eta Eudelen arteko lankidetzaren hitzarmena

## II. EAEN NORBAITEN BEHARRA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO GIZARTE ZERBITZUEK IZAN DUTEN BILAKAERA, EGOITZEN ETA EGUNEKO ZENTROEN EZAUGARRIAK ETA JOERAK

Txostenaren zatirik handiena (III. eta IV. Kapituluak) adinekoen laguntza zerbitzuen analisiari buruzkoa dira. Bi ikuspuntutatik aztertu dira.

- Lehenengo ikuspuntuak zerbitzu horiek 1991-2001 hamarkadan izandako bilakaeraren urrats garrantzitsuenak zeintzuk izan diren azaltzea du helburu. Analisi honetan, aipatutako hamarkadan sistemaren funtsezko alderdietan egon diren joera handiak eta aldaketa handiak islatzea zen garrantzitsua. Aukeratutako denboraldia baldintzatuta dago, bateratutako datuak baitaude gizarte-zerbitzu hauei dagokionez nahiz ekonomia, lan edo demografi arloari begira. Izan ere, Gizarte Zerbitzu, Erakunde eta Zentroen Estatistiketan (GZEZE) bildutako datuak erabili ditugu, aztertutako urteetakoak, baita azkeneko hiru erroldak ere, 91koa, 96koa eta 2001ekoa, biztanleriari dagokionez.
- Bigarren ikuspuntuak egoitzen eta eguneko zentroen egoera deskribatzen du. Deskribapen hori egiteko, 52 egoitza eta 12 eguneko zentro bisitatu ziren 2003an, eta horrela, 2001era arte erakutsitako errealitatearen gaineko irudia osatu ahal izan dugu.

Azalpen honetan datu eta zifra larregi ez ematen ahaleginduko gara, txostenean kontsultatu daitezke eta. Baina txostenean argi azaltzen diren sei joera nabarmenduko ditugu:

1. Euskal herritarren zahartze-tasak gorakada nabarmena izan du. 1991n biztanleen artean %12,4 ziren 65 urtetik gorakoak; 2001ean %17 ziren eta 2010ean kopuru hori %20,5era iristea espero da; gainera, 75 urtetik gorako biztanleak eta adin-tarte horretan ezintasunen bat duten pertsonak nabarmen gehiago izango dira. (ikusi, esate baterako, 155 taula edo 4 eta 5 grafikoak)
2. Adineko pertsonentzako gizarte baliabideak lehen baino nabarmen gehiago dira, baina oraindik proportzioa ez da nahikoa. (ikusi 11 eta 13 grafikoak)  
Azken urteotan adineko biztanleen beharrianak asetzeko ahalegin ukaezina egin bada ere, hasierako egoera oso eskasa zela esan behar da, beraz, baliabideak urriak dira, argi eta garbi, edozein izanik ere alderatzeko erabili daitekeen irizpidea:
  - Euskadiko 1994ko Plan Gerontologikoan aurreikusitakoa baino askoz gutxiago dira oraindik.
  - Autonomia erkidego aurreratuenen azpitik daude.
  - Gure inguruko herrialde europarren estaldura eraginkorretatik oso urrun daude. (ikusi, esate baterako, txostenaren 25. grafikoa)



3. Baliabideen dibertsifikazioa gertatu da.  
Orain arte egoitzen eskaintza ia bakarra izan bada ere –etxez etxeko laguntza eta eguneko zentroak aukera hasiberriak ziren-, azken hamarkadan egoitzaz kanpoko aukera horiek finkatuz joan dira eta beste baliabide batzuk ere abiarazi dira, tutoretzapeko pisuak edo etxebizitza komunitarioak, besteak beste.
4. Titulartasun pribatuko zerbitzuak indarrez sartu dira.  
Adineko pertsoneri laguntzeko zerbitzuaren eskaintza ugaritu izana eskaintza pribatuaren gorakadari zor zaio, neurri handi batean. Izan ere, Euskadiko egoitza guztietatik bi heren pribatuak dira. (ikusi, esate baterako, txostenaren 12. eta 17. grafikoak)
5. Hiru lurralde historikoen artean desoreka nabarmena dago.  
Laguntza-zerbitzuaren eskaintza oso modu desberdinean garatzen da geografikoki: Arabako estaldura onargarria da eta Plan Gerontologikoaren aurreikuspenak betetzen ditu, baina zenbait eskualdetan, Bizkaian, batez ere, estaldura ez da nahikoa. (ikusi 143. grafikoa)
6. Esan daiteke hiru laguntza eredu daudela, bat aldundi bakoitzeko; ereduok ez dira ebaluatu ez alderatu, eta erantzukizunak hartzeko modu eta maila desberdinak erakusten dituzte:
  - Arabakoak sare publiko indartsua dauka eta banakako laguntzak nabarmen hedatuta daude.
  - Bizkaikoa titulartasun publikoko baliabide-eskaintza murriztuan oinarritzen da eta banakako laguntzak nabarmen hedatuta daude.
  - Gipuzkoakoak plaza propioz eta itundutako plazez osatutako eskaintza publikoa dauka.

### III. BALORAZIOA ETA GOMENDIOAK

Txostenaren VI. kapituluak “Balorazioa eta gomendioak” du izenburu. Oraingo honetan, gomendio bakoitzarekin batera balorazioa ageri da eta horrek testuinguruan jartzea errazten du.

Logikoa denez, ez ditugu txosteneko 50 gomendioak azalduko, baina batzuk aipatuko ditugu, garrantzi bereziki hartu ditugun gaiekin zerikusia dutenak, hain zuzen ere. Horrela:

1. Marko juridiko-administratiboari buruz adierazi behar da ezen berau oso ontzat jo dugula baina oinarrizko gizarte zerbitzuak eta etxez etxeko laguntzarako zerbitzua autonomi mailan araupetuz osatu behar dela. Halaber, Gipuzkoan araupetzeko eta ibiltzen hasteko daude gizarte zerbitzuen erregistro orokorra eta foru erregistro orokorra.
2. Zahartze-tasaren igoerari buruz adierazi behar denez:

Aurreikusi ahal dena da 2001 eta 2010 bitarteko epealdian adineko pertsonen gizarte arazoaren gehikuntza erlatiboa 1991 eta 2001 bitartean izandakoaren

antzekoa izatea. Hortaz, beharizanen portzentajea igo da. Gainera, ari garen epealdia laburragoa da eta 2001ean txikitzat hartzeko modukoa izandako estaldura zabaldu behar da. Hori dela eta, datozen urteetan zerbitzuen urteko gehikuntza-erritmoa pixka bat bizkortu beharko da.

Ezgaitasundun adinekoen proportzioak oso gora egin du, egoitzaratutako pertsona guztien gainekoak. Ezgaitasundun adinekoen gutzirakoaren gaineko ezgaitasundun adineko pertsona atendituen proportzioak, aldiz, behera egin du. Horregatik, egoitza-baliabideei dagokienez, are arreta handiagoa jarri beharko da autonomi arazo larriek ukituriko adineko pertsonengan.

Adineko pertsonentzako zerbitzuak planifikatzerakoan, demografi errealitate hau kontutan hartu beharko da.

3. Adineko pertsonentzako gizarte baliabideen portzentajea urria da, beroriek hiru lurrean historikoetan oso gora egin arren. Hori guztia kontutan hartuta adierazi behar denez:

- 2001erako erreferentzi tasa, adineko biztanle atendituen ehuneko hamaikakoa, gutxienez hartu behar da 2010erako proposamenetan. Data horretan iritsi beharko den estaldura modu zorrotzean zehaztekoan, zehazki ikertu behar dira baliabideak eta beharizanak.

2010erako ehuneko hamaikako estaldura gutxienez hartzeko arrazoiak honako datu hauek dira funtsean:

- o Guretik hurbileko herririk gehienek, gizarte zerbitzuak erreferentzi eredu izaten dituztenek 2000 baino lehen gaituta zuten proportzio hori: Danimarkak %31,2; Suediak 16,9; Finlandiak 17,4; Erresuma Batuak 17,6; Austriak 13,7; Frantziak 13,9... Ez da konputatu eguneko zentroen eskaintza herriotako ezeinetan.
- o Arabako Gerontologi Planak, onesteko prozesuan dagoenak, 2010a baino lehen %13ko estaldura globala iritea espero du.
- o EAEko zenbait eremutan (Arabako edo Plentzia bezalako eskualdean, esate baterako) ia iritsi da estaldura hori. Hala ere, ez da uste egoera ona denik.
- o 1993an beharizanak aztertu ziren, zertarako-eta laurogeita hamalauko Plana egiteko. 1993 eta 2010 bitarteko epealdirako aurreikusitako aldaketak handiak dira, ezgaitasundun adinako pertsonen portzentajea talde hori barrutik zahartuko delako igoko da eta arreta-sare informalak eman ahal dizkien zainketak askoz gutxiagotuko dira.
- 2010ean gutxienezko arreta-estaldura izan ledin, egoitza-plazaren eskaintza eritmo azkartxoagoan gehitu beharko litzateke.
- Formalki, 2010ean eguneko zentroen gutxienezko estaldura-tasa zenbatetsirikoa izan dadin, bikoiztu egin behar da 2001eko plaza kopurua.

4. Baliabideak oso dibertsifikatu dira eta horri dagokionez honako gomendio hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Oro har, azken urteetan zehar, askoz hobetu da egoitzetako arreta. Alabaina, iritsitako lorpenak sendotu behar dira, baita egoitza bizitzan eta antolakuntzan egoiliarren eskubideak eraginkortasunez integratu ere.
- Egoitza-zentroen tipologia dibertsifikatu da, eta alternatibak ugaritu dira, hala nola, etxebizitza komunitarioak eta apartamentu babestuak, duela hamabost urte eskas ia ez zeudenak. Guztiarekin ere, egoitza-eskaintzaren egitura oso ezberdina da lurralde batetik beste batera.
- Hobe da Europako beste herri batzuetako hurbileko egoitza-formulak aztertzea, osoko arreta-sistemaren ikuspuntutik bereziki. Osoko arreta-sistema horren bitartez adineko pertsonen beharrianak estali behar dira. Horretarako, hainbat zerbitzu komunitariok era koordinatuan hartu behar dute esku.
- Berririo azertu behar da etxebizitza komunitarioak pertsona autonomiadunentzat zuzendutako baliabide huts gisa jasotzeko egungo joera.
- Autonomia Erkidegoan finkatzen ari den eguneko zentroaren eredua ez dator hurbileko zerbitzuen ohiko ezaugarriekin bat. Izan ere, lurralde eremu zaballegia barnean harturik du, gehiegizko tamaina du eta bere funtzionamendua ez da oso malgua.
- EAEko eguneko zentroen batezbesteko tamaina 25 plazakoa da. Hala ere, baliabide horietan tradizio handia duten herrietan, esate baterako, Belgikan, 5 eta 15 plaza bitarteko gutxieneko eta gehieneko mugak ezartzen dira. Horregatik, hobe da neurri txikiagoak dituzten zentroak aukeratzea. Egin-eginean ere, haien jarduketa-eremu geografikoa zentroak kokatuta dauden aldeetako oinarriko gizarte zerbitzuen eragin-aldera mugatu ahal da horrela. Hori dela bide, egoera zuzendu ahal eta behar da: eguneko zentroen erabiltzailerik gehienek ezin dute beraien auzoan bertan dagoen zentrorara jo.
- Eguneko zentroen neurriak doitu eta jarduketa-eremu geografikoa oinarriko zerbitzuen eragin-aldera mugatuz gero, arazorik garrantzitsuenetakoa konponduko litzateke, garraioarena alegia. Erabiltzailearen egoitzatik eguneko zentroraino antolaturiko garraioko bide-tarte asko luzeegiak dira, beraien batezbesteko iraupena 42 minutukoa da eta muturreko kasuak gertatzen dira: 140 minutuko iraupena.
- Eguneko zentroen zerbitzuen erabilpena malgutu behar da. Ildo horretatik, haiek partzialki eta banakako beharriari egokiturik erabiltzeko aukera modu eraginkorrean bermatzeko behar diren neurriak hartu behar dira.

5. Titulartasun pribatuko zerbitzuak indar handiz sartu direla egiaztatuta honako behar hau nabarmendu behar da:

- Herri administrazioek erakunde pribatuekin gero eta itun gehiago sinatzen dituztelarik, egoera korapilatsu eta problematikoak agertu direla ikusi da; hori dela eta, behar-beharrezkoa da konponbide adostu eta konpromisopetuak aurkitzea. Bi gaiz ari gara, funtsean, hitz egiten; hona hemen gaiok:
  - o Herri erakundeek itundutako plazak finantzatzeko ezarritako gehieneko tarifen zenbatekoa. Haiek finantzatzearekin batera, arretaren kalitateari buruzko eskaerak egin ohi dira. Ukituriko erakundeek esan dutenaren arabera, horrelako eskaerak direla eta, zaila da benetako kostua estali eta gutxieneko enpresa-mozkina lortzea.
  - o Sektore pribatuko langileen alokairu-baldintzak. Izan ere, indarrean dagoen lan-arautegira doitu arren, zenbait kasutan, ez dira autonomia erkidegoko bizitzako kostuarekin bat etortzen, egoitza pribatuen gaineko Estatuko hitzarmena aplikatzen bada bereziki.
- Egoitza-plazak eskaintzen dituzten irabazi-asmodun erakundeek azken urteotan garrantzi handia iritsi dutela eta, publikoa eta pribatua bereizirik tratatu behar dira plangintza egiteko. Beharrezkoa da txostenean hobetsi dugun Euskal Autonomia Erkidegoko egoera-azterketa eta jarduketa plana egiterakoan publikoaren eta pribatuaren artean arteko ezberdintasunak oso kontutan hartzea, bai eskaintzaren eta eskariaren ikuspuntutik bai egoeraren azterketatik eta jarduketa-proposamenetatik etorritakoak.

6. Txosten osoan zehar azaldutako bistako lurralde orekarik ezari buruz zenbait gomendio egin dira:

- Zuzeneko arretarako zerbitzuak, etxez etxeko laguntzarako zerbitzua eta eguneko zentroak eta egoitzazkoak, eskuratzea, egun, arautegi askori lotuta dago. Behar-beharrezkoa da haiek eskuratzeko irizpide bateratuak egiten den zerbitzu motaren arabera ezartzea, dauden lurralde desorekak gutxitze-kotan.
- 155/2001 Dekretuko funtzio-mugaketa ez da hiru lurralde historikoetan berdin aplikatu. Ezberdina izan den aplikazio praktikoa horrek, menpeko pertsonen egindako zerbitzuak finantzatzeari begira, foru aldundien eta udalen arteko gatazkak sorrarazi ditu, zeinetarako konponbideak azkar ekarri behar baitira.
- Pertsona erabiltzaileen ekonomi ekarpenetarako sistemak eta ordainketa bermatzeko sistemak ezberdinak dira menpeko pertsonen begira hiru lurralde historikoen artean, eta udalen eskumeneko zerbitzuei begira udalen artean. EAE osorako, pertsona erabiltzaileen ekarpenak kalkulatzeko irizpide homogeneoak eta ordainketa bermatzeko sistema bakarra ezarri behar dira.

- Estaldura proposatutako eran zabaltzea da erronka nagusia. Horretarako kontutan hartu behar da eskaintzan lurraldeen arabera dauden ezberdintasunak orekatzeko helburua. Erabakiak hartzerakoan, baliabideon erkidego-izaera eta, horren ondorioz, hurbileko zerbitzu izaera errespetatu beharra dago. Horrek esan gura du ezen arreta zerbitzua behar duen pertsonaren bizitza garatzen den gizarte ingurunean eman behar dela, eta ez handik kanpora.

Arreta-estalduretan leku-diferentziak egotea arazo larri-larria da. Horrek dakarenez, gaur egun, mendekotasun-arazoak dituzten eta estaldurarik gehieneko eskualdean bizi diren adineko pertsonak aukera lau aldiz handiagoa dute banakako arretarako gizarte zerbitzuetariko batzuk eskuratzeko, estaldurarik txikieneko eskualdean bizi direnek baino. 5.000 biztanletik gorako estaldura handiko udalerrian bizi diren adineko pertsonak zerbitzuok eskuratzeko aukera ia bederatzi aldiz handiagoa dute 5.000 biztanletik gorako estaldura txikiko udalerrian bizi direnek baino. Arabako estaldura Bizkaikoaren ia bikoitza da.

Jakina denez, hori guztia gure zerbitzuen ibileran nagusi diren unibertsaltasun eta berdintasun printzipioen kontrakoa da.

7. Azkenik, hiru arreta eredu ezberdin daudela argi dagoela, gure ustez, hiru eredu ezberdin-ezberdinok elkarrekin egotearen eragin eta ondorioak aztertu behar dira, foru eskumenen eta lurralde berezitasunetara eta beharrezanetara ondoen doitzen diren alternatibak lege bidez aukeratzearen kaltetan joan barik, berdintasun printzipioaren ikuspegia kontutan hartu eta lurralde bakoitzean praktikan agertzen dituzten arazoak ikusirik bereziki.

\* \* \* \* \*

Honaino, aurten argitaratutako eta aurkeztutako txostenaren laburpena. Ondoren, txostenaren osagarri gisa, ohar pare bat baino ez dugu egingo aztertutako errealitatea bere testuinguruan eta esparru zabalago batean kokatzeko. Horrez gain, etorkizunean horren jarraipena egiteko aukera batzuk aipatuko ditugu.

Lehenengo eta behin, errealitatearen adierazle gisa txostenean erabili ditugun datuen balioaren gaineko gogoeta egin nahi dugu. Hori egingo dugu, baten batek datuen baliagarritasuna zalantzan jarri duelako. Esate baterako, esan dute, gehienbat 2001eko datuak direla eta harrezkero baliabide berri asko sortu dela. Nahiz eta 2003. urtera arteko datuak jaso, egia da txostenean egindako konparazioak, batez ere, 2001. urteari dagozkiola, urte horretakoak baitira esku artean ditugun azken datu bateratuak eta konparagarriak. Egia da ere, zorionez baliabide berriak sortzen ari direla. Baina, aldi berean, biztanleria zahartzen doa, bai eta mendekotasun mailak. Datuen bilakaerak erakusten digu baliabideen hazkunde garrantzitsua dela, orain arte behintzat, baina, hala ere, ez dela nahikoa adinekoei laguntza zerbitzua emateko tasak nabarmen hobetzeko.

Izan ere, eskaintako zerbitzuen tasari dagokionez, ondorio argi bat dago, baina oharkabean pasatzen dena. Datuek diotenez, 65 urtetik gorako 100 pertsonatatik soilik zortzik jasotzen dute erakundeen nolabaiteko laguntza. Hori horrela bada, esan

nahi du, 100 pertsonatik 92 euren baliabideekin edo senideen laguntzarekin bizi direla, eta sarritan horiek ere adin nagusikoak dira. Zorionez, oraindik, gure artean familia babes emalea da, eta horrek kostu handia dakar berarentzat, batez ere, adinekoen “zaintzaileentzat” (gehienetan emakumeak izaten dira). Errealitate hori ez da ia aztertzen txostenean, hori ez da bere helburua-eta, baina ahaztu ere ez da egin behar. Gizarte politikak kontuan izan behar dute; mimatu egin behar dute, horrexek eusten baitu eraikin soziala.

Gogoratu behar da ere, txostenak hiru zerbitzu sakon aztertzen dituela: etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza zerbitzuak. Arrazoi oso garrantzitsuak egon dira zerbitzu espezifiko horiek aztergaitzat hartzeko: batetik, gure erkidegoan hedatuen dauden eta gehien eskatzen diren zerbitzuak direlako; bestetik, oso baliabide garrantzitsuak direlako adineko pertsona bat bere inguruan bizi dadin, nolabaiteko autonomia batekin; baina, ez bakarrik adinekoen kasuan, baizik eta inoren laguntasuna behar duten pertsonen kasuan ere, ostatua eta arreta bezalako oinarritzko premiak betetzen dituen egoitza alternatiba bat eskaintzen dutelako. Beraz, oso zerbitzu garrantzitsuak dira.

Hala ere, adinekoen ongizatean eragina duten beste zerbitzu edo politika batzuk daude, batzuetan beren beregi adinekoei zuzenduta daudenak, eta beste batzuetan herritar guztiei. Hauek dira, esaterako:

- Pentsioen sistema, pertsonen autonomia ekonomikoa bermatzeko beste izan daitekeena edo ez.
- Irisgarritasun edo oztopo arkitektonikoei buruzko politikak. Horiei esker, batetik, norberaren etxebizitza ez da kartzela bihurtzen, eta, bestetik, mugitzeko zailtasunak edo ezgaitasunen bat duten pertsonak zerbitzu publikoak errazago eskuratu ditzakete.
- Osasun sistema eta bere prestazioak.
- Adiskidetze, edo familiei edo zaintzaileei laguntzeko politikak.

Txostenak ez ditu atal horiek aztertu, baina ez dira ahaztu behar, oso garrantzitsuak dira-eta.

Orain arte adierazitakoaren arabera, gure ustez, datozen urteetan, gai garrantzitsuenetan edo Araratekoaren eginkizunarekin zerikusi handiagoa duten gaietan zentratu beharko litzateke jarraipena. Horien artean, hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Estaldura tasetan egon den bilakaeraren jarraipena, horixe baita egin nahi den edozein balorazio orokorraren benetako erronka eta baldintza.
- Oinarritzko zerbitzu batzuk arautu eta hobetzea, esate baterako, etxez etxeko laguntza edo oinarritzko gizarte zerbitzuak...
- Lurraldean araberrako desorekak desagertzen joatea; edo, bestela esanda, ekitate edo aukera berdintasun handiagoa lortzeko urratsak egitea.

Horri dagokionez, gure ustez, inoren laguntasuna behar duten pertsonen buruzko etorkizuneko legea -gaur egun Aurreproiektua dena- aurrerapauso garrantzitsua izan daiteke premiak dituzten pertsona guztiei eskubidez dagokien laguntza bermatu ahal izateko.

### 3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI

Adingabeak eskubidedun subjektuak dira baina, gainera, beren ezaugarriengatik, biztanle multzo bereziki ahula edo zaugarria ere badira, eta bermatu behar zaizkien berariazko eskubideak dauzkate. Horregatik, multzo horrek, Arartekoarentzat, berariazko eta lehentasuneko arreta merezi du.

Arartekoak biztanleriaren sektore horren eskubideen defentsari emandako lehentasuneko arreta, aurten, jarduera ildo desberdinetatik joan da. Nagusiki:

1. Bereziki behartsuak diren, edo zaugarritasun handiko egoeretan dauden adingabe multzo batzuen arazo zehatzak analizatu eta jarraipena egitearen bidetik.
2. Kexak ebaztetik eta berariazko gomendioak egitetik.
3. Ofiziozko jardueretatik, egoera bereziki larri edo gizarte oihartzun handikoen aurrean.
4. Biztanleria sektore honekin lan egiten duten gizarte eragileekin, elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean aritzetik.
5. Beren eskubideen kultura hedatzetik.

Atal honetan 2005ean, haien eskubideen defentsan burutu diren jarduera nagusiak laburbildu nahi izan dira, goian esandako jarduera ildoetako bakoitza bereiztuta. Gainera, azkeneko puntu batean aurreko urteetan egindako hainbat gomendio, lege edo araudien bidez garatu behar zirenak, ekarri dira gogora.

### **SEKTORE BEREZIKI ZAURGARRIEN ARAZOEN AZTERKETA ETA JARRAIPENA**

Adingabeen multzoaren barruan, aldi berean, beren eskubideei dagokienez arrisku bereziak dituzten azpi-multzo edo sektoreak daude. Ararteko erakundeak lehenetsi ditu eskaini die behartsuagoak diren edo premia bereziak dituzten haur eta nerabeen sektore horiei. Batez ere lan monografikoak eta ezohiko txostenak eta horien inguruko jarraipena eginez bideratu du arreta hori. Horrela, aurten, jarraipena, batez ere, ondoko zazpi sektore hauetara xedatu da:

- 1) haur eta nerabe babesgabeak (arrisku eta babesgabezia egoerak);
- 2) bakarrik dauden adingabe atzerritarrak;
- 3) adingabe lege-hausleak (neurri judizialen mende daudenak);
- 4) sasoikako langileen seme-alabak (eskolatu gabe daudenak);
- 5) hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak;
- 6) haurrak eta nerabeak, buruko gaixotasun arazoak dituztenak;
- 7) atxilotutako adingabeak: atxilotetaren baldintzak.

Lehen esandako zazpi sektore horiez gain, azkeneko urtean zenbait jarduera burutu dira, horiek bezain zaugarriak diren beste egoera edo sektore batzuekin lotuta: eskolatutako adingabe atzerritarrak, ijitoak, eskola jazarpena, sexu gehiegikeriak... Berariazko atal batean jaso ditugu, hemen (8).

Agerian jarriko den moduan, esandako sektore horietan guztietan ezin izan da jarraipen berdinek egin. Zenbait kasutan (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan), aurreko txosten monografiko xehatua egin da; beste batzuetan, berriz, jarraipena administrazio eskudunei informazioa eskatzera, edo ofiziozko bisita edo jarduera batzuk egitera mugatu behar izan da.

Azkenik, lehenengo bloke honi bukaera emateko, sektore bakoitzean zeharreko ibilbidearen amaieran, hemen (9. atalean) gogoeta orokorrago batzuk aipatu ditugu, denei ukitzen baitiete, gehiago ala gutxiago.

## 1) Familiaren babesik ez duten haur eta nerabeak

### A) Aurrekariak

Ararteko erakundeak ezohiko txostena atera zuen, babesik gabeko haurren eta nerabeen arretari buruz, 1997ko irailean.

Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (lurralde historiko bakoitzetik 50), eta gure Erkidegoan sasoi hartan zeuden 63 arreta zentroak ikustera joan ginen. Txostenak, ondorio modura, aztertutako alderdi asko hizpide zituzten 42 gomendio zehatz proposatu zituen:

- adingabeen babesari buruzko lege esparruari eta eskumenen banaketari buruz;
- zerbitzuen sarean lan egiten duten profesional desberdinei buruz;
- norbanakoen beharrei erantzuteko egitarauari buruz;
- igarpen, erabaki, parte hartze, ikuskapen eta abarretako prozedurei buruz;
- egoitza zerbitzuen antolakuntza eta funtzionamenduari buruz;
- zerbitzu horien kontrolari eta ebaluazioari buruz...

Bai txostenean bertan, bai ondorengo jarduketetan ere, nabarmen hobegarriak diren alderdiak edo lehenesten diren beharrak aipatzeko orduan, gure erakundeak honako hauek azpimarratu ditu, bereziki:

- araudi erkide bat behar da, arretarik gabeko adingabeen arretaren funtsezkoa alderdiak arautzeko, gure Erkidegoaren multzoan;
- litezkeen erantzun desberdin guztiak baliatu behar dira (familietako harrera, premialdietako zentroak, eguneko zentroak...);
- lurralde historiko desberdinen artean erakundeek ematen dituzten erantzunetan alde handiak igarri dira;
- babesgabezia egoerak igartzeko mekanismoak hobetu behar dira;
- oinarriko gizarte zerbitzuak, hezitzaile espezializatuak eta komunitateko beste zerbitzu batzuek harremanetan eta koordinatuta egon behar dute;
- irteerako, beren jatorrizko edo gizarte autonomiako esparruetan gizarteratzeko egitarauak;
- haur eta nerabeek eta beren familiek parte hartzeko mekanismoak erraztu behar dira;



- beren zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldioroko kontrola bideratu behar dira.

Txostena aurkeztu zenetik, urtero-urtero, gure erakundeak egoeraren jarraipena egin du, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail edo erakunde eskudunen aurrean, aldioroko bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostenetan, urtero-urtero, jarduera horien emaitza laburtu da (ikus. I. kap., 1.1.5. atala).

Gainera, duela lau urte, txostena egin zenetik nahikoa denbora joan zela iritzita, eta haurrak babesteko behar eta politiketan izandako aldaketak kontuan hartuta, ahalegin berezia egin zen informazioa eguneratzeko eta, horrela, gauzak zelan joan diren eta zer lortu den baloratu ahal izateko. Horretarako, egindako bisitez gain (batez ere bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako eta jokabide arazo larriak dituzten nerabeentzako zentroetara), administrazio eskudunetako bakoitzarengana jo genuen, eta informazio xehatua eskatu genien, ondoko atalei buruz:

1. Urtebetetik gorako indarraldia duten plan eta egitarauak, familietan esku hartzeari, bitarteko zerbitzuei, familien banaketei eta babes sistematik irteteari buruz.
2. Arreta zuzeneko lantalde teknikoetan, profesioaletan eta lantaldeen arteko koordinazioan sartutako aldaketa esanguratsuak.
3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketa esanguratsuak (batzorde teknikoak, erabakitzeko organoak...).
4. Arrisku eta babes gabezia egoerak igartzeko sartutako hobekuntzak.
5. Hartutako adingabeen bizikidetzara arauak eta parte hartzeko eta kexatzeko mekanismoak finkatzea.
6. 2000 eta 2001 urteetako espedienteen eta artatutako biztanleen datuak.
7. 2000 eta 2001 urteetako familien bereizketen babes neurrien gaineko datuak (egoitzetako harrerak, familietako harrerak, adopzioak...).
8. Nazio eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
9. Egoitza zerbitzuen sarearen datuak, tamainaren, titularitatearen, edo zentro bakoitzaren zereginaren arabera.
10. Zerbitzuen eta egitarauen funtzionamendua ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzera begira sartutako hobekuntzak.
11. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboari buruzko berariazko datuak.

Zenbait ataletan, eskatutako informazioa datu kuantitatiboetan edo adierazgarrietan zehazten da, hasierako txosteneko datuekin konparazioak egiteko moduan, gauzak zelan bilakatu diren ikusteko. Jasotako informazio piloa 2001eko txostenean islatu zen, laburtuta, lurraldez lurralde. Gainera, gogoetako amaierako atal batean, ondorio, joera eta alderdirik aipagarrienak jaso ziren (ikus. 2001eko txostena, 1.1.5 atala). Aipatutako txosten horretan xeheki jaso eta aztertutako datu orokor horiek alboratuta, azkeneko urteotan, gure erakundearen arreta eta jarraipena, bereziki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrengana bideratu dira.

Gainera, iaz, Arartekoak lehentasunezko arreta eta jarraipena eskaini zizkien zenbait egoera bereziki larriri, hala nola, J.C. nerabeak Hondarribian bere buruaz beste egin izanari, eta babes zentro batetik ihes egindako bi neraberen hilketari. Horren guztiaren berri aurreko txostenean eman genuen (ikus. 2004ko txostena, I. kap., 1.1.5. atala).

## B) Azkeneko urte honetako jarraipen jarduketak nagusiak

Azkeneko urte honetan, hurrengo atalean landuko dugun bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko txostena eta jarraipen zereginak albo batera utzita, Arartekoaren esku hartzeak oso arazo zehatz bat izan du jomugan; ez da oso gai ezaguna eta, ziurrenik, gehituz joango da edo gehituz joan daiteke: **beren amek jasandako tratu txarrek zuzenean eragiten dieten adingabeen berariazko arreta.**

Gai honi buruzko hasierako informazioa lortzeko, Ararteko erakundeak, ofizioz, hiru foru aldundietako arduradunengana jo zuen, eskaera irekia luzatuz. Ekarpinak eskatu zitzaizkien, ondokoak bezalako gaiak aritzeko:

- Amak tratu txarren ondoriozko hiltzeraino heldu zaizkien adingabeen kopurua azkeneko urteotan zelan bilakatu den.
- Zenbateraino ari diren halako egoerak erakundeen zaintza edo tutoretza neurriak eskatzen.
- Zer mekanismo dagoen halakoak igarri eta berehala erantzuteko.
- Zer egitarau, zerbitzu edo ekimen dauden, adingabe hauen egoera hobetzera edo ondore okerrak gutxitzera beren beregi zuzenduta.
- Zer irizpide izan dezaketen –izatekotan, eta irizpide orokorrez gain- haurrentzako zerbitzuek halako egoerei heltzeko.
- Zer proposamen irizten dieten komenigarri, Sail bakoitzaren ikuspegitik, etorkizuneko erantzunak hobetzeko...

Zergatik luzatu genuen hain informazio eskari irekia? Besteak beste, gaia zaila delako, eta gaiari orokortasunetik heldu nahi geniolako. Kontuan izan egoerak oso desberdinak izan daitezkeela, baita adingabeentzako oso ondorio desberdinak ekarri ere, adinaren, familiarekin dauzkaten harremanen, edo zer harreman ukituta geratu diren, zer babes gabezia edo arrisku egoera sortu diren arabera... Bestalde, egoera jakin batzuk –adibidez, jasan duen indarkeriaren ondorioz amarik gabe geratu diren adingabeen kasuan– bereziki zailak gerta daitezke beren beharretarako erantzunik egokiena artikulatzeko orduan.

Apirilean eta maiatzean hiru aldundien erantzunak jaso ziren, gutxi gorabeherako zehaztasunezko argibideekin baina, datu batzuk konparagarriak ez izan arren, arazoaren eta ematen ari zaizkion erantzunen errealitatearen inguruan balorazio nolabait orokorra egiteko aukera ematen dute. Horrela, ondoko elementu hauek nabarmenduko genituzke:

- Egoera horiek zuzenean eragiten dieten adingabeen kopuruari dagokionez:
  - Arabako Foru Aldundiaren txostenak lau kasuri buruzko datuak ematen ditu (zortzi adingabe), non esku hartzearen arrazoi nagusia amak 2002-2005 tartean jasandako tratu txarrak izan diren.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostenak halako egoerak zenbat diren zehaztea zaila dela planteatzen du, kasuak zelan erregistratzen diren ikusita. Eta diotenez, adingabea babesteko esku hartzen den egoeren barruan, kasu asko “familiako indarkeriak adingabe baten osotasun fisikoa edota emozionalarentzat arriskutsuak diren egoerak” kontzeptupean biltzen dira. Baina azkeneko urteotan kasu batean ere ez da heriotzarik gertatu.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenean amak tratu txarren ondorioz hil diren kasuen datuen bilakaera jaso da: 2002an bi kasu, 2004an bat eta 2005ean beste bat; guztira, zuzenean sei adingaberi eragin diote halakoek.
- Erantzunei dagokienez, oro har, halako egoeretarako berariazko erantzunak eman baino gehiago, babesaren alorrean eskueran dauden baliabide edo egitarau guztiak erabiltzeko ahalegina egiten da:
  - Egoitzetako harrerako baliabideak.
  - Egitarau kliniko terapeutikoak, edo biktima adingabeei laguntzekoak.
  - Familietan esku hartzeko egitaratu espezializatuak.
  - Familietako harrera eta adopzioa.
  - Topaketa puntuak...

Esaten da, halaber, zenbait kasutan, ezohiko modura, beste erkidego batzuetako baliabide edo egitarauetara ere jo izan dela, kasurako egokiagoak iritzi zaielako, eta ingurunetik zein erasogilearengandik urruntzea errazten zutelako.
- Igarpenari dagokionez, printzipioz, ohiko bideak erabiltzen dira: oinarrizko gizarte zerbitzuen, fiskaltzaren, ospitaleen eta abarren jakinarazpenak. Gai honi dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak azpimarratzen du indarkeriaren biktima diren emakumez arduratzen diren tokietan, emakume horiek laguntza edo esku hartzea behar duten seme-alabarik daukaten ere ahalik eta lasterren igar lezaketan profesionalak egon behar direla. Alde horretatik, faltan hartzen du *–Emakumeen indarkeriaren kontra erakundeek emandako erantzuna EAEn gure txostenean zioen bezala–* tratu txarren biktima diren emakumeentzako larrialdiko harrerako baliabide askotan halako profesionalik izatea.
- Etorkizunera begira, aldundietako arduradunek hobetzeko beste proposamen batzuk planteatzen dituzte, hala nola:
  - Anei eta adingabeei laguntzeko prebentzio lana.
  - Kasuetan inplikaturako gizarte eragile eta zerbitzu desberdinen arteko koordinazioa optimizatzea.
  - Prebentzioko eta sentsibilizazioko sare komunitarioak sendotzea.
  - Esku hartzen duten profesionalen espezializazioa hobetzea.
  - Arazoaren ondorioak arintzeko berariazko egitarauak ezartzea...

Parekotasunik handiena, hiruren artean, halako egoeren aurrean eskumenak dituzten eta esku hartzen duten erakunde eta zerbitzuen arteko koordinaketa hobetu behar delako aldetik aurkitzen dugu.

Atal hau amaitzeko, komeni zaigu hemen jasotzea topaketa puntuei buruzko hainbat jarduera burutu direla, Gipuzkoan zehazki, hor funtzionamenduari ukitzen dioten

hainbat arazo daudelako. Amaitu barik dauden jarduerak direnez, horiei buruzko informazioa etorkizunean eman beharko dizuegu.

## 2) **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak**

Babesik gabe dauden nerabeen sektorearen barruan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ezaugarri eta behar bereziko multzoa dira. Horregatik, azkeneko zortzi urteotan Arartekoak lehentasunez behatu die, ofiziozko jarduera ugarirekin, zerbitzuetako profesional eta arduradunekin bilerak eginez, harrera zentro guztietara aldioro joanez... Horren guztiaren berri aurreko urteetako txostenetan eman dizuegu (ikus. I. kap., 1.1.5. atalak).

Azkeneko urtean jarraipen lanak biziagotu ziren, eta ezohiko txostena ere egin zen, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari irailaren 7an eman zitzaiona, eta Giza Eskubideen eta herritarren eskarien Batzordean azaroaren 16an eztabaidatu zutena.

Lan horren lehenengo laburpentxo bat urteko txosten honetxan IV. kapituluari daukatzue.

Hemen, beraz, txosten monografiko hura amaitu eta gero egindako hainbat jardueraren berri ematera mugatuko gara. Nagusiki:

- Harrez gero, azaroan eta abenduan, harrera zentroetara egindako bisitak, eta Zabaloetxe (Loiu), Zabaltzen (Gasteiz), Urnieta, Tolosa eta Berrizeko hezitzaile taldeekin izandako bilerak.
- Gipuzkoako zentroetan bizi izandako egoera arazotsuen inguruan, eta Arabarako baliabide berri baten proposamenaren aurrean ofizioz egindako jarduerak.

Bisitak eta bilerak helburu bikoitzarekin egin dira: batetik txosteneko edukiko informazio mamitsua, edo zentro bakoitzari gehien ukitzen diona, zuzenean "itzuli" edo zabaltzeko eta, bestetik, etengabe aldatzen ari diren zerbitzuei buruzko informazio eguneratua jasotzeko, eta alor horretan egunero-egunero lan egiten dutenei beren ekarpenak, baita beren keak ere, guri helarazteko aukera eskaintzeko. Gainera, Tolosa eta Berrizeko kasuetan, sortu berriak ziren bi tokitara lehenengo bisita egitea, eta sektoreak partzialki edo erabat berriak ziren hezitzaileen bi taldeekin harremanetan jartzea zen kontua.

Bisita edo bilera bakoitzean jorratutako gaiak laburbil genitzake hemen, baina interesgarriago deritzogu kasu bakoitzean agerian geratu diren arazo bereziki esanguratsuetako bat edo beste nabarmentzeari eta, ondoren, gogoeta orokorren bat egiteari. Horrela:

- Loiun, **Zabaloetxeko** hezitzaileen taldearekin izandako bileratik (2005eko azaroaren 4an), aipagarrienak, bereziki kezkarriak edo esanguratsuak direlako, honako alderdi hauek lirateke:
  - Adingabe hauen inguruan eskubideez soilik hitz egiten delako pertzepzioa, inolako betebeharrak edo erantzukizunik aipatu barik.
  - Halako adingabe batzuek barruratze zentro horietaz duten pertzepzioa, bazuetan ona (gazteentzako justizia neurriak betetzeko dira).

- Adingaberik zailenekin lan egin behar, eta beste zerbitzu batzuek baino baliabide gutxiago dituztelako bidegabekeriaren sentipena. Adingabeak baliabide desberdinetan banatzeko erabiltzen diren irizpideekiko desadostasuna.
- Adingabeei, sorterrietako esperientziaren aldean, hemengo jarduera judizialak bigunegiak iruditu ahal zaizkiela.
- Beren iritziak ez direla oso aintzat hartzen, edo beren interesen kontrako erabakiak hartzen direla, edo adingabeekin esku hartzeko beren ahalmena murrizten dietela sentitzen dute (lehenengo harrera eta arreta bereiztea, 17 urte eta erditik gorakoei pisuetara joatea ukatzea...).

Zentroan izandako azkeneko aldaketarik esanguratsuak Berrizeko zentroa irekitzearen (hasierako harrera horra eraman baita), 30 toki gehiago dituen espazio berria gaitu eta talde berri eta hezitzaile talde berriarekin antolatzearen, edo harrera zentroaz bestelako elkarte batzuek kudeatutako burujabetzeko pisuak abian jartzearen ondorioz etorri dira.

- **Berrizen** behin behinekoan ireki den lehenengo harrerako zentro berrira azaroaren 24an egindako bisitatik honakoa nabarmenduko genuke, adibidez:
  - Behin behinekoa dela, eta horrek erabiltzen den lokalaren muga edo baldintza batzuk azalduko lituzke; ez gara horietan tematuko 2006ko urtarril-otsailerako instalazio berri batzuetara aldatzekoak direlako.
  - Hasierako 30 tokiko aurreikuspena gertakariak berehala gaitutuko dutela (bisitan joan ginen egunean 39 artatzen ari ziren).
  - Adingabe hauek inguruko zentroetan nolabaiteko normaltasunez eskolatzea lortzeko zailtasuna...

Bestalde, gauza on modura, zentroko lantaldeak (Landalan Elkartea) eta udaleko arduradunek eta zerbitzuek komunitateari informazioa emateko, komunikazioa eta inguruko baliabideak erabiltzea errazteko, herriko gazteak inplikatzeko, baliabide berriaren kontra egon litezkeen erreakzioak saihesteko bideratu dituzten ekimenak. Jardunbide onaren eredu modura jaso dugu guk hori hemen .

- **Zabaltzeneko** lantaldearekin (Gasteiz, 2005eko azaroak 14) izandako bileran jorratutako alderdien artean, honako hauek nabarmenduko genituzke:
  - Adingabeen adina zehazteko egiten diren hezur neurketak izugarri berandutzen direla, eta ez direla oso fidagarriak.
  - Dokumentazioa tramitatzen luzamendu handiak izaten direla (gure txosteneko datuen arabera, alderdi hori ondoen Araban zegoen).
  - Burujabetzen laguntzeko baliabideen mugak (aldaketa handia 18 urte bete-tzean).
  - Jokabide jakin batzuen aurrean, zigorgabetasun sentipena, edo sistema judizialaren erantzunak izugarri berandutzen direla.
  - Ez dagoela buruko gaixotasun arazo larriak edo jokabide arazo larriak dituzten adingabeentzako zentro edo baliabide berezirik.

Bestalde, lantaldea kezkatuta zegoen adingabe horiek hartzeko Iruña Okan zabaldu nahi zen zentroaren inguruko gertakariengatik, eta ondorioengatik. Geroago helduko diogu gai honi.

- **Gipuzkoan** egindako bisita eta bilerei dagokienez (Urnietan eta Tolosa; 2005eko azaroak 3 eta abenduak 13, hurrenez hurren), komeni da gogoratzea aurretiaz, urtean zehar bizitako tentsioak eta arazoak, horrek, ezbairik gabe, lana baldintzatu baitu eta bileren edukian ere eragin baitu. Izan ere, baliabideen egoera etengabe aldatu da: Martutene itxi dute, adingabe batzuk zentro arruntetara sartu dituzte, Urnietako zentroak prekarioan funtzionatu du, lokal alternatiboak erabili dira, tarteka, Tolosan baliabide berria ireki da, Irunen pentsio bat erabili da...

Egoera, 2005eko abenduan, datu hauen bidez zehatz genezake:

- Bisitatutako bi baliabideak (Urnietan eta Tolosa) Gurutze Gorriak kudeatzen ditu oraindik ere, baina langile aldaketa ugarirekin (ia guztiak berriak dira, urte batean 22 toki betetzeko guztira 74 hezitzaile desberdin kontratatu dira), kudeaketa arazoak izan dituzte (Tolosako zentroak ez zeukan hitzarmenik artean), eta jarraitzeko ikusmirak ez zeuden bat ere argi (litekeena zen Gurutze Gorriak hitzarmenari uko egitea).
- Data haietan artatzen ari ziren adingabeak Urnietan 14 eta Tolosan 13 ziren. Kontuan hartuta Urnietan 9 toki baino ez daukatela, bost adingabek egunero Irungo pentsio batera joan behar zuten lotara, hezitzaileen inongo jarraipenik gabe. Tolosan 13 adingabe artatzen zituzten, hasieran 8rentzat aurreikusi arren. Bestalde, urtearen erdialdera, Martuteneko adingabeak bi etxe arruntetan, bertoko beste adingabe batzuekin batera jartzeko hartutako erabakia, oso ondo irizten zaiona, lausotzen ari da, izan ere, pixkana atzerri-tarrentzako baliabide berezi bihurtzen ari baitira.
- Oso deigarria da hezitzaileen perfila (ia gehienak emakumeak dira eta, salbuespen bat edo beste kenduta, sektorean oso eskarmentu gutxi daukate), eta askok profesionalki ondo ez daudela adierazten digutela. Langile askoren kontratua abenduaren 31n amaitzen zen.

Beste gai arazotsu batzuen artean, gai hauei heldu zitzaizen: hezur frogak egitea, entrega polizialak, harrerako irizpideak edo jarduera protokoloa, adingabe bat hartzera ukatzekotan, hezitzaileen edo Foru Aldundiaren erantzukizun penala (abian ziren kausa penalak, horregatik), koordinazioa zentroetako segurtasun zain-tzaileekin, desadostasunak Aldundiarekin adingabeak beste baliabide batzuetara bideratzeko irizpideei buruz, hezitzaileen kontrako erasoei ez erantzutea...

Orain arte esandako arazoetako batzuk jendaurrean azaldu ziren, Leizaola Fundazioak antolatuta egun haietan egin ziren bakarrik dauden adingabeen gaineko Jardunaldi Monografikoetan; jardunaldietan Arartekoareneko langileek, erakundeetako ordezkariak eta bisitatutako zentroetako hezitzaileek parte hartu zuten.

Arestian aipatutako bisitak edo bilera eta ezohiko txostena alboratuta, Arartekoak aurrez bereziki kezkarriak diren egoera batzuetan ere esku hartu du:

- 1) Gipuzkoako zentroetan sortutako auzietan.
- 2) Entrega polizialen gaian.
- 3) Iruña Okan zentro berria irekitzeko proposamenak piztu zuen gatazkan.

1) **Gipuzkoan adingabe atzerritarren harrerako zentroetan maiatzaren erdialdera sortu ziren auziei** dagokienez, lan arazoak ere baziren tartean, baina adingabeen arretarako ondorio larriak izan zituztenez, Arartekoak gaixo egoeran zeuden langileen ordezkariekin hitz egin zuen, zentroak kudeatzen zituen erakundearekin (Gipuzkoako Gurutze Gorria) harremanetan egon zen, eta ofiziozko espedienteak zuzendu zizkien bi diputatu arduradunei: Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko foru diputatuari, eta Gizarte Politikarako foru diputatuari.

Arartekoak informazioa eskatu zuen gertakarien berri jakin eta berehala (maiatzaren 18an); ukitutako zerbitzuetako sail arduradunengana jo zuen (Urnietan – Giza Eskubideak; Martutene – Gizarte Politika), bi galdera argi eta garbi bereiztuz:

- a) Zer urrats egiten ari ziren, edo zer neurri hartzen ari ziren bi zentroetan hartutako adingabeak artatzen segitzeko, hezitzaileak gaixorik zeuden bitartean.
- b) Zer hobekuntza sartuko zituzten gauzak heldu diren muturreraino heltzen lagundu duten arrazoietakoz batzuk zuzentzen saiatzeko (hezitzaile guztiak gaixo egoeran zeuden).

Beren erantzunetan (maiatzak 25 eta maiatzak 30), bi gaiak bereizten zituzten, eta sail bakoitzak bere jarduerak aipatzen zituen. Esaterako:

a) Adingabeak artatzeko premiazko esku hartzei dagokienez:

- Adingabe atzerritarrak lurraldeko harrera sareko beste egoitza batzuetara eramatea.
- Gizarteko larrialdietarako zeuden pentsioen sarea erabiltzea.
- Informazioa telefono baten bidez zentralizatzea, arreta eskari berriak kudeatzeko moduan (Fiskaltzarenak, Ertzaintzarenak...).

Jakinarazi ziguten, halaber, Martuteneko zentroa maiatzaren 20an itxi zutela, erakunde kudeatzaileak (Gurutze Gorria) itunari uko egin ostean, eta Urnietako zentroa berriro ireki zutela (partzialki, gauez soilik) eta zaindariak gehitu zituztela.

Martutenen zeuden adingabeak zentro arruntetan sartzeari zegokionez, beren esanetan, “bateratzeak ez du, orain arte, inolako arazorik sortu, eta adingabe atzerritarrak ondo moldatzen ari dira zentro berrietara.”

b) Abian ziren edo etorkizunean halako egoerarik saihesteko pentsatuta zeuden hobekuntzei dagokienez, hauek aipatuko ditugu, besteak beste:

- Larrialdietarako bigarren harrera zentro bat sortzeko gestioak (gerora, Tolosako zentroa irekiz gauzatu zirenak);
- Bakarrik dauden adingabeekin jarduteko beste protokolo bat prestatzea, esku hartzen duten instantzia guztien arteko bilerak egin eta gero (Fiskaltza, Ertzaintza, Osasuna, Espainiako Polizia...);
- Indarkeriaz jokatzeko duten zein drogak kontsumitzen dituzten adingabeei zelan heldu eta zelan artatu zehazteko prozedura finkatu aurreko urratsak;
- Bi sailen artean kasuak elkarri bideratzeko protokoloa prestatzea, koordinaketa eta azkartasuna hobetzeko (sail batetik bestera bideratzen diren egoitzetako harrera proposamenei erantzuteko epea jartzeko ahalegina);
- Arretaren ratioak berrikustea (txanda bakoitzeko hezitzaileen eta zaindarien kopurua).
- Zentroen gain-okupazioko egoerei erantzuteko sistema aurreikusitako edo artikulatzea.
- Adingabe atzerritarrak harrera sareko beste baliabide batzuetan sar daitezela sustatzea...

Horrela, bada, erakundeetatik maiatzetik jasotako erantzunetik ondorioztatu zitezkeen arazoak konpondu zitezkeen edo, gutxienez, konponbidean. Uste hori ez zetozen bat, inondik ere, zentroetan handik hilabete batzuetara, joan den abenduan, ikusi genuen egoerarekin: arazorik berehalakoenak bai konpondu ziren, baina beste batzuek hor diraute, eta arazo berriak ere sortu direnez, jarduera berriak abiatu beharko dira.

Horren harira, profesionalen artean igarritako atsekabea ere deigarria da, lanera itzuli zirenetik denboratxo joan arren, edo asko berriak izan arren.

- 2) **Entrega polizialen** gaiari dagokionez, Arartekoaren esku hartzea zentroetako sasoirik arazotsuenetan eta Gipuzkoan ere jaso ziren informazio partzial jakin batzuen ondorioz etorri zen. Informazio hori Urnietako zentrori horretara beren beregi egindako bisita batekin, eta 2005eko uztailan espediente eta dokumentu lagin esanguratsu bat bertatik bertara ikuskatuz osatu zen.

Informazio horietan oinarrituz, Arartekoak ofiziozko espedienteak zuzendu zituen Ertzaintzaren eta hiru probintzietako hiriburuetako udaltzaingoetara.

Gestio hauen emaitza txosten honetan, kapitulu honetan daukazue (atzerritarren arazoei eskainitako atalean).

- 3) Azkenik, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak **Iruña Okako udal mugartean prestatutako etxe batean beraientzako harrera zentro berria irekitzea proposatzearen inguruan piztutako arazoaren inguruan**, Arartekoaren lehenengo esku hartze formala pertsona batek herritarren izenean ekainean jarri zuen kexa baten ondorioz etorri zen.



Kexa hori tramitatzek hainbat informazio eskari eginarazi digu, bai udalari (Arabako Foru Aldundiak udalari eskatua baitzion jarduera berrirako lizentzia), bai Aldundiari berari; alkatearekin bilera bat egin behar izan dugu, beste bilera bat foru diputatuarekin eta arloko foru arduradunekin...

Agerrarazi behar dugu Gizarte Gaietarako foru diputatuak azkar eta ondo erantzun digula, eta laguntza osoa eskaini digula (2005eko abuztuaren 1eko idatzia eta, ondoren, urriaren 4an bilera), eta zailtasun handiak izan ditugula Iruña Okako udalarengandik erantzun egokia eta epe barruan jasotzeko.

Azkenik, alkateak bi administrazio horiek azaroaren 18an iritsitako akordioaren berri eman zigun. Akordio horretan, funtsean, adingabe horien arretarako zentroa irekitzea atzeratuko zela, edo bertan behera geratuko zela zioen (jarduera lizentziaren eskaria ere kendu zuten), eta beste xede batzuetarako edo harrerako fase aurreratuagoko adingabeentzat erabiltzea planteatzen zen, eta bi erakundeen artean elkarri informazioa eta laguntza emateko formulak aurreikusten ziren, baliabide berriaren erabilpenaren gaineko erabaki berriei begira.

Erabaki hura iritsi zenez, gure esku hartzea gomendiorik ere egin gabe ixtea komeni zitzaigula pentsatu genuen. Alabaina, gogorarazi behar dugu premiazkoa eta beharrezkoa dela, oraindik, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroari beste kokapen bat edo alternatiba bat bilatu behar zaiola, oraingo lokaletan gabeziak daudelako, behin baino sarriago, duela gutxi, gure ezohiko txostenean agerian geratu denez.

Espedientea etetea hautatu genuenez, Arartekoak ez zuen Arabako Foru Aldundiak eta udalak egindako jarduketan azterketan oinarritutako eta indarreko legediari adituz inolako erabakirik hartu edo gomendiorik bideratu.

Hala ere, agerrarazi behar dugu gure erakundea kezkatuta dagoela halakoa bezalako kasuetan argi eta garbi beharrezkoak diren baliabideak sortzearen kontra pizten ari diren erreakzioengatik. Alde horretatik, segitu behar dugu azpimarratzen administrazio bakoitzak duen erantzukizuna, eta bakoitzaren eskumenak eta legeak errespetatu behar direla, jarduera esparru modura (ikus, gai honetaz, "Erakundearen Buruzagitza, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean" gure gomendio orokorra, 2001eko Txostenean, 461-465 orr.).

Bestalde, gure jarduketan harira, udalerriko hainbat toki publikotan ipini zuten fotokopia baten berri izan genuen, non Ertzaintzak 2004 eta 2005 urteetan bakarrik zeuden adingabe atzerritarrekin burututako jarduera polizialen xehetasunak ageri ziren.

Gertakaria hain larria izanik, espediente berria ireki zen Herrizaingo Sailaren aurrean, barruko ikerketa bultzatzeko eta balizko erantzukizunak argitzeko. Txosten honetan, Herrizaingo Sailari dagokion atalean (ikus, I. kap.), orain arte

izandako emaitzaren berri daukazue. Jasotako informazioaren arabera, guk uste dugu jarduketa larriak egon daitezkeela, datu polizialak zabaltzeari buruz.

Atal honetako amaierako gogoeta modura, esan behar dugu azkeneko hilabeteetan eguneratutako informazioak, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko gure azkeneko ezohiko txostenean egin genuen analisiaren balioa sendotu baino ez duela egiten. Bereziki, han nabarmendu genituen arazoena, arreta baldintzatzen segitzen baitute, eta egindako gomendioena, aplikatuko balira egoera izugarri hobetzeko eta igarritako akats asko zuzentzeko lagungarria izango bailirateke.

### 3) Adingabe lege-hausleak

#### A) Aurrekariak

1998an adingabe lege-hausleekin esku hartzeari buruzko Arartekoaren ezohiko txostena jendaurrera atera zen, eta Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion. Bai txosten orokorrak, bai biltzen dituen gomendioek, oro har, erakunde desberdinei ukitzen diete, bereziki biri: botere judizialari –fiskaltzak eta adingabeen epaitegiak–, prozedurei, neurriak hartzeari, neurrien jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, eta Eusko Jaurlaritzari –bereziki Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari–, neurriak betetzeari dagokionez eta, beraz, eskueran jarritako bitarteko eta baliabideen multzoari dagokionez. Gure jarduerak, Legearen aginduz, Eusko Jaurlaritzak bete beharreko gai eta proposamenei heldu die.

Horrela, 1999an, Arartekoaren jarraipena gure Erkidegoan dauden adingabe lege-hausleen hiru barnetegiak ikustera joanez eta, ofizioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari informazioa eskatuz egin zen. Bisiten emaitzen, eta sailarengandik jasotako erantzunen berri urte hartako ohiko txostenean xeheki eman zen (ikus. I. kap., 1.1.6, 1999ko txostena). Han hainbat alderdi nabarmentzen ziren, onak eta txarrak, gomendioak betetzeari buruzkoak; neurri batzuen eta besteen bilakaeraren gaineko datuak ematen ziren, konparaketak eginez, eta berariaz jorratu ziren askatasunaren murrizketa handiagoa dakarten zerbitzuen eraginkortasunerako lau alderdi garrantzitsu:

- Barnetegi zentroen sarearen eraketa.
- Profesionalen lan egoera.
- Zerbitzu horien eta beste asistentzia sare batzuen arteko harremana.
- Adingabeek irteteko eta beren kabuz moldatzeko dituzten aukerak.

Gai hauei guztiei lehentasunez aditu zitzaion 2000n egindako jarraipenean. Arartekoareneko langileok berriro joan ginen Andoiu, Urtuella eta Aramaioko hezkuntza zentroak ikustera, eta gerora, Ararteko erakundea, ofiziozko bi espedienteren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarengana eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarengana zuzendu zen (ikus. I. kap., 1.1.6 atala, 2000ko txostenekoa).

2001 urtearen jarraipenari dagokionez, berriro joan ginen hiru zentroetara, eta ofiziozko espediente baten bidez Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailari informazioa eskatu genion, hamar puntutan zehaztuta:

1. Barnetegi zentroyen sareetan egindako aldaketak, aurreikuspenak eta beharrei erantzuteko duten gaitasunari buruzko balorazioa.
2. Lan egoerari eta profesionalen lan baldintzei buruz hobetutakoa.
3. Beste zerbitzu batzuekiko akordioak, koordinaketa eta lankidetzak sistemak (bereziki barnetegietan sartutako adingabeen hezkuntza eta osasun arretarako).
4. 2001eko azaroaren 7ko Agindua aplikatzeko egin diren edo egitea pentsatzen den urratsak; Agindu horren bidez hartutako eta barnetegietan sartutako adingabeen hezkuntza eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dira.
5. Adingabe horiei, barnetegi garaia amaitzen zaienean, irteera erraztera begira abiarazitako berariazko egitarau edo zerbitzuak.
6. Gure erakundeak hainbeste bider eskatu duen zerbitzu horien arauketa zertan zegoen.
7. Azkeneko urteetan bideratutako neurrien bilakaera.
8. Adingabearen Erantzukizun Penalaren Lege berria aurtengo urtarrilean indarrean jartzearen ondoriozko aldaketak, demanda, errekurtsio eta erantzuteko ahalmenei dagokienez.
9. Gure Erkidegotik bidalita, azkeneko urteotan beste lurralde batzuetako zentroetan barruratu diren adingabeen datuak eta zergatiak.
10. Adingabeen urraketen biktima izan diren pertsonen emandako arreta.

Horrela, bada, eskatutako informazioak jada jarraipena egindako gaiei heltzen ziren berriro baina, gainera, gai berriak ere sartzen zituen, eta denboran gertu zeuden eta zerbitzuan zuzenean eragiten zuten faktore edo gertakariak hartzen zituen kontuan. Adibidez: 2001eko urtarrilean adingabeen erantzukizun penalak arautzeko 5/2000 Lege Organikoa jarri zen indarrean, non, besteak beste, adin nagusitasun penalak eta zibila parekatzen diren eta, horrekin, neurrien mendeko adingabeen kopurua gehitzen den eta, gainera, barruratutako adingabeen perfila eta ezaugarriak aldatzen diren; edo ETAk Zumarragan barnetegi izateko eraikitako instalazioak leherrarazi zituen, barnetegi sarean ahalmena baldintzatuz...

Une horretatik aurrera, eta hurrengo urteetan, Arartekoaren esku hartzeak aipatutako hamar gai horiek hartu ditu erreferentzia esparru modura, batzuk bereziki azpimarratuz, ikusitako bilakaeraren eta jasotako kexaren baten arabera. Eta jarraipenaren txostenak egiteko orduan (ikus azkeneko ekitaldietako urteko txostenetako 1.1.6 atalak), funtsean ondoko elementu edo informazio iturriak hartu ditugu kontuan:

- Bertatik bertara jasotako informazioa, behaketaren eta elkarrizketen bidez, barnetegietan edo autonomiarako pisuetan.
- Justiziako Sailburuordetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren arduradunekin izandako bilerak, horien mende baitaude neurri horiek aplikatzen dituzten zerbitzuak.
- Beste profesional batzuekin izandako bilerak, adibidez, Justiziako lantalde psiko-sozialekoekin.
- Justizia Sailarengandik jasotako informazioak, kexak edo informazio eskariak tarteko.
- Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren memoriak.

Azkeneko hiru txostenetan oinarritzko datuak laburbildu, zentroetarako ikustaldien emaitzen berri eman, edo profesionalak mahairatu dizkiguten arazoak jaso ez eze, azkeneko atal batean gure iritziz bereziki kezkarriak ziren edo hobetu behar ziren hainbat gai azpimarratzen genituen. Besteak beste:

- 1) Neurrien kopuruan izandako hazkunde garrantzitsuaren ondorioz erantzuna emateko orduan zeuden arazoak (ondorioekin kate osoan): epaitegietan, Gazteen Justizia Zerbitzuaren kudeaketan, zentroetako harrera ahalmenean, bizimodu erdi irekiaren neurrien kudeaketan eta jarraipenean...).
- 2) Babes sistemetatik datozen adingabe lege-hausle barruratuen proportzio altua (bereziki bakarrik dauden adingabe atzerritarrak); horrek bi sistemen arteko lotura sakon aztertzea eskatzen du.
- 3) Neurriak, terrorismo ekintzetan inplikaturako adingabeen kasuan, Audientzia Nazionalak esku hartzen duenekoetan, familiarengandik gertuago betetzea ahalbidetuko duten formulak garatu beharra.
- 4) Zerbitzuak ez daudela arautegiz finkatuta, alderdi guztientzako berme gisa.

## B) **Azkeneko urteko jarraipen jarduera nagusiak**

Azkeneko urte honetan berriro joan gara, behin baino gehiagotan, Zumarragako barnetegiaren funtzionamendua zelan doan ikustera, hainbat bilera egin ditugu sailaren arduradunarekin eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari bideratu diogun ofiziozko espedientearen bidez, funtsezkoen begitانتzen zitzaizkigun sei gaiei buruzko informazio eguneratua eskatu diogu. Hemen jarduera horien emaitza laburbilduko dugu.

### 1. **Azkeneko urteotan burututako neurrien bilakaera**

Arartekoaren adingabe lege-hausleen gaineko txostenak legeak aurreikusitako neurrien multzoari buruz eta, bereziki, askatasuna gutxien murrizten duten, hezteko ahalbide gehiago eskaintzen dituzten eta barruratzetik eskatzen ez duten neurrien multzoari buruz eskaintzen dituen ahalbideak garatu nahi zituen. Baliabide gehiago ala gutxiago edukitzea neurri horien benetako aplikaziorako erabakigarriak diren faktoreen artean dago, eta gure erakundeak arreta berezia jarri du horretan, neurriak gauzaraztea eskal Administrazioaren eskumena baita.

Aurreko txostenetan gai honi buruzko datuak eskaini ditugu, balorazioak egin ditugu eta alderdi on eta txarrak nabarmendu ditugu. 2000 urtean bereziki, orduan izan baikenuen Gazteen Justizia Zerbitzuak prestatutako memoria xehatua eskuartean hartu eta aztertzeo aukera (*“Adin txikikoen epaitegiek EAEn 1999an ezarritako neurrien betearazpenaren azterketa”*).

Memoria horrekin neurriak oro har eta kopurutan zelan bilakatu ziren ezagutzeko ez eze, gure erakundearen iritziz oso interesgarriak diren irizpideen arabera, informazioa xehekiago aztertzeo aukera ere izan genuen. Horrela, adibidez, neurri desberdinak be-

tearaztea zenbat berandutzen den, zenbat denbora igarotzen den gertakari edo urraketatik neurria gauzaten den arte, edo zer alde dagoen neurririk gogor edo murriztaileen (barruraztea) eta kolektibo jakin batzuen ahultasunaren edo ezaugarrien artean (gutxiengo etnikoak, eskolatu gabeko adingabeak, babespeko adingabeak, berrerorleak...).

Bestalde, bilakaeraren datu orokorrek neurri bakoitza zenbateraino aplikatzen den jakinarazten digute, baita joera orokorrak zein diren ere. Datu orokor horiek ondoko taula honetan daukazue.

### 1997-2005 tartean ezarritako neurrien bilakaera

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Bitartekaritza/Erreparazioa	94	158	247	234	309	372	279	..(1)	..(1)
Ohartarazpena	120	97	72	72	33	-	85	..(1)	..(1)
Zaintzapeko askatasuna	53	60	56	65	135	176	191	259	201
Zerbitzuak egitea erkidegoaren onerako	53	39	77	83	123	185	321	430	506
Tratamendu anbulatorioa	4	3	9	7	26	31	18	25	33
Gizarteratu eta hezteko zereginak	-	-	-	-	20	27	47	66	95
Harrera	-	-	-	-	2	3	3	5	4
Eguneko zentro batera joatea	-	-	-	-	-	-	-	2	12
Astebururako barruraztea	5	8	15	16	42	62	71	88	66
Zentro batean barruraztea <sup>(2)</sup>	22	31	51	64	63	98	110	142	137
GUZTIRA	351	396	527	541	753	954	1.125	-	-
Bitartekaritza edo ohartarazpenik gabekoak guztiras	137	141	208	235	411	582	761	1.017	1.054
Neurrien gehitzea, aurreko urtearen aldean	-	4	67	27	176	171	179	257	37

(Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Geuk prestatuta)

(1) Ez daukagu bitartekaritza eta ohartarazpeni buruzko datu horiek.

(2) Zentroetako barrurazteak zenbateraino irizpideak desberdinak dira 1999tik; horrela, 22 eta 31 adingabe dira 97an eta 98an, baina 51, 63, 98, 110, 142 edo 137 neurri (ez adingabe) azkeneko sei urteetan.

Datu horiek argi eta garbi erakusten dituzte zenbait joera. Agian garrantzitsuen guztirako neurrien kopurua izugarri hazi dela da, baita bakoitzean eta guztietan, 5/2000 Legearen aplikazioaren ondorioz, eta batez ere 2001 urtetik aurrera igo dela ere.

Izan ere, betearazteko baliabiderik eskatzen ez duten bitartekaritza eta ohartarazpenen gaineko datuak kontuan hartzen ez baditugu, urteko igoerak nabarmenak izan dira: % 75 (2001 urtean); % 42 (2002 urtean); % 31 (2003 urtean); % 34 (2004 urtean). Zorionez, azkeneko urtean hazkunde joera hori moteldu egin da (% 4 igo da).

Igoera bereziki esanguratsua izan da bizimodu erdi irekiko neurrietan. Horrela, 2000 urtea erreferentzia modura hartzen badugu (5/2000 Legea indarrean hasi aurreko azkeneko urtea), eta datuak azkeneko urtekoarekin alderatzen baditugu, ondoko aldaketa eta joera hauek igarri ditugu:

- Erkidegoarentzat egin beharreko zerbitzuak sei bider baino gehiago hazi dira (83tik 506ra igaro dira).
- Zaintzapeko askatasunak hiru bider gehiago izan dira (65etik 201era).
- Tratamendu ambulatorioak 7tik 33ra igaro dira.
- Gizarteratu eta hezteko zereginak, lehenago ez zeudenak, 95 izan dira azkeneko urtean.
- Apalki ekin zaie hezteko taldeetako harrerei (4 kasu), baita eguneko zentroetara joateari ere (12 kasu).
- Asteburuetako barruratzekak 16tik 66ra igaro dira.
- Zentroetako barruratzekak, badaezpadakoak zein neurri bat aplikatzearen ondoriozkoak, 64tik 137ra igaro dira (bikoitza baino gehixeago).

Azkeneko urteko datuetatik, joerei dagokienez, nabarmen daiteke, batetik, neurrien guztirako kopurua egonkortu dela eta, bestetik, erkidegoaren mesederako prestazioek pisua lortu dutela (hauxe izan da neurririk aplikatuena, guztien %48a baita).

Kopuruen datuak, ordea, ez dira zenbait errealitate kezkarri igartzeko nahikoak. Horrela, esaterako:

- Barruratzeen kopurua mantentzen den arren, iraupena luzeagoa da (barruratzeko denbora luzeagoa, dauden plazen okupazio handiagoa).
- Gehitzen segitzen dute gurasoen kontrako indarkeria delituak egiten dituzten neska-mutilen kasuak, baita patologia psikiko larriak dituzten nerabe edo gazteenak ere.
- Lehenengoz ezarri dira eskolako jazarpenaren ondoriozko zigor edo neurriak...

Gure datu eskariaren aurreko erantzunean, Justizia Sailak Gazte Justizia Zerbitzuen 2003ko Lan Memoria erantsi zigun (*Adin txikikoen epaitegiek EAEn 2003an ezarritako neurrien betearazpenaren azterketa*). Horrekin neurri bakoitzaren aplikazioari buruzko oso datu xehatuak ezagutu ahal izan genituen (gehien aplikatzen diren neurriei buruzkoak, behinik behin). Adibidez, zenbat denbora igarotzen den gertakarietatik dena delako neurria hartzen den arte, edo erabakitako neurria jakinarazten denetik betearazten den arte, zenbat irauten duten neurriek, aplikazioa handiagoa ala txikiagoa den epaitegi batetik bestera, ezaugarri desberdinen arabera, hots, jatorriz bertokoak ala atzeritarrak diren, generoaren, babes sistemetakoak diren eta abarren arabera aplikazioa desberdina den, eta abar.

Datu horiei adituz, iazko gure txostenean (ikus 2004ko txostena, I. kap. 1.1.6 atala) zenbait alderdi bereziki kezkarri azpimarratu genituen. Horrela, esaterako:

- Sistema judizialak motelki erantzuten diela delituei; eta bereziki, egitateetatik dela delako neurria hartu arte denbora luzea joaten dela (urtebete luze, kasuen ia erdietan).
- Neurri judizialik ezartzen zaien adingabeen kasuen artean, babes sistemetatik datozenen proportzioa oso altua dela.

- Neurrien iraupena gehitu dela, edo lurralde bakoitzeko erabaki judizialen artean gorabehera handiak igartzen direla.
- Arazo berriak agertu edo gehitu direla (familia barruko eraso delituetan inplikaturako adingabeak, buruko gaixotasun arazoak edo droga mendetasun arazoak dituztenak...)

Gure Erkidegoan azkeneko urteotan ezarri diren neurrien inguruan dauzkagun datu guztiak xeheki aztertuz, ondorioztatzen genuen adingabeen erantzukizun penalaren Legearen aplikazioan ere hutsune handiak zeudela; hutsuneak ez ziren hainbeste baliabideak mugatuta zeudelako, edo erakunde publiko eskudunari lepora liezazkiokeen antolakuntza arazoengatik –horretan izugarri hobetu baitzen-, baizik eta sistema judizialaren mugengatik edo jarduketarengatik.

Datuek argi eta garbi erakusten dute, gure iritziz, ez dela egia sistema ez denik sartzen, edo ez duenik esku hartzen adingabeen delituzko jokabideetan –iritzi hori oso zabaldua dago gizartean-, baizik eta kasuetan esku hartu edo ebazpenik ematen duenerako luze jotzen duela, eta hori Legearen izpiritua eta hezteko helburuaren guztiz kontra doa, eta oso ondorio larriak dauka adingabeengan beraiengan, beren biktimgan eta gizartearen multzoan.

Azkeneko urte honetan ezin izan dugu errealitatea hain xeheki aztertu, Justizia Sailak bere idatzian esan zigunez, 2004ko txostena amaitu barik baitzeukaten.

## **2. 2005ean barruratzeko zentro eta baliabideetan egindako aldaketak**

Gure Erkidegoan adingabe lege-hausleak barruratzera berariaz xedatutako heziketa zentroen sarean, urtetan, hiru zentro egon dira, Andoiukoa (hasieran neskenzat pentsatuta), Aramaiokoa eta Urtuellakoa (mutilentzat).

Horixe zen egoera Arartekoaren ezohiko txostena egin zenean; txosten hartan zentro horiek, kokapenarengatik, titularitatearengatik, egiturarengatik zein harrerarako ahalmenarengatik zituzten mugen ondorioz zeukaten hainbat muga agerrarazi genituen. Baliabideak gehitu behar zirela ere bagenioen, eta pentsatzen genuen Zumarragako zentro berria sarera sartzea (hasieran 2001erako pentsatuta) parada ona zela zentroen eraketa berrikusi eta etorkizuna planifikatzeko.

Egoera nabarmen aldatu da azkeneko urteotan. Horrela, hasierako hiru zentroi –Aramaioko Mendixola (12 plazarekin), Urtuellako Miguel Ángel Remírez (8 plazarekin) eta Gasteizko Andoiu (7 plazarekin)–, baliabide berriak gehitu zaizkie eta, halatan, plaza gehiago eskaintzeko eta sarea berrantolatzeko aukera ere badago.

Egun, Justizia Sailak zentroak mailaka berrantolatu ditu, eta ondoko baliabideak dauzka:

### 1) Hezkuntza zentroak

- Ibaiondo hezkuntza zentroa – Zumarraga (I. maila):
  - 2005ean zehar zeharkako kudeaketa sistematik kudeaketa zuzeneko sistemara aldatu da, bertoko langileekin. Zuzendaritza urtarrilean heldu zen zentrora, gainerakoak ekainaren 21etik aurrera.

- Abenduaren 31n, langilerian 3 arduradun, administratiboa, psikologoa, 2 gizarte langile, 5 koordinatzaile eta 40 hezitzaile zeuden. Horiek ikasgele-tako 3 irakasle eta tailerretako 3 irakasle gehitu behar zaizkie (Hezkuntza Sailaren mendekoak), sukalde eta ikuztegiko langileak, eta segurtasuneko langileak.
- Data berean, 27 plaza zeuzkaten eskueran (4 hezkuntza talde funtziona-tzen).
- Miguel Ángel Remírez hezkuntza zentroa– Urtuella (II. maila):
  - Plazak 8tik 7ra jaitsi dira.
  - Profesionalen kopurua mantendu da (15 pertsona).
  - Birmoldaketa lan garrantzitsuak egin dira (berogailua ipini da, tailerra birmoldatu da, gelak hobetu dira...).
- Mendixola hezkuntza zentroa – Aramaio (II. maila):
  - Plazak (12) profesionalak (18) lehengo kopuruetan daude.
  - Mantentze lan txikiak egin dira, eta 2007rako birmoldatzea aurreikusita dago.
- Andoiu hezkuntza zentroa (II. maila):
  - Plazak (7 neska) eta profesionalak (16) lehengo kopuruetan daude.
- III. mailako zentroak:
  - Bilbon, autonomiako egoitza (lehen bezala dago, mutilentzako lau plaza, arduradun bat eta bost hezitzaile).
  - Gasteizen, autonomiako egoitza (berdin, mutil zein neskentzako lau pla-zarekin).
  - Donostiako autonomiako egoitza: azkeneko urte honetan irekia, mutilen-tzako lau plazarekin eta arduradun bat eta bost hezitzaile taldearekin.

Horrela, bada, abenduaren 31n 65 plaza zeuden eskueran:

- 27 plaza I. mailan (zentro bat).
- 26 plaza II. mailan (hiru zentro).
- 12 plaza III. mailan (hiru egoitza unitate).

Sailaren datuen arabera, azkeneko urtean ez da inolako barruratzeko neurririk bideratu gure Erkidegoaz kanpoko inongo zentrotara, eta zentrozen batez besteko okupazioa dauden plazen % 85etik gorakoa izan da.

Bestalde, Landa Hezkuntza Zentroa birmoldatzeko obrak hasi dira eta, horiek bukatzen direnean, 14 plaza gehiago edukiko dira.

2) Zerbitzuak erdi irekitako erregimenean:

- Lau hezitzaile talde mantendu dira: bi Bizkaian (11 profesional); bat Gipuzkoan (4 profesional); bat Araban (3 profesional).
- Bizkaiko eguneko zentroa finkatu da, 15 neska-mutilentzat (bost profesionalen arretarekin).



- Profesional bakoitzeko gehienez 15 gazteko ratioa mantendu da.

3) Kontratuak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin:

Sailaren informazioaren arabera, kontratuen iraupena luzatu da, gutxienez bost urtera, eta soldatak hobetu dira.

### 3. **Zerbitzuen arauketa**

Arartekoarentzat funtsezkoa da gai hau. Horren harira, iaz azpimarratu genuen, jada, duela gutxi onartu eta 2005ean indarrean jarritako bi arau garatu eta aplikatzearen garrantzia: 5/2000 Lege Organikoaren Arautegia, eta Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako Legea, Eusko Legebiltzarrak otsailean onetsi zuena.

Justizia Sailari datuak eskatzean, gai hori azpimarratu genien, eta arau horien aplikazioan eta garapenean zer urrats egin ziren galdetu genien, bereziki barruratzeko zentroen funtzionamendurako arauak jartzeari eta zehapenen erregimenari buruz.

Sailaren erantzunetik haxe ondoriozta genezake:

- Ekimen desberdinak burutu dira, besteak beste, lan jardunaldiak edo prestakuntza ekintzak, arau horien edukia hobeto ezagutzeko.
- Jarduera prozedura batzuk bateratu dira: txostenen prestakuntzaz, baimenak emateaz, segurtasun protokoloez, diziplinazko erregimenaz...
- Beste protokolo batzuk eginkizun daude oraindik: bisitez, erregistroek, lekualdaketez, bideratzeaz, osasun arretaz...
- Eginkizun daude, halaber, erakundeen erregistroa sortzea eta Haur eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzko legeak garatzeko eskatzen dituen beste gai batzuk.

Gai hauek, gure aldetik, jarraipen handiagoa behar dutela uste dugu.

### 4. **Harremanak babes sistemekin**

Lehenagoko jarraipenetatik ateratako datuak eta kezkek kontuan hartuta, berriro jo genuen Sailarengana ondoko gaiei buruzko informazio eske:

- Babesetik zetozen adingabeen proportzioaz (jokabide arazo larriko nerabeak eta, bereziki, aparteko txosten batean hizpide genituen bakarrik dauden adingabe atzerritarrak).
- Koordinatzeko mekanismoaz, jarduera irizpide erkideez, informazio trukerako eta jarraipena egiteko sistemez, esku hartzearen jarraitasunaz...

Erantzunean, Justizia Sailak berriro egiaztatu zigun ikusitako bilakaera eta, gazteen justizia sistemari, foru aldundietako babes sistemetatik zetozen adingabeen proportzioa handia zela, batez ere jokabide edo neurririk larriaren kasuetan (badaezpadako

neurriak eta barruratzek). Alde horretatik, ondoko datu hauek eman zizkiguten, 2004 urteari buruz:

- Erkidegoaren mesederako zerbitzuak betetzeko neurrietan: %26 babes espedienteak daukaten pertsonen dagozkie.
- Zaintzapeko askatasunetan: %32.
- Gizarteratu eta hezteko zereginetan: %24.
- Tratamendu ambulatorioetan: %20.
- Asteburuko egonaldietan: %36.
- Badaezpadako barruratzeko neurrietan: %57,6.
- Barruratzeeetan: %58,6.

Diotenez, aurreko urtean bezala, bi sistemetan sarrien parte hartzen duten kolektiboak ondoko hauek dira:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak.
- Familiaren esparruan erasogile diren adingabeak.
- Beren kabuz bizitzeko edo familiarengana itzultzeko aukerarik ez daukaten 18 urtetik gorakoak.
- Babes zentroetan bizi diren adingabeak, irekian neurririk bete behar dutenak.

Koordinatzeko ekimenaren gainean, Sailak erantzun zigun arazo horiek aztertu dituztela, eta emaitzak pobreak izan direla, edo 2005ean Bizkaian Haurren eta Nerabeen Kontseilua sortu zela, non Justizia Saileko Zigorrek Betearazteko Zuzendaritzak parte hartzen duen. Nolanahi ere, bere iritziz, *“Gazte atzerritarrak eta jokabide arazoak dituzten zaintzapekoek ez dute sisteman beren beharretarako erantzun egokirik aurkitzen.”*

## **5. Zentroetan bertan eskaintzen den hezkuntza eta osasun arreta, eta lankidetzaren hezkuntza eta osasun sistemekin**

Aurreko txostenetan ikus daitekeen modura, gai errepikakorak dira, une jakin batzuetan gure erakundearen ofiziozko jarduerak ekarri dituztenak.

Oraingoan zentroan bertan, eta zehazki Ibaiondoko Zentroan, eskaintzen den osasun arretari heldu diogu, zentro horretan arazo batzuk zeudela jakin baikenuen (adibidez, sartzean arazukoak diren bisita medikoetan, edo gainerakoengandik bereiztea dakarten zehapen epeetan). Eta buruko gaixotasunen eta droga mendetasunen arazodunei osasun sistemak emandako erantzunetan.

Esandako hasierako arretaren arazoei dagokienez, Justizia Sailaren eta Osasun Sailaren artean sinatutako lankidetzaren itunaren esparruan konpondu behar dira, gure ustez.

Buruko gaixotasunen eta droga mendetasunen arretari dagokionez, itun horrek, larrialdietan, barruratzeko beharretarako erantzunen bat aurreikusi eta eskaintzen du, baina ez egonaldi luzeagoetarako. Hutsune horrek ondorio txar handiak dakartza, eta oraingo mugak gainditzeko premiazko neurriak hartzea beharrezko bihurtzen du; muga horiek testuaren ondoko lerroaldeetan agerian geratzen dira, nolabait:

*“Barruratze behar luzeagoek, oso kasu berezietan, bat 2005ean, ez dute erantzunik aurkitzen Osakidetzan; sare publikoan ez dago egonaldi erdiko baliabiderik nerabeentzat; ez eta sare pribatuan ere, eta EAEtik kanpo ere ez. Horregatik, Ibaiondoko zentroan berariazko taldea antolatzea aurreikusita dago, barruratze terapeutikoak artatzeko, eta hor eguneroko hezkuntza eta psikologia arreta gure Sailaren Gazteentzako Justizia Zerbitzuak beteko luke, eta Osakidetza psikiatria arreta etengabe eta egokia zentroan bertan emateaz arduratuko litzateke. Hori gauzatu arte, kanpoko psikiatra espezialista bat kontratatuko da zeregin horretan aritzeko.*

[...]

*Oro har, buruko gaixotasunen arretak hutsune handiak dauzka, baina ukitutakoak gutxi dira eta, horregatik, sare pribatura jotzen da, eta kasu jakin batzuetan ezin izaten da erantzunik aproposena eman.”*

## **6. Sisteman hobetutakoa, eskaria ondo asetzeko**

Justizia Sailari eskatutako datuetan, puntu honetan, sisteman, esku hartzeko edozein fase edo mailatan, eskaria ondo ase ahal izateko zer hobetu zen galdetu genien:

- Zerbitzu judizialetan bertan.
- Gazteen Justizia Zerbitzuaren kudeaketa ahalmenean.
- Edozein neurri mota aplikatzeko behar diren baliabideetan (zentroak, pisuak, itunak...).
- Jarraipenean, koordinaketan, ebaluazioan...
- Irtenbideetan eta burujabetzeko garaian.
- Audientzia Nazionalak hartutako neurriak betetzen ari diren adingabeak artatzeko aukeran.

Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrean aurkeztutako “Gazteen Justiziako 2004-2007 tarteko neurriak gauzatzeko plana Euskal Ekonomia Erkidegoan” zenbateraino garatuta edo ebaluatuta zegoen argitzeko ere eskatu genien.

Zentro eta baliabideen sarean hobetu denari buruz nahikoa mintzatu gara aurreko atal batean. Besteak beste, ondoko hobekuntza edo aldaketa esanguratsu hauek nabarmen genitzake:

- Adingabeen epaitegi eta fiskaltzei buruz, plaza horietan titularrak egon daitezzen.
- Gazteen Justizia Zerbitzuari buruz, plaza guztiak beteta egon daitezzen eta indartzeko pertsona bat edukitzen segi dadin.
- Erakunde laguntzaileekin dauden kontratu guztiak luzatuta egon daitezzen, eta lehiaketa publiko berriak deitu izan daitezzen, Bizkaiko eguneko zentrorako eta Donostiako autonomiako egoitzarako.
- Ebaluazioari dagokionez, Sailak dio ingurune irekiko egitarauak ebaluatzen ari direla, Kriminologiako Euskal Erakundearen laguntzarekin, eta inplikaturako eragile guztien parte hartzearekin. Emaitzak 2006an edukiko dira.

- Amaitzeko, Sailak dio emendakin eta eragozpen ugari aurkeztu dituela Justizia Ministerioaren aurrean, 5/2000 Lege Organikoa aldarazteko Aurreproiektuari buruz. Horren harira, hainbat ondorio txar jasotzen ditu, barruratze neurrien luzapena eta, ondorioz, plaza gehiagoren beharra, baita lantzen ari diren gazteen espetxeratzea ere.

\* \* \*

Honaino, funtsean, Justizia Sailaren erantzunean jasotako informazioa. Jarraian, kontraste edo gehigarri modura, azkeneko urtean, batez ere Zumarragako Ibaiondo hezkuntza taldera egindako bisitetan, eta lehengo Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta oraingo Zigorak Betearazteko Zuzendaritzarekin izandako bileretan, jarraipena egin diegun beste gai batzuk ere aipatuko ditugu.

Hala bisitetan nola bileretan, oraingo egoera zein den, eta hainbat gaitan zer hobetu behar den jorratu eta baloratu ahal izan da. Hemen, besteak beste, batzuk nabarmenduko ditugu:

- Zentroetan aplikatzeko **garapen araudia**.  
Haur eta Nerabeen Babes eta Arretarako Legeak eta, batez ere, 5/2000 Lege Organikoaren garapen arautegiak garapen zabala eskatzen dute, eta horretan urratsak egiten ari dira eta, aldi berean, egin bako urrats asko geratzen dira. Zenbaitetan (adibidez, adingabeen eskubideei zuzenean ukitzen dieten eskuliburu edo protokoloak prestatzean), zirriborroak ikusi, iritziak trukatu eta proposamen batzuk egiteko aukera izan dugu.
- **Ibaiondo hezkuntza zentroaren egoera**.  
2005 urtea trantsizio urtetzat har dezakegu zentro honen dinamikan: talde berriak ireki dira, zuzendaritza aldatu da, lehiaketa publikoaren bidez hautatutako profesional berriak pixkana sartuz joan dira...  
Harreman handia eduki dugu zentroko zuzendaritza berriarekin eta, hartara, lehenago ere jorratutako gai gakoetan zer arazo dagoen eta zer aurreratu den egiaztatu ahal izan dugu. Horrela, adibidez:
  - Zehapenen erregimenaren aplikazioan eta kontrolean.
  - Segurtasuneko langileen eta hezitzaileen taldearen arteko harremanetan (Arartekoak aurreko urtean horretan esku hartze handia izan zuen. Ikus, 2004ko txostena, I. kap., 1.1.6. atala).
  - Barruratutako adingabeen osasun arretan.
  - Poliziek zelan ekarri eta eramaten dituzten batetik bestera.
  - Zelan kudeatzen diren adingabeen kexak edo iradokizunak.
  - Zelan aplikatzen ari den, zehazki, Hondarribiko zazpi adingaberi ukitzen dien eskola jazarpenaren ondoriozko barruratze neurria...
  - Zer grabaketa eta argibide sistema dagoen indarra erabiltzen den kasueta-rako.
  - Zelan eskolatuta dauden adingabeak.
  - Zelan prebenitu eta tratatzen den drogen kontsumoa.

- Zelan tramitatzen diren dokumentuak adingabe atzeritarren kasuetan.
- Zelako irisgarritasun arazoak dituen zentroak...
- Ez dagoela baliabiderik eta alternatibarik zigorraldia edo barruratzea amaitzean irtetea errazteko...

Elkarrizketatu ditugun edo gurekin bilera egin duten adingabeek mahairatu zizkiguten arazo edo kexei dagokienez, batez ere ondoko gaietara buruzkoak dira:

- Zehapenak ezartzeko erabiltzen diren irizpideez.
- Janariaren baldintzez edo kantitateaz.
- Zentroko zuzendaritzarekin zuzenean hitz egiteko erraztasunaz edo zailtasunaz.
- Ordutegiaz (bereziki, oheratzeko orduaz)
- Zehapen zehatz bat, hau da, zigarrorik ez ematea zelan erabiltzen den (gai hau korapilatzen da tabakoaren kontsumoari buruzko lege berriarekin)...

Guk uste dugu gai hauetako gehienei jarraipena egin behar diegula, gerora ere, eta berariazko arreta jarri behar dugula.

#### 4) **Sasoikako langileen seme-alabak**

##### A) **Aurrekariak**

Arartekoak, 1995etik, Arabako sasoikako langileen egoeraren jarraipena egin izan du eta, besteak beste, familiekin etortzen diren sasoikako langileen seme-alabak zelan eskolatzen diren behatu da.

2002an gai hau ezohiko txosten batean jorratu genuen (*Sasoikako langileen egoera Araban*); txostena Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu zen, eta ekimen desberdinak eragin zituen: sasoikako langileei buruzko ez legezko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onetsitakoa; sasoikako langileei buruzko mozioa, Arabako Batzar Nagusietan 2003ko urtarrilaren 20an onetsia.

Harrezkero, segimenduan bereizi egin dira, alde batetik, azken kanpainan egindako jarduketara zehatzak, eta bestetik, epe ertainerako plan edo jarduketak. Hala, iazko txostenean berezita jaso ziren 2003ko kanpainari buruzko datuak (gomendio-multzoetariko bakoitzean: eskolatzearen hobekuntza...) eta egindako urratsak, bereziki Osoko Planari, Instituzioen arteko Mahaiari eta arauak garatzeko zenbait proposameni zegokienez (ikus 2004ko txostena, I. kap., 1.1.2. atala).

Erakunde honen segimendu lanak, normalean, honako jarduketara hauek izaten ditu ardatz:

- Bilerak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuarekin
- Sasoikakoei buruzko Mahaiaren azken bileran parte hartzea. Arabako Foru Aldundia da Mahaiaren sustatzailea.
- EAEko Instituzioen arteko Sasoikakoen Mahaiaren parte hartzea. Mahai hori 97/2003 Dekretuaren bidez sortu zen.

- Ofiziozko espediente batzuk, Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari, Hezkuntza Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendu zitzaizkienak.

Jarduketa guztietan, gure txosteneko 17 gomendioak eta gorago aipatutako bi proposamen instituzionalak izan dira beti erreferenteak; batez ere, erakunde edo sailen aurrean ofizioz egin diren jarduketei edo informazio-eskaerei dagokienez. Hala, bada, iaz

- Nekazaritza sailburuari informazio eguneratua eskatu zitzaion gai hauen inguruan: Osoko Planaren garapena, Instituzioen arteko Mahaiaren jarduna, Sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten gutxienerako baldintzak arautzeko dekretua, Sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntza-lerroak.
- Hezkuntza sailburuari ere informazioa eskatu zitzaion azken mahats bilketan eta patata bilketan txosteneko 13. eta 14. gomendioak betetzeko hartutako neurriez eta egindako jarduketaz (13. gomendia: “Ahaleginak egitea adingabeen eskolatzeko maila igotzeko”; 14. gomendia: “Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzea”).
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, berriz, honako honen berri eskatu zitzaion, Sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten gutxienerako baldintzak arautzeko dekretuarena.
- Arabako ahaldu nagusiari ondoko gaiei buruz galdetu zitzaion, sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntzei buruzko Dekretuari edo laguntzak emateko deialdiari buruz (Arabako Batzar Nagusiek 2003ko urtarrilaren 20an onetsitako mozioaren 2. atala)...

Eta gainera, denei mahats eta patata bilketen kanpainan txostenaren gomendioak betetzeko zer jarduera zehatz bideratu zuten eta zer neurri zehatz hartu zuten ere galdetu genien (ikus jarduketan laburpena 2004ko txostenean, I. kap., 1.1.2 atala).

## B) Azken urteko jarraipena

Azkeneko urtean egindako ofiziozko jarraipenak nagusiki adingabeen eskolatzeari aditu dio, Hezkuntza Sailera zuzendutako espedientearen bitartez. Eta horretara mugatuko gara hemen.

Alabaina, beste gai orokorrago batzuei dagokienez, informazio ugari ematen duten beste jarraipen bitarteko batzuk ere izan ditugu eskueran: bereziki, Nekazaritza Sailaren txostena, Sasoikako Lanaren Arretarako 2004-2007ko Osoko Planaren garapenaren gainean, eta Arabako Foru Aldundiari 2004ko kanpainari buruz luzatu genion datu eskariaren erantzuna, 2005eko otsailan jaso genuena.

Gainera, bititokien berariazko gaiari buruz, gure erakundearentzat izugarri garrantzitsua baita, azkeneko urtean tramitatutako kexa batzuk tarteko, zuzenean egiaztatu ahal

izan dugu oraindik baldintza onartezinek badira utela – tramitatutako kasuetan bezala, adingabeei ere ukitzen dietenak-, udalaren esku hartzea mugatuta dagoela, eta araudi garbirik ez dagoela; araudia beharrezkoa eta premiazkoa dela aldarrikatzen segitzen dugu guk.

Arabako Foru Aldundiak 2004ko kanpainari buruz emandako datuek agerian jartzen dute, berriro ere, gai honen garrantzia: Agurain inguruan bisitatu genituen 20 bizilekutatik lauk baino ez zituzten gutxieneko baldintzei buruzko gure gomendioak betetzen; Arabako Errioxan, 121 bizileku ikusi bagenituen, 78tan betetzen ziren baldintzok, eta Kanpezun, 21 ikusi eta 11k baldintza guztiak urratzen zituzten eta, gainerakoek Arartekoak egindako lau gomendiotatik hiru ez zituzten betetzen.

Muga gaitzen, lehenago esan dugun bezala, adingabeen eskolatzearen gaira; horren harira, Hezkuntza Sailarengandik jasotakoa erantzunetik ondoko datu eta informazio hauek aterata genituzke:

- Ikasle hauek azkeneko kanpainan ondoko zentro hauetan eskolatu dira:  
Arabako Errioxan:
  - Laguardiako Víctor Tapia lehen hezkuntzako ikastegian, irailaren 19tik azaroaren 3ra, gehienez 34 ikaslerekin; hainbat astetan sasoikako langileen familietatik 20 eta 30 ikasle inguru joan ziren eskolara.
  - Eltziegoko lehen hezkuntzako ikastegia: irailaren 21etik urriaren 28ra, gehienez 28rekin, eta hainbat astetan 20 ikasle ingururekin.
  - Ramiro de Maeztu lehen hezkuntzako ikastegia (Oion): irailaren 19tik urriaren 17ra; gehienez bildutako ikasleak 7 ikasle bost egunez.
  - Lantziego Ikastola lehen hezkuntzako ikastegia: irailaren 23tik urriaren 28ra, guztira 14 ikasle eman zuten izena, 4tik 12 urtera bitartekoak.
  - Labastida lehen hezkuntzako zentroa: urriaren 4tik 21era: 4 eta 15 ikasle inguru joan ziren.
- Arabako mendialdean Kanpezuko Ibernalo ikastolan eskolatu ziren, irailaren 13tik aurrera, eta gehienez 8 ikasle bildu ziren, 3tik 11 urtera bitartekoak.
- Egitarau honetara xedatutako sostenguko irakasleei dagokienez, 11 pertsona izan dira (aurreko kanpainan baino hiru gehiago); irakasle bat zentro bakoitzean, eta hiru Laguardia eta Eltziegoko, halako ikaslerik gehien han bildu baitzen.
- Azkeneko bi kasuetan, ikasleak adin edo etapaka bildu dira (haur hezkuntzakoak batetik eta lehen hezkuntzakoak bestetik), ikasgela desberdinetan. Beste kasu batzuetan, oro har, eremu edo azpi-multzo desberdinetako berariazko ikasgela eratu dute.
- Oso jatorri desberdinetako haurrak bildu dira, baina nagusiki portugesak, berriro ere. Komunikazioaren hutsunearen gaia –portugesak- eta adinaren eta beraiei legozkiekeen curriculumeko edukien arteko desfasea bi arazo garrantzitsu dira arreta egokiaren ikuspegitik. Horien ondoan, zer demanda egongo den ez jakiterik ez dagoela, eta asistentzia irregularra izaten dela nabarmenduko genuke.
- Zentro guztietan, diotenez, autonomia pertsonala, harremanetarako gaitasunak, bizikidetzak, elikadura eta higiene ohitura eta arauak, matematika eta hizkuntza trebetasun oinarrikoak... landu dira. Zentro bakoitzean, halaber, gainerako

ikasleekin batera egindako jarduerak jaso dira (normalean gai edo jarduketa batzuk). Haur gutxi batzuk ikasgela arruntetan ere sartu dituzte (adibidez, Eltziegoko ikastegian zazpi ikasle).

- Balorazio orokorrari dagokionez, desberdina da, zentroen arabera: “oso ona”, “estresagarria baina aberasgarria”, “kritikoagoa”...
- Hurrengo kanpainetara begira, azpimarratzen da irakasle horiek berariazko prestakuntza handiagoa behar dutela, gela arruntetan sar daitezten bidean aurrera egitea proposatzen da, espazioak ohiko erabilpenaz bestelako jardueretarako egokitzeak eskatzen duen ahalegina nabarmentzen da...

Atal hau amaitzeko, pare bat gogoeta, eskolatzearen datuen inguruan:

- Zentroek emandako datu guztiak 2, 3, 4 urteko eta 11, 12 edo 13 urteko ikasleenak dira. Oraindik ez da lortu hortik gorako gazteak eskolatzea. Izan ere, azkeneko kanpainan ez zen inor eskolatu Samaniegoko Bigarren hezkuntzako Institutuan, Laguardian, ez eta Oionen dauden dituzten ikasgeletan ere.
- Jasotako datuei esker jakin daiteke kanpainaren uneren batean inguruko eskolatan hartu dituzten sasoikako familietako seme-alabak zenbat izan diren, gehienez (106 adingabe). Datu hori bere neurrian baloratzeko, komeni da, beti, horra joaten diren eskolatzeko adinean guztira dauden herritarren kopuruarekin alderatzea. Atal hau idazten ari garenean oraindik ez daukagu datu hori, baina aurreko estimazio eta “zentsuek” hiru eta hamasei urte bitarteko 400 bat adingabetan jartzen dute.

Horren harira, erreferentzia gisa, ondoko datuen taula ekarriko dugu hona; taula hau Arabako Foru Aldundiak helarazi zigun informazioarekin osatu genuen. 2004ko kanpainan 70 herritara joanda jasotako datuak dira, eta horietan ondoko sasoikako langileak kontatu ahal izan ziren:

	Helduak	Adingabeak	Derrigor eskolatzeko adinekoak (6-16 urte)	Eskolatuak
Agurain ingurua	167	13	9	0
Arabako Errioxa	1.702	434	221	84
Kanpezu ingurua	180	39	22	8
Guztiak	2.049	486	252	92

Bestalde, komeni da gogoratzea adingabe hauek askorekin, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak bultzatutako gizarteratu eta hezteko egitarauari esker, zorrozki eskolakoak ez diren baina halakoak bezain hezitzaileak diren beste jarduerak ere burutzen direla (astialdiko jarduerak, higiene pertsonaleko edo elikadurako ohiturak garatzea, osasun beharrei buruzko orientazioa...). Kulturen arteko jarduerak eta komunitatea sentsibilizatzeko jarduerak ere burutzen dira.



## 5) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak

### A) Aurrekariak

Gure erakundeak *EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna* goiburupean egindako ezohiko txostena argitara atera zen, Eusko Legebiltzarreko Buruari eman eta Legebiltzarrean eztabaidatu zen, 2001ean.

Urte hartako ohiko txostenean laburpen bat jaso zen, 10 gai bereziki kezkarriak eta egindako 21 gomendioak azpimarratuz. Gerora, 2002ko ekainean, bilera bat egin genuen Hezkuntza Sailburuarekin eta Saileko arduradun gorenekin, non, besteak beste, txostenarekin zerikusia zuten gaiei, eta han jasotako gomendioen jarraipena egin beharrari heldu zitzaion. Horretarako, gure erakundeak, ofizioz, Hezkuntza Sailburuarengana jo zuen, hasierako informazioa, orokorra, eskuratu nahirik. Informazio hori, azkenean, 2003ko martxoan jaso genuen, dokumentu luze batean. Bai dokumentu hori bai eskatutako informazio gehigarria, eta Sailaren erantzuna, urte hartako laburpenean jaso ziren (ikus 2003ko txostena, 1.1.10 atala).

Handik urtebetera, eta ikasturte berria (2004-2005) hasita zegoela, berriro jo genuen Hezkuntza Sailera datu batzuk eguneratu nahirik. Jarraipenerako gure lehenengo jarduketan txosteneko 21 gomendioen eta bakoitzaren informazio xehatua eskatu bagenuen ere, oraingoan horietako batzuk genituen hizpide nagusi, eta aurreko erantzunen arabera, esanguratsuen eta objektibagarrien irizten genien proposamen eta datuetara bideratu ginen, haietako batzuk bilakaeraren adierazle ere izan litezkeelakoan (ikus 2004ko txostena, 1.1.10 atala).

Azkeneko urte honetan ere prozedura horixe segitu dugu: informazioa gomendio eta adierazle jakin batzuetara mugatuta eskatu dugu.

### B) Azken urteko datuen jarraipena eta eguneratzea

Datuak abenduaren 2an eskatu genizkion Hezkuntza Sailari. Erantzuna 2006ko urtarrilaren 26an jaso genuen. Orain, mahairatutako gaiei buruz bidali ziguten informazioa laburtuko dugu. Txostenaren ordenari segituko diogu eta, kasu bakoitzean, horko gomendioetara joko dugu, baina gai batzuetara mugatuko gara, eta errazen objektibatzen diren gaiak azpimarratuko ditugu, bereziki.

\* \* \*

## 1. HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA OROKORRARI ETA HORREN LEHENTASUNEI BURUZKO GOMENDIOAK

### 1. Gomendioa: Bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna eman

Aurreko jarduketetan bezala, interesatzen zaiguna ez da lege irizpidea, edo arautan zelan islatzen den jakitea (esaterako, 297/2000 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian), benetan zelan aplikatzen den baizik eta, zehazkiago, zelan islatzen den lehentasun hori 0-3 urteko baliabideen mapan.

Sailaren lehenagoko erantzunean, 2005eko otsailean, gai honi buruzko hainbat eranskin bidali zizkiguten:

- Haurreskolak partzuergoan ez dauden udalerrien zerrenda, eta udalerrri horietan eskolatutako haurren kopurua.
- Partzuergoan sartuta dauden udalerrien zerrenda, lehenetasun gradu desberdinen arabera sailkatuta.
- Datu taulak, non, udalerriz udalerrri, hainbat datu kuantitatibo jasotzen diren (biztanleak, azkeneko urteotan jaiotakoak, langabezia tasak...), eta horietatik puntuazio batzuk ateratzen dira (eskolatzeko estalduren arabera (0-2, 0-3 urte), barruko produktu gordinaren arabera, langabezia tasaren arabera) eta, azkenean, lehenetasun jakin bat ematen zaio bakoitzari, 1etik 6rako eskalan.

Sailaren erantzunean eranskinak bidaltzera mugatu ziren arren, inolako azalpen edo iruzkinik egin barik, ulertu genuen han eskaintzen zigutena udalerrien lehenetasun eta irizpide batzuen arabera sailkapena zela eta, horrek, ez bairik gabe, lehenetasunen arabera plangintza egiteko balio zezakeela.

Datuak aztertuta, ordea, ez zirudien lehenetasunen eta zeuden baliabideen artean korrelaziorik zegoenik. Baziren, ezarritako irizpideen arabera, lehenetasun gorena zuten baina 0-2 urteko tarterako eskolatzeko inolako aukerarik ez zuten udalerrriak eta, baziren, halaber, lehenetasun txikia izanik, tarte horretan estaldura maila handia zuten udalerrriak. Izan ere, partzuergoan zeuden udalerrien zerrenda zekarren eranskinean ezarritako lehenetasun guztietako udalerrriak ageri ziren, eta salbuespena lehenetasun gorenekoak ziren; kategoria horretan, gainera, udalerrri barruan eskolatzeko inolako aukerarik ez zeukatenak zeuden.

Horregatik, genituen datuetan oinarrituz, ondorioztatu genuen ez zela, guk gomendatu genuen bezala, ikaslerik behartsuenak lehenetasunez eskolatzeko lortzen ari; eskolatzeko postuak horretarako udal ekimenik edo ekimen pribaturik dagoen tokietan sortzen direla, eta hori berdin gerta zitekeela premia bereziko tokietan zein premia berezikoak ez ziren tokietan.

Alde horretatik, informazio eskari berrian, honakoei buruzko datuak eskatu ditugu:

- 1) Ordutik sortutako plazen banaketa eguneratua (2005ean sortutako Haurreskolak Partzuergoko ikastegi eta plazak, 2005ean sortutakoak), eta zeintzuk eta zenbat diren, sailaren ustez, lehenetasun irizpide horrekin bat datozenak.
- 2) Ikasle premiatsu edo behartsu asko dituzten zein eskualde eta herri dauden oraindik arretarik gabe, edo txiki-txikitatik eskolatzeko aukerarik gabe.
- 3) Zentro pribatuetan baimendutako zentro eta plazei dagokienez, zenbat diren eta zelatan banatuta dauden urtean, ea biztanle premiatsuen lehenetasunezko arreta kontuan hartzen den eta, datua izatekotan, ea zelako proportzioan uste duen sailak asetzen direla premiarik handieneko ikasleen beharrak.
- 4) Ararteko erakundeak gai honetan dituen irizpide eta jarrerei buruz egin lezakeen edozein ohar.

Azkeneko erantzunean, sailak:

- Haurreskolak partzuergoan dauden ikastegien zerrenda eguneratua erantsi digu, kasu bakoitzean zenbat plaza eta zelako lehenetasuna daukaten zehaztuz: 3.068 plaza guztira (290 Araban; 1.241 Bizkaian; 1.537 Gipuzkoan).

- 0-3 urteko eskaintzarik gabeko udalerrien zerrenda ere bai (20 udalerrri Araban, 29 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan).
- Pribatuko plaza eskaintzari buruzko ondoko datu hauek ematen ditu:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
0 urte:	80	848	544	1.472
1 urte:	247	2.379	975	3.601
2 urte:	746	3.960	3.240	7.946
0-2 urte (guztira)	1.073	7.187	4.759	13.019

Eta, plaza horiei dagokienez, hauxe dio: “Ikastegiei baimena emateko ez da kontuan hartzen ea eremu behartsuak artatzen dituzten, araudiak eskatzen dituen instalazio eta titulazio baldintzak betetzen diren ala ez baizik.”

Horrela, jasotako datuekin eta bestelako azalpenik gabe, ez da erraza mahairatutako gaietarako buruzko ondorioz ateratzerik, ez eta zer joera dagoen zehazterik ere.

Nolanahi ere, gure gomendioak planteatzen duen ikuspegitik kezkarriak diren zenbait elementu nabarmen daitezke (premiarik handieneko ikasleen hezkuntza goiztiarrari lehentasuna ematea). Horrela:

- Partzuergoan dauden plazarik gehienak lehentasun txikiko tokietan daude.
- Adin tarte honetako hezkuntza eskaintzan alde handia dago sektore publikoaren eta pribatuaren artean: 3.068 plaza eskaini dira Partzuergoan, eta 13.019 plaza ikastegi pribatuetan, eta azkeneko plaza hauetan lehentasun hori kontuan ere ez da hartzen, gainera.

### **3. Gomendioa: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea**

Sailak gomendio honen inguruan emandako erantzunetan hiru kolektibo bereiztu eta berezko izaera ematen zieten:

- a) Ezgaitasunen bati lotutako hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleak.
- b) Ikasle etorkinak.
- c) Ikasle ijitoak.

Eta bakoitzari buruz hainbat datu ematen ziren (ikus, adibidez, aurreko urteko datuak, 2004ko txostenean, I. kap., 1.1.10 atala).

Zelan bilakatu diren ikusteko eta alderatu ahal izateko, 2005-2006 ikasturte berriari buruzko datuak eskatu ziren, bereiztutako hiru kolektibo horietako bakoitzaren gainean.

Bestalde, berriro gogoraziko dugu gure 3. gomendio hori premia bereziak dituzten ikasleei buruz dela, ez dela hiru kolektibo horiekin zehazki agortzen, edo asetzen, eta gure txostenak ikastegi asko –halako ikasle asko zeuzkatelako “kritikotzat” jotakoak- zelan

zeuden eta zelako kalifikazioak ateratzen ziren aztertzen zuela. Izan ere, gomendioak halako egoerak saihestu nahi ditu eta, horretarako, zenbait neurri iradokitzen ditu: ratioak ezartzea, matrikulazio araudia berrikustea, estalitako biderapen edo kanporatzeen jarraipena egitea... Gai horiek hain dira garrantzitsuak, non berriro galdetu diegun ea guk proposatutako neurriren bat hartu duten edo hartzeko asmorik daukaten, eta ea Sailak ikasle horien banaketari buruz gure txostenean nabarmendu genituen egoera eta arriskuei begira aldaketa esanguratsurik egin dela erakusten duen daturik daukan.

Ondoren puntu hauetako bakoitzaren gainean funtsean jaso dugun informazioa laburbilduko dugu.

### a) **Ezgaitasun baten ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak**

Sailaren lehenengo erantzunean ikasle horien eskolatzearen datu orokorra ematen zen: %60 sare publikoan, eta %40 itunpeko sarean. 2003-2004 ikasturteko datu zehatzak honako hauek ziren, hezkuntza premia bereziko 5.263 ikasle ikastegi publikoetan, eta 3.744 ikastegi pribatuetan (hau da, %58 eta %42, hurrenez hurren).

Berriro informazio eske zuzendu gatazkiekionean, Sailak ondoko datu koadro hau bidali digu, 2005-2006 ikasturteari buruz:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		SAREAK GUZTIRA		GUZTIRA
	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	
Haur eta lehen hezkuntzak	677	368	1.939	1.450	1.040	757	3.656	2.575	6.231
DBH	380	324	1.250	1.086	478	579	2.108	1.989	4.097
Derrigorrezkoaren hezkuntza	120	23	233	113	126	48	479	184	663
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.177</b>	<b>715</b>	<b>3.422</b>	<b>2.649</b>	<b>1.644</b>	<b>1.384</b>	<b>6.243</b>	<b>4.748</b>	<b>10.991</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.892</b>		<b>6.071</b>		<b>3.028</b>		<b>10.991</b>		

Datuek erakusten dugu banaketa orokorrak, sareetan, gorabehera txikiak dituela (hauxe litzateke, azkeneko datuen arabera: % 56,8-% 43,2), baina alde handiekin lurraldeen artean (Arabian ikasle hauen % 62 daude sare publikoan, eta Gipuzkoan % 54). Azkeneko urteko joera, datuei adituz, oreka handiagokoa dela dirudi.

### b) **Ikasle etorkinak**

Lehenengo erantzunean, Hezkuntza Sailak hainbat gogoeta egin zituen ikasle etorkinak arian-arian gehituz zihoazela-eta, horrek hezkuntza sistemarentzat zekartzan erronkak zirela-eta, eta beharrei hobeto erantzuteko antolakuntza aldetik hartutako hainbat neurri zirela-eta: lurralde bakoitzean arduradunak izendatu ziren, baita koor-

dinatzaile orokorra ere; Eskolatzeari buruzko Lurralde Batzordeak antolatu ziren, eta "Ikasle Etorkinak Artatzeko Plana" prestatzeko asmoa zeukaten.

Beraz, guk informazio gehigarria ondokoei buruz eskatu genien:

- Zer irizpide, arau edo neurri erabiltzen edo hartzen ari ziren eskolatzeari buruzko lurralde batzordeak gure gomendioaren helburua iristeko (ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko).
- Ikasle horien banaketaren datuak, eguneratuta (lurraldeka, sareka...).
- Zein fasetan zegoen Ikasle Etorkinak Artatzeko plana...

Horren guztiaren berri iazko gure txostenean eman genuen (ikus I. kap., 1.1.10 atala).

Eskolatzeari dagokienez, 2004ko azaroaren 19an eguneratutakoak jaso genituen.

Ondoko datu hauek 2005-2006 urtekoak dira, 2005eko azaroaren 1ean eguneratuta:

### **Ikasleak lurraldeetan eta eskola sareetan zelan banatuta dauden**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
Publikoan	2.197	82,47	4.924	71,77	1.752	54,12	8.873	69,5
Itunpekoan	467	17,53	1.937	28,23	1.485	45,88	3.889	30,5
<b>Guztira</b>	<b>2.664</b>	<b>100</b>	<b>6.861</b>	<b>100</b>	<b>3.237</b>	<b>100</b>	<b>12.762</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>20,87</b>		<b>53,76</b>		<b>25,36</b>		<b>100</b>	

### **Ikasleak lurraldeetan eta hizkuntz ereduetan zelan banatuta dauden**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
A eredia	2.019	75,79	3.740	54,51	588	18,16	6.347	49,73
B eredia	502	18,84	1.602	23,35	1.461	45,13	3.565	27,94
D eredia	143	5,37	1.519	22,14	1.188	36,70	2.850	22,33
<b>Guztira</b>	<b>2.664</b>	<b>100</b>	<b>6.861</b>	<b>100</b>	<b>3.237</b>	<b>100</b>	<b>12.762</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>20,87</b>		<b>53,76</b>		<b>25,36</b>		<b>100</b>	

Datu eguneratuen bi taula hauei begiratu, eta urte bete lehenagoko datuekin alderatzen baditugu (ikus 2004. txostena, 101-102 orr.) joera batzuk igar ditzakegu:

- Itunpeko ikastegietan eskolatutako ikasle atzerritarren proportzioa pixka bat jaitsi dela (% 30,9tik % 30,5era). Arabaren kasuan, ikastegi publikoetan dauden halako ikasleen proportzioak pixka bat gora egin du, berriro (guztien %82,47raino).

- D ereduan eskolatutakoak gehitu dira, eta A ereduan eskolatutakoak gutxitu, gehiengoak A ereduan segitu arren.
- Eskolatutako ikasle hauen kopurua gehitu da, aurreko urteetan hazi den bezala: 12.762, iazko 10.125en aldean.

Ikasleen jatorriari buruz, Sailak datu hauek eman ditu: % 65 latinoamerikarrak dira, % 15 afrikarrak, % 16 Europako Batasunekoak eta Europako gainerako herrialdeetakoak; %4 Asia eta Ozeaniakoak.

Duela gutxi eskolatutako ikasle etorkinentzako hizkuntza indartzeko egitarauen gaineko datu berrien artetik, honako hauek aterako ditugu: zerbitzugintzako deialdia ikastegi publikoetako irakasleentzat (148 plaza: 94 Lehen Hezkuntzan eta 54 Bigarren Hezkuntzan; iaz 115 izan ziren); dirulaguntzen deialdia itunpeko ikastegientzat: laguntzak 87 ikastegiri. (1.298.613 euro, aurreko ikasturtean baino % 75 gehiago).

### c) **Ikasle ijitoak**

Sailaren lehenengo erantzunak ekimen desberdinak zituen hizpide, hala nola, absentismoaren kontrako protokoloa, Bizkaian gizarte zerbitzuekin koordinatuta ezarritakoa, lankidetzat itunak *Iniciativa Gitana* eta *Kalé dor Kayikó* bezalako erakundeekin, edo lantalde bat sortzea ikasle ijitoak eskolatzeko plan berria atontzeko.

Informazio gehigarria eskatu genienean, ekimen horiei buruzko zehaztasun bat edo beste, eta ikasle horiek zelan banatuta zeuden zituzten datuak baino ez genituen eskatu (lurreldeka, sareetan...).

Horren guztiaren berri (datuak eta informazioak) urte horretako txostenean eman genuen. Bestalde, iazkoan azkeneko datuak jaso genituen, 2003-2004 ikasturtekoak:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
Lehen hezkuntzako ikasleak. Ikastegiak	314	1.200	273	1.787	70
Bigarren hezkuntzako ikasleak. Ikastegiak	73	300	113	486	19
Itunpeko ikastegietako ikasleak	40	130	117	287	11
<b>GUZTIRAK</b>	<b>427</b>	<b>1.630</b>	<b>503</b>	<b>2.560</b>	<b>100</b>

Ikasturte horretan ikasle ijitoak zituzten ikastegiei dagokienez, emandako datuek 199 ikastegi zituzten hizpide, baina halako ikasleen oso proportzio desberdinekin bazuen eta besteen artean .

Datuek argi eta garbi erakusten zuten ikasle ijitoak:

- Batez ere ikastegi publikoetan eskolatzen direla (ikasle guztien % 89).
- Izugarri jaisten dela Bigarren Hezkuntzan (lehen hezkuntzan baino 3 edo 4 bider gutxiago).
- Ikastegi gutxi batzuetan pilatzen dela, bereziki: Bizkaian 15etan, Gipuzkoan 4tan eta Araban 3tan.

Iazko erantzunean bezala, Sailak azpimarratu digu kezkarriena ez dela ikasle horiek non kokatzen diren, eskola arrakastan oso indize baxuak dituztela baizik, eta beraiek eskolan arrakasta lortzeko dituzten oztopoak hautematen, eta oztopo horiek gainditzeko bideak irekitzen saiatu direla.

Ikasle ijitoen eskolatzea 2005ean hobea izateko hartutako neurriei dagokienez, Sailak honako hauek aipatu ditu:

- Oinarrizko dokumentu bat prestatu da, ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana atontzera begira.
- Irakasleei ijitoei eta hezkuntzari buruzko ikastaroak eman zaizkie hiru lurraldeetan, lan mintegiak egin dira Bizkaian ikasle ijitoekin ari diren irakasleekin, lan saioak egin dira irakasleekin ijitoen kulturari buruzko material interaktiboak biltzen dituen CD bat aurkezteko.
- Hizkuntz ereduz aldatzen diren ikasleei indartzeko irakasleak ipini zaizkie, ikasle ijitoak ethez aldatzen direnean eredu elebidunetara alda daitezen errazteko.
- Ikasketa lizentzia baterako deialdia atera da, ijitoen kulturari buruzko curriculumeko materialak prestatzeko.
- Deialdi bat prestatu da, ikasle ijitoentzako hezkuntza egitarauak garatu eta ikastegietako lana indartzeko.

#### d) ***Ikasle premiatsuei buruzko neurriak***

Honaino jasotako gaiak alboratuta, gure gomendioan, lehenago esan dugun moduan, premia bereziko ikasleak genituen hizpide, oro har. Alde horretatik, Arartekoaren txostenean ikastegi asko –halako ikasle asko zeuzkatelako “kritikotzat” jotakoak- zelan zeuden eta zelako kalifikazioak ateratzen ziren aztertzen zen. Izan ere, 3. gomendioak halako egoerak saihestu nahi ditu eta, horretarako, zenbait neurri iradokitzen ditu (ratioak ezartzea, matrikulazio araudia berrikustea, estalitako biderapen edo kanporatzeen jarraipena egitea).

Neurri horiek, pentsa daitekeenez, konplexuak dira, eta zenbait kasutan behintzat, araudiak aldaraztea ekar lezakete. Horren harira, Sailak, bere erantzunetan, ez du inolako proposamen edo ekimenik aipatzen.

## **2. eta 4. gomendioak: Gizartean baztertuak dauden ikasleei eman beharreko erantzunak garatzea**

Bazterturiko ikasleenganako diskriminazio positiboari dagokionez, Sailak, erantzun guztietan, ekintzak bereziki honelaxe zehaztu ditu:

- a) Hezkuntza indartzeak.
- b) Berriazko hezkuntzan esku hartzeko egitasmoak.
- c) Esku hartzeko egitasmo orokorrak.

Iazko gure txostenean hiru alor horietako bakoitzari buruzko datu batzuk jaso genituen (irakasleen kopurua, egitasmoak, ikasteko komunitateak...), baita azkeneko

urteotan zelan bilakatu diren ere. Hemen ikasturte berriari buruzko datuak eguneratu dira (2005-2006).

- Hezkuntza indartzeak:  
Indartzeko modulua, 68 dedikazio osorena, itunpeko 112 ikastegitan, guztira.
- Berriazko hezkuntza interbentzioko egitarauak, eskola atzerapen handiko edo eskola ingurunera egokitu gabeko arazoaren arabera, ikastegiak eskatutakoari erantzuteko. 2005-06 ikasturtea:

	<b>Ikastegiak</b>	<b>Irakasleak</b>
Araba	11	16
Bizkaia	28	56
Gipuzkoa	33	25,5
EAE	72	97,5

2004-05eko datuak hauek ziren: 94 ikastegi eta 90,5 irakasle.

## 2. IKASTETXEEN EBALUAZIOA ETA INTEGRAZIO PRAKTIKA ONEN SUSTAPENA

Gure 6, 7 eta 8. gomendioak biltzen dituen bloke honi dagokionez, Sailaren lehenagoko erantzunean Hezkuntza Ebaluazio eta Ikerketako Euskal Erakundeari eskatutako hiru lanak aipatzen zituen esplizituki:

- Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako berezko ebaluazioen testuinguruan hezkuntza premia bereziei erantzuteko azpi-sistemaren ebaluazioa, gure Erkidegoaren adierazgarri den laginarekin.
- Eskolako Multzokatze Ereduaren ezarpenaren luzerazko ebaluazio ikerketa, ikasle gorren eskolatze elebidunean.
- Gizarte eta kultura aldetik baztertuta dagoen ingurunean hezkuntzan esku hartzeko eredu gaineke ikerketa.

Horren harira, Sailari informazio eguneratua eskatu diogu, berriro, bakoitza zer fasetan dagoen jakiteko: lehenengo kasuan, ikerketa amaituta dago eta laster argitaratuko den behin behineko txostenarekin, beste bietan, ikerketa amaitu barik dago.

## 3. IRUDI PROFESIONAL BATZUK INDARTZEA, KOORDINAZIOA ETA BERRANTOLAKETA

Gure txostenean 5 gomendio hartzen zituen atal honetan (9tik 13.ra), aurten bi gai bakarri buruzko datuak eskatzera mugatu gara:

- 1.) Irakasleen aniztasuna bultzatzeari dagokionez, kultur gutxiengoetako pertsonak edo ezgaituak sartzeko aukera (10. gomendioa, 1. atala).



Gai honen inguruan, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* ezohiko txostena egiten ari girela, aurreko urtean zenbait datu eskatu genituen, berariazko ofiziozko espediente baten bidez. Sailaren erantzunean deigarria zen ez zegoela zeregin eta kategoria profesional desberdinetan enplegatuta zeuden ezgaituen benetako kopuruaren daturik. Horregatik, administrazio horretatik eta beste batzuetatik jasotako erantzunen ildotik, gure erakundeak hainbat gomendio luzatu zituen:

- Gehitu behar zela oraingo plaza erreserbaren kupoa %10era heltzeraino.
- Edozein kontratazio motatan aplikatzera zabaldu behar zela, bereziki aldi baterako enplegura, eta espresuki sartu behar zela betebeharrak hori ordezkokoak egiteko zerrenda edo burtsak kudeatzeko jarraibideetan.
- Ordenan banatzea lortu behar zela, talde eta kategoria desberdinen arabera, sustapen neurri horrek ahalik eta ezgaiturik gehienengana iritsi ahal izan daitezten.
- Ezgaituek enplegu publikoa eskurago izan dezaten neurri positiboak agortu behar dira, balizko egokitzapenei benetako edukia emanaz, plazak erreserbatze hutsetik harantzago.

Funtsean, 2002ko urteko gure txostenean erantsi genuen gomendio orokorrean jada mahairatu genituen iradokizun berberak ziren (Gordetako kuota: pertsona ezgaituak EAEko enplegu publikora heltzeko sustapen neurria” –ikus 2002ko txostena, VI. kapitulua), baina oraingoan egoki iritzi genion edukia ezgaituak EAEko lan merkatu arruntera sartzeko planean jada onartutako proposamenen arabera zehaztea.

Horrekin batera, administrazio desberdinei langile ezgaituen gaineko datuen jarraipen eta tratamendurako sistema ezartzea komeniko litzatekeela esaten genien, proposatutako ekimenak benetan zenbateraino bete edo gauzatu ziren jakin ahal izateko.

Horrela, bada, aurten ondoko gaineko informazioa eskatu dugu:

- 1) Zer neurri hartu diren goian esandako proposamen horiek izatez aplikatzeko.
- 2) Ea daturik dagoen sailak kontratatutako langile ezgaituei buruz eta, baldin badago, zer datu diren.
- 3) Eta hasierako gomendioaren beste zatiari dagokionez, zer urrats egin den kultur gutxiengoetako pertsonak sistemara sar daitezten.

Idatzian dioenez Langileen Kudeaketako Zuzendaritzatik etorri zaigun erantzunetik, ez dirudi ezer aurreratu edo aldatu denik gomendatutakoa betetzearen ildoan. Ez esandako lau proposamenei dagokienez, ez eta langile ezgaituei buruzko datuei, eta kultur gutxiengoetako pertsonak sistemara sartzeari dagokienez ere (erantzunaren idatzian kultur gutxiengoaren kontzeptu hori ideologia, erlijio edo etnia bezalakoekin nahasten dela iruditu zaigu).

- 2.) Hezkuntza eta terapia unitateak abiarazteko, beste instantzia batzuekin koordinatzeari buruz.

Arartekoak, hezkuntza premia bereziei buruzko txostenaren ondoren, berriazko arreta jarri du gai honetan, behin baino gehiagotan. Azkenekoa, joan den urtean La Olako hezkuntza eta terapiarako eguneko zentroak ez jarraitzearen gainean jasotako kexen ostean. Espediente hori hor zegoela kontuan hartuta, informazio gehiago eskatu zen, ondoko gaiet buruz:

- Ea ezer berri zegoen unitate horren inguruan, lehendik jasotako informazioaren osagarri.
- Ea zer fasetan zeuden Araba eta Gipuzkoako lurraldeetan baliabide berriak sortzeko egitasmoak.

Horren guztiaren berri hemen emango dizuegu, hurrengo orrialde batzuetan (adingabeak eta buruko gaixotasunak hizpide dituen atalean). Bestalde, Ospitaletan eta Etxean Artatzeko Zentroak sortzeko Dekretu Proiektuari dagokionez, esan digute tramitatzen ari direla, eta ikasturte honetan argitaratu ahal izatea espero dela.

#### 4. PROZEDURAK ETA BALIABIDEAK HOBETZEA

Gomendio hauei buruz (txostenean 14tik 19rakoak ziren), aurreko informazioak kontuan hartuta, aurreko bi gaitara mugatu gara:

- 1.) Hezkuntza premia berezien erregistroari dagokionez (15. gomendioa), eta jarduera protokolei eta isilekotasun bermeei dagokienez (16. gomendioa), ea isilekotasuneko lege baldintza guztiak eta jarduerarako ondoriozko protokoloak biltzen dituen aplikazio informatikorik garatzeko lana, aurreko erantzunean aipatu zigutena, amaitu den, eta ea protokolo horiek izatez aplikatzen ari diren dagoeneko. Esan digutenez, esperimentazio eta doitzeko fasean daude.
- 2.) Ikastegietan arkitektura oztupoak ezabatzeari dagokionez (18. eta 19. gomendioak).  
Iaz galdetu genien ea ikastegien irisgarritasun baldintzen gaineko egoera maparik egin zuten, eta ea izatezko egoeratik (*EAE*n erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna gure txostenean ikastegi batzuen laginerako aztertu genuena) denontzat irisgarri izan daitezkeen egoerara igarotzeko zer urrats eta zer jarduera egin behar ziren aurrekusten zuen planik zegoen. Horretarako Sailaren erantzun batean jasotakoari heldu genion: "Helburua da zentuzko denbora tarte batean ikastegi guztiak %100ean irisgarri izan daitezkeen lortzea".

Sailatik jaso genuen erantzunean hauxe agerrarazi ziguten:

- igarritako beharrak Eraikuntzen Zerbitzuaren aurrekontuzko xedapenak gainditzeko zituztela eta, horregatik, jarduketak lehenetsi beharrean zeudela;
- lehenetsun irizpideak ezartzeko, 2004an mugimenduz ezgaituak diren ikasleak eskolatzen diren ikastegiak identifikatu zirela, xede ikastegia hartu eta irisgarritasun

sun egoera aztertuz, erabateko irisgarritasuna bermatuta ez zegoen ikastegietan neurri zuzentzaileei ekin baino lehen;

- eta datu bat ematen ziguten, azkeneko urteetan, oztopoak ezabatu eta irisgarritasun legea betetzeko egindako obrek, obraren atalari esleitutako aurrekontu osoaren %35 eraman dutela.

Erantzuna ez zitzaigun nahikoa iruditu, inondik ere, eta horregatik pentsatu genuen arkitektura oztopoak eta beste oztopo batzuk ezabatzea berariaz eta lehentasunez jorratu behar zela gerorako jardueretan, iaz Legebiltzarrari aurkeztu genion txostenean jaso genuen moduan.

Horrela, bada, azkeneko urtean honako argibide hauek eskatu genituen:

- 1) Ea arkitektura oztopoak ezabatzeko zer diru kopuru jaso ziren azkeneko ekitaldietako aurrekontuetan, eta zenbat gauzatu ziren, eta ea zenbat ikastegitan kendu diren oztopo horiek, egindako obraren ondorioz.
- 2) Ea gure erkidegoko ikastegien irisgarritasunari buruzko benetako egoera maparik dagoen eta, baldin badago, ea oinarritzko zer datu jasotzen duen: oztopodun eta oztopo bako ikastegien kopurua eta proportzioa, etapaka, lurraldeka, eta abar.
- 3) Ea zein denbora epe jarrita daukan sailak ikastegi guztiak erabat irisgarri izan daitezen eta zer aurreikuspen egin den hori lortzeko.

Sailaren erantzun idatzian 2006ko obraren plana jasotzen zen, non 24 ikastegitan oztopoak ezabatzea aurreikusten den, dagokien aurrekontu partidekin (5.622.000 euro 2006ko aurrekontuaren pentzutan, eta zenbait kasutan, konpromiso gehigarriak hurrengo aurrekontu ekitaldirako).

Baina datuekin batera, gauzak argitzeko bilera bat egitea komeni zela ere bai zioten. Saileko eta Arartekoaren erakundeko langileen arteko bilera 2006ko otsailaren 1ean egin da, eta iritzia elkarri jakinarazi eta hainbat gauza argitzeko balio izan du. Bereziki:

- Emandako datuak oztopoak ezabatzeko berariazko obrei buruzkoak direla, baina, batzuetan, ikastegi bateko obra handiagoak ere irisgarritasuna hobetzeko baliatzen direla; kasu horietan, obraren aurrekontuan horretarako zenbat joan den kalkulatu da.
- Oztopoak ezabatzeko urteko egitaratuetan zer ikastegi sartuko diren zehazteko irizpidea ikastegian ezgaitasun fisikorik daukan ikaslerik eskolatuta dagoen begiratzea izaten dela. Irizpide horren mugak agerikoak dira: eskolatzen denetik obra egin arte denbora luzea igarotzen dela (bi urte, adibidez), ezinezkoa izaten dela gerora gertatutako ezgaitasun egoerei erantzutea...
- Lurraldeetako teknikariak aurrera egiten ari direla, datuak bilduz, ikastegi eta eraikin bakoitzeko irisgarritasun fitxak egiten, eta horrek, amaitzen denean, egoera zein den zehazteko edo argitzeko mapa osoa ateratzeko balioko duela. Gai honetan –guk hainbestetan eskatu duguna– bileran zeregin hori epe laburrean amaitzeko dituzten zailtasunak mahairatu zizkiguten. Sailean arduraren hori daukan zuzendaritzak adierazi zigunez, aurreko amaitzeko gogoak daukate.

- Nolanahi ere, oraindik segitzen dute ikastegi guztien irisgarritasuna lortzeko helburuarekin. Eraikitzen diren ikastegi berriak irisgarritasunaren araudira egokitzen dira, jakina. Bestalde, obra orokor edo berariazkoen bitartez, ikastegi askotako arazoak konponduz doaz, urtetik urtera. Zailtasunik handienak ikastegi zaharretan, ingurune maldatsuetan, egokitzeko oso obra garestiak behar dituztenetan daude...
- Badira oztopoak ezabatzen laguntzeko edo sustatzeko beste bide batzuk (udalentsako laguntzen deialdia, berdin ikastegi pribatuentzat), baina oso kopuru edo izatezko erabilpen mugatuekin...

## 5. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA ETA GIZARTE ERAGILEEN INPLIKAZIOA

Atal honetan, 21. gomendioarekin lotuta, sailaren aurreko erantzunean hezkuntza premia bereziko ikasleen gurasoen elkarleen federazioek beren ikuspegiak jakinarazteko aukera izan lezaketen jarraipen batzorde batzuk eratu zirela aipatzen zen.

Horri buruzko informazioa eskatu diegunean, esan digute jarraipen batzorde horiek funtzionatzen segitzen dutela, ikasle itsuen, adimenez ezgaituen eta gorren esparruetan. Gainera, ezgaitasun fisikoak dituzten ikasleei buruzko batzordea ere funtzionatzen jarri nahi dute.

\* \* \*

Honaino gure gomendioak betetzearen kontuaz Hezkuntza Sailari eskatu eta harengandik jasotako informazioaren laburpena. Ikusten denez, informazio zabal eta zehatua da, egoera orain zelakoa den pixka bat ezagutu eta baloratzeko bestekoa, baita, gai batzuetan, aurreko ikasturteetako egoerarekin konparagarria ere, zelan bilakatu den edo zer joera ikusten diren jakiteko. Beste batzuetan, ordea, egoera berdin dago, edo ez da apenas aldatu. Ziurrenik, gure jarduerak azkeneko hauen jarraipena egitera bideratu beharko genituzke.

## 6) **Buruko gaixotasunak dituzten haur edo nerabeak**

### A) **Aurrekariak**

Haur eta nerabeen buruko gaixotasunen arazoari berariaz heldu genion buruko gaixotasunak dituzten pertsonen gure erkidegoan ematen zaien arretari buruzko gure ezohiko txostenean (4.6, 4.7 edo 3.4 atalak). Txosten hori 2000n eman zen argitara, eta Legebiltzarrean eztabaidatu zen; ondoren, jarraipena ere egin zitzaion, elkarrekin bilerak eginez, ofiziozko espedienteen bitartez, eta bisita eta informazio eskarien bidez (ikus azkeneko urteotako ohiko txostenak, I. kap. 1.1.9 atalak). Haurrei eta nerabeei dagokienez, igarri eta nabarmendutako beharren artean honako hauek aipatzen ziren:

- Haur psikiatriako lantaldeak deszentralizatzea.
- Giza baliabide espezializatuak gehitzea (adibidez, haur psikiatrak edo psikologoak).

- Lurralde eta eskualde desberdinetan bitarteko egiturak sortu beharra.
- Gizarte-hezkuntza-osasun arretako batzordeak bultzatzea.
- Elikadura trastornoerentzako erantzuteko egitarauak berrikustea...

Txosteneko 18 gomendioetakoren batek ere biztanleria sektore hau zuen hizpide, beren beregi. Horrela, 6. gomendioak, hauxe proposatzen zuen, hitzez hitz: “Adingabeei zuzendutako zerbitzuak handiagotzea.” Eta honelaxe argudiatzen zen:

*“Txosten honetako datuetan nabarmen ageri da adingabeentzako artapen maila murriztegia dela. Horren erakusgarri:*

- *Haur eta nerabeentzako psikiatria baliabideak oso gutxi dira, eta bitarteko egituretan egon ere ez dago horrelakorik;*
- *artapen goiztiarreko programak, eguneko zentroak, zereginetako programak, etab. behar dira autismo kasuetarako;*
- *gero eta maizago azaleratzen diren arazo “berriek” (elikadura arlokoak: anorexia eta bulimia) ez dute behar bezalako erantzunik jasotzen... Premiazkoa da, beraz, adin tarte honetakoek behar diren artapena eta baliabideak edukitzea.”*

Gai eta proposamen horiek –bere garaian Osasun Sailburuak ere eztabaidatu zituenak– behin eta berriro planteatzen zaizkio erakunde honi, bai elkarte jakin batzuek, bai babes sistemetako arduradunek, edo babes edo erreforma zentroetara aldiro egiten ditugun bisitetan.

Burututako ekimenei dagokienez, txostena argitaratu eta hilabete gutxira, Bizkaiko Lurralde Historikoan baliabide berri bat jarri zen martxan: hezkuntza eta terapiarako eguneko zentro berria La Olan (Sondika). 2004ko otsailean, Arartekoa eta erakunde honetako langileak zentrorra joan ziren, zelan funtzionatzen zuen bertatik bertara ikus-tera. Zegokion txostenean eman genuen horren berri, eta datu esanguratsu batzuk ere eskaini genituen (ikus 2003ko txostena, 1.1.9 atala).

Interes handia genuen orduko plaza kopurua (10) dauden beharretarako adina ziren jakiteko; izan ere, kontuan eduki behar ziren ondoko datuak:

- Mota horretako zentro bakarra da Bizkaian.
- Zerbitzua sorrarazi zuen lankidetzaren itunak, printzipioz, 20 erabiltzaileentzako ahalmena aurreikusten zuen.
- Zentroak itzarote-zerrenda izaten zuen (bisita egin zenean, 6 adingabe zeuden sartzeko zain, eta denek betetzen zituzten baldintza guztiak).
- Artean baliabide hori ez zen oso ezaguna jende artean, eta beraz, litekeena zen adierazi gabeko beharrak eta kasuak egotea.
- Zentroak ez du neraberik hartzen.

Zentroko langileen iritziak jasota, eta bildutako datu eta balorazioetan oinarriturik, erakunde honen ustez beharrezkoak ziren horrelako baliabide gehiago, eta aukera desberdinak planteatu zituen (plaza gehiago, baliabide berriak...). Esan genuen komenigarria litzatekeela, bestalde, zentroak araudi argiagotzea eta bermatzaileagoa izatea, behintzat eskubideekin lotura zuzenena zuten ezaugarriei dagokienez: sartzeko

irizpideak, itxarote-zerrenden kudeaketa, barne araubidea, txostenen konfidentzialtasunerako bermeak...

Bestalde, Arartekoak zenbait erakundek osatutako egitasmoaren berri ere ba-zeukan (“*Nerabeen eguneko hezkuntza eta terapia zentrorako proiektua*”) osasun eta hezkuntza arloetarako haur eta gazte azpibatzerdeak Osakidetza, Hezkuntza Sail eta Gizarte Ekintzarekin elkarlanean taxutua).

Egitasmo hark La Olan ikusi genuenarekin zituen desberdintasunak eta antzekotasunak gorabehera, inork zalantzan jartzen ez dituen hainbat beharri erantzuten saiatu nahi du, baina oraindik ez da gauzatzera heldu.

Azken urte honetan, hezkuntza behar bereziei buruzko txostenaren jarraipenaren ildoan, Arartekoak informazio eguneratua eskatu dio berriro ere Hezkuntza Sailari. Zehazki, galdera hauek egin dizkio:

- Ea Olako baliabidean aldaketa nabarmenik egin den edo egiteko asmorik da-  
goen.
- Zein fasetan dauden Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan baliabide berriak  
sortzeko proiektuak, eta zeintzuk izan daitezkeen proiektuok abian jartzeko  
atzerapenaren arrazoiak.

Hezkuntza Sailak 2005eko otsailaren 2an emandako erantzunean jakinarazi zigun La Olako jarraipen batzordeak unitatearen plaza kopurua gehitzea proposatu zuela; *aukera hori “aztertzen” ari zela, “esperientzian parte hartzen duten hiru erakundeen konpromisoa behar delako, eta ez bakarrik Hezkuntza Sailarena”; eta kontuan hartu behar dela “honetako unitate batek neurri kritiko jakinak” dituela eta ez dela komeni “unitatea neurri horien gainetik handitzea.”*

Antzeko unitate gehiago sortzeko aukerari buruz, irizpide hau gogorarazi zigun: “sare arruntetik kanpo ez dira gehiegi sustatu behar berariazko ekipamenduak, hala hezkuntzaren arlokoak nola haur eta nerabeen buru-osasunaren arlokoak”. Adierazi zuen, gainera, ospitaleetan nerabeentzako unitateak sortu nahi zirela eta dekretu baten zirriborroa prestatzen ari zela, unitate guztiei egonkortasun administratiboa eta jarduteko esparru egokia emateko asmoarekin.

## B) Azken urteko jarraipena

Azkeneko urtean, Ararteko erakundeak eskari berriak jasotzen segitu du gure Erki-  
degoan buruko gaixotasun larriak dituzten haur eta nerabeen artapen behar jakin batzuei  
erantzun egokia emango dieten berariazko zerbitzuak edukitzea premiazkoa dela diotenak.  
Zenbait kasutan halako baliabiderik ez dagoela uste dutelako luzatzen dituzten eskariok. Beste  
batzuetan, berriz, ematen zaien erantzunari nahikoa irizten ez diotelako, argi eta garbi.

Eskari hori harrera eta barruratze zentroetara egiten ditugun bisita guztietan  
errepikatzen digute, baita gazteen babes eta justizia sistemetako arduradun eta profes-  
ionalekin izandako bileretan ere. Hain sistematikoki ez bada ere, ikastegi arruntekin  
edo adingabeekin zuzenean lan egiten duten beste profesional batzuekin harremanetan  
gaudenean ere (irakasle, orientatzaile, adingabeen epaile, osasun sistemako langileekin)  
gaia ateratzen da.

Datu objektiboak izatea oso zaila den arren, balorazio orokorra bat etorri ohi da; biztanleria sektore honen buruko gaixotasunen arazoek bere horretan iraun ez eze, gehitzen ere ari dira eta, arrazoi desberdinak tarteko, erantzun egokirik gabe segitzen dute.

Denen eskaria izateaz gain, aurtun, ukitutako guraso talde batek, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen senideen elkarteek lagunduta, kexa zehatz bat jarri zuten Arartekoarenean, sektore horrentzat dagoen baliabide gutxietako batek jarraituko ez zuela-eta: **La Olako hezkuntza-terapia unitatea** itxieraren mehatxupean zegoen.

Jarraipena, beraz, horretara bideratu da, bai kexa espedientea tramitatuz, bai Hezkuntza Sailari hezkuntza premia berezien gaineko txostenaren esparruan informazioa eskatuz.

Informazio eskariak bidali ditugunean zentroaren oraingo egoera zein den (erabilitzaile kopurua, itxarote zerrenda...), zer etorkizun aurreikusten zaion eta, orokorrago, inplikatuena dauden bi sailek (Hezkuntza eta Osasuna) sektore horren arretara xedatutako baliabide berriak sortzeari buruz zer iritzi daukaten eta zer asmo daukaten jakin nahi genuen.

Bi sailetatik heldu zaizkigun erantzunetatik hauxe ondorioztatzeko moduan gaude:

- Zerbitzuak jarraitzea kolokan dago BBK-k –instalazioen titular eta itunaren sinatzaile- La Olako lokalak gizarteko beste zeregin eta beste sektore batzuetara xedatzea erabaki duelako, eta horrek zentrorako testuingurua aldarazi du. Erabaki hau aurreko ikasturtearen amaieran jakinarazi zitzaizen ukitutakoei.
- 2005/06 ikasturtean, eguneko zentroa La Olako instalazioen barruan dago oraindik, beste erakin batean, aurreko ikasturteetako egitasmoen antzekoaz, baina –Hezkuntza Sailak dioenez- “10/15 ikaslerengana zabaltzea aztertzen ari dira.”  
Zenbat adingabe artatzen diren galderaren gainean, Osakidetzak dio eguneko zentroan 10 direla, eta “talde bera tratamendu ambulatarioko egitarau trinkoa ere garatzen ari dela, zentrorra sartzeko zain dauden edo senda-agiria hartu osteko jarraipenaren zain dauden haurrentzat (10)”.
- Alabaina, Hezkuntza Sailaren erantzunean dioenez, “hori, epe luzera, ez dugu irtenbide modura ikusten, ez Hezkuntzakook ez eta Osakidetzakoek ere, batez ere ingurunea erabat aldatzen delako haurrentzako hezkuntza toki bat izateari utzi eta ezgaituentzako lan ingurune bihurtzen den unean.”
- Ez dago oraindik toki alternatiborik zerbitzuaren etorkizuna ziurtatzeko. Antza, aukera desberdinak baloratzen ari dira.
- Eta Gipuzkoa eta Arabako lurraldeetako hezkuntza-terapia unitateei dagokienez, Hezkuntza Sailak dio “ ez dela aurrerapen handirik egin.”

Hara, bada, informazio hauek guztiak kezkarriak dira, eta horien aurrean ez daukagu behin eta berriro esandakoa berrestea beste aukerarik: gure arreta sistemak ez dauka egoera jakin batzuei (buruko gaixotasunak, edo droga mendetasunak adingabeengan) berariaz erantzuteko baliabiderik; eta beste kasu batzuetan –profesionalen eta sektorearekin harreman zuzena daukaten arduradunek oro har duten iritziaren arabera behintzat– erantzun hori ez da nahikoa, inola ere. Horregatik, egoerarik larrienenan,

zerbitzu partikularrengana jo, edo gure Erkidegotik kanpoko baliabideetara bideratu behar izaten da jendea (Nafarroara edo Kataluniara), baina horiek ezin dira etorkizuneko alternatibak izan. Gure erakundearen ustez oso arazo larria da hau, berariazko arreta beharko luke eta berehalako erantzuna eskatzen du.

## 7) Adingabe atxilotuak. Polizien jarduerak adingabeei buruz

Aurreko urteetan bezala, aurten ere, atxilotze tokiak ikustera joan garenean, arreta berezia jarri dugu adingabeak zer baldintzatan egoten diren jakiteko, bai Ertzaintzarenean bai udaltzaingoen egoitzetan.

Alde horretatik, egin ditugun azkeneko bisitetan, kasu honetan udaltzaingoen ziegetara, ikusi ahal izan dugu polizi etxeetan, oraindik ere, ez daukatela beren beregi adingabeentzat den tokirik eta, horrek adingabea atxilotuta dagoen bitartean benetan zelan egoten den jarraipena egitea zailago bihurtzen du.

Baina, horrez gain, lehendik ere jorratu baitugu gai berbera, azkeneko urtean ekimen ugari burutu ditugu poliziak adingabeak zelan tratatzen dituen edo haiengana bideratzen dituen jarduerak zelakoak diren aztertu nahirik. Zenbait kasutan, bidegabe irizitako tratu polizialarengatik jasotako kexei erantzunez, beste batzuetan, ofizioz, adingabeen harrera zentroetara egiten ditugun bisitetan jasotako informazio batzuen aurrean. Halako kontu batzuk jada jorratu eta bilduta daude txosten honetan, bai Herrizaingoaren arloaren sarreran (ikus I. kap.), bai atzerritarren arazoei eskainitako berariazko atalean.

Horrela, bada, hemen zer gai ikertu ditugun gogoratu eta horien inguruko ohar edo iruzkinen bat egitera mugatuko gara.

- Sarritan, poliziak adingabeekin esku hartzen duenean polizien egoitzetatik harrera zentroetara eramaten ditu (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan), edo zerbitzu batzuetatik besteetara garraiatzen ditu (adibidez, barruratzeko zentro batetik epaitegira edo osasun zerbitzuetara).  
Lehenengo egoerari dagokionez, bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko txostena egiten ari ginenean eta, batez ere, Gipuzkoako lurraldean jasotako informazio batzuk tarteko, eta Urnietako premialdietako harrera zentrori beren beregi egindako bisita baten ostean, gure erakundeak Ertzaintzaren aurrean eta hiru probintzietako udaltzaingoen aurrean ofiziozko jarduerak abiarazi zituen. Jarduketa hauen emaitzaren berri kapitulu honetan daukazue, dagokion atalean, eta jarduera irizpide argiakoak ezarri behar direla ondorioztatzen da.  
Adingabeak barruratzeko zentroetatik beste zerbitzu batzuetara, hala nola, epaitegietara edo osasun zentroetara, eramatearen gainean, jarraipena egin dugu zentro horietara aldioro egiten ditugun bisitetan, eta hezitzaileekin izandako bileretan eta adingabe batzuekin izandako elkarrizketetan ere hizpide izan ditugu lekualdaketok edo bidaiok.
- Deigarria da, aurten, beste urte batzuen aldean, kexa asko jaso ditugula tratu polizial bidegabeari, edo indarra neurririk gabe erabiltzeari buruz, poliziek polizi etxeetatik kanpo garatu dituzten jardueretan. Horietako askoren berri Herri-zaingo arloan eman da, txosten honetan (ikus. I. kap).



Ikus daitekeenez, salatutako jardueretan jokabide desberdinak sartzen dira: adingabea denbora luzez atxikitzea, gurasoei atxilotetaren berri ez ematea, ez utzea poliziaren argiketa txostenaren edukia ikusten, indarra gehiegikeriaz erabiltzea, lehenengo ikusian, justifikatuko luketen garrantzi penalik gabeko jokabideengatik atxilotzea; bermeak adingabe atxilotuaz dituzten datu pertsonalen ezereztape-nari buruz... Bereziki kezkarria begitandu zaigu “kontra-salaketa” balizko erabilpenaren kontua: poliziek beraiek agintaritzako agenteei ez obeditzeagatik edo erresistentzia jartzeagatik salaketa jartzen dute, beraien jarduna, ziurrenik, salatuko dela edo, gutxienez, kexa gai izango dela uste dutenean.

- Beste kasu batzuetan, tramitatu diren kexek ez dute poliziaren esku hartzea hizpide hartu, alderantziz baizik, botilatzarra izeneko fenomenoak eragiten dituen traben aurrean ezer egin ez dutela baizik.
- Polizi iturriek adingabe atxilotuen gainean eman lezaketen informazioari buruzko jardura batzuk ere burutu dira; gai honek gure erakundeari berariazko gomendioak eginarazi dizkio.  
Horren harira, bereziki larria deritzogu Ertzaintzak atxilotu dituen bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko polizi informazioa zabaldu izanari –aurten ikertu dugu hau–, Iruña Okan aurreikusitako harrera zentroa irekitzea errefusatzeko presio elementu modura erabili baita.

## 8) **Beste zaurgarritasun egoera batzuk**

Aurreko ataletan orain arte berariazko arreta eskaini izan zaien, eta ia kasu guztietan aztergai izan ditugun eta ezohiko txostenetan hainbat gomendio eginarazi dizkiguten zazpi adingabe multzo edo egoerari buruz burututako jarraipen jarduerak laburbildu ditugu.

Zazpi sektore horiei ez eze, azkeneko urtean, oso ekimen desberdinen bitartez, Arartekoak arreta berezia jarri du zaurgarritasun bereziko beste egoera edo multzo batzuegan ere. Horrela, adibidez:

- **Ikasle atzerritarrak** eskolatzeko baldintzei dagokienez, beka bat tarteko, jada amaituta dagoen ikerketa lan bat egin da; txosten honetan lan horren berri eman da (“*Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*”).
- **Etnia ijitoko adingabeen** eskolatzeari eta eskolako emaitzei buruz, harremanetan egon gara herritar ijitoen elkarteekin, eta sektore horri zuzendutako egitarauak dituzten beste batzuekin, parte hartu dugu eskolarako motibatze laguntza edo sostengu ekitaldietan, datu eguneratuak eskatu dizkiogu Hezkuntza Sailari, eta dagokien jarraipena egin diegu sasoikako langileei.
- **Sexu gehiegikeriako egoerei** dagokienez, gure erakundeko langileak duela gutxi Save the Children erakundeak antolatuta esku hartzeko baterako protokoloa atontzeko egin zen lan mintegian izan dira.
- **Adingabeek telebista programa, internet eta joko interaktiboei dagokienez dituzten eskubideei** buruz, Arartekoak bere proposamen eta ekarpenak beste ararteko erakunde batzuekin batera, Arartekoak Koordinatzeko

XX. Jardunaldiak prestatzera begira, egindako mintegira eraman zituen (ikus Jardunaldien laburpena, txosten honetan, VI. kapituluan).

- **Nerabe lege-hausleei**, edo jokabide arazo larriak dituztenei dagokienez ere, Arartekoko langileak eginkor aritu ziren, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, arazo horren inguruan duela gutxi egindako kongresuan.
- Azkenik, komeni zaigu hemen **eskola jazarpenari** buruz egin ditugun batzuk jasotzea ere:

- Batetik, Herritarren Partaidetzarako II. Foroa egin da, eta bigarren hezkuntzako ikastegietan berdinen arteko bizikidetzeta eta borroka ikertzen hasi gara; laburpena daukazue, txosten honetan (ikus VI. kap.).
- Bestalde, Arartekoak arazo honen inguruan gizartean piztu den eztabaidari eskaini dizkion gogoetak eta ekarpenak, zehazki “Eskola eta familia barruko indarkeria” ponentzia, Arartekoak Koordinatzeko XX. Jardunaldietan aurkeztu eta txosten honetan jaso dena (ikus. 1. eranskina).
- Baina aurreko ekimen horiek alboratuta, agerrarazi behar dugu, hemen, kontsulta eta kexa formal eta informal ugari jaso dugula gure erakundearen aurten.

Kasu hauetan arazoari erantzun pertsonalizatu eta neurrizkoa ematen saiatu gara beti, kasuak egokien irizten genien erakundeetara bideratzen ahaleginduz: kasua oso larria izan denean, baita sistema judizialera ere; baina gehien-gehienetan, hezkuntza sistemara eta bere baliabideetara bideratzen saiatu gara (ikastegiak, ikuskaritza, sostengu zerbitzuak, Hezikidetzeta berariazko egitaraua...), beraiek direlakoan halako arazoei erantzunik egokienak eman ahal dizkietenak eta eman behar dietenak.

Deigarria da, ordea, seme-alabek jazarpena jasaten dutelako gurasoek transmititzen dizkiguten estuasuna eta kezka, instantzia horiek beren kexei merezi duten garrantzia ematen ez dietelako, edo behar bezala heltzen ez dietelako, edo arazoaren aurrean beste albo batera begiratzen dutelako.

Oso arazo multzo konplexua da, eta ez da bat ere erraza izaten ari jarrera orekatu eta, aldi berean, eraginkorrak mantentzea.

## 9) **Zenbait gogoeta orokor**

Komeni da jabetzea edo esplizituki adieraztea, aurreko eskema erabiltzeak, informazioa sektorez sektore eskainiz, edo sektore jakin batzuk “bereziki zaugarri” gisa kalifikatuz dakartzan arazo batzuek. Horrela:

- Adingabe sektore bat bereziki zaugarritzat katalogatze hutsak (edo nahi bada, zehaztuz, zaugarritasun bereziko egoeran dagoen sektoretzat), sektore horrek estigmatizazio handiagoa jasan dezan arriskua dakar, beren arazoak arazo handiago bihurtzekoa, arreta beraiengana zuzentzean.

Gainera, pentsa liteke, sektore batzuk bai eta beste batzuk ez aipatzean, aipatzen direnak direla bereziki zaugarriak diren bakarrak. Gure kasuan, ulertu beharko litzateke, arrazoi desberdinak tarteko, horiexek direla arretan lehenetsi ahal izan ditugunak, baina horrek ez du eragozten beste batzuk ere egotea, lehenengoak

bezain zaurgarriak (adibidez, igarri bako familia barruko tratu txarren pean bizi diren adingabeak, terrorismoaren biktima diren adingabeak, gurasoak espetxeak dituzten adingabeak, ospitalean dauden adingabeak, eta abar.).

- Bestalde, aurreko txostenetan ere ohartarazi dugun bezala, kolektibo hauetako bakoitzaren egoera independenteki aztertzeak pentsaraz lezake adingabe multzo edo arazo independenteen edo elkarrekin zerikusirik ez dutenen aurrean gaudela, baina ez da horrela. Sarritan –agian, gero eta maizago–, gaur talde horietako batean ageri zaigun adingabea, edo gaur zerbitzu jakin batean aurkitzen duguna, bihar beste batera igarotzen da. Adibiderik argiena da adingabe lege-hausle asko daudela babes zerbitzuetatik datozenak, psikiatria arretako arazo larriak dituztenak, edo eskolatu barik egon direnak... Kapitulu honetan bertan horri buruzko datu adierazgarriak eskaintzen dira. Errealitate kezkarri horrek agerian uzten du gure gizartean oraindik badirela benetako “bazterketa zirkuituak”, desoreka guneak, gizarte eta erakundeen lehentasunezko eta konpentsaziozko arretaren premian dauden adingabe kopuru jakin bati ukitzen diotenak, eta horrek zerbitzu eta sistema desberdinak lankidetzan estuan ari daitezzen eskatzen du.
- Egia da aztertutako sektoreetako bakoitzak berariazko arazoak dituen. Baina egia ere bada denetan, edo askotan, arazo berdinak hautematen direla, edo arazo batzuk beraien arteko loturatik sortzen direla, edo horrekin zerikusia dutela. Horrela, adibidez:
  - Gizarte eta osasun arretako baliabiderik ez izatea, beharrezkoak eta egokiak direlako adostasuna dagoen arren, edo zerbitzuen artean koordinatzeko zailtasunak daudela (harrera zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, oinarriko gizarte zerbitzuak...) eta horrek txarrerako eragiten diola arretaren kalitateri eta esku hartzeen jarraipenari eta koherentziari.
  - Erakundeen arretak, sarritan, denbora tarte jakin bat hartzen du, eta une jakin batean, batzutan hezkuntza ibilbidea izan litekeenaz bestelako arrazoi batzuegatik, etenda gera daiteke. Horren harira, lehenago esan den bezala, bereziki kezkarria da erreformako zenbat adingabe datorren babes zerbitzuetatik, eta zelako zailtasunak ikusten diren batzutan zerbitzu batzuen eta besteen artean esku hartzeak jarraitasunik izan dezan bermatzeko. Hori bezain kezkarria da babespean edo barruratuta tarte bat eman eta gero, 18 urte betetzean, dena utzi behar izatea edo oso aukera gutxi dagoela, hezkuntza prozesua bat-batean eteten baita, eta baztertuta geratzeko edo delituak egiteko arriskua sortzen baita.
- Aipatutako lehenengo arriskua beste ikuspegi batetik hartuta, komeni da esatea, erakundeen esku hartzeak alboratuta, hedabideetan, tarteka, esandako kolektibo horietako eta horiek bezain zaurgarriak diren beste batzuetako adingabeen gaineko albisteak ematen direla. Bereziki informazioa poliziengandik omen datorrenean, eta gizarte alarma edo estereotipoak eta bazterkeria sendotzea eragin dezakeenean. Adingabearen interes gorenak –erakundeen erabaki eta esku hartze gutzien gidari– bideratu behar du jendaurrera zabaltzen den hari

buruzko edozein informazio, eta beste edozein interes mediatikori gailendu behar zaio.

Guk uste dugu txosten honetan adibide esanguratsurik jaso dugula, informazio batzuek sektore horren inguruko iritzi publikoa eratzeko orduan zelako eragina daukaten igartzeko.

## **KEXA ETA GOMENDIO BERARIAZKOAK**

Behin baino gehiagotan esan dugunez, gure erakundeetan ez ditugu beren beregi edo zuzenean adingabeei buruz diren kexa asko jaso; eta are gutxiago beraiengandik. Hori faktore desberdinengatik izan daiteke: ez daukatelako beren eskubideen kontzientziarik, adingabeek ez dakitelako gure erakundea dagoenik, beraientzat ere zabalik, defentsa mekanismo gisa, ez direlako trebeak, ez daudelako ohituta edo ez daukatelako konfiantzarik erakundeetara jotzeko, familiaren edo beste pertsona edo erakunderen mende egoten direlako... Zenbait kasutan, kexak sektore zaugarriekin lanean ari diren edo egoera jakin batzuk ezagutzen dituzten elkarteek mahairatu dizkigute.

Alabaina, kexak ikuspegi zabalago batetik hartzen baditugu, asko dira, zuzenean zein zeharka, adingabeei buruz direnak. Horrela, esaterako, hezkuntza arloa ia osorik, unibertsitateko hezkuntzaren maila gorena kenduta, zuzenean lotuta dago gure Erki-degoan adingabeek jasotzen duten tratamenduarekin (ikus Hezkuntza arloa, txosten honetako I. kapitulua). Eta gauza bera esan genezake adingabeentzat beren beregi diren beste zerbitzu batzuetaz (babes zerbitzuak, zerbitzu judizialak, osasun zerbitzuak...). Pentsatzekoa den moduan, adingabeei buruzko kexa eta esku hartzerik gehienek sektore horiekin zerikusia izaten dute.

Horrela, aurtengo kexa eta jardueretan ondokoak bezalako gaiak jorratu dira:

- tratu polizial bidegabea, indarra neurririk gabe erabiltzea edo, alderantziz, polizia ezertarako ez sartzea;
- berdinen arteko jazarpena, tratu txarrak eta biktimizazioa, ikastegietan zein ikastegietatik kanpo;
- bisitak zer baldintzatan egiten diren, edo adingabeen eta gurasoen arteko harremanak zelakoak izaten diren banaketa kasuetan;
- adingabeen zentroetan lan egiten duten profesionalen lan baldintzak, zerbitzuaren jarraitasunean eta kalitatean eragin txarra dutenak;
- adingabeei buruzko informazio polizialak, eta informazio horiek zabaltzeko irizpideak;
- egoera zehatz batzuetan (karabana batean bizi direnean, harrerapean egon arren dokumentaziorik ez dutenean) adingabe atzeritarrak erroldatzeko ukoa;
- haurren eskubideen errespetua telebistako programetan;
- bananduta dauden gurasoek adingabe baten gaineko informazio poliziala eskuratzeari;
- banaketa prozesuetan adingabeei froga zehatz batzuk ukatzea;
- eskola plangintzako irizpideak eskola ghettoak sor daitezen arriskua daukaten eremu jakin batzuetan;

- eredu jakin batzuetako eskola eskaintza kendu, itxi edo ez jarraitzea, unitate batzuetan;
- bi urteko hezkuntza eskaintza nahikorik ez toki jakin batzuetan;
- ikastegiaren mantentze eta lekualdaketa arazoak;
- irisgarritasun arazoak ikastegietan;
- irizpideak eta lehentasunak ikasleak onartzean (udal langileen seme-alabak lehenestea, eskariak onartzea tramitatzen ari diren adopzio kasuetan...);
- eskola garraioaren eta jantokien gaineko arazoak;
- adopzio bat eskatzen duten bikoteen egokitasuna onartu ala ezesteko irizpideak;
- babes zentroen irizpideak hartutako adingabeen ihesaldietan jarduteko, edo jokabide larrien aurrean erantzuteko;
- bizikidetzara arauak eta zehapen prozedurak barruratzeko zentroetan;
- eskolatzeko aukerak eta baldintzak 0-3 urteko tartean;
- eskolatzeko aukerak eta baldintzak gurasoen eskatutako hizkuntza ereduaren arabera;
- eskolatzeko eta osasun arreta jasotzeko baldintzak ikastegietan gaixorik dauden edo botikak hartu zein kontrola behar duten haurrentzat;
- adingabeen atxiloketa polizialak eta harrera zerbitzuen esku uztea zelan gertatzen diren;
- jarduera irizpidean foru aldundiek egonaldi baimena emateko edo berriztatzeke espedienteak tramitatzean, zentroetan hartutako bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuetan;
- hezkuntza premia bereziak dituzten adingabeak eskolatzeko baldintzak;
- zaugarritasun egoeretan dauden adingabeen kolektibo jakin batzuk eskolatzeko baldintzak, adibidez, sasoiakako langileen familietako seme-alabak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak...
- esku hartzearen jarraitasuna eta irizpide berdinak babes zerbitzuetan eta gazteen justizia zerbitzuetan;
- osasun gastuetarako dirulaguntzak emateko irizpideak.

Aurreko adibideetan esaten den moduan, eta aurreko urteetan bezala, azkeneko urteko kexa eta jarduketara askok bi arlotara jo dute:

- Hezkuntza: eskolatzeko baldintzak eta irizpideak, bereziki gizartean behartsuen diren kolektiboentzat, hezkuntza premia bereziak dituztenentzat, edo adin jakin batzuetakoentzat (0-3 urte); plangintza irizpideak, zerbitzu jakin batzuetara heltzea...
- Esku hartze judizialak edo adingabeen babesaren alorrekoak: desadostasunak erakundeek harrera, adopzio, banaketa, bisita erregimen, informazioa eskuratzeko eta halakoetan esku hartzeari buruz...

Baina aurten oso aipagarriak dira, halaber, polizien jarduerekin eta adingabeen jazarpen, eraso, tratatu txar edo gehiegikeriekin zerikusia duten kexak edo esku hartzeak. Kasurik larrienetan edo delitu kasuetan, lehenago salatzen direlako, edo agintari judizialek ikertzen dituztelako. Hain larriak ez direnetan, zentroetan bertan ebatzen direlako, hezkuntza neurriak aplikatuz.

Azkeneko bi urteetan, ordea, kexak tarteko zein ofizioz, Arartekoak balizko tratu txarren zenbait kasu larritan, heriotzarik ere gertatzeraino, esku hartu du. Hurrengo atalean horietako bat edo beste aipatuko dugu.

## **OFIZIOZKO JARDUERAK GERTAKARI EDO EGOERA BEREZIKI LARRIEN AURREAN**

2004an Arartekoak esku hartu zuen bereziki larriak izan ziren eta hiru adingabe bortizki hiltzea eragin zuten gertakarietan: J.C. mutil gaztearena, Hondarribian bere buruaz beste egitea berdinen arteko jazarpen edo tratu txarrekin lotu baitzen; A.M.D.S eta S.F. neska gazteak, mutil gazte batek, Santurtziko udal mugartean, gaua ematen ari ziren txabolari su eman zionean hil zirenak.

Gertakariak argitzeko ikerketa judizialak alboratuta, bi kasuetan erakundeak edo administrazioaren zerbitzuak inplikaturatu zeuden, eta horiengana jo genuen guk: ikastegiarengana eta hezkuntzako agintariengana, lehenengo kasuan; harrera zentroarengana, babes agintariengana eta poliziarengana bigarrenean. Iazko txosteneko I. kapituluaren kasu bakoitzean ordura arte egindakoa laburtu genuen (ikus 2004ko txostena, I. kap., 1.1.5. atala).

Beste gai batzuetara aldatuta, eta ondorioen larritasuna inola ere konparatzerik ez dagoen arren, Arartekoak zentro batean barruratzeko neurri judizialaren pean zegoen gazte baten tratu txarren ustezko kasu bat argitzen lagundu zuen (ikus 2004ko txostena, I. kap. 1.1.6. atala).

Aipatutako kasuek agerian utzi zituzten, edo gehiago argitu zituzten erdi ezkutuko errealitateak, gutxi ezagutzen zirenak, edo erakundeen erantzunean muga handiak zituztenak:

- berdinen arteko jazarpen edo biktimizazio egoerak;
- babes sistemak nerabe jakin batzuek ondo artatzeko dituen mugak;
- barruratze zentroek jokabide jakin batzuei bermez aurre egitean dituzten mugak...

Gertakariak eta azpiko arazoak ere larriak zirenez, Arartekoak adi jarraitu die, eta horiei buruzko jarduketak ere burutu ditu. Horrela:

- Jazarpen edo borroka egoerei dagokienez, lehen esan dugun moduan, bigarren hezkuntzako ikastegi lagin adierazgarri batean ikerketa bat bideratzen ari da (ikus IV. kap. ezohiko txostenak).  
Bestalde, Hondarribian J.C.ri tratu txarrak emateagatik epaileek zigortutako adingabeen egoera zehatzari dagokionez, Arartekoa adi egon da, beti, idatzien bidez, eta bilerak eginez adingabe horien gurasoekin, hezkuntza sistemako eta ikastegietako arduradunekin, gazteen justizia zerbitzuaren eta barruratze zentroko arduradunekin, instantzia judizialekin... Gainera, Arartekoak Ibaiondo ikastegira aldioro egiten dituen bisitetan, hor ari baitira barruratzeko neurriak betetzen, haien egoera zehatzen jarraipena egin du.

- Babes sistemak jokabide jakin batzuei, bereziki arazo larriak dituzten nerabeei, behar bezala erantzuteko dituen zailtasunei dagokienez, gure erakundeak interesez edo kezka aditu die ekimen eta erreakzio zehatz batzuei, bai alternatibenez eztabaida teorikoari dagokienez (adibidez, Bilbon azaroan nerabe lege-hausleen gainean egin zen kongresuan), bai balizko aplikazioei dagokienez (Erandion jokabide arazo larriak dituzten nerabeengan espezializatutako zentroa sortzeko ahalegina).
- Eta barruratzeko zentroek jokabide jakin batzuei mota guztietako bermeekin aurre egiteko dituzten mugei edo zailtasunei dagokienez, bereziki indarra erabili behar denean, edo taldetik bereiztea dakarten zehapenak ezarri behar direnean, zer urrats egin diren lehenago ere aipatu dugu kapitulu honetan, (adingabe lege-hausleen atalean).

Sarritan, arazo hauek gizartean oihartzun handia izan dute, eta hedabideetan hizpide izan dituzte. Horrek, ezberri gabe, gizarteak arazo jakin batzuek kontzientzia har dezan ekar lezake, baina aldi berean alarma edo iritzi egoera bat ere pizten lagun lezake, arazoaren konponbidearentzat lagungarri barik oztupo bihurtu litekeena. Azkeneko urtean herriren bateko biztanleek arazoak dituzten nerabeentzako baliabide berriak sortzearen kontra zelan erantzun duten duzue esaten ari garenaren adibide kezka garria. Horren harira, Arartekoak gogorazi eta azpimarratu nahi ditu bere garaian *“Erakundeen buruzagitzak, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean”* gomendio orokorrean mahairatu zituen proposamen eta gaiak, halako egoeren aurrean zeharo aplikagarriak eta baliagarriak direla uste baitu (ikus 2001eko txostena, 461. orr. eta hurrengoak).

## **LANKIDETZA GIZARTE ERAGILEEKIN ETA GIZARTEA SENTIBERATZEA**

Lehenago elkarten munduarekiko harremani buruzko atalean esan den moduan, Arartekoak, bere jardun ildoan artean, orain eskuartean dugun gaian, haurren edo nerabeen alorrean lanean ari diren gizarte eragile desberdinekin elkarlanean aritzeko aukera garbiari eusten dio, bai haien eskubideen berri zabaltzeari, bai defenditzeari, bai sarritan egoera bereziki arazotsuetan dauden adingabeen sektoreengana xedatutako baliabide jakin batzuk kudeatzeari.

Lankidetzaren harreman hori aurten jardueraren bitartez burutu da, besteak beste, esanguratsuenak direlako, arrisku egoeretan dauden edo berariazko premiak dituzten adingabeen arretan lanean ari diren elkarte edo erakunde desberdinekin izandako harremanen bitartez. Kalé dor Kayikó, Gao Lacho Drom, Kidezta, Landalan, Berriztu, Gaztaroan Ekin, Salesianos, Tercerios capuchinos, Tercerias capuchinas, Enseñantes con gitanos, AGIPASE, Gurutze Gorria, Hezilan... halako elkarte eta erakundeekin. Baita haurren eskubideen defentsan aritzen diren erakundeekin, hala nola, Unicef, Haurrentzako Erakundearen Plataforma edo Save the Children-ekin. Eta plano zabalagoan, edo hezkuntzari lotuta, ikastegiarekin, ikastegi desberdinetako gurasoen elkarteekin, edo sektore edo etapa jakin batzuetako hezitzaile taldeekin.

Elkarte eta erakundeekiko lankidetzaren honen esparruan, Arartekoak edo bere erakundeak langileek elkarte horiek adingabeen arazoei buruz gure Erkidegoan zein

hemendik kanpo antolatutako foro edo topaketetan ere parte hartu duela azpimarratu nahi dugu.

Zenbait kasutan, ikastegietara bertara joanez, beste batzuetan, Ararteko erakundera etorri diren eskola taldeei kasu eginez.

Ildo berean, hezkuntzako eragileak eta adingabeak berak sentsibilizatzeko moduen artean, Ararteko erakundeak bultzatuta izan den erakusketa ibiltaria aipatuko dugu; erakusketa honen berri txosten honetako beste atal batean eman dugu.

## **HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEN KULTURAREN HEDAPENA**

Jarduera ildo honetan Arartekoak haurren berariazko eskubideak zabaltzera, hezkuntzako eragileei giza eskubideen gaineko material didaktikoak eskueran jartzera, erakunde adingabeei ezagutaraztera, adingabeen eskubideei ukitzen dieten arazo jakin batzuk eztabaidatzera eta halakoetara begira burutu dituen ekimen desberdinak sartuko genituzke.

Horrela, 2005ean, besteak beste, ondoko ekimen hauek aipatuko ditugu:

- EAEko ikastegietan kartelak eta egutegiak banatu dira, haurren eskubideen Konbentzioaren berri eta ezberdinen errespetua hedatzeko.
- Arartekoak adingabeen gaietarako duen web orrialdeko atalera elementu berriak sartu dira.
- Gasteizko ikastegietako taldeei kasu egin eta Ararteko erakundeak aurkeztu zaie, Udalarekin elkarlanean egindako egitarauaren barruan, bere egoitza ikustera etorri direnean.
- Erakunde eskolako taldeei edo etorkizunean hezitzaile izango direnen taldeei aurkezteko bertara gaitzean eskatu diguten ikastegi batzuetan zuzenean parte hartzea, normalean giza eskubideen lan sistematiko baten esparruan.
- 2005eko azkeneko hiruhilekoan gure erkidegoko zazpi udalerritan burutu den "Haurren Legea" izeneko argazki erakusketa...

Giza eskubideen alorrean sistematikoki lan egiteko lau beka deialdi bereziren ondorioz dauzkagun material didaktikoei dagokienez, azkeneko ikasturteetan ikastegi guztietara Bigarren Hezkuntzarako materialen karpeta bat, Lehen Hezkuntzako ikastegietara haurren eskubideen gaineko beste bat, Bigarren Hezkuntzako eta beste hezkuntza zerbitzu batzuetako ikastegietara giza eskubideak jolastuz jorrazteko karta sorta, gida eta beste baliabide batzuk bidali dira, eta azkenik, emakumearen eskubideen gaineko CD interaktibo bat ere banatu zaie (ikus. 2004ko txosteneko I. kap., 2.3. atala).

Jarduera hauek, beti esan dugun bezala, askoz ere ikuspegi zabalago batean sartu behar dira: Ararteko erakundeak adingabeak giza eskubideen errespetuan eta tolerantziaren eta errespetuaren balioetan oinarritutako kultura batean gizartera daitezela dituen kezka eta konpromisoa. Beharrezkoa baita edozein gizarte demokratikotan, eta are gehiago gurean, urte askotan indarkeria eta hilketak sistematikoki erabiltzearekin bizi izan baita. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, pertsonen bizitzaren balio gorenaren defendatu nahi izan du, eta proposamenak mahairatu ditu bizikidetzaren balioak



hezkuntza sisteman sistematikoki jorra daitezzen. Eskoletan ikasleekin giza baliabideei buruz erabiltzeko materialak prestatu eta zabaltzea horren lagungarri egiten da.

Azkeneko urtean, lehenago aipatu dugun argazki erakusketa zela-eta, Arartekoak material berriak editatu eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastegi guztietara banatu zituen, didaktikoki etekin handiagoa ateratzeko: kartelak, jardueren kaierak ikasleentzat, lan gidak irakasleentzat... Gainera, erakusketa amaitu eta gero, katalogo bat atera da, CDean, eta laster ikastegietara bidaliko da giza eskubideen inguruko lanen eskolarteko lehiaketarako deialdiarekin batera.

## **BETEKIZUN DAUDEN ARAUGINTZAKO GOMENDIOAK**

Azkeneko urteotan, gure erakundeak araugintzari buruzko hainbat gomendio egin ditu adingabeen egoerari buruz. Zenbaitek zerikusi zuzena daukate hemen laburbildutako sektore, arazo edo egoerekin. Honakoez ari gara, bereziki:

- Haurren eta nerabeen arretari buruzko lege baten beharraz, irizpide erkideak eta hiru lurraldeetan eskagarriak liratekeen oinarritzko baldintzak ezartzeko, non babes sistemak eta barruratze zentroak sartuko liratekeen.
- Hezkuntza premia bereziei buruzko ezohiko txostenean egin ziren gomendio orokorretako batzuez, arauak aldaraztea eskatzen baitute.
- Zerotik hiru urtera arteko haur hezkuntzaren arreta ondo garatzearen komenigarritasunaz.
- Ikastegietako ikasleen eskubideen eta betebeharren araudia berrikusi beharraz...

Batzuk, esaterako, hezkuntza premia berezien gaineko txostenean proposatutako arau aldaketak, eta ikasleen eskubide eta betebeharren araudia berrikustea, oraindik eginkizun daude. Beste batzuen inguruan egitasmoak egin dira, eta arauak ere onartuta daude.

Azkeneko horiei dagokienez, txosten honetan behin eta berriro esan dugu berri samarrak diren bi arau, oso maila desberdinetakoak izanagatik ere gure erakundearen jarraipenaren pean dauden sektore edo zerbitzuetan oso aplikagarriak direnak aplikatu edota garatu behar direla:

- Haurrak eta Nerabeak Artatu eta Babesteko Legea, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean onetsia, eta araudizko garapen handia eskatzen duena.
- 2005eko martxoan indarrean jarri zen 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Arautegia.
- Arau hauen aplikazioak eta garapenak baliabide egokiak eskatzen ditu, baita Haurrak eta Nerabeak Artatu eta Babesteko Legeak berak aurreikusten duen aurrekontuzko lehentasunaren printzipioa bete dadin ere.

#### 4. **BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ETA GUTXIENGO ETNIKOETAKO PERTSONEN ARAZOEI**

Atal honetan, 2005ean egindako jarduketa nagusiak laburbilduko ditugu, Europar Batasunetik kanpoko pertsona atzerritarrei eta gutxiengo etnikoei dagokienez.

Honako hauek izan dira:

- a) Atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesu bereziari loturiko jarduketak; horri dagokionez, aurten, aparteko beste arauketa prozesu batzuen kasuan ez bezala, udalen partaidetza garrantzi handikoa izan da.
- b) 2005eko abenduan atzerritarren erroldatzea iraungitzeari buruzko lege-aurreikuspena indarrean sartzeari loturiko jarduketak, pertsona horiek egoitza iraunkorreko baimenik ez dutenean eta errolda berri ez dutenean.
- c) Adin txikiko atzerritarrak, bakarrik iristen direnak.
- d) 2004ko urteroko txostenean jasotako gomendio orokorra, polizia kidegoek informazioari emandako tratamenduari buruzkoa, immigrazioari dagokionez.
- e) EAEko udalerrietako kokalekuak, ijitoen etniako pertsona atzerritarrei dagokienez.
- f) Atzerriko etorkinengan eragina duten beste jarduketa batzuk.
- g) Gizarte eragileekiko lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazioa.

##### a) ***Udalek atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesu bereziari dagokionez egin dituzten jarduketak***

2005ean beste urte batzuetan baino kexa gehiago jaso dugu, Administrazioak pertsona atzerritarrei hemen bizitzeko baimena ematean garaturiko jarduketei dagokienez, udalek partaidetza handia izan baitute dokumentazio prozesu berezian. Kexa batzuk, beste urte batzuetan bezala, prozedura arruntari buruzkoak izan dira; orokorrean, pertsonak eta erakundeek herriaren defendatzailearengana jotzen dute, baina geuk ere jaso ditugu. Halako kasuetan, herriaren defendatzaileari bidaltzen dizkiogu eta, gero, horrek kexetan planteaturiko arazoak konpontzeko jarduketei buruzko informazioa ematen digu.

Abenduaren 30eko 2393/2004 EDk atzerritartasun araudi berria onetsi du; onespen horren bidez, normalizazio prozesua garatu da, bertako hirugarren xedapen iragankorrean araututa, eta horrela, baldintza batzuk (batez ere, lan kontratuari eta egonaldari buruzkoak) betetzen zituzten pertsona atzerritarren egoera juridikoa arautu ahal izan da. Prozesuan EAEko udalek hartu dute parte; baldintzatariko bat, izan ere, Estatuan 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik egotea egiaztatzea izan da, eta horretarako, erroldatze ziurtagiria aurkeztu behar izan da. Jasotako kexetan egindako kritikaren arabera, udal batzuek ez dute erroldatze ziurtagiria eman nahi izan, eta tramite hori funtsezkoa zen Estatuko Administrazioak lanerako eta bertan bizitzeko baimena emateko.

Udalen partaidetza, berez, euren erregistroetan agertzen ziren pertsonen errolda-ziurtagiria ematera mugatu da. 2005eko apirilaren 12tik aurrera, eskabideak aurkezteko epea amaitzeko (maiatzaren 7a) hilabete baino gutxiago gelditzen zenean, gizarte erakundeek eta herriaren defendatzaileak nahiz gizarte elkarriketarako Mahaiak egin-

dako eskabide askori erantzunez, udalek errolda-ziurtagiriak emateko aukera ezarri zen, 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik bizi ziren pertsonentzat, horiek inskribaturik egon ez arren. Aukera hori arautu zuten instrukzioak oso eztabaidatuak izan ziren, aldatu egiten zituzten ziurtagiria emateko kontuan hartu beharreko dokumentazioari buruzko irizpideak; horrek harridura sortu zuen pertsonen, gizarte erakundeen eta aplikatzeko ardura zuten udalen artean. Gizarte erakunde baten kexari erantzunez, arartekoak gomendio orokor bat landu zuen: **“Udalek errolda-ziurtagiriak lantzeari buruzko ohar batzuk, pertsona atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozesuan”** (ikusi txosten honetako III. kapitulua). Bertan, araudia aztertu eta udalei jarduketak batzuk proposatzen zitzaizkien, atzerriko etorkizunen eskubideen betetzea bermatzeko.

Gero, gomendioaren jarraipena egin dugu. Biztanle kopururik handieneko udalei informazioa eskatu zitzaien, ziurtagiriak egiteko garaturiko jarduketei eta onarturiko agiri kopuruari buruz. Ziurtagiria emateko onartu ziren agiriak, normalizazio prozesuaren ondoretarako, honako hauek izan ziren, besteak beste: Estatuko Administrazio Nagusiak egun hori baino lehen aurkezturiko lan, egoitza edo babes baimenerako eskabideak; Barne Ministerioko kanporatze prozedura hasteko erabakien jakinarazpena (2004ko urtarrilaren 18a); familia liburua; Espainiako jaiotze-agiria (pertsona atzerritarren seme-alabei dagokienez); lapurreta salaketak edo Ertzaintzan, Udaltzaingoan nahiz Polizia Nazionalean aurkezturiko beste jarduketak batzuk; kontsulta inskripzioaren ziurtagiria edo txartela; bidalketaren transferentziaren egiaztagiria; ospitaleetako ziurtagiriak; helduentzako hezkuntza zentroetako edo beste heziketa zentro batzuetako matrikulazioen ziurtagiriak; Gurutze Gorriaren, Cáritasen eta CEAR deritzonaren laguntza ziurtagiriak; udaletako gizarte zerbitzuen txostenak; Udaltzaingoak emandako bizikidetzak ziurtagiriak; enplegurako orientazio zerbitzu publikoaren ziurtagiriak; finantza erakundeen agiriak... Azken batean, kontsultaturiko udalik gehienek ziurtagiriak eman zituzten, pertsona horiek 2004ko abuztuaren 8a baino lehenagotik Espainian bizi zirela egiaztatzeke agiriak aurkezten zituztenean.

Jaso ditugun kexak, bestalde, pertsonari errolda-eskabidearen kopiarik ez ematearen edo errolda-ziurtagiria emateko aurkezturiko agiriei baliozkotasunik ez ematearen ondoriozkoak izango dira. Udalik gehienek errolda-eskabidearen kopia eman zuten arren, udalen batek ez zuen halakorik egin, eta horrela, ezin izan zen lanerako edo bertan bizitzeko baimena aurkeztu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian; azken horrek, errolda-ziurtagirirako epea amaitu baino apur bat lehenagoko aldaketei dagokienez, ziurtagiri horren ordezkari errolda-eskabidea aurkezteko aukera eman zuen, normalizazio prozeduran, gero horrekin batera ziurtagiria aurkezteko.

Estatuko Administrazio Nagusiak, prozeduraren ebazpenean, gizarte erakunde batzuek esan digutenez, ez du aintzat hartu udalek normalizazio prozesurako emandako errolda-ziurtagiria. Halako kasuetan, Estatuko Administrazio Nagusiak ukatu egin du lanerako eta bertan bizitzeko hasierako baimen-eskabidea. Ukapen hori euskarritzen duten arrazoiak, izan ere, INEk adierazitakoak ez diren agiriak aurkeztea edo erroldatze-ziurtagiriak 2005eko apirilaren 14ko Ebazpenean ezarritako baldintzak ez betetzea izan dira.

Arartekoak ez dauka eskumenik Estatuko Administrazio Nagusiaren jarduketak kontrolatzeko, eta beraz, horri buruzko informazioa eman genion herriaren defendatzaileari, lan egiteko eta bertan bizitzeko baimena ukatzeko ebazpen horren berri izan zezan.

Errolda-ziurtagiriaren eskakizunak, baliozko agiri bakartzat, eztabaida asko eragin ditu; hala ere, prozesuaren amaieran, instrukzio berriekin, beste pertsona askok ere lanerako eta bertan bizitzeko baimen eskabidea aurkeztu ahal izan dute. Hala eta guztiz ere, beste pertsona batzuk kanpo gelditu dira, errolda-ziurtagiria aurkeztu ezin izateagatik: ezin izan zuten egiaztatu abuztuaren 8a baino lehen Estatuan zeudela. Horren ondorioz, auzitegiatar jo dute eta auzitegiak egoera hori ebazten ari dira.

Une honetan, EAEn epaiak eman dira [hain zuzen ere, Donostiako Administra-zioarekiko Auzien 2. Epaitegia (314/05 eta 358/05 prozedura laburtua)], eta horietan, lanerako eta bertan bizitzeko baimena ukatzearen ebazpena (Estatutuko Administrazio Nagusiaren ebazpena) baliogabetzat eman da. Epai horien ustez, udalak emandako errolda-ziurtagiria baliozkoa da, 2005eko apirilaren 14ko Ebazpenak emandako ere- duaren arabera izan ez arren.

Epaiak diotenez, Estatuko Administrazio Nagusiak ez zion udalari eskabiderik egin, ziurtagiria Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeko 65. artikulua araberak ukatzeko, eta horrela, aplikagarriak dira 30/1992 Legean ezarritako printzipio orokorrak, eskumena, hierarkia eta koordinazioa ez erabiltzeko goi printzipioen eraginezkoak, Espainiako Konstituzioko 103. artikuluan ezarritakoaren arabera, baita hiritarren fede onaren eta legezko konfiantzaren printzipioak ere, herri administrazioen jarduketa modu arbitrarioan aldatu ezin izateari dagokionez. Auzitegiaren erabakia euskarritzen duten beste arrazoi bat frogako printzipioa da: Administrazioak frogei dagokienez dituen betebeharrak eta frogak horiek interesatuek alegaturikoa sinesteko eduki dezaketen balioa. Ebazpenean adierazitakoaren arabera, gainera, Administrazioak egiaztatu egin behar du eskatzaileak alegaturikoaren egitasuna, eta udal errolda iuris tantum ustekotasuntzat hartu behar da, hau da, ez da aurkako egitateen ondoriozko suntsipenik egin behar, egitate horiek egiazkoak eta sinesgarriak direla frogatuz gero. Horrenbestez, 2004ko abuztuaren 8a baino lehen Espainian bizi direla onartu behar da, hori frogatzen duten beste bide batzuk daudenean.

Beraz, aipagarria da udalak pertsona atzerritarren dokumentazio prozeduretan izandako esku-hartzea. Eskumena Estatuaren Administrazio Nagusiarena da oraindik, baina atzerritartasun araudi berriak eginkizun berria esleitzen die, bai dokumentazio prozesu arruntean (hain zuzen ere, bertan bizitzeko baimen eskabideetarako gizarte txostenen prestakuntzan), bai dokumentazio prozesu berezian (errolda-ziurtagiriak emanez, egonaldia egiaztatzeko, eta horixe izan da, ikusi dugunez, Erakundeari kexak aurkezteko arrazoietariko bat).

**b) 2005eko abenduan atzerritarren erroldatzea iraungitzeari buruzko lege-aurreikuspena indarrean sartzeari loturiko jarduketa, pertsona horiek egoitza iraunkorreko baimenik ez dutenean eta errolda berritu ez dutenean**

13/2003 Legeak Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legean egindako aldaketak eragina izan du erroldaren araubide juridikoan. Horren ondorioz, kexa batzuk aurkeztu dira eta, gainera, pertsona atzerritarren defentsan lan egiten duten gizarte erakunde batzuek euren kezka adierazi digute; izan ere, araudi hori aplikatuz gero, pertsona batzuk errolda barik gelditzen dira, kasuan kasuko udalerrian bizi arren. Halaber, araudiaren

aplikazio okerraren eraginezko gizarte larrialdiari loturiko kexa bat ere aurkeztu da; esate baterako, espainiar nazionalitatea lehendik eskuratu duen pertsona bati (40 urte bertan bizitzen) errolda berriitu beharra jakinarazi zaionean.

Erroldak garrantzi handia dauka eskubideak erabiltzeko orduan, eta horrek erakundearen esku-hartze asko eragin ditu, pertsona atzerritarren eskubideak babesteko. Horri dagokionez, beharrezkoa da araudia eskubideak bermatzearen ikuspegitik aztertzea, eta gainera, gomendio orokorra landu da EAEko udaletarako: **“Udalek errolda-inskripzioa nahiz horren iraungitasuna eta Europatik kanpoko pertsona atzerritarren datuen lagapena (herri administrazioei) erabakitzeko prozedurari buruzko oharra”**, eta horiek kontsultatu egin daitezke (ikusi txosten honetako III. kapitulua).

### c) *Adin txikiko atzerritarrak, bakarrik iristen direnak*

Erakundeak aurten adin txikiko atzerritarren arloan egindako jarduketak kapitulu honetan adin txikikoei buruz dagoen kapituluan kontsultatu ahal dira. Gainera, aurten, *EAE*n bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari buruzko txosten berezia aurkeztu da Legebiltzarrean; hori 2004ko txosten arruntean iragarrita eta IV. kapituluan laburbilduta dago.

Atal honetan, horien atzerritartasun izaeraren inguruko alderdiak aztertuko ditugu: hemen bizitzeko eta lan egiteko baimena lortzeko behar diren tramiteak, nazionalitate espedientearen tramitazioa eta errekurtsio judizialen formulazioa, Estatuaren Administrazio Nagusiaren ebazpenei dagokienez, dokumentazioaren arloan.

Kasu honetan gauza berezia bi ezaugarri biltzea da, hau da, atzerritarrak eta adin txikikoak izatea. Araudi oso desberdina aplikatzen zaie: migrazio fluxuen eta adin txikikoen babesaren kudeaketa nahiz kontrola, helburu desberdinekin. Beti esan dugu adin txikikoak izateari lehentasuna eman behar zaiola, eta nazioarteko eta barneko araubidean indarrean dauden adin txikikoekiko esku-hartzeari buruzko printzipioei ere lehentasuna eman behar zaie. Pertsona helduen kasuan bezala, lanerako eta bertan bizitzeko baimena lortzea funtsezkoa da euren eskubideak garatzeko. Baimen hori Estatuko Administrazio Nagusiak eman behar du; hala ere, foru aldundiek, euren babesaren erantzuleztat eta legezko tutoretzat, partaidetza aktiboa dute espedientearen, eta beraz, horien esku-hartzea funtsezkoa da lanerako eta bertan bizitzeko baimena lortu ahal izateko, baita nazionalitate espedientearen aurkezteko ere. Txosten berezi horretan aztertzen diren espedienteetan, dokumentazioaren arloko arazo nagusiak agertzen dira. Lurralde historikoen arabera egoera oso desberdinak ikusi dira. Eperik laburrenak Araban daude; hala ere, oraintsu, Aldundiko hezitzaileekin eta langileekin izan dugun bilera batean, esan digute epeak luzatu egin direla. Bizkaian, orokorrean, epeak luzeagoak dira, eta Gipuzkoan, alde handiz, epeak askoz ere luzeagoak dira (txosteneko 3.5 atalean egin daiteke kontsulta).

Ararteko erakundeak esku hartu du zenbait espedienteetan jarraituriko denboretan eta prozeduretan. Mantendu den irizpidea hauxe da: adin txikikoaren intereserako, agiri guztiak ahalik eta lasterren tramitatu behar dira, tramite batzuk hasteko bederatzir hilabeteko harrerari itxaron barik. Txostenean gomendio batzuk egiten zaizkie aldundiei, eta horiek hemen aipatuko ditugu, gai honetan garrantzi handikoak baitira: (18) “Bertan bizitzeko eta lan egiteko baimenen tramitazioan eta asilo eskabidean ardura edukitzea”;

(19) “Baimenen tramitazioen jarraipena egitea eta emaitzak ebaluazioaren adierazletzat erabiltzea”; (21) “Itzulketa adin txikikoaren interesekoa izango dela bermatzea”. Horietan guztietan esaten da babes erakundeek garrantzi handia dutela adin txikiko atzerritarren eskubideak bermatzeko orduan, eta gainera, dokumentazio prozedura beharrezko berme guztiekin garatu behar dela, adin txikikoen eskubideak segurtatzeko.

Bestalde, Bilbo Etxezabal elkarteak sustaturiko kexa bat tramitatzen ari gara, Bizkaiko Foru Aldundiak judizio bidera jo nahi ez izateari buruz, Gobernu Ordezkaritzak hasierako aldi baterako egoitza baimena behin eta berriro ukatu duela aintzat hartuta. Aldundiak emandako erantzunaren arabera, Saileko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuaren eginkizuna Aldundiaren defentsa da, eta ez babesturiko adin txikiko pertsonen defentsa, horren ordezkaritza baino ez baitauka; gainera, beste zerbitzuekin sarean lan egitea komeni da, adibidez, doako laguntza juridiko zerbitzuarekin edo gizarte erakundeen zerbitzuekin; halaber, errekurtsoa jartzeko erabakia, izan ere, errekurrizko moduko ebazpenean ezarritakoarekiko ados egotearen edo ez egotearen araberakoa da, horrek legezotasunarekin duen egokitzapenari eta adin txikikoaren interesari dagokionez. Kexa horrek agerian jartzen du Aldundiaren jarduketa funtsezkoa dela, dokumentazio prozesuan. Adin txikikoaren interesa, familia berriro biltzeko aukerarik ez dagoenean, bertan bizitzeko eta lan egiteko behar den baimena lortzea da. Baimena lortuta, heziketa ikastaroetara joateaz gain (adibidez, enpresetako praktikak eskaintzen dituzten ikastaroak), baldintza duinetan sartu ahal izango da lan merkatuan.

Berriro esan nahi dugu komenigarria izango litzatekeela aldundiek, adin txikikoen tutoretzat, eta Eusko Jaurlaritzako Gazte Justizia Zerbitzuak, epaileek adin txikiko urratzaileei ezarritako neurriak betearazteko arduraduntzat, azkar jardutea, dokumentazio prozedura hasteko, eta gainera, eraginkortasunez jardun beharko dute, organo eskudunek (EAEko hiru lurraldeetako Gobernu Ordezkaritzak) bertan bizitzeko eta lan egiteko baimena emateko edo berritzeko behar diren baldintzak betetzean.

Bestalde, komisariatarako edo Urnietako larrialdiko harrera zentrora 2005eko ekainean egindako bisitaldietan lorturiko informazioak, baita bakarrik iristen diren adin txikiko atzerritarrei buruzko txosten bereziaren lanketan egindako jarduketek ere, agerian jarri dute Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren jarduketetan gabeziak daudela, adin txikiko atzerritarren bat aurkitzen dutenean; horren ondorioz, ofiziozko jarduketa bat egin dugu, polizia horien jarduteko modua ezagutzeko.

Arazo nagusia itxuraz adin txikikoak diren eta hori egiaztatzeko agiririk ez duten adin txikikoekin sortzen da. Identifikaziorako eta adina jakiteko dauden arazoei aurre egiteko, administrazio desberdinen lankidetzak behar da. Aldundiek babesik gabe dauden adin txikikoak babestu behar dituzte. Adina ez jakitearen ondorioz, batzuetan adin nagusikoei ere babesa ematen zaie, eta beste zenbait kasutan, identifikazioaren edo probak egitearen zain dauden adin txikikoak ez dira babes zentroetan sartzen, edo sartze hori komisarian nahiz adin txikikoaren egonaldiako egokiak ez diren beste leku batzuetan denbora luzeegia igaro ondoren egiten da.

Polizia desberdinek emandako erantzunetatik, honako informazio hau nabarmendu nahi dugu:

- Polizia desberdinek itxuraz adin txikikoa den pertsona bat aurkitzen dutenean, Fiskaltzari eta Foru Aldundiko Gizartekintza Sailari jakinarazten diete, Gasteizen izan ezik, bertan udalerriko gizarte zerbitzuei jakinarazten baitzaie.

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan, oraintsu, jarduketa protokolo bat landu dute Ertzaintzak, Adin Txikikoen fiskaltzak, Gipuzkoako Gobernu Ordezkaritzak, Polizia Nazionalak, Donostiako Udaltzaingoa, Legezko Medikuntzaren Euskal Institutuak, Osakidetzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horren arabera, adina jakiteko probak egin behar dira, pertsona babes zentroren batean sartu baino lehen, pertsona horrek dokumentaziorik eduki ezean. Hala eta guztiz ere, adin txikikoen babeserako erakunde publikoari ere berehalako jakinarazpena egingo zaio, berehalako laguntza emateko, hori beharrezkoa izanez gero. Gainera, “proben emaitza jakiteko denbora luzea itxaron behar denean, edo proba horiek berehala osatu ezin direnean, pertsona adin txikikoen harrera zentro batera eramango da, harik eta emaitzak eduki arte, edo bestela, beharrezko osasun proba guztiak egin ahal izan arte”.
- Pertsona horiek neskek direnean ez dago neurri berezirik aurreikusita; neurri bakarra, izan ere, laguntza emakumea den poliziak ematea da, emakumeren bat lanean egonez gero.
- Adin txikikoa aurkitzen denetik eta babes zentroan sartzen dena bitartean igarotzen den denborari dagokionez, hori 3-5 ordu bitartekoa da.
- Azkenik, babes zentroetarako lekualdatzerik gehienak egiten dituen polizia Ertzaintza da.

Adin txikikoaren interesa aintzat hartuta, beharrezkoa da Administrazioak zuhurtzia handiz jardutea, halako jarduketak egitean. Administrazio eta erakunde desberdinen esku-hartzea kontuan hartuta, komenigarria da jarduketa protokoloak edo beste tresna batzuk egotea, administrazio eta erakunde guztien arteko koordinazioa bermatzeko, eta horrela, adin txikikoak gizarte eta hezkuntza laguntza egokia jasotzeko, edozein unetan.

d) **2004ko urteroko txostenean jasotako gomendio orokorraren jarraipena, polizia kidegoek informazioari emandako tratamenduari buruzkoa, immigrazioari dagokionez**

Aurten ere, Bizkaiko SOS arrazakeria elkarteak kexa batzuk egin ditu, polizia kidegoei immigrazioari buruzko informazioari ematen dioten tratamenduari dagokionez. 2004ko txosten arruntean (VI. kapitulua) gomendio orokorra egin genuen gaiari buruz: “EAEko herri administrazioen menpeko polizia kidegoek jokabide kodigo jakinak eduki behar dituzte, immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamenduari dagokionez”. Hori betetzearen jarraipena egin dugu Bilboko nahiz Leioako udalekin eta Herrizaingo Sailarekin, eta horiek jakitera eman digute agian bete barik gelditu dela gomendioan adierazitakoa. Bi udalek esan digute prest daudela, komunikabideei ematen zaien informazioan, pertsona atzerritarren irudiaren inguruko estereotipo gutxiesgarriak sortu edo indartu ahal dituen daturik ez agertzeko.

Herrizaingo Sailaren kasuan, poliziaren atxiloketei eta jarduketei buruzko datuak emateko martxan jarritako neurriei buruzko informazioa eskatu dugu, baita Herrizaingo

Saileko funtzionarioek erabilitako hizkuntzari buruzko informazioa ere. Orain arte ez dugu jaso eskaturiko informazioa, eta beraz, eskabideari erantzuteko eskaera bidali diegu. Hala eta guztiz ere, Bizkaiko SOS arrazakeria elkarteak berretsi egin du komunikabideetara bidaltzen den informazioan Ertzaintzak ustezko delituak egiteagatik atxilotzen dituen pertsonen nazionalitateari buruzko datuak ematen direla.

Gure ustez, oso garrantzitsua da Administrazioak informazioa kontu handiz erabiltzea eta sentsibilizazio kanpainak sustatzea, pertsona guztien eskubideekiko errespetuzkoa den bizikidetzaren eredu lortzeko. Ustezko delitugileen jatorrizko herriari, azalaren koloreari, talde etnikoari, erlijioari edo kulturari buruzko datuak ematean, gizartearen kezka sortzen duten delituen edo jokabideen gaineko informazioa ematen denean, nazionalitate jakineko pertsonak edo taldeak delituekin erlazionatzen dira eta horrek gizartearen ukapena sortzen du. Datu horiek ez diote informazio garrantzitsurik ematen albisteari, eta ez dira beharrezkoak kontatzen den gertaera ulertzeko. Beraz, hobe da ez ematea; izan ere, herri botereen jarduketaren printzipio nagusia diskriminazioaren aurkako borroka izan behar da. Horren adibidetzat, Bilbon abenduan gertaturiko zoritxarreko jazoera aipatuko dugu; taxilari bat hil zen eta, jarduketak berak sorturiko ukapena ez ezik, horrek iritzi xenofoboak sortu ditu, atzerritar guztien aurka. Iritzi horiek oso kezagarriak dira, aditzera ematen baitute gizartearen pertzepzioa; beraz, administrazioek sentsibilizazio kanpainak egin behar dituzte, immigrazioaren euskal planaren eta tokiko planen eremuan, eta gainera, beste neurri batzuk ere hartu behar dira, Administrazioaren esku-hartzea ahalbideatzeko eta, horrela, diskriminazioko jarduketak ekiditeko.

Bestalde, Herrizaingo Saileko kexen atalean, aurtun, 1494/2004 zenbakiarekin, Portugaleteko Udaltzaingoko bi agentek jatorri magrebtarreko pertsona bati emandako tratua laburbiltzen da.

Europar Batasunak eskumena dauka diskriminazioaren aurkako borrokan; erakunde horrek landutako zenbait zuzentzauren helburua arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka da: Batzordearen 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentzaraua, pertsonen tratua berdintasun printzipioa aplikatzeari buruzkoa (euren arraza edo etnia edozein izan arren); eta Batzordeak 2000ko azaroaren 27an emandako 2000/78/EE Zuzentzaraua, enpleguan eta okupazioan tratua berdintasuna bermatzeko eredu orokorra ezartzeari buruzkoa. Zuzentzari horiek gure antolamendu juridikoan jaso dira, abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez (2003ko abenduaren 31ko BOE. Neurri Fiskalak, Administrazioak eta Gizarte Ordenakoak). Europako lege eremu hori garrantzitsua da; izan ere, alde batetik, diskriminazioaren definizioa egiten du, eta horren barruan zeharkako diskriminazioa sartzen du: *“Legezko edo arauzko xedapenen batek, klausula konbentzional edo kontratu-klausula batek, banakako itun batek edo alde bakarreko erabaki batek, itxuraz neutroak izan arren, pertsona bati beste batzuekiko atzerabidea eragiten diotenean, bere arrazaren edo etniaren, erlijioaren edo sinesmenen, elbarritasunaren, adinaren edo sexu orientazioaren ondorioz, baldin eta horren helburua legitimoa ez bada eta helburu hori lortzeko bideak egokiak nahiz beharrezkoak ez badira”*. Bestalde, legeria hori eta bertara loturiko politikak aplikatzeko mekanismoen eta metodoen ezarkuntza sustatzen da.

Legeko eremu hori gorabehera, oraindik ere ez da aurrerapauso handirik eman, diskriminaziorik eza bermatzen duten mekanismoen ezarkuntzan eta talde jakinen aldeko neurri berezien ezarkuntzan, talde horiek euren arrazaren eta etniaren ondorioz dituzten atzerabideen prebentzioa edo konpentsazioa egiteko. Immigrazio planen prestakuntza



eta plan horiek martxan jartzea, bai EAEn eta bai udalerrri batzuetan, eta EAeko ijito herriaren sustapen integralerako nahiz gizarte partaidetzarako Planaren prestakuntza, lehenengo pausoa da. Ezarritako neurriek, berriz, betetzea bermatzen duten baliabideen zuzkidura behar dute. Diskriminazioaren aurkako borroka funtsezkoa da gizarte desberdintasunak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuen prebentzioa egiteko. Horrenbestez, administrazioek esfortzu handiagoak egin behar dituzte diskriminaziozko jarduketak ekiditeko.

f) ***Ijitoen etniako pertsona atzerritarren kokapenak EAeko udalerrrietan***

Jarraipena eman diegu 2004an Portugaleteko Udalarekin hasitako jarduketei, udalerrian gurdietan bizi diren ijitoen etniako pertsona atzerritarrak udalerrian finkatzeari eta erroldatzeari dagokionez.

Ibilgailuetan lekualdatzeen diren eta finkatzeko lekuaren bila ari diren etorkin atzerritarrak iristeari dagokionez, udalek erantzun desberdinak eman dituzte; esate baterako, erroldatze-eskabideei erantzunik ez ematea (horrela, gizarte zerbitzuen laguntza iraunkorren ateak ixten zaizkie), ibilgailuak bizigarritasun baldintzak betetzen ez omen dituelako (ikusi 1176/2004 zenbakiko kexaren laburpena, gizarte ongizatearen arloan, txosten honetako I. kapituluan), edo ibilgailua bide publikoan aparkatzeko baimenik ez ematea, eta horrela, halako pertsonak beste udalerrri batzuetara joaten dira finkatzeko lekuren baten bila. Talde horretan, sarritan, adineko pertsonak daude, eta hori oso kezagarria da; gure ustez, hori kontuan hartu behar da udalek erantzuna ematen dutenean. Horri dagokionez, Vitoria-Gasteizko Udalak eremu publikoa gaitu du ibilgailuetarako, eta horrek gizarte esku-hartzea ahalbidetzen du, lursail horretan bizi diren pertsonekin (Ibiltari Programa). Programa horretan, lursail bat eskaintzen da erdi nomadak diren kokapenerako, eta zerbitzu komunak eskaintzen dira: jantokia nahiz komunak eta langile egokiak (gizarte langileak eta gizarte hezitzaileak, eta horiek gizarte esku-hartzeko laneko plana garatzen dute):

Portugaleteko udalerrian eta Ortuellako zona batean (Portugaleteko udalerrriaren ondoan) gurdietan bizi ziren familien kokapenari dagokionez, gure esku-hartzearekin jarraitzen dugu, pertsona horiek Udaltzainen esku-hartzearen ondorioz zonatik kanpo egon arren. Emandako erantzunean, Portugaleteko Udalak bere jarduketa justifikatu du, esanez udalerrian ez dagoela ibilgailuen kanpaldirako gaituriko lekurik; gainera, berak dioenez, ez dauka ibilgailu barruan bizitzeko gaitasunik, ez baitira gutxieneko bizigarritasun baldintzak errespetatzen (ikusi kexa honen laburpena, txosten honetako I. kapituluan, gizarte ongizatearen arloan, 1231/2004 zenbakiarekin).

Erroldaren inskripzioa, funtsean, udalerrian bizitzearen baldintzapean dago. Beraz, araudiak eta berori interpretatzen duten instrukzioek berretsi egiten dute inskribatzeko betebeharra, etxebizitzaren titularitatearen gaineko eztabaida juridiko-pribatuak edo etxebizitzan eragina duten baldintza fisikoak, higienikoak nahiz osasunekoak edo beste mota batekoak aintzat hartu barik.

Horixe esaten da 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenean; ebazpen hori Estatistikako Nazio Erakundeak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak eman dute, eta, beraren bidez, udalerriei agindu teknikoak eman zaizkie, udal erroldaren gaineko jarduketarako:

*“Horrenbestez, azpi-etxebizitzak (etxolak, karabanak, haitzuloak, etab., baita saibairik ere ez dutenak ere) baliozko etxebizitzatzat agertu ahal dira eta agertu behar dira eroldan, errealitatea batzuetan halakoxea baita”.*

Gure ondorioetan adierazitakoaren arabera, immigrazioaren harrera gizarte beharrezkoa da, eta udalen jarduketan sustapena behar du, etorkinen integrazioa bultzatzeko. Jarduketa horiek, berriz, administrazio guztien arteko ekintza koordinatuak behar dituzte. Halaber, etxebizitzaren arazoa eta etxebizitza giza eskubidetzat hartu behar izatea ere aipatu da, horixe baitago Nazio Batuetan jasota; halaber, gizarte esku-hartzea eta Administrazioaren jarduketak ezinbestekoak dira eskubide hori bermatzeko.

Udalaren jarduketan helburua ez da kokalekuak ekiditea (adibidez, Udaltzaingoak zonan kanpaldia egiteko baimenik ez dagoela jakinaraztea) edo lekuetarako sarbidea ekiditea soilik izan behar, edo araudiaren arabekoak ez diren jarduketak egitea (esaterako, erroldatze-eskabideei erantzutea).

Udalek eskumena dute eremu publikoen erabilera arautzeko, baina gizarte zerbitzuak ematearen arloan ere eskumenak dituzte; horrenbestez, aurre egin behar diete udalerraren barruko gizarte beharrezkoen eta pertsonen babesari. Garrantzitsua da gizarte beharrezkoen zuzentasunez erantzutea, biztanle kopuruak eta baliabide erabilgarriak aintzat hartuta; bestela, gizarte zerbitzuen sare garatuagoa duten udalek edo, neurria kontuan hartuta, kokaleku guztien polizia kontrola egiteko zailtasuna duten udalek soilik egin ahal izango diete aurre gizarte beharrezkoen berri horiei.

Ibilgailuetan bizi diren pertsonarik gehienak Errumaniatik iritsitako ijito atzerritarak izaten dira. Europar Batasunak, azken urte hauetan, pertsona horien beharrezkoak azpimarratu ditu. Europar Batasuna handitzeko prozesuan, ijitoen biztanleria handia duten estatu berriak sartu dira, adibidez, Txekiar Errepublika, Eslovakia eta Hungaria, eta, 2007an, Errumania eta Bulgaria sartuko dira. Ijitoen etniako pertsonak Europako politiken jasotzaileak dira, diskriminazioaren aurkako borrokari eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokari dagokionez, ekialderanzko handitze prozesuan. Beraz, garrantzitsua da erakunde publikoek euren jarrera aldatzea, garapen kulturala, ekonomikoa eta politikoa sustatzeko. Integrazioarako eremu berriak sustatu behar dira, eta, halaber, ez da oztopatu behar ijitoen etniako pertsonen kokapena udalerrian, Europar Batasuneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko diskriminazioaren aurkako eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren araudian ezarritakoaren arabera; hori ijitoen herriaren sustapen integralerako eta gizarte partaidetzarako Euskadiko Planean ere jasota dago, eta, bertan ezarritako helburu nagusiaren arabera, beharrezko aldaketa guztiak sustatu behar dira oztopoak gainditzeko eta ijitoek era guztietako baliabideak nahiz zerbitzuak eskuratu ahal izateko.

### **g) Atzerriko etorkinengan eragina duten beste jarduketa batzuk**

Aurten, Herrizaingo Sailari dagokionez, jasotako kezarik gehienetan, poliziek eman dako tratu desagokoa salatzen da, edo indarraren neurritz kanpoko erabilera, agenteek polizia bulegoetatik kanpo atzerriko pertsonekin garaturiko jarduketetan.

Osasunaren arloan, aipagarriak dira etorkinen osasun laguntzari dagokionez garatu ditugun jarduketak.

Azkenik, Langraiz Okako auzokoez arartekoarengana jo dute, kezkatuik baita biltza udalerrian gazte atzerritarren babeserako zentroa irekitzeari dagokionez. Gero, Aldundiak eta Langraiz Okako Udalak akordioa lortu dute, eta, horren bidez, espedientearen tramitazioa eten egin da. Akordioak aldatu egiten du baliabide horren helburua eta erabilera.

Gazte atzerritarrentzako baliabideen irekierak gizartean sortzen duen kezka arduratu egiten gaitu. Kasu honetan, kezka horri oraindik ere kezka garriagoa den beste informazio bat gehitu behar zaio, horrek eragina baitauka funtsezko eskubideetan; hain zuzen ere, Langraizeko auzokoen artean Ertzaintzaren datuak zabaldu dira, gazte atzerritarrei buruz, eta gai hori txosten honetako I. kapituluko Herrizaingo Sailean aztertu dugu.

Bizkaian, Aldundiak zenbait aldiz aldatu egin behar izan ditu gazte atzerritarren babeserako zentroak irekitzeko proiektuak.

Komunikabideek erabaki horiei ematen dien tratamendua, baita proiektuen atzerapenak eta oztopoak ere, kaltegarriak dira adin txikikoen interesetarako. Beraz, erakunde honek honako gomendio orokorrean jasotako jarraibide batzuk berresten ditu: “Erakundeen buruzagitza, ahultasun bereziko egoeran dauden taldeentzako zerbitzuak sortzeko” (2001eko txostena, VI. kapitulua).

## h) **Gizarte eragileekiko lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazioa**

Aurten kontaktuak egon dira pertsona atzerritarren eta gutxiengo etnikoen (adibidez, ijitoak) eskubideen defentsan lan egiten duten gizarte taldeekin. Gizarte solaskide horien eginkizuna oso garrantzitsua da halako pertsonen benetako beharrianak jakiteko, taldeon ezaugarri nagusia dauden erakundeak, eskubideak eta prozedurak ez ezagutzea baita.

Eremu horretan, parte hartu dugu gizarteari emateko egin diren jardunaldietan eta topaketetan; horietan pertsona atzerritarren eta gutxiengo etnikoen (esaterako, ijitoak) zailtasunei eta herri administrazioetan egiten dituzten eskariei buruzko informazioa eman da. Gure helburua erakunde hau ezagutaraztea da, arlo horretan egiten dituen esku-hartzeak eta dituen eginkizunak; izan ere, Euskadiko herri administrazioen baten jarduketaren eraginpeko pertsona guztiek (jatorria edo etnia edozein izan arren) gure erakundera jo dezakete.

Beste alde batetik, udazkenean Ceutan eta Melillan izandako gertaerak aintzat hartuta (atzerritarrak Europar Batasunean ez sartzeko jarduketaren eraginezko gertaerak), urrian Alacanten egindako defendatzaileen koordinaziorako Jardunaldietan gertaera horien inguruko kezka azaldu genuen, gainerako defendatzaileekin batera (Andaluziako Herriaren Defendatzailea, Gaztela-Mantxako Herriaren Defendatzailea, Nafarroako Herriaren Defendatzailea, Herriaren Defendatzailea, Kanarietako Komunaren Diputatua, Aragoiko Justizia, Sindic de Greuges de Catalunya, Sindic de Greuges de la Comunitat Valenciana eta Valedor do Pobo), eta gainera, ondoren jasotako adierazpena egitea erabaki genuen:

*“HERRIAREN DEFENDATZAILEEK EGINDAKO ADIERAZPENA MIGRAZIO FLUXUEN KONTROLEAN POBREZIA DESAGERRARAZTEKO ETA GIZA ES-KUBIDEAK BETETZEKO*

Urriaren 17an pobrezia ezabatzeko Nazioarteko Eguna denez, Alacanten XX. Koordinazio Jardunaldian bildutako herriaren defendatzaileok hauxe ADIERAZI dugu:

1. Berretsi egiten ditugu egun horren ospakizunaren helburuak, Nazio Batuen milurtekoaren barruko pobrezia ezabatzeko eta garapenaren helburuak lortzeko beharizanaren inguruko jabetze handiagoa sustatzeko; horrela, 2015era iritsi baino lehen, pobrezian bizi diren pertsonen kopurua erdira murriztu eta muturreko pobrezia nahiz gosea ezabatu egin behar dira mundutik.
2. Biztanleria mugimenduak gizakien arteko bizikidetzaren berezko fenomenoak dira, eta gizateriaren garai guztietan egon dira. Horien helburua bizi-baldintza duinak lortzea da, eta, sarritan, lekualdaketak biolentziaren, jazarpenaren, bidegabekeria egoeren, pobrezia eta gosearen eraginezkoak izaten dira, munduko pertsona askok halakoak jasaten dituzte. Oso kezagarria eta ezmerala da Saharatik hegoalderako Afrikako pobrezia egoera, eta hori jasanezina da munduaren barruko orekaren, zuzentasunaren eta justiziaren ikuspegitik begiratuta. Horrela, Ceutako, Melillako eta Marokoko gertaera dramatikoak ere egoera horretan oinarrituz azaltzen dira.
3. Europar Batasuneko estatuek nazioarteko mailako betebeharrak bete behar dituzte, giza eskubideen arloan, eta betebeharrak, berriz, zenbait hitzarmen berrestearen ondoriozkoak dira, esate baterako Errefuxiatuaren Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena, Giza Eskubideen Europako Konbentzioa, Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Ituna. Munduko migrazioek eta pobreziek, baita horiek milioika pertsonarengan dituzten ondorio larriek ere, zalantzan jartzen dituzte Nazio Batuen Biltzarrak 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala egin zuenetik emandako aurrerapausoak.
4. Estatuek eta Europar Batasunak migrazioen kudeaketan eta kontrolean dituzten eskumenen erabilerak errespetatu egin behar ditu giza eskubideen arloko nazioarteko konpromiso guztiak, lehen aipatu ditugunak.
5. Halaber, estatuek aintzat hartu behar dute giza eskubideen babesa, egoera irregularrean dauden pertsonak kanporatzeko eta itzultzeko neurriak aplikatzeko orduan, jazarpen eta tratu narriagarrien arriskuak ekiditeko, batzuetan halako neurrien aplikazio automatikoaren eraginez ondorio horiek sortzen baitira. Kanporaketek eta itzulketek bidezko prozedura errespetatu behar dute, pertsonen duintasuna bermatzeko. Funtsezkoa da abokatuen laguntza egokia eskaintzea, eta horrek etorkinen eskubideei buruzko informazio zehatza eman behar du, eta asiloa eskatzeko eskubidea ere jakinaraziko zaie.
6. Beste herri batzuekin egiten diren berronarpen akordioek bermatu egingo dute giza eskubideen errespetuaren inguruko nazioarteko estandarrak zorrotz betetzen direla. Horretarako, herri horiekiko lankidetzeta eta garapen akordioak ere beharrezkoak dira, kasu honetan, Marokoketikiko akordioak, aurrerakuntza

*soziala eta ekonomikoa bermatzeko. Halaber, egoera irregularrean dauden etorkinak berriro onartzeko akordioetan, halakoak sinatzen dituzten herriekiko lankidetzak eta garapen akordioak jaso behar dira. Nazio Batuen milurtekoaren garapen helburuak bete behar dira, eta horrela, pertsonen lekualdatze masiboen beharrezan ekidindo da. Bien bitartean, errespetatu egin behar dira giza eskubideak bermatzen dituzten nazioarteko konpromisoak, eta gainera, aurrerapausoak emango dira euren eraginkortasuna bermatzeko kontroleko mekanismoetan, giza tragediak ekiditeko, adibidez, azken asteetan Marokon gertaturikoa”.*

Azkenik, ijitoei dagokienez (estereotipoen eta aurreiritzien eraginez historia osoan zerbitzu, baliabide eta aukera sozialak eskuratzeko zailtasun handiagoa izan duen gutxiengo etnikoa), aurten erakundea talde horretara hurbiltzeko jarduketak egin ditugu. Ijitoen taldeak berdintasuna sustatzeko politikak behar ditu. Ijitoen sustapen integrale-rako eta gizarte partaidetzarako Euskadiko Plana onestearen ondorioz, administrazioek konpromisoak hartu dituzte ijitoen diskriminazioaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokan. Oraindik ebaluazioa egiteko goizegi izan arren, Ijitoen Kontseiluko Idazkaritza Teknikoak egindako lehenengo balorazioetatik ondorioztatzen denez, Planaren neurriek harrera desberdina izan dute, Eusko Jaurlaritzako sailetan; gainera, aldundiek eta udalek, gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren inguruko jarduketarik gehien kasuan, ez dute ijitoen kasuan eragina duten bestelako neurri edo berezitasunik kontuan hartzen. Planean egindako proposamenaren arabera, *Ijitoen Arazoa* deritzonaren ikuspegitik *Ijitoen Gaia* deritzon ikuspegira igaro behar da; horren barruan, gizarte bazterkeriari loturiko arazoak ez ezik, tratua berdintasunari, kultura nortasunaren onarpenari, eremu komunetako partaidetzari eta abarri loturiko beste alderdi batzuk ere aintzat hartu behar dira. Oraingoz, administrazioek ez dute helburuen handitze hori sartu, kudeatzen dituzten zerbitzuetan. Horretarako, jarduketako urteroko planetan erabakitako neurriak baliabideekin zuzkitu behar dira.

Plana elkartearen partaidetzarekin landu zen, eta adostasun zabala izan du; bera, geure iritzian, laneko eta lankidetzako tresna oso garrantzitsua da, bazterkeria murrizten laguntzeko politikak eta partaidetza nahiz komunikazio, erlazio nahiz ulermen handiagoa (gizartea osatzen duten talde guztien artekoa) sustatzeko politikak hasteko.

Aurten bilerak egin ditugu ijitoen elkarteetako ordezkariarekin eta Ijitoen Kontseiluko Idazkaritza Teknikoarekin. Bilera horietan esan digute kezkatuak daudela, zenbait arazoirenekin eraginez. Besteak beste, komunikabideek ematen duten irudiari eta taldeak zenbait arlotan jasaten duen diskriminazioari loturiko alderdiak nabarmendu dituzte: justizia, lan merkatua edo establezimendu publikoetarako sarbidea (dendak, tabernak, diskotekak,...). Halaber, arazoak dituzte diskriminaziozko jarduketa baten eraginezko salaketak aurrera eramateko. Bestalde, gizarte zerbitzuei loturiko kezka ere jakinarazi digute. Diotenez, gizarte zerbitzuek ijitoekiko mesfidantza handia dute, eta, horren ondorioz, baldintza zorrotzagoak bete behar izaten dituzte prestazio ekonomikoak lortzeko nahiz mantentzeko, edota zehapenak ezartzen zaizkie, esate baterako, prestazioak etetea, beste diru-sarrerak batzuk egoteko edo datuak ezkutatzeko susmorik txikiena dagoenean. Horri dagokionez, baliabideren bat eskatzen dute mesfidantza hori ekiditeko, esaterako, elkarteekiko solaskidetzak.

Bestalde, elkarteen finantziazioan arazoak dituzte; esate baterako, dirulaguntza jasotzeko atzerapenak, eta horrek oztopatu egiten du elkar-tearen lana; hala ere, lan oso garrantzitsua egiten dute ijitoen herriaren sustapenean eta bitartekaritzan.

Azkenik, ezagupenik ezaren eta aurreiritzien ondorioz, auzokoez oztopatu eta itxuragabetu egiten dituzte ijitoen jarduketan komunikazioa eta interpretazioa, eta horrela, poliziako funtzionarioek sarritan neurritz kanpoko jarduketak egiten dituzte ijitoen aurka. Ijito baten atzean, izena ez ezik, bizi-historia bat dago eta hori, gehienez, ahaztu egiten da. Horrenbestez, diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta elkar ulertze handiagoa sustatzeko, tresna bereziak behar dira, eta horiek, atal honetan esan dugunez, diskriminazioaren aurkako araudian eta ijitoen herriaren partaidetzarako nahiz sustapenerako planean bertan ere jasota daude.

## 5. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ARAZOEI

Aurreko urteetan bezala, atal honetan 2005. urtean ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen defentsaren arloan aurkeztu zaizkigun kontu guztiei heltzen saiatuko gara, erakunde honen jarduera eremu ezberdinen zeharkako ikuspegiaren bidez.

Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubideen defentsaren funtsezko eginkizuna burututa, beren eskubideak berdintasunean burutzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak defendatzeko enfasi berezia jarri du beti.

Horren erakusgarri da erakunde honetan aurkeztu eta bideratu diren banakako kekek zein ofizioz hasi eta botere publikoen jarduera eremu ezberdinei eragiten dietenak aztertzea. Hona hemen horietako batzuk:

**Funtzio publikoaren** arloari dagokionean, aurreko urteetan bezala aurten ere ezgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko dituzten aukeren aldeko interesa agertu dugu. Izan ere, ezohizko txostenen jarraipen-lanaren barnean, beste behin ere Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera zuzendu gara, Ezgaituak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Merkatu Arruntera Sartzeko Planaren esparruan beharbada gertatu diren aurrerapenak egiaztatzeko asmoz. Une honetan oraindik datu horien zain gaude.

Nolanahi ere, kexa batzuk egon dira, oraindik ere ezgaitasun motaren bat duten hautagaiek dituzten zailtasunen berri ematen dutenak. Horrela, funtzio publikoaren arloaren kexen hautaketan interesgarria iruditu zaigu ikusmen-ezgaitasuna duen oposiziogile batek eskatuta bideratu den kexa, eskatutako denbora-egokitzapenak eman ez zitzaizkion eta (ikusi I. atala, 5.2. zatia, 524/2005 kexaren laburpena).

Era berean, ordezpenetarako hautagai bati buruzko espedientea aipatu behar dugu; gizon horrek adimen-ezgaitasuna zuen, eta Vitoria-Gasteizko Santiago ospitalean lan egin nahi zuen. Erakunde honek interesdun horrengan biltzen diren zirkunstantzia bereziak jakiteko aukera izan zuen, mendeko/langileen lanbide-taldeko zerbitzuetako langile-peoien kategorian estatutupeko langileak izateko hautaketa-probak zirela-eta aurretik bideratutako kexa-espediente bati esker. Espediente horretan uste izan genuen ez litzatekeela egongo arazo handirik, interesdunak balizko ordezpenetarako hautagai gisa Osakidetzari atxikita egoten jarraitzeko, horrek aurretik kategoria horretan bertan –Santiago ospitaleko garbitegi zerbitzuan- lan egin zuela egiaztatu baitzuen.

Bestalde, “Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn” ezohizko txostenaren jarraipena zela eta, erakunde honek berriro adierazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek beren jarduera-estrategiak diseinatu eta ezarri behar dituztela Ezgaituak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Merkatu Arruntera Sartzeko Planak ezarritako gutxieneko berrietatik aurrera, eta ondore horretarako eta beste neurri batzuen artean, lanpostuen erreserbako kupoa (gehienez, % 10ekoa dena) edozein kontratazio motatara eta bereziki aldi baterako kontrataziora hedatu beharko dutela, zerrendak edo ordezpenetarako lan-poltsak kudeatzeko jarraibideetan beren-beregi adierazita.

Gure ikuspuntutik, azken gomendio hori –erreserbako kupoa aldi baterako kontratazioetara hedatzeari buruzkoa- da, hain zuzen ere, interesdunaren kasu berezia hausnartzera behartzen duena, eta horren ondorioz, aldi baterako kontrataziorako

dituen aukerak erraztu edo bultzatzeko bidea ematen duen erreserba ezartzeko aukera aztertzeraz behartzen duena.

Halaber, adierazi nahi dugu zenbait kexa jaso ditugula, horietan mugikortasun-egzaitasunak dituzten irakasle batzuek adierazten dutela beren mugikortasuna erraztea ahalbidetzen duten neurri positiboak hartu behar direla, beren helburuko ikastetxeetan irisgarritasun-baldintzarik ez dagoela eta. Une honetan jarduera bat burutzen ari gara, gure ustez bere helburu nagusia EAEko irisgarritasun orokorra sustatzea dela.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazi digu EAEko sare publikoko lehen hezkuntzako zein bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irisgarritasun egoerari buruzko egoera-mapa egiten ari dela.

*EAE*n erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna ezohizko txostenean, erakunde honek esaten zuen arlokako eremu ezberdinen artean, egoera okerrera hezkuntzaren arloan zegoela, baita osasun arloan ere. Hori gertatzen da hezkuntza-sarea (eta neurri txikiagoan, Osakidetza sarea) eraikin zaharren inguruan egituratzen delako, zenbait kasutan eraikin horiek beste erabilera batzuetarako eraiki zirela. Hala ere, bildutako datuetatik ondorioztatzen zen jasotako jaraunspena ez zela behar bezala berdindu aipatutako eraikinak egokitzeko beharrezko ahaleginarekin.

Horregatik, berriro adierazi genion sail horri lege agindua bete eta lau urteko bidezko programa egin behar zela, programa hori egiteak benetako egoeraren diagnostikoa izan eta lehenetsun ordena zehatz bati jarraiki burutzeko egutegia ezartzeko aukera emango luke eta.

Horregatik guztiagatik, adierazi behar dugu pozik gaudela, Sailak bidezko eskola-mapa egiten ari dela eta laster datuen bilketa amaituko duela jakinarazi ondoren. Izan ere, horrek hezkuntza-sareko irisgarritasun osoa lortzeko jarraitu beharreko jarduerak antolatzea ahalbidetuko du.

Nolanahi ere, aipatu behar da Sailak 2006rako aurreikusi duen obra planean EAEko 24 ikastetxetan arkitektura-oztopoak kentzea erabaki dela.

**Hezkuntza-premia bereziei** buruzko atalari dagokionean, jakin nahi izan dugu zero urtetik hiru urtera doan hasierako hezkuntza-tartean hezkuntza-administrazioak laguntzarik ez duten ikasleen heziketa goiztiarrerako lehenetsunezko tratamendua bermatzeko bidea ematen duen plangintza burutu nahi duen. Jarduera hori Arartekoak *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* ezohizko txostenean egindako gomendioetako batzuk betetzeari buruzko gure ohiko jarraipen-zereginaren barnean sartu da. Txosten hori adingabeen problematikaren berariazko arretaren atalean agertzen da.

Halaber, beste kexa batzuk bideratu izanak mugikortasun-egzaitasunak dituzten eta garraioa erabili behar duten ikasleek beren etxebizitzetan sartzeko zailtasuna dutenean hezkuntza-administrazioak zein jarrera duen jakitea ahalbidetu digu. Egokitzen jotzen dugu bizilekua aldatzen laguntzeko edo gizarte-zerbitzuetako edo boluntarioen laguntza eskatzeko agertu duen jarrera, hezkuntzari laguntzeko aditu batek nekez bete baitezake behar hori.

**Zerga** arloan, 2004an egzaitasunengatik salbuespena Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan (hemendik aurrera, TMIZ) aplikatzean sortu zen problematika aipatu behar dugu berriro. Izan ere, problematika sortu zen Gipuzkoako udal batzuek



ez zutelako onura hori onartu nahi zerga arautzen duen Foru Arauan ezarri bezala, problematikak 2005ean egoten jarraitu duela.

Hala ere, aitortu behar dugu aurrerapauso garrantzitsuak eman direla, udaletako batzuek zergaren salbuespenaren eskatzaileei araudiak eskatutako betekizunak baino gehiago eskatzen zizkietelako eta gaur egun jada horrelakorik egiten ez dutelako, gure gomendioetan bildutako irizpideei heldu dietela. Horixe da, esate baterako, Donostia-San Sebastián eta Antzuolako Udalen kasua.

Alde horretatik, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren 2004ko urriaren 7ko 141/2004 Ebazpena euskarri nabaria izan da gaiari buruzko gure gomendio guztietan adierazi dugun planteamendurako. Auzitegi horrek honakoa dio ebazpen horretan: *“araudiak ez du mugikortasun txikiko edo hirugarren pertsonen laguntzako zirkunstantziarik eskatzen. Hori dela eta, Auzitegi honek ez du haren ezgaitasunen norainokoa ikertu behar, behar bezala egiaztatu baita eta Udalak ez baitu zalantzan jarri ...(e)ko minusbaliotasuna, ehuneko hori aipatutako araudian eskatutako % 33 baino handiagoa dela”*.

Ibilgailuaren “erabilera bakarra”ri dagokionean, aipatzen dugun ebazpena bat dator erakunde honek defendatu duen irizpidearekin. Horri dagokionez, ondokoa adierazten du: *“Auzitegi honen ustez, ezin da esan adierazpen horrek minusbaliatuaren erabilera bakarra eskatzen duenik, minusbaliatuak gidatutako edo bera garraiatzeko erabiltako ibilgailuak –beste helburu batzuetarako erabiltzen ez direnak– barne hartu behar dituela. Horren ondorioz, emaztea “beste gidari bat” gisa agertzeak ez dakar derrigorrean agindu hori betetzen ez denik. Dena den, horrek ez dakar eragozpenik, Udalak, aipatutako 14/1989 Foru Arauaren 6. artikuluan ezarritako ikuskapen eskumenak erabiliz, eskakizun hori betetzen den ala ez egiaztatzeko ...”*.

Eusko Legebiltzarrarentzako 2004ko txostenean “Ezgaitasunen bat duten pertsonen babesa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, udal zergen inguruan egin berri den erreformaren ondoren” izenburupean biltzen zen gomendio orokorrean, hiru foru aldundiei iradoki genien beren Batzar Nagusien aurrean TMIZ arautzen zuten foru arauen 2. artikulua aldaketa bultzatzearen komenigarritasuna aztertzeko. Iradokizun horri dagokionez, gaia banan-banan bideratzeko asmoz hiru foru aldundiei hasi genizkien ofiziozko espedienteek ez dute eduki guk espero genuen emaitza, hiru aldundiak salbuespenaren aplikazioari buruz dugun iritziarekin erabat bat datozen arren, ez baitute inolako interesik agertu arauaren testua aldatzeko.

Arabak eta Bizkaiak beren-beregi adierazi digute araudiaren aldaketa hori ez egitea erabaki dutela; dena den, oraindik ez dakigu Gipuzkoak zer egingo duen, bidali zaigun azken informazioaren arabera, gai hori aurretik aztertuko delako Gipuzkoako Finantza Kontseiluan eta Euskadiko Zerga-Kideketarako Sailean.

Gure aldetik, azpimarratu nahi dugu agindu horren testua ez dela oso zuzena, literalegiak diren interpretazioak egitea eragiten duelako nolabait. Nahiz eta nabaria den erabilera bakarra burutu aurretik hori probatzea erabat ezinezkoa dela, egia da zenbait udal arauaren literaltasunak babestuta sentitzen direla, eta TMIZren salbuespena eskatzen duten pertsonen ibilgailuaren erabilera bakarra egiaztatzeko eskatzen dietela eskabidea aurkezteko uanean.

**Herrizaingoaren** arloari dagokionean, eragozpenak ditugu Erandioko Udalak jarraian azaldutako kontuari buruzko informazioa emateko; izan ere, udalerrian Irisga-

rritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak (7.2 art.) eta hori zati batean garatzen duen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak (II. eranskinaren 3.11 art.) ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku plazen kopuru, neurri eta kokapenei buruz ezarri zituzten eskakizunak betetzen diren jakin nahi dugu.

Ezgaitasunen bat duen pertsona batek kexa bat aurkeztu zigun, bertan herri horretan aipatutako plazak behar ez bezala erabiltzeari lotutako hainbat arazo –jada konpondu direnak- azaldu zizkigula gehien bat. Kexa bideratzean, kontu horren eta gune zehatz bateko egoera bereziaren aldeko interesa agertu genuen, erreklamaziogileak adierazitakoaren arabera, lege gutxienekoak bermatzen ez ziren eta. Era berean, Udalari eskatu genion aipatutako arauak ez betetzekotan, horri buruz aldi baterako zituen aurreikuspenen berri emateko.

Hasieran toki erakunde horrek jakinarazi zigun mugikortasun iraunkorreko plan bat egiten ari zela, eta ziurtatzen zuen bezala, plan horrek kexa eragin zuten arazoak konponduko zituen. Ondoren, planari buruzko hainbat azalpen eman zizkigun, baina gure ustez, azalpen horiek ez zituzten argitzen guk galdetutako bi kontuak. Hori dela eta, berriro ere haren laguntza eskatu genion. Eskaera horri erantzunez eta kokapenari zegokionez, aipatutako gunean zeuden plazak lege eskakizunetara egokitzen zirela jakinarazi zigun, baina ez zigun esan kopuru eta neurriei zegokienez ere egokiak ziren. Horrez gain, udalerriko zati handian aparkalekuen egoera zein zen ez zekiela eta gaiari buruzko azterlana kontratatu zuela adierazi zigun, artean azterlana egiten ari zela. Orduan ere ez zuen aipatu arau horiek udalerrian betetzeko maila jakin, eta hala denean, horiek betetzeko ezarri zuen egutegiari buruzko kontua. Txostena amaitu den egunean, artean ez geneukan informazio hori, nahiz eta lehenengo aldiz eskatu genuenetik urte bat eta erdi baino gehiago igaro den.

Bestalde, Alpe Acondroplasia Fundazioak adierazi zigun ez zegoela batere ados Donostia-San Sebastián 2004ko Aste Nagusirako antolatuta zegoen “El Bombero Torero” ikuskizun komiko-taurinoa egitearekin.

Elkarte horrek uste zuen mota horretako ikuskizunak iraingarriak eta mingarriak zirela pertsona akondroplasiako giza duintasunerako, pertsona horiek historikoki “nano”ei eman zaizkien barrengarri, komiko edo bufoiaren estereotipoei aurre egin behar diete eta.

Alde horretatik, elkarteak adierazten zuen pertsona akondroplasiakoak urtez urte joan behar zirela klixer horiek psikologia eta gizartearen aldetik dakartzaten oztupo guztiak gainditzin. Horren ondorioz, bere ustez gaur egun mota horretako ikuskizunak antzeztan jarraitzeak beren gizarte-bazterkeria iraunarazi baino ez du egiten, guztientzat lortu nahi diren errespetu, tolerantzia eta gizarteratsetik aldentzen dituztela.

Gure erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari bidalitako idazkian hurrengo analisia egin zuen:

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas iharduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak 18. artikuluan definitzen ditu debekatutako jarduerak, eta pertsonen iraineko tratua ematen dieten edo eman diezaieketenak eta pertsonen eskubideak hausten dituztenak aipatzen ditu.

Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua adierazten du giza duintasuna botere publikoek zein herritarrek beraiek errespetatu beharreko konstituzio ondasuna dela. Botere publikoen lehentasunezko eginkizuna izan behar da beren komunitatearen

barnean berdinkide gisa errespetatuak izateko zailtasunak dituzten talde sozialak erabat gizarteratzen direla zaintzea.

Orain dela gutxi ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasun, bereizkeriarik ez eta irisgarritasun orokorrari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea aterata da. Bere helburua ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako eskubidea bermatu eta burutzeko neurriak ezartzea da, Konstituzioaren 9.2, 10., 14. eta 49. artikuluen arabera.

Alde horretatik, aipatutako legearen 2. artikulua ezgaitasun arloko politiken zeharkakotasuna barne hartzen du bere printzipioen artean; printzipio horri jarraiki, herri administrazioek burutzen dituzten jarduerak ez dira plan, programa eta berariazko ekintzak bakarrik, *“herri jardueraren edozein eremutako politika eta ekintza ildo orokorrak, ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrianak eta eskaerak kontuan hartuko dituztenak”* barne hartzen dituztela.

Gauzak horrela, 7. artikuluan bereizkeriaren aurkako neurrien edukia xehatzen du, neurri horiek jokaera diskriminatzaileak eta jazarpenekoak debekatzean gauza dai-tezkeela. Hona hemen definizioa: *“Jazarpen-jokaera: pertsona baten ezgaitasunarekin zerikusia duen edozein jokaera, bere helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo ingurune ikaragarria, etsaitasuneko, apalgarria, iraingarria edo mingarria sortzea dela.”*

Bestalde, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen hitzaurrea botere publikoek ezgaitasunen bat duten pertsonen -herritarrak diren aldetik, aukera berdintasunerako duten eskubidearen barnean- negatiboki eragiten dieten oztupoak gainditzera bideratutako jarduerak sustatu beharra zehazten saiatzen da.

Alde horretatik, Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Europar Batasuneko estatu kideetako gobernuetako ordezkarien 1996ko abenduaren 20ko Ebazpenak, ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunari buruzkoak, adierazten du herritar guztien aukera berdintasunaren printzipioa estatu kide guztien balio besterenezina dela. Horrek pertsona horien kontra burututako bereizkeria negatiboa desagerrarazi eta haien bizi-kalitatea hobetzea dakar, eta estatu kideei baimena ematen die gizartearen baliabideek ahalbidetzen duten behar bezalako zabaltasunaz beren araudiak ateratzeko, helburu hori lortzeko asmoz. Ondore horretarako, Europar Batasuneko erakunde guztiei eskatzen zaie *“printzipio horiek beren politika eta jardueren esparruan islatzen laguntzeko”*.

Horregatik guztiagatik, uste genuen printzipio horien ikuspegitik beharbada zenbait jarduera aztertzen hasteko unea zela. Orain arte jarduera horiek ez dira zalantzan jarri, beren tradizioa zela eta, baina gaur egungo legedi esparrua kontuan hartuta, berriro hausnartu beharko lirake, ezgaitasunen bat duten pertsonen benetako aukera berdintasuna lor dezaten.

Azaldutako iritziei erantzunez, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun zalantzan jarritako ikuskizun publikoak ikuskizun publikoa zen aldetik ezarrita zituen lege eta araudi eskakizun guztiak betetzen zituela. Aldi berean, “El Bombero Torero” ikuskizuneko parte-hartzaileek bertan parte hartzeak beren ezaugarriari atxikitako eskubideetan duen eragina epaitzeko behar bezalako gaitasuna dutela adierazi zigun. Hala eta guztiz ere, gure idazkian egindako analisi juridikoarekin bat zetorrela adierazi zuen, eta etorkizuneko araudi jardueretarako aztertzeke konpromisoa hartu zuen.

Norberaren ibilgailuaren ordez **garraio publikoa** benetako aukera gisa defendatzearen printzipioa erakunde honi bidaltzen zaizkion kexa askoren azpian dago. Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute beren eguneroko joan-etorriak benetan eta norberaren autoa hartu behar izan gabe egiteko aukera ematen dien garraio publikoa izateko. Hala ere, ezgaitasunen bat edo mugikortasun txikia duten pertsonentzat, asmo hori ez da alternatiba bat, eskaera baizik. Izan ere, kasu gehienetan garraio publikoa beren kabuz mugitzeko duten baliabide bakarra da. Horregatik, talde horrek herri administrazioen konpromiso irmoa eskatzen du, ahalik eta lasterren garraio publikorako sarbide orokorra bermatzeko behar diren ekintza positiboko politikak susta daitezzen.

Gaur egun, kasu askotan gure garraibideek ez dituzte kendu ezgaitasunen bat duten pertsonak beren kabuz mugitzea eragozten duten oztupoak.

Egia da hiri garraioaren arloan neurriak hartzen ari direla, eta hiri linea guztietan pixkanaka plataforma baxua duten autobusak gehitzen doazela, nahiz eta oraindik autobus guztiak egokitu ez diren. Egoera horrek eragozpen eta haserre larriak sortzen dizkie hiri garraio publikoa erabiltzen duten eta ezgaitasunen bat duten pertsonari.

Baina arazoa gehien bat hiriarteko garraioan agertzen da, bereziki garraioa errepidetik egiten denean. Gaur egun, mugikortasun-arazoak dituzten eta gurpil-aulkia behar duten pertsonak ezin dira sartu ibilbide horiek egiten dituzten lineetako autobusetara. Kasu onenetan aurretik esanez eta ordutegi zehatz batzuk erabiliz, linearen bat erabil dezakete. Hala ere, argi dago eskaintza mugatu hori ez dela irtenbidea.

Ez dugu ezkutatu nahi inbertsio handiak egiten ari direla eta irisgarritasun-planak burutzen ari direla, horien emaitzak laster ikustea espero dugula.

Gure asmoa ahalegin horiek bistaratzea da; dena den, arazoaren garrantzia azpimarratu behar dugu.

Egokia izango litzateke hiriarteko garraioko lineen enpresa esleipendunekin sinatutako kontratuak berrikustea, pixkanaka eta aurretik ezarritako erritmoari jarraiki ibilbideetara autobus egokituak esleitzen dituzten. Berrikuspen horiek emakidaren baldintza ekonomikoei nabarmen eragitekotan, gure ustez herri administrazioek gastu hori beren gain hartu eta ordaindu beharko lukete.

Amaitzeko eta iaz egin genuen bezala, adierazi behar dugu Metro Bilbaorekin bi erreklamazio ditugula, erantzunik jaso ez dutenak. Bata ezgaitasunen bat duten pertsonentzat prestatutako makina balio-emaileetatik pasatu beharrari buruzkoa da, eta bestea gaueko ordutegian igogailu batzuk ixteari buruzkoa.

Aurreko txostenean adierazi genuen bezala, une zehatz batean erabiltzaileak pasatzea ahalbidetzeko makina balio-emailea eskuz zabaltzeko aukera egotea erabat salbuespenekoa izan behar da, eta horren ondorioz, arazoa konpondu behar da. Metro Bilbaok mantentze-lanez arduratzen den enpresari arazoaren berri emango ziola adieraziz hartzen zuen konpromiso hutsak ez gaitu betetzen: izan ere, urtebete igaro da, eta oraindik ez dakigu egokitzapena zertan geratu den. Halaber, erakunde honek kontuan hartu behar du arazo hori zerbitzua funtzionatzen hasi bezain laster agerian jarri zela, eta Metro Bilbao enpresari atxikitako langileak ez dabiltzala geltokietatik, txartelen salmenta automatizatuta dagoelako eta enpresako langileak informazio-lehiatilen atzean daudelako.

Azaldutako bigarren kasuan ere ez da erantzunik jaso. Gogora dezagun erreklamazio horrek adierazten zuela Santutxu eta Abando geltokietako igogailuak ez dabiltzala gaueko 23:00etatik aurrera.

Metro Bilbaok ematen duen arrazoia da ikuskatzailearen jarduerak igogailuak barne hartzen ez dituela, igogailuak plataforma zintzilikarietara heltzen direlako ikuskatzailearen beste aldetik.

Erakunde honek Metro Bilbaoren beldurrak ulertzen ditu, igogailu bat gauez ezin dela ibili ikuskapenik gabe adierazten duenean. Baina gogoratu behar dugu erakunde horri dagokiola erabiltzaile guztientzat garraio-zerbitzu egokia emateko beharrezkoak diren baliabide material, tekniko eta pertsonalez hornitzea, eta horretarako aurrekontu-autonomia osoa duela.

Argi dago mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak inolako mugaketa motarik ez duten pertsonak dituzten zerbitzuen erabilgarritasun baldintza berdinetan sartu behar direla garraio bideetara. Horrela, pertsona batzuentzako zein besteentzako zerbitzuak ordu berean hasi eta amaitu behar dira, lineen geltoki guztietan. Horretarako, zerbitzu horiek amaitu arte, geltokietako instalazio osagarriak, igogailuak kasu, erabilgarri egon behar dira, horiek behar dituzten pertsona guztiek mugarik gabe erabili ditzaten.

Hori dela eta, Metro Bilbaori azaldu zaio laster konponbidea aurkitu beharko diola Abando eta Santutxu geltokietako igogailuetara gaueko ordutegian kanpotik sartzeko arazoari.

**Hirigintza**ren arloan, **irrisgarritasuna**ren atalean, erakundean ofizios hasi diren hainbat jarduera aipatu behar ditugu. Lehenik eta behin, komunikabideen bitartez jakin genuen Bilboko Areiltza Doktoarearen kalean dagoen anbulatorio batean irrisgarritasun-arazo bat zegoela.

Kexan azaltzen zenaren arabera, anbulatorioak kanpoko sarbide bat zuen, eta sarbide horretan igogailu bat jarri zen. Hala ere, igogailu hori jarri bazen ere, ez zen lortu gurpil-aulkian dabilzan pertsonak sarrera horretatik sartu ahal izatea, igogailura iristeko beharrezkoa baitzen maila txiki bat igotzea, maila hori ez zela kendu lanak egiterakoan. Maila horrek zaildu egiten zuen gurpil-aulkian zebiltzan anbulatorioko erabiltzaileak osasun-etxe horretara inoren laguntzarik gabe sartu ahal izatea.

Arazoa ikusita, erakundeak Osakidetzari eskatu zion igogailua jartzen amaitzeko eta maila hori laster kentzeko, mugikortasun txikiko pertsonak anbulatorioan sartzeko mugatzen zuen eta.

Erakunde horrek arazoa konponduko zuela jakinarazi zigun. Horretarako, maila kenduko zuen alaka bat egingo zen, eta egitura eta kolore ezberdineko seinaleztapen zerranda jarriko zen, zoladuraren bestelakoa izan zedin. Azken neurri horrek helburu bikoitza zuen: sarbide hori erabiliko zutenei informazioa ematea eta horretaz ohartaraztea.

Bestalde, berriro ere komunikabideen bidez jakin genuen Barakaldoko San Vicenteko dorreetara sartzeko mailadi bat eraiki zela, kaleen arteko aldea gainditzeko. Hala ere, bazirudien instalazio horrekin batera ez zutela arrapalarik egin, ez eta mugikortasun txikiko pertsonen oztopo hori gainditzeko bidea ematen zien arrazoizko ordezkoi ibilbidea ezarri ere.

Informazio horri tratamendu egokia emateko asmoz, Arartekoak ondoko aldeei buruzko informazioa eskatu zion Barakaldoko Udalari: hartutako erabakia, eta nolahi ere, eskailera horren osagarri gisa mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen erabiltzeko moduko sarbide arrapala instalatzea eragotzi zuten arrazoi teknikoak. Txostena amaitu den egunean, artean ez geneukan informazio hori, nahiz eta lehenengo aldiz eskatu genuenetik ia urtebete igaro den.

Azkenik, Arartekoak egokitzen jo zuen talde ezberdinek Vitoria-Gasteizko Manuel Iradier kaleko 7 zenbakian dagoen eta indarkeria jasan duten emakumeei arreta psikologikoa emateko den zerbitzura sartzeko zailtasunagatik aurkeztu zuten salaketan esku hartzea.

Erakunde honek horri buruzko informazioa eskatu zuen, eta horri erantzunez, Gizarte Gaietarako foru diputatuak aztertzen ari ziren eta bulegoa zegoen jabetza horizontaleko elementu komunei eragiten zieten balizko irtenbideen berri eman zigun. Gure iritziz, zeuden arkitektura-oztopoak teknikoki ken zitezkeen ala ez zehazteko asmoz, azterlan teknikoak egitea beharrezkoa bazen ere, uste genuen arrazoizko epea igaro zela (aipatutako lekuan zerbitzua zabaltzeko zenetik urtebete baino gehiago igarota zegoen), hala denean bidezko erabakia hartzeko txosten tekniko egokiak eginda egoteko. Horregatik, behin eta berriz azpimarratzen genuen erabakia laster hartu behar zela.

Amaitzeko, Arabako Foru Aldundiak zerbitzua derrigorrean irisgarria zen beste leku batera eramatea erabaki zuen.

Jasotako kexak banan-banan bideratzeari dagokionez, erabilera publikoa duten eraikinen **irisgarritasuna** lortzeko oraindik asko dagoela egiteko egiaztatu dugu.

“Oztoporik gabe” Herritarren Defentsarako Elkarteak aurkeztutako kexaren gaia atera nahi dugu, Bilbao Exhibition Center (hemendik aurrera, BEC) eraikinean irisgarritasunari buruzko indarreko araudian xedatutakoa hainbat aldetan bete eta gordetzen ez zela salatzen zuen eta.

Elkarte horrek azterlan bat aurkeztu zuen; horretan, argazki-erreportaje baten bidez, antzemandako irregulartasunak zehatz-mehatz azaltzen zituen. Batez ere komunikazioko irisgarritasunari, hau da, seinaleztapen eta informazio elementuen pertzepzioari, lotutako aldeak ziren betetzen ez zirenak, kokapen, altuera, kolore, egitura eta abarregatik.

Erakunde honek egindako eskaerari erantzunez, Barakaldoko Udalak jakinarazi zigun agertutako arazoak zuzen konpontzen joateko asmoz, uste zuela nahikoa zela salaketaren eduki osoa BECeko zuzendaritzari bidaltzea, eta hori hausnartu eta irisgarritasunari buruzko indarreko araudira (irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua) egokitzeko beharrezko ekintzak egiteko eskatzea.

Beranduago, berriro udalera jo behar izan genuen, BECeko zuzendaritzak antzemandako ez-betetzeak zuzentzeko beharrezko neurriak hartu zituen egiaztatzeko asmoz ikuskapen-bisita egin zen jakiteko.

Udalak txosten bat bidali zigun; bertan kexa-idazkian jasotako alde guztiak berrikusten ziren, zegoen egoera justifikatuta zein zuzendu beharreko alde horiek berehala aztertuko zirela adierazita. Alde horretatik, BECeko teknikariek jarraitutako irizpideak indarreko legedian ezarritakoarekin bat zetozela adierazten zen, errotulu edo seinaleztapen elementu zehatz batzuen altuerari zegokionean izan ezik. Honakoa esaten zen: *“araudiaren arabera zuzena den altueran jarrita ez lirakeke ikusiko, aurreikus daitekeenez bertan oztopoak egongo direlako. Horren ondorioz, gorrako jartzea erabaki zen, eta hori zuzentzat jotzen da, bestela ezin izango lirakeke instalatu eta. Egoera hori gertatzen da ateen gaineko larrialdietarako irteeren errotuluen kasuan eta suteen aurkako babes elementuak seinaleztatzeko. Informazio-elementuei dagokienez, uste dute Braillez idatzitako ordeko errotuluak altuera egokian daudela.”*

Aurreko zenbait egoera zuzendu dira, hala nola errotuluen aurrean oztopoak egotea, komunitako eta suteetako ur-hartuneetarako armairuetako seinaleztapena, informazioa zinta autoitsaskorraz itsatsitako paperean agertzea, etab. Halaber, eskaileretan eskudel bikoitza jarri zuten.

Espedientea bideratzean puntu horretara helduta, Barakaldoko Udalari gogorarazi behar zaio udaleko zerbitzu teknikoek proiektu tekniko eta lizentzia eta baimen eskaera guztiak berrikusi behar dituztela irisgarritasunaren ikuspegitik. Era berean, arloan aplikatu daitezkeen xedapenak betetzen direla bermatzeko eta irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udal agintaritzak eskatu behar du aurkezten diren hirigintza dokumentu guztietan arauan ezarritakoa betetzen dela beren-beregi adierazteko, komunikazioko irisgarritasuna bete behar dela azpimarratuta. Horri dagokionez, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren IV. eranskina kontuan hartu behar du.

Amaitzeko, merkataritzako lokaletan jarduera berriak ezartzen direnean edo jarduerok aldatzen direnean arkitektura-oztopoak kentzeko araudia betetzeari dagokionean, aurrean ere agerian geratu da udalak ez duela horrelakorik kontrolatzen.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen hainbat elkartek erreklamazioak aurkeztu dituzte, ireki berri diren merkataritzako establezimendu eta erreforma lanak burutu ondoren berriro ireki diren establezimendu batzuetako irisgarritasunik ezari buruz. Horregatik, eta erreklamazio horiek kontuan hartuta, erakunde honek jarraipen sakona egin du, araudiak ezarritako kontrol-neurriak betetzen diren erabakitzeko.

Bestalde, kexa batzuek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak adimen-ezgaitasunen bat duten pertsonen **etxebizitza eskuratzeko** errazten duten ekintzak bultzatu beharra adierazten zuten, gizartearen aldetik laguntzarik ez duten beste talde batzuekin egiten duen moduan.

Kontu hori sakonago aztertzen da etxebizitzaren arloa lantzen duen txosten honetako atalean. Nahikoa da hemen adieraztea gure ustez erabat justifikatuta dagoen eskaera hori sail horretara bidali dugula, pertsona horientzat etxebizitza eskuratzeko lehentasuneko araubidea antolatze eskatuz. Bere aldetik, sail horrek adierazi digu talde hori Etxebidaren zozketetarako kupo berezi batean sartzeko aukera aztertu eta gutxienezko diru-sarreraren betekizuna kentzeko asmoa duela, gorputz-egzaitasunen bat duten pertsonekin gertatzen den bezala. Sail horrek adierazten duenaren arabera, 2006-2009 Etxebizitzaren Plan Gidaria, eta hala denean, etxebizitzaren etorkizuneko legea izan beharko dira neurri berri horiek barne hartzen dituztenak.

Bestalde, *Bazterketa egoera larrian dauden etxerik gabeko pertsonen oinarri-zko beharrezan eman beharreko erantzuna* ezohizko txostena egitean, **muturreko bazterketan dauden** mugikortasun txikiko pertsonen irisgarritasunari buruzko araudia egokituta ez dauden zerbitzu eta baliabideak eskuratzeko orduan babesgabetasun handiagoa daukatela egiaztatuta da.

Hori dela eta, botere publikoek pertsona horien beharrezan kontuan hartzeko aurrekusten diren gizarte baliabide eta azpiegiturak nabarmendu behar dira, beraien gizartratzeak oztopo gehiagorik izan ez dezan.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistra, homologazioa eta ikuskapena arautzeko den martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua

garatzen duen araudia egin behar da oraindik. Dekretu horrek honakoa adierazten du bere 4. artikuluan: “Gizarte zerbitzuetako zentroek edo zerbitzuek zentro edo zerbitzu bakoitzarentzat ezartzen diren baldintza material eta funtzionalak bete egin beharko dituzte”. Araudiak kokapen, eraikuntza eta diseinuko baldintza fisikoak eta arkitektonikoak arautu beharko ditu, besteak beste. Hori dela eta, oso garrantzitsua da gizarte bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzen dieten gizarte azpiegituretan irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharra garapen araudian berariaz ezartzea.

Amaitzeko, ikusmen-ezgaitasuna duen pertsona batek azaltzen zuen zaila zela **braillez idatzitako euskarazko liburuak eskuratzea**. Zehazki, euskaraz argitaratutako liburuen kopurua txikia zela adierazi zuen, eta katalogorik ez zegoenez, hizkuntza horretan irakurtzeko zituen aukerak oraindik txikiagoak zirela.

Kexa horretan alderdi bi aipatzen ziren: bata gaur egun braillez idatzitako euskarazko testuen ekoizpenari lotuta dago, eta bestea testu horiek eskuratzeko zailtasunari.

Alderdi horietako lehena gutxika-gutxika jorratu behar bada ere, argi dago gaur egun dauden funts bibliografikoak eskuratzea berehala jorratu behar dela, katalogorik ez egonda braillez idatzitako euskarazko testu urriak eskuratzea are zailagoa da eta.

Erakunde honek uste izan du kontu horren garrantzia Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan aztertzeko modukoa dela, eta erakunde horrek adierazi digu gure eskaerari erantzunez, batzorde iraunkorraren hurrengo batzarreko gai-zerrendan sartuko duela.

Bestalde, kexaren helburuak Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegietan dagoen bibliografia sailkatzearekin zerikusia du, liburutegietan braillez dauden argitalpenak zein diren jakiteko bideetako bat da eta.

Horregatik, gaia Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren aurrean ere aurkeztu da, eta ikusmen-ezgaitasuna duten pertsonen euskarazko liburuak eskuratzeko duten arazoaren gaia honela jorratu da: a) gutxika-gutxika egokitu beharra, gaur egun dagoen funts-kopurua handituta; eta b) funts horiek sistematizatu beharra, testuak eskuratzeko aukera emango duten katalogoen bitartez.

Txostena amaitu den egunean, oraindik ez dugu jaso antzemandako arazoei irtenbide egokia emateko Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak hasi dituen jardueren emaitza.

Amaitzeko, Laguntzeko txakurren Espainiako Elkarteak (hemendik aurrera AEPA) erakunde honi jakinarazi dion kontu bat aipatu nahi dugu. Izan ere, beharrezkotzat jo dugu horri buruzko gomendio orokorra egitea, “Gure Autonomia Erkidegoan txakur gidarien edo laguntzeko txakurren kontzeptua berreskuratu beharra” izenburupean, Eusko Legebiltzarrak txakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legearen aldaketa bultzatzen. Arau horrek txakur gidari batekin honako lekuetara sartzeko eskubidea bermatzen die ikusmen-ezgaitasunen bat duten pertsonen: Euskal Autonomia Erkidegoko leku, zerbitzu eta garraio publikoetara edo erabilera publikoa dutenetara. Era berean, txakur gidarien edo laguntzeko txakurren kontzeptua berreskuratzen du, eta kontzeptu hori zabaltzen du, ezgaitasunen bat duten pertsonen ere erabil dezaten.

Botere publikoen ekintzak erkidegoaren zuzeneko ekintza inola ere ordeztu edo mugatu beharrean, mugikortasun-zailtasun handiak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetu nahi duten herritarren erakundeek ekimenak bultzatu behar ditu. Hori kontuan hartuta, Arartekoak Laguntzeko txakurren Espainiako Elkarteak azaldutako aldarrikapena



berea egin du, eta arau berri bat onartzeko eskatu du: arau horrek beren ezgaitasunaren ondorioz txakur batekin joan nahi duten pertsonari onartu eta bermatu beharko die erabilera publikoko edozein lekutara, establezimendutara edo garraiotara txakurrarekin joan, han ibili edo egoteko eskubidea, Euskal Autonomia Erkidegoaren barnean, lekua titulartasun publikokoa edo pribatukoa den kontuan hartu gabe.

Gai hori txosten honetako **III. atalean** landu da.



## VI. ATALA

**GIZA ESKUBIDEAK  
ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE  
ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK  
BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN  
HARREMANAK IZATEKO KULTURA  
SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN  
BESTE JARDUERA BATZUK**



## **1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPELATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK**

### **1.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK**

Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarteek eta talde antolatuek benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak.

Urte hauetako esperientziak erakutsi duenez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Haiek beren aldarrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, haiek administrazioei hiritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte kohesio handiagoa ahalbide daiteke.

Horregatik, 2005ean ere, Ararteko erakundeak gizarte-eragileekiko arauzko harremanak lantzen jarraitu du, baztertuta dauden pertsonen laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak bereziki. Talde horiek honakook dira: giza eskubideen aldeko taldeak, atzeritar pertsonen laguntzekoak, askatasunik gabekoei laguntzekoak eta baztertuta daudenei laguntzekoak, zenbait gaixotasun duten pertsonen senideak, etxebizitzarik gabek pertsonak...

Gure erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori gizarte bizitasunaren seinalea da, baina, aldi berean, haiekin guztiekin lankidetzarako harreman egonkorak edo izan nahi dituenarentzako erronka ere bada. Horregatik, gure kasuan eta mugak kontuan harturik, lankidetzarako gogo hori zenbait bide osagarriren bidez gauzatu da:

- beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoaz azaldu duten edo Arartekoarekin bildu nahi dutela adierazi duten talde eta elkartei positiboki erantzutea;
- aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan jarraitzea, hori posible izan denetan;
- harreman berriak finkatzen hastea, sektore bereziki ahulekin lan egiten duten talde jakin batzuekin edo une horretan aztertzen gabiltzan sektoreen arazoekin zerikusia dutenekin;
- antzeko interesak edo jarduera-eremuak (espetxeak, HIESa, buru-gaixotasuna, ...) dituzten elkarten arteko koordinaziorako plataformak edo federazioak egotea aprobetxatzea.

Horrela, 2005ean Ararteko erakundeak lankidetzaharreman biziak edo izan dituzten gizarte ekintza eremu batzuetan garatzen duten hurrengo elkarte, erakunde edo gizarte-taldeekin:

- Ados, gizarte bitartekotza
- ADSIS-Bestalde
- AGIPASE (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte)
- Alarde Fundazioa
- Alargunak (alargunen elkarte)
- Lurralde guztietako Alkohokiko Anonimoak
- Aldarriketa
- Amarena
- Nazioarteko Amnistia
- APDEMA (Adimen-eritasuna duten pertsonen aldeko Arabako elkarte)
- Arazoak (Haur autisten gurasoen Arabako elkarte)
- Arrats
- Euskadiko Erretinosi Pigmentarioaren Gaixoen Elkarte
- Agiantza elkarte
- Askabide elkarte
- Bidegurutzea elkarte
- Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarte – ACABE
- Presoei Laguntzako Elkarte (ADAP)
- Arabako Profesional eta Enpresari Emakumeen Elkarte - AMPEA
- Hegaldi emakumeen elkarte
- Aiarako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte
- Gatazkak Konpontzeko eta Lankidetzarako Elkarte - ARCO
- Abusuko auzokoen elkarte
- Laguntzeko txakurren Espainiako Elkarte - AEPA
- Gizarterako elkarte
- Droga Gehiegi Hartzea ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako Elkarte (AGIPAD)
- Juana Mugarrieta elkarte
- Loiolaetxea elkarte
- Kultur Ekimenak Sustatzeko Elkarte - TANGRAM
- Oztoporik gabeko Herritarrak Defendatzeko Elkarte
- Biztanle Afroamerikarren Elkarte
- Servirecord elkarte
- Birgaiketa Psikosozialaren Euskal Elkarte (ASVAR)
- Buruko osasuneko euskal elkarte
- Zubietxe elkarte
- Zubiko elkarte
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Giza eskubideen aldeko beste herri batzuetako elkarteak
- Torturaren aurkako elkarteak eta taldeak
- Hirigintza-planek, ingurumen-arazoei eta zerbitzu-sareko hutsek kaltetutako herritarren elkarteak eta erkidegoak: Ulía, Bizitza (Galdakao), Auzotik (Leioa),

Oiangu Bizirik plataforma, Deustuko Auzokoen Elkarte, Oiartso, Arkupe elkarte (Orio), Herripe auzo elkarte (Herrera-Donostia)...

- Hainbat ikastetxe publikotako ikasleen gurasoen elkarteak eta federakundeak
- ASPACE
- ATEA (Animaliak etikoki tratatzeko elkarte)
- ATECE (Garun eta burezurreko traumatismoaren eta burmuineko gaixotasunen elkarte)
- AVAIM
- AZRAF
- Babestu Bizitza
- Berriztu
- Besarka (Arabako harrera- eta adopzio-elkarte)
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidesari – Kartzelako Pastoralta
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Bilbo-Etxezabal
- Bilborantz Ekimena
- Bizitegi
- Lurralde guztietako Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko Batzordea)
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Zezenketen aurkako Taldea
- Hizkuntza-eskakizunik ez duten eta egonkortasun-erabakien eraginpean dauden irakasleak
- Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Elkarte (COVITE)
- Ingeniarien Elkargoa
- Gipuzkoako Medikuen Elkargoa
- Psikologoaren Elkargo Ofiziala
- Lurraldeetako abokatuen elkargoak
- Babesgabeentzako jatetxea
- Hiru lurraldeetako HIESaren aurkako herritar batzordeak
- Hainbat ikastetxetako eskola kontseiluak
- HIESaren aurkako elkarten koordinakundea
- Harresiak Apurtuz, immigrantei laguntzeko GKEen Koordinakundea (CEAR, Bilbo-Etxezabal, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, Munduko Medikuek, Satural, Senegaldarren Elkarte, Etorkinekin Bat, etab.ek osatua)
- Gipuzkoako Gurutze Gorria
- DEE
- Dianova
- Hainbat sindikatu, kolektibo eta lanbide-elkarte
- EIZIE (itzultzaileen elkarte)
- Ekimen
- Ekologistak martxan
- Elkarbanatuz
- Elkartu
- Emaús

- Ijitoekin harremana duten irakasleak
- Ijitoen Kontseiluko erakunde ijitoak
- Erantsi
- Errotatxo
- Etxerat
- Atxilotuta edo preso dauden pertsonen senideak, hainbat lekutakoak
- FEDEAFES (Buruko Gaixoen Senideen Elkarteen Euskadiko Federakundea) eta federakunde horren barruko elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Ametzagaña Fundazioa
- Etorkintza Fundazioa
- Fernando Buesa Fundazioa
- Hurkoa Fundazioa
- Izan Fundazioa – Gizakia Helburu
- Larratxo Fundazioa
- Leizaola Fundazioa
- Ojos del Mundo Fundazioa
- Arabako buruko gaixoen Babes Fundazioa
- Gorabide Babes Fundazioa
- Gadem
- Gao Lacho Drom
- Gatazka konpontzeko batzordea
- Gaztaroan Ekin
- Gernika Gogoratuz
- Bakearen aldeko Koordinakundea
- Geureak (frankismoko errepresaliatuen elkarteak)
- Gizabidea
- Goiztiri
- Terrorismoaren indarkeriak osasunean duen eragina aztertzeko eratutako taldea
- Eraikitzaileen taldea
- Espetxeetako funtzionarioen taldea
- Irungo Alardeak eragindako gurasoen taldea
- Eskola-jazarpeneko epaiek eragindako gurasoen taldea
- Hainbat ikastegi, fakultate eta eskolatako ikasleen taldeak
- Gune ezberdinetako merkatarien taldeak
- Hainbat arazo dituzten ikastetxeetako guraso taldeak
- Beren herrietako arazoak ezagutzera emateko edo lankidetzara egitarauen barruan gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona taldeak
- Hondarribiko Alardeko talde parte-hartzaileak
- Gurasoak
- Hartu-emanak (Etengabeko ikaskuntzarako eta gizarte partaidetzarako adineko pertsonen elkarteak)
- Hezilan
- Hiru Eskuak (Fibromialgiaren Elkarteen Federazioa)
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hobetu leike



- Hontza (drogaren mendeko pertsonei laguntzeko zentroa)
- Ekimen Ijitoa
- Kriminologiaren Euskal Institutua
- Lurraldeetako Birgizarteratze Institutuak (IRSE)
- Izangai
- Jaizkibel Konpainia
- Kalé dor Kayikó
- Kidetza
- Lagun Artean
- Lanbroa
- Lur gizen
- Munduko medikuak
- Mugarik gabeko Medikuak
- Mugarik gabe
- Nahia
- Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Behatokia
- Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokia
- ONCE (Lurraldeko Kontseilua)
- Kartzelako Pastoralta
- Bizitza plataforma
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Geugaz plataforma
- Martutene plataforma
- Txingudiko erraustegiaren aurkako medikuen plataforma
- Mutriku Gazte Asanblada plataforma
- Txingudi Bizirik plataforma
- Hainbat lekutako oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizakia Helburu
- Gizarteratzen eta Laneratzen Laguntzeko Sarea (RAIS)
- Komunitate indigenen ordezkariak
- Gatazkan dauden egoitza-zerbitzuetako langileen ordezkariak
- Salestarrak
- Lurraldetako Salhaketa
- Sarean (ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen elkarteak)
- Save the Children
- Ijitoen Idazkaritza Nagusia
- Hezkuntza Zerbitzuak (berritzeguneak, hezkuntza bereziko zerbitzuak, udal zerbitzuak, Hezikidetza programa...)
- Hezkuntza Bereziko Hezitzaileen Sindikatua
- Sindikatuak eta sindikatu-atalak (CCOO, ELA, LAB)
- Osasuneko Erabiltzaileei Arreta emateko Espainiako Elkarteak
- SOS - Muxika
- Lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- Susterra
- T-4
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)

- Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak
- Hirugarren Ordenako Emakume Kaputxinoak
- Torturaren kontrako taldea (Santurtzi)
- Abokatuen elkargoen kartzeletako laguntzarako txandak (TAP)
- Unesco Etxea
- UNICEF-Euskadi
- Unión de Consumidores de Euskadi
- Uribe-Kosta
- Zain dezagun Urdaibai
- Zornotza Bizirik

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hastea edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute. Bestetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kasu zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri; batzuetan nahiko izan dira ahozko edo idatzizko informazio-trukeak, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea...

Hortaz, modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean taldeekin, elkarrekin edo erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira, hurrengo jarduera-eremuetan:

- gaixotasun ezberdinak dituzten pertsonen arreta edo defentsa;
- gizarte-bazterkeria larriko egoeren prebentzioa eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta;
- ezgaitasunen bat duten pertsoneri laguntzeko baliabide berrien erabilera;
- testamentu legediaren aldaketa;
- problematika zehatz batzuen jarraipen sistematikoa;
- eskubideen urratzeak salatzea nazioarteko eremuan;
- ingurumena defendatzea;
- familiaren laguntzarik ez duten pertsonak babestea;
- memoria eta biktimen oroitzapena;
- arrazakeria eta diskriminazioa eragotzi eta salatzea;
- hirugarren adinekoek gizarte-bizitzan parte hartzea;
- haurren eskubideak;
- frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak babestea;
- proiektu edo jarduerak eragindako auzokide elkarteen eskubideak;
- babesik gabeko nerabeak hartzea;
- justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta;
- gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen defentsa eta berriantzeko arretarako programak garatzea;
- minusbaliotasun edo ezintasun era ezberdinetarako gizarte erantzuna;
- atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizarteratzea;
- ijito taldearen beharrian zehatzekiko planteamendua eta erantzuna;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsoneri eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea;

- buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea;
- pertsona atxilotuak kartzeletatik atera edo hurbiltzea lortzea;
- HIESa duten pertsonen laguntzea;
- terrorismoaren biktimenezko arreta edo haien eskubideen defentsa;
- hezkuntza-beharrizan bereziei erantzutea;
- babesturik ez dauden eta lege urratzen duten adinez txikiak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea;
- giza eskubideak defendatzea eta beraien beste herri batzuetako bortxaketak salatzea;
- hezkuntzarako eskubidea defendatzea;
- hizkuntz eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea;
- droga-mendekotasunari buruzko arazoak dituzten pertsonen arreta ematea;
- hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna;
- etnia gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizarteratzea;
- zona bereziki deprimituetako gizarte kohesioa eta haiek suspertzea;
- bakezaletasuna eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea;
- emakumeen eskubideak babestea;
- tratu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea;
- baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako gizarte-osasuneko arreta;
- hainbat talde profesionalen defentsa;
- animaliak etikoki tratatzea;
- gune publikoetara sartzeko erraztasuna;

Askotan, Ararteko erakundeak berak egindako lan monografiko batzuetan finkatu da eta hasi zen elkarrekin lankidetzan.

Esate baterako, aurreko urteetan gabe edo bazterketa arrisku larrian dauden pertsonentzako arretari buruzko txostenak egiteak zerbitzuak (hala nola ostatuak, jantokiak edo gizarteratzeko tailerrak) kudeatzen dituzten elkarte edo erakunde gehienekin (Agiantza, Askabide, Elkarbanatuz, Bidezari, Bizitegi, Beta, Ostatu, Goiztiri, Zubietxe, Izangai, Cáritas, Lagun Artean, Emaús, RAIS, erlijio-kongregazio ezberdinak, etab.). batera lan egitea eskatu du. Halaber, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari buruzko txostenak egiteak harrera-baliabideak kudeatzen dituzten (Gurutze Gorria, Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak, Hirugarren Ordenako Emakume Kaputxinoak, Salestarrak...) edo horiek gizarteratzen laguntzen duten (Harresiak Apurtuz koordinakundea, AZRAF...) erakundeekin harremanak etengabe izatea ekarri du.

Aurreko txostenek dagokienez, lankidetzan mota horrek, informazioa lortzeko eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzeko askotan izan denak, eremu askotan iraun du urtean. Eremu horien artean honakook ditugu: adin txikiko pertsona lege-urratzaileekin esku hartzea (Berriztu eta Gaztaroan Ekin hezkuntza-elkarteak), buruko gaixotasunen arreta komunitarioa (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES...); kartzelan dauden pertsonentzako laguntza (ADSIS-Bestalde, Etorikintza, Izangai, Gizakia Helburu, Bilbo-Etxezabal, Kartzelako Pastoralta, Hegaldi...).

Bestetan, elkarrekin harremanak elkarrekin antolatutako ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatu.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Ararteko erakundeak lankidetzamarko honetan 2005ean burututako zenbait jarduera esanguratsu. Honela:

- Inoren kargura ez dauden adingabeko atzerritarren harrera zentroekin eta zentro horiek kudeatzen dituzten elkarteekin aldian-aldian harremanak izaten dira, eta horri esker euren egoeraren jarraipena egin ahal izan dugu, baita aurreko burutu eta aurkeztutako txosten monografikoa eragin duen ikerketa egin ere (ikusi txosten honetako IV. atala).
- Urtean egindako bisitetako askori esker (Hontza gaueko zentroan, arrisku gutxiagorekin kontsumitzeko zentroan –Bilboko Bailen kalean–, erreforma zentroetan, harrera zentroetan...) zentroak edo baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin harreman zuzena izaten da, egoeraren berri egunegun egun izaten da, gure gomendioak betetzen dira, jarduera berriak bultzatzen dira...
- Elkarte batzuek azaldutako kezen ondorioz (adibidez, frankismoaren garaian askatasunik gabe utzi zituzten pertsonen “Geureak” elkarteak, Eusko Jaurlaritzak eskaintutako laguntzen gainean), administrazio erantzuleekin bitartekaritzako gestioak edo jarduerak burutu behar izan ditugu.
- Erakunde honentzat terrorismoaren biktimen elkarteekiko nahiz biktimekiko eurekiko edo haien senideekiko harremana lehentasunezkoa izan da. Elkartasuna erakusten eta babesa ematen saiatu da erakundeak, deitutako ekitaldietan parte hartu du eta haiengandik hurbil dagoela erakusteko haien egoerari buruzko etorkizuneko txostena balio izango du.
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek alde ordeztu du presondegiatara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu. Horien berri emango dugu txosten honetako justiziaren arloan.
- Hainbat zerbitzu ikustera joan gara, edo elkarrizketak eta bilerak izan ditugu zerbitzu horietan lanean dabiltzan profesionalekin. Horiei esker aztertu ahal izan ditugu elkarteak eta administrazioen arteko zenbait hitzarmenen ezaugarriak, horiek lan-baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarraitasunean duten eragina, diru-laguntzak jasotzean izandako atzerapenen ondorioak edo laguntzok jasotzeko bermerik ez izatea... Horrek ofiziozko jarduera ezberdinak eta txosten honetan bertan egiten den gomendio orokorra sortu ditu (ikusi Gomendio orokorrak, III. atalean).
- Hirigintzako plan eta jarduerari eta beraien ingurumeneko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolatutako pertsonen taldeek, auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietako batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintza- eta ingurumen-arloei buruzko azpiataletan (ikusi I. atala).
- Hainbat talde bakezalerekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin harremanak izan ditugu. Haien bultzatuta, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen orokorra aurkeztu zion, eta proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetzak-bekatarako deialdia egin zuen. Era berean,

ikastetxe guztietara zabalik egon den “Haurren Legea” erakusketa ibiltaria antolatu du aurten.

- Laguntza-elkarte batzuek salaketak aurkeztu dituzte gai hauen gainean: atzeritar jatorriko pertsonak atxilotzea edo kanporatzeko agindua, jasotako polizi tratua, atzeritarrak herri enplegurako deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeko baldintzak edo hedabideetan zenbait berri tratatzeko modua. Salaketa horiek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak tramitatzea, ofiziozko jarduerak, berriazko gomendioak...

Batzuetan, elkarteekin izandako harremanak haien funtzionamendu-arazoak jasotzeko ere balio izan du: oztopoak aurkitzen dituzte beren lana burutzeko, beraien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetzaren egonkorreko bideak finkatzeko, beren programekin jarraitzeko, erakundeekiko topaguneak izateko, erakunde-planetan, egitarauetan edo arauetan parte hartu edo ekarpenak helarazteko... Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gainditzea, elkarre-erakundeen baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasunari buruzko erakundearteko Mahaia eta ijito-herriaren partaidetzarako Kontseilua, Boluntarioei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetzaren hitzarmenetako erantzukizunak argitzea, ...

Erakunde honen iritziz, antolatutako gizarte zibilaren eta herri zerbitzuen eta administrazioen arteko lankidetzaren sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baldintzak hobeto erabiltzeko. Gizarte-eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek herritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien buruzagitzaren berenganatu. Ildo horretatik, 2001eko txostenean (ikus VI. atala) jasota zegoen elkarteek askotan kudeatzen zituzten talde zaurkorrentzako zerbitzuak sortzeko erakunde-buruzagitzari buruzko gomendio orokorra. Aurten izandako esperientziak (herri ezberdinetan zentro berriak zabaltzeko dauden zailtasunak) aipatutako gomendioan egindako proposamenak kontu hartzearen garrantzia eta beharrezkoa agertu ditu berriro ere.

Bestalde, hainbat zerbitzutan egindako ikustaldietan, edo bileretan edo jasotako kexetan, aurrerapenak eta konpondu gabeko arazoak ere badaudela egiaztatu dugu. Azken horien artean, azpimarratzekoa da diru-laguntzen deialdi batzuk ebatztean atzerapenak egon direla, egoera larri eta zailtan jarri baitituzte elkarteak nahiz abian zeuden egitarauak. Horrek oso eragin kaltegarria du, ez elkarteetan bakarrik, baizik eta, batez ere, elkarre horiek laguntzen dituzten herritar eta taldeetan.

Ildo horretan, Arartekoak ofiziozko bi espediente abiarazi zituen, elkarre askotan eragin handia duten deialdi batzuei buruzko datu objektiboak biltzeko. Horretarako, gai horietan esanguratsuak diren Eusko Jaurlaritzako bi saili elkarteetarako laguntzen 2003ko eta 2004ko deialdi guztiei buruzko informazioa eskatu genien.

Ekimen horren berri iaizko txostenean eman zen lehenengoz; honetan, berriz, datu guztiak jaso eta aztertu ondoren, gomendio orokor bat egin da (ikus txosten honetan “Eremu sozialean lan egiten duten elkarteetarako erakunde laguntzako bideak eta prozedurak hobetu beharra” gomendio orokorra, III. atalean).

Kontuan hartu behar da gizarte arloan lanean dabiltzan elkarteak izaten direla askotan. Elkarre horiek bereziki bazterturik bizi diren pertsonen arreta eskaintzeko

egitarauak burutzen dituzte, sarritan bestela egongo ez liratekeen edo nahikoak ez diren baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, erakundeek erantzukizun nabarmena duten arreta-eremuetan jarduten dute, eta administrazioen beren gabeziak betetzen dituzte. Hortaz, arrazoizkoa omen da beharrezko laguntza guztia eta beren programetarako berme handiagoa lortzea.

## 1.2. ARARTEKO ERAKUNDEAK IRAGARRI DITUEN IKERKETA BEKAK

2005ean ere aurrera jarraitu dute ikerketa aplikatuko hiru bekari lotutako lanek, eta laugarren beka bati buruzkoak abiarazi dira:

- IRSEri adjudikaturiko beka. Beraren bitartez aztertu nahi dira EAEn finkaturik dauden magrebtar gutxiengoek beren kultur bizitza eta erlijioa izateko eta beren hizkuntza erabiltzeko eskubideak baliatzeko egun dituzten aukerak.
- Susana Redondori adjudikaturikoa, zainketa aringarriak jasotzen dituzten pertsoneri eta haien senideei ematen zaien arretaren gaineko ikerlana egiteko.
- Jesús Manuel Septiáni adjudikaturikoa, ikasle etorkinak EAeko hezkuntza sisteman, Arabako lurraldean zehazki, sartzeari buruzko lana egiteko.
- Amaia Bacigaluperi adjudikaturikoa, faktore sozioekonomiko zehatz batzuek osasunean duten eragina aztertzeke eta zehatzago, aldi berean lan egin eta beste pertsona batzuk zaintzen dituzten emakumeen osasun-egoera aztertzeke.

Lehenengo bekaren kasuan, hainbat zailtasun eta atzerapenen ondoren, badirudi lana laster amaituko dela.

Bigarren kasuan, bai gaiaren (zainketa aringarriak) zailtasunagatik, bai bekadunaren bestelako zirkunstantziengatik, zati bateko atalak edo aldeak baino ez dira amaitu.

Ikasle etorkinak Araban eskolatzeari buruzko lana ezarritako epean amaitu da, eta hori berrikusi eta itzuli ondoren, argitaratzeko dago. Gainera, baliteke txosten hau argitaratu aurretik argitaratzea. Lan horren bidez, bilduma berri bat hasiko da, lehenengo Arartekoa izan zen Juan San Martín izenaz eta haren omenez argitaratuko dena.

Adjudikatutako laugarren bekari dagokionez, ezarritako lanaren faseak betetzen doa. Hori dela eta, uste da urte honetan amaituko dela.

Bestalde, abiarazitako ikerketa bekei dagokienean, adierazi behar da 2005ean Beatriz Sicilia Oña bekadunak bere ikerketa lana bukatu duela, EBko konstituzio-itunaren proiektuan oinarritako eskubideek duten lekuari buruzkoa, eta badirudi ikerlan hori laster argitaratuko dela, inprimatze lanak hasita baitaude.

Beste alde batetik, Aiala Olarte Hurtado, 2003-2004ko ikerketa bekaren adjudikazioduna, bere proiektua bukatzen ari da. Azkenean gai hau ikertu du: zigor gisa erkidegoarentzako lanak egitea.

Txosten hau ixterakoan jada berretsita dago 2004-2005 ekitaldi honetarako egin-dako deialdiaren eabazpena. Oraingo honetan beka Gerardo Zamora Mongeri adjudikatu zitzaion. Emakumezko etorkinen egoera eta etxeko lanak izan behar ziren bekadun horren aztergaiak. Hala ere, adjudikaziodunak bekari uko egin zion lan arrazoiak zirela eta, eta horren ondorioz, ordezko hautagaietako bati adjudikatu zitzaion, Iker Gorriño Barrenari, hain zuen ere. Lan hori Europar Batasunekoak ez diren etorkinei EAEn erakundeek emandako erantzunari buruzkoa da, eta txosten hau amaitutakoan oraindik egiten ari da.

Bestalde, giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabili beharreko materialak egiteari dagokionez (ikus 2004ko txosteneko I.2.3. zatia), aurreko beken emaitza izan diren material guztiak (fitxa edo ariketen karpetak, jolas-kutzak, emakumeen eskubideei buruzko CDa,...) argitaratu eta banatu ondoren, ez da berriro deitu

beka hori. Hala ere, aurten Arartekoak Haurren Legeari buruzko argazkien erakusketa sustatu du, eta horren inguruan zenbait material didaktiko argitaratu dira, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan banatu direnak.



### **1.3. UPV/EHuren UDA IKASTAROETAKO JARDUNALDIAK: “FAMILIA BERRIAK ETA BERDINTASUN PRINTZIPIOAK. EZTABAIDA IREKIA”**

1997. urteaz geroztik Arartekoak azterketa eta eztabaida egunak antolatzen ditu giza eskubideen gainean, UPV/EHUko uda ikastaroetan. Orain arte egin den bezala, aurtun ere giza eskubideen gai zabalari heldu nahi izan diogu gaur egungo ikuspegi batetik.

Bederatzigarren ikastaro honetan, erakundeko idazkari nagusiak, Faustino López de Forondak eta UPV/EHUko Gurutz Jauregi katedradunak zuzenduta, “Familia berriak eta berdintasun printzipioak. Eztabaida irekia” gaia aukeratu zen.

Ikastaroa baieztapen honetatik abiatu zen: mende honetako azken hogeita bost urteetan gizartean aldaketa nabarmena izan da, familia tradizionalaren egituraz gain elkarbizitza proiektu berriak sortu baitira. Garai batean, familia betiko ezkontuta zeuden aita eta ama, eta zehaztu gabeko haur-kopuruaz, osatzen bazuten ere, gaur egun elkarrekin bizitzeko modu berriak sortu dira. Eredu tradizionalaz gain, gero eta gehiago dira bakarrik bizi direnak, izatezko bikoteak, ezkontutako senar-emazteetako bat edo biak dibortziatuak direnak eta sarri euren harreman berrian lehengo harremanetan izandako haurrak sartzen dituztenak; ezkontu gabeko ama, gay eta lesbianen bikoteak, kasu batzuetan, adoptatzeko eskubidea izan nahi dutenak. Errealitate sozial berri honek sortutako eztabaida bizian, alderdi juridikoak, jarrera ideologikoak, moralak eta erlijiosoak nahasten dira. Eztabaida honetan, herritar guztiek duten berdintasun eskubidea aintzat hartuta parte hartu nahi da.

Iñigo Lamarca Arartekoak parte hartu zuenean, eskubideak bermatzeari eta berdintasun printzipioari buruz aritu zuen.

Javier Pérez Royo Sevillako Unibertsitateko irakasleak “Gay eta lesbianen ezkontzeko eskubidea konstituzioaren ikuspegitik” gaiaren inguruan hitz egin zuen.

Bestalde, Marie Digoix Institut National d'Études Démographiques eskolako iker-tzaileak “Estatua, Legea eta homosexualen elkartasuna: Europa iparraldeko espiritua” gaiaren berri eman zuen.

Beste mahainguru batean María Luisa Aguirrechek, Clara Asúak, María Ángeles Barrèrek eta Koldobike Mujikak “Familia berrien eskubideen inguruko beste gogoeta batzuk” gaiaren inguruan hitz egin zuten.

## 1.4. GIZA ESKUBIDEEI BURUZ HERRITARREKIN BATERA EGINDAKO II. FOROA

Iazko txostenean Ararteko erakundeak giza eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko helburuz herritarrekin batera egindako II. Eztabaida Foroaren inguruan burututako lehenengo jardueren berri eman genuen. Orduko hartan, foroko gai nagusia “Berdinkideen arteko tratatu txarrak ikastetxeetan” izan zen.

Jada adierazi zen bezala, gaia –“bullying” deritzon eskolako umeen arteko jazarpena– Arartekoak ahultasun bereziko egoerei lehenetsuneko arreta emateko duen borondateagatik (ezgaitasunen bat duten emakumeek jasaten duten bereizkeria bikoitza, I. Foroaren gaia, alegia, ere borondate horrengatik aukeratu zen) eta Hondarribian ikasturtearen hasieran nerabe batek bere buruaz beste egindakoan gai horren inguruan sortu ziren alarma eta kezka sozialengatik hautatu zen.

Foroak bi helburu zituen: 1) Ikerketan oinarrituta, gogoeta eragitea, bai lehendik dauden eta arazoaren benetako egoera ezkututzen ere laguntzen duten mito eta gairak ulertuei buruz, bai errealitate horri aurre egiteko eta eskolako harremanak nahiz bizikidetza hobetzeko bide eraginkorrenei buruz; 2) Parte-hartzaileen ekarpenak biltzea; hezkuntza-erkidegoaren beraren kezka, zalantza, galdera eta proposamenak zuzentzen entzun ahal izatea.

Arestian aipaturiko bi helburuak lortzeko asmoz:

- Deialdi irekia egin zen, Arartekoaren prentsaurrekoaren bidez hedabideetan iragarria, eta, aldi berean, gonbitak bidali zitzaizkien ikastetxe, guraso-elkarte, irakaskuntza-sindikatu, hezkuntzako laguntza-zerbitzu eta arduradun guztiei.
- Eskema sinplea hautatu zen: 1) Arartekoaren aurkezpena; 2) Gai horretan aditua den pertsona baten hitzaldia; 3) Parte-hartzaileen galdera eta ekarpenak.
- Hiru jardunaldi antolatu ziren, bat lurralde bakoitzean, parte-hartzea errazteko.
- Berdinkideen arteko bizikidetza, gatazka eta biktimizazioari buruzko hainbat ikerketa eta argitalpen atera dituzenez, Cristina del Barrio irakasle eta psikologian doktoreari zera eskatu genion, bere azalpenean:
  - Lagun ziezagula eskolako tratatu txarren gainean oso zabaldua dauden mito eta ikusmolde okerrak desagiten.
  - Eman ziezagula, egindako ikerketen arabera, errealitate askotan erdi-ekutu horretaz orain dakitenaren ikuspegi zabala.
  - Azal edo aipa zitzala eskolako harremanak eta bizikidetza hobetzeko bide batzuk, ikerketa horietatik ateratako ondorioetatik abiatuta.

Beste alde batetik, Arartekoak bere hitzaldietan agerian jarri zituen erakundearen konpromisoa eta kezka, adingabe asko ukitzen dituen arazoak. Arazo horrek oinaze handia sorrarazten du, ondorio larriak ditu eta oinarrizko eskubideen urratzea ekartzen du, hala nola duintasunerako eskubidea, desberdina izateko eskubidea, eta derrigorrez parte hartu behar den erakunde batean, eskolan alegia, abusu, larderia eta bazterkeriarik jasan gabe eta ikaskideen beldurrik izan gabe parte hartzeko eskubidea. Pertsona bakoitzak, adingabe bakoitzak, ezaugarriak, baldintzak edo aukera pertsonalak edozelakoak

dituela ere, ikastetxean errespetu osoa jaso behar du, eta hezteko eta bere gaitasunak giro moral egokian garatu ahal izateko behar duen laguntza izan behar du.

Foroaren hiru jardunaldiak egitekoak ziren astean hotza eta elurra izan ziren nagusi, eta leku batetik bestera joateko arazo handiak izan ziren. Horrela, bigarren jardunaldia, Gasteizen burutu beharrekoa, bertan behera utzi behar izan zen, eta maiatzera arte atzeratu zen. Hala ere, eragozpenak gorabehera, jardunaldietan jende dezentek hartu zuen parte: 200 lagunek baino gehixeago. Parte hartu zuten pertsonak hainbat gai azaldu zituzten:

- Irakasleek tratu txarren aurrean esku hartzea;
- Familien eginkizuna;
- Administrazioaren erantzukizuna;
- Tratu txarrek biktimarentzat eta erasotzaileentzat eta jazarpenaren lekukoentzat dakartzaten ondorioak;
- Leku edo aldi jakin batzuetan, esate baterako, eskolako jantokietan-eta, esku hartzeko moduak.

Bai gai horiek bai Cristina del Barrio irakaslearen hitzaldietako funtsezko edukia Arartekoaren web orrian argitaratu ziren eta, horri esker, galdera eta ekarpen gehiago egin dira urtean.

Beste alde batetik, Foroan azalduetako ekarpenak, gaiak eta proposamenak kontuan hartu dira Arartekoak ikastetxeetako bizikidetzari buruz egin nahi duen hurrengo azterlana bideratzerakoan. Azterlan horretatik abiatuta, txostena egingo da, txosten honetako IV. atalean horren berri emango dugula.

Nolanahi ere, aipatu berri dugun txostena bukatu arte behintzat, Arartekoaren web orrian bertan parte hartzeko eta gaiari buruzko proposamenak egiteko aukera egongo da (ikusi [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net): Adin-txikikoen webgunea).

## 1.5. HAURREN LEGEARI BURUZKO HERRIZ HERRIKO ERAKUSKETA

2005-2006 ikasturteko lehenengo hiru hilabeteetan, Ararteko erakundearen ekimenez eta hainbat udalen laguntzarekin, “Haurren Legea / La Ley de la Infancia” izeneko argazki-erakusketa egin da.

Erakusketaren zati nagusia Save the Children nazioarteko erakundeak utzitako 35 argazki originalek osatzen dute. Argazki horietan, munduko hainbat herrialdetan haurren eskubideen egoera nolakoa den erakusten da. Argazkiek euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako testuak dituzte alboan.

Erakusketa ibiltaria Eibarren, Donostian, Gasteizen, Bilbon, Gernikan, Durangon eta Barakaldon ikusteko aukera izan da.

Erakusketak –guztientzat bada ere, bereziki eskola haurrei zuzendua dago– eskaintzen duen alderdi didaktikoari probetxu handiagoa ateratzeko, Ararteko erakundeak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskoletarako materiala egin du, euskaraz eta gaztelaniaz, eta eskola horietara bidali du:

- Erakusketa iragartzen duten kartelak.
- Gonbidapen txartelak, egitarauarekin batera.
- Jarduera koadernoak ikasleentzat.
- Gida irakasleentzat.

CD bat ere argitaratu da, erakusketako katalogo gisa, eta ikasturteko bigarren hiruhilekoan bidaliko da eskoletara, Arartekoak sustatzen duen Giza Eskubideen gaineko Eskola Lanen II. Lehiaketaren deialdiarekin batera.

Orain arte ditugun datuak kontuan izanda, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Laguntza eskatutako administrazioen eta erakundeen lankidetzaren erabatekoa izan da: Save the Children, Nafarroako Defendatzailea, erakusketa egin den herrietako udalak.
- Erakusketara joan diren eskoletako taldeen kopurua desberdina izan da garaiaren eta, batez ere, eskolaren arabera (eskola batzuetatik ikasle asko joan dira eta beste batzuetatik bat ere ez). Gure ustez, datu horiek ez dute erakusten eskolek interesik ez zutenik; ekimen askoren berri izaten dutenez, eskolek aukera egin behar dutelako izan da horrelako emaitza.

Oraindik ikusteko dago erakusketaren CD-katalogoak nolako harrera izango duen eta eskola lanen lehiaketak zein erantzun jasoko duen.

## 1.6. “DERECHOS CIUDADANOS” DERITZAN ARARTEKO AUTONOMIKOEN ALDIZKARI BERRIA

Arartekoak eta oinarrizko eskubideak babesteko gainontzeko ordezkari autonomikoen (Andaluziako Ararteko, Kataluniako Síndic de Greuges, Galiziako Valedor do Pobo, Kanarietako Diputado del Común, Aragoiko Justicia, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges, Gaztela eta Leongo Procurador del Común, Nafarroako Ararteko andre eta Gaztela-Mantxako Ararteko andreak) aldizkari berri bat aurkeztu dugu, *Derechos Ciudadanos* hain zuzen, gure erakundeen barruan azterketa eta ikerketa bultzatu eta gure arteko koordinazioa sustatzeko asmoz sortua.

*Derechos ciudadanos* aldizkariarekin, ararteko autonomikook adierazpen-plataforma bat izango dugu hemendik aurrera, datuak, iritziak, adituen eta espezialisten gogoetak zabaltzeko bide emango diguna, gure gizartean eragina duten gai eta arazoetan eztabaida eta parte-hartzea sustatzeko, baita gure gogoetak eta jarduerak modu eraginkoragoan ezagutarazteko ere. Gainera, gure ustez, argitalpen honek erraztu egingo du gure arteko eta gure lankideen arteko elkarriketa herritarrek gehien kezkatzen dituzten arazo nagusien gainean.

Orain bizi garen gizarte-sare honetan, ezagutza gune askotatik sortzen da eta norabide askotan bideratu behar da, behar bezala aprobetxatua izan dadin. Herritarrekiko dugun hurbiltasunak egoera pribilegiatuan kokatzen gaitu gizarte osoari ardura zaizkion hausnarketak azaltzeko. Horregatik, urtero gutako bakoitzak bere legebiltzarrari ematen dion txostenak ez du izan behar, guk uste, gogoeta horiek zabaltzeko erabilitako bide bakarra. *Derechos ciudadanos* aldizkariari esker, gure planteamenduak era askotako jendeari iritsiko zaizkio eta oihartzun zabalagoa izango dute.

Sarritan egiaztatu dugunez, herritarrek oso antzeko arazoak aurkezten dizkigute legebiltzar ordezkariok, eta egiten dugun aztertze eta hausnartze prozesua askotan oso antzekoa izaten da. Beraz, lankideen arteko komunikazio-bideak optimizatu behar dira, eta, horrela, beraien arteko koordinazioa erraztu eta beren lanean kalitaterik handiena lortzeko bide eman. Ildo horretan, gure urteroko Koordinazio Jardunaldiek, duela ia hogeitau urte hasitakoek, esperientziak eta gogoetak trukatzeko ahalbidetu dute, zalantzan jarri ezinako arrakastaz gainera. *Derechos ciudadanos* aldizkaria jardunaldi horien fruitu da hain zuzen, eta, aldi berean, gure arteko truke eta koordinaziorako bide berri bat bezala eskaintzen da.

Hasieran, *Derechos ciudadanos* urtean behin aterako da eta zenbaki bakoitzean monografia moduan eta sakonki aztertuko da defendatzea dagokigun eskubideei neurri handi batean eragiten dien arazo bat. Ez da zaila izan lehen zenbaki honen gaia auke-ratzea. Guztiok jabetzen gara inmigrazioa dela gure gizarteak gaur egun aurre egin beharreko erronka handienetakoa bat, giza eskubideetan eragin izugarria duen erronka baita. Etorkinen eskubideek kezkatzen gaituzte –etorkinok erregularizatuak egon ala ez– eta, halaber, haien etorrerak gehien ukitzen duen bertako biztanleriaren eskubideek kezkatzen gaituzte.

Gure jarduera, eskuarki, herritarren eskubide sozial eta ekonomikoak babestea izaten da batik bat, bada eskubide zibil eta politikoak oro har modu onargarrian babestuta daude Konstituzioa onartu zenetik. Hala ere, etorkinak alor horretan egoera bereziki ahulean daudenez gero, eskubide zibil eta politikoak babesteari ere arreta berezia eskaini behar diogu orain.

Gure iritziz, *Derechos ciudadanos* baliagarria izan daiteke giza eskubideak babesteko, eta lehenbiziko zenbaki hau horren erakusgarri ona izatea espero dugu, gaur egun eskubideak bereziki urratuta dituzten herritar horien eskubideak babesten lagunduz.

## 2. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK

### 2.1. HERRI DEFENDATZAILEEN ARTEKO XX. KOORDINAZIO JARDUNALDIAK

Herriaren Defendatzailearen eta autonomia erkidegoetako ordezkarien arteko harremanaren oinarria koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioa da. Hori dela eta, urtean zehar, erakunde hauek harreman estua dute euren artean eguneroko jardueren inguruan. Egunean eguneko harreman horretaz gain, koordinazio jardunaldi hauek eztabaida gune eta guztiek lantzen dituzten gaiak bateratzeko tokia dira.

2005. urtean, XX. Koordinazio Jardunaldiak Alacanten egin ziren urriaren 17an, 18an eta 19an, Valenziako Erkidegoko Síndic de Greuges herriaren defendatzaileak antolatuta.

Jardunaldietako gai nagusia honako hau izan zen: “Hautzarroan eta gaztarroan eragina duten gertakarien eta arazoan aurrean administrazioek ematen duten erantzuna”.

Hasiera batean, horrekin zerikusia duten beste gai batzuei buruzko azterketa saioak egin ziren, eta horietan ateratako emaitzak jardunaldi hauetan eztabaidatu ziren. Saio batek, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak zuzendutakoak eta Sevillan egin zenak honako izenburu hau zuen “Errealitate berriak teknologian eta komunikabideetan”. Hona hemen ateratako ondorioak:

#### **“Proposamenak**

1.1. *botere publikoek adingabeentzat eduki hezigarria duten bideo- eta ordenadore-jokoak egitea bultzatu eta horiek ikastetxeetan tresna pedagogiko gisa erabil daitezela lan egin beharko dute.*

2.1. *Autorregulazio Kodearen Jarraipen Batzordeak kontrol eta gainbegiratzela lan handiagoa egin behar du, bereziki adinaren araberako gomendioak egiteko orduan.*

2.2. *software interaktiboan euskarriak dituzten edukiak sailkatzeko irizpide bateratuak erabiltzeko lan handiagoa egin behar da.*

2.3. *Hitzarmenak egitea bultzatu behar da: batetik, Interneteko informazio hornitzaileekin, sarean dauden bideo-jokoak sailkatzearen gainean eta bestetik, telefonia mugikorretako enpreekin, mugikorretarako jokoaren gainean.*

3.1. *edukiak behar bezala sailkatuta ez dituzten eta adinaren araberako gomendioekin ongi etiketatuta ez dauden aisialdi interaktiborako produktuak banatzea eta saltzea eragotziko duen araudi bat onartu behar da, eta arau horiek hausten dituztenei isuna jarri behar zaie.*

3.2. *araudi bat onartu behar da, adingabeei aisialdi interaktiborako software produktuak saltzea eta eskuratzea debekatuko diena, etiketetan agertzen diren adinaren araberako gomendioa kontuan hartuta, eta debekuari muzin egiten dionari isuna jarri behar zaio.*

3.3. *araudi bat onartu behar da, aisialdi interaktiborako software produktuak erakusteko eta iragartzeko orduan zein baldintza bete behar diren zehaztuko duena, adingabeei euren adinerako gomendagarriak ez diren edukiak lortzea eragotzi ahal izateko, eta arau horiek hausten dituenari isuna jarriko zaio.*

4.1. botere publikoek familiei zuzendutako kontzientziario kanpainak egin behar dituzte, adingabeek aisialdi interaktiborako produktuak ongi eta ziur erabiltzeko ardura bere gain har dezaten familia horiek.

4.2. botere publikoek lan egin behar du adingabeen hezkuntzan eta formakuntzan, aisialdi interaktiborako produktuak arduraz eta ziur erabil ditzaten.”

Beste saio bat “Justizia Administrazioa eta adingabeak” gaiaren inguruan egin zen, La Palman, Kanarietako Erkidegoko Diputatuak antolatuta. Bertan, honako ondorio hauetara iritsi ziren:

### **“Ondorioak eta proposamenak**

Adingabeen interes gorena eurekin zerikusia duten administrazio eta justizia jardueren printzipio gisa hartuta eta hortik abiatuta, parlamentuko ordezkarien ustez, adingabeek Justizia Administrazioarekin duten harremanaren oinarria eta helduek dutenarena desberdinak izan behar dira, eta beharrezkoa da adingabeen justizian parte hartzen duten eragile guztiak espezializatzea.

### **Legea hausten duten adingabeak**

-Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, adingabeen erantzukizun penala arautzen duenak, eta hori garatzeko orduan onartu zen Araudiak, marko juridiko egokia eskaintzen dute, legea hausten duten adingabeei dagokionez. Izan ere, neurriek izan behar duten hezkuntza orientazioa eta internatzea ez diren neurri asko zehazten dituzte.

**-Adingabeen jurisdikzio penalak** azkar lan egin behar duenez, beharrezkoak da hori ezartzeko azpiegitura eta baliabide materialak eta langileak eskuratzea. Arazo hori dute hainbat autonomia erkidekok, gero eta gehiago baitira legea hausten duten adingabeak.

-Baliabiderik ez izateak ekartzen duen atzerapenak honako ondorio negatibo hauek sortzen ditu: zuzenbideak eta hiritarrek segurtasunik ez izatea, ezarritako neurri hezitzailearen helburuak porrot egitea eta adingabe gehiago kautelaz internatzea.

Egoera honen aurrean, honako hau proposatzen dugu:

-Epaitegietan eta Adingabeen Fiskaltzetan behar hainbat langile izatea.

-Gaixotasunagatik edo lanpostuz aldatzeagatik sortzen diren atzerapenak eragozteak.

-Tramitazioa azkartzea adingabeen Justiziaren eremuan epaiketa azkarrak ezarritik, lege-hauste arinak jasotzen dituzten edo hain zailak ez diren kasuetan, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoaren oinarritzko printzipioak mantenduz.

-Epaitegiak eta Adingabeen Fiskaltzak leku egokian kokatzea, baita atxiloketak egiteko egoitzak ere, adingabeen pribatutasuna eta arreta bermatu dadin.

**-Talde teknikoak** garrantzia handia du, epaileak eta fiskalak aholkatzeko orduan nahiz adingabearen eta biktimaren edo kaltetuaren arteko harremanetan bitartekari lanak egiteko orduan, eta hori kontuan izanda honako hau beharrezkoa da:

-Behar hainbat langile egotea, eta egokia izango litzateke Fiskalak, psikologo batek, gizarte langile batek eta hezitzaile batek osatutako talde tekniko bat egotea.



- Taldeetan bitartekari lanak egiteko profesional bat sartzea.
- Langileen arteko egonkortasuna, adingabekoarekin lan egiterakoan erreferentzia baitira.
- Bitartekotza egiteko aukerak bultzatzea (adiskidetzea-konpontzea), eta esku-hartze penala ahal bezain beste murriztea.
- Autonomia erkidegoek **neurriak gauzatzerakoan** dituzten eskumenei dagokionez, autonomia administrazioek, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia indarrean sartu ondoren, orain indarrean dauden arauetara, autonomia mailan ezarritako xedapenetara eguneratu eta egokitu behar dute, aipatutako eskumena aurrera eramateko.
- Autonomia erkidego gehienetan **adingabeen Justiziarekin lotutako hainbat administrazio sail** daudenez, eta ez daudenetan halako bat beharrezkoa izango litzatekeenez, ezinbestekoa da eskumen horiek guztiak biltzen dituen erakunde bat sortzea:
  - Adingabeen erreformarekin zerikusia duten hainbat sailen arteko koordinazio mekanismoak zuzentzea, irizpide eta helburua bateratuak finkatzea errazagoa izan dadin.
  - Babes-eremuaren eta erreforma-eremuaren artean koordinazio handiagoa egotea, besteak beste, babestu beharreko adingabearen espedientea batetik bestera eramanez.
- Onartutako neurriak aurrera eramaterakoan, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko **baliabide gutxiegi** izateak sortzen duen arazoari autonomia erkidegoek aurrein egin behar diete:
  - Inbertitzeko ahalegin egokia egitea, arauak ezartzen dituen neurri guztiak eta bakoitza aurrera eramateko behar diren neurriak eskura daitezen eta horiek behar bezala funtziona dezaten..
  - Neurriak gauzatzerakoan eskumena duen Administrazioek behar adina langile tekniko ezarriko ditu, gomendatutako kopuruak errespetatuz (adingabeak/langilea).
  - Baliabide eta bitarteko irekiak bultzatu behar dira eta askatasuna kentzen duten neurriak ahalik eta gutxien eta denbora laburrenean erabiliko dira.
  - Baliabide irekietan, talde espezializatuak eta behar adina baliabide eragile ezartzea, eraginkorrak gerta daitezten.
  - Erakunde publikoen artean hitzarmenak adostea, zerbitzuak eraginkorragoak izan daitezen, herriaren onerako.
  - Lurraldean bertan baliabideak indartzea eta horretarako, udaletako gizarte zerbitzuak sartzea.
  - Udaleko gizarte zerbitzuek paraleloan lan egitea, familiari arreta egitea eta baliabide irekian neurriak gauzatzea koordinatuz.
- Neurriak betetzeko **zentroen kudeaketan** hainbat arazo egon direnez, honako hau ezinbestekoa da:
  - Azpiegitura egokia eta behar adina langile eta baliabide material izatea, neurriak betetzeko hainbat zentrotan arazoak sortzen dituen pilaketa konpon dadin.
  - Legea hausten duen gazte bakoitzarentzat neurri egokia adostea lortzea.
  - Babes-eremuan esku-hartze sarearekin komunikazio egokia izatea.

-Erreforma gaietan eskumena duen erakunde publikoak eta hezkuntza eta osasun kudeaketaz arduratzen diren erakunde publikoek elkarrekin lan egitea, administrazioen arteko hitzarmenen bidez, atentzio sanitarioa eta hezkuntza edo lanbide heziketa berezia jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

-Adingabeak eskolatzeari arreta berezia eskaintzea, kanpoko oinarri hezitzailearen lankidetzarekin.

-Neska-mutilek lan integrazioko programetan sartzeko erabateko aukera.

-Harremanak, bisitak eta kanpora irteerak egitean protokoloak ezartzea. Horretarako, neurriak betetzeko zentro guztiek irizpide bateratuak erabiliko dituzte, eta irizpide horiek Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoaren Araudiarekin bat etorriko dira.

-Zaintza eta segurtasun funtzioak zentroko langileek egin behar dituzte.

-Euste-neurriak aurrez ezarritakoak baino gutxiago eta legeak agintzen duen kasuetan bakarrik ezartzea, zentroak kartzela bihurtzea eragotzi ahal izateko.

-Neurriak betetzeko zentroetako langileak etengabeko prestakuntza eta prestakuntza espezializatua jasotzea, horiei dagokien estatutu juridikoa behar bezala arautuz.

-Langileek batetik bestera ahalik eta gutxien mugitu behar izatea, adingabeek erreferentzia egonkorrak izatea beharrezkoa baita.

-Autonomia administrazio eskudunak zentroen kudeaketa era eraginkorrean kontrolatzea, irizpide bateratuak erabiliz.

-Autonomietako parlamentuetako ordezkarietako zentroetako erregistroak nahiz adingabeen espediente pertsonalak eskuratzeko erraztasunak jartzea.

**Internamendu teraupetikoa** adosten den kasuetan, Administrazioak atentzio edo esku-hartze terapeutikorako neurri egokiak ezartzeko erantzukizuna bete behar du:

-Esku-hartze pertsonalizatua eginez, zentro eta langile espezializatuen bidez.

-Posible den kasuetan, egokiagoa litzateke adingabea osasun mental edo dependentzia arazoak bideratzeko hezkuntza proiektu egoki bat duen zentro arautu batean sartzeta.

**Bakarrik dauden adingabe atzerritarren** kasuan:

-Esku-hartze sareko tresnak areagotu eta horien eraginkortasuna egiaztatu babes-eremuan.

-Administrazio autonomikoaren eta Administrazio zentralaren arteko lankidetzaz azkartzea, Gobernu Ordezkaritzaren bidez, adingabeen dokumentazioa era aktiboan kudeatzeko.

**Zentroen egiturari** buruz:

-Zentroa kartzela bihurtzea eragotzi, presondegietako estetika alde batera utziz.

-Zentroak txikiak izatea gomendatzen da, adingabe bakoitzari tratamendu berezia eman ahal izateko.

-Zentro erdi irekiak zentro itxi bihurtzea eragotzi.

-Moduluetan zatiketa egokia eta adinaren arabera banaketa egiteko aukera ematen duen azpiegitura ezarri zentroan.

-Zentroetan batez ere banakako gelak ezarri.

**Zentroen kokalekuari** dagokionez:

-Gai honetan eskumena duen Administrazio autonomikoak bizi den lekutik gertuen dagoen zentroan sartzeko adingabeak duen eskubidea erraztu behar du, internamendu araudian ezartzen den bezala. Horrela, adingabea ez da familiarik urrunduko eta inguruko hezitzailearekin harremanetan jarraitzea errazagoa izango da, adingabeak neurria betetzen duenean, hezitzaileak horren jarraipena egin behar baitu.

-Kasu honetan, Justizia Ministerioarekin hitzarmenak izenpetu behar dira, Audientzia Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Nagusiak onartutako neurriak bete daitezten.

-Zentroak hirigunean ezarri behar dira.

**Neurri judizialak betetzen dituzten adingabeekin komunikabideek duten jokatzeko moduari** dagokionez, eta kontuan izanda, batzutan, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoaren aplikazio praktikoa eta horren eraginkortasunaren inguruan zeharkako informazioa ematen dela, honako hau beharrezkoa da

-Komunikazio dossier edo protokolo bat egitea. -Komunikabideen sarrera zentroetara.

-Komunikabideetako langileak pixkanaka adingabeen babesarekin eta erreformarekin zerikusia duten gaitan espezializatzen joatea.

-Gizarteari haurtzaroaren irudi normalizatua ematea.

**Biktima adingabeak**

Adingabeak prozedura judizial batean parte hartzeak, delitu baten biktima delako nahiz banantze edo dibortziazte prozesuan dauden senar-emazte batzuen seme edo alaba delako, ez du adingabea kaltetu behar. Horri buruz, honako hau beharrezkoa da:

-Adingabeak prozedura judizialean ahalik eta esku-hartze txikiena izatea.

-Aipatu esku-hartzea txikitzea, hori beharrezkoa den kasuetan, kolokan dauden bi printzipioekin bateragarri eginez: kontraesanaren printzipioarekin eta adingabearen eskubidearekin.

-Gomendagarria litzateke Ministerio Fiskalak adingabearen interes gorenaren defentsan, ekainaren 9ko 14/1999 Lege Organikoak aldatu ondoren, Prozedura Kriminaleko Legeak, erasotzailearekin izandako konfrontazio bisualaren eta aurrez aurreko gertaeren gainean xedatutakoa betetzea.

-Erakundeen arteko protokoloak ezartzea, parte hartzen duten langile guztientzat, prozedura penalean dauden adingabeen babesaren gainean.

-Ezkontza prozeduren kasuan, euren inguruan eta egoeran egokiak diren bitartekoek entzun behar dituzte adingabeak, eskatutako adituaren txostena eragotziz.

-Prozedura hauetan, adingabeetan eragina duten eta oraindik egin ez diren auzi penalak daudenean, indarrean dagoen araudiek agintzen duenarekin bat, beharrezkoak diren babes-neurriak hartuko dira lehenbailehen.

-Adingabeak inplikaturik dauden espediente judizialak lehentasunez tramitatuko eta ebatziko dira. Ezarritako epeak betetzeko behar diren neurriak hartzeari ere lehentasuna emango zaio.”

Hirugarren saioak “Gazteen osasunerako erronka berriak” aztertu zituen. Zaragozan egin zen, Aragoiko Justiziak antolatuta. Honako ondorio hauek atera ziren:

#### **“4. Ondorioak eta proposamenak**

##### **1. Oro har**

Arazoan eragina izan dezaketen faktoreak asko direla kontuan izanda, ezinbestekoa da eremu mugatu bateko planak egotea, etengabe eguneratuko direnak eta hainbat gazte eta nerabe kolektiborengana zuzenduta egongo direnak.

Begi bistakoa da droga mendekotasuna eta beste mendekotasun mota batzuk osasun publikoko arazo direla. Hori dela eta, beharrezkoa da orain arte erkidegoko osasunean erabili diren tekniketara eta tresnetara jotzea, eta nola ez, erkidegoa prozesuaren fase guztietan modu aktiboan inplikatzeko.

Ez dago zalantzarik jarduera lerro horiek eremu askotan eman behar direla aurrera: erkidegoan, ikastetxean, familian, arrisku guneetan, aisialdi guneetan. Horiekin batera laguntza emateko eta sustatzeko jarduerak ere gauzatuko dira, baliabide gutxi izateak sortutako hutsunea bete eta indartuko dutenak.

##### **2. Eskumenak eta erabateko esku-hartzea**

Gaian esku hartzera deituta dauden administrazio publikoek dituzten eskumenak zehatz-mehatz finkatu behar dira. Izan ere, eskumenak betetzeko erantzukizuna bere gain hartuz bakarrik ekin dakioko sortutako problematikari.

Administrazio publikoen arteko koordinazio neurriak zehaztu behar dira, arazoa osotasunean eta ikuspegi eta alderdi desberdinetatik jorratu ahal izateko, arazoak alderdi bat baino gehiago dituela kontuan izanda.

Mendekotasuna sortzen duten substantzia kaltegarriak (hala nola, droga, alkohola, tabakoa) kontsumitzearen aurkako Planak batera landu behar dira, substantzia horiek hartzeak ezaugarri antzekoak baitituzte.

##### **3. Plangintza**

Droga-mendekotasunari buruzko Planen oinarrizko alderdiak arauetan zehaztea. Hau da,

- Gai honen gainean egiten diren azterketak eta arazoak konpontzeko hartu beharreko neurriak sistematizatu eta homogeneizatu behar dira. Horrela, arazoaren jarraipen arautua egiten dela bermatuko da, arazoaren bilakaera zein den jakingo da eta Administrazioak aurrera eramaten dituen planak eta jarduerak zenbateraino diren eraginkorrak ikusi ahal izango da.

- Kalitate helburuak zehaztu behar dira (erlazionatutako kalteak murriztu, kontsumoa hasteko adina atzeratu, kontsumoa murriztu, kontzientzia soziala sortu, aisialdiko gainontzeko aukeren emaitzak eta abar) eta ebaluazio jarraitua nola egin finkatu behar da. Horretarako ez da nahikoa ekimen asko aurrera eramatea, horiek zenbateraino diren baliagarriak ere baloratu behar da. Alderdi hori Administrazioa lantzeke duen arazo nagusienetako bat da.

- Planak behar bezala finantzatzeko dira. Nabaria da drogak hartzearen aurkako programa gehienak Udalek egiten dituztela, baina autonomia erkidegoen diru laguntzekin. Horrenbestez, beharrezkoa da finantziario formulak berriz aztertzea, horiek benetan egiten direla egiaztatu ahal izateko.

Azken finean, garrantzitsua da Drogen Planak modu intentsiboan eta koordinatuan, zerbitzu, programa eta neurri multzo bat bultzatzen, programatzen

eta ebaluatzen duten tresna gisa ikustea, eskaintza kontrolatzea eta eskaera murriztea helburu dutenak.

#### **4. Prebentzioa**

Esku hartzeko estrategia guztiak indartu beharko lirateke, prebentzio eta kontrol estrategiak, batez ere –orain arte tabakoaren kontsumoan egin den bezala–, osasungarriak diren kontsumo ohiturak hartzera bultzatzen duen giro soziala sortzeko helburuarekin. Horrela, inor iraindu gabe, herritarrei ikusaraziko zaie drogak, legezkoak zein legez kanpokoak kontsumitzea osasunerako kaltegarria eta baztertu beharreko balio bat dela eta ez gizartean onartu beharrekoa.

Horretarako, prebentzio jarduerak bideratzeko araututako sistemak (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, kultura, kirola, komunikabideak eta abar) erabiltzea proposatzen dugu, iraun dezaten eta ahalik eta pertsona gehienengana iritsi daitezen.

##### Familia

Familiei laguntza eskaini behar zaie, zalantzarik gabe onartu behar baita, prebentziorik onena familian egiten dela. Ordenamendu juridikoak eta administrazio publikoek laguntza handiagoa eskaini behar die gurasoei laneko eta familiako bizitza uztartzeko aukera izan dezaten, behar adina baliabide eta aholku jaso ditzaten eta euren seme-alabak hezteko aukera izan dezaten. Orain arte gai horren inguruan hartutako neurriak ez dira inolaz ere nahikoak izan.

Ezin da ahaztu seme-alaben heziketan eta jokaeran gurasoek dutela ardura handiena. Horrenbestez, adingabeak tartean dauden arazoetan edo substantziak kontsumitzeagatik sortzen diren arrisku egoeratan, derrigorrezkoa da horren berri lehenbailehen gurasoei ematea, haiek ardura euren gain har dezaten, gertakariak eremu publikoan nahiz pribatuan edo bide publikoan nahiz ikastetxe batean jazo.

##### Ikastetxea

Janariaren eta mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaren heziketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasketa planetan sartu behar da, behar-beharrezkoa baita, gazteek ezagutza horiek jasotzea, ohitura osasuntsuak har ditzaten. Gai hori (osasun heziketa) bereziki sartuko da curriculum osoan, zeharka ematen diren ikasgai guztietan eta tutoreak egiten duen jardueraren planean, curriculumeko beste edukiekin batera erregulartasunez irakatsi dadin.

##### Erkidegoa

Erkidegoan prebentzioa bultzatzeko bereziki lan egin behar da, eragile eta erakunde guztiek, publikoek nahiz pribatuek, parte hartzea lor dadin.

Alderdi horretatik, administrazio publikoak heziketan eta gizarte lanean espezializatuta dauden langileak behar ditu, arlo honetan behar bezala lan egin dadin eta haurrentzat aisialdirako aukera gehiago bultzatzea daitezen.

Administrazio publikoek enpresei eta gizarteko komunikabideei autorregulazio kodeak ezartzea eta publizitatean indarrean dagoen araudiak agintzen duena betetzea exijitu behar die.

##### Aisialdia

Azken urteetan, aisialdiaren esparruan gazteei zuzendutako prebentzio programa gehiago egin badira ere, oraindik ez dira kolektibo horrengana behar bezala iristen.

Edari alkoholadunen eta tabakoaren publizitatean agintzen duen araudia betetzea gomendatzen da. Neurri horien artean, alkoholaren gehiegizko kontsumoaren prebentzioari buruzko mahainguruak sortzea egon daiteke. Horietan, ostalariek, edari banatzaileek, komunikabideek eta udaleko ordezkariak parte har dezakete.

Administrazio publikoen eta ostalaritzako enpresen arteko koordinazioa bultzatuko da, adingabeei mendekotasuna sortzen duten produktuak saltzea eragotzi dadin. Horrek eskatzen du lokalak eta ikuskizun publikoak ikuskatzeko neurriak areagotzea eta langileak prestatzea, prebentzioan lan egin dezaten, substantziak erraz banatzea eragotzi dezaten eta legea hausten den kasuetan, zehatzeko araubidea zorrotz ezar dezaten.

Administrazioak kaltegarri diren mota guztietako substantziak gehiegi kontsumitzean ostalaritzako lokalen ordutegiaren araudiak duen eragina aztertu behar du.

### **5. Erabateko arreta**

Komeni da berriz ere nabarmentzea informazioak eta sentsibilizazioak garrantzia handia duela droga (bereziki gehien kontsumitzen direnak: alkohola eta cannabisa) gehiegi hartzeak arazoak sortzen dituela ikusteko orduan, eta baita, aldi berean, gizarteak duen drogazaleen irudia eta arreta zerbitzuak finkatzeko orduan ere.

Hori dela eta, informazioa emateko estrategiak hartzea proposatzen dugu, herritar guztiei nahiz gehien kontsumitzen duten taldeei zuzenduta. Drogen gehiegizko kontsumoa edo mendekotasuna adierazten duten sintomen eta irizpideen berri emango da. Nabarmenduko da, baita ere, arazoa konpon daitekeela eta pronostikoa zenbat eta lehenago egin orduan eta errazagoa dela parte hartzea; arazo horiei aurre egiteko hainbat modalitate terapeutikoei buruz ere argibideak emango dira, eta nabarmenduko da tratamendu zentroetan droga-mendekotasun mota guztiekin lan egiten dela.

Horretarako, araututako osasun sistemetan eta gizarte zerbitzuetan dagoeneko existitzen diren zerbitzu eta programak sartzeko aurrerapenak egin behar dira, herritarrek ikus dezaten, jasotzen duten laguntza sistema horietako beste zerbitzu bat dela eta indarrean dagoen araudiak gainontzeko erabiltzaileek dituzten eskubide eta betebeharrak ematen dizkietela. Horrela bermatuko da lehenbailehen jasoko dutela laguntza, familiak zerbitzu egokienak bilatzeko beharrik izan ez dezan.

Estrategia terapeutikoei ere malguago egin beharko lirateke, nerabeei laguntza egokia eman ahal izateko eta atzemate goiztiarra eta familientzako laguntza terapeutikoa bermatu daitezen.

### **6. Zehatzeko araubidea**

Gure ustez, gazteek aisialdiko guneetan eta aisialdian alkohol gehiegi kontsumitzeak sortzen duen arazorik larriena osasunean eta gizartean sortzen duen eragina dira. Begi bistakoa da helburuetako bat drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea dela. Izan ere, horrek alkoholaren eta beste substantzien eskaintzaren aurrean kontsumitzaileak hain ahulak eta babesgabeak ez izatea dakar. Arlo horretan, honako jarduera hauek proposatzen dizkiegu administrazioei:

- Gizartean, tabakoa lortzeko aukerak eta edari alkoholadunen okerreko eta gehiegizko kontsumoa murrizteko, udal guztiek Ordenantza erregulatzaile bat adostea lortu behar da.

- Adingabeei alkohola eta tabakoa banatzeagatik eta saltzeagatik legea hausten denean zehatzeko araubidea betetzen dela bermatu behar da, eta bermatu behar da, halaber, hainbat tokitan eta leku publikotan tabakoa, alkohola eta beste drogak kontsumitzea galarazten duten arauak benetan betetzen direla. Horretarako, ikuskatzeko eta zehatzeko mekanismoak indartuko dira.

- Edari alkoholunak edota tabakoa saltzen den toki guztiei jarduera hori mugatua dagoela adierazten duten kartelak banatuko zaizkie.

*Dena dela, ziur gaude arazoa administrazioena eta guztiona dela.*”

Jardunaldietan adingabeekin zerikusia duten hainbat arazo eztabaidatu ziren, eta horietan gai horretako adituek eta Defendatzaileek eurek parte hartu zuten.

Iñigo Lamarca Arartekoak “Ikastetxeetako biolentzia eta familia” gaiaren inguruan aurkezpena egin zuen. Txosten honetako, I. eranskinean jasotzen da.

Jardunaldia “Pobreziaren kontrako Nazioarteko Egunarekin” egokitu zenez, Herriaren Defendatzaileek honako adierazpena onartu zuten: “Etorkinen eta gutxiengo etnikoen problematikari arreta berezia”.

Txosten guztiak eztabaidatu ondoren, honako ondorio orokor hauek atera ziren:

**“Herri defendatzaileen XX. koordinazio jardunaldiak: haurtzaroan eta gaztaroan eragina duten gertakarien eta arazoen aurrean administrazio publikoek ematen duten erantzuna. Ondorio orokorrak”**

Herriaren Defendatzaileek, pertsona guztien eskubideak defendatzeko egin-kizuna duten erakundeak direnez, euren ahultasunagatik babes berezia behar duten gizarteko sektoreetan jartzen du arreta, batik bat. Testuinguru horretan, erakunde hauen helburu nagusia haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko jarduerak aurrera eramatea da.

Aldatzen doan errealitate honek herritarren sektore honetan eragina du, kasu batzuetan kezka sortzen du gizartean eta gizarte osoaren erantzun egoki bat eskatzen du. Gure gazteek batzuetan egoera zailak bizi dituzte, aldatzen ari den gizarte batek, hezkuntza testuinguru berri batek (gizarte globalizatua, komunikabideen gizartea eta abar) eta aukera eta arrisku berriek eragindakoak. Errealitate konplexua da, horrela ikusi behar dena eta guztion inplikazioa eskatzen duena (ikastetxea, familia, kultura, komunikabideak, botere publikoak eta abar).

Egoera honen aurrean, Alacanten XX. Koordinazio Jardunaldietan bildutako Herriaren Defendatzaileek beharrezkotzat jo dute Jardunaldi hauetan errealitate honen inguruan hausnarketa eta balorazioa egitea, eta hala, erakunde hauek euren iritzia jakinarazteko eta haurrek eta nerabeek dituzten eskubideak hobeto bermatzen lagunduko duten elementuak sortzeko aukera izango dute.

Zentzu horretan, Ordezkariorik honakoa ADIERAZTEN dugu:

- Haurrek eta nerabeek eskubidea dute bizikidetzaren giroan pertsona bezala garatzen lagunduko dieten gizarte batean bizitzeko eta garapen horretan komunitate bateko kide direla eta, ondorioz, bizikidetzaren arauak eta mugak errespetatu behar dituztela erakutsiko dieten helduen laguntza izateko.
- Haurrek eta nerabeek egoera zailekin topo egiten dutenean eta gizartean kezka sortzen dutenean, ez zaigu ahaztu behar haurtzaroa eta nerabezaroa

errealitate sozialaren parte direla eta errealitate sozial hori guztiona dela eta guztiok garela horren berriemaile.

- Haurrek eta nerabeek euren bizitzan eta familiarekin, eskolarekin eta gizartearekin duten bizikidetzan parte hartzen badute soilik bermatuko da behar bezala garatzeko behar den inplikazioa. Haurtzaroa eta nerabearoa babesteko modurik onena euren den gizartearen arriskuei eta zailtasunei behar bezala aurre egiteko baliabideak ezartzea da.
- Babes-sistemak zaintzen dituen adingabeei euren egoera pertsonala konpontzeko irtenbide egokiak eskaini diezazkien, azkar, banaka eta era objektiboan eta malguan jardun behar du.

Behar horiei erantzuteko honako PROPOSAMEN hauek egin ditugu:

1. Haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten zerbitzu publikoek behar berriei egoki erantzuten dien ebaluatu eta aztertu. Zentzu horretan, bereziki garrantzitsua da babes- eta erreforma-sistemak sakon aztertzea, horien lorpenak eta zailtasunak baloratzea eta erraz kaltetuak izan daitezkeen sektore sozialei behar bezala erantzuten dieten egiaztatzea.
2. Adingabeen Lege Penalaren egungo erreforman har daitezkeen erabakiak alde batera utzita, gaur egungo araudia, horren eskura jarritako baliabideak eta nerabeek euren jokaeren ardua bere gain hartzea lortzeko baliabideek duten eraginkortasuna ebaluatzea eta kontuan hartzea da hobetzeko proposamen ororen oinarria.
3. Biolentzia zeinu ororen aurrean ezinbestekoa da administrazio publikoek, maila eta sistema desberdinetan, jarduerak eta programak koordinatzeko planak bultzatzea, fenomeno sozial honen prebentzioarekin eta laguntzarekin zerikusia dutenak, hori gertatzen den eremuetan. Zentzu horretan, gazteen artean genero biolentziak sortzen duen arazoan arreta berezia jarri nahi dugu, helduen munduan gertatzen diren kasuen kopurua eta nerabearoan gertatzen direnena antzekoa baita.
4. Botere publikoek teknologia berriak adingabeen formakuntzan, hezkuntzan eta aisialdian baliagarri izan daitezkeen tresna gisa indartu behar dituzte. Legez kanpo dauden eta kaltegarriak eta arriskutsuak diren edukien ondorioz sortzen diren arriskuak ezabatzeko erregulazioa ezarri behar dute eta adingabeak horiek arduraz eta ziurtasunez erabil ditzaten hezteko erraztasunak eman behar dituzte.
5. Administrazioek ikastetxeetako bizikidetzaren planei lehentasuna eman behar die eta jada existitzen diren planak zabaldu behar dituzte. Horretarako, arreta berezia jarriko dute antolaketa egiterakoan, ikasleak banatzerakoan eta familia nukleoak hezkuntza jardueran inplikatzeko.
6. Hiri-tribu deituriko nerabeen eta gazteen talde fenomenoaren aurrean, bereizi behar dira, batetik, euren izateko era eta kolektibo jakin bateko kide izateko beharra agerian jartzen dutenak eta, bestetik, bizikidetzaren soziala hausten dutenak eta neurri egokiak eta eraginkorrak hartzea eskatzen dutenak. Administrazioek, toki-administrazioek bereziki, hezkuntza eta gizarte lan sistema bat garatu behar dute kalean, neurrian bertan, errealitatea ezagutu eta zailtasunak agertzen direnean esku hartu ahal izateko.



7. *Gizarteko hainbat eragilek (erkidegoak, ikastetxeak, familiak, komunikabideek...) erantzun borobila, koherentea eta zentzuduna eman behar dute substantzia toxikoen, estupefazianteen, alkoholaren eta tabakoaren kontsumo goiztiarraren eta kaltegarriaren aurrean, horiek osasun publikoko arazo bezala hartu behar baitira.*

*Alacanten, 2005eko urriaren 19an”*

## 2.2. IBEROAMERIKAKO OMBUDSMANEN FEDERAZIOAREN (FIO) X. BILTZARRA ETA BATZAR OROKORRA

Paraguaiko Errepublikako Asuncion hirian, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren Urteroko X. Biltzarra eta Batzar Orokorra egin ditugu 2005eko azaroaren 14tik 17ra bitartean. Jardunaldi hauek eztabaida esparru bat eratzen dute, eta gainera, Ombudsmanaren irudia ezartzea du helburu Iberoamerikako herrialdeetan.

Biltzar horretan, Iberoamerikako haurren eta nerabeen eskubideekin uztartutako hainbat gai eztabaidatu dira, gai horretan aditu diren pertsona batzuen eta Herriaren Defendatzaile ezberdinen parte-hartzearen bidez.

X. jardunaldi hauen esparruan, ondoren transkribatuko dugun "Asunciongo Adierazpena" bezala ezagutzen dena onartu zen:

### "ASUNCIONGO ADIERAZPENA

*Iberoamerikako nazio, estatu, eskualde, autonomia eta probintzia mailako Herri Defendatzaile, Prokuradore, Justizia-emaile, Mandatari eta Giza Eskubideetako Batzorde Publikoetako buruek Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren X. Biltzarra eta Batzar Orokorra egin ditugu, Asuncion hirian (Paraguain), 2005eko azaroaren 14tik 17ra bitartean, eta bertan ondoko adierazpena onetsi dugu:*

#### KONTUAN IZANIK:

*Iberoamerikako Ombudsmanek lan garrantzitsua egiten dutela giza eskubideak sustatu, babestu eta zaintzeko, batez ere, ahulagoak diren taldeen eskubideez arduratuz, horien artean besteak beste, haurrak eta nerabeak, emakumeak, etorkinak, indigenak, beren jatorria Afrikan dutenak, gaitasun bereziak dituzten pertsonak egongo lirateke.*

*Iberoamerikako integrazioak, bere nortasuna eratzen duten printzipio eta balio komunak errespetatzen diren esparrua eratzen duela, hizkuntza komuna eta historia, kultura, moralta eta hezkuntza funts berak izatean oinarrituz, horien bidez, herrien arteko loturak estutuz.*

*Demokraziak, sistema politikoa den heinean, giza eskubideen benetako gauza-pena bermatu behar duela, ikuspegi zabal batetik abiatuz eta eskubideen arteko elkarmenpekotasuna kontuan hartuz, horrek, pertsonaren garapen osoa ahalbidetzen duelako, eta ondorioz, Estatuena ere bai; era berean, Zuzenbide-Estatua eta herrien arteko bakezko elkarbizitza ere bermatu behar duela.*

*Txirotasuna, berdintasun eza eta gizarteko bazterkeria Latinoamerikako herrialde gehienetan nagusi direla, eta horiek etengabe kaltetzen dutela giza eskubideez gozatu ahal izatea, bereziki, haurrek beren eskubideez gozatu ahal izatea, esate baterako, bizirik irauteko, garatzeko, babeserako eta parte-hartzeko eskubideez.*

*Latinoamerikak, txirotasunaren, berdintasun ezaren eta gizarteko bazterkeriaren ondorioz aurre egin beharreko erasoek, familia taldeek oinarritzko eskubideak izatea galarazten dutela, eta beren garapen armoniatsua ekiditen duten egoera zailtan jartzen dituztela.*

*Hautzaroa eta nerabezaroa, besteak beste, sexu esplotazioa, pertsonen salerosketa eta trafikoa, behartutako lanak, narkotrafikoa eta indarkeria bezalako delitu gertakarien biktima direla.*

*GIB/HIES*aren epidemiak bizitza, bizirik irauteko, eta garapen osasuntsu eta armoniatuaren eskubideak mehatxatzen dituela haurtzaro eta nerabe-zaroan.

Latinoamerikako Estatuek egozgarritasun penala ezarri dutela nerabeen adin goiztiar batean, horiek txirotasunak dakartzak ondorio beldurgarrietan murgildurik daudelako, eta beren duintasunaren aurka doazen egoeratan daudelako askatasunik gabe, kasu askotan gainera, defentsa eta behar bezalako epaiketa izateko eskubidea bortxatuta ikusiz.

Iberoamerikako herrialde batzuetako komunikabideek, orain arte, ez dutela haurrentzat interesgarria den, eta beren ongizatea eta garapen egokia ahalbidetzen duen informaziora iristeko eskubidea bermatzen lagundu.

Haur eta nerabeei, askotan, babes sistemetara heltzeko aukera zailtzen zaiela giza eskubideak mehatxatu edo zapaltzen dizkietenean, eta orokorrean, ez zaiela behar bezala galdetzen beren interesekoak diren kontuei buruz, eta beren iritziak ez direla errespetatzen.

Haurrak eta nerabeak migrazioaren gertakarian agente aktiboak direla, batez ere dokumentaziorik gabeko migrazioaren kasuan. Horrek are gehiago handitzen du beren giza eskubideak zapalduak izateko aukera, eta ondorioz, beren ahultasun egoera larriki areagotzen da.

Latinoamerikako zenbait herrialdeetan politika, gizarte eta ekonomia ezegonkortasuna egon dela, eta horrek Demokrazia, eta hori instituzio izaten jarraitzea eta giza eskubideak indarrean mantentzea arriskuan jarri duela.

Hondamendi naturalek, bizitzaren, osasunaren, segurtasunaren eta pertsonen ongizatearen kontra egiten dutela, eta era berean, herrien garapenaren kontra, txirotasuna murrizteko arazo bat suposatuz.

Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren III. Txostena –giza eskubideei buruzkoa eta Haurtzaroa eta Nerabezaroa izenarekin–, Haurraren Eskubideen Batzordeari aurkeztu izana 40. Saio Aldian, Federazioaren lana sendotzen duten Giza Eskubideen Erakunde Nazionalak batzen dituzten eskualde elkarreentzat ekintza historikoa izan zela.

Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren X. Batzar Orokorrek ezagutzen duela El Salvadorreko Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretzak eginiko txostena, El Salvadorreko Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradorea den Beatrice Alamanni de Carrillo andreak egiten duen lan konstituzionalaren aurka doazen etengabeko ekintzen inguruan, batez ere 2005eko azaroaren 9an jasotako azken hil-mehatxuak.

Guatemalako Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradorea xaxatzearen biktima izaten ari dela, eta bere bizitzaren eta osotasunaren aurka doazen mehatxuak jasotzen ari dela, guatemalarren giza eskubideen defentsa eta babesaren alde egiten duen lan garrantzitsua zapaldu eta oztopatzeko helburuarekin.

Nikaraguak bizi duen etengabeko krisi instituzionalak, modu zuzenean kaltetzen duela nikaraguarrek giza eskubideez gozatzeko duten eskubidea, txirotasunean eta gobernagarritasunean sakonduz. Egoera are larriagoa dela gainera beste Estatu batzuek herrialde horretan duten esku-hartzearengatik, eta Giza Eskubideen Erakunde Nazionalak duen defentsa funtzioa garatzeko nahikoa baliabide izateko ezintasunarengatik.

Boliviako biztanleriaren sektore garrantzitsu askok gizarteko bazterkeria jasaten dutela, eta horrek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen zapalkuntza ekartzen duela. Kezka hori are larriagoa bilakatu dela nazioarteko komunitateak ezagutu duenean preso dauden taldeak existitzen direla esklabotzaren pareko erregimenetan, horren adibide izaki Chaco Boliviano eskualdeko indigena guaranien kasua.

Paraguaiko diktaduraren biktimek indemnizazioak eskatu dituztela 838/96 zenbakia duen Legearen esparruan, horrek, 1954 eta 1989 bitartean giza eskubideak zapaldu zitzaizkien biktimentzat indemnizazioak ezartzen dituelako, eta horiek jasotzeko duten eskubidea onartzen zaiela.

**HAUXE ADIERAZTEN DUGU:**

**JARRAITU** egingo dugu indar egiten Iberoamerikan giza eskubideen kultura sustatu, zabaldu eta sendotzeko. Era berean Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa sendotzeko elkarran, bizipen truke eta Ombudsmanaren erakundea sustatu, zabaldu eta sendotzeko lan egiten jarraituko dugula gure jurisdikzioaren barnean kokatzen diren eskualdeetan.

**ESKATU** nahi diegu Estatu eta Gobernuai beren ahaleginik handienak egin dezatela giza eskubideen sustapen eta defentsara zuzenduriko erakunde nazionalen erabateko askatasuna bermatzeko. Horiek finantza ahalmena eta giza baliabide nahikoak izan behar dituzte, lan egokia garatzea ahalbidetzeko. Lan hori, gizarteko talde ahulenekin garatuko da, besteak beste, haur eta nerabeekin.

**ESKATU** nahi diegu Estatu eta Gobernuai Haurraren Eskubideen Konbentzioko edukiak kontuan hartu ditzatela politika ekonomikoak egiteko garaian, haurren interes eta eskubideak bermatzeko behar dena daukatela bermatuz.

**ESKATU** nahi diegu Estatu eta Gobernuai, Nazio Batuen Milurteko Goi-bileran jasotako Adierazpenaren xede eta helburuak betetzea ahalbidetzen duten estrategiak garatu ditzatela, haur eta nerabeak txirotasun eta gizatasunik gabeko baldintza doilorretatik ateratzeko behar den esfortzu guztia eginez.

**ESKATU** nahi diegu Estatuari ahalik eta ahalegin handiena egin dezatela hazkunde ekonomiko iraunkorra eta bidezkoa lortzeko eta gosea desagerrarazteko, pobrezia gutxiago egoteko, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko eta bereziki ahulak diren taldeen egoerari arreta jartzea ahalbidetzeko.

**ESKATU** nahi diegu Iberoamerikako Estatu eta Gobernuai ustelkeriaren aurkako berehalako neurri eraginkorrak hartu ditzatela, eta kontuak emateko bideak ezartzera, gardentasun eta eraginkortasun neurriekin batera, horien bidez herrien garapenaren aldeko baliabide ekonomikoak behar bezala erabili ahal izateko.

**ESKATU** nahi diegu Estatu eta Gobernuai neurri administratibo, legalak eta finantzarioak hartu ditzatela, horien bidez haurren eskubideak onartu eta babesteko, bereziki, Haurraren Eskubideen Konbentzioan, eta horren borondatezko protokoloetan ezarritakoa babesteko.

**ESKATU** nahi diegu Estatuari Haurren Eskubideen Batzordeari ohiko txostenak aurkezteko betebeharra bete dezatela, Konbentzioan ezarritako bide eta epeetan, eta era berean tratatu organo horretatik etortzen diren Oharrak onartzera.

**AZPIMARRATU** nahi dugu Haurraren Eskubideen Batzordeak egiten dituen Azken Oharrak zabalitzeko, eta Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren

kide diren Erakunde Nazionalak haurren eskubideen egoeraren inguruan egiten dituzten txosten independenteak jakinarazteko duten aldeko jarrera.

ESKATU nahi diegu, oraindik Haurren Eskubideen Konbentzioko Borondatezko Protokoloak berretsi ez dituzten Iberoamerikako Estatuiei protokolo horiek berretsi ditzatela, haurtzaroaren babes integrala bermatzeko neurri gisa; horiek, haurrek gerra gatazketan duten parte hartzearen ingurukoak, haurren salerosketari eta, prostituzioari eta haur pornografiari buruzkoak dira.

ESKATU nahi diegu Estatu eta Gobernuiei denek bat egin dezaten, horrela, haur eta nerabeak babes sistemen barruak kokatzeko, beren eskubideen aurka doazen egoeretatik modu egokian babestu ditzaten.

ESKATU nahi diegu Estatu, Gobernu eta gizarteari orokorrean, atentzio berezia eskaintzea txirotasun egoeran dauden haur eta nerabeei, indigenei, ahalmen bereziak dituztenei, migratzaileei, eta askatasunik ez dutenei, horrela, pertsona horien giza eskubideak, ongizatea, hazkuntza eta garapena errespetatzen direla bermatuz.

BAT EGIN NAHI DUGU Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren kide diren funtzionarioek eginiko gomendioarekin; horren bidez, Gobernuiei ESKATU nahi zaie haurrak hezkuntza sistemara iritsiko direla bermatzen duten politika publikoak gauzatu ditzatela, eta, batez ere, neskak, horiek baitira etxeko-lanak egiten, anai-arrebak edo beste senide batzuk zaintzen geratu ohi direnak edo haurdunaldiak gazterik izaten dituztenak.

ESKATU nahi diegu Estatu eta Gobernuiei Iberoamerikako herrialde bakoitzean, haurtzaroaren eta nerabezaroaren aurka erakunde nazional eta transnazionalak egiten dituzten delituak desagerrarazteko politikak eta araudiak ezarri ditzatela. Delitu horien artean, gazteenen lan edo sexu esplotazioa, narkotrafikoa, pertsonen salerosketa edo trafikoa, eta beren giza eskubideak mehatxatu edo zapaltzen dituztenak daude.

ESKATU nahi diegu Estatuiei GIB/HIESaren aurkako politikak eta prebentzio programak, arreta zerbitzuak eta tratamenduak ezarri ditzatela, une oro haurren interes gorena kontuan hartuz.

ESKATU nahi diegu Estatuiei eta nazioarteko komunitateari ingurumenaren iraunkortasuna bermatzeko berehalako neurriak hartu ditzatela, Milurtekoko Garapen Xedeekin bat eginez. Era berean eskatu nahi dugu, 2005eko urtarrilean egindako Hondamendiak Gutxitzeko Mundu Konferentzian onartutako 2005-2015erako Hyogo Jarduera Esparruan onartutako planteamenduei arreta jartzea.

ADOSTU egiten dugu Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoreak Estatu Batuen Gobernuari egindako erregua babestea. Bertan Estatu Batuen gobernuari eskatzen zaio, Behin Behineko Babes Estatusa ematea bertan bizi den guatemalar komunitateari, batez ere, kontuan hartuz Guatemalak bizi duen larrialdi egoera Stan urakanaren ondorioz.

BERRETSI nahi dugu Nazio Batuen Erakundearen atal ezberdinekin elkarlanean jarraitzeko aldeko jarrera, horien artean, Idazkaritza Nagusia, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa, tratatuaren organoak, gai ezberdinen inguruko lantaldeak, eskualde bakoitzeko giza eskubideen sustapen eta babes taldeak egongo lirarteke. Era berean, Giza Eskubideen Batzordean eta horien organo subsidiarioetan parte hartzeko nahia berresten dugu.

ESKATU nahi diogu, errespetu osoz, Amerikako Estatuaren Erakundeari, Giza Eskubideen Erakunde Nazionalak parte hartzeko esparru eta bideak sortu ditzala. Horretarako, Nazio Batuen barruan erakunde horiek duten esperientzia kontuan hartzea gomendatzen dugu.

ESKATU nahi diegu Estatu, Gobernu eta gizarteari, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren Giza Eskubideen inguruko III. txostenak –Haurtzaroa eta nerabezaroa– jasotzen dituen gomendioak ezarri ditzatela, eta AZPIMARRATU nahi dugu migratzaile eta emakumeen eskubideen inguruan eginiko gomendioei jarraipena emateko hartu dugun konpromisoa.

AZPIMARRATU nahi dugu ikerketak, txostenak eta jakinarazpenak egiten jarraitzeko dugun aldeko jarrera, dagokion organo nazional nahiz nazioartekoekin, politikak, programak eta giza eskubideak bermatzera zuzenduriko jarduerak eratzen laguntzeko, beti ere arreta berezia jarritzeko gizartearen talde ahulenetan. ESKATU nahi diogu El Salvadorreko Errepublikako Estatu eta Gobernuari beharrezkoak diren neurriak hartzeko El Salvadorreko Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradorea den Beatrice Alamanni de Carrillo andrearen, eta bera buru den erakundeko langileen osotasun fisiko eta morala bermatzeko. Era berean, neurriak hartzeko eskatzen diogu El Salvadorreko Errepublikako Konstituzioak ezarritako betebeharrekin bete ahal izateko behar dituen baliabideak ematea.

ESKATU nahi diegu Guatemalako Errepublikako Estatu eta Gobernuari, Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradore den Sergio Morales jaunaren bizitza eta osotasuna bermatzeko neurriak hartu ditzatela. Horrekin batera, horiek giza eskubideen alde egiteko dituzten betebeharrekin bete ahal izatea bermatzeko eskatzen diogu.

ESKATU nahi diegu Boliviako Errepublikako agintariei ezberdintasun sozialak desagertzeko bide politiko eta legalak ezarri ditzatela. Era beran, lurzoruaren banaketa bermatzea eskatzen diogu, indigenak banaketa horretan sartuz. Halaber, eskatu nahi diegu Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak onartzen ez dituen elkarbizitza moduak desagerrarazteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko, esate baterako, joputasuna; horrela, herri guaraniek askatasuna eta bizitza duina izatea errespetatu dadin. ESKATU nahi diegu, halaber, Boliviako jurisdikzio erakundeei, egiten duten ahalegina areagotzea La Paz-eko Altuan 2003. urtean gertatutako genozidioko erantzuleak zigor prozedura bidez epaitzeko.

ESKATU nahi diegu Nikaraguako estatu eta indar politikoei, nazioa gobernatzeko iraunkorrak diren adostasun bideak bilatu ditzatela hitzaren bidez. Era berean, Nikaraguako Batzar Nazionalari eskatu nahi diegu Giza Eskubideen Prokuradoretzak, nikaraguarren eskubideak babesteko duen betebeharra bete ahal izateko nahikoa aurrekontu eman dezala.

ESKATU nahi diogu Paraguaiako Errepublikako Gobernuari, 1954 eta 1989 bitarteko diktaduran giza eskubideak zapaldu zitzaizkien pertsonak dituzten eskubideak betetzen laguntzea eta bermatzea, horretarako sistema eta mekanismo ezberdinak ezartzen jarraituz.

ESKATU nahi diogu, errespetu osoz, Brasilgo eta Chileko Errepublikari Ombudsmanaren irudia jartzeko esfortzuak egiten jarraitzeko beren herrialdeetan; eta ADORETU nahi dugu Dominikar Errepublikako Estatua Herriaren Defendatzaile erakundearen titularra izendatzeko prozesua arintzeko.

**BABESTU EGITEN DUGU:**

*Estatu eta Gobernu Buruen Iberoamerikako Goi-bileraren erabakia. Horren bidez, Idazkaritza Nagusi Iberoamerikarra jarri nahi da martxan, Nazioen Komunitate Iberoamerikarraren xedeak, nazioarteko proiektzioa, barne loturak, elkarlana, eta instituzio bilakatzearen prozesua areagotzeko. Horregatik, aldeko jarrera azaltzen dugu Iberoamerikako giza eskubideen aldeko elkarlan harremana eratzeko eta Demokrazia sendotzeko, eta txalotu egiten dugu Enrique Iglesias Idazkaritza Nagusi Iberoamerikarraren titular aukeratu izana. Era berean, Gobernu eta Estatu Buruek, Salamancan (Espainia) Iberoamerikako XV. Goi-bileran hartutako konpromisoak babesten ditugu. Horren bidez Nazio Batuen Gutunean jasotako helburu eta oinarriak, Nazioarteko Zuzenbidea, Demokrazian sakontzea, giza eskubideen garapena, sustapena eta babes unibertsala, multilateralismoaren eta herri eta nazioen arteko elkarlana sendotzea, eta Nazioarteko Zuzenbidearen aurka joan daitezkeen aldebakarreko neurri hertsatzaileak ezartzeari uko egitea berretsi dugu.*

*El Salvadorreko Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradorea den Beatrice Alamanni de Carrillo andreari egindako lan garrantzitsu eta ausarta babesten dugu, aurre egin behar dion egoeran egonda ere. El Salvadorreko biztanleen giza eskubideen babes eta sustapen konstituzionalarekin jarraitzea adoretzen dugu.*

*Gaur egun Uruguaiako Ekialdeko Errepublikak giza eskubideak sustatzeko ezarri duen politika, eta bertako Lehendakariak izan duen ekimena, Uruguaiako Kongresu Nazionalera Herriaren Defendatzailearen erakundea sortzeko Legea eramatea, babesten ditugu; horrela, joan den urteko urrian helburu horrekin bisita egin zioten Argentina, Paraguai eta Mexikoko Herriaren defendatzaileekin hartutako konpromisoa betez.*

**ESKERRAK EMATEN DIZKIEGU:**

*Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzarrari, “Giza eskubideen mekanismoen funtzionamendu eraginkorra: erakunde nazionalak eta eskualdeko ordezkariak” izeneko E/CN.4/2005/L.92/Rev. 119 ebazpena onartzeagatik, 61. Batzar Saioan. Horren bidez, Erakunde Nazionalen Batzarraren programaren gai guztien esparruan esku-hartzeko aukera ematen zaigu. Era berean eskertzen dugu Ebazpen horretan, Batzarrak Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren lana elkarlan eta ezagutza truke esparru bezala kontuan hartu izana.*

*Amerikako Estatuaren Erakundeari, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak egiten duen lana aintzat hartzeagatik, honako ebazpen hauek onartuz: “Estatu Kideen Giza Eskubideen Sistema Nazionalen sendotzea eta Herriaren Defendatzaile, Herritarren Defendatzaile, Prokuradore edo Giza Eskubideen Ordezkarrien (Ombudsman) lanaren babesari” buruzko **AG/RES. 2132**; “Amerikako Hirugarren Goi-bileraren Ekintza Planari jarraituz, Giza Eskubideen Sistemen Sendotzeari” buruzko **AG/RES. 2075**, eta “Langile migratzaile guztien eta beren familien Giza Eskubideen” **AG/RES.2130**.*

*Alcalako Unibertsitateari, Garapenerako Laguntzarako Ekimen Zentroari, Iberoamerikako Herriaren Defendatzaileen erakundeei Laguntzeko Eskualde Programaren (PRADPI bezala ezagutua) esparruan garatutako jarduerengatik. Horrek, Europar Batasunaren, eta Nazioarteko Lankidetzako Espainiako*

Agentziaren babesa du. Bereziki, Virgilio Zapaterori, Alcala Unibertsitateko Errektorea; Manuel Guedan jaunari, Garapenerako Laguntzarako Ekimen Zentroko zuzendaria; eta Guillermo Escobar irakasleari, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko Giza Eskubideen inguruko txostenen koordinatzailea. Haurraren Eskubideen Batzordeari, eta horren Lehendakari Ordea den, Norberto Liwski-ri hain zuzen, Batzordeari eskainitako laguntzagatik haurtzaroari eta nerabezaroari buruz egindako lanetan.

### **ZORIONAK EMATEN DIZKIOGU:**

2003-2005 tarteko Kontseiluko Errektoreari, eta bertako lehendakaria den German Mundarain jaunari, Venezuelako Errepublika boliviarrako Herriaren defendatzaileari; eta lehendakari ordeei, horien artean, Carlos Lopez Nieves, Puerto Ricoko Hiritar Aske Elkartuaren Prokuradorea; Henrique Nascimento Rodrigues, Portugalgo Justizia zuzkitzailea; Manuel Maria Paez Monges, Paraguaiko Errepublikako Herriaren Defendatzailea; Beatrice Alamanni de Carrillo andreari, El Salvadorreko Errepublikako Giza Eskubideen Babeserako Prokuradorea; eta Maria Eugenia Avila andreari, Campecheko Estatuko (Mexiko) Giza Eskubideen Batzordeko Lehendakaria, guztiek, beren kudeaketa garaian, egin duten lanarengatik Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren sendotzean.

2005-2007 tarterako aukeratu zen Kontseilu Errektore berriari, Enrique Mugica Herzog jauna buru izanik; eta kide diren gainontzeko pertsoneri: Beatrice Alamanni de Carrillo, El Salvadorreko Errepublikako Giza Eskubideen Babeserako Prokuradorea; José Luis Soberanes, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren lehendakaria; Claudio Mueckay, Ekuadorreko Errepublikako Herriaren Defendatzailea; Manuel María Páez Monges, Paraguaiko Errepublikako Herriaren Defendatzailea; eta Alicia Pierini, Argentinako Errepublikako Buenos Aires Hiriko Herriaren Defendatzailea. Horiei guztiei ahalik eta arrakasta gehien opa dizkiegu.

Manuel María Páez Monges doktoreari, Paraguaiko Errepublikako Herriaren Defendatzaileari, eta erakunde horretako funtzionario guztiei, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak urtero egiten duen Batzordearen X. edizioa ezin hobeto antolatzeagatik, eta eskainitako harrera onarengatik.

Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtzari (UNICEF), Iberoamerikako haur eta nerabeen eskubideen babeserako zuzenduriko jardueretan laguntzeagatik. Andeetako Sustapen Korporazioari (CAF bezala ezaguna) eta Latinoamerikako eta Karibeko Giza Eskubideen Erakunde Nazionalen Funtz Berezitari, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren X. Biltzarra eta Batzar Nagusia egiteko eskaini duten laguntza baliotsuarengatik.”

Gainera, topaketa horretan bertan, Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarrak, honako adierazpen hau onartu zuen:

**“Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarrak Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren X. Biltzarrean onartutako adierazpena”**

Asuncionen, Paraguain, 2005eko azaroaren 15ean.

Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarra, Paraguaiko Errepublikako Asuncion hirian bildu da Iberoamerikako Ombudsmanen



Federazioen urteroko X. Biltzar eta Batzar Nagusian, 2005eko azaroaren 14tik 17ra bitartean, eta

GOGORATUZ 1997an Toledon eginiko urteroko Batzar Nagusiaren ohiko bilera, EMAKUMEEN DEFENTSARAKO ERAKUNDEEN SARE IBEROAMERIKARRA eratzea erabaki zela, Ombudsmanen erakundeen antolaketa, talde espezializatu bat egon zedin eskualdetako emakumeen giza eskubideak babestu eta sustatzeko. 1997. urtetik gaur arte, Sareak, defentsa erakunde ezberdinen bitartez, emakumeen giza eskubideen babes, zaintza, sustapen eta zabaltze helburuen betetzea sustatu du.

Quitoko Adierazpena BERRESTEN DUGU, bertan azpimarratu baitzen eskualdeetako defentsa elkarteak sendotzeko, eta emakumeen eskubideak babestu eta defenditzeko proiektu zehatzetarako, nazioarteko elkarlan tekniken garrantzia. Horretarako, beharrezkoa da Estatuek baliabideak mantentzea eta babesa bermatzea.

GOGORATUZ era berean, Quitoko Adierazpenean, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa eratzen duten Defentsa Erakundeetako, Prokuradoretzetako, justizi emaileen eta Batzordeetan emakumeen giza eskubideen babesaren alde lan egiten duten pertsonen segida ematea, profesionalizatzea eta espezializatzeak, eta hasitako prozesuak sendotzeak duten garrantzia azpimarratu zela.

ADIERAZIZ, oso arduratuta gaudela, Iberoamerikako Federazio hau eratzen duten Defentsarako Erakundeen aldetik ikusi ahal izan den laguntza eta elkartasun eza, Federazio honetako Emakumeen Sarearen bilera, ahalik eta baldintza egokienetan, egiteko garaian. Hala eta guztiz ere, eskerrak ematen dizkiogu Paraguaiako Herriaren Defendatzailearen erakundeari horixe egin ahal izateko emandako erraztasunengatik.

Elkartearen helburu eta funtzioekin bat eginez, Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarrak,

HONAKOA ERABAKITZEN DU:

BAT – Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren Batzar Nagusiari egindako eskaera ERREPIKATZEA, bertan Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarraren koordinazio taldeko ordezkari bat sartzeko, hitza eta botoarekin, eta erakunde horretan benetako partehartze demokratikoa bermatzeko. Era berean, ESKATZEN dugu Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren Estatutuen 15. artikulua betetzea, horrela, Kontseilu Errektorean genero ordezkapena zehaztu ahal izateko.

BI – Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren Kontseilu Errektoreari, Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarra ekonomikoki mantentzeko ESKATZEA, bere funtzionamendua modu iraunkor eta erregularran egiten dela bermatzeko.

HIRU – HO erakundeko Defentsa taldeei, Prokuradoretzei, justizia emailei, Batzordeei eta Komisarioei GOMENDATZEA erakunde bakoitzaren baitan Emakumeari bereziki zuzenduriko esparru bat eratzea, jada existituko ez balitz.

LAU – FIOko kide diren Herriaren Defendatzaile guztiei ESKATZEA, Estatu eta Gobernuari Emakumeen Aurkako Diskriminazio Modu Guztien Deuseztatpenarako Biltzarrean onartutako Borondatezko Protokoloa berretsi eta onartzeko eskatzeko, jada gertatu ez den herrialdeetan.

*BOST – Latinoamerikako hainbat herrialdetan dauden emakume hilketak ONARTZEA eta FIOko kide diren Herriaren Defendatzaileei ESKATZEA beren Estatu eta Gobernuai emakumeen aurkako delituak saihesteko politika publikoak ezartzeko eskatzeko, eta horrelako delituak egiten dituztenek dagozkien zigorrak bete ditzaten baieztatzeko.*

*SEI – Generoan oinarritzen den indarkeria indarrik gabe uzteko, aurre hartzeko, zigortzeko eta deuseztatzeko esfortzuak bikoizteko ESKATZEA, eta Belem do Parako Konbentzioko helburuak ezartzeko etengabeko jarraipen sistematikoa egitea. ZAZPI – FIOko kide diren Defentsa Erakundeei, Prokuradoretzei, justizia emailei eta Batzorde eta Komisario Nazionalai ESKATZEA estatuko, probintzietako, eskualde-autonomietako eta herrietako erakundeei (horrelako erakundeak dauden herrialdeetan) generoaren gaiarekin lotura duen informazio guztiaren berri ematea.*

*ZORTZI – FIOko kide diren Defentsa Erakundeei, Prokuradoretzei, justizia emailei, Batzorde eta Komisario Nazionalai PROPOSATZEA, eginbehar guztietan, eta Federazio honen Bilkuretan garatutako gai ezberdinetan, generoaren ikuspegiari instituzio izaera ematea eta horietan sartzea.*

*BEDERATZI – Federazio hau OHARTARAZTEA bertako kideek behar diren neurriak hartu ditzaten hurrengo jardute hauei aurre hartzeko eta horiek desagerrarazteko: pertsonen salerosketa eta trafikoa, eta haur asko –eta, batez ere, neskak– kaltetzen dituen sexu esplotazioa.*

*HAMAR – Federazio honek duen garrantzia eta indar moral guztia lehenbailehen erabiltzeko ESKATZEA, haurrak gerrillari taldeetan, indar-armatuetan eta talde paramilitarretan ez daitezen sartu, batez ere, Kolonbia kaltetzen duen gatazka armatuaren esparruan.*

*HAMAIIKA – HO erakundeko Defentsa taldeen, Prokuradoretzen, justizia emaileen, Batzordeen eta Komisarioen kide direnei ESKATZEA esfortzua bikoiztea beren Gobernuai eskatzeko politika publikoak ezartzeko haurrek hezkuntza sistemara iristeko eta bertan egoteko aukera izan dezaten, eta batez ere, nesken kasuei arreta berezia emanez, horiek baitira etxeko-lanak egiten, anai-arrebak edo beste senide batzuk zaintzen geratu ohi direnak, haurdunaldi goiztiarrak izaten dituztenak edo GIB/HIESarekin kontagiatzeko arrisku egoerak izaten dituztenak, besteak beste.*

*HAMABI - HO erakundeko Defentsa taldeen, Prokuradoretzen, justizia emaileen, Batzordeen eta Komisarioen kide direnei JAKINARAZTEA Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikar honek, Valentziako Erkidegoko Sindic de Greuges defendatzailearekin laguntzarekin, Genero Eskubidei buruzko Foro Publikoa eta Prestakuntza Biltzarra egingo dituela Federazio honen urteroko Bilkura eta Batzarrean. Horretarako, bertako kide den erakunde bakoitzari laguntza eskatzen diegu topaketa hori behar bezala gauzatuko dela bermatzeko.*

*Guzti hau, Emakumeen Defentsarako Erakundeen Sare Iberoamerikarra erazten duten ordezkariak sinatzen dute Asuncionen, 2005eko azaroaren 17an”.*

Azkenik, FIOk urtero egiten duen batzarrean zuzendaritza karguen berrespena egin zuen, eta Enrique Mugika Herzog jauna, Espainiako Herriaren Defendatzailea, aukeratu zuten lehendakari.

## 2.3. KATALUNIako SÍNDIC DE GREUGES LEGEAREN 20. URTEURRENEKO OROIPEN JARDUNALDIEN ZIKLOA

Síndic de Greuges deritzonak eta Kataluniako Parlatuentuak, 2005ean, jardunaldien zikloa antolatu zuten, Síndic de Greugesi buruzko martxoaren 20ko 14/1984 Legearen 20. urteurrenaren ondorioz; lege hori, berriz, Kataluniako Autonomia Estatutuak ezarritakoa betetzeko onetsi zen.

Legearen hogeit urteko indarraldian, Síndic de Greuges herritarren defentsarako erakundetzat finkatu da; horren jarduketa, gainera, babesik gutxieneko taldeen eskubideetarantz bideratu da. Lan horren garapenean, lagungarria izan da herritarren eskubideak orokorrean babesteko.

Jardunaldi ziklo hau hiru une desberdinetan egituratu zen eta, horietan, Ombudsmanen irudiaren inguruko hausnarketa egin zen, ikuspegi desberdinetatik.

Síndic de Greugesi buruzko Legearen 20. urteurreneko bigarren jardunaldia Ombudsmaneko erakundeen esku-hartze bideen azterketan oinarritu zen, eta horren helburua pertsonen eskubideak bermatzea izan zen, oraingo gizarteetako arazo sorberriei zegokienez.

Azterturiko eta eztabaidaturiko arazo berriek lehentasuna izan behar dute Ombudsmaneko erakundeetan, bai arazoen larritasuna, bai eraginpeko pertsona kopurua edo bai gizartean arazo horiei dagokienez dagoen jabetzea kontuan hartuta.

Ombudsmaneko erakundeak jarduketa moduak beste modu batera formulatzen ari dira; gainera, jardunaldi hauetan, biztanleriaren zahartzea eta inmigrazio berria aztertu ziren; izan ere, horiek, beste faktore batzuekin batera, lagungarriak izan dira gizartearen barruko pobrezia eta bazterkeria berriko egoerak areagotzeko, eta horrela, euren eskubideen defentsa handiagoa behar duten talde oso ahulak sortu dira.

Jardunaldi hauetan, pertsona guztien gaineko eragin berbera duten eskubideak bermatzeko jarduketetan sakondu zen, batez ere, kutsadura akustikoan eta zerbitzu publikoen pribatizazioan.

Gai guztiak aztertzeko, bilkurak mahai-ingurutan antolatu ziren eta mahai bakoitzean arloko aditu bat (ikuspegi teknikoagoa lortzeko) eta bi defendatzaile zeuden, eta horiek ikuspegi praktikoagoa eskaini zuten; mahaien moderatzaileak, bestalde, Síndic de Greuges de Catalunya deritzonoko Batzordeko talde parlamentarioetako bozeramaileak izan ziren.

Arartekoak parte hartu zuen mahai horietariko batean, eta “Gizarte pobrezia eta bazterkeriako forma berriak” deritzonari buruzko txostena aurkeztu zuen; bertan, Ararteko erakundeak gizarte arloan garaturiko jarduketa planteatzeaz gain, EAEko gizarte bazterkeriako egoerak detektatu eta horri emandako erantzunak aztertu zituen; izan ere, politika sozialak azaldu eta jarduketa sozialeko mekanismoak aztertu zituen, adibidez, gizarte eskubideetan jasotako oinarritzko errenta (Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 27ko 10/2000 Legea).

## **2.4. ARARTEKOA ASTURIASEKO PRINTZERRIKO BATZA NAGUSIAN EGINDAKO HITZALDIA, PROKURADORE NAGUSIAREN LEGE PROIEKTUARI BURUZKOA**

2005eko irailaren 13an, Arartekoa Asturiaseko Printzerriko Batza Nagusiko Justizia, Segurtasun Publiko, Kanpo Harreman eta Presidentziako Batzordean egon zen (Asturiaseko Parlamentua), Asturiaseko Printzerriko Prokuradore Nagusiaren Lege Proiektuari buruz hitz egiteko.

Hitzaldi horretan, Arartekoak, herritarren eskubideak defendatzen dituen erakunde autonomiko baten barruko esperientzian oinarrituz, azterturiko lege Proiektuari buruzko iritzia azaldu eta zorionak eman zituen, Prokuradore Nagusiaren irudia sortzeagatik, Parlamentu Autonomiko horretako Goi Komisariorat.

Berme organo hori autonomia erkidego batzuetako erakunde egitura sartzan ari da: Asturiaseko Printzerria, Andaluzia, Aragoi, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Gaztela-Leon, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Galizia, Nafarroa eta EAE.

Erakunde hori oraindik ere martxan jarri ez duten gainerako autonomia erkidego ia guztiek araz jasota dute, Autonomia Estatutuan edo eraketa arauetan.

Horixe gertatzen da Kantabrian, Extremaduran, Balearretan edo Errioxan.

Madriko Autonomia Erkidegoan komisario parlamentario sektoriala dago: Madrileko Autonomia Erkidegoko Adin Txikikoaren Defendatzailea.

## **2.5. LEHENENGO ARARTEKOA IZANDAKO JUAN SAN MARTÍN ORTIZ DE ZARATERI EGINDAKO OMENALDIA**

Lehenengo Arartekoa izandako Juan San Martín Ortiz de Zarate maiatzaren 30ean hil zen; berak jarri zuen martxan (abiatutako edozein proiekturen berezko zailtasun guztiekin) orain finkapen handikoa den Ararteko erakunde hau.

2005eko azaroaren 21ean, egintza bat egin zen Juan San Martín oroitzeko, eta bertan, EAEko erakundeetako eta kulturako ordezkari askok hartu zuten parte. Halaber, lehenengo defendatzaile autonomikoak ere bertan egon ziren.

Emilio Gastón, Aragoiko lehenengo justizia; José Luis Lizundia euskaltzaina; Iñaki Arriola, Eibarreko alkatea; Miren Azkarate, Kultura sailburua; Izaskun Bilbao, Eusko Legebiltzarreko presidentea; Iñigo Lamarca, Arartekoa; eta hildakoaren familia. Horiek guztiek Juan San Martínen irudia azaldu zuten alderdi pertsonalean, instituzionalean eta kulturean.



## VII. KAPITULUA

# **ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN**





## 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Atal honetan zehar Arartekoak burutzen duen jardueraren ikuspegi orokorra bilduko dugu Beraz, hurrengo orrialde hauetan honako gaiak bildu eta aztertu ditugu xehetasun osoz: aurkeztutako erreklamazio kopuruaren gaineko zifrak, kexak zein administrazioen aurka jarri diren, kexen gaikako arloak zeintzuk diren, aipatutako kexak lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan aurkitzen diren. Gainera, azterketa soziologikoaren bidez, erreklamatzeko moduak, erabilitako hizkuntza, erreklamazioa aurkezteko erabili den bidea (arreta zuzeneko bulegoetara etorrita, Internet bidez, ...), erreklamaziorik gabeen adina, haien jatorria, etab. jakingo ditugu. Beraz, Ararteko erakundearen jarduerari buruzko kopuruak xehetasun osoz kontsulta daitezke kapitulu honetan, baina jarraian honako hiru alderdiak azpimarratuko ditugu: erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioari esker, haren eta herritarren artean sortzen den harremana; erakundearen eraginkortasun-maila; eta erreklamaziorik gabeen Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

2005. urtean 4.065 kontsulta izan ziren, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein gure bulegoetara bertaratu diren pertsonenak. Arartekoaren arreta zuzeneko hiru bulegoetan 2.419 bisita egin dira. Jasotako bisita guztietatik 640 kexa burutu dira, hau da, % 26,46. Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia agerian uzten du –arrazoi batengatik edo besteagatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ez onartzean–. Gainera, Internet herritarrek erreklamazioak jartzeko duten bide gisa sendotu da eta erakundearen web orriaren bidez aurkeztutako erreklamazioen kopurua hazten doa urterik urtera ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)). 2005. urtean, erreklamazioen % 28,86 erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu.

Kexen kopuruari dagokionez, 2005ean, herritarrek guztira 1.459 erreklamazio aurkeztu dizkiote Arartekoari eta kexa batzuek hainbat sinaduraren babesa izan dute. Kexen % 10,42 kolektiboren batek aurkeztu ditu. Gainera, ofiziozko 42 espedienteri eman zaie hasiera.

2005. urtean bertan erabat tramitatu diren kexei dagokienez, 409 kasutan irregulartasunak antzeman dira, hau da, aztertu diren banakako edo taldekako kexen % 37,39tan. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak zuzendu ahal izan zituen, irregulartasunen bat agertu zuten erreklamazioen % 95,96tan. Gainera, kasu gehienetan (% 95,79) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea. Hortaz, erakundearen eraginkortasun-maila oso ona dela ikus daiteke.

Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkestak emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso edo nahiko positibotzat jotzen da (galdera-sorta erantzuten dutenen % 87,92ren ustez). Euren arazoa konpondu ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso dutenen

pertsonen ere balorazio oso positiboa egin dute (% 79,41). Erakunde honetara jo duten pertsona gehienek, % 92,76k, adierazi dutenez, beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia azpimarratu dugu, bulegoetan ez direlako onartzen hainbat arrazoiengatik Arartekoak ikertu ezin dituen kasuak. Horregatik, 2004ko urtarriletik gure bulegoetara bertaratzen diren pertsonen eskatzen diegu erakundera egindako bisitan jaso dituzten arreta eta informazioari buruzko balorazioa eta iradokizunak helarazteko, beren borondatez eta izena agertu gabe. Betetako galdetegietako datuak laburbilduz, herritarren % 95,83k bisitan eskuratutako informazioa ona edo oso ona izan dela uste dutela ikusi dugu.

### **Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila**

	%	%
<b>Konpondutako irregulartasuna</b> .....		95,96
Gomendiorik gabe .....	95,79	
Gomendioa onartuta .....	4,21	
<b>Konpondu gabeko irregulartasuna</b>		
(gomendioa ez da onartu) .....		4,04

(Ikusi 2. diagrama eranskinean)

2005. urtean aurkeztutako 1.459 erreklamazioetatik 1.093ren tramitazioa onartu da, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Taldeek (ekologistek, auzo elkarteek eta abarrek) % 10,42 aurkeztu dituzte.

#### **- Jasotako kexak**

Arestian esan dugunez, 2005ean guztira 1.459 kexa jaso dira, eta horietako batzuk hainbat sinaduraren babesarekin etorri dira, esate baterako, guraso talde batek aurkeztutakoa ikastetxe bateko plaza kopurua handitzeko.

**Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 - 2005)**

<b>Urtea</b>	<b>Kop.</b>
1989 .....	585
1990 .....	1.159 <sup>1</sup>
1991 .....	766
1992 .....	1.781
1993 .....	827
1994 .....	747
1995 .....	1.164
1996 .....	1.674
1997 .....	1.991
1998 .....	2.660 <sup>2</sup>
1999 .....	1.283 <sup>3</sup>
2000 .....	1.231
2001 .....	1.513 <sup>4</sup>
2002 .....	1.253
2003 .....	1.377
2004 .....	1.531
2005 .....	1.459

<sup>1</sup> 545ek kexa berdinen multzoa osatzen dute.

<sup>2</sup> 1.143k kexa berdinen 2 multzo osatzen dute.

<sup>3</sup> 62k kexa berdinen multzo bat osatzen dute.

<sup>4</sup> 264k kexa berdinen 2 multzo osatzen dute.

(Ikusi 3. diagrama eranskinean)

### - **Onartu gabeko kexak**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 21. artikulua aditzera ematen ditu herritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2005. urtean guztira zenbatutako artean, lehenengo eta behin, hainbat arrazoiengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko arazoa izateagatik, auzitegian planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo geratzeagatik.

Nolanahi ere, erreklamazioei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko politika mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauetara herritarrek aurkeztutako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du herritarrei gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

### ***Onartu gabeko kexak eta egoerak***

Norbanakoen arteko auzia .....	62
Eskumen eremutik kanpo .....	48
Irregularitasunik ez nabaria .....	46
Epai bidean .....	31
Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik.....	23
Legezko epeen zain egon beharra .....	12
Izenik gabe aurkeztu da.....	11
Forma akatsa.....	7
Urtebetetik gora igaro da .....	4
Interes legitimorik eza.....	1
<b>Guztira.....</b>	<b>245</b>

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

#### **- Estatuko Herri Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak**

Badira Estatuko Administrazioaren jardueraren aurkako kexak, Ararteko erakundeak zuzenean tramitatzen ez dituenak, administrazio hori ez dagoelako erakunde honen kontrolpean. Erreklamazio horiek Estatuko Herri Defendatzailearengana bideratzen dira. Gainera, kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkariengana bideratzen dira, horien eskumenpean dauden administrazio publikoei buruzkoak direnean.

2005ean 71 erreklamazio Estatuko Herri Defendatzaileari bidali dizkiogu eta beste 5 beste defendatzaile batzuei.

Estatuko Herri Defendatzaileari bidalitako kexak .....	71
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak.....	5

#### **- Zenbait gestio eragin dituzten kexak**

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazio baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak. Horiek, estatistiken aldetik bereizita zenbatzen dira. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat gestio egin behar izan dituguneko kexak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. 2005. urtean 39 jaso ditugu.

Zenbait gestio eragin dituzten kexak.....	39
---	----

#### **- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko era**

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduketek eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa kopurua handia izatea estu lotuta

dagoela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaren gainean duten iritzi txarrarekin, akatsak, gehiegikeriak, edo legea betetzen ez duten jarduketak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da kexa kopuruaren interpretazioari buruz azal dutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela, *a priori* administrazio jakin baten jarduketak eragindako kexa kopurua esanguratsua bada ere, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egiteko betebeharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

## 2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei lotutako gaikako arloen arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu, aurreko ekitaldiaren aldean, 2005. urtean aldaketa batzuk egon direla arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Esate baterako, Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan izandako kexen kopuruak behera egin du, aurreko urtean Donostiako hainbat establezimendutan egindako berritze-lanei dagokienez irisgarritasun araudia ez betetzearen ondorioz jarritako erreklamazio kopuru garrantzitsua izan zelako.

### *Zuzenean bideraturiko kexen banaketa, jarduera eremuka*

	<b>Jasotako kexak</b>	<b>%</b>
Hirigintza eta Etxebizitza.....	187	17,10
Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	160	14,63
Hezkuntza .....	115	10,52
Funtzio publikoa .....	106	9,70
Osasuna.....	98	8,97
Gizarte Ongizatea .....	93	8,51
Ogasuna .....	84	7,69
Herrizaingoa.....	81	7,41
Ingurumena .....	78	7,14
Justizia.....	40	3,66
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	25	2,29
Kultura eta Elebitasuna .....	19	1,74
Lana eta Gizarte Segurantzia .....	7	0,64
<b>Guztira.....</b>	<b>1.093</b>	<b>100</b>

(Ikusi 5. diagrama eranskinean)

### **- Kexen sailkapena azpiarloka**

2005ean jasotako kexak gaika aztertuz gero, gaikako arlo bakoitzean egon diren aldaketetan azpiarlo bakoitzak duen eragina ikusten da (Ararteko erakundeak gaikako arlo horietan sistematizatzen du bere lana).

### *Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpiarloen arabera*

<b>Hirigintza eta Etxebizitza.....</b>	<b>187</b>
Etxebizitza .....	87
Hirigintza-diziplina eta Aurria .....	52
Irisgarritasuna .....	14
Hirigintza antolamendua .....	14
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	12
Hirigintza kudeaketa .....	6
Beste batzuk .....	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1

<b>Herri Lanak eta Zerbitzuak</b> .....	<b>160</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	43
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	39
Tokiko zerbitzu publikoak.....	24
Obrak burutzea .....	13
Obra proiektuak.....	9
Garraioa.....	9
Nahitaezko desjabetzea .....	6
Beste batzuk .....	6
Beste zerbitzu publiko batzuk.....	5
Errepideak eta landa bideak.....	4
Irisgarritasuna .....	2
<b>Hezkuntza</b> .....	<b>115</b>
Eskubideak eta betebeharrak .....	71
Unibertsitateko irakaskuntza.....	12
Haur hezkuntza.....	8
Ikastetxeak .....	7
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	6
Arte irakaskuntzak.....	4
Bekak eta beste laguntza batzuk.....	2
Derrigorrezko bigarren hezkuntza .....	2
Hezkuntza berezia .....	1
Lanbide heziketa .....	1
Beste batzuk .....	1
<b>Funtzio publikoa</b> .....	<b>106</b>
Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoa .....	40
Funtzio publiko orokorra.....	36
Osasunaren alorreko funtzio publikoa.....	20
Poliziaren alorreko funtzio publikoa.....	7
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1
<b>Osasuna</b> .....	<b>98</b>
Erabiltzaileen eskubideak.....	47
Osasun laguntza .....	23
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	13
Buruko osasuna .....	7
Beste batzuk .....	4
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	3
Osasun publikoa.....	1

<b>Gizarte Ongizatea</b> .....	<b>93</b>
Diruzko gizarte prestazioak.....	32
Haur eta gazteei laguntza .....	18
Nagusiei laguntza .....	16
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	10
Babes bereziko taldeei laguntza.....	7
Familiari laguntza .....	2
Emakumeei laguntza.....	2
Ezgaituei laguntza.....	2
Eskubideak eta askatasunak.....	2
Beste batzuk .....	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1
<b>Ogasuna</b> .....	<b>93</b>
Foru zergak, PFEZ .....	18
Udal zergak .....	18
Beste batzuk .....	13
Udal tasak .....	13
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	12
Udal prezio publikoak .....	5
Foru prezio publikoak .....	3
Foru zergak, OEZ.....	1
Prezio publikoak - EAE .....	1
<b>Herrizaingoa</b> .....	<b>81</b>
Trafikoa.....	45
Eskubideak eta askatasunak.....	14
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	9
Herritarren segurtasuna .....	5
Jokoak eta ikuskizunak .....	3
Atxiloketa zentroak.....	2
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	2
Beste batzuk .....	1
<b>Ingurumena</b> .....	<b>78</b>
Etxebizitzetarako lurzoruan sailkatutako jarduerak.....	49
Ingurumenaren gaineko afekzioak.....	17
Industriarako lurzoruan sailkatutako jarduerak .....	4
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	3
Lurzoru urbanizaezinean sailkatutako jarduerak .....	2
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	2
Hondakinak eta isurketak.....	1



<b>Justizia</b> .....	<b>40</b>
Espetxe gaietako jarduerak.....	23
Justizia adm. funtzionamendua .....	8
Abokatu eta prokuradore elkargoak .....	4
Adin txikiko arau-hausleak .....	2
Beste batzuk .....	2
Justizia adm. baliabide pertsonal eta materialak.....	1
<b>Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa</b> .....	<b>25</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	10
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza.....	5
Animalien babesa .....	4
Kontsumoa .....	3
Merkataritza.....	1
Industria .....	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1
<b>Kultura eta Elebitasuna</b> .....	<b>19</b>
Elebitasuna .....	6
Jarduera kulturalak .....	4
Beste batzuk .....	3
Kirola.....	2
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	2
Ondare kulturala .....	1
Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. prozedura .....	1
<b>Lana eta Gizarte Segurantzza</b> .....	<b>7</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	5
Lana .....	2

### 3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Administrazio bakoitzari adituz, 2005. urtean kexa kopururik handiena jaso duena toki Administrazioa izan da, guztira bideratutako kexen ia erdia (% 47,29, administrazio bakoitzari eragiten dioten kexen proportzioaren arabera. Horrek esan nahi du kexa kopurua pixka bat jaitsi dela 2004. urtearen aldean, oso nabarmena izan ez arren, orduan % 50eko portzentajea zenbatu baitzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexak % 35,05 izan dira 2005. urtean, 2004. urtean, aldiz, % 34,96.

Foru administrazioak, bere aldetik, guztira aurkeztutako kexetatik % 12,62 eragin ditu.

Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez duela irregulartasunik egin dutenik esan nahi, haren jardueraren bat kexa gai izan dela baizik.

#### **Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Toki administrazioa .....	506	47,29
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	375	35,05
Foru administrazioa .....	135	12,62
Estatuko administrazioa .....	27	2,52
Erakunde publikoak .....	21	1,96
Justizia .....	6	0,56
Guztira .....	1.070	100

(Ikusi 6. diagrama eranskinean)

#### **A) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak**

##### **- Banaketa arloka**

Uste izatekoa denez, Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan egon da kexa kopururik handiena: Osasuna, Hezkuntza, Funtzio Publikoa, Herrizaingoa, eta Hirigintza eta Etxebizitza.

**Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza)  
aurka aurkeztutako kexen banaketa arloka**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Osasuna .....	96	25,6
Hirigintza eta Etxebizitza.....	64	17,1
Hezkuntza .....	61	16,3
Funtzio publikoa .....	58	15,5
Herrizaingoa.....	21	5,6
Ogasuna .....	13	3,5
Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	13	3,5
Kultura eta Elebitasuna .....	11	3
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	10	2,6
Gizarte Ongizatea .....	10	2,6
Ingurumena .....	7	1,8
Lana eta Gizarte Segurantza .....	6	1,6
Justizia.....	5	1,3
<b>Guztira.....</b>	<b>375</b>	<b>100</b>

(Ikusi 7. diagrama eranskinean)

**- Sailen arabera banaketa**

Sailen arabera, Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila dira erreklamaziorik gehien jasotzen dutenak, eta atzetik Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak datoz.

**Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza)  
aurka aurkeztutako kexen banaketa sailaren arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Osasuna .....	120	32
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila	84	22,4
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak .....	73	19,5
Herrizaingoa.....	31	8,3
Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza	20	5,3
Garraioak eta Herri Lanak .....	10	2,7
Kultura.....	10	2,7
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	9	2,4
Ogasuna eta Administrazio Publikoa .....	7	1,9
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena..	5	1,3
Nekazaritza eta Arrantza.....	5	1,3
Lehendakariordetza.....	1	0,2
<b>Guztira.....</b>	<b>375</b>	<b>100</b>

(Ikusi 8. diagrama eranskinean)

## B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak

### - Banaketa lurraldeka

2005ean, Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundien aurka aurkeztutako erreklamazio kopurua berdindu egin da, kexen % 40,74 % eta % 40, hurrenen hurren. Erreklamazioen % 19,26 zuzendu da Arabako Foru Aldundiaren aurka.

#### *Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa lurraldearen arabera*

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	55	40,74
Bizkaiko Foru Aldundia.....	54	40
Arabako Foru Aldundia.....	26	19,26
<b>Guztira.....</b>	<b>135</b>	<b>100</b>

(Ikusi 6. diagrama eranskinean)

### - Banaketa arloka

Gizarte Ongizatea, Ogasuna eta Herri Lanak dira foru administrazioen aurka jasotzen diren kexa gehien eragiten duten arloak, orain arte bezala.

#### *Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera*

	<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Gizarte Ongizatea .....	10	17	22	49	36,3
Ogasuna .....	3	11	15	29	21,48
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	3	18	6	27	20
Nekazaritza, Industria					
Merkataritza eta Turismoa .....	3	3	2	8	5,92
Ingurumena.....	2	2	3	7	5,19
Funtzio publikoa .....	4	1	2	7	5,19
Hirigintza eta Etxebizitza .....	-	-	4	4	2,96
Kultura eta Elebitasuna.....	-	1	1	2	1,48
Osasuna.....	-	1	-	1	0,74
Herrizaingoa .....	1	-	-	1	0,74
<b>Guztira .....</b>	<b>26</b>	<b>54</b>	<b>55</b>	<b>135</b>	<b>100</b>

(Ikusi 9. diagrama eranskinean)

### C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak

#### - Banaketa lurraldeka

Bizkaiko lurraldeko udalen aurka jarri dira kexarik gehien, toki Administrazioaren aurka guztira jasotakoetatik % 49,21, eta 2004. urtean baino ia 5 puntu gehiago. Gipuzkoako udalen aurka bideratutako kexek behera egin dute nabarmen; izan ere, aurten, % 29,45 izan dira, eta iaz, % 38,61 izan ziren. Beherakada hori pertsona ezgaituen elkarte batek 2004an erreklamazioak aurkeztu zituelako izan da, Donostian hainbat establezimendutan egindako berritze-lanei dagokienez irisgarritasun araudia ez betetzearen ondorioz.

Kexen % 17,59 Arabako udalen aurka aurkeztu ziren.

Kexa gehien jaso duten udalerrak Bilbo (62), Gasteiz (62) eta Donostia (46) izan dira. Horrez gain, Bizkaiko Getxo (21), Barakaldo eta Portugalete eta Gipuzkoako Irun izan dira kexa kopuru esanguratsua izan duten herriak.

#### ***Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa***

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bizkaiko udalak.....	249	49,21
Gipuzkoako udalak.....	149	29,45
Arabako udalak.....	89	17,59
Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak .....	9	1,78
Arabako administrazio batzarrak.....	8	1,58
Gipuzkoako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak .....	2	0,39
Guztira.....	506	100

**Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzarren aurka  
aurkeztutako kexak**

<b>Arabako udalak</b>	<b>Kop.</b>
Vitoria-Gasteiz.....	62
Zigoitia .....	4
Iruña Oka / Iruña de Oca .....	4
Amurrio.....	3
Llodio.....	3
Legutiano .....	2
Aramaio .....	2
Ayala / Aiara .....	1
Baños de Ebro / Mañueta .....	1
Campezo / Kanpezu.....	1
Artziniega .....	1
Labastida .....	1
Lagrán.....	1
Zuia.....	1
Okondo .....	1
Valdegovia .....	1
Guztira .....	89

<b>Arabako administrazio batzarrak</b>	<b>Kop.</b>
Beotegi.....	1
Elosu .....	1
Etxabarri Ibiña .....	1
Legutiano .....	1
Markina .....	1
Ocio .....	1
Respaldiza.....	1
Santa Cruz de Campezo.....	1
Guztira .....	8

<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>
Bilbao .....	62	Ondarroa .....	2
Getxo .....	21	Orduña .....	2
Barakaldo .....	20	Ortuella .....	2
Portugalete .....	16	Ugao-Miraballes.....	2
Durango .....	12	Zaratamo .....	2
Santurtzi .....	10	Abadiño.....	1
Galdakao .....	6	Arcentales.....	1
Elorrio .....	5	Arrankudiaga .....	1
Leioa.....	5	Arrigorriaga .....	1
Sopelana .....	5	Bakio.....	1
Amorebieta-Etxano .....	4	Balmaseda .....	1
Basauri .....	4	Barrika .....	1
Bermeo .....	4	Bedia.....	1
Carranza.....	4	Berango.....	1
Etxebarria .....	4	Ea .....	1
Gorliz .....	4	Ermua .....	1
Sestao .....	4	Galdames.....	1
Erandio.....	3	Ibarrangelu.....	1
Güeñes .....	3	Igorre .....	1
Mungia .....	3	Iurreta .....	1
Valle de Trápaga-Trapagaran	3	Maruri-Jatabe .....	1
Abanto y Ciérvana-		Orozko .....	1
Abanto Zierbena.....	2	Otxandio.....	1
Derio .....	2	Plentzia.....	1
Gernika-Lumo .....	2	Trucios-Turtzioz .....	1
Lekeitio .....	2	Urduliz.....	1
Meñaka .....	2	Zalla .....	1
Muskiz .....	2	Zierbena .....	1
Muxika .....	2		
		Guztira .....	249

<b>Gipuzkoako udalak</b>	<b>Kop.</b>
Donostia-San Sebastián.....	46
Irun .....	11
Zarautz .....	8
Arrasate/Mondragón .....	7
Pasaia.....	6
Aduna .....	4
Hondarribia.....	4
Lasarte-Oria .....	4
Lezo .....	4
Oiartzun .....	4
Ordizia.....	4
Orio .....	4
Astigarraga .....	3
Eibar .....	3
Legazpi.....	3
Azkoitia .....	2
Bergara .....	2
Hernani .....	2
Lazkao.....	2
Urnieta.....	2
Zumarraga .....	2
Aia.....	1

<b>Gipuzkoako udalak</b>	<b>Kop.</b>
Alegia.....	1
Anoeta .....	1
Antzuola .....	1
Aretxabaleta.....	1
Azpeitia .....	1
Beasain.....	1
Deba .....	1
Elgoibar .....	1
Errenteria.....	1
Eskoriatza .....	1
Ezkio-Itsaso .....	1
Getaria .....	1
Ibarra .....	1
Idiazabal.....	1
Irura .....	1
Mendaro .....	1
Mutriku.....	1
Olaberria .....	1
Oñati.....	1
Ormaiztegi.....	1
Soraluze-Placencia de las Armas	1
Guztira .....	149



**- Banaketa arloka**

Ohi bezala, toki administrazioen jarduketek eragindako kexak berdin antzera banatzen dira arlo guztien artean, udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean, alegia.

***Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera***

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	27	70	32	129	26,06
Hirigintza eta Etxebizitza .....	12	60	44	116	23,43
Ingurumena.....	12	28	27	68	13,74
Herrizaingoa .....	14	34	13	61	12,32
Gizarte Ongizatea .....	17	15	6	38	7,68
Ogasuna .....	8	18	11	37	7,47
Funtzio publikoa .....	2	8	7	17	3,43
Kultura eta Elebitasuna.....	1	5	4	10	2,02
Nekazaritza, Industria Merkataritza eta Turismoa .....	3	5	1	9	1,82
Hezkuntza.....	-	4	4	8	1,62
Lana eta Gizarte Segurantzza .....	-	1	-	1	0,20
Osasuna.....	-	1	-	1	0,20
<b>Guztira .....</b>	<b>97</b>	<b>249</b>	<b>149</b>	<b>495</b>	<b>100</b>

(Ikusi 10. diagrama eranskinean)

***Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak***

	Guztira
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa .....	4
Mebisa – Bilboko Metroa .....	3
Txingudiko Zerbitzuak .....	2
Busturialdeko Uren Partzuergoa .....	1
Arratiako Mankomunitatea .....	1
<b>Guztira.....</b>	<b>11</b>

**D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak**

Udal, aldundi zein Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, Ararteko erakundearen ikerkuntza esparruaren barruan dauden beste administrazio batzuen aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira. Herri erakunde zein organismoen, elkargoen eta

abarren aurkako kexak dira. Atal honetan, era berean, Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere jasotzen dira, Arartekoak modu informalean ikertu dituenak, nahiz eta jakin badakigun Estatuko administrazioaren jarduera gure erakundearen kontrol eremutik kanpo dagoela.

### ***Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka aurkeztutako kexak***

	<b>Guztira</b>
Hezkuntza .....	11
Funtzio publikoa .....	2
Guztira.....	13

### **E) Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioaren zerbitzu administratiboen aurka aurkeztutako kexak**

Ararteko erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikulua dioenez, justizia Administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Eusko Legebiltzarrean lehenago aurkeztu diren txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, EAeko Auzitegi Nagusiko lehendakariari edo, bestela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako gestioen berri eman diezaioten.

2005. urtean 6 erreklamazio bideratu dira, justizia Administrazioak EAEn dituen administrazio zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez; iaz, aldiz, 2 izan ziren.

---

Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioaren zerbitzu administratiboen aurkako kexak .....	6
--	---

---

#### 4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Aurreko urteetan bezala, kexa kopururik handiena, guztira 712, aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrek izan dira, iazkoaren aldean gorabehera nabarmenik gabe. Gipuzkoan 412 aurkeztu dira eta Araban 275.

##### *Kexen lurralde banaketaren bilakaera jatorriaren arabera*

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
1989 .....	288	188	97
1990 .....	828 (284) <sup>1</sup>	195	125
1991 .....	293	244	158
1992 .....	332	241	201
1993 .....	376	250	182
1994 .....	349	234	160
1995 .....	528	281	328
1996 .....	746	448	446
1997 .....	915	663	371
1998 .....	1.471 (764) <sup>2</sup>	905 (471) <sup>3</sup>	244
1999 .....	649	372 (311) <sup>4</sup>	237
2000 .....	645	295	256
2001 <sup>5</sup> .....	651	375	444
2002 .....	643	294	268
2003 .....	646	318	322
2004 .....	730	457	271
2005 .....	712	412	275

<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 11. diagrama eranskinean)

##### **- Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko**

Lurralde historikoen banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazioen kopuru absolutua lurralde horretako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanle multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak bildu ditugu.

**Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko**

	<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>
1989 .....	4,3	3,3	3
1990 .....	4,5	7,87 (2,7) <sup>1</sup>	2,9
1991 .....	5,8	3,6	2,5
1992 .....	7,4	3,5	2,8
1993 .....	6,7	3,7	3,3
1994 .....	5,9	3,5	3
1995 .....	11,59	4,54	4,11
1996 .....	15,92	6,55	6,66
1997 .....	13,24	8,03	9,77
1998 .....	8,37	12,95 (6,73) <sup>2</sup>	13,30 (6,93) <sup>3</sup>
1999 .....	8,37	5,74	5,56 (4,64) <sup>4</sup>
2000 .....	8,97	5,77	4,42
2001 <sup>5</sup> .....	15,56	5,7	5,53
2002 .....	9,37	5,73	4,37
2003 .....	11,24	5,75	4,71
2004 .....	9,46	6,50	6,77
2005 .....	9,6	6,34	6,11

<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikusi 12. diagrama eranskinean)

**- Kexen banaketa lurralde bakoitzean**

Herritarren jokabidea ez da berdina kexen egileak non bizi diren begiratzen badugu, hau da, hiriburuan ala lurraldeko gainerako udalerrietan. Araban, erreklamazioetatik % 71,12 Gasteizen bizi diren pertsonak jarri dituzte, eta gora egin dute Arabako beste udalerrri batzuetan bizi diren herritarrek Arartekoari aurkeztutako kexek (% 28,88 aurren; 2004. urtean, aldiz, % 18,08 izan ziren) Bizkaian % 33,71 Bilbon bizi direnek eta Gipuzkoan % 36,39 Donostian bizi direnek aurkeztu dituzte.

**Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta**

<b>Araba</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Vitoria-Gasteiz .....	197	71,12
Beste udalerrri batzuk .....	80	28,88
Guztira .....	277	100

<b>Bizkaia</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	241	33,71
Beste udalerrri batzuk .....	474	66,29
Guztira.....	715	100

<b>Gipuzkoa</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Donostia-San Sebastián .....	151	36,39
Beste udalerrri batzuk .....	264	63,61
Guztira.....	415	100

### - Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo datozen kexak

2005ean ere Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik etorritako zenbait kexa jaso dira. Horietatik, 44 beste autonomia erkidego batzuetatik zetozen, eta 5 beste estatu batzuetatik.

<b>Beste autonomia erkidego batzuetatik etorritako kexak</b>	<b>Kop.</b>
Gaztela eta Leongo AE.....	9
Nafarroako FK.....	7
Madrilgo AE.....	6
Valentziako AE.....	6
Kantabriako AE.....	3
Kataluniako AE.....	3
Gaztela-Mantxako AE.....	2
Balearretako AE.....	2
Andaluziako AE.....	1
Kanarietako AE.....	1
Extremadurako AE.....	1
Galiziako AE.....	1
Errioxako AE.....	1
Asturias.....	1
Guztira.....	44

<b>Beste estatu batzuetatik etorritakoak</b>	<b>Kop.</b>
Frantzia.....	4
Txile.....	2
Australia.....	1
El Salvador.....	1
Guztira.....	8

## 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Jarraian aztertuko dugu zein egoeratan dagoen Arartekoari aurkeztutako erreklamazioen tramitazioa. 2005. urtean 1.094 espedienteren izapideak amaitu dira. Horietatik 556 urtean zehar aurkeztutako kexei buruzkoak izan dira, eta gainerakoak, 538, aurreko urteetan aurkeztutakoak ziren, jarri ziren urtean bertan osorik ezin izapidetu izan zirenak.

Arartekoak eman dituen ebazpenek agerian utzi dutenez, 2005ean burututako 409 erreklamaziotan irregulartasunen bat zegoen, ukituriko administrazioaren jarduketan, hau da, kasuetatik % 37,39n (2004an % 33,01). Ez da, ordea, inolako irregulartasunik antzeman aztertutako espedienteetatik % 45,61ean.

	Guztira	Administrazioaren irregulartasuna	%	Irregulartasunik ez	%	Beste batzuk	%
2005ean burututako kexak	1.094	409	37,39	499	45,61	186	17

(Ikusi 1. diagrama eranskinean)

### - 2005ean burututako espedienteak, hasierako urtearen arabera banatuta

Hurrengo taulan 2005ean burututako espedienteak ageri dira (1.094 espediente), hasierako urtearen arabera sailkatuta.

Hasierako urtea	Kop.
1996 .....	5
1997 .....	12
1998 .....	15
1999 .....	20
2000 .....	30
2001 .....	77
2002 .....	106
2003 .....	307
2004 .....	555
2005 .....	556
2005ean burututako espedienteak guztira .....	1.094

### - 2005ean aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta tramitatzen ari direnak

2005. urtean aurkeztutako kexei dagokienez, Ararteko erakundeak 405 ebazpen eman ditu, eta 247 kasutan ez du irregulartasunik antzeman. Ostera, 558 espediente tramitatzen ari dira.

Tramitatzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat inguruabar agertu dira eta ezin izan dira gehiago ikertu (beste ararteko batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak, eta abar). Espediente horiek “eratorritako ez-onarpena” izenarekin jaso dira ondoko koadroetan.

### ***Kexa espedienteen egoera jarduera eremuen arabera***

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza, Industria						
Merkataritza eta Turismoa .	16	10	2	4	4	1
Gizarte Ongizatea .....	73	18	2	15	1	6
Kultura eta Elebitasuna.....	15	8	3	5	-	-
Hezkuntza.....	21	46	11	35	-	2
Funtzio publikoa .....	39	33	9	24	-	13
Ogasuna .....	49	31	5	25	1	1
Herrizaingoa .....	59	21	10	11	-	3
Justizia .....	1	4	3	1	-	-
Ingurumena.....	62	18	9	9	-	3
Herri Lanak eta Zerbitzuak	83	80	18	45	17	11
Osasuna .....	43	49	19	28	2	6
Lana eta Gizarte Segurantzak	3	4	-	4	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	94	83	26	41	16	7
Guztira .....	558	405	117	247	41	53

### **-Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera**

2005. urtean 179 ebazpen eman dira, Eusko Jaurlaritzaren aurka urte berean jarritako kexei dagokienez, eta 181 espediente oraindik tramitatzen ari dira.

Burututako kasurik gehienetan, 115 kasutan hain zuzen ere, ez da inolako irregularitasunik ikusi administrazioaren jardunean.

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa  
jardura eremuen arabera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Osasuna .....	42	49	19	28	2	5
Hirigintza eta Etxebizitza ...	33	30	10	15	5	1
Hezkuntza.....	15	44	11	33	-	2
Funtzio publikoa.....	26	26	4	22	-	6
Herrizaingoa .....	16	4	2	2	-	1
Ogasuna .....	9	4	-	3	1	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	10	3	-	1	2	-
Kultura eta Elebitasuna.....	8	3	-	3	-	-
Nekazaritza, Industria						
Merkataritza eta Turismoa .	6	4	-	2	2	-
Gizarte Ongizatea.....	8	2	1	1	-	-
Ingurumena.....	5	2	2	-	-	-
Lana eta Gizarte Segurantza	2	4	-	4	-	-
Justizia .....	1	4	3	1	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>181</b>	<b>179</b>	<b>52</b>	<b>115</b>	<b>12</b>	<b>15</b>

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera  
Jaurlaritza osatzen duten sailen arabera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza eta Arrantza ...	4	1	-	1	-	-
Kultura .....	7	3	-	3	-	-
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa.....	26	54	13	41	-	4
Ogasuna eta Administrazio Publikoa .....	5	2	1	1	-	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	4	4	-	1	3	1
Herrizaingoa .....	25	6	2	4	-	-
Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza .....	11	8	3	5	-	1
Lurralde antolamendua eta Ingurumena .....	4	1	-	1	-	-
Osasuna .....	48	64	22	40	2	8
Garraioak eta Herri Lanak.	6	4	2	1	1	-
Lehendakariordetza .....	-	1	-	1	-	-
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak .....	41	31	9	16	6	1
<b>Guztira .....</b>	<b>181</b>	<b>179</b>	<b>52</b>	<b>115</b>	<b>12</b>	<b>15</b>



**- Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

Foru administrazioen aurka 2005. urtean aurkeztu diren erreklamazioetako 43ren gainean jada emanda dago ebazpena, eta 10 kasutan irregulartasunen bat antzeman da. Beste 76 espediente tramitatzen ari dira.

**Foru aldundien aurkako kexen egoera  
lurralde historikoen arabera**

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Arabako Foru Aldundia .....	15	5	1	2	2	6
Bizkaiko Foru Aldundia .....	29	19	5	13	1	6
Gipuzkoako Foru Aldundia	32	19	4	15	-	4
Guztira .....	76	43	10	30	3	16

**Foru aldundien aurkako kexen egoera  
jarduera eremuen arabera**

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza, Industria						
Merkataritza eta Turismoa .	5	2	1	1	-	1
Gizarte Ongizatea .....	32	12	1	10	1	5
Kultura eta Elebitasuna.....	2	-	-	-	-	-
Funtzio publikoa .....	2	-	-	-	-	5
Ogasuna .....	14	14	3	11	-	1
Herrizaingoa .....	-	-	-	-	-	1
Ingurumena.....	5	2	1	1	-	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	11	13	4	7	2	3
Osasuna .....	1	-	-	-	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	4	-	-	-	-	-
Guztira .....	76	43	10	30	3	16

**- Toki administrazioen aurkako kexen egoera**

2005ean jasotako erreklamazioetatik, Arartekoak 178 ebazpen eman ditu, eta irregulartasunen bat antzeman da 54 kasutan. Urte amaieran, 295 espediente ari ziren tramitatzen.

**Arabako udalen aurkako kexen egoera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Amurrio.....	2	1	-	1	-	-
Aramaio .....	2	-	-	-	-	-
Artziniega.....	-	1	-	1	-	-
Ayala /Aiara .....	1	-	-	-	-	-
Baños de Ebro / Mañueta .	-	1	-	1	-	-
Campezo / Kanpezu.....	-	1	-	1	-	-
Iruña Oka / Iruña de Oca ..	3	1	1	-	-	-
Labastida .....	-	1	-	1	-	-
Lagrán.....	1	-	-	-	-	-
Legutiano .....	2	-	-	-	-	-
Llodio.....	3	-	-	-	-	-
Okondo .....	1	-	-	-	-	-
Valdegovía .....	-	1	1	-	-	-
Vitoria-Gasteiz.....	40	20	4	15	1	2
Zigoitia .....	3	1	-	-	1	-
Zuia.....	-	1	1	-	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>58</b>	<b>29</b>	<b>7</b>	<b>20</b>	<b>2</b>	<b>2</b>

**Arabako administrazio batzarren aurkako kexen egoera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Beotegi.....	1	-	-	-	-	-
Elosu .....	1	-	-	-	-	-
Etxabarrí Ibiña.....	1	-	-	-	-	-
Legutiano .....	-	1	1	-	-	-
Markina.....	-	1	-	1	-	-
Ocio.....	1	-	-	-	-	-
Respaldiza.....	1	-	-	-	-	-
Santa Cruz de Campezo....	-	1	-	1	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

**Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera**

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Aduna .....	1	3	1	2	-	-
Aia.....	-	1	-	1	-	-
Alegia.....	1	-	-	-	-	-
Anoeta .....	1	-	-	-	-	-
Antzuola.....	1	-	-	-	-	-
Aretxabaleta.....	1	-	-	-	-	-
Arrasate / Mondragón.....	5	2	-	-	2	-
Astigarraga .....	2	1	1	-	-	-
Azkoitia .....	2	-	-	-	-	-
Azpeitia .....	1	-	-	-	-	-
Beasain .....	-	1	-	1	-	-
Bergara .....	1	1	1	-	-	-
Deba .....	1	-	-	-	-	-
Donostia-San Sebastián.....	26	14	5	6	3	6
Eibar .....	1	2	1	1	-	-
Elgoibar .....	-	-	-	-	-	1
Errenteria .....	1	-	-	-	-	-
Eskoriatza .....	1	-	-	-	-	-
Ezkio-Itsaso .....	-	1	1	-	-	-
Getaria .....	-	1	-	1	-	-
Hernani.....	2	-	-	-	-	-
Hondarribia .....	3	1	1	-	-	-
Ibarra .....	1	-	-	-	-	-
Idiazabal .....	1	-	-	-	-	-
Irun .....	8	3	2	1	-	-
Irura .....	1	-	-	-	-	-
Lasarte-Oria.....	2	2	-	2	-	-
Lazkao .....	1	1	-	-	1	-
Legazpi .....	3	-	-	-	-	-
Lezo.....	2	1	1	-	-	1
Mendaro.....	-	1	1	-	-	-
Mutriku.....	1	-	-	-	-	-
Oiartzun .....	4	-	-	-	-	-
Olaberria .....	-	1	1	-	-	-
Oñati.....	-	1	-	-	1	-
Ordizia .....	3	1	-	-	1	-
Orio .....	-	4	-	4	-	-
Ormaiztegi.....	1	-	-	-	-	-
Pasaia .....	1	3	1	1	1	2
Soraluze-Placencia de las Armas.....	1	-	-	-	-	-
Urnietia.....	2	-	-	-	-	-
Zarautz .....	4	4	-	3	1	-
Zumarraga .....	1	1	-	1	-	-
Guztira .....	88	51	17	24	10	10

**Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera**

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Eratortitako ez-onarpena
Abadiño.....	1	-	-	-	-	-
Abanto Ciérvana-						
Abanto Zierbena.....	2	-	-	-	-	-
Amorebieta-Etxano.....	4	-	-	-	-	-
Arcentales.....	1	-	-	-	-	-
Arrankudiaga.....	-	1	-	1	-	-
Arrigorriaga.....	-	1	1	-	-	-
Bakio.....	-	1	-	-	1	-
Balmaseda.....	1	-	-	-	-	-
Barakaldo.....	14	6	2	3	1	-
Barrika.....	1	-	-	-	-	-
Basauri.....	1	3	1	2	-	-
Bedia.....	-	1	-	1	-	-
Berango.....	-	1	1	-	-	-
Bermeo.....	3	1	-	1	-	-
Bilbao.....	36	24	6	16	2	2
Carranza.....	-	4	1	2	1	-
Derio.....	2	-	-	-	-	-
Durango.....	8	3	-	2	1	1
Ea.....	-	1	-	1	-	-
Elorrio.....	3	2	-	1	1	-
Erandio.....	2	1	1	-	-	-
Ermua.....	1	-	-	-	-	-
Etxebarria.....	3	1	-	1	-	-
Galdakao.....	1	3	2	-	1	2
Galdames.....	-	1	-	-	1	-
Gernika-Lumo.....	2	-	-	-	-	-
Getxo.....	9	11	4	6	1	1
Gorliz.....	2	2	-	2	-	-
Güeñes.....	2	1	-	1	-	-
Ibarrangelu.....	-	1	-	-	1	-
Igorre.....	-	1	1	-	-	-
Iurreta.....	1	-	-	-	-	-
Leioa.....	1	4	-	4	-	-
Lekeitio.....	1	1	1	-	-	-
Maruri-Jatabe.....	1	-	-	-	-	-
Meñaka.....	1	1	-	-	1	-
Mungia.....	-	3	1	2	-	-
Muskiz.....	1	-	-	-	-	1
Muxika.....	1	1	-	1	-	-
Ondarroa.....	2	-	-	-	-	-
Orduña.....	1	-	-	-	-	1

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Orozko .....	1	-	-	-	-	-
Ortuella .....	1	1	1	-	-	-
Otxandio .....	1	-	-	-	-	-
Plentzia .....	1	-	-	-	-	-
Portugalete .....	10	6	3	3	-	-
Santurtzi .....	6	2	-	2	-	2
Sestao .....	3	1	-	1	-	-
Sopelana .....	4	1	-	-	1	-
Trucios-Turtzioz .....	1	-	-	-	-	-
Ugao-Miraballes .....	1	1	1	-	-	-
Urduliz .....	1	-	-	-	-	-
Valle de Trápaga-						
Trapagaran .....	2	1	1	-	-	-
Zalla .....	1	-	-	-	-	-
Zaratamo .....	1	1	1	-	-	-
Zierbena .....	1	-	-	-	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>144</b>	<b>95</b>	<b>29</b>	<b>53</b>	<b>13</b>	<b>10</b>

***Udalen aurkako kexen egoera, jarduera eremuen arabera***

	Tramitatzen	Amaituta	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza, Industria						
Merkataritza eta Turismoa .	5	4	1	1	2	-
Gizarte Ongizatea .....	33	4	-	4	-	1
Kultura eta Elebitasuna .....	5	5	3	2	-	-
Hezkuntza .....	6	2	-	2	-	-
Funtzio publikoa .....	10	5	4	1	-	2
Ogasuna .....	25	12	2	10	-	-
Herrizaingoa .....	43	17	8	9	-	1
Ingurumena .....	51	14	6	8	-	3
Herri Lanak eta Zerbitzuak	59	62	14	36	12	8
Osasuna .....	-	-	-	-	-	1
Lana eta Gizarte						
Segurantzaren .....	1	-	-	-	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	57	53	16	26	11	6
<b>Guztira .....</b>	<b>295</b>	<b>178</b>	<b>54</b>	<b>99</b>	<b>25</b>	<b>22</b>

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, ukitutako erakunde publikoaren arabera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa .....	1	3	1	2	-	-
Busturialdeko Uren Partzuergoa .....	1	-	-	-	-	-
Mebisa – Bilboko Metroa...	2	1	-	-	1	-
Arratiako Mankomunitatea	1	-	-	-	-	-
Txingudiko Zerbitzuak .....	1	1	-	1	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>-</b>

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, jardura arloen arabera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Funtzio publikoa .....	1	2	1	1	-	-
Ogasuna .....	1	1	-	1	-	-
Ingurumena.....	1	-	-	-	-	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	3	2	-	1	1	-
<b>Guztira .....</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>-</b>

**- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexen egoera**

**Euskal Herriko Unibertsitatearen aurkako kexen egoera**

	Tramitatzen	Amaítuta	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Beste batzuk	Erorritako ez-onarpena
Hezkuntza.....	2	8	1	7	-	1
Funtzio publikoa .....	1	-	-	-	-	1
<b>Guztira .....</b>	<b>3</b>	<b>8</b>	<b>1</b>	<b>7</b>	<b>-</b>	<b>2</b>

## 6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO ERA)

### - Kexagileen ezaugarriak

2005. urtean aurkeztutako kexen azterketa soziologikoak agerian jartzen du kexagile gehienak gizonezkoak direla, oraindik ere; izan ere, kexaren bat jarri duten pertsonen % 49,42 gizonezkoak dira.

<i><b>Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera</b></i>		
<b>Kexagileen ezaugarriak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gizonezkoak.....	721	49,42
Emakumezkoak .....	576	39,48
Taldeak .....	152	10,42
Identifikatu gabeko pertsonak.....	10	0,68
Guztira.....	1.459	100

(Ikusi 13. diagrama eranskinean)

### - Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaztelania da, oraindik ere, kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza, nahiz eta euskaraz edo elebidun idatzitakoak gero eta gehiago diren. Herritarretatik % 91,09k gaztelaniara jotzen du, euskaraz zein elebidun aurkezten direnak % 8,77 diren bitartean.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrek aukeratutako hizkuntzan tramitatzeko dituzten irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

<i><b>Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera</b></i>		
<b>Hizkuntza</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gaztelania .....	1.329	91,09
Euskara .....	87	5,96
Elebiak .....	41	2,81
Alemana .....	1	0,07
Frantsesa .....	1	0,07
Guztira.....	1.459	100

(Ikusi 14. diagrama eranskinean)

### - Kexak aurkezteko era

Kexak aurkezteko erari dagokionez, datuek erakusten digute azkeneko urteetan izandako aldaketa finkatu egin dela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan arreta zuzeneko bulegoak jarri ondoren. Kexagileetatik % 42,56 bulegoetara bertaratu dira kexa jartzeko. Gainera, kexa jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua hazten doa. Kexen % 28,86 erakundearen web orritik heldu dira ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)).

#### *Kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera*

<b>Jasotzeko era</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Bulegoetara bertaratuta .....	621	42,56
Postaz.....	371	25,43
Internetez.....	421	28,86
Faxeaz.....	46	3,15
Guztira.....	1.459	100

(Ikusi 15. diagrama eranskinean)



## 7. ARRETA ZUZENeko BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioen batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu.

Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik, bisitez gain telefono bidezko kontsultak ere zenbatzen ditugu, pertsonen administrazio desberdinekin dituzten harremanetan dauzkaten eskubideen gaineko informazio-lan interesgarria direla ziur baikaude. Hartara, 2005. urtean guztira 4.065 kontsultari erantzun diogu. Horietatik 1.646 telefono bidezko kontsultak izan dira eta 2.419 hiru bulegoetakoren batera bertaratu den pertsonen kopurua. Zehatz esateko, Bilbon 1.592 kontsultari erantzun diogu, hiru bulegoetan erantzundakoen % 39,16, hain zuzen ere Donostian 1.287 eta Gasteizen, berriz, 1.186.

### *Telefono bidezko kontsulta eta bisiten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan*

<b>Herria</b>	<b>Telefono bidezko kontsultak</b>	<b>Bisitak</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	753	839	1.592	39,16
Donostia-San Sebastián .....	569	718	1.287	31,66
Vitoria-Gasteiz .....	324	862	1.186	29,18
Guztira.....	1.646	2.419	4.065	100

(Ikusi 16. diagrama eranskinean)

### **- Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenenak**

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik 640 kexa jarri da, hau da, bisita guztien % 26,46. Horietatik, 250 Bizkaiko hiriburuan, 196 Gasteizen eta 194, berriz, Donostian.

### *Kexa bilakatutako bisitak*

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	250	39,06
Donostia-San Sebastián .....	194	30,31
Vitoria-Gasteiz .....	196	30,63
Guztira.....	640	100

(Ikusi 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduketa eremutik kanpoko gaietara loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko gestioak egin behar ziren, administrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak, edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa espediente baten tramitazioari lotuta egon da, edo herritarrek bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko tramiteei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

### - Arreta zuzeneko bulegoetara bertaratutako pertsonen ezaugarriak

Gero eta gehiago dira arreta zuzeneko bulegoetara jotzen duten emakumeak. Izan ere, 2005. urtean, arreta zuzeneko bulegoetara etorri diren pertsonetatik, % 44,81 gizonetakoak dira eta % 44,07 emakumeetakoak, ia kopuru berdinak. Taldeak bisita guztien % 5,13 dira.

#### **Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien ezaugarriak**

	Bilbao	Donostia-San Sebastián	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
Gizonezkoak .....	412	265	407	1.084	44,81
Emakumezkoak .....	347	341	378	1.066	44,07
Bikoteak .....	61	48	36	145	5,99
Taldeak.....	19	64	41	124	5,13
Guztira .....	839	718	862	2.419	100

(Ikusi 17. diagrama eranskinetan)

### - Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina

Adin multzoen arabera datuak aztertuz, ez da aurreko urteetakoan aldean gorabehera handirik ikusten. Bisitetatik % 53,87 dira 36tik 55 urtera bitarteko bisitariak egindakoak.

#### **Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien banaketa, adin multzokan**

Adina	Bilbao	Donostia-San Sebastián	Vitoria-Gasteiz	Guztira	%
25 arte .....	34	19	31	84	3,47
26-35.....	102	64	120	286	11,82
36-45.....	236	180	219	635	26,25
46-55.....	203	210	255	668	27,62
56-65.....	118	137	107	362	14,97
66 edo gehiago .....	146	108	130	384	15,87
Guztira .....	839	718	862	2.419	100

(Ikusi 18. diagrama eranskinetan)

## 8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekime-  
nez, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal herri administrazioaren batean  
jarduketa irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak  
emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ararteko erakundea sortzen eta arau-  
tzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikulua ofizioz jarduteko aukera  
aurreikusten du. Horren bidez, Arartekoak esku hartzeko aukera du, administrazioaren  
irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen  
zain egon barik.

2005. urtean 42 espediente tramitatu ditugu ofizioz, 2004. urtean baino 9 ge-  
hiago.

### **Ofiziozko jardueren banaketa, arloen arabera**

	<b>Ofizioz egindako espedienteak</b>	<b>%</b>
Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	12	28,58
Gizarte Ongizatea .....	8	19,05
Herrizaingoa.....	8	19,05
Ogasuna .....	3	7,14
Osasuna.....	3	7,14
Hirigintza eta Etxebizitza.....	3	7,14
Kultura eta Elebitasuna .....	1	2,38
Gizarte arazoak.....	1	2,38
Justizia.....	1	2,38
Hezkuntza .....	1	2,38
Funtzio publikoa .....	1	2,38
<b>Guztira.....</b>	<b>42</b>	<b>100</b>

(Ikusi 20. diagrama eranskinean)

Toki administrazioek eragin dute ofiziozko jarduketa gehien, hau zuzen ere, guztien  
% 44,44. Bestalde, % 28,9 Eusko Jaurlaritzaren gainera izan dira eta % 24,44 foru  
administrazioen gainera.

### **Ofiziozko jardueren banaketa, ukitutako administrazioen arabera**

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Eusko Jaurlaritza .....	13	28,9
Toki administrazioa .....	20	44,44
Foru administrazioa.....	11	24,44
Herriaren Defendatzailea .....	1	2,22
<b>Guztira.....</b>	<b>45</b>	<b>100</b>

(Ikusi 21. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Ararteko erakundeak duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, bitartekaritza eskatu dioten pertsonen iritzia jakiteko. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahlenak ezagutu nahi dira, eskaintzen den zerbitzua hobetzen saiatzeko.

Horretarako, kexa espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai kexagileek bete dituzten galdera sorten kopuruek eta bai gure bitartekaritza azaldu duten iritziek berretsi egiten dute esperientzia honen emaitza ona. 2005. urtean galdera sorta bidali zaien pertsonetatik % 47,38k erantzun digute, eta horrek ondorio fidagarriak eta aintzat hartzeko modukoak ateratzeko aukera ematen digu.

Emaitzak baloratzeko orduan zera izan behar dugu kontuan, 2005ean guztiz tramitatu diren kexetatik, soilik % 37,39 kasutan ikusi dela ukitutako administrazioaren irregularitasunen bat.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, erreklamazioen bat aurkeztu duten eta izapidetzen amaitu zaizkien herritarretatik % 88,89k hauxe esan dute: *“Arartekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da”* eta *“erabat edo nahiko ados gaude Arartekoak kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin”* (% 65,7k).

Arartekoaren esku-hartzea oro har, hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak, eta abar, nola baloratuko luketen galderari, kexagileetatik % 87,92k *“oso balorazio ona edo nahikoa ona”* egiten dutela diote eta % 92,76k *“beti edo batzuetan administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko lioketela”* baiesten dute.

Inkesten bidez lortzen ditugun datuez gain, kexagileek beren iritzi eta iradokizunak ere helarazten dizkigute. Aurreko urteetan bezala, herritar askok Arartekoak erabakitzeke ahalmen handiagoa izan behar lukeela iradokitzen dute, eta bere ebazpenak lotesleak izan behar lirartekeela herri administrazioentzat. Beste batzuek uste dute zuzen jokatu ez duten administrazioak zigortzeko ahalmena eduki beharko lukeela. Zenbaiten iritziz, Ararteko erakundeak administrazioetatik bidaltzen dioten informazioa sakon aztertu beharko luke eta, beste zenbaiten iritziz, erakunde hau informazio igorlea baino ez da. Batzuek uste dute kexa aurkeztu zenetik erantzuna jaso arte igarotako denbora luzeegia izan dela. Aurreko urteetan gertatu bezala, herritar askok berresten du erakundeak egiten duen lana eta eskaintzen duen zerbitzua ezagutarazi behar direla.

**- Inkestaren emaitzak** (ikusi 22 eta 27 bitarteko diagramak eranskinean)**. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?**

. Oso ona .....	31,40
. Ona .....	57,49
. Txarra .....	4,35
. Oso txarra .....	5,31
. Erantzunik ez .....	1,45

**. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?**

. Oso luzea .....	13,53
. Luzea .....	40,58
. Laburra .....	38,65
. Oso laburra .....	5,31
. Erantzunik ez .....	1,93

**. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?**

. Erabat ados .....	33,82
. Nahiko ados .....	31,88
. Ez nago ados .....	16,42
. Erabateko desadostasuna .....	13,53
. Erantzunik ez .....	4,35

**. Zure ustez, kexa eragin zuen arazoa:**

. Oso ondo konpondu da .....	24,15
. Nahiko ondo konpondu da .....	24,64
. Nahiko txarto konpondu da .....	6,28
. Ez da konpondu .....	43
. Erantzunik ez .....	1,93

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak...)**

. Oso ona .....	44,44
. Nahiko ona .....	43,48
. Nahiko txarra .....	5,80
. Oso txarra .....	5,31
. Erantzunik ez .....	0,97

**. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

. Bai, beti .....	66,67
. Bai, batzuetan .....	26,09
. Ez, inoiz ere ez .....	5,31
. Erantzunik ez .....	1,93

Galdetutakoen erantzunak beren keza eragin zuen arazoa konpontzearen ala ez konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kezagileek beren arazoa ez dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera sortetako datuek erakusten dutenagatik.

**- Euren arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko txarto konpondu da” erantzun duten kezagileek Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz egin duten balorazioa** (ikus 28. eta 29. diagramak eranskinean)

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketa lanak...)**

. Oso ona .....	26,47
. Nahiko ona .....	52,94
. Nahiko txarra .....	8,82
. Oso txarra .....	10,79
. Erantzunik ez .....	0,98

**. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

. Bai, beti .....	50
. Bai, batzuetan .....	36,28
. Ez, inoiz ere ez .....	10,78
. Erantzunik ez .....	2,94

Gainera, 2004ko urtarriletik aurrera, ahalik eta laguntzarik hoberena eskaintzeko asmoz, gure bulegoetara etortzen diren pertsona guztiei, nahi izanez gero eta izena ipini barik, Ararteko erakundearen egon direnean jaso duten laguntza eta informazioaren gainean egiten duen balorazioa jakinarazteko eta horri buruzko iradokizunak proposatzeko eskatzen diegu. Bisitariari eskatzen dizkiegun datuek eta erantzunek helburu bikoitza dute: erakundera etorri diren pertsonen ezaugarri orokorrak jakitea eta emandako zerbitzuaren gainean egiten duten balorazioa jakitea.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, herritarren % 97,22k Administrazioarekin arazoak dituzten pertsonari Arartekoarengana jotzeko aholkatuko liekete “beti” edo “batzuetan” eta Arartekoarengana etortzean jaso duten informazioari buruzko balorazioari dagokionez, “oso ona” edo “ona” izan dela erantzun dute % 95,83k.

VIII. ATALA

**ADMINISTRAZIOAREN SAIL  
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE  
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**





## 1. SARRERA ETA OHARRAK

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxienezko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebeharrak hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebeharrak hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailera erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragozti edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako keaxak behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

Gertatzen da, gainera, kontroleko erakunde hauei lagundu behar horrek lege antolamenduan hain garrantzi handia hartzen duela non ez betetzeak zigor bideko tratamendua ere baduen. Izan ere, lankidetzarik edo laguntzarik ez ematea Estatuko Erakundeen eta Botere Banaketaren aurkako delitu gisa aurreikusita dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta *“Autonomia Erkidegoko Ararteko, Kontu Epaitegi edo antzeko erakundeen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei eskatzen zaizkien txostenak bidaltzera ukatzen direlako edo bidaltzea besterik gabe atzeratzen dutelako, edo ikerketarako beharrezkoak diren administrazioeko espediente edo dokumentazioak eskuratzea eragozten dietelako”* enplegu edo ardua publikotik sei hilabetetik bi urterako etenaren zigorra ezar lekieke. Ikusten denez, mota diseinatzeko orduan lehenago aipatu ditugun bi aldagaiak hartzen dira kontuan, multzoan, lankidetzak betebeharrak hori betetzen dutenak, alegia, zorrozki betetzea eta epe jakin batean egin beharra.

Lehenago aurreratu dugun bezala, kapitulu honek herri administrazio eta erakundeek lege antolamenduak ezartzen diren lankidetzaren edo laguntza betebeharraren aurrean nola jokatu duten erakusten du. Jarraian agertuko diren datuetan Arartekoak, inplikaturako erakunde eta organismoak erakunde bermatzaile honi laguntzeko duten betebeharrak gogoratuz eta bete dezaten eskatuz egin dituen gestioak erakusten dira, bidali zaien informazio eskariari erantzun ez dioten edo erantzuten atzeratu diren kasuetan eta, era berean, gomendioak betetzeari eta legezketasunaren gogorarazteei buruz jakindako isiltzei buruzko kasuetan ere bai.

Kexa espediente batzuetan, informazio eskariari erantzuten ekitaldi bat baino gehiagoko berandutza ere izaten da. Horregatik, egoki iritzi diogu, aurreko ekitaldietan esan izan dugun bezala, txosten honetan 2005ean izapidetzen ari ziren kexa espedienteetan egindako agindeien zerrenda xehatua egiteari, izapideak aurreko urteetan hasi arren. Hori egin badugu Arartekoaren irizpenaren mende jartzen diren jardueren erantzule diren erakundeen lankidetzaren indizeen gaineko ikuspegi orokorragoa eskaintzeko izan da.

Era berean, ezinbestekoa da adieraztea, agindei horiek egitean, Arartekoa ez dela automatikoki aritzen. Laguntzeko betebeharrak gogorarazteko eginkizun hori zuhurtziaz baliatzen da, administrazioaren kudeaketan eragina daukaten aldagaiak neurtuz, eta kexa jarri duten pertsonen modu eragingarri eta lasterrean erantzun ahal izateko helburu garbiaz. Hona hemen, besteak beste, zein diren, guretzat, nahitaez aditu behar zaien ingurumariak: informazioa eskatzen den arazoaren izaera materiala, eskaria egiten zaion organoaren burokrasia eta administrazio sarearen konplexutasuna, artatu beharreko prozeduren balizko pilaketa, hauteskunde garaien ondorioz kontrolaren mende jarritako erakundearen eraketan dauden denbora aldagaiak, arduradun eta funtzionarioak biratzea edota ordezkatzeta, eta abar.

Hala eta guztiz ere, zenbaitetan agerian geratzen da axolarik eza, erakunde honek kontrolaren arloan duen eginkizuna eta, ondorioz, erreklamazioak jartzen dituzten herritarren eskubideak gutxiesten dituen jarrera, alegia. Laguntzeko betebeharrari uko egite horrek, batzuetan, aipatzeko moduko inguruabarrak izan ditu; adibidez, zailtasun handirik ez zuten arazoaren tramitazioa gehiegi atzeratzea eta, horrenbestez, erakunde honek behin eta berriz egin behar izatea eskaera bera.

Izan dira kasu larriagoak ere, zalantzarik gabe. Ararteko erakundea ohartarazpena igorri beharrean aurkitu da behin baino gehiagotan, ukitutako administrazioetako titularrei gogora ekartzeko Zigor Kodearen 502.2. artikuluan sailkatzen den delitua egotzi ahal izango zitzaiela eta, ondorioz, gerta zitekeela arazoa zigor jurisdikzioaren esku geratzea.

2005. urtean zehar horrelako ohartarazpenak jaso dituzten titular arduradunak 4. zerrendan ageri dira.

Kasurik gehienetan, azkenean titular arduradunek eman dute ohartarazpenean eskatzen zitzaien informazioa. Nolanahi ere, ezin dugu salatu gabe utzi haien lankidetzarako gertutasunik eza, erakunde honen esku-hartzeak behar bezala bideratzeko oztopo izan delako.

Honako titular arduradun hauek, ordea, urteko txosten hau itxi behar dugun unean, oraindik ez dute erakunde honi laguntzeko inolako asmorik agertu, ohartarazpena egin bazaie ere:

**916/2002/24 espedientea**

Javier Portuondo Herrizaingo Saileko Kabinetearen zuzendaria

**720/2004/20 espedientea**

Iñigo Martínez de Trespuentes Hereñako administrazio batzarraren lehendakaria

**1482/2001/16 espedientea**

Iñaki Azkuna Bilboko alkatea

\* \* \*

Arestiko iruzkinak egin ondoren, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

\* Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, agindei bat edo gehiago egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako agindeiak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:

- (1) zenbat espedientetan egin den 2005. urtean informazio eskariren bat.
- (2) 2005ean informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeiren bat.
- (3) agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2005ean informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
- (4) 2005ean agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egingdako informazio eskariei buruzkoak izanik.
- (5) 2005ean agindeirik egin zaien espedienteetan, agindeien kopuruaren xehatzea.
- (6) 2005ean guztira egindako agindeiak.

\* Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, izapidetzeko gure irizpenaren mende jarri diren egitateak egin dituzten organo edo erakundeei agindeiak helarazi behar izan zaizkieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.

\* Erreferentziei izartxoak gehitu zaieneko espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2005ean, izapidetzen jarraitzen zutenez, agindeiak egin behar izan zaizkienak dira.

\* Azkeneko zutabearen islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2005eko abenduaren 31 zelarrik sartu da.

Azkenik, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio bat baino gehiago behar izan dutenak direla. Horrela agerrarazten dira planteatutako eskari bakoitzeko zenbat agindei egin behar izan diren jasotzeko.

Argitu behar da ere, espediente batzuen zenbakari (1) oharra gehitu zaiela 4. zerrendan (ohartarazpenen zerrenda). Bada, horiek dira, 2005eko abenduaren 31rako, bigarren ohartarazpena egitea erabaki diren espedienteak, ukitutako administrazioek ez dutelako laguntzarik eskaini.

## 2. ARARTEKOAK 2005. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA

### A) Eusko Jaurlaritza

Saila	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2005eko eskaera duten espedienteak	Agindeta duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindetak	Agindeien kopurua desglosatua				2005eko agindetak guztira
					1	2	3	4	
Nekazaritza eta Arrantza .....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Mendikoi .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Kultura .....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
EITB .....	3	-	-	-	-	-	-	-	-
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa .....	69	27	25	3	17	3	9	1	54
Ogasuna eta Herri Administrazioa .....	8	2	25	-	2	-	-	-	2
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	4	-	-	1	1	-	-	-	1
Herrizaingoa .....	49	25	51,02	7	14	7	7	4	65
Herrizaingo Sailburuordetza .....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza .....	17	5	29,41	4	7	1	1	-	12
LANGAI .....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena .....	6	1	16,67	-	1	-	-	-	1
Jabetza Nahitaez Kentzeko Arabako Lurralde Epaimahaia .....	-	-	-	2	2	-	-	-	2
Osasuna .....	15	1	6,66	-	1	-	-	-	1
SVS/Osakidetza .....	73	22	30,14	3	20	7	2	-	40
Garraioak eta Herri Lanak .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos .....	3	-	-	1	1	-	-	-	1
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak .....	45	16	35,55	15	13	14	4	-	53
VISESA .....	1	1	100	-	1	-	-	-	1

## B) Foru aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)		(6)
	2005eko esiaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua		2005eko agindeiak guztira
					1	2	
<b>Arabako Foru Aldundia</b>							
Nekazaritza.....	1	-	-	-	-	-	-
Gizarte Gaiak.....	7	-	-	2	1	1	3
Herri Lanak eta Garraioak.....	2	-	-	-	-	-	-
Lehendakaritza.....	2	-	-	-	-	-	-
Hirigintza eta Ingurumena.....	1	-	-	-	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko esiaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
<b>Bizkaiko Foru Aldundia</b>								
Gizarte Ekintza.....	6	-	-	-	-	-	-	-
Nekazaritza.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak.....	8	3	37,50	-	1	2	-	5
Ingurumena.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Herri Lanak eta Garraioak.....	11	8	72,73	1	6	2	1	13

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko esiaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>								
Foru Administrazioaren Kalitatea.....	1	1	100	1	1	1	-	3
Giza Eskubideak, Enplegua eta Gizarteratzea.....	5	1	20	-	1	-	-	1
Landa Ingurunearen Garapena.....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Garapen Iraunkorra.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ahaldun Nagusia.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Fiskalitatea eta Finantzak.....	7	-	-	1	1	-	-	1
Bide Azpiegiturak.....	4	1	25	1	1	-	1	4
Lurralde Antolaketa eta Sustapena.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Gizarte Politika.....	9	2	22,22	1	2	1	-	4

## C) Udalak

## - Arabako Lurralde Historikoa

Udala	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko eslaera duten espeditentak	Agindeia duten espeditentak	%	Aurreko urteerako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
Amurrio.....	2	2	100	-	1	1	-	3
Aramaio.....	3	1	33,33	-	-	1	-	2
Asparrena.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ayala / Aiara.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Baños de Ebro / Mañueta.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Campezo / Kanpezu.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Iruña Oka / Iruña de Oca.....	3	2	66,66	1	3	-	-	3
Iruñaz-Gauna.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Laguardia.....	-	-	-	1	-	1	-	2
Lagran.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Legutiano.....	1	-	-	1	1	-	-	1
Leza.....	1	1	100	-	-	1	-	2
Llodio.....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Okondo.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Samaniego.....	-	-	-	1	1	-	-	1
Valdegovia.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz.....	47	18	38,30	6	18	3	3	33
Zigoitia.....	4	2	50	-	2	-	-	2
Zuia.....	1	-	-	-	-	-	-	-

Arabako administrazio batzarrak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko eslaera duten espeditentak	Agindeia duten espeditentak	%	Aurreko urteerako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
Bernedo.....	-	-	-	1	-	1	-	1
Elosu.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Etxabarri Ibiña.....	1	1	100	-	-	1	-	1
Izoria.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Legutiano.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ocio.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Respaldiza.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Santa Cruz de Campezo.....	1	-	-	-	-	-	-	-

**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko eslaera duten espelenteak	Agindeia duten espelenteak	%	Aurreko urteerako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
Abadiño.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena.....	2	1	50	-	1	-	-	1
Amorebieta-Etxano.....	4	3	75	-	1	1	1	6
Arcentales.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Arrankudiaga.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Arrigorriaga.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Atxondo.....	2	2	100	1	-	1	2	8
Balmaseda.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Barakaldo.....	19	7	36,84	1	5	2	1	12
Barrika.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Basauri.....	4	1	25	-	1	-	-	1
Berango.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bermeo.....	5	-	-	2	-	1	1	5
Bilbao.....	67	23	34,33	12	21	10	4	53
Carranza.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Derio.....	2	1	50	-	1	-	-	1
Durango.....	7	3	42,86	1	2	2	-	6
Ea.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Elorrio.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Erandio.....	6	1	16,67	1	1	1	-	3
Ermua.....	1	-	-	1	-	-	1	3
Etxebarria.....	3	-	-	1	1	-	-	1
Galdakao.....	9	6	66,67	-	3	2	1	10
Galdames.....	-	-	-	1	1	-	-	1
Gernika-Lumo.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Getxo.....	12	5	41,67	1	4	1	1	9
Gordexola.....	-	-	-	2	2	1	1	2
Gorliz.....	3	3	100	-	2	1	-	4
Güeñes.....	3	1	33,33	-	-	1	-	2
Igorre.....	1	1	100	-	-	1	-	2
Iurreta.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Larrabetzu.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Leioa.....	4	-	-	-	-	-	-	-
Lekitio.....	2	1	50	-	1	-	-	1
Lemoa.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Lemoiz.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Markina-Xemein.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Maruri-Jatabe.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Meñaka.....	2	2	100	-	-	1	1	5
Mungia.....	2	2	100	-	-	2	-	4
Muskiz.....	2	2	100	1	2	-	1	5
Ondarroa.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Orozko.....	1	1	100	-	-	-	1	3
Ortuella.....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Otxandio.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Plentzia.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Portugalete.....	20	7	35	4	5	3	3	20
Santurtzi.....	6	1	16,67	-	1	-	-	1
Sestao.....	4	3	75	1	2	2	-	6
Sopelana.....	7	4	51,14	-	4	-	-	4
Trucios-Turtzioz.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Ugao-Miraballes.....	2	-	-	-	-	-	-	-

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko esiaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
<b>Udala</b>								
Urduliz.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Valle de Trápaga-Trapagaran .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Zaratamo .....	3	2	66,67	-	1	1	-	3
Zeanuri .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Zeberio .....	1	-	-	-	-	-	-	-



**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Gipuzkoako Udalak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
Aduna.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Alegia .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Altzaga .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Anoeta .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Antzuola .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Arama .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Aretxabaleta .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Arrasate / Mondragón .....	4	1	25	-	1	-	-	1
Astigarra .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Azkoitia .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Azpeitia .....	1	1	100	-	-	1	-	2
Beasain.....	1	-	-	1	1	-	-	1
Bergara.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Deba .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Donostia-San Sebastián.....	40	23	57,50	68	80	8	3	105
Eibar.....	3	2	66,67	-	-	2	-	4
Elgoibar .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Errenteria .....	1	-	-	1	1	-	-	1
Ezkio-Itsaso .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Gainza .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Getaria .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Hernani .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Hondarribia.....	3	1	66,33	1	1	1	-	3
Ibarra.....	2	1	50	-	-	-	1	3
Idiazabal.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Irun .....	10	2	20	1	3	-	-	3
Irura .....	1	1	100	1	2	-	-	2
Itsasondo .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Lasarte-Oria .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Lazkao.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Legazpi.....	4	1	25	-	1	-	-	1
Lezo .....	3	-	-	-	-	-	-	-
Mendaro .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Oiartzun.....	2	1	50	1	2	-	-	2
Olaberria.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Oñati .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Ordizia.....	3	2	66,67	-	2	-	-	2
Orio .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Ormaiztegi.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Pasaia.....	8	2	25	-	2	-	-	2
Soraluze-Placencia de las Armas.....	1	1	100	-	1	-	-	1
Urnietia.....	2	1	50	-	1	-	-	1
Urretxu.....	1	1	100	1	2	-	-	2
Zaldibia.....	1	-	-	-	-	-	-	-
Zarautz.....	6	-	-	-	-	-	-	-
Zizurkil.....	1	1	100	-	-	1	-	2
Zumaia .....	-	-	-	2	2	-	-	2

## D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2005eko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2005eko agindeiak guztira
					1	2	3	
Basauriko espetxea .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Abokatuen Elkargoa .....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Sendagileen Elkarte .....	-	-	-	1	1	-	-	1
Gipuzkoako Odonto-Estomatologoen Elkarte .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Legelarien Euskal Kontseilua .....	1	1	100	1	1	1	-	3
Busturialdeko Ur Partzuergoa .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa .....	5	1	20	-	1	-	-	1
Haurreskolak .....	3	-	-	-	-	-	-	-
Arratiako Udalen Mankomunitatea .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Mebisa-Bilboko Metroa .....	4	1	25	-	-	-	1	3
Estatuaren erakunde eta administrazioak .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Txingudiko Zerbitzuak .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea .....	11	5	45,45	3	5	3	-	11

### 3. ARARTEKOAK 2005. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA

#### A) Eusko Jaurlaritzza

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	85/2003/20*	Irakasleak berriz hartzeko irizpideak	3	2005/06/04	J
	1306/2003/24*	Irakasle ordezkoari espezialitatea araz kanpo adjudikatzea	1	2005/02/14	J
	1164/2004/18*	Lehiaketa epaimahaiak euskararik ez jakitea	1	2005/01/10	J
	1306/2003/24	Irakasle ordezkoari espezialitatea araz kanpo adjudikatzea	2	2005/09/09	J
	223/2004/24	Lizentziatuek DBHko lehen zikloan sarrera izatea	3	2005/11/02	J
	1086/2004/20	Ezgaitasuna duten irakasleak	3	2005/09/14	J
	1335/2004/20	Ikastetxeen finantziakzioa	1	2005/11/11	J
	98/2005/24	Administrazioaren isiltasuna	3	2005/12/21	J
	157/2005/20	B ereduko hezkuntza eskaintza. 2 urtekoak. Bizkaia	1	2005/03/21	J
	157/2005/20	B ereduko hezkuntza eskaintza. 2 urtekoak. Bizkaia	3	2005/10/20	J
	166/2005/20	Eskola garraioa	1	2005/04/07	J
	200/2005/20	Hezkuntza eskaintza: Zabala LHI	1	2005/05/11	J
	242/2005/20	Jokin auzian inputatutako en eskolatze baldintzak	1	2005/05/05	J
	257/2005/20	Ordezkapenerako zerrendak. Titulazioak	3	2005/07/19	J
	299/2005/25	Musika ikasketetako zentro baten zenbat betekizun	1	2005/05/11	J
	340/2005/20	Hezkuntza bereziko lan-kontratuak langileak. Hizkuntza eskakizunak	1	2005/06/16	J
	425/2005/24	Eskubideak galtzea irakaskuntzako ordezkapenatarako zerrendan, adjudikazio okerrak egoteagatik	1	2005/07/29	J
	440/2005/24	Lizentziatuek irakaskuntzan ordezkapenak egiteko aukera DBHko lehen zikloan	3	2005/12/20	J
	469/2005/20	Zeinuen hizkuntzako irakasleak. Zerbitzu-eginkizunak	3	2005/09/13	J
	481/2005/20	Musika irakasle kidegoan sartzea. Merezimenduak	3	2005/09/13	J
	507/2005/24	Ez dituzte plan berriko diplomaturak kontuan hartzen zentro publikoetan zerrendak irekitzean	1	2005/07/29	J
	538/2005/24	Urte oposizioko maisu-maistrek ezin izatea DBHko lehen zikloko plazak bete	1	2005/09/09	J
	578/2005/24	LZa osatzeko arauak DBHko lehen zikloan	1	2005/09/27	J
	595/2005/20	Amara Berri HI. Eskola-eraikinaren kokapena	1	2005/06/13	J
	737/2005/20	"Ola" hezkuntza bereziko zentroa	2	2005/10/20	J
	806/2005/20	Eskolatze baldintzak Kareaga Goikoa LHIn	1	2005/10/20	J
	858/2005/20	Eskola garraioa	2	2005/12/02	JG
	864/2005/20	Zerbitzu-eginkizunak. Osasun arrazoiak	3	2005/11/24	J
	872/2005/20	Unibertsitateko beka	1	2005/09/14	J
	1055/2005/20	Plaentxi LHI. Obrak	1	2005/10/27	J
1086/2005/20	Bilboko musika kontserbatorioa. Hizkuntza eskakizuna	1	2005/11/11	J	
1151/2003/24	Lan-poltsak antolatzeke irizpideen aldaketa	1	2005/03/11	J	
1320/2004/20	Suhiltzaile profesionalak. Larrialdiak kudeatzeko Legea aldatzea	1	2005/03/21	J	
Industria, Merkataritza eta Turismoa	1422/2004/22	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/02/02	J
Herrizaingoa	1129/2002/21*	Irregularitasunak atxiloteta batean	1	2005/01/19	J
	499/2004/21*	Ertzaintzaren araz kanpoko jarduketa	2	2005/07/07	J
	983/2004/29*	Zezen-ikuskitzuen komiko baten gaitzespena	2	2005/03/09	J
	1235/2004/19*	Polizia identifikazioa	1	2005/01/18	J
	1314/2004/24*	Ertzainek emandako tratu desegokia. Trafikoko zehapena	1	2005/02/14	J
	1371/2004/20*	Informazio espedienteak ikusi ahal izatea	3	2005/03/21	J

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Herrizaingoa	1492/2004/19*	Bermerik eza komunikazio ofizialen sisteman. Ertzaintza	1	2005/03/08	J
	846/2003/19	Ertzaintzak gorputza miatzea San Frantziskoko atondo batean	3	2005/09/28	J
	993/2003/19	Oinezkoen guneen arauak ez betetzea Ibarako plazan	1	2005/05/25	J
	993/2003/19	Oinezkoen guneen arauak ez betetzea Ibarako plazan	3	2005/09/07	J
	413/2004/24	Ertzainek emandako tratu desegokia eta trafikoko zehapenekin ados ez egotea	1	2005/04/11	J
	413/2004/24	Ertzainek emandako tratu desegokia eta trafikoko zehapenekin ados ez egotea	3	2005/11/24	J
	433/2004/24	Trafiko zehapenarekin ados ez egotea jakinarazpenetan irregulartasunak egoteagatik	1	2005/04/25	J
	465/2004/19	Poliziaren tratu txarra identifikatu eta atxilotzerakoan	2	2005/07/07	J
	712/2004/19	Agiri gabeko atzeritarraren salaketa jasotzeari uko egitea	2	2005/07/07	J
	1010/2004/19	Indarra erabiltzea poliziaren identifikazio batean	1	2005/05/03	J
	1010/2004/19	Indarra erabiltzea poliziaren identifikazio batean	3	2005/08/09	J
	1065/2004/24	Irregulartasunak trafikoko prozedura zigortzaile baten jakinarazpenean	1	2005/09/09	J
	1314/2004/24	Ertzainek emandako tratu desegokia eta trafikoko zehapenarekin ados ez egotea	3	2005/10/21	J
	1371/2004/20	Informazio espedienteak ikusi ahal izatea	1	2005/06/16	J
	1415/2004/19	Trafikoa. Poliziaren tratu bidegabekoa	1	2005/04/07	J
	1492/2004/19	Bermerik eza komunikazio ofizialen sisteman. Ertzaintza	3	2005/09/05	J
	67/2005/24	Prozedura zigortzailek dagoenik ez jakitea, ez delako jakinarazpenik egon	2	2005/11/10	J
	167/2005/19	Ertzaintzak estafa salaketa bat jasotzeari uko egitea	1	2005/05/25	J
	298/2005/23	Animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunak	1	2005/06/01	J
	326/2005/24	Irregulartasunak trafikoko prozedura zigortzaile baten froga eta tramitazio orokorrean	1	2005/06/17	J
	341/2005/20	Inspekzio deialdi ofizialak. Ertzaintza	3	2005/09/13	J
	489/2005/19	Deskoordinazioa adineko gizon baten desagertze salaketaren aurrean	1	2005/05/25	J
	489/2005/19	Deskoordinazioa adineko gizon baten desagertze salaketaren aurrean	3	2005/08/09	J
	502/2005/19	Poliziaren jazarpena atzeritar bati	3	2005/09/05	J
	530/2005/19	Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko deskoordinazioa	1	2005/07/07	J
	530/2005/19	Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko deskoordinazioa	2	2005/11/03	JG
	580/2005/19	ADNrako lagin biologikoak legez kontra lortzea	2	2005/09/28	J
	727/2005/31	Nazionalitatea aipatzea delituaren gaineko informazioetan	1	2005/10/06	JG
	958/2005/21	Ertzain baten jokaera irregularra eta abusuzkoa	1	2005/11/23	JG
	1022/2005/20	Eskola garraioa	2	2005/11/24	JG
1123/2005/24	Administrazioak bere ibilgailuaren dokumentazioa galtzea	1	2005/12/20	J	
Herrizaingo Sailburuordetza	373/2004/29	Gehiegizko abiadura hiri-zeharbidetan	1	2005/04/21	J
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	975/2002/16*	Laguntzak seme-alabak dituzten familiei	1	2005/02/28	J
	476/2003/16*	Laguntzak seme-alabak dituzten familiei	1	2005/02/28	JG
	497/2004/16*	BGAEn ustezko jarduketa araz kanpokoak	1	2005/02/28	J
	530/2004/16*	Laguntzak seme-alabak dituzten familiei	3	2005/09/15	J
	741/2004/16	Laguntzak seme-alabak dituzten familiei	1	2005/09/15	J
	1505/2004/16	Familia eta lana uztartzea	1	2005/07/26	JG
	256/2005/18	Sindikatuak eta interesdun gisa duten tokia prozeduretan	2	2005/09/20	J
	798/2005/18	Diru laguntzak: betekizunak betetzea	1	2005/09/20	J
912/2005/16	Diru laguntzak itzuli beharra betekizunak ez betetzeagatik	1	2005/10/03	J	
LANGAI	342/2005/18	Diru laguntzak: betekizunak betetzea	1	2005/05/19	J
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena	1083/2004/23	Jarduera gogaikarria lurzoru urbanizaezinean	1	2005/09/02	J

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Aginde kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)	
Jabetza Nahitaez Kentzeko Arabako Lurralde Epaimahaia	1249/2003/29	Atzerapena balio justua erabakitzerakoan	1	2005/02/04	J	
	1250/2003/29	Atzerapena balio justua erabakitzerakoan	1	2005/02/04	J	
Osasuna	862/2005/20	Zerbitzu-eginkizunak: Europar Batasuna	1	2005/09/14	J	
SVS / Osakidetza	1170/2003/20*	EPE02. Administrari laguntzaileak. Proba praktikoa	1	2005/01/17	J	
	838/2004/20*	Kolonoskopia egiterakoan sedazioa lortzeko arazoak	2	2005/05/16	J	
	1212/2004/20*	Medikuen kolektiboa	2	2005/06/04	JG	
	1119/2003/20	EPE02. Administrari laguntzaileak. Proba praktikoa	1	2005/06/04	J	
	24/2005/18	Berandutzea eta informaziorik eza umeak izateko tratamendu batean	2	2005/05/16	J	
	53/2005/18	Osasun zerbitzuak gaizki funtzionatzea	2	2005/05/24	J	
	53/2005/18	Osasun zerbitzuak gaizki funtzionatzea	2	2005/07/13	J	
	90/2005/18	Larrialdi zerbitzuaren funtzionamendua: heriotzak egiaztatzeko prozedura	2	2005/09/20	J	
	281/2005/20	Osasun zerbitzuaren funtzionamendua: Dauden balibideak	1	2005/05/05	J	
	297/2005/20	Funtzionamendua desegokia: Informazio eskasa	1	2005/05/19	J	
	305/2005/20	Joan-etorrietarako osagarria urruntasun geografikoagatik	1	2005/05/05	J	
	346/2005/20	Psikologo klinikoak	1	2005/05/24	J	
	371/2005/18	Osasun zerbitzuaren funtzionamendua: Dauden balibideak	1	2005/05/24	J	
	371/2005/18	Osasun zerbitzuaren funtzionamendua: Dauden balibideak	1	2005/07/11	J	
	412/2005/18	Gehiegi itxaron beharra umeak izateko tratamendu baterako	1	2005/12/21	JG	
	413/2005/18	Gehiegi itxaron beharra umeak izateko tratamendu baterako	3	2005/09/20	J	
	520/2005/18	Arreta desegokia gaixotasun prozesu bati	2	2005/07/11	J	
	679/2005/18	Diagnostiko okerra: ondorioak eta zergatiak	1	2005/09/20	J	
	690/2005/18	Umeak izateko tratamendu zerbitzuetan atzeratzea eta zerbitzuok etetea	1	2005/07/13	J	
	690/2005/18	Umeak izateko tratamendu zerbitzuetan atzeratzea eta zerbitzuok etetea	1	2005/12/21	JG	
	750/2005/18	Gehiegi itxaron beharra umeak izateko tratamendu baterako	1	2005/12/21	JG	
	945/2005/20	Zerbitzuetako langile-peoirako ordezkapenak. Adimen urritasuna	3	2005/10/20	J	
	945/2005/20	Zerbitzuetako langile-peoirako ordezkapenak. Adimen urritasuna	1	2005/12/23	JG	
	1108/2005/20	Lanaldia murriztea seme-alabak zaintzeko	1	2005/12/23	JG	
	1140/2005/18	Diagnostikoarekin ados ez egotea	1	2005/12/21	JG	
	1180/2005/18	Erreklamazioari ez erantzutea	1	2005/12/21	JG	
	1208/2005/18	Errehabilitazio programa batean parte hartzea	1	2005/12/21	JG	
	1222/2005/18	Paziente bati begirunerik gabeko tratua ematea	1	2005/12/21	JG	
	1235/2005/18	Denbora gehiegi itxaron beharra	1	2005/12/21	JG	
	Eusko Trenbideak	1289/2004/22*	WCrik ez trenean	1	2005/02/16	J
	Etxebizitza eta Gizarte Gaikak	90/2003/27*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzan	2	2005/07/19	J
		1218/2003/29*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzan	2	2005/05/25	J
		93/2004/29*	Erabilitako etxebizitza librerako diru-laguntza ukatzea	1	2005/01/17	J
260/2004/22*		Administrazioaren isiltasuna	2	2005/05/18	J	
459/2004/29*		Etxebizitza zaharberritzeko laguntza	1	2005/01/18	J	
808/2004/23*		BOEtarako onartuen zerrendatik kanpo geratzea	2	2005/03/01	J	
849/2004/23*		BOEtarako eskabideen erregistroaren kudeaketa	2	2005/03/01	J	
867/2004/29*		Akatsak BOEetako garajeetan	2	2005/05/25	J	
963/2004/23*		Babes ofizialeko etxebizitzetarako laguntzak ukatzea	3	2005/04/15	J	
1087/2004/23*		BOEak alokatzeko baldintzak	2	2005/03/01	J	

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Etxebizitza eta Gizarte Gaia	1136/2004/23*	BOEetarako onartuen zerrendatik kanpo geratzea	2	2005/03/01	J
	1312/2004/23*	BOEetarako onartuen zerrendatik kanpo geratzea	1	2005/01/17	JG
	1327/2004/23*	Nahitaezko desjabetzea	2	2005/06/01	J
	1330/2004/23*	Antzinasuna eskatzaileen erregistroan	1	2005/01/17	J
	1457/2004/29*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	3	2005/05/25	J
	919/2004/23	BOE baten erosketa kontratuari oniritzia ez ematea	1	2005/03/01	J
	1166/2004/23	Erabilitako etxebizitza erosteko laquntzak ukatzea	1	2005/03/01	J
	1278/2004/23	BOE baten erosketa kontratuari oniritzia ematea	3	2005/05/30	J
	54/2005/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitza batean	2	2005/06/07	J
	105/2005/18	Braille euskaraz	1	2005/11/10	J
	159/2005/29	Erabilitako etxebizitza erosteko laquntzak ukatzea	2	2005/06/07	J
	178/2005/29	BOE baten erosketa kontratuari oniritzia ez ematea	2	2005/06/07	J
	205/2005/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitza batean	1	2005/05/16	J
	210/2005/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitza batean	3	2005/08/30	J
	233/2005/29	Etxebiden izena ematea ukatzea	1	2005/05/16	J
	244/2005/29	Klausula okerrak BOE baten eskrituran	1	2005/05/16	J
	407/2005/30	BOEen Eskatzaileen Erregistrotik kanporatzea	1	2005/09/23	J
	836/2005/23	Elkarbizitza unitatea banantzea	2	2005/09/28	J
	879/2005/23	Elkarbizitza unitatea banantzea	2	2005/09/28	J
	1071/2005/29	Gorako errekurtsua ez onartzea	1	2005/11/14	J
1292/2005/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitza batean	1	2005/05/16	J	
VIESA	1461/2004/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitza batean	1	2005/12/14	J

**B) Foru aldundiak****- Arabako Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizarte Gaiak	1228/2004/21*	Aldundiaren jardunbide irregularra nazioarteko adopzio batean	1	2005/04/08	J
	1299/2004/16*	Egoitzetako zerbitzu ordainketa atzeratzea	2	2005/03/07	J

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Ogasuna eta Finantzak	104/2005/16	Katastro-titulartasuna	2	2005/06/20	J
	362/2005/16	Zor ez diren sarrerak itzultzeko eskaera	1	2005/06/17	J
	637/2005/29	Okupatuko eraikina hustea	2	2005/08/30	J
Herri Lanak Eta Garraioak	768/2004/22*	Autobusen geralekua aldatzea	3	2005/07/11	J
	679/2004/23	Segurtasunik eza foru errepide batean	2	2005/07/12	J
	19/2005/22	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/07/14	J
	63/2005/22	Errepideen mantentze-lanak	1	2005/07/14	J
	156/2005/23	A-8ak Galdakaon duen lotura berriarekin ados ez egotea	1	2005/04/15	J
	156/2005/23	A-8ak Galdakaon duen lotura berriarekin ados ez egotea	1	2005/09/28	J
	450/2005/22	Bizkaibusaren zerbitzu hobetzea	1	2005/07/14	J
	873/2005/22	Irisgarritasuna Bizkaibusean	1	2005/11/18	J
	896/2005/23	Obrak Ondarroako saihebideta dela-eta	1	2005/08/31	J
	976/2005/22	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/11/18	J

**- Gipuzkoako Foru Aldundia**

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Foru Administrazioaren Kalitatea	1099/2004/20*	Egindako zerbitzuak onartzea	2	2005/03/03	J
	1099/2004/20	Egindako zerbitzuak aitortzea	1	2005/05/25	J
Giza eskubideak, Enplegua eta Gizarteratzea	423/2005/16	Familia ugaria izatea onartzea	1	2005/07/26	J
Landa Ingurunearen Garapena	77/2005/23	Arku-ehiza	1	2005/03/01	JG
Fiskalitatea eta Finantzak	1418/2004/16	PFEZ: ezkontza-banantze kasuetako aitorten modalitatea	1	2005/01/28	J
Bide Azpiegiturak	861/2003/17*	Irisgarritasun falta hiri ingurunean	3	2005/05/25	JG
	158/2005/24	Ondare erantzukizuna	1	2005/07/29	J
Gizarte Politika	911/2004/18*	Ezgaitasun espedientea tramitatzeko atzerapena	1	2005/01/18	J
	1300/2004/01	Ezgaitu bati bainu-gela bere beharrezanetara egokitze laguntza ukatzea	2	2005/12/13	J
	613/2005/16	Nazioarteko adopzioa: gaitasun ziurtagiria ez da doakoa	1	2005/11/04	J

## C) Udalak

## - Arabako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)	
Amurrio	468/2005/29	Auzorako bide alternatiboa egiteko eskaera	2	2005/08/30	J	
	893/2005/29	Eraikitze arazoak ondo etxebizitzetan	1	2005/10/06	J	
Aramaio	672/2004/29	Udal enpresa baten argindar-hornidura eskura izatea	1	2005/06/04	J	
	672/2004/29	Udal enpresa baten argindar-hornidura eskura izatea	1	2005/09/20	J	
Iruña Oka / Iruña de Oca	1104/2004/23*	Erantzuna eskaerari	1	2005/01/18	J	
	662/2004/23	Hirigintzako diziplina	1	2005/06/01	J	
	807/2005/09	Tutorerik gabeko adin txikiko atzerritarren zentroa irekitzekotan	1	2005/10/25	J	
La Guardia	894/2004/23*	Administrazioaren isiltasuna	2	2005/03/01	J	
Legutiano	1406/2004/17*	Jarduera industrialak	1	2005/01/24	J	
Leza	492/2004/23	Trafikoaren eta aparkalekuen antolamendua	2	2005/09/28	JG	
Llodio	660/2005/17	Hondakin inerteen zabortegia	1	2005/12/13	J	
Samaniego	1203/2004/23	Sasoikako langileen egoera	1	2005/01/18	J	
Vitoria-Gasteiz	1107/2003/19*	Eskultura bizidunak bide publikoan	1	2005/03/08	J	
	1212/2003/23*	Hiri Berrikuntzarako Agentziaren jardunbidea	1	2005/01/17	J	
	491/2004/29*	Faroletan banderolak jartzea	1	2005/01/18	J	
	986/2004/22*	Haur eskolen tarifak	1	2005/02/16	J	
	1091/2004/22*	Oinezkoentzako pasabideak	1	2005/02/16	J	
	1092/2004/22*	Hiri barruko autobusen geralekuak	1	2005/02/16	J	
	107/2004/24	Zehapena ez jakinaraztea	1	2005/04/25	J	
	107/2004/24	Zehapena ez jakinaraztea	1	2005/12/20	JG	
	1514/2004/22	Taxi egokitua eskatzen deneko deien kudeaketa	1	2005/11/18	JG	
	9/2005/24	Zehapena gehiegizko abiaduran joateagatik, zinemometroaren argazkiak jasotako lekuaren bestelako batean	1	2005/04/25	J	
	144/2005/20	Ingurumen inspektzioak	1	2005/05/05	J	
	144/2005/20	Ingurumen inspektzioak	1	2005/09/13	J	
	172/2005/19	Udaltzaingoak emandako tratua	3	2005/10/19	JG	
	183/2005/19	Udaltzaingoak emandako tratua	3	2005/10/19	JG	
	308/2005/19	Autoa bide publikotik kentzea	1	2005/05/23	J	
	312/2005/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/05/11	J	
	429/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/11	J	
	444/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/11	J	
	445/2005/19	Autoa eramatea zirkulazioa oztopatzen egoteagatik	3	2005/11/22	J	
	467/2005/16	Tasak igotzea dantza kontserbatorio batean	1	2005/07/15	J	
	489/2005/19	Koordinaziorik eza adineko gizon baten desagertze salaketa baten aurrean	1	2005/11/22	J	
	685/2005/16	OHZ: hoberiak ez dira aplikagarriak erreterozentzat	1	2005/10/27	J	
	833/2005/29	Zebra-bide eskaera	1	2005/09/20	J	
	882/2005/23	Lurpeko aparkalekuen adjudikazioa	2	2005/12/13	JG	
	913/2005/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/09/12	J	
	991/2005/29	Errehabilitaziorako laguntzak ukatzea	1	2005/10/06	J	
	Zigoitia	511/2005/22	Luberrien adjudikazioa	1	2005/11/18	JG
		969/2005/23	Aparkalekuen adjudikazioa	1	2005/09/28	J

## - Administrazio batzarrak

Batzarra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bernedo	1383/2004/29*	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/02/08	J
Etxabbarri-Ibiña	969/2005/23	Lursailak lagatzea	1	2005/09/28	J



**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena	290/2005/23	Legez kontrako urbanizazioa lurzoru urbanizaezinean	1	2005/05/30	J
Amorebieta- Etxano	184/2005/23	Erantzuna eskaerari	1	2005/04/18	J
	186/2005/23	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/04/18	J
	186/2005/23	Administrazioaren isiltasuna	2	2005/10/20	J
	523/2005/23	Txakur arrikutsuak	2	2005/10/20	JG
Atxondo	1336/2004/29*	Artxibo publikoetako informazioa ikusi ahal izatea	2	2005/03/09	J
	568/2004/23	Bide publiko ibilgailuentzat ixtea	2	2005/09/28	JG
	1336/2004/29	Artxibo publikoetako informazioa ikusi ahal izatea	3	2005/11/14	JG
Barakaldo	58/2004/24*	Ondare erantzukizuna garabiak ibilgailuari egindako kalteengatik	1	2005/02/01	J
	1140/2003/28	Pertsona ezgaituek aparkatzeko dituzten arazoak	1	2005/07/26	J
	58/2004/24	Ondare erantzukizuna garabiak ibilgailuari egindako kalteengatik	1	2005/09/27	J
	1508/2004/23	Arazoak garajeen komunitatean	3	2005/10/20	JG
	79/2005/17	Irisingaritasun falta establezimendu publiko batean	2	2005/11/24	J
	237/2005/23	Bidea egitea La Pazen	1	2005/04/18	J
	304/2005/25	Ondare erantzukizuna	2	2005/09/12	J
	416/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/10/20	JG
Basauri	948/2005/23	Ondare erantzukizuna	1	2005/09/28	J
Bermeo	658/2004/23*	Ur filtrazioak baserri batean	3	2005/04/18	J
	1238/2004/25*	Ondare erantzukizuna	2	2005/03/07	J
Bilbao	1032/2003/19*	Bide publikotik alde egiteko agintzea mimo antzeppenak egiteagatik	1	2005/03/08	J
	1323/2003/24*	Trafikoko zehapena	1	2005/02/14	J
	597/2004/19*	TAO isunak	2	2005/04/07	J
	625/2004/19*	TAO isunak	2	2005/04/07	J
	860/2004/24*	TAO isunak	2	2005/04/25	JG
	1051/2004/23*	Jarduera baimena	1	2005/01/17	J
	1101/2004/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/01/24	J
	1112/2004/24*	TAO isunak	1	2005/02/14	J
	1222/2004/24*	Gaizki jakinarazitako trafiko zehapena	1	2005/01/19	J
	1351/2004/24*	Ados ez egotea trafikoko arau-hauste baten tipifikazioarekin eta horren tramitazioarekin	1	2005/01/19	J
	1389/2004/25*	Ondare erantzukizuna	3	2005/04/21	J
	1430/2004/29*	Ibilgailuei behin betiko baja ematea eraman eta gero	1	2005/02/04	J
	1256/2003/19	Trafikoko zehapena	2	2005/09/28	J
	301/2004/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/12/12	JG
	697/2004/23	Aparkaleku adjudikazioaren baldintzak	2	2005/07/12	J
	1126/2004/23	Animalien ordenantza betetzea	2	2005/09/28	J
	1222/2004/24	Gaizki jakinarazitako trafiko zehapena	1	2005/04/11	J
	1430/2004/29	Ibilgailuei behin betiko baja ematea eraman eta gero	2	2005/08/30	J
	221/2005/23	Arazoak lurpeko aparkalekuan	3	2005/09/01	J
	380/2005/24	Bankuko kontua enbargatzea TAOko isunak ez ordaintzeagatik	3	2005/10/21	J
	397/2005/19	TAOko txartela ukatzea	1	2005/07/07	J
	448/2005/19	Gaizki jakinarazitako trafiko zehapena	2	2005/09/13	J
	485/2005/17	Zarata kutxetak konpontzeagatik	1	2005/07/10	J
	530/2005/19	Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko deskordinazioa	1	2005/07/07	J
	530/2005/19	Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko deskordinazioa	1	2005/09/28	J
	593/2005/19	Trafikoko zehapena	1	2005/08/29	J
	603/2005/19	Udaltzaingoaren tratu bidegabea	1	2005/08/29	J
	631/2005/24	Gaizki jakinarazitako trafiko zehapena	1	2005/07/29	J

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bilbao	689/2005/19	Trafikoko zehapena	1	2005/09/13	J
	726/2005/31	Nazionalitatea aipatzea delituen gaineko informazioetan	1	2005/09/13	J
	770/2005/19	Atzerapena erroldako datuak aldatzeko eskaera burutzean	1	2005/09/13	J
	783/2005/24	Trafikoko zehapena	1	2005/09/09	J
	787/2005/29	Udal jardunbiderik eza aldameneko lur saillean	3	2005/12/14	JG
	865/2005/19	Udalzaingoaren inibizioa kale edanak sortutako eragozpenen aurrean	1	2005/10/18	J
	867/2005/29	Erriberako merkatuaren kudeaketa aldatzea	1	2005/12/14	JG
	906/2005/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/09/12	J
	906/2005/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/12/12	JG
Derio	598/2005/29	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak. Terrazak okupatzea	1	2005/11/14	J
Durango	1369/2004/16*	TMIZ salbuespena: Epez kanpo egindako eskaera	1	2005/01/24	J
	1369/2004/16	TMIZ salbuespena: Epez kanpo egindako eskaera	2	2005/10/28	J
	72/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/05/25	J
	273/2005/16	Likidazioa HLBGZarengatik	2	2005/10/20	J
Erandio	1400/2004/28*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/04/13	J
	1213/2000/19	Irisgarritasun arauak ez betetzea aparkalekuei dagokienez	1	2005/05/25	J
	1213/2000/19	Irisgarritasun arauak ez betetzea aparkalekuei dagokienez	1	2005/09/28	J
Ermua	442/2004/23*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	3	2005/05/30	J
Etxebarria	77/2004/28*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/03/03	J
Galdakao	178/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2005/03/17	J
	178/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	2	2005/12/14	JG
	179/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2005/03/17	J
	179/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2005/07/19	J
	679/2004/23	Bide segurtasuna N-634 errepidean	1	2005/05/30	J
	1487/2004/16	Diru kopuruak erreklamatzeko udalari	2	2005/10/28	J
	156/2005/23	A-Sak Galdakaon duen lotura berriarekin ados ez egotea	1	2005/09/28	JG
	688/2005/29	Birpartzelazio proiektuarekin ados ez egotea	1	2005/10/06	J
Galdames	1147/2004/22*	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/02/16	J
Getxo	283/2004/20*	Eskola instalazioak	2	2005/06/04	J
	283/2004/20	Eskola instalazioak	1	2005/12/02	J
	296/2005/19	Autoa bide publikotik kentzea	1	2005/05/25	J
	324/2005/23	Lur-sail pribatua okupatzea	3	2005/10/20	JG
	477/2005/17	Irisgarritasuna urbanizazio elementuetan	1	2005/07/11	J
	860/2005/24	Trafikoko zehapen batekin ados ez egotea jakinarazpenik egon ez delako	1	2005/10/26	J
Gordexola	380/2004/23*	Errepide publikoa ixtea	1	2005/01/18	J
	1180/2004/23*	Zerbitzu publikoak baserrian	1	2005/01/18	J
Gorliz	555/2005/29	Gandiako UE-1 birpartzelatzeko proiektua	1	2005/07/13	J
	709/2005/17	Etxebizitza egokitu behar izatea	2	2005/09/07	JG
	959/2005/29	Gandiako UE-1 birpartzelatzeko proiektua	1	2005/10/06	J
Güeñes	493/2005/29	Larren aprobetxamendua ukatzea	1	2005/12/14	JG
Igorre	751/2005/23	Administrazioaren isiltasuna	2	2005/09/28	J
Lekeitio	983/2005/29	Eraikina konpontzeko baimenarekin ados ez egotea	1	2005/10/06	J
Markina-Xemein	979/2004/29	Udal jardunbidea karkaban	1	2005/06/04	J
Meñaka	889/2005/23	Erantzuna eskaerei	2	2005/09/28	JG
	965/2004/29	Legez kontrako eraikuntza baimendua lurzoru urbanizaezinean	3	2005/07/13	J
Mungia	1281/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2005/11/17	JG
	352/2005/29	Betearazte subsidiarioaren gaineko administrazio isiltasuna	2	2005/07/13	J
Muskiz	747/2004/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/01/24	J
	747/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/10/20	JG
	10/2005/23	Hirigintzako diziplina	3	2005/09/28	J
Orozko	351/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	3	2005/09/08	J

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Ortuella	716/2005/23	Lur-sailen hirigintza egoera	1	2005/09/02	J
Otxandio	1115/2005/29	Derrigorrezko txostenik ez egotea obrak legezatzeko espedientean	1	2005/12/14	J
Portugalete	1110/2002/24*	Ondare erantzukizuna	2	2005/03/11	J
	113/2004/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/01/24	J
	1176/2004/31*	Etixerik gabeko pertsonak errolatzea	1	2005/01/18	J
	1231/2004/31*	Etixerik gabeko pertsonak errolatzea	2	2005/04/26	J
	984/2002/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2005/05/25	J
	545/2004/19	Atzeritarren egoera	3	2005/07/07	J
	1176/2004/31*	Etixerik gabeko pertsonak errolatzea	3	2005/07/07	J
	1494/2004/19	Tratu bidegabeta atzeritarrari	1	2005/03/08	J
	152/2005/19	Administrazioaren isiltasuna	3	2005/10/19	J
	1061/2005/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/11/18	J
	1230/2005/25	Ondare erantzukizuna	1	2005/12/22	JG
Santurtzi	590/2004/19	Ibilgailu bat eramatea eta suntsitzea	1	2005/06/04	J
Sestao	449/2004/19*	Trafikoko zehapena	1	2005/03/08	J
	449/2004/19	Trafikoko zehapena	2	2005/05/26	J
	92/2005/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2005/11/17	JG
	938/2005/31	Errolakoa betekizunak gizarte laquntzak tramitatzeke	1	2005/09/11	J
Sopelana	975/2004/19	Hondartzetarako bidea oinezkoentzat egitea	1	2005/11/03	J
	70/2005/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/26	J
	222/2005/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/26	J
	820/2005/19	TAO jartzearekin ados ez egotea	1	2005/11/03	J
Trucios-Turtzioz	1116/2005/20	Lanaldia murriztea seme-alabak zaintzeko	1	2005/11/24	J
Urduliz	102/2005/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/26	J
Valle de Trápaga-Trápagan	121/2005/23	Nahitaezko desjabetzea	1	2005/04/18	J
Zaratamo	473/2004/22	Hainbat zerbitzu egiteko eskaera	1	2005/11/18	JG
	231/2005/22	Txabola osasungaitza	2	2005/07/15	JG

## - Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Antzuola	765/2005/16	TMIZaren salbuespena ez aplikatu izana	1	2005/09/15	J
Aretxabaleta	887/2005/17	Lurzoru urbanizaziazinean sailkatutako jarduerak	1	2005/09/15	J
Arrasate-Mondragón	830/2005/19	Bi udaltzainen abusuzko tratua	1	2005/09/13	J
Astigarraça	1050/2005/20	Haur eskola	1	2005/12/02	J
Azpeitia	921/2005/25	Ondare erantzukizuna	2	2005/09/11	J
Beasain	631/2004/22*	Udal ekipamenduetatik etorritako filrazioak garaje batean	1	2005/01/27	J
Donostia-San Sebastián	1050/2003/19*	Eskultura bizidunak bide publikoan	1	2005/03/08	J
	1111/2003/16*	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/06/23	J
	1149/2003/29*	Akatsak etxebizitzetarako kalean	1	2005/02/04	J
	1345/2003/29*	Prekarioko lizentzia Ulian	1	2005/01/19	J
	5/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	6/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J
	7/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	8/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	9/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J
	10/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	11/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	12/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J
	13/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	14/2005/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	15/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	16/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	17/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	18/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	19/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/14	J
	20/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	21/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	22/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	23/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	24/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	25/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	26/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	27/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	28/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J
	29/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J
	30/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	31/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	32/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	33/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	34/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	35/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	36/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	37/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	38/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	39/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	40/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J
	41/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J
42/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
43/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
45/2004/17*	Isurketak Ilurgita kalan	2	2005/04/19	J	
47/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
49/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
50/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)	
Donostia-San Sebastián	51/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	52/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
	53/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	54/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	55/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	355/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
	356/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	357/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
	358/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
	359/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	360/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
	362/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	363/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/25	J	
	364/2004/17*	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2005/01/24	J	
	486/2004/29*	Konpentsazioa ur hodiak aldatzeagatik	1	2005/01/19	J	
	559/2004/29*	Aparkalekua adjudikatzeko baldintzak	1	2005/01/19	JG	
	744/2004/23*	Ondare erantzukizuna	2	2005/03/01	J	
	1103/2004/23*	Administrazio-espedienteak eskura izatea	1	2005/01/17	J	
	1172/2004/28*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	3	2005/07/06	JG	
	1177/2004/24*	Diskriminazio tratua trafikoko jardunbide batean	1	2005/01/18	J	
	1427/2004/22*	Ibilgailuen trafikoa Pio Baroja pasealekuan	1	2005/02/16	J	
	1345/2003/29	Prekarioko lizentzia Ulian	1	2005/04/21	J	
	744/2004/23	Ondare erantzukizuna	1	2005/07/11	J	
	865/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2005/10/11	JG	
	935/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/11	J	
	999/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/04/19	J	
	1080/2004/22	Ondare erantzukizuna	2	2005/07/14	JG	
	1146/2004/24	Garabiak ibilgailua eramatea	1	2005/09/27	J	
	1467/2004/29	Berdaguerako hiri-erabilerekin bat ez datorren erabilera	3	2005/05/25	J	
	291/2005/29	Eraikina egitearen ondoriozko arazoak	1	2005/05/25	J	
	375/2005/16	OTA txartela. Zerbitzua hastea eta kuota egokitzea	3	2005/12/13	J	
	294/2005/22	Hiri garraioan egokitzapenak erregulatzea	1	2005/07/11	J	
	438/2005/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzan	2	2005/12/14	J	
	464/2005/20	Udaltzaingoa. Lehen mailako agentera igotzea	1	2005/06/01	J	
	479/2005/30	BOEen kupa adimen urritasuneko senide baten ardura dutenentzat	1	2005/10/25	JG	
	483/2005/30	Sarrerak zenbatzeko era alokairuko BOE bat lortzeko	1	2005/09/23	J	
	567/2005/29	Gurutze-Alden kale bat egitearekin ados ez egotea	1	2005/07/13	J	
	574/2005/23	Galtzadaren egoera	2	2005/09/28	JG	
	605/2005/23	Hirigintzako diziplina	1	2005/07/12	J	
	605/2005/23	Hirigintzako diziplina	1	2005/10/20	J	
	803/2005/17	Irisgarritasun arazoak	1	2005/10/20	JG	
	850/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/10/20	J	
	926/2005/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/10/20	JG	
	957/2005/22	Fidantza itzultzea	1	2005/11/04	JG	
	1099/2005/19	Kalez kale saltzerakoan salgaiak konfiskatzea baimenik ez izateagatik	2	2005/12/15	J	
	Eibar	644/2004/23	Ondare erantzukizuna	1	2005/07/12	J
		524/2005/20	Hautaprobetarako deialdia. Ezgaitasuna	2	2005/10/20	J
IMESA	644/2004/23	Ondare erantzukizuna	1	2005/07/12	JG	
Errenteria	910/2004/19	TAO isunak	1	2005/03/08	J	
Hondarribia	971/2004/21*	Emakumeen diskriminazioa Alardean	1	2005/03/23	JG	
	251/2005/23	Eskaera ukatzea	2	2005/09/02	JG	
Irun	724/2004/21*	Alarde igualitarioaren diskriminazioa jaietako egitarauan	1	2005/01/19	J	
	757/2005/17	Bi alarde elkarbizitzea	1	2005/07/12	JG	
	868/2005/19	Segurtasun neuririk ez alardean	1	2005/09/28	J	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Irura	1061/2004/23*	Hirigintzako diziplina	1	2005/07/12	JG
	837/2005/23	Katuek sortutako eragozpenak	1	2005/10/20	JG
Lasarte-Oria	22/2005/22	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/04/05	J
Legazpi	1086/2003/20	C taldeko funtzionarioei eginkizunak esleitzea	1	2005/05/11	J
Oiartzun	1185/2004/17*	Irisgarritasuna hauteskunde kolegioetan	1	2005/01/24	J
	236/2005/23	Administrazioaren isiltasuna	1	2005/07/12	J
Oñati	1412/2004/29	Akatsa hilobi baten transmisioan	1	2005/05/12	J
Ordizia	1521/2004/22	Ataripeen mantentze-lanak	1	2005/08/18	J
	566/2005/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/11/17	J
Ormaiztegi	861/2005/29	Erantzunik ez hirigintza hitzarmen bati	1	2005/09/20	J
Pasaia	315/2005/16	Katastroaren gaineko informazioa	1	2005/09/15	J
	343/2005/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2005/07/26	J
Soraluze- Placencia de las Armas	1055/2005/20	"Plaentxi" LHI-Obrak	1	2005/10/27	J
Urnietta	337/2005/20	Postuen egituratzea	1	2005/07/11	J
Urretxu	1408/2004/17*	Jarduera industrialak	1	2005/01/24	J
	1408/2004/17	Jarduera industrialak	1	2005/06/07	J
Zizurkil	1364/2003/22	Tasak: zaborra biltzea	2	2005/07/15	JG
Zumaia	939/2003/23*	Legezlatu gabeko itxitura lur zati batean	1	2005/01/18	J
	1006/2004/23*	Hirigintzako diziplina	1	2005/01/18	J

**D) Beste erakunde publiko batzuk**

	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bizkaiko Sendagileen Elkargoa	1245/2004/18*	Erantzunik ez eskaera bati	1	2005/01/18	J
Gipuzkoako Odonto- Estomatologoen Elkartea	110/2005/18	Salaketa titulurik izan gabe dentista lanetan aritzeagatik	1	2005/05/16	J
Legelarien Euskal Kontseilua	378/2004/21*	Errekurtsioa astiroegi tramitatzea	2	2005/07/07	J
	588/2005/21	Atzerapena prozedura zigorzaile batean	1	2005/11/04	JG
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa	948/2005/23	Ondare erantzukizuna	1	2005/09/28	J
Mebisa - Bilboko Metroa	729/2004/22	Igogailuen funtzionamendua gaueko ordutegian	2	2005/11/18	JG
Euskal Herriko Unibertsitatea	1124/2004/25*	Ezagupenak ebaluatzeko prozedura	1	2005/01/17	J
	1189/2004/25*	Garraiorako laguntza ukatzea	2	2005/02/10	J
	1199/2004/24*	Unibertsitateko bigarren zikloan matrikulatzen ez uztea			
		deialdi guztiak agortu izanagatik	1	2005/01/25	J
	65/2005/20	Lanaldi murrizketa. Irakasleen esleipena	1	2005/04/19	J
	84/2005/20	Irakasle laguna. Irakasleen esleipena	1	2005/04/07	J
	84/2005/20	Irakasle laguna. Irakasleen esleipena	1	2005/06/28	J
	101/2005/20	Irakaslanari buruzko informazioa lortu ahal izatea	2	2005/05/24	J
	335/2005/20	Ingurugiro Zientzien lizentziaturako ikasleak	1	2005/06/01	J
1169/2005/20	Doktoratu aurreko bekak	1	2005/11/24	J	

## 4. ARARTEKOA 2005EAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA

### A) Eusko Jaurlaritza

Saila	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	Kabinetearen Zuzendaria	Igone Martínez de Luna a.t.a.	1086/2004/20	Ezgaitasuna duten irakasleak	2005/10/21	J
			469/2005/20	Zeinuen hizkuntzako irakasleak. Zerbitzu-eginkizunak	2005/10/21	J
Herrizaingoa	Kabinetearen Zuzendaria	Javier Portuondo j.t.a.	72/2001/21*	Irregularitasunak zehapen-prozeduran	2005/05/25	J
			916/2002/24*	Trafikoko zehapena. Ertzainaren arauz kanpoko jokabidea	2005/06/15	JG
			916/2002/24 <sup>(1)</sup>	Trafikoko zehapena. Ertzainaren arauz kanpoko jokabidea	2005/12/12	JG
			846/2003/19	Ertzaintzaren gorputz miaketa San Frantziskoko atari batean	2005/11/25	J
			846/2003/19 <sup>(1)</sup>	Ertzaintzaren gorputz miaketa San Frantziskoko atari batean	2005/12/12	J
			341/2005/20	Inspekzio deialdi ofizialak. Ertzaintza	2005/10/21	J
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	Kabinetearen Zuzendaria	Agustín Atxa j.t.a.	963/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitzetarako laguntzak ukatzea	2005/05/31	J
			963/2004/23 <sup>(1)</sup>	Babes ofizialeko etxebizitzetarako laguntzak ukatzea	2005/12/12	J

### B) Udalak

#### - Arabako Lurralde Historikoa

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Leza	Alkatea	José Ignacio Pérez de Loza	492/2004/23*	Trafikoaren eta aparkalekuen antolamendua	2005/02/01	J

#### - Administrazio batzarrak

Batzarra	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hereña	Lehendakaria	Iñigo Martínez de Trespuentes	720/2004/23*	Administrazioaren isiltasuna	2005/02/02	JG
			720/2004/23 <sup>(1)</sup>	Administrazioaren isiltasuna	2005/12/12	JG



**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartaraz- penaren data	Informazio jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Alonsotegi	Alkatea	Gabino Martínez deArenaza	482/2004/23*	Saihesbidea egiteko proiektua	2005/02/01	J
			603/2004/23*	Hirigintzaren legezketasuna	2005/02/01	J
Atxondo	Alkatea	José Antonio Igarza	383/2003/23*	Hirigintzaren legezketasuna	2005/02/01	J
			568/2004/23	Bide publiko baterako sarbidea	2005/03/08	J
Berneio	Alkatea	Juan Carlos Goienetxea	658/2004/23*	Kalteak baserri batean ura filtratzeagatik	2005/05/31	J
Berriatua	Alkatea	Rodolfo Bakeriza	605/2004/17*	Hondakinak pilatu eta erretzea legez kanpoko hondakindegian	2005/02/03	J
Bilbao	Alkatea	Iñaki Azkuna j.t.a	1482/2001/16*	Administrazioaren isiltasuna	2005/02/08	JG
			1482/2001/16 <sup>(1)</sup>	Administrazioaren isiltasuna	2005/12/12	JG
			301/2004/25*	Ondare erantzukizuna	2005/05/25	J
			1389/2004/25	Ondare erantzukizuna	2005/05/26	J
Galdakao	Alkatea	Joseba Escribano	996/2002/25*	Ondare erantzukizuna	2005/05/25	J
Getxo	Alkatea	Iñaki Zarraoa	283/2004/20	Eskola instalazioak	2005/05/25	J
Mungia	Alkatea	José Antonio Torrontegi	821/2003/23*	Administrazioaren isiltasuna	2005/02/01	J

**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartaraz- penaren data	Informazio jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Donostia-San Sebastián	Alkatea	Odón Elorza j.t.a.	587/2001/24*	TAOko egoiliar bereizgarria ukatzea	2005/06/15	J
			60/2004/23*	Administrazioaren isiltasuna	2005/02/02	J
Hondarribia	Alkatea	Borja Jauregi	1042/2003/17*	Eragozpenak etxe batean ustez egiten den jarduera batengatik	2005/02/03	J
Orio	Alkatea	Ramón Etxeberria	634/2002/24 <sup>(1)</sup>	Ondare erantzukizuna	2005/12/12	J



IX. ATALA

**ONDORIOAK.  
ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK**



Otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko egina bera, honako hau erabakitzen du: *“Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio”*.

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta euskal erakunde publikoek hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da, hau da, Autonomia Erkidegoko Administrazio nagusiak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki-Administrazioak erakusten duten errespetua.

2005. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan-esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Kapitulu honetan egiten den balorazioak, ordea, euskal autonomia erkidegoko administrazioen jarduerak eta jarduera horretan izan litekeen eskubide-urratzea ditu hizpide.

Kapitulua konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 9. artikuluan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, horien defentsa esleitzen baitaio Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako I. Kapitulua hitzaurreetako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Ararteko erakundean eta Estatuko gainerako parlamentu mandatarrien txostenetan konstantea da oinarritzko eskubide eta askatasun publiko deritzen eskubideen inguruan kexa gutxi jasotzea.

Arestian esandakoaren froga gisa, aurkeztutako kexarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzea gerta litekeelako kasuen ondorioz ere –artikulu horretan administrazio publikoei eraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorreki objektibotasunez zerbitzatuz jokatzea ezartzen zaie–.

Konstituzioaren 10. artikulua I. tituluaren atartea da. Bertan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarritzko eskubide eta betebeharren sistema. Artikulu horrek haxe dio lehenengo atalean: *“Ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legee eta gainerakoaren eskubideei zor zaien begirunea”*. Hortaz, gizabanakoaren duintasuna da oinarritzko zutabea, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko

eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta horren gainean eusten dira oinarritzko eskubide guztiak. Era berean, oinarritzko zutabe horrekin eta eskubideen sistema osoarekin batera, kutsu filosofikoaz, lehenengo artikuluan jasotako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiak daude, hau da, askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasun politikoa. Ararteko erakundeak, gizon-emakumeen eskubideen alde egiten duen lan horretan, argi izan behar du uneoro zein diren eskubide sistemaren oinarriak, bere eginkizuna pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea delako.

Balio demokratikoak hartzen baditugu hizpide (eta horri buruz hitz egin behar du Euskadiko Ombudsmanak), garbi utzi behar dugu giza eskubideekiko errespetua bezalako balioek gabezia eta hutsune handiak dituztela gure herrialdean; batez ere, bizitzarako, askatasunerako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea larriki eta zabal urratzen delako eta berdintasuna bezalako beste eskubide batzuk ere urratzen direlako. Gai horiek zabal aztertuko ditugu; baina, lehenengo lerro hauetan oso garrantzitsua edo beharrezkoa den gai bat aipatu nahi dugu, hain zuzen ere, botere publikoek eta gizarte osoak euskal sare morala onbideratu behar dugu eta balio demokratikoak oso-osorik, bene-benetan eta era kontsekvente batean barneratu behar ditugu, giza eskubide oinarrikoenen defentsa aldarrikatzen duen ikuspuntu etiko batetik. Jakina, Arartekoak gai honetan dagokion erantzukizuna hartuko du.

Zaila da administrazio on bat izateko eskubidearen egoerari buruzko balorazioa egitea; hala ere, esan behar dugu, hainbat ombudsmanen adierazpen eta jardunbideekin bat etorruta, herritarrek administrazio on bat izateko eskubidea dutela, eta, hori, gai publikoetan parte hartzeko oinarritzko eskubidearekin lotuta dago. Hori guztia herri administrazioen jardunbidea arautzen duen legerian jasota dago. Eta adierazi behar dugu administrazio ona izateko eskubidea izendatu dugun ataleko gaiak ez daudela egoera oso onean, iaz herritarrek aurkeztutako kexa askoren zeharkako ikuspuntuak agerian uzten duen bezala. Herri administrazioek sarriagotan entzun behar lituzkete herritarrak, hobetu egin behar lituzkete informazio bideak, eta, batez ere, parte hartzeko benetako bide eraginkorrak ahalbideratu behar lituzkete. Erreklamazio legitimoa da, eta, esan dugun bezala, tramitatutako kexa askotan ageria geratu da. Eskubide hori gauzatu eta aldarrikatu behar du Arartekoak.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

### • **Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua**

*“Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako diskriminazioa ezin da nagusi izan.”*

### • **Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua**

*“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta denena batera osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezen; baita galerazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.”*

Asko dira zuzenean zein zeharka berdintasun printzipioaren balizko urratzearekin zerikusirik izan lezaketen kexak.

Erakunde hau, bere esku hartzeetan, konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzaila den herri botereen jarduerarik gerta ez dadin saiatu da.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioa urratzea beste eskubideetako edozeinekin lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eskubidea aztertzerakoan, lehenengo eta behin, 2005. urtean onetsi den arau garrantzitsu bat aipatu behar dugu:

Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18an onetsi duen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Legea. Bai eremu publikoan bai pribatuan, lege horrek parekotasuna sustatu nahi du eta emakumezkoek jasaten dituzten bereizkeriak ezabatu.

Izan ere, diskriminazioaren aurkako zuzenbidea deritzonaren kategoria eta nozio juridikoak argitzen ditu, eta erakunde publikoentzat eta euren funtzio desberdinei dagokienez (kasu askotan modu hertsian) benetako eta eraginkortasunezko berdintasunaren agindua gauzatzen du (Konstituzioko 9.2 artikuluan jasotakoa), administrazioen jarduketa ezaren aurrean oinarritzko printzipio bezala. Lehendik ere konstituzio-agindu zuzena zenaren arauketa honek, zalantzarik gabe, erraztu egingo du herri administrazioek sexuen arteko berdintasunaren arloan dituzten legezkotasun mugen ezagupena; gainera, betebeharrak publiko berri horiek inbokatzeak aukera bermatuko du, eta horrela, hiritarrei horiek zorrotz betetzeko eskabidea egiteko gaitasuna bermatuko zaie.

Jakina den moduan, esparru pribatua da emakumeen aurkako diskriminazio egoera gehien jasotzen dituen arloa. Hori askotan, emakumeen egitura-mendekotasun egoerak izatearekin uztartzen da, eta hori rolen bereizketa estereotipatua dela eta ematen da. Bereizketa horiek familia, etxea eta mendeko pertsonen zainketaren esparruan dira nabarmenen.

Herri agintaritzak neurriak hartu beharko lituzke lan betebeharrak eta bizitza pribatua bateragarri bihurtzeko.

Zentzu horretan azpimarratzekoa da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak bizitza *personala*, familiakoa eta lanekoa adiskidetzaren kontzeptua jasotzen duela lehenengoz, eta laneko bizitza adiskidetzaren barruan bizitza pribatuko gaiak sartzen dira eta horiek beti ez daude erlazionatuta familiarekin. Horrek edozein pertsonaren giza beharrezko inguruko ikuspegi zabalagoa adierazten du; horiek, horrela, beste pertsona batzuen zaintza zorrotzetik edo familia kontzeptutik bereizita gelditzen dira, familia pertsona guztiak barne hartzen ez dituen unitatetzat hartuta.

Bereziki kezkarria da etxeko langileek Euskadin duten egoera; emakume horietariko asko kolokatasun handiarekin egiten ari direlako lan, soldatei, lanaldiari eta Gizarte Segurantzari sartuta ez egoteari dagokionez.

Alderdi horretatik, beharrezkoa litzateke Eusko Jaurlaritzak, zehapen eta ikuskapen ahalmenak erabiliz beharrezko neurriak hartzea, enplegatzaileek langile horiek Gizarte Segurantzari alta emateko betebeharrak kontrolatzeko, baita legezko baldintza guztiak betetzeko ere, soldadari eta lanaldiari nahiz oporrei dagokienez.

Genero arazoak direla eta ematen den diskriminaziorik larriena, indarkeria sexistaren fenomeno kezkarria da, eta emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisikoaren aurkako eraso onartezina da.

Botere publikoek tratu txarrak jasandako emakumeen beharrei eman behar dioten erantzunak diziplina ezberdinak uztartu behar ditu, besteak beste, jarduera judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta abegi zerbitzuen funtzionamendua, eta etxebizitza bat izateko aukera lotuz.

Idatziz jasota utzi behar da zenbait administrazio publikori diskriminazioa egotzi dioten erreklamazioak egon direla. Behin eta berriro errepikatzen diren eta oraindik konpontzeke dauden auzi horiek kulturaren, kirolaren eta herriko jaien esparruari eragiten diete batez ere. Dagoeneko adierazi dugu, zuzeneko diskriminazioak edo agerikoak harreman pribatuen esparruan gertatzen direla gehienbat. Hala ere, agintaritza publikoei dagokien eginkizun berezia nabarmentzen saiatu gara, hau da, harreman horiek aldatzeko eginkizuna. Hain zuzen ere, benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko agintaritza horiek duten oinarrizko erantzukizunari dei egin diogu, eta inhibizio edo pasibitateko jokabidearekin amaitzeko beharra nabarmendu dugu. Izan ere, gehiegitan, diskriminazioak betikotzea ahalbidetzen du, pribatuak direnez, estalita daudelako.

Zentzu horretan, derrigorrean aipatu behar dugu berriro emakumeek jasaten duten diskriminazioa Irungo eta Hondarribiako alardeetan, eta EAeko herrietako beste hainbat jai ospakizunetan.

Atzerritarren eta gutxiengo etnikoen taldeak dira, beren eskubideen urrakortasun aukera gehiago dituztenak.

Diskriminazio jarrera ugari esparru pribatuan ematen dira, bertan pertsona askok jarrera xenofoboak eta etorkinen aurkakoa mantentzen dutelako.

Jardunbide horietan zerikusi zuzena dute aurreiritzi eta estereotipoek, zenbaitetan oso sustraiturik dauden jarrerak direlako eta atzerriko populazioaren taldea delituzko ekintzak gauzatzearekin uztartzen dutelako.

Komunikabideetan atzerriko pertsonekin zerikusia duten berriak modu egokian tratatzeak, etorkinen ikuspegi gutxiesgarriaren alde ez egiten lagun dezake.

Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu 2004. urtean, polizia etorkinen inguruan ematen duen informazioari buruz eginiko izaera orokorreko gomendioa betetzea.

Administrazioak muturreraino eraman behar du arretaren kontua informazioa tratatzeko garaian, eta baita pertsona guztien eskubideekin errespetuzko elkarbizitza eredia lortzeko gauzatzen dituen sentsibilizazio kanpainak egiterakoan ere.

Zenbait euskal udalek –espresuki eskatu diegu gure gomendio horiek kontuan hartzea beren jardunbidean– aldeko jarrera azaldu dute atzerriko pertsonen irudi ezkorren alde ez egiteko neurriak hartzeko.

2005. urtean bi jarduera oso garrantzitsu gauzatu dira atzerriko pertsonen egoeraren eta horien eskubideen esparruan:

- atzerriko pertsonen normalkuntza juridikorako ezohiko prozedura eta
- bizileku baimen iraunkorra ez duten atzerriko pertsonen erroldatzearen balio-galtzearen inguruko legezko aurreikuspena indarrean sartu izana 2005eko abenduan.

Erregularizazio prozesuan, udalen esku-hartzea garrantzitsua izan da, bai ohiko dokumentazio prozesuan –sustraitze arrazoiak direla-eta bizileku baimena lortzeko gizarte txostenak eginez–, eta baita ezohiko dokumentazio prozesuan ere –bertan bizi izana justifikatzeko erroldatze ziurtagiriak emanez–.



Atzerriko pertsona askoren ardura nagusia, beren egoera juridikoaren normalkuntza da.

Erroldak garrantzi handia dauka eskubideak erabiltzeko orduan, eta horrek erakundearen esku-hartze asko eragin ditu, pertsona atzerritarren eskubideak babesteko. Horri dagokionez, beharrezkoa da araudia eskubideak bermatzearen ikuspegitik aztertzea, eta gainera, gomendio orokorra landu da EAEko udaletarako, ***Udalek errolda-  
inskripzioa nahiz horren iraungitasuna eta Europatik kanpoko pertsona  
atzerritarren datuen lagapena (herri administrazioei) erabakitzeko pro-  
zedurari buruzkoak.***

Geroz eta errealtate kezkarriagoa dena, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera da.

Adin txikikoaren interesa aintzat hartuta, kasu honetan atzerritarrena, beharrezkoa da Administrazioak zuhurtzia handiz jardutea, halako jarduketak egitean. Administrazio eta erakunde desberdinen esku-hartzea kontuan hartuta, komenigarria da jarduketa protokoloak edo beste tresna batzuk egotea, administrazio eta erakunde guztien arteko koordinazioa bermatzeko, eta horrela, adin txikikoak gizarte eta hezkuntza laguntza egokia jasotzeko, edozein unetan.

Ijito etniako pertsonak, zerbitzu, baliabide eta gizarte aukeren onuradun izateko aukera gutxiago izan dituzte historikoki.

Ijito herriaren sustapen integralerako nahiz gizarte partaidetzarako Planaren preskakuntza Euskal Herrian, lehenengo pausoa da gizarteratze politika aktibo baten baitan. Ezarritako neurriek, berriz, betetzea bermatzen duten baliabideen zuzkidura behar dute. Diskriminazioaren aurkako borroka funtsezkoa da gizarte desberdintasunak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuen prebentzioa egiteko. Horrenbestez, administrazioek esfortzu handiagoak egin behar dituzte diskriminaziozko jarduketak ekiditeko.

Administrazioek gauzatutako jarduera gehienak, gizarte bazterkeriaren aurkako ikuspegitik egin dira. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da horretaz gain tratu berdintasunarekin, kultura nortasunaren onarpenarekin edo esparru komunetan parte-hartzerekin lotutako ekimen publikoak martxan jartzea.

Bestalde, ezgaituek ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte gainerako biztanleekin izateko berdintasuna lortzeko orduan, bai lan merkatura sartzeko, bai eguneroko bizitzan, kasu askotan garraibiderik erabiltzerik ez dutelako, edo hirigintzako eta arkiteturako oztopo ugari daudelako.

Homofobiak eta heterosexismo baztertzailak gizarte bazterketa izugarria ekarri dute mendeetan. Horrez gain, estigmatizazioa eta diskriminazioa ekarri dute pertsona homosexual, gay eta lesbianen aurka, bai eta nortasun transexualekoen eta transgenerokoen aurka. Gizartearen pentsamoldean eta legerian aurrerapauso erraldoiak eman dira pertsona horien oinarri-oinarrizko eskubideen urraketa larriari amaiera emateko; hala ere, adierazi behar dugu gaur egun ere gizon-emakume homosexual asko ez dela ausartzen bere maitasuna askatasun eta duintasun osoz bizitzen. Beraz, lanean jarraitu behar dugu, oraintsu pertsona horientzat lortu den berdintasun formalarekin batera, al bait lasterren, benetako berdintasun soziala lor dadin, oraindik berdintasun horri eragozpenak jartzen dizkioten elementu boteretsuak baitaude. Era berean, transexualen duintasun eta berdintasunaren defentsak beste bide bat ireki beharra dakar, hain zuzen ere, osasun publikoak protokolo batzuk izan behar ditu, sexu berregokitze prozesu integralak ahalbidertzeko, beharrezkoa denean.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

### 2.1. BIZITZEKO ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua**

*“Guztiek dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”*

Bizitza eta osotasun fisikorako eskubidearen babesa Ararteko erakunde honen lehentasunezko arduratako bat da.

Era beran, ETA talde terroristak eskubide horiei egiten dien zapalketaren aurkako erabateko salaketa mantentzen dugu.

Zorionez 2005. urtean ez du ETAk heriozko atentaturik burutu. Hala eta guztiz ere, ezin ahaztu dezakegu hiritar asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupearan bizi direla, eta beren askatasuna mugaturik dagoela. Herritar asko estortsio ekonomikoarekin mende daude oraindik ere, eta beren askatasun eta ondasunen kontrako ekintza terroristak jasaten dituzte.

Egoera horrek bere horretan dirauen bitartean, Ararteko erakundeak bere idatzi ofizial guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. artikulua ipintzen jarraituko du *“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea”*, ETArak EZ leloarekin batera.

Emakumeen kontrako indarkeriak bizitzarako eta osotasun pertsonalerako eskubidearen urratze larrietariko izaten segitzen du, eta erakunde bermatzaile honek derrigorrez eman behar dio erantzuna.

Agintari publikoen erantzuna egokia izan behar da tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen beharrezkoenak. Hori funtsezkoa da, baina berriz esan behar dugu pertsona guztien arteko benetako berdintasunak bakarrik ekarriko duela genero indarkeriaren amaiera.

Genero indarkeriaren fenomenoaren larritasunaren kontzientzia soziala gauzatzeko ari da, eta horrekin batera, gizarteak geroz eta esku-hartze handiagoa eskatzen die botere publikoei. Horren ondorioz, erakunde ezberdinek indarkeria mota horri ematen dioten erantzunak konpromiso maila handiagoa du.

Kasu askotan, tratu txarrak jasan dituzten emakumeek zailtasun handiak aurkitzen dituzte epaitegietan.

Botere publikoek, tratu txarrak jasandako emakumeen beharrei erantzun integrala ematen saiatu behar dute, egoitza zerbitzuen, laguntza juridikoaren, polizia zerbitzuen arretaren hobekuntzaren, etxebizitza bat izateko aukeraren, eta abarren bidez.

Beharrezkoa da azpimarratzea tortura giza eskubideen urratze larrietariko dela; hori dela eta, Ararteko erakundeak beti ahalegindu da pertsona guztien osotasun fisiko eta morala bermatzen: zigorraren beldurrik gabe bidegabekeriak egiteko aukera eman dezaketen aldi eta leku ilunak argitzeko neurriak proposatu izan ditu.

Bestalde, tortura ekiditeko neurrien artean, gogoratu behar dugu 1999an Ararteko erakundeak Herrizaingo Sailari, prebentziorako asmoz, ziegen eremuan korridoretan jarritako kameren bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol sistema ipin zezan gomendatu ziola, atxilotutako pertsonen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

Aurreko txostenetan azpimarratu izan dugu orokorrean sistema jarrita eta funtzio-namenduan dagoen arren, zenbait komisariatuan –zehazki inkomunikatutako atxilotetak egindakoetan– bi ziega zona ezberdin daudela elkarrengandik banandurik, baina grabazio sistema bietako batean bakarrik dagoela erabiltzeko moduan.

Horregatik, pozten gaitu jakiteak Herrizaingo Sailak erakunde honek eginiko gomendio guztiak kontuan hartu dituela, eta inkomunikatutako atxiloteten grabazio prozedura ezartzea erabaki duela.

2005. urtean, erakunde honek eskutitz eta mezu elektronikoko asko jaso ditu, erakunde terrorista batekoa izatea edo hari laguntzea leporatuta inkomunikazio-erregimenean atxilotutako pertsonen jasan dituzten torturak eta tratu txarrak salatuz. Mezu gehienak Santurtziko Torturaren Kontrako Taldeak bidalitakoak dira –lagun horien familiak hiru aldiz bakarrik zuzendu dira erakundera– eta arartekoak ezin izan du batean ere esku hartu, gizalegezkoak edo informatzekoak diren kudeaketak kenduta. Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak egindako atxilotetak dira, eta epaitegi bat baino gehiagotan eman zen kasu guztien berri. Horregatik herritarren eskubideak babesten dituzten erakundeek ezin izan zuten esku hartu.

Egoera horrek ez du eragozten, ordea, erakunde honentzat tortura oraindik kezkatzeko arrazoia izatea, gizakiaren eskubideak larri urratzea baitakar. Hori dela eta, arartekoak gai honen inguruan, 2004ko azaroaren 21ean egin zuen adierazpen publikoa berresten du, haren edukia erabat indarrean dagoela uste baitu.

Ildo beretik, eta poliziaren zerbitzu publikoa ikuskatzeko arartekoak duen funtzioa Euskal Poliziaren jarduerara mugatzen denez, komeni da 2002. urtean Ertzaintzak egindako atxiloteten gainean egindako bi kexa aipatzea. Poliziaren egoitzan egindako deklarazioetan, hiru gaztek beste bat inplikatu zuten, delitu jakin batzuen egile gisa. Ondoren egiaztatu zen parte-hartze hori ezinezkoa zela erabat. Ukatu ezin daiteken koartada bat egoteak galderak sortzen ditu hiru atxilotuen deklarazioak –faltsuak argi eta garbi– izan ziren baldintzen inguruan. Horiek epaiketean tratu txarrak jasan zituztela salatu zuten. Txosten hau idazten ari garen unean, gai honekin lotuta Eusko Jaurlaritzako Sailari eskatutako datuen eta informazioaren zain gaude.

## 2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEAK. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

- “1. *Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.*
2. *Atxiloteta prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritzak judizialaren eskuetan uzteko askatuko da*

3. *Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxilotetaren arrazoiak, eta ezin dira aitortze-  
ra behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio  
dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.*
4. *‘Habeas corpus’ prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako  
pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko.”*

Hainbat kexa jaso dira poliziaren bidegabeko tratua edo indarraren neurrigabeko erabilpena salatuz, poliziaren egoitzatik kanpo. Datu larria da kexa horietatik gehienak bereziki ahulak diren bi taldek adierazitakoak izatea: atzerriko pertsonak eta gazteak.

Gogorarazi beharrean gaude beharrezkoa dela, poliziak indarra erabili behar izan duen kasuak dagokion erregistroan jasotzea; horrek, erabilitako indarraren kontrola egitea eta egun indarrean dagoen araudira egokitzea ahalbidetuko duelako.

Gazteekiko jardueretan berriro ikusi ahal izan da, hasiera batean atxilotetarena bezalako neurri bat hartzeko beharrezkoa den zigor garrantzia duten delituak gauzatu gabe egin direla.

Aparteko garrantzirik gabeko ekintzak, esate baterako, kalea zebraidea errespetatu gabe gurutzatzen saiatzea, gazte baten atxilotetarekin bukatu dezakete, erresistentzia, desobedientzia larria edo agintaria iraintzea bezalako delituengatik.

Agintaritzako agenteen aurrean desobedientzia edo erresistentzia erakusteagatik salaketa egiteko arrazoa honakoa izateak kezka sortzen digu: agenteak konturatzea poliziaren jarduera horretan nahastuta dagoen pertsonarentzat jarduera hori kexa edo salaketa egiteko arrazoa izango dela, edo pertsona horrek agenteen jarduera zalantzan jarri edo kritikatu dezakeela.

Polizia talde ezberdinek eginiko atxilotetetan, indarraren gehiegizko erabilpenaz gain, gurasoak atxilotetaren jakinaren gainean ez jartzea huraxe gertatu zenetik ordu batzuk igaro arte ere, kezagarria da.

Era beran, azpimarratu beharrezkoa iruditzen zaigu Bizkaiko herri bateko udaltzain-  
goak atzerriko pertsona bati atxilotzerakoan emandako tratu xenofoboa.

### 2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua**

*“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia  
izateko eskubidea bermatzen da.”*

Herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute administrazioek erabiltzen dituzten datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako eskubidea bermatu dadila. Zentzuzkoa da datuak isilpean eduki daitezela eskatzea, asko eta asko direlako datu pertsonalak dituzten fitxategiak. Berdin da tresna informatikoekin lantzen diren datuak edo babes bereziko datuen multzoan sailkatutakoak izan nahiz ez.

Administrazio publikoek beren informazio sistemak isilekotasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri ez eze, datuen tratamenduko zerbitzuetan hirugarrenek ere esku har lezaketela ere kontuan hartu behar dute.

Trafiko zehapen prozeduren esparruan, interneten dauden aldizkari ofizialetan azaltzen diren jakinarazpenei aplikatu dakiekeen datu pertsonalak babesteko araudian

ezarritakoa bermatzeko aukera mahiagaineratu da, batez ere, datu horiek sarean egongo direlako denbora mugagabez. Horrek, egun indarrean dagoen araudira moldatzeko dakartzan zalantzak ere mahaigaineratu dira.

2005. urtean, datu pertsonalak baliogabetzearekin lotutako beste kexa bat jaso dugu, Portugaleteko Udaleko polizia arloan kokatzen dena. Erreklamatazaileak adierazi zigun Udalak ez ziola erantzunik eman datuak baliogabetzeko ia urtebete lehenago udal bulegoetan egin zuen eskaerari. Udalak jakinarazi zigun eskaera etenda gelditu zela Udaltzako gai horretan jarduera protokoloa ezarri arte. Hori dela eta, gogorarazi genion, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 16. artikulua, Datu Pertsonalak Babestekoak xedatu bezala, erreklamatazaileari hamar eguneko epean erantzun behar ziola, eta protokolo bat egiteak ezin zuela legeak ezarritako betebeharrak hori gauzatzeko baldintzatu, eta adierazi genion hori atzerapenik gabe behar zuela. Udalak jakinarazi zigun azkenik, erreklamatazailearen eskaerari irtenbidea bilatu ziola, izan ere, aipatutako datuak baliogabetzea onartu zuen eta baliogabetze akordioa egin zuen. Eman zigun informazioaren arabera, kexaren sustatzaileak eskaera aurkeztu eta urtebete eta erdira eman zuen erantzuna Udalak.

Urte honetan zehar esku-hartzeko ditugun aukerak amaitutzat eman ditugu 2003. urtean tramitatzen hasi ginen kexa batean, ez baitugu lortu Herrizaingo Sailak gure jarrera onartzea. Kexa hori ere gai honen ingurukoa da, Ertzaintzak duen argazki-albumaren ingurukoa hain zuzen.

Gazte batek aurkeztutako kexa azaldu behar dugu jarraian. Ertzaintzako agenteek izandako jarduera batean, trafikoko arau bat hautsi zuela-eta gidatzen zuen ibilgailua geldiarazi zioten. Gazteak susmoa du jarduera hori bere ADNren perfila zehazteko eta biltzeko aukera emango zuten lagin biologikoak lortzeko egin zela.

Intimitaterako eskubidearen inguruan azpimarratu nahi dugun ikuspegi berria sortu da. Hala, epaileen adierazpen batzuetan, norberaren etxean kanpotiko zaratak sortzen dituen eragozpenek intimitaterako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, besteak beste, urratzen dituztela baieztatu izan da.

## 2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua

*“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”*

Erakunde honek ahaleginak egiten ditu EAEko administrazio publikoek berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak errespetatu dituzten. Konstituzioak hala aginduta, printzipio horiek gailendu behar dute lanpostu publikoetarako sarreran.

2005. urtean, hainbat gai azpimarratu behar dira kontu horri dagokionez.

Nahitaezkoa da Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak egindako deialdi batekin lotuta tramitatu den kexa-espeditentea aipatzea. Deialdi hori Ustiapen eta Saneamendu Saileko hainbat lanpostu betetzeko egin zen, eta berdintasun-printzipioa urratu zuen, hizkuntza-eskakizunak egiten zirelako. Baina helburua unitate erregularretan txertaturiko lanpostuak

betetzea zen, eta horietarako, Partzuergoak berak onartutako hizkuntza normalizazio-planaren arabera, eskakizun hori atzeratu egin behar zen, gaur egungo indizea baino handiagoak diren nahitaz betetzeko indizeak eskuratu arte.

Bestalde, adierazi behar dugu euskararen erabilera ez dagoela bermatuta herritarren eta herri administrazioen arteko harreman esparru askotan, eta hori ez dator bat euskararen izaera koofizialarekin. Horren ondorioz, horretan zerikusia duten administrazioei esan behar diegu ahalegin handiagoa egin behar dutela herri administrazioekiko harremanetan euskara erabili nahi duten herritarrek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Halaber, zenbait disfuntzio nabarmendu nahi izan ditugu, gure ustez, hasiera batean giza baliabideen kudeaketa eraginkorra eta ona egiteko eraturako zenbait irudi gaizki erabiltzeagatik sortu daitezkeelako. Erakunde honek ulertzen du, programetako bitarteko-funtzionarioen izendapenek aldi baterako izaera dutela behar zehatzak betetzeko, eta horrek ez duela ahalbidetzen administrazioek izendapen horiek ezarritako denbora tartea amaitzean bukatuko ez direnik pentsatzea, ezta epe horiek luza daitezkeenik ere. Hala eta guztiz ere, behar horien izaerak aldi baterakoa izateari uzten diorean (aldizkakoa), benetan egin beharrekoa iraunkor bezala hartzea dela azpimarratu behar da. Horrek, lanpostu zerrendan katalogatu eta sartzera suposatuko luke, horiek betez horretarako ezarritako bideak erabiliz. Hori horrela ez balitz, luzapen aukerak onartzen ez badira eta behar hori berehala betetzera jotzen denean, lan hori, bere gain hartu duen bitarteko-funtzionarioari kentzen zaio justifikaziorik gabe, bere izendapena eragin zuen aldi baterako beharrak oraindik bertan dirauelako.

Bestalde, gure esku-hartze ildo beretik abiatuz, 2005. urtean ere pertsona ezgaituen lan aukerei arreta eman diegu. Izan ere, berriro ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera jo dugu, pertsona ezgaituak EAeko Lan Merkatu Arruntera Sartzeko Planaren esparruan eman ahal izan diren aurrerapausoak egiaztatzeko.

Dena den, ez zaizkigu banakako kezak falta izan, nolabaiteko ezintasuna duten pertsonak aurre egin beharreko zailtasunen berri emanez. Horien artean, ikusmen urritasuna duen oposiziogile kaltetu baten kasua aipatu daiteke, eskatu zituen denbora egokitzapenak ez baitzizkioten egin.

Hezkuntzaren esparruan, ordezkapen sistemari dagokionez, Irakasle ikasketak –zehazki Lehen Hezkuntza espezialitatea, egun unibertsitate plan berriei dagozkien ikasketak, irakasgaien egungo antolaketari moldatuak– orain dela zenbait urte bukatu zituzten pertsona batzuk, zalantzan jartzen dute zerrendatan sartzeko duten aukera. Antza denez, titulazioa ikasketa plan zaharren bidez lortu dutenek bakarrik sar daitezke.

Kexa hauek kezka nabarmena azaltzen dute, Lehen Hezkuntzaren lana garatzeko zehazki trebatu diren pertsonak ezin sar daitezkeelako irakasle ordezkapenen zerrendaren sisteman, bertan ez delako oraindik jaso espezialitateen antolaketa berria.

## **2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIPIOA**

### **• Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua**

*“1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”*

*“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, norik bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere. Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoeanean erabakitzeak arauak jarriko ditu legeak.”*

Azken urte hauetan oso kexa gutxi jaso izan ditugu prozedura judizialak ebazterakoan luzapen edo atzerapenak emateagatik. Hala eta guztiz ere, ikus daiteke hiritarren ustea Administrazioaren funtzionamendu normalaren epe eta denborei dagokienez, luzeegiak izatearena dela.

Tratu txarrak jasan dituzten emakume askok, epaitegien biktima sentitu direla adierazi dute. Zenbait emakumek desegokitzat jo dute epaitegiek beraiekiko izandako tratamendua. Horietako batek salatzen zuen, ez ziotela jakinarazi bera hiltzen saiatu zen gizona kartzelatik atera zela, eta beste batek bere erasotzailearekin egon behar izan zuela gela berean.

Gure ustez, azkenaldian eman diren araudia aldaketek eta bereziki genero indarkeriaren aurrean Babes Integralaren Legea indarrean jartzeak, babes judizialak zituen disfuntzio eta gabezi asko ekiditea ahalbidetuko dute.

Trafikoko zehapen prozeduren esparruan, jarraitzen diren prozeduretako izapideak pertsona bakoitzari jakinarazteko erabilitako modua, eta prozeduretako araupetutako izapidetzeak jarri dira berriro zalantzan.

Berriz ere egiaztatu dugu jakinarazpen pertsonala egiteko bigarren saiakera ez dela beti lehenengoaren ordu desberdinean egiten, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua agintzen duen bezala, eta posta bidez egiten den jakinarazpena alferrikakoa bada, administrazio espedienteak ez du ziurtatzen bigarren saiakera horren oharra hartzailearen postontzian utzi denik arauak ezarri bezala.

Horrek eramaten gaitu, batetik, gomendio orokorraren edukia, hots, “Posta bidez egindako jakinarazpenak administrazio zehapen prozeduran, trafikoa, motor ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuna gaietan: horiek behar bezala ulertzeko baldintzak ez daudenetan saiatu egingo dira” berriro ere aipatzera, 2002. urteko ohiko txostenean (VI. Kapituluak) jaso bezala; eta bestetik, gaiarekin zerikusia duten administrazio guztiei aipatutako eskakizunak betetzeko orduan arreta berezia jarriko dutela eskatzera, horrela babesgabetasun suposamenduak ekidindo direlako.

Gure ustez beharrezkoa da nabarmentzea, Auzitegi Gorenak ezarri zuen lege doktrinaren arabera, jakinarazpena egiteko bigarren saiakera lehenengoaren ordu desberdin batean egin dela ulertzeko, ordu baten eta bestearen artean gutxienez hirurogei minutuko aldea egotea beharrezkoa dela.

Aurten jaso ditugun kexetako batzuk zehapen prozedurak aurrez ezarritako ereduak jarraituz, legeak eskatzen dituen berme materiala errespetatu gabe egin direlako sortu ziren.

Nabarmendu behar ditugu baita, gertaera negatiboen frogan gainean ezer balioetsi eta erabaki ez duten kexak, nahiz eta frogatzen diren, hasiera batean, behintzat, egiaztatutako izateko zailtasunik ez erakutsi administrazioarentzat berarentzat, baina bai ustezko arduradunarentzat.

**Etxebizitza babestuak eskuratzeko prozeduran**, azpimarragarria da BOE eskatzen duten pertsonen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak herritar horiekiko harremanetarako erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduen ondorioz, sortzen zaizkien defentsa gabeziaren gaineko kezak zenbat gehitu diren. Arazo honen inguruan dugun kezkaren berri eman diogu Eusko Jaurlaritzako Sail horri, eta erantzun digute hurrengo Etxebizitzarako 2006-2009ko Plan Zuzendariaren esparruan kontuan hartu eta aztertzeke asmoa daukatela.

Egun, Etxebizitza Saileko lurralde ordezkartzetako iragarkien oholean argitaratzea da babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazio prozeduraren gaineko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 1.2. artikulua babesten duen formula orokorra. Esan behar dugu, gure iritziz, arategiaren aurreikuspen hori ez dela bateragarria Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko 30/1992 Legean (APL) aurreikusten den jakinarazpen bide ziurragoarekin, batez ere, kontuan hartuta Etxebideko erregistroan etxebizitza eskatu dutenentzako komunikazioetarako formula orokorra dela, bide horretatik zer ekintza mota jakinaraziko den bereiztu barik. Gure iritziz, hori, sarritan, herritarren defentsa eskubideentzat kaltegarria izan daiteke. Horrela, pertsona desberdinek aurkeztu diguten kezkaren oinarrian, egintza kaltegarri edo garesti batzuen berri izan ez dutela ageri da, adibidez, lau urtean behin berritu ezean erregistrotik ezabatzen zaituztela, edo BOE eskarigile estatusari eusteko gutxieneko diru sarrerak behar bezala frogatu ez dituzulako, eta halako egintzen kontra egiteko defentsarik gabe aurkitzen direla, erabakiak eman eta errekurtsioak egiteko epeak igaro direnean. Gure ustez, defentsarako oinarritzko bermeak kaltetuta geratzen dira, BOE eskatzen dutenak dena delako oholean argitara litezkeen iragarkiak etengabe kontrolatzera behartzen dituztenean, bereziki, behin erregistroan sartzea onartu dietenean, ordutik aurrera itxaronaldi aurreikusi ezina eta zehaztugabea hasten baita, etxebizitzaren balizko adjudikaziora artekoa, eta tarte hori, kasu askotan, urtetan luzatzen baita.

Gure ustez, gainera, eskubideak mugatzen dituzten, edo aurreko administrazio egoeraren aldean eskubide murrizketa dakarten ustezko egintzetan, administrazioaren ebazpenaren aurretik, nolana ere, interesatuaren entzunaldia ahalbidetu edo gauzatu behar da.

## 2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua

*“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarritzko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”*

Erakunde honek beti adierazi izan du, askatasuna kentzea ez den beste zigor aukera batzuen alde dagoela, eta botere publikoen aldetik –askatasuna mugatzen ez



duten zigorrak ezartzean– horiek benetan betetzen direla bermatzeko neurriak hartzeko beharra dagoela.

Bestalde, berriro ere azpimarratu egin behar da espetxeen inguruko eskuduntzak eskualdatzea komenigarria litzatekeela.

Kudeaketa hurbilagoetik egitea lagungarria izan daiteke instalazioak modernatzeko, eta, batik bat, ezinbestekoak dira koordinazio handiagoa eta espetxe zerbitzu desberdinak (hezkuntza, gizarte laguntza, etab.) sare komunitarioan sartzea.

Nolanahi ere, agerikoa da askatasun-gabeko zigorren helburua presoak gizarteratzea izateak (EEko 25.2 artikuluan jasota, funtsezko eskubideen artean) botere publiko guztiak inplikatzeko dituela. Horrenbestez, oraingo egoeran ere, EAeko administrazioek esku hartu behar dute, gure lurraldeko espetxeetan zigorra betetzen ari direnen edo bete dutenen arazoak eta gabeziak arintzeko, pertsona horiek ahultasun handiko egoeran eta gizarteratze arazo handiekin baitaude.

Nolanahi ere, EAeko administrazioetatik, modu eta intentsitate desberdinekin, arreta eskaintzen ari zaie espetxean dauden edo egon diren pertsoneri, eta, geure iritziz, bide horretatik jarraitu behar da eta, ahal den neurrian behintzat, laguntza hori oraindik ere handiagoa izan behar da.

Euskal kartzeletara eginiko bisitaldietan zenbait gai garrantzitsu sumatu dira:

- Gaixotasun mentalaren eragin handia espetxeko jendearen artean.
- Espetxeak jendez gainezka egotea.
- Tratamendurako profesional gutxi egotea.
- Beren buruaz beste egiten duten pertsona kopuru kezkarria.
- Genero indarkeria delituak egin dituzten preso eta zigortu gehiago egotea.
- Lan eta prestakuntza jarduerak egiteko aukera urria.

Bestalde, azpimarratzekoa da azken batean, Arartekoaren ustez, espetxeetako arazo askoren jatorria zigorrak gero eta zorrotzagoak izatea da, hau da, askatasun kota jakinak (baimenak, erregimen irekia,...) eskuratzeko itxaropena ezabatzen duten betetze-moduak ezartzea. Presoek itxaropena galtzen dute, eta horrek larriagotu egiten ditu espetxe barruko tentsioak; gainera, bizikidetzaren narriatu eta gatazkak areagotzen ditu.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da askatasunaz gabetzen ez duten zigorrak sustatzea, horiek martxan jartzeko behar diren neurri guztiak hartuz (batik bat, aurrekontu mailako neurriak).

Askatasunaz gabetzearen murriztapena izan behar da helburu nagusia, espetxeko legeria betetzeko ahalegina eginez, presoan banakako tratamendua bermatzeari dagokionez. Preso bakoitzaren ezaugarriari, beharrezkoari eta bilakaerari arreta egokia eskaintzea beharrezkoa da presoak gizarteratu ahal izateko, deliturik gabe bizitzeko gaitasunarekin.

Banakako tratamendu horretarako, jakina, bizi-baldintza duinak behar dira eta, beraz, oinarriko beharrezkoak beteta egotea ezinbestekoa da. Hortaz, berehala konpondu behar dira EAeko hiru espetxeetan dauden egitura eta mantenamendu mailako akatsak.

EAeko Administrazioak esfortzua egin behar du bere eskumeneko zerbitzuetan aurkituriko gabeziak konpontzeko (presoen lekualdaketak, Zaintza Bereziko Unitateen zaintza ospitaleetan, etab.). Halaber, arlo batzuetako lankidetzaren areago egin behar da, batez ere, adituen edo ospitaleen osasun laguntza, drogamenpekotasunerako laguntza eta hezkuntza laguntza, azken arlo horretan espetxe-irakaslearen integrazioa oraindik ere

egin barik baitago. Batez ere azpimarratu behar dugu EAEko administrazioek baliabideak egituratu behar dituztela espetxean sartzea ekiditeko edo errazago irteteko. Delituen prebentzian eragina duten gizarte politikak garatu behar dira, baina buruko gaixotasunak edo gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako zentro bereziak ere sortu behar dira, erregimen irekiko unitateak, toxikomanien tratamendurako edo osaketarako zentroak, espetxetik irteteko unerako dirulaguntzak edo laneratzeko neurri bereziak.

## 2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

- “1. *Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.*
2. *Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.*
3. *Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.*
4. *Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.*
5. *Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*
6. *Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*
7. *Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegiaren kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*
8. *Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
9. *Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
10. *Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera.”*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio jakin bat jasotzeko eskubidea da. Horregatik, beharbada, egokiagoa izango zatekeen gizarte eskubideen atalean aztertzea. Hala ere, Konstituzioaren testuan duen kokaera eta aukeraturako metodoa kontuan izanik, atal honetan jorratuko dugu gai hori.

2005. urtean, hezkuntza programazio edo plangintzarekin zerikusia duten kexak bideratzen jarraitu dugu.

Zeretik hiru urterako hasierako tartea da, plangintzaren gorabeherak gehien eragin diotena, batez ere, gure ikuspegitik, eta behin eta berriz esan dugun bezala, hezkuntza eskaintza honen ardura ez duelako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak soilik bere gain hartu.

Kontu horri dagokionez, uste dugu Hezkuntza Administrazioa ikaslerik behar-suenen hezkuntza goiztiarra asetzea lehenestea bermatuko duen plangintza bideratu behar duela.

Hala eta guztiz ere, ez dira falta izan hezkuntzaren beste arlo batzuk hizpide zituzten kexak. Horietaatik guztietatik, Sondikako La Ola hezkuntza bereziko zentroaren itxiera dela-eta, familia talde batek adierazitako kexa azpimarratuko dugu.

Ikasleen onarpenari dagokionez, onarpen eskariak eskainitako plazak baino gehiago direnean, lehenetsun ordena finkatzeko segitzen zaien irizpideak –batez ere ekonomikoak– zalantzan jartzen dituzten ohiko kexez gain, onarpen arauak aurrematrikulen urteko prozesua hasteko unean adopzio prozesuak ia itxita dituzten haurren kasuak beren beregi kontuan har ditzaten aukera proposatu da.

Hezkuntza premia bereziei dagokienez, *EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunak* ezohiko txostenaren jarraipen lanaz gain, nabarmentzekoa da 2005. urte honetan, azkenean, EAEko Administrazio Orokorrek berariazko osasun premiak dituzten eskolatutako haurren arretarako neurriak hartzeko jarduera koordinatuko egitaraua onetsi duela, helburu bikoitzarekin: 1) hezkuntzako langileak gaixotasun jakin batzuen aurrean, osasun larrialdietan eta botikak emateko orduan eta beste osasun arreta edo zaintza batzuen aurrean zelan jokatu behar duten jakin dezaten, eta 2) berariazko osasun premiak dituzten eta autonomia pertsonalik ez daukaten eskolatutako haurren arretan koordinatzeko sistemak ezartzea. Espero dugu Hezkuntza eta Osasun Sailak elkarlanean garatzekoak diren egitarau honek, eragin onuragarriak izatea diabetesa, alegia koadroak, eta abar dituzten ikasleengan.

Ohikoak diren beste gai batzuk ere errepikatu dira, esate baterako, eskola garraioarekin eta dirulaguntzen eskaerekin zerikusia dutenak.

Amaitzeko adierazi nahi dugu, erakunde honek arreta berezia jarri duela Jokin C-ren heriotzaren ondotik inputatutako adingabeen eskolaratze baldintzen jarraipena egiten.

### 3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

#### 3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAK

- **Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua**

*“1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.*

*2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.*

*3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira.”*

PFEZa ere, Administrazioarekin auzirik gehien eragin izan dituen gaia da, nahiz eta gero eta eduki desberdin eta konplexuagoko kexak sortzera igaro den; bilakaera hori zergaren azkeneko erreforma handiaren aplikazioaren hasierako urteetan igarri ziren hutsuneak pixkana gainditzearekin batera etorri da.

Alabaina, egiaztatu dugu Foru Ogasunek herritarrei PFEZari buruz dituzten betebeharrak erraztera begira diseinatu dituen formula modernoek (likidazio proposamenak etxera bidaltzea, errenta mekanizatua) kexa tipologia berria ekarri dutela, herritarren eskari berriak sustatzen dituzten heinean, zerga Administrazioaren arreta berezia merezi dutenak, hain zuzen.

Administrazioak autolikidazioak egin eta gero akatsen bat aurkitzen duenean bidaltzen dituen likidazioek haserrea sortzen dutela aipatu dezakegu hemen, halakoetan interesatuei ez baitzaie diruaren interes legalik aplikatzen, dagokion berandutza interesa baizik, zergadunak Administrazioaren inolako parte hartzerik gabe zerga autolikidatzen duenean bezalaxe.

TMIZaren (Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga) foru arauak indarrean jarri zirenetik, udal batzuek, gipuzkoarrak batez ere, ukatu egin dute arauak ezarritako ezintasun exentzioa.

Arau berriek diotenez, honako baldintza hauek bete behar dira TMIZen ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatu ahal izateko:

- Salbuespena izango duen ibilgailuaren titularra salbuespenaren eskatzailea bera izatea.
- Eskatzaileak gutxienez % 33ko ezgaitasuna izatea, organo eskudunak egiaztatuta.
- Ibilgailuaren erabiltzaile bakarra titularra izatea.

Udal horiek, berariaz edo zehar bidez, zalantzan jarri dute zergaren salbuespenaren helburua beteko ote den kasu jakin batzuetan. Susmo horrek bultzatuta, ibilgailuaren erabilera eskusiboari buruzko baldintza beteko ez delakoan, euren kabuz beste baldintza bat ezarri dute –arauan ageri ez dena–, alegia, eskatzaileek mugitzeko zailtasunak dituztela frogatu behar izatea.

Kaltetutako udalek utzi egin behar diote irizpide mugatzaileak erabiltzeari exentzioa aplikatzeko eska daitezkeen ezintasun ezaugarrien inguruan, hori indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren aurka doalako.

Bestalde, berrikusketa katastralek eztabaidak eragin ohi dituzte, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak nabarmenki handitzea dakartelako. Horiek, neurri handi batean, berrikusketa baten eta hurrengoaren artean egon ohi den denbora tarte luzearen ondorio dira.

Gainera, udal tasa eta prezio publikoei dagozkien zenbait kuota handitzeak, hainbat kexa eragin ditu baita ere.

### 3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

#### • Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

- “1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.
2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.
3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera.”

Ondare-erantzukizunaren figurak herritarrek zerbitzu publikoaren funtzionamendua onduz beren ondarean jasandako kalteengatik ordaina jasotzeko duten eskubidea adierazten du.

Herri administrazioek ez dute onartu nahi eragindako kalteen ordainaren izaera objektiboak ez dakarrela herri zerbitzuen jardueran edo ez-jardueran errurik edo axolagabekeriarik izan behar izatea, zeren nahikoa baita herri zerbitzuen funtzionamendu normal zein anormalaren eta eragindako kaltearen artean kausazko lotura dagoela frogatzea.

Herri administrazioek, oro har, erreparo handiak izaten dituzte eragindako kalteengatik duten erantzukizuna onartzeko eta, sarritan, erantzuteko duten betebeharraren izaera objektiboa gogorarazi behar izaten zaie.

Lurzoruaren hirigintza-antolamenduak udal plangintzen aldaketekin ados ez dauden taldeek edo herritarren erreklamazioak eragiten jarraitzen du. Erreklamatu dituzten aldaketek bidez lurzoruen erabilerak aldatzea baimendu da, eta pertsona horiek ez daude ados aldaketekin, hainbat arrazoiengatik. Lurzorua erabileratradizionalerako –landatarra edo nekazaritzakoa– izaten jarraitzea da aldaketaren kontra egoteko arrazoi bat, hiri-garapenetatik babesteko.

Planean aurreikusitako erabileratradizionalerako ados ez egoteko arrazoi hauek ere badituzte herritarrek: proiektuaren ondorio sozialak, ingurumenekoak edo bizilagunen eta albokoen ondare-onuraren galera ere, plangintza-aldaketa justifikatzen duena. Epe horretan, EAEko zenbait herri erreklamazioak egin dituzte merkataritza-gune bat ezartzera zuzendutako lurzoruak berriro sailkatzearen kontra.

## 4. GIZARTE ESKUBIDEAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZPIO NAGUSIAK)

### 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

#### • Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua

*“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”*

*“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babesak izango dute.”*

Adingabeak zuzenbidezko subjektuak dira, baina gainera, beren ezaugarriengatik, biztanleriako alor bereziki ahula dira, bermatu behar diren berriazko eskubideak dauzkaten pertsonak. Horregatik, Ararteko erakundeak lehentasunez aditu beharreko taldetzat ditu.

Adingabekoen taldearen barruan badaude zenbait talde arrisku egoeran dauden beren eskubideen errespetuaz ari garenean: babesik gabeko haur eta nerabeak, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak; adin txikiko arau-hausleak; hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak; osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeak, edo atxilotutako adingabeak.

Arazo zehatz batek kezka sorrarazten du: tratatu txarrak jasandako amen seme-alaben arreta.

Oso garrantzitsua da horiek antzemateko eta berehala esku-hartzeko bideak jar-tzea, eta adingabeko hauen egoera hobetzeko edo izan ditzaketen ondorio kaltegarriak gutxitzeko programak eta zerbitzuak martxan jartzea.

Horiek antzemateko bideei dagokienez, hasiera batean, ohikoak erabiltzen dira: oinarriko gizarte zerbitzuen jakinarazpenak, Fiskaltzarenak, ospitaleenak,...

Kontu horri dagokionez, hobekuntza neurri gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak azpima-ratzen du beharrezkoa dela tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza ematen zaien baliabideetan profesionalak egotea, era berean laguntza behar duten seme-alaben egoerak hasieratik antzemateko. Zentzu horretan, faltan botatzen da *-Emakumeen kontrako indar-keriari erakundeek emandako erantzuna EAEn* txostenak adierazi bezala- profesionalak aurkitzea tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza ematen zaien baliabideetan.

Etorkizunari begira, aldundiko arduradunek beste hobekuntza neurri batzuk pro-posatzen dituzte, esate baterako: ama eta adingabekoak laguntzeko prebentzio lanak egitea, kasu batean esku-hartzen duten agente eta gizarte zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa hobetzea, prebentzio eta sentsibilizazio sare komunitarioak indartzea, esku-hartzen duten profesionalen espezializazioa areagotzea edo arazoaren ondorioak gutxitzeko programa zehatzak ezartzea.

Guztiak bat datozen puntua, horrelako egoeratan eskumenak dituzten eta esku-hartzen duten erakunde eta zerbitzu guztien arteko koordinazioa hobetzeko beharrarena da.

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrei dagokienez, Berrizen sorturiko lehen abegiko zentroaren irekitzea aipatu behar dugu, eta oso egokitzat jotzen dugu zentroko lantaldeak eta udal zerbitzuen arduradunek komunitatea jakinaren ganean jartzeko, komunikazioa eta inguruko baliabideak erabiltzea ahalbidetzeko, herriko gazteek parte-hartzeko eta baliabide berriaren aurkako balizko erantzunak ekiditeko egindakoa.

Langraiz-Okako bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren abegi zentro berria irekitzea ekiditeko antzeman diren jarduerak ordea, txartzat jo behar ditugu.

Gure kezka adierazi behar dugu, egoera honetan sumatu bezala, erabat beharrezkoak diren gizarte baliabideak eratzearen aurka antzemandako jarrerengatik. Kasu gehienetan gainera, jarrera horiek ahultasun egoera berezian dauden taldeak kaltetzen dituzte.

Azken urte hauetako adingabeko arau-hausleei dagokienez, zenbait kontu kezka-garri sumatu ahal izan dira.

- Neurrien kopurua nabarmen areagotzeak aurre egiteko ahalmenean eragindako arazoak.
- Babes-sistematik etorrira internamenduan sartutako adingabe arau-hausleen proportzioa handia da (batez ere bakarrik dauden atzerriko adingabeena); ho-rregatik, zehatz-mehatz aztertu behar da sistemen arteko lotura.
- Neurriak familia-ingurunetik hurbilago betetzeko aukera ematen duten formulak garatzearen beharra, indarkeria ekintzetan adin-gabeen kasuan. Kasu horietan, Auzitegi Nazionalak esku hartzen du.
- Zerbitzuen araubiderik eza, horren beharra dagoeneko hainbat urtez jakinarazi baldin bada ere. Araubide hori berme-elementua da alderdi guztientzat.

Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei dagokienez, ikasleria horren banaketa orekatua bermatzeko neurriak hartzea eskatu dugu, bereziki, ikasle ezgaituen, etorkinen eta ijitoen kasuetan, horrela, "eskola-ghettoak" eratzea ekidindo delako.

Zentzu horretan, ratioak ezartzea, matrikulazio araudia berrikustea, eta ezkutuko desbideratze edo egozpenen jarraipena egitea bezalako neurriak proposatu ziren.

Hezkuntza Sailak ez digu inolako ekimenen berririk eman zentzu horretan.

## 4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

- “1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.
2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez
3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute.”

Zenbait tratamendu edo zenbait espezialitateren zerbitzuak jasotzeko dauden itxaron-zerrendei dagokienez ere, mantendu egiten dira kexak.

Horrela, umeak izateko tratamenduak eskatzen dituzten pertsonak adierazten dute itxaron beharreko denbora luzatu egin dela aurreko urteetan itxaron beharrekoarekin alderatuz gero.

Ginekologia kontsulten inguruko kexek arestian aipaturiko egoera antzekoa erakusten dute, behinik behin ia urte beteko denbora tarte itxaron behar izan duten pertsonak hartzen baditugu kontuan. Joan den urtean kexa hauek aipatu genituen epe horiek onargarriak ez zirela adieraziz, eta era berean esanez osasun programa zehatz batetik kanpo zeuden azterketak baziren eta gainera paziente sintomatikoak ez baziren, eman beharreko erantzuna ez zela hitzordua urte bete geroagorako ematea.

Dauden programak zabaltzeko eskaerak alde batera utzita –horiek beste parametro batzuekin aztertu behar dira–, osasun publikoko ginekologia zerbitzuen egungo eskaintzetan ezin onar daiteke hitzordua ematea urte bete geroagorako.

Errealitatea beste bat bada, sintomatikoak ez diren pazienteak izateagatik emandako hitzorduak badira, pentsatu behar dugu lehen mailako arretaren eta atentzio espezializatuaren artean koordinazioa falta dela.

Bestalde, HIESAren aurkako zenbait erakundek gaixo horien egoera mahaigaineratzen aritu dira, kirurgia estetikoari eta emankortasun tratamenduei dagokienean. Egoera horiek, gaixo hauek aurre egin beharreko errealitate berriaren adibideetako batzuk dira, eta azkenean, aldeko erantzun bat jaso dute Osasun Saitetik, bi eskaerak onartu egin baitira.

## 4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua

- “1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baina hura zaintzeko betebeharra ere.
2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.

3. *Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute.*”

Ingurumenaren esparruan, kexa gehienak herritarrek sailkatutako jarduerak deitzen direnen zarategatik, usainengatik eta kearengatik dituzten eragozpenen ondorio dira. Jarduera horiek udal baimenen erregimenaren menpe daude.

Alde horretatik, adierazi dezakegu ostalaritzako establezimenduen funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren eragozpenen inguruko kexak izan direla gatazkatsuenak. Kexa horietan, aipatutako jarduerak sortzen dituzten zaratek ekarritako eragozpenak salatu dituzte. Honakoak dira zaraten arrazoiak: lokalak ez daude akustikoki isolatuta edo musika-kateak gehiegi erabiltzen dira, musika-kate horietan instalatuta dauden potentzia mugatzaileak edo ainguraketa-sistemak manipulaturak.

Halaber, azken urteetan, ohikoak izaten ari dira lonja komertzialak batzeko lokal gisa erabiltzeak sortzen dituen eragozpenen salaketak, horiek erabiltzen dituzten gaztetaldean jardueraren ondorioz sortutako zarata dela-eta. Gazteek, lonja horiek alokatzen dituzte batzeko leku izateko, behar den bezala egokituta ez dauden arren, musika-kateak, telebistak, etab. jartzen baitituzte bertan.

Instituzio honek tramitatutako kexa-espedituetan, gai honetan inplikaturak dauden udalei gomendatu diegu lonja horiek ixtea, ikusten bada salatu diren jarduerak ez dutela jarduerak egiteko nahitaezko lizentziarik eta ez badira legeak ezarritako prozeduraren arabera legalizatzen.

Era berean, ohikoak dira aire girotuko aparatuek sortutako arazoei buruzko salaketak, baita aireztapen-sistema eskasek eta keak eta usainak ebakutzeko sistema eskasek sortutakoei buruzkoak ere, batez ere jatetxeetakoek.

Bestalde, kutsadura atmosferikoak eta akustikoak sortutako kalteengatik jaso ditugun salaketak aipatu behar ditugu. Kutsadura hori industria-jarduerak sortutakoa da. Esate baterako, 24 orduetan lan egiten duten galdaketa-enpresek sortutako eragozpenengatik jaso diren salaketak aipatu ditzakegu. 24 orduetan lan egiteak larriagotu egiten ditu enpresa horiek inguruan bizi direnengan sortzen dituzten bistako eragozpenak, batez ere gauez.

Erreklamazio horietan ikusi dugunez, gaur egun asko dira oraindik ere legeak ezartzen dituen nahitaezko baimenak eduki gabe funtzionatzen duten industria-instalazioak.

Instituzio hau arduratuta dago, aztertu diren kasu gehienetan administrazioek ez dutelako ia kontrolik egiten instalazio horien funtzionamenduaren gainean. Ez da egiten aurretiazko kontrolik nahitaezko baimenik ez duten bitartean, eta funtzionamenduaren kontrolik ere ez da egiten. Kontsultatu diren udalek esandakoaren arabera, ez dituztelako beharrezkoak diren baliabideak horretarako eskatzen diren egiaztapen teknikoak egiteko.

Txingudiko eremurako zabor erraustegi bat jartzeko Proiektuaren aurkako hiru kexa kolektibo jaso dira, agiri ugariarekin, eta une honetan bideratzen ari dira. Horretarako emandako arrazoiak pertsonen osasunarekin eta ingurumen egokia izateko eskubidearekin dute zerikusia.

Amaitzeko, honako gai hauen inguruan jasotako kexak aipatu behar ditugu: trenbideetako zirkulazioa, gauez bide publikoan lanak egitea, jarduera zinegetikoak,



eta, horiez gain, sailkatutako jardueren funtzionamenduaren ondorioz jasotako kexa ohikoak eta jakinak.

#### 4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

##### • Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua

*“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorrarekin bat arautuz, espekulazioa galarazteko.*

*Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”*

Egiazta daiteke, Euskadin etxebizitza eskura izateko arazo larri eta orokorra dagoela, etxebizitza librearen prezioak, bai erosi bai alokatzeko orduan, izugarri garestiak direlako, eta horrek gero eta biztanleria multzo gehiago eta handiagoei ukitzen diela, eta etxebizitza babestuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin ere ekartzen duela. Garbi dago etxebizitzari buruzko politika publikoek etxebizitza duin eta egokia eskura izatea errazten saiatu behar dutela, etxebizitzaren premiarik handiena duten biztanle sektoreak lehenetsiz.

Azpmarragarria da, lurzorua gaian esku hartzeko bitartekoak berez ez direla nahikoak etxebizitza beharrari aurre egiteko eta, alde horretatik, guztiz ezinbestekoa da etxebizitzari buruzko berariazko politikak artikulatzea.

**Etxebizitzako politika zuzenei** dagokienez, azpimarratu behar dugu etxebizitza babestuen adjudikazio eta kontrolerako prozesuen kudeaketaren ondorioz dauden disfuntzioek edo arazoak egon badaude ere, horrek Euskadin gai horretan interbentzio publikoko politika aktibo bat ere badagoela adierazten duela.

Horrela, bereziki Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzarako Euskal Zerbitzuaren lana goraiatu behar dugu, Euskadin etxebizitza babestuaren ia eskaera guztiak kudeatzen dituelako. Gainera adjudikatu dituen babes ofizialeko etxebizitzetzi, udalek, beren baliabideen bidez, udal sustapenetatik aterata zozketatu dituenak gehitu behar zaizkie, baita notario aurrean, Etxebideko eskarigileen zerrendan oinarrituz, adjudikatu diren sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak eta, izatekotan, kooperatiba erregimenean sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak ere.

Aipamen berezia mereziko lukete era berean, etxebizitza politika zuzenen barruan, udal ekimenez prezio tasatua duten edo tasatua dauden etxebizitzek, azken urteotan beren eskumenak erabiliz udal korporazioak gauzatzen hasi diren ekimena hain zuzen.

Gogoratu beharrean gaude talde zehatz batzuk zailtasun erantsiak dituztela etxebizitza duin bat lortzeko, eta horien artean, gazteak, guraso bakarreko familiak, pertsona ezgaituak, etorkinak, eta gizarte laguntzak, GLLak edo oinarriko errentak jasotzen dituzten pertsona erregimen egongo lirarteke.

Pertsona horien beharrei behar bezalako arreta emateak, ahulena diren taldeentzat zenbait kupo ezartzea edo zenbait etxebizitza gordetzea suposatzen du.

Gure iritziz, bere kabuz bizitzeko nolabaiteko autonomia funtzionala duten gaixo mentalei edo ezindu intelektualei etxebizitza eskuratzea bereziki erraztuko dien bestelako erregimen bat artikulatu behar da, eta hala jakinarazi diegu Eusko Jaurlaritzaren

Etxebizitza Saileko arduradunei. Sail horrek bere aldetik aitortu digu, Eusko Jaurlaritzak ez duela, orain arte, horren inguruko inolako bereizketa positiboko neurririk hartu. Alabaina, jasotzen ari diren eskarien ondorioz, konpromisoa hartu dute gutxieneko diru sarreren baldintza kentzeko aukera aztertzeko (ezgaitu fisikoekin egiten duten bezala), baita kolektibo hori Etxebideko zozketetan babes bereziko kupo batean sartzeko ere. Neurri horiek guztiak aztertzen ari dira hurrengo 2006-2009rako Etxebizitza Plan Zuzendarian eta gerorako Etxebizitza Legean ere sartzera begira.

Modu berezi batean azpimarratu beharrekoa da, indarkeria sexistaren biktima diren emakumeek etxebizitza bat izateko beharra dutela.

Etxebizitza funtsezko baliabidea da tratu txarrak jasandako emakume horiek bizitza normalizatura itzuli ahal izateko. Etxebizitza bat lortzea, batik bat ezkontza apurtu ondoren, oso zaila da indarkeria sexistaren biktimak izan diren emakumeentzat, eta zailtasun hori emakumeok sarritan izaten duten kolokatasun laboralari eta ekonomikoari lotuta dago, edo ordura arteko ohiko bizilekutik irten eta beste batera joan behar izateari lotuta. Emakume askok euren etxebizitzak utzi behar izaten dituzte, edo euren ordura arteko etxebizitza komuna saldu behar izaten dute, diru-sarrerarik ez edukitzean ezin izaten baitute horren hipoteka ordaindu.

Oso positiboki baloratzen dugu 2005eko otsailean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak jada martxan jarri duen "Genero indarkeriaren biktima diren emakumei etxebizitza babestua eskaintzeko Jarduketa Plana".

Plan horrek etxebizitza lortzeko ezartzen dituen hiru ezohiko formulak azpimarratu behar dira:

1. Alokairu erregimeneko babes sozialeko edo babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan kupo berezi batean sartzeko emakume hauek. Horretarako, eskatzaile hauek guraso bakarreko familiek jada duten kupoari eransten zaizkio.
2. Trukatze formula baten bidez, aukera izatea jabe diren edo erabil dezaketen etxebizitza uzteko eta babes ofizialeko bat hartzeko.
3. Etxebizitza zuzenean esleitzea Etxebizitza Sailak larrialdi kasuetarako duen etxebizitza multzoa erabiliz.

Lehen esan dugunez, nolabaiteko informaziorik edo orientaziorik eza dago, indarkeria sexista jasan duten emakumeen aukerei buruz, bai harrerako baliabideetan aldi batean bizi diren emakumei laguntzeko ardura duten pertsoneri, bai baliabideok erabiltzen dituzten emakumei dagokienez; hala eta guztiz ere, udalen eta aldundien arduradun politikoei jakinarazpena bidali zaie eta, bertan, plan hau martxan jartzeko jarduketa protokoloa dago jasota. Nolanahi ere, gure ustez, komenigarria da Etxebizitza sailak informazio hori argi eta modu grafikoan ematea, halako emakumeen laguntzan ardura zuzena duten pertsoneri; horretarako, berriro ere, udaletako eta foru aldundietako zerbitzueta jo behar da, baita jasotzaileak diren emakumeengana ere.

2005. urtean ia bukatua dago EAEn gazteei zuzenduriko etxebizitza publikoen politiken txostena.

Pertsona gazteek eratzten dute lehen etxebizitza bat eskatzen duen talde nagusia, eta jada aipatu ditugun beste talde ahulekin batera, arazo hau gehien pairatzen dutenak dira.

Azken urte hauetan EAEn hainbat bide eta ekimen sustatu dira gazteei zuzenduriko etxebizitzaren esparruan –babestutako etxeak; alokairuzko etxeak gazteentzat; alokairuzko etxebizitzaren merkatuan bitarteko lanak; gazteentzat etxebizitza programak, laguntzak eta zerbitzuak, neurri fiskalak eta gazteek erositako etxebizitzak finantzatzeko bideak.

Txostean, jardunbide irizpide batzuk azalduko dira etxebizitza gazte politikak garatzerakoan herri administrazioen esku-hartzea hobetzeko.

Bestalde, etxebizitza duin bat izateko eskubidea zapaltzen denaren adibide larrien eta muturrekoena, etxerik gabeko eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsona kopuru handia da.

Etxerik gabeko pertsonak talde benetan ahula eratzen dute, ez dituelako oinarrizko beharrak aseta, eta askotan egoera horiek ezintasun edo gaixotasunekin batera agertu ohi direlako.

Horregatik, ia bukatu dago etxerik gabeko eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen oinarrizko beharrak jasotzen dituen ezohiko txosten bat.

Ararteko erakundean kexa asko eragiten dituen beste gai bat etxebizitza babes-tuen eraikuntzako akatsei eta Administrazioak horrelakoetan obren sustatzaileari edo eraikitzaileari dagokionez esku hartze eragingarria edo epearen barruko esku hartzea ez izateari buruzkoak dira. Eraikinen kontrolerako ahalmenen barruan eta, berariaz, etxebizitza babes-tuen kontrolean, herri administrazioek jarduterakoan izan behar duten irizpide nagusiak etxebizitza duina eta eraikuntzako kalitate egokia duena eskaintzeak izan behar du. Ondore horretarako egon daude kontrol eta ikuskapenerako mekanismo guztiak bete behar dira, hain zuzen ere frogatzeko etxebizitza horiek eraikuntza eta diseinuari buruzko arauak betetzen dituztela, eta arauen bat bete ez bada, zuzenduko direla bermatu behar da horretarako antolamenduak administrazioaren ekintzen derri-gorrezko betearazpena bermatzeko ezarri dituen bitarteko juridikoak erabiliz, adibidez isun hertsatzaileak edo betearazpen subsidiarioak.

#### **4.5. URRITU FISIKOEN, SENTIMENEZKOEN ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK (EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK)**

- **Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua**

*“Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.”*

Irigarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak eta hura garatzen duten dekretuek irigarritasuna sustatzeko zenbait tresna aurreikusten dituzte: kuoten erreserbak, laur urteko programak, sustapen politikak.

Euskal administrazioek (batez ere udalek) ez dituzte behar beste erabili legeek euren esku jartzen dituzten tresnak eta, sarritan, arauetan ezarritakoaren aurka ere jarduten dutela argi eta garbi.

Sustapeneko politikak eta kontroleko jarduketak ere ez dira nahikoak, ez baita ia zehapenik ezartzen. Zerbitzu publikoak dauzkaten eraikinetako asko eta askotan irisgarritasuna ez da bermatzen. Hori bereziki kezkarria da hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetan.

Botere publikoak zenbait neurri hartzen hasi dira, irisgarritasunaren arautegia betetzeko. Halere, esfortzu berezia egin beharra dago eraikin publiko hauen irisgarritasuna bermatzeko.

Zentzu horretan, *EAE n erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* ezohizko txostenean, erakunde honek esaten zuen arlokako eremu ezberdinen artean, egoera okerrean hezkuntzaren arloan zegoela, baita osasun arloan ere. Hori gertatzen da hezkuntza-sarea (eta neurri txikiagoan, Osakidetzaren sarea) eraikin zaharren inguruan egituratzen delako, zenbait kasutan eraikin horiek beste erabilera batzuetarako eraiki zirela. Hala ere, bildutako datuetatik ondorioztatzen zen jasotako jaraunspena ez zela behar bezala berdindu aipatutako eraikinak egokitzeko beharrezko ahaleginarekin.

Horregatik, berriro adierazi genion Hezkuntza Sailari lege agindua bete eta lau urteko bidezko programa egin behar zela, programa hori egiteak benetako egoeraren diagnostikoa izan eta lehentasunen ordena zehatz bati jarraiki burutzeko egutegia ezartzeko aukera emango luke eta.

Horregatik guztiagatik, adierazi behar dugu pozik gaudela, Sail horrek bidezko hezkuntza zentroen irisgarritasun egoera-mapa egiten ari dela –EAEko sare publikoko lehen hezkuntzarena nahiz bigarrenarena–, eta laster datuen bilketa amaituko duela jakinarazi ondoren. Izan ere, horrek hezkuntza-sareko irisgarritasun osoa lortzeko jarraitu beharreko jarduerak antolatzea ahalbidetuko du.

Azpmarratu behar dugu, modu horretan, Hezkuntza administrazioak ezgaitasun motaren baten ondoriozko hezkuntza beharrian bereziei erantzun ahal izango diela, halako umeen eskubideak bermatzeko behar diren neurriak hartuz, baita 0-3 adin tartean ere, askotan ezgaitasunak umeei txiki-txikitik eskolatzea eragotzi baitie. Horregatik, eskoletan irismena sustatzeko politika horrek lehentasuna eduki behar du, eta espero dugu huraxe posible izatea aipatutako hezkuntza zentro publikotako irisgarritasun mapa amaitzen denean.

Halaber, bereziki kezkarria da lokal komertzialetan jarduera berriak ezartzean edo lokalak eraldatzean, arkitekturako oztupoak kentzeko arautegia betetzen den ala ez kontrolatzeko udalek ia jarduten ez dutela azpmarratu behar dugu.

Gainera, ezgaituek beraientzako gordetako aparkalekuez baliatzeko zailtasunak aurkitzen segitzen dute, kasu askotan erreserbarako eskubiderik izan gabe toki horiek erabiltzen dituzten pertsonen jarrera ez-solidarioarengatik eta udal askok halako gertakarien aurrean erakusten duten pasibotasunarengatik.

EAEko herri askotan ez da betetzen pertsona ezgaituentzat gorde beharreko aparkaleku kopurua, neurriak eta kokapena ezartzen dituen araua. Komenigarria litza-teke, beraz, 20/97 Legeak ezarritako arauak, eta horiek neurri batean garatzen dituen 68/2000 Dekretuak ezarritakoa betetzeko planak martxan jartzea.

Legebiltzarreko Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordeak, 2005eko otsailaren 7an, pertsona urrituak EAEko lan merkatu arruntean sartzeko plana egin zuen, eta hori pozik egoteko modukoa da. Plan horretan, hain zuzen ere, erakunde honek *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAE n* txostenean egin zituen gomendioetako asko islatu ziren.

Bestalde, ezohizko txosten horren jarraipena zela eta, erakunde honek berriro adierazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek beren jarduera-estrategiak diseinatu eta ezarri behar dituztela Ezgaituak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Merkatu Arruntera Sartzeko Planak ezarritako gutxiengo berrietatik aurrera, eta ondore horretarako eta beste neurri batzuen artean, lanpostuen erreserbako kupoa (gehienez, % 10ekoa dena) edozein kontratazio motatara eta bereziki aldi baterako kontrataziora hedatu beharko dutela, zerrendak edo ordezipeneterako lan-poltsak kudeatzeko jarraibideetan beren-beregi adierazita.

Nolanahi ere, asko geratzen da oraindik ezgaituak lan merkatuak erabat sar daitezen lortzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da gizarte sentiberatze berezia zabaltzea.

#### 4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

##### • Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua

*“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikoko konpontzeko.”*

Botere publikoek adinekoen premiei erantzun behar diete, premia horiek ekonomikoak, osasunekoak, gizarte izaerakoak nahiz gizarte-osasun izaerakoak izanik ere.

Zentzu horretan, gizarte zerbitzuen sistemak eta osasun sistemak erabateko erantzuna eman behar diete adineko pertsonen beharrezane.

Gizarte zerbitzuei dagokionez, beharrezkoa da azpimarratzea 2005ean Eusko Legebiltzarrari EAEko pertsona nagusiei emandako arretaren inguruko txosten bat helarazi zitzaiola.

Txosten horretan jasotzen ziren gomendioetatik, honako hauek azpimarratu beharko lirakeke:

- Esparru juridiko-administratiboari dagokionez, balorazio oso positiboa egiten genuen arren, berriro ere azpimarratu beharrea gaude autonomia mailako oinarriko gizarte zerbitzuekin eta etxeko laguntzarekin orekatu behar dela. Hala-ber, Gizarte Zerbitzuetako Erregistro Orokorra eta Gipuzkoako Foru Erregistroa erregulatzea eta abian jartzea falta da oraindik ere.
- Berriro ere adierazten da zahartze tasak gora egitean zerbitzuen urteko hazkuntza maila pixka bat azkartzea ekarriko duela. Egoitza baliabideek arreta handiagoa eskaini beharko diete arazo larriak dituzten adinekoei. Adineko pertsonentzat edozein zerbitzu planifikatzerakoan, kontuan hartu beharrezkoa izango da demografia errealitate berria.
- Adineko pertsonentzat dauden gizarte baliabideen portzentaje zenbakiak urriak dira, nahiz eta hiru lurralde historikoetan garapen handia izan duten. Honakoa azpimarratu behar da:

- 2001erako aurreikusten zen erreferentzia tasaren arabera, adineko populazioaren % 11k jaso zuen laguntza; horrek, 2010. urterako proposamenetan lortu beharreko gutxiengoa izan beharko litzateke.
  - 2010ean arreta-estaldura minimora heltzeko, egoitza plazen eskaintzak pixka bat gehitu beharko du bere hazkuntza-erritmoa, eta
  - 2010ean eguneko zentroetako minimotzat jotzen den estaldura-tasara heltzeko, 2001eko plazen kopurua luze bikoiztu beharko da.
- Dauden baliabideen aniztasunari dagokionez, honakoa azpimarratu behar da:
- Egoitza zentro mota desberdinak sortuz joateko prozesuari ekin zaio, alternatibak ugalduz, hala nola, etxebizitza komunitarioak, babespeko apartamentuak, duela hamabost urte ia egon ere ez zeudenak. Hala eta guztiz ere, egoitzen eskaintzaren egitura nabarmen desberdina da lurralde batetik bestera.
  - Komenigarria litzateke Europako beste herrialde batzuetan dauden antzeko beste egoitza formula batzuk aztertzea, batez ere adineko pertsonaren beharrianak zerbitzu komunitario desberdinek koordinatuta esku hartuz aseko dituen arreta sistema bateratu baten ikuspegitik.
  - Egoitza alternatiba hau autonomiadun pertsonentzat eskusiboki den baliabide modura ikusteko oraingo joera berraztertu behar da.
  - Autonomia Erkidegoan finkatzen ari den eguneko zentro ereduak ez ditu betetzen gertutasunezko zerbitzu batek berezko behar dituen ezaugarriak, lurralde esparru zabalegia hartzen dutelako, duten tamaina handiegia delako eta horien funtzionamenduak malgutasun gutxi duelako.
  - Eguneko zentroyen erabilpena malgutu beharko litzateke, horretarako banakako beharrei egokitutako erabilpen partziala egin ahal izateko aukera bermatzeko neurriak hartuz.
- Herri administrazioen eta erakunde pribatuen arteko goranzko ituntzearen esparruan egoera korapilatsuak eta problematikoak agertu direla ikusi da, egoera horietarako konponbide adostuak eta arduratsuak aurkitzea guztiz beharrezkoa da.
- Txosten guztian zehar ikus daiteke lurraldeen artean desoreka dagoela, eta ondorioz, erabat beharrezkoa dela zerbitzuen araberrako irizpide komunak ezartzea, egun ikusten diren desberdintasun egoerak ekiditeko.
- Azkenik eta hiru arreta eredu daudela nabarmen ikusten denez, uste dugu foru eskumenen eta lurralde bakoitzaren beharrian eta berezitasunetara ondoen doitzen diren alternatibetara jotzeko aukera zilegiaren kalterik gabe, komeniko

litzatekeela hain desberdinak diren hiru eredu horiek batera izateak zer dakarren aztertzea, batez ere berdintasun printzipioaren ikuspegitik eta lurralde bakoitzean praktikan zer arazo sortzen duten ikusita.

Espero dugu aipatutako txostena lagungarri izango zaigula adineko pertsonen eskubideei buruz izango ditugun erroka berriei ahalik eta hoberen aurre egin ahal izateko.

Bestalde, uste dugu azpimarratu beharrekoa dela, Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duen abenduaren 16ko 11/2005 Foru Araua onartzeak, Lurralde historiko horretan egoitza foru sarea eratzea dakarrela, laguntza publikoa ematen duten zentroek eratuta eta horien titulartasuna pribatua nahiz publikoa izanda.

Halaber, aldeko balorazioa merezi du Plan Estrategiko Soziosanitarioak (2005-2008), horrek pertsona nagusien egoera hobetzen lagun dezakeelako.

## 5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Balorazio osatuago batek beste atalen segimendu bat egitea eskatuko du, batez ere I. atalarena, sarreran esparru material bakoitzaren benetako balorazioak agertzen baitira, eta atal honetan ez dira kasu guztiak jasotzen.

Era berean, bereziki behartsuak diren eta eskubideak urratzea errazago gerta dakiekeen zenbait kolektibori ukitzen dieten gaiak ere aztertu ahal izango dira, txosten honetako V. Atala aztertzean.

I. ataleko kexen laburpenek eta II. Ataleko gomendioek 2005ean zehar sortutako kasurik garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusten laguntzen digute.

Bestalde, IV. atalak zenbait eskubide aztertzen laguntzen digu, 2005ean egindako txosten monografikoen bitartez, baita lehenago aurkeztutako segimendua egiten ere.

Edozein modutan, atal honetan eta txosten guztian agertzen den diagnostikoa aginte publikoentzat baliagarria izatea espero besterik dugu egingo, hiritarren eskubideak babesteko neurri zehatzak hartzeko.





ERANSKINAK



**ESKOLAKO ETA FAMILIAKO INDARKERIA**  
**(Herri-defendatzaileen XX. Koordinazio Jardunaldietako Arartekoaren**  
**hitzaldia.**  
**Alacanten, 2005eko urriaren 18an)**

## 0. Aurkezpena

Oso modu ezberdinak daude indarkeriaren fenomenoari heltzeko, baita eskolako edo familiako bezalako bi testuinguru zehatzetan aztertzeraz mugatzen bagara ere.

Hemen, hitzaldi honetan, gaiari heltzen saiatuko gara batez ere prebentziozkoa eta positiboa den ikuspegitik, geure esku-hartzeak gogoeta-oinarri hartuta, eta hurbileko etorkizunean gure erakundeetarako balagarriak izan daitezkeen balizko jardunbideak adierazi edo iradoki nahian.

Gogoeta horiek lau ataletan sailkatzen dira:

- Lehenik eta behin, indarkeriaren igoeraren aurrean gaur egun gizarte mailan dagoen kezka aztertzen eta zalantzan jartzen saiatuko gara.
- Bigarren atalean, eskolako edo familiako indarkeriaren atzean ezkutatzen diren kausa edo arrazoiei helduko diegu.
- Hirugarrenez, ikastetxeetako bizikidetzak hobetzeko funtsezko alde batzuk aipatuko ditugu.
- Eta azken atalean, herri-defendatzaileak garen aldetik gure esku-hartzerako erabilgarri edo beharrezko-tzat jotzen ditugun zenbait jardunbide aipatuko ditugu.

Hautatzeko aukera izanez gero, arreta handiagoa jarriko dugu eskolako testuinguruan familiako testuinguruan baino, eta neurri handiagoan hitz egingo dugu bizikidetzaz indarkeriaz baino.

Nolanahi ere, komenigarria da bizikidetzak indarkeriarik eza baino askoz gehiago dela gogoratzea, eta bai eskola, bai familia, agente gizarteratzaileetako bi baino ez direla, beste agente indartsu eta erabakitzaile batzuk (adibidez, berdinkideen taldeak, komunikabideak edo informazioaren teknologia berriak) dituen taldearen barnean.

Gure arreta eskolan jartzen badugu, ziur aski izango da instituzio formala delako –oso ezaugarri espezifikoak dituela– eta administrazioesku-hartzeko duten ahalmena, eta horren ondorioz, gurea ere bai, handiagoa omen delako. Gimeno Sacristán irakasleak honela azaltzen du:

“Herritartasuna dena irakastea ez da ikastetxei bakarrik dagokien proiektua, eta hori lortzea ere ez dago ziurtatuta horietan burutzen diren hezkuntza-jardueren bidez. Eskola-instituzioei erantzukizun batzuk dagozkie, jakina, nahiz eta beharbada bakarrik egokituko zaizkien adingabeek ikasgeletan gizarteratzen ematen duten denbora luzeagatik, baina batez ere gizarteratze hori –persona bakoitzak besteekin (berdinkideak) harremanak izateko moduan lerroak barneratzen dituela– espazio publikoa delako, bizimodu berezia sortzen dela horretan. Ingurune sozial horretan, pertsona bere burua ulertzen hasten da besteen berdinkidea bezala (familiako testuingurutik kanpo).

Bertan familia, gremio-taldea edo erlijio-taldea ez den komunitate sozialarekiko lotura ezartzen da; komunitate hori espazio fisiko eta sozial batean dauden, arau batzuek gidatzen dituzten, eta betebeharrak zein babesa ematen dituzten lege batzuen mende dauden biztanle berdinkideek osatuta dago.”

(Gimeno Sacristán, J.: “Volver a leer la educación desde la ciudadanía”. In J. Martínez Bonafé (koord.) *Ciudadanía, poder y educación*. Graó, Bartzelona, 2003)

## 1. Kezka soziala eskolako eta familiako indarkeriaren aurrean

Komunikabideek egunero ematen dizkigute eskolako edo familiako indarkeriari buruzko albiste kezka-garriak. Gero eta gehiago dira eskolako jazarpenaren edo genero indarkeriaren kasu ezagunak, testuinguru bakoitzeko eremu adierazgarriren bat aipatzeagatik.

Adierazle edo alarma seinale moduan harropuzkeria edo eskolako indarkeria (*bullying*) buruzko azterlanak, adingabeen babesaren zein gazte justiziaren arloetan esku hartzeko goranzko beharriaz buruzko bilakaera-datuak, fiskalen urteko memoriak eta abar ditugu. Baliteke gure jardueran bertan, jasotzen ditugun kexen barnean, kontu horien iguera nabarmena ikustea.

Hortaz, horrek adierazten omen du indarkeriazko gertaerak egunez egun gehitzen direla, eta familia edo eskola bezain oinarrizkoak diren instituzioak hori ekiditeko gai ez direla, beren erantzukizunak belaunaldi berriak bizikidetzatza-balioetan gizarteratzea eta babesa, aterpea eta harreman onen giroa eskaintzea badira ere.

Indarkeriaren kontzeptua egitura historikoa da, etengabe egituratzen dena eta aplikatzen den garai, leku eta testuinguruaren arabera portaera gehiago edo gutxiago barne hartzen dituen, beste hainbat kontzeptu bezala. Esate baterako, egin dezagun gaur egungo ondoko eztabaidari buruzko gogoeta: zaplastakoa edo zigor fisikoa jokaera zehatz batzuk zuzentzeko modua izan daiteke famili eremuan ala Legean berariaz debekatu behar dira horrelakoak? Beste garai edo testuinguru batean, guztiz ezinezkoa izango zatekeen horrelako eztabaida sortzea.

“Prozesu gizarteratzailea” deitu dugun horren joera indarkeria hitzaren barnean etikaren, eta bestearen errespetu eta duintasunaren aurkako gero eta jokaera edo portaera gehiago sartzea da.

Esate baterako, har dezagun denok kezkatzen gaituen gai bat: hezkuntza eremuko eskolako indarkeria (*bullying*), jazarpena edo harropuzkeria. Nahiz eta orain dela gutxi sortutako kontzeptua den eta haren azterketak hamarkada batzuk bakarrik barne hartzen dituen, jokaera berri batzuk gehitzen joan da:

- Eraso fisikoa;
- Ahozko erasoak;
- Mehatxuak eta xantaiak;
- Sexu-jazarpena;
- Zeharkako erasoak, norberaren arropa edo materialen gainekoak;
- Gizarte-bazterkeria...

Are gehiago, bazterkeria, gutxiespena, isolamendua edo presio psikologikoa bezalako eskolako indarkeriaren (*bullying*) forma batzuei garrantzi txikia eman zitzaizen hasieran, baina oso hedatuta daudela eta kontuan hartu diren beste batzuek baino ahalmen suntsitzaile berdina edo handiagoa daukatela egiaztatu da. Une honetan bertan eztabaidatzen ari da Internet edo sakelako telefonoaren bidezko beste jazarpen agerpen batzuk katalogora erantsi behar diren ala ez.

Azterketa mota hori guztiz beharrezkoa da, benetan zertaz hitz egiten ari garen jakin nahi baldin badugu. Azken urtean eskolako jazarpenari buruzko azterlanak ugaritu egin dira, etapa edo komunitate zehatz batean eskolako indarkeriaren (*bullying*) tasa % 7koa edo % 40ekoa dela esanda eta modu horretan errealitate batzuen eta besteen arteko erkaketa zentzugabeak ezarrita. Ziur aski, hainbat azterlan egin dira azkenean bere buruaz beste egin zuen Hondarribiko ikasle gazteagatik, “Jokin kasua” izenekoak larritasun eta oihartzun sozial handia izan zituen eta. Erkaketa horiek ez dira bidezkoak, gauza ezberdinak baliabide ezberdinen eta metodologia erkaezinen bidez neurtzen saiatzen diren azterlanetan oinarritzen direlako –eta egia esan, horiek neurtu egiten dituzte–.

Gainera, kontuan hartu behar da zehatza eta mugatua omen den eremu batez –berdinkideen arteko jazarpena– hitz egiten ari garela, hori eskolako indarkeriak agertzen dituen formetako bat baino ez dela. Pentsa ditzagun beste batzuk: irakasleek ikasleei egindako erasoak; ikasleek irakasleei egindakoak; bandalismoa edo pertsonen beharrea, objektu edo instalazioei zuzenean eragiten dieten erasoak; eskola etetea edo jokaera gogaikarria, irakasleak hain neurri handian kezkatzen dituen... Aldi berean, agerpen horietako bakoitzak bere mugaketa eta zehaztapena behar ditu.

Antzekoa zerbait gertatzen da famili eremuan edo zehatzago, adingabeen aurkako familiako indarkerian. Denok ditugu gure lehentasunen artean erakundeek arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei eskaintzen dieten arretaren jarraipena eta kontrola. Egoera horiek legeak zehaztuta daude, eta horietan badago aspalditik sarritan gainjartzen diren jokaera, egoera edo testuinguru txarren tipifikazioa:

- Tratu txar fisikoak;
- Abandonu fisiko edo neglijentzia;
- Tratu txar emozionalak;
- Abandonu emozionala;
- Sexu-abusua;
- Lan-ustiapena;
- Ustelkeria;
- Umearen jokaera kontrolatzeko ezintasuna;
- Jaio aurreko tratu txarrak;
- Garapeneko atzerapen ez-organikoa;
- Gurasoek eragindako Munchausen sindromea;
- Abandonua.

(Ikusi jarraian adierazitako txostenaren I. kapitulua, adibidez: *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak*. Ararteko, 1997).

Hala ere, nahiz eta tipifikazioa dagoen edo adierazleak edo protokoloak garatu diren, denok dakigu errealitatean zailtasun handiak daudela egoera zehatz baten arrisku-maila zehatzeko edo testuinguru zehatz batean babesa bermatzen duen esku-hartzeko neurri zorrotza beharrezkoa den erabakitzeak. Irizpide horiei buruzko desadostasunak, eta familia biologikoen zein umea hartzen duten familien kezak gure eguneroko kontua dira.

Hortaz, lehenengo hurbilketa honen laburpen gisa, aitortu behar dugu gero eta kezka sozial handiagoa dagoela eskolako eta familiako indarkeria ikusita (erakunde espezifikoak sortu dira, Eskolako Indarkeriaren Europako Behatokia kasu); dena den, ez da erraza jakitea hori eremu horietako indarkeriazko jokaeren benetako gehikuntzagatik (indarkeriazko agerpen gehiago), bere ondorioen larritasun handiagoagatik (eragin handiagoak), gatazkak kudeatzeko zailtasun handiagoagatik (kontrolatzeko zailtasuna), arretarik jasotzen ez zuten jokaera horien ezagutza edo hedapen publiko zabalagoagatik (ezagutza hobea) edo une honetan onargarritzat edo gaitzegarritzat jotzen denarekiko sentikortasun edo eskaera-maila handiagoagatik (sentikortasun sozial handiagoa) gertatzen den ...

Nolanahi ere, eskola-jazarpenari edo famili eremuko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eragin-tasak, adingabeen babesgabetasun-tasak eta abar –indarkeriaren “estatistika” dei daitekeena– zehaztasunez jakitea ez da garrantzitsuena gure jarduerarako, baliagarria bada ere. Izan ere, herri-defendatzaileak garen aldetik, nahikoa izango litzateke pertsona bakarrak indarkeria –edozein motatakoa– jasotzea, gu kezkatu eta esku hartzeko; bestela esanda, gure helburua, gure *desideratuma*, gizarte mota bat sustatzea baino ezin da izan, edozein motatako indarkeria bidegabeta etikaren eta gizartearen aldetik egoera onartezina dela adierazten duena eta zerbait naturalizat eta saihestezintzat jotzen ez duena.

Saia gaitzen, beraz, eskolako eta familiako indarkeriaren atzean ezkututzen diren arrazoiak aztertzen.

## 2. Eskolako eta familiako indarkeriaren arrazoiak

Gure gaiari dagokionez, jada badakizkigu gauza asko, gure jarduerak eta interesatuta dagoen edozein pertsonarenak edo erakunderenak gida ditzaketena. Hona hemen dakizkigun zenbait gauza:

- Indarkeria ikasi egiten da, elkarrekin bizi izaten ikasten den bezala; beraz, elkarrekin bizi izaten ikasi daiteke. Bizikidetzaren beharizan soziala da, baina aldi berean, haurtzarotik egindako ikaskuntzaren fruitua da, baita etengabeko ahaleginaren emaitza ere. Guztion partaidetzaren merezi eta eskatzen duen ondare soziala da.

- Indarkeriazko portaera asko taldeko dinamikei lotuta daude.  
J.L. Arsuaga Atapuerkako ikertzaileak honako adierazi zuen orain dela gutxi elkarrizketa batean: “Oso toleranteak gara, norbaitek gu manipulatu arte. Orduan taldeko indarkeria daukagu, animalien munduan ez dagoena eta oinarri sinbolikoa edo ideologikoa duena.”  
Eliás Canetik oso ondo aztertu zuen, bere “Masa y poder” saiakera klasikoan, bertan indarkeria sozialaren funtsezko arrazoietakoa bat aipatu zuela: boterea, boterea lortzeko borroka, eta ezberdintasun- eta menderatze-egoerei eustea.
- Era berean, badakigu gaur egun indarkeria mota asko “bestearen” irudiari lotuta daudela. Bestea ezberdina da, etsaia, oztopoia, eta ez da ikusten elkarrekin hazteko aukera gisa. Eta ikuspegi horretatik, aniztasuna (heterogeneotasuna) eta barneratzea bizikidetzatza baketsua eta berdintasuna lortzeko funtsezko bi erronka dira.
- Bizikidetzarako hezkuntzaren oinarria edo jatorria balioetako hezkuntzan datza.
- Hezkuntzaren ikuspegitik, indarkeriazko jokaerak saihesteko modu onena gizartearen aldeko portaerak irakastea da (indarkeria saihestea eta horren aurrean erantzutea bi jardunbide osagarri dira, helburu bakarra dutenak).
- Horrek afektua, eta kontrola eta mugak egoki batzen dituzten harremanen testuingurua eskatzen du.

Zalantzarik gabe, oinarritzko jakintzak dira, itxuraz oso orokorrak, eta hala ere, hemen aztertzen diren bi testuinguruetara (familia eta eskola) oso ondo aplikatu daitezkeenak. Mugak, afektua, taldeko dinamikak, portaera sozialen ikaskuntza, beste ezberdin batzuekin harremanak izatea... oinarritzko tresnak, hau da, baliabide erabilgarriak dira edozein familian, edozein ereduakoa izanda edo edozein eskolatan aplikatuta.

Ziur aski, gaur egun harritu edo ikaritzen duena ez da “indarkeriazko agerpenen kopuru” handiagoa egotea, baizik eta indarkeria horrek forma ezezagunak edo beren ondorioengatik oso larriak direnak hartzea: nerabeek beren gurasoei tratu txarrak ematea edo heriotza dakarren berdinkideen arteko jazarpena bezalako fenomenoak ia ezezagunak ziren gure artean, orain dela gutxira arte.

Erraza da besteen gainean erantzukizunak uztea edo indarkeriaren kausak horrekin zerikusi txikia duten aldaketa sozial zehatz batzuei esleitzea: Bigarren Hezkuntzako eskolako indarkeria derrigorrezko eskolatzea luzatzeari edo ikasle etorkinak egoteari esleitzea; familiako indarkeria eredu tradizionalari jarraitzen ez dioten famili eredu ezberdinak sortzeari lotzea...

Komenigarria da hona Marko Aureliok bere Gogoetak obran bildutako gogoeta bat ekartzea: “*Zentzugabea da pikondoak pikuk ematen dituela ikusita harritzea*” (Gogoetak, VIII, 15)

Ez eskola, ez familia, ez dira gizartearen gainerako sektoreetatik bananduta dauden kristalezko kutzak. Daukagun eskola bada gizarte honen eskola, eta ezin da bestela izan. Eta horixe bera gertatzen da familia-rekin.

Gizartean balioak, agintarien eginkizuna, gizartean onargarritzat jotzen denaren mugak edo belaunaldi ezberdinetako pertsonen arteko errespetua aldatzen badira, horrek berehalako oihartzuna du eskola edo familia bezalako oinarritzko egituretan.

Orain dela egun batzuk, eskolako indarkeriari (*bullying*) buruzko eztabaida zela eta, hori ikertzen denbora luzea eman duten profesionaletako batek adierazi zuen haserre zegoela eztabaidaren sinplifikazioagatik eta arduragabekeriagatik, eta “Eskola-jazarpena: gauzak beren lekuan” izeneko artikulua argitaratu zuen. Izenburu adierazgarri horren ondoren, ondokoa esan zuen, beste gauza batzuen artean:

“Harrigarria da “bere” eskolan gertatzen dena dela-eta gizartean dagoen borroka. Bai: eskola ez da ulertu behar entelekia abstraktu bat bezala. Gizartearen eskola da. Bere eskola. Helduok gizartean bultzatzen ditugun balioak, dinamikak eta gatazkak dituena. Edo eskola-jazarpena, etxean emakumeei tratu txarrak ematea, laneko jazarpen psikologikoa edo lan eremuko *mobbinga* oso ezberdinak dira? Zein balio daude jazarpen mota horien atzean? Boterearen abusuzko erabilera, indartsuenaren legea... denetarik onartzen

da helburua lortzeko, boterea duen eta –nahiz eta nagusikeriaz egin- burutzen duen pertsonaren alde jartzen den pertsonaren isiltasun koldar eta interesatua eta horrelakoak lortzeko, alegia. Edo uste dugu gure gizartean bultzatzen ditugun balioen gailurrean gupida, kontsolamendua, laguntza, adiskidetasuna, pena, lankidetzeta, errukia, kolaborazioa eta abar daudela? Izan gaitetzen serioak: eskolak gizarteak eta azken batean denok bultzatzen ditugun balioak baino ez ditu islatzen.”

(José María Avilés Martínez, in Diario de Noticias de Álava, Tribuna Abierta, 2005eko irailaren 22a)

Beraz, ez gaitetzen harritu pikondoak pikuak ematen dituela ikusita.

Eta hala ere, gure arretea eskolan jartzen jarraitzen dugu, hitzaldi honetan egingo dugun bezala, beharbada oraindik hauxe onartu ez dugulako: *“Okerra da pedagogia umearen zientzia dela uste izatea, eta ez gizaki helduarena”* (Janusz Korczak aparteko pedagogogo eta haurtzaroaren defendatzailearen hitzetan).

Egia esan, Solbermanek adierazten duenez: *“Eskolak uste du bere barnean sortutako indarkeria indarkeria sozialaren isla dela, eta hori egia da nolabait. Baina (eskola) inoiz ez da neutrala: horri laguntzen ez badio, indarkeria bultzatzen du –erantsi zuen jarraian–”*.

Argi dagoenez, faktore sozialek indarkeriari eragiten diote, baita faktore pertsonalek eta familiakoak edo eskolakoak dei daitezkeen ere.

Pasa den ikasturtean (2004-2005), eskola-jazarpenari buruzko eztabaida sozialerako foro bat antolatu genuen (ik.: [www.ararteko.net/web de menores/II](http://www.ararteko.net/web_de_menores/II) eta ikasturte honetan (2005-2006) ikastetxeetako berdinkideen arteko bizikidetzeta eta borroka aztertu eta horiei buruzko txosten monografikoa egin nahi dugu, Síndic de Greuges de Catalunyaekin batera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen lagin adierazgarri batean, hezkuntza-komunitateko sektore ezberdinen (ikasleak, irakasleak, gurasoak, zuzendaritza-taldeak...) informazioa bildu eta erkatuko dugu, eta “eskolako giro” ezberdinak sakon aztertuko ditugu, bizikidetzeta erraztu (eskola-testuinguru positiboak), eta bizikidetzeta oztopatu edo indarkeria edo bere ondorioak larriagotzen dituzten faktoreak (eskola-testuinguru negatiboak) azpimarratzen saiatu nahian.

Horren bidez, hurrengo helburuak lortu nahi ditugu:

- Bigarren Hezkuntzako irakasle, guraso eta ikasleen ustez eskolako bizikidetzari eragiten dioten faktoreak eta faktore bakoitzari ematen dioten garrantzia jakin eta egiaztatzea.
- Era berean, talde horien ustez ikastetxeetan sortu ohi diren gatazka mota ezberdinen jatorrian dauden kausak eta egokientzat jotzen dituzten irtenbideak jakin eta egiaztatzea.
- Ikasleek beren ikaskideekin zein beraiekin bizi diren helduekin dituzten pertsona arteko harremanak gidatzen dituzten balioak aztertzea.
- Ikastetxeetako bizikidetzeta hobetzeko asmoz Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak burutzen ari diren jarduerak, eta gatazkak konpontzeko erabiltzen ari diren prozedurak ezagutzea, baita bizikidetzeta hobetzeko eta gatazkak prebenitu eta konpontzeko gizarte-zerbitzuekin batera –eta hala denean, auzibidetik- burutzen ari diren jarduerak ere.
- Talde ezberdinek ikastetxean burutzen ari diren esku-hartzeko programez eta Administrazioaren eremu horretako jardueraz egiten duten balorazioa jakin eta egiaztatzea, eta horiek erraztu edo zailtzen dituzten baldintzak identifikatzea.
- Azterlanaren emaitzatik ondoriozta daitezkeen esku-hartzeko zenbait gomendio proposatzea.
- Eta hezkuntza-komunitateak ikastetxeetako bizikidetzari, bere baldintzei, eta eskola eremuan giro integratzailea eta errespetuzkoa sortzeko estrategia egokienei buruz eztabaidatzea erraztea.

Aste honetan bertan hasieran hautatutako Bigarren Hezkuntzako 85 ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin bilduko gara, eta espero dugu urtebeteko epean emaitzak eta gomendioak partekatu ahal izatea. Horrela ezagutza hobeari, eztabaida oinarrituagoari eta batez ere, eskola esparruko bizikidetzaren hobekuntzari lagundu nahi diegu.

### 3. Bizikidetza-eskolak

Jada klasikoa eta erreferentzia da gaur egungo hezkuntzaren eremuan, aurreko garai batean Faure txostena (*Izaten ikasi*. UNESCO, 1972) izan zen bezala. Delors (Delors eta beste batzuk: *Hezkuntzak altxorra du barnean*. XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOari aurkeztutako txostena, Santillana/UNESCO-Madril, 1996) deritzon txostenaz ari naiz. Jakina denez, UNESCOk 1993an eratu eta Jacques Delors buru duen Nazioarteko Batzordeak lau euskarri azpimarratu zituen mende honetarako hezkuntzaren oinarri gisa: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, izaten ikasi eta elkarrekin bizi izaten ikasi.

Elkarrekin bizi izaten ikastea ez da bakarrik hezkuntzaren helburua, baizik eta gaur egungo hezkuntzak gero eta heterogeneoagoa eta askotarikoagoa den gizartearen dituen erronka nagusietako bat. Horregatik, laugarren oinarri hori –elkarrekin bizi izaten ikasi– funtsezkotzat jotzen da herritartasun demokratikorako, eta horren ondorioz, bakerako.

Badakigu bakea indarkeriarik eza baino askoz gehiago dela, baina nolana ere, hori barne hartzen du. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999ko irailaren 13an onartutako Bake Kulturari buruzko Deklarazio eta Ekintza Planaren I. artikulua adierazten duen bezala, bake kultura “*balio, jarrera, ohitura, portaera eta bizimoduaren multzoa da, horiek bizitzarekiko errespetuan, indarkeriaren amaieran, eta hezkuntza, elkarriketa eta lankidetzaren bidez indarkeriarik eza bultzatu eta gauzatzeko ideian oinarritzen direla (...)*”

Beren zereginarekin bat etorritik, bai Batzar Nagusiak, bai UNESCOk, nazioarteko ikuspegia hartzen dute. Elkarrekin bizi izaten ikastearen garrantzia eta bake kultura azpimarratzen dituzte, pertsonen eta herrialdeen artean gero eta neurri handiagoan dagoen erlaziotik ondorioztatutako beharizan gisa, eta intolerantzia, indarkeria edo fanatismoaren antidoto gisa. Dena den, hemen lantzen ari garen eremuetara neurri txikian aplikatu daitezkeen lehentasunak edo jardunbideak dira.

Juan Carlos Tedescok dioen bezala: “*Eskola ezberdinen arteko harremani eta bestearen kulturaren bidez norbera aberasteari buruzko esperientziak antolatzea ahalbidetzen duten gizarteratze eremu gutxieta bat da. Elkarrekin bizi izaten ikasteak ez du esan nahi bestea egotea onartzea, hori errespetatzea baizik, ezagutu eta baloratzen duzulako.*” (J.C. Tedesco: “Educación y ciudadanía paritaria”. In F. Imbernón [koord.], *Cinco ciudadanías para una nueva educación*. Graó, Bartzelona, 2002)

Txanponaren beste aldean ondokoa dago, UNICEFek haurren munduko egoerari buruzko 2004ko txostenaren salatzen zuenek: “*Eskolako jolastokia leku ikaragarria izan daiteke, indartsuenek bestearen ahultasun fisikoa ustiatu eta neurri txikienean integratuta dauden umeak biktima bihurtzen dituztela.*” (UNICEF. Haurren munduko egoerari buruzko 2004ko txostena). Eta jakin badakigu txosten horretan jolastokiaz esaten dena eskola eta gizarte eremuko beste leku batzuetara ere aplikatu daitezkeela, tamalez.

Eskola eremuan berriro arreta jarrita, uste da bizikidetza bezalako funtsezko gaiak lantzeko eskolak dituen bi baliabide nagusiak curriculum eta eskola antolaketa direla. Izan ere, bizikidetza hobetzeko erabili diren edo iradoki diren ia jardunbide guztiak eremu batean ala bestean sar daitezke erraz. Normalean, neurri handiagoan azpimarratzen dira curriculumaren proposamenak antolaketarenak baino. Hala eta guztiz ere, gure ustez bigarrenak askoz garrantzitsuagoak dira.

Elkarrekin bizi izaten ikasten da elkarrekin bizi izanez, eta horren ondorioz, ikastetxeetan bereziki garrantzitsua da bizikidetza arautzen duen edozer: kideen eskubideak eta betebeharrak, bizikidetza-arauak, gatazkak konpontzeko sistemak, erabakiak hartzeko partaidetza-mekanismoak, botere eta arduren banaketa, elkartzeko aukerak, kide anitzeko organoen funtzionamendua, denbora eta lekuak banatu, erabili eta kontrolatzeko irizpideak.... Heztea ikastetxea, ikasgela edo etxea antolatzea da, pertsona guztiak gustura, onartuta, seguru eta errespetatuta senti daitezen.

Alde horretatik ikastetxe bati eska dakiokien gutxienekoa da bere antolaketa lortu nahi omen diren baliokien (partaidetza, elkartasuna, lankidetzak, kontzientzia kritikoa, akordioaren bilaketa, ...) koherentea (hots, ez kontraesankorra) izatea, eta horretarako, eskura dituen tresnak (antolakuntza- eta jardueraren araudia, kide anitzeko organoak, tutoretza saioak, bilerak eta batzarrak, ...) erabiltzea.

Gure ikastetxeetako bizikidetza hobetzeko, hiru baldintza bete behar dira, gutxienez:

1. Gai hori lehentasunez jotzea (balio nabaria ematea).



2. Errealitatearen jarraipena eta azterketa egitea (arazoen iturri nagusiak antzeman eta horien arrazoiak zehaztea).
3. Ere mu ezberdinetan esku hartzeko planak bultzatzea (helburuak, tresnak, baliabideak, ebaluazio-irizpideak eta abar finkatzea).
  - Lehenengoari (gaiaren garrantzia) dagokionez, baliteke inor konbentzitu behar ez izatea, teoriarik behintzat. Gainera, gure kasu zehatzean badago arrazoi erantsia, oso garrantzitsua dena: gure eskola-umeak hainbat urtetan intolerantziaren forma gogorrenekin (etsaiaren jazarpena eta hilketa) bizi izan den gizarte bateko kideak dira. Hezkuntza-sistemak ezin du errealitate hori alde batera utzi, ezta bere zabaltze-baliabide propioak dituen indarkeriaren kultura egotea ere. Kontua ez da balio batzuk lantzea bakarrik, baizik eta gizartean maila handiagoan ala txikiagoan hedatu diren beste balio batzuen (kontrabaliok) kontra modu kontziente eta arduratsuan lan egitea.
  - Errealitatearen azterketari eta diagnostikoari dagokienean, badirudi beharrezko elementuak direla edozein planen abiapuntu gisa. Eskolako indarkeriari edo berdinkideen arteko tratatu txarrei buruzko azterlanak (adibidez, herri-defendatzaileak 2000an argitaratutakoa), gazteen balioei buruzko aldizkako txostenak (adibidez, gure artean J. Elzok zuzentzen dituen "Euskal gazteak" lau urteko sailak), edo gure Autonomia Erkidegoan ikasturte honetan egingo duguna beharrezkoak dira, erreferentziazko elementuak diren aldetik. Era berean, interesgarria izango litzateke beste eremu murriztuago batzuk (gune bat, udalerririk bat, ikastetxe bat) aztertzea. Asmoa eskola-bizikidetzari negatiboki eragiten dioten faktore garrantzitsuenak zeintzuk diren antzematzea da batez ere, horien gainean eragin ahal izateko. Eta alderantzizkoa ere lortu nahi da: elementu positiboak zeintzuk diren jakinda, horiek indartu, zabaldu eta hedatuko lirateke. Alde horretatik, gaur egungo tresnen (eskubide eta betebeharren dekretuak; antolakuntza- eta jarduerara-ardua; bizikidetzaren batzordeen benetako funtzionamendua; tutoretza saioen erabilera, ...) berrikuspena abiapuntu ona izan liteke.
  - Gaia lehentasunez jotzat jotzea eta errealitatearen azterketa bi oinarri sendo izango lirateke, eremu ezberdinetan esku hartzeko planak bultzatzeko, ikastetxeetan bizikidetzaren sistematikoki lantzeko apustu argiak, hain zuzen ere, beharrezko zehaztapenak eta tresnak izanda: helburuak finkatu, erantzukizunak ezarri, baliabideak antolatu, jarraipen-mekanismoak eratu, ebaluazio-adierazleak ezarri eta erabiltzea, .... Gainera, eremu zehatz batean plan arrakastatsuenak egiteak beste batzuetara jardunbide egokiko eredu gisa hedatzea ahalbidetuko luke. Hori jada posiblea izango litzateke, ikastetxe zehatz batzuen esperientzia abiapuntu hartuta.

Eta hori guztia hurrengo hiru ohar garrantzitsuen kontuan hartuta gauzatu beharko litzateke:

1. Dena ezin da lehentasunezkoa izan aldi berean. Ikastetxeek beren lehentasun propioak dituzte. Lehentasun berriak hartzea jada daudenak berriro hausnartzea dakar. Esate baterako, ikastetxeetan bizikidetzaren planak sustatu edo proposatzea (zeregin berria izatekotan) ikastetxeari beste zeregin batzuk kentzea ekar dezake.
2. Belaunaldi berriei balioak emateari buruzko azterlanek ondorioztatzen dute eskola gizarteratze-agentetako bat dela (baina ez bakarra, eta beharbada ez indartsuena). Beraz, beharrezkoa da beste agenteak ere (familiak, komunikabideak, berdinkideen taldeak, astialdiko lekuak eta jarduerak, ...) kontuan hartzea, eta zenbait kasutan (familien kasuan, adibidez) eskola dinamikan aktiboki sartzen saiatzea (hau da, indarrak batzea).
3. Nolanahi ere, erantzukizun partekatua da, horretan herri administrazioek zeregin aktiboa eta buruzagitzakoa burutu behar dutela. Horren arabera, orain, azken puntuan, gure lankidetzaren zein izan daitekeen agertzea dagokigu.

#### 4. Gure esku-hartzerako proposamenak

Bai eskola, bai familia, instituzioak dira, gizarteratzeko oinarriko egiturak, alegia. Aterpea, babesa eta elkarrekin bizi izaten ikastea ahalbidetzen duten harreman batzuk eskaini nahi dituzte. Testuinguru eta egoera

ezberdinek ume batek adiskidetasuna edo etsaitasuna, maitasuna edo gorrotoa, onarpena edo gaitzespena eta bazterkeria, araua edo diziplinarik eza, elkarrekiko errespetua edo bestearentzako eraso aurkitzea eragin dezakete. Lehenengo kasuan bizikidetzaz-erakolatza, eta tolerantziarako edo bakerako eskolaz hitz egin dezakegu; bigarren kasuan, aldiz, indarkeria edo fanatismorako hezten duen eskola edo familia baten aurrean egongo litzateke.

Famili gunea beti eremu pribatutzat jo da, kanpoko esku-hartzerik jasotzen ez duela (famili egoera oso larria izan ezean). Eskola, aldiz, eremu publikoa izan da beti, horretan inork ez duela eztabaidatzen erakundearen esku-hartzearen bidez kotetasuna. Ezaugarri horri esker, gure esku-hartzea ere askoz errazagoa da bigarren eremuan lehenengoan baino. Hala ere, bi eremuetan batera lan egin ahal dugu eta behar dugu, indarkeria onartezintzat jotzen duten lekuak izan daitezten eta bizikidetzaz baketsua ikas eta gauza dadin.

Gure laguntza zeharkakoa da oinarrian, administrazio eskudunei gauzak eskatu eta horiek kontrolatzeko. Hemen kontua ez da beren balizko jardueren zerrenda bat ematea: aurreko aldietan egin dugu jada. Esate baterako, Ararteko erakundeak bakerako hezkuntzari buruzko proposamen irekia egin zuen, eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburuari aurkeztu zion, bertan Sailak sustatu beharreko bederatzaz jardunbide ezartzen zirela (Ararteko, 1996ko urteko txostena, 83.-86. orr.). Era berean, 2001ean Estatu eta Autonomi Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XII. Jardunaldiak egin ziren, “Kalitate-faktorea duten ikastetxeetako bizikidetzaz” gaiari buruzkoak. Horietan bizikidetzaz errazten zuten neurri batzuk adostu ziren, arazo handirik gabe.

Une honetan bertan martxan daude zenbait proiektu edo ekimen. Herritarren Europako Urtearen (2005) inguruko hezkuntzaren bidezko ekimenak daude. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak urte hori aldarrikatu zuen, eta asmoa herritarren balioak sustatzea da eskola, familia eta komunikabideen bidez.

Eta badago beste ekimen bat, zuzenago eragiten diguna eta hurrengo urteetan oihartzuna duen aukera berria izan daitekeena. Pasa den uztailan aurkeztutako Hezkuntzaren Lege Organikoaren Proiektuaz ari naiz, bertan ondokoa hezkuntza-sistemaren helburuetako bat bezala ezartzen dela: *“Hezkuntza tolerantzia eta askatasuna gauzatuz, bizikidetzaz-printzipio demokratikoen barnean, eta gatazkak saihesteko eta horiek modu baketsuan konpontzeko”* [LOEren proiektuaren 2 c) art.]. Helburu hori hezkuntza-etapa bakoitzean lortu beharreko helburu ezberdinetan gauzatzen da, ikastetxe guztiek beren bizikidetzaz-plana egiteko proposamenean, edo “Herritartasunerako hezkuntza” izeneko arloa edo irakasgaia sartuta.

Azken proposamen horren inguruan sortu den eztabaidan sartu gabe, uste dut gure jarduera hainbat norabideri begiratu beharko liekeela:

- Alde batetik, bakoitzari dagokion administrazioari eskatzea eskolako eta familiako indarkeriaren aurreko borroka bere lehentasunen artean sartzeko, horrek dakarren guztiarekin: erakundearen buruzagitzaz, orientabidez, baliabidez, errealitatearen jarraipena eta ebaluazioa, gizarte-sentsibilizazioa, biktimak edo egoera ahulean dauden pertsonak babesteko esku hartzea... Alde horretatik, erantzukizun partekatua denez, instituzio eta agente sozial ezberdinen (sistema judiziala, hezkuntza-sistema, gizarte-zerbitzuak, toki erakundeak, elkartegintza, etab.) konpromiso aktiboa edo horien arteko lankidetzaz sustatu behar da.
- Beste aldetik, gure jarduera, azterlan, esku-hartzea eta proposamenen bidez, bizikidetzaz sozialari oinarria ematen dioten balioak bultzatuz ditzakegu, eta ezberdina denarekiko edozein intolerantzia, bereizkeria, arrazakeria, jazarpen edo bazterkeria mota sala dezakegu. Horrek gure gizartearen aspalditik ezarrita dauden aurreiritzi, jarrera eta portaeren kontra aktiboki lan egitea eskatzen du.
- Ikuspegi positibo edo zehatzago batean, oso erabilgarria iruditzen zaigu famili eremuan zein eskola eremuan jada dauden eta askok ezagutzen ditugun jardunbide egokien adibideak (bizikidetzaz-arauak egitean parte hartzea; berdinkideen artean bitartekari aritzea, gatazkak konpontzeko bidez bezala; kontratu pertsonalak edo konpromisoak, balio eta jarduteko modu batzuk barne hartzen dituztenak; gizartearen aldeko jolasak sistematikoki erabiltzea; biktimentzako laguntza edo atsedean modu ezberdinetan; lankidetzaz-lana; jolastokia bezalako lekuak antolatzea, ...) baloratu, zabaldu eta hedatzea, bidez ezberdinen bidez.
- Halaber, uste dut –eta honekin amaituko dut- jorratutako gaiari dagokionean, ez dugula joera arriskutsurik bultzatu behar, behintzat. Hona hemen adibide bat: gaur egun joera dago eskolako gatazkak

auzitegietara eramateko, nahiz eta gertaera horiek aldeko erantzuna lor lezaketen hezkuntza-instituzioan bertan; era berean, badago gertaera tamalgarriak –askotan zailak edo zati batean bakarrik ezagunak-simplifikatu, edo morbo edo ikuskizun publiko bihurtzeko joera, askotan adingabeak tartean daudela. Horien hedapenak edo azaleko tratamenduak ia beti benetako arazoak edo egoera pertsonalak ez konpontzeaz gain, biktimizazio bikoitzak, adibide txarren finkapena, oinarritu beharko litzatekeen eztabaida bat okertzea, agintariei erabaki okerrak hartzera bultzatzen duen presio neurrigabea eta abar sor ditzake.

Asmoa ez da gertaerak ezkutatzea edo indarkeriazko egoerak ukatzea, horiek gertatzen direnean. Izan ere, asmoa horiei beharrezko seriotasunez heltzea da, beti biktimen alde jarriz baina behe-senak edo erreakzio primarioak bultzatu gabe.

Jarrera hori bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu gaur egun, eskola eremuan eta Jokin kasua bezalako oso egoera larrietan berdinkideen arteko jazarpenaren gaiaz batzuetan egiten den tratamendua edo hainbatetan iragarritako Adingabeen Zigor Legearen aldaketa ikusita.

Baina horrek azkenak beste gai batera eramango gaitu, eta horren ondorioz, hemen utziko dugu. Eskerrik asko zuen arretagatik.




II. ERANSKINA

**GRAFIKOAK**




## ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2005ean BURUTUTAKO KEXETAN




1. DIAGRAMA

## ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



2. DIAGRAMA


### ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2005)



1 545ek kexa berdinaren multzoa osatzen dute.  
 2 1.143k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.  
 3 62k kexa berdinaren multzo bat osatzen dute.  
 4 264k kexa berdinaren 2 multzo osatzen dituzte.

3. DIAGRAMA


### 2005ean JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN



4. DIAGRAMA




### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




#### 5. DIAGRAMA

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




#### 6. DIAGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




7. DIAGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




8. DIAGRAMA

### FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




9. DIAGRAMA

### UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




10. DIAGRAMA

### LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2005)



11. DIAGRAMA

### LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2005)



<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.


<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.


12. DIAGRAMA

### JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




13. DIAGRAMA

### JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




14. DIAGRAMA

### JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO ERAREN ARABERA




15. DIAGRAMA

**2005ean ARRETA ZUZENeko BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)**




**16. DIAGRAMA**




**17. DIAGRAMA**

**BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA**



**18. DIAGRAMA**


### KEXA BILAKATUTAKO BISITAK



19. DIAGRAMA


### OFIZIOZKO JARDUERAK (2005)

#### BANAKETA ALORREZ ALOR



20. DIAGRAMA

#### ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




21. DIAGRAMA




## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?




**2005**




**2004**

**22. DIAGRAMA**

### 2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?



**2005**





**2004**

**23. DIAGRAMA**



## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?



**24. DIAGRAMA**


### 4. Zure ustez, kexa eragin zuen arazoa:



**25. DIAGRAMA**


## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketak...)



26. DIAGRAMA


### 6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?



27. DIAGRAMA


**ARAZOA “ez da konpondu” EDO “nahiko txarto konpondu da”  
ERANTZUN DUTEN KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAK IZANDAKO  
ESKU-HARTZEARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA**

**5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketak...)**



**28. DIAGRAMA**

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**



**29. DIAGRAMA**

# **GAIEN AURKIBIDEA**



**A****Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak**

- Bidegabeko atzerapenak, 168
- Prozedura zigortzailea, 169
- Doako laguntza juridikoa, 169
- Espedientea ikusteko aukera, 167, 277, 428
- Lanbide jarduerak, 167, 277, 428

**Adinekoak, 781**

- Egoitzak, 39, 55, 556
- Eguneko zentroak, 556
- Etkez etxeko laguntza, 39, 556
- Gizarte eta osasun prestazioak, 781
- Gizarte taldeak, 645
- Gizarte zerbitzuak, 493, 781
- Osasun prestazioak, 781

**Adingabeak, 773**

- Adingabeko lege hausleak, 166, 578, 774
  - Barneratze zentroak, 167, 583
- Adopzioan hartutako adingabeak
  - Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 69, 76
- Armak, 32, 35
- Atxilotuak, 764
- Atxilotutako adingabeak, 608
- Atzerritar adingabeak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 596, 655
- Atzerritarrak
  - Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 71
- Babes zentroak, 166
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 572, 621, 761, 774
  - Babes zentroak, 627
  - Datu pertsonalak, 132, 577, 627
- Babesik gabeko adingabeak, 568
  - Amen aurkako indarkeria, 570, 773
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 604
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza
  - Eskola garraioa, 69, 72
  - Etkez etxeko irakaslaguntza, 70, 73
  - Hizkuntz ereduak, 69, 72
- Eskolako indarkeria (bullying), 70, 504, 513, 658, 787
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 596
- Giza eskubideak, 616, 660
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 616
- Gizarte taldeak, 615
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 598

- Haur hezkuntza
  - Hezkuntza plangintza, 66, 69, 77, 770
  - Hizkuntz ereduak, 69, 77
  - Jantokiak, 70
  - Udal prezio publikoak, 116
- Herriaren defendatzaileak, 663
- Ijitoak
  - Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 71
- Legegintzaren beharra, 617
- Lehen hezkuntza
  - Hezkuntza plangintza, 67, 69, 71, 75, 77
  - Hizkuntz ereduak, 67, 69, 75, 77
- Osasunerako eskubidea, 69, 771
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 589, 774
- Sexu gehiegikeriak, 166
- Tratu txarrak, 166
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza
  - Hezkuntza-premia bereziak, 67, 69, 71, 593, 596, 598, 632, 655, 771
  - Ikasleen onarpena, 69, 76, 771
- Adingabeko lege hausleak, 166, 578, 774**
  - Barneratze zentroak, 167, 583
- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea**
  - Prozedura administratiboa
    - Trafikoa, 119, 767
  - Prozedura zigortzailea
    - Trafikoa, 120, 148, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767
- Administrazioaren erantzukizuna**
  - Jabetza pribaturako eskubidea, 773
  - Udal zerbitzu publikoak, 211, 222
- ADN**
  - Identifikatu beharreko pertsonak, 129, 765
- Alardeak**
  - Sexuagatiko bereizkeria
    - Emakumeak, 305, 370, 540, 760
- Alarguntasun pentsioak**
  - PFEZ, 113
- Alokairua**
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 248
- Amen aurkako indarkeria**
  - Babesik gabeko adingabeak, 570, 773
- Anbulatorioak**
  - Irisgarritasuna, 239, 637
- Animalien babesa, 32**
  - Eremu publikoak, 37
- Antolamendu juridikoaren printzipio nagusiak**
  - Berdintasun printzipioa, 758
    - Atzerritarak, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
    - Emakumeak, 83, 86, 91, 257, 305, 370, 518, 540, 543, 544, 545, 546, 548, 549, 550, 655, 759, 760
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 761
    - Familia, 657
    - Homosexualak, 164
  - Errugabetasun-ustearen printzipioa, 766



Legezketasun printzipioa  
Ibilgailuak ibilgetzea, 291, 428  
Kalez kaleko salmenta, 131, 138  
Kultur jarduerak, 64

**Aparkalekuak, 122, 149**

Aparkatzeko txartela, 122  
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 633

**Aparkatzeko txartela, 122**

Udal tasak, 104

**Arartekoari laguntzarik ez ematea**

Herrizaingo saila, 134  
Polizia, 132, 134  
Trafikoa, 123

**Arautu beharra**

Ehiza, 31

**Armadaren maniobrak, 132**

**Armak**

Adingabeak, 32, 35

**Askatasun ideologikorako eskubidea**

Aukera Guztiak, 259

**Atmosferako kutsadura**

Industriak, 190, 776  
Ostalaritza establezimenduak, 190, 198, 776

**Atxiloguneak**

Atxilotuak, 150

**Atxiloketak**

Polizia, 128

**Atxilotuak**

Adingabeak, 608, 764  
Atxiloguneak, 150  
Gizarte taldeak, 645  
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 764  
Tortura, 135, 762, 763  
Auzibideratzea, 158  
Tratu txarrak, 135, 158, 762, 763  
Ziegak, 150

**Atxilotutako adingabeak, 608**

**Atzerritar adingabeak**

Giza eskubideak, 655  
Hezkuntza-premia bereziak, 596, 655

**Atzerritarrak**

Adingabeak, 572, 596, 655  
Auzibideratzea, 158  
Babesik gabeko adingabeak, 621, 761  
Bizileku-askatasunerako eskubidea, 208  
Errolda, 208, 400, 405, 433, 450, 469, 618, 620, 760  
Espetxeratuak, 162  
Giza eskubideak, 655  
Gizarte eskubideak  
Errolda, 57  
Gizarte kokalekuak, 625  
Gizarte taldeak, 627, 645  
Gizarte zerbitzuak, 49, 50, 400, 405, 433, 625  
Errolda, 48, 450, 469

- Gizarteratzea, 400, 433
  - Koordinazio printzipioa, 49, 50, 405, 433, 625
- Herriaren defendatzaileak, 627
- Jatorriagatiko bereizkeria
  - Polizia, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
- Kokalekuak, 49, 50, 405, 433
- Normalizazio juridikoa, 618, 620, 760
- Osasun prestazioak, 226
- Tratu txarrak
  - Polizia, 138
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza
  - Hezkuntza-premia bereziak, 71

### **Aukera Guztiak**

- Askatasun ideologikorako eskubidea, 259
- Hauteskundeak, 259
- Intimitaterako eskubidea, 259
- Politikan parte hartzeko eskubidea, 259
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 259

### **Auzibideratzea**

- Atzerritarrak
  - Jakinarazpenak, 158
- Banantzea eta dibortzioa
  - Emakumeak, 158
- Bidegabeko atzerapenak, 164
- Emakumeen aurkako indarkeria, 157
- Epaia betearaztea
  - Bahiturak, 165
- Jakinarazpenak, 165
- Peritazioak, 165
- Sumarioaren kopiak, 165
- Tortura
  - Atxilotuak, 158

### **Auzipetuak**

- Intimitaterako eskubidea, 158

### **Auzolandegiak**

- Informaziorako eskubidea, 64

## **B**

### **Babes bereziko taldeak**

- Adinekoak, 781
  - Egoitzak, 39, 55, 556
  - Eguneko zentroak, 556
  - Etkez etxeko laguntza, 39, 556
  - Gizarte eta osasun prestazioak, 781
  - Gizarte taldeak, 645
  - Gizarte zerbitzuak, 493, 781
  - Osasun prestazioak, 781
- Adingabeak, 773
  - Adingabeko lege hausleak, 166, 167, 578, 583, 774
  - Adopzioan hartutako adingabeak, 69, 76
  - Arma, 32, 35
  - Atxilotuak, 764
  - Atxilotutako adingabeak, 608
  - Atzerritar adingabeak, 596, 655

- Babes zentroak, 166
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 132, 496, 572, 577, 627, 774
- Babesik gabeko adingabeak, 568, 570, 773
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 604
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 69, 70, 72, 73
- Eskolako indarkeria (bullying), 504, 513, 787
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 596
- Giza eskubideak, 616, 660
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 616
- Gizarte taldeak, 615, 645
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 598
- Haur hezkuntza, 70, 116
- Herriaren defendatzaileak, 663
- Hezkuntza-premia bereziak, 67, 69, 71, 593, 596, 632
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 70, 658
- Legegintzaren beharra, 617
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 70, 658
- Osasunerako eskubidea, 69, 771
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 589, 774
- Sexu gehiegikeriak, 166
- Tratu txarrak, 125, 126, 166
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 66, 67, 69, 71, 75, 77, 771
- Atxilotuak
  - Adingabeak, 608, 764
  - Atxiloguneak, 150
  - Datu pertsonalak, 129, 141, 765
  - Gizarte taldeak, 645
  - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 764
  - Ziegak, 150
- Atzerritarrak, 400, 433
  - Adingabeak, 496, 572, 596, 655, 774
  - Auzibideratzea, 158
  - Babesik gabeko adingabeak, 621, 761
  - Bizileku-askatasunerako eskubidea, 208
  - Errolda, 208, 450, 469, 618, 620, 760
  - Espetxeratuak, 162
  - Giza eskubideak, 655
  - Gizarte eskubideak, 57
  - Gizarte kokalekuak, 625
  - Gizarte taldeak, 627, 645
  - Gizarte zerbitzuak, 48, 49, 50, 400, 405, 433, 450, 469, 625
  - Herriaren defendatzaileak, 627
  - Jatorriagatiko bereizkeria, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
  - Kokalekuak, 49, 50, 405, 433
  - Normalizazio juridikoa, 618, 620, 760
  - Osasun prestazioak, 226
  - Tratu txarrak, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764
  - Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 71
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 761
- Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 510
  - Gizarte taldeak, 645
  - Osasun prestazioak, 226
  - Prestazio ekonomikoak, 49
  - Sexuagatiko bereizkeria, 549

- Burutik gaixo daudenak
  - Adingabeak, 604
  - Espetxeratuak, 159, 161
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251
  - Gizarte arreta, 227
  - Gizarte taldeak, 645
  - Zigorak betetzea, 159
- Desagertuak
  - Koordinazio printzipioa, 142
- Drogaren menpekoak
  - Zaintzapeko kontsumo zentroak, 42
- Emakumeak, 518
  - Auzibideratzea, 157, 158
  - Emakumeen aurkako indarkeria, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
  - Espetxeratuak, 160
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 778
  - Giza eskubideak, 655
  - Gizarte taldeak, 645
  - Gizarte zerbitzuak, 523, 638
  - Hautagai zerrendak, 257
  - Kexak, 519
  - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 83, 86, 91, 548
  - Sexuagatiko bereizkeria, 305, 370, 523, 540, 543, 544, 545, 546, 548, 549, 550, 655, 759, 760
- Espetxeratuak
  - Atzerritarak, 162
  - Burutik gaixo daudenak, 159, 161
  - Emakumeak, 160
  - Espetxeak, 173
  - Gizarte taldeak, 645
  - Heriotzak eta suizidioak, 160
  - Osasun prestazioak, 161
  - Zigorra non bete, 160
  - Zigorak betetzea, 159
- Ettxerik gabeko pertsonak
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 253, 510, 779
  - Gizarte eta osasun zerbitzuak, 53
  - Gizarte taldeak, 645
  - Gizarte zerbitzuak, 47, 49, 57, 61
  - Irigarritasuna, 639
  - Osasun prestazioak, 226
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 761
  - Aparkalekuak, 124, 633
  - Emakumeak, 523, 638
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251
  - Funtzio publiko orokorra, 83, 98, 631, 766
  - Gizarte eta osasun zerbitzuak, 52
  - Gizarte taldeak, 645
  - Gizarte zerbitzuak, 54
  - Gizarteratzea, 779
  - Hezkuntza-premia bereziak, 67, 596
  - Hezkuntzarako eskubidea, 68, 632
  - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 88
  - Irigarritasuna, 68, 88, 213, 215, 239, 523, 632, 636, 637, 638, 779

Jendaurreko ikuskizunak, 634  
 Laguntzeko txakurrak, 445, 640  
 Lanerako eskubidea, 631, 780  
 Ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak, 59  
 Osasun alorreko funtzio publikoa, 84  
 TMIZ, 104, 283, 428, 632, 772

Familia, 773

Frankismoaren biktimak

Gizarte taldeak, 645

Gaixo terminalak

Giza eskubideak, 655

Gazteak

Auzolandegiak, 64

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 253, 507, 778

Guraso bakarreko familiak

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251

PFEZ, 112

Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 629, 761

Babes ofizialeko etxebizitzak, 257

Gatazken konponketa, 257

Gizarte kokalekuak, 625

Gizarte zerbitzuak, 411, 432

Kokalekuak, 411, 432

Hiesa duten gaixoak

Gizarte taldeak, 645

Osasun prestazioak, 227, 775

Homosexualak

Erregistro zibila, 164

Ijitoak, 411, 432, 629, 761

Adingabeak, 598

Gizarte taldeak, 645

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 71

Ikusmen-egaitasuna duten pertsonak

Euskara eta gizarteak, 65, 640

Norbaiten laguntza behar duten pertsonak

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251

Sasoikako langileak

Adingabeak, 589, 774

Terrorismoaren biktimak

Gizarte taldeak, 645

Zigor aurrekariak dituzten pertsonak

Auzibideratzea, 165

### **Babes ofizialeko etxebizitzak, 777**

Adjudikazioa, 247, 777

Akatsak, 252

Alokairua, 248

Betekizunak, 247, 254, 255, 777

Etxebizitza eskuratzeko prozedura, 249, 768

Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 257

Irisgarritasuna, 639

Legegintzaren beharra, 248

Prozedura administratiboa, 249, 768

### **Babes zentroak**

Adingabeak, 166

Babesik gabeko adingabe atzerriarrak, 572, 627

**Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 496, 572, 621, 761, 774**

Babes zentroak, 572, 627

Datu pertsonalak, 132, 577, 627

**Babesik gabeko adingabeak, 568**

Amen aurkako indarkeria, 570, 773

**Bahiturak**

Zordunen identifikazioa, 165

**Bakezaleak**

Gizarte taldeak, 645

**Balioetan heztea**

Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 513

**Barne-ikerketak**

Polizia, 128

**Barneratze zentroak**

Adingabeko lege hausleak, 167, 583

**Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 510**

Gizarte taldeak, 645

Osasun prestazioak, 226

Prestazio ekonomikoak, 49

Sexuagatiko bereizkeria

Emakumeak, 549

**Berdintasun printzipioa**

Atzerritarrak

Polizia, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764

Emakumeak, 518, 759

Alardeak, 305, 370, 540, 760

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 549

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, 550, 759

Erregistro zibila, 548

Etxeko langileak, 545, 759

Funtzio publiko orokorra, 83, 548

Gastronomi elkarteak, 543

Hautagai zerrendak, 257

Hizkera diskriminatzailea, 544

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 86, 91

Kultur adierazpenak, 544

Laguntza behar duten pertsonentzako zainketak, 549, 655

Laguntzak eta diru-laguntzak, 545

Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 546

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 761

Familia, 657

Homosexualak, 164

**Berdintasunerako eskubidea, 758**

Atzerritarrak

Polizia, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764

Emakumeak, 518

Alardeak, 305, 370, 540, 760

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 549

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, 550, 759

Erregistro zibila, 548

Etxeko langileak, 545, 759

Funtzio publiko orokorra, 83, 548

Gastronomi elkarteak, 543

Hautagai zerrendak, 257  
 Hizkera diskriminatzailea, 544  
 Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 86, 91  
 Kultur adierazpenak, 544  
 Laguntza behar duten pertsonentzako zainketak, 549, 655  
 Laguntzak eta diru-laguntzak, 545  
 Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 546, 759

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 761

Familia, 657

Homosexualak

Erregistro zibila, 164

### **Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**

Adin-muga, 89

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Irisgarritasuna, 88

Ordezkapenak, 84

Sartzea, 83, 98, 631, 766

Funtzio publiko orokorra, 765

### **Berriro gizarteratzeko eskubidea**

Espetxeratuak, 173, 768

Zigorra betetzea, 159

Zigorra non bete, 160

### **Betekizunak**

Babes ofizialeko etxebizitzak, 255

### **Bideak eta errepideak**

Herri lanak, 213, 220, 221

Jabari publikoaren bakarreko erabilera, 212, 216, 365, 427

### **Biltokiak**

Zaratak, 189, 776

### **Bizikletak**

Trafikoa, 123, 288, 428

### **Bizileku-askatasunerako eskubidea**

Atzerritarrak, 208

### **Bizitzeko eskubidea**

Emakumeak

Emakumeen aurkako indarkeria, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773

Espetxeratuak

Heriotzak eta suizidioak, 160

Terrorismoaren biktimak, 513, 762

### **Borondatezko erretiroak**

PFEZ

Salbuespenak, 114

### **Burutik gaixo dauden adingabeak, 604**

#### **Burutik gaixo daudenak**

Adingabeak, 604

Espetxeratuak, 159, 161

Osasun prestazioak, 161

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251

Gizarte arreta

Finantzaketa publikoa, 227

Gizarte taldeak, 645

Zigorak betetzea, 159

**D** **Datu pertsonalak, 764**

ADN

Identifikatu beharreko pertsonak, 129, 765

Atxilotuak, 129, 141, 765

Babesik gabeko adingabe atzeritarak, 132, 577, 627

Historia klinikoak, 228

**Defentsarako eskubidea**

Zigorra jaso duten pertsonak

Ehiza, 295, 429

Trafikoa, 335, 340, 348, 395, 427, 430

**Dekomisioa**

Kalez kaleko salmenta, 131, 138

**Derrigorrezko bigarren hezkuntza**

Eskola garraioa, 69, 72

Etxez etxeko irakaslaguntza, 70, 73

Hizkuntz ereduak, 69, 72

**Desagertuak**

Polizia, 142

**Doako laguntza juridikoa**

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 169

**Drogaren menpekoak**

Ikuskatuta kontsumitzeko zentroak, 42

**E** **Ebatzi beharra**

Prozedura zigortzailea

Trafikoa, 429

**Egiazkotasun presuntzioa**

Prozedura zigortzailea, 120, 148, 767

**Egoitzak**

Adinekoak, 39, 55, 556

**Eguneko zentroak**

Adinekoak, 556

**Ehiza**

Arautu beharra, 31

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 203

Prozedura zigortzailea

Defentsarako eskubidea, 295, 429

Zaratak, 203

**Elkarbizitza unitateak**

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 255

**Elkarteak**

Laguntzak eta beka, 437

**Emakumeak**

Alardeak

Sexuagatiko bereizkeria, 305, 370, 540, 760

Auzibideratzea, 157

Banantzea eta dibortzioa, 158

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak

Sexuagatiko bereizkeria, 549

Emakumeen aurkako indarkeria, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 533

Gizarte zerbitzuak, 523



- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea
  - Sexuagatiko bereizkeria, 550, 759
- Erregistro zibila
  - Sexuagatiko bereizkeria, 548
- Espetxeratuak, 160
  - Osasun prestazioak, 160
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 778
- Etxeko langileak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 545, 759
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 523, 638
- Funtzio publiko orokorra
  - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 83, 548
- Gastronomi elkarteak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 543
- Giza eskubideak, 655
- Gizarte eskubideak
  - Irigarritasuna, 523
- Gizarte taldeak, 645
- Gizarte zerbitzuak
  - Irigarritasuna, 638
- Hautagai zerrendak, 257
- Hizkera diskriminatzailea
  - Sexuagatiko bereizkeria, 544
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
  - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 86, 91
- Kexak, 519
- Kultur adierazpenak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 305, 370, 540, 543, 544, 760
- Laguntza behar duten pertsonentzako zainketak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 549, 655
- Laguntzak eta diru-laguntzak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 545
- Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea
  - Sexuagatiko bereizkeria, 546, 759
- Sexuagatiko bereizkeria, 523
- Emakumeen aurkako indarkeria, 157, 518, 523, 570, 759, 773**
  - Emakumeak, 762
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 533
  - Etxebizitzaren beharra, 778
  - Gizarte zerbitzuak, 523
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea**
  - Sexuagatiko bereizkeria
    - Emakumeak, 550, 759
- Energia elektrikoaren hornidura, 36, 212, 218**
  - Osasunerako eskubidea, 32
- Enplegu eskaintza publikoa**
  - Funtzio publiko orokorra, 81
- Enpresak sortzea**
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 232, 233
- Erabilera publikoa duten eraikinak**
  - Irigarritasuna, 638
- Erabilera publikoko urbanizazio pribatuak**
  - Udal zerbitzu publikoak, 243

**Eraikin publikoak**

Irisgarritasuna, 632, 780

**Eraikinak**

Garapen iraunkorra, 482

**Eremu publikoak**

Animalien babesa, 37

**Erraustegiak**

Hiri hondakinak, 192

**Erregistro zibila**

Inprimakiak

Homosexualak, 164

Justizia administrazioaren aurreko eskubideak, 171

Sexuagatiko bereizkeria

Emakumeak, 548

**Errolda**

Atzerritarrak, 208, 400, 405, 433, 450, 469, 618, 620, 760

Etzerik gabeko pertsonak, 49, 57, 61

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 54

Gizarte zerbitzuak, 48

Herritarren eskubideak eta betebeharrak, 209

Izena emateko prozedura, 209, 354, 433

Zuzenketa prozedura, 209, 217

**Errugabetasun-ustearen printzipioa, 766****Eskolako indarkeria (bullying)**

Adingabeak, 70, 513, 658, 787

**Eskubideak prozedura administratiboan**

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 119, 120, 148, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

Espedientea ikusteko aukera, 322, 433

Parte hartzeko eskubidea, 237

**Espedientea ikusteko aukera, 322, 433**

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 167, 277, 428

**Espetxeak**

Espetxeratuak, 173

**Espetxeratuak, 173**

Berriro gizarteratzeko eskubidea, 768

Burutik gaixo daudenak, 159

Osasun prestazioak, 161

Emakumeak

Osasun prestazioak, 160

Gizarte taldeak, 645

Heriotzak eta suizidioak, 160

Zigorra non bete, 160

Zigorrak betetzea, 159

**Estatuko funtzio publikoa**

INEM, 84

**Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 777**

Babes ofizialeko etxebizitzak, 777

Adjudikazioa, 247, 777

Akatsak, 252

Alokairua, 248

Betekizunak, 247, 254, 255, 777

Etxebizitza eskuratzeko prozedura, 249, 768

Legegintzaren beharra, 248

- Burutik gaixo daudenak, 251
- Elkarbizitza unitateak, 255
- Emakumeak, 778
  - Emakumeen aurkako indarkeria, 533
- Etxebizitza hutsak, 252
- Etxebizitzak erostea
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 429
- Etixerik gabeko pertsonak, 253, 510, 779
- Gazteak, 253, 778
- Guraso bakarreko familiak, 251
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 257
- Hirigintza politikak, 246
- Laguntzak eta diru-laguntzak, 253
- Norbaiten laguntza behar duten pertsonak, 251
- Personas con discapacidad, 251
- Zerga politikak, 246

**Etxebizitza eskuratzeko prozedura**

- Babes ofizialeko etxebizitzak, 249, 768

**Etxebizitza hutsak**

- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 252

**Etxeko langileak**

- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 545, 759

**Etixerik gabeko pertsonak**

- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 253, 510, 779
- Gizarte eta osasun zerbitzuak, 53
  - Koordinazio printzipioa, 53
- Gizarte taldeak, 645
- Gizarte zerbitzuak
  - Errolda, 49, 57, 61
  - Ostatu emateko zentroak, 47
- Irisgarritasuna, 639
- Osasun garraioa, 226

**Etxez etxeko laguntza**

- Adinekoak, 39, 556

**Europako Batasuneko funtzio publikoa**

- Osasun alorreko funtzio publikoa, 85

**Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa**

- Prozedura administratiboa, 210

**Euskara eta administrazio publikoa**

- Funtzio publiko orokorra, 83, 95, 765
- Internet, 64
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 86
- Osasun alorreko funtzio publikoa, 85
- Polizia, 63
- Toki administrazioa, 63

**Euskara eta gizartea**

- Katalogoak
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 65, 640

**Euskara eta hezkuntza**

- Hizkuntz ereduak, 67, 69, 72, 75, 77

**Ezgaitasunen bat duten pertsonak**

- Aparkalekuak, 124, 633
- Berdintasunerako eskubidea, 761

Emakumeak, 523, 638  
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251  
 Euskara eta gizartea  
   Katalogoak, 65, 640  
 Funtzio publiko orokorra  
   Sartzea, 83, 98, 631, 766  
 Gizarte eta osasun zerbitzuak, 52  
   Koordinazio printzipioa, 52  
 Gizarte taldeak, 645  
 Gizarte zerbitzuak  
   Errolda, 54  
 Gizarteratzea, 779  
 Hezkuntza-premia bereziak, 67, 596  
 Hezkuntzarako eskubidea, 68, 632  
 Irisgarritasuna, 779  
   Anbulatorioak, 239, 637  
   Babes ofizialeko etxebizitzak, 639  
   Erabilera publikoa duten eraikinak, 638  
   Eraikin publikoak, 632, 780  
   Etixerik gabeko pertsonak, 639  
   Garraioa, 213, 215, 636  
   Gizarte eskubideak, 523  
   Gizarte zerbitzuak, 638  
   Ikastegiak, 68, 88, 632  
   Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 88  
   Kaleen arteko aldeak, 637  
   Merkataritzako lokalak, 639, 780  
 Jendaurreko ikuskizunak  
   Norberaren irudirako eskubidea, 634  
 Laguntzeko txakurrak, 445, 640  
 Lanerako eskubidea, 631, 780  
 Ordaindutakoaren arabera araberakoak ez diren pentsioak, 59  
 Osasun alorreko funtzio publikoa  
   Ordezkapenak, 84  
 TMIZ, 104, 283, 428, 632, 772

**F****Familia, 773**

Berdintasunerako eskubidea, 657  
 Lanbidea eta familiako bititza uztartzea  
   Eszedentzia amatasunagatik, 86, 91  
   Lizentziak eta baimenak, 83, 548

**Foru zergak**

PFEZ  
   Autolikidazioak, 103, 772  
   Salbuespenak, 114  
   Zerga likidazioak, 106  
   Zerga oinarria, 113  
   Zerga oinarriaren murrizketak, 109  
   Zerga-ordainketarako aukera, 112

**Frankismoaren biktimak**

Gizarte taldeak, 645

**Funtzio publiko orokorra**

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 765  
 Bitarteko funtzionarioak, 82

- Enplegu eskaintza publikoa, 81
- Estatuko funtzio publikoa
  - INEM, 84
- Hizkuntz normalizazioa, 83, 95, 765
- Lan poltsak, 82
- Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea
  - Lizentziak eta baimenak, 83, 548
- Sartzea
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 83, 98, 631, 766
  - Hizkuntz normalizazioa, 83, 95, 765

**G****Gaixo terminalak**

- Giza eskubideak, 655

**Garapen iraunkorra**

- Eraikinak, 482

**Garraioa**

- Irigarritasuna, 213, 215, 636
- Komunak, 213

**Gastronomi elkarteak**

- Sexuagatiko bereizkeria
- Emakumeak, 543

**Gatazken konponketa**

- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 257

**Gazteak**

- Auzolandegiak, 64
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 253, 507

**Ginekologia kontsultak**

- Espetxeratuak, 160
- Itxaron zerrendak, 225, 775

**Giza eskubideak, 757**

- Adingabeak, 616, 660
  - Hezkuntzarako eskubidea, 69, 70, 71, 73, 76
- Atxilotuak
  - Datu pertsonalak, 129, 141, 765
- Atzerritar adingabeak, 655
- Atzerritarrak, 655
  - Errolda, 618, 620, 760
  - Normalizazio juridikoa, 618, 620, 760
- Balioetan hezteak, 513
- Berdintasunerako eskubidea, 83, 86, 91, 257, 548, 758
  - Atzerritarrak, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
  - Emakumeak, 305, 370, 540, 543, 544, 545, 546, 548, 549, 550, 655, 759, 760
- Berdintasuneko baldintzetan sartzeko eskubidea
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 766
  - Funtzio publiko orokorra, 765
- Berriro gizarteratzeko eskubidea
  - Espetxeratuak, 768
- Bizileku-askatasunerako eskubidea
  - Atzerritarrak, 208
- Bizitzeko eskubidea, 523
  - Emakumeak, 157, 518, 570, 759, 762, 773
  - Terrorismoaren biktimak, 762

- Diskriminatua ez izateko eskubidea
  - Atzeritarrak, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
  - Emakumeak, 305, 370, 540, 543, 544, 545, 546, 548, 549, 550, 655, 759, 760
- Emakumeak, 655
- Etxebizitzarako eskubidea
  - Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 257
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 761
- Gaixo terminalak, 655
- Herriaren defendatzaileak, 661
- Hezkuntzarako eskubidea, 770
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 68, 632
- Identifikatu beharreko pertsonak
  - Datu pertsonalak, 129, 765
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 190
  - Adingabeak, 70, 125, 126, 504, 513, 658, 787
  - Atxilotuak, 128, 138, 158, 764
  - Atzeritarrak, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764
  - Emakumeak, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
  - Identifikatu beharreko pertsonak, 125, 136
  - Terrorismoaren biktimak, 762
- Intimitaterako eskubidea, 190, 764
  - Datu pertsonalak, 228, 764
  - Kutsadura akustikoa, 765
- Kalteen konponketarako eskubidea
  - Terrorismoaren biktimak, 513
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 203
  - Adingabeak, 70, 125, 126, 504, 513, 658, 787
  - Atxilotuak, 128, 764
  - Atzeritarrak, 125, 126
  - Emakumeak, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
- Terrorismoaren biktimak, 513
- Tutoreza judiziala edukitzeko eskubidea, 766
  - Atzeritarrak, 158
  - Identifikatu beharreko pertsonak, 125, 136
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza**
  - Adingabeak, 616
  - Balioetan heztea, 513
- Gizarte eskubideak, 757**
  - Adinekoak, 781
    - Egoitzak, 55, 556
    - Eguneko zentroak, 556
    - Etkez etxeko laguntza, 556
    - Gizarte eta osasun prestazioak, 781
    - Gizarte zerbitzuak, 493, 781
    - Osasun prestazioak, 781
  - Adingabeak, 773
    - Adingabeko lege hausleak, 166, 578, 583, 774
    - Arnak, 32, 35
    - Atxilotutako adingabeak, 608
    - Atzerritar adingabeak, 596, 655
    - Babes zentroak, 166
    - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 496, 572, 774
    - Babesik gabeko adingabeak, 568, 570, 773

- Burutik gaixo dauden adingabeak, 604
- Gizarte taldeak, 615
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 598
- Osasunerako eskubidea, 69, 771
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 589, 774
- Atzeritarrak, 49, 50, 400, 405, 433, 625
  - Errolda, 48, 57, 450, 469
  - Osasunerako eskubidea, 226
- Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 510
  - Osasunerako eskubidea, 226
  - Prestazio ekonomikoak, 49
- Burutik gaixo daudenak
  - Gizarte arreta, 227
- Elkarteak
  - Laguntzak eta bekak, 437
- Emakumeak
  - Emakumeen aurkako indarkeria, 523
- Errolda, 48
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 777, 778
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 247, 248, 249, 254, 255, 768, 777
  - Burutik gaixo daudenak, 251
  - Emakumeak, 533, 778
  - Etxebizitza hutsak, 252
  - Etxebizitzak erostea, 429
  - Etixerik gabeko pertsonak, 253, 510, 779
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 251
  - Gazteak, 253, 507, 778
  - Guraso bakarreko familiak, 251
  - Hirigintza politikak, 246
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 253
  - Norbaiten laguntza behar duten pertsonak, 251
  - Zerga politikak, 246
- Etxebizitzarako eskubidea
  - Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 257
- Etixerik gabeko pertsonak, 53
  - Errolda, 49, 57, 61
  - Osasunerako eskubidea, 226
  - Ostatu emateko zentroak, 47
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 52
  - Aparkalekuak, 124, 633
  - Errolda, 54
  - Euskara eta gizartea, 65, 640
  - Funtzio publiko orokorra, 83, 98, 631, 766
  - Gizarteratzea, 779
  - Hezkuntza-premia bereziak, 67, 596
  - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 88
  - Irisgarritasuna, 68, 88, 213, 215, 239, 523, 632, 636, 637, 638, 639, 779, 780
  - Laguntzeko txakurrak, 445, 640
  - Laneratzea, 631, 780
  - Ordaindutakoaren arabekoak ez diren pentsioak, 59
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 84
  - TMIZ, 104, 283, 428, 632, 772

- Familia, 773
  - Lanbidea eta familiako bitzta uztartzea, 83, 86, 91, 548
- Guraso bakarreko familiak
  - PFEZ, 112
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 411, 432, 625, 629
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 257
- Hiesa duten gaixoak
  - Osasunerako eskubidea, 227, 775
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 775
  - Atmosferako kutsadura, 190, 198, 776
  - Garapen iraunkorra, 482
  - Hiri hondakinak, 192
  - Kutsadura akustikoa, 189, 193, 194, 196, 202, 203, 205, 328, 432, 776
  - Parke naturalak, 32, 33
- Kultur ondarea, 64
  - Arkitektura ondarea, 429
- Lanerako eskubidea
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 631, 780
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 232, 233
- Osasunerako eskubidea, 775
  - Adinekoak, 781
  - Adingabeak, 69, 771
  - Atzerritarrak, 226
  - Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 226
  - Burutik gaixo daudenak, 161
  - Emakumeak, 160
  - Energia elektrikoaren hornidura, 32
  - Espetxeratuak, 160, 161
  - Etxerik gabeko pertsonak, 226
  - Hiesa duten gaixoak, 227, 775
  - Hiri hondakinak, 192
- Gizarte eta osasun prestazioak**
  - Adinekoak, 781
  - Etxerik gabeko pertsonak, 53
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 52
- Gizarte eta osasun zerbitzuak, 47, 224**
  - Adinekoak, 781
  - Etxerik gabeko pertsonak, 53
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 52
- Gizarte kokalekuak**
  - Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 625
- Gizarte taldeak, 645**
  - Adinekoak, 645
  - Adingabeak, 615
  - Atxilotuak, 645
  - Atzerritarrak, 627, 645
  - Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 645
  - Burutik gaixo daudenak, 645
  - Emakumeak, 645
  - Espetxeratuak, 645
  - Etxerik gabeko pertsonak, 645
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 645
  - Frankismoaren biktimak, 645
  - Hiesa duten gaixoak, 645



Ijitoak, 645

Terrorismoaren biktimak, 645

### **Gizarte zerbitzuak**

Adinekoak, 493, 781

Egoitzak, 39

Etxez etxeko laguntza, 39

Atzerritarak, 49, 50, 400, 405, 433, 625

Errolda, 48, 57, 450, 469

Drogaren menpekoak

Zaintzapeko kontsumo zentroak, 42

Egoitzak

Adinekoak, 39, 55, 556

Eguneko zentroak

Adinekoak, 556

Emakumeak

Emakumeen aurkako indarkeria, 523

Errolda, 48

Etixerik gabeko pertsonak

Errolda, 49, 57, 61

Ostatu emateko zentroak, 47

Etxez etxeko laguntza

Adinekoak, 39, 556

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Errolda, 54

Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 411, 432

Zaintzapeko kontsumo zentroak

Drogaren menpekoak, 42

### **Grebarako eskubidea**

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Udal haurtzaindegiak, 116

### **Guraso bakarreko familiak**

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251

PFEZ

Zerga-ordainketarako aukera, 112

### **Gutxiengo kulturaletako adingabeak**

Hezkuntza-premia bereziak, 598

### **Gutxiengo kulturaletako pertsonak**

Babes ofizialeko etxebizitzak, 257

Gatazken konponketa, 257

Gizarte kokalekuak, 625

Gizarte zerbitzuak, 411, 432

Gizarteratzea, 761

Koordinazio printzipioa, 411, 432, 625, 629

Ijitoak, 629, 761

Kokalekuak, 411, 432

## **H**

### **Haur hezkuntza**

Bi urtekoen gelak, 66

Hezkuntza plangintza, 69, 77, 770

Hezkuntza-premia bereziak, 67, 593

Hizkuntz ereduak, 69, 77

Jantokiak, 70

Udal prezio publikoak, 116

**Hautagai zerrendak**

Hauteskundeak, 259

**Hauteskunde prozedura, 257****Hauteskundeak**

Hautagai zerrendak, 257, 259

Emakumeak, 257

Hauteskunde prozedura, 257

**Herri lanak**

Bideak eta errepideak, 213, 220, 221

**Herriaren defendatzaileak**

Adingabeak, 663

Teknologia berriak, 663

Atzerritarrak, 627

Giza eskubideak, 661

Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 674

Juan San Martín, 685

Kataluniako Síndic de Greuges, 683

Legegintzaren beharra, 684

Parte hartzeko eskubidea, 658

**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**

Errolda, 209

Eskubideak prozedura administratiboan

Administrazio errekurtsioa jartzeko eskubidea, 119, 120, 148, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

EBko kide diren estatuetako pertsonak, 121

Espedientea ikusteko aukera, 167, 277, 322, 428, 433

Jakinarazpenak, 119, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

Parte hartzeko eskubidea, 237

Herritarren parte-hartzea

Toki administrazioa, 474

Informaziorako eskubidea

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 167, 277, 428

Auzolandegiak, 64

Itxaron zerrendak, 225, 227

Toki administrazioa, 210, 237, 474

Jabetza pribaturako eskubidea, 772

Administrazioaren erantzukizuna, 773

Desjabetzeko proiektuak, 237

Hiri plangintza, 773

Konpentsazio proiektuak, 237

Merkataritzako lokalak, 271

Parke naturalak, 32, 33

Partzelazioa berriro egiteko proiektuak, 237, 244

Sailkapenak, 236, 245, 773

Justizia administrazioaren aurreko eskubideak, 163

Informaziorako eskubidea, 165

Zigor aurrekariak dituzten pertsonak, 165

Kontsumitzaileen eskubideak

Adingabeak, 32, 35

Energia elektrikoaren hornidura, 32, 36

Parte hartzeko eskubidea

Herriaren defendatzaileak, 658

Toki administrazioa, 210, 237

Zergen arloko berdintasuna, 771

**Herritarren parte-hartzea**

Toki administrazioa, 474

**Herrizaingo saila**

Arartekoari laguntzarik ez ematea, 134

**Hezkuntza plangintza**

Haur hezkuntza, 69, 77, 770

Bi urtekoen gelak, 66

Lehen hezkuntza, 67, 69, 71, 75, 77

**Hezkuntza-premia bereziak**

Atzerritar adingabeak, 596, 655

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 67, 596

Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 598

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 67, 71, 593, 596, 598, 632, 655

Osasun premiak, 69, 771

**Hezkuntzarako eskubidea, 770**

Adingabeak

Hezkuntza-premia bereziak, 71, 593

Atzerritar adingabeak

Hezkuntza-premia bereziak, 596, 655

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 68, 632

Gutxiengo kulturaletako adingabeak

Hezkuntza-premia bereziak, 598

**Hiesa duten gaixoak**

Gizarte taldeak, 645

Kirurgia estetikoa, 227, 775

Umeak izateko tratamenduak, 227, 775

**Hiri hondakinak**

Erraustegiak, 192

**Hiri plangintza**

Jabetza pribaturako eskubidea, 773

**Hirigintza baimenak, 238, 240****Hirigintza kudeaketa**

Desjabetzeko proiektuak, 237

Konpentsazio proiektuak, 237

Partzelazioa berriro egiteko proiektuak, 237, 244

Udal zerbitzu publikoak

Erabilera publikoko urbanizazio pribatuak, 243

**Hirigintzako diziplina**

Hirigintza baimenak, 238, 240

Legez kontrako eraikuntzak, 427

**Hirigintzaren antolamendua**

Parte hartzeko eskubidea, 237

Sailkapenak, 236, 245, 773

**Historia klinikoak**

Datu pertsonalak, 228

**Hizkera diskriminatzailea**

Atzerritarrak

Polizia, 133

Sexuagatiko bereizkeria

Emakumeak, 544

**Hizkuntz ereduak**

Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 69, 72

Haur hezkuntza, 69, 77

Lehen hezkuntza, 67, 69, 75, 77

**Hizkuntz normalizazioa**

- Euskara eta administrazio publikoa
  - Funtzio publiko orokorra, 83, 95, 765
  - Internet, 64
  - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 86
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 85
  - Polizia, 63
  - Toki administrazioa, 63
- Euskara eta gizartea
  - Katalogoak, 65, 640
- Euskara eta hezkuntza
  - Hizkuntz ereduak, 67, 69, 72, 75, 77

**HLBGZ**

- Zerga likidazioak
  - Jakinarazpenak, 361, 428

**Homosexualak**

- Erregistro zibila
  - Inprimakiak, 164

**I****Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 674****Ibilgailuak ibilgetzea**

- Legezketasun printzipioa, 291, 428
- Udal tasak, 291, 428

**Igogailuak**

- Merkataritzako lokalak, 257, 271

**Ijitoak, 411, 432**

- Adingabeak, 598
- Gizarte taldeak, 645
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 629, 761
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza
  - Hezkuntza-premia bereziak, 71

**Ikasleen onarpena, 771**

- Adopzioan hartutako adingabeak, 69, 76

**Ikastegiak**

- Irisgarritasuna, 68, 88, 632
- Kokapena eta mantenimendua, 68

**Industriak**

- Keak eta usainak, 190, 776
- Zaratak, 190, 776

**INEM**

- Funtzio publiko orokorra, 84

**Informaziorako eskubidea**

- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 167, 277, 428
- Auzolandegiak, 64
- Itxaron zerrendak, 225, 227
- Toki administrazioa, 210, 237, 474

**Ingurumen egokia izateko eskubidea, 775**

- Atmosferako kutsadura
  - Industriak, 190, 776
  - Ostalaritza establezimenduak, 190, 198, 776
- Garapen iraunkorra
  - Eraikinak, 482
- Hiri hondakinak
  - Erraustegiak, 192

Kutsadura akustikoa  
 Biltokiak, 189, 776  
 Ehiza, 203  
 Kontzertuak, 205  
 Ostalaritza establezimenduak, 189, 193, 194, 196, 328, 432, 776  
 Trenak, 202

Parke naturalak  
 Jabetza pribaturako eskubidea, 32, 33

### **Integritate fisiko eta moralerako eskubidea**

Adingabeak  
 Eskolako indarkeria (bullying), 70, 504, 513, 658, 787  
 Sexu gehiegikeriak, 166  
 Tratu txarrak, 125, 126, 166  
 Atxilotuak, 128  
 Adingabeak, 764  
 Tortura, 135, 158, 762, 763  
 Tratu txarrak, 135, 158, 762, 763  
 Atzerritarrak  
 Polizia, 138  
 Tratu txarrak, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764  
 Emakumeak  
 Emakumeen aurkako indarkeria, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773  
 Espetxeratuak  
 Heriotzak eta suizidioak, 160  
 Identifikatu beharreko pertsonak  
 Tratu txarrak, 125, 136  
 Jarduera sailkatuak, 190  
 Terrorismoaren biktimak, 513, 762

### **Interes publikoa**

Jabari publikoa, 210

### **Internet**

Hizkuntz normalizazioa, 64

### **Intimitaterako eskubidea**

Atxilotuak  
 Datu pertsonalak, 129, 141, 765  
 Aukera Guztiak, 259  
 Auzipetuak, 158  
 Babesik gabeko adingabe atzerritarrak  
 Datu pertsonalak, 132, 577, 627  
 Datu pertsonalak, 764  
 Historia klinikoak, 228  
 Identifikatu beharreko pertsonak  
 Datu pertsonalak, 129, 765  
 Jarduera sailkatuak, 190  
 Kutsadura akustikoa, 765  
 Zigor aurrekariak dituzten pertsonak, 165

### **Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**

Hizkuntz normalizazioa, 86  
 Irigarritasuna  
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 88  
 Lan-baldintzak, 69, 77  
 Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea  
 Eszedentzia amatasunagatik, 86, 91  
 Lekualdatze-lehiaketa, 93

- Ordezkapenak
  - Merezimenduak, 87
  - Titulazioak, 87, 89, 416, 432
- Sartzea
  - Ziurtagiriak, 88

### **Irisgarritasuna**

- Anbulatorioak, 239, 637
- Aparkalekuak, 633
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 639
- Emakumeak
  - Gizarte eskubideak, 523
  - Gizarte zerbitzuak, 638
- Erabilera publikoa duten eraikinak, 638
- Eraikin publikoak, 632, 780
- Etixerik gabeko pertsonak, 639
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 779
- Garraioa, 213, 215, 636
- Ikastegiak, 68, 88, 632
- Kaleen arteko aldeak, 637
- Merkataritzako lokalak, 639, 780

### **Itxaron zerrendak**

- Ginekologia kontsultak, 225, 775
- Informaziorako eskubidea, 225, 227
- Kirurgia
  - Espetxeratuak, 161
- Umeak izateko tratamenduak, 225

## **J**

### **Jabari publikoa**

- Interes publikoa, 210
- Kultur jarduerak
  - Legezkotasun printzipioa, 64

### **Jabari publikoaren bakarreko erabilera**

- Bideak eta errepideak, 212, 216, 365, 427
- Merkatuak, 212

### **Jabetza pribaturako eskubidea, 772**

- Administrazioaren erantzukizuna, 773
- Desjabetzeko proiektuak, 237
- Hiri plangintza, 773
- Konpentsazio proiektuak, 237
- Merkataritzako lokalak
  - Igogailuak, 271
- Parke naturalak, 32, 33
- Partzelazioa berriro egiteko proiektuak, 237, 244
- Sailkapenak, 236, 245, 773

### **Jakinarazpenak**

- Auzibideratzea
  - Atzeritarak, 158
- Prozedura zigortzailea
  - Trafikoa, 119, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767
- Zergen alorreko prozedura, 361, 428

### **Jarduera sailkatuak**

- Biltokiak
  - Zaratak, 189, 776

- Ehiza
  - Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 203
  - Zaratak, 203
- Industriak, 190, 776
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 190
- Intimitaterako eskubidea, 190
- Kontzertuak
  - Zaratak, 205
- Legar-hobien ustiategiak
  - Lizentziak, 199
- Ostalaritza establezimenduak
  - Keak eta usainak, 190, 198, 776
  - Zaratak, 189, 193, 194, 196, 328, 432, 776
- Trenak
  - Zaratak, 202
- Jatorriगतiko bereizkeria**
  - Atzerritarrak
    - Polizia, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
- Jendaurreko ikuskizunak**
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 634
- Juan San Martín**
  - Herriaren defendatzaileak, 685
- Justizia administrazioaren aurreko eskubideak, 163**
  - Erregistro zibila, 171
  - Informaziorako eskubidea
    - Agirien kopiak, 165
  - Zigor aurrekariak dituzten pertsonak, 165

**K****Kale edana**

- Polizia, 130

**Kaleen arteko aldeak**

- Irisgarritasuna, 637

**Kalez kaleko salmenta**

- Dekomisioa, 131, 138

**Kalteen konponketarako eskubidea**

- Terrorismoaren biktimak, 513

**Katalogoak**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Hizkuntz normalizazioa, 65, 640

**Kataluniako Síndic de Greuges**

- Herriaren defendatzaileak, 683

**Keak eta usainak**

- Ostalaritza establezimenduak, 190, 198, 776

**Kirurgia**

- Espetxeratuak, 161
- Itxaron zerrendak
  - Espetxeratuak, 161

**Kontsumitzaileen eskubideak**

- Adingabeak
  - Armak, 32, 35
- Energia elektrikoaren hornidura, 32, 36
  - Osasunerako eskubidea, 32

**Kontzertuak**

- Zaratak, 205

**Kooperazio printzipioa**

- Atzeritarrak
  - Gizareratzea, 49, 50, 405, 433, 625
- Etxerik gabeko pertsonak
  - Gizarte eta osasun zerbitzuak, 53
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Gizarte eta osasun zerbitzuak, 52
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak
  - Gizareratzea, 411, 432, 625, 629
- Irisgarritasuna
  - Garraioa, 213, 215, 636

**Koordinazio printzipioa**

- Atzeritarrak
  - Gizareratzea, 49, 50, 405, 433, 625
- Etxerik gabeko pertsonak
  - Gizarte eta osasun zerbitzuak, 53
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Gizarte eta osasun zerbitzuak, 52
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak
  - Gizareratzea, 411, 432, 625, 629
- Irisgarritasuna
  - Garraioa, 213, 215, 636
- Polizia
  - Desagertuak, 130, 142, 145

**Kultur adierazpenak**

- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 305, 370, 540, 543, 544, 760

**Kultur jarduerak**

- Legezketasun printzipioa, 64

**Kultur ondarea, 64**

- Arkitektura ondarea, 429

**Kutsadura akustikoa**

- Biltokiak, 189, 776
- Ehiza, 203
- Intimitaterako eskubidea, 765
- Kontzertuak, 205
- Ostalaritza establezimenduak, 189, 193, 194, 196, 328, 432, 776
- Trenak, 202

**L****Laguntza behar duten pertsonentzako zainketak**

- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 549, 655

**Laguntza psikiatrikoa**

- Espetxeratuak, 161

**Laguntzak eta bekak**

- Elkarteak, 437

**Laguntzak eta diru-laguntzak**

- Enpresak sortzea
  - Betekizunak, 232, 233
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 253
- Etxebizitzak erostea, 429
- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 545



**Laguntzeko txakurrak, 445, 640****Lana**

Prozedura zigortzailea  
Sindikatuak, 232

**Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea**

Eszedentzia amatasunagatik, 86, 91  
Lizentziak eta baimenak, 83, 548  
Sexuagatiko bereizkeria  
Emakumeak, 546, 759

**Lanerako eskubidea**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 631, 780

**Laneratzea**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 631, 780

**Lanpostu hutsak Larrialdietan, 230****Legar-hobien ustiategiak**

Lizentziak, 199

**Legegintzaren beharra**

Adingabeak, 617  
Babes ofizialeko etxebizitzak, 248  
Herriaren defendatzaileak, 684  
Lurra, 236

**Legez kontrako eraikuntzak**

Hirigintzako diziplina, 427

**Legezkotasun printzipioa**

Ibilgailuak ibilgetzea, 291, 428  
Kalez kaleko salmenta, 131, 138  
Kultur jarduerak, 64

**Lehen hezkuntza**

Eskola ghettoak, 71  
Hezkuntza plangintza, 69, 77  
Hezkuntza-premia bereziak, 71  
Hizkuntz ereduak, 67, 69, 75, 77

**Lizentziak**

Legar-hobien ustiategiak, 199

**Lurra**

Legegintzaren beharra, 236

**M****Merkataritzako lokalak**

Igogailuak, 257, 271  
Irisgarritasuna, 639, 780

**Merkatuak**

Jabari publikoaren bakarreko erabilera, 212

**N****Norbaiten laguntza behar duten pertsonak**

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 251

**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**

Adingabeak  
Eskolako indarkeria (bullying), 70, 504, 513, 658, 787  
Tratu txarrak, 125, 126  
Atxilotuak, 128, 764  
Atzerritarrak  
Tratu txarrak, 125, 126

- Burutik gaixo daudenak, 159
- Ehiza, 203
- Emakumeak
  - Emakumeen aurkako indarkeria, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
- Espetxeratuak, 159
  - Heriotzak eta suizidioak, 160
- Terrorismoaren biktimak, 513

### **Norberaren irudirako eskubidea**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Jendaurreko ikuskizunak, 634

## **O**

### **OHZ**

- Katastro-balorazioa, 104
- Subjektu pasiboa, 115
- Oinarrizko eskubideak, 757**
  - Askatasun ideologikorako eskubidea
    - Aukera Guztiak, 259
  - Atxilotuak
    - Datu pertsonalak, 129, 141, 765
  - Berdintasunerako eskubidea, 758
    - Atzerritarrak, 125, 133, 136, 138, 385, 430, 623, 626, 760, 764
    - Emakumeak, 83, 86, 91, 257, 305, 370, 518, 540, 543, 544, 545, 546, 548, 549, 550, 655, 759, 760
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 761
    - Familia, 657
    - Homosexualak, 164
  - Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
    - Adin-muga, 89
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 83, 84, 88, 98, 631, 766
    - Funtzio publiko orokorra, 765
  - Berriro gizarteratzeko eskubidea
    - Espetxeratuak, 159, 160, 173, 768
  - Bizitzeko eskubidea
    - Emakumeak, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
    - Espetxeratuak, 160
    - Terrorismoaren biktimak, 513, 762
  - Defentsarako eskubidea
    - Zigorra jaso duten pertsonak, 295, 335, 340, 348, 395, 427, 429, 430
  - Grebarako eskubidea
    - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 116
  - Hezkuntzarako eskubidea, 770
    - Adingabeak, 69, 70, 71, 73, 76, 593
    - Atzerritar adingabeak, 596, 655
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 68, 632
    - Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 598
  - Identifikatu beharreko pertsonak
    - Datu pertsonalak, 129, 765
  - Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
    - Adingabeak, 70, 125, 126, 166, 504, 513, 658, 787
    - Atxilotuak, 128, 135, 158, 762, 763, 764
    - Atzerritarrak, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764
    - Emakumeak, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
    - Espetxeratuak, 160

- Identifikatu beharreko pertsonak, 125, 136
- Jarduera sailkatuak, 190
- Terrorismoaren biktimak, 513, 762
- Intimitaterako eskubidea
  - Aukera Guztiak, 259
  - Auzipetuak, 158
  - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 132, 577, 627
  - Datu pertsonalak, 228, 764
  - Jarduera sailkatuak, 190
  - Kutsadura akustikoa, 765
  - Zigor aurrekariak dituzten pertsonak, 165
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
  - Adingabeak, 70, 125, 126, 504, 513, 658, 787
  - Atxilotuak, 128, 764
  - Atzerritarrak, 125, 126
  - Burutik gaixo daudenak, 159
  - Ehiza, 203
  - Emakumeak, 157, 518, 523, 570, 759, 762, 773
  - Espetxeratuak, 159, 160
  - Terrorismoaren biktimak, 513
- Norberaren irudirako eskubidea
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 634
- Politikan parte hartzeko eskubidea
  - Aukera Guztiak, 259
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 766
  - Atzerritarrak, 158
  - Aukera Guztiak, 259
  - Bidegabeko atzerapenak, 164
  - Delituen biktimak, 131
  - Doako laguntza juridikoa, 169
  - Espedienteak ikusteko aukera, 277, 322, 428, 433
  - Identifikatu beharreko pertsonak, 125, 136
  - Zigorra jaso duten pertsonak, 119, 120, 148, 295, 335, 340, 348, 395, 427, 429, 430, 767

### **Oinezkoen herri barruko bideak, 123, 146**

#### **Ombudsman**

- Adingabeak, 663
  - Teknologia berriak, 663
- Atzerritarrak, 627
- Giza eskubideak, 661
- Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 674
- Juan San Martín, 685
- Kataluniako Sindic de Greuges, 683
- Legegintzaren beharra, 684

#### **Ombudsmana**

- Parte hartzeko eskubidea, 658

#### **Ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 59

#### **Osasun alorreko funtzio publikoa**

- Europako Batasuneko funtzio publikoa, 85
- Hizkuntz normalizazioa, 85
- Ordainsariak, 84, 101
- Ordezkapenak
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 84
- Titulazioak, 84

**Osasun laguntza**

Lanpostu hutsak Larrialdietan, 230

Pediatriako larrialdiak, 229

**Osasun lekualdatzeak**

Espetxeratuak, 161

**Osasun prestazioak**

Adinekoak, 781

Atzerritarrak, 226

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 226

Espetxeratuak

Burutik gaixo daudenak, 161

Emakumeak, 160

Kirurgia, 161

Osasun lekualdatzeak, 161

Etixerik gabeko pertsonak

Osasun garraioa, 226

Ginekologia kontsultak

Espetxeratuak, 160

Itxaron zerrendak, 225, 775

Hiesa duten gaixoak

Kirurgia estetikoa, 227, 775

Umeak izateko tratamenduak, 227, 775

Itxaron zerrendak

Informaziorako eskubidea, 225, 227

Kirurgia

Espetxeratuak, 161

Itxaron zerrendak, 161

Laguntza psikiatrikoa

Espetxeratuak, 161

Umeak izateko tratamenduak

Itxaron zerrendak, 225

**Osasun zerbitzuak**

Finantzaketa publikoa, 224

Heriotzak ziurtatzea, 229

Historia klinikoak

Datu pertsonalak, 228

Kirurgia, 161

Laguntza psikiatrikoa, 161

Lanpostu hutsak Larrialdietan, 230

Osasun prestazioak

Atzerritarrak, 226

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 226

Espetxeratuak, 160, 161

Etixerik gabeko pertsonak, 226

Ginekologia kontsultak, 160, 225, 775

Hiesa duten gaixoak, 227, 775

Itxaron zerrendak, 225, 227

Umeak izateko tratamenduak, 225

Pediatriako larrialdiak, 229

**Osasunerako eskubidea, 775**

Adinekoak, 781

Adingabeak

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 69, 771

Atzerritarrak, 226

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 226

Burutik gaixo daudenak, 161  
 Emakumeak, 160  
 Energia elektrikoaren hornidura, 32  
 Espetxeratuak  
     Burutik gaixo daudenak, 161  
     Emakumeak, 160  
     Osasun prestazioak, 161  
 Etxerik gabeko pertsonak, 226  
 Hiesa duten gaixoak, 227, 775  
 Hiri hondakinak  
     Erraustegiak, 192

### **Ostalaritza establezimenduak**

Keak eta usainak, 190, 198, 776  
 Zaratak, 189, 193, 194, 196, 328, 432, 776

### **Ostatu emateko zentroak**

Etxerik gabeko pertsonak, 47

## **P**

### **Parke naturalak**

Jabetza pribaturako eskubidea, 32, 33

### **Parte hartzeko eskubidea**

Herriaren defendatzaileak, 658  
 Hirigintzaren antolamendua, 237  
 Toki administrazioa, 210, 237

### **Pediatriako larrialdiak**

Osasun laguntza, 229

### **PFEZ**

Autolikidazioak, 103, 772  
 Salbuespenak  
     Borondatezko erretiroak, 114  
 Zerga likidazioak  
     Preskripzioa, 106  
 Zerga oinarria  
     Alarguntasun pentsioak, 113  
 Zerga oinarriaren murrizketak  
     Konpentsazio pentsioak, 109  
 Zerga-ordainketarako aukera  
     Guraso bakarreko familiak, 112

### **Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 757**

Adinekoak, 781  
     Egoitzak, 39, 55, 556  
     Eguneko zentroak, 556  
     Etxez etxeko laguntza, 39, 556  
     Gizarte eta osasun prestazioak, 781  
     Gizarte zerbitzuak, 493, 781  
     Osasun prestazioak, 781  
 Adingabeak, 773  
     Adingabeko lege hausleak, 166, 578, 583, 774  
     Armak, 32, 35  
     Atxilotutako adingabeak, 608  
     Atzerritar adingabeak, 596, 655  
     Babes zentroak, 166  
     Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 496, 572, 774  
     Babesik gabeko adingabeak, 568, 570, 773  
     Burutik gaixo dauden adingabeak, 604

- Gizarte taldeak, 615
- Gutxiengo kulturaletako adingabeak, 598
- Osasunerako eskubidea, 69, 771
- Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 589, 774
- Atzerritarrak, 49, 50, 400, 405, 433, 625
  - Errola, 48, 57, 450, 469
  - Osasunerako eskubidea, 226
- Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 510
  - Osasunerako eskubidea, 226
  - Prestazio ekonomikoak, 49
- Burutik gaixo daudenak
  - Gizarte arreta, 227
- Drogaren menpekoak
  - Zaintzapeko kontsumo zentroak, 42
- Elkarteak
  - Laguntzak eta bekak, 437
- Emakumeak
  - Emakumeen aurkako indarkeria, 523
- Errola, 48
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 777
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 247, 248, 249, 254, 255, 768, 777
  - Burutik gaixo daudenak, 251
  - Elkarbizitza unitateak, 255
  - Emakumeak, 533, 778
  - Etxebizitza hutsak, 252
  - Etxebizitzak erostea, 429
  - Etixerik gabeko pertsonak, 253, 510, 779
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 251
  - Gazteak, 253, 507, 778
  - Guraso bakarreko familiak, 251
  - Hirigintza politikak, 246
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 253
  - Norbaiten laguntza behar duten pertsonak, 251
  - Zerga politikak, 246
- Etxebizitzarako eskubidea
  - Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 257
- Etixerik gabeko pertsonak, 53
  - Errola, 49, 57, 61
  - Osasunerako eskubidea, 226
  - Ostatu emateko zentroak, 47
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 52
  - Aparkalekuak, 124, 633
  - Errola, 54
  - Euskara eta gizartea, 65, 640
  - Funtzio publiko orokorra, 83, 98, 631, 766
  - Gizarteratzea, 779
  - Hezkuntza-premia bereziak, 67, 596
  - Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 88
  - Irisgarritasuna, 68, 88, 213, 215, 239, 523, 632, 636, 637, 638, 639, 779, 780
  - Laguntzeko txakurrak, 445, 640
  - Laneratzea, 631, 780
  - Ordaindutakoaren araberakoak ez diren pentsioak, 59
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 84
  - TMIZ, 104, 283, 428, 632, 772

- Familia, 773
  - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 83, 86, 91, 548
- Guraso bakarreko familiak
  - PFEZ, 112
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 411, 432, 625, 629
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 257
- Hiesa duten gaixoak
  - Osasunerako eskubidea, 227, 775
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 775
  - Atmosferako kutsadura, 190, 198, 776
  - Garapen iraunkorra, 482
  - Hiri hondakinak, 192
  - Kutsadura akustikoa, 189, 193, 194, 196, 202, 203, 205, 328, 432, 776
  - Parke naturalak, 32, 33
- Kultur ondarea, 64
  - Arkitektura ondarea, 429
- Lanerako eskubidea
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 631, 780
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 232, 233
- Osasunerako eskubidea, 775
  - Adinekoak, 781
  - Adingabeak, 69, 771
  - Atzerritarrak, 226
  - Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 226
  - Burutik gaixo daudenak, 161
  - Emakumeak, 160
  - Energia elektrikoaren hornidura, 32
  - Espetxeratuak, 160, 161
  - Etxerik gabeko pertsonak, 226
  - Hiesa duten gaixoak, 227, 775
  - Hiri hondakinak, 192

### **Politikan parte hartzeko eskubidea**

- Aukera Guztiak, 259

### **Polizia**

- Arartekoari laguntzarik ez ematea, 132, 134
- Atxiloguneak, 150
- Atxiloketak, 128
- Atzerritarrak
  - Hizkera diskriminatzailea, 133, 623, 760
  - Jatorriagatiko bereizkeria, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764
- Barne-ikerketak
  - Jatorriagatiko bereizkeria, 138
  - Poliziaren txostenak, 125, 128, 136, 138, 385, 430
- Datu pertsonalak
  - Atxilotuak, 129, 141, 765
  - Identifikatu beharreko pertsonak, 129, 765
- Delituen biktimak
  - Internet, 131
- Hizkuntz normalizazioa, 63
- Kale edana, 130
- Koordinazio printzipioa
  - Desagertuak, 142
- Tortura
  - Atxilotuak, 135, 762, 763
  - Auzibideratzea, 158

## Tratu txarrak

- Adingabeak, 125, 126
- Atxilotuak, 135, 158, 762, 763
- Atzerritarak, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764
- Identifikatu beharreko pertsonak, 125, 136
- Poliziaren txostenak, 125, 136, 138

Ziegak, 150

Zitazioak, 130

**Poliziaren alorreko funtzio publikoa**

Karrera administratiboa, 89

Sartzea

Adin-muga, 89

**Preskripzioa**

Zergen alorreko prozedura, 106

**Prestazio ekonomikoak**

Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 49

**Prozedura administratiboa**

Administrazioaren erantzukizuna

Udal zerbitzu publikoak, 211, 222

Babes ofizialeko etxebizitzak, 249, 768

Ebatzi beharra, 322, 433

Errolda

Atzerritarak, 450, 469

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, 210

Hirigintzako diziplina

Hirigintza baimenak, 238, 240

Legez kontrako eraikuntzak, 427

Izena emateko prozedura

Errolda, 209, 354, 433

Prozedura administratiboaren printzipio nagusiak

Kooperazio printzipioa, 49, 50, 52, 53, 213, 215, 405, 411, 432, 433, 625, 629, 636

Koordinazio printzipioa, 49, 50, 52, 53, 130, 142, 145, 213, 215, 405, 411, 432, 433, 625, 629, 636

Prozedura zigortzailea

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 169

Administrazio errekurtsioa jartzeko eskubidea, 119, 120, 148, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

Defentsarako eskubidea, 295, 335, 340, 348, 395, 427, 429, 430

Dekomisioa, 131, 138

Ebatzi beharra, 429

EBko kide diren estatueta pertsonak, 121

Egiazkotasun presuntzioa, 120, 148, 767

Jakinarazpenak, 119, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

Prozedura tipoa, 120, 148, 767

Sindikatuak, 232

Trafikoa, 119

Zergen alorreko prozedura

Jakinarazpenak, 361, 428

PFEZ, 103, 772

Preskripzioa, 106

Zuzenketa prozedura

Errolda, 209, 217



**Prozedura administratiboaren printzipio nagusiak**

## Kooperazio printzipioa

- Atzeritarrak, 49, 50, 405, 433, 625
- Etterik gabeko pertsonak, 53
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 52
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 411, 432, 625, 629
- Irigarritasuna, 213, 215, 636

## Kordinazio printzipioa

- Atzeritarrak, 49, 50, 405, 433, 625
- Etterik gabeko pertsonak, 53
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 52
- Gutxiengo kulturaletako pertsonak, 411, 432, 625, 629
- Irigarritasuna, 213, 215, 636
- Polizia, 130, 142, 145

**Prozedura zigortzailea**

- Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 169
- Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 119, 120, 148, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767
- Defentsarako eskubidea
  - Ehiza, 295, 429
- Dekomisioa
  - Kalez kaleko salmenta, 131, 138
- Ebatzi beharra
  - Trafikoa, 429
- EBko kide diren estatuetako pertsonak
  - Trafikoa, 121
- Egiazkotasun presuntzioa, 120, 148, 767
- Jakinarazpenak, 119, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767
- Prozedura tipoa, 120, 148, 767
- Sindikatuak, 232
- Trafikoa, 119

**S****Sasoikako langileak**

- Adingabeak, 589, 774

**Sasoikako langileen seme-alaba adingabeak, 589, 774****Sexu gehiegikeriak**

- Adingabeak, 166

**Sexuagatiko bereizkeria**

- Emakumeak, 523
  - Alardeak, 305, 370, 540, 760
  - Bazterketa arriskuan dauden pertsonak, 549
  - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, 550, 759
  - Erregistro zibila, 548
  - Etteko langileak, 545, 759
  - Gastronomi elkarteak, 543
  - Hizkera diskriminatzailea, 544
  - Kultur adierazpenak, 305, 370, 540, 543, 544, 760
  - Laguntza behar duten pertsonentzako zainketak, 549, 655
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 545
  - Lanbidea eta familiako bitzita uztartzea, 546, 759

**Sindikatuak**

- Prozedura zigortzailea
  - Lana, 232

**T****Teknologia berriak**

Adingabeak

Herriaren defendatzaileak, 663

**Terrorismoaren biktimak, 762**

Giza eskubideak, 513

Gizarte taldeak, 645

**Titulazioak**

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 89, 416, 432

**Toki administrazioa**

Herritarren parte-hartzea, 474

Hizkuntz normalizazioa, 63

Informaziorako eskubidea, 210, 237, 474

Parte hartzeko eskubidea, 210, 237

**Tortura**

Atxilotuak, 135, 762, 763

**Trafikoa**

Aparkalekuak, 122, 149

Aparkatzeko txartela, 122

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 633

Arartekoari laguntzarik ez ematea, 123

Bizikletak, 123, 288, 428

Oinezkoen herri barruko bideak, 123, 146

Prozedura zigortzailea, 119

Ebatzi beharra, 429

EBko kide diren estatuetakoa pertsonak, 121

Jakinarazpenak, 119, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

Prozedura tipoa, 120, 148, 767

**Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga**

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 104, 283, 428, 632, 772

**Tratu txarrak**

Adingabeak, 125, 126, 166

Atxilotuak, 135, 158, 762, 763

Atzerritarrak, 125, 136, 138, 385, 430, 626, 764

Identifikatu beharreko pertsonak, 125, 136

**Trenak**

Zaratak, 202

**Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 766**

Atzerritarrak

Jakinarazpenak, 158

Aukera Guztiak, 259

Auzibideratzea

Bidegabeko atzerapenak, 164

Delituen biktimak

Internet, 131

Doako laguntza juridikoa, 169

Espedientea ikusteko aukera, 322, 433

Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 277, 428

Identifikatu beharreko pertsonak

Tratu txarrak, 125, 136

Zigorra jaso duten pertsonak

Administrazio errekurtsua jartzeko eskubidea, 119, 120, 148, 295, 335, 340, 348, 395, 427, 429, 430, 767

Jakinarazpenak, 119, 335, 340, 348, 395, 427, 430, 767

**U****Udal haurtzaindegiak**

Udal prezio publikoak, 116

**Udal prezio publikoak**

Udal haurtzaindegiak, 116

**Udal tasak**

Aparkatzeko txartela, 104

Ibilgailuak ibilgetzea, 291, 428

Zaborrak, 118

**Udal zerbitzu publikoak**

Administrazioaren erantzukizuna, 211, 222

Energia elektrikoaren hornidura, 212, 218

Erabilera publikoko urbanizazio pribatuak, 243

Errolda

Atzerritarrak, 208

Izena ematea, 209, 354, 433

Zuzenketa prozedura, 209, 217

Herri lanak

Bideak eta errepideak, 213, 220, 221

Merkatuak, 212

Ur hornidura, 212

**Udal zergak**

HLBGZ

Zerga likidazioak, 361, 428

OHZ

Katastro-balorazioa, 104

Subjektu pasiboa, 115

TMIZ

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 104, 283, 428, 632, 772

**Umeak izateko tratamenduak**

Itxaron zerrendak, 225

**Unibertsitate hezkuntza**

Erreklamazioak, 70

Ikasketak hastea, 70

**Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza**

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Eskola garraioa, 69, 72

Etxez etxeko irakaslaguntza, 70, 73

Haur hezkuntza

Hezkuntza plangintza, 66, 69, 77, 770

Hezkuntza-premia bereziak, 67, 593

Jantokiak, 70

Hezkuntza-premia bereziak, 632

Ikasleen onarpena

Adopzioan hartutako adingabeak, 69, 76, 771

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Lan-baldintzak, 69, 77

Lehen hezkuntza

Hezkuntza plangintza, 67, 69, 71, 75, 77

Hezkuntza-premia bereziak, 71

**Ur hornidura, 212**

**Z****Zaborrak**

Udal tasak, 118

**Zainketa aringarriak**

Gaixo terminalak, 655

**Zaintzapeko kontsumo zentroak**

Drogaren menpekoak, 42

**Zaratak**

Biltokiak, 189, 776

Ehiza, 203

Kontzertuak, 205

Ostalaritza establezimenduak, 189, 193, 194, 196, 328, 432, 776

Trenak, 202

**Zergen alorreko prozedura**

Jakinarazpenak

Zerga likidazioak, 361, 428

PFEZ

Autolikidazioak, 103, 772

Preskripzioa

Zerga likidazioak, 106

**Zergen arloko berdintasuna, 771****Ziegak**

Atxilotuak, 150

**Zigor-arloko prozedura**

Filtrazioak, 158

**Zigorra non bete**

Espetxeratuak, 160

**Zigorrak betetzea**

Burutik gaixo daudenak, 159

Espetxeratuak, 159

**Zuzenketa prozedura**

Errolda, 209, 217



